



memoria sozioekonomikoa euskal autonomia erkidegoa

EGAB

memoria sozioekonomikoa *euskal autonomia erkidegoa*



VOLUME

© Argitalpena: Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea
Gran Vía, 35-1. Solairua
48009 Bilbao
Maketazioa eta fotomekanika: Ikur, S.A.
Inprenta: Baster Talleres Gráficos, S.L.L.
Lege Gordailua: BI-3432-08
ISSN: 1577-1393

JOSÉ LUIS RUIZ GARCÍA Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako
Batzardeko Lehendakaria

07



EGAB

KRISIAREN AURREKARIAK

Memoria Sozioekonomikoaren edizio inprimatu hau Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak onetsi zuen, 2008ko urriaren 22an. Agiriak EAEko 2007ko ekonomiaren jokabidea eta gizarte-egoera aztertzen ditu; halaber, Euskadiko CES osatzen duten eragile sozioekonomikoen eta gizarte-eragileek aurretiaz partekaturiko diagnostikoa eskaintzen du. Horrenbestez, lehenengo eta behin, Memoria Sozioekonomikoaren Batzordea osatzen duten batzordekideei eman nahi dizkiet eskerrak, agiri hau hainbat hilabetetan eztabaidatu dutelako: Mikel Noval (ELA), Antxon Tomasena (CC.OO.), Rafael Izquierdo (LAB), Raúl Arza (UGT), Eduardo Aréchaga (CONFEBASK), Jaime Fernández (CONFEBASK), Rafael Aranguren (Aurrezki Kutxak eta Finantza Erakundeak), Miren Garmendia (Arrantza Erakundeak), Mikel de la Fuente (UPV-EHU), Francisco Javier Sanz (Kooperatibak), eta Felicísimo Ayastuy, Antón Borja, Iñaki Barrenetxea eta M^a Luz de la Cal adituak. Halaber, Euskadiko CESeko Ikerketa eta Proiektu arduradunak diren Leire Ozerin eta Arantza Unzurrunzaga.

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak urtero argitaratzen dituen Memoria Sozioekonomikoak, nire ustez, balio handiko agiriak dira, ondo egiaztaturiko datuetan euskarrituriko ohartarazpen egokiak jasotzen dituztelako; baina, batez ere, gure gizartearen aniztasuna islatzen duten gizarte- eta ekonomia-eragileen baterako ahaleginaren eta hausnarketaren ondoriozko mezuak dituztelako dira hain baliotsuak.

Horri dagokionez, Memoria honek oso ondo betetzen du bere eginkizuna, oraingo krisi ekonomikoak arlo batzuetan guztiz ilundu dituen 2007ko datu positibo batzuk eduki arren. Izan ere, datu horiek aurreiritzi barik irakurrita, oraingo koiuntura kezagarriera eraman gaituzten sintometariko batzuk ikusten dira. Jakina, ez naiz sistemaren kontrolik ezaren ondoriozko finantza-krisiari buruz ari (halako bidegabekeriaren zuzeneko erantzuleengan ere ezusteko ondorioak dituen krisia). 2007ko sektore, jarrera eta jokabide jakinei buruz ari naiz, burbuila-jokabidea agerian jartzen dutenei buruz (gure ekonomia- eta gizarte-errealitatekin kanpoko jokabidea). Eta arlo honexetan hartzen dute indarra Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen ohartarazpenek.

Agintariekin aintzat hartu beharko lituzkete ohartarazpenok, batez ere oraingoa bezalako egoera batean: langabeziak hazkunde handia nahiz iraunkorra izan du, inflazioa gero eta handiagoa da, eta sektore ekonomiko guztietan proiektzio iluna dago, ziurgabetasunaren ondorioz. Ohartarazpen horien artean, aipagarria da heziketan, ikerketan, garapenean eta berrikuntzan ahaleginak handitzea eta ondo orientatzea buruzkoa. Edo, beste arlo batean, hurrengo zazpi urteotan izango den aldaketa demografikoari buruzkoa (gazteek osaturiko etxe kopuruaren murriztapena eta pertsona nagusitzat emakumeak nahiz adineko pertsonak dituztenen hazkundera, biztanleria zahartzeko prozesuaren eraginez); aldaketa horiek ondorioak izango dituzte Euskal Autonomia Erkidegoko ekonomia- eta gizarte-bizitzaren arlo guztietan, eta, epe laburrean, premiazko erronkak sortuko dituzte egoitzaren, gizartearen eta laguntzaren arloan.

José Luis Ruiz García
Lehendakaria

aurkibidea 1

LABURPENA ETA GOGOETA

OROKORRAK

LABURPENA	11
GOGOETA OROKORRAK	12

2

EAE-KO JARDUERA EKONOMIKOA GARATZEKO BALIABIDEAK

EAE-KO GIZA BALIABIDEAK	51
1.1. DEMOGRAFIA ETA IMMIGRAZIOA	52
1.1.1. Ikuspegi demografikoak: EAEko etxe kopuruaren eta motaren bilakaerari buruzko aurreikuspena Perspectivas demográficas	54
1.1.2. Oinarritzko adierazle demografikoen bilakaera	56
1.1.3. Familiak, eta lana eta bizitza pertsonala egokitze arazoak	63
1.1.4. Immigrazioa EAE-n	67
1.2. HEZKUNTZA ETA HEZKUNTZAREN SUSTAPENA	74
1.2.1. Gastu publikoa hezkuntzan	74
1.2.2. Unibertsitatetik kanpoko hezkuntzak	77
1.2.3. Unibertsiteteko ikaskuntzen bilakaera	83
1.2.4. Ikerketa Euskal Herriko Unibertsitatean	87
1.2.5. Hezkuntza adierazleak	90
2. EKOIZPEN EGITURA ETA BERRIKUNTZA EAE-N	111
2.1. EKOIZPEN EGITURA	111
2.1.1. Enpresako egitura eta demografia	111
2.1.2. Nekazaritza eta arrantza sektorea	115
2.1.3. Industria	123
2.1.4. Eraikuntza	129
2.1.5. Zerbitzuak	131
2.1.6. Etxeko produkzioa	144
2.2. I+G+B JARDUERAK ETA IKT-ak	148
2.2.1. EAEko Berrikuntza Sistemaren adierazle nagusiak	148
2.2.2. EAEko enpresa-sektoreko I+G+b jarduerak	152
2.2.3. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Egitamua	166
2.2.4. IKT-en sektorea EAE-n	167
2.2.5. IKT ekipamenduak eta erabilerak EAE-n	169
2.2.6. Merkataritza elektronikoa EAE-n. Familiak eta erabiltzaileak	180
3. INGURUNE NATURALAREN EGOERA EAE-N	185
3.1. EAE-KO 2002-2020 INGURUMEN ESTRATEGIA-REN JARRAIPENA	185
3.1.1. Ingurumeneko 2002-2006 Esparru Programaren balantzea	185
3.1.2. Ingurumeneko II Esparru Programa, 2007-2010	185
3.1.3. Ingurumen-adierazle batzuen azterketa	188
3.2. OSASUNA ETA INGURUMENA: ADIERAZLEAK	207
3.3. INDUSTRIA ENPRESA ETA INGURUMENA	212
3.3.1. Enpresako jarrerak eta estrategiak ingurumenari dagokionez	212
3.3.2. Ingurumen-legeriaren ezagupena eta inplikazioak	213
3.3.3. Enpresaren ingurumen arazoak	214
3.3.4. Enpresen ingurumen-konpromisoa	215
3.3.5. Ingurumena hobetzeko jarduketak	217
3.3.6. Ingurumen arloko informazioa eta hobekuntza	219

3.4. INDUSTRIA ENPRESEK INGURUMENA BABES-

TEKO EGINDAKO GASTUA	219
4. EKOIZPEN AZPIEGITURAK	220
4.1. GARRAIOA	220
4.1.1. Errepideko garraioa	223
4.1.2. Trenbideko garraioa	227
4.1.3. Aireko garraioa	228
4.1.4. Itsasoko garraioa	228
4.2. ENERGIA	231
4.3. TELEKOMUNIKAZIOAK	235

3

EAE-KO EKONOMIA

1. KANPOKO INGURU EKONOMIKOA	242
1.1. FAKTORE EKONOMIKO NAGUSIAK	242
1.2. ARLOKAKO BILAKAERA EKONOMIKOA	244
1.3. EUROPAR BATASUNA	248
1.4. ESPAINIAKO EKONOMIA	251
1.5. AUTONOMI ERKIDEGOAK	255
2. EAE-KO KOIUNTURA EKONOMIKOA	257
2.1. BILAKAERA OROKORRA	257
2.2. BARRUKO ESKARIA	260
2.3. KANPOKO SEKTOREA	262
2.4. ATZERRIKO INBERTSIOA	267
3. SEKTORE PUBLIKOA EAE-N	273
3.1. DIRU-SARRERAK	274
3.2. GASTUAK	277
3.3. AURREKONTU SALDOA	279
3.4. SEKTORE PUBLIKOAREN ZORPETZEA	279
3.5. ERAKUNDEEN TRANSFERENTZIAK	283
3.6. ENPRESA SEKTORE PUBLIKOA EAE-N	286
4. EKONOMIA SOZIALA	289
4.1. KOOPERATIBAK	291
4.2. LAN SOZIETATEAK	293
5. LAN-MERKATUA EAE-N	295
5.1. JARDUERAREN, LANAREN ETA LANGABEZIA-REN BILAKAERA	296
5.1.1. Lana	296
5.1.2. Langabezia	301
5.2. LAN MERKATUAN SARTZEKO ETA BERTATIK IRTETEKO JARIOAK	306
5.2.1. Kontratazioaren panorama	306
5.2.2. Banakako eta taldeko kanporatzeen bilakaera	310
5.3. LAN HARREMANAK ETA LANEKO OSASUNA	311
5.3.1. Laneko osasuna	311
5.3.2. Laneko gatazkak	314
5.3.3. Negoziazio kolektiboa: Soldata-igoera eta lanaldia	316
5.4. SOLDATAK EAE-N	318
5.4.1. Soldata Egiturari buruzko Inkestaren emaitzak (2005)	318
5.4.2. Lan Kostuari buruzko urteroko Inkestaren emaitzak (2006)	322
5.5. ENPLEGUKO POLITIKAK ETA ZERBITZUAK EAE-N	323
5.5.1. Lan eta Immigrazio Ministerioak- EEZPk garaturiko politika aktiboak	324
5.5.2. Eusko Jaurlaritzak sustaturiko politika aktiboak	329
5.5.3. Lanbide-heziketa iraunkorra EAE-n	332
6. PREZIOAK, KOSTUAK ETA ERRENTAK	336
6.1. KONTSUMO ONDASUNEN PREZIOAK	336
6.2. KOSTUAK	339
6.2.1. Laneko kostuak	339

6.2.2. Produktibitatea	341
6.2.3. Laneko kostu unitarioak	344
6.3. ERRENTAK	345
6.3.1. Errenten banaketa faktoriala	345
6.3.2. Per capita errenta	347

4

BIZI-KALITATEA EAE-N	351
1. TALDE INTERESGARRI BATZUEN BIZI-BALDINTZAK	352
1.1. GAZTEAK	353
1.1.1. Jarrerak eta balioak	355
1.1.2. Lan-mundua	357
1.1.3. Etxebizitza eta bizikidetzak	362
1.1.4. Osasuna eta bizi-baldintzak	364
1.2. 55 URTETIK GORAKO PERTSONAK	367
1.2.1. Ezaugarri soziodemografikoak	368
1.2.2. Lan-merkatuarekiko harremanak	372
1.2.3. Gizarteratzea eta gizarte partaidetza	374
1.2.4. Bizi-baldintzak	375
2. OSASUNA ETA OSASUN SISTEMA	378
2.1. OSASUN SISTEMAREN GASTUA ETA FINAN- TZIAZIOA	378
2.1.1. Gastua osasunean	379
2.1.2. Gastua laguntza-jardueran	382
2.2. OSASUNAREN PANORAMA OROKORRA ETA LEHENTAZUNEZKO ARAZOAK	385
2.2.1. Bizi-itxaropenaren eta hilkortasun-tasa- ren adierazleak	385
2.2.2. Eriortasunaren adierazleak	391
2.2.3. Trafiko-istripuak	395
2.3. OSASUN SISTEMA ETA PRESTAZIOAK	396
2.3.1. Egitura, baliabideak eta laguntzako osa- sun-jarduera	399
3. HIRIGINTZA ETA ETXEBIZITZA	410
3.1. LURZORUA ETA ERAIKUNTZA KOSTUAK	411
3.1.1. Lurzorua EAE-n	411
3.1.2. Eraikuntza-kosten estatistika	413
3.2. ETXEBIZITZA ESKAINTZA EAE-N	415
3.2.1. Salmentarako etxebizitza-eskaintza eta prezioak	416
3.2.2. Alokairu-araubidea	421
3.2.3. Eraikuntza-jarduera	424
3.3. ETXEBIZITZA BEHARIZANAK ETA ESKARIA EAE-N	426
3.3.1. Beharizanen kuantifikazioa	426
3.3.2. Beharizana duten pertsonen eta etxeen ezaugarriak eta zioak	427
3.3.3. Behar diren etxebizitzaren ezaugarriak	430
3.3.4. Alokairuko etxebizitza-eskaria	431
3.3.5. Finantzako gaitasuna eta ahaleginak	433
3.4. ETXEBIZITZA POLITIKA	437
3.4.1. Eusko Jaurlaritzaren etxebizitza-politika	437
3.4.2. Foru Aldundien etxebizitza-politika	439
4. AISIALDIA, KULTURA ETA KONSUMOA	442
4.1. FINANTZIAZIOA ETA GASTU PUBLIKOA KULTU- RAN	442
4.2. FAMILIA GASTUA KULTURA KONSUMOAN	444
4.3. EAE-KO BIZTANLERIAREN OHITURAK AISIAL- DIAREN GIZARTE ERABILERAN	447
4.3.1. Komunikabideen eragina	447
4.3.2. Kirolak	449
4.3.3. Musika	450
4.4. KULTURA ETA AISIALDI JARDUEREN ES- KAINTZA EAE-N	452
4.4.1. Kultura ekipamenduetarako bisitari kopu- rura	452
4.4.2. Biltzarrek eta azokak	454
4.5. EKOIZPEN EDITORIALA	458

4.6. KONSUMITZAILEAREN DEFENTSA ETA KON- SUMOA	463
4.6.1. Kontsumo-errekamazioak	463
4.6.2. Errekamazioen ebazpena: kontsumo-ar- bitrajea	464
4.6.3. Merkatuaren kontrola	465
5. POBREZIA ETA GIZARTE BAZTERKERIA	468
5.1. BIZI-BALDINTZEI BURUZKO INKESTAREN EMAITZAK (2006)	468
5.2. LANERATZEKO ARAZOAK DITUZTEN PERTSO- NAK EAE-N	473
5.3. UKAPENAKO ETA GIZARTE BAZTERKERIAKO ARAZOAK	477
6. JARDUERA JUDIZIALAREN BILAKAERA EAE-N	480
6.1. JUSTIZIAREN ZIFRAK	480
6.2. PROZESUAREN ADIERAZLEAK	481

5

GIZARTE BABESA EAE-N	487
1. LANGABETUEN BABESA: EIN-EEZP	493
1.1. PRESTAZIO JASOTZAILEAK ETA LANGABE- TUEK BABESA	494
1.2. LANGABETUAK BABESTEN GASTUA ETA DIRU-SARRERA	497
2. GIZARTE SEGURANTZAREN PRESTAZIOAK EAE-N	499
2.1. GIZARTE SEGURANTZAREN PRESTAZIOAK TRANSFERITU GABEKO KUDEAKETAREKIN	499
2.2. GIZARTE SEGURANTZAREN PRESTAZIOAK TRANSFERITURIKO KUDEAKETAREKIN: PRES- TAZIO EZ-KONTRIBUZIOAK	504
2.2.1. Gizarte Segurantzaren prestazio ez-kontri- buzioak	504
2.2.2. Gizarte Ongizateko Fondoaren laguntza- pentsioak	507
2.2.3. EGL prestazioak	508
3. POBREZIAREN ETA GIZARTE BAZTERKERIAREN AURKAKO NEURRIAK EAE-N	511
3.1. OINARRIZKO ERRENTA	512
3.2. GIZARTE LARRIALDIKO LAGUNTZA	515
3.3. AUZOLAN PROGRAMA	516
4. GIZARTE AURREIKUSPENEN PROGRAMA OSAGA- RRIAK EAE-N	519
4.1. MAGNITUDE NAGUSIEN BILAKAERA	520
4.2. BABESTURIKO BIZTANLERIA	522
4.3. BABESAREN INTENTSITATEA	524
4.4. BGAE-EN DIMENTSIO EKONOMIKOA	526
4.5. BGAE-EN ZERGA ARAUBIDEA	527

6

GARAPENERAKO LANKIDETZA EAE-N	531
1. GIZA GARAPENA, ZORRA ETA GARAPENERAKO LA- GUNTZA MUNDUKO TESTUINGURUAN	534
1.1. GIZA GARAPENAREN INDIZEA. EMAITZAK, 2007	534
1.2. GARAPENERAKO LAGUNTZA OFIZIALA ETA ZO- RRAREN ZAMA	535
1.3. BIDALKETEN MUNDU JARIOA	538
2. LA AYUDA AL DESARROLLO DE LA CAPV	541
2.1. GARAPENERAKO LANKIDETZA ETA LAGUNTZA FONDOA (GLLF). DATUAK, 2007	542
2.2. EUSKAL FONDOA. DATOS 2006	543

7

LEGEGINTZA-JARDUERA EAE-N	547
1. EUSKO JAURLARITZAREN ETA LEGEBILTZARRAREN LEGEGINTZA-JARDUERA	548
2. LURRALDE HISTORIKOETAKO BATZAR NAGUSIEN LEGEGINTZA-JARDUERA	554



1

laburpena eta gogoeta orokorrak

1

Laburpena

1.1. Demografia eta immigrazioa

Biztanleen Udal Erroldako datuen arabera¹ (2007ko urtarilekoak) EAEko biztanle kopuruak 2000n hasitako goranzko joeraren barruan jarraitzen du. Hain zuzen ere, 2.141.860 biztanle daude (+0,38 2006ari dagokionez), 2000n baino 43.264 biztanle gehiago.

Beste alde batetik, EUSTATen "Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Estatistika" 2006ko azaroan gaurkotu zen, eta, bertan adierazitakoaren arabera, Euskadik 2.129.339 biztanle ditu; ikusten denez, kopuru hori Erroldakoa baino apur bat txikiagoa da. Emaiza horiek berretsi egin dute biztanleria suspertzen ari dela eta joera-aldaketa dagoela. Adin taldeen arabera, aipagarria da urtebetetik gorako kopuruak (%16,5) izandako hazkundera, baita 1-4 urte birtarteko taldeak (%13,6) izandakoa ere. 65 urtekoen eta hortik gorako kopurua berdina mantentzen da, eta gazteen kopurua (biztanleria osoaren %18,6) baino apur bat handiagoa da. Bestalde, biztanleria aktiboa %65ekoa da, aurreko bosturtekoan bezala.

Gainera, 2006an 95.313 atzerritar dago, hau da, biztanleria osoaren %4,5, eta ratio hori ia berdina da INEren

Erroldako zifretatik ondorioztatzen denarekin (%4,4). Talde horrek %200etik gorako hazkundera izan du, 2001ari dagokionez. Talderik ugariena lan egiteko adinean iritsi da gure erkidegora (20-40 urte). Gehienak Hego Amerikakoak dira (%43,8), eta batik bat Kolonbiako, Boliviako edo Ekuadorreko nazioekotasuna duten emakumeak dira. Europarrek bigarren immigrante talde nagusia osatzen dute (%27,8), eta talde horretan errumaniarrak eta portugaldarrak dira nagusi.

Bestalde, EUSTATen Jaiotza eta Heriotza Estatistikek 2006ari buruz emandako behin-behineko datuetan adierazitakoaren arabera, hazkunde begetatiboa (biztanleriaren aldaketa, jaiotzen eta heriotzen arteko kenduratzat, migrazio-mugimenduak aintzat hartu barik) positiboa izan da, hirugarren urtez jarraian, eta hori EAEn ez da 1986tik gertatu: urte horretan 20.043 jaiotza egon ziren, aurreko urtean baino %1,7 gehiago, eta 17.912 heriotza, 2005ean baino %7,8 gutxiago. Horren ondorioz, 2.131ko hazkunde begetatiboa egon da, hau da, milako 1ekoa. EAEko hazkunde begetatiboak, ordura arte, etengabeko beherakada izan du 14 urtetan, eta, behin betiko daturik lortu ez diren arren, esan daiteke 2004an beherakada hori gelditu egin dela; dena den, hurrengo urteotan berretsi egin beharko da joera hori. 60ko hamarkadako eta 70eko hamarkadako lehenengo urteetako saldo begetatibo gogorren ostean, 1990ean hazkunde hori negatiboa izan zen lehenengoz 1937tik, eta gutxienez 1996an izan zen; urte horretan,

¹ Biztanleen Udal Erroldako zifrak ezin dira zorrotz konparatu Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsukoekin, metodologia desberdina erabiltzen baitute.

hain zuzen ere, EAEk 2.000 biztanle baino gehiagoko hazkunde begetatibo negatiboa izan zuen.

Beste alde batetik, EUSTATen Migrazio Mugimenduen Estatistikak, 2006ari buruzkoak, 14.458 pertsonako irabazia zenbatu du EAEn (aurreko urtean baino %9 gehiago), eta migrazio-saldoa positiboa izan da zazpigarren urtez jarraian.

EUSTATEk 2005ean egindako 2015era arteko biztanleria-proiektzioetan oinarrituz, bestalde, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak *"Azterketa demografikoa eta etxebizitza-merkatuaren epe luzerako bilakaera EAEn"* txostena egin du 2007an, EAEko etxebizitza-eskariaren bilakaeran eragina duten faktore demografikoak eta soziologikoak aztertzeko, baita epe ertainerako egoera aurreikusteko ere.

Alde batetik, hurrengo urteotan familiak eratzeak adinean dagoen gazte kopuruak beherakada handia izango duela dago aurreikusita. Hain zuzen ere, EUSTATEk egindako aurreikuspeneren arabera, 2005etik 2015era, adin-tarte horretan dagoen biztanle kopuruak 130.000 pertsonako murriztapena izango du (%20 inguru). Aldaketa horrek nabarmen urrituko du lehenengo etxebizitza behar duen biztanleriaren presioa. Bestalde, biztanleria zahartzeko prozesuak aurrera jarraituko du. Aipagarria da pertsonarik zaharreneen kopuruak izango duen hazkundeak: 80 urteko eta hortik gorako biztanleen artean 50.000 pertsona inguruko hazkunde egongo da (%+50), eta zifra osoa 150.000 pertsonatik gorakoa izango da. Horrenbestez, biztanleria segmentu horri estuen lotutako etxebizitza-beharrian hazkunde nabaria izango dute (birgaikuntza, lorpena, etab.).

Azken batean, 2005etik 2015era, EAEn 95.000 familia inguruko hazkunde egongo da (urtean 10.000 baino apur bat gutxiago). Hazkunde garrantzitsua izan arren, familiazifren hazkundearen eritmoa moteldu egingo da apurka-apurka. Nolanahi ere, demografia- eta gizarte-bilakaera horrek aurrerantzean ere presioa egingo du EAEko etxebizitza-merkatuan; hala ere, presio horren indarra, segurutik, azken urteotan baino txikiagoa izango da, eta, geldiro-geldiro, murrizten joango da.

1.2. Hezkuntza

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerketa Sailaren gastuen aurrekontuaren behin betiko likida-

zioa 2.403.160 eurokoa izan da 2007an, eta horrek %12,3ko hazkunde adierazten du aurreko urteari dagokionez.

Gastu hori EAEko BPGren %3,62 da, eta ia 2 hamareneko hazkunde izan du 2006ko ehunekoari dagokionez (%3,46). Irakaskuntzen arabera bananduta ikusten denez, BPGrekiko hazkundeak gora egin du Unibertsitate kanpoko Irakaskuntzan (haur, lehen eta bigarren hezkuntza, Helduen Hezkuntza Iraunkorra kanpo utzita), %2,59tik %2,6ra igaro baita; baita Unibertsitateko Hezkuntzan ere (%0,42tik %0,48ra; baina Araubide Bereziko Hezkuntzan behera egin du (hizkuntza, musika, dantza,...), %0,12tik %0,8ra igaro baita.

Hezkuntza Sailak ikasle bakoitzeko duen gastuaren ratioak (ikasle guztiak, hau da, araubide orokorreko eta bereziko ikasleak) berriro ere gora egin du, 4.887 eurotik 5.477 eurora, azken urte honetan ikasle kopurua hazi arren. Datuan bananduta ikusten denez, ikasle bakoitzeko gastuak gora egin du Unibertsitate kanpoko Irakaskuntzan (5.159 eurotik 5.489 eurora) eta Unibertsitatekoan (3.801 eurotik 4.859 eurora); baina Araubide Bereziko Irakaskuntzan behera egin du.

Hezkuntza eta Kultura Ministerioak argitaraturiko azken datuen arabera (2005ari buruzko datuak), Hezkuntza Administrazioak BPGri dagokionez egindako gastua %3,38koa da EAEn (%2,74 Unibertsitate kanpoko Hezkuntzan eta %0,57 Unibertsitateko Hezkuntzan), eta ehuneko hori Estatuan %3,46 da (%2,58 Unibertsitate kanpoko Hezkuntzan eta %0,77 Unibertsitateko Hezkuntzan). Bestalde, Unibertsitate kanpoko Hezkuntzan ikasle bakoitzeko gastua, Okupazio Heziketa kanpo utzita, 2005ean 6.070 eurokoa izan da EAEn, eta, beraz, geure erkidegoak dauka ikasle bakoitzeko gasturik handiena. Estatuko batez bestekoa 4.520 eurokoa da.

EAEn 2007-08 ikasturtean izandako matrikulazioari dagokionez, EUSTATen datuen aurrerapeneren arabera, unibertsitate aurreko matrikulazioaren %1,6ko hazkunde egon da. Aurreko urteetan bezala, hazkunde horren zatirik handiena beheko mailetan (Haur eta Lehen Hezkuntza) izandako gorakadaren eraginezkoa da; hala ere, aipagarria da matrikulazioaren hazkunde DBHn izandakoaren bestekoa izan dela lehenengoz, bertan %0,1eko hazkunde egon baita; aurreko urtean %0,8ko beherakada egon zen. Beste modu batera esateko, suspertze demografikoa 12 urtetik gorako adinetara heldu da, antza denez.

Aldiz, Derrigorrezkoaren osteko Goi Irakaskuntzako (DOGI) matrikulazio kopuruak berriro ere behera egin du (%-1). Beherakadarik handiena Goi Mailako LHko matri-

kulazioetan egon da, beherakada hori aurreko ikasturtekoa baino txikiagoa izan arren (%-2, eta aurreko ikasturtean %-5,7). Aipagarria da Maila Ertaineko LHko matrikulazioan izandako hazkundetxoa (%0,1).

EAEn irakaskuntza ertainetan dabiltzan ikasleen %53,8k Batxilergoa aukeratzen dute, derrigorrezko irakaskuntza amaitu ondoren; gainerako %46,2k Lanbide Heziketa aukeratzen dute. Horren ondorioz, urteetako egonkortasunaren ostean, 2006-07 ikasturtean Batxilergoa nagusitu egin zitzaion LHri, eta azken hori mantendu egin da azken aldi honetan.

Goi Irakaskuntzako matrikulazioak (lehenengo bi zikloetan), unibertsitate publikoen eta pribatuen multzo osorako, EInek emandako datuen arabera, beherazko joerari eutsi dio Estatuan eta EAEn. Matrikulazioek titulazioen arabera izandako bilakaeraren azterketak, EUSTATEko datuek diotenez, murriztapena adierazten du guztietan, arkitekturan izan ezik (goi mailakoa eta teknikoa), 2005-06 eta 2006-07 ikasturteetan.

Unibertsitateko biztanleriak 18-25 urte bitarteko biztanleria osoari dagokionez duen ehunekoa goranzkoa izan da 2004-05 ikasturtera arte, eta 2005-06 ikasturtean beherantz hasi zen. Horrela, 2004-05 ikasturtean %32,4 izan zen, eta 2006-07 ikasturtean %32. Estatuan, aldiz, joera alderantzizkoa da, eta unibertsitateko biztanleriak biztanleria osoari dagokionez duen ehunekoa, 18-25 urteko adinartean, %31,1etik %31,3ra igaro da. Beste modu batera esateko, Estatuan unibertsitateko biztanleriak 18-25 urte bitarteko biztanleriarekiko duen ehunekoa EAEn baino 7 hamarren txikiagoa da, baina goranzko bilakaera dauka.

Beste alde batetik, EUSTATEN datuen arabera, unibertsitateko hirugarren zikloko (doktorego) matrikulazioak 2001-02 ikasturtetik izandako goranzko joera apurru eginda 2005-06 ikasturtean. Gehienek (guztizkoaren %82,7) sare publikoko zentroetan egiten dituzte hirugarren zikloko ikasketak. Generoari dagokionez, azkenik, emakume kopurua gizonena baino handiagoa da (1.242 eta 1.144, hurrenez hurren).

Hezkuntza-adierazleei dagokionez:

- Derrigorrezkoaren osteko bigarren hezkuntza amaitu duten helduen ehunekoa. MEC-Ebaluazio Institutuak emandako datuen arabera, EAEn 2005ean hezkuntza hori amaitu duen

biztanleria helduaren ehunekoa (20-64 urte) %62,2 da, eta Estatuan %50,2. EUROSTATen datuek diotenez, hori amaitu duen biztanleria helduaren (25-64 urte) ehunekoa 2005ean %48,5 da Estatuan, eta EB-27n %69,3.

- Biztanleriak ikaskuntza iraunkorrean duen partaidetza. EBk ezarritako helburua 2010ean bertan hezkuntza iraunkorreko partaidetzaren batez besteko maila %12,5 izatea da, gutxienez, lan egiteko adinean dauden biztanleen artean (25-64 urte). EAEn, Irakas Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundeak (IVEI-ISEI) emandako datuen arabera, tasan aurrerakuntza iraunkorra egon da, eta 1992ko %3,5etik 2006ko %12,4ra igaro gara; beraz, ia lortu egin da 2010erako ezarritako helburua.
 - EUROSTATen datuen arabera, partaidetzarik altuena duten herrien artean honako hauek daude: Suedia (2005ean %32,1), Danimarka (%29,2), Erresuma Batua (%26,6), Finlandia (%23,1), Holanda (%15,6), Eslovenia (%15) eta Austria (%13,1).
 - Eskolatzeara. OCDEren eta EAEn datuak konparatuta ikusten denez (EUSTATEk eskainitako datuak), gure erkidegoan eskolatzeara OCDEn erregistraturiko batez bestekoen gainetik daude, 5-14 eta 15-19 adinartean, baina 20-29 adinartean ez da halakorik gertatzen, azken tarte horretan hiru puntu beherago eta Estatuko maila berean baikaude, %22ko eskolatzeara-tasarekin.
- 5-14 urteko tartean eskolatzeara derrigorrezkoa da, eta EAEn %99,7 ikastetxeetara joaten dira. 15-19 urteko tartean, gure erkidegoa batez bestekotik gora egon arren (%82,7 eta %81,5, hurrenez hurren), oraindik ez gara herri hauetako tasara iristen: Grezia (%97,4), Belgika (%94), Polonia (%91,8), Txekiar Errepublika (%90,4) eta Alemania (%88,8). Haurrei dagokionez, ia erabatekoa den eskolatzeara 5 edo 6 urterekin hasi arren, Belgikan, Danimarkan, Frantzia, Islandian, Italian, Zeelanda Berrian, Espainian eta Erresuma Batuan haurren %90 baino gehiago 3 edo 4 urterekin eskolatzeara dira. EAEn, EUSTATEN datuen arabera, 2005ean 3 eta 5 urte bitarteko ikasle guztien %99,4 zeuden eskolatzeara.
- Garaiz aurreko eskola-uztea². Lisboa 2000ko martxoko Europako Kontseiluaren ostean, ikasketak garaiz aurretik uzten dituzten gazten batez bestekoa (%19,3) murriztu beharra funtsezko alderditzat agertu eta

² Garaiz aurreko eskola-uztearen tasa kalkulatzeko, 18 eta 24 urte bitarteko biztanleak hartzen dira aintzat, gehienek bigarren hezkuntzako lehenengo zikloa amaitu (ISCED 0, 1, 2 edo 3c) eta, inkesta egin aurreko lau asteetan, ikasten jarraitu ez dutenak edo heziketarik egin ez dutenak.

2010erako helburu haxe ezarri zen: “estatukide guztiek gutxienez erdira urritu behar dute eskola-uztearen tasa (2000ko datuei dagokionez), EBko batez besteko indizea %10etik gorakoa ez izateko”.

ISEI-IVEIren datuek diotenez (Irakas Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundea), EAEn bi aldi bereizten dira. 1992-1999 aldian adierazle horrek bilakaera positiboa izan zuen, eta eskola-uztearen tasa %25,4tik %13,9ra igaro zen (azken hiru urteetan gorabehera txikiak). 2000-2006 aldian, gorabeheratxo iraunkorrak egon dira ehuneko horren inguruan; eta, egiaztaturikoaren arabera, eskola-uztearen ehunekoan 10 puntu jaistea lortu ondoren, zaila da hori hobetzea. Horrela, 2006ko ehunekoak %14,5 izan zen.

EUROSTATEk emandako datuen arabera, Espainiako eskola-uztearen tasa %30 ingurukoa izan da 2006an. EB-15eko tasa %17koa da; hala eta guztiz ere, beste 10 herri sartu direnetik, tasa %15,1era jaitsi da.

- PISA-2006 proiektua. Gaitasun nagusia: zientziak. Bigarren mailako gaitasunak: irakurmena eta matematika.
 - Zientzia-gaitasuna. EAE (495 puntu) Estatuko batez bestekoaren gainetik dago (488 eta 31. posizioa), baina oraindik ere OCDEren (500 puntu) eta parte hartzen duten zenbait AAEEren azpitik dago. Izan ere, EAEn atzetik Katalunia eta Andaluzia baino ez daude. Bilakaeraren ikuspegitik begiratuta³, esan daiteke hobetu egin dela, 2003an izandako bilakaerari dagokionez; izan ere, urte horretan 484 puntu zituen, eta 28. eta 29. postuen artean zegoen, eta orain 495 puntu ditu, eta 25. eta 26. postuen artean dago.
 - Emaitzarik onenak lortu dituzten herriak Finlandia, Hong-Kong eta Kanada dira.
 - Matematika-gaitasuna. EAE atzeratu egin da sailkapenean: 2003an 502 puntu zituen eta 20. nahiz 21. postuen artean zegoen, Estatuaren eta OCDEko batez bestekoaren gainetik; eta 2006an 501 puntu ditu eta 23. nahiz 24. postuen artean dago. Dena den, oraindik ere OCDEko (498) eta Estatuko (483) batez bestekoaren gainetik dago.

Parte hartu duten bederatzi autonomia-erkidegoetatik, lehenengo postuan Errioxa dago 526 punture-

kin (7. eta 8. postuen artean), eta EAE bosgarren postuan dago. Puntuaziorik altueneko herriak Txina-Tapei, Hong-Kong, Finlandia, Korea eta Holanda izan dira.

- Irakurmen-gaitasuna. Herri guztietan beherakada orokorra egon da, eta hori oso nabaria da Espainiako estatuan: Espainia 26. postutik 35. postura igaro da, 57 herriren artean.

EAEk ere atzera egin du sailkapenean: 2003an 497 puntu zituen eta 15. eta 16. postuen artean zegoen, Estatuaren eta OCDEko batez bestekoaren gainetik, 2006an 487 puntu ditu eta 23. eta 24. postuen artean dago, Estatuko batez bestekoaren gainetik baina OCDEkoaren azpitik.

Parte hartu duten bederatzi autonomia-erkidegoetatik, lehenengo postuan Errioxa dago (492 puntu), eta gero EAE eta Aragoi (483 puntu). 2006an, irakurmen-gaitasunean errendimendurik handiena izan duten herriak Korea, Finlandia, Hong-Kong eta Kanada izan dira.

1.3. I+G+b jarduerak eta IKT-ak

2006an, I+G jardueretan egindako gastua, EUSTATEk emandako datuen arabera, 907,7 milioi eurokoa izan da, eta horrek %10,2ko hazkundea adierazten du aurreko urteari dagokionez. Gastu hori BPGren %1,47 da, orain arte izandako ehunekorik handiena, zenbait urtetan nolabaitteko egonkortasuna izan ondoren. Horrela, EAE, oraindik ere Estatuko batez bestekoaren (%1,2) gainetik dago, I+G arloan egindako ahaleginari dagokionez; hala ere, EB-15eko (%1,91), EB-25eko (%1,85) eta EB-27ko (%1,84) batez bestekoaren azpitik dago.

I+G arloko gastuaren zatirik handiena (%79,5) enpresek egiten dute. Enpresen eta teknologia-zentroen artean bananduta, enpresa-betearazpena %71,9 ingurukoa da, eta ehuneko horrek gainditu egiten ditu Estatuan izandako %55,5 (EINen datuen arabera) eta EB-15eko %64,1 (EUROSTAT); hain zuzen ere, Finlandiakoaren (%71,3) eta Alemaniakoaren (%69,6) antzekoa da. Hala eta guztiz ere,

³ Aurreko emaitzekiko konparazioak balio nahiko erlatiboa dauka, eta kontuz erabili behar da, ikerketa horietan zientziak bigarren mailakoak izan baitira; hau da, 2006an aintzat hartutako eskala guztiak betetzen ez zituzten galdera kopuru mugatua egon zen. Irakurmen- eta matematika-gaitasunei ere (orain bigarren mailakoak) arrazoibide horixe aplikatu behar zaie.

ratioa oraindik ere urrun dago Luxenburgokotik (%84,9) eta Suediakotik (%74,9).

I+Gko gastuaren finantziarioari dagokionez, lehen sektorearen garrantzia murriztu egin da apur bat, azken urteotan; baina oraindik ere berori da finantziario-iturri nagusia. Izan ere, EAE Lisboako helburutik 4,8 puntura dago: I+Gko gastu osoaren %66 fondo pribatuarekin finantzatzea. I+Gko gastuaren finantziario pribatuaren ehunekorik altuenak, EUROSTATEk adierazitakoaren arabera, Luxenburgo (2003an %69,3), Japonian (%2004an %74,5), Suitzan (2005ean %69,7), Finlandian (2005ean %69,3) eta AEBn (2003an %63) daude.

I+G jardueretako langile kopurua gero eta handiagoa da, arduraldi osoarekiko baliokidetasunean neurtuta; 2006an 13.065,3 pertsona izan ziren, hau da, landunen %13,2 (aurreko urtean %13); milako hori Estatukoa (%9,6) eta EBkoa (%9,5) baino handiagoa da, eta hurbil dago (kasu batzuetan gainditu egiten ditu) honako hauetaketik: Frantzia (%14,1), Alemania (%12,6) eta Japonia (%13,5).

Horietatik, %62,3 (8.145 pertsona) ikertzaileak dira. EB-25ean ehuneko hori, EUROSTATEk dioenez, %60 ingurukoa da. Emakumeak ikerketa-jardueran duen eginkizuna gero eta handiagoa da (aldi honetan %5,4ko hazkundea), baina gizonarena baino txikiagoa da oraindik ere (%31,98 eta %69,14, hurrenez hurren). Estatuan, EINen arabera, emakumeak langileria osoaren %38,2ra heltzen dira; ehuneko hori, horrenbestez, EAEkoa baino handiagoa da.

Manufaktura-industriak I+G arloan egindako gastuaren %71,9 inguru I+G intentsitate altuko edo ertain-altuko sektoreetan dago, eta %24,5 intentsitate ertain-baxuko sektoreetan egiten da. Aurreko urtean, ehunekoak %73 eta %23,6 izan ziren. Hala eta guztiz ere, kontuan hartu behar da zenbait sektorek, adibidez, "metalezko gaiak" sektoreak (arduraldi osokoa duten I+Gko langile kopurua handia), automobil-sektorerako ekipamendua sortu ahal dutela (intentsitate ertain-altua).

Nolanahi ere, datu orokorrekin (teknologia-zentroak ere barne) agerian jarri dutenez, gure jokabidea antzekoa da. 2005etik 2006ra, teknologia-eduki altuko eta ertain-altuko manufaktura garrantzia galdu dute, teknologia-eduki baxuko eta ertain-baxuko alde. Zerbitzu-sektorearen ka-

suan, "intentsitate altukotzat" hartzen diren jardueren multzoen garrantziak (informatika-jarduerak eta I+Gkoak) gorakadaxoa izan du zerbitzu-sektorearen gastu osoari dagokionez, eta %54,2tik %56ra igaro dira.

EUSTATEn Teknologia Berrikuntzaren Inkestak⁴ datuen arabera, teknologia-berrikuntzarako jardueretan egindako gastu osoak %8,8ko hazkundea izan du, aurreko aldiari dagokionez, eta 2006an 2.353 milioietara heldu da. Gastu hori BPGren %3,8 da, eta ehuneko hori egonkor mantendu da azken urteotan. Gastu horren zatirik handiena barruko I+G eta makinaren erosketara bideratzen da (hurrenez hurren, %38,6 eta %37,4), eta BPGren %1,5 eta %1,4 da, hurrenez hurren.

EUSTATEk dioenez, enpresen tamaina handitzean gastua ere handiagoa da, baina aktibitate handiena duten enpresak 3-9 langile bitartekoak dira (segurutz, zerbitzu-enpresak eta enpresa oso berritzaileak); 50-99 langile bitartekoak, oster, ez dira hain aktiboak.

EINek gai honi buruz emandako informazioak banantze maila desberdina erabiltzen du (250 enplegatutik beherako enpresak eta 250ko nahiz hortik gorako enplegatuko enpresak); bertan oinarrituz ikusten denez, Estatuan 250 enplegatutik beherako enpresen partaidetza (jardura berritzaileen gastu osoan) 250 enplegatutik gorakoena baino txikiagoa da (%39,9 eta %60,1); EAEn, berriz, banaketa orekatuagoa da (%49,5 eta %50,5).

"Statistics in focus, EUROSTAT, 61/2007" agirian esaten denez, jardura berritzaileak egiten dituzten enpresa guztiek ez dute produktu berriak edo nabarmen hobetutako produkturik sartzen merkatuan.

EINen datuen arabera, 2004-06 aldian, Estatuko 9 enplegatutik gorako enpresen %25,3k berriak dute produktua edo prozesua, eta EAEn ehunekoak %27,7 da. Horrenbestez, enpresa berritzaileen ehunekoak 2,4 puntu handiagoa da EAEn Estatuan baino.

EUSTATEk dioenez, enpresa berritzaileak (produktuan edota prozesuan) enpresa guztiei dagokienez duten ehunekoak egonkor mantendu da azken urteotan, eta %16,5etik %16,9ra bitartekoa da. Berrikuntzak egiten ari diren edota horietan huts egin duten enpresak kontuan hartuz gero (EBEAK: enpresa berritzaileak edo berrikun-

⁴ Edozein tamainako sektoreko eta edozein jardura-sektoreko EAEko enpresetara zuzendutako inkesta, lehen sektorer, herri-administratziara eta etxeko zerbitzura izan ezik (EINek ez bezala, hezkuntza osoa hartzen du barruan). Hau da, biztanleria-esparrua hauxe da: edozein tamainatako establezimenduak eta honako jardura-sektore hauetakoak, EJZN-93KO 1. ikuskapenaren arabera: C, D, E, F, G, H, I, J, K, M, N eta O. Beraz, honako hauek ez dira sartzen: lehen sektorea (A eta B), herri-administrazioa (L) eta etxeko zerbitzua (P).

tzak egiten ari direnak nahiz horietan huts egin dutenak), ehunekoa apur bat handiagoa da, eta hor ere nolabaiteko egonkortasuna dago, kasu honetan, %17 ingurukoa. 9 enplegatutik gorako enpresa berritzaileak soilik aintzat hartuz gero, enpresa berritzaileen ehuneko osoa %32,7 da (aurreko urtean %33,3). 9 enplegutik gorako EBEen kasuan, ehunekoa %34,5 da (aurreko urtean %35,2).

Berrikuntza teknologiko motaren arabera, prozesuko berrikuntzak nagusitu egiten zaizkie produktuko berrikuntzei, bai 9 enplegatutik gorako establezimenduetan eta bai 9tik beherakoetan. Hain zuzen ere, enpresa kopuru osoari dagokionez, prozesuko berrikuntzak egin dituztela dioten ehunekoa %15,1 da (aurreko urtean %15,4); produktuko berrikuntzak egin dituztenak, berriz, %5,8 baino ez dira (aurreko urtean %5,7). 9 enplegatutik gorako establezimenduetan ehunekoak handiagoak dira, baina hemen ere prozesuko berrikuntza nagusitu egiten zaio produktuko berrikuntzari: prozesuko berrikuntzen kasuan %27,9 eta produktuko berrikuntzetan %14,4 (aurreko urtean %27,7 eta %14,3, hurrenez hurren).

Finantziazio publikoa jaso duten enpresa berritzaileen ehunekoak beherantz jarraitzen du, 2001-03ko %36,8tik 2004-06ko %27,6ra. CIS 2004 deritzonak emandako datuen arabera, finantziazio publikoa (tokikoa, Estatukoa edo EBkoa) jasotzen duten jarduera berritzaileak egiten dituzten enpresen ehunekoa nabarmen aldatzen da herri bate-tik bestera, Bulgariako %5etik Norvegiako %44ra. Aipagarria da zenbait ehunekok behera egitea CIS 3-etik (2000) CIS 4-ra (2004).

EUSTATEk egindako Berrikuntzako Europako Indizean (SII) ezartzen denez, 2007an EAE 13. postuan zegoen EB-27an, eta bertako SII 0,37 izan zen (gehienekoa 1,00), eta aurreko urtekoa 0,35 izan zen. Saillapeneko lehenengo postuetan honako hauek jarraitzen zuten: Suedia (0,73), Finlandia (0,64), Danimarka (0,61), Alemania (0,59) eta Erresuma Batua (0,57). Europar Batasunekoa izatea aintzat hartu barik, talde horretan Suitza (0,69), Israel (0,62), Japonia (0,60) eta AEB (0,55) ere sartzen dira.

Azkenik, I+G+b deritzonari dagokionez, 2007ko uztailaren 24an, Gobernu Kontseiluak 2010eko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Egitamua onetsi zuen; EAEko CESeo Osoko Bilkurak horri buruzko txostena egitea onetsi zuen (2007/1 txostena).

IKTen arloan, eta, hain zuzen ere, sektore horri dagokionez, EUSTATEk emandako datuen arabera, 2005ean sektore horren barruan 2001 enpresa zeuden; sektoreak EAEko balio erantsiaren %3,8 eta enpleguaren %2,2 izan zuen.

Teknologia horiek sartzeari eta erabiltzeari dagokionez, EINek emandako datuen arabera, 2007an EAE lehenengo postuan dago, autonomia-erkidegoen saillapenean, telefonoa duten etxebizitzaren ehunekoan (%91,2); hirugarren postuan ordenagailua duten etxebizitzaren ehunekoan (%63,6), Madrilen eta Kataluniaren atzetik (aurreko aldian Melilla ere aurretik); laugarren postuan internet duten etxebizitzaren ehunekoan, Madrilen, Kataluniaren eta Melillaren atzetik (aurreko aldian seigarren postuan zegoen); seigarren postuan (aurreko aldian bosgarrenean) sakelako telefonoaren arloan; eta bederatzigarrenean, azkenik, banda zabala duten etxebizitza ehunekoan (aurreko aldiko posizio bera).

EUROSTATEk eta EINek emandako datuen arabera, 2007an, interneterako sarbidea duen 16-74 urte bitarteko kide bat (gutxienez) duten familien ehunekoa %42 izan da EB-27an, %43 EB-25ean eta %46 EB-15ean. Horrenbestez, EAE (hurrenez hurren, %50 eta %40) Europako batez bestekoa baino apur bat beherago dago; gainera, erreferentziako herrietatik urrun dago: Suedia, Finlandia, Danimarka, Luxenburgo eta Erresuma Batua. Baita EBn orainsu sartu diren herri batzuetatik urrun ere (adibidez, Eslovenia, %58).

Erabilerari dagokionez, EINen datuek diotenez, EAEk goranzko joerarekin jarraitzen du, baina posizioak galdu ditu Estatuko saillapenean. Horrela, 2004tik 2007ra, azken hiru hilabeteetan PCa erabili duten 16-74 urte bitarteko pertsonen ehunekoa %50etik %59ra igaro da; interneten kasuan %42tik %54ra igaro da. Hala eta guztiz ere, lehenengo kasuan, 5. postutik 6.era igaro da saillapenean, eta bigarrenean 4.tik 6.era.

EUROSTATen eta EINen datuak (2007) konparatuta ikusten denez, internet erabiltzearen arloan, EAE inkestaren aurreko hiru hilabeteetan internet gutxienez astean behin erabili duten pertsonen ehunekoa %45,8 da, eta ehuneko hori Estatuko %44ko (EINen arabera, %44,4) batez bestekoaren gainetik dago; hala ere, EB-27ko (%51), EB-25eko (%53) eta EB-15eko (%55) batez bestekoen azpitik dago.

Transakzio elektronikoei dagokionez, aintzat hartuta internetez erosketarik egin ez duten pertsonen ehunekoa, EAE (%54) posizio onean dago gainerako autonomia-erkidegoei dagokionez, bik baino ez baitute ehuneko txikiagorik, Madrilak (%53,4) eta Balearrek (%52,4); hala ere, EBko batez besteko balioetatik urrun dago. Horrela, EUROSTATEk emandako datuen arabera, 2007an internetez zerbitzu pribaturako ondasunik edo zerbitzurik inoiz ere erosi ez duten

pertsonen ehunekoa %29 da EB-27an nahiz EB-25ean eta %27 EB-15ean.

Enpresen IKT ekipamenduen arloan, Enpresen Informazio Gizarteari buruzko Inkesten (IGI-enpresak) azken edizioan adierazten denez, EAEko enpresetan IKT ekipamenduak sartzeko prozesua gorantz doa.

Halaber, enpresen tamainak bereizketarako funtsezko elementua sartzan du berriro ere. Horrela, enplegu-geruza guztietan IKTen sarrera nabarmen handitu arren, enplegu-tamaina handiagoko establezimenduek hazkunde urriagoak dituzte, euren ekipamenduen hobekuntza-bitarte urriaren eraginez. Hala eta guztiz ere, desberdintasunak handiagoak dira establezimenduen arabera enpleguaren arabera baino. Izan ere, besteak beste, establezimendu txikiak aurrerakuntza handiagoa izan dute, eta handietan enplegatu guztiek ez dute halako ekipamendurik.

Interneten edo elektronikaren bidezko merkataritza-transakzioei dagokienez, EUROSTATek emandako datuen arabera, on line erosketa-aginduak jaso zituzten enpresen ehunekoa (internet, EDI edo beste sare batzuk)⁵, 2006an, %15 izan zen EB-25ean eta %16 EB-15ean. EAEn, EUSTATEk dioenez, salmenta elektronikoa duten 9 enplegatu-tik gorako enpresa ehunekoa EBkoaren antzekoa da, baina aintzat hartu behar dira orri-oinean jasotako metodologia-aldaketatxoak.

1.4. Ingurune naturala

Airearen kalitatea, Eusko Jaurlaritzak emandako informazioaren arabera, "ona" edo, behintzat, "onargarria" da, aztertutako azpierre guztietan. Horrela, airearen kalitate txarreko edo oso txarreko egunen ehunekoa, aintzat hartuta 11 laginketa-estazioetako egun kopuru osoa (1.045), %1,5etik %1era murriztu da 2006tik 2007ra, eta termino absolutuetan 58 egunetik 43ra. Bestalde, airearen kalitate moderatuko egunen ehunekoa %5,6an murriztu da, baina termino absolutuetan murriztapena egon da, 224 egunetik 206 egunerako.

Atmosferako kutsagarriei dagokienez, 2007an, SO₂-ko igorpenek ez dute inoiz ere *eguneroko* balioa gainditu, Airearen Kalitatea Zaintzeko eta Kontrolatzeko Sare osoan; gainera, gehieneko *ordutegi* balioa ez da gainditu (350 µgr/m³). NO₂ igorpenetan urte zibilean⁶ 18 aldiz baino ez da gainditu legeko muga, gehi tolerantzia-bitartea, NO₂-ko ordutegi-balioetarako. 230 µgr/m³-ko ordutegi muga behin baino ez da gainditu, ERANDIOko estazioan (247 µgr/Nm³). 2007an CO emisioek ez dute gainditu okto-ordutegia batez bestekoa, 10 mgr/m³-an ezarritako legeko mugaren gainetik. Hala ere, PM₁₀ igorpenetan oraindik ere gainditu egiten dira legeko mugak.

Uren kalitateari dagokienez, Eusko Jaurlaritzak emandako datuen arabera, ibaien kasuan, makro-ornogabe bentonikoen egoeraren emaitzek agerian jarri dutenez (MB indizea), 1999tik 2004ra egoerak hobera egin du. Hala eta guztiz ere, azken kanpainetan (2004-2007) egoera egonkortu egin da, eta, zenbait kasutan, txarrera egin duela esan daiteke. Dena den, IFQ-R adierazleak (baldintza fisikimikoko orokorren egoeraren adierazlea) ez du berretsi makro-ornogabe bentonikoen egoera egonkortu egin denik. Adierazle horrek hoberako joera nabaria adierazten du berriro. Oro har, gure ibaiek etorkizunari begira duten egoera itxaropentsua dela esan daiteke. *Trantsizioko uretan*, oraindik arazoak egon arren, bilakaera ona ikusten da. 2002an masen %7k soilik betetzen zituzten helburuak, eta 2007an ehuneko hori %50 da. *Kostaldeko uretan* egoera guztiz ona da; izan ere, laginketa-estazioen %86etan helburuak bete egin dira. *Barrualdeko hezeguneetan eta lakuetan*, dirudienez, bilakaera positiboa dago, baina ez da nahikoa. 2001-2002ko ziklo hidrologikotik aztertutako 15 hezeguneetatik, lehenengo zikloan %7k soilik betetzen zituzten helburuak, baina azken zikloan helburuak betetzen dituzten hezeguneen ehunekoa %27 da. Azkenik, *bainuko urei* dagokienez, 2007an egindako azterketaren arabera, aintzat hartuta bainuko uren kalitatea kudeatzeari buruzko urriaren 11ko 1341/2007 Errege Dekretua (Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren Zuzendaria jaso duena), bainuko 17 zonaren sailkapenak txarrera egin du. Hobekuntzei dagokienez, 2 ikusten dira (Saturraraneako hondartza eta Ulibarri-Ganboa urtegia).

Iraunkortasun kontzeptua aztertzeko, aintzat hartu behar dira baliabidearen kontsumoa eta horren erabilera-

⁵ Inkesta egin aurreko urtean. On line %1 baino gehiago saldu eta lanaldi osoko 9 enplegatu baino gehiago duten enpresak soilik hartzen dira aintzat.

⁶ Urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra.

ren eraginkortasun maila. Horri dagokionez, EINen datuen arabera, banaketa-sarean galdutako ur kantitateak, orain arteko murriztapen-joeraren ostean, 2005ean %33,3ko hazkundera izan du (28,6 Hm3 dira); hain zuzen, ur erabilgarri guztiaren %11,3 da, eta 2004an ehuneko hori %7,5 izan zen. Estatuko banaketa-sare publikoetan ur erabilgarri guztiaren %17,9 galdu zen (aurreko urteko ehuneko bera). Aldiz, uraren per capita kontsumoa jaitsi egin da zenbait autonomia-erkidegotan (baita EAEn ere). Hain zuzen ere, %6,7, eta 140 pertsona/litro/eguneko kontsumoa dago; horrela, Estatuko batez bestekotik behera gaude, bertan 171 pertsona/litro/egunetik 166rako murriztapena egon baita.

Giza kontsumorako uraren kalitatearen osasun-irizpideak ezarri dituen otsailaren 7ko 140/2003 Errege Dekretuan oinarrituz ondorioztatzen denez (98/83/EE Zuzentarauaren transposizioa), EAEko biztanleria osoaren zatirik handienak (%93) kalitate oneko ura kontsumitzen du.

EAEn uraren balio unitarioa, 2005ean, 0,91 euro/m3 izan da, eta, beraz, %9,6ko hazkundera egon da, 2004ari dagokionez. Estatuan, batez besteko prezioa 0,98 euro/m3 (%+2,1) da.

Hiriko hondakin uren tratamenduari dagokionez, EAEko biztanleriaren %82k estolderia-zerbitzua zuen, Hondakin Uren Araztegi (HUA) bati konektatuta. %3k tratamenduko soluzio autonomoak ditu, ezin baita HUA batera konektatu, orografiaren eta irisgarritasun zaileko etxebizitza isolatuak egotearen ondorioz. Lotura-prozesua amaitutzat jotzen denean, EAEko biztanleria osoaren %97 bigarren mailako tratamendua duten instalazioetara konektaturik egongo da. EAEko datuak EUROSTATEk emandakoekin konparatuta ikusten denez, EAE ekipamendurik oneneko herrietariko bat da EBn.

Bestalde, energiaren azken kontsumoak gora egin du 2004tik 2005era, eta 5.596 Ktep-era heldu da; hain zuzen ere, kontsumoak industrian (%3,4) eta garraioetan (%3,7) izandako hazkunderaren ondorioz (kontsumoan eraginik handiena duten sektoreak). Energia motaren arabera, EAEko energia-eskariaren zatirik handiena petrolioaren deribatua da (%39,1), eta Ktep-etan %1eko hazkundera izan du, aurreko urteari dagokionez. Horren atzean elektrizitatea ("eskariaren %29 eta %+4,7) eta gas naturala (eskariaren %22,3 eta %-10,5) daude. Horietatik oso urrun, energia berriztagarriak, erregai solidoak eta energia deribatuak daude (horren barruan, batez ere, industria-prozesuetatik edo energiaren transformaziotik -adibidez, baterako sorkuntza- berreskuraturiko beroa sartzen da).

2006an, neurturiko energia-intentsitatea 1996koaren %91 izan zen, eta, 2004ari zegokionez, lau puntu hobetu da, BPG energiaren azken kontsumoaren gaintetik hazi baita.

Hondakinen sorkuntzaren eta kudeaketaren arloan, aipagarria da kontseilu honek beti erabili dituen bi iturrien artean dagoen desadostasuna; horrela, EINek eta lhobek emandako datuetatik ez dira ondorio berberak ateratzen, aldagai guztiei dagokionez.

EINen *Industria-sektoreko hondakin-sorkuntzari buruzko inkesta* deritzon datuek agerian jarri dutenez, EAEn arriskutsuak ez diren hondakinen sorkuntza murriztu egin da (%-3,1). Hala eta guztiz ere, hondakin arriskutsuen sorkuntzak berriro ere gora egin du 2004tik 2005era (%16,7), aurreko urtean bezala, eta 2002-2003an gertaturikoaren alderantziz, azken bitarteko horretan murriztapena egon baitzen.

lhoberen "2008ko ingurumen-adierazleak" txostenean ikusten denez, 2004tik 2005era %3ko murriztapena egon da hondakin arriskutsuen sorkuntzan, gainera, horien kudeaketan aurrerakuntza handia egon da: 2000n %34 baino ez zen balioztatu, eta 2005ean, berriz, %51 (2010erako konpromisoa: %65).

Hiri-hondakinei dagokionez, EINen *Hiri Hondakinen Bilketaren eta Tratamenduaren Inkestak* agerian jarri duenez, 2005ean, EAEn gaikako bilketa izan duten hiri-hondakinen beherakada izan arren (%-14,7), bildutako hiri-hondakin nahasien kantitatea handitu egin da (%+12,2).

lhoberen datuen arabera, 2004tik 2005era, hondakinen birziklapenaren bilakaerak joera positiboa erakusten du; horrela, 2000n guztizkoaren %22 birziklatu zen, eta 2005ean, ostera, %29. Horren zatirik handiena paperaren nahiz kartoiaren eta beiraren gaikako bilketatik zetorren.

Negutegi-efektuko gasen (NEG) igorpenari dagokionez, Kyotoko protokoloak 2008-2012 bitarteko aldirako zuzeneko isurpenen hazkundera %15ean murrizteko konpromisoa ezarri dio Espainiako estatuari, oinarritzko urteari dagokionez (1990). 2006an, NEGen isurpen osoak (zuzenekoa eta zeharkakoa, hau da, inportaturiko elektrizitateari loturiko isurpenak ere barruan aintzat hartuta) 25,5 milioi tona CO2 baliokideko hazkundera izan zuen EAEn, "EAEko negutegi-efektuko gasen isurpenen 1990-2006ko inbentarioa" deritzon adierazitakoaren arabera; beraz, %0,4ko hazkundera egon da 2004ko isurpenei dagokionez, eta %21,9koa, oinarritzko urtearekin konparatuta.

Horrenbestez, azken lau urteotan isurpenak 25 milioi tona inguruan egonkortu dira. Zuzeneko isurpenak soilik kontuan hartuta, iturri horretan adierazitakoaren arabera, horiek 23 milioi tona CO₂ baliokidera handitu ziren 2006an; hortaz, %1,3ko murriztapena egon da 2005eko isurpenei dagokienez, eta %43,1eko hazkundera, oinarritzko urtearekin konparatuta.

“2008ko industria ekobarometroak” adierazitakoaren arabera, ingurumena oraindik ere ez da ikusten errentagarritasunaren hiru faktore nagusien artekotzat (kontsultaturiko enpresa guztien %5ek soilik ikusten baitu halakotzat); handitu egin da, lehenengoz, ingurumen-eraginaren murriztapenak onura ekonomiko handiak ekar ditzakeela uste duen enpresa kopurua (%31, eta 2004an %23).

Ingurumen-legeria indar eragile handia da, ingurumen-hobekuntzak sartzeko; hain zuzen ere, kontsultaturiko enpresen %22ren ustez, legeria horrek funtsezko sustapena egin du, azken bi urteotan inplementaturiko ingurumen-hobekuntzetan.

Ingurumen-legeria betetzeari buruzko iritzia dago-kionez, enpresen %31k esan du ez dakiela sektoreko enpresek legeria hori zein neurritan betetzen duten; kontsultaturiko enpresen %22ren ustez, sektoreko enpresen %60k edo gehiagok bete egiten dute legeria hori; eta, %34ren iritzian, euren sektoreko enpresa guztien %40k baino gutxiagok betetzen dute.

Ingurumen-jarduketaren kostuaren arloan, enpresen %42k (2004n %46) uste dute finantza-mugek ingurumen-jokabidea hobetzeko oztupoak jartzen dizkietela.

Enpresen ingurumen-arazoei dagokienez, 2007an, bi arazo nagusiak arriskutsuak ez diren hondakinak (kontsultaturiko enpresa guztien %46) eta hondakin arriskutsuak (%43) izan dira. Gainera, aipagarria da lehenengoei hartzen duten garrantzia (2004an inkestaturiko enpresen %29k aipatu zituzten, eta 2007an, berriz, %46k). Bigarrenez, baina aurrekoetatik hurbil, hondakin arriskutsuak daude (%43, 2004ko ehuneko bera), eta, hirugarrenez, aierako isurpenak (%27, 2004an bezala).

Ingurumena Kudeatzeko Sistemaren ezarkuntza, ingurumen-konpromisoa ez ezik, lehiakortasun-faktore garrantzitsua da nazioarteko merkatuan. Ihobek emandako datuen arabera, ingurumen-ziurtagiriaren edo ziurtagiri “berdeen” kopurua (ISO 14001, Ekoscan Araua, Europako EMAS edo UNE 150.301-Ekodiseinua Araudia) gero eta handiagoa da. Horrela, 2006tik 2007ra, ziurtagiri kopurua

1.026tik 1.101era igaro da (75 ziurtagiri gehiago). Ingurumenarekiko konpromiso handiago hori, halaber, EAEko enpresek Europako Ingurumen Sariak Enpresari deritzenetan duten partaidetza aztertzean ere egiaztatzen da.

Industria-enpresek ingurumena babesten egindako gastuei buruzko inkestaren (EINek egindakoa) azken datuek agerian jarri dutenez, EAEn enpresa horiek ingurumena babesten egindako gastuak %6,9ko hazkundera izan zuen, 2004ko gastuari dagokionez. Gastua BPGren ehunekotzat neurtuta ikusten denaren arabera, azken urteotan %0,38ren inguruko egonkortasuna egon da. Horrela, EAE oraindik ere laugarren postuan dago, Galiziaren (%0,39), Nafarroaren (%0,4) eta Asturiasen (%0,67) atzetik. Aurreko urtean, postu hobean zeuden autonomia-erkidegoak Gaztela eta Leon nahiz Nafarroa (biak %0,41ekin) eta Asturias (%0,56) izan ziren.

Ingurumeneko 2007-2010eko II. Esparru Programa (EAEko Garapen Iraunkorreko 2002-2020ko Ingurumen Estrategiatik sortu dena), azkenik, 2007ko ekainaren 5eko Gobernu Kontseiluan onetsi zen.

1.5. EAE-ko egoera ekonomikoa eta kanpoko testuingurua

NMFk egindako kalkuluaren arabera, munduko BPGk (eskuratzeko ahalmenaren parekotasunean oinarrituz haztatuta) %4,9ko hazkundera izan zuen 2007an, aurreko urteko ehunekoa baino puntu erdi gutxiago, eta horrek agerian jartzen du ekonomiaren hazkunde-erritmoa moteltzen ari dela.

Bestalde, *ekonomia aurreratueta*n, ekonomia-jarduerak moteltze nabarmena izan zuen urte amaieran, batez ere AEBn, bertan arrisku handiko hipoteken merkatuak eragina izan baitzuen era askotako merkatuetan eta finantza-erakundetan. Oro har, ekonomia aurreratuek %2,7ko hazkundera izan zuten (aurreko urtean %3koa); bertan, AEBko BPGren erritmoa zazpi hamarrenetan moteldu zen (%2,2, eta lehen %2,9); euroaren zonakoa %2,6 hazi zen, aurreko urtean baino 2 hamarren gutxiago, eta Japoniakoa %2,1 (2006an baino hiru hamarren gutxiago). Asiako lau industria-herri berrietan (Korea, Txinako Taiwan probintzia, Singapur eta Hong Kongeko RAE), hazkundera %5,6koa izan zen (aurreko urtean bezala).

2007an, Erreserba Federalesko interes-tasak igo ostean (2003tik 2006ra %1etik %5,25era), AEBn ordaindu gabeko hipoteka-zifrak hazi egin ziren, eta etxebizitzaren prezioak jaisten hasi ziren.

Horrela, zorra ez ordaintzearen eraginezko hipoteka-betearazpenek hazkunde ikusgarria izan dute, eta 2007ko abuztuan *subprime* edo arrisku altuko hipoteken⁷ krisia sortu zen; krisi hori aktiboetan oinarrituriko bonoen munduko merkatu guztietara hedatu da (*Asset Backed*), eta, gero, bankuen arteko merkatuetara, kreditu-merkatuetara eta burtsetara ere bai.

Bankuek likidezia eskatzen dute, maileguan utzitako dirua euren aktiboetatik aterata, hipoteka-zelulak edo korporazio- nahiz hipoteka-aktiboen multzoetan euskarrituriko beste obligazio batzuk jarrita; beraz, *subprime* deritzenen arriskua zor-bonoetara eta titulazioetara igarotzen da, eta hortik pentsio- eta inbertsio-fondoetara. Horren ondorioz, erakunde gero eta gehiagok likidezia-arazoak dituzte, inbertitzaileei dirua itzultzeko edo mailegu-emaileengandik finantziazioa jasotzeko.

Abuztuko finantza-krisiaren alderdirik dramatikoenetariko bat likidezia galtzea izan zen. Banku zentralak, horri erantzuna emateko, epe laburreko finantziatorako sarbidea eman zuten eskala handian. Halaber, Erreserba Federalesko bankuen arteko egun baterako tasa murriztu zuen, eta Europako Banku Zentralak eta Japoniako Bankuak, berriaz, esku-hartze tasak krisia baino lehenagoko garaiko mailetan mantentzea erabaki zuten.

Hain zuzen ere, Fed deritzonak murriztapenak egin zituen esku-hartze tasan: irailean eta urrian (bien artean, oinarritzko 75 puntu), eta, gero, abenduan (oinarritzko beste 25 puntu). Horrela, erreferentziako interes-tasa %4,25ekoa izan zen urte-amaieran, urtarilekoa baino puntu bat baxuago. Europako Banku Zentralak bitan igo zuen egun baterako esku-hartze tasa, martxoan eta ekainean; kasu bakoitzean, oinarritzko 25 puntu. Horrela, erreferentziako interes-tasa %4 izan zen urte amaieran, urtarilean baino puntu erdi handiagoa. Japoniako Bankuak, bestalde, bigarrenez igo zuen esku-hartze tasa (2006ko uztailen zero tasaren politika utzi zuenetik), eta, horrela, erreferentziako interes-tasa %0,75 izan zen urte amaieran, urtarilean izandako maila baino 35 hamarren gehiago.

Euroaren zonako inflazioak, KPIA orokorraren arabera neurtuta, %2,1eko batez bestekoa izan zuen, aurreko bi urteetako mailak baino 0,1 puntu gutxiago. Hiruhileko profilaren azterketak agerian jarri duenez, tasak egonkor mantendu ziren, %2tik behera, uda igaro arte; eta, gero, hazi egin ziren. Bilakaera hori, neurri handian, energiaren eta janariaren prezioek izandako hazkunde gogorren eraginezkoa izan zen. Petrolioaren prezioek ere gora egin zuten, baita erregarriak ez diren beste lehengai batzuen prezioek ere. Brent upelaren prezioa 95,6\$/b-koa izan zen azaroan, eta 2007ko batez besteko prezioa 72,51 \$/b izan zen (2006an 65,15 \$/b izan zen).

Laneko kostuek, bestalde, ibilbide moderatua izan zuten, 2007ko hirugarren hiruhilekora arte, eta laneko kostu unitarioek gorakadatxo izan zuten, laneko produktibitateak izandako hazkunde urriagoaren eraginez.

Finantza-tentsioek ere eragina izan zuten kanbio- eta burtsa-merkatuetan. Dibisen merkatuan, AEBko dolarren kanbio-tasa errealek atzerakada nabaria izan zuen, eta, horren ondorioz, euroaren, yenaren eta erregimen flotagarriko beste moneta batzuen (adibidez, Kanadako dolarra eta ekonomia sorberrien dibisa batzuk) balioak gora egin zuten.

Burtsa-merkatuetan, efektua oso desberdina izan zen, bai burtsen eta bai sektoreen nahiz balio taldeen artean. Ibex 35 deritzonak %7,3ko igoerarekin itxi zuen urtea (aurreko urtean %31,8ko igoera), 15.182,3 punturaino (aurreko urtean 14.146,5 puntu). Europako Euro Stoxx indizeak %16,1eko hileko batez besteko hazkundea izan zuen, aurreko urtean izandakoa (%22,3) baino txikiagoa. New Yorkeko Burtsako Dow-Jones indizeak %15eko urteko batez besteko hazkundea izan zuen (2006an %9), eta Tokioko Burtsako Nikkei indizeak %4,4ko batez besteko hazkundea izan zuen.

Espainiako ekonomiari dagokionez, EINen datuen arabera, BPGren hazkunde erreala ere moteldu egin zen; hain zuzen ere, 2007an %3,8ko batez besteko hazkundea izan zuen, aurreko urtean baino hamarren bat gutxiago; hiruhileko profila beheranzkoa izan zen, eta laugarren hiruhilekoan %3,5eko tasa egon zen.

Ekonomiaren hazkunde-erritmoa moteltzearekin batera, enpleguaren hazkunde-erritmoa ere moteldu egin zen. Urte horretan sorturiko lanaldi osoko lanpostuen guz-

⁷ Krisiaren jatorria arrisku hori txarto baloratzean dago.

tizkoak %3ko hazkundera izan zuen, aurreko urtean baino bi hamarren gutxiago. Ekonomiako lan-faktorearen ageriko produktibitateak %0,8ko hazkundera izan zuen, aurreko urtean baino hamarren bat gehiago; eta produktu-unitateko lan-kostua (PLK) %2,7raino azeleratu zen, aurreko urtean baino lau hamarren gehiago. Bestalde, inflazioak, KPIren bidez neurtuta (urteko batez bestekoa), %2,8ko igoera izan zuen, 2006an baino zazpi hamarren gutxiago. Hala eta guztiz ere, kontsumoko prezioek erakutsitako joera goranzkoa izan zen, argi eta garbi, eta abenduko urte batetik besterako datua %4,2 da (aurreko urtean %2,7).

EDBrekiko prezio-aldea murriztu egin zen, 2006tik 2007ra 1,4 puntutik 0,7 puntura igaro baitzen. KPIak %2,8ko hazkundera izan zuen Espainian, eta %2,1koa euroaren zonan (aurreko urtean %2,2 eta %3,6); inflazio-tasan, Espainia laugarren postuan jarri zen, euroaren zonako herrien artean.

BPGren hazkunde errealeak, autonomia-erkidegoetan, 2007an, EInen Eskualde Kontabilitatearen datuetan adierazitakoaren arabera, Europako batez bestekoa gainditu zuen kasu guztietan (EB-15ean %2,6; EB-25ean %2,8 eta EB-27an %2,9). Estatuko batez bestekoa %3,8 izan zen, eta erkidego guztiek %3,8tik gorako hazkundera izan zuten. Hazkunde errealik handienekoa Aragoi izan zen (%4,5), gero Gaztela-Mantxa (%4,2), eta hirugarrenez Galizia eta Errioxa (biek %4). Extremadurak, EAEk, Ceutak eta Madrilak autonomia-erkidegoen bigarren blokea osatu zuten. Dinamikoenetan hazkundearen eragilea manufaktura-industriaren bilakaera ona izan zen. Aragoiren kasuan, eraikuntza ere eragilea izan zen, 2008ko Nazioarteko Erakusketaren ondorioz. Aurreko urtean, hazkundearen lehenengo postuetan egon ziren erkidegoak Murtzia, Kantabria, Galizia eta EAE izan ziren.

EUSTATen Hiruhileko Kontu Ekonomikoen lehenengo aurrerapenean (2008ko otsaila) adierazitakoaren arabera, EAEn BPGren hazkunde errealearen erritmoa moteldu egin zen 2007an; izan ere, %3,9ko hazkundera egon zen, aurreko urtean baino hiru hamarren gutxiago. Hala eta guztiz ere, emaitza Estatukoa eta EBkoa baino apur bat hobea da.

Jarduera-erritmoa moteltzea, bestalde, barruko eskariaren jokabideak azaltzen du; izan ere, kanpoko eskariak, aurreko urtean bezala, 5 hamarren murriztu du BPGren hazkundera. Horrela, barruko eskaria aurreko urtean baino hiru hamarren gutxiago hazi zen (%4,2 eta %4,5), azken kontsumoak indarra galtzearen eraginez, eta, neurri txikiagoan, inbertsioak indarra galtzearen ondorioz, %5,9ko hazkundera izan baitzuen (aurreko urtean %6).

EAEko esportazio ez-energetikoak jasotzen dituzten eremu geografikoen arabera, OCDEra eta, horren eremua-
ren barruan, EB-15era doazenek jokabide hobea dute; hain zuzen ere, guztizkoaren %65,5 dira eta %7,9ko hazkundera izan dute. Aipagarriak dira Frantziarako, Alemaniarako, Italiarako (aurreko urtekoak baino txikiagoak izan arren) eta Erresuma Baturako esportazioak (EAEk EB-15era egindako esportazio guztien %47,6), baita Belgikarako (%+37) eta Luxenburgorako (%+20,6) esportazioek izandako hazkunde handiak.

Eskaintzaren aldetik, industriak eta zerbitzuek tasa bereko hazkundera izan dute (%3,8); baina, lehenengo sektorean hazkundera moteldu egin da, aurreko urtean hazkunde-ratioa %4,9 izan baitzen, eta bigarrenean, ostera, aurreko urteko hazkunde bera egon da. Beste alde batetik, eraikuntzak %4ko urteko batez besteko hazkunde-tasa izan du, horrela, 2006ko bigarren hiruhilekoan hasitako moteltzearekin jarraitu eta %2,9ko aldaketa-tasarekin amaitu du 2007a.

Enpleguari dagokionez, datu positiboak egon dira; hazkundearen urteko batez bestekoa %2,4koa izan da (aurreko urtean %2,3), eta langabezia-tasa, BJAren datuek diotenez, %3,3 izan da (aurreko urtean %4,1).

Jarduera moteltzeak ez zuen eraginik izan enplegu-sorkuntzan, baina bai produktibitate-irabazietan. Izan ere, lanaren ageriko produktibitateak hazten jarraitu zuen, baina aurreko urtean baino gutxiago (%1,5 eta %1,9, hurrenez hurren).

Bestalde, alderdirik txarrenetariko bat inflazioa izan da. BPGren deflaktatzailea %3,3 izan da (aurreko aldian baino hamarren bat handiagoa), eta kontsumoko prezioen urte batetik besterako hazkundera %4,2 izan zen 2007ko abenduan (Estatuko balio bera).

Amaitzeko, Ekonomia eta Ogasun Ministerioiko Kanpo Inbertsioen Erregistroko datuen arabera, EAEn atzerriko inbertsioak hazkunde nabaria izan du 2007an, behin-behineko datuek diotenez. Horrela, 2007an EAE laugarren postuan egon zen inbertsio-bolumenean, honako hauen atzetik: Madril (22.242,6 milioi euro jasotzen ditu, ABDEak kenduta; Katalunia (2.521,4 milioi euro jasotzen ditu), eta Valentzia (1.729,1 milioi euro). 2006an EAEk hirugarren postua izan zuen inbertsio-bolumenean, Madrilen eta Kataluniaren atzetik; eta 2005ean zazpigarren postua, Madrilen, Kataluniaren, Andaluziaren, Valenziaren, Balearren eta Galiziaren atzetik. Lurraldearen ikuspegitik begiratuta, inbertsioaren azken titularraren herria (kasu guztien %54,6an) EB-15eko herrietariko bat da (guztira 725,9 mi-

lioio euro); hala ere, 2007an inbertsio horiek garrantzia galdu dute, guztizkoari dagokionez, eta beste herri batzuek garrantzi handiagoa dute, adibidez, Indiak (591,8 milioi euroko inbertsioa).

EAEk atzerrian egindako inbertsioak hazkunde nabarmena izan du, eta 2.550,79 milioi eurotatik 28.166,46 milioitara igaro da, 2006etik 2007ra; horrela, EAE Estatuko lehenengo autonomia-erkidegoa da, atzerriko inbertsioaren arloan. Izan ere, aurreko urtean ez bezala (EAE Estatuko laugarren autonomia-erkidegoa, atzerriko inbertsioan, Madrilén, Kataluniaren eta Kantabriaren atzetik), 2007an lehenengo autonomia-erkidegoa da; atzetik Kantabria (21.206,58 milioi), Madril (20.624,15 milioi) eta Katalunia (6.634,91 milioi) daude.

EAEren kanpoko inbertsioaren helmuga nagusiak EB-15 (EAEren kanpo-inbertsioaren %67, eta kide berrietan %0,1 baino ez) eta AEB (EAEren kanpo-inbertsioaren %29,6) dira. Sektoreka, eta energia-sektorea albo batera utzita, *Higiezin Agenteak eta Zerbitzuak* nabarmentzen dira oraindik (hain zuzen ere, "beste enpresa-jarduera batzuk" jarduera-adarra), baita *Banka eta finantza-bitartekotza* ere.

1.6. Sektore publikoa

Eusko Jaurlaritzaren eta Hiru Foru Aldundien guztizko diru-sarrera likidatuek (14.773 milioi euro) %10,5eko hazkunde izan dute 2007an, eta, horrela, hazkunde hori aurreko urtean baino 2,3 puntu handiagoa izan da, batez ere zuzeneko zergetan izandako hazkunde garrantzitsuen ondorioz (%17,3); horiek, zeharkako zergekin batuta, aipaturiko administrazioen diru-sarrera osoen %93ra iristen dira. Azken batean, EAEko Sektore Publikoko diru-sarreraren multzoa, BPGri dagokionez, 2005eko %21,5etik, 2006ko %21,6ra eta 2007ko %22,3ra igaro da. Jaurlaritza eta Foru Aldundiak bereizita, lehenengoaren diru-sarrera BPGren %13,6 da, eta foru-erakundeena, berriz, BPGren %22,2.

Zerga Itunduen bilketari dagokionez (zuzeneko nahiz zeharkako diru-sarreraren multzoa, eta diru-sarrera guztien %90 baino gehiago), 2007rako behin-behineko datuek %9,7ko hazkunde adierazten dute 2006ari dagokionez; hain zuzen ere, zuzeneko zergek batez bestekotik gorako hazkunde izan dute (%17,2), bai PFEZk (%13,6) eta bai sozietateen nahiz ondarearen gaineko zergak (hurrenez hurren %20,2 eta %21,4). Zeharkako zergen bilketak (bildu-

tako guztizkoaren erditik gainera bolumena), bestalde, %3,3ko hazkunde izan du (BEZ osoak %3,5, eta bertoko kudeaketa duen zatiak %5,7); tasek eta beste diru-sarrera batzuek (gustizkoaren %1eko bilketa, ozta-ozta) %14,3ko hazkunde izan dute. Azken batean, bildutako bolumena 13.772 milioi eurokoa izan da, eta zenbateko hori EAEko 2007ko PBG arruntaren %20,8 da (2006an %20,3).

Bestalde, EAEko Sektore Publikoaren gastu osoa 13.889 milioi eurokoa izan da (Toki Erakundeak kontuan hartu barik); hain zuzen ere, 2007an %9,5eko hazkunde izan du, aurreko urtean baino hamarren bat gutxiago (eta diru-sarreraren hazkunde baino puntu bat gutxiago); horrela, magnitude horrek BPGn adierazten duen ehunekoa lau hamarren hazi da 2006ari dagokionez, eta %20,5etik %20,9ra igaro da. Gastuaren hazkunde, aurtun, txikiagoa izan da Aldundien artean (%8,5eko hazkunde, eta 2006an %12,9koa), eta Eusko Jaurlaritzan ehuneko hori %10,5 izan da (2006an %6,3). Horrenbestez, gastu publikoak BPGn duen ratioa %21,3tik %21,5era igaro da Foru Aldundietan, eta %12,6tik %12,9ra Eusko Jaurlaritzaren kasuan.

Eusko Jaurlaritzaren gastuari dagokionez, 2007ko likidazioak %10,5eko hazkunde adierazten du; hazkunderik handieneko sailak honako hauek izan dira: Garraioak eta Herri Lanak (%+45,7); Industria, Merkataritza eta Turismoa (%+16,2); Lehendakariordetza (%+22) eta Lehendakaritza (%17,5). Gastuaren bolumena aintzat hartuta, bi sail nagusiek (Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerketa, guztizkoaren %28rekin, eta Osasuna, %34,1ekin), hurrenez hurren, %12,3ko eta %11,2ko hazkunde izan dute (batez bestekoa baino hazkunde apur bat handiagoa).

Eusko Jaurlaritzaren eta Foru Aldundien zorpetze orokorrari dagokionez, 2007an hori murriztu egin da (bigarren urtez jarraian), aurreko urteetan gertaturikoaren alderantziz. Urte amaieran, Jaurlaritzak eta Aldundiek 2.586 milioi euroko zor-bolumena dute, 2006an baino %8,1 gutxiago (azken urte horretan %7,8 murriztapena). Beherakada hori Eusko Jaurlaritzan (%-11,7; hain zuzen ere, zorpetze osoaren %60) eta Foru Aldundietan (%-1,1) gertatu da. Zor publikoaren jaulkipen osoa nabarmen murriztu da (%53,6), aurreko urteari dagokionez, eta, datuen arabera, hori Foru Aldundiei dagokie. Beste alde batetik, amortizazioa 2006koa baino %21,4 txikiagoa da, batik bat Foru Aldundien amortizazio urriagoaren ondorioz.

Bestalde, EAEko Herri Administrazioen multzoaren (Jaurlaritza, Aldundiak eta udalak) zorpetzeari buruzko datuak 2006ari buruzkoak dira. Urte horretan Administrazioak

3.354 milioi euroko zorra zuen, eta kantitate hori BPG arruntaren %5,4koa da. Ehuneko hori oso urrun dago 90ekoetatik, horietan BPGren %12era iritsi baitzen. Zor horrek, halaber, %3,7ko zorpetze-ratioa eragiten du⁸ (aurreko urteko tasa bera). Ratorik txikiena Foru Aldundiek dute (%1,8), eta gainerako erakundeek batez bestekotik hurbilagoko mailak dituzte.

Azkenik, EAEko Administrazio Nagusiaren partizipazioa duen enpresa-sektore publikoari buruzko azken datuek (2006ko datuak) mantendu egiten dute sektore horren multzoaren emaitza positiboa, eta 9,3 milioi euroko irabazia adierazten dute (2005ean baino 4,4 gutxiago). Negozio-zifra 421 milioi eurokoa da, aurreko ekitaldian baino %12,1 gutxiago, batik bat enpresa-sektoreak (%-43,7) eta, neurri txikiagoan, etxebizitzaren nahiz merkataritza-lokalen sektoreak (%-21,1) izandako beherakadaren ondorioz. Enpresarik gehienetan, sektore publikoaren partizipazioa zeharkakoa da. 2006an, Eusko Jaurlaritzak partizipazioa zuen 57 erakunde eta sozietate publikotan, horietako 41ean zeharkakoa.

Foru Aldundien kasuan, 2006an 26 sozietate publiko daude, eta, enpresa publiko horien emaitzei dagokionez, aurreko urteetan gertatu den bezala, oro har, Bizkaian eta Gipuzkoan A8 autopista kudeatzeko sorturiko bi sozietate nagusitzen dira (Interbiak eta Bidegi); irabazia 70,9 milioi eurokoa izan da, aurreko ekitaldian baino %1,3 gutxiago.

1.7. Ekonomia soziala

Ekonomia Soziala izenaren barruan, eraketa eta helburu desberdineko erakunde mota desberdinak sartzen dira; hala eta guztiz ere, aurreko urteetan bezala, atal honetan merkaturako ondasunak eta zerbitzuak sortzen dituztenen errealitatea jaso dugu, beste erakunde mota batzuetan sartu barik (izaera sozial hutseko jarduerak egiten dituzten erakundeak). Lan-sozietateek eta kooperatibek osaturiko ekonomia sozialaren produkzio-zati honen dimentsio erlatiboa kokatzeko, datuek agerian jartzen dute halakoek EAEko balio erantsiaren %5 eta enpleguaren

%6,5 inguru adierazten dutela; hala ere, industria-sektorea bakarrik hartuta, %13 gainditzen dute, eta horren esportazio-gaitasuna EAEn atzerrira egiten den esportazio guztiaren %14ra heltzen da, Ekonomia Sozialeko kontuetako azken datuen arabera (2003-2004 biurtekoari buruzko datuak).

Bestalde, Gizarte Segurantzak 2007aren amaieran 1.491 sozietate erregistratu zituen EAEn (altako kooperatiben izaera juridikoa duten sozietateak), aurreko urtean baino 25 gehiago; horietan 56.039 langilek egiten dute lan (2006an baino %2,8 gehiago), eta, beraz, batez besteko tamaina kooperatiba bakoitzeko 37,6 langilekoa da, Estatukorik altuena eta bertako batez bestekoa (12,3) baino askoz handiagoa. Iturri horrek dioenez, kotizatzen duten 1.023 sozietate daude, 2006an baino 39 gutxiago, eta horietan 13.462 pertsonak egiten dute lan (2006an baino %-0,9 gutxiago), batez besteko tamaina sozietate bakoitzeko 13,2 langilekoa da, oraingoan ere Estatuko kopurua (batez beste, 6,3 langile) baino askoz ere handiagoa.

Guztira, ekonomia sozialeko langileek, Lan eta Immigrazio Ministerioak BAIko datuetan oinarrituz egindako kalkuluaren arabera, EAEko enpleguaren milako 69,6 adierazten dute, eta zifra hori Estatuko autonomia-erkidego guztien artekorik handiena da. Halaber, ministerio horren Ekonomia Sozialeko Datu-baseak aukera ematen du gure erkidegoko sektore horretako langileen ezaugarri batzuk ezagutzeko, baita horiek Estatuko gainerako erkidegoetakoekin konparatzeko ere. Adibidez, EAEn emakumeen ehunekoak %45,4 da (Estatuko batez bestekoa %40,8), eta atzerriko langileen ehunekoak %2,2 da (Estatuko batez bestekoa %9,6). Halaber, lanaldi partziala duten langileen ehunekoak %14,6 da (Estatuan %15,3), eta langilerik gazteenen (25 urtetik beherakoak) partaidetza Estatukoa baino askoz ere baxuagoa da: langileria osoaren %5,5 eta %10,7, hurrenez hurren. Aldiz, langilerik nagusienek (55 urte edo gehiago) ordezkari handiagoa dute EAEn (%12,6), Estatuan baino (%9,9).

Bestalde, Eusko Jaurlaritzako Ekonomia Sozialeko Zuzendaritzaren Erregistroan, 3.803 kooperatiba eta lan-sozietate daude jasota, eta ekonomia sozialeko enpresa kopurua 15ean handitu da, 2006ari dagokionez; gainera, lan-sozietate anonimoen kopuruak apurka-apurka murriz-

⁸ Zorpetze-ratioa ekitaldiko zorraren finantza-zamaren (amortizazioa gehi interesak) eta diru-sarreraren arteko zatidura da. Ratio horren balioak, EAEn oso urrun daude Autonomia Erkidegoen Finantziarioari buruzko 8/80 Estatuko Lege Organikoak ezarritako %25eko mugatik.

teko joerari eutsi dio (2007an 22an murriztu dira, eta aurreko urtean -20 izan ziren). Bestalde, kooperatiba kopurua 40an handitu da, 2006ari dagokionez, eta lan-sozietate mugatuak 3tan murriztu dira.

1.8. Lan merkatua

Gizarte Segurantzarako afiliazioak eta langabeziakoak berretsi egin dute EAEko ekonomiak 2007an bizi izandako une bikaina. Urte amaieran afiliatu kopurua 968.693koa zen; zifra hori 2007ko azaroan lorturiko gehieneko historikotik hurbil dago, eta 2006ko abendukoa baino %2,5 handiagoa da. Termino absolutuetan, afiliazioak 23.461 pertsonako hazkundera izan du, eta 2006ko hazkundera 22.425ekoa izan zen. Bestalde, erregistraturiko langabetu kopuruak %6,4ko murriztapena izan du; hain zuzen ere, langabetu kopurua murriztu duten Estatuko autonomia-erkidego bakarrak EAE, Asturias eta Galizia izan dira.

Hala ere, EUSTATEN "Biztanleria Jardueraren Arabera" inkestak (BJA) agerian jarri duenez, urtea nahiko laua izan da enpleguaren hazkunderaren arloan: 2006ko amaieratik 2007rako aldea 2.500 lanpostukoa baino ez da (%+0,3). Datua hobe da urte amaierako zifrak konparatu beharrean urteko batez bestekoari erreparatuz gero; parametro horren arabera, enpleguak %1,1eko hazkundera izan du, eta ekonomiak, berriaz, %3,9koa.

Europar Batasuneko enplegurako helburuei dagokienez (Lisboan 2000n adierazitako helburuak), 2007an aurrerakuntza urria egon arren, EAE helburu orokorrak eta emakumeen enpleguko helburuak lortzeko moduan dago (%70 eta %60, hurrenez hurren); baina 55 urteko eta gehiagoko pertsonen kasuan ez da halakorik gertatzen (%50)⁹. Batez besteko enplegu-tasa¹⁰ osoa %68koa izan zen 2007an, Estatukoa baino puntu eta erdi altuagoa, eta EB-27koa baino ia hiru puntu altuagoa. Horrela, EAE %70eko helburutik bi puntura dago, eta, hori lortuta, 25.000 lanpostu izango litzateke, oraingo biztanleriaren

egitura aintzat hartuta. Une honetan, EAE Espainiaren, Frantziaren edo Italiaren aurretik dago, eta Irlandatik eta Alemaniatic hurbil. Hala eta guztiz ere, oraindik ere bide luzea dago egiteko, harik eta adierazle hobeak dituzten beste herri batzuen mailara heldu arte, adibidez, Danimarka, Holanda edo Suedia (%70etik gorako tasa).

Langabeziak bilakaera oso ona izan du 2007an (%3,3ko batez bestekoa, 2006an baino 8 hamarren gutxiago), langabezia frikzionaleko zifretarantz. Talde oso jakinetan baino ez daude langabezia-poltsa batzuk; adibidez, 16 eta 24 urte bitarteko gazteen artean, eta bertako tasak ere oso txikiak dira (%7,6). Aldiko batez besteko datuaren arabera, EAEk 32.500 langabetuko taldea dauka, 2006an baino 8.000 gutxiago, eta horrek %19,8ko murriztapena adierazten du (2005etik 2006ra %-28,9).

Halako emaitzekin, nazioarteko testuinguruan EAE lan-merkatuan jokabiderik onena duten Europako herrien antzeko langabezia mailatan dago; izan ere, gure tasen antzekoak dituzten herri bakarrak Danimarka (%3,8) eta Herbehereak (%3,2) dira. Alemaniak, Frantziak eta Espainiak geuk baino bost puntu inguru gehiago dituzte; Erresuma Batuak 2 puntu gehiago, eta Amerikako Estatu Batuek ere EAEk baino bi puntu gehiagoko langabezia-tasa dute. EB-27ko batez bestekoa %7,1 da 2007an, eta puntu bat murriztu da aurreko urtetik.

Bestalde, 2007an, kontratazioak gora egin du EAEn, baina aurreko urtean baino erritmo motelagoan. Hazkunde-tasa %2,3 izan da, eta 2006an %5,4 izan zen. Guztira, EEZP-EINen 869.262 kontratu erregistratu dira (berriak eta bihurtzeak aintzat hartuta), 2006an baino 19.394 gehiago. Horietatik %51,2 emakumeek sinatu dituzte, eta aurreko urtean ehunekoa %50,5 izan zen. Lurraldeka, kontratazioak gehienbat Araban egin du gora (%5,5) eta, gero, Bizkaian (%3,5); Gipuzkoan, oster, behera egin du (%-1,7). Estatuan kontratazioak %0,5eko hazkundera izan du, eta Estatuan sinaturiko kontratu guztien %4,7 EAEn sinatu dira.

Lanaldi osoko aldi baterako kontratazioa EAEn 2007an erregistraturiko kontratu guztien %63,2koa da (2006an %62,6), eta %3,4ko hazkundera izan du; guztira, halako

⁹ Gogoratu behar da, LANen arabera, pertsona bat enplegatua izateko, beharrezkoa dela gutxienez ordubeteko lana egitea erreferentziako astean.

¹⁰ Enplegu-tasa, LANek emandako definizioaren arabera, enplegaturiko pertsonen batuketaren eta lan egiteko adinean dauden pertsona guztien arteko zatidura da.

549.710 kontratu egon dira. Horien artean, garrantzi handia dute obra-kontratuek eta “*produkzioaren gorabeherak*” epigrafean oinarrituz sinaturikoek (kontratu guztien %22,3 eta %27,8, hurrenez hurren). Gainera, kontratazio mugagabeak 2007an mantendu egin du 2004an hasitako goranzko joera positiboa, batez ere kontratu mugagabe arrunten eraginez, %46,8ko hazkundea izan baitute. Orokorrean, kontratazio mugagabeak %31,4ko hazkundea izan du azken urtean, eta EEZPk Euskal Autonomia Erkidegoan erregistraturiko kontratu berri guztien %5,3koa da.

Bestalde, OSALANek erregistraturiko EAEko ezbehar-tasari buruzko datuek agerian jarri dutenez, 2007an 49.443 lan-istripu egon ziren EAEn, 2006an baino %8,1 gutxiago (urte horretan ere ezbehar-tasa murriztu egin zen, %3,2an). Lan-ikuspegi apur bat zabalagoa aintzat hartuta, esan daiteke 2000n lan-istripuak modalitate guztietan murriztu direla (batez besteko murriztapena %-13), gehienbat larritasunik handieneko kasuetan (larriak %-29, eta hilgarriak %-40).

Azkenik, 2007ko edizioan, EAEko Memoria Sozioekonomikoak soldatei buruzko epigrafe berria erantsi du Lan Merkatuari buruzko kapituluari. Estatistikako Institutu Nazionalaren bi estatistika-eragiketaren bitartez, EAEko langileen soldata-ordainketa gordinaren mailarako hurbilketa aurkeztzen da; metodologia desberdinak erabiltza, balio nahiko antzekoetara heltzen dira:

- Lehenengo eta behin, “*Soldata Egituraren Urteroko Inkesta*”¹¹ berriaren arabera, langile bakoitzeko urteko batez besteko irabazia 21.730€-koa izan da EAEn, eta, aurreko urteari dagokionez, %3,1eko hazkundea izan du. Kantitate hori Estatukoa baino %16,3 handiagoa da, eta, autonomia-erkidegoei dagokionez, Madrilekoak soilik gainditzen du. Jarduera-sektoreka bereizi gabeko soldata gordin hori 24.214€ -koa zen gizonentzat eta 17.981€ emakumeentzat; beraz, bi generoen artean %34,7ko aldea dago. Jarduera-sektorekako ordainketei

dagokionez, handienak industrian daude, bai EAEn eta bai Estatuan; eta sektore horretan emakumeen presentzia ez da gutxiengoa.

- Bigarren, “*Lan Kostuaren Inkesta*”¹² deritzonaren arabera, 2006an langile bakoitzeko lan-kostu gordina 30.652€-koa da EAEn, eta horren %72,9 “*soldatetarako*” da (22.360€). Batez besteko soldata hori Estatuko batez bestekoa baino %15,3 handiagoa da, eta, Madrileko Erkidegoarekin batera, autonomia-erkidego guztien artekorik altuena da .

1.9. Talde zaurgarri batzuen bizi baldintzak

Herri aurreratuetako gizarte- eta demografia-fenomenoetarik bat azken hamarkadotan biztanleria zahartzea da, eta, beraz, halako herrietako biztanleria-adinaren piramidea zabalagoa da goialdean; fenomeno horren ondorioz, gazteriari dagokion adin taldeak garrantzi erlatiboa galdu du. Orain dela ehun urte, biztanleriaren erdia 24 urtetik beherakoa zen (adin ertaina), eta batez besteko adina 28 urtekoa zen. Gaur egun, hala ere, EAEko biztanleriaren batez besteko adina 40 urtekoa da¹³.

Biztanleria gaztearen garrantzi erlatiboa galtzea ohiko fenomeno da Europar Batasunean, baina prozesu hori bizkorragoa izan da Estatuan eta EAEn. Azken hamabi urteotan, 15-29 urteko taldearen garrantzi erlatiboa %21,8tik %19,5era igaro da EB-27an, %23,3tik %20ra Estatuan, eta %24,7tik %17,9ra EAEn. 2007ko datuen arabera, 15-29 urte bitarteko gazteen taldea 365.419 pertsonakoa da EAEn, eta zifra horrek EAEko biztanleria osoaren %17,1

¹¹ Inkesta honek administrazio-erregistro desberdinetako erregistroak erabiltzen ditu (adibidez, Gizarte Segurantza edo Zerga Agentziak), baita INEren beraren Lan Kostuaren Hiruhileko Inkestaren zati bateko informazioa ere. Emaitzetan erabiltzen diren soldata-konzeptuak balio gordinetan biltzen dira, hau da, PFEZren konturako atxikipenak edo Gizarte Segurantzarako ekarpenak egin baino lehenagoko balioetan.

¹² “Lan Kostuaren Urteroko Inkesta” izenekoa “Lan Kostuaren Hiruhileko Inkesta” deritzonari erantsitako galdeketa batean oinarrituz egiten da; inkesta horrek lan-faktorearen urteroko maila eta horren osagaiak jakiteko aukera ematen du. Horien artean, “soldaten” partidaren barruan, inoren konturako langileei egindako ordainketa guztiak sartzen dira, dirutan nahiz espezieta egindakoak. Soldataren Egituraren Inkestan bezala, zenbateko gordinak daude adierazita.

¹³ Besteak beste, horrexegatik esaten da gaur egun gazteen adina 30 urtera artekoa dela (edo 35 urtera artekoa); horrela, orain arteko banaketa zaharkituztat hartzen da: horren arabera, gazteen taldearen barruan 16 eta 25 urte bitarteko pertsonak sartzen ziren. Hala eta guztiz ere, irizpide hori oraindik ere indarrean dago aldagai batzuetan, esaterako, gazteen enpleguaren adierazleei buruzkoetan. Kapitulu honek, beraz, adin-tartearen alderdia malgutasunez hartuko da, datuen erabilgarritasunaren arabera.

adierazten du, INEk emandako datuetan ikusten denez. Azken urtean, talde horren garrantzia 8 hamarren murriztu da. Taldeka, talde horren %24,3k 15-19 urte ditu, %32k 20-24 urte eta %44k 25-29 urte.

Beste alde batetik, gizabanakoa emantzipatzeko prozesuko bi elementu nagusiak enplegua eta etxebizitza dira (gaztetako azken etapetatik heldutasunera arteko ibilbideko protagonista nagusiak). Izatez ere, bi faktore horiek EAEko gazteak gehien kezkatzen dituzten elementuak dira:

Gazteen taldeak lan-munduarekin duen kontaktua aldatu egin da azken urteotan. 1993tik etengabe gertaturikoaren arabera (2003an izan ezik), 25 urtetik beherako gazteen langabezia-tasak gora egin du 2007an. EUSTATEk emandako datuek diotenez, 25 urtetik beherako gazteen langabezia-tasa %7,6koa izan zen 2007an, eta aurreko urtean %8,1ekoa izan zen. Nolanahi ere, langabezia mailarik altuenak gazteen taldeak ditu. Horren atzetik 25 eta 34 urte bitarteko pertsonen taldea dator, eta talde hori, ikerketa soziologiko askoren arabera, oraingo gazteen taldearen barruan (talde hori zentzurik zabalenean hartuta) sartuko litzateke.

Era berean, Lan eta Immigrazio Ministerioaren menpekota den “*Espainiako Enpleguko Gazte Behatokia*” (OBJOVEM) deritzonak adierazi duenez, EAEn (Estatuko batez bestekotik beherako jarduera-tasak) ezaugarri nagusia bertako langabezia-tasa txikia da. Horrela, erreferentziako aldian langabeziak 30 urtetik beherako gizonen %10,9an eta emakumeen %12,9an dauka eragina (gizon eta emakumeen langabezia-tasa orokorra, beraz, %11,8).

Bestalde, kontratu mugagabea duten soldatapeko gazteen ehunekoa 2,2 puntu txikiagoa da EAEko gazteen artean. OBJOVENen txotena agerian jarri duenez, %53,7ko denborazkotasun-tasa egon da (horren barruan mugagabea ez den edozein lan-harreman sartuta) 2007ko laugarren hiruhilekoan, eta Estatuan %51,5ekoa izan da. Oro har, kontratazio mugagabea altuagoa da, gazteen talderako, Kataluniako (%57,7) eta Madrileko (%56,9) erkidegoetan, eta tasarik txikiak Ceutan eta Melillan (%34,2) eta Andaluzian (%38,6) daude. EAE Estatuko batez bestekoaren azpitik dago, batez besteko horretatik ia hiru puntura.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzaren “*Euskadiko Gazteria, 2004*” ikerketan adierazitakoaren arabera, 15 eta 29 urte bitarteko pertsona guztien %89k uste dute emantzipatzeko zailtasun nagusia etxebizitzaren prezioa dela. Izan ere, pertsona bakarraren aukera (etxebizitza pertsona bakarrak eskuratzea, eta ez biren artean) diru asko duen gutxiengo baten esku baino ez dago. Espainiako estatuari dagokionez, 18 eta 34 urte bitarteko EAEko taldeak emantzipazio-tasa txikiagoa dauka: EAEn %44,1 eta Estatuan %45,3.

Halaber, Espainiako Gazteriaren Kontseiluak emandako datuen arabera, etxebizitza askearen prezioa, 2007ko laugarren hiruhilekoan, estatuko batez bestekoa baino %42 altuagoa zen, eta ehuneko hori Madrilen soilik gainditzen zuten. Gazteek onartzeko moduko gehieneko prezioari erreparatuta ikusten denez, prezio hori 102.131€-koa da EAEn, eta etxebizitzaren prezioa 296.950€¹⁴ da. Familia gazte batek onartzeko moduko gehieneko prezioa (aintzat hartuta gehienetan etxebizitza bikote batek erosten duela), bestalde, 162.745€ da, eta hori ere urrun dago batez besteko prezioetatik. Estatuan etxebizitzaren batez besteko prezioaren eta familia gazte batek onartzeko moduko prezioaren arteko aldea askoz ere txikiagoa da: estatuan 67.935€ eta EAEn 134.203€.

1.10. Osasuna eta osasun sistema

Osakidetza EAEko aurrekontuaren likidazioako datuen arabera, Osasun Sailaren gastuaren partida 2.926,7 milioi eurokoa izan zen 2007an, eta horrek %11,2ko hazkundera adierazten du aurreko urteari dagokionez. Gastu hori BPGren %4,26 da. Horrela, Osasun Saila lehenengo postuan dago berriro ere, baliabideen ehunekoan, guztizkoaren %34,1ekin; bertan, programa nagusia Osakidetzarako transferentzia da.

Osakidetza aurrekontu-likidazioak, EAEko Kontu Orokorreren oinarrituz egindakoak, agerian jartzen du erakunde horrek 2006an egindako gastua 1.909,8 milioi eu-

¹⁴ Aipagarria da, 2004ko datuei dagokionez (2005eko Memoria Sozioekonomikoan aztertuta), etxebizitza askearen batez besteko prezioak %24,9ko hazkundera izan duen bitartean, pertsona gazte batek onartzeko moduko prezioa, proportzio berean hazi beharrean, %5,8an jaitsi dela.

rokoa izan zela (2005ari dagokionez, $+7,3$), eta horrek BPGren $3,09$ da. Hazkunde hori ustiapen-gastuek izandako gorakadaren eraginezkoa da (langileria, hornidurak eta beste gastu batzuk); izan ere, inbertsioetan likidaturiko aurrekontuak $18,6$ ko murriztapena izan du, 2005eko likidazioari dagokionez.

EAEko osasun-panoramari buruz, haxe esan daiteke:

- Aipagarria da tumoreak zirkulazio-sistemako gaixotasunak baino ugariagoak izatea, lehenengoz, hilkortasunaren lehenengo eragiletzat.
- Hilkortasun goiztiarraren eragile nagusiei dagokienez, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sistemako datuen arabera, emakumeen artean eragile nagusiak honako hauek izan ziren 2006an: bularreko tumore gaiztoak; trakeako, bronkioetako eta biriketako tumore gaiztoak; gaixotasun bascularrak eta burmuinekoak; bigarren mailako edo txarto definituriko tumore gaiztoak; entzefaloko tumore gaiztoak, eta motorreko ibilgailuekin izandako trafiko-istripuak. Gizonen kasuan, trakeako, bronkioetako eta biriketako tumore gaiztoak; kardiopatia iskemikoa; motorreko ibilgailuekin izandako trafiko-istripuak; burua hiltzea edo autolesioak; zirroia eta gibekeko gaixotasunak, eta burmuineko zein muskuluetako gaixotasunak.
- Ospitaleko erikortasunari dagokionez, INEren Ospitaleko Erikortasunaren Inkestak agerian jarri duenez, EAEn ospitalean sartzeko eragile nagusiak zirkulazio-aparatuko gaixotasunak dira oraindik ere; 100.000 biztanleko 1.634 alta (guztizkoaren $25,1$). Bigarren postuan digestio-aparatuko gaixotasunak daude, 1.379 altarekin (guztizkoaren $21,2$); hirugarrenean, arnas aparatuko gaixotasunak (1.334 alta), eta laugarrenean neoplasiak-tumoreak (1.040 alta).

Aipagarria da haurdunaldia, erditzea eta puerperioa zailtasun taldeak Estatuan goranzko joera izatea eta AAEE batzuetan (EAEn ez) zirkulazio-aparatuko gaixotasunak gaitzitzea.

Laguntza-jarduera, bestalde, ospitalekoa edo ospitaletik kanpoko izan daiteke, biak publikoak edo pribatuak; horri dagokionez, baliabideen eta langileen adierazleei buruz argitaraturiko azken datuek haxe adierazten dute:

- EAEn, EB-27ko herririk gehien kasuan bezala, 100.000 biztanleko sendagile eta psikiatra kopuruak goranzko joera dauka; hain zuzen ere, 2003ko 368,7 fakultatiboetatik 2006ko 494,4etara igaro gara (EUROSTATen datuak).

- EUROSTATEk emandako datuen arabera, ospitaleko ohe kopuruak (EB-27an, EB-25ean eta EB-15ean) beheranzko joera izan du, eta beherakada horren zati handi bat egonaldia laburtzearen ondoriozkoa izan dela esaten da. EAEn ere joera horixe ikusi da 2003ra arte. Izan ere, 2000tik 2003ra, 100.000 biztanleko ohe kopurua 398tik 382,4ra igaro da. Hala eta guztiz ere, 2003tik 2005era, ohe kopuruak gora egin du.

EUSTATEk emandako datuek agerian jarri dute 2003tik 2005era ohe kopuruak gora egin duela. Hala ere, 2005etik 2006ra beherakada egon da.

- 100.000 biztanleko dentista kopuruak berriro egin du gora, eta EAEn, 2005etik 2006ra, 64,5etik 66,9ra igaro da. Zatidura Estatukoa baino handiagoa da (2006an 54,1), baina EB-15eko herririk gehienetan dagoena baino txikiagoa, baita Europa zabaldua osatzen duten herri batzuetakoa baino txikiagoa ere (EUROSTATen datuak).

Ospitaleko jarduerari dagokionez (publikoa eta pribatua), EUSTATen datuek haxe adierazten dute:

- Baliabideen arloan, 2005etik 2006ra, ospitale kopurua egonkor mantendu da eta 45 ospitale daude (18 publiko eta 27 pribatu). Sektore publikoan, gainerako aldagai guztiek (ohe kopuruak izan ezik) gora egin dute. Sektore pribatuan, berriz, ohe kopuruak ez ezik sendagile kopuruak ere behera egin du, eta 1.488tik 1.465era igaro da.
- Laguntza-jarduerari dagokionez, jarduera kopuruaren hazkundera ikusi da, egonaldien eta anestesia epiduraleko erditzeen kasuan izan ezik, horiek, hurrenez hurren, 3 ko eta $1,4$ ko jaitsiera izan baitute. Eta jokabide hori sare publikoan eta pribatuan ikusi da.
- 100 oheko sendagile kopuruak gorantz jarraitu du, bai ospitale publikoetan eta bai pribatuetan; 2006an 100 oheko 47,3 sendagile egon ziren, ospitale publikoetan, eta 23 ospitale pribatuetan.
- 1.000 biztanleko ohe kopurua aurreko urteetako batez bestekoan mantendu da (3,8).

Ospitaletik kanpoko jarduera publikoari dagokionez, EUSTATEk emandako datuek diotenez, aldagaiek orain dela urte batzuk hasitako goranzko joera mantentzen dute.

- Ospitaletik kanpoko 458 zentroek, 2006an, 13,3 milioi kontsulta izan zituzten, aurreko urtean baino $3,2$ gehiago. Hazkunde hori enpleguak izandako hazkundera baino txikiagoa da (2005etik 2006ra $0,7$).

- Sendagile kopuruak gora egitearen ondorioz, sendagile bakoitzeko biztanle kopuruak behera egin du, bai medikuntza orokorrean (sendagile bakoitzeko 1.445 biztanletik 1.414 biztanlera) eta bai pediatrian (834tik 822ra). Hau da, ez da errepikatu pediatrian iaz izandako joera, pediatria bakoitzeko biztanle kopurua 830etik 834ra igaro baitzen.
 - 2006an sendagile bakoitzeko kontsulta kopurua 4.864 izan zen, eta sendagile orokorrek (6.251 kontsulta) eta pediatrik (5.397 kontsulta) gainditu egin zuten zifra hori; gainerako fakultatiboen kasuan, berriz, txikiagoa da: dermatologoak (3.998), traumatologoak (3.841), endokrinoak (3.797) eta oftalmologoak (3.580).
 - Biztanle bakoitzeko batez besteko kontsulta-kopurua 6,3koa izan zen, eta horrek gorakadaxoa adierazten du, aurreko urteari dagokionez; gorakada hori kontsulta kopuruak pediatrian izandako hazkundearen eraginezkoa da.
- Osakidetzako ospitaleko eta ospitaletik kanpoko jarduerari dagokionez:
- 2006ko batez besteko enplegu-indize orokorra oraindik ere altua da (%83), baina murriztu egin da 2003ari dagokionez (%84,4). Indizierik altuenak dituzten espezialitateak honako hauek dira: digestiboa (%108,1), barne-medikuntza (%105,4), kardiologia (%9,8), kirurgia orokorra (%92,2), traumatologia (%86,6), kirurgia kardiobaskularra (%86,5), psikiatria (%85,6), toraxeko kirurgia (%85,4), kirurgia baskularra (%85) eta pneumologia (%83,8). Horiek guztiak batez bestekotik gora daude.
 - Zenbait urtetan Osakidetzako sare orokorreko batez besteko enpleguak behera egin ondoren, 2007an gora egin du. Hain zuzen ere, 1,4 puntuko hazkundera egon da, 2006ko hazkundeari dagokionez, eta %84,4koa da; aurreko urtean %83koa izan zen. %100 gainditzin duten espezialitateak honako hauek dira: pneumologia (%145,9), zaintza aringarriak (%121,6, aurreko urteko %61,3 bikoiztuta), barne-medikuntza (%118,6), kardiologia (%107,8) eta digestiboa (%107,8). %100etik beherakoak baina batez bestekotik gorakoak honako hauek dira: kirurgia orokorra (%95,1), kirurgia kardiobaskularra (%95), errehabilitazioa (%91,9), traumatologia (%91,5), hematologia (%87,8), toraxeko kirurgia (%87,7) eta psikiatria (%86,4).
 - Batez besteko egonaldia (egunetan) berriro ere jaitsi egin da, hain zuzen ere, 6,7tik 6,3ra.

- Itxarote-zerrendetan dauden gaixoei eta berandutze-aldiei buruzko zifren azterketak haxe jarri du agerian:

– Kanpoko kontsultetan, itxarote-zerrendan dauden gaixoen kopuru osoak, 2005etik 2006rako beherakadaren ostean (%-18,7), berriro ere gora egin du (%6,9). Hazkunderik handienak izan dituzten espezialitateak honako hauek dira: kardiologia (%42,3), ginekologia (%34,8), endokrinologia (%25,8), otorrinolaringologia-ORL (%25,1), errehabilitazioa (%23,4) eta neurologia (%16,1).

Berandutze-aldiari buruzko datuak positiboak dira berriro, murriztu egin baita 3 hilabetetik gorako itxarote-aldia duen biztanleriaren ehunekoa, baita 1-3 hilabete bitarteko itxarote-aldia duenaren ehunekoa ere. Horren ondorioz, hilabetetik beherako itxarote-aldia dutenen ratioa hazi egin da.

– Kirurgiako itxarote-aldiari dagokionez, gaixo kopuruak berriro ere gora egin du 2006tik 2007ra; hain zuzen ere, %0,9an, eta 15.944 pertsonatik 16.086ra igaro da; berandutzearen batez besteko egun kopuruak gora egin du (51,9 egunetik 53,03 egunera). Hala eta guztiz ere, ebakuntza egin behar eta 3 hilabete baino gehiago itxaron behar duten gaixoen kopuruak berriro ere behera egin du, eta %15,5etik %15era igaro da.

Denbora-ikuspegia handituta, 2003tik 2007ra, kirurgiako itxarote-zerrendan dagoen gaixo kopuruak %16,9ko hazkundera izan du; baina berandutzearen batez besteko egun kopuruak beherakadaxoa izan du (53,8tik 53ra); ebakuntza egiteko 3 hilabete baino gehiago itxaron behar duten gaixoen ehunekoa lau hamarren jaitsi da.

1.11. Hirigintza eta etxebizitza

Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Sailaren "EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokal Eskaintzari buruzko Inkesta" deritzon datuek agerian jarri dutenez, azken urtean etxebizitza-eskaintza osoak (salmenta gehi alokairua) %22ko hazkundera izan du (aurreko urtean %11,8), eta laugarren hiru hilekoan 22.050 unitateetara iritsi da. Horrela, aurreko urtean, mantendu egin da 2004an hasitako joera (eskaintza haztekoa), honako ezaugarri hauekin:

- Eraikuntza berriko etxebizitza askeen eskaintza 4.329 unitatekoa da, 2006an baino %10,7 handiagoa. Batez

besteko prezioa 4.113 €/m² da, 2006ko batez bestekoa baino %12,8 handiagoa. Lurralde-azterketak agerian jarri duenez, batez bestekoa nahiko baxuagoa da Araban (3.271 €/m²), eta Bizkaian eta Gipuzkoan, berriz, altuagoa da (hurrenez hurren, 4.367 €/m² eta 4.194 €/m²).

- Salmentan eskainitako BOEn batez besteko prezioa 1.323 €/m² da, aurreko urtean baino %2,9 garestiagoa. Lau etxebizitzatik ia hiruk (%72) 90.000 eta 120.000 euro bitartekoa da. Gainerakoei dagokienez, %17 90.000 €-tik behera dago, eta gainerako %11, berriz, 120.000€-tik gora, baina 150.000 €/etxebizitzara heldu barik.
- Bigarren eskuko 10.630 etxebizitzako eskaintza dago, aurreko urtean baino %15 gehiago¹⁵. Azalera erabilgarria aintzat hartuta, etxebizitza txikien presentzia handiagoa ikusten da, eraikuntza berriko etxebizitzaren segmentuan baino. Erabilitako etxebizitzaren %23, horrela, 60m²-tik beherakoak dira, eta etxebizitza berriaren merkatuan ehunekoa %8koa da. Batez besteko prezioa 4.356 €/m² da, aurreko urtean izandako batez bestekoa baino %2 handiagoa. Horrek agerian jartzen du azken urtean batez besteko prezioaren bilakaera gero eta moderatuagoa dela, urteko hazkundea azken hamar urteotako txikiena baita¹⁶.
- Etxebizitza babestuaren merkatuak alokairuko 1.513 unitate ditu, aurreko urtean baino %2,7 gutxiago. Horieta-tik, 1.035 (%68) sozialak dira, eta gainerako 478 BOEak (%32). Lurralde-banaketa honako hau da: Araban %29, Bizkaian %53 eta Gipuzkoan %18. EAEn alokairuko etxebizitza babestuen batez besteko errenta 194,1€ da urtean. BOEn kasuan 325,3 € da hilean, eta etxebizitza soziale-tan 131,7 € hilean. Bilakaerari dagokionez, erregistro-errenta murriztu egin da, bai BOEn (%-15,5) eta bai etxebizitza sozialen (%-6-6, 2006ari dagokionez) kasuan.
- Alokairuan eskainitako etxebizitza askeen laginak 485 unitateko zifra adierazten du, aurreko urtean baino 93 gutxiago (%-16,1). Azalera erabilgarria aintzat hartuta, aipagarria da ertainean bolumen handiagoa pilatzen dela, eta etxebizitzaren %24k 76-92 m² bitarteko azalera dute. Tamainarik txikieneko etxebizitzei dagokienez, ho-

rien ordezkari-tzak hazkundetxo-a izan du laginaren multzo osoan, horrela, 2007an 61 m²-tik beherako etxebizitzak eskaintzaren %20 ziren, eta 2005ean %18. Batez beste, norbanakoenak izan eta alokairuan eskaintzen diren etxebizitzaren errenta hilean 890,2€-koa da, aurreko urtean baino %8,6 gehiago.

Bestalde, EAEn hasitako etxebizitza kopurua, 2006an %9,9an murriztu ondoren, %14,7ko hazkundea izan du 2007an. Guztira, 17.161 etxebizitza hasi dira; horietatik 11.269 askeak dira (%65,7), 5.302 babes ofizialekoak (%30,9) eta 590 sozialak (%3,4). Halaber, 2006an Eusko Jaurlaritzak 2006-2009 Etxebizitza Egitamua abian jarri ondoren, etxebizitza babestuaren merkatuan irudi berriak sortu dira, eta, orain arte, 2006an 125 zuzkidura-bizitokiren eraikuntza hasi da (guztiak Gipuzkoan), eta 2007an beste 361ena. Gainera, azken urte horretan, tasaturiko 100 udal-etxebizitza eraikitzen hasi dira, alokairurako, eta beste 957, jabetzan adjudikatzeko.

Bestalde, EAEn 2007an amaituriko etxebizitza kopurua 15.429 unitatekoa da, aurreko urtean baino %5,5 gehiago, amaituriko etxebizitza askeek izandako hazkundearen ondorioz (%+10,2), horiek konpentsatu egiten baitute etxebizitza babestuaren segmentuan izandako beherakada: 2007an 4.636 etxebizitza babestu amaitu ziren (%-4); horietatik %80,8 babes ofizialekoak ziren, eta gainerako %19,2 etxebizitza sozialak (guztira 892 etxebizitza, 2005ean baino %7,7 gehiago).

Eraikuntza-jarduerari buruzko datu horiek adierazten dutenez, etxebizitza babestuaren partaidetza murriztu egin da, aurreko urteetan izandako hazkunde-joerari dagokionez: amaituriko etxebizitzaren artean, etxebizitza babestuaren ehunekoa %33tik %30era igaro da, eta BOEak eta sozialen ehunekoa, azken urte horretan hasitakoena, egonkor mantendu da, ehuneko osoari dagokionez.

Azkenik, Eusko Jaurlaritzaren "EAEko Etxebizitza Beharrianen eta Eskariaren Oinarrizko Inkesta" deritzonak adierazitakoaren arabera, lehenengo etxebizitza eskuratu beharra duten pertsonen ehunekoa %10,1 da, eta zifra hori azken urteotakoa (2006an %11,2) baino txikiagoa eta 2001ekoaren antzekoa da. Zifra absolutuetan, beharrian

¹⁵ Lagin-datuak izan arren, eskaintzan erabilitako etxebizitza-stockaren gorakada handia adierazten dute, eta egoera hori ohikoa da higiezinaren merkatuaren jardura urriko uneetan.

¹⁶ Eusko Jaurlaritzaren txostenak ohartarazitakoaren arabera, gainera, estatistika honetarako jakinarazitako prezioak eskaintzaileek eskaturiko prezioak dira, eta, oro har, murriztapena izaten dute salerosketa egiteko unean. Murriztapen hori, gainera, handitu egin da erreferentziako urteko azken hilabeteetan, eta %8 ingurukoa da; urtebete lehenengo %3 ingurukoa zen.

hori duen pertsona kopurua 82.073 gaztekoa da. Etxeetako beharriaz dagokienez, Inkestak agerian jarri duenaren arabera, EAEko familien %8k (63.750 etxebizitza) ohiko etxebizitza aldatu beharra dute. Eskariaren aldetik, 4 urterako aurreikuspena 30.406 etxebizitzakoa da, eta epe laburre-rakoa (urtebete), berriz, 13.778koa.

Etxebizitza lortzeko finantza-gaitasun urria duten taldeei dagokienez, Inkestak agerian utzi du etxebizitza behar duten pertsonen %8,2k (2006an %8) 96.000€-tik beherako etxebizitza erosi ahal dutela (guztira 6.730 etxebizitza). Etxebizitza aldatu behar duten familien artean, proportzioa %5,2koa da (3.315 etxebizitza).

1.12. Pobrezia eta gizarte bazterkeria

Oro har, EAEk bizi-kalitate altua dauka, inguruko herri-rik gehienekin konparatuz gero. Horrela, aintzat hartuta Giza Garapenaren Indizea (GGI), Nazio Batuen Garapen Programak (NBGP) kalkulatu duena (herri baten lorpenen neurria, bizitza luzea nahiz osasuntsua, biztanleen eza-gupen maila altua eta bizitza duina izatearen arloan), EAE hirugarren postuan egongo litzateke, 2007ko munduko sailkapenean, Islandiaren eta Norvegiaren atzetik; hala eta guztiz ere, kontuan hartu behar da herrien sailkapena dela, ez eskualdeen sailkapena.

Baina EAEko biztanlerik gehienek ongizate maila altu hau eduki arren, ez dira ahaztu behar biztanleriaren zati baten pobrezia- eta bazterkeria-arazoak. Termino absolutuetan, Eusko Jaurlaritzak Pobreziari eta Gizarte Bazterkeriari buruz egindako azken inkestaren datuek (2004ari buruzkoak)¹⁷ agerian jarri dute 45.000 familiak pobrezia motaren bat dutela (guztizkoaren %6,2), eta horietan 100.000 pertsona biltzen dira (biztanleria osoaren %5,2). Gainera, EAEn pobrezia-egoera errealean eraginpean 25.000 familia inguru daude (%3,3), eta muturreko pobrezia-egoeren eraginpean, berriz, 4.000 inguru (%0,5). Ongi-

zaterik ez izateko arrisku-egoerek, bestalde, 175.000 familietan dute eragina, eta 400.000 pertsonarengan baino gehiagorengan (hurrenez hurren, %23,6 eta %19,8).

INEren Bizi Baldintzen Inkesta, bestalde, Europar Batasunaren Errentari eta Bizi Baldintzei buruzko estatistikak harmonizatzeko prozesuaren barruan dago ("Statistics on income and living conditions", EU-SILC); inkesta horren helburu nagusien artean, pobrezia eta gizarte-bazterkeria aztertzei aukera ematen duen informazioa ematea da. 2006ko emaitzek agerian jarri dute, lehenengo eta behin, familia bakoitzeko batez besteko diru-sarrera, 2005ean, 26.407 eurokoa izan dela EAEn (2004an baino %4,7 gehiago), Estatuko batez bestekoa baino %12,6 handiagoa (23.442 euro). Balio hori honako erkidego hauek baino ez dute gainditzen: Nafarroak (familia bakoitzeko batez besteko diru-sarrerarik handiena duen erkidegoa, 29.845 euro), Madrilek, Kataluniak eta Balearrek. Pertsona bakoitzeko batez besteko diru-sarrerak aintzat hartuta, Inkestak 9.995 euro esleitzen dizkio EAEn (aurreko urtean baino %5,3 gehiago), Estatuko batez bestekoa baino %19 gehiago. Sailkapeneko beste muturrean, bi aldagaietarako eta aurreko urteko inkestan bezala, Extremadura, Gaztela-Mantxa eta Andaluzia daude.

Gainera, familiak errentaren arabera banatuta ondorioztatzen denez, %47,8k 25.000 eurotik gorako diru-sarrerak dituzte urtean, eta ehuneko horrek 5,4 puntuko hazkundea izan du azken urtean. Horien artean, %24,9k urteko 35.000 eurotik gorako diru-sarrerak dituzte, %22,9k 25.000 eurotik 35.000 eurora bitartekoak, %27,5k 14.000tik 25.000ra bitartekoak, eta gainerako %23k 14.000 eurotik beherakoak (horien %10,9k 9.000 eurotik beherakoak). Estatuari dagokionez, 25.000 eurotik gorako errentak biztanleriaren %37,4k ditu (2004an baino 3,1 puntu gehiago); %31,4 errentaren segmentu ertainean daude, eta familien herenak baino gehiagok (%30,8) 14.000 eurotik beherako diru-sarrerak dituzte urtean¹⁸.

Familien bizi-baldintzen eta errenta mailaren beste adierazle bat, izan ere, etxerako ekipamendu jakina eskuratu ezin duten familien ehunekoarena da. Horrela, esate baterako, EAEn familien %17,6k dio ezin duela automobilik eduki. Tasa hori %20,9raino handitzen da, Estatu oso-

¹⁷ Inkesta honek aukera ematen du pobreziak gure gizartearen duen eragina jakiteko, baita bertan eragina duten arrisku-faktoreak zein diren eta zer banaketa geografiko duten jakiteko ere. Pobrezia ez ezik (horren eragina urriagoa, ehunekoetan adierazita), ongizaterik ez edukitzeko arriskuak EAEko biztanleen artean duen garrantzia ere aztertzen du.

¹⁸ Gainerako familiak, %100era heldu arte, "ez dago jasota" kategoriarekin ageri dira Inkestan.

ari dagokionez; Andaluzian %25etik gorakoa da, eta Ceutan eta Melillan %36,5ekoa. Halaber, EAEko familien %11,6k diote ezin dutela ordenagailurik eduki, eta ratio hori %20koa da Estatuan.

Azkenik, Inkestak pobrezia-atariaren azpitik dagoen pertsona kopurua kalkulatu du. Estatuaren batez bestekoari dagokionez, ehuneko hori ez da aldatu estatistika-eragiketaren hiru urteko antzinatasunean, eta 2005eko tasa %19,9koa izan zen. EAEko, "pobretzat" katalogaturiko pertsonen tasa %9,8koa da, eta azken urtean 3 hamarreneko hazkundeak izan du. Joera, azken bi urteak kontuan hartuta, aldekoa da, 2003an ratioa %11,2koa izan baitzen.

1.13. Gizarte babesa

2007an langabezia-prestazioak jaso zituzten pertsonen batez besteko kopurua 45.100 pertsonaraino igo zen EAEko (aurreko urtean baino %0,4 gehiago). Zazpi urtez jarraian jasotzaile kopuruak gora egin du, 90eko hamarkadan murriztapen handia izan ondoren. Estatuan, jasotzaile kopurua tasa handiagoraino handitu da: %6,8. 45.100 pertsona horietatik %53,7 Bizkaian bizi da, %32,2 Gipuzkoan eta gainerako %14,2 Araban. 2007ko abenduari buruzko datuekin, jasotzaileen %67,4 kontribuzioko prestazioak jasotzen zituzten, %31k sorospenak eta gainerako %1,6 Gizarteratzeko Errenta Aktiboa.

Abenduan prestazioen 45.409 jasotzaile egon ziren; EAEko langabetuen estaldura-tasa (EINen erregistraturiko langabetuak aintzat hartuta) %79,76koa zen (2006ko abenduan %74,32), eta Estatu batez bestekoa, berriz, %85,69. Datu horiek kontuan hartuta, esan daiteke 2007ko abenduan EAEko 100 langabetutik 20k ez zutela prestaziorik jasotzen, eta jasotzen zutenen 80etatik 67k kontribuzioko prestazioa jasotzen zuten, 31k sorospena eta 2k Gizarteratzeko Errenta Aktiboa.

Halaber, 2007an, 483.603 pertsona Gizarte Segurantzaren sistemako pentsioen onuradunak izan ziren, eta zifra horrek %1,5eko hazkundeak adierazten du 2006ari dagokionez. Azken urteotan gertatu den bezala, hazkunde

hori kontribuzioko pertsonen onuradun taldeak izandako bilakaeraren ondoriozkoa da (%+1,6); izan ere, beste modalitateetan, intentsitate desberdinekin izan arren, jasotzaile kopurua murrizteko joera egon da. EAEko Gizarte Segurantzako prestazio ekonomikoekin estalita dauden biztanleen ehunekoak 2006ko %22,3tik 2007ko %22,6ra igaro da.

Kontribuzioko pentsioen batez besteko zenbatekoak (983,5€) %4,6ko hazkundeak izan zuen 2007an, eta aurreko urtean %4,5ekoa¹⁹. Guztira 5.699 milioi euro dira, 2006an baino %8,3 gehiago. Kontribuziokoak ez diren pentsioen zenbateko osoa 42 milioi eurokoa da, eta, beraz, %3,2ko hazkundeak egon da; era berean, hileroko batez besteko zenbatekoak %5,2ko hazkundeak izan du, 2006ari dagokionez. Azkenik, laguntzako pentsioek %1,6ko batez besteko hazkundeak izan dute batez besteko zenbatekoetan, eta euren zenbateko osoak %6,9ko murriztapena izan du 2007an. Jasotzaile kopuruak behera egin du berriro, 2006an baino neurri handiagoan (%-8,4 eta 2006an %-7,1). EGL sorospenei dagokionez, horien onuradunak %10,7ko murriztapena izan du, eta azken zenbatekoak, berriz, %11,8ko murriztapena. Azken batean, sistema osoaren hileroko batez besteko zenbatekoa 982 eurokoa da, 2006an baino %5,8 gehiago.

Pentsioen gastu osoak gora egin zuen 2007an, 5.745 milioi euro ingururaino (behin-behineko lehenengo hurbilketa), eta %8,3ko hazkundeak egon da 2006ari dagokionez; horrela, BPGrekiko ehunekoak gora egin du, 2006ko %8,59tik %8,66ra (BPGren behin-behineko datuak).

Bestalde, EAEko pobrezia, marjinazioari eta gizarte-bazterkeriari aurre egiteko tresna nagusien artean (Gizarte Zerbitzuei buruzko Legea, Bazterkeriaren aurkako Legea eta Gizarte Eskubideen Gutunari buruzko Legea jasotakoak), Oinarritzeko Errenta eta Gizarte Larrialdiko Laguntzak (GLL) dira. Horiek ez ezik, gizarteratzeko, heziketako eta laneratzeko programak daude, esku hartzen duten alderdien, udalen eta bazterkeria arriskuko pertsonen arteko hitzarmenetan oinarritzen direnak (gizarteratze-enpresak sortzea dago aurreikusita).

2007an Oinarritzeko Errentaren jasotzaile kopurua 36.004 pertsonakoa izan da, eta horrek %6,4ko hazkundeak adierazten du aurreko urteari dagokionez, urte horretan

¹⁹ Autonomia-erkidegoei buruzko informaziorik eduki ez arren, aldea dago gizonen eta emakumeen jasotako kontribuzioko batez besteko pentsioen artean: Estatuan, 2007an, hileko batez besteko zenbatekoa %62,3 handiagoa izan zen gizonentzat emakumeentzat baino.

33.824 bizikidetza-unitatek jaso baitzuten laguntza. Lurraldeka, jasotzaile kopururik handiena Bizkaiak dauka (25.929, eta EAEko guztizkoaren %72). Gainera, jasotzaile-unitateen kopuruak 2006ari dagokionez izandako gorakada handiagoa izan da lurralde honetan: Bizkaian %7,1eko hazkundera aurreko urteari dagokionez, Araban %6,9koa eta Gipuzkoan %3,5koa.

Oinarritzko Errenta jasotzen duten pertsonarik gehienak Bizkaian erroldaturiko emakumeak (bikoterik gabeak), imigranteak eta adineko pertsonak dira. Diru-sarrera urriko pertsonak dira, eta horietako herenak 16 urtetik beherako seme-alabekin bizi dira, era ugariko gizarte-arazoak dituzten etxeetan: tratu txarrak, drogamendekotasuna, ... Gainera, arazo ekonomikoen ondorioz, jasotzaileetarikoz batzuk halakoak jasaten dituzte: elektrizitate-mozketak, kreditu-eskaerak eskatu, enbargoak, ... Halako arazoez pertsona horietarikoz batzuek dute eragina; beste jasotzaile batzuek, aldiz, ez dute gizarte-bazterkeriako egoerarik, arazo ekonomikoak baizik, eta horiek ere azkenean gizarte-bazterkeria eragin dezakete, Oinarritzko Errenta eta beste baliabide batzuk egon ezean.

Euren lan-egoerari dagokionez, %15 inguru erretiroa hartuta daude, eta antzeko beste ehuneko batek etxeko lanak egiten ditu, ordaindu gabeak. Adina aintzat hartuta, herena berrogeita hamar urtetik gorakoa da; hori lan egi-

teko adina izan arren, zailtasun handiak dituzte lan-merkatuan sartzeko, batez ere laneko heziketa eta esperientzia mugatua dutenean.

2007an Oinarritzko Errentaren kontzeptuan ordaindutako zenbateko osoa 168,6 milioi eurokoa izan da (2006an baino %10,3 gehiago), eta bizikidetza-unitate jasotzaile bakoitzeko ordaindutako batez besteko zenbatekoa hileroko 478,61€-koa izan da; hori 2007rako finkaturiko Lanbide arteko Gutxieneko Soldataren %71,9 da (aparteko ordainketen hainbanaketarekin). Oinarritzko Errentan ordaindutako zenbatekoen lurralde-banaketa bat dator unitate-jasotzaileenarekin; horrela, gasturik handiena Bizkaian egiten da, guztizkoaren %76,4rekin, gero Gipuzkoan (%14) eta, azkenik, Araban (%9,6).

Azkenik, 2007an 26.398 titularrek jaso zituzten Gizarte Larrialdiko Laguntzak, aurreko urtean baino %1,2k gehiagok; horietatik 15.668 Bizkaikoak dira (guztizkoaren %59,4), 6.183 Gipuzkoakoak (%23,4) eta 4.547 Arabakoak (%17,2). GLLetarako zenbatekoa, urte honetan, 36 milioi eurokoa izan da, aurreko urtean baino milioi bat gehiago (%2,9ko hazkundera). Onuradun bakoitzeko ordaindutako urteko batez bestekoa 1.364 eurokoa izan zen, 2006koa baino %1,7 handiagoa.

2

Gogoeta orokorrak

2.1. Demografia eta immigrazioa

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren “Azterketa demografikoa eta etxebizitzaren epe luzerako bilakaera EAEn” txostenak, 2015erako, lehenengo eta behin, hazkundea aurreikusten du emakumeen buruzagitza tasetan eta erreferentziako pertsonatzat emakumea izango duten etxebizitza kopuruan (60.000 gehiago). Emakumeek osaturiko familia kopuruaren hazkundea adin-tarte guztietan gertatuko da: gazteen artean, emakumeen banakako emantzipaziorako joera handiagoaren eraginez; adinertainean, banantze- eta dibortzio-kasuen hazkundearen ondorioz, eta adineko emakumeen artean, adin horretako emakume kopuruak gora egitearen eta emakumeek bazarrik bizitzeko joera izatearen eraginez.

Halaber, pertsona gazteek (20 eta 39 urte bitartean) osaturiko familiek 25.000ko murriztapena izango dute. Murriztapen horrek ez du esan nahi lehendik eraturiko familiak desagertu egingo direnik, baina hurrengo ekitaldietan adin-tarte horretako familia gutxiago sortuko da, aurreko urteetan bezala. 1981ean eta 1991n gertaturikoaren alderantziz (familietan gazteen buruzagitza-tasen murriztapena, egoera ekonomikoak txarrera egitearen ondorioz), hurrengo urteetan murriztapen hori, batik bat, 80ko hamarkadatik aurrera jaiotako taldeak emantzipazio-adinera

heltzearen eraginezkoa izango da, talde horiek aurrekoek baino kide askoz ere gutxiago baitituzte. Aldiz, erreferentziako pertsonatzat adineko pertsonak (60 urte eta gehiago) dituen familia kopuruak 60.000 unitateko hazkundea izango du, gehienbat biztanleria zahartzeko prozesuaren ondorioz.

Joera horiek guztiek ondorio garrantzitsuak izango dituzte EAEko ekonomia- eta gizarte-bizitzako arlo guztietan; agintariak, batik bat egoitzaren, gizartearen eta laguntzaren arloan eskumena dutenek, aurre egin beharko diete epe laburrerako planteaturik dauden erronka horiei, familien osaketaren barruko aldaketa horiek dagoeneko agerikoak baitira gure gizartean.

Bestalde, nazioarteko migrazioak, azken urteotan, nazioarteko agenda politikoaren eta garapenaren funtsezko gaiak dira; gizarte eta ekonomia globalen oraingo etaparen ezaugarri nagusienetarikoak dira. EAEk ere nabaritu ditu fenomeno horiek, eta gero eta kultura-aniztasun handiagoa dauka, bertara biztanle talde berri gero eta handiagoak heltzearen eraginez. Oraindik ere hurbileko beste gizarte mailetara heldu ez arren, EAEn atzerriko immigrazioak hazkunde nabarmena izan du aspaldion, eta lurralderatze handiko aniztasun-panorama eratu du.

Udal Erroldako datuen arabera, 2007an 98.526 immigrinte bizi ziren EAEn, 2006ko urtarrilean baino %15,2 gehiago. Atzerriko biztanle-ekarpen hori erabakigarria izan da EAEko demografiarako. 1998tik 2007ra, biztanleria autoktonoak 40.422 pertsona galdu ditu. Baina, aldi horre-

tan, biztanleria osoak 42.488 pertsonako hazkundera izan du. Hori ezinezkoa izango litzateke atzerriko 82.910 pertsona iritsi ezean. Azken batean, biztanleriaren galera atzerriko biztanleen saldo positiboarekin orekatu da. Immigrante kopuruaren hazkundera biztanleria osoan duten garrantzi gero eta handiagoan ikusten da: 2007an EAEko atzerritarrak %4,6 ziren (Estatuan %9,9).

Atzeritarrek hemengoek eurenganako duten jarrera ikusteko moduari dagokionez, IKUSPEGIk (Immigrazioaren EAEko Behatokia, Eusko Jaurlaritzaren mendekoa) atzeritarrei egindako inkesta batean jasotakoaren arabera, atzeritarren %73k esan dute inoiz edo ia inoiz ere ez zaiela adierazi hemengoen segurtasun ekonomikoa arriskuan jartzen dutenik. Gainera, %63k esan dute inoiz edo ia inoiz ez direla diskriminaturik sentitu, ez dutela begirada txarrik nabaritu, ez dutela euren aurkako gauza negatiborik entzun edo ez dutela ukapen-jarrerarik igarri, EAEko biztanleen-gandik. Bi kasutan, afrikarrek eta, batez ere, Afrika Beltzekoek adierazi dute pertzepziorik negatiboa; europarrek eta argentinarrak, ostera, gutxiago nabaritzen dute halako jarrera negatiborik.

Gainera, immigranteen %43,2ren iritzian, EAEko biztanleek irudi oso positiboa edo oso positiboa dute eurei buruz, halaber, %59,6k uste dute hemengo biztanleek adeitasunez tratatzen dituztela euren herriko pertsonak, inoiz ere ez erasokortasunez (%0,1). Azken batean, atzeritarren multzoa, dirudienez, nahiko pozik dago bere oraingo bizitzarekin, emandako batez besteko puntuazioa "oso ondotik" hurbil baitago (6,96 puntu 10etik); eta, atzera itzuli ahal izanez gero, gehien-gehienek gauza bera egingo lukete eta berriro ere irten egingo lirateke euren herritik (%75,6).

2.2. Hezkuntza

Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerketa Sailaren gastuak hazkunde handiagoa izan du 2007an, 2006an baino (%+12,3 eta %+5,8, hurrenez hurren); gainera, BPGrekiko ere hazkunde handiagoa izan du (%3,62 eta %3,46).

Hala eta guztiz ere, MECek argitaraturiko azken datuen arabera (2005ari buruzko datuak), Hezkuntza Administrazioen gastua BPGren %3,38 da EAEn (%2,74 Unibertsitateetik kanpoko Hezkuntzan eta %0,57 Unibertsitatekoan), eta %3,46 Estatuan (%2,58 Unibertsitateetik

kanpoko Hezkuntzan eta %0,77 Unibertsitatekoan); Unibertsitateetik kanpoko Irakaskuntzan egindako gastu publikoa (Lanerako Prestakuntza kontuan hartu barik), 2005ean, 6.070 eurokoa izan da EAEn, eta, horrela, Euskal Autonomia Erkidegoa ikasle bakoitzeko gasturik handiena duen erkidegoa da (Estatuko batez bestekoa 4.520 eurokoa da).

EAEn unibertsitate aurreko matrikulazioak bilakaera ona izan du; izan ere, EUSTATen 2007-08ko datuen aurrenean esaten denez, %1,6ko hazkundera izan du, behko mailetan (Haur eta Lehen Hezkuntza) egondako gorakadaren ondorioz; aipagarria da, gainera, DBHn ere matrikulazioak gora egitea, lehenengoz (hain zuzen ere, %0,1eko hazkundera, eta aurreko urtean, berriz, %0,8ko beherakada). Beste modu batera esateko, suspertze demografikoa 12 urtetik gorako adinetara heldu dela dirudi.

Aldiz, Derrigorrezkoaren osteko Goi Hezkuntzako (DOGH) matrikulazio kopurua ere murriztu egin da (%-1), Batxilergoan (%-0,8) eta, batik bat, Goi Mailako LHn egon den beherakadaren eraginez, azken horretan beherakada aurreko urtekoa baino txikiagoa izan arren (%-2 eta %-5,7, hurrenez hurren), Erdi Mailako LHn matrikulazioak gorakadaxoa izan baitu (%+0,1).

EAEko biztanleriak balorazio positiboa egin du Euskal Autonomia Erkidegoan eskaintako LHri buruz. Soziologia Prospekzioko Kabineteak 2007ko azaroan argitaraturiko ikerketa baten arabera, biztanleriaren %65k uste du LH ona dela, %18k nola-halako dela eta %2k txarra dela. Halaber, biztanleriaren %77k uste du LHk ondo prestatzen dituela gazteak, lan munduan sartzeko; txarto prestatzen dituela %10ek baino ez du uste.

Hala eta guztiz ere, eurek eta seme-alabek LHko modulu bat ala unibertsitate-karrera bat ikastea nahiago duten galdetzen zaienean, %47k unibertsitatea aukeratu du eta %35ek LH; hori adierazgarria da, produktio-egiturak dituen heziketa-beharrianak aintzat hartuta.

Halaber, emakumeek lanbide-ikasketetan duten partaidetza gizonena baino txikiagoa da oraindik, eta aipagarria da 2006-07 ikasturtean beherakada egon dela emakumeek Goi Mailako LHn duten partaidetzan, aurreko urteari dagokionez. Hain zuzen ere, 2003-04 ikasturtean, Erdi Mailako LHn %37,9ko partaidetza izan zuten eta Goi Mailako LHn %42,8koa; 2004-05 ikasturtean partaidetza hori %38,2raino eta %43,1eraino hazi zen, hurrenez hurren; 2005-06an %38,9raino eta %45,2raino; baina 2006-07 ikasturtean ehunekoak %39,7 (8 hamarreneko hazkundera) eta %43,2 (2 puntuko murriztapena) izan ziren.

Goi Irakaskuntzako matrikulazioaren aldetik (lehenengo bi zikloetan), unibertsitate publikoen eta pribatuen multzo osoan, horrek beheranzko joerari eutsi dio, eta aipagarria da 2005-06 ikasturtetik unibertsitate-biztanleriaren ehunekoak behera egin duela, 18-25 urte bitarteko biztanleria osoari dagokionez.

Era berean, nabarmentzekoa da matrikulazioak hiru garren unibertsitate-zikloan (doktorego) 2001-02tik izandako goranzko joera hautsi egin zela 2005-06an; horrek inplikazio jakinak ditu oraingo Informazioaren eta Ezagupenaren Gizartean.

Hezkuntza-adierazleei dagokionez:

Biztanleriak ikaskuntza iraunkorrean duen partaide-tzak, Irakas Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundeak (IVEI-ISEI) emandako datuen arabera, etengabeko aurrerakuntza izan du, tasa 1992ko %3,5etik 2006ko %12,4ra igaro baita, horrenbestez, ia lortu egin da 2010erako ezarritako helburua (lan egiteko adinean 25 eta 64 urte bitarteko biztanleak dagoen biztanleriaren %12,5). Hala eta guztiz ere, oraindik ere bidea daukagu erreferentziako herrietan dauden ratioetara heltzeko: Suedia (2005eko datua %32,1), Danimarka (%29,2), Erresuma Batua (%26,6), Finlandia (%23,1), Holanda (%15,6), Eslovenia (%15) eta Austria (%13,1).

Pozgarria da, MEC-Ebaluazio Erakundeak emandako datuen arabera, EAEn derrigorrezkoaren osteko bigarren hezkuntza amaitu duten pertsona nagusien (20-64 urte) biztanleria %62,2 izatea 2005ean (Estatuan %50,2); hala ere, itxuraz (adin-lerruna ez baita homogeneoa) oraindik ere distantzia luzea dago EB-27ra. Izan ere, EUROSTATen datuen arabera, hezkuntza hori amaitu duten pertsona nagusien (25-64 urte bitartekoak) biztanleria, Estatuan, %48,5ekoa zen 2005ean, eta EB-27an %69,3koa.

Aipatzekoa da eskola garaiz baino lehen uzteko tasak izandako bilakaera; izan ere, 2000-2006an %13,9ren inguruko gorabehera txikiak eta iraunkorrak egon dira, eta agerian gelditu da ehuneko hori nekez hobetzeko modukoa dela. Horrela, 2006ko ehunekoa %14,5ekoa izan zen, Lisboako Europako Kontseiluak 2000n helburutzat %10 ezarri bazuen ere.

Halaber, PISA-2006 Proiektutik ondorioztatzen diren emaitzak kezagarriak dira; izan ere, *zientzia-gaitasunean*, 2003ko emaitzak hobetu arren, EAE oraindik ere OCDEren batez bestekotik behera dago; *matematika-gaitasunean*, OCDEren batez bestekoaren gainetik egon arren, posizioak galdu ditu 2003ari dagokionez; eta *irakurtzeko gaitasu-*

nean posizioak galdu ditu eta, gainera, OCDEren batez bestekotik behera kokatu da.

2.3. I+G+b Jarduerak eta IKT-ak

EUSTATen, EUROSTATen eta INEren datuen arabera, I+G+b deritzonaren adierazle nagusiak aintzat hartuta (ahalegina, enpresen dinamismoa gastuari dagokionez, halako jardueretan erabilitako langileria,...), EAE oraindik ere Estatuko autonomia-erkidegorik dinamikoenen eta berritzaileen artean dago, baina oraindik bide luzea daukagu arlo honetan erreferentziakoak diren herrien mailara iristeko:

- I+G arloan egindako ahalegina %1,47koa da; nolabaitteko egonkortasunaren ostean lortutako ehunekorik altuena da (Estatuan %1,2). Hala eta guztiz ere, EB-15ekoa (%1,81), EB-25ekoa (%1,85) eta EB-27koa (%1,84) baino baxuagoa da. Bestalde, berrikuntza teknologikorako jardueretan egindako gastu osoa egonkor mantendu da 2004tik 2006ra: BPGren %3,8, eta 2003koa baino ehuneko txikiagoa da (%3,9).
- 2004-06 aldian produktua edo prozesua berritu duten enpresen ehunekoa (9 langiletik gorako enpresak) 2,4 puntu altuagoa da EAEn Estatuan baino (%27,7 eta %25,3), INEk adierazi duenez.
- Sektore pribatua (teknologia-zentroak alde batera utzita) I+G arloan egindako gastuaren betearazte nagusia da, eta horren finantziazio-iturririk garrantzitsuen ere bai. Enpresek gastuaren %71,9 betearazten dute, eta, finantziarioari dagokionez, Bartzelonako helburutik 4,8 puntura daude: gastuaren %66 sektore pribatuak finantzatzea.
- Pozgarria da I+G arloko jardueretan diharduen langile kopurua gero eta handiagoa izatea, eta Estatuko eta EBko balioen gainetik kokatzea. Langile kopuru hori, 2006an, landunen %13,2 izan zen; Estatuan %9,6 eta EBn %9,5 da.
- Horietatik, %62,3 ikertzaileak dira, eta ehuneko hori EB-25ekoa baino handiagoa da (%60, EUROSTATEk adierazitakoaren arabera).
- 2005ean, manufaktura industriak I+G arloan egindako gastuaren %73 inguru I+G arloko intentsitate altuko eta ertain-altuko sektoreetan pilatzen zen, eta %23,6 in-

tentsitate ertain-baxuko sektoreetan. 2005etik 2006ra bitartean, intentsitate altuko eta ertain-altuko sektoreek 1,1 puntu galdu dituzte, intentsitate ertain-baxukoan alde. Hala eta guztiz ere, informazio hori kontuz erabili behar da, zenbait sektorek, adibidez, "metalezko gaiak" sektoreak (bertan, I+G arloan lanaldi osoan dabilen langile kopurua handia da), automobil-sektorerako ekipamendua sortu ahal dute, eta horren intentsitatea ertain-altua da.

EUSTATEk landutako Europako Berrikuntza Indizearen (SII) arabera, EAEn ezaugarri nagusiak honako hauek dira:

- Zientzia- eta ingeniari-ikasketetan (Bigarren Mailako LH ere barne) graduaturikoen ratio altua: 20-29 urte bitarteko mila gazteko 26,1; Europako tasa milako 12,9 da.
- Goi-hezkuntzan dabilen 25-64 urte bitarteko biztanleria-ehuneko handia (Unibertsitatea eta Goi Mailako LH), ehuneko horrek ia bikoiztu egiten baitu EBko batez bestekoa (%41,8 eta %23, hurrenez hurren).
- Gutxienez Bigarren Hezkuntza amaitu duen 20-24 urte bitarteko biztanle kopuru handia (%79,2), Europako batez bestekoaren gainetik (%77,8).
- Banda zabalaren hedapena, hori nabarmen hobetu baita, biztanleriaren %10etik %14,7ra igarota, EBko joerari jarraituz (%10etik %14,8ra).
- 10-249 enplegatuko EAEko enpresa berritzaileek barne-berrikuntzak egitea, EBkoek baino neurri apur bat handiagoan (%26,8 eta %31,6); hala ere, salmenten gaineko berrikuntzan egindako gastua, 10 enplegatuko eta gehiagoko enpresetan, apur bat txikiagoa da (%1,6 eta %2,2 EB-27an).
- Teknologia ertaineko eta goi-teknologiako industria-sektoreetako landunen tasa Europako batez bestekotik gorakoa izatea (%10,2 eta %6,6), eta zerbitzu sektoreko tasak ia berdin-berdinak izatea (%3,2 eta %3,3), dena den, goi-teknologiako produktuen esportazioen garrantzia nahiko txikiagoa da: EAEn kasuan esportazio guztien %3,7 eta Europar Batasunean %16,7.

Baita honako hauek ere:

- IKTetan egindako gastua EAEn BPGren %5,1 izatea, Europako batez bestekoa baino 1,3 puntu handiagoa.
- Europako erakunde publikoek I+G arloan BPGren %0,65 betearaztea, eta EAEn, berriz, horren erdia be-

tearaztea (%0,29). Hala eta guztiz ere, sektore pribatuaren kontzeptu horretan egindako gastua ez dago EBkotik urrun: EAEn %1,14 eta EBn %1,17.

- Industrian teknologia ertaineko eta goi-teknologiako I+G arloan egindako inbertsioa, I+G arloan egindako gastu osoari dagokionez, txikiagoa izatea: %73, eta EB-27ko batez bestekoa %85,2.
- Enpresek beste enpresa batzuekin edo erakundeekin duten partaidetza EAEn Europan baino txikiagoa izatea.
- Arrisku Kapitalera bideraturiko BPGren ehuneko (hasierako faseetan) %0,02 izatea EAEn, eta EBko batez bestekoa 0,05 izatea.
- 10 enplegatuko eta gehiagoko enpresek produktu berritzaileen salmentan izandako negozio zifran eragina Europakoa baino txikiagoa izatea: merkaturako berriak direnean %1,6, eta enpresarako berriak direnean %2,5. Europako batez bestekoak %7,3 eta %6,2 dira, hurrenez hurren.
- Marken eta diseinuen babesa (horien erregistroaren bidezkoa) Europako tasetara heldu edo tasa horiek gainditu arren, patenteen kasuan gauza bera ez gertatzea.

Horrenbestez, berriro ere komenigarria da I+G+b arloa baliabide publiko gehiago bideratzea; baliabide horiek, gure ustez, honako hau hartu beharko lukete kontuan:

- EAEko oraingo egitura ekonomikoa euskarritzen duen produkzio-egituraren beharrianak; beraz, emaitzak lortzera bideratu beharra dago.
- EAEk zein sektore sorberritan dituen arrakasta-aukerarik handienak zehaztu beharra, ahaleginak bertara bideratzeko, ahaleginok barreiatu barik.
- Jarduketa-ildoen jarraipena egin beharra, helburuak bete egiten direla egiaztatuz eta, beharrezkoa izanez gero, helburuok berregokituz.

Familien edota biztanleen IKT ekipamenduei dagokien, pozgarria da EAEk arlo horretan hazten jarraitzea, baina oraindik ere Europako batez bestekoak baino beherraxeago gaude. Horrela, internet daukan 16-74 urte bitarteko kideren bat duten familien ehunekoak, 2007an, %54 da EB-27an, %56 EB-25ean eta %59 EB-15ean; eta banda zabalerako konexioa dutenen ehunekoak %42 da EB-27an, %43 EB-25ean eta %46 EB-15ean. EAEn ehunekoak %50 eta %40 dira, hurrenez hurren. Horrenbestez, EAE Euro-

pako batez bestekoa baino apur bat beherago dago, eta erreferentziako herrietatik urrun (Suedia, Finlandia, Danimarka, Luxenburgo eta Erresuma Batua), baita EBn orintsu sarturiko herri batzuetatik urrun ere (interneti dagokionez, %58).

Erabileraren aldetik, INEk emandako datuen arabera, EAEk goranzko joera dauka, baina posizioak galdu ditu Estatuko sailkapenean. Horrela, 2004tik 2007ra, azken 3 hila bateetan PCa erabili duten 16-74 urte bitarteko pertsonen ehunekoa %50etik %59ra igaro da, eta Internet erabili dutenena %42tik %54ra.

Beraz, gure iritiz, gero eta beharrezkoagoa da informazioaren eta komunikazioaren teknologia berrien erabilera sustatzea, horretarako joerarik txikiena duten taldeen artean (seme-alabarik gabeko familiak edo bakarrik bizi diren pertsonak, adineko pertsonak eta trebakuntzarik nahiz lan-egonkortasunik urrirenako taldeak). Gainera, konexio-aukerak, edukiak eta banaketa ondo konbinatzean oinarrituriko politika publikoa lagungarria izango da IKTen hobariak maximizatzeke.

Enpresetako IKT ekipamenduei dagokienez, horiek enpresetan sartzeko prozesua gero eta handiagoa da; hala ere, enplegu-tamaina handiagoa lortu ahala, establezimenduek handitze urriagoak dituzte, hobekuntza-tartea txikiagoa delako.

Internetez edo bide elektronikoz egindako merkataritza-transakzioen aldetik, bestalde, merkataritza elektronikoa enpresetan hedatzeari buruzko itxaropenak oraingoz beteta egon ez arren (ez EAEn eta ez EBn), horrek sorturiko negozio-zifretan hazkundera egon da, baita horretan parte hartzen duen establezimendu kopuruan ere, eta bide hori erabiliz salerosten den ondasun eta zerbitzu kopuruan ere bai.

2.4. Ingurune naturala

Azken urteotan hobekuntzak egon dira ingurumenaren egoeraren arloan, gizartea arazoaz jabetu delako eta garapen iraunkorra lortzeko jarduketara publikoak garatu direlako.

Horrela, honako hauek bilakaera ona izan dute:

- Airearen kalitatea, hori ona edo, behintzat, onargarria baita aztertutako azpizona guztietan.
- Atmosferako kutsagarrien isurpenen murriztapena, PM₁₀

deritzonak izan ezik (esekidurako partikulak), horien kasuan oraindik gaintu egiten baitira legezko mugak.

– Uren kalitatea:

- *Ibaietako urena* itxaropentsua da.
- *Trantsizioko uretan*, oraindik arazoak egon arren, bilakaera ona izan da.
- *Kostaldeko uretan*, egoera oso ona da, laginketa-estazioen %86k bete egiten baitituzte helburuak.
- *Lakuetan eta barrualdeko zona hezeetan*, dirudie-nez, bilakaera ona egon da, baina oraindik ez da nahikoa.

– Hiriko hondakin-uren tratamendua; izan ere, 2005ean, EAEko biztanleriaren %82k bigarren mailako tratamenduko Hondakin Uren Araztegi batera (HUA) konektaturiko estolderia-zerbitzua zuen. EAEko datuak EUROSTATEk emandakoekin konparatuta, esan daiteke EAE ekipamendurik onenak dituzten EBko herrien artan dagoela.

– Energia-intentsitatea; 2006an, hain zuzen ere, 1996koaren %91 da, eta, 2004koari dagokionez, 4 puntu hobetu da, BPGk energiaren azken kontsumoak baino hazkunde handiagoa izan baitu.

– Ingurumen-ziurtagirien edo ziurtagiri “berdeen” kopurua (ISO 14001, Ekoscan Araua, Europako EMAS Araudia edo UNE 150.301-Ekodiseinua) gero eta handiagoa da. Horrela, 2006tik 2007ra, ziurtagiri kopurua 1.026tik 1.101era igaro da (75 ziurtagiri gehiago).

Hala ere, kezkarriak dira:

- *Bainuko* uren kalitatea; izan ere, 2007an egindako azterketaren arabera, eta kontuan hartuta bainuko uren kalitatea kudeatzeari buruzko urriaren 11ko 1341/2007 Errege Dekretua (Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2006/7 Zuzentaraua irauli duena), bainurako 17 zonen sailkapenak txarrera egin du. Bestalde, 2 hobekuntza ikusi dira (Saturraran hondartza eta Ulibarri-Ganboa urtegia).
- Banaketa-sarean galdutako urak, lehengo murriztapenaren ostean, 2005ean %33,3ko hazkundera izan du, eta 28,6 Hm³ dira (guztizko erabilgarriaren %11,3).
- EAEn uraren balio unitarioa, 2005ean, 0,91 euro/m³ izan zen, eta horrek %9,6ko hazkundera adierazten du, 2004ko balioari dagokionez.

- Energiaren azken kontsumoaren hazkundera, 2004tik 2005era, %1,5ekoa izan da (5.596 Ktep); dena den, energia-intentsitateak bilakaera ona izan du.
- Kontseilu horrek erabiltzen dituen bi datu-iturrien (Ihobe eta INE) arteko desadostasuna dago, hondakinak sortzearen eta kudeatzearen arloan; horrela, datu horietatik ez dira gauza berak ondorioztatzen.
- 2008ko *Industria Ekobarometroa* deritzonaren arabera, enpresek oraindik ez dute ingurumena ikusten errentagarritasunaren funtsezko hiru faktoreen artekotzat (kontsultaturiko enpresen %5ek soilik ikusten du halakotzat); hala ere, handitu egin da euren ingurumen-eragina murrizteak hobari ekonomiko nabariak ekar ditzakeela onartzen duen enpresa kopurua (%31, eta 2004an %23).

Joera kezkagarri hauek mantentzen dira:

- Mugikortasunaren eta garraioaren hazkundera, eta desoreka modalen mantenamendua. Izan ere, pertsonen mugikortasuna ibilgailu pribatuan oinarritzen da, gehienbat; eta merkantzien garraioan errepidearen nagusitasuna dago, trenbideari dagokionez.
- Negutegi-efektuko gasen (NEG) isurpenak. NEGen isurpen osoa (zuzenekoa eta zeharkakoa, hau da, inportaturiko elektrizitateari lotutako isurpenak ere aintzat hartuta) 25,5 milioi tona CO₂-koa izan zen 2006an, eta horrek %0,4ko hazkundera adierazten du, 2004ko isurpenei dagokionez, eta %21,9ko hazkundera, oinarri-urtearekin konparatuta. Beraz, azken lau urteotan isurpenak 25 milioi tona inguruan egonkortu dira.

Horrenbestez, ahaleginak ez dira moteldu behar, bizitu baino. Eta, horretarako, EAEko CESen ustez, lanean jarraitu behar da, produkzio-prozesu garbiagoak abiatzea ahalbidetzeko; prozesuok ingurumen-, gizarte- eta ekonomia-alderdien arteko integrazio egokia bilatu beharko dute, berrikuntza teknologikoa sustatuz, ingurumen-sentsibilizazioko ekintzak bultzatuz, etab.

2.5. EAE-ko egoera ekonomikoa eta kanpoko testuingurua

Parametro ekonomiko garrantzitsuek (BPG, inflazioa, enplegua eta langabezia) 2007an izandako bilakaerak bi-

raketa bat izan du iraganeko bilakaerari dagokionez, eta badirudi horrek ziklo ekonomikoaren aldaketa adierazten duela.

AEBn, urte amaieran, egoitza-inbertsioaren murriztapena egon da, baita enpresa-inbertsioaren eta kontsumoaren murriztapena ere, merkatuaren jarrera narriatzearen eta kreditu-baldintzak gogortzearen ondorioz, abuztuko finantza-asalduraren ostean; horren eraginez, 2007ko azken hiruhilekoan ekonomia-jarduerak murriztapen drastikoa izan zuen. Horrela, urteko batez besteko hazkundera %2,2koa izan zen.

Bestalde, Europako garapen-bideko ekonomien hazkundera ia puntu bateko murriztapena izan zuen (%6,7tik %5,8ra).

EAE, EUSTATen Hiruhileko Kontu Ekonomikoen lehenengo aurrerapenean adierazitakoaren arabera²⁰, hiruhileko hazkunderaren profilak moteltze nabaria izan du urte osoan, lehenengo hiruhilekoko %4,5etik laugarren hiruhilekoko %3,7ra. Hala eta guztiz ere, lehen esan dugunez, urteko emaitza Estatukoa eta EBkoa baino apur bat hobea da. Estatuari dagokionez, urteko batez besteko hazkundera hamarren bat handiagoa da (%3,8ko urteko batez bestekoa); EBrekin konparatuz, berriz, alde handiagoa dago: puntu 1 EB-27rekin konparatuz (%2,9ko hazkundera); 1,1 puntu EB-25ekin konparatuz (%2,8ko hazkundera); eta 1,3 puntu EB-15ekin konparatuz (%2,6ko hazkundera).

Esleriari dagokionez, EAEko dezelerazioa barruko eskeriak izandako jokabidearen eraginezkoa da (kanpoko eskeriak, aurreko urtean bezala, 5 hamarren murriztu baitzkie BPGren hazkunderari). Hori, hain zuzen ere, kontsumo pribatuaren hazkundera moteltzearen ondoriozkoa da (%3,5, eta aurreko urtean %4,2), baita inbertsioaren hazkundera dezeleratzearen ondoriozkoa ere (orain ere gehien hazi den osagaia izan arren), urte hasierako batez besteko hazkunde-tasa %6,6 eta azken hiruhilekoa %4,5 izan baita.

Euskal Herriko Aurrezki Kutxen Federazioaren *Kontsumitzailearen Konfiantzaren Indizeak* (KKI) egoerari buruz adierazitakoaren arabera, 2007ko bigarren hiruhilekotik aurrera kontsumitzaileak konfiantza galtzen hasi dira, bai EAE eta bai Estatu eta EBn; eta laugarren hiruhilekoan KKIren balioa 88 izan da EAE, 83 Estatu eta 94 EBn. Hau da, EAE EBn baino ezkontasun handiagoa eta Estatu baino txikiagoa dago.

²⁰ 2007ko otsailaren 19koa.

EAEko kontsumitzaileen konfiantzaren indizean egon den beherakada hori, izan ere, indizeko hiru osagaik izan dako erortze handiaren ondoriozkoa da: egoera ekonomiko orokorrari buruzko itxaropenak, etxeko egoera ekonomikoari buruzkoak eta, batez ere, etxeko aurrezkiei buruzkoak. Laugarren osagaia, langabeziari buruzko itxaropenena, apur bat suspertu egin zen 2007an, ezkertasunaren zonan jarraitu arren.

Eskaintzaren aldetik, industriak eta zerbitzuek urte batetik besterako aldaketa-tasa dute (%3,8); hala ere, industriaren hazkundea moteldu egin da urtean zehar (lehenengo hiru hilekoko %4,9tik laugarren hiru hilekoko %2,3ra), eta zerbitzuen hazkundea, aldiz, %3,7tik %4,2ra igaro da. Eraikuntzak, bestalde, 2006ko bigarren hiru hilekoan hasitako dezelerazioarako joerarekin jarraitu du, eta 2007ko laugarren hiru hilekoan %2,9ko hazkundea izan du (lehenengo hiru hilekoan %4,5ekoa).

2007an, ekonomia-jardueraren dezelerazioak ez du eraginik izan enpleguaren sorkuntzan; izan ere, EUSTATen Hiruhileko Kontu Ekonomikoetan adierazitakoaren arabera, enpleguaren urteko batez besteko hazkundea %2,4koa izan da, 2006ko hazkundea baino hamarren bat handiagoa. Izan ere, BJAk adierazi duenez, langabezia-tasak %4,1etik %3,3ra arteko murriztapena izan du 2006tik 2007ra.

Hala eta guztiz ere, jardueraren dezelerazioak eragina izan du produktibitate-irabazietan; izan ere, irabaziok gora egin arren, gorakada aurreko urtekoa baino txikiagoa izan da (%1,5 eta %1,9, hurrenez hurren); izan ere, 2007an produktibitatearen bilakaera, aurreko urteetan bezala, estu lotuta dago industriaren aurrerakuntzetara, eta sektore horrek 2006an baino irabazi apur bat txikiagoak izan zituen (%5,5etik %3,1era igaro da), sektorean lorturiko enplegu-sorkuntzaren ondorioz.

Bestalde, EAEko lanaren ageriko produktibitatearen bilakaera Estatukoa baino hobea da, ez 2007an bakarrik (guztira %+0,9, baina industrian ez, sektore horretan 2007an 6 hamarreneko aldea atera baitigu, industria-enpleguaren %0,6 galtzearen eraginez), baita azken hamarkadako urte guztietan ere.

EBrekin konparatuz, EAEko ekonomiaren produktibitate osoaren hazkundea handiagoa izan da 2007an (puntu erdi EB-25ekin konparatuta eta ia bi puntu EDBrekin konparatuz); hala ere, hamarkada osoari dagokionez, EB-25en batez bestekoa EAEkoa baino lau hamarren handiagoa da. Industriaren kasuan ere, EAEren datuak gaintitu egiten ditu EBn 2007an lortutakoak; baina, kasu honetan, azken hamar urteotako batez bestekoarekiko aldeek hazkunde

handiagoa adierazten dute bi arlo horietan, EAEko industria-produktibitateari dagokionez (EB-25ekiko ia puntu batetako aldea, eta EDBrekiko bost hamarrenekoa).

Industria-jarduerak teknologia-edukiaren arabera bereizita, kezkarria da argitaraturiko azken datuek (2005ari buruzkoak) agerian jartzea teknologia-eduki altukoaren eta ertain-altukoaren garrantzia murriztu egin dela, guztizkoarekin konparatuta, bai enpleguari (2004ko %30,49tik 2005eko %30,45era) eta bai balio erantsiari (%29,91tik %28,33ra) nahiz salmentei (%29,53tik %28,40ra) dagokienez.

Era berean, 2004tik, teknologia maila ertain-altuko eta altuko esportazioek eta inportazioek garrantzia galdu dute, esportazio eta inportazio guztiei dagokienez, teknologia-eduki ertain-baxukoaren eta baxukoaren aldean. Horrela, 2004an, EAEk egindako esportazioen %51,4 maila altukoak eta ertain-altukoak ziren; 2007an (behin-behineko datuak) ehunekoa %45,5 izan da. Inportazioen kasuan, 2004ko %42,1etik 2006ko %34,8ra igaro gara. Pozgarria da, altuaren eta ertain-altuaren artean bereizita, 2006tik 2007ra gorakadatzea ikustea, teknologia-eduki altuko ondasunen eta zerbitzuen esportazioetan, esportazio guztiei dagokienez; hain zuzen ere, %1,9tik %2,4ra igaro dira.

Gogoratu egin behar da, OCDEren sailkapenaren arabera (EUSTATEk erabilitako sailkapena), teknologia maila altuaren barruan honako hauek sartzen direla: aireontziak eta espazio-ontziak, produktu farmazeutikoak, bulegoko makineria eta ekipo informatikoa, material elektronikoa, eta ekipo eta tresna kirurgikoak, medikuntzakoak eta doitasuneak. Ertain-altuaren barruan hauexek sartzen dira: makineria eta ekipo elektrikoa, motorreko ibilgailuak, produktu kimikoak (farmazeutikoak izan ezik), garraioko beste material bat, eta makineria eta ekipo mekanikoa. Ertain-baxuan ondokoak sartzen dira: ontziak, kautxuaren produktuak eta plastikozko materialak, petrolioaren fintzearen eraginezko produktuak, burdinazkoak diren eta ez diren metalak, metalezko produktuak eta metalezkoak ez diren mineral-produktuak. Azkenik, baxuaren barruan: manufaktura eta birziklapena, zura eta papera nahiz paperaren produktuak, elikadura-produktuak, edariak eta tabakoak, oihalak, jantzigintza, larruaren produktuak eta zapatak.

EAEko EGABen iritziz, funtsezkoa da produktibitatea eta lehiakortasuna hobetzea, eta garrantzia handiagoa eman behar zaie hezkuntzari nahiz heziketari, ikerketari, ezagupenari, prozesuaren zein produktuaren berrikuntzari, teknologiaren hedapenari nahiz transferentziari, eta balio erantsi eta kalitate handiko ondasunen eta zerbitzuen sorkuntzari; alderdi horiek garatzeko, konpromiso irmoa behar

da, bai enpresena eta bai, batez ere, Jaurilaritzarena eta inguru zientifiko-teknologikoa, *Hezkuntza eta I+G+b jarduerak eta IKTak* epigrafeetan adierazi dugunez.

Gure lehiakortasuna hobetzeko beste alderdi kezka-garri bat, halaber, euroaren zonarekiko oraindik daukagun inflazio-diferentziala da. EAEn, kontsumoko prezioen batez besteko hazkundera %2,8koa izan zen (2006an %3,4), energia-produktuen eta landu gabeko janarien prezio handien eraginaren ondorioz; Estatuko inflazioaren (%2,8) berdina da, baina euroaren zonan dagoena (%2,1) baino handiagoa, baita Europako Banku Zentralak helburutzat ezarritako %2 baino handiagoa ere. Eta ez dirudi egoerak hobera egiten duenik, 2007ko abenduko urte batetik besterako tasak honako hauek izan baitziren: EAEn eta Estatuan %4,2; eta EDBn %3,1.

Prezioen diferentzial horrek (gure lehiakideen prezioen gainetik) gure produktuen lehiakortasuna murriztu eta esportazioa zailtzen du (kanpoko sektoreak BPGren hazkundera egindako ekarpena positiboa izan arren); horrela, hazkunde ekonomikoa eta enplegua urriagoak dira. Horrenbestez, inflazioaren aurkako politika eskatu nahi dugu berriro, agintaritza bakoitzak arlo horretan duen erantzukizunaren eremuan, batez ere prezioetan presiorik handiena sortzen duten sektoreetan.

EAEk atzerrian egindako inbertsioari dagokionez, gure erkidegoak atzerrian duen produkzio-gaitasuna hedatu egin da; hori, atzerriko balioak dituzten enpresak (ABDE) eta energia-sektorea alde batera utzita, *Higiezin-agentek eta zerbitzuak* sektorearen hazkundeak azaltzen du, hain zuzen ere, "beste enpresa-jarduera batzuk" adarrak.

gehiago; hazkunde hori nabarmenagoa izan da Eusko Jaurilaritzan (%+10,5) Foru Aldundietan (%+8,5) baino; horrela, magnitude horrek PBGn duen ehunekoa lau hamarren hazi da, aurreko urteari dagokionez, eta %20,9 da. Gastu publikoaren partida nagusiei dagokionez, aipagarria da, sektore publikoaren funtzionamenduaren gastuen %12,6arekin konparatuta (Eusko Jaurilaritzan %11,8 eta Foru Aldundietan %19,5), inbertsio errealetara bideraturiko zenbatekoek hazkunde txikiagoa izatea, %10,4koa (Eusko Jaurilaritzan %12,7 eta Foru Aldundietan %9,1).

Funtzionamenduko gastuen eta inbertsio errealetako gastuen hazkunderen arteko aldea murriztu egin da, 2006ari dagokionez (urte horretan, partidek %10,6ko eta %7ko hazkundera izan zuten, hurrenez hurren); hala ere, ekitaldi honetako Memoria Sozioekonomikoan adierazitakoa berretsi nahi dugu: inbertsio errealek funtsezkoak dira gure erkidegoko ongizatea hobetzeko eta bertako desorekak murrizteko, baita gure ekonomiaren lehiakortasuna hobetzeko ere.

Gainera, diru-sarrerek gastuak baino hazkunde handiagoa izatean (eragiketa arruntetan, kapital-eragiketetan ez baita halakorik gertatzen), aurrezpen publikoak %8,9ko hazkundera izan du (2006an %+13,1), eta administrazioen multzoaren superabit publikoa ere hazi egin da, hain zuzen ere, BPGren %0,7tik (2004an) %1,5era (2005ean), %1,9ra (2006an) eta %2ra (2007an). Aurten ere, finantza-gaitasunaren norakoa argitu nahi dugu (1.396 milioi euroko superabita), 286 milioi euroko zorra amortizatza mugatu barik.

2.7. Lan merkatua

2.6. Sektore publikoa

EAEko sektore publikoaren jarduerari dagokionez, 2007an %10,5eko hazkunde handia egon da diru-sarrera publikoetan, aurreko urteko %8,2koa baino handiagoa, batez ere zuzeneko zergetan (%+17,3) eta, neurri txikiagoan, zeharkakoetan (%+3,3) egon diren hazkunderen ondorioz; horrela, EAEko sektore publikoaren diru-sarreraren multzoak zazpi hamarreneko hazkunde izan du BPGri dagokionez, eta 2006ko %21,6tik %22,3ra igaro da.

EAEko Sektore Publikoaren gastu osoa, beste alde batetik, %9,5ean hazi da, aurreko urtean baino hamarren bat

Lehenengo eta behin, enpleguaren eta langabeziaren bilakaera kuantitatiboaren eta kualitatiboaren jokabide ona egiaztatu dugu. Izan ere, enpleguak %1,1eko hazkundera soilik izan arren, langabezia batez beste 8.000 pertsonatan murriztu da (%-19,8), eta %3,3ko tasa lortu du. Sektoreka, langabetuen %61,8 zerbitzu sektorekoak dira, eta, bertan, langabeziak %19ko murriztapena izan du. Halaber, industrian langabeziak %16,2ko murriztapena izan du (batez bestekoaren azpitik), eta eraikuntzan langabetu kopuruak beherakada nabarmena izan du: %-27,7. Bestalde, lehenengo enpleguaren bila ari diren pertsonen taldea 600 pertsonatan murriztu da, eta urteko batez bestekoa 2.700 pertsonakoa da orain.

Adinari dagokionez, langabeziak adin ertainean izan du beherakadarik handiena, bai termino erlatiboetan (%-21,6) eta bai absolutuetan (-5.900). 25 urtetik beherakoen artean, murriztapena txikiagoa izan da termino erlatiboetan (%-14,8), baina 45 urtetik gorakoaren artean ere (%-15,4); agerian gelditu da azken kasu horretan egitura-langabeziak eragin handiagoa duela. Gainera, iraupen luzeko langabezia-tasak ere (2 urteko edo hortik gorako langabezia) bilakaera oso positiboa izan du; horrela, EAEko batez bestekoa %0,8 da, 2006an baino 6 hamarren gehiago; EBko batez bestekoa %3 da, eta Estatukoa %1,7.

Langabezien sexuaren arabera dauden desberdintasunak nabarmen murriztu dira; horrela, emakumeak ere erabateko enplegu-egoeran daude. EAEn emakumeen langabezia tasa (%3,6) EBkoaren erdia da, eta estatuko batez bestekoa baino 7 puntu baxuagoa; EBn emakumeen langabezia-tasarik baxueneko herriak berriro ere Danimarka eta Holanda dira.

Hala eta guztiz ere, Lanbidek 2007ko 4. hiruilekoari buruzko "Lan Merkatuko Abagunearen Txostena" deritzon dioenez, datu oso positibo horiei ñabardurak egin behar zaizkie, jarduera ezaren tasek EAEn duten behe-rantzko erresistentziaren eraginez. Izan ere, EAEko jarduera-tasa orokorra aldaketa barik mantendu da azken urtean, eta %54,6koa da, EBko batez bestekoa baino hiru puntu baxuagoa. Txostenean esaten denaren arabera, langabeziaren eta jarduera ezaren arteko muga oso nahasia da, batez ere zenbait talderen kasuan (adibidez, emakumeak eta 16-24 urte bitarteko gazteak); beraz, balorazio horrekin bat eginez, gure iritziz beharrezkoa da pertsona horien lan-motibazioa eragiten duten neurriak jartzea, gehienbat adin-egituraren desoreka-egoera batean, horrek zaildu egiten baitu belaunaldi-ordezpena.

Gainera, BJAren datuek denborazkotasuna bosgarren urtez jarraian murriztu egin dela adierazi arren, aldi baterako kontratua duen soldatapeko biztanleria %21 da. Azken urtean beherakada handia egon da (%-15,8), baina denborazkotasun ratioak Europar Batasuneko batez bestekoen gainetik daude oraindik (EB-27rako %14,5); hala ere, esate baterako, Estatuko tasa baino hamar puntu baxuago dira. Bestalde, kontraturik gabeko egoerak eta beste batzuk (gehienbat emakumeen taldean eragina dutenak) biltzen dituen tasa ere (gizonen kasuan 2007an %0,7) murriztu egin da urte honetan. Emakumearen kasuan %6,2 da, aurreko urtean baino hiru hamarren gutxiago eta hamaikada osoko tasarik baxuena.

Adin-taldea ikusten denez, aldi baterako kontratuak dituzten eta kontraturik ez duten pertsonen tasarik han-

dienak gazteen taldean daude, baina aurreko urtekoak baino txikiagoak dira. Hain zuzen ere, enplegua duten 16 eta 24 urte bitarteko emakumeen %62,4k eta adin horretako gizonen %59,3k aldi baterako kontratua dute. Adin horretan, "kontraturik gabe eta beste batzuk" deritzen egoeran dauden soldatapekoen tasak %6,3 eta %2,2 dira, hurrenez hurren.

Beste alde batetik, 2006an gertaturikoaren alderantziz, lan-gatazkak murriztu egin dira 2007an. Lan Harremanen Kontseiluak (LHK) emandako datuen arabera, ekitaldi honetan EAEn 196 greba egon dira, eta horietan 46.343 pertsonak hartu dute parte; hain zuzen ere, 111.975 lanaldi igaro dira lanik egin gabe. Zifra horiek %12,5eko beherakadak adierazten dituzte greba kopuruan, %25,9 parte-hartzaileen kasuan eta %33,5 lanik egin gabeko lanaldietan. Gainera, greben multzo osoari orokorrean gertaturikoaren antzean, horien kopuruak %12,2ko murriztapena izan du enpresa pribatuetan, eta %13,2koa enpresa publikoan. Sektore publikoan, 2007an, lanik egin gabeko lanaldi kopuruan eta eraginpeko langile kopuruan, garrantzitsuenak Osakidetza-koa eta unibertsitatekan kanpoko hezkuntza publikokoa izan dira. Oro har, eremu publikoko grebek intentsitate handiagoa izan dute, bai lanik egin gabeko lanaldi kopuruan (1.135,5 eta 214,5), bai grebaren eraginpeko langile kopuruan (363,6 eta 79,4), enpresa pribatukoek baino.

Greben %53,1 hitzarmen kolektiboaren negoziazio-prozesuetan izandako gatazken eraginezkoak izan dira; horiek parte-hartzaileen %78,4an izan dute eragina, eta lan egin gabeko lanaldien %90,6 eragin dituzte. 2007an, negoziazio kolektiboan aurreko urtean baino desadostasun gutxiago egon dira, batik bat parte-hartzaile eta lan egindako lanaldi kopuruari dagokionez (bi kasuetan %-34). Halaber, 2006an negoziazio kolektiboaren ondorioz sorturiko 108 grebetatik 13 sektorialak izan dira, eta horietan inplikaturiko pertsonen %41,1ek hartu dute parte; hain zuzen ere, lan egin gabeko lanaldi guztien %28,7 izan dira.

Amaitzeko, LHKren 2007rako "*Negoiazio Kolektiboaren Balantzea*" deritzon adierazitakoaren arabera, urte horretan EAEko langileen %69,4an eragina duten hitzarmen kolektiboak berriztatu behar ziren. Urte horretan ere ehuneko handia da, neurri batean gizarte-eragileen arteko adostasun ezaren ondorioz (negoiazio kolektiboak azken urteotan izandako ezaugarri nagusienetarikoa). Urte amaieran, hitzarmen kolektibo berriztaturik gabeko negoziazio kolektiboaren eraginpeko langileen ehuneko %31,5 izan da.

Azken batean, 2007aren amaieran, berriztaturiko 654 hitzarmen egon dira, eta horiek 416.085 pertsonarengan

izan dute eragina (pertsona horien %82 sektoreko hitzarmenak dituzte, eta gainerako %18 enpresako hitzarmenak); beste 375 hitzarmen oraindik berriztatu barik gelditu dira, eta horiek 190.986 langilerengan dute eragina.

2.8. Lan osasuna

OSALANen erregistroek agerian jartzen dutenez, 2007an 49.443 lan-istripu egon ziren, 2006an baino %8,1 gutxiago (urte horretan ezbehar-tasa ere murriztu egin zen, kasu honetan %3,2an). Denboraldi apur bat zabalagoa aintzat hartuta, esan daiteke 2000tik lan-istripuak modalitate guztietan murriztu direla (batez beste, %-13), batez ere kasurik larrienetan (larriak %-29 eta hilgarriak %-40).

Lanaldian baxa eragin duten istripu kopurua 43.934 da, eta %6ko murriztapena egon da, 2006ari dagokionez. Horien artean, istripu arinek %6,1eko murriztapena izan dute, eta hilgarriek %-1,9ko murriztapena; istripu larriek, berriz, %4ko hazkundera izan dute, eta 335 dira. Bestalde, "in itinere" gertaturiko istripuak guztien %9,7 dira, eta %3,9ko murriztapena izan dute.

Sektoreka, laneko ezbehar-tasa aurreko urtekoa baino txikiagoa da sektore guztietan, baina murriztapenak intentsitate desberdinak izan ditu, sektoreen arabera. Alde batetik, industria sektorean baxa eragin duten 17.956 istripu egon dira, istripu guztien %40,9 eta 2006an baino %3,9 gutxiago. Halaber, eraikuntzan istripuen %18 egon dira, eta urte honetakoek %8,6ko murriztapena izan dute (batez beste-koaren gainetik). Hamarkadako bilakaerari dagokionez, sektore guztiek nabarmen murriztu dute ezbehar-tasa, batez ere nekazaritzak (%-24) eta industriak (%-19).

Bestalde, sektore bakoitzean okupaturiko pertsonen bolumena eta istripu kopurua lotzen dituzten ezbehar-tasek azken urtean adierazitakoaren arabera, tasa orokorraren murriztapena (okupaturiko mila pertsonako 45,5 istripu, 2006an baino %7 gutxiago) istripu kopuruak eraikuntza-sektorean izandako murriztapenaren ondoriozkoa izan da, hori nahiko handiagoa baita (%-11,7, milako 95,3ko ratoraino) lehen sektorean, industrian eta zerbitzuetan izandako murriztapenak baino. Nolanahi ere, ezbehar-tasarik handieneko sektorea eraikuntza da oraindik ere.

Urte honetan ere, erakunde publiko arduradunen lan-istripuen arloan emandako informazio estatistikoa ez da

nahikoa; izan ere, ondorio egokiak ateratzeko, datu gehiago behar da istripuek adinaren, antzintasunaren eta halako faktoreen arabera duten banaketari buruz.

Hala ere, Lan eta Immigrazio Ministerioak emandako informazio estatistikoek aukera ematen dute kontratu motaren arabera lan-istripuen datuak jakiteko; hain zuzen ere, ezbehar-tasa bikoitza baino handiagoa da aldi baterako kontratua duten pertsonen artean, kontratu mugagabea duten pertsonen artean baino. Lan eta Immigrazio Ministerioak 2006ari buruz emandako azken datuek horixe jarri dute agerian. Hain zuzen ere, kontratu mugagabeko pertsonen artean, ezbehar-tasa %47,5 izan zen, eta aldi baterako kontratuko pertsonen artean, berriz, %106,6koa. Nolanahi ere, interesgarria izango litzateke istripu horiek sektoreen, adinen eta okupazio moten arabera duten banaketa jakitea, behin betiko ondorioak atera ahal izateko.

2.9. Talde zaurgarri batzuen bizi baldintzak

Oraingo gizartean, egoera oso anitzak egon arren, gazteek balio eta helburu berberak dituzte, baita zailtasun berberak ere. Pertsona horiek guztiz eraldatzen ari den taldea osatzen dute; hain zuzen ere, orain arte ohikoa izandakoa baino beranduago lortzen dute lana eta sortzen dute familia, lan- eta ikasketa-aldiak tartekatzen dituzte, eta, batez ere, euren ibilbide pertsonalak iraganean baino askoz ere anitzagoak dira. Eskolak edo unibertsitateak, enpleguak eta gizarte-inguruak dagoeneko ez dute lehengo integrazio-funtzioa. Gainera, gero eta beranduago inpendizatzen dira. Horren ondorioz, hauskortasun-sentimendua sortu, konfiantza galdu eta nolabaiteko interes-galtzea dute, gizartean parte hartzeko modu tradizionalei dagokienez.

Gure gizarteko arazo nagusiei buruz galdetzen zaie-nean, gazteek haxe erantzuten dute: etxebizitza (%66) eta lan-merkatuaren egoera (%48); gero, bortizkeria edo bakerik eza (%34) eta egoera politikoa (%23). Arazo pertsonal nagusiei dagokienez, EAEko gazteek enplegua (langabezia, lan-baldintzak, %44) eta etxebizitza (%37) aipatu dituzte gehienbat, baita (baina horietatik distantzia handian) ikasketak (%16) edo arazo ekonomikoak (%13) ere.

Gazteen langabezia herri guztietako arazo nagusienetarikoa da, herri horien garapen maila edozein izan arren. Oro har, langabetu heldu bakoitzeko bi gazte daude lanik gabe. Egoera horren ondorioak oso ezagunak dira; izan ere, ordaindutako enplegua gizarteratzeko eta autoestimurako elementu nagusienetarikoa da oraindik ere. Horri dagokionez, gazteek lehenengo enplegua lortzeko dituzten zailtasunei, lan-irteeren inguruan dituzten informazio ezari eta etorkizunarekiko segurtasun- nahiz orientazio-gabeziako sentimenduei buruz Memoria Sozioekonomiko honen aurreko edizioetan adierazitakoari dagokionez, esan behar da 2007an gazteen langabezia-tasak murriztu egin direla berriro. Izan ere, gazteek 90eko hamarkadaren hasieran izandako langabezia mailek (%50 ingurukoak) ez dute zerikusirik oraingo mailekin.

Hala eta guztiz ere, enpleguak EAEko gazteen artean duen denborazkotasuna azpimarratu nahi dugu. Hain zuzen ere, 2007an aldi baterako kontratuak zituzten gazteen ehunekoa (25 urtetik beherako gazteak) %60,6 izan da (mutilek %59,3 eta neskek %62,4), azken urteotako ratorik baxuena. Gainera, kontraturik gabeko lan-harremanak izandako gazteen ehunekoa %4 izan da (mutilek %2,2 eta neskek %6,3). "Kontraturik gabe edo beste batzuk" kategoriako tasak nahiko antzekoak dira gazteentzat eta EAEko langileentzat, baina aldi baterako kontratu kopurua askoz ere handiagoa da gazteen artean. Halaber, gazteen eta biztanleria osoaren arteko distantzia hori nahiko egonkor mantendu da urteetan.

Bestalde, Arartekoak "EAEko gazteei zuzendutako etxebizitza-politika publikoak" txostenean (2007) adierazitakoren arabera, hiritarren zati handi baten kezka nagusia etxebizitza lortzea da gaur egun, gehienbat gazteen kasuan. Lehenengo etxebizitzaren erosketak jasotzen duen laguntza publikoa (zerga-arinketen eta interes-tasen bidezkoa) eta amortizazio-aldien luzapena (30 edo 35 urtera arte) faktore oso garrantzitsuak dira, eta laguntza ematen dute EAEko gazteek etxebizitza erosi ahal izateko. Hala ere, higiezinaren inflazio-testuinguruan, gazteek emantzipatzeko proiektuak atzeratzeko joera dute, batez beste 30 urtera arte, harik eta bikotekide egonkorra aurkitzeak edota ezkontzeak etxebizitza erosteko behar den kaudimen maila ahalbidetu arte.

EAEko gazteen ezaugarrietariko bat emantzipazio-tasa baxua da: inkestaturiko gazterik gehienak familiarekin bizi dira (%84), eta ehuneko hori %88koa da gizonen kasuan. Ikerketak agerian jarri duenez, EAEn emantzipaturiko gazterik gehienak emakumeak, 25-29 urte bitarteko gazteak

eta gizarte mailarik baxuenekoak dira. Emantzipazio berantiar horren zergatiak, inkestan adierazi direnak, estu lotuta daude etxebizitzaren prezioari (%89) eta diru-sarrerara ezari (%70), baina baita erosotasunari (%36) ere, gehienbat gizonen kasuan (%40).

Horri dagokionez, gure iritzian, komenigarria da gazteek etxebizitza eskuratu ahal izateko neurri eraginkorrak sustatzea.

2.10. Osasuna eta osasun sistema

Osasun Sailaren gastuaren partida 2.926,7 milioi eurokoa izan zen 2007an, eta hori BPGren %4,26 da.

EUSTATEN Osasun Kontua, osasunean egindako gastu zehazteko, osasun-jardueretarako hurbiltze funtzionala egiten du gehienbat. Horrela, jarduera bat osasun-arlokoa dela esateko, batez ere, jarduera horren helburuak hartzen dira aintzat, eta erabilitako teknikak, baliabideak edo metodoak bigarren mailan uzten dira. Horrela, EAEn osasunean egindako gastu osoa, 2006an, 4.290 milioi eurokoa izan zen. Hori BPGren %6,95 da, merkatuko prezioetan, eta 2002 euroko per capita balioa da. Gastuaren finantziakzioa kontuan hartuta, gastaturiko 100 euroko 72,2 osasun publikoak finantzatu zituen.

Osasun Kontuak emandako datuen arabera, 2005ean osasunean egindako gastu osoa PBGren %6,95 izan zen (esfortzua), aztertutako OCDEko herrietan egindakoa baino baxuagoa (Irlandako eta Finlandiako %7,5etik AEBko %15,3ra). Hala eta guztiz ere, per capita errentari dagokionez (intensitatea), EAEk biztanleko 2.446 EAP ditu (erosteko ahalmenaren parekotasuna, \$-tan), Finlandiak (2.331), Espainiak (2.255) eta Portugalak (2.033) baino handiagoa; baina AEBk (6.401 per capita, mundukorik handiena), Norvegiak (4.364) eta Suitzak (4.177) baino txikiagoa. European, osasunean per capita gasturik handiena egiten duen herria Austria da: biztanleko 3.519 EAP(\$).

Publikoa eta pribatua bereizita, osasunean egindako gastu publikoa, herri-administrazioen gastu osoari dagokionez, %15,5 izan da 2005ean, eta 2000rekiko ia puntu bateko hazkundera egon da. Adierazle hori Belgikakoa (14,9), Danimarkakoa (14,4), Suediakoa (13,6) eta Espainiakoa (15,4) baino handiagoa da. BPGren %5 da (esfor-

tzua), eta hori aztertutik gainerako herrietakoa baino baxuagoa da, Greziakoa izan ezik (%4,3).

Baliabideen eta laguntza-jardueraren arloan hauxe ikusten da:

- Europako joerei jarraituz:
 - biztanleko sendagile eta psikiatra kopurua, EUROS-TATEk emandako datuen arabera, gero eta handiagoa da. Aipagarria da ospitaletik kanpoko jardueran, EUSTATEn datuek diotenez, sendagile kopuruak gora egitearen eraginez, sendagile bakoitzeko biztanle kopuruak behera egin duela, bai medikuntza orokorrean eta bai pediatrian; aurreko urtean, berriz, pediatria bakoitzeko biztanle kopuruak gora egin zuen.
 - 2005etik 2006ra, EAE n ospitaleko ohe kopuruak behera egin du, baita egonaldi kopuruak eta horien iraupenak ere. EUSTATEk dioenez, EAEko ohe kopurua 8.118tik 8.049ra igaro da 2005etik 2006ra, eta batez besteko egonaldia 8,7tik 8,2ra.
- Ospitale-jarduera pribatuan, ohe kopuruak behera egin du, eta, horrela, sendagile kopuruaren murriztapenak (1.488tik 1.464ra) ez dauka eragin negatiborik 100 oheko sendagile kopuruan, kopuru hori 21,9tik 23ra igaro baita.
- 100.000 biztanleko dentista kopuruak gora egin du, baina oraindik ere EB-15eko herririk gehienetan dagoena baino txikiagoa da, baita Europa handituko herri batzuetakoa baino txikiagoa ere.
- Ospitaletik kanpoko jarduera publikoan, jardueraren hazkundea, EUSTATEk dioenez, enplegu-hazkundea baino txikiagoa da.

Itxarote-zerrendei eta berandutze-aldiei dagokienez, Osakidetza datuen arabera, 2006tik 2007ra aurrerakuntza positiboak eta pozgarriak egon dira; hala eta guztiz ere, gure iritzian, beharrezkoa da arlo honetan ahalegin gehiago egitea, itxarote-lerrunak murriztu arren (gaixoei gero eta aldi laburragoa itxaroten dute laguntzarako edo ebakuntzarako) itxarote-zerrendetako gaixo kopurua hazi egin baita.

Azkenik, Osasun Sailaren gastuaren partidak %11,2ko hazkundea izan du 2007an, aurreko urteari dagokionez, eta Osakidetza 2006rako partida ere %7,3an hazi da. Hazkunde hori ustiapen-gastuek izandako hazkundearen eraginezkoa da (hain zuzen ere, langileria-gastuek izandako hazkunde, inbertsioetarako aurrekontua murriztu egin baita).

2.11. Hirigintza eta etxebizitza

EAEko higiezin merkatuak 2007an izandako bilakaeraren ezaugarri nagusia etxebizitza-eskaintzak %22,2ko hazkunde orokorra izatea da (2005-2006 aldian %16,4ko hazkunde); gainera, jokabide desberdinak egon dira salmentarako etxebizitza berrian (%+10,7), erabilitako etxebizitzan (%+53,3), alokairuko etxebizitza askean (%-16,1), salmentarako etxebizitza babestuan (%+0,55) edo alokairuko etxebizitza babestuan (%+22,2).

Etxebizitzaren eskaria edo beharrezkoa, bestalde, %4,5ean hazi da, eta aurreko urtean hazkundea %7,2koa izan zen; etxebizitza askearen prezioak oraindik ere nekez eskuratzeko moduko prezioetan daude, etxebizitza behar duten taldeen kasuan, batik bat lehenengo etxebizitza lortu behar dutenen kasuan. "EAEko Etxebizitza Beharrezanaren eta Eskariaren Oinarritzako Inkesta" deritzonaren emaitzetan oinarrituz, honako alderdi hauek azpimarratu behar dira:

- 2007an, etxebizitza behar zuten pertsonen, batez beste, 1.389 euro garbi irabazten zuten hilean (2003an baino %5,4 gutxiago), eta horrek aditzera ematen du talde horren barruan finantza-gaitasun urriagoko beste pertsona talde bat sartu dela, eta horri, gainera, diru-sarrerak baino gehiagoko beharrezan-kasuak gehitu behar zaio. Halaber, hileko diru-sarrerak izandako beherakadari dagokionez, ikusten da etxebizitza behar duten gazteen ordainketa-gaitasuna murriztu egin dela apur bat: ordainketarako hilerik bideratu ahal den zenbatekoa 457€-koa da (2006an baino %7,7 gutxiago).
- Etxebizitza aldatu behar duten familiek 1.616 euroko diru-sarrera dute hilean (2006an baino %0,6 handiagoa), eta hilean 477 euro ordaintzeko prest daude (%+1,3); horien muga onargarria askoz ere gehiago hazi da: 229.000 euro (2006an baino %9,5 handiagoa). Aipagarria da ezin familiak ere ez duela adierazi 72.000 eurotik beherako gehieneko prezio onargarriarik (2006an baino %3,3 familia gehiago).

Etxebizitza-politika publikoen talde jasotzailearen barruan, honako hauek bereizi behar dira: oraintxe aurkeztu ditugun parametroen arabera muga ekonomiko nahi finantzazkoen eraginez, etxebizitzaren arloko jarduketak babestuen barruan sartu behar diren pertsonak. Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailak muturreko bi balio planteatzen ditu beharrezan babesgarriak bereizteko: 96.000€-ko muga,

BOEren salmenta-prezioei aurre egiteko zailtasunak dituzten pertsonak identifikatzeko, eta 150.000€-ko muga, etxebizitza askea lortzeko zailtasunak dituzten pertsonen multzorako.

Lehenengo mugari dagokionez, etxebizitza lortu behar duten gazteen %8,2k uste dute ezin izango dutela prezio horretako etxebizitzarik erosi. Gainera, etxebizitza aldatu beharra duten familien %5,2 egoera berean daude; horrenbestez, beharizan horien %13,4k etxebizitzaren arloko gizarte-laguntzak jaso beharko lituzkete (2006an %18). Segmentu babesgarria nabarmen handitu da, bigarren muga kontuan hartuta; horrela, etxebizitza lortu beharra duten pertsonen %47k eta etxebizitza aldatu beharra duten familien %13,3k ez dute gaitasunik prezio horretako etxebizitzarik erosteko. Beraz, Inkestak detektaturiko beharizanen %60,3k zailtasun handiak dituzte etxebizitza askea lortzeko (2006an %65,8).

Bestalde, 2007an Eusko Jaurlaritzaren etxebizitza-politikak 2006-09ko Etxebizitza Egitamu Gidariak finkaturiko ildo estrategikoei jarraitu die, eta proiektu horrek etxebizitza politikaren ildo estrategiko nagusiak ezarri ditu hurrengo urteetarako. Etxebizitza babestuen eskaintzaren hazkundera da Egitamu berria egituratzen duen helburu nagusia, bai ikuspegi kuantitatibotik eta bai alderdi kualitatibotik begiratuta. Horretarako, aintzat hartzen ditu etxebizitza-beharizanaren profil guztiak, beharizan bakoitzari egokituriko tipologia anitzeko erantzuna eskaintzeko. 2.800 milioi euroko aurrekontua dauka, indarraldi osorako, eta helburua 2009an 88.201 unitateko etxebizitza babestu edukitzea da, horien %22 alokairukoak.

2007ari dagokionez, urte horretan berriro hazi da etxebizitza babestuen erakuntza; hain zuzen ere, 6.628 etxebizitza hasi dira egiten, 2006an baino %25,7 gehiago, bai BOEak (%+9,8) eta bai etxebizitza sozialak (%+84,4). Urte horretan, gainera, udal-etxebizitza tasatuen erakuntza hasi da, eta, halaber, zuzkidura-bizilekuei loturiko ekimenekin jarraitu da. Era berean, Sailak erakuntzarako lurzorua lortzeko jarduketek %51ko hazkundera izan dute: 5.483 etxebizitza berri eraikitzeke lurzorua lortu da (2006an baino 1.858 gehiago).

Eusko Jaurlaritzak garaturiko etxebizitza politika ez ezik, interesgarria da zerga-gastuen zifra handiak ezagutzea; izan ere, Foru Aldundiek erabilitako etxebizitzaren arloko esku-hartze publikorako tresnak dira. Hiru Foru Aldundien PFEZren likidazioetan oinarrituz ondorioztaturikoaren arabera, ohiko etxebizitzaren (alokairua, inbertsioa eta errentamendua) eraginezko murriztapenen (lehenengo

murriztapen kuantitatiboak, murriztapenen %39,5) zenbatekoa 418 milioi eurokoa izan zen 2005ean, aurreko urtean baino %11,2 handiagoa. Kantitate hori Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Programak urte horretan egindako gastuaren %266 da.

2.12. Pobrezia eta gizarte bazterkeria

Langabezia, baliabideak eskuratzeko ezintasuna, gizarte- zein familia-loturen apurketa edo gizarte-marjinalitatea bezalako egoeren ondorioz, edozein pertsona gizarte-bazterkeriako egoeran gelditu ahal da, eta, beraz, pertsona hori erabateko hiritartasuna osatzen duten gizarte-eskubideak gauzatu ezinik geldituko da.

Agerikoa da enplegu-politikak funtsezkoak direla bizitza-estandar egokiak sustatzeko eta gizarte-kohesioa handitzeko. Izatez ere, Europako Batzordeak emandako datuen arabera, EBn pobrezia-arriskua 2,5 aldiz handiagoa da langabetu batentzat lan-merkatuan sartuta dagoen pertsona batentzat baino. Hala eta guztiz ere, pobrezia-arriskuaren ratioa oraindik ere nahiko altua da lanpostua duten pertsonen artean ere; horrela, EUROSTATEk emandako datuen arabera, EB-25ean ratio hori langileen %8koa da: Txekiar Errepublikako %3tik eta Belgikako nahiz Finlandiako %4tik Greziako %13ra eta Poloniako zein Portugalako %14ra. Gainera, errenta maila baxuak dituzten 16 urtetik gorako taldearen barruko pertsonen proportzioa %28koa da. Testuinguru horretan, eta Bartzelonako Gailurrean ezarritako helburua betetzeko (pobreziako eta gizarte-bazterkeriako arriskua duten pertsona kopurua 2010erako murriztea), Batzordeak arazoari aurre egin behar zaiola ohartarazi du.

Pobrezia- eta bazterkeria-arazoak dituzten langileen taldearen barruan, aipagarria da laneratzeko arazo bereziak dituztenen taldea; horiek, gaur egun, lanean egon daitezke edo ez, baina arazo eta ezaugarri komunak dituzte, Eusko Jaurlaritzak oraintsu aztertu dituenak (euren gizarte-beharizanak zein diren jakiteko eta Gizarte Zerbitzuak erabiltzeko beharrezana baloratzeko).

Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailaren "Gizarte Zeritzuen Eskariaren 2006ko Estatistika" deritzon adierazitakoaren arabera, EAEn

38.523 familiak (familia guztien %4,9) Estatistikan jasotako laneratze-arazo bereziren bat duten pertsonaren bat daukate barruan. Arazo horiek, hain zuzen ere, langabezia edo azpiokupazio kronikoak, enplegu babestua edukitzea edo lan-baimenik gabeko atzerritarra izatea dira. Azpimarratu nahi ditugun ondorio nagusiak honako hauek dira:

- Oro har, laneratzeko arazo bereziak dituzten pertsonen ehunekoak gora egiteko joera dauka, adina zenbat eta txikiagoa izan, eta gizonen kasuan oso deigarria da hori: 35 urtetik beherako gizonen %6k aipaturiko arazoren bat dute (15-24 urte bitartekoak %6,2); proportzio hori %4,5ekoa da 35-44 urteko gizonen artean, %2,5ekoa 45-54 urte bitartekoak artean, eta %1,7koa 54 urtetik gorakoak artean. Bestalde, arazo horiek 25-34 urte bitarteko emakumeen artean eragin handia izan arren, 25 urtetik beherakoak artean txikia da (nekez heltzen da %1,4ra). Horrela, biztanleen multzo osoari dagokionez, arazo horien eragina urriagoa da gazteen artean 25-34 urteko taldearen artean baino.
- Laneratzeko arazo bereziek eragin diferentziala dute atzerritarren artean: %31,4k halako arazoren bat dauka, eta hemengoak artean ehuneko %2koa da. Arazoa, gainera, oso larria da gizon atzerritarren artean; hain zuzen ere, halako arazoak dituztenak %39,1 dira, eta emakume atzerritarren artean ehuneko %21,7koa da.
- Arazo nagusia iraupen luzeko langabeziari edo lan marginalak garatzeari lotuta dago (langabezia edo azpiokupazioa), eta horiek, orokorrean, laneratzeko arazoak dituzten pertsona guztien %45,8an dute eragina. Horien artean, %20,1 familietako pertsona nagusiak dira, eta azken 18 hilabeteetan langabezia egon dira edo ez dute enplegu erregularizaturik izan. Terminoen erlatiboei, langabezia eta azpiokupazio kronikoak eragin handiagoa dute emakumeengan gizonengan baino (%65,9 eta %30,2, hurrenez hurren, laneratzeko arazoak dituzten taldeei dagokienez).
- Era berean, erabakigarria da lan-baimenik gabeko pertsona atzerritar aktiboen kopuru garrantzitsua egotea. Lan-arazo larriak dituzten pertsonen %45,6 atzerritarrak dira, eta horrek 24.593 pertsonarengana dauka eragina EAEn. Egoera horrek laneratzeko arazoak dituzten emakumeen %29,6an eragina izan arren, gizonen arteko proportzioa %58,1ekoa da. Gainera, arazoa handiagoa da,

adinean behera egin ahala, eta talde horretako 25 urtetik beherakoak artean ehuneko %90 da.

Azken batean, esan daiteke, gaur egun, laneratzeko arazo bereziak, gizonen eta 35 urtetik beherako pertsonen artean, gehienbat atzerritar egoiliarrek lan-baimenik ez edukitzeari lotuta daudela. Emakumeen eta 35 urtetik gorakoak artean, aldiz, langabezia eta azpiokupazio kronikoak erabakigarriak dira.

2.13. Gizarte babesa

Erantzukizuna duten erakundeek EAEko Gizarte Babesean egindako gastuari buruzko azken datu ofizialek adierazitakoaren arabera (2005ari buruzko datuak), gizarte-babesean finkaturiko gastu osoa 10.894 milioi eurokoa izan zen, aurreko urtean baino %7,5 handiagoa (%4,2 termino errealean, prezioek ekitaldi horretan izandako eragina kenduta); hain zuzen ere, EAEko urte horretako BPGren %18,9 izan zen, Eustaten datuek diotenez. Ehuneko hori, apurka-apurka, murriztu egin da, 1995eko %22,3tik 1997ko %21,4ra, 1999ko %20,1era eta 2003ko %19,03ra, BPGk izandako hazkunde-erritmo handiagoari lotuta.

Gizarte-babesean egindako gastu osotik, gizarte-prestazioen balioa (familiek gizarte-babeseko erakundeetatik jasotzen dituzten transferentziak, babesturiko kontingentziak gertatzen direnean) guztiaren %97,8 da, eta 2005ean 10.646 milioi eurokoa izan zen; 1995etik etengabe hazi da (EAEko gizarte-babeseko kontuaren datuak dituen lehenengo urtea). 2004ari dagokionez, hazkundera %7,5ekoa izan da (termino errealean %4,2).

Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailaren "Gizarte Zerbitzuen 2006ko Eskariaren Estatistika" deritzonak aukera ematen du EAEko prestazio ekonomiko eta zerbitzu batzuen eskaria eta erabilera zein den jakiteko (hain zuzen ere, gizarteratzeari bideraturikoak). Urte horretan familiek gizarteratzeko zerbitzurik edo prestaziorik erabili edo jaso duten adierazten du²¹. Lan horretatik, honako emaitzak nabarmendu nahi ditugu:

²¹ Jasotako prestazioak Gizarte Segurantzako prestazioen sistema orokorrarekiko prestazio ekonomiko osagarrien sisteman oinarritzen dira: Oinarritzeko Errenta, Gizarte Larrialdiko Laguntzak, EEZPren Gizarteratze Errenta Aktiboa, PNC/PAGAMI sistema (kontribuzioak ez diren eta gutxieneko diru-sarrerak bermatzen dituzten prestazioak) eta beste dirulaguntza batzuk (gehienetan udal-kudeaketakoak: etxebizitzatasen murriztapena, eskola jantokirako bekak, haurtzaindegirako bekak, elikadurarako laguntza bereziak, etab.).

Oro har, 2006an EAEko 94.445 familiak dirulaguntza-
ren bat eskatu zuten. Familien %76,3k prestazioen bat
lortu zuten, urteko uneren batean; hain zuzen ere, 72.070
familia izan ziren, EAEko guztizkoaren %9,2, eta horren ba-
rruan EAEko biztanleria osoaren %10,5 sartzen da.

Aintzat harturiko laguntza guztien artean, garrantzi-
tsuenak EAEn Oinarrizko Errentak eta Gizarte Larrialdiko
Laguntzek (GLL) osatzen duten berme-sistemaren barru-
koak dira. Familien %4,7k laguntza horietarikoren bat es-
katu dute erreferentziako urtean, eta horien jasotzaileak
%4,1 izan dira (biztanleriaren %4,2). Aldiz, Asistentzia
mailako Pentsioen (AMP), Gutxieneko Bermeko Laguntza
Prestazioaren (GBLP) eta Gizarteratzeko Errenta Aktiboaren
ehunekoa askoz ere txikiagoa da, hain zuzen ere, familien
%1ekoa, gutxi gorabehera. Bigarren mailako beste la-
guntza batzuen multzoari dagokionez (tasen murriztapena,
jantokirako bekak, elikadurarako laguntza bereziak, etab.),
esan behar da horiek biztanleriaren eta familien zati han-
dira iristen direla.

Aztertutako prestazio ekonomikoen familia jasotzaile-
etako pertsona nagusien ezaugarriak aztertuta ikusten
denez, pertsona nagusia emakumea denean desberdinta-
sunak daude: pertsona nagusizat emakumea duten fami-
lien %12,7 eta pertsona nagusizat gizona duten familien
%7,9.

Adinaren barruko joerak agerian jartzen dutenez, pre-
stazio motaren arabera desberdintasunak daude. Alde
batetik, Gizarteratzeko Errenta Aktiboak edo ANP/GBLPk
adin nahiko nagusiko familiei laguntzen diete gehienbat,
eta onuradunen %65,9 eta %79,1 buruztat 45 urteko edo
hortik gorako pertsonak dituzten familiak dira. Aldiz, Oi-
narrizko Errentaren eta GLLren kasuan, baita gainerako di-
rulaguntzen kasuan ere, familia gazteengan dute eraginik
handiena. Gainerako laguntzen kasuan (jantokirako la-
guntzak edo haurtzaindegirakoak), onuradunak diren fa-
milien %77,1eko buruak 25-44 urte bitarteko pertsonak
dira.

Prestazio guztiek gauza bat dute berdina, hain zuzen
ere, gehienbat oinarrizko beharrianak eta etxebizitza-be-

harrianak betetzeko zailtasun handiak dituzten taldeetara
bideratuta egotea. Hori oso agerikoa da gainerako la-
guntzen kasuan (bekak eta antzekoak), baita Oinarrizko
Errenta eta GLL osatzen duten laguntza taldearen kasuan.
Lehenengo kasuan, laguntza hauek jasotzen dituzten arazo
ekonomiko larriak gabeko familien ehunekoa %3,1 da,
arazo larriak dituztenen kasuan %6,6, eta arazo oso larriak
dituztenen kasuan %13,8. Aldea nabariagoa da Oinarrizko
Errentari eta GLLri dagokionez, arlo honetan orientazio
argia baitago oinarrizko beharrianak betetzeko arazo oso
larriak dituzten familietara. Horrela, gainerako familien ka-
suan zifrak %2 ingurukoak dira, eta arazo oso larriak di-
tuztenen kasuan, berriz, ehunekoa %23,6 da. Halako
prestazioen bidez lagundutako familia guztien %49,3, bes-
talde, oinarrizko beharrianak eta etxebizitza-beharrianak
betetzeko arazo oso larriak dituzten familiak dira.

Beharrianak jasotako prestazioekin guztiz betetzen di-
tuzten familien gehiengorik ez da ezein kasutan ikusten.
Adi berean, hala eta guztiz ere, estaldura maila nahikoa
ez dela eta inondik inora ere nahikoa ez dela uste dute-
nen familiak gutxiengoak dira. Poztasun ezari lotutako mai-
larik altuenak GLLen arlokoak dira, eta familia onuradunen
%46,2k uste dute laguntzak ez direla nahiko; proportzio
hori oso antzekoa da Gizarteratzeko Errenta Aktiboaren ka-
suan (%44,4). Oinarrizko Errentaren, ANP/GBLPren eta gai-
nerako laguntzen (bekak eta antzekoak) kasuan poztasunik
eza %30era murrizten da. Laguntzen azken atal horrexek
dauka poztasun mailarik handiena (beharrianak guztiz be-
teta egoteari dagokionez); hain zuzen ere, familia jaso-
tzaileen %41,6k aipatu dute, eta ehuneko hori Oinarrizko
Errentaren kasuan dagoena (%27,7) baino askoz ere han-
diagoa da. Gainerako prestazioetan, erabateko poztasu-
neko mailak %20tik beherakoak dira, eta gutxienekoa
ANP/GBLPn dago (%4,2).

Azkenik, kezkarria da, agirian jasotzen denez, la-
guntza-sistemaren lorpenean zuzeneko inplikazioa duen
taldea izan arren, familiarik gehienek Oinarrizko Errentako
(familien %50,5) eta gainerako laguntzetako (bekak eta
antzekoak, %63,9) prestazioen berri baino ez izatea²².

²² Ikerketa honen arabera, familien %36k baino ez dakite Gizarte Larrialdiko laguntzak daudela; familien %35,7k Gizarteratzeko Errenta Aktiboa dagoela, eta familien %17,1ek soilik dauka ANP/GBLPen berri.



2

EAEko jarduera ekonomikoa garatzeko baliabideak

1

EAE-ko giza baliabideak

1.1. Demografia eta immigrazioa

Nazio Batuen azken ikuskapenaren arabera (2006ari buruzko ikuskapena), munduko biztanleriak 2,5 mila milioi biztanleko hazkundera izango du 2050erako, eta 6,7 milioitik 9,2 milioira igaroko da; beraz, %37,3ko hazkundera izango du. Munduan 1950ean izandako biztanleriaren bestekoak diren 2,5 mila milioi horiek, batez ere, garapenik urrieneko eskualdeek xurgatuko dituzte, eta herririk aurreratuenetako biztanleria, gutxi gorabehera, aldaketa barik mantenduko da.

Ugalkortasun-tasa urrien eta bizi-itxaropenak gora egitearen ondorioz, herri kopuru gero eta handiagoko biztanleria azkar zahartzen ari da. 2005etik 2050era, 60 urtetik gorako pertsonen taldeak munduko hazkunde demografiko osoaren erdia xurgatuko du, eta 15 urtetik beherako haur

kopurua murriztu egingo da apur bat. Bestalde, garapenik handieneko eskualdeetan, 60 urtetik gorako biztanleria bikoiztu egingo da, eta 2050ean 400 milioi pertsonatik gorakoa izango da; adin horretatik beherakoen kopurua oraingo 971 milioitik 839 milioira murriztuko da.

Kalkulu horiek garapen bideko herrietako jaiotza-tasak behera egingo duela jota egin dira. 2006ko ikuskapenaren arabera, garapenik urrieneko herrien multzoko ugalkortasun-tasa (2005-2010eko aldirako emakume bakoitzeko 2,75 haur) 2,05 haurra murriztuko da 2050erako. Murriztapen hori handiagoa izango da garapenik urrieneko 50 herrien taldean; izan ere, bertan, ugalkortasun-tasa emakume bakoitzeko oraingo 4,63 haurretatik 2,5 haurreko ratoria urrituko da.

EAEn, Biztanleen Udal Erroldak emandako azken datuen arabera¹ (2007ko urtarrilari buruzko datuak), biztanle kopuruak gorantz jarraitzen du, 2000n hasitako joerari jarraituz. Hain zuzen ere, 2007an biztanleriaren zifra 2.141.860 pertsonakoa zen (%+0,38, 2006ari dagokionez), hau da, 2000n baino 43.264 biztanle gehiago.

¹ Biztanleriaren Udal Erroldako zifrak ezin dira zuzen-zuzen konparatu Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsuko datuekin, bi horiek metodologia desberdina erabiltzen baitute. Udal Errolda administrazio-erregistroa da, eta Espainiako 8.000 udaletik gorakoetarik bakoitzak sortu, mantendu eta kudeatzen du. Bertako datuek biztanle jakina udal-mugartean bizi dela eta bizilekua bertan duela egiaztatzen dute, eta hango ziurtagiriak agiri publikoak eta sinesgarriak dira, administrazio-ondore guztietarako. Biztanleriaren Zentsua, hala eta guztiz ere, estatistika bat da, eta Estatistika Institutu Nazionalak sortzen du. Bertan bildutako datuak sekretu estatistikoaren babesean daude, eta Erroldako datuekin ez da halakorik gertatzen, azken horretan pertsonak identifikatzea ezinbestekoa baita.

II.1.1. KOADROA. EAEko BIZTANLERIAREN ORAINTSUKO BILAKAERA. 2001-2006

	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007
Araba	288.793	291.860	294.360	295.905	299.957	301.926	305.459
Bizkaia	1.132.616	1.133.444	1.133.428	1.132.861	1.136.181	1.139.863	1.141.457
Gipuzkoa	680.069	682.977	684.416	686.513	688.708	691.895	694.944
EAE	2.101.478	2.108.281	2.112.204	2.115.279	2.124.846	2.133.684	2.141.860

Iturria: INE. Biztanleen Udal Errolda

Zifra horrekin batera, gainera, EAEn errolaturiko atzeritarren ehunekoa %4,6 da, eta 2006ko urtarrilaren bateko ehunekoa %4 zen; horrek %14,7ko aldaketa erlatiboa adierazten du. Hori Estatuko aldi bereko batez bestekoa (%8,2) baino handiagoa da; baina EAEn atzerriko biztanleriaren ehunekoa Estatukoa (%9,9) baino askoz ere baxuagoa da (erroldatzeen azken gaurkotzean ia lau milioi eta erdi atzeritar), eta Madrilakoa, Valentziako Erkidegokoa nahiz Murtziakoa (%14) eta Balearretakoa (%18) baino askoz ere baxuagoa.


Lurralde Historikoei buruzko datuek agerian jartzen dutenez, biztanleriak hazkunde nabaria izan du Araban (2000tik 2007ra %6,6), eta hazkunde apur bat moderatuagoa Gipuzkoan (%+2,3). Bizkaian, bestalde, biztanleriaren zifra ia aldaketa barik mantendu da aldi horretan (%+0,8).

Bestalde, EUSTATen "Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Estatistika" deritzonak 2006ko azaroari buruz egindako gaurkotzean ikusten denez², EAEn 2.129.339 biztanle

daude (Udal Erroldaren datuetakoa baino txikiagoa). Emaizta horiek berretsi egiten dute biztanleria suspertzen ari dela eta joera-aldaketa dagoela (2001eko datuek agerian jarri zuten joera).

Adin taldeen arabera, 2001etik 2006ra urtebetetik berherako taldeak eta 1-4 bitarteko taldeak gora egin dute (hurrenez hurren, %16,5 eta %13,6). 65 urteko eta hortik gorako biztanleria berdin mantendu da, eta gazteen biztanleria baino apur bat handiagoa da (azken horiek biztanleriaren %18,6). Biztanleria aktiboa, bestalde, guztizkoaren %65 da, aurreko bosturtekoan bezala. Lurraldeka ez dago desberdintasun handirik; dena den, biztanleriarik zaharrena Bizkaian dago (65 urtetik gorakoak %9,2), gazteena Gipuzkoan (20 urtetik beherakoak %17,3), eta 20-64 urte bitarteko biztanle kopururik handiena Araban dago (%66,6).

Bestalde, 2006an 95.313 atzeritar zenbatu ziren, biztanleria osoaren %4,5, eta ratio hori INEren Udal Erroldan jasotakoaren ia berdin-berdina da (%4,4), lehen ikusi dugunez. Talde horrek %200etik gorako hazkundeak izan du 2001eko datuei dagokienez. Kapitulu honetako 1.1.4 atalean zehatzago aztertuko dugu immigranteen taldea, baina orain esan daiteke talderik handiena lan egiteko adinean heltzen dela (20-40 urtekoak). Gehienak Hego Amerikatik datoz (%43,8), eta, batez ere, Kolonbiako, Bolibiako edo Ekuadorreko emakumeak dira. Bigarren talde nagusia europarrek osatzen dute (%27,8), eta, bertan, errumaniarrak eta portugaldarrak dira nagusi.

II.1.1. GRAFIKOA. BIZTANLERIAREN BILAKAERA ADIN TALDE NAGUSIEN ARABERA. EAE. 1981-2006

Iturria: EUSTAT. Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Estatistika

² 2006ko Etxebizitzaren eta Biztanleriaren Estatistika lehenengoz egiteko iturritzat, administrazio-erregistro desberdinak erabili dira, eta ez dira ohiko informazio-bilketa masiboak egin. Metodologia-aldaketa garrantzitsu hori estu lotuta dago estatistika-institutu aurrendari nagusietan egiten ari direnekin (adibidez, Suediakoa, Finlandiakoa edo Holandakoa); antzeko tratamenduak daude, administrazio-erregistroetan oinarrituz.

1.1.1. Ikuspegi demografikoak: EAEko etxe kopuruaren eta motaren bilakaerari buruzko aurreikuspena.**II.1.2. KOADROA. EAE-KO ETXE KOPURU OSOAREN ETA HORREN ALDAKETA GARBIAREN BILAKAERA.**

Etxe kopurua	2001	2005	2010	2015
Egoera iraunkorra ³	748.967	806.439	840.339	868.841
Joera	748.967	819.005	868.749	914.416
Aldaketa garbia	2002 - 2005	2006 - 2010	2011 - 2015	Total 2006-2015
<i>Egoera iraunkorra</i>				
Aldaketa garbia	57.472	33.901	28.502	62.403
Urteko b.b. hazkundera	14.368	6.780	5.700	6.240
<i>Joera</i>				
Aldaketa garbia	70.038	49.744	45.667	95.411
Urteko b.b. hazkundera	17.510	9.950	9.135	9.540


Iturria: EUSKO JAURLARITZA. "EAEko azterketa demografikoa eta etxebizitza-merkatuaren epe luzerako bilakaera"

EUSTATEk 2005ean egindako biztanleria-proiekzioetan oinarrituz (2015erako proiektzioak), Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak "EAEko azterketa demografikoa eta etxebizitza-merkatuaren epe luzerako bilakaera" izenburua duen txostena egin du 2007an. Horren helburua faktore demografikoez eta soziologikoez EAEko etxebizitza-eskariaren bilakaeran duten eragina aztertzea da, baita epe ertainerako egoera aurreikusten da. Aurreikuspen horiei dagokienez, txostenak alderdi demografiko interesgarri batzuen etorkizuneko bilakaeraren balizko egoera planteatzen du (adibidez, jaiotza-tasa, migrazio-mugimenduak,

etab.). Ondoren, alderdi horietariko batzuk laburbilduko ditugu.


Lehenengo eta behin, EUSTATEN proiektzioen arabera, EAEko biztanleriak hazkunde moderatua izango du 2015era arte (80.000 pertsonako hazkundera, urtean 8.000 inguru), eta urte horretan ia 2,2 milioi biztanle egongo dira. Hazkundera handiagoa izango da Araban (%11,8), Gipuzkoan eta Bizkaian baino (%3,2 eta %2, hurrenez hurren). Hala eta guztiz ere, 2005eko biztanleriaren behin betiko datua proiektzio horietan jasotakoaren gainetik dagoenez (26.200 pertsona gehiago), komenigarria da kendura hori 2015erako kalkulaturiko biztanleriaren zifra osoan aplikatzea.

Biztanle kopuruak, batik bat, immigranteak etortzearen eraginez egingo du gora (urtean 6.000 inguruko saldo garbia). EUSTATEk egindako aurreikuspenaren arabera, im-migrazio garbiaren zifrek beheranzko joera izango dute, eta, nolanahi ere, migrazio-mugimenduei buruzko daturik berrienak kontuan hartuta, badirudi migrazio-saldo garbia estatistika-institutuan jasotakoa baino apur bat altuagoa izango dela. Jaiotza-tasari dagokionez, bestalde, ez da aldaketa handirik egongo. Erabilitako hipotesiaren arabera, urtean 22.000 jaiotza inguru egongo dira (2005ean 19.715, behin-behineko datuen arabera). Horrela, biztanleriaren berezko mugimenduak saldo positibo moderatua izango du, urteko 2.000 pertsona ingurukoa.

II.1.2. GRAFIKOA. EAE-KO ETXE KOPURUAREN HAZKUNDE GARBIAREN URTEKO ERITMOAREN BILAKAERA. JOERA

³ Egoera iraunkorrak aditzera ematen du bilakaera demografikoan eragina duten faktoreak ez direla aldatzen, eta proiektzioak egiteko uneko mailetan mantentzen direla. Joeran, aldiz, aintzat hartzen dira proiektzio-hipotesiak.


II.1.3. GRAFIKOA. EAE-KO ETXEEN BATEZ BESTEKO TAMAINAREN BILAKAERA. ETXEKO PERTSONA KOPURUA



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila

Bestalde, hurrengo urteotan etxeak eratzeak adinean dagoen gazte kopuruaren beherakada nabarmena egongo da. Hain zuzen ere, EUSTATEk egindako aurreikuspenaren arabera, 2005etik 2015era, adin-tarte horretako biztanleriak 130.000 pertsona inguruko murriztapena izango du

II.1.4. GRAFIKOA. FAMILIEN BURUZAGITZA TASAREN BILAKAERA, SEXUAREN ETA ADIN TALDEAREN ARABERA



Iturria:

(%20). Aldaketa horrek murriztapen nabaria eragingo du lehenengo etxebizitza lortu beharra duten biztanleen artean.

Aldiz, biztanleriak zahartzen jarraituko du. Aipagarria da adineko pertsona kopuruaren hazkundera. 80 urteko eta hortik gorako biztanleen taldean 50.000 pertsonako hazkundera egongo da (%+50), eta zifra osoa 150.000 pertsonatik gorakoa izango da. Horrenbestez, biztanleria-sektore horretara estuen lotutako etxebizitza-beharrizanak hazkunde nabaria izango dute (errehabilitazioa, irisgarritasuna, etab.)

Azken batean, 2005etik 2015era, EAEn 95.000 etxe inguruko hazkundera egongo da (urtean 10.000 baino apur bat gutxiago). Hazkundera handia izan arren, etxeen zifraren hazkunde-erritmoa apurka-apurka moteltzea eragingo du. Nolanahi ere, demografiaren eta gizartearen bilakaera horrek aurrerantzean ere presioa egingo du EAEko etxebizitza-merkatuan; baina, segurutik, presio horren indarra azken urteetako baino txikiagoa izango da, eta, geldiro-geldiro, murrizten joango da.

Egindako aurreikuspenen arabera, alde batetik, etxe kopurua 62.000 unitatetan handituko da, gutxi gorabehera, aldaketa demografikoen ondorioz (batez ere, lehen esan dugunez, biztanleria zahartzea eta migrazio-mugimenduak). Bestalde, etxe txikiagoak sortzeko joeraren eta egoera sozioekonomikoak hobera egitearen eraginez, gainerako 33.000 etxeen hazkunde gehigarria egongo da. Emaizta horien arabera, halaber, etxe kopuruak hiru lurraldeetan egingo du gora; zifra absolutuetan, hazkundera handiagoa izango da Bizkaian (+40.000), Gipuzkoan (-34.000) eta Araban (+21.700) baino. Hala eta guztiz ere, modu proportzionalan, hazkunderik handiena Araban egongo da (%+18,9).

Dirudienez, gainera, EAEko etxeen batez besteko tamaina etxe bakoitzeko 2,40 kidera murriztuko da 2015ean (orain 2,78). Aurreikuspenik kontserbadoreenak ere badiote etxeen batez besteko tamaina etxe 2,53 pertsonakoa izango dela.

Bestalde, azken urteotako bilakaera aintzat hartuta egindako aurreikuspenaren arabera, emakumeen buruzagitza kopuruak eta erreferentziako pertsonatzat emakumea izango duten etxe kopuruak gora egingo du (2015ean 60.000 gehiago). Halaber, neurri txikiagoan izan arren, gizonak osaturiko etxe kopuruak ere gora egingo du (+35.000). Emakumeek osaturiko etxe kopurua adin-tarte guztietan haziko da: gazteen artean, emakumeek emantzipazioarako duten joera handiagoaren ondorioz; adin ertain-

netan, banatze- eta dibortzio-kasuek gora egitearen eraginez; eta adineko emakumeen tartean, adin horretako emakume kopuruak gora egitearen eta horiek bakarrik bizitzeko duten joera handiagoaren ondorioz.

Halaber, adineko pertsonen (65 urte eta gehiago) buruzagitza duen etxe kopuruak 60.000 unitate inguruko hazkundera izango du, kasurik gehienetan biztanleria zahartzen ari delako. Era berean, adin ertaineko (40-64 urte) etxe kopuruak 58.000 unitateko hazkundera izango du, eta, kasu horretan ere, kasurik gehienak biztanleria-kohorte ugariagoak iristearren eraginezkoak izango dira.


Aldiz, gazteek (20-39 urte bitartekoak) osaturiko etxe kopuruak 25.000 unitateko murriztapena izango duela dago aurreikusita. Murriztapen horrek ez du esan nahi lehendik eraturiko etxeak desagertu egingo direnik, hurrengo ekitaldietan adin-tarte horretan etxe gutxiago (aurreko urteetan baino gutxiago) sortuko dela baizik. 1981ean eta 1991n gertaturikoaren alderantziz (buruzagitza gazteak zizutzen etxe-tasen murriztapena, egoera ekonomikoak txarrera egitearen eraginez), hurrengo urteotan emantzipazio-adinera 1980tik aurrera jaiotako kohorteak heltzearen ondoriozkoak izango da murriztapen hori, kohorte horiek aurrekoak baino askoz ere urriagoak baitira.

1.1.2. Oinarrizko adierazle demografikoen bilakaera

(a) Biztanleriaren berezko mugimendua

2006rako behin-behineko datuek adierazitakoaren arabera, hazkunde begetatiboa (biztanleriaren aldaketa, jaiotzen eta heriotzen arteko kenduraren eraginezkoa, migrazio-mugimenduak aintzat hartu barik) positiboa izango da, eta hori EAEn ez da 1986tik gertatu. Hain zuzen ere, urte horretan 20.043 pertsona jaio ziren, aurreko urtean baino %1,7 gehiago, eta 17.912 pertsona hil ziren, 2005ean baino %7,8 gutxiago. Horren ondorioz, hazkunde begetatiboa

II.1.5. GRAFIKOA. BIZIRIK JAIOTAKOEN LURRALDEKA IZANDAKO BILAKAERA ETA AMA EZKONGABETIK JAIOTAKOEN EHUNEN KOA. EAE



Iturria: EUSTAT. Jaiotzen Estatistikak.

II.1.3. KOADROA. BIZTANLERIAREN BEREZKO MUGIMENDUA EAE-N						
	Bizirik jaiotakoak	Tasa	Heriotzak	Tasa	Hazk. begetatiboa	Tasa
1975	39.646	19,1	14.699	7,1	24.947	12,1
1981	27.255	12,7	14.628	6,8	12.627	5,9
1986	20.094	9,4	15.094	7,1	5.000	2,4
1991	16.228	7,7	16.766	8,0	-538	-0,3
1996	15.987	7,6	18.031	8,6	-2.044	-1,0
2001	17.647	8,5	18.087	8,7	-440	-0,2
2002	18.133	8,6	18.619	8,8	-486	-0,2
2003	19.267	9,1	19.305	9,1	-380	
2004*	19.594	9,2	18.684	8,8	910	0,4
2005*	19.715	9,2	19.425	9,1	290	0,1
2006*	20.043	9,4	17.912	8,4	2.131	1,0

(*) Behin-behineko datuak Mila biztanleko tasak
Iturria: EUSTAT "Jaiotzen eta Heriotzen Estatistika" eta geuk landuta.

+2.131 da, hau da, milako 1ekoa. EAEko hazkunde begetatiboak etengabeko murriztapena izan du 14 urtez jarraian, eta, behin betiko daturik eduki ez arren, badirudi 2004an joera hori gelditu egin zela; hala ere, hurrengo urteotan berretsi egin beharko da joera hori. 60ko hamarkadan eta 70eko hamarkada hasieran izandako saldo begetatibo gogorren ostean, 1990ean joera negatiboa egon zen lehenengoz 1937tik; gutxienekoa 1996an egon zen, eta urte horretan EAEk 2.000 biztanletik gorako hazkunde begetatibo negatiboa izan zuen.


Beti bezala, 2006ko jokabidea desberdina da lurraldeen arabera; hala eta guztiz ere, Bizkaiak saldo positiboa izan du lehenengoz hamarkada osoan, eta 77 biztanle irabazi ditu (aurreko urtean 689 galdu). Aldiz, Gipuzkoak eta Arabak biztanle gehiago irabazi dituzte, hurrenez hurren, 1.288 eta 766.

Jaiotzek, 2006an, bilakaera desberdinak izan dituzte, lurraldeen arabera; alde batetik, Araban 2.918 haur jaio ziren (%4,5); Bizkaiak, berriz, 10.087 jaiotza egon ziren (aurreko urtean baino %0,3 gutxiago). Gipuzkoan 7.038 haur jaio ziren, 2005ean baino %3,5 gehiago. Emaizta horiek aintzat hartuta, EAEko jaiotza-tasa milako 9,4 da, eta horrek, 1995ean hasitako gorakada finkatuta, orain dela bi hamarkadako mailara itzultzen gaitu (1986). 60ko hamarkadan zifra hori milako 20tik gorakoa zen, eta Estatuko batez bestekoaren gainetik zegoen. Gaur egun, gorakada egon arren, EAEk Estatuko (milako 10,8) eta EBko (10,7) batez bestekoetatik azpiko zifrak ditu.

Aipagarria da, urte honetan ere, ama ezkongabeetatik jaiotako haurren ehunekoak izandako hazkunde. Hain zuzen ere, 2006ko datuen arabera, EAEn jaiotako haurren %24,7k guraso ezkongabeak dituzte. Azken hamazazpi urteotan, ratio hori hirukoiztu egin da; izan ere, 1990ean guraso ezkongabeetatik jaiotako proportzioa %7,7 zen. Estatuko (%26,6) eta EBko (%33) batez bestekotik azpiko ratioa da. Europako ehunekoak, 2005ean, Suediako (%55,4) edo Estoniako (%58,5) mailetatik Zipreko (%4,4) edo Greziako (bizirik jaiotako %5,1) mailalara bitartekoak dira. Batasunetik kanpo, aipagarria da Islandiako tasa altua, jaiotako guztien %65,7k ama ezkongabea baitute.

Bestalde, 2007ko behin-behineko datuetan adierazitakoaren arabera, EBn 5,2 milioi jaiotza egon dira, ia 2006an beste, eta 2002an baino %3,9 gehiago (urte horretan Bigarren Mundu Gerratik honako mailarik baxuena). 60ko hamarkadan, bizirik jaiotako urteroko zifra 2 mi-

II.1.6. GRAFIKOA. BIZIRIK JAIOTAKOEN KOPURUA AMAREN ADINAREN ARABERA. EAE. 1996, 2001 ETA 2006



Iturria: EUSTAT. Jaiotzen Estatistikak.

lioitik gorakoa izan zen, ugalkortasun-tasek 1965etik 1995era izandako beherakada handia hasi baino lehen. Jaiotza-tasarik handiena Irlandan dago (milako 15,1), eta txikiena, berriz, Alemanian (milako 8,2), 2006an bezala.

Jaiotza-tasak azken urteotan behera egitea eragin duen faktoreetariko bat, jakina denez, amatasuna gero eta gehiago atzeratzea da. 2006an joera hori mantendu egin da, eta EAEko amen adina aurreko urtekoaren antzekoa da. 2006an haurrak izan zituzten emakumeen %76,5, EAEn, 30 urtetik gorakoa zen. Talderik ugariena 30-34 urte bitarteko emakumeena da (%45,4), eta zifra hori 2005ekoaren berbera da; urte honetan ere, 35 urtetik gorakoaren taldea hazi egin da (jaiotza guztien %31,1).

Ama guztien batez besteko adina 32,3 urtekoa da, eta lehenengo umea duten amena 31,1ekoa. Horrela, EBn lehenengo haurra izan duten amarik zaharrenak EAEkoak dira.

Azken hamarkadan, 30 urtetik beherako ama talde guztien kopuruak behera egin du, eta beherakadarik handiena 25-29 urte bitarteko taldeak izan du (%7,6). Aldiz, 35 urteko edo hortik gorako amen taldeak 10 puntutik gorako hazkunde izan du.

Beste alde batetik, heriotzei dagokienez, 2006an 17.912 heriotza egon dira, aurreko urtean baino %7,8 gehiago; horien artean %52,8 gizonak eta %47,2 emakumeak izan dira. 2006ko heriotza guztien %30,5 tumoreen eraginezkoak izan ziren. Ondoren, zirkulazio-sistemaren ondoriozkoak (%29,8), eta hirugarrenez, ehuneko horietatik urrun, arnasketari lotutako gaixotasunen eraginezkoak (%9,4)⁴.

⁴ Memoria Sozioekonomiko honetan Osasunari buruz dagoen kapituluak zehatz aztertzen dira EAEko biztanleria hiltzearen zergatiak.

II.1.4. Koadroa. Europako Biztanleriaren Mugimenduak 2007an. Lehenengo Kalkuluak

	07.1.1eko biztanle- ria (milatan)	TASA GORDINAK 1.000 BIZTANLEKO			08.1.1erako kalku- laturiko bizt. (milatan)
		Jaiotza-tasa	Hilk.-tasa	Migrazioa	
UE-27	495.128,5	10,6	9,7	3,3	497.198,7
UE-25	465.884,1	10,6	9,5	3,8	468.170,3
Belgika	10.584,5	11,4	9,7	5,4	10.660,8
Bulgaria	7.679,3	9,6	14,9	-4,4	7.605,1
Txekiar E.	10.287,2	11,0	9,9	4,6	10.345,9
Danimarka	5.447,1	11,6	10,2	4,5	5.479,7
Alemania	82.314,9	8,2	10,1	0,4	82.200,2
Estonia	1.342,4	11,8	13,1	-1,5	1.338,6
Irlanda	4.314,6	15,0	6,3	14,3	4.414,8
Grezia	11.171,7	9,8	9,4	3,6	11.216,7
Espainia	44.474,6	10,8	8,6	15,3	45.257,7
Frantzia	63.392,1	13,1	8,6	1,6	63.779,1
Italia	59.131,3	9,5	9,7	7,7	59.578,4
Zipre	778,7	10,9	7,0	18,5	796,3
Letonia	2.281,3	10,1	14,6	-0,8	2.269,1
Lituania	3.384,9	9,5	13,5	-1,7	3.365,4
Luxenburgo	476,2	11,1	7,6	9,0	482,2
Hungaria	10.066,2	9,7	13,3	1,7	10.046,3
Malta	407,8	9,6	7,6	4,6	410,5
Herbhereak	16.358,0	11,1	8,0	-0,4	16.402,0
Austria	8.298,9	9,0	8,9	3,4	8.327,2
Polonia	38.125,5	10,0	9,8	-3,6	37.996,2
Portugal	10.599,1	10,0	10,0	3,2	10.633,0
Errumania	21.565,1	9,8	11,8	-4,7	21.423,4
Eslovenia	2.010,4	9,5	9,2	5,8	2.022,6
Eslovakia	5.393,6	9,9	10,0	1,0	5.398,8
Finlandia	5.277,0	11,2	9,1	1,7	5.296,8
Suedia	9.113,3	11,7	9,9	5,7	9.181,7
Erres. Batua	60.852,8	12,4	9,6	4,0	61.270,3
EAE 2006	2.141,9	9,4	8,4	9,0	2.155,5

Iturria: Geuk landuta EUROSTATen, INEren eta EUSTATen oinarrituz.

Halaber, EAEko 2005eko Heriotzen Estatistikaren behin betiko datuek agerian jarri dutenez, EAEn urte horretan hildakoen batez besteko adina 76,8 urtekoa da (2004an 76,2); gizonen kasuan 73 urte eta emakumeen kasuan 81,1 (emakumeak luzaroago bizi dira). 82 urtera arte, ia adin guztietan, gizonen heriotza kopurua emakumeena baino handiagoa da. Hala eta guztiz ere, 83 urtetik aurrera, alderantzizkoa gertatzen da, eta emakumeen heriotza kopurua gizonena baino bi aldiz handiagoa da (inflexio-puntu

hori iraunkor mantendu da, 2004ko datuei dagokienez). Emakumeak urte gehiago bizitzearen ondorioz, hildako gizonen %62,5 ezkondata zeuden, eta %18 alargunak ziren; aldiz, emakume alargunak %61,8 dira, eta ezkonduak %21,6. Ezkontideren bat hiltzearen ondorioz desagindako ezkontza kopurua 8.426koa izan zen 2005ean, aurreko urtean baino 322 gehiago.

Europar Batasuneko datuei dagokienez, mailarik altuena 2003an egon zen, eta ia 5 milioi pertsona hil ziren;


horrenbestez, milako 10,5 tasa gordina egon da urte horretan (EAE 9,2). Itxurazko beherazko joera horren barruan, EBko heriotza kopuruak urte batetik besterako gorabehera handiak izan ditu, eta, beraz, urte batzuk itxaron beharko dira, joera hori berresteko. 2007ko behin-behineko datuek 4,8 milioi hildako adierazten dituzte (2006ko kopuru bera).

(b) Migrazio-mugimenduak

Eustaten Migrazio Mugimenduen Estatistikak agerian jarri duenez (2006ari buruzko estatistika), EAEk urte honetan 14.458 pertsona irabazi ditu (aurreko urtean baino %9 gehiago), eta, beraz, migrazio-saldoa positiboa da zazpi-garren urtez jarraian. Lurraldeka, Bizkaiak 7.875 pertsona

II.1.5. KOADROA. MIGRAZIO MUGIMENDUEN BILAKAERA EAE-N						
	Estatutik EAEra	EAetik Estatura	Kanpoko Migrazio Saldoa*			
			EAE	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
1990	10.930	15.771	-4.841	128	-3.648	-1.321
1995	11.316	16.130	-4.814	108	-3.637	-1.285
1999	16.103	17.291	-1.188	279	-1.624	158
2000	20.022	17.462	2.560	1.463	804	293
2001	22.914	24.252	7.079	2.316	3.184	1.525
2002	22.121	25.774	6.237	2.710	3.425	774
2003	24.157	27.188	6.251	1.828	3.617	806
2004	23.777	26.417	9.024	3.299	5.168	901
2005	24.517	26.014	13.264	3.028	7.603	2.633
2006	24.231	27.907	14.458	3.271	8.021	3.166

(*) Migrazio-saldo osoa, Estatuarekin eta atzerriko herriein.
Iturria: EUSTAT. "Migrazio Mugimenduen Estatistika".



Iturria: Eustat. Migrazio Mugimenduen Estatistika.

II.1.6. KOADROA. MIGRAZIOAK LURRALDE EREMUEKIN ETA MOTAREN ARABERA. 2006

	Inmi- grazioa	Emi- grazioa	Kanpoko migr.- saldoa	Barruko migrazioa nora	Barruko migrazioa nondik	Migr.- saldoa barrukoa	Udalerri arteko migrazioak
EAE	37.147	22.689	14.458	46.318	46.318	0	94.941
Lurralde Historikoak							
Araba	7.030	3.759	3.271	4.385	4.412	-28	16.998
Bizkaia	20.754	12.733	8.021	28.092	28.238	-146	49.602
Gipuzkoa	9.363	6.197	3.166	13.841	13.667	174	28.341
Eskualdeak							
Arabako Ibarrek	207	115	93	313	267	46	161
Arabako Lautada	5.559	3.011	2.548	2.416	2.524	-108	14.643
Arabako Mendialdea	43	22	21	144	151	-7	71
Arratia Nerbioi	302	111	191	871	832	39	889
Bidasoa Beherea	1.599	1.025	574	1.345	1.199	146	3.606
Bilbo Handia	16.161	10.585	5.576	19.436	20.086	-651	39.555
Deba Beherea	733	397	336	1.008	1.016	-8	2.239
Deba Garaia	850	439	411	823	1.077	-254	2.126
Donostialdea	3.313	3.085	228	6.267	5.995	272	14.353
Durandaldea	1.558	783	775	2.461	2.384	78	3.377
Enkartzioak	536	365	171	1.007	898	109	971
Errioxa Arabarra	625	336	289	186	174	12	492
Gernika-Bermeo	800	270	530	1.059	1.019	40	2.155
Goierri	1.247	480	767	1.653	1.611	41	2.180
Gorbeia Inguruak	143	64	79	485	432	53	169
Kantauri Arabarra	453	211	242	841	865	-24	1.462
Markina-Ondarroa	520	229	291	567	621	-54	1.138
Plentzia-Mungia	877	390	487	2.691	2.399	292	1.517
Tolosaldea	583	310	273	1.285	1.282	3	1.053
Urola-Kostaldea	1.038	461	577	1.461	1.487	-26	2.784

Iturria: EUSTAT. Migrazio Mugimenduen Estatistikak

irabazi ditu, eta zifra absolutuetan berak dauka migrazio-saldorik altuena (%7,3ko hazkundea 2005ari dagokionez). Arabak, bestalde, 3.243 pertsona irabazi ditu (%+7,2), eta Gipuzkoak 3.340 (%+15,3).

Europar Batasuneko joerei dagokienez, EUROSTATEk 2007rako emandako datuen aurrerapenean esaten denez, 90eko hamarkadan beherakada nahiko handiko aldia izan ondoren, EBko nazioarteko migrazio-jarioen saldo positiboa ia bi milioi pertsonatan hazi da 2003an, dagoeneko finkaturik dauden datuen arabera.

2007an, bestalde, migrazio-saldoak apur bat gora egin du, 2006koari dagokionez, eta 1,65 milioi pertsonakoa da (aurreko urtean 1,42); migrazioaren tasa gordina milako 3,3koa da EB-27an eta milako 3,8koa EB-25ean. Jarioen %84 baino gehiago hiru herriri dagozkie: Espainia, Italia eta Erresuma Batua. Gainera, migrazio-saldoan tasa gor-

din negatiborik handienak Poloniak eta Errumaniak dituzte (hurrenez hurren, %-3,6 eta %-4,7).

Bestalde, 2006an, 201.095 pertsonak (aurreko urtean baino %4,3 gehiago) bizileku-aldaketaren bat egin zuen, eta mugikortasuna, kasu guztien %47,2an, udalerriaren barruan da, eta beste %24an EAEko bi udalerri desberdinen artean. Gainerakoari dagokionez, 37.147 kasu kanpoko immigrazioak dira (kanpotik EAEra), eta 22.689 kasu kanpoko emigrazioak (EAEtik beste leku batzuetara).

EAEren eta gainerako autonomia-erkidegoen arteko mugimenduak soilik hartzen badira aintzat, 2006an 2005ean baino 286 pertsona gutxiago heldu ziren EAEra (%-1,2), eta Euskal Autonomia Erkidegoaren eta Estatuko gainerako erkidegoen arteko migrazio-saldoa aurten ere negatiboa izan zen; hain zuzen ere, 3.676 pertsona galdu ziren. Bestalde, atzerriko herrietatik iritsitako pertsonen

migrazio-saldoa positiboa da; hain zuzen ere, 18.134 pertsona gehiago, eta horrek %22,4ko hazkundera adierazten du, aurreko urteari dagokionez.

Kanpoko edo EBtik kanpoko mugikortasun geografikoari dagokionez, horrek 2006an EAEko mila biztanleko 27,9 biztanletan izan du eragina (Arabian milako 35,7; Bizkaian milako 29,2, eta Gipuzkoan milako 22,5); tasa horiek nahiko txikiak dira, gainerako autonomia-erkidegoetako tasekin konparatuta, bertan milako biztanletik 47 mugitzen baitira, batez beste. EAEn jasotzen dutena baino biztanle kopuru handiagoa ematen dioten autonomia-erkidegoak Katalunia, Aragoi, Kanariak, Murtzia eta Gaztela-Mantxa dira. Gainera, EAEko emigranteen erakarpen-erkidegoak honako hauek dira, garrantziaren arabera ordenatuta: Kantabria, Gaztela eta Leon, Madril eta Nafarroa. Lauren artean, EAE uzten duten lau pertsonatik bi hartzen dute.

Atzerriko naziokotasuna duten pertsonen immigrazioak, 2006an, 24.252 pertsonakoak izan dira, 2005ean baino 4.375 gehiago; hain zuzen ere, EAEko sarrera guztien %65. 2000tik, atzerriko naziokotasuna duten immigra-
nteen sarreraren bolumenak hazkundera handia izan du EAEn. Balio absolutuetan, 7.328 sarreretatik 2006ko 24.000 sarreretara igaro gara; hau da, sei urtean 3,3 aldiz kopuru handiagoa da. Kontuan hartu behar da, gainera, atzerriko immigra-
nte horietariko batzuk beste autonomia-erkidego batzuetatik datozela (5.415 pertsona).

Azkenik, titulazioari dagokionez, heziketa mailarik baxuenak %51,2 dira immigrazioetan eta %50 emigrazioetan; gorengo mailak, berriz, %18,9 dira emigrazioetan eta beste %18,9 immigrazioetan. Gainera, immigra-
nte bategi batez besteko adina desberdina da (hurrenez hurren, 30,9 urte eta 34,7 urte), eta bi kasuetan ere behera egin du azken urtean.

(c) Ezkontzak

"Ezkontzen Estatistika", Jaiotzen eta Heriotzen Estatistikarekin batera, Biztanleriaren Berezko Mugimenduen adierazlea da. Estatistika horren antzinasunak (Estatuan 1861etik dago horri buruzko informazioa, eliza-
artxiboek eskertu) aukera ematen du aldi horretan egon diren aldaketa demografikoak hobeto ezagutzeko.

EUSTATen datuen arabera, 2006an EAEn sexu desberdineko egoiliarren arteko 9.778 ezkontza egin ziren (sexu berekoen artean 169 ezkontza), aurreko urtean baino 423 gutxiago. Aipagarria da ezkontza zibilen kopuruak azken urteotan izandako hazkunde handia; hain zuzen ere,


1990eko %23,3tik 2006ko %48,2ra igaro dira. Guztira, 4.714 ezkontza egin dira; ezkontza katolikoak 5.058 izan dira, eta beste erlijio batzuetakoak 6. Lurralde Historikoen arabera, ezkontza zibilen ehunekorik handiena Gipuzkoan egon zen (%49,9), gero Araban (%49,6) eta, azkenik, Bizkaian (%48,7).

Horrela, EAEko ezkontza-tasa 1.000 biztanleko 4,4 ezkontzakoa da, Europar Batasuneko herrien multzokoa eta Estatukoa baino apur bat baxuagoa (bi kasuetan milako 4,8). Ezkontza-tasarik handiena duten Europar Batasuneko herriak honako hauek dira (2005eko datuak): Zipre (1.000 biztanleko 7,8 ezkontza), Danimarka (6,7) eta Errumania (6,6). Ratiorik baxuenak, berriz, Eslovenia (milako 2,9), Italia (4,2) eta Bulgaria (4,3) daude, baina azken bi horiek batez bestekotik hurbil daude.

EAEn ezkontzeko gehien aukeratzen den hilabetea uztaila da (1.605 ezkontza); gero, iraila eta ekaina. Ezkontzideen ezkontza aurreko egoera zibila aintzat hartuta, gizon ezkontzabeak %92,3 izan dira, eta emakume ezkontzabeak %92,5 (gizonen antzeko ehunekoa).

Halaber, amatasunaren adinak gora egitearekin batera, ezkontzideen adinean ere gorakada egon da: 2006an ezkontzideen gizon ezkontzabeen batez besteko adina 32,7 urtekoa izan zen EAEn, eta emakume ezkontzabeen batez besteko adina 30,7koa. 1986tik, ezkontzideen batez besteko adinak 5,3ko eta %5,8ko hazkundera izan du, hurrenez hurren, gizonen eta emakumeen kasuan. Fenomeno hori, neurri handiagoan edo txikiagoan, Europa osoan gertatu da; baina eremu geografikoen arabera desberdintasunak daude: Baltikoko herrietan eta, oro har, Ekialdeko Europar ezkontzideen adina txikiagoa da, bi sexuetan, mendebaldeko zonan baino.

II.1.8. GRAFIKOA. EZKONTZA ZIBILEN EHUNEKOAK LURRALDE HISTORIKOEN ARABERA IZANDAKO BILAKAERA



Iturria: EUSTAT, Ezkontzen Estatistika.

II.1.7. KOADROA. EUROPAR BATASUNA: EZKONTZA ADIERAZLEAK. 2005

	Ezkontza-tasa gordina	Batez besteko adina lehenengo ezkontzan		Dibortzio-tasa gordina
		Gizonak	Emakumeak	
EB27	4,9	: 0	: 0	2,0
EB25	4,8	30,0	27,7	2,1
BE	4,1	29,3	27,1	2,9
BG	4,3	:	:	1,9
CZ	5,1	28,4	25,6	3,1
DK	6,7	32,3	30,1	2,8
DE	4,7	30,6	28,1	2,4
EE	4,6	28,1	25,5	3,0
IE	5,1	:	:	0,8
GR	5,5	31,0	27,3	1,2
ES	4,8	30,2	28,3	1,7
FR	4,5	30,4	28,2	2,5
IT	4,2	30,4	27,4	0,8
CY	7,8	28,9	27,3	2,0
LV	5,5	26,8	24,8	2,8
LT	5,8	26,6	24,4	3,3
LU	4,4	30,2	27,9	2,3
HU	4,4	28,6	25,8	2,5
MT	5,9	29,0	26,5	0,0
NL	4,4	30,8	28,4	2,0
AT	4,8	29,9	27,7	2,4
PL	5,4	27,0	24,7	1,8
PT	4,6	28,0	26,1	2,2
RO	6,6	:	:	1,5
SI	2,9	30,1	27,5	1,3
SK	4,9	27,7	25,0	2,1
FI	5,6	30,4	28,8	2,6
SE	4,9	32,9	30,5	2,2
UK	5,2	29,3	27,2	2,6
EAE	4,5	32,4	30,4	1,5

Iturria: EUSTATen eta EUROSTATen datuetan oinarrituz landuta.


Bestalde, INEren "Baliogabetzeen, Banaketen eta Dibortzioen Estatistika"⁵ agerian jarri duenez, EAEn dibortzio eta banaketa kopuruak etengabeko hazkundea izan du. Hain zuzen ere, 2006an 5.110 dibortzio eta 626 banaketa egon ziren. Baliogabetzeen oraingo kopurua 6 ingurukoa da, informazioa dagoenetik.

Guztira, erreferentziako urtean 5.742 desagite egon ziren, 2005ean baino %0,8 gehiago; datu horrek mila biztanleko 2,7 ratioa ematen du, eta Estatuko batez beste-

koa milako 3,3koa da. Ezkontza-desegitean tasarik altuenak dituzten autonomia-erkidegoak honako hauek dira: Kanariak (4,3), Balearrak (3,9) eta Katalunia (3,9). Apurtze-tasarik txikiak dituztenak Extremadura (2,2), Gaztela eta Leon (2,3) eta Gaztela-Mantxa (2,4) dira. Nazioarteko konparazioei dagokienez, dibortzio-tasa gordina, azken urteotan, milako biren ingurukoa da Europar Batasunaren multzoan; hain zuzen ere, Maltako Oit (dibortzioa ez dago legeztatuta) eta Italiako milako 0,8tik Estoniako

⁵ "Baliogabetzeen, Banaketen eta Dibortzioen Estatistika" Lehen Auzialdiko, Instrukzioko eta Emakumeen aurkako Indarkeriako Epaitegiek emandako informazioarekin egiten da, eta ezkontza-lotura desagiteari buruzkoa da.

II.1.9. GRAFIKOA. EZKONTIDE EZKONGABEEN BATEZ BERTOKO ADINA. EAE




Iturria: EUSTAT. Ezkontzen Estatistika.

nahiz Txekiar Errepublikako milako 3ra eta Lituaniako milako 3,3ra.

2005ean (apur bat) eta 2006an (modu nabarian) aldaketa bat ikusi zen desegiteen osaketan; hain zuzen ere, dibortzio kopuruak gora (2005etik 2006ra % +61,7) eta banaketen kopuruak behera (% -75,2) egin zuen, banaketen eta dibortzioen arloko Prozedura Zibilar buruzko Legea eta Kode Zibila aldatu duen uztailaren 8ko 15/2005 Estatuko Legea onestearen ondorioz. Arau horrek alde aurreko banaketa barik dibortziazteko aukera ematen du.

EAEan banatzen edo dibortziazten diren pertsonen ezaugarriak dagokienez, 2005eko datuek adierazitakoaren arabera, gehienak 30 eta 50 urte bitartekoak dira, eta emakumeak gehienetan gizonak baino gazteagoak dira. Gainera, kasu guztien erdian baino gehiagotan, ezkontideek seme-alabak dituzte: kasuen %36,5 seme-alaba bateko bikoteak dira, %17,4an bi seme-alabako bikoteak, eta %1,7an hiru seme-alabako edo gehiagoko bikoteak.

II.1.10. GRAFIKOA. EZKONTZA DESEGITEAK EAE-N: BANAKETEN ETA DIBORTZIOEN BILAKAERA




Iturria: INE. Baliogabetzen, banaketen eta dibortzioen estatistika.

(*) Desegiteen barruan, eliza-baliogabetzen kopuru osoa sartzen da.

sustatzeko adinak bat datoz, gaur egun; horren ondorioz, emakume gazteak egoera zailean daude, seme-alabak edukitzeko erabakia hartzeari dagokionez. Ama izan nahi duten gehienek bateratu egin nahi dituzte amatasuna eta enplegua, eta gero eta ugariagoak dira 15 urtetik beherako seme-alabak izan eta bi bikotekideak lanean dituzten etxeak. Horren eraginez, bizikidetzak-unitateen barruan arazo berriak sortu dira, ordaindutako lana eta familiaren zaintza bateratu behar izateari dagokionez. Lanaren eta familiako bizitzaren arteko gatazka hori nabarmendu egiten da bi unetan: lehenengo eta behin, haurrak txikiak direnean, eta ondoren, gero eta sarriago, mendekotasuna duten adineko pertsonen lagundu behar zaienean.

Haur txikien zaintzak amek etxetik kanpo lan egiten dutenean dituen zailtasunei dagokienez, CISeko eta CSICko adituek Estatuan bizi diren 15 urteko edo gehiagoko emakumeei zuzendutako inkesta batean oinarrituz

II.1.11. GRAFIKOA. EMAKUMEEN JARDUERA ETA ENPLEGU TASEN ETA JAIOTZA TASAREN BILAKAERA EAE-N



Iturria: Geuk landuta EUSTATen datuetan oinarrituz.

II.1.11. GRAFIKOA. EMAKUMEEN JARDUERA ETA ENPLEGU TASEN ETA JAIOTZA TASAREN BILAKAERA EAE-N

Familia gizarteko funtsezko elementua da, gizarte-funtzio oso garrantzitsuak dituelako; batez ere, haurrak gizartean kokatzea eta identifikatzea, menpeko haurrak zaintzea, kideak mantentzea, kide guztiak sozializatzea, euskarri afektiboa eta emozionala ematea, eta elkarrekiko babesa eta laguntza ematea.

Azken urteotan, familiak izandako aldaketek eta horiek ugalkortasun-tasetan izandako eraginak interes publiko gero eta handiagoa sortu dute, horrek guztiak dituen ondorioen eraginez. Ugaltzeko eta laneratzeko nahiz lana

II.1.8. KOADROA. FAMILIAK MOTAREN ETA BATEZ BESTEKO TAMAINAREN ARABERA (MILATAN). EAE. 2006								
	EAE		Araba		Bizkaia		Gipuzkoa	
	Familiak	B. best. tamaina	Familiak	B. best. tamaina	Familiak	B. best. tamaina	Familiak	B. best. tamaina
Guztira	787	2,64	111,3	2,66	423,5	2,62	252,1	2,65
Kide bakarrekoa	169,7	1,00	24,7	1,00	89,7	1,00	55,2	1,00
Konposatua	21,3	2,34	3,4	2,55	11,3	2,27	6,6	2,32
Nuklearra seme-alaba barik	164,7	2,00	23,8	2,00	87,5	2,00	53,4	2,00
Nuklearra seme-alabekin	299,3	3,59	43,4	3,61	161,3	3,56	94,5	3,61
Guraso bakarrekoa	65,5	2,39	8,0	2,49	37,5	2,37	20,0	2,37
Handitua	38,1	4,00	4,6	3,92	21,4	4,00	12,0	4,04
Polinuklearra	28,5	5,33	3,3	5,41	14,7	5,27	10,4	5,37

Iturria: EUSTAT. Inkesta Demografikoa, 2006.

egindako “Ugalkortasuna eta Balioak XXI. mendeko Espainian” (2007) ikerketan ezarritakoaren arabera, amak izan diren emakume aktiboen taldearen barruan, kasu guztien %28,4an emakumeok utzi egin behar izan dute euren jarduera, eta %27,9an gutxienez urtebetean utzi egin behar izan dute lana. Halaber, amatasunak mugatu egin die lanbide-sustapena inkestaturiko guztien %20,9ri; laneko diskriminazioa sortu die %8,2ri, eta lana utzarazi die %16,8ri. Horren guztiaren eraginez, emakumeen %60k uste du amatasuna oztipoa dela euren lanbiderako. Azken batean, ikerketan ondorioztaturikoaren arabera, emakume espainolen ustez, seme-alabak haztearen kostuak bikotekideenak baino askoz ere garestiagoak dira euren lanbide-bizitzarako, eta gehienek familia-eredu simetrikoa nahiko lukete; hala eta guztiz ere, erdia baino gutxiago bizi da gustatuko litzaiekeen familia-ereduaren antzeko eredu batean.

Halako egoerak arintzeko, 2002an Eusko Jaurlaritzak “Seme-alabak dituzten familiei laguntzeko Erakunde ar-teko I. Egitamua” abiatu zuen, familiei seme-alaba kopurua askatasunez aukeratzea ekiditen dieten oztipo ekonomikoak eta soziolaboralak kentzeko. Egitamuaren indarraldia amaitu ondoren⁶, horren balantzeak agerian jarri duenez, Egitamuaren indarraldian 220 milioi euro gastatu ziren, funtsezko hiru neurri motatan banatuta: haur-esko-

lak finkatzeko gastua (%34), familiei seme-alabak jaiotze-agatik edo adopzioan hartzeagatik emandako dirulaguntzak (%30,7) eta langileei laneko nahiz familiako bizitza egokitzeko laguntzak (%23,9). Jasotako gainerako neurriek (sentsibilizazioa, enpresei emandako dirulaguntzak eta haur-hezkuntzako zentroak erabiltzeko prestazioak) Egitamuak sorturiko kostuaren zatiki oso txikia osatu zuten.

Familiei emandako laguntzen arloan, Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren “Gizarte Zerbitzuen Eskariaren Estatistika, 2006” deritzonak informazioa bildu du, inoiz halako laguntzak jaso dituzten etxeei buruz. Guztira, 80.219 etxek jaso dituzte inoiz laguntza horiek, hau da, EAEko etxeen %10,2k. Etxe horietan, guztira, 312.670 pertsona daude, guztizkoaren %14,5. Laguntzarik gehien jaso dituzten etxeen ezaugarriak dago-kienez, aipagarriak dira erreferentziako pertsonatzat gizona dutenak (onuradun guztien %90,3) eta buruzagitzat 25-44 bitartekoak dituztenak (%86,8). Halaber, 35-44 urte bitarteko pertsonak dituzten etxeen %34k eta 25-35 bitartekoak dituztenen %23k Egitamuko laguntzaren bat jaso dute; proportzio hori %6,9ra jaisten da 25 urtetik beherako etxeetan, eta %5,9ra 45-54 urte bitartekoetan.

Bestalde, etxe onuradunen %93,2k pertsona nagusia Estatuko hiritarra izan arren, laguntzak lortzeko joera handiagoa da atzerriko naziokotasuna duten pertsona nagu-

⁶ 2006n, Familiei Laguntzeko II. Egitamua abiatu zen, 2006-2010eko aldirako, eta, kapitulu hau ixteko unean, ez dago horrek 2006-2007an izandako emaitzei buruzko daturik.

II.1.9. KOADROA. 25-49 URTE BITARTEKO GIZONEN ETA EMAKUMEEN LANALDIAREN ANTOLAMENDUA. SOLDATAPEKOEN GAINEKO EHUNEKOA. 2004

	EB-25		Espainia		EAE*	
	Emakum.	Gizonak	Emakum.	Gizonak	Emakum.	Gizonak
Ordutegi finkoak eta txandak	76,0	73,4	88,2	88,2	88,9	86,8
Finkoak	69,2	65,5	84,7	83,8	67,6	59,5
Txandak	6,8	7,9	3,5	4,4	21,3	27,4
Kartarako ordutegiak	11,6	11,5	1,2	1,4		
Baimen-orduak berreskuratzeko aukera	4,8	4,8	1,1	1,1		
Baimeneko orduak edo egun osoak berreskuratzeko aukera	6,8	6,7	0,1	0,3		
Ordutegi malguak	10,5	12,3	8,0	6,6	11,1	13,2
Ordutegiaren hasiera eta amaiera aldagarriak	7,0	7,0	6,7	5,3		
Norbere ordutegia aukeratzeko askatasuna	3,5	5,4	1,3	1,3		
Beste batzuk	2,0	2,8	2,5	3,9		

(*) EUSTATen Bizi Baldintzen Inkestaren laginean 16 urtetik gorako gizon-emakumeak sartzen dira.
Iturria: EUROSTATen (EFT 2004) eta EUSTATen (BBI 2004) datuetan oinarrituz landuta.

siak dituzten etxetan (%22,1, eta Estatuko naziokotasuneko pertsona nagusia duten etxeen kasuan %9,8).

Funtsezko alderdi bat laguntza hauek gehienbat pertsona aktibo guztiak lanean dituzten etxeek jasotzea da (onuradun guztien %89,5). Termino erlatiboetan, etxe horien %14,7k hartu dituzte inoiz halako laguntzak, eta kide aktiboren bat langabezia duten etxeen kasuan ehunekoa

%10,7 da, eta kide aktibo guztiak langabezia dute etxeen kasuan %7,1.

Beste alde batetik, Europako Enplegu Estrategiaren helburuetariko bat gizonak eta emakumeak enplegua aukera berdintasunean lortu ahal izatea da; horrenbestez, bi sexuek lanbide-jarduera garatzeko aukera izan behar dute, familian dituzten egoerak eta erantzukizunak edozein izan

II.1.10. KOADROA. 16 URTEKO EDO GEHIAGOKO BIZTANLERIA (MILATAN): LANEKO ORDUTEGI MOTAREN ARABERAKO EHUNEKO BANAKETA. EAE

		Guztira (milatan)	Txandaka	Ordutegi finkoa	Beste batzuk
Guztira	1989	665,9	17,0	67,8	15,2
	1994	706,1	16,8	65,0	18,1
	1999	830,8	19,0	65,8	15,2
	2004	875,5	24,8	62,9	12,3
Gizonak	1989	453,7	19,8	65,4	14,8
	1994	447,4	20,4	59,5	20,1
	1999	510,0	22,6	60,6	16,8
	2004	498,5	27,4	59,5	13,2
Emakumeak	1989	212,1	11,0	72,9	16,1
	1994	258,8	10,7	74,5	14,8
	1999	320,7	13,3	74,1	12,7
	2004	377	21,3	67,6	11,1

Iturria: EUSTAT. Bizi Baldintzen Inkesta. Datu-bankua.

arren. Horri dagokionez, eta familientzako laguntza-politikoan maila berean (goian azaldutako politikak, adibidez, haur txikiak zaintzen laguntzeko egiturak edo guraso-baimenak), lan-formula malguk garrantzi handiko eginkizuna dute helburu hori lortu ahal izateko.

2007an, EUROSTATek 2004ko Lan Indarraren Inkestako gai-modulu baten emaitzak argitaratu ditu; lan-antolamenduari buruzkoa da eta 25-49 urte bitarteko langileetan oinarritzen da, talde horrek izan baititzake arazorik handienak seme-alaben zaintza eta lanbidea egokitzeko. Informazio horretan agerian jartzen denez, adin talde horretako soldatapekoen hiru laurden inguruk (Inkestarako datuak eman dituzten EBko 20 herrien taldean) lan-ordutegi finkoak edo asteroko txandak/erreleboak dituzte (emakumeen %76 eta gizonen %73,4). Guztien laurdenek baino ez dute nolabaiteko malgutasuna, egindako lanorduetan; hau da, horietatik soilik dute lanorduak "kapitalizatzeko" aukera, orduok gero baimen forman berreskuratzeko (%12)

edo ordutegi aldagarriak hautatzeko (%10-12). Datuen arabera, gainera, ordu malguen onuradunak diren emakumeen ehunekoa gizonena baino apur bat txikiagoa da.

Inkestak Espainiaren kasuan emandako emaitzei erreparatuta ikusten denez, inkestaturiko pertsonen %88,2 (ratio bera gizonentzat eta emakumeentzat) ordutegi finkoak edo txandakakoak dituzte. Gainerako aukerei dagokionez, emakumeen %1,2 eta gizonen %1,1 "kartarako" ordutegiak dituzte (lanorduak baimen gisan berreskuratzeko aukera), eta emakumeen %8k eta gizonen %6,6k diote ordutegi malguak dituztela.

EUSTATen "Bizi Baldintzen Inkesta, 2004" deritzonaren emaitzak, xehetasun maila berekoak izan ez arren, ildo beretik doaz; izan ere, bertan ondorioztatzen denez, lanean ari diren gizonen %86,8k eta emakumeen %88,9k (inkesta honek ez du adinaren araberrako bereizketarik egiten) ordutegi finkoak eta txandak dituzte. Emaitzen denboran izandako bilakaerari dagokionez, gizonen kasuan bilakaera

II.1.11. KOADROA. HIRU URTETIK BEHERAKOEI LAGUNTZEKO ZENTROAK. ESKAINTZAREN ETA ESKARIAREN DATUAK. 2007

	Plazak / 1.000 haur		Beste gabeko eskariaren %	Eskariaren familia-egoera (%)		
	Zentro pribatuak	Zentro publikoak		Ama eta aita aktiboan	Ama bakarrik, aktiboan	Aita bakarrik, aktiboan
Andaluzia	7,9	9,4	68,2	82,4	12,8	4,8
Aragoi	17,4	10,6	44,8	82,8	11,2	6,0
Asturias	10,2	6,5	71,1	81,1	13,2	5,7
Balearrakl	26,1	9,5	39,2	77,0	15,1	8,0
Kanariak	16,6	10,6	57,6	67,3	22,1	10,5
Kantabria	10,4	12,7	52,4	77,0	15,5	7,5
Gaztela eta Leon	21,0	11,3	51,8	76,8	14,8	8,4
Gaztela-Mantxa	13,8	23,7	19,9	82,4	11,5	6,1
Katalunia	17,7	15,4	39,6	85,4	9,8	4,8
Valentziako erkidegoa	4,4	4,8	81,8	83,7	11,0	5,3
Extremadura	4,3	23,1	54	85,1	10,3	4,6
Galizia	14,3	12,8	54,2	77,3	15,8	6,9
Madril	24,0	12,8	37,7	84,2	11,3	4,4
Murtzia	1,4	9,5	74,4	82,2	12,0	5,8
Nafarroa	15,7	25,4	28,8	80,1	12,4	7,6
EAE	22,9	29,4	10,5	85,1	10,3	4,6
Errioxa	21,9	18,4	23,1	81,3	12,2	6,5
Ceuta			38,8	72,0	15,4	12,6
Melilla	11,7	4,7	76,3	75,3	10,8	13,9
GUZTIRA	14,3	27,1	50,8	82,0	12,3	5,6

Iturria: LIM. Lehen haurtzarorako zerbitzuen kalitatea eta eskariaren zenbatespena. 2007.

ona da, malgutasun handiagoa adierazten baitu; emakumeen kasuan, aldiz, ez da ona: 1989an emakumeen %16,1 "beste batzuk" kategorian zeuden (horren barruan ordutegi-malgutasuna dutenak sartzen dira), eta 2004an ehunekoa %11,1 da. Nolanahi ere, datu horiek kontuz aztertu behar dira, bi inkesten (EUROSTATena eta EUSTATena) metodologiak ez baitira berdinak. Emaiztarik orokorrenak, hala ere, norabide berekoak dira.

0-3 urteko haurrentzako haurtzaindegi-zerbitzuei dagokienez, Lan eta Immigrazio Ministerioak oraintsu egingandako ikerketa baten arabera (autonomia-erkidegoek emandako datuekin eta Europako Batzordeak eskatuta egindako ikerketa), 3 urtetik beherakoen zaintzarako zentroetan plazarik gehien dituen autonomia-erkidegoa EAE da (adin talde horretako mila haurreko 52,3 plaza, eta Estatuko batez bestekoa milako 27,1 da); aldi berean, bete gabeko eskariaren ratioa %10,5 da (Estatuko ratorik baxuena), eta Estatuko batez bestekoa %50,8 da. *"Haurtzarorako zerbitzuen kalitatea eta eskariaren zenbatespena"* ikerketak (2007), autonomia-erkidego batzuetan bete gabeko eskariaren proportzio handia ez ezik, datuak agintaritzen artean barreiatuta egotea nabarmendu du, baita eskaintza pribatuaren zati handian dagoen kontrolik eza orokorra ere.

1.1.4. Immigrazioa EAEn

Nazioarteko migrazioak, aldi laburrean, nazioarteko politika- eta garapen-agendako funtsezko gaietarikoa bat izatera heldu dira, eta gizarte eta ekonomia globalen etapa honetako ezaugarri bereizgarrietarikoa osatzen dute. Mundu mailako lehenengo migrazio-etapa handia 1850-1910 aldian izan zen, eta XX. mendeko 90eko hamarkadatik Bigarren Mundu Gerraren ostean hasitako migrazio-etapa handiaren bigarren zatian gaude.


2006ko urtarrilean, Europar Batasuneko gainontzeko herrietakoak 18,5 milioi inguru ziren, hau da, ia 493 milioi pertsonako biztanleria osoaren %3,8 (Eurostaten datuak, EB-27). Immigrazioa EBko hazkunde demografikoaren faktore nagusia da oraindik ere, eta estatukiderik gehienetan immigrazio positiboa dago; immigrazio hori urteroko 500.000 pertsonatik milioi bat pertsonara bitartekoa izan

da 90eko zatirik handiena, eta 1,5-2 milioi bitarteko mai-letaraino hazi da 2002tik.

Immigrazioaren tipologia estatukidearen arabera da. Familia berriro biltzea ohikoa da Austrian, Frantzia edo Suedian. Beste zenbait herritan, adibidez, Irlandan, Espainian, Portugalen edo Erresuma Batuan, berriz, lan-immigrazioaren ehuneko handia dago⁷. Espainian erregulazazio handiak egin ziren, eta Frantziak, Alemaniak eta Herbehereek, ostera, erregulazazio mugatuak aukeratu zituzten, immigrante talde jakinetarako.

EBtik kanpoko beste herri batzuetako biztanle talderik handienak Turkiakoak (2,3 milioi) Marokokoak (1,7 milioi), Albaniakoak (0,8 milioi) eta Aljeriakoak (0,6 milioi) dira. Hala eta guztiz ere, atzerrian jaiotako estatukide batzuen kopurua (adibidez, Frantziakoa, Suediakoa, Herbehereetako eta Erresuma Batukoa) beste herri batzuetatik iritsitako biztanle kopurua baino handiagoa da, immigrante askok harrerako herriko naziokotasuna lortu baitute.

II.1.12. GRAFIKOA. ATZERRIKO BIZTANLERIAREN HAZKUNDEA AUTONOMIA ERKIDEGOEN ARABERA. OINARRIA 1998.



Iturria: Geuk landuta, IKUSPEGIren eta INEren datuetan oinarrituz

⁷ EAEko Gobernu Ordezkaritzaren datuen arabera, 2007an 2.700 immigrante baino ez dira heldu EAera, familia berriro biltzeko prozesuen bitartez. Administrazio-baimenen datuak askoz ere altuagoak izan arren, kontsulatu askok bederatzi eta hamabost hilabeteko aldia behar izaten dute Estatuan sartzeko bisatuak emateko, immigranteei laguntzen dieten erakundeek salatu dutenez.

EAEk ere fenomeno horiek guztiak bizi ditu, eta kultura-aniztasun gero eta handiagoa dauka, oraintsu biztanle talde berriak eta gero eta ugariagoak iristearren eraginez. Oraindik ere ez da inguruko beste gizarte batzuen mailetara heldu, baina Euskal Autonomia Erkidegoan atzerriko immigrazioak hazkunde nabaria izan du azken urteotan; horrela, guztiz lurralderaturiko aniztasun-panorama eratu da. Fenomeno horri dagokionez, Eusko Jaurlaritzaren I. Immigrazio Egitamua EAEko administrazioak koordinaturiko eta zeharkako jarduketa ikuskatzeko nahiz sistematizatzeko lehenengo prozesua izan zen, arlo horretan eskumenik ez edukitzearen berezko mugekin. Beraz, egitamu hori, sarritan, laguntzako baina ez da izan; hain zuzen ere, immigrinteak zerbitzu publikoak (osasuna, hezkuntza,...) bertakoen aukera-berdintasunean lortzeko eta hobetzeko hasierako pausoak finkatu ditu.

Horren indarraldia amaitu ondoren, bere balantzearen emaitzen artean aipagarria da aurreikusitako neurrien %75 betearazpenean Eusko Jaurlaritzako 13 sailek eta erakundek parte hartzea, eta Foru Aldundiekin eta udalekin koordinatuta egotea, eta helburuak, berriz, garaturiko neurrien %72,6an guztiz beteta egotea eta %15,6an neurri batean beteta egotea. Halaber, kasu guztien %85ean, Egitamuaren indarraldia amaitu ondoren neurriak mantentzea eta garatzen jarraitzea dago aurreikusita. Gainera, egiturak eta baliabideak sortu dira; adibidez, EAEko Immigrazio Behatokia, Immigrinteen Gizarteratzeko eta Gizarte Partaidetzarako Foroa edo Udal Oinarriko Harrera Sarea.

2007an onetsita, II. Immigrazio Egitamua (2007-2009) EAEko migrazio-errealitatearen kudeaketari jarraipena emateko asmoz sortu da, lehenengo Egitamuaren jarraipentzat. Horretarako, hirukoiztu egin dira esleituriko fondoak (98 milioi euro), eta, gainera, erakunde arteko izaera izango du, Foru Aldundiek eta udalek hartu baitute parte bere diseinuan (horren kudeaketan ere parte hartuko dute). Berritasunen artean, aipatzekoa da immigrinteak lan-merkatuan sartzearen aldeko apustua egitea, eta, horretarako, euren lanbide prestakuntza eta heziketa hobetzeko baliabideak eskainiko dira, gainera, immigrinteek euren jatorrizko herrietara egiten dituzten bidalketak eskualde horietan garapenerako lankidetzaproiektuak abiatzeko erabiliko dira.

(a) Bilakaera demografikoa

Udal Erroldako datuen arabera, 2006an EAEn erroldaturiko atzerriko biztanleriaren bolumenak nabarmen handitzen jarraitu du. 2006ko urtarilean, EAEn 85.542 immigrinte bizi ziren (guztizkoaren %4); handik urtebetera, erroldaturiko atzerriarren zifra 98.526 pertsonakoa da, hau da, %15,2 gehiago.

Atzerriarren biztanleriaren ekarpena erabakigarria izan da demografiaren aldetik. 1998tik 2007ra, biztanleria autoktonoa 40.422 pertsonatan murriztu da. Baina, aldi berean, biztanleria osoa 42.488 biztanletan hazi da. Hori ezinezkoa izango litzateke atzerriko naziokotasuneko 82.910 pertsona heldu ez balira. Hau da, biztanleriaren galera atzerriko biztanleriaren saldo positiboarekin orekatu da. Atzerriko biztanle kopuruaren hazkunde hori immigrinteek biztanleria osoan duen garrantzia nabaritzen da: 2007an, EAEn atzerriko biztanleriaren ehunekoa %4,6 zen, eta Estatuan %9,9.

Eusko Jaurlaritzaren EAEko Immigrazio Behatokiak (Ikuspegi) egindako datuen aurrerapenaren azterketak agerian jarri duenez⁸, lurralde historikoen artean, atzerriko biztanleriaren bolumenik handiena duena Bizkaia da, 49.916 atzerriarrekin (guztizkoaren %50,8); gero, Gipuzkoa eta Araba, erroldaturiko 28.883rekin (%29,4) eta 19.309rekin (%19,7), hurrenez hurren. Hala eta guztiz ere, immigrinteen ehunekorik handiena Arabak dauka: %6,3. Bizkaian ehunekoa %4,4koa da, eta ehunekorik txikiena Gipuzkoan dago: %4,2. Laburbilduta, EAEko atzerriarren erdia Bizkaian bizi da, eta ehunekorik handiena Araban dago.

EAEko atzerriarren biztanleria, sexuaren arabera, zati berdinetan banatuta dago: %50,6 gizonak dira eta %49,4 emakumeak. Osaketa hori apur bat feminizatuagoa da EAEn Estatuan baino; izan ere, Estatuan %53 gizonak dira. Desberdintasun hori EAEn Amerika Latinoko biztanleriaren presentzia handiagoaren eraginezkoa da (batez ere, Bizkaian), biztanleria horrek emakumeen proportzio handiagoa baitauka.

EAEn erroldaturiko naziokotasun taldeei dagokienez, mantendu egiten da Amerikako naziokotasunen nagusitasuna; hain zuzen ere, EAEko egoiliarren %50 dira. Ame-

⁸ Azterketa honetan balio absolutuak ez datoz bat behin betiko datuen guztizkoekin. Ikuspegik INEren 2007ko lehenengo zenbatespenean oinarrituz egindako ikerketa dago jasota; izan ere, desberdintasunak, ehunekoen arabera, ez dira handiak. Nolanahi ere, behin betiko datuek agerian jarri dutenez, aurrerapenak gutxietsi egin zuen atzerriarren biztanleriak guztizkoan duen pisua (bai EAEn eta bai Estatuan).

II.1.13. GRAFIKOA. EAE-KO ESKUALDEAK NAZIOKOTASUN GEHIENGOAREN ARABERA. 2006KO ERROLDA

Fuente: Ikuspegi con datos INE

rika Latinoaren kasuan, 2003tik hazi egin dira bertako atzeritarren bolumena eta ekarpen-ehunekoa. Ipar Amerikak (Kanada eta AEB) egonkor mantentzen du bere ekarpena (%1 inguru).


Naziototasunen arabera, hamar garrantzitsuenen artean, Amerika Latinoko bost (Kolonbia, Ekuador, Bolibia, Brasil eta Argentina), Magrebeko bi (Maroko eta Aljeria), EBko bi (Portugal eta Errumania) eta Asiako bat (Txina) daude. Azken urteotan, "Gainerako naziototasunak" izenekoaren ehunekoa gero eta gehiago hazten ari dela ikusi da, aldi berean, garrantzitsuenen garrantzi erlatiboa murriztu egin da. Fenomeno horiek gure artean dauden naziototasun kopuru handiagoa hartzen ari den garrantzi gero eta handiagoaren eraginezkoak dira. EAEn presentziarik handiena duen naziototasuna Kolonbiakoa da, baina 2003tik immigrazio osoaren partaidetzan %5 galdu du. Boliviaren kasua interesgarria da, 2003an zifra txikitxiak izatetik (atzerriko biztanleria osoaren %0,9) EAEko bigarren naziototasun nagusia izatera igaro baita (%9,7).

Ildo horretatik, errumaniarren kasua aipa daiteke, hiruugarren naziototasun nagusia baita (%8,9). Beste naziototasun batzuk (esate baterako, Maroko, Portugal edo Ekuador) nagusien artean mantentzen dira, baina garrantzia galdu dute.

Bestalde, Lan eta Immigrazio Ministerioaren datuek agerian jarri dutenez, 2006ko abenduaren 31n, 62.228 atzeritarrek zuten EAEn bizitzeko baimena (aurreko urtean baino 7.000 gehiago). Datu horiek 2007ko urtarrilaren 1ean eroldaturikoekin konparatuta, erregularizazio-tasa ikusten da; tasa horren arabera, eroldaturiko atzeritarren %65ek EAEn bizitzeko baimena zuten, erreferentziako datan. 2006ko erregularizazio-tasa ia aldaketa barik mantendu da (bi hamarren galdu), 2005eko urte batetik besterako hazkunde nabarmena, neurri handian, erregularizazio-prozesuaren eraginezkoa izan baitzen.


Halaber, Ikuspegik (EAEko Immigrazio Behatokia) 2007an egindako inkesta baten arabera, EAEn bizi den atzerriko biztanleriaren zatirik handiena orain dela 2-6 urte

II.1.14. GRAFIKOA. ZENBAT DENBORA DARAMAZU EAE-N BIZITZEN? 2007



Iturria: IKUSPEGI. Administrazio- eta lan-egoera, ukapenari eta gizarteratzeari buruzko iritzia. 2007

II.1.15. GRAFIKOA. ATZERRIKO BIZTANLERIAK EAE-N ETA ESTATUAN IZANDAKO BILAKAERA



Iturria: Geuk landuta INEren eta LGGMren datuetan oinarrituz.
Oharra: Erregularizazio Indizea bizitzeko baimena duen atzerriar kopuruaren eta

heldu da bertara. Oraintsuko ezarkuntza baten kasu nabaria Boliviakoena da, horien %1 soilik baitzeuden 2002 baino lehenagotik. Gainera, atzerriarren %22,8k diotenez, egoera irregularrean daude, eta %63,8k hemen bizitzeko baimen-modalitatearen bat dute. Gainerakoek espainiar naziokotasuna edo Europako beste herriren batekoa dute. Beraz, nahiko koherentzia handia ikusten da Lan Ministerioko datuekin lortzen den erregularizazio-tasako emaitzekin.


(b) Lan-merkatua

Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak (EEZP), 2007ko abenduan, enplegua eskatzen ari ziren atzerriko 5.104 pertsona erregistratu zituen EAE-n; talde hori eskatzaile guztien %6,8 da, eta %23,7ko hazkundera izan du 2006ko abendutik (inskribatutako pertsona kopuruak, berriz, %-2,2ko bilakaera negatiboa).

Horien artean, %78,6 EBtik kanpokoak dira. Gainera, EAEra atzerritarrak iristearen ondorioz, eta aintzat hartuta migrazio-mugimendu horien eragile nagusia ekonomikoa dela, lana eskatzen ari den atzerritar kopurua etengabe hazi da azken urteotan (2005ean %4,7, 2006an %5,4 eta 2007an %6,8); gauza bera gertatzen da, aurrerago ikusiko dugunez, Gizarte Segurantzako afiliazioen kasuan ere.


Bestalde, EAEko Enplegu Zerbitzuan (Lanbide) 2007ko laugarren hiruhilekoan inskribaturiko (lan-eskatzailatzat) immigrantei buruzko informazioak 6.511 atzerritar adierazten ditu, urtebete lehenago baino bi aldiz kopuru handiagoa, eta horrek inskribaturiko pertsona kopuru osoaren %14,8 adierazten du (2006ko laugarren hiruhilekoan %8,9). Horietatik %55 gizonak dira eta %45 emakumeak, eta horrek agerian jartzen du immigranteen lan-eskarian EAEko biztanleen lan-eskarian baino gizon-ehuneko han-

II.1.16. GRAFIKOA. LANA ESKATZEN DUTEN ATZERRITARRAK, SEXUAREN ETA JATORRIAREN ARABERA (EAE-KO ENPLEGU ZERBITZUAN INSKRIBATURIKOAK). 2007-IV



Iturria: LANBIDE. Lanbideren Enplegu Zerbitzuaren Estatistikak.

II.1.17. GRAFIKOA. ATZERRITARREN LAN EGOERA EAE-N



Iturria: IKUSPEGI. Administrazio- eta lan-egoera; ukapenari eta gizarteratzeari buruzko iritzia. 2007.

diagoa dagoela (Lanbiden erregistraturiko pertsona guztien %57 emakumeak dira), behintzat ekonomia normalizatuari dagokionez.

Nolanahi ere, Lanbidek *"Immigrazioa eta lan-merkaturua"* deritzonari buruz argitaraturiko azken txostenaren arabera (2005ari buruzko datuak), atzerriko emakumeak, ezkutuko ekonomian presentzia handiagoa izan arren, gero eta gehiago joaten dira EAEko Enplegu Zerbitzura. Emakume horietako hamarretik zazpi Amerika Latinokoak dira, eta gizonen jatorri nagusia Amerika Latinoa (%32,9) eta Afrika Iparraldea (%35,7) da. Lanbiden inskribaturiko atzeritarren batez besteko adina autonomoen adinaren oso antzekoa da (33,7 urte), eta 20 urtetik beherakoen taldeak ordezkartza oso txikia dauka. Gainera, emakumeak (34,2) gizonak (33,2) baino apur bat nagusiagoak dira. Jatorrizko zonaren arabera, enplegu-eskatzaileen ia erdia (%48,1) Amerika Latinokoak da; horien atzetik Saharatik hegoaldekoak (%17,9) eta Afrika Iparraldekoak (%16,5) daude. Gainera, talde bakoitzaren barruan, sexuaren arabera banaketa desberdina da: Amerika Latinoko pertsonen artean, gehienak emakumeak dira (hirutik bi), eta Afrikako taldeen artean, berriz, bostetik lau gizonak dira.

Bestalde, Lanbideren txostenak agerian jarri duenez, enplegua eskatzen duten immigranteen hezkuntza maila baxua da: bi bosten baino gehiago ez dira oinarritzko mailara heltzen, eta lanbide-heziketa edo unibertsitate-ikasketak dituztenak oso gutxi dira (%10 eta %8,7, hurrenez hurren); bertoko biztanleen artean ehuneko horiek %26,8 eta %47,7 dira, hurrenez hurren. Halaber, immigranteen %20k ez du ikasketei buruzko informaziorik ematen, eta EAEko Enplegu Zerbitzuan inskribaturiko bertoko biztanleen artean ehuneko hori %2,2 da. Eskaturiko enplegu motari dagokionez, ekonomia aurreratuetatik iritsitako immigranteek prestakuntza askoz ere handiagoko enpleguak eskatzen dituzte, eta menpeko ekonomietatik iritsitakoak, berriz, askoz ere oinarritzokoagoak diren lanpostuak eskatzen dituzte. Zerbitzu- eta administrazio-zerbitzuak Amerika Latinoko immigranteek eskatzen dituzte, batez ere; Afrikatik iritsitakoek, berriz, enplegu gutxi eskatzen dute zerbitzuetan, eta gehienbat industriako enpleguak eskatzen dituzte. Eskaririk handieneko enpleguak honako hauek dira (ordena honexetan): garbiketako langilea, etxe-ko langilea, kargako langilea, eraikuntzako peoia, industriako peoia,... Prestakuntzako lanak, bestalde, eraikuntzarekin lotuta daude.


Ikuspegik immigranteei 2007an egindako inkestak agerian jarri duenez, EAEn bizi diren atzeritarren %69,3

lanean dabil, %17,8 langabezian eta gainerakoak ez-aktiboak dira (haurrak, zaharrak, etab.). Lanean ari direnen %88,5 inoren kontura ari da lanean, eta %11,4 bere kontura; tasa hori askoz ere handiagoa da txinatarren, pakistandarren eta senegaldarren kasuan. Inoren konturako lana egiten dutenen artean, %26k kontratu mugagabea dauka, %49,3k aldi baterako kontratua, eta %23,4k diote ez dutela kontraturik. Azkenik, kontratatuen %91,1ek *in situ* lortu dute kontratua, eta %5,4k baino ez dute jatorrizko herrian lortu.

Diru-sarrera mailari eta beste lan-baldintza batzuei dagokienez, %51,7k diote hilean 1.000 eurotik beherako diru-sarrera dutela; %3,1ek 1.000 eta 1.500 euro bitartekoa, eta %7,6 1.500 eurotik gorakoa. Boliviarrak %73,7k, errumaniarrak %64,1ek eta brasildarren, kolonbiarren nahiz ekuadortarren %61,3k diote hilean 1.000 euro baino gutxiago irabazten dutela. Diru-sarrerarik altuenak dituztenak portugaldarrak dira, horien %34,3k 1.500 euro baino gehiago irabazten baitute; baita argentinarrek ere (%9,5). Atzeritarrek lan nagusiari dagokionez adierazitako hileko diru-sarreraren batez bestekoa 810 eurokoa da; zifra horretatik gora asiarrak (830€) eta europarrak (975€) daude, eta behera, berriz, amerikarrak (760€) eta afrikarrak (767€). Orokorrean, atzeritarrek diote, batez beste, 1,08 enplegu dituztela, eta astean 43,4 ordu egiten dutela lan; gainera, %48,5ek diote asteburuetan lan egiten dutela.

EAEko immigranteek Gizarte Segurantzaz duten afiliazioari buruzko datuek agerian jartzen dutenez, presentzia gero eta handiagoa dute lan-merkatuan. 2007ko abenduaren 31n, EAEn 46.992 immigrante zeuden Gizarte Segurantzaz afiliatuta, aurreko urtean baino %19,4 gehiago. Urteko batez bestekoak aintzat hartuta, 2007koa

II.1.18. GRAFIKOA. GIZARTE SEGURANTZAN AFILIATURIKO ATZERITARRAK. LURRALDE HISTORIKOEN ARABERAKO BILAKAERA ETA AFILIATU GUZTIEN GAINEKO EHUNEKOA. EAE




Iturria: Geuk landuta, LGGMren datuetan oinarrituta.

(45.002) 2006koa baino %15,8 handiagoa da, eta EAEn afiliaturiko guztien %4,7 (tasa horrek %12,8ko hazkundea izan du, 2006koari dagokionez). Proportzio hori Estatuko batez bestekoa (2007an %10,3) baino nahiko handiagoa da, baina goranzko joera dauka. Jatorriaren arabera, 2007ko abenduan kotizatzen zuten immigranteen %65,2 EBtik kanpokoak ziren (aurreko urtean %74,5), eta horien %69,9 araubide orokorrera afiliaturik dago, %13,9 autonomoen araubidera, %11,8 etxeko araubidera, eta %4,4 nekazaritzako eta itsasoko araubidera. Gainera, afiliaturiko lau atzerritarretik hiru gizonak dira, baina emakumeen partizipazioa gero eta handiagoa da, emakumeak ekonomia "normalizatuan" gero eta gehiago sartzearen ondorioz. Azkenik, EAEko afiliatu atzerritarrak estatuan afiliaturiko guztien %2,3 dira (2006an %2,03), eta ratio hori proportzionala da EAEn erroldaturiko atzerritarrek Estatuko dagokienez duten %2,18rekin.

(c) EAEko atzerritarrek euren ukapenari edo diskriminazioari buruz duten iritzia

Ikuspegiren Barometroaren arabera (2007ko ekaina), EAEko biztanleen ustez, immigrazioa ez da arazoa. Biztanle guztien %4,2k soilik esan du EAEko arazo nagusia immigrazioa dela. Gainera, bat-bateko hiru galderen multzoan

II.1.19. GRAFIKOA. TXARTEL HONETAN ADIERAZITAKO ARAZOETATIK, ZURE USTEZ ZEIN DIRA EUSKADIKO GARRANTZITSUENAK? DATUAK EHUNEKOETAN (2007)



Iturria: IKUSPEGI. Atzerriko immigrazioari buruzko iritzia eta jarrerak. 2007ko ekaina.

EAEko biztanleen %15ek soilik aipatu dute arazotzat; hain zuzen ere, horri baino garrantzi askoz ere handiagoa ematen diote etxebizitzari (%51), langabeziari (%46,8) eta terrorismoari (%45,8); eta hiritarren segurtasunik ezaren (%15) edo drogen (%13,6) antzeko ehunekotan agertzen da⁹.

Atzeritarrek bertokoek eurekiko duten jarrerari buruz duten iritzia dagokienez, Ikuspegik atzeritarrei egindako Inkestan adierazitakoaren arabera, %73k esan dute inoiz edo ia inoiz ere ez dutela nabaritu EAEko biztanleentzat mehatxu ekonomikoa eragiten dutenik. Afrikatik iritsitako pertsonen eta, hain zuzen ere, Afrika Beltzetik iritsitakoek nabaritu dute sarrien euren aurkako jarrera (%57k esan dute "inoiz" edo "ia inoiz" ez dutela ukapenik sentitu, arlo horretan).

Gainera, %63k diotenez, inoiz edo ia inoiz ere ez dira diskriminatuta sentitu, ez dituzte begiradak nabaritu, ez dituzte euren aurkako gauza txarrak entzun eta ez dute bes-telako ukapen-jarrerarik ikusi. Oraingoan ere, afrikarrek dute iritzirik negatiboena; europarrek eta argentinarrak sentitu dituzte neurri txikienean halako ukapen-jarrerak.


Bestalde, immigranteen %43,2k uste dute EAEko biztanleriak irudi positiboa edo oso positiboa duela eurei buruz; %59,6k uste dute EAEko biztanleriak jarrera adeitsua duela euren herriko pertsonekin, inoiz ere ez duela jarrera erasokorrik (%0,1). Halaber, maila pertsonalean, EAEko immigranterik gehienek (%70,9) diote EAEko biztanleriak jarrera adeitsua duela eurekin, inoiz ere ez jarrera erasokorra (%0,3).

Azken batean, atzeritarrik gehienak nahiko pozik daude euren oraingo bizitzarekin, horri buruz eman duten batez besteko puntuazioa ia "oso ondo" baita (6,96 puntu 10etik). Sentsazio hori askoz ere nabarmenagoa da Amerikatik iritsitako immigranteen kasuan (7,37 puntu). Horien artean, pozen daudenak argentinarrak, kolonbiarrak eta ekuadortarrak dira. Poztasunik txikiena dutenak europarrak dira, gehienbat errumaniarrak.

Azkenik, talde horrek dio "nahiko integraturik" sentitzen dela EAEko gizartean (2,2ko puntuazioa 5etik), eta gehienek esan dute EAEn gelditzeko asmoa dutela (%59,2), baina geldituko ez diren zifra ere handia da (%28,1). Azken batean, atzera itzuli ahal izanez gero, gehienek gauza bera egingo zuten eta berriro ere irten egin euren herriatik (%75,6); ez dira damutzen EAera etorri izanaz.

⁹ EAEko biztanleek immigrazioarekiko duten jarrerari buruzko informazio gehiago lortzeko, irakurri EAEko 2006ko Memoria Sozioekonomikoko "Demografia eta Immigrazioa" kapitulua, bertan horri buruzko epigrafe berezia baitago.

II.1.20. GRAFIKOA. ZURE USTEZ, ZER JARRERA DAUKA, OROKORREAN, EAE-KO BIZTANLERIAK ZURE HERRIKO INMIGRANTEKIN? EAE, 2007



Iturria: IKUSPEGI. Administrazio- eta lan-egoera, ukapenari eta gizarteratzeari buruzko iritzia. 2007

1.2. Hezkuntza eta hezkuntza-ren sustapena

1.2.1. Gastu publikoa hezkuntzan

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerketa Sailaren 2007ko gastuen aurrekontuaren behin betiko likidazioa 2.403.160 mila eurokoa izan da; bigarren partida nagusia izan da Osasunaren atzetik (2.926.681 mila

euro). Beraz, %12,3ko hazkundera egon da, aurreko urteari dagokionez, eta hazkunde hori 2005etik 2006ra bitartekoa (%5,8) baino handiagoa da.

Eusko Jaurlaritzaren gastu osoan Hezkuntza Sailari esleituriko zenbatekoaren partaidetza-ehunekoa %28 da, eta, horrela, hautsi egin da 2004an hasitako beheranzko joera. Izan ere, ehuneko bost hamarreneko hazkundera egon da, aurreko ekitaldiari dagokionez. Gastu hori EAEko BPGren %3,62 da, eta ia ehuneko 2 puntu handiagoa da, 2006an izandako ehunekoari (%3,46) dagokionez.

II.1.12. Koadroa. EUSKO JAURLARITZAKO HEZKUNTZA SAILAREN GASTU LIKIDATUAREN BILAKAERA

Urteak	€ arruntak milatan	EJk likidaturiko gastu osoaren %	BPGren %	Oinarra 2001=100	Ikasleria osoa (1)	Ikasle bakoitzeko gastua eurotan
2001	1.579.449	27,6	3,60	108	431.902	3.657
2002	1.700.754	28,2	3,68	116	427.086	3.982
2003	1.819.806	28,5	3,70	124	426.530	4.267
2004	1.882.886	28,0	3,53	129	462.517	4.071
2005	2.021.892	27,6	3,53	138	435.579	4.642
2006	2.140.099	27,5	3,46	146	437.900	4.887
2007	2.403.160	28,0	3,62	164	438.745	5.477

(1) Ikasleria osoaren barruan Araubide Orokorreko Ikasleria eta Araubide Bereziko Ikasleria sartzen dira

Araubide Orokorreko Ikasleriaren barruan unibertsitatetik kanpoko ikasleria (honen barruan, halaber, Helduen Hezkuntza Orokorreko eta Hezkuntza Bereziko ikasleria) eta unibertsitateko ikasleria sartzen dira.

Araubide Bereziko Ikasleriaren barruan, honako arlo hauetako ikasleak sartzen dira: Plastika Arteak eta Diseinua, Hizkuntzak, Musika, Dantza, Kirola eta Diseinuko Goi Ikasketa

Iturria: Geuk landuta Eustaten eta EAEko Kontu Orokorretan oinarrituz.

Hezkuntza Sailak ikasle bakoitzeko duen gastuaren ratioak (ikasleria osoa, hau da, araubide orokorrekoa eta berezikoa: hizkuntzak, musika, dantza,...) berririo ere gora egin du, 4.887 eurotik 5.477 eurora, azken urte horretan ikasle kopurua hazi arren.

MECek argitaraturiko azken datuen arabera, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak EAEn 2005ean egindako gastu publikoa 2.052 milioi eurokoa izan zen, Estatu osoan, Hezkuntza Administrazioei dagokien gastua 33.961 milioi eurokoa da. Horrenbestez, Hezkuntza Administrazioak PBGri dagokionez duten gastua¹ %3,38 da EAEn (%2,74 Unibertsitatetik kanpoko Hezkuntza, eta %0,77 Unibertsitateko Hezkuntza).

Eusko Jaurlaritzako datuen arabera, aurrekontuaren zatirik handiena xurgatzen duten programak Haur nahiz Lehen Hezkuntza eta DBH dira; hirurek batera Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerketa Sailaren gastu osoaren

%71,9ra iristen dira. Oso aipagarriak dira irakasleen Hezkuntza Berrikuntzako eta Heziketa Iraunkorreko Programe-tan ikusi diren hazkundeak (%+22,6), baita Araubide Orokorreko Irakaskuntzetan likidaturiko aurrekontuan izandako murriztapena ere.

Irakaskuntzen arabera bananduta ikusten denez, Unibertsitatetik kanpoko Irakaskuntzan (Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntza, eta, beraz, HHI kenduta) gastua hazi egin da BPGri dagokionez, %2,59tik %2,6ra igaro baita; eta Unibertsitateko hezkuntzan gauza bera, %0,42tik %0,48ra igarota; hala ere, Araubide Orokorreko irakas-kuntzan %0,12tik %0,08ra murriztu da.

Ikasle bakoitzeko gastua Unibertsitatetik kanpoko Ira-kaskuntzan ere hazi egin da (Haur, Lehen eta Bigarren Hez-kuntza, eta, beraz, HHI kenduta), 3.801etik 4.859ra igaro baita; baina Araubide Bereziko Irakaskuntzan murriztu egin da.

¹ INEren datuen arabera.

II.1.13. KOADROA. HEZKUNTZAKO GASTUA 2005EAN

	BPG (€-ak milatan)	Hezkuntzako gastu osoa				Unibertsitatetik kanpoko hezkuntzako gastua				Unibertsitateko hezkuntzako gastua			
		Guztira (€-ak milatan)	% Gastu arrunta	% Kapital-gastua	Gastua/BPG	Guztira (€-ak milatan)	% Gastu arrunta	% Kapital-gastua	Gas-tua/BPG	Guztira (€-ak milatan)	% Gastu arrunta	% Kapital-gastua	Gastua/BPG
BPG guztira													
GUZTIRA (1)		37.758.668	89,4	10,6		27.647.451	92,1	7,9		7.618.195	77,2	22,8	
Hezkuntza Adminis. guztira		33.960.853	89,8	10,2	3,46	25.325.424	93,4	6,6	2,58	7.601.941	77,1	22,9	0,77
MEC		1.558.073	97,4	2,6		580.555	94,7	5,3		204.567	95,0	5,0	
Andaluzia	136.472.398	5.607.399	89,2	10,8	4,11	4.348.856	92,4	7,6	3,19	1.255.056	77,9	22,1	0,92
Aragoi	29.989.296	904.422	91,2	8,8	3,02	678.151	94,9	5,1	2,26	221.493	79,8	20,2	0,74
Asturias	20.952.890	784.605	84,7	15,3	3,74	544.943	94,8	5,2	2,6	174.189	78,2	21,8	0,83
Balearrak	24.200.502	641.668	92,3	7,7	2,65	568.898	94,3	5,7	2,35	70.702	76,4	23,6	0,29
Kanariak	39.547.391	1.483.939	92,6	7,4	3,75	1.209.303	93,9	6,1	3,06	259.996	86,0	14	0,66
Kantabria	12.282.530	412.849	91,6	8,4	3,36	323.305	96,6	3,4	2,63	89.544	73,5	26,5	0,73
Gaztela eta Leon	52.437.684	2.000.247	85,3	14,7	3,81	1.456.688	90,6	9,4	2,78	534.630	70,5	29,5	1,02
Gaztela-Mantxa	33.712.624	1.428.160	91,3	8,7	4,24	1.251.128	92,8	7,2	3,71	176.638	81,0	19,0	0,52
Katalunia	183.821.106	4.981.308	86,9	13,1	2,71	3.762.305	91,2	8,8	2,05	1.204.974	73,5	26,5	0,66
Valentziako Erkidegoa	95.588.515	3.359.368	90,7	9,3	3,51	2.517.933	95,3	4,7	2,63	825.066	76,7	23,3	0,86
Extremadura	16.109.167	796.611	93,9	6,1	4,95	678.960	95,4	4,6	4,21	113.527	84,9	15,1	0,7
Galizia	50.410.020	1.948.357	91,0	9,0	3,87	1.536.554	94,5	5,5	3,05	396.707	76,8	23,2	0,79
Madril	171.988.118	4.311.143	88,2	11,8	2,51	2.860.581	93,1	6,9	1,66	1.393.137	77,6	22,4	0,81
Murtzia	25.498.883	991.191	87,7	12,3	3,89	750.747	95,0	5,0	2,94	232.455	63,6	36,4	0,91
Nafarroa	16.475.124	496.931	95,0	5,0	3,02	423.347	96,4	3,6	2,57	68.744	86,1	13,9	0,42
EAE	60.808.600	2.052.302	93,0	7,0	3,38	1.667.313	95,4	4,6	2,74	344.756	80,6	19,4	0,57
Errioxa	7.143.395	202.279	93,5	6,5	2,83	165.856	94,9	5,1	2,32	35.760	87,0	13,0	0,5
Guztira Hezkuntza-koak ez diren Adm.(2)		3.797.815	85,8	14,2		2.322.028	78,4	21,6		16.253	91,5	8,5	

(1) Guztizkoa, Administrazioak banatu gabe eta egokitze-partidak kenduta lorturiko banaketa (2) Beste Ministerioetako Sail batzuk eta Toki Korporazioak sartzen dira.

Iturria: MEC eta INE.

MECen datuetan oinarrituz, Unibertsitatetik kanpoko Irakaskuntzan ikasle bakoitzeko gastu publikoa, Enplegu Heziketa kenduta, EAE 6.070 eurokoa izan da 2005ean; horrela, Euskal Autonomia Erkidegoa da ikasle bakoitzeko gasturik handiena duena. Estatuko batez bestekoa 4.520

eurokoa da. EAEtik hurbil, Asturias (5.493 euro), Galizia (5.036), Kantabria (5.035) eta Gaztela eta Leon (5.008) daude.

II.1.14. KOADROA. EUSKO JAURLARITZAKO HEZKUNTZA SAILAK LIKIDATURIKO GASTUAREN BANANTZEA (EUROAK MILATAN)

	2004	2005	2006	2007	Variación 2006-07
BPG prezio arruntetan	53.305.396	57.289.143	61.763.759	66.311.571	7,4
Unibertsitate kanpoko ikasleak, Helduen Hezkuntza Iraunkorra kenduta	301.497	305.708	310.309	314.573	1,4
Unibertsitateko ikasleak	74.557	72.394	68.924	66.077	-4,1
Araubide Bereziko ikasleak	32.315	33.238	32.930	31.233	-5,2
HHLko ikaslea	21.833	24.239	25.737	26.862	4,4
Egitura eta laguntza	38.889	38.194	41.061	48.293	17,6
Haur eta Lehen Hezkuntza	648.956	698.872	760.166	848.251	11,6
Bigarren Hezkuntza, konpents., LH	769.753	802.801	840.599	878.533	4,5
Unibertsitateko hezkuntza	221.544	252.237	261.965	321.047	22,6
Araubide Bereziko irakaskuntza	63.144	77.930	72.188	52.813	-26,8
Bertako aurrekontua	55.926	70.743	71.905		
Ekonomia eta Gizarte Inbertsioen Egitamua Bereziazen kontura	7.218	7.188			
Irakasleen hezkuntza-berrikuntza eta heziketa iraunkorra	25.927	24.721	26.713	37.436	40,1
Helduen ikaskuntza iraunkorra eta hezkuntza, HHI				68.027	
Hezkuntza-sustapena	71.556	80.866	85.536	94.773	10,8
Kirol-hezkuntzak (kulturraren kontura)	2.739	1.472		0	
Hezkuntza-sistema euskalduntzea	33.138	33.727	30.985	31.163	0,6
Ikerketa	11.671	11.235	16.293	22.823	40,1
Euskadi informazioaren Gizartean Egitamua	5.527	8.495	4.878	0	
GUZTIRA	1.882.886	2.021.892	2.140.100	2.403.159	12,3
Unibertsitate kanpoko hezkuntza (Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntza, eta, beraz, HHI kenduta), BPGri dagokionez	2,66	2,62	2,59	2,6	
Unibertsitate kanpoko hezkuntza (Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntza, eta, beraz, HHI kenduta), ikasle bakoitzeko	4.706	4.912	5.159	5.489	
Unibertsitateko hezkuntza/BPG (%)	0,42	0,44	0,42	0,48	
Unibertsitateko hezkuntza ikasle bakoitzeko	2.971	3.484	3.801	4.859	
Araubide Bereziko Hezkuntza, BPGri dagokionez	0,12	0,14	0,12	0,08	
Araubide Bereziko Hezkuntza ikasle bakoitzeko	1.954	2.345	2.192	1.691	
Araubide Bereziko Hezkuntza ikasle bakoitzeko (Sailaren aurrekontua)	1.731	2.128	2.184	1.691	
Ikerketa/BPG (%)	0,02	0,02	0,03	0,03	

Iturria: EAEko Kontu Orokorrek eta geuk landuta.

1.2.2. Unibertsitate kanpoko irakaskuntzak

Puntu honetako aldagaiak aztertu baino lehen, kontuan hartu behar da 2007aren amaieran urriaren 16ko 175/2007 Dekretua onetsi zela, EAEko Oinarrizko hezkuntzaren curriculum auzarri eta finkatu zuena. Curriculumaren barruan, Oinarrizko Hezkuntzaren arloak eta ikasgaiak arautzen dituzten oinarrizko gaitasunak, helburuak, edukiak, metodo pedagogikoak eta irizpideak sartzen dira, etapa komuna eta derrigorrezkoa da bizitza osorako

hezkuntzan, eta Lehen Hezkuntzak eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzak osatzen dute.

Curriculumaren helburuak Hezkuntza Gaitasun Orokorretan oinarrituz zehazten dira, Oinarrizko Gaitasunak aintzat hartuta.

Oinarrizko Hezkuntza Gaitasunak oinarrizko hezkuntzarako eta hezkuntza iraunkorrerako (bizi osoan zeharreko hezkuntza) erreferentziako ardatz nagusiak dira, eta ko-

munak dira Oinarritzko Hezkuntzako arlo eta ikasgai guztietan:

- a) Erantzukizunez bizitzen ikastea.
- b) Sormenez ikasten eta pentsatzen ikastea.
- c) Bi hizkuntza ofizialetan eta, gutxienez, atzerriko hizkuntza batean komunikatzen ikastea.
- d) Elkarrekin bizitzen ikastea.
- e) Pertsonatzat garatzen ikastea.
- f) Ekintzailea izaten ikastea.

Oinarritzko Gaitasunetan, testuingururako egokiak diren ezagupenen, trebetasunen, abilezien, jarrerren eta balioen konbinazio integratua sartzen da; Oinarritzko Hezkuntzako ikasle guztientzat beharrezkoak dira eta nahitaez lortu behar dituzte euren nortasuna garatzeko, baita hiritartasun aktiboa eta gizarteratzea lortzeko ere. Ezagupen-arloetan eta ikasgaietan lan eginez lortzen dira, eta eskolako nahiz eskolatik kanpoko testuinguruetan lan eginda ere bai. Honako hauek dira:

- a) Kultura zientifikoa, teknologia eta osasuna.
- b) Ikasten ikastea.
- c) Matematika.
- d) Hizkuntza-komunikazioa.
- e) Informazio eta gaitasun digitalaren tratamendua.
- f) Gizartea eta hiritartasuna.
- g) Kultura humanistikoa eta artistikoa.
- h) Norbere autonomia eta ekimena.

1.2.2.1. *Ikasleen bilakaera hezkuntza mailen arabera*

Eustatek emandako datuen arabera, 2007-2008 ikasturtean, EAEn 319.587 ikasle matrikulatu dira unibertsitate kanpoko araubide orokorreko irakaskuntzan (helduen hezkuntza kenduta); beraz, urte honetan ere %1,6ko hazkundea egon da (2006-2007 ikasturtean baino 5.014 ikasle gehiago).

Aurreko urteetan bezala, hazkunde horren zatirik handiena beheko mailetan (Haur eta Lehen Hezkuntza) izandako gorakadak azaltzen du; bertan, 2007-2008 ikasturtean, Eustatek emandako behin-behineko datuen arabera, 194.178 ikasle zeuden matrikulatuta, 87.171 Haur Hezkuntzan eta 107.007 Lehen Hezkuntzan. Azken ikasturte horretako hazkundea, aurreko urtean gertaturikoaren alderantziz, handiagoa izan da Lehen Hezkuntzan Haur Hezkuntzan baino, baina bi kasuotan ere hazkundea moteldu egin da apur bat. Horrela, 2006-07 ikasturtean, Haur Hezkuntzako hazkundea %4,4 izan zen, eta 2007-08an %2,7; Lehen Hezkuntzan, berriz, %3,3ko hazkundetik %3kora igaro gara.

Matrikulazioaren hazkundea DBHra heldu da lehenengo, bertan %0,1eko hazkundea egon baita (aurreko urtean %0,8ko murriztapena). Beste modu batera esateko, suspertze demografikoa, dirudienez, 12 urtetik gorako adinetara heldu da.

Derrigorrezkoaren Osteko Goi Hezkuntzan (DOBH) edo Irakaskuntza Ertainetan matrikulaturiko ikasle kopuruak, beste alde batetik, berriro ere behera egin du. 2006-2007 eta 2007-2008 ikasturteen artean, %1 jaitsi da. Behera-erik handiena Goi Mailako LHko matrikuletan gertatu da, aurreko ikasturtean izandakoa baino txikiagoa izan arren (%-2 eta %-5,7, hurrenez hurren). Aipagarria da Maila Ertaineko LHko matrikulazioan izandako hazkunde txikia (%0,1).

Bestalde, Derrigorrezkoaren Osteko Bigarren Hezkuntzan (DOBH) matrikulaturiko ikasle kopuruak berriro ere behera egin du. 2007-08an irakaskuntza ertainak ikasten ari diren 55.441 ikasleetatik 29.808k (%53,8) Batxilergoa aukeratu dute (aurreko urteko ehuneko bera), derrigorrezko hezkuntza amaitu ondoren; %46,2k Lanbide Heziketa aukeratu dute. Horrenbestez, egonkortasuneko urte batzuen ostean, 2006-07 ikasturtean Batxilergoak gorakadatxoa izan zuen LHren gainetik, eta hori mantendu egin da azkenaldi honetan.

Gehien eskatzen diren maila ertaineko titulazioak, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak emandako datuen arabera, honako hauek dira: Metala eta Fabrikazio Mekanikoa (%16; 2005-06 ikasturtean %17 eta 2004-05 ikasturtean %19), Elektrizitatea-Elektronika (%11,4; aurreko ikasturtean %12), Osasuna (%13; 2005-06 ikasturtean %11,9, eta aurrekoan %11,4) eta Administrazioa (%9,1; aurreko urteko ehuneko bera). Bigarren mailako taldearen barruan, honako hauek sartzen dira aurten ere: Automozioa eta Ibilgailuen Mantenamendua (%8,8; aurreko urteko ehuneko bera), Ile-apainketa eta Estetika (%8,2; aurreko ikasturtean %7,6), eta Mantenamendua eta Produktzioarako Zerbitzuak (%7,4; lehen %7,1).

Goi mailako titulazioen artean, aipagarriak dira Elektrizitatea eta Elektronika %12,9rekin (garrantzi erlatiboa 0,9 puntutan murriztuta), Administrazioa %12,7rekin (aurreko ikasturtean %13,2), Metala eta Fabrikazio Mekanikoa %11,4rekin (aurreko ikasturtean %12,9) eta Informatika %9,3rekin (beherantz jarraituta, 2005-06an %11,8 eta 2003-04an eskaririk handieneko lanbide-familia baitzen, ikasleen %13,3rekin).

II.1.15. KOADROA. IKASLERIA TITULARTASUNAREN ETA MAILAREN ARABERA (1)

	2001-02	2002-03	2003-04	2004-05	2005-06	2006-07	2007-08 (behin-be- nekoak)	2005-06 /2006-07 (%)	2006-07 /2007-08 (%)
Hezkuntza Bereziko zentro guztiak	302.663	300.525	301.497	305.708	310.309	314.573	319.587	1,4	1,6
Beheko maila guztiak, Hezkuntza Berezia izan ezik	235.457	235.266	238.776	244.948	251.249	257.608	263.130	2,5	2,1
Haur Hezkuntza	60.996	63.980	68.754	76.255	81.273	84.851	87.171	4,4	2,7
Lehen Hezkuntza	96.827	97.139	97.802	98.502	100.497	103.859	107.007	3,3	3
Hezkuntza Berezia (Haur eta Lehen Hezkuntza)	419	404	412	382	397	404	413	1,8	2,2
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH)	77.634	74.147	72.220	70.191	69.479	68.898	68.952	-0,8	0,1
Hezkuntza Berezia (DBH)	162	172	168	186	201	184	204	-8,5	10,9
Irakaskuntza Ertainak edo Derrigorrezkoaren osteko Bigarren hezkuntza (DOBH), Hezkuntza Berezia izan ezik	66.218	64.298	61.734	59.815	58.087	55.982	55.441	-3,6	-1
Batxilergoa	36.699	34.469	32.631	31.667	30.719	30.043	29.808	-2,2	-0,8
Maila ertaineko LH	11.023	11.203	10.999	11.050	11.023	10.523	10.531	-4,5	0,1
Goi mailako LH	18.496	18.626	18.104	17.098	16.345	15.416	15.102	-5,7	-2
Lanen ikaslea (Hezkuntza Bereziko LHI)	407	385	407	377	375	395	399	5,3	1
Batxilergoak DOBHren guztizkoan duen %	55,4	53,6	52,9	52,9	52,9	53,7	53,8	1,5	0,2
LHk DOBHren guztizkoan duen %	44,6	46,4	47,1	47,1	47,1	46,3	46,2	-1,7	-0,2

(1) Unibertsitatetik kanpoko araubide orokorreko irakaskuntzak. Ez dira sartzen Helduen Hezkuntza Iraunkorra eta araubide bereziko irakaskuntzak (arteak eta lanbideak, hizkuntzak eta musika).

Iturria: Eustat.

EAEko biztanleriak gure erkidegoan eskainitako LHri buruz egiten duen balorazioari dagokionez, Soziologia Prospekzioko Kabineteak 2007ko azaroan argitaraturiko ikerketa baten arabera, biztanleriaren %65ek uste dute ona dela, %18k hala-moduzkoa dela eta %2k txarra dela. Estatuko datuekin konparatuta, %36k uste dute EAEkoa hobea dela, %28k berdina dela, eta %2k txarragoa dela. Halaber, biztanleriaren %77k uste dute LHk ondo prestatzen dituela gazteak, lan-munduan sartzeko; %10ek uste dute ezetz. Gainera, %64k uste dute LH ikasita lana errazago lortzen dela, eta %16k uste dute errazago lortzen dela unibertsitatean ikasita, beste %12k uste dute hori ikasketen arabera dela. Hala eta guztiz ere, eurentzat edo seme-alabentzat zer nahi duten (LHko modulu batean

ala unibertsitatean ikastea) galdetu zaienean, %47k unibertsitatea aukeratu dute, eta %35ek LH.

2002tik honako bilakaera kronologikoaren azterketak ez du aldaketarik adierazi, LHko eskaintzaren balorazioan. Horrela, 2002an %62k esan zuten eskaintza ona zela, eta 2007an ehunekoa %65 da. Halaber, jendearen iritzian ia ez dago aldaketarik EAEn eskainitako LH Estatuan eskainitakoarekin konparatzeko orduan.

Aldiz, azken bost urteotan gora egin du LHk gazteak lan-munduan sartzeko ondo prestatzen dituela usten dutenen ehunekoa, eta LH ikasita lana unibertsitatean ikasita baino errazago lortzen dela uste dutenen ehunekoa, berriaz, mantendu egin da. Gainera, urte hauetan, eurentzat

II.1.16. KOADROA. LANBIDE HEZIKETAKO IKASLEAK

		2003-04 IKAST.		2004-05 IKAST.		2005-06 IKAST.		2006-07 IKAST.	
FAMILIA		Maila ertaina	Goi maila	Maila ertaina	Goi maila	Maila ertaina	Goi maila	Maila ertaina	Goi maila
Jarduera fisikoak eta kirolekoak	Guztira	131	386	118	401	108	434	104	475
	Emakumeen%	36,6	36,3	24,6	35,7	27,8	28,8	36,5	26,7
Administrazioa	Guztira	1.308	2.166	1.073	2.075	1.003	2.023	955	1.951
	Emakumeen%	80	76,2	81,6	76,1	82,5	77,2	81,2	76,5
Merkataritza eta marketinga	Guztira	535	971	447	892	366	837	346	826
	Emakumeen%	84,1	61,8	78,5	58,3	77,3	55,1	79,5	54,1
Elikadura-industriak	Guztira	27	24	31	15	22	19	28	7
	Emakumeen%	29,6	20	35,5	80	31,8	68,4	28,6	57,1
Informatika	Guztira	0	2.935	341	2.274	547	1.807	571	1.431
	Emakumeen%		30,8	24	27	21,9	25,1	20,3	22,6
Mantenamendua eta produkzioarako zerbitzuak	Guztira	734	898	758	966	787	1.032	775	1.005
	Emakumeen%	2	7,7	3,7	13,1	4,2	13	1,4	10,7
Oihalgintza, jantzigintza eta larrugintza	Guztira	22	39	25	47	16	71	1	83
	Emakumeen%	100	84,6	92	93,6	93,8	90,1	100	94
Nekazaritza/nekazaritza-jardureak	Guztira	164	150	176	149	163	141	150	133
	Emakumeen%	24,4	26,7	22,2	28,9	22,7	23,4	22	18
Arte grafikoak	Guztira	250	322	231	336	219	319	191	317
	Emakumeen%	46	58,7	48,5	55,7	46,1	53,3	46,6	55,8
Ibilgailu autopropultsatuen manten./Automozioa	Guztira	930	345	943	393	970	420	925	449
	Emakumeen%	1,9	3,8	2,8	2,5	2,1	2,9	2,7	3,1
Eraikuntza eta obrak/eraikinak eta obra zibila	Guztira	148	619	145	640	125	672	98	695
	Emakumeen%	6,1	29,4	5,5	30,3	10,4	34,4	9,2	32,8
Elektrizitatea eta elektronika	Guztira	1.409	2.340	1.325	2.201	1.325	2.116	1.200	1.992
	Emakumeen%	1,3	10,3	2	10,1	3,7	9,1	4,2	9,9
Ostalaritza eta turismoa	Guztira	667	689	640	695	628	680	622	643
	Emakumeen%	48,4	69,5	45,2	67,9	42	64,9	41,8	63,9
Irudia eta soinua/komunikazioa, irudia eta soinua	Guztira	92	326	78	321	72	344	66	364
	Emakumeen%	57,6	47,5	56,4	43,3	48,6	42,7	57,6	41,2
Zura/zura eta altzariak	Guztira	228	79	229	62	247	43	243	48
	Emakumeen%	8,3	20,3	5,7	21	6,5	20,9	9,5	16,7
Itsas arrantza/itsas arrantzako jarduerak	Guztira	72	58	58	98	71	144	83	143
	Emakumeen%	1,4	3,4	1,7	8,2	1,4	13,2	0	14,7
Metala/fabrikazio mekanikoa	Guztira	2.248	2.391	2.104	2.145	1.884	1.976	1.679	1.755
	Emakumeen%	3,8	11,2	3,7	11,9	4,8	13,4	6,3	14,8
Ile-apaintza eta estetika/Norbere irudia	Guztira	737	210	830	204	841	195	842	201
	Emakumeen%	99,1	99,5	98,4	100	98,3	100	98,6	99,5
Kimika	Guztira	146	828	110	745	97	643	82	555
	Emakumeen%	70,5	59,7	66,4	58	39,1	58	63,4	55
Osasuneko/osasuna	Guztira	1.151	1.183	1.264	1.152	1.317	1.091	1.363	1.024
	Emakumeen%	92,3	83	93,2	83,2	92,6	84,6	91,9	84,7
Erkidegorako zerbitzuak/gizarte- eta kultura-zerbitzuak	Guztira	0	1.145	124	1.287	215	1.338	199	1.319
	Emakumeen%		92,7	94,4	92,5	93,5	92,7	92	92,7
Guztira	Guztira	10.999	18.104	11.050	17.098	11.02	15.313	10.52	15.416
	Emakumeen%	37,9	42,8	38,2	43,1	38,6	45,2	39,7	43,2

Iturria: Eustat eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila.

eta seme-alabentzat LHko modulu bat aukeratuko luketen kopuruak apur bat gora egin du, unibertsitateko ikasketak aukeratuko lituzketenei dagokienez.

Laneratzeari dagokionez, Lanbide lanbide-heziketako ikasleen enpleguari buruz argitaraturiko datuen arabera (2005eko promozioari buruzko datuak), enplegu-tasak %85etik gorakoak dira honako adar hauetan: Mantena-

mendua eta produkzioarako zerbitzuak (%87), Jarduera fisikoa eta kirolekoak (%86,7), Fabrikazio mekanikoa (%86,2), Norbere irudia (%85,8), Elektrizitatea eta Elektronika eta Eraikuntza eta Obra Zibila (biak %85,7), eta Ibilgailu autopropultsatuen mantenamendua (%85,2). Hala ere, 2004etik 2005erako aldaketa negatiboa da Elektrizitatean eta Elektronikan, Fabrikazio Mekanikoan, Norbere Irudian, Ibilgailu autopropultsatuen mantenamenduan, eta

II.1.17. KOADROA. LANERATZE EHUNEOAK LANBIDE FAMILIAREN ARABERA, 2005

LANBIDE FAMILIA	Ikasle kop.	Horizontalaren%			Enplegu Tasa						Langabezia Tasa, 2005	
		Langab.	Landuna	Ez-ak.	2000	2001	2002	2003	2004	2005	Giz.%	Em. %
Nek.-jarduerak	137	19,2	52,5	28,3	77	76,9	62,5	72,9	79,7	73,2	25,9	29,4
Itsas arrantza jarduerak	27	25	62,5	12,5	-	-	100	100	72,2	71,4	28,6	0
Jarduera fisikoak eta kirolekoak	192	8,2	53,4	38,4	72	85,1	90,4	88,6	85,4	86,7	12,5	14,7
Administrazioa	1.068	13,2	68,5	18,4	71,1	74,7	76,6	75,5	82,5	83,9	16,7	16
Arte grafikoak	244	16,5	55,7	27,8	64,9	75,5	70,6	78,5	78,3	77,1	22,2	23,4
Merkataritza eta marketinga	501	13,7	64,3	22	72,6	77,6	73,4	76,5	82,6	82,5	16,5	17,9
Komuna, irudia eta soinua	194	21	51	28	71,3	73,6	64,4	64	75,8	70,8	28	30,2
Eraikuntza eta obra zibila	252	10,2	60,9	28,9	85,4	86,5	87,9	82,2	85,1	85,7	14,3	14,3
Elektrizitatea eta elektronika	1.228	10,8	64,6	24,6	89,6	88,4	81,1	83,4	86,3	85,7	14,1	16,7
Fabrikazio mekanikoa	1.502	11,5	71,5	17	94,5	91,8	88,4	87,4	90,2	86,2	14,2	8,6
Ostalaritza	313	14,3	64,3	21,3	83,9	86,5	86,2	82,9	87,1	81,8	18,9	17,4
Turismoa	205	13,5	62,6	23,9	71,8	76,4	73	82,5	88,4	82,2	25	17
Norbere irudia	404	12	72,2	15,9	73,4	78,6	84,6	87,6	86,9	85,8	0	14,3
Elikadura-industr.	14	15,4	69,2	15,4	66,7	85,7	80,8	68,8	90,9	81,8	14,3	25
Informatika	840	19,9	47,8	32,3	81,8	82	72,4	72,8	77,7	70,6	29,5	29,2
Zura eta altzariak	76	14,8	70,5	14,8	87,2	83,1	83,6	75	90,2	82,7	16,3	33,3
Ibil. atuprop. m.	438	12,8	73,6	13,6	91	90,4	87,9	88,7	87,2	85,2	14,6	22,2
Manten. eta produkzioarako z.	546	10,6	71,3	18,1	91,6	92	87,6	86,4	91,5	87	12,3	21,4
Kimika	340	16,6	56,1	27,4	66,2	70,2	75,4	73,5	76,6	77,2	23,4	22,5
Osasuna	987	19,9	51,5	28,6	66,1	70,8	69,4	78,6	78,3	72,1	34,2	26,9
Kult.- eta gizarte-zerbitzuak	544	13	52,8	34,1	73,8	75	81,3	82,4	84,3	80,2	35,3	18,9
Oih., jantz. eta larrugintza	16	18,2	72,7	9,1	80	68,8	72,7	53,8	90,9	80	0	20
Guztira: 2005eko promozioa	10.068	14	62,5	23,5	81	82,7	80	80,8	84,4	81,7	17,1	19,9

OHARRA: Lanbide-familia bakoitzaren barruan, lanbide-heziketako maila guztiei buruzko datuak sartzen dira (maila ertaineko eta goi mailako zikloak). Enplegu-tasa: Landunen ratioa, aktiboiei dagokienez %-tan (B. aktiboa=Landunak + langabetuak).

Iturria: EGAILAN. Lanbide Heziketako EAEko Sistemaren Behatokia. Bizitza Aktiboan sartzei buruzko inkesta.

Mantenamenduan eta produkzioarako zerbitzuetan. Izan ere, orokorrean, enplegu-tasa %84,4tik %81,7ra murriztu da, urte batetik bestera.

Emakumeak lanbide-ikasketetan duen partaidetza gizonena baino txikiagoa da, eta aipagarria da 2006-07 ikasturtean emakumeek goi mailako LHko partaidetzan izandako beherakadaxoa, aurreko urteko partaidetzari dagokionez. Horrela, 2003-04 ikasturtean, maila ertaineko LHko ikasleen %37,9 eta goi mailako LHko ikasleen %42,8 emakumeak ziren; 2004-05 ikasturtean partaidetza horrek gora egin zuen (hurrenez hurren, %38,2 eta %43,1), baina 2005-06 ikasturtean ere (%38,9 eta %45,2); baina 2006-07 ikasturtean ehunekoak %39,7 (ehuneko 8 hamarreneko hazkundea) eta %43,2 (ehuneko 2 puntuko beherakada) izan ziren.

Emakumerik gehienek honako ikasketa hauek egiten dituzte: Norbere Irudia, ile-apainketa eta estetika, Erkidegorako zerbitzuak, Osasuna, Oihalgintza, jantzigintza eta larrugintza, eta Administrazioa. Bigarren talde bat honako adar hauek osatzen dute: Elikadura-industriak, Ostalaritza eta Turismoa, Merkataritza eta marketinga, eta Kimika. Eta hirugarren bat, berriz, Arte Grafikoak eta Irudia eta Soinua/Komunikazioa.

Aldiz, emakumeen presentzia orain ere oso urria da Mantenamenduan eta produkzioarako zerbitzuetan, Automozioan eta ibilgailuen mantenamenduan, Elektrizitatean

eta elektronikan, Itsas arrantzan eta Metalean/fabrikazio mekanikoan, eta Zurean eta altzarietan.

Aipagarria da 2005-06 ikasturtean emakumeak erai-kuntzaren lanbide-adarrean izandako partaidetza mantendu egin dela, bai maila ertainean eta bai goi-mailan; bertan, hain zuzen ere, langabezia-tasa berbera da gizonentzat eta emakumeentzat (%14,3). Halaber, kontuan hartu behar da, Elektrizitatean eta elektronikan, Itsas arrantzako jardueretan eta Metalean/fabrikazio mekanikoan, emakumeen langabezia-tasa batez bestekotik beherakoa dela (%19,9); baina Mantenamenduan eta produkzioarako zerbitzuetan, Automozioan eta ibilgailuen mantenamenduan eta Zurean eta altzarietan ez dela halakorik gertatzen. Izan ere, azken hiru lanbide-familia horietan emakumeen eta gizonen langabezia-tasan dagoen aldea handia da.

1.2.2.2. Zentroen titulartasunaren arabera bilakaera

Sare bakoitzari esleitu beharreko ehunekoak 1994an egindako eskola-planifikazioaren eraginez kuantifikatu ziren, Hezkuntza Erreforma abiatzeko. Kuota horiek, sare publikoaren kasuan, %48,8an finkatu ziren, 3-16 urteko tarterako (Haur Hezkuntzako 2. zikloa, Lehen Hezkuntza eta DBH), eta %58,9an derrigorrezkoaren osteko irakaskuntzan.

II.1.18. KOADROA. IKASLEEK IKASTETXEEN TITULARTASUNAREN ARABERA DUTEN BANAKETAREN BILAKAERA *												
	2003/2004			2004/2005			2005/2006			2006/2007		
	Guztira	Publik.	Pribatua	Guztira	Publik.	Pribatua	Guztira	Publik.	Pribatua	Guztira	Publik.	Pribatua
Guztira*	300.510	47,4	52,6	304.763	48,4	51,6	309.336	48,5	51,5	313.590	48,9	51,1
Maila baxuak	238.776	46	54	244.948	47,3	52,7	251.249	47,5	52,5	257.608	48,1	51,9
Haur Hezkuntza	68.754	48,9	51,1	76.255	51,4	48,6	81.273	50,6	49,4	84.851	51	49
Lehen Hezkuntza	97.802	47,2	52,8	98.502	47,8	52,2	100.497	48,4	51,6	103.859	48,7	51,3
DBH	72.220	41,6	58,4	70.191	42,1	57,9	69.479	42,6	57,4	68.898	43,4	56,6
DOBHko mailak	61.734	52,8	47,2	59.815	53,1	46,9	58.087	52,9	47,1	55.982	53	47
Batxilergoa	32.631	54,1	45,9	31.667	53,9	46,1	30.719	53,3	46,7	30.043	53,3	46,7
Maila ertaineko LH	10.999	58,4	41,6	11.050	57,7	42,3	11.023	57,4	42,6	10.523	57,5	42,5
Goi mailako LH	18.104	47,1	52,9	17.098	48,8	51,2	16.345	49,1	50,9	15.416	49,2	50,8

* HHLrik eta Hezkuntza Berezirik gabe.
Iturria: Eustat

1.2.3. Unibertsitateko irakaskuntzen bilakaera²

1.2.3.1. EAEko lehenengo eta bigarren unibertsitate-zikloa

Eustatek emandako datuek diotenez, EAEn Goi Irakaskuntzako matrikulazioa (unibertsitate publikoak eta pribatuak) etengabeko murriztapena izan du 1997-98 ikasturtetik, eta generoaren arabera banantzea eginez joera errepikatu egiten da, emakumearen kasuan murriztapena 1998-99 ikasturtean hasi arren. Azken datuen arabera (2006-07 ikasturteari buruzkoak eta behin-behinekoak), ikasle kopuruak %0,4ko murriztapena izan du (gizonen kasuan %0,1 eta emakumeen artean %0,6), aurreko ikasturteari dagokionez. Horrela, azken bosturtekoan biztanle kopurua hazi arren, 80ko eta 90eko hamarkadetakoz izandako murriztapenak eragina izan du unibertsitate-irakaskuntzetan egon den matrikulazio kopuruaren beherakadan.

Emakumeen matrikulazioak guztizkoari dagokionez duen proportzioa %50etik gorakoa da orain ere. 2006-07 ikasturtean matrikulazio guztien %54,3 emakumeenak ziren, eta ehuneko hori aurreko urtekoaren antzekoa izan zen (%54,4).

Bestalde, INEren Unibertsitate Estatistikaren aurrerapenak agerian jarri du Estatuko unibertsitateetan, 2006-2007 ikasturtean, 1.410.440 ikasle matrikulatu direla, eta horrek %1,6ko murriztapena adierazten du, aurreko ikasturteari dagokionez. EAEn, murriztapena %5ekoa da. Horrela, berretsi egin da unibertsitateko ikasle kopuru absolutuaren beheranzko joera, Estatuan 2000-01 ikasturtean eta EAEn ikasturte bat lehenago hasitakoa (taulan ja-

sotako datuak 1998-99an hasten dira, ez baitago lehenagoko ikasturteei buruzko informaziorik); hori, neurri handian, adin horretako biztanle kopuruak izandako murriztapenaren ondoriozkoa da.

Bestalde, unibertsitateko biztanleriak 18-25 urte bitarteko biztanleria osoari dagokionez duen ehunekoak berriro murriztu da 2006-07 ikasturtean. Hain zuzen ere, 2004-05 ikasturtean %32,4 zen, eta 2006-07 ikasturtean %32. Estatuan alderantzizko joera dago, eta unibertsitateko biztanleriak 18-25 urteko biztanleria osoari dagokionez duen ehunekoak %31,1etik %31,3ra igaro da. Beste modu batera esateko, estatuan unibertsitateko biztanleriak 18-25 urteko biztanleria osoari dagokionez duen ehunekoak EAEn baino 7 hamarren txikiagoa da, baina goranzko bilakaera dago.

Eustaten Unibertsitate Estatistikara itzulita, honako berezitasun hauek aipatu behar dira:

- Matrikulazioa sare publikoan eta pribatuan murriztu da, baina murriztapena handiagoa da pribatuan publikoan baino. Horrela, 2001-02 eta 2006-07 ikasturteen artean, matrikulazioak %27,8ko murriztapena izan du pribatuan eta %12,5eko murriztapena publikoan.
- Zentro publikoetako matrikulazioak matrikulazio osoari dagokionez duen ehunekoak goranzko joera dauka, 2001-02 ikasturteko %75etik 2006-07ko %78,4ra. Estatuan, INEren datuen arabera, ikasleen %88 titulartasun publikoko zentroetan matrikulatu dira, eta %12 titulartasun pribatuko zentroetan.
- Generoaren ikuspegitik begiratuta, emakumeen matrikulazioa nahiko egonkor mantendu da.

II.1.19. KOADROA. GOI HEZKUNTZAN MATRIKULATURIKO IKASLERIAREN BILAKAERA, SEXUAREN ETA ALDIAREN ARABERA

	1995-96	1996-97	1997-98	1998-99	1999-00	2000-01	2001-02	2002-03	2003-04	2004-05	2005-06	2006-07 (b.beh.)
Guztira	85.043	88.914	88.557	87.386	85.202	80.336	76.129	74.197	71.960	69.696	66.322	66.077
Gizonak	39.737	41.147	40.686	40.101	38.867	36.418	34.467	33.564	32.346	31.746	30.219	30.192
Emakum.	45.306	47.767	47.871	47.285	46.335	43.918	41.662	40.633	39.614	37.950	36.103	35.885

Iturria: Eustat

² EAEko unibertsitate-egitura, funtsean, lau unibertsitate osatzen dute: Euskal Herriko Unibertsitatea, Deustuko Unibertsitatea, Arrasateko Unibertsitatea eta UHUN, euren Zentro Elkartuen bitartez.

II.1.20. Koadroa. UNIBERTSITATEKO IKASLERIAREN BILAKAERA HISTORIKOA							
	EAE			Estatua			% EAEko ikasleria/ Estatua guztira
	alumnado	población entre 18-25 años	% alumnado s/población entre 18-25 años	alumnado	población entre 18-25 años	% alumnado s/población entre 18-25 años	
1998-99	80.670	266.591	30,3	1.580.158	5.229.436	30,2	5,1
1999-2000	78.225	257.365	30,4	1.587.055	5.158.001	30,8	4,9
2000-01	74.958	246.816	30,4	1.554.972	5.107.285	30,4	4,8
2001-02	70.905	235.747	30,1	1.526.907	5.046.474	30,3	4,6
2002-03	69.386	222.678	31,2	1.507.147	4.970.979	30,3	4,6
2003-04	66.649	210.691	31,6	1.488.574	4.835.684	30,8	4,5
2004-05	64.650	199.803	32,4	1.446.879	4.739.361	30,5	4,5
2005-06	61.352	190.092	32,3	1.433.016	4.614.791	31,1	4,3
2006-07	58.313	182.320	32	1.410.440	4.499.702	31,3	4,1

Iturria: INE

Matrikulazioek titulazioen arabera izandako azterketak, Eustaten datuen arabera, matrikulazio guztiak murriztu egiten direla adierazten du, arkitekturaren kasuan izan ezik (goi-arkitektura eta teknikoa), 2005-06 eta 2006-07 ikasurteetan.

2006-07ko ikasturtean eskaria titulazioen arabera sakon aztertuta ikusten denez, lehenengo 15ak honako hauek izan ziren:

- 2.000 matrikulazio baino gehiagokoak: enpresen administrazio eta zuzendaritzako lizentziatura (5.161 ikasle, eta %5,8ko murriztapena, aurreko ikasturteari dagokionez), enpresa-zientzien diplomatura (4.011 ikasle, eta %1,1eko hazkundea), industria-ingeniaritza (3.024

ikasle, eta %5eko murriztapena), ingeniari teknikoa -mekanika- (2.994 ikasle, eta %4,1eko murriztapena), zuzenbideko lizentziatura (2.797 ikasle, eta %5,6ko murriztapena), psikologiako lizentziatura (2.775 matrikulazio eta %2,3ko hazkundea) eta ingeniari teknikoa -industriakoa- (2.197 matrikulazio eta %6,6ko murriztapena).

Aurreko ikasturtean, 2.000 matrikulaziotik gorakoen artean, ordena berbera izan zen.

- 2.000 matrikulaziotik beherakoak: haur-hezkuntzako irakaslea (1.824 matrikulazio, eta %0,7ko murriztapena, aurreko urteari dagokionez), lehen hezkuntzako irakaslea (1.653 matrikulazio, eta %+1,8, aurreko urteari da-

II.1.21. Koadroa. 1. eta 2. zikloetako matrikulazioen bilakaera, zentroen titulartasunaren arabera												
	2001-02		2002-03		2003-04		2004-05		2005-06		2006-07	
	Guztira	% emak.	Guztira	% emak	Guztira	% emak	Guztira	% emak	Guztira	% emak	Guztira	% emak
Guztira	76.129	54,7	74.197	54,8	71.960	55,1	69.696	54,5	66.322	54,4	63.691	54,4
Publikoa	57.109	55,2	55.958	55,5	54.943	56,2	54.180	55,6	51.758	55,7	49.953	55,4
Pribatua	19.020	53,3	18.239	52,4	17.017	51,4	15.516	50,5	14.564	49,8	13.738	50,6
Publikoko matrikul. %	75		75,4		76,4		77,7		78		78,4	

Iturria: EUSTAT, Datu-basea

II.1.22. KOADROA. MATRIKULAZIOAK TITULAZIOEN ARABERA IZANDAKO BILAKAERA

	1995-96	1996-97	1997-98	1998-99	1999-2000	2000-01	2001-02	2002-03	2003-04	2004-05	2005-06	2006-07
Arkitektura	993	1.291	1.359	1.380	1.401	1.379	1.370	1.352	1.318	1.320	1.539	1.541
Goi-ingeniaritza	5.316	9.498	8.467	8.479	9.130	9.254	9.036	9.153	9.046	8.700	8.212	7.717
Lizentziaturak	53.647	50.485	50.225	47.660	44.892	41.232	38.282	36.215	33.882	31.807	29.383	27.801
Diplomaturak	15.541	16.925	17.347	18.168	18.089	17.074	15.837	15.583	15.276	15.405	15.057	14.833
Arkitektura teknikoa								76	148	231	284	291
Ingeniaritza teknikoa	9.546	10.715	11.159	11.699	11.690	11.397	11.459	11.818	12.290	12.233	11.847	11.508
Guztira	85.043	88.914	88.557	87.386	85.202	80.336	75.984	74.197	71.960	69.696	66.322	63.691

Iturria: Eustat

gokionez), arkitektura (1.541 matrikulazio, eta %0,1, aurreko urteari dagokionez), gizarte-hezkuntzako diplomatura (1.517, %+3,1), kudeaketa-informatikako ingeniari-ritza teknikoa (1.466, %-15,8), arte ederretako lizentziatura (1.447, %-2,3), informatikako ingeniari-ritza (1.443, %-11,9), eta medikuntzako eta kirurgiako lizen-ziatura (1.254, eta %1,9ko hazkundea).

2004-05 ikasturtetik 2005-06 ikasturterako aldatet-ak agerian jarri duenez, gehienek ikasleak galdu dituzte; ho-rren salbuespenak honako dizi-plina hauetan daude: en-presa-zientzietako diplomatura, psikologiako lizentziatura, lehen hezkuntzako irakaslea, arkitektura, gizarte-hezkun-tzako diplomatura, eta medikuntzako eta kirurgiako lizen-ziatura.

II.1.23. KOADROA. IKASLERIAK 2006-07 IKASTURTEAN GEHIEN ESKATURIKO 15 TITULAZIOETAN IZANDAKO BILAKAERA

	2001-02		2002-03		2003-04		2004-05		2005-06		2006-07		Aldaketa, 2005/06 eta 2006/07
	Guztira	% emak.	Guztira	% emak.	Guztira	% emak.	Guztira	% emak.	Guztira	% emak.	Guztira	% emak.	
Enpresen Adm. eta Zuz. Lizentziatura	6.959	58,4	6.601	58,9	6.249	58,8	5.861	58,7	5.476	57,7	5.161	57,3	-5,8
Enpresa Z. Diplomatura	4.545	54,0	4.484	54,1	4.258	53,7	4.110	53,1	3.966	52,4	4.011	53,6	1,1
Industria Ingeniaritza	3.962	24,7	3.748	25,5	3.584	25,8	3.356	26,3	3.184	25,5	3.024	25,4	-5
Ing. Tekniko Mekanikoa	3.076	15,6	3.030	16,9	3.121	16,9	3.175	17,4	3.123	17,6	2.994	18,2	-4,1
Zuzenbideko Lizentziatura	6.023	59,1	5.127	59,5	4.203	60,5	3.658	58,8	2.964	59,4	2.797	58,3	-5,6
Psikologiako Lizentziatura	2.903	78,9	2.862	79,3	2.822	81,8	2.792	79,5	2.712	80,0	2.775	79,1	2,3
Indus. Ing. Tek. Elektronikoa	2.875	20,2	2.747	20,7	2.676	19,6	2.528	19,3	2.351	18,8	2.197	17,7	-6,6
H. Hezkuntzako irakaslea	1.732	88,5	1.839	89,3	1.872	89,7	1.883	91,4	1.837	91,0	1.824	90,1	-0,7
L. Hezkuntzako irakaslea	1.251	70,4	1.330	72,2	1.518	73,1	1.587	72,7	1.634	73,7	1.663	74,3	1,8
Arkitektura	1.370	52,3	1.352	53,5	1.318	54,0	1.320	53,8	1.539	54,1	1.541	53,9	0,1
Gizarte Hez. Diplomatura	1.409	87,0	1.440	84,4	1.451	83,7	1.480	82,3	1.472	82,1	1.517	82,5	3,1
Kud. Inform Ing. Teknikoa	2.018	31,1	2.107	32,0	2.155	34,0	1.969	33,6	1.742	31,8	1.466	28,8	-15,8
Arte Ed. Lizentziatura	1.487	70,0	1.552	69,8	1.515	70,2	1.539	71,0	1.481	70,9	1.447	69,5	-2,3
Ing. Informatikoa	1.973	25,7	1.960	25,4	1.871	25,9	1.790	24,5	1.638	25,2	1.443	26,1	-11,9
Medik. eta Kiru. Lizentziatura	1.200	78,8	1.240	78,6	1.228	78,5	1.194	77,6	1.231	77,3	1.254	77,5	1,9

Iturria: Eustat. Datu-basea

Emakumeak titulazio horietan duen partaidetzari dagokionez, hiru talde ikusten dira:

- Emakumeen presentzia oso altukoak (%70 edo gehiago emakumeak): haur-hezkuntzako irakaslea, lehen hezkuntzako irakaslea, psikologiako lizentziatura, gizarte-hezkuntzako diplomatura, medikuntzako eta kirurgiako lizentziatura, eta arte ederretako lizentziatura. Aurreko urteetan erregistraturiko berberak.
- Emakumeen presentzia %50-60 bitartekoa dutenak: zuzenbideko lizentziatura, enpresen administrazioko eta zuzendaritzako lizentziatura, arkitektura eta enpresa-zientzietako lizentziatura. Kasu honetan ere, aurreko urtekoen berberak.
- Gehienez %29ko presentzia dutenak: kudeaketa-informatikako ingeniariaritzako teknikoak (%28,8), industria-ingeniaritza (%25,4), ingeniariaritzako informatikoa (%26,1).
- Gehienez %20ko presentzia dutenak: industriako ingeniariaritzako tekniko elektronikoa (%17,7) eta ingeniariaritzako tekniko mekanikoa (%18,2).

1.2.3.2. Hirugarren unibertsitate-zikloa EAEn

Eustatek emandako datuen arabera, matrikulazioak 2001-02tik unibertsitateko hirugarren zikloan (doktoregoa) izandako goranzko joera hautsi egin da 2005-06an. Ho-


rrela, 2004-05 ikasturtean, hirugarren zikloan 2.698 ikasle zeuden matrikulaturik (2003-04 zikloan baino 101 gehiago), eta 2005-06 ikasturtean kopurua 2.602ra murriztu da (%3,6ko murriztapena); 2006-07 ikasturtean berriro ere behera egin du, eta 2.386 ikasle egon dira. Gehienek (guztizkoaren %82,6) sare publikoko zentroetan egiten dituzte hirugarren zikloko ikasketak.

Generoari dagokionez, emakume kopurua orain ere gizon kopurua baino handiagoa da (1.242 eta 1.144, hurrenez hurren).

INEn datuek agerian jarri dutenez, EAEn (EHU, Arrasateko Unibertsitatea eta Deustuko Unibertsitatea) doktorego-ikastaroetan matrikulaturiko ikasle kopurua ere murriztu egin da 2005-06 ikasturtetik 2006-07 ikasturtera; hain zuzen ere, %8,1eko murriztapena izan du. Matrikulazio kopurua 2.278 pertsonakoa da, eta horietatik 1.189 (%52,2) emakumeak dira. Beste modu batera esateko, emakume kopurua gizon kopurua baino handiagoa da, eta hori Estatuan ere gertatzen da (%51,8 emakumeak); gainera, emakumeen ehunekoak guztizkoari dagokionez duen garrantzia gero eta handiagoa da, bai EAEn eta bai Estatuan.

Zentroen titulartasunari dagokionez, matrikulaziorik gehienak sare publikoan egiten dira, bai EAEn eta bai Estatuan. Hala eta guztiz ere, sare publikoak garrantzia galdu du, sare pribatuaren alde. Izan ere, Deustuko Unibertsita-

II.1.21. GRAFIKOA. HIRUGARREN ZIKLOKO IKASLE KOPURUAREN BILAKAERA, TITULARTASUNAREN ETA SEXUAREN ARABERA



Iturria: Eustat. Datu-basea

II.1.24. KOADROA. DOKTOREGO IKASTURTEETAN MATRIKULATURIKO IKASLE KOPURUAREN BILAKAERA

	2005-06			2006-07			Guztizko alda- keta, 2005-06 eta 2006-07	Emakumeen aldaketa, 2005- 06 eta 2006-07
	GUZTIRA	EMAKUMEAK		GUZTIRA	EMAKUMEAK			
		n	%		n	%		
Estatua	77.056	39.298	51	72.741	37.682	51,8	-5,6	-4,1
Unibertsitate publikoak	73.002	37.413	51,2	68.673	35.742	52	-5,9	-4,5
Unibertsitate pribatuak	4.054	1.885	46,5	4.068	1.587	39	0,3	-15,8
EAE								
EHU	2.196	1.159	52,8	1.971	1.049	53,2	-10,2	-9,5
ARRASATE	88	35	39,8	120	43	35,8	36,4	22,9
DEUSTUA	195	98	50,3	187	97	51,9	-4,1	-1
EAE GUZTIRA	2.479	1.292	52,1	2.278	1.189	52,2	-8,1	-8
Unibertsitate publikoak (1)	2.196	1.159	52,8	1.971	1.049	53,2	-10,2	-9,5
Unibertsitate pribatuak (2)	283	133	47	307	140	45,6	8,5	5,3

(1) EHU barne (2) Deustuko Unibertsitatea eta Arrasateko Unibertsitatea barne.

Iturria: INE

teko ikasleen ehunekoa %8,9tik %9,5era hazi da guztizkoari dagokionez (termino absolutuetan ikasleak galdu arren), eta Arrasateko Unibertsitateko ikasleen ehunekoa %4tik %6ra igaro da, eta, termino absolutuetan, ikasleen ehunekoa %36,4ko hazkundera izan du.

1.2.4. Ikerketa Euskal Herriko Unibertsitatean

Euskal Herriko Unibertsitatean egiten diren I+G jardueri eta horien neurketari dagokienez, bi fondo berezi (kanpoko finantziatorako proiektuak, kontratuak eta hitzarmenak, ikerketa-bekak eta ikerketa-azpiegiturako inbertsioak) eta fondo orokorrak bereiztu behar dira; azken horiek irakasleek ikerketa-jardueretan emandako denboraren eta horren kostu orokorraren zenbatespenean oinarritzen dira: gastuak irakasleetan, gastuak ondasunetan eta zerbitzuetan, inbertsioak eta beste gastu batzuk.

Lehenengoetan oinarrituz ondorioztatzen denaren arabera, EHUK garaturiko ikerketa-jarduera gero eta handiagoa izan da azken hamarkadan (2003tik 2004rako beharakada kenduta). Horrela, 1997tik 2006ra, jarduera horrek %138,6ko hazkundera izan du, eta 20,5 milioi eurotik 48,7 milioi eurora igaro da. Zatiirik handiena, %46 (22,4

milioi euro), ikerketa-proiektuetarako erabiltzen da, eta horien atzetik UL0ko 83. artikularen arabera sinaturiko kontratuetarako erabiltzen da, hain zuzen ere, fondo guztien %27,1 (13,2 milioi euro).

Zientzia-arloen arabera, I+G+b jardueretan egindako gastua arlo berberetan pilatzen da, eta, gainera, horietariko batzuetan, 2002koen antzeko proportzioak daude. Horrela, 2006an, zientzia esperimentalak guztizkoaren %39,3 ziren (2002an %38,1), teknikak %26,2 ziren (2002an %33,6) eta gizarte-zientziak eta juridikoak %12,9 ziren (2002an %10).

Fondoen jatorriari dagokionez, gehienak Eusko Jaur-laritzatik datoz, gero Estatutik eta, azkenik, zuzeneko kontrataziotik (proportzioak 31 / 28,8 / 27,1 dira). Aipagarria da Estatutik eta zuzeneko kontrataziotik iritsitako fondoek 2005etik 2006ra izandako hazkundera (hurrenez hurren, %37,7 eta %32,4).

UL0ko 83. artikularen arabera sinaturiko kontratuak Ikerketa Zerbitzu Orokorrak (SGIKER), EHUKo Ikerketa Emaizten Transferentzia Bulegoak (IETB) eta Ikerketa Unibertsitatea Enpresa Fundazioak (EUSKOIKER) erregistratu dituzte; kontratu horiek bilakaera irregularra izan dute,

II.1.25. KOADROA. EMANDAKO/KONTRATATURIKO I+G+b JARDUERA MOTEN BILAKAERA

	1997	1998	1999	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006
Ikerketa Proiektuak	7.047.389	10.188.241	11.658.668	10.348.341	14.245.278	16.563.063	14.472.938	19.228.592	19.139.665	22.439.020
I+G kontratuak, ULOko 83. art. arabera	4.183.044	4.571.740	5.479.362	7.731.744	7.442.210	6.902.292	8.253.657	9.966.061	9.993.403	13.235.928
Ikerketa taldeak	0	1.531.367	2.396.645	1.702.108	3.427.773	4.256.376	4.763.786	4.395.127	5.811.131	6.447.949
Ikertzaileen eta teknikarien kontratazioa	0	0	620.085	554.571	568.849	546.225	536.588	1.843.658	2.677.727	569.210
Heziketako langileria	4.369.340	4.344.166	3.523.854	3.934.706	4.553.747	6.275.609	6.208.889	1.704.000	2.102.400	2.051.638
Azpiegitura zientifikoa	3.393.567	2.340.113	1.609.614	1.995.834	1.373.710	2.423.285	4.172.648	1.301.818	5.655.172	981.772
Ikertzaileen mugikortasuna	322.377	289.862	795.035	532.076	282.220	455.435	556.772	346.937	243.463	623.372
Ekintza bereziak	455.850	291.335	189.845	526.767	295.820	318.702	648.067	220.594	743.615	2.222.177
Beste batzuk	680.201	1.040.100	134.567	0	0	0	0	0	196.362	236.467
GUZTIRA	20.451.768	24.596.924	26.407.675	27.326.147	32.189.607	37.740.987	39.613.345	39.006.788	46.562.937	48.807.533

Iturria: Euskal Herriko Unibertsitatea zifratan, 2006-07

II.1.26. KOADROA. I+G+i JARDUEREN BILAKAERA, ZIENTZIA ARLOEN ARABERA

	2002	2003	2004	2005	2006
Zientzia esperimentalak	14.367.603	10.975.751	18.655.092	24.843.322	19.174.523
Irakaskuntza teknikoak	12.698.312	11.343.502	11.414.390	9.154.935	12.804.217
Osasun-zientziak	3.618.985	7.033.966	4.056.031	3.589.662	4.413.473
Gizarte-zientziak eta juridikoak	3.758.666	7.811.321	2.903.553	4.521.404	6.290.040
Giza zientziak	3.297.420	2.448.805	1.977.722	4.313.712	5.183.629
Zenbait arlo	0	0	0	139.904	941.650
GUZTIRA	37.740.987	39.613.345	39.006.788	46.562.937	48.807.533

Oharra: 2002rako eta 2003rako datuak lortzeko, urteko memorietako informazio erabilgarriaren batuketara egin da, programa motak eta finantziazio-iturria aintzat hartuta; beraz, zenbatespenak dira.

Iturria: Euskal Herriko Unibertsitatea zifratan, 2006-07

baina 2005etik 2006ra jauzi kualitatibo handia ikusi da (%+32,5). Ekintzen arabera, gehienak ezagupena transferitzeko kontratuak dira, kontratu guztien %77,5 (10,3 milioi euro).

Azkenik, patenteen arloan, emaitzak urriak dira. Horrela, 2006an 29 patente eskatu dira, eta ez da bat bera

ere eman. Aurreko urtean, 14 eskatu eta 7 eman ziren. Bestalde, argitalpen kopurua apurka-apurka hazten joan da, eta 1.085 dira; gehienak zientzia esperimentaletan, teknikoetan eta osasunekoetan erregistraturiko argitalpen zientifikoak dira.

II.1.27. KOADROA. I+G+b JARDUEREN FONDOEN JATORRIAREN BILAKAERA

	1997	1998	1999	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006
EAEkoa	4.669.872	8.901.189	9.219.844	8.435.866	10.297.960	17.124.901	15.699.487	11.999.900	15.434.027	15.125.591
Estatukoa	4.133.515	3.723.713	3.127.063	5.248.019	5.838.103	6.804.455	8.862.877	10.592.559	10.195.368	14.037.027
Zuzeneko kontratazioa	4.183.044	4.571.740	5.479.362	7.731.745	7.442.210	6.902.292	8.253.657	9.966.061	9.993.403	13.235.928
Berezko fondoak	6.865.337	6.817.783	7.090.272	5.748.717	6.906.162	5.572.381	6.088.476	4.482.238	5.483.460	5.665.904
Nazioartea	600.000	582.500	1.491.134	161.800	1.705.172	1.336.958	708.670	1.965.885	5.456.680	743.083
GUZTIRA	20.451.768	24.596.924	26.407.675	27.326.147	32.189.607	37.740.987	39.613.167	39.006.788	46.562.937	48.807.533

Oharra: 2002rako eta 2003rako datuak lortzeko, urteko memorietako informazio erabilgarriaren batuketa egin da, programa motak eta finantziazio-iturria aintzat hartuta; beraz, zenbatespenak dira.

Iturria: Euskal Herriko Unibertsitatea zifratan, 2006-07

II.1.28. KOADROA. ULO-KO 83. ARTIKULUAREN ARABERAKO KONTRATU MOTEN BILAKAERA (IETB, SGIKER ETA EUSKOIKER)

Ekintza mota	1997	1998	1999	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006
Aholkularitza teknologikoa	-	439.267	371.815	770.110	367.566	851.246	4.451.098	4.443.153	509.983	991.295
Ezagupenaren transferentzia	-	2.850.136	4.002.959	3.793.076	4.086.600	5.155.604	2.435.064	2.873.923	7.367.864	10.254.100
Laguntza zientifikoa eta teknikoa	-	233.141	717.692	2.480.917	338.510	624.445	1.105.968	1.518.927	1.203.372	888.608
Laguntza teknologikoko zerbitzuak	-	0	0	0	0	0	0	0	394.188	468.229
Heziketa-ikastaroak	-	1.049.197	386.896	1.153.958	614.109	947.226	959.336	1.130.059	518.175	633.696
GUZTIRA	4.183.044	4.571.740	5.479.362	8.198.061	5.406.785	7.578.521	8.951.466	9.966.061	9.993.403	13.235.928

Oharra: 1997rako, ez dago kontratu moten araberako datu erabilgarririk.

Iturria: Euskal Herriko Unibertsitatea zifratan, 2006-07

II.1.29. KOADROA. BESTE EMAITZA BATZUK. ARGITALPENAK ETA PATENTEAK

	Argitalpenak*			Patenteak					
	Zientzia esperimen- talak, teknikoak eta osasunekoak	Gizarte-zientziak, juridikoak eta giza zientziak	Guztira	Eskabid. (GUZT.)	Espain.	Europ.	Nazioartekoak	PCT (luzapen berriak)**	Emandak.
1997	602	-	602						
1998	654	-	654						
1999	707	-	707						
2000	626	53	679						
2001	742	34	776	5	4	-	1	-	5
2002	670	39	709	3	3	-	-	-	3
2003	777	47	824	7	5	1	-	1	2
2004	817	37	854	10	7	-	-	3	3
2005	869	48	917	14	9	-	-	5	7
2006	1.030	55	1.085	29	15	2	3	9	0

* Science Citation Index eta Social Science Citation Index deritzenetan erregistraturiko argitalpen zientifikoak.

**PCT: Patent Cooperation Treaty.

Iturria: Euskal Herriko Unibertsitatea zifratu, 2006-07

1.2.5. Hezkuntza-adierazleak**1.2.5.1. Testuinguruko adierazleak***(a) Biztanleria nagusiaren heziketa maila*

Biztanleria nagusiaren heziketa maila, hau da, irakas-kuntza maila jakina amaitu duen biztanleria nagusiaren ehunekoa (Eurostatentzat 25-64 urteko biztanleak, eta Hezkuntza eta Zientzia Ministerioarentzat 20-64 urtekoak), giza kapitalaren adierazletzat erabiltzen da.

Eurostatek emandako datuen arabera (kasu honetan, 25-64 urteko biztanleak), Estatuan, 2005ean, derrigorrezkoaren osteko bigarren hezkuntza gainditu zuen biztanleria nagusiaren ehunekoa %48,5 izan zen. Europako batez bestekoak %69,3 (EB-27), %69,1 (EB-25) eta %66,1 (EB-15) izan ziren.

EAren kasuan, MEC-IREn datuen arabera (Hezkuntza Sistemaren Ebaluazioko eta Kalitateko Erakunde Nazionala), urte horretan derrigorrezkoaren osteko bigarren hez-

kuntza amaituta duen biztanleria nagusiaren ehunekoa %62,2 da (gogoratu IREn adin-lerruna 20-64 urtekoa dela urte horretarako), eta Estatuan ehunekoa %50,2 zen.

Konparazioa 2003rekin eginez gero (urte horretan Eurostaten eta IREn adin-lerrunak homogeneoak, eta Eurostaten eta IREn datuak bat etorri ziren Estatuaren kasuan), ikusten da Estatuko ehunekoa (%43,2) EAEkoa (%53,6) baino txikiagoa izan zela; baina EAE Europako batez bestekoen azpitik dago.

(b) Ikaskuntza iraunkorreko partaidetza

Batzordearen "Ikaskuntza iraunkorreko Europako eremua egia bihurtzea" Jakinarazpenak (2001eko azaroan argitaratuta) ikaskuntza iraunkorrari buruz ematen duen definizioa hau da: "helburutzat ezagupenak, gaitasunak eta trebetasunak hobetzea duen bizitzan zeharreko edozein ikaskuntza-jarduera, helburu pertsonalarekin, gizalegezko helburuarekin, gizarte-helburuarekin edo enpleguari lotutako helburuarekin egiten dena"³.

³ Adierazle honek aldaketak izan ditu. Lehenengoa zehaztapenari dagokionez; izan ere, 2003tik aurrera, inkesta egin baino lehenagoko edozein ikastaro, tailer eta abar heziketat hartzen da, eta kontzeptu hori ez da arauzko edo erakundeko ikastaroetara mugatzen. Bigarrena datua lortzeko uneari buruzkoa da. 2006ra arte, 2. hiruilekoko edo udaberriko datua hartzen zen kontuan. 2007tik aurrera, datua lau hiruilekoetako urteko batez bestekoari buruzkoa da, eta 2000tik aurrerako datu guztiak berriro kalkulatu dira, irizpide hori aintzat hartuz.

II.1.30. Koadroa. GUTXIENEZ BIGARREN HEZKUNTZAKO BIGARREN ETAPA AMAITU DUTEN BIZTANLEAK (DERRIGORREZKOA-REN OSTEKO BIGARRENA) (25-64 URTEKO BIZTANLEAK, %)

	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006
EB-27	64,4	64,9	65,8	67,0	68,3	69,3	70,0
EB-25	64,1	64,5	65,5	66,8	68,1	69,1	69,7
EB-15	61,0	61,5	62,4	63,8	65,1	66,2	66,7
Euroaren zona	60,0	60,1	60,9	62,0	63,4	64,4	64,9
Euroaren zona (13)	59,8	60,2	61,0	62,1	63,5	64,5	65,0
Euroaren zona (12)	59,7	60,1	60,9	62,0	63,4	64,4	64,9
Belgika	58,5 (b)	59,5	60,8	62,0	64,3	66,1	66,9
Bulgaria	67,5	71,0 (b)	71,6	71,2	71,7	72,5	75,5 (p)
Txekiar Errep.	86,1	86,3	87,9	88,5	89,1	89,9	90,3
Danimarka	78,5	80,7 (i)	81,1	80,5 (b)	81,2	81,0	81,6
Alemania	81,3	82,5	83,0	83,5	83,9	83,1 (b)	83,3
Estonia	86,1 (b)	87,1	87,6	88,5	88,9	89,1	88,5
Irlanda	57,6	59,2	60,3	62,2 (p)	63,0 (p)	65,2 (p)	66,2
Grezia	51,6	52,1	53,9	55,7	59,0	60,0	59,0 (p)
Espainia	38,6 (p)	40,4	41,7	43,2	45,0	48,5	49,4
Frantzia	62,2	63,2	64,1	64,8 (b)	65,4	66,4	66,9
Italia	45,2 (b)	43,0	44,1	46,4	49,3	50,4	51,3 (p)
Zipre	61,5	62,9	65,1	64,7	64,4	66,6	69,5 (p)
Letonia	83,2	79,6 (i)	82,2 (b)	83,2	84,6	84,5	84,5
Lituania	84,2	84,2	84,9 (b)	86,1	86,6	87,6	88,3
Luxenburgo	60,9	59,2	61,6	59,1 (b)	63,2	65,9	65,5
Hungaria	69,4	70,0	71,4	74,1 (b)	75,3	76,4	78,1
Malta	18,1	19,3	18,4	19,8 (b)	23,6	25,3	26,5 (p)
Holanda	66,1	66,9	67,8	69,2	70,9	71,8	72,4
Austria	76,2 (b)	77,5	78,3	79,0	80,2	80,6	80,3
Polonia	79,8 (b)	80,2	80,9	82,3	83,6	84,8	85,8
Portugal	19,4	20,2	20,7	22,8	25,2	26,5	27,6
Errumania	69,3	70,6	71,1	70,5	71,5	73,1	74,2 (p)
Eslovenia	75,3 (b)	75,8	77,0	78,1	79,7	80,3	81,6
Eslovakia	83,8	85,1	86,0	86,7	87,0	87,9	88,8
Finlandia	73,2 (b)	73,8	75,0	76,0	77,6	78,8	79,6 (p)
Suedia	77,2	80,5 (b)	81,4	82,1	82,9	83,6	84,1
Erresuma Batua	64,2	64,6	66,2	69,4	70,6	71,7	72,6
Kroazia	:	:	70,4	70,0	71,2	72,8	:
Islandia	55,8	56,3	58,7	59,6 (p)	61,0 (p)	62,9 (p)	:
Norvegia	85,4	85,7	85,8	86,4	87,4	88,2	88,4 (p)
Suitza	81,8	87,4	86,9	86,5	86,8	86,9	:
Espainia 20-64 urte, lEren datuak	- (p)	- (p)	- (p)	- (p)	- (p)	50,2 (p)	- (p)
Espainia 25-64 urte, lEren datuak	- (p)	- (p)	- (p)	43,2 (p)	- (p)	- (p)	- (p)
EAE 20-64 urte, lEren datuak	- (p)	- (p)	- (p)	- (p)	- (p)	62,2 (p)	- (p)
EAE 20-64 urte, lEren datuak	- (p)	- (p)	- (p)	53,6 (p)	- (p)	- (p)	- (p)

(:) Ez dago datu erabilgarririk (e) Zenbatespena (b) Haustura seriean (p) Behin-behinekoa
Iturria: Eurostat eta MEC-IE

II.1.31. KOADROA. IKASKUNTZA IRAUNKORRA (25-64 URTE BITARTEKO BIZTANLEEN %)

	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006
EB-27	7,1 (e)	7,1 (e)	7,2	8,5 (b)	9,3	9,7	9,6
EB-25	7,5 (e)	7,5 (e)	7,6	9,0 (b)	9,9	10,2	10,1
EB-15	8,0 (e)	8,0 (e)	8,1	9,8 (b)	10,7	11,2	11,1
Euroaren zona	5,4 (e)	5,2 (e)	5,3	6,5 (b)	7,3	8,1	8,2
Euroaren zona (13)	5,2 (e)	5,2 (e)	5,3	6,5 (b)	7,4	8,2	8,2
Euroaren zona(12)	5,2 (e)	5,2 (e)	5,3	6,5 (b)	7,3	8,1	8,2
Belgika	6,2	6,4	6,0	7,0	8,6 (b)	8,3	7,5 (p)
Bulgaria	:	1,4	1,2	1,3	1,3	1,3	1,3
Txekiar Errep.	:	:	5,6	5,1 (b)	5,8	5,6	5,6
Danimarka	19,4 (b)	18,4	18,0	24,2 (b)	25,6	27,4	29,2
Alemania	5,2	5,2	5,8	6,0 (i)	7,4	7,7	7,5
Estonia	6,5 (b)	5,4	5,4	6,7	6,4	5,9	6,5
EAE	4,5	4,9	6,1	6,2	6,5	12,7	12,4
Irlanda	:	:	5,5	5,9 (b)	6,1	7,4	7,5
Grezia	1,0	1,2	1,1	2,6 (b)	1,8	1,9	1,9
Espainia	4,1 (b)	4,4	4,4	4,7	4,7	10,5 (b)	10,4
Frantzia	2,8	2,7	2,7	7,0 (b)	7,0	7,0	7,5
Italia	4,8 (b)	4,5	4,4	4,5	6,3 (b)	5,8	6,1
Zipre	3,1	3,4	3,7	7,9 (b)	9,3	5,9 (b)	7,1
Letonia	:	:	7,3	7,8	8,4	7,9	6,9 (p)
Lituania	2,8	3,5	3,0 (b)	3,8	5,9 (b)	6,0	4,9 (p)
Luxenburgo	4,8	5,3	7,7	6,5 (b)	9,8	8,5	8,2
Hungaria	2,9	2,7	2,9	4,5 (b)	4,0	3,9	3,8
Malta	4,5	4,6	4,4	4,2	4,3 (b)	5,3	5,5
Holanda	15,5	15,9	15,8	16,4 (b)	16,4	15,9	15,6
Austria	8,3	8,2	7,5	8,6 (b)	11,6	12,9	13,1
Polonia	:	4,3	4,2	4,4	5,0 (b)	4,9	4,7
Portugal	3,4	3,3	2,9	3,2	4,3 (b)	4,1	3,8 (p)
Errumania	0,9	1,0	1,0	1,1	1,4 (p)	1,6	1,3
Eslovenia	:	7,3	8,4	13,3 (b)	16,2	15,3	15,0
Eslovakia	:	:	8,5	3,7 (b)	4,3	4,6	4,3
Finlandia	17,5 (b)	17,2	17,3	22,4 (b)	22,8	22,5	23,1
Suedia	21,6	17,5 (b)	18,4	31,8 (b)	32,1	32,1	:
Erresuma Batua	20,5 (b)	20,9	21,3	26,8 (b)	29,4	27,5	26,6 (p)
Kroazia	:	:	1,9	1,8	1,9	2,1	:
Turkia	1	1	1	1,2	1,1	1,9	2
Islandia	23,5	23,5	24,0	29,5 (b)	24,2	25,7	:
Norvegia	13,3	14,2	13,3	17,1 (b)	17,4	17,8	18,7
Switzerland	34,7	36,0	34,4	24,7 (b)	28,6	26,9	:

(-) Ez dago datu erabilgarririk (e) Zenbatespena (b) Haustura seriean (p) Behin-behinekoa
Iturria: Eurostat e ISEI-IVEI

Europar Batasunak ezarritako helburuaren arabera, 2010ean EBko hezkuntza iraunkorreko batez besteko partaidetza maila gutxienez %12,5 izan behar da, lan egiteko adinean dagoen biztanleria osoari dagokionez (25-64 urte).

Eurostaten datuek diotenez, ikaskuntza iraunkorreko partaidetza gero eta handiagoa izan da; 2006an EB-15ean lan egiteko adineko biztanleriaren %11,1 zen, EB-25ean %10,1 eta EB-27 %9,6. Hala eta guztiz ere, herri batetik besterako alde handiak daude. Horrela, Europa handituko estatutik gehienetan ez ezik, EB-15eko estatu batzuetan ere tasa urriak ikusten dira.

Partaidetzarik handieneko herrien artean, honako hauek daude: Suedia (%32,1; 2005eko datua), Danimarka (%29,2), Erresuma Batua (%26,6), Finlandia (%23,1), Holanda (%15,6), Eslovenia (%15) eta Austria (%13,1).

Estatua (%10,4ko tasa) 2,3 puntura dago helburu horretatik, baina bilakaera positiboa izan du.

EAEn, Irakas Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundeak (IVEI-ISEI) emandako datuen arabera, 1992-2006 aldiko bilakaerak aditzera ematen du etengabeko aurrerakuntza egon dela heziketa iraunkorraren tasan; hain zuzen ere, 1992ko %3,5eko tasatik 2006ko %12,4ko tasara igaro gara; horrenbestez, ia beteta dago 2010erako aurreikusitako helburua.

Jarduera horietako partaidetzaren ehunekoan dauden desberdintasunak, generoaren arabera, ez dira oso altuak, Erresuma Batuan, Danimarkan eta Finlandian izan ezik (heziketa-ehunekorik altueneko herriak).

1.2.5.2. Eskolatzeko-adierazleak

(a) Eskolatzeko-tasa

OCDEko herririk gehienetan, ia erabatekoa den eskolatzeko (%90etik gorakoa) 5-6 urteko adinarekin hasten da.

OCDEko datuak (*Education at a glance, 2007*, 2005ari buruzko datu erlatiboekin) eta EAEkoak (EUSTATEk emandakoak) konparatuta ikusten denez, gure erkidegoko eskolatzeko-tasak OCDEren batez bestekotik gorakoak dira 5-14 eta 15-19 urte bitarteko tarteetan, baina ez 20-29 bitarteko tarteetan, tarte horretan ia hiru puntu beherago baikaude (Estatutako maila berean, %22ko eskolatzeko-tasarekin). Ikasketetan jarraitasun-indizearik altuena duten herriak honako hauek dira: Finlandia (%42,6), Danimarka (%37,7), Islandia (%37,3), Suedia (%36,4) eta Australia (%33,2).


5-14 urteko tarteetan, eskolatzeko derrigorrezkoa da, eta EAEn tarte horretako biztanle guztien %99,7 eskolara jotzen dira. 15-19 urteko tarteetan, gure erkidegoa batez bestekoaren gainetik egon arren (%82,7 eta %81,5, hurrenez hurren), oraindik ez dira lortu Greziako (%97,4), Belgikako (%94), Poloniako (%91,8), Txekiako Errepublikako (%90,4) eta Alemaniako (%88,8) tasak.

Haur-tarteari dagokionez, eta ia erabatekoa den eskolatzeko 5-6 urterekin hasi arren, Belgikan, Danimarkan, Frantzia, Islandian, Italian, Zeelanda Berrian, Espainian eta Erresuma Batuan haurren %90 eskolaturik daude 3-4 urteko adinarekin. EAEn, EUSTATEN datuen arabera, 2005ean 3-5 urte bitarteko ikasle guztien %99,4 zeuden eskolatuta.

Eskolaturiko biztanleriak (adin-tartekak) EAEko biztanleria osoari dagokionez duen ehunekoaren bilakaera aztertuta ikusten denez, 0-6 urteko taldeetako tasak hazi egin dira, baita 19 urtetik gorakoak ere (hau da, derrigorrezko hezkuntzara lotu gabeko biztanleria). 6-18 urte bitartekoak tasak orain dela 11 urtekoen antzekoak dira, baina aintzat hartu behar da tasa horiek orain dela hamarkada bat ere %100ekoak zirela.

OCDEko herrietan ikusten denez, 15-19 eta 20-29 urteko adin taldeetako eskolatzeko-tasek goranzko joera izan dute 1995etik 2005era bitarteko aldian. Horrela, aldi horretan, eta lehenengo adin taldeari dagokionez, OCDEko herrietako batez besteko eskolatzeko-tasa ehuneko 8 puntu hazi da, %74tik %82ra; honako hauek, gainera, %85etik gora daude: Belgika, Txekiar Errepublika, Finlandia, Frantzia, Alemania, Grezia, Hungaria, Irlanda, Korea, Holanda, Norvegia, Polonia eta Suedia. Bestalde, aldi

II.1.22. GRAFIKOA. ESKOLATZE-TASA GARBIAREN BILAKAERA ADINAREN ARABERA



II.1.32. KOADROA. ESKOLATZE TASAK (1) OCDE-KO HERRIETAN. 2005

	Derrigor. eskolatzea amaitzeko adina	Biztanleriaren %90 eskolatuta dagoen urte kopurua	Biztanleriaren %90 baino gehiago eskolatuta dagoen adin- tartea	IKASLEEN ADINA					
				4 urtera arte (2)	5-14 urte	15-19 urte	20-29 urte	30-39 urte	40 urte edo gehiago
Australia	15	12	1-16	41,6	99,1	82,5	33,2	14	6,2
Austria	15	13	1-17	67,5	98,4	80,3	19,4	3,3	0,3
Belgika	18	15	1-17	125,2	99,6	94,0	29,4	8,4	3,5
Kanada	16	m	m	m	m	m	m	m	m
Txekiar Errep.	15	14	1-17	83,7	99,8	90,4	20,2	3,8	0,3
Danimarka	16	13	1-16	92,3	97,1	84,9	37,7	7,8	1,6
Finlandia	16	13	1-18	42,3	95,1	87,5	42,6	13,1	3,0
Frantzia	16	15	1-17	112,9	101,3	86,2	20,1	2,6	N
Alemania	18	12	1-17	78,8	98,3	88,8	28,2	2,5	0,1
Grezia	14,5	13	1-19	28,9	97,5	97,4	23,7	6,1	N
Hungaria	16	14	1-17	81,7	100,3	86,8	24,4	5,8	0,6
Islandia	16	14	1-16	94,7	98,9	85,0	37,3	11,9	3,2
Irlanda	15	12	1-16	23,9	101,1	88,5	20,9	4,0	0,1
Italia	15	13	1-15	105,0	101,2	80,2	20,0	3,2	0,1
Japonia	15	14	1-17	82,0	100,7	m	m	m	m
Korea	14	12	1-17	22,5	94,1	85,6	27,3	2,0	0,5
Luxenburgo	15	12	1-15	80,7	96,7	72,1	5,9	0,5	0,1
Mexiko	15	9	1-13	46,6	99,9	48,2	10,8	3,2	0,5
Holanda	18	12	1-16	37,1	99,0	86,0	25,6	2,7	0,7
Zeelanda Berria	16	12	1-15	90,5	100,9	73,9	30,4	12,3	5,1
Norvegia	16	13	1-17	85,9	98,4	85,8	29,5	6,9	1,6
Polonia	16	13	1-18	34,6	94,6	91,8	30,9	4,6	-
Portugal	14	10	1-15	72,5	103,9	73,4	21,9	3,8	0,7
Eslovakia	16	12	1-17	77,5	97,1	84,7	16,0	2,8	0,4
Espania (3)	16	14	1-16	120,5	101,4	80,5	22,1	3,6	1,1
Suedia	16	14	1-18	86,5	99,5	87,3	36,4	13,3	3,0
Suitza	15	12	1-16	26,1	99,6	83,4	21,7	3,6	0,4
Turkia	14	7	1-13	3,7	81,8	40,9	10,3	1,5	0,2
Erresuma Batua	16	13	1-16	90,6	101,0	78,5	29,0	15,8	7,8
A. Estatu Batuak	17	11	1-16	50,0	97,7	78,6	23,1	5,2	1,4
OCDEko b. b.	16	13		68,5	98,4	81,5	24,9	6	1,6
				3-5 urte	5-14 urte	15-19 urte	20-29 urte		
EAE 2005	16	-	-	99,4	99,7	82,7	22,2		

(1) Eskolatzetaskak: adin talde bakoitzeko ikasleen eta adin-talde horretako biztanle guztien arteko lotura.

(2) 4 urteko ikasleen eta 3-4 urteko biztanle guztien arteko lotura.

(3) Zenbatespena handiegia da, ikasle kopuru handia 3 urtetik beherakoa baita.

Iturria: Education at a glance, 2007 eta Eustat

II.1.33. Koadroa. Eskolatzeko tasen joerak OCDE-ko zenbait herritan

	15-19 urteko %, adin horretako biztanleriari dagokionez					20-29 urteko %, adin horretako biztanleriari dagokionez				
	1995	2000	2002	2004	2005	1995	2000	2002	2004	2005
Australia	81	82	83	82	82	23	28	33	33	33
Austria	75	77	77	79	80	16	18	17	19	19
Belgika	94	91	92	95	94	24	25	27	30	29
Kanada	80	81	80	79	m	22	23	25	25	m
Txekiar Errep.	66	81	90	91	90	10	14	16	19	20
Danimarka	79	80	82	85	85	30	35	36	36	38
Finlandia	81	85	85	87	87	28	38	40	41	43
Frantzia	89	87	86	87	86	19	19	20	20	20
Alemania	88	88	89	89	89	20	24	26	28	28
Grezia	62	82	83	86	97	13	16	25	28	24
Hungaria	64	78	81	85	87	10	19	21	24	24
Islandia	m	79	81	84	85	24	31	32	37	37
Irlanda	79	81	83	87	89	14	16	19	23	21
Italia	m	72	76	79	80	m	17	18	20	20
Japonia	m	m	m	m	m	m	m	m	m	m
Korea	75	79	80	84	86	15	24	27	28	27
Luxenburgo	73	74	75	75	72	M	5	6	7	6
Mexiko	36	42	44	47	48	8	9	10	11	11
Holanda	89	87	87	86	86	21	22	23	26	26
Zeelanda Berria	68	72	74	74	74	17	23	28	31	30
Norvegia	83	86	85	86	86	25	28	26	29	29
Polonia	78	84	87	90	92	16	24	28	30	31
Portugal	68	71	71	73	73	22	22	22	23	22
Eslovakia	m	m	76	83	85	m	m	13	15	16
Espainia	73	77	78	80	81	21	24	23	22	22
Suedia	82	86	86	87	87	22	33	34	36	36
Suitza	80	83	83	83	83	15	19	20	21	22
Turkia	30	28	34	40	41	7	5	6	10	10
Erresuma Batua	72	75	77	79	79	18	24	27	28	29
A. Estatu Batuak	73	74	75	76	79	20	21	23	23	23
OCDEko b.b.	74	77	79	81	82	18	22	23	25	25

horretan eta bigarren adin taldean, eskolatzeko tasak ehuneko 7 puntuko batez besteko hazkundea izan du OCDEko herrietan, %18tik %25era, eta honako hauek %30etik gora daude: Australia, Danimarka, Finlandia, Islandia, Polonia eta Suedia.

(b) Goi-hezkuntzarako sarbidea: unibertsitatean sartzeko proba gainditu duten ikasleak

INEn datuetan ezartzen denez, 2007an 9.399 pertsona egin zuten Euskal Herriko Unibertsitatean sartzeko proba (kopuru honen barruan ez dira sartzen 25 urtetik gorakoentzako sarbide-probak egin zituztenak); hau da, au-

II.1.34. KOADROA. UNIBERTSITATEKO PROBAN MATRIKULATU ETA BERORI GAINDITU EGIN DUTEN IKASLEAK (25 URTETIK GORAKO PROBA ALBO BATERA UTZITA), 2007

	Guztira			Zientifiko-Teknikoa			Osasun Zientziak			Gizarte Zientziak			Giza Zientziak			Arteak			Konbinatuak (1)		
	Matrikula- tuak (M)	Gain- ditu- dute- nak (G)	Gaindi- turi- koen %	(M)	(G)	Gaindi- turi- koen %	(M)	(G)	Gaindi- turi- koen %	(M)	(G)	Gaindi- turi- koen %	(M)	(G)	Gaindi- turi- koen %	(M)	(G)	Gaindi- turi- koen %	(M)	(G)	Gaindi- turi- koen %
BI SEXUAK																					
GUZTIRA	198.204	168.160	85	45.263	38.970	86	48.828	42.946	88	61.387	51.453	84	26.827	23.175	86	4.922	4.264	87	10.977	7.352	67
EAE-EHU	9.399	8.836	94	3.265	3.004	92	2.475	2.380	96	2.713	2.541	94	728	696	96	182	179	98	36	36	100
EMAKUMEAK																					
GUZTIRA	115.452	98.261	85	13.844	12.070	87	32.897	28.914	88	39.381	32.978	84	19.764	17.114	87	3.507	3.047	87	6.059	4.138	68
EAE-EHU	5.515	5.266	95	1.169	1.103	94	1.789	1.733	97	1.827	1.723	94	574	554	97	133	130	98	23	23	100

(1) Aukera Konbinatueta gaingitu duten ikasleek gutxienez aukeratariko bat gaingitu dute.
Iturria: INE

rreko urtean baino %8 gutxiago. Guztien artean, %94k gaingitu zuten proba, eta ehuneko hori aurreko ikasturtekoa baino handiagoa da (ehuneko 1,4 puntu). Bestalde, Estatuko unibertsitate publikoen multzoari dagokionez, 198.204 pertsona matrikulatu ziren proba egiteko, aurreko ikasturtean baino %10,3 gutxiago. Horietatik %85ek gaingitu zuten proba, eta ehuneko hori Euskal Herriko Unibertsitatean lortutakoa baino txikiagoa da.

Hautaturiko aukerei dagokienez, ikasle ia guztiak (9.363) aukera bakarrean matrikulatu ziren, eta 36k aukera konbinatuak hautatu zituzten, hau da, aukera baten baino gehiagoren probak egitea, beste aukera batzuetara lotutako ikasgairen bat edo batzuk aukerako ikasgaitzat ikasi izanaren ondorioz.

Eskaririk handieneko aukera bide Zientifiko Teknikoa izan zen (matrikulen %34,7), eta gero Gizarte Zientziak (%28,9). Horren inguruko preferentziak alagarriak dira, sexuaren arabera; horrela, nesken kasuan gehien hautaturikoak Gizarte Zientziak izan ziren, eta gero Osasun Zientziak.

Eustatek emandako datuen arabera, 2007an 9.409 pertsona matrikulatu ziren unibertsitatean sartzeko probak egiteko (ez dira aintzat hartu 25 urtetik gorakoentzako sarrera-probak egiteko matrikulatu direnak: 449 ikasle). Horietatik, 7.627 ekaineko deialdikoak dira, eta 1.772 irailko deialdikoak. Proba, guztira, 8.817 pertsonak gaingitu zuten (%93,7). Lehenengoan ikasleen %97k gaingitu zuten, eta bigarrenean zifra %81ra murriztu zen. Datuak INEK argitaraturikoen berdinak izan ez arren, aukeraturik hautatuenak bat datoz, bai orokorrean eta bai generoaren ikuspegia aintzat hartuta.

1.2.5.3. Hezkuntza- eta ikerketa-emaitzen adierazleak

(a) Araubide orokorreko unibertsitatetik kanpoko irakas-kuntzetan maila igaro zutenak

Eustatek emandako datuetan ikusten denez, 2005-06 ikasturtean, araubide orokorreko unibertsitatetik kanpoko irakaskuntzetan 142.656 ikasle igaro zuten maila. Hain zuzen ere, Lehen Hezkuntzan 48.822 ikasle igaro zuten (%98), DBHn 60.294 (%87), Batxilergoan 23.338k (%80), maila ertaineko LHn 3.789k (%78) eta, azkenik, goi mailako LHn 6.413 ikasle (%84).

Emaitzek ibilbide desberdinak adierazten dituzte, sexuaren eta hizkuntza-ereduaren arabera aztertzen direnean. Generoaren ikuspegitik ikusten denez, maila igaro zuten nesken ehuneko mutilena baino nahiko handiagoa izan zen, hezkuntza maila guztietan. Izan ere, batez beste, nesken %91k igaro zuten maila, eta mutilen ehuneko %86 izan zen.

Hizkuntza-ereduaren arabera, maila igaro zuten guztien ehunekoaren (%89) gainetik jarri zirenak B eta D ereduak izan ziren, biak %91rekin. Maila gaingitu zuten A ereduak zentroetako ikasleak %82 izan ziren.

Hezkuntza mailaren ikuspegitik begiratuta, agerian gelditu da ereduaren arteko alde txikiko maila bakarra Lehen Hezkuntza dela. Gainerako mailetan, aldea gero eta handiagoa da, eta desberdintasun nabariak ikusten dira. DBHn eta Batxilergoan, 2005-06 ikasturtean, maila gehien igaro zuten ikasleak D ereduak izan ziren, gero B ereduak eta, azkenik, A ereduak; maila ertaineko LHn, berriz, B eredu nagusitu zen, argi eta garbi, gero A eredu, eta,

II.1.35. KOADROA. MAILA IGARO DUTENEN KOPURUA, MAILAREN ETA HIZKUNTZA EREDUAREN ARABERA

	2002-03				2003-04				2004-05				2005-06			
	Guzt.	A	B	D	Guzt.	A	B	D	Guzt.	A	B	D	Guzt.	A	B	D
L. Hezk. 1. zikloa	96,5	93,2	96,5	97,3	96,9	95,5	96,7	97,3	96,7	95,3	96,4	97,1				
L. Hezk. 2. zikloa	96,8	96,1	96,0	97,4	97,0	96,6	96,5	97,3	96,9	96,4	96,4	97,3	97	96	96	97
L. Hezk. 3. zikloa	95,4	94,0	94,6	96,6	96,0	94,1	95,8	96,9	96,1	93,9	95,5	97,1				
DBH	83,5	80,3	82,8	86,2	84,9	80,4	84,4	88,1	87,9	83,7	87,5	90,4	87	82	87	90
Batxilergoa	79,7	74,7	90,3	85,4	78,9	72,1	88,3	86,8	80,1	74,2	85,4	86,3	80	75	82	84
Maila ertaineko LH	80,8	81,1	83,1	78,8	78,5	78,8	83,5	76,3	79,1	79,2	80	78,6	78	79	86	74
Goi mailako LH	86,0	85,7	87,7	87,3	85,0	85,1	82	85,5	85,4	85,0	87,7	87,4	84	84	81	85
Guztira	-0	-0	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	89	82	91	91

Iturria: EUSTAT

hirugarrenez, D eredu. Goi mailako LHn, aldiz, D eredu nagusitu zen berriro, gero A eredu eta, azkenik, B eredu.

Azterketa modu dinamikoan eginez gero ikusten denez, hezkuntza mailen eta ereduaren arabera jokabidea antzekoa da, azken urteotan.

(b) Eskola-uzte goiztiarra

Eskola-uzte goiztiarraren tasa kalkulatzeko, gehienez bigarren hezkuntzako lehenengo zikloa amaitu duen 18-24 urte bitarteko biztanleria hartzen da erreferentziatzat (ISCED 0, 1, 2 edo 3c), ikasle horiek ikasten jarraitu ez dutenean edota heziketarik egin ez dutenean, inkesta egin aurreko lau asteetan⁴.

Lisboako Europako Kontseiluaren ostean (2000ko martxoa), ikasketak goizegi uzten dituzten gazteen %19,3ko batez bestekoa murrizteko beharrezana funtsezko alderdia zela ikusi zen, eta helburu hauze ezarri zen: "2010erako, estatukide guztiek, gutxienez, erdira murriztu

behar dute eskola uzteko tasa (2000ko datuei dagokienez), EBko batez besteko indizea %10etik gorakoa ez izateko".

Adierazle horrek Europako herrietan beheranzko joera eduki arren, esan behar da helbururako distantzia handia dela, estatukide asko ezarritako %10eko helburutik urrun baitaude.

Eurostaten datuen arabera, Espainian eskola goizegi uzteko tasa %30 ingurukoa izan zen, 2006an. EB-15eko herrien batez bestekoa %17 izan zen, baina beste 10 herrien integrazioarekin tasa %15,1era jaitsi zen. Izan ere, herri horiek, eskola goizegi uzteari dagokionez, EBko gainerako kideek baino tasa nahiko baxuagoa dute. Izan ere, tasarik onenak Txekiar Errepublikan (%5,5), Polonian (%5,6) eta Eslovakian (%6,4) daude.

ISEI-IVEIren datuek diotenez (Hezkuntza Ebaluazioko eta Ikerketako EAEko Erakundea), EAEn bi aldi berezi daude: 1992-1999 aldian adierazle horrek bilakaera positiboa izan zuen, eta, horrela, eskola goizegi uzteko tasa %25,4tik %13,9ra igaro zen (azken hiru urteetan gorabe-

⁴ Adierazle honek ez ditu derrigorrezko eskolatzearen uztea eta eskola-porrotak neurtzen, hori gaitzen duen ikasleen ehunekotzat.

II.1.36. KOADROA. ESKOLA UZTE GOIZTIARRA (%) (GEHIENEZ ISCED 0, 1, 2 EDO 3c)

	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006
EB-27	17,6	17,3	17,1	16,5	16,0	15,6	15,3
EB-25	17,3	17,0	16,6	16,0	15,5	15,2	15,1
EB-15	19,5	19,0	18,7	18,1	17,6	17,3	17,0
Euroaren zona	20,2	19,6	19,2	18,7	18,3	18,1	17,9
Belgika	12,5	13,6	12,4	12,8	11,9	13,0	12,6
Bulgaria	-	20,3	21,0	22,4	21,4	20,0	18,0
Txekiar Errep.	-	-	5,5	6,0	6,1	6,4	5,5
Dinamarka	11,6	9,0	8,6	10,3	8,5	8,5	10,9
Alemania	14,9	12,5	12,6	12,8	12,1	13,8	13,8
Estonia	14,2	14,1	12,6	11,8	13,7	14,0	13,2
EAE	14,5	15,5	13,3	14,4	12,7	13,9	14,5
Irlanda	-	-	14,7	12,3	12,9	12,3	12,3
Grezia	18,2	17,3	16,7	15,5	14,9	13,3	15,9
Espania	29,1	29,2	29,9	31,3	31,7	30,8	29,9
Frantzia	13,3	13,5	13,4	12,7	13,4	12,6	13,1
Italia	25,3	26,4	24,3	23,5	22,3	21,9	20,8
Zipre	18,5	17,9	15,9	17,4	20,6	18,1	16,0
Letonia	-	-	19,5	18,1	15,6	11,9	19,0
Lituania	16,7	13,7	14,3	11,8	9,5	9,2	10,3
Luxenburgo	16,8	18,1	17,0	12,3	12,7	13,3	17,4
Hungaria	13,8	12,9	12,2	11,8	12,6	12,3	12,4
Malta	54,2	54,4	53,2	48,2	42,0	41,2	41,7
Holanda	15,5	15,3	15,0	14,2	14,0	13,6	12,9
Austria	10,2	10,2	9,5	9,3	8,7	9,0	9,6
Polonia	-	7,9	7,6	6,3	5,7	5,5	5,6
Portugal	42,6	44,0	45,1	40,4	39,4	38,6	39,2
Errumania	22,3	21,3	23,2	23,2	23,6	20,8	19,0
Eslovenia	-	7,5	4,8	4,3	4,2	4,3	5,2
Eslovakia	-	-	5,6	4,9	7,1	5,8	6,4
Finlandia	8,9	10,3	9,9	8,3	8,7	9,3	8,3
Suedia	7,7	10,5	10,4	9,0	8,6	11,7	12,0
Erresuma Bat.	18,4	17,7	17,8	16,8	14,9	14,0	13,0
Kroazia	-	-	8,3	8,4	6,2	4,8	5,3
Turkia	58,8	57,3	54,8	53	54,6	51,3	50,0
Islandia	29,8	30,9	28,8	23	27,4	26,3	26,3
Norvegia	13,3	9,2	14,0	6,6	4,5	4,6	5,9
Suitza	7,3	4,7	5,4	7,6	8,1	7,8	7,8
AEB	-	-	-	-	-	-	-
Japonia	-	-	-	-	-	-	-

Iturria: Eurostat eta ISEI-IVEI

hera txikiak). 2000-2006 aldian, gorabehera txikiak eta iraunkorrak egon dira ehuneko horren inguruan, eta egiaztatu da, eskola goizegi uzteko ehunekoan 10 puntu jaistea lortu ondoren, zaila dela hori hobetzea.

Sexuaren aldagaiak zifra argigarriak eskaintzen ditu. 2006an, Europar Batasuneko bost herritan izan ezik (horietan ez baitago desberdintasunik), gainerako hogeita bi herrietan gizonek emakumeek baino proportzio handiagoan uzten zituzten goizegi ikasketak. Portugalen, Ziprean, Espainiaren eta EAEn kasuan, bi taldeen arteko aldea 10 puntutik gorakoa da. EAEn, emakumeek eskola goizegi uzteko tasa %8,6koa da, 2010erako aurreikusitakoa baino baxuagoa. Gizonak, aldiz, urrunago daude, %20,4ko tasa baitute.

(c) Derrigorrezkoaren osteko bigarren hezkuntza amaitzea, 20-24 urteko biztanleen artean.

Derrigorrezkoaren osteko bigarren hezkuntza amaitu duen 20-24 urte bitarteko biztanleriaren ehuneko da (ISCED 3a, 3b edo 3c long).

EBk ezarritako helburuaren arabera, 2010erako, gutxienez, 20-24 urte bitarteko pertsonen %85ek amaituta eduki behar ditu derrigorrezkoaren osteko bigarren hezkuntzako ikasketak.

Eurostaten datuek diotenez, ikasketa horiek amaitzeko tasa gero eta handiagoa da estatukiderik gehienetan. EB-27an 2006rako batez bestekoa %77,8 da.

Herrien erdia baino gehiago %80tik gora dago, hau da, helburutik oso hurbil. Hala eta guztiz ere, bilakaeraren erritmoa motela da, eta horrek agerian jartzen du hori sustatzeko neurriak hartu behar direla.

Eustaten datuen arabera, 1995-2001 aldian, EAEn Derrigorrezkoaren osteko Bigarren Hezkuntzan titulaturiko adin tarte horretako biztanleen ehunekoak goranzko bilakaera etengabea izan du; ikusten denez, %80ko ehunekora heldu ondoren, nolabaiteko egonkortasuna mantentzen da.

Generoaren ikuspegitik, EBko herrietan eta autonomia-erkidegoetan nahiz EAEn, goi mailako bigarren hezkuntza titulazioa ehunekorik handienean lortzen dutenak emakumeak dira, gizonak baino gehiago. Horren salbuespena Nafarroako Foru Erkidegoan dago, bertan gizonek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan emakumeek baino titulazio gehiago baitituzte, adin tarte honetan.

(d) PISA proiektua. Gaitasunak irakurmenean, matematiketan eta zientzietan.

PISA proiektuaren (Programme for International Student Assessment-Ikasleen Nazioarteko Ebaluaziorako Programa) helburu nagusia 15 urteko ikasleen hezkuntza-errendimendua aztertzea da, funtsezkotzat hartzen diren gaitasunetan oinarrituz, adibidez, irakurmen-, matematika- eta zientzia-gaitasuna.

Konparazio-ikerketan OCDEko herriek antolatzen eta zuzentzen dute, herri elkartuen kopuru gero eta handiagoaren lankidetzarekin. 2000an 32 herrik hartu zuten parte, 2003an 41ek, 2006an 57k eta 2009an 64k hartuko dute parte, horietatik OCDEko 30 herriek eta 34 herri elkartuk.

Aplikazio bakoitzean, ikasleek hiru gaitasunetan duten errendimendua aztertzen da, baina horietariko batek arreta sakonagoa jasotzen du; beste bien kasuan, zundaketa baino ez da egiten. Lehenengo PISA azterketa 2000 urtean egin zen, eta bertako gaitasun nagusia irakurmena izan zen. 2003ko PISAko gaitasun nagusiak matematikak izan ziren, eta 2006ko PISAko gaitasun nagusiak, berriz, zientziak.

Oinarritzko gaitasun bakoitzerako 500 oinarritzat, gaitasun hori ikerketako arlo nagusia izan zen urteko batez bestekoa hartzen da: irakurmenerako 2000, matematikarako 2003 eta zientzietarako 2006. Ikerketaren osteko bi urteetan, 500eko baliokidetasunetik eratorritako egokitzapen egokiak egin dira.

Zientzia-gaitasunean, Espainia 31. postuan dago, 488 punturekin (OCDEko 2006ko batez bestekoaren azpitik -500-), eta bost postu galdu ditu, 2003an egindako ebaluazioari dagokionez. Hala eta guztiz ere, lehengo emaitzekiko konparazioak balio nahiko erlatiboa dauka, eta kontuz aztertu behar da, ikerketa horietan zientziak bigarren mailako arloak baitira, hau da, galdera gutxi izan zituzten eta horiek ez zituzten betetzen 2006an jasotako eskala guztiak. Irakurmeneko eta matematikako konparazioei ere arrazoibide horixe aplikatu behar zaie, orain bigarren mailakoak izan arren.

EAE (495) Estatuko batez bestekoaren gainetik dago, baina OCDEko batez bestekoaren azpitik (500), baita parte hartu duten autonomia-erkidego batzuen azpitik ere. Izan ere, EAEn atzetik dauden bakarrak Katalunia eta Andaluzia dira. Bilakaeraren ikuspegitik, eta lehen aipaturiko alderdiak aintzat hartuz, esan daiteke hobetu egin dela 2003ko ebaluazioari dagokionez: orduan (484 punturekin)

II.1.37. Koadroa. DERRIGORREZKOAREN OSTEKO HEZKUNTZAN GRADUATU DIREN 20-24 URTEKO BIZTANLEEN EHUNEKOA (DERRIGORREZKOAREN OSTEKO: ISCED 3A, 3B EDO 3C)

	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006
EB-27	76,6	76,6	76,7	76,9	77,1	77,4	77,8
Gizonak	73,8	74,0	74,0	74,5	74,3	74,7	74,8
Emakumeak	79,3	79,2	79,3	79,4	79,9	80,1	80,7
EB-25	76,6	76,5	76,7	77,1	77,2	77,5	77,7
EB-15	73,7	73,6	73,7	74,1	74,3	74,6	74,8
Euro area	72,7	72,6	72,7	72,9	73,4	73,5	73,7
Euroaren zona (13)	73,1	72,7	72,9	73,1	73,5	73,6	73,8
Euroaren zona (12)	72,9	72,6	72,7	72,9	73,4	73,5	73,7
Belgika	81,7 (b)	81,7	81,6	81,2	81,8	81,8	82,4
Bulgaria	75,2	78,1 (b)	77,4	76,3	76,1	76,5	80,5
Txekiar Errep.	91,2	90,6	92,2	92,1	91,4	91,2	91,8
Danimarka	72,0	78,4	78,6	76,2 (b)	76,2	77,1	77,4
Alemania	74,7	73,6	73,3	72,5	72,8	71,5 (b)	71,6 (p)
Estonia	79,0 (b)	79,8	81,4	81,5	80,3	82,6	82,0
EAE	80	82,1	81,2	81	80,2	81,1	79,2
Gizonak	74,6	77,7	76,9	75,1	74,2	77	74,2
Emakumeak	85,5	86,4	85,7	87	86,4	85,8	84,7
Irlanda	82,6	83,9	84,0	85,1 (p)	85,3 (p)	85,8 (p)	85,7
Grezia	79,2	80,2	81,1	81,7	83,0	84,1	81,0 (p)
Espania	66,0	65,0	63,7	62,2	61,2	61,8	61,6
Frantzia	81,6	81,8	81,7	81,8 (b)	81,4	82,6	82,1 (p)
Italia	69,4 (b)	67,9	69,6	71,0	73,4	73,6	75,5
Zipre	79,0	80,5	83,5	79,5	77,6	80,4	83,7 (p)
Letonia	76,5	71,7	77,1 (b)	75,4	79,5	79,9	81,0
Lituania	78,9	80,5	81,3 (b)	84,2	85,0	87,8	88,2
Luxenburgo	77,5	68,0	69,8	72,7 (b)	72,5	71,1	69,3
Hungaria	83,5	84,7	85,9	84,7 (b)	83,5	83,4	82,9
Malta	40,9	40,1	39,0	45,1 (b)	51,0	53,7	50,4
Holanda	71,9	72,7	73,1	75,0	75,0	75,6	74,7
Austria	85,1 (b)	85,1	85,3	84,2	85,8	85,9	85,8
Polonia	88,8 (b)	89,7	89,2	90,3	90,9	91,1	91,7
Portugal	43,2	44,4	44,4	47,9	49,6	49,0	49,6
Errumania	76,1	77,3	76,3	75,0	75,3	76,0	77,2
Eslovenia	88,0 (b)	88,2	90,7	90,8	90,5	90,5	89,4
Eslovakia	94,8	94,4	94,5	94,1	91,7	91,8	91,5
Finlandia	87,7 (b)	86,1	85,8	85,3	84,5	83,4	84,7
Suedia	85,2	85,5 (b)	86,7	85,8	86,0	87,5	86,5
Erresuma Batua	76,6	76,9	77,1	78,7	77,0	78,2	78,8
Kroazia	:	:	90,6	91,0	93,5	93,8	94,6
Turkia	38,6	39,6	42,8	44,2	42	44	44,7
Islandia	46,1	46,1	48,5	51,2	51,7	50,8	49,3
Norvegia	95,0	96,2	94,8	93,7	95,1	96,2	93,3 (p)
Suitza	77,7	80,4	79,4	77,5	78,7	78,3	76,0

(-) Ez dago datu erabilgaririk (e) Zenbatespena (b) Haustura seriean (p) Behin-behinekoa. Iturria: Eurostat eta Eustat
Iturria: Eurostat eta Eustat

II.1.38. KOADROA. ZIENTZETAKO EMAITZAK. PISA 2000, 2003 ETA 2006

	2006		2003		2000	
	Sailkap.	Puntuak	Sailkap.	Puntuak	Sailkap.	Puntuak
Finlandia	1	563	1	548	4	538
Hong-Kong	2	542	3	539	3	541
Kanada	3	534	11	519	6	529
Tapei-China	4	532				
Estonia	5	531				
Japonia	6	531	2	548	2	550
Zeelanda Berria	7	530	10	521	7	528
Australia	8	527	6	525	8	528
Holanda	9	525	8	524	-	-
Liechtenstein	10	522	5	525	25	476
Korea	11	522	4	538	1	552
Gaztela eta Leon		520		502		
Errioxa		520				
Eslovenia	12	519				
Alemania	13	516	18	502	21	487
Erresuma Batua	14	515	-	-	5	532
Aragoi		513				
Txekiar Errepublika	15	513	9	523	12	511
Suitza	16	512	12	513	19	496
Nafarroa		511				
Macau Txina	17	511	7	525	-	-
Austria	18	511	23	491	9	519
Belgika	19	510	14	506	18	496
Kantabria		509				
Asturias		508				
Irlanda	20	508	16	505	10	513
Galizia		505				
Hungaria	21	504	17	503	16	496
Suedia	22	503	15	506	11	512
Polonia	23	498	19	498	22	483
Danimarka	24	496			25	489
Frantzia	25	495	13	511	13	500
EAE		495		484		
Kroazia	26	493				
Katalunia		491		502		
Islandia	27	491	21	495	17	496
Letonia	28	490	24	489		
A.Estatu Batuak	29	489	22	491	15	499
Eslovakia	30	488	20	495		
Espania	31	488	26	487	20	491
Lituania	32	488				
Norvegia	33	487	28	484	14	500
Luxenburgo	34	486				
Errusia	35	479	25	489	27	470
Italia	36	475				
Portugal		474				
Andaluzia	37	474				
Gretzia	38	473				
...						
OCDEkob. bestekoa	-	500	-	500	-	502

Laranjak OCDEko b. bestekoaren azpikoak
Fuente: PISA 2006

II.1.39. Koadroa. MATEMATIKAKO EMAITZAK. PISA 2000, 2003 ETA 2006

	2006		2003		2000	
	Sailkap.	Puntuen batez	Sailkap.	Puntuen batez	Sailkap.	Puntuen batez
Txina-Tapei	1	549				
Finlandia	2	548	2	544	5	536
Hong-Kong	3	547	1	550	1	560
Korea	4	547	3	542	3	547
Holanda	5	531	4	538		
Suitza	6	530	10	527	8	529
Kanada	7	527	7	532	7	533
Errioxa		526				
Macau Txina	8	525	9	527		
Liechtenstein	9	525	5	536	15	514
Japonia	10	523	6	534	2	557
Zeelanda Berria	11	522	12	523	4	537
Belgika	12	520	8	529	10	520
Australia	13	520	11	524	6	533
Gaztela eta Leon		515		503		
Nafarroa		515				
Estonia	14	515				
Danimarka	15	513	15	514	13	514
Aragoi		513				
Txekiar Errepublika	16	510	13	516	19	498
Islandia	17	506	14	515	14	514
Austria	18	505	18	506	12	515
Eslovenia	19	504				
Alemania	20	504	19	503	21	490
Suedia	21	502	17	509	16	510
Kantabria	22	502				
Irlanda	23	501	20	503	17	503
EAE		501		502		
Asturias		497				
Frantzia	24	496	16	511	11	517
Erresuma Batua	25	495	-	-	9	529
Polonia	26	495	24	490	25	470
Galizia		494				
Eslovakia	27	492	21	498		
Hungaria	28	491	25	490	22	488
Luxenburgo	29	490	23	493	30	446
Norvegia	30	490	22	495	18	499
Katalunia		488		494		
Lituania	31	486				
Letonia	32	486				
Espainia	33	480	26	485	24	476
...						
A. Estatu Batuak	36	474	2	483	20	493
...						
Andaluzia	38-39	463				
OCDEko b. bestekoa		498		500	-	498

Larankak OCDEko b. bestekoaren azpikoak.

Iturria: PISA 2006

II.1.40. KOADROA. IRAKURMENEN EMAITZAK. PISA 2000, 2003 ETA 2006

	2006		2003		2000	
	Sailkap.	Puntuen batez	Sailkap.	Puntuen batez	Sailkap.	Puntuen batez
Korea	1	556	2	534	7	525
Finlandia	2	547	1	543	1	546
Hong-Kong	3	536	10	510	6	525
Kanada	4	527	3	528	2	534
Zeelanda Berria	5	521	6	522	3	529
Irlanda	6	517	7	515	5	527
Australia	7	513	5	525	4	528
Liechtenstein	8	510	4	525	23	483
Polonia	9	508	16	497	25	479
Suedia	10	507	8	514	10	516
Holanda	11	507	9	513		
Belgika	12	501	1	507	12	507
Estonia	13	501				
Suitza	14	499	13	499	18	494
Japonia	15	498	14	498	9	522
Txina Tapei	16	496				
Erresuma Batua	17	495	-	-	8	523
Alemania	18	495	21	491	22	484
Danimarka	19	494	19	492	17	497
Eslovenia	20	494				
Macau-Txina	21	492	15	498		
Errioxa		492				
Austria	22	490	22	491	11	507
Frantzia	23	488	17	496	15	505
EAE		487		497		
Islandia	24	484	20	492	13	507
Norvegia	25	484	12	500	14	505
Aragoi		483				
Txekiar Errep.	26	483	24	489	20	492
Hungaria	27	482	25	482	24	480
Nafarroa		481				
Letonia	28	479	23	491		
Luxenburgo	29	479				
Galizia		479				
Gaztela eta Leon		478		499		
Kroazia	30	477				
Asturias		477				
Catalunia		477		483		
Kantabria		475				
Portugal	31	472				
Lituania	32	470				
Italia	33	469				
Eslovakia	34	466				
Espainia	35	461	26	481	19	493
Grezia	36	460				
Turkia	37	447				
Andaluzia		445				
...						
OCDEko b. best.		492		494	-	499

Larankak OCDEko b. bestekoaren azpikoak.

Fuente: PISA 2006

28. eta 29. posizioen artean zegoen, eta orain (495 puntu-rekin) 25. eta 26. postuen artean dago.

Emaitzarik onenak Finlandiak, Hong-Kongek eta Kanadak atera dituzte. 2003an onenak Finlandia, Japonia eta Hong-Kong izan ziren, eta 2000n Korea, Japonia, Hong-Kong eta Finlandia.

Irakurmen-ulermena eta **matematika-gaitasuna**, PISA 2006an, ikasleek erantzundako item guztien %30 izan dira; beraz, emaitza horiek gaitasunok ikerketako arlo nagusia izandako urteko emaitzei dagokienez duten balioa (2000n irakurmen-ulermena eta 2003an matematika-gaitasuna) erlatiboa da.

Hala eta guztiz ere, hori esan ondoren, ikusten da Espainian, 2006an, **matematika-gaitasuneko** batez bestekoa (480) 2003koa (485) baino apur bat txikiagoa eta 2000koaren antzekoa dela. Hiru urteon arteko aldeak txikiak dira, eta Espainiako hiru batez bestekoak OCDEko batez bestekotik hurbil daude, zientzien kasuan bezala.

Bestalde, EAEk posizioak galdu ditu: 2003an (502 puntu) 20. eta 21. postuen artean zegoen, Estatuaren eta OCDEko batez bestekoaren gainetik; eta 2006an (501 puntu) 23. eta 24. postuen artean dago, baina oraindik ere OCDEko batez bestekoaren eta Estatuaren gainetik.

PISA 2006 proiektuan parte hartu duten bederatzi autonomia-erkidegoetatik, lehenengo postuan dagoena Errioxa da, 526 punturekin (7. eta 8. posizioen artean). EAE bosgarren postuan dago.

PISA 2003an Finlandiak, Koreak eta Holandak izan dituzte puntuaziorik altuenak, 2006an laurek errepikatu dute, eta lehenengo posizioan Txina-Tapei egon da. 2000n nagusiak Hong-Kong, Japonia, Korea eta Zeelanda Berria izan ziren.

Irakurmen-ulermenean, 2006an herririk gehienek behera egin dute, eta beherakada hori oso handia izan da Espainiako batez bestekoan: Espainia 26. posiziotik (481 puntu) 35. posiziora (461 puntu) igaro da, 57 herriren artean, eta 31 puntu beherago dago OCDEren batez bestekoa baino.

Espainiak irakurmen-ulermenean ateratako emaitza hori kezagarria da. 20 puntuko beherakada egon da, 2003an ebaluatu ziren 37 herrien arteko beherakadarik handiena, eta berretsi egiten du Espainiak PIRLS ikerketan (9 urteko haurren irakurmen-ulermena baloratu duen ikerketa, Lehen Hezkuntzako 4. mailako haurrena) inguruko herriei konparatuz atera duen emaitza txarra.

EAEk ere posizioak galdu ditu 2003ko azterketari dagokionez. Horrela, 2003an 497 puntu zituen eta 15-16. posizioan zegoen, Espainiako estatukoa eta OCDEko herrietakoa baino batez besteko puntuazio altuagoarekin; 2006an 23. eta 24. postuen artean dago, 487 punturekin, Estatuko batez bestekoaren gainetik, baina OCDEko batez bestekoaren azpitik.

PISA 2006 proiektuan parte hartu duten bederatzi autonomia-erkidegoen artean, lehenengo postuan Errioxa dago (492 puntu); gero, EAE eta Aragoi (483 puntu).

2006an, irakurmen-trebetasunean errendimendurik handiena izan duten lau herriak Korea, Finlandia, Hong-Kong eta Kanada izan dira. 2003an, Finlandia, Korea, Kanada eta Liechtenstein izan ziren; eta, 2000an egindako azterketan, Finlandia, Kanada eta Zeelanda Berria.

(e) Enplegu- eta langabezia-tasa, lorturiko heziketa mailaren arabera

Hezkuntza maila desberdineko pertsonen enplegua lortzeko aukera, izan ere, lan-merkatuko beharrianen eta heziketa maila bakoitzeko eskulan-eskaintzaren arabera da; hala ere, oro har, Eurostateko datuen azterketatik ondorioztatzen denez (ondoko taulan adierazitako datuak), langabezia-tasak behera egiten du hezkuntza mailarekin.

Gainera, hori oso garrantzitsua da emakumeen kasuan. Horrela, Eurostatek argitaraturiko *EU Labour Force Survey* ("The narrowing education gap between women and men") deritzon adierazitakoaren arabera, 25-64 urte eta goi-ikasketak zituzten emakumeen enplegu tasa, 2005ean, %80koa izan zen EB-25ean, eta oinarritzko hezkuntza baino ez zutenen kasuan, tasa %44koa zen. Gizonen kasuan, aldea txikiagoa da, eta ehunekoak %87 eta %70 dira.

⁵ Arduraldi osoko irakasleak gehi arduraldi partzialeko irakasleen ½.

II.1.41. KOADROA. 25-64 URTE BITARTEKO BIZTANLERIAREN LANGABEZIA TASA, HEZKUNTZA MAILAREN ARABERA

	1995	1996	1997	1998	1999	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006
Lehen hezkuntzaren aurrekoa, lehen hezkuntza eta bigarreneko lehenengo maila (ISCED 0, 1 eta 2)												
EB-27						10,8	9,6	10,1	10,2	10,6	10,4	10,0
EB-25						10,9	9,6	10,0	10,3	10,6	10,4	10,0
EB-15	12,2	12,3	12,2	12,1	11,2	10,2	8,7	9,1	9,4	9,7	9,6	9,4
Espainia	20,6	20,7	19,3	17,5	14,6	13,8	10,3	11,1	11,2	11,3	9,3	8,9
Bigarren hezkuntzako bigarren zikloa eta hirugarreneko ez den bigarrenaren ostekoa (ISCED 3 eta 4)												
EB-27						8,2	7,9	8,2	8,2	8,4	8,1	7,3
EB-25						8,1	7,7	8,1	8,3	8,5	8,1	7,3
EB-15	8,4	8,5	8,7	8,4	7,7	6,9	6,2	6,5	7	7,2	7,0	6,7
Espainia	19,2	17,9	17,4	15,2	13,0	11,1	8,1	9,4	9,7	9,2	7,3	7,1
Hirugarrena (ISCED 5 eta 6)												
EB-27						4,5	4,0	4,3	4,6	4,7	4,5	4,1
EB-25						4,4	3,9	4,2	4,6	4,7	4,6	4,1
EB-15	6,0	5,9	5,8	6,8	5,2	4,4	3,9	4,2	4,6	4,7	4,6	4,2
Espainia	14,5	14,1	13,5	12,7	10,7	9,1	3,6	7,5	7,4	7,3	6,1	5,6

Iturria: Eurostat. Labour Force Survey

II.1.42. KOADROA. LANGABEZIA TASAREN BILAKAERA, HEZKUNTZA MAILAREN ARABERA

	2002		2003		2004		2005		2006	
	Estatua	EAE	Estatua	EAE	Estatua	EAE	Estatua	EAE	Estatua	EAE
GUZTIRA	11,5	9,6	11,5	9,5	11	9,7	9,2	7,3	8,5	7,0
Analfabetoak	21,1	0,0	24,2	11,1	25,3	6,7	21,6	18,8	18,4	16,7
Lehen hezkuntza	12,1	8,1	12,3	9,3	12,1	9,3	10,5	9,8	10,1	7,9
Bigarren hezkuntza										
Lehen etapa eta laneko heziketa nahiz laneratzeara	13,1	12,2	13,1	12,0	12,6	13,4	11,1	8,9	10,5	9,6
Bigarren hezkuntza.										
Bigarren etapa eta laneko heziketa nahiz laneratzeara	11,5	11,0	11,5	8,9	11,0	9,8	8,8	7,7	8,2	6,7
Bigarren hezkuntzako tituluarekiko (2. etapa) laneko heziketa nahiz laneratzeara	12,3	0,0	14,1	0,0	13,8	0,0	6,9	0,0	5,9	-
Goi-hezkuntza, doktoregoa izan ezik	9,2	8,5	9,0	8,7	8,4	8,1	6,9	6,0	6,1	5,8
Doktoregoa	4,9	8,8	3,8	5,0	3,0	13,9	1,7	0,0	3,2	-

Iturria: EPA. INE

II.1.43. KOADROA. IKASGELAKO B. BESTEKO TAMAINA ETA IKASLEAK/IRAKASLEAK RATIOA (BA0) OCDE-N (2005)

	Ikasgelaren batez besteko tamaina		Ikasleak / Irakasleak (BA0)		
	Lehen Hezkuntza	Bigarren Hezkuntza (1. maila)	Lehen Hezkuntza	Bigarren Hezkuntza	Hirugarren Hezkuntza
Alemania	22,0	24,7	18,8	15,1	12,2
Australia	24,0	24,9	16,2	12,1	m
Austria	20,1	24,2	14,1	10,9	15,3
Belgika	-	-	12,8	9,8	19,6
Belgika (Fr)	20,8	m	-	-	-
Kanada	m	m	m	m	-
Danimarka	19,5	19,7	x(4)	m	-
AEB	23,1	24,3	14,9	15,5	15,7
Eslovakia	19,8	23,0	18,9	14,2	11,7
Espania	20,8	24,7	14,3	10,6	10,6
Finlandia	-	-	15,9	13,9	12,5
Frantzia	-	23,7	19,4	12,2	17,3
Grezia	19,7	24,5	11,1	8,3	30,2
Hungaria	20,1	21,4	10,6	11,2	15,9
Irlanda	-	-	17,9	15,5	17,4
Islandia	18,4	19,7	-	11,2	11,0
Italia	18,3	20,9	10,6	10,7	21,4
Japonia	28,4	33,5	19,4	13,9	11,0
Korea	32,6	35,7	28,0	18,2	-
Luxenburgo	15,8	19,5	-	9,0	-
Mexiko	19,9	29,7	28,3	30,6	14,9
Norvegia	-	-	-	-	-
Zeelanda Berria	-	-	18,1	14,8	16,3
Herbehereak	22,0	-	15,9	16,2	-
Polonia	20,4	24,9	11,7	12,8	18,2
Portugal	18,5	22,6	10,8	8,1	13,2
Erresuma Batua	24,2	22,1	20,7	14,1	18,2
Txekiar Errep.	20,5	23,4	17,5	13,2	19,0
Suedia	-	-	12,2	13,0	8,9
Suitza	19,4	19,1	14,6	11,4	-
Turkia	27,2	-	25,8	16,2	17,3
OECDko b.b.	21,7	21,5	16,7	13,4	15,8
EB-19ko b.b.	20,3	20,2	14,9	12,2	16,4

Iturria: Education at a glance, 2007

BAI-2006ko datuetan oinarrituz egindako azterketak (OCDEk eta EUROSTATEk ez bezala, BAIk 16 urtetik gorako informazioa eskaintzen du), era berean, agerian jartzen du langabezia-tasak txikiagoak direla heziketa mailak gora egin ahala, bai Espainiako estatuan eta bai EAEn.

1.2.5.4. Baliabideen adierazleak

(a) Irakasleak/taldea, ikasleak/irakaslea eta ikasleak/taldea

EAEn, taldeko irakasle-ratioa handiagoa da bigarren hezkuntzan oinarritzko hezkuntzan baino (1,9 eta 1,3 BAO⁵), eta, zenbait urtetan goranzko joera izan ondoren, badirudi egonkortu egin dela.

Azterketa zentroen titulartasunaren arabera eginda ikusten denez, ratioak batez bestekoa baino handiagoak dira zentro publikoetan, eta txikiagoak zentro pribatuetan.

Bestalde, BAOⁿ irakasle bakoitzeko ikasle-ratiorik altuena unibertsitateko irakaskuntzan dago, baina oinarritzko irakaskuntzetan hazkunde handia egon da, eta unibertsitateko irakaskuntzetan murriztapen nabarmena. DBHn, urteen arabera, %9tik %11ra bitarteko aldaketa ikusi da. BAOⁿ neurtuta, ratioak 14,6 dira unibertsitateko ikasketarako, 9,9 bigarren hezkuntzarako eta 14 oinarritzko hezkuntzarako.

OCDEk argitaraturiko azken datuak (*Education at a glance, 2007*) 2005ekoak dira, eta, bertan ikusten denez,

II.1.44. KOADROA. IRAKASLEAK/TALDEA, IKASLEAK/IRAKASLEA ETA IKASLEAK/TALDEA RATIOAK									
	2000-1	2001-2	2002-3	2003-4	2004-5	2005-6	2006-07		
							Guzt.	Publ.	Prib.
Oinarritzko hezkuntza (1)									
Irakasleak/taldea	1,5	1,5	1,5	1,4	1,5	1,5	1,5	1,6	1,3
Irakasleak (BAO) (2)/taldea	1,4	1,4	1,4	1,4	1,3	1,3	1,3	1,5	1,1
Ikasleak/irakaslea	12,3	12,3	12,3	12,7	12,1	12,3	12,6	10,6	15,5
Ikasleak/irakaslea (BAO)	12,8	12,8	12,8	13,2	14,0	13,9	14,0	11,4	18,3
Ikasleak/taldea	18,1	18,1	18,3	18,3	18,2	18,1	18,3	16,6	20,4
Bigarren hezkuntza (3)									
Irakasleak/taldea	2,2	2,3	2,2	2,3	2,3	2,3	2,3	2,6	2,0
Irakasleak (BAO)/taldea	2,1	2,2	2,1	2,2	1,8	1,9	1,9	2,4	1,4
Ikasleak/irakaslea	9,9	9,3	9,1	8,8	8,7	8,4	8,3	6,9	10,2
Ikasleak/irakaslea (BAO)	10,5	9,7	9,6	9,2	10,7	10,4	9,9	7,3	15,0
Ikasleak/taldea	21,7	21,0	20,5	20,1	19,8	19,4	19,1	17,7	20,7
Unibertsitate-ikasketak									
Ikasleak/irakaslea	16,7	15,5	15,0	14,3	14,1	13,3	12,5	12,4	12,5
Ikasleak/irakaslea (BAO)	19,9	18,3	17,7	16,7	16,4	15,6	14,6	14,1	16,8

(1) Oinarritzko irakaskuntza: Haur eta Lehen Hezkuntza. (2) BAO: baliokidetasuna arduraldi osoan. Arduraldi osoko irakasleak gehi arduraldi partzialeko irakasleen ½. (3) Bigarren Hezkuntza: DBH, Batxilergoa eta Lanbide Heziketa.

Iturria: EUSTAT eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila. Irakaskuntzaren Estatistika.

irakasle bakoitzeko ikasleen batez besteko ratioak EAEkoak baino handiagoak dira, bai Lehen Hezkuntzan (16,7) eta bai Bigarren Hezkuntzan (13,4). Proportziorik onenak Grezian (hurrenez hurren, 11,1 eta 8,3), Hungarian (10,6 eta 11,2), Luxenburgon (DBHn 9) eta Portugalen (10,8 eta 8,1) daude.

Talde bakoitzeko ikasleen ratioa handiagoa da bigarren hezkuntzan oinarritzkoan baino (19,1 eta 18,3). Ikas-tetxeen titulartasunaren arabera, bi irakaskuntza motetan handiagoak dira ikastetxe pribatuetan publikoetan baino; gainera, hurrenez hurren, EAEko batez bestekoaren gainetik eta azpitik daude.

OCDEk argitaraturiko azken datuek (2005ekoak, 2007an argitaratuta) agirian jarri dutenez, ikasgela bakoitzeko ikasleen batez besteko ratioak EAEkoak baino handiagoak dira, bai Lehen Hezkuntzan (21,5) eta bai Bigarren Hezkuntzan (lehenengo zikloa: 24,1).

(b) PISA txosteneko gizarte-, ekonomia- eta kultura-estatusaren indizea

PISAk arduradunek diotenez, ikasleen hezkuntza-errendimendua zuzen-zuzen eta estu lotuta dago familien gizarte-, ekonomia- eta kultura-estatusarekin.

Hori dela eta, ikasleen erantzunetan oinarrituz, PISAk sozioekonomia- eta kultura-estatusa (SEKE) izeneko estatistika-indizea egin du, parte hartu duten herri eta eskualde nagusien multzorako, hiru osagai aintzat hartuta: gurasoek lorturiko hezkuntza edo heziketa mailarik altuena, gurasoen gorengo lanbidearen ospea eta etxeko

baliabideen maila (ikasteko lekua, Internetarako konexioa, ikasteko eta literaturako liburuak, etab.).


SEKEri dagokionez, OCDEko batez bestekoa Oren baliokide bihurtzen da, eta, beraz, batez bestekotik gorako herriek balio positiboak dituzte. Baliorik altuena Islandiak dauka, eta batez besteko horren gainetik daude Europako herririk gehienak (Mediterraneoko eta Ekialdeko herriak izan ezik), Ipar Amerikakoak, Australia eta Zeelanda Berria.

Espainiako Estatua eta aztertutako autonomia-erkidego guztiak OCDEko batez bestekoaren azpitik daude. Estatua 37 herriren atzetik dago, eta EAE 27 herriren atzetik (aztertutako autonomia-erkidegoen artean lehenengoa). Galiziak eta Andaluziak Espainiako batez bestekoaren azpiko indizea dute.

Amaitzeko, PISA 2006ko datuen arabera, heziketarik baxueneko familietako Espainiako ikasleen eta unibertsitateko seme-alaben artean 85 puntuko aldea dago. Lanbide-trebakuntza urrieneko familietako ikasleen eta trebakuntzarik handieneko familietan ikasleen artean 59 puntuko aldea dago PISA 2006an. Eta, etxean 10 liburu baino gutxiago dituzten eta 500 liburu baino gehiago dituzten artean, 135 puntuko aldea dago.

Laburbilduta, SEKE aldagai konplexuen arabera da, eta horiek ezin dira epe laburrean aldatu, behintzat ez hezkuntza-politikak soilik erabilita.

II.1.23. GRAFIKOA. GIZARTE-, EKONOMIA-, ETA KULTURA-ESTATUSAREN INDIZEA



II. 1.45. LAUKIA. IKASKETA MAILAK		
ISEI-IVEI	International Standard Classification of Education (ISCED 1997)	ITZULPENA: Hezkuntzako Nazioarteko Sailkapen Normalizatua
INCE Elabora este indicador utilizando definiciones tomadas del ISCED		
ISEI-IVEIk EUSTATetik harturiko definizioak erabiltuta egiten du adierazle hau.	Ikasketa mailak: – Pre-primary education: ISCED 0 – Primary education: ISCED 1 First stage of basic education – Lower secondary education: ISCED 2 Second stage of basic education – (Upper) secondary education ISCED 3 – Post-Secondary non tertiary education ISCED 4 – First stage of tertiary education ISCED 5 (not leading directly to an advanced research qualification) – Second stage of tertiary education ISCED 6 (leading to an advanced research qualification)	Ikasketa mailak: – Lehen hezkuntzatik behetakoa (ISCED 0): Irakurtzen eta idazten ez dakiten pertsonak, eta irakurtzen eta idazten jakinarren gutxienez 5 urteko eskolatzeara egin ez dutenak. – Lehen hezkuntza (ISCED 1): Gutxienez 5 urteko eskolatzeara egin duten biztanleak, gehienetan 5-6 urterekin hasi eta 11-12rekin amaituta; ez dute goragoko mailarik egin. – Derrigorrezko bigarren hezkuntza-DBH (ISCED 2) – Derrigorrezkoaren osteko bigarren hezkuntza (ISCED 3 eta 4): Batxilergoko titulua, teknikari titulua (maila ertaineko heziketa-zikloak) eta balokideak nahiz berdineskorrak dituztenak. – Goi Hezkuntza (ISCED 5): Goi-teknikari titulua (goi mailako heziketa-zikloak), unibertsitateko diplomatura, lizentziatura, doktoregoa eta titulazio balokideak edo berdineskorrak dituzten biztanleak. – Goi Hezkuntza (ISCED 6): Diploma Aurreratuak eta Doktorego Testak
	Ikasketa mailak: – Ikasketa barik (Analfabetoak eta Ikasketa barik): irakurtzen eta idazten ez dakiten pertsonak, edo jakin arren ikasketarik egin ez dutenak. – Oinarritzko Ikasketak (Eskolaurrea eta Oinarritzkoak): Amarena, Hautzaindegia eta halakoak. DBH eta Lehen Hezkuntza, besteak beste. – Bigarren Hezkuntza (Lanbidekoak eta Bigarrenekoak): Lanbide Heziketako ikasketak, Oinarritzko Batxilergokoak eta balokideak. Goi Batxilergoak edo BBB, Unibertsitatean sartzekoak eta antzekoak. – Unibertsitate-ikasketak (Ertain-Goikoak eta Goi mailakoak): Ingeniari Teknikoen eta Perituen Ikasketak, Maisutza, Erizaintza eta maila bereko beste batzuk, eta Lizentziaturak, Goi Ingeniaritza eta antzekoak, baita Doktoregoa eta espezializazioa ere.	

Letrak daude: a, b eta c, ISCED 5-erako bidea ematen duten eta ez duten ISCED 3-ko titulazioak adierazteko.

2

Ekoizpen egitura eta berrikuntza
EAE-n

2.1. Ekoizpen egitura


2.1.1. Enpresako egitura eta demografia

Eustaten Jarduera Ekonomikoen Direktorioak emandako azken datuen arabera, EAEn 199.310 establezimendu daude, eta horiek 180.475 enpresa aktibori dagozkie (lehen

sektoreko enpresak izan ezik); 2006an baino 13.004 establezimendu eta 12.244 enpresa gehiago dira.

Datu horiek diotenez, 2007an enpresa kopuruak (lantegiak, saltokiak, bulegoak,...) %7,3ko hazkundea izan du EAEn (aurreko urtean baino ehuneko 4,8 puntu gehiago); enpleguak %4,5eko hazkundea izan du (2005ean baino 1,4 puntu gehiago), eta, horrela, batez besteko tamainak enpresa bakoitzeko 0,1 enpleguko murriztapena izan du.

II.2.1. GRAFIKOA. ENPRESA KOPURUAK SEKTOREKA IZANDAKO BILAKAERA



Iturria: Eustat. DIRAE

II.2.1. KOADROA. ENPRESA KOPURUAREN ETA ENPLEGUAREN BILAKAERA EAE-N, JARDUERA ADARRAEN ETA NORTASUN JURIDI-KOAREN ARABERA

	Enpresa kopurua					Enplegua					B. besteko enplegua				
	2003	2006	2007	03-07	06-07	2003	2006	2007	02-07	06-07	2003	2006	2007	Kend. 03-07	Kend. 06-07
Guztira	155.653	168.231	180.475	15,9	7,3	806.220	880.002	919.370	14,0	4,5	5,2	5,2	5,1	-0,1	-0,1
Industria eta energia	14.658	14.248	14.700	0,3	3,2	226.085	225.038	225.322	-0,3	0,1	15,4	15,8	15,3	-0,1	-0,5
Eraikuntza	22.598	26.347	29.010	28,4	10,1	77.074	86.979	92.282	19,7	6,1	3,4	3,3	3,2	-0,2	-0,1
Merkataritza eta konponk.	39.972	41.344	43.798	9,6	5,9	123.909	137.843	145.542	17,5	5,6	3,1	3,3	3,3	0,2	0,0
Ostalaritza	13.981	13.476	14.324	2,5	6,3	41.573	44.968	47.853	15,1	6,4	3,0	3,3	3,3	0,4	0,0
Garraioa eta komunikaz.	13.855	13.966	14.576	5,2	4,4	46.255	49.684	52.490	13,5	5,6	3,3	3,6	3,6	0,3	0,0
Finantza-bitartekotza	2.373	2.643	2.794	17,7	5,7	21.912	21.908	22.475	2,6	2,6	9,2	8,3	8,0	-1,2	-0,2
Enpresetar. zerbitzuak	27.055	33.606	37.053	37,0	10,3	93.922	119.556	127.016	35,2	6,2	3,5	3,6	3,4	0,0	-0,1
Adm., Hezk., Osasuna eta Giz. Zerb.	9.806	10.673	11.477	17,0	7,5	143.000	153.628	163.137	14,1	6,2	14,6	14,4	14,2	-0,4	-0,2
Zerbitzuko beste jard. batzuk	11.355	11.928	12.743	12,2	6,8	32.490	40.398	43.253	33,1	7,1	2,9	3,4	3,4	0,5	0,0
Pertsona fisikoa	96.931	100.155	106.496	3,3	6,3	134.359	141.101	151.286	5,0	7,2	1,4	1,4	1,4	0	0,0
Sozietate anonimoa	9.620	9.111	9.191	-5,3	0,9	271.215	276.478	272.547	1,9	-1,4	28,2	30,3	29,7	2,2	-0,7
Sozietate mugatua	32.015	39.696	44.252	24,0	11,5	190.833	239.659	261.281	25,6	9,0	6,0	6	5,9	0,1	-0,1
Beste soziet. eta elkarte batzuk	15.745	17.919	19.180	13,8	7,0	99.810	108.709	114.452	8,9	5,3	6,3	6,1	6,0	-0,3	-0,1
B. soziet. bat*	6.887	8.450	9.074	22,7	7,4	38.495	42.860	45.830	11,3	6,9	5,6	5,1	5,1	-0,5	0,0
Ondasun-erkidegoa	7.810	8.345	8.889	6,9	6,5	19.359	20.463	22.533	5,7	10,1	2,5	2,5	2,5	0,0	0,1
Sozietate kooperatiboa	1.048	1.124	1.217	7,3	8,3	41.956	45.386		8,2	1,5	40,0	40,4	37,9	0,3	-2,5
B. forma juridiko batz.	1.342	1.350	1.356	0,6	0,4	110.003	114.055	119.804	3,7	5,0	82,0	84,5	88,4	2,5	3,9
Toki-korporazioa	375	386	390	2,9	1,0	21.916	24.222	24.801	10,5	2,4	58,4	62,8	63,6	4,3	0,8
Erakund. auton. edo asim. Erlij. erakundea	910	905	906	-0,5	0,1	24.112	24.189	26.444	0,3	9,3	26,5	26,7	29,2	0,2	2,5
Estatuko eta AAEEtako adm. erak.	57	59	60	3,5	1,7	63.975	65.644	68.559	2,6	4,4	1.122,4	1.112,6	1.142,7	-9,8	30,0

*Kolektiboa, komanditarioa, sozietate zibila eta zehaztu gabeko beste mota batzuk.

Iturria: Eustat. DIRAE

¹ LGGMko Ekonomia Sozialeko Datu Basearen arabera (orain, Lan eta Immigrazio Ministerioa), Sozietate Kooperatiboetan 07.12.31n 56.039 langile zebiltzan lanean.

II.2.2. KOADROA. ESTABLEZIMENDU KOPURUAK ETA ENPLEGUAK EAE-N IZANDAKO BILAKAERA

	Establezimenduak				Enplegua				B. besteko enpl.		
	2006	2006	2007	Aldaketa %	2005	2006	2007	Aldaketa %	2005	2006	2007
Guztira	181.533	186.306	199.310	7,0	853.835	880.002	919.370	3,1	4,7	4,7	4,6
Industria eta energia	15.004	14.768	15.211	3,0	223.599	222.392	225.322	-0,5	14,9	15,1	14,8
Eraikuntza	25.133	27.039	29.826	10,3	83.459	87.062	92.282	4,3	3,3	3,2	3,1
Merkat. eta motorreko ibil. konponk.	48.098	47.911	50.702	5,8	133.524	138.980	145.542	4,1	2,8	2,9	2,9
Ostalaritza	14.654	14.267	15.170	6,3	44.484	45.611	47.853	2,5	3,0	3,2	3,2
Garraioa	15.067	15.154	15.795	4,2	48.180	49.851	52.490	3,5	3,2	3,3	3,3
Finantza-bitartekotza	4.454	4.714	4.941	4,8	20.729	20.960	22.475	1,1	4,7	4,4	4,5
Enpresetarako zerbitzuak	32.619	35.166	38.747	10,2	112.525	120.808	127.016	7,4	3,4	3,4	3,3
Adm., Hezk., Osasuna eta Gizarte. Zerb.	13.571	14.015	14.833	5,8	148.575	152.773	163.137	2,8	10,9	10,9	11,0
Zerbitzuko beste jarduera batzuk	12.933	13.272	14.085	6,1	38.760	41.565	43.253	7,2	3,0	3,1	3,1

Iturria: Eustat

113


II.2.3. KOADROA. ESTABLEZIMENDUEN EGITURA TAMAINAREN ARABERA

	2006		2007	
	Kop.	Enplegua	Kop.	Enplegua
Guztira	186.306	880.002	199.310	919.370
≤ 2	138.702	164.064	149.278	177.624
3-5	25.246	92.829	26.644	97.795
6-9	8.925	63.966	9.299	66.567
10-14	4.297	50.269	4.569	53.275
15-19	2.424	40.499	2.525	42.139
20-49	4.397	134.344	4.630	140.738
50-99	1.378	95.263	1.415	98.005
100-249	682	102.172	697	104.236
250-499	180	61.725	181	62.864
≥ 500	75	74.871	72	76.127

Iturria: Eustat, DIRAE

Egoitza EAEn mantendu duten enpresen ehunekoa 2006ko %97,7tik 2007ko %97,6ra igaro da, egoitza soziala Estatuko gainerako eskualdeetan dutenen hazkundearen ondorioz (%11,7ko hazkundera).

Sektoreka, enpresen hazkunderik handiena Enpresetarako zerbitzuetan (%10,3) eta Eraikuntzan (%10,1) izan dira; aurreko urtean ez bezala (Ostalaritzako enpresek %2,9ko murriztapena eta Industriakoak %1,5ekoa), 2007an bi kasu horietan aldaketa positiboak egon dira.

II.2.2. GRAFIKOA. EAEko ESTABLEZIMENDUEK TAMAINAREN ARABERA IZANDAKO BILAKAERA

Iturria: Geuk landuta Eustaten "DIRAE" oinarrituz.

Enpleguak, beste alde batetik, batez bestekotik (%4,5) gorako hazkundeak izan ditu sektore guztietan, industrian izan ezik, sektore horretan hazkundea %0,1ekoa izan baita.

Lehen esan dugunez, enpresa bakoitzeko batez besteko tamaina murriztu egin da, eta 5,1 enplegukoa da. Batez besteko tamaina horretatik gorakoak honako hauek dira: Industria eta energia, Administrazioa, Hezkuntza, Osasuna eta Gizarte Zerbitzuak, eta Finantza Bitartekotza (enpresa bakoitzeko 15,3, 14,2 eta 8 enplegu, hurrenez hurren).

Nortasun juridikoa aintzat hartuta, eta enpresarik txikiak albo batera utzita (titularra pertsona fisikoa eta enpresako 1,4 pertsonako batez bestekoa), batez besteko tamaina 10,4 pertsonakoa da (2006an 10,9 eta 2005ean 11,4); bertan, Sozietate Anonimoek 29,7 langileko batez besteko langileria dute (aurreko urtean (30,3), eta Kooperatibek 37,9 pertsonakoa (aurreko ekitaldian 40,4).

Azterketaren unitatetzat establezimendua hartuta ikusten denez, establezimendu kopuruak %7ko hazkundea eta enpleguak %3,1eko hazkundea izan du; hain zuzen ere, 199.310 establezimendu eta 919.370 enplegu dira, eta establezimendu bakoitzeko batez besteko enplegua 4,6koa da; horrek establezimendu bakoitzeko 0,1eko murriztapena adierazten du. Establezimenduetan eta enpleguetan hazkunderik handiena duten sektoreak Enpresetarako zerbi-

tzuak eta Eraikuntza dira; lehenengoak %10,2ko hazkundea izan du establezimenduetan eta %7,4koa enpleguan, eta bigarrenak %10,3 eta %4,3, hurrenez hurren.

Aurreko urteetan bezala, enpleguaren tamainaren araberako egiturak ez du aldaketarik izan. 2.365 establezimenduk (guztizkoaren %1,18) 50 enplegu edo gehiago dituzte; guztira 341.232 enplegu dira, guztizkoaren %37. Aldiz, 149.278 establezimendu (%74,9) ez dira 3 lanpostura heltzen, eta enplegu osoaren %19,3 baino ez dute biltzen.

Establezimendu kopuruaren hazkundea 20.227 establezimendu berri jarduera hastearen eraginezkoa da (aurreko urtean baino %12,9 gehiago); 37.718 enplegatu dira (aurreko urtean 38.662) eta 7.223 establezimendu utzi dituzte (aurreko urtean baino %45,1 gutxiago), eta horietan 15.119 pertsonak galdu dute lana (2006an baino %54,1 gutxiago). Horrela, sartzen eta irteten diren establezimenduen arteko enplegu-saldo garbia 13.004koa da; 2007an jarduera mantendu duten establezimenduek 16.769 landunetan handitu dute euren enplegua, eta, beraz, 39.368 lanpostu sortu dira. Establezimendu berrien (sarrerak) batez besteko tamaina lehendik dauden establezimenduen batez bestekoa baino txikiago da (1,86 eta 4,6, hurrenez hurren), eta irteten direnen batez bestekoa baino txikiago ere bai (establezimendu bakoitzeko 2,1 pertsona).

II. 2.4. KOADROA. ENPLEGU HAZKUNDERAKO EKARPENA, JARDUERA ADARRAREN ETA ENPLEGU ESTRATUAREN ARABERA. ERROTazioA

	Establezimendak					Enplegua				
	Hazkunde osoa (altak-baxak) + gelditu	Ekarpena (% bertikala)	Establezimenduen hazkundea			Hazkunde osoa (altak-baxak) + gelditu	Ekarpena (% bertikala)	Enpleguaren hazkundea		
			Sarrerak	Daudenak	Irteerak			Sarrerak	Daudenak	Irteerak
Guztira 2005ean	6.121	-	20.374	0	14.253	33.792	-	49.814	20.934	36.956
Guztira 2006an	4.775	-	17.921	0	13.146	26.203	-	38.662	20.459	32.918
Guztira 2007an	13.004	100,0	20.227	0	7.223	39.368	100,0	37.718	16.769	15.119
2006-07ko aldaketa	172,3	-	12,9		-45,1	50,2	-	-2,4	-18	-54,1
Industria eta energia	443	3,4	962	-15	504	389	1,0	3.154	-403	2.362
Eraikuntza	2.787	21,4	4.470	-12	1.671	5.347	13,6	7.847	1.016	3.516
Merkataritza eta konponketa	2.791	21,5	4.550	17	1.776	7.861	20,0	8.200	2.710	3.049
Ostalaritza	903	6,9	1.406	-18	485	2.612	6,6	2.931	543	862
Garraioa eta komunikazioak	641	4,9	1.197	14	570	2.614	6,6	2.270	1.288	944
Finantza-bitartekotza	227	1,7	344	-8	109	489	1,2	762	-52	221
Enpresetarako zerbitzua	3.581	27,5	4.964	-81	1.302	7.617	19,3	7.481	2.593	2.457
Adm., Hezk., Osasuna eta Gizarte Zerbitzua	818	6,3	1.136	82	400	9.586	24,3	2.889	7.918	1.221
Zerbitzuko beste jarduerak batzuk	813	6,0	1.198	21	406	2.853	7,2	2.184	1.156	487
=<2	10.576	81,3	17.781	-841	6.364	13.560	34,4	20.766	-504	6.702
3-5	1.398	10,8	1.702	199	503	4.966	12,6	6.049	748	1.831
6-9	374	2,9	392	133	151	2.601	6,6	2.779	921	1.099
1-14	272	2,1	162	174	64	3.006	7,6	1.876	1.880	750
15-19	101	0,8	60	86	45	1.640	4,2	995	1.391	746
20-49	233	1,8	103	206	76	6.394	16,2	2.873	5.606	2.085
50-99	37	0,3	22	28	13	2.742	7,0	1.444	2.169	871
100-249	15	0,1	4	17	6	2.064	5,2	x	2.316	x
250-499	1	0,0	1	1	1	1.139	2,9	x	986	x
>= 500	-3	0,0	-	-3	-	1.256	3,2	-	1.256	-

(x) Konfidentzialtasunagatik babesturiko laukitxoak.

Iturria: Eustat. DIRAE

Establezimenduen errotaziorik handiena Eraikuntzan, Merkataritzan eta konponketan eta Enpresetarako zerbitzuetan dago; guztira, establezimenduen alten %69,1 eta baxen %65,7 eta enpleguaren %52,9.


Errotaziorik handieneko estratuak tamainarik txikienekoen dituzte: 2 enplegatuko edo gutxiagoko establezimenduek establezimendu guztien errotazioaren %81,3 dute, eta enpleguaren %34,4. Hala eta guztiz ere, urte honetan ere aipagarria da, estratu horrek ez ezik, 20-49 enpleguko estratuak ere enplegu-sorkuntzaren arloan duen dinamika (+6.394), batez ere enpleguak establezimendu berrien artean izandako hazkundearen ondorioz.

2.1.2. Nekazaritza eta Arrantza Sektorea

Hiruhileko Kontu Ekonomikoetako behin-behineko datuen arabera (2008ko otsailaren 18an argitaraturiko datuak), 2007an lehen sektorea EAEko oinarritzko prezioetarako BEGren %0,9 baino ez da (aurreko urtean bezala), eta enplegu guztiaren %2,5 (aurreko urtean %2,6). Horrela, lehen sektoreko balio erantsia 504.163 mila eurokoa da, eta enplegua 24.983 lanpostukoa.

Hau da, 2006tik 2007ra, lehen sektoreko BEGk %8ko hazkunde izan du EAEn, eta enplegua %1,9an murriztu da. Hala eta guztiz ere, Gizarte Segurantzarako afiliazio-datuek

II.2.3. GRAFIKOA. GIZARTE SEGURANTZARAKO BATEZ BETEKO AFLIZIOA



Iturria: Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioa

%4,7ko murriztapena adierazi dute urte amaieran, nekazaritzako azpisektorearen antzeko bilakaerarekin, sektore horretan afiliazioak %4,3ko murriztapena izan baitu; Itsasoko Araubide Berezian ere %5,9ko murriztapena egon da.

Nekazaritza Abeltzaintza eta Basoko ustiapena

Nekazaritzako errenta izenduna edo balio korrontekoa (BEG). Nekazaritzako errentak, berriro ere, %5,4ko hazkunde izenduna izan du, 2006tik 2007ra, baina batez


ere zerealen eta behi-esnearen prezioek izandako hazkundearen ondorioz; hain zuzen ere, 342,5 milioi eurokoa da, 2002tik honako zifrarik handiena.

Hazkunde hau nekazaritzako azken produkzioak gora egitearen ondoriozkoa da (nekazaritza, abeltzaintza, basoa eta beste ekoizpen batzuk), horrek %7,1eko hazkunde izenduna izan baitu, honako hauen igoeren eraginez: nekazaritzako nahiz abeltzaintzako prezioak eta basoko sektoreko mozketak; bitarteko kontsumoak (%+7,8, pentsuen, hazien eta ongarrien prezioak garestitzearen ondorioz), eta amortizazioak (%+1,6). Aldiz, diru-laguntzek behera egin dute (%-2,8), esne-ekoizpena uzteagatik ematen zen saria eta behien erditzeak urtaro jakinetara ez mugatzeko ematen zena desagertzearen eraginez. Datu positibotzat, Erremontatzaren Egitamuko Sektorialeko sortu da.

Nekazaritzako errenta balio errealetan (deflaktatua). Nekazaritzako errenta izendunak azken bi urteotan izandako bilakaera positiboa balio errealetan ere nabaritzen da (%3,3ko behin-behineko deflaktatzailea). Horrela, EAEko nekazaritzako errenta errealak, 2007an (basoko sektorea aintzat hartu barik), %3,2ko hazkunde izan du; Estatuko hazkundeak %6,5koa izan da, eta EB-25ekoa txikiagoa (%2,6).

Deflaktatzailea aplikatu ondoren, Nekazaritzako Azken Ekoizpen errealak %4,7ko hazkunde izan du EAEn (EB-

II.2.4. GRAFIKOA. AZKEN EKOIZPENAREN ETA NEKAZARITZAKO ERRENTAREN BILAKAERA



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza Saila.

II.2.5. KOADROA. NEKAZARITZAKO ERRENTA ERREALAREN (DEFLAKTATUA) ETA LANDUNEN BILAKAERA (ALDAKETA-EHUNEKOTAN)

	2006			2007		
	EAE	ESTATUA	EB-25	EAE	ESTATUA	EB-25
Nekazaritzako errenta (erreal)	0,8	-3,7	0,4	3,2	6,5	2,6
Nekazaritzako azken ekoizp.	-0,6	-3,3	0,0	4,7	-	4,6
Nek. azken ekoizpena	-2,5	-6,7	-0,1	3,7	-	8,6
Abeltzaintzako a. ekoizp.	2,5	2,7	0,2	6,2	-	0,5
Bitarteko kontsumoak	0,1	-2,5	0,2	4,4	-	5,3
Diru-laguntzak	7,0	-3,6	0,8	-5,9	-	-3,1
Biztanleria landuna	1,96	-4,0	-2,2	-1,5	-3,5	-1,9
Nekazaritzako errenta landun bakoit-	-1,1	0,3	2,6	4,8	10,3	4,7

Iturria: IKT. Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza Saila

II.2.6. KOADROA. NEKAZARITZA MAGNITUDEAK (EUROAK MILIOITAN)

	2006*	2007*	2006-2007ko aldaketa (%)		
	Balioa	Balioa	Balioa	Ekoizp.	Prezioak
NEK. AZKEN EKOIZPENA	467.919,7	501.041,4	107,1	99,3	107,8
Nek. azken ekoizpena	251.566,9	269.609,7	107,2	97,9	109,4
Zerealak	25.098,7	36.778,0	146,5	105,9	138,4
Lekadunak	3.271,8	3.111,9	95,1	90,0	105,6
Patata	15.123,8	15.596,0	103,1	91,6	112,6
Erremolatxa	6.040,6	5.547,5	91,8	99,5	92,3
Industriako beste batzuk	707,3	1.085,4	153,5	80,9	189,8
Barazkiak	67.202,6	67.467,0	100,4	93,9	106,9
Frutak	13.934,1	12.572,1	90,2	84,3	107,1
Mahastia	94.684,5	96.245,5	101,7	100,7	100,9
Beste zenbait	25.503,5	31.202,2	122,3	102,5	119,3
Abeltzaintzako a. ekoizpena	152.235,6	166.949,2	109,7	98,0	111,9
Animaliak/Behi-okela	41.125,7	41.267,4	100,3	97,1	103,3
An./Ardi- eta ahuntz-okela	8.224,9	7.645,2	93,0	98,4	94,5
Animaliak/Txerri-okela	-3.111,6	-3.643,8	117,1	105,5	111,0
Behi-esnea	66.696,7	78.621,0	117,9	98,2	120,1
Arrautzak	25.404,6	29.604,6	116,5	99,8	116,8
Beste batzuk	13.895,3	13.454,7	96,8	97,4	99,4
Basoko a. ekoizpena	52.424,3	52.316,4	99,8	109,9	90,8
Intsinis pinuaren zura	45.208,3	43.503,7	96,2	108,0	89,1
Beste zenbait	7.216,00	8.812,6	122,1	121,3	100,7
Beste ekoizpen batzuk	11.692,9	12.166,1	104,0	100,0	104,0
BITARTEKO KONTSUM.	162.028,8	174.695,1	107,8	100,0	107,8
DIRU-LAGUNTZAK	67.802,5	65.878,3	97,2	95,7	101,5
AMORTIZAZIOAK	48.864,9	49.693,9	101,7	101,0	100,7
BEG mp	305.890,9	326.346,3	106,7	99,0	107,8
NEKAZARITZAKO ERRENTA	324.828,5	342.530,7	105,4	98,0	107,6

*Aurrerapena.

Iturria: IKT. Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza Saila

II.2.7. KOADROA. NEKAZARITZAKO MAKROMAGNITUDEEN BILAKAERA, 2000-2007 (EUROAK MILATAN)

	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006 a	2007 a
NEK. AZKEN EKOIZPENA	538.178,00	482.925,60	469.954,40	441.233,10	467.982,50	456.697,40	467.919,70	501.041,40
Nek. azken ekoizpena	280.871,40	201.656,40	218.353,30	203.177,10	236.041,40	250.509,40	251.566,90	269.609,70
Zerealak	25.343,70	23.353,10	27.311,30	21.105,10	22.505,90	26.308,70	25.098,70	36.778,00
Lekadunak	2.312,20	1.982,70	2.027,50	1.387,70	3.410,20	2.256,30	3.271,80	3.111,90
Patata	10.345,70	13.134,80	12.279,10	9.667,30	14.045,60	8.920,70	15.123,80	15.596,00
Erremolatxa	8.239,00	9.059,80	11.469,70	9.036,70	10.949,40	11.427,30	6.040,60	5.547,50
Beste industria batzuk	564,2	1.115,40	679,3	729	865,2	397,4	707,3	1.085,40
Barazkiak	55.763,70	54.919,90	63.755,30	52.127,70	56.420,00	62.665,80	67.202,60	67.467,00
Frutak	10.947,60	9.946,20	12.459,60	12.045,70	14.175,60	11.958,90	13.934,10	12.572,10
Mahastia	154.906,30	72.457,10	67.699,20	78.596,00	90.192,70	102.982,50	94.684,50	96.249,50
Beste zenbait	12.449,00	15.687,30	20.672,30	18.481,90	23.476,80	23.591,80	25.503,50	31.202,20
Abeltzaintzako azken ekoizp.	160.705,70	176.131,30	165.061,10	165.083,20	166.321,20	146.534,40	152.235,60	166.949,20
Animaliak/Behi-okela	37.058,40	39.340,10	40.146,10	30.511,40	42.859,30	38.009,50	41.125,70	41.267,40
An./Ardi- eta ahuntz-okela	8.131,30	8.464,50	6.811,20	6.838,30	7.633,90	7.833,10	8.224,90	7.645,20
Animaliak/Txerri-okela	7.083,90	7.323,30	5.786,20	6.961,40	4.194,50	-3.322,60	-3.111,60	-3.643,80
Behi-esnea	68.874,00	80.096,90	74.400,30	74.339,90	73.248,60	68.875,80	66.696,70	78.621,00
Arrautzak	21.760,60	20.010,70	19.352,20	25.284,70	21.964,00	21.522,70	25.404,60	29.604,60
Beste batzuk	17.797,50	20.895,80	18.565,10	21.147,40	16.421,00	13.615,90	13.895,30	13.454,70
Basoko azken ekoizpena	81.228,30	90.000,20	70.964,10	60.615,10	52.284,50	47.974,50	52.424,30	52.316,40
Intsinis pinuaren zura	67.160,30	76.318,80	58.838,50	49.109,70	37.480,20	39.595,70	45.208,30	43.503,70
Beste batzuk	14.068,00	13.681,40	12.125,60	11.505,40	14.804,30	8.378,80	7.216,00	8.812,60
Beste produkzio batzuk	15.372,60	15.137,60	15.575,80	12.357,60	13.335,40	11.679,00	11.692,90	12.166,10
BITARTEKO KONTSUMOAK	161.170,10	165.383,00	163.031,10	167.821,20	178.415,90	158.101,10	162.028,80	174.695,10
DIRU-LAGUNTZAK	45.199,40	48.432,50	60.525,90	59.460,80	61.116,50	63.041,30	67.802,50	65.878,30
AMORTIZAZIOAK	32.373,60	33.442,40	33.545,20	34.401,50	34.508,60	48.307,70	48.864,90	49.693,90
BEG mp	377.007,80	317.542,60	306.923,30	273.411,80	289.566,60	298.596,30	305.890,90	326.346,30
NEKAZARITZAKO ERRENTA (BEG)	389.833,60	332.532,60	333.903,90	298.471,10	316.174,60	313.330,00	324.828,50	342.530,70

a: aurrerapena.

Iturria: IKT, Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza Saila

25ean %4,6), bitarteko kontsumoak %4,4 hazi dira (EBn %5,3), eta diru-laguntzek %5,9ko murriztapena izan dute (EB-25ean %3,1)².

Nekazaritzako Azken Ekoizpeneko azpisektoreei dago-kienez, nekazaritzak %3,7ko murriztapena izan du, eta abeltzaintzak %6,2koa (nekazaritzak baino handiagoa).

² EAEren kasuan, 2007an, dirulaguntza komunitarioak nekazaritzako errenta osoaren %13,8koak izan ziren, eta Estatuan %18koak izan ziren, MAPAren datuak aintzat hartuta. Guztira, EAEn diru-laguntzak nekazaritzako errentaren %19,2 dira, eta Estatuan %26,7.

Nekazaritzan lan egiten duen biztanleriak, EAEn, %1,5eko murriztapena izan du 2005etik 2007ra, gainera, MAPAren zenbatespenen arabera, Estatuan landunen ehunekoak %3,5eko murriztapena izango du, eta EB-25erako zenbatespenek %1,9ko murriztapena adierazten dute, zona osorako.

Nekazaritzako Azken Ekoizpena (nekazaritza, abeltzaintza, basoa eta beste ekoizpen batzuk). Nekazaritzako azken ekoizpenaren balioa 501 milioi eurokoa da, eta 2007an %7,1eko hazkundera izan du, nekazaritzako eta abeltzaintzako azpisektoreen ekoizpenaren balioak gora egitearen ondorioz, hurrenez hurren, %7,2 eta %9,7). Hazkunde horiek prezioen gorakadaren eraginezkoak dira, eta ez ekoizpenak gora egitearen ondoriozkoak. Horrela, lehenengo kasuan, prezioek %9,4ko hazkundera izan dute, eta produkzioak, berriz, %2,1eko murriztapena; bigarren kasuan, prezioek %11,9ko hazkundera izan dute, eta produkzioak, ostera, %2ko beherakada.

Aldiz, basoko azpisektoreko ekoizpenaren balioak %0,2ko murriztapentxoak izan du, 2006koari dagokionez, intsinis pinuaren zuraren prezioak behera egitearen ondorioz (%-10,9), eta produkzioak, aldiz, %8ko hazkundera izan du.

Nekazaritzako azken ekoizpena. Nekazaritzako ekoizpenen barruan (guztira 269,6 milioi euro), murriztapenak ikusi dira lekadunen (%-10), patataren (%-8,4), erremoltxaren (%-0,5), barazkien (%-6,1) eta fruten (%-15,7) ekoizpenean; mahastiaren ekoizpenak, aldiz, gora egin du (%0,7). Bestalde, prezio guztietan gorakadak ikusi dira, erremoltxaren prezioan izan ezik (%-7,7).

Abeltzaintzako Azken Ekoizpena. Abeltzaintzako azken ekoizpena 167 milioi eurokoa izan da, aurreko urtekoa baino %9,7 handiagoa. Balio-hazkunde hori prezioen gorakadaren eraginezkoa da (%11,9), produkzioak %2ko murriztapena izan baitu.

Ekonomikoki garrantzitsuak diren prezio-hazkundeak oilo-okelarena (%+76), behi-esnearena (%+20) eta arrautzena (%+17) dira.

Basoko Azken Ekoizpena. 2007an mozteko lizentziek gora egin dute (%+9,9), eta hori kontrajarri egiten zaio prezioek izandako beherakadari (%-9,2); horrela, ekoizpenaren balioak %0,2ko murriztapena izan du, eta 52 milioi eurokoa da.

Bitarteko Kontsumoak. Balioa 2006koa baino %7,8 handiagoa izan da. Hazkunde hori batez besteko prezioek izandako gorakadaren eraginezkoa da (%7,9), kontsumitu-

riko kantitateak mantendu egin baitira, oro har. Hazkundeak ikusi dira kontsumituriko fitosanitario kantitatean, eta murriztapenak, berriz, pentsu eta zoosanitario kantitatean.

Prezioei dagokienez, pentsuaren, hazien, ongarrien eta zoosanitarioen prezioek %3ko hazkundera izan dute. Gasolioaren prezioak soilik egin du behera (%2), aurreko urtean izandako hazkunde itzelaren ostean.

Ustiapenerako diru-laguntzak. 2007an, ustiapenerako diru-laguntza guztiak 65,8 milioi eurokoak izan dira, nekazaritzako errenta osoaren %19,4 (2006an %21), eta %2,8ko murriztapena izan dute, aurreko urteari dagokionez.

Amortizazioak. Traktore kopuruak gora egitearen ondorioz, %1,7ko hazkundera izan dute, eta 49,7 milioi dira.

Arrantza

Arrantza sektorearen errentagarritasunak gas-olioaren prezioak izandako hazkundearen eragina nabaritu du, baita arrantza-urritasunaren eragina ere, gure flotarako beti garrantzitsuak izan diren espezieetan; adibidez, Kantauriko antxoa, EAeko baxurako flotaren diru-sarreraren zati garrantzitsua osatzen zuena.


EAeko arrantza-sektorearen produkzio-egituraren bilakaerak azken hamarkada honetan izandako beheranzko joerarekin jarraitzen du.

2007an, arrantza-flotak %3ko murriztapena izan du, eta, beraz, urte amaieran 291 erauzketa-unitate egon dira, 2006an baino 9 ontzi gutxiago (baxurako 5 eta altura handiko 4: freskotarako alturako 3 eta bakailao-ontzi 1). Atunontzi izoztaileen sektorean soilik mantendu da aurreko urteko ontzi kopuru bera.

Ontzi kopuruaren murriztapen honek eragina izan du enpleguan. Horrela, 2007aren amaieran 2.812 tripulatzaille zeuden, 2006an baino %3,1 gutxiago (90 tripulatzaille gutxiago).


Baxurako flota ontzi txikiek osatzen dute, eta horiek Erregistro Gordineko 150 tonatik beherako edukiera dute. 2007an horren batez besteko dimentsioa 17,34 m-ko luzerakoa izan da (perpendikularren artean), eta edukiera, berriz, Erregistro Gordineko 62,01 tonakoa; batez besteko potentzia 308,07 CV izan da. Honexek dauka ontzi kopururik handiena, eta horiek kostaldetik hurbileko arrantza egiten dute, honako arte hauek erabilia:

II.2.5. GRAFIKOA. EAEko ARRANTZA-FLOTAREN BILAKAERA



Iturria: SEAS. Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Saila

II.2.6. GRAFIKOA. EAEko ARRANTZA-FLOTAKO TRIPULATZAILE KOPURUAREN BILAKAERA




Iturria: SEAS. Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Saila

- *kaza*, berdela eta atunak harrapatzeko,
- *inguraketa* (sarda handietan dabiltzan espezieak harrapatzeko erabiltzen den artea; sardak zirkulu handi batekin inguratu eta hori, gero, estutzen doa. Sarearen goialdean flotagailuak daude eta behealdean berunak; horrekin sarea behetik itxi eta zerra izeneko soka batetik tiratzen da), pelagiko txikiak harrapatzeko, batez ere, antxoa; eta azkenik,
- *beita bizia* atunak harrapatzeko.

Flota honetan 226 ontzi daude (EAEko arrantza-flota osoaren %77,7). Enpleguaren zatirik handiena hartzen du barruan, eta, hain zuzen ere, baxurako tripulazioa 1.623 pertsonak osatzen dute, EAEko flota osoaren erdia baino gehiago (EAEko arrantza-flotako tripulazio osoaren %57,7).

Altura handiko flotaren barruan, unitate kopururik handiena freskoko ontzietan galdu da, eta horiek, batik bat, Pasaia eta Ondarroako portuetan banatzen dira. Hain

II.2.7. GRAFIKOA. LEHORRERATURIKO BAXURAKO HARRAPAKETEN KANTITATEA ETA BALIOA

Iturria: SEAS. Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Saila

zuzen ere, 36 ontzi izan dira (2006an baino 3 unitate gutxiago, eta %7,69ko murriztapena), eta 449 pertsonako tripulazioa (34 langile gutxiago eta %7,04ko murriztapena). 2007an, freskoko alturako flotak 29,16 metroko batez besteko luzera izan du, perpendikularren artean; 596,31 CVko batez besteko potentzia eta Erregistro Gordineko 209,77 tonako batez besteko edukiera izan du. Bestalde, Pasaiaiko bakailao-ontzien flotak unitate bat galdu du, eta 5 ontzi ditu (%16,67ko murriztapena); gainera, tripulatzailer kopuruan %16ko beherakada izan du. Flota horrek 45,80 metroko batez besteko luzera dauka perpendikularren artean; 1.772 CVko potentzia eta Erregistro Gordineko 610,35 tonako edukiera dauka. Aipagarria da flotarik zaharrena dela, eta ontzien batez besteko adina 30 urte ingurukoa da. Atunontzi izoztaileen kasuan (beti Bermeon egon den flota), ez da ontzi kopurua aldatu; Erregistro Gordineko 1.567,22 tonako batez besteko gaitasuna, perpendikularren artean 67,46 metroko batez besteko luzera eta 4.371,56 CVko batez besteko edukiera dauka; flotarik indartsuena da. Azkenik, arraste-ontzi izoztaileen sektorea 2003an desagertu zen EAEtik. Azken batean, altura handiko flotak 6 ontzi ditu; horien batez besteko luzera 44,58 metrokoa da perpendikularren artean, batez besteko potentzia 2.080,68 CVkoa da, eta ontzi bakoitzeko Erregistro Gordineko batez besteko edukiera 741,80 tonakoa.

Baxurako arrantzan, EAEko portuetan, 2007an egindako harrapatzeen bolumen osoa 47.657,9 tonakoa izan

da, eta horrek, aurreko balioekin konparatuz, %13,75eko hazkundea adierazten du. Hazkunde hori, neurri handian, berdelaren, hegala burraren eta atun guztien harrapatze handien eraginezkoa izan da; izan ere, beste zenbait espeziekin batera (esate baterako, txipiroia, erla, makaela, merlenka edo zapoa), konpentsatu egin dituzte beste zenbait espezieetan izandako murriztapenak (adibidez, legatza edo hegala zuea), baita antxoaren arrantzaldiaren amaiera ere.

2007an, guztira 66,7 milioi euro bildu dira, eta 2006an 78,08 milioi euro bildu ziren; horrek %14,55eko beherakada adierazten du diru-sarreretan, eta hori, gehienbat, antxoaren arrantzaldia ixtearen eta beste zenbait espezieetan izandako murriztapenen eraginezkoa da; azken espezie horien artean, legatza, ertaina, txitxarroa, sardina edo hegala zuea, horren prezioak beherakada handia izan baitu. Beste muturrean, diru-sarreretan hazkundeak izan dituzten espezieak daude; esaterako, hegala burra eta beste atun batzuk, merlenka, berdela, zapoa, makaela, erla edo bisigua. Antxoaren arrantzaldiaren itxierak (aurreko kanpainen emaitza kezkarrien eraginezkoa) arazo handia sortu du baxurako sektoreko arrantza-jardueraren errentagarritasunean, eta hori, neurri batean, hegala burraren harrapaketen hazkundearekin konpentsatu da.

EAEko arrantza-flotako baxurako sektoreak harrapatutako arrainen salmentaren batez besteko prezioa 1,4

II.2.8. KOADROA. BAXURAKO FLOTAK EAE-KO PORTUETAN LEHORRERATURIKO ARRANTZA

	2005			2006			2007				2006-2007 aldak. %		
	Q	V	P	Q	V	P	Q	V	%	P	Q	V	P
Antxoa	165	0,9	5,7	781	8,8	11,3	0	0	0	0	-100	-100	-100
Hegalaburra	2.860	8,7	3,0	937	4,3	4,6	1.796	8,3	12,4	4,6	91,7	90,9	-0,4
Hegaluzea	10.553	29,6	2,8	14.128	32,6	2,3	7.818	23,6	35,4	3	-44,7	-27,6	30,7
Txitxarroa	4.545	3,3	0,7	2.464	2,0	0,8	2.347	1,4	2,2	0,6	-4,8	-27,9	-24,7
Berdela	19.407	6,8	0,4	12.613	6,2	0,5	22.416	7,2	10,8	0,3	77,7	15,9	-34,7
Legatza*	3.413	14,5	4,2	2.448	11,1	4,5	2.913	11,2	16,8	3,8	19	1,2	-14,9
Bisigua	4	0,1	19,2	0,152	0,003	17,1	17	0,2	0,2	9,8	10.951,30	6.224,90	-42,8
Gainerako esp.	10.483	16,4	1,6	8.525	13,0	1,5	10.352	14,8	22,2	1,4	21,4	13,6	-6,6
Guztira	51.430	80,3	1,6	41.895	78,1	1,9	47.658	66,7	100	1,4	13,8	-14,5	-24,9

Q: kantitatea TM-tan; V: balioa milioi €-tan; P: prezia €-tan

(*)ertaina eta merlenka barne. Iturria: Seas. Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Saila.

Iturria: Idem Graf. 2.7

II.2.9. KOADROA. EUROPAKO BATZORDEAK ESPAINIARI ESLEITURIKO ARRANTZA KUOTAK (HTO) (TONAK)

	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2005-06	2006-07	2007-08
Atlantikoko bakailaoa. I, II *	8.952	8.951	11.025	10.683	10.364	9.294	9.648	-3	-10,32	3,81
Abadira	903	729	1.045	899	835	835	835	-7,1	0,00	0,00
Fletan beltza (NAFO)	10.964	11.512	5.482	5.218	5.080	4402,5	4396,5	-2,6	-13,34	-0,14
Krabarroka	3.713	2.240	2.259	3.326	3.113	2.848	2.004	-5,8	-8,51	-29,63
Liba. VIII	2.240	2.240	1.800	1.440	1.440	1.440	1.440	0,0	0,00	0,00
Legatza VI,VII,XII,XIV	4.456	4.959	6.463	7.042	7.257	8.708	8.926	3,1	19,99	2,5
Legatza VIIla,b,d,e	3.103	3.452	4.499	4.902	5.052	6.062	6.214	3,1	19,99	2,51
Legatza VIIlc,IX,X, COPACE	5.119	4.480	3.807	3.819	4.263	3.922	4.510	11,6	-8,00	14,99
Mihi-arraina	762	611	580	467	467	468	458	0,0	0,21	-2,14
Zapoa	5.610	4.578	3.690	3.662	3.917	4.064	4.064	7,0	3,75	0,00
Oilarra VIIla,b,d,e	858	921	1.163	1.238	1.176	1.176	1.176	-5,0	0,00	0,00
Oilarra VIIlc,IX,X,COPACE	3.692	2.215	1.233	1.233	1.171	1.330	1.320	-5,0	13,58	-0,75
Oilarra, gainerakoak	4.500	4.796	5.839	6.106	5.817	5.817	5.785	-4,7	0,00	-0,55
Platuxa leuna	93	75	75	75	75	75	75	0,0	0,00	0,00
Zigala	1.828	1.593	1.582	1.676	1.830	2.043	2.031	9,2	11,64	-0,59
Antxoa VIII	29.700	29.700	29.700	27.000	4.500	0	0	-83,3	-100,00	0,00
Antxoa IX,X, COPACE	3.826	3.826	3.826	3.826	3.826	3.826	3.826	0,0	0,00	0,00
Atun gorria (Atlantiko E.-Mediterraneo)	6.365	6.384	6.317	6.277	6.266	3.133	5.379	-0,2	-50,00	71,68
Ezpata-arrain	10.046	11.229	11.171	13.137	10.988	12.002	11.099	-16,4	9,23	-7,52
Lirioa	44.166	44.166	86.203	195.030	91.328	74.073	48.397	-53,2	-18,89	-34,66
Sardinazarra	80	41	82	89	70	79	112	-21,3	12,86	41,77
Txitxarroa	47.095	44.062	44.249	44.382	44.263	44.289	48.980	-0,3	0,06	10,59
Berdela	33.894	28.866	26.645	20.520	21.594	24.425	22.276	5,2	13,11	-8,80
GUZTIRA	231.965	221.626	258.735	362.047	234.692	214.312	192.951	-35,2	-8,68	-9,97

Iturria: Europako Batzordea

euro/kilo izan da, 2006ko prezioa baino %24,73 txikiagoa. 2006an prezioak suspertu arren, 2007an balio txikiagoak egon dira honako espezie hauetan: bisigua (harrapaketa kopuruak gora egitean prezioak %30,55eko murriztapena), makaela (%15,64ko murriztapena), krabarroka (%-14,77), pregoneroa (%-14,06) edo ertaina (%-11,03). Hala ere, zenbait espezieren prezioak izandako hazkundearen ondorioz (adibidez, meroa %+91,57; lirioa %+48,36; edo sardina %+41,18), moteldu egin da arrantza-produktu horien batez besteko prezioaren beherakada.

Europako Batzordeak Espainiako estaturako onetsitako 2008rako Harrapaketa Tasa Onargarriek (HTO) %9,97ko murriztapena izan dute, nazioarteko arrantza-tokietako harrapatze-gaitasunean. Murriztapen hori 2006tik 2007ra birtartekoa baino handiagoa da; hala eta guztiz ere, aurreko bi urteen artekoa baino txikiagoa da, azken hori %35 izan baitzen; baina aintzat hartu behar da 2005ean %40ko hazkunde egon zela. Murriztapenik handiena Bizkaiko Golkoko antxoarena da berriro ere, harrapaketarik gabeko beste urtebete proposatu baita. Lirio-tasek ere %34,66ko murriztapena izan dute, eta krabarroka-tasek %29,63ko murriztapena. Aldiz, aipagarriak dira honako hauen hazkundeak: atun gorriak (Atlantiko Ekialdekoa eta Mediterraneoakoa) %71,68; sardinzarrak %41,77; legatzak (VIIIc, IX, X eta COPACE sektoreetan) %14,99, eta txitxarroak %10,59.

2.1.3. Industria

Hiruhileko Kontu Ekonomikoetako behin-behineko datuen arabera (2008ko otsailaren 18an argitaraturiko datuak), industria sektorea EAEko 2007ko balio erantsi gordin osoaren %29,9 da, 2006an baino hamarren bat gehiago, eta enplegu osoaren %24,7ra heltzen da (2006an baino 4 hamarren gutxiago).


Halaber, datu horiek agerian jarri dutenez, 2006ko susperraldiaren ostean, 2007tik aurrera ekoizpenaren hazkunde-tasak ahultzen joan dira, hiruhileko batetik bestera. Beste modu batera esateko, industria-ekoizpenaren hazkundearen erritmoa moteldu egin da.

Horrela, industriako BEGk 1,1 puntuko hazkunde izan du 2007an (aurreko urtekoa baino hazkunde txikiagoa); hain zuzen ere, %3,8ko hazkunde izan du, hau da, 17.664.634 mila euro.

EAEko industriako BEGren hazkunde hori Estatukoa baino apur bat handiagoa da, bertan %3,1eko hazkunde izan baitu, eta eremu horretan 2006an baino jarduera handiagoa ikusten da, orduko hazkunde %2,9koa izan zen eta.

Sektoreko enplegu zifrek (249.935 lanpostu, Eustaten Hiruhileko Kontu Ekonomikoen arabera), bestalde, %0,7ko hazkunde adierazten dute, urteko batez bestekoan (1.737

II.2.8. GRAFIKOA. INDUSTRIAKO ADIERAZLE NAGUSIEN BILAKAERA. ZUZENDUTAKO DATUAK



Iturria: Hiruhileko Kontu Ekonomikoak. 2007. Behin-behineko datuak

II.2.10. KOADROA. INDUSTRIA SEKTOREKO ADIERAZLEAK

		2005	2006	2007
BEG	Bolumen indizea	100,0	104,9	108,9
BEG	€-ak milatan	15.238.236,0	16.363.753,0	17.664.634,0
Enplegu osoa		249.696,0	248.198,0	249.935,0
BEGren aldaketa		4,9	4,9	3,8
Enpleguaren aldaketa		-0,6	-0,6	0,7
Produktibitatea (enplegu osoa neurtuta)		5,5	5,5	3,1

Iturria: EUSTAT, Kontu Ekonomikoak eta CET

lanpostu gehiago), eta 2006an %0,6ko murriztapena egon zen. Horrenbestez, sektoreko produktibitateak %3,1eko batez besteko hazkundera izan du urtean (aurreko urtean baino ehuneko 2,4 puntu gutxiago).

Industria Ekoizpenaren Indizeak ere (IEI)³, behin-behineko datuen arabera, jardueraren dezelerazioa adierazten du, %2,8ko urteko batez besteko hazkundera izan baitu EAerako (2006an baino ehuneko 1,3 puntu gutxiago). Lurralde Historikoen arabera datuek agerian jarri dutenez, Bizkaiko eta Gipuzkoako hazkundera 1,7 puntuko dezelerazioa egon da. Horrela, IEIk, hurrenez hurren, %4,2ko eta %5,4ko hazkundera izan zuen 2006an; eta, 2007an, berriz, hazkundera %2,5ekoa eta %3,7koa izan da, hurrenez hurren. Araban, aldiz, aurreko urtean baino hazkunde apur bat handiagoa egon da (%1,7 eta %1,6), baina lurralde guztien arteko hazkunderik txikiena bertan egon da.

Indize horren hazkundera handiagoa da EAEn estatuan baino. INEren datuek diotenez, IEIren batez besteko tasak, egutegi-efektuak zuzendu ondoren, %1,9ko hazkundera izan du Estatuan (EAEn %2,8, Eustatek dioenez).

Europarekin konparatzeko, datuen erabilgarritasunaren eraginez (Eurostaten datuak), abenduko urte batetik besterako aldaketa-tasa (egokitua) erabiliko dugu, eta hori nahiko adierazgarria da, gero ikusiko dugunez. INEren arabera, estatuko IEIren urte batetik besterako aldaketak, egutegi-efektuak kenduta, %2,4ko murriztapena izan du. Eurostatek dioenez, Espainiarako datua %-2,4 da, EB-27rako %1,2, eta euroaren zonarako %1,3. Gainera, Eustaten datuen arabera, EAEko industria-ekoizpenak, 2007ko abenduan, %1,3ko murriztapena izan zuen, 2006ko hilabete horri dagokionez, lan-egutegiko balio homogeneoetan.

Batez besteko hazkunde hori, berriro ere, kontsumo-ondasunen eraginezkoa da, baina urte honetan hazkunde-tasa murriztu egin da, 2006ko %8,6tik 2007ko %6,4ra murriztu baita. Bitarteko ondasunek, bestalde, hazten jarraitu dute, eta %2,6tik %3,7ra igaro dira. Aldiz, energiak %2,8ko murriztapena izan du, aurreko urtean %2,9ko hazkundera izan ondoren. Azkenik, kontsumo-ondasunek berriro ere murriztapena izan dute aldi honetan, hain zuzen ere, %-2,6koa (kontsumo iraunkorreko ondasunek %-2,8 eta kontsumo ez-iraunkorreko ondasunek %-2,5).

IEIren azterketa sektorialetik ondorioztatzen denez (datu gordinekin), EAEko hiru industria-sektorerik garrantzitsuenek (metalurgia, makineria eta garraioko materiala) jokabide desberdinak izan dituzte. Horrela, makineria sektorearen indizeak urteko %6,2ko batez besteko hazkundera izan du (aurreko urtean izandako hazkundera baino 1,7 puntu gehiago). Garraioko materialaren sektoreak %7,3ko batez besteko hazkundera izan du (2006an izandakoa baino 3 hamarren gehiago). Eta metalurgiaren sektoreak %5,1eko batez besteko hazkundera izan du (2006an baino 3 hamarren gutxiago).

Gainerako sektoreen artean, honako hauek hazkunde-tasa positiboak eta aurreko urtekoak baino handiagoak izan dituzte: material elektrikoa (%8,2), metalezkoa ez den industria (%4,9), kautxua eta plastikoa (%2,3), papera, edizioa eta arte grafikoak (%0,7) eta oihalgintza eta jantzigintza (%0,3). Honako hauek, berriz, positiboak baina aurrekoak baino txikiagoak izan dituzte: zuraren industria (%3,5) eta industria kimikoa (%2). Gainerako sektoreetako indizean murriztapenak egon dira.

³ EUSTATEk 2008ko otsailaren 4an argitaraturiko datuen arabera.

II.2.11. Koadroa. IEI-k lurralde historikoen eta ondasunen helburu ekonomikoaren arabera izandako bilakaera. Urteko batez besteko hazkundera

	EAE guztira	Lurralde historikoak			Ondasunen helburu ekonomikoa					
		Araba	Gipuzkoa	Bizkaia	Kontsumo-ondasunak			Ekipamendu-ondasunak	Bitarteko-ondasunak	Energia
					Guzt.	Iraunkorra	Ez-iraunkorra			
2001	1,7	0,8	2,1	1,8	1,1	-0,8	2,1	4,1	0,8	0,3
2002	-1,2	1,2	-2,7	-1,1	2,5	3,0	2,2	-4,7	-0,1	-3,0
2003	2,0	2,6	2,3	1,4	-1,2	-5,0	0,9	1,1	0,7	14,0
2004	3,2	6,3	2,0	2,7	-0,8	-3,4	0,5	3,9	1,8	15,9
2005	4,0	3,2	4,0	4,4	1,5	0,8	1,8	7,4	1,6	8,5
2006	4,1	1,6	5,4	4,2	-1,2	0,5	-2,0	8,6	2,6	5,9
2007 p	2,8	1,7	3,7	2,5	-2,6	-2,8	-2,5	6,4	3,7	-2,8

Egutegi-efektuko datu zuzenduak. b. Behin-behineko datuak.
Iturria: Eustat. IEI (2008ko otsailaren 4a)

II.2.12. Koadroa. Jarduera sektorekako IEI (datu gordinak. Urteko b. besteko hazkundera)

	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007p
4. Mineralak, metalezkoak eta ez-met.	6,3	2,9	6,0	-11,8	-3,5	6,3	-1,5
5. Elikadura-industria	4,6	6,6	5,7	-0,6	-0,2	-4,8	-4,4
6. Ehungintza eta jantzigintza	-7,3	-3,9	-1,3	-3,0	-10,2	-9,7	0,3
7. Larrugintza eta zapahtagintza	0,2	-0,9	-22,6	-14	-14,5	-19,0	-16,9
8. Zurgintza	4,6	4,5	1,1	0,1	-3,7	5,4	3,5
9. Papera, edizioa eta grafikoak	0,2	-1,4	-3,5	1,9	5,8	-1,2	0,7
10. Petrolio fintzea	-3,5	-14,2	22,2	7,0	-5,9	2,2	-2,1
11. Industria kimikoa	3,9	6,0	3,0	-0,5	0,5	4,3	2,0
12. Kautxua eta plastikoa	3,0	-1,1	6,0	5,2	0,0	-0,7	2,3
13. Metalezkoa ez den industria	-0,1	1,2	-2,1	-10,4	-2,9	-1,4	4,9
14. Metalurgia eta metalezko gaiak	0,6	-2	1,2	2,1	1,5	5,4	5,1
15. Makineria	2,9	-4,4	0,6	6,2	3,2	4,5	6,2
16. Material elektrikoa	4,3	-7,2	-2,1	5,2	10,3	7,7	8,2
17. Garraioko materiala	3,8	4,7	0,0	5,2	3,8	7,3	7,6
18. Beste manufaktura batzuk	-4,2	1,4	-3,6	-6,8	-0,3	3,0	-2,2
19. Energia elektrikoa, gasa eta ura	1,6	2,2	11,2	20,7	11,1	6,7	-1,8

b. Behin-behinekoak.
Iturria: Eustat IEI (2008an argitaraturiko datuak)

Industria-ondasunen prezioei dagokienez, EUSTATEN IPRIk %4,4ko urte batetik besterako hazkundera izan du (aurreko urtean %4,9), metalurgia-industriako (%+7,4) eta

elikadurako (%6,3) produktuen prezioak izandako hazkunderaren ondorioz.

II.2.13. KOADROA. ONDASUNEN HELBURU EKONOMIKOAREN ETA ARDUERA SEKTOREAREN ARABERAKO IPRI (URTEKO B. BE-TEKO HAZKUNDEA)

	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007 p
Indize orokorra	0,7	0,3	1,9	4,3	5,2	4,9	4,4
Ondasunen helburu ekonomikoa							
Kontsumo-ondasunak	4,1	2,2	1,6	1,9	1,7	2,7	3,9
Kontsumo iraunkorreko ondasunak	2,0	1,1	0,3	0,9	2,2	0,7	2,7
Kontsumo ez-iraunkorreko ondasunak	5,1	2,7	2,7	2,4	1,5	3,7	4,6
Ekipamendu-ondasunak	1,0	0,7	3,4	1,0	1,8	0,9	3,9
Bitarteko ondasunak	0,8	0,9	1,8	6,8	5,2	5,6	5,7
Energia	-5,2	-4,0	0,0	5,5	17,0	11,9	2,2
Jarduera-sektoreak							
Erauzketa-industriak (mineralak, metalezkoak eta ez-metalezkoak)	6,8	1,5	4,4	9,5	11,5	1,9	3,3
Manufaktura-industria	0,7	0,7	2,0	4,6	5,3	4,3	4,5
Elikadura	5,7	2,9	2,6	3,1	1,1	3,5	6,3
Ehungintza eta jantzigintza	2,9	4,3	-1,6	0,5	2,8	5,1	2,7
Larrugintza eta zapatagintza	4,6	0,4	0,1	-4,8	-1,0	3,1	3,0
Zuraren industria	3,3	0,0	-1,2	0,3	0,1	0,9	2,8
Papera, edizioa eta arte grafikoa	3,6	0,7	3,0	-0,3	0,3	3,8	1,2
Petrolioaren finantza	-7,4	-4,0	1,8	9,6	23,7	8,7	1,6
Industria kimikoa	3,2	-0,2	0,8	2,7	4,4	3,0	2,9
Kautxua eta plastikoa	1,8	0,6	2,5	1,0	1,7	3,3	3,1
Metalezkoa ez den industria	4,0	2,6	2,0	1,4	2,4	3,0	4,9
Metalurgia eta metalezko gaiak	-0,7	1,0	2,8	10,7	6,9	7,3	7,4
Makineria	1,8	0,9	4,1	0,1	2,9	2,8	2,8
Material elektrikoak	1,4	0,9	0,1	0,7	0,5	0,1	0,6
Garraioko materiala	0,9	0,4	1,4	0,3	0,5	-2,7	4,2
Beste manufaktura-industria batzuk	2,0	2,2	0	2,5	3,8	1,5	4,2
Energia elektrikoak, gasa eta ura	-0,6	-4,1	-3,9	-2,0	3,4	19,8	3,6

b. Behin-behinekoak. Oinarria 2000.

Iturria: Eustat. IPRI (2008ko urtarrilaren 23a)

Hain zuzen ere, EAEko funtsezko hiru industria-sektoreetarik bakoitzaren IPRIk aldeak izan ditu. Horrela, metalurgia-industriaren eta garraioko materialaren IPRIk gora egin du (lehenengoaren kasuan ehuneko hamarren bat: %7,3tik %7,4ra, eta bigarrenaren kasuan ehuneko 6,9 puntukoa, %-2,7tik %4,2ra); makineria-industriaren IPRI, berriz, egonkor mantendu da 2006tik 2007ra (%2,8).

Ondasunen helburu ekonomikoaren arabera, bitarteko ondasunen prezioak %5,7ko hazkundea izan du, gainerako kontsumo-ondasun prezioak %3,9koa, eta ekipamendu-ondasunen prezioak, azkenik, %3,9koa.

Eustaten datuek diotenez, 2007ko abenduko urte batetik besterako tasak (behin-behineko datuak) %4,2ko hazkundea izan du (2006ko %3,9 baino 3 hamarren gehiago).

INEn behin-behineko datuen arabera, indize horren hazkundea handiagoa da EAEn Estatuan baino. IPRIk (abenduko urte batetik besterakoa) %5,9ko hazkundea izan du Estatuan, eta %6,1ekoa EAEen.

Eustaten Industria Inkestako azken datuek 2006ari buruz diotenez (2005eko oinarria, 2005erako eta 2006rako erabilgarria bakarrik), oro har, 2005etik 2006ra, industria-

sektoreko balio erantsiak %5,88ko hazkunde-tasa izenduna izan du, eta enpleguak, berriz, %0,47ko hazkundera. Inbertsioak, aldiz, %2,98ko murriztapena izan du.

Sektoreei dagokienez, Metalurgia eta metalezko gaiak, Makineria eta Garraioko materiala oraindik ere funtsezkoak dira gure ekonomian, produkzioaren eta enpleguaren arloan.

Metalurgia eta metalezko gaiak sektorearen barruan honako azpisektore hauek sartzen dira: Siderurgia, Burdinazkoa ez den metalurgia, Galdaketak, Metalezko erai-kuntza, Forja-lana eta estanpazioa, Ingeniaritza mekanikoa eta Metalezko gaiak. Sektore honek industriako BEGren

%30,73 dauka, enpleguaren %34,64, inbertsioaren %28,01 eta salmenta garbien %30,1.

Makineria sektorearen barruan hauxe sartzen da: Makina-erreminta, Etxeko aparatuak eta Beste makina batzuk. Sektore honek industriako BEGren %11,56 dauka, enpleguaren %13,21, inbertsioaren %9,1 eta salmenta garbien %10,7.

Garraioko materiala sektorearen barrukoak honako hauek dira: Automobilak eta horien piezak, Itsas eraikuntza eta Garraioko bestelako materiala. Sektore horrek industriako BEGren %8,06 dauka, enpleguaren %8,03, inbertsioaren %6,46 eta salmenta garbien %8,87.

II.2.14. KOADROA. INDUSTRIA SEKTOREKO MAGNITUDEAK SEKTOREKA. OINARRIA, 2005

	Banaketaren % (Industria = 100)					Inberts. /enpl.	Emaitz./ enpleg.	BEG	Enpleg.	Inberts.	Zergen osteko emaitzak
	BEG	Enpleg.	Inberts.	Salmenta garbiak	Zergen osteko emaitzak						
	2006	2006	2006	2006	2006	2006	2006	Ald.% 05-06	Ald.% 05-06	Ald.% 05-06	Ald.% 05-06
INDUSTRIA GUZTIRA (milatan)	16.624.164	250.862	2.680.690	57.760.863	3.843.108	10,70	15,30	5,88	0,47	-2,98	0,14
	100,00	100,00	100,00	100,00	100,00	-	-	-	-	-	-
4. Min., metalezkoak eta ez-metalezkoak	0,75	0,31	1,01	0,48	1,57	34,59	76,96	7,98	-0,13	39,26	-2,99
5. Elikadura-industria	5,69	6,59	9,42	6,38	5,47	15,27	12,72	-1,26	-1,63	-34,77	-17,97
6. Ehuing. eta jantz.	0,68	1,42	0,35	0,53	0,91	2,66	9,85	26,94	1,25	4,19	42,46
7. Larrugintza eta zapatagintza	0,04	0,11	0,00	0,04	-0,01	0,21	-0,72	33,36	-2,55	-119,05	-95,44
8. Zuraren industria	1,73	2,77	3,05	1,51	1,27	11,80	7,04	14,67	4,24	86,28	25,40
9. Papera, edizioa eta grafikoak	4,83	5,75	5,14	3,93	3,96	9,54	10,54	4,84	0,35	14,34	3,23
10. Petrolio fintzea	2,27	0,40	2,20	9,30	6,57	58,93	252,63	-29,56	5,26	-28,68	-21,50
11. Industria kimikoa	3,59	2,49	3,00	4,02	4,41	12,91	27,18	4,84	1,48	-23,43	-16,01
12. Kautxua eta plastikoa	6,50	7,47	5,29	6,07	4,32	7,58	8,85	-4,28	-1,22	1,79	-35,42
13. Metalezkoa ez den industria	3,82	3,11	3,31	2,83	6,30	11,38	30,99	9,42	0,17	2,11	13,87
14. Metalurgia eta metalezko gaiak	30,73	34,64	28,01	30,05	21,99	8,64	9,73	9,24	1,25	-8,66	2,11
15. Makineria	11,56	13,21	9,06	10,68	9,27	7,33	10,75	7,45	0,36	9,01	10,85
16. Material elektrik.	6,19	7,65	3,32	4,97	6,07	4,64	12,16	7,52	3,20	6,34	-2,69
17. Garraioko materiala	8,06	8,03	6,46	8,87	5,22	8,60	9,95	3,99	-2,47	11,83	-10,21
18. B. manufaktura-industria batzuk	2,96	4,45	3,49	2,46	2,02	8,38	6,96	5,49	-0,13	75,12	-13,16
19. Energia elektrikoa, gasa, ura	10,59	1,60	16,87	7,87	20,65	112,88	198,02	15,44	-2,81	4,63	28,50

Iturria: Eustat. Industria Inkesta

II.2.15 KOADROA. EAE-KO INDUSTRIAREN EDUKI TEKNOLOGIKOA OCDE-KO SEKTOREKA

	2000	2003		2004		2005	
LANA	Abs.	Abs.	Ald.	Abs.	Ald.	Abs.	Ald.
Guztira	236.055	248.922	5,5	251.179	0,9	249.696	-0,6
Maila teknolog. altua eta ertain-altua	73.159	76.365	4,4	76.587	0,3	76.051	-0,7
Maila teknologiko altua	11.673	11.258	-3,6	11.632	3,3	11.054	-5,0
Maila teknologiko ertain-altua	61.486	65.107	5,9	64.955	-0,2	64.997	0,1
Maila teknol. ertain-baxua eta baxua	158.335	168.032	6,1	169.822	1,1	168.738	-0,6
Maila teknologiko ertain-baxua	107.859	114.686	6,3	116.571	1,6	115.917	-0,6
Maila teknologiko baxua	50.476	53.346	5,7	53.251	-0,2	52.821	-0,8
Sailkatu gabe	4.561	4.525	-0,8	4.770	5,4	4.907	2,9
BEGfk							
Guztira	12.303.989	13.371.649	8,7	14.588.107	9,1	15.701.676	7,6
Maila teknolog. altua eta ertain-altua	3.834.709	4.155.334	8,4	4.362.778	5,0	4.527.442	3,8
Maila teknologiko altua	533.487	580.719	8,9	603.736	4,0	578.859	-4,1
Maila teknologiko ertain-altua	3.301.222	3.574.615	8,3	3.759.042	5,2	3.948.583	5,0
Maila teknol. ertain-baxua eta baxua	7.621.408	8.098.861	6,3	8.890.279	9,8	9.533.268	7,2
Maila teknologiko ertain-baxua	5.577.992	5.806.595	4,1	6.459.716	11,2	6.998.945	8,3
Maila teknologiko baxua	2.043.416	2.292.266	12,2	2.430.563	6,0	2.534.323	4,3
Sailkatu gabe	847.872	1.117.454	31,8	1.335.050	19,5	1.640.966	22,9
SALMENTAK							
Guztira	40.478.983	43.768.410	8,1	48.205.587	10,1	52.957.698	9,9
Maila teknolog. altua eta ertain-altua	12.756.489	13.198.300	3,5	14.233.094	7,8	15.043.961	5,7
Maila teknologiko altua	1.599.483	1.531.251	-4,3	1.612.001	5,3	1.563.388	-3,0
Maila teknologiko ertain-altua	11.157.006	11.667.049	4,6	12.621.093	8,2	13.480.573	6,8
Maila teknol. ertain-baxua eta baxua	25.677.584	27.908.234	8,7	30.980.545	11,0	33.675.267	8,7
Maila teknologiko ertain-baxua	18.959.068	20.446.140	7,8	22.944.600	12,2	25.459.860	11,0
Maila teknologiko baxua	6.718.516	7.462.094	11,1	8.035.945	7,7	8.215.407	2,2
Sailkatu gabe	2.044.910	2.661.876	30,2	2.991.948	12,4	4.238.470	41,7
PRODUKTIBITATEA							
Guztira	20,2	3,1		8,1		8,3	
Maila teknolog. altua eta ertain-altua	26,2	3,8		4,7		4,5	
Maila teknologiko altua	19,8	12,9		0,6		0,9	
Maila teknologiko ertain-altua	27,7	2,3		5,4		5,0	
Maila teknol. ertain-baxua eta baxua	20,7	0,1		8,6		7,9	
Maila teknologiko ertain-baxua	23,2	-2,1		9,4		9,0	
Maila teknologiko baxua	14,5	6,1		6,2		5,1	
Sailkatu gabe	21,0	32,8		13,3		19,5	

Iturria: Eustat. Industria-estatistika

Eduki teknologikoari dagokionez, eta OCDEren sailkapenaren arabera (Eustatek erabiltzen duen sailkapena), maila teknologiko altuaren barruan, honako hauek sartzen dira: aireontziak eta espazio-ontziak, produktu farmazeutikoak, bulegoko makineria eta ekipamendu informatikoa, material elektronikoa, eta medikuntza-kirurgiako eta zehaztasuneko ekipamenduak nahiz tresnak. Maila teknologiko baxuaren barruan, manufakturak eta birziklapena, zura eta papera nahiz paperaren produktuak, elikadura-produktuak, edariak eta tabakoak, oihalgintzako nahiz jantzigintzako produktuak, eta larrugintzakoak nahiz zapatagintzakoak sartzen dira. Ertain-altuan honako hauek sartzen dira: makineria eta ekipamendu elektrikoa, motoreko ibilgailuak, produktu kimikoak (farmazeutikoak izan ezik), garraioko bestelako materiala eta makineria eta ekipamendu mekanikoa. Eta ertain-baxuan, ontziak, kautxua-ren produktuak eta plastikozko materialak, petrolio finztearen produktuak, burdinazkoak diren eta ez diren metalak, metalezko produktuak eta metalezkoak ez diren produktu mineralak.

2005ean, eta Eustatek emandako datuen arabera, sektore altuak eta ertain-altuak berriro ere murriztapen erlatiboa izan dute, sektore baxuari eta ertain-baxuari dagokionez, bai langileriaren arloan eta bai balio erantsian nahiz salmentetan. Izan ere, lehenengoek, enplegurik gehien galdu eta balio erantsirik nahiz negozio zifrarik txikiena sortu dute. Horrela, urte honetan ere, lanaren itxurako produktibitatearen hazkundea, eduki teknologiko

altuko eta ertain-altuko sektoreetan, izan ere, sektore ertainean eta ertain-baxuan erregistraturikoaren ia erdia da.

2.1.4. Eraikuntza


Eraikuntza, Hiruhileko Kontu Ekonomikoen behin-behineko datuen arabera, EAEko 2007ko prezio korronteko BEGren %9,3 da (5.460.702 mila euro), 2006an baino bi hamarren gehiago; halaber, enplegu osoaren %9,8 da (98.703 lanpostu), aurreko urteko ehuneko bera.

Datu-iturri horrek dioenez, eraikuntza-sektoreak industriak eta zerbitzuek baino hazkunde handiagoa izan du, BEGri dagokionez. Horrela, industriak eta zerbitzuek (biek) %3,8ko hazkundea izan dute, eta eraikuntzak %4koa; horrela, guztira, 5.46,7 milioi euro izan dira. Hala eta guztiz ere, 2004ko laugarren hiruhilekotik 2006ko hasierara ikusitako hiruhileko hazkunde-profila galtzen jarraitu du, eta lehenagoko urteetako joeretara itzuli da. Beste modu batera esateko, hazkunde-erritmoak moteltzen jarraitu du. Izan ere, 2006an, urteko batez besteko hazkundea %5,1ekoa izan zen.

EAEko eraikuntzako BEG Estatukoa baino apur bat handiagoa da; bertan %3,8ko hazkundea izan du, eta eremu horretan ere jardueraren murriztapena ikusi da (laugarren hiruhilekoa %2,8ko tasarekin amaitu).

Eurostatek emandako datuen arabera, 2007an, eraikuntza sektorerako ekoizpenaren urte batetik besterako al-

II.2.9. GRAFIKOA. ERAIKUNTZAKO ADIERAZLE NAGUSIEN BILAKAERA



Iturria: Hiruhileko Kontu Ekonomikoak. 2007. Behin-behineko datuak

II.2.16. KOADROA. ERAIKUNTZA SEKTOREAREN BILAKAERA

	Eraikuntzako indize koiunturala Urte batetik besterako aldaketaren tasak				Hiruhileko kontu ekonomikoak (Zuzendutako datuak) Urte batetik besterako aldaketaren tasak			
	Guztira	Eraikuntza	Obra zibila	Enplegua	BPG korront.	PBG bolumen kat.	BPGren deflakt.	Lanpost.
	Zuzendutako datuak							
2003	-	-	-	-	16,9	4,9	11,4	6,2
2004	7,3	7,8	6,4	1,4	10	4,4	5,4	4,9
2005	8,0	9,0	5,7	0,7	9,4	4,7	4,4	3,7
2006 p	8,0	8,6	6,5	1,3	10,0	5,1	4,6	3,7
2007 p	-	-	-	-	8,9	4,0	4,8	2,2
2007 b 1. hiruhilekoa	10,3	10,9	8,5	0,7				
2007 b 2. hiruhilekoa	8,7	8,0	10,5	0,2				

b. Behin-behineko datuak.
Iturria: Eustat

130

II.2.17. KOADROA. ERAKUNDEEN ARABERAKO LIZITAZIO OFIZIALA EAE-N

	EAE					Estatua	% EAE/ Estatua	
	2000	2005	2006	2007 p	Ald. 06-07	Ald. 06-07	2006	2007
Eraikuntza	321	412	623	862	38,4	-14,6	4,2	6,9
Obra zibila	815	1.409	2.637	2.088	-20,8	-13,1	8,2	7,5
Adm. Nagusia	123	159	623	584	-6,3	3,3	4,0	3,6
Adm. Autonomikoa	231	325	303	570	88,1	-18,2	1,9	4,3
Toki Administrazioa	782	1.338	2.334	1.795	-23,1	-26,5	15,7	16,4
Lizitazioa guztira	1.136	1.821	3.260	2.950	-9,5	-13,6	7,0	7,3

Iturria: SEOPAN


daketa-tasa %-4koa izan da EB-27an, %-3,3 euroaren zonan (15), eta %-9,5 Estatuan.

BPGren deflaktatzaileak hazkundetxoak izan du 2007ko lehenengo hiruhilekoan (2006ko azken hiruhilekoan %5,3 eta 2007ko lehenengo hiruhilekoan %5,5); hala eta guztiz ere, ondoren, murriztapenerako joera dago, eta azken hiruhilekoan deflaktatzaileak %4,5eko hazkundera izan du. Urteko batez bestekoak %4,8ko hazkundera dauka (aurreko urtean baino 2 hamarren gehiago). Etxebizitza berriaren eta askearen metro koadroaren prezioa gero eta handiago da, eta batez besteko tasa %12,8 da.

Enpleguari dagokionez, Hiruhileko Kontu Ekonomikoek agerian jarri dutenez, bigarren lauhilekotik aurrera haz-

kunde urriagoa egon da, eta urteko batez besteko hazkundera aurreko urtekoa baino 1,5 puntu baxuagoa izan da. Horrela, 2007an, enpleguak %2,2ko murriztapena izan du, eta 98.703 lanpostu egon dira (2006an baino 2.079 gehiago). Bestalde, "Eraikuntzaren Koiunturaren Indizea" deritzonak erregistraturiko enpleguaren urte batetik besterako hazkunde-tasa %1,3koa izan zen 2006an; 2007ko datuek (Memoria Sozioekonomiko hau ixteko egunean, 2007ko lehenengo bi hiruhilekoetako datuak baino ez) hazkunde txikiagoa adierazten dute: lehenengo hiruhilekoan %0,7 eta bigarrenean %0,2.

Halaber, Eraikuntzaren Koiunturaren Indizeak (EKI) agerian jarri duenez, 2006an sektorean jarduerak %8ko hazkundera izan du, gehienbat eraikuntzaren azpisektorean

II.2.10. GRAFIKOA. EAEko LIZITAZIO PUBLIKOA, ADMINISTRAZIOAREN ETA OBRA MOTAREN ARABERA

Iturria: Seopan

izandako %8,6ko hazkundearen ondorioz. Lehenengo bi hiruilekoetako behin-behineko datuek, bestalde, hazkunde handiagoa adierazten dute 2007ko lehenengo hiruilekoan, 2006ko lehenengoan baino (%10,3ko hazkundera; %10,9 eraikuntzan eta %8,5 obra zibilean); bigarren hiruilekoan %8,7ra murriztu da, eta, bertan, obra zibilaren azpisektorean hazkundera eraikuntzan baino handiagoa izan da (%10,5 eta %8, hurrenez hurren).

SEOPANen behin-behineko datuen arabera, EAEko lizitazio ofizialak %9,5eko murriztapena izan du 2007an (Estatuan %-13,6), lizitazioak obra zibilean izandako %20,8ko murriztapenaren ondorioz, azken aldi honetan eraikuntzan %38,4ko hazkundera egon baita. Hala eta guztiz ere, EAEen egindako lizitazio publikoaren proportzioa hazi egin da, Estatuan egindakoari dagokionez, eta %7tik %7,3ra igaro da. Lehen esan dugunez, Estatuan lizitazioak behera egin du, bai eraikuntzan (%-14,6) eta bai obra publikoan (%-13,1), EAEen gertaturikoaren alderantziz.

Erakundearen arabera, EAEko lizitazioaren zatirik handiena Toki Administrazioarena izan arren (%59,3), hazkundera izan duen bakarra Administrazio Autonomikoa izan da (%+88,1).

2.1.5. Zerbitzuak

Zerbitzu-sektorea, Eustaten Hiruhileko Kontu Ekonomikoetako behin-behineko datuen arabera, EAEko BEGren

%60 (35.377.975 mila euro) eta enpleguaren %63 (2007an 637.356 enplegu, batez beste) da; bertan, merkatuko zerbitzuak sektore honetako %83,5era iritsi dira.

EAEko zerbitzu-sektoreko balio erantsi errealek edo bolumen kateatuak %3,8ko hazkundera izan du 2007an (aurreko urteko ehuneko bera). Merkatuko zerbitzuek %3,7ko hazkundera izan dute (aurreko urtean baino lau hamarren gutxiago), eta merkatukoak ez diren zerbitzuek %4,3koa (aurreko urtean %2). Sektoreko enpleguak %3,3ko hazkundera izan du (aurreko urteko ehuneko bera). Bestalde, zerbitzu-sektoreko prezioek %2,9tik %3,2ra bitarteko tasak dituzte, eta aurreko urteko tasak %3tik %3,6ra bitartekoak izan ziren.

EAEko zerbitzu-sektoreko BEGren hazkundera Estatuak baino apur bat txikiagoa izan da, bertan, INEren behin-behineko datuen arabera, %4,2ko hazkundera egon da, eta jardueraren bilakaeran nolabaiteko egonkortasuna ikusi da urte osoan, ehuneko horren inguruko hiruhileko hazkundeekin.

Zerbitzu-sektorearen barruan, orain ere aipagarria da Enpresetarako zerbitzuak eta Merkataritza eta Konponketa adarren garrantzi handiagoa, bai BEGren eta bai enpleguaren arloan. Horrela, 1980tik 2006ra, lehenengo BEGren %10,3tik %16,2ra igaro da, eta %4,7ko batez besteko hazkundera izan du 2001etik 2006ra; eta, enpleguaren arloan, %3,8tik %12ra igaro da (%3ko urteko batez besteko hazkundera, 2001etik 2006ra). Merkataritza eta

II.2.18. KOADROA. ZERBITZU SEKTOREAREN BILAKAERA (ALDAKETA-TASAK)

		BEG zerbitzuak. Hiruhileko kontuak. Bolumen indizea			Landunak. Hiruhileko kontuak	Deflakt.
		Guztira	Merkat. Zerbitz.	Merkat. ez diren zerb.		
2004	t1	3,3	3,6	1,4	3,5	3,0
	t2	3,5	3,8	2,1	3,6	3,3
	t3	3,2	3,4	2,3	3,4	3,5
	t4	3,1	3,3	2,2	3,0	3,8
2005	t1	3,2	3,2	3,2	3,2	3,3
	t2	3,4	3,4	3,3	3,6	2,8
	t3	3,6	3,6	3,3	3,5	3,0
	t4	3,8	3,8	3,6	3,7	2,9
2006	t1	3,7	4,0	2,1	3,3	3,5
	t2	3,7	4,1	1,8	3,2	3,6
	t3	3,9	4,3	1,9	3,4	3,4
	t4	3,8	4,1	2,2	3,3	3,0
2007	t1	3,7	3,8	2,7	3,4	2,9
	t2	3,6	3,7	3,3	3,5	3,2
	t3	3,6	3,6	3,6	3,3	3,0
	t4	4,2	3,6	7,4	3,2	3,2

Zuzendutako datuak. Urte batetik besterako aldaketa-tasak.

Iturria: Eustat

Konponketa, bestalde, sektoreko BEGren %11 da (2006ko datua), eta enpleguaren %14,3 (2005eko datua).

Beste talde bat honako azpisektore hauek osatzen dute: Garraio eta komunikazioak BEGren %6,5etik %7ra, 1980 eta 2006 bitartean, eta %3,9ko urteko batez besteko hazkundera, 2001etik 2006ra; eta Banka eta aseguruak, %3,8tik %6,3rako hazkunderarekin, 1980tik 2006ra, eta urteko %1eko batez besteko aldaketarekin, 2001etik 2006ra.

Zerbitzu-sektorean prezioek 2001etik 2006ra izandako urteko batez besteko hazkundera %3,2koa izan da, eta indize orokorra, berriz, %3,3koa izan da.

Merkataritza

Merkataritza eta konponketa zerbitzua EAEko balio erantsiaren %11 ingurukoa da, eta enpleguaren %14; 2007an salmentek hazkundera izan dute, baina hazkundera hori aurreko urtekoa baino txikiagoa izan da, prezioek izandako gorakadaren eraginez, kontsumo pribatua %4,2ko hazkunde-tasetan mantendu baita.

Horrela, **Barruko Merkataritzaren Indize Orokorrak** (prezio iraunkorretan) %2ko hazkundera izan du (aurreko urtean %3,6koa); halaber, 2006an prezioek %3,6ko hazkundera izan zuten, eta 2007an %3,9koa.

Barruko Merkataritzaren Indizeko enplegu-datuak aditzera eman dutenez, sektorean enpleguak aurreko urtean baino hazkunde handiagoa izan du. Hain zuzen ere, 2006an %1,2ko hazkundera egon zen, eta 2007an, berriz, %2,1ekoa; gainera, bi merkataritza motek, handizkakoak eta txikizkakoak, aurreko urtean baino hazkunde handiagoak dituzte enplegu-indizean.

Lurraldeka, Eustatek emandako datuen arabera, salmenten hazkunderik handiena Bizkaiak izan du (%3,4). Araba eta Gipuzkoak, berriz, %-0,6ko hazkunde negatiboak izan dituzte. Enpleguari dagokionez, hiru lurraldeetan hazkundeak egon dira, Bizkaian %2,6koa, Gipuzkoan %1,7koa eta Araban %1ekoa.

Merkataritzako salmenta errealean bilakaeran desberdintasunak ikusten dira berriro, bertako dimentsio des-

II.2.19. KOADROA. ZERBITZU SEKTOREAREN EGITURA ETA BILAKAERA EAE-N

	EGITURA										Urteko tasaren %		
	BEG korrontea					Enplegua					BEG *	Prez.	Enpl.
	1980	1990	2000	2005	2006	1980	1990	2000	2004	2005	2001-2006	2001-05	
Merkataritza eta konponk.	11,3	13,9	10,8	11,0	11,0	14,1	15,4	14,0	13,9	14,3	3,6	3,3	3,6
Ostalaritza	4,0	3,6	3,7	3,7	3,7	3,8	4,9	5,3	5,0	5,1	2,1	4,2	1,6
Garraioa eta komunik.	6,5	6,6	7,3	7,0	7,0	4,9	5,5	5,6	5,4	5,1	3,9	1,8	0,7
Banka eta aseguruak	3,8	4,2	6,4	6,0	6,3	2,8	2,4	2,4	2,1	2,1	1,0	5,3	0,4
Enpresetarako zerbitzuak	10,3	11,7	15,4	16,2	16,2	3,8	5,0	10,6	11,6	12,0	4,7	3,0	5,7
Herri Administrazioa	4,8	5,2	4,8	4,7	4,5	2,5	6,5	5,8	5,5	5,5	1,6	3,3	1,3
Hezkuntza	2,3	3,8	4,1	4,0	3,9	4,5	6,8	6,4	6,1	6,1	2,4	3,3	1,4
Osasuna eta gizarte-zerb.	3,0	5,2	4,9	4,8	4,8	3,1	3,9	5,0	4,7	4,7	3,6	2,8	1,9
Zerbitzu pertsonalak	2,5	2,4	2,5	2,5	2,4	2,0	4,9	3,8	4,0	4,2	2,6	3,3	5,5
Etxeko zerbitzua	0,4	0,5	0,5	0,5	0,5	2,7	2,5	2,5	2,7	2,8	4,2	2,3	5,9
ZERBITZUAK GUZTIRA	48,9	57,2	60,3	60,3	60,2	44,1	57,9	61,4	61,1	61,9	3,3	3,2	3,1
EAE GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	3,3	3,3	2,5

(*) Balio Erantsi Gordin erreala (bolumen-indizea).

Iturria: Eustat "Kontu Ekonomikoak"

133

II.2.20. KOADROA. BARRUKO MERKATARITZAKO SALMENTA INDIZEAREN BILAKAERA ETA MERKATARITZAKO LANDUNAK*

	SALMENTA INDIZEA					LANDUNEN INDIZEA		
	Indize orokorra	Handizk.	Txikizk.	Prezioak	Kontsum.pribatua	Guztira	Handizk.	Txikizk.
2003	1,9	1,5	2,8	2,4	3,7	1,8	1,3	2,2
2004	3,0	2,3	4,3	5,0	4,6	1,6	1,1	1,9
2005	0,3	-0,4	1,6	3,8	4,1	2,2	2,2	2,1
2006	3,6	4,0	2,8	3,6	4,2	1,2	1,6	1,0
2007 p	2,0	1,8	2,5	3,9	4,2	2,1	2,9	1,7

(*)Prezio iraunkorreko aldaketa-tasak (hau da, balio errealkak). b. Behin-behineko datuak.

Iturria: Eustat "Barruko Merkataritzaren Indizea" eta "Kontu Ekonomikoak"

berdinen artean⁴, baina, aurreko urtean ez bezala, salmenten hazkundera handiagoa da txikizkako merkataritzan. Horrela, handizkako merkataritzako salmentek %4ko hazkunde erreala (prezio iraunkorretan) izan zuten 2006an, eta 2007an %1,8ko hazkundea izan dute. Bestalde, txikizkako merkataritzako salmentek %2,8ko hazkundea izan zuten 2006an, eta 2007an, berriaz, %2,5ekoa.

Espezializaturiko eta espezializatu gabeko txikizkako merkataritza bereizita ikusten denez, urte honetan ere lehenengoak bigarrenak baino bilakaera hobeia izan du. Merkataritza espezializatuko salmentek %3,3ko hazkundea izan dute (2006an hazkundea handiagoa izan zen, %4,8), eta, bertan, aurreko urtean baino neurri txikiagoan bada ere, pertsonaren ekipamenduaren azpisektorea nabar-

⁴ Establezimenduen tamainaren arabera, hauxe bereizten da:– Establezimendu txikiak, salmentako 120-400 m² bitarteko azalera dutenak.– Establezimendu ertainak eta handiak, 400-2.500 m² bitarteko azalera dutenak (EAEn 262 inguruk 757m²-ko batez besteko azalera, eta 198.349m²-ko azalera osoa).– 2.500 m²-tik gorako salmenta-azalera duten hipermerkatuak (EAEn 3 establezimendu, hiriko zentroetan daudenak ere barne: Araban 4, Gipuzkoan 12 eta Bizkaian 14).

II.2.21. KOADROA. HANDIZKAKO ETA TXIKIZKAKO MERKATARITZAKO SALMENTA INDIZEAREN BILAKAERA, SEKTOREKA*

	Handizkako merkataritza				Txikizkako merkataritza							
	Nek. pro-duk. eta elikadura	Elik. ez den kontsum. beste gai batzuk	Prod. erdi landuak; txatarra	Mak. eta ekipam.	Espez.	Elik.	Perts. ekipam.	Ettxeko ekipam.	Beste kontsumo-ondasun batzuk	Ez-espez.	Elikadur. nagusit.	Gain. prod. Nagusit.
2003	1,1	9,3	-0,7	-0,5	3,0	-3,2	5,7	2,5	2,9	2,3	2,3	2,6
2004	3,4	4,4	-0,6	6,0	5,7	-1,6	9,7	2,6	6,3	1,6	2,2	-1,6
2005	0,2	-3,6	-1,0	4,5	2,1	-2,3	4,3	-3,6	5,6	0,4	0,7	-1,1
2006	1,6	3,8	4,6	6,6	4,8	-0,4	10,1	-0,7	3,9	-1,3	-1,3	-1,4
2007 p	0,0	5,5	-1,9	9,6	3,3	-2,0	5,1	-1,4	6,0	0,8	0,9	0,1

(*)Prezio iraunkorreko indizearen aldaketa-tasa. b. Behin-behineko datuak

Iturria: Eustat "Barruko Merkataritzaren Indizea"

II.2.22. KOADROA. AZALERA HANDIETAKO JARDUERA

	Salmenta-indizearen aldaketa erreala AHMI (egutegiko efektuak zuzenduta)			Langile landunen aldaketa (urtaroen arabera ez)
	Orokorra	Elikadura	Gainerako produktua	
1998	8,0	4,1	13,8	8,9
1999	4,8	4,3	5,6	2,6
2000	3,2	2,1	4,6	3,5
2001	2,2	1,4	2,9	4,8
2002	2,0	2,8	1,1	5,4
2003	3,6	1,2	6,3	1,6
2004	3,5	0,1	8,2	5,0
2005	9,3	-0,1	14,9	11,7
2006	1,6	0,9	1,9	2,3
2007	-0,3	-0,8	0,0	0,8

Iturria: Eustat

mendu da, %5,1eko hazkundearekin, baita kontsumoko beste ondasun batzuen azpisektorea ere (%6ko hazkunde, 2006an baino ehuneko 2,1 puntu gehiago); beste bi azpisektoreetan, berriz, beherakadak egon dira indizean. Elikadurak behera egin du berriz, eta urte honetan murriztapena %2koa da (hamarkada batean 2002an soilik egon da tasa positiboa azpisektore honetan). Ettxeko ekipamenduen azpisektorean, bestalde, %1,4ko beste murriztapen bat egon da (azken urteotako lehenengo murriztapena 2005ean izan zen).

Bestalde, espezializaturiko merkataritzak, 2006ko azken hamarkadan lehenengoz murriztu ondoren, %0,8ko

hazkundera izan du, batik bat elikaduren merkataritzak izandako hazkundearen ondorioz. Horrela, horrek %0,9ko hazkundera izan du, eta elikadurarena ez den merkataritzak, berriz, %0,1ekoa.

Handizkako merkataritzari dagokionez, bilakaera orain ere hobeia izan da makineriarako eta ekipamendu-ondasunetarako, eta horren tasak altuak izan dira 2007an (%9,6); elikadurakoak ez diren kontsumo-ondasunetan, tasek %5,5eko hazkundera izan dute. Aldiz, produktu erdi landuen eta txatarraren kasuan, salmentek %1,9ko murriztapena izan dute, eta nekazaritzako eta elikadurako produktuen salmentek ez dute aldaketarik izan.

Azalera Handiko Merkataritza Indizeak⁵ (AHMI), egutegi-efektua zuzendu ondoren, beherakada izan du lehenengoz salmentetan, seriearen hasieratik; hain zuzen ere, balio errealetan, beherakada hori %0,3koa izan da, elikadura produktuek izandako %-0,8ko murriztapenaren ondorioz. Lurraldeen arabera, hiru lurraldetan aldaketa negatiboak egon dira: Araban %-0,3koa, Bizkaian %-0,4koa eta Gipuzkoan %-0,1ekoa

Enpleguari dagokionez, horrek azalera handietan %0,8ko hazkundea izan du, aurreko urtekoa baino txikiagoa (%2,3; eta 2005ekoa baino askoz ere txikiagoa, %11,7).


Turismoa eta Ostalaritza

Turismoak, EUSTATen Satelite Kontuko azken datuen arabera (2004ari buruzko datuak), 2.786 milioi euroko zifra izan zuen, eta EAEko BPGn %5,2ko ekarpena egin zuen; jarduera horretako langileria 47.000 langiletik gorakoa izan zen (enplegu osoaren %5,0). Turismoko gastu osoaren %55,6 EAEtik kanpoko bisitariek sortu dute (Estatua eta atzerria), eta gainerako %44,4 honako hauen artean banatu da: EAEen bizi diren turistek eta txangolariak egindako gastua, eta turismo igoerleak jatorrian egindako gastua, hau da, egoiliarrek EAEen turismoaren eraginez kanpora doazenean egiten dituzten gastuak (batez ere, garraio- eta bidaia-agentziak, batik bat). Hala eta guztiz ere, turismo igoerleak hartzaileak baino garrantzi handiagoa dauka EAEen; 2.324 milioi euroko defizita sortu du 2004an, BPGren %4,4, eta ehuneko hori gero eta handiagoa izan da 2000-2004 aldian.

Eustaten turismo-establezimendu hartzaileen inkestakotako datuek (hoteletan eta ostatuetan ostatu hartu duten bidaiariak biltzen dituen inkesta) agerian jartzen dute EAEra gero eta bidaiari gehiago iristen direla. EAEko hotel-sarean ostatua hartu duen bidaiari kopurua 1.750ekoa izan da 2007an, aurreko urtean baino %4 gehiago. Hazkunde hori atzerriko turismoak izandako gorakadaren ondoriozkoa da, turismo horrek %17,4ko gorakada izan baitu; izan ere, Estatuko gainerako erkidegoetatik iritsitakoen kopurua %2,9 murriztu da.

Igarotako gau kopuruak (EAEkoen kasuan izan ezik) %2ko hazkundea izan du, eta, horrenbestez, batez besteko egonaldia 1,93 egunekoa da; Estatuko bisitarien kasuan 1,94 eta Estatutik kanpokoen kasuan 1,92.

II.2.11. GRAFIKOA. EAEKO BIDAIAIRI-SARRERAREN BILAKAERA



Iturria: Eustat

I.2.23. KOADROA. BIDAIAIRIEN, IGAROTAKO GAUEN ETA BATEZ BESTEKO EGONALDIAREN BILAKAERA EAE-N

	2001			2004			2006			2007		
	Bidaia-riak (B)	Igarotako gauak (IG)	B. b. egon. (BBE)	B	IG	BBE	B	IG	BBE	B	IG	BBE
Guztira EAE barik	1.160.224	2.234.089	1,93	1.467.102	2.801.668	1,91	1.683.154	3.307.097	1,96	1.749.658	3.379.723	1,93
Estatua EAE barik	734.014	1.405.882	1,92	966.039	1.852.163	1,92	1.118.647	2.204.831	1,97	1.086.724	2.106.827	1,94
Atzerit.	426.210	828.207	1,94	501.063	949.505	1,89	564.507	1.102.266	1,95	662.934	1.272.896	1,92
EAEkoak	226.704	402.021	1,77	283.332	487.990	1,72	324.394	551.343	1,70	343.688	577.144	1,68

Iturria: Eustat, Turismo-establezimendu hartzaileei buruzko inkesta.

⁵ Azalera handiko merkataritza-sektoreko salmenten eta enpleguaren merkataritza-bilakaerari buruzko adierazle koiunturala (2.500 metro koadroko edo hortik gorako salmenta-azalera duten merkataritza-establezimenduak: Hipermerkatuak, Supermerkatuak, Biltegi Handiak eta txikizkako merkataritzako beste establezimendu ez-espezializatu batzuk, adibidez, Kontsumoko kooperatibak).

II.2.24. KOADROA. IGAROTAKO GAUAK, BATEZ BESTEKO EGONALDIA ETA OKUPAZIOA

	Okupaturiko plazak guztira (igarotako gauak)	B. b. egonaldia egunetan (Estatua)	B. b. egonaldia egunetan (atzerria)	B. b. egonaldia egunetan (orokorra)	Plaza bakoitzeko okupazioa	Gela bakoitzeko okupazioa
2001	2.636.110	1,88	1,94	1,90	44,60	56,28
2002	2.847.751	1,87	1,91	1,88	45,76	56,50
2003	2.963.193	1,86	1,9	1,87	44,18	53,31
2004	3.289.658	1,87	1,89	1,88	46,86	56,13
2005	3.459.802	1,88	1,94	1,90	47,63	57,29
2006	3.858.440	1,91	1,95	1,92	48,34	57,55
2007	3.956.867	1,88	1,92	1,89	46,94	57,30


Iturria: Eustat

EAEko bidaiariak eta igarotako gau kopurua aintzat hartuta, batez besteko egonaldia 1,89 egunekoa izan da; okupazio mailak, berriz, behera egin du eta %46,94 izan da urteko batez besteko plaza bakoitzeko, eta %57,3koa gela bakoitzeko.

IEEren Hotel Okupazioaren Inkestak⁶ ondoko edota antzeko gainerako erkidegoekiko konparazioa ahalbidetzen du (Asturias, Kantabria, Nafarroa, Galizia eta Errioxa); inkesta horretako datuen arabera, EAEko bidaiari-sarrera 2.147koa da, eta ondoko erkidegoen batez besteko aritmetikoa 1.560,2koa da, Galizia barruan sartuta, eta 1.011,2 Galizia barruan sartu barik. Pertsona-jario hori aurreko urtekoa baino %2,7 handiagoa da, eta ondoko erkidegoetan hazkundea %2,9 izan da, Galizia barruan sartuta, eta %1,6 barruan sartu barik.

Igarotako gau kopuruak, EAEn ondoko erkidegoetako batez besteko aritmetikoa baino handiagoa izan arren, %0,68ko hazkunde-tasa dauka EAEn; ondoko erkidegoetan tasa hori %2,3koa da, Galizia barruan sartuta, eta %0,8koa, sartu barik, hala eta guztiz ere, hazkundea bidaiari kopuruaren hazkundea baino txikiagoa denez, batez besteko egonaldiak behera egin du, eta 1,88 egunetik 1,84ra igaro da. EAEko batez besteko egonaldia, urte honetan ere, erkidego mugakide guztietakoa baino txikiagoa da, Errioxakoa izan ezik.

Bestalde, INEren datuen arabera, plaza bakoitzeko okupazio mailak 1,4 puntuko murriztapena izan du, eta 49,1ekoa da; antzeko erkidegoetako batez besteko aritmetikoa 41,9 da, Galizia barruan sartuta, eta 42,1 barruan sartu barik; hoteleko prezioen indizea (HPI⁷), berriz, antzeko erkidego mugakideetako baino txikiagoa da, baita Estatuko batez bestekoa baino txikiagoa ere. Horrela, 2007an, HPIren behin-behineko datua 115,1koa izan da EAEn, eta erkidego mugakideetako batez bestekoa (Galizia barruan sartuta), berriz, 118koa da, eta Galizia barruan sartu barik 117,8koa.

II.2.12. GRAFIKOA. BATEZ BESTEKO EGONALDIA EGUNETAN

Iturria: INE

⁶ Hotel Ostuetako Okupazio Inkestaren zenbatespenak hobetzeko, INEk bi aldaketa metodologiko egin ditu:

1. Inkesta euskarritzen duten direktorioak gaurkotu (AAEEetako Turismo Sailek eskaintako direktorioak).

2. Informazioa biltzeko sistema aldatu, informazioaren desagregazio handiagoa eskaini ahal izateko, bilketaren denbora-esparrua erreferentziako hilabetera hedatuz.

2006ko urtariletik aurrera argitaraturiko datuak ezin dira, beraz, zuzenean konparatu 2005eko abendura arte argitaraturikoekin. Konparazioa errazago egiteko, urte desberdinetako datuak lotzeko aukera ematen duten koefizienteak sortu dira.

⁷ Enpresaburuek Espainiako hoteletako bezeroei aplikaturiko prezioen multzoak izandako bilakaeraren batez besteko estatistikoa. Hor-taz, sektoreko prezioek eskaintzaren aldetik izandako bilakaera neurtzen du.

II.2.25. Koadroa. Konparazio Adierazleak EAE-n eta Estatuan

	Bisitari kopurua (milatan)						Igarotako gau kopurua (milatan)						Batez besteko egonaldia (egunetan)					
	Guztira		Espainiako egoiliarak		Atzerriko egoiliarak		Guztira		Espainiako egoiliarak		Atzerriko egoiliarak		Guztira		Espainiako egoiliarak		Atzerriko egoiliarak	
	2006	2007 p	2006	2007 p	2006	2007 p	2006	2007 p	2006	2007 p	2006	2007 p	2006	2007 p	2006	2007 p	2006	2007 p
Estatua	81.856	84.734	47.444	48.822	34.412	35.912	267.028	272.733	115.088	116.962	151.940	155.771	3,26	3,22	2,43	2,40	4,42	4,34
Asturias	1.523	1.616	1.364	1.446	159	170	3.276	3.426	2.931	3.054	345	372	2,15	2,12	2,15	2,11	2,16	2,19
Kantabria	1.181	1.138	1.009	952	171	186	2.801	2.706	2.437	2.320	364	386	2,37	2,38	2,41	2,44	2,13	2,07
Galizia	3.599	3.756	2.945	3.019	654	737	7.758	8.056	6.525	6.619	1.233	1.436	2,16	2,14	2,22	2,19	1,88	1,95
Nafarroa	752	766	605	588	147	178	1.445	1.467	1.198	1.147	247	320	1,92	1,91	1,98	1,95	1,68	1,79
EAE	2.091	2.147	1.475	1.467	616	680	3.932	3.959	2.754	2.675	1.178	1.284	1,88	1,84	1,87	1,82	1,91	1,89
Errioxa	525	524	450	443	75	81	943	937	821	791	122	145	1,80	1,79	1,82	1,79	1,64	1,79
Antzeko erkid.*	1.516	1.560	1.275	1.290	241	271	3.245	3.318	2.782	2.786	462	532	2,14	2,13	2,18	2,16	1,92	1,97
Antzeko erkid.* Galizia kend.	995	1.011	857	857	138	154	2.116	2.134	1.847	1.828	269	306	2,10	2,00	2,10	2,10	1,90	2,00
Aldaketak	2006-2007 (%)												Aldaketa 2006-2007					
EAE	2,66		-0,56		10,39		0,68		-2,85		8,94		-0,04		-0,04		-0,03	
Antzeko erkid.*	2,92		1,18		12,14		2,27		0,15		15,08		-0,01		-0,02		0,05	
Antzeko erkid.* Galizia kend.	1,62		0,02		11,52		0,84		-1,01		13,53		-0,53		-0,98		3,16	

* Asturiasen, Kantabriaren, Galiziaren eta Errioxaren batez besteko aritmetikoa.
Iturria: INE "Hotel Okupazioari buruzko Inkesta"

II.2.26. Koadroa. Hoteleko batez besteko okupazioa eta prezioen indizea EAE-n eta Estatuan

	Plaza bakoitzeko okupazioa **		Hoteleko Prezioen Indizea (HPI)		Irekitako establezimendu kopurua***		Kalkulatoriko plaza kopurua***		Langile kopurua***	
	2006	2007 p	2006	2007 p	2006	2007 p	2006	2007 p	2006	2007 p
Estatua	56,4	56,2	112,8	115,4	14.056	14.268	1.263.779	1.298.846	191.220	198.798
Asturias	38,3	39,5	109,4	112,4	647	633	23.144	23.422	2.879	3.058
Kantabria	44,9	43,2	111,3	115,1	377	365	16.767	16.852	2.447	2.603
Galizia	36,8	37,0	116,1	118,7	1.450	1.462	57.134	58.962	7.408	7.600
Nafarroa	40,5	41,0	120,1	123	243	237	9.698	9.745	1.477	1.468
EAE	50,5	49,1	111,2	115,1	384	400	21.090	21.881	3.881	4.095
Errioxa	46,9	44,7	119,0	120,9	105	120	5.468	5.708	980	991
Antzeko erkidegoak*	41,5	41,1	115,2	118	565	563	22.442	22.938	3.038	3.144
Antzeko erkidegoak* Galizia kend.	42,6	42,1	114,4	117,8	343	339	13.769	13.932	1.946	2.030

b Behin-behinekoak * Asturiaseko, Kantabriako, Galiziako, Nafarroako eta Errioxako batez besteko aritmetikoa. ** Plazaka haztaturiko okupazio maila. *** Urteko batez bestekoa

Iturria: INE "Hotel Okupazioari buruzko Inkesta"

II.2.27. KOADROA. LANDETXEETAKO URTEROKO MAGNITUDEAK

	Bidaia kopurua			Igarotako gauak			B. besteko egonaldia		
	2005	2006	2007 p	2005	2006	2007 p	2005	2006	2007 p
GUZTIRA (EAE kenduta)	60.209	69.480	66.377	197.892	239.250	234.281	3,3	3,4	3,5
GUZTIRA (EAEekin)	96.192	103.639	108.163	267.574	310.955	324.493	2,8	3,0	3,0
Estatua (EAE barne)	87.320	93.794	97.476	232.749	271.520	276.334	2,7	2,9	2,8
EAE	35.983	34.159	41.786	69.682	71.705	90.212	1,9	2,1	2,2
Atzerria	8.872	9.845	10.687	34.825	39.435	48.159	3,9	4,0	4,5
Estatua EAE kenduta	51.337	59.635	55.690	163.067	199.815	186.122	3,2	3,4	3,3

Iturria: EUSTAT. Turismo Establezimendu Hartzaileei buruzko Inkesta

Gainera, EAEn hotel-jardueran dabilen establezimendu, plaza eta langile kopurua gero eta handiagoa da. Hotel-establezimenduei dagokienez (hotelak eta ostatuak), 16 gehiago dira, eta urteko plaza erabilgarrien kopurua %3,8 handiagoa da; sektore horretako langile kopuruak %5,5eko hazkundea izan du, eta urteko batez besteko enplegua 4.095 pertsonakoa da.

Bestalde, 2007an 66.377 bidaiairen sarrera erregistratu da (EAEkoak aintzat hartu barik), EAEko landetxeetan, hau da, aurreko urtean baino %4,5 gutxiago; igarotako gau kopurua 234.281koa izan da, hain zuzen ere, 2006an baino %2,1 gutxiago. Bidaia bakoitzeko batez besteko egonaldia ehuneko hamarren bat hazi da, eta 2006tik 2007ra 3,5 egunekoa izan da.

Azkenik, Ostatu Sektoreko Inkesta Ekonomikoa 2006an argitaratu zen (2004ko datuekin), eta, 2006ko Memoria Sozioekonomikoan jasotako informazioa gaurkotzeko datu berririk ez dagoenez, irakurleak argitalpen hori irakur dezake, sektoreak EAEn izandako datu nagusiak jakiteko.

Finantza-sektorea

2007ko lehenengo seihilekoan, Amerikako Estatu Batuetako Erreserba Federalesko esku-hartze tasa %5,25ean mantendu zen. Hala eta guztiz ere, finantza-merkatuetan eragin zuten gorabeheren ostean, Fed deritzonak murriztapenak egin zituen irailean eta urrian, guztira oinarritzko 75 puntu; eta, gero, oinarritzko 25 puntuko beste murriztapen bat egin zuen, abenduan. Horrela, erreferentziako interes-tasa %4,25ekoa izan zen, urte amaieran, urtarrilean izandakoa baino ehuneko puntu bat txikiagoa.

Europako Banku Zentralak hamabi aldiz igo du egun baterako esku-hartze tasa, martxoan eta ekainean; ba-

koitzean oinarritzko 25 puntu. Horrela, erreferentziako interes-tasa %4koa izan da urte amaieran, urtarrilean izandakoa baino ehuneko puntu bat handiagoa.

Japoniako Bankuari dagokionez, 2007an bigarren igo du (2006ko uztailetik zero tasaren politika baztertu ondoren) bere esku-hartze tasa. Horrela, erreferentziako interes-tasa %0,75ekoa izan zen urte amaieran, aurreko urtekoa baino 35 hamarren handiagoa.

Ikusten denez, abuztuko finantza-krisiak eragindako likidezia-galeraren ondorioz, Erreserba Federalesko murriztu egin zuen egun baterako banku arteko tasa; Europako Banku Zentralak eta Japoniako Bankuak, berriz, esku-hartze tasa aipaturiko krisia baino lehenagoko mailetan mantentzea erabaki zuten.

Igoera horien eraginez, moneta-merkatuko interes-tasek apurka-apurka gora egin zuten, urte osoan eta epe guztietan. Hain zuzen ere, hilabeterako Euriborra 1,1 puntu hazi da 2007ko hamabi hilabeteetan; hiru hilabeterako Euriborra 1,2 puntu hazi da, eta %3,08tik %4,28ra igaro da, eta urtebeterako Euriborra 1,01 puntu hazi da (%3,44tik %4,45era).

Kreditu-erakundeek etxeki egindako maileguen tasak (UTB) gora egin du, kontsumorako %9,41etik %10,7ra (2006tik 2007ra), eta etxebizitzarako %4,74tik %5,53ra.

Kreditu-erakundeek EAEn emandako kreditu osoa berriro ere hazi egin da 2007an, eta 82.203 milioi eurokoa izan da. Hala ere, hazkundearen eritmoa moteldu egin da, 2006tik 2007rako hazkundearen urteko tasa aurreko urtekoa baino txikiagoa baita (%13 eta %16,7, hurrenez hurren). Delezerazio hori, batik bat, Herri Administrazioei emandako kredituen jokabideak azaltzen du, horrek aldatuta tasa negatiboa izan baitu (hain zuzen ere, %9,9tik %9,9ra igaro da); halaber, beste egoitza-sektore

II.2.28. KOADROA. KREDITU ERAKUNDEEK ETXEEI EMANDAKO MAILEGUEN INTERES TASA ETA ELIAGE

	ZMTE*			UTB		
	B. besteko tasa haztatua					
	Etxebizitza kreditua	Kontsum. kreditua	Beste helburu batzuk	Etxebizitza	Kontsumoa	B. helburu batzuk
2003	3,32	7,99	4,31	3,46	8,62	4,80
2004	3,23	7,80	4,20	3,39	8,42	4,69
2005	3,32	7,77	4,18	3,46	8,34	4,60
2006	4,56	8,84	5,09	4,74	9,41	5,58
2007	5,38	9,53	6,36	5,53	10,07	6,84

* ZMTEren barruan ez da komisiorik sartzen, UTBren barruan bai.
Iturria: Banco de España. Estatistika Aldizkaria.

II.2.29. KOADROA. KREDITU ERAKUNDEEK SEKTORE PUBLIKOARI ETA PRIBATUARI EMANDAKO KREDITUA (12/31ko SALDOAK)

	Euroak milioitan				EAEko banaketa 2007	Estatua 2007	Estatua-ren %	Aldaketaren %		
	2004	2005	2006	2007				2004-05	2005-06	2006-07
Guztira	52.647	62.351	72.772	82.203	100,0	1.730.688	4,7	18,4	16,7	13,0
-Herri Adm.	1.331	1.344	1.477	1.336	1,6	38.755	3,4	1	9,9	-9,5
-Sektore Pribatua	51.316	61.007	71.295	80.867	98,4	1.691.933	4,8	18,9	16,9	13,4
Bankuak	22.716	26.225	30.113	33.870	41,2	792.061	4,3	15,4	14,8	12,5
-Herri Adm.	491	469	573	561	0,7	23.825	2,4	-4,5	22,2	-2,1
-Sektore Pribatua	22.226	25.756	29.541	33.309	40,5	768.236	4,3	15,9	14,7	12,8
Aurrezki Kutxak	23.024	27.837	32.666	36.903	44,9	847.263	4,4	20,9	17,3	13
-Herri Adm.	814	839	857	731	0,9	14.323	5,1	3,1	2,1	-14,7
-Sektore Pribatua	22.209	26.998	31.809	36.172	44,0	832.940	4,3	21,6	17,8	13,7
Kreditu Koop.	6.907	8.289	9.992	11.429	13,9	91.367	12,5	20	20,5	14,4
-Herri Adm.	26	36	47	43	0,1	607	7,1	38,5	30,6	-8,5
-Sektore Pribatua	6.881	8.253	9.945	11.386	13,9	90.759	12,5	19,9	20,5	14,5

Iturria: Banco de España. Estatistika Buletina.

batzuetarako kredituaren hazkundera ere murriztu egin da, %16,9tik %13,4ra igaro baita.

Kredituak eta beste faktore batzuek finantza-erakunde arabera izandako hazkunde-tasak aztertuta ikusten denez, emandako kreditu-saldo guztiak (bankuek, aurrezki-kutxek eta kreditu-kooperatibek emandakoak) hazi egin dira, baina aurreko urtean baino gutxiago; hau da, hazkundera dezelatu egin da. Finantza-erakunde bakoitzak beste sektore batzuei emandako kreditu osoaren garrantziari dagokionez, emandako kredituaren zatirik handiena lehenengo bi erakundeek biltzen dute. Horrela, aurrezki-kutxek beste sektore

batzuei emandako kredituaren saldo osoaren %44 bildu dute, 2007aren amaieran; bankuek magnitude horren %40,5 eta kreditu-kooperatibek gainerako %13,9.

Kredituko saldoen hazkundera moteltzeari dagokionez, etxebizitza lortzeko hipoteka-bermeko kredituaren hazkunde txikiagoak ere eragina izan du, segurutik. Horrela, Banco de España banketxeak Estatu osoari buruz emandako datuen arabera (ez baitago autonomia-erkidegoetarako datu erabilgarririk), magnitude horrek %14ko hazkundera izan du 2006tik 2007ra, eta 2005etik 2006rako hazkundera %22,4koa izan zen (2004tik 2005era %34koa).

Horri dagokionez, Espainiako Jabetza, Merkataritza eta Ondasun Higigarrien Erregistratzaile Elkargoak emandako datuak INEren Hipoteka Estatistiketan argitaratu ziren; datu horiek adierazten dutenez, EAEn egindako hipoteka kopuruak %10,1eko murriztapena izan du, aurreko tasa positiboetara dagokienez. Bestalde, hipotekaturiko etxebizitza kopurua ere murriztu egin da, aurreko aldia aldatuta tasa positiboak izan ondoren (%-11,5 eta %+5,5, hurrenez hurren).

Hipotekaturiko finka baterako maileguan emandako batez besteko zenbatekoak %12,3ko hazkundera izan zuen 2007an, eta 194,6 milioi eurotik 218,6 milioi eurora igaro zen. Bestalde, hipotekaturiko etxebizitzarako maileguan emandako batez besteko zenbatekoak aurreko urtekoa baino hazkunde apur bat txikiagoa izan du; hain zuzen ere, %5,9, eta 2006an %10,8; horrela, 164,9 mila euro izan dira, eta aurreko ekitaldian 155,7 mila euro.

Finantza-erakundeek gordailuei dagokienez, titulartzat Herri Administrazioak dituztenek 5.596 milioi euroko saldo osoa izan zuten EAEn, 2007aren amaieran, Banco de España bankuaren Estatistika Aldizkariko datuen arabera, eta zifra horrek %16,3ko urte batetik besterako hazkunde-tasa adierazten du. Beste sektore batzuetako gordailuak 59.462 milioi eurokoak izan ziren, eta zifra horren urteko hazkunde-tasa %14,1ekoa da.

Beste sektore batzuen gordailuak modalitate desberdinen arabera (agerikoa, aurrezkikoa eta epekakoa) aztertuta ikusten denez, ageriko gordailuen zifra 12.040 milioi eurokoa izan zen, 2007an %1,1eko hazkundera izan ondoren, aurrezkikoen saldoak %1,1eko murriztapena izan du, 12.988 milioi euroetara. Eta epekako gordailuen saldoa,

2004tik 2005era behera egin ondoren, 2006an 27.422koa izan da, eta 2007an berriro ere gora egin eta 34.810 milioi eurokoa izan da.

Azkenik, Burtsari dagokionez, urteko lehenengo zatian nahiko lasai ibili ondoren (munduko finantza-merkatuetan aurreko urtean itxiera bikainaren luzapentzat), abuztuaren eztanda egin zuten AEBn arrisku altuko ("sub-prime") hipoteka-aktiboen merkatuan sorturiko krisi baten lehenengo gertakariak, eta horiek aktiboek euskarrituriko bonoen ("Asset Backed") munduko merkatu guztietara hedatu ziren, eta, gero, bankuen arteko merkatuetara, kreditu-merkatuetara eta burtsetara.

Munduko ekonomiako finantzen ez-egonkortasunaren ondorioei loturiko kezkak (orokorrean eta, batez ere, AEBn dezelerazio sintomak), alde batetik, eta "sub-prime" hipotekak jasandako tituluen merkatuetako galerekin finantza-konpainietan izan beharreko eragin errealeko inguruko zalantzek, bestetik, konfiantza-krisia sortu zuten.

Balio-merkatuetan, gertakari horien eraginez, hegazkortasunak nabarmen egin du gora. Burtsek, hasieran, konfiantza galtzearen, interes-tasen inguruko itxaropenak aldatzearen eta interesek AEBn izandako beherazko bilakaeraren ondoriozko eragin negatiboa izan zuten; horrela, aldi baterako susperraldia egon zen, eta horren inflexio-puntua abenduan izan zen.

Hala eta guztiz ere, ondorio negatibo hori oso desberdina izan zen maila kuantitatiboan, bai burtsen artean eta bai balioko sektoreen nahiz taldeen artean.

Bilboko Burtsaren kontratazio-bolumenak (erosketak eta salmentak), 2007an, %31,8ko hazkundera izan du, hain

II.2.30. KOADROA. LANDAKO ETA HIRIKO FINKEN HIPOTEKAK EAE-N

	2005			2006			2007 (behin-behineko datuak)			Aldaketa					
	Kopurua	Zenb. (Milioi.€)	B.B. zenb. (€)	Kopurua	Zenb. (Milioi.€)	B.B. zenb. (€)	Kopurua	Zenb. (Milioi.€)	B.B. zenb. (€)	2005-06			2006-07		
										Kopurua	Zenb. (Milioi.€)	B.B. zenb. (€)	Kopurua	Zenb. (Milioi.€)	B.B. zenb. (€)
HIPOTEKAK GUZTIRA	57.462	9.457	164.580	58.633	11.412	194.634	52.725	11.525	218.590	2,0	20,7	18,3	-10,1	1,0	12,3
Landako finkak	1.548	421	272.245	1.571	507	322.460	1.708	547	320.121	1,5	20,2	18,4	8,7	7,9	-0,7
Hiriko finkak	55.914	9.036	161.599	57.062	10.905	191.115	51.017	10.978	215.191	2,1	20,7	18,3	-10,6	0,7	12,6
Etxebiz.	41.060	5.771	140.544	43.328	6.747	155.715	38.343	6.324	164.927	5,5	16,9	10,8	-11,5	-6,3	5,9
Orubeak	1.599	1.369	856.236	1.795	1.946	1.084.084	1.798	2.469	1.373.221	12,3	42,1	26,6	0,2	26,9	26,7
Hiriko b. finka batzuk	13.255	1.896	143.025	11.939	2.213	185.330	10.876	2.186	200.951	-9,9	16,7	29,6	-8,9	-1,2	8,4

Iturria: INE Hipoteka Estatistika (Espainiako Jabetza, Merkataritza eta Ondasun Higigarrien Erregistratzaile Elkargoa).

II.2.31. KOADROA. SEKTORE PRIBATUAREN ETA HERRI ADMINISTRAZIOEN SEKTOREAK GORDAILU ERAKUNDEETAN DITUEN GORDAILUAK (XII-31ko SALDOAK)

	Euroak milioitan			Banak.	Estatua	Estat. %	Aldaketaren %	
	2005	2006	2007 b				05-06	06-07
PRIBATUA ETA PUBLIKOA GUZTIRA	48.870	57.272	65.433	-	1.105.975	5,7	17,2	14,2
SEKTORE PRIBATUA GUZTIRA	45.117	52.462	59.837	100,0	1.031.504	5,8	16,3	14,1
Ageriko gordailuak	10.437	11.904	12.040	20,1	262.732	4,6	14,1	1,1
Aurrezkiko gordailuak	11.918	13.137	12.988	21,7	179.429	7,2	10,2	-1,1
Epeko gordailuak	22.763	27.422	34.810	58,2	589.343	5,9	20,5	26,9
Bankuak	13.001	15.870	18.346	30,7	436.467	4,2	22,1	15,6
Ageriko gordailuak	4.918	5.731	5.681	9,5	128.886	4,4	16,5	-0,9
Aurrezkiko gordailuak	3.331	4.058	3.917	6,5	55.718	7,0	21,8	-3,5
Epeko gordailuak	4.752	6.081	8.749	14,6	252.043	3,5	28,0	43,9
Aurrezki Kutxak	24.693	27.841	31.515	52,7	526.009	6,0	12,7	13,2
Ageriko gordailuak	4.027	4.512	4.729	7,9	121.828	3,9	12,0	4,8
Aurrezkiko gordailuak	6.561	6.923	6.990	11,7	105.240	6,6	5,5	1,0
Epeko gordailuak	14.106	16.407	19.797	33,1	298.941	6,6	16,3	20,7
Kreditu Kooperatibak	7.424	8.750	9.976	16,7	68.848	14,5	17,9	14,0
Ageriko gordailuak	1.493	1.661	1.631	2,7	12.018	13,6	11,3	-1,8
Aurrezkiko gordailuak	2.026	2.156	2.080	3,5	18.471	11,3	6,4	-3,5
Epeko gordailuak	3.905	4.933	6.265	10,5	38.359	16,3	26,3	27,0
SEKTORE PUBLIKOA GUZTIRA	3.753	4.810	5.596	100,0	74.471	7,5	28,2	16,3
Bankuak	1.173	1.428	1.440	25,7	31.866	4,5	21,7	0,8
Aurrezki Kutxak	2.224	2.869	3.453	61,7	39.493	8,7	29,0	20,4
Kreditu Kooperatibak	335	514	702	12,5	3.112	22,6	44,8	36,6

b. Behin-behineko datuak.

Iturria: Banco de España. Estadística Aldizkaria

zuzen ere, 57.310,7 milioi euroko zifra (aurreko aldian 79.112,5 eurokoa). Hazkunde hori errenta-aldagarriaren gorakadak azaltzen du (%34), errenta finkoak %12,1eko murriztapena izan baitu. Kontratazio osotik %50,6 erosketena da, eta erosketak horiek %35eko hazkundea izan dute, aurreko urteari dagokionez.

Bilboko Burtsaren Indizea 2.626,6 puntukoa izan da 2007ko abenduan, eta horrek %1,9ko hazkundea adierazten du, aurreko urteari dagokionez. Hazkunde-tasa hori ehuneko 32,24 puntu txikiagoa da, aurreko urtekoa baino, azken hori 2.577,5 puntuko indizearekin amaitu baitzen, baita Estatukoa baino txikiagoa ere, bertan lbex 35 deritzonak %7,3ko hazkundearekin (aurreko urtean %31,8) eta 15.182,3 punturekin (aurreko urtean 14.146,5 puntu) utzi baitzuen urtea.

II.2.32. KOADROA. BILBOKO BURTSAREN INDIZEA. 2000

	AZKENA	GEHIENEK.	GUTX.	ALD. % (azkena/aurreko azkena)
2003	1.381,80	1.393,70	976,20	26,76
2004	1.633,10	1.638,50	1.361,10	18,18
2005	1.921,50	1.956,40	1.611,60	17,66
2006	2.577,50	2.635,80	1.611,60	34,14
2007	2.626,60	2.798,30	2.406,30	1,90

2000ko oinarria, 1999ko abenduaren 31

Iturria: Bilboko Burtsa

II.2.33. KOADROA. BILBOKO BURTSAREN KONTRATAZIO BOLUMENA (*)

	2004		2005		2006		2007		Aldaketaren% 2005-06		Aldaketaren% 2006-07	
	Guztira (salerosk.)	Erosketak	Guztira (saleros.)	Erosketak	Guztira (saleros.)	Erosketak	Guztira (saleros.)	Erosketak	Guz.	Erosketak	Guz.	Erosketak
BURTSA GUZTIRA	100.698,90	51.243,30	101.094,60	49.766,20	180.207,10	89.132,90	237.517,80	120.286,60	78,3	79,1	31,8	35,0
ERRENTA ALDAKOR.	88.401,50	45.094,10	89.101,60	43.769,70	171.612,10	84.835,20	229.963,10	116.507,70	92,6	93,8	34	37,3
Merkatu iraunkorra: SIBE	87.973,40	44.880,00	88.618,20	43.528,00	170.805,90	84.432,10	229.952,70	116.502,50	92,7	94,0	34,6	38,0
Merkatu tradizionala: Parketa (ahotsez)	428,1	214,1	483,4	241,7	806,2	403,1	10,4	5,2	66,8	66,8	-98,7	-98,7
ERRENTA FINKOA	12.297,40	6.149,20	11.993,00	5.996,50	8.595,00	4.297,70	7.554,70	3.778,90	-28,3	-28,3	-12,1	-12,1
Merkatu iraunkorra: Elektronikoa	32,7	16,8	23,9	11,9	22,2	11,4	21,5	12,2	-7,1	-4,2	-3,2	7,0
Merkatu tradizionala: Parketa (ahotsez)	16,7	8,4	15,3	7,7	14,7	7,3	15,1	7,6	-3,9	-5,2	2,7	4,1
Kontuan Idazteko Zerbitzuak (KIZ)	12.248,00	6.124,00	11.953,80	5.976,90	8.558,10	4.279,00	7.518,10	3.759,10	-28,4	-28,4	-12,2	-12,2

(*)Euroak milioitan.
Iturria: Bilboko Burtsa

Lanbide- eta enpresa-zerbitzuak

Lanbide eta Enpresa Zerbitzuen Sektoreko azken Inkesta Ekonomikoa 2006an argitaratu zen (2004ko datuekin); eta, 2004ko Memoria Sozioekonomikoan jasotako informazioa gaurkotzeko datu berriak ez dagoenez, irakurleak inkesta hori irakur dezake, sektoreak EAEn izandako datu nagusiak jakiteko.

Gizarte Zerbitzuak

EUSTATen "Gizarte Zerbitzuen Inkesta" deritzoneko datuen arabera (2006ari buruzko datuak), Gizarte Zerbitzuetako gastua 1.457 milioi eurokoa da EAEn, hau da, EAEko BPGren %2,4 (2005eko tasa baino ehuneko hamarren bat handiagoa).

Biztanle bakoitzeko batez besteko gastua 684,4 eurokoa da, 2005ean baino %12,9 handiagoa. Lehenengo pos-

tuan Araba dago, biztanleko 774 eurorekin; gero Bizkaia 672 eurorekin, eta azkenik Gipuzkoa 666rekin.

Finantziazioari dagokionez, herri-administrazioen ekarpena 1.036 milioi eurokoa izan zen, gastu osoaren %71, eta aurreko urtean baino %14,7 gehiago. Gainerako %29 sektore pribatuak eman zuen.

Guztira, 2006an sektorean 22.985 pertsonak egin zuten lan, EAEko urte horretako landunen %2,4 (2004an %2,2 eta 2005ean %2,3); horietatik %69 emakumeak izan ziren.


Gizarte-zerbitzuek, halaber, 18.655 boluntario izan zituzten, sektorean kobratu barik lan egin zutenak (langile-ria osoaren %44,8), 2005ean baino %0,1 gutxiago.

Ondoko grafikoa ikusten denez, azken 16 urteetan gizarte-zerbitzuetako langile kopuruak %285etik gorako hazkundea izan du. Aldi horretan, boluntarioen ehunekoak 1989ko %42,3tik 1995eko %50,7ra igaro da (orain arteko

II.2.34. Koadroa. EAE-ko GIZARTE ZERBITZUEN MAGNITUDE NAGUSIAK

	2002	2004	2005	2006	%02-06	% 05-06
Gastuak						
Gastua (€-ak milatan)	915.747	1.196.320	1.297.642	1.457.289	59,1	12,3
- gastu korronteak	671.719	876.216	956.488	1.082.718	61,2	13,2
- familitarako transfer.	202.511	270.046	274.566	308.074	52,1	12,2
- kapital-gastuak	41.517	50.057	63.993	66.496	60,2	3,9
Gastua /biztanleko (€)	437,7	562	606,1	684,4	56,4	12,9
Gastua/BPG (%)	2	2,2	2,3	2,4	20	6,4
Finantz. (€-ak milatan)						
- publikoa	642.289	837.714	903.157	1.035.909	61,3	14,7
- pribatua	273.458	258.606	394.485	421.380	54,1	6,8
Giza baliabideak						
Langileria guztira	30.621	36.221	40.616	41.640	36	2,5
- bertakoa	16.797	20.613	21.941	22.985	36,8	4,8
- boluntarioak	13.824	15.608	18.675	18.655	34,9	-0,1
Baliabide materialak						
- erakunde kopurua	1.224	1.304	1.318	1.320	7,8	0,2
- zentro kopurua	2.305	2.512	2.544	2.632	14,2	3,5
- erresidentzia kopurua	633	715	734	772	22	5,2
- egoitza-plazak	17.188	19.596	20.212	22.143	28,8	9,6

Iturria: EUSTAT "Gizarte Zerbitzuen Estatistika".

II.2.13. GRAFIKOA. GIZARTE ZERBITZUETAKO GASTUAK EAE-n IZANDAKO BILAKAERA


Iturria: Eustat: Gizarte Zerbitzuen Estatistika.

gehieneko historikoa). 2005etik 2006ra ehuneko hori %46tik %44,8ra murriztu da.

Gizarte-zerbitzuen biztanle talde jasotzaileak aintzat hartuta, baliabide kantitaterik handiena biztanleria oroko-

rrera eta, batez ere, adineko pertsonen taldera bideratzen da; izan ere, gastu osoaren %68,4 bi talde horientzat da.

Lehenengoen artean, hau da, biztanleria orokorrera bideraturiko baliabideen artean, EUSTATEN arabera, zenba-

II.2.14. GRAFIKOA. EAEko GIZARTE-ZERBITZUETAKO LANGILERIAREN BILAKAERA (BERTAKOAK ETA BOLUNTARIOAK)

Iturria: Eustat: Gizarte Zerbitzuen Estatistika.

II.2.35. KOADROA. BIZTANLERIA JASOTZAILEAREN ARABERAKO GASTUA (EUROAK MILATAN)

	2004	2005	2006
Guztira	1.196.320	1.297.642	1.457.289
Biztanleria orokorrean	458.008	474.183	557.930
Haurrak-Gazteak	38.221	41.427	42.494
Emakumeak	6.446	8.782	9.941
Adineko pertsonak	345.852	391.759	438.188
Ezinduak	286.076	317.092	339.511
Gizarte-bazterkeria	61.717	64.398	69.225

Iturria: EUSTAT "Gizarte Zerbitzuen Estatistika".

tekoa eta hazkundera kontuan hartuta, aipagarriak dira "fami-
lientzako transferentziak", Oinarrizko Errentaren programak
biltzen dituztenak, 158 milioi eurorekin (%+9); eta Gizarte La-
rialdiko Laguntzak (GLL), 39 milioi eurorekin (%+15).


2.1.6. Etxeko produkzioa

Etxeko Satellite Kontua⁸ bost urtean behingoa da, eta Aldiko Aurrekontuen Inkestaren urteetan argitaratzen da; azken hori lehenengoa egiteko oinarrizko estatistika da, biztanleriak etxeko lanetan ematen duen aldia adierazten baitu, besteak beste. Azkena 2004ko ekainean argitaratu zen (2003ko datuekin), eta, datu horietan oinarrituz, Europako Kontu Sisteman (EKS) jaso gabeko Etxeko Produkzioaren ikerketa egin genuen, aintzat hartuta funtzioen (ostatua, zaintzak nahiz hezkuntza, jantziak eta arropa ematea), sexuaren eta lan-egoeraren arabera ekoizpena, eta hori 2004ko Memoria Sozioekonomikoan jaso genuen.

Oraingo helburua, alde batetik, EKStik kanpoko Etxeko Ekoizpenaren azterketa funtzionala handitzea da, orduko Memoria Sozioekonomikoan jaso genuena; eta, bestetik, Etxeko Ekoizpena hedaturiko ekonomiaren esparruan iker-tzea.

Hedaturiko ekonomiaren barruan, EKSren arabera Kontu Nazionalen mugetatik kanpo gelditzen den ekono-mia guztia sartzen da, Etxeko Ekoizpena ere barne.

⁸ Etxeko Satellite Kontuaren barruan, EKStik kanpoko Etxeko Ekoizpena sartzen da.

II.2.15. GRAFIKOA. GIZARTE-ZERBITZUETAN EGINDAKO GASTUAREN BILAKAERA, BIZTANLERIA JASOTZAILEAREN ARABERA

Iturria: Eustat: Zerbitzuen Estatistika

Beste modu batera esateko, Hedaturiko Ekonomia Kontuaren barruan, EKSren arabera Kontu Ekonomikoak sartzen dira (merkatukoa den eta ez den ekoizpena), baita etxeko Ekoizpena ere (EKSren mugetatik kanpo gelditzen dena, hau da, aintzat hartzen ez dena). Horrenbestez, Ondasunen eta Zerbitzuen Kontua, Ekoizpenaren Kontua eta Ustiapenaren Kontua daude.

2003an EAEko ekonomiaren BPGn aintzat hartu gabeko Etxeko Ekoizpenaren Balio Erantsia 15.369.163 milioi eurokoa izan zen; BPGren %32,8 da, eta ehuneko hori murrizten joan da azken urteotan. 1993an eta 1998an, ehunekoak %49,1 eta %38,5 izan ziren, hurrenez hurren. Ordaindu gabeko etxeko lanaren murriztapen hori azken 10 urteotako hazkunde ekonomikoaren eraginezkoa izan da, eta horrek eragin erabakigarria izan du emakumeen lan-merkatuan; hain zuzen ere, giza baliabideen transferentzia eragin du, etxeko ekonomiatik merkatuko ekonomiara.

2004ko edizioan adierazitakoaren arabera, funtzioakako banaketak ez du aldaketa handirik izan, ikerketan aintzat hartutako hiru urteetan. Balio Erantsiaren proportzioak handienak dituzten funtzioak Janaria Ematea (%46,4) eta Ostata Ematea (%30,2) dira. Eta, banantze funtzionaleko goragoko mailan, honako hauek nabarmentzen dira: janaria prestatzea (%31,7), garbitzea (%15,6), zaintzak ematea (%11,8) eta janaria egunero erostea (%11,5).

Ekoizpenaren Kontuak, baliabideen atalean, ekonomia hedatuak sorturiko ekoizpena adierazten du, eta, enpleguen atalean, berriz, ekoizpen horretan erabilitako bitarteko kontsumoak agertzen dira, ekonomia hedatuan sorturiko Balio Erantsiaren saldotzat.

Ustiapenaren Kontuak, baliabideen atalean, Ekoizpenaren Kontua adierazten du, hau da, Balio Erantsia; eta, enpleguaren atalean, horren osagaiak (soldadak, zergak eta dirulaguntzak); ondoriozko saldoa, berriz, sorturiko Soberakin Gordina edo Errenta Mistoa da.

Ondasunen eta Zerbitzuen Kontua egokitze partiden helburua, bestalde, Kontu Nazionalan jasotako zatia ez bikoiztea da.

Ondoren, Satellite Kontuko funtsezko makromagnitudeak, alde batetik, EKSko Kontu Ekonomikoetan eta, bestetik, Ekonomia Hedatu osoan duten eragina aztertuko dugu.

EKSko Kontu Ekonomikoetan (hau da, BPGn):

- Etxeko Ekoizpena %21,3.
- BEG, lehen esan dugunez, %32,8.
- Bitarteko Kontsumoa %10,1.
- Azken Kontsumoa, etxeko lanaren ordainketa ere barne, Kontsumo Pribatuaren %75,9 da, eta ehuneko horrek ia zortzi puntuko murriztapena izan du 1998tik, kontsumoak urteotan izandako bilakaera he-

dakorraren eta ordaindu gabeko ekoizpenaren bilakaera urriaren eraginez.

– Inbertsioa (etxebizitzan egindakoa izan ezik, hori Kontu Nazionalen KFEGn sartzen baita) %2,8 da.

– Etxeko laneko eskulanaren ordainketa, azkenik, ordainketa osoaren %64,6koa da.

Ekonomia Hedatu osoan:

– Etxeko Ekoizpena %18.

– BEG %25.

– Bitarteko Kontsumoa %9.

– Azken Kontsumoa, etxeko lanaren ordainketa ere barne, Kontsumo Pribatuaren %49.

– Inbertsioa (etxebizitzan egindakoa izan ezik, hori Kontu Nazionalen KFEGn sartzen baita) %3.

– Etxeko laneko eskulanaren ordainketa ekonomia hedatuaren %39 da.

II.2.36. KOADROA. EKS-N JASO GABEKO ETXKO EKOIZPENAREN BALORAZIOA, FUNTZIOEN ARABERA (EUROAK MILATAN)

	1993	1998	2003		Aldaketa 98-03
			k.	% bertik.	
Ostatua ematea	3.683.020	4.148.265	4.639.942	30,2	11,9
Kudeaketak	182.041	116.698	118.764	0,8	1,8
Erdi aisialdiak	909.283	1.230.848	1.616.194	10,5	31,3
Joan-etorriak	42.377	47.601	59.591	0,4	25,2
Garbiketa	2.166.540	2.241.595	2.395.695	15,6	6,9
Mantenamendu-zerbitzuak	19.004	19.473	25.226	0,2	29,5
Beste konponketa batzuk	279.945	370.109	328.880	2,1	-11,1
Ondasun iraunkorren erosketa	83829	121941	95592	0,6	-21,6
Zaintzak eta hezkuntza ematea	1.522.358	1.854.417	2.261.730	14,7	22,0
Zaintzak eta hezkuntza	1.162.165	1.488.821	1.808.407	11,8	21,5
Joan-etorriak	360.193	365.596	453.323	2,9	24,0
Janaria ematea	5.238.073	5.854.045	7.132.993	46,4	21,8
Janaria prestatu	3.623.730	4.125.660	4.871.166	31,7	18,1
Eguneroko erosketak	1.392.419	1.440.933	1.769.806	11,5	22,8
Joan-etorriak	221.924	287.452	492.021	3,2	71,2
Arropa ematea	1.045.941	1.224.171	1.287.288	8,4	5,2
Arropa	903.526	1.070.276	1.064.282	6,9	-0,6
Erosketak	122.841	128.297	174.495	1,1	36,0
Joan-etorriak	19.575	25.598	48.511	0,3	89,5
Azken erabilerako ekoizpen osoa	11.489.392	13.080.898	15.321.953	99,7	17,1
Auzotarren laguntza	90.554	119.108	47.210	0,3	-60,4
Etxeko ekoizpena guztira (balio erantsia)	11.579.946	13.200.006	15.369.163	100,0	16,4
Etxeko ekoizpena guztira/BPG	49,1	38,5	32,8	-	-

Iturria: EUSTAT. Etxeko Ekoizpenaren satellite-kontua.

II.2.37. KOADROA. HEDATURIKO EKONOMIA ETA ETXKO EKOIZPEN OSOA (EKSTIK KANPOKOA) (€-AK MILATAN) EKS-KO ETA EKS-TIK KANPOKO KONTUA, 2003

	Hedaturiko Ekonomia Guztira 4(1+2+3)	EKStik kanpoko Ettxeko Ekoiz- pena eta EKStik kanpoko boron- datezko lana (3)	EKStik kanpoko %/Ekonomia hedatua	% Ez- EKS/EKS	Egokitz. (2)	EKS ekonomia guztira (1)
ONDASUNEN ETA ZERBITZUEN KONTUA (OZK)						
Baliabideak	157.828.715	21.516.089	14	15,8	0	136.312.626
Outputa	122.611.274	21.516.089	18	21,3	0	101.095.185
ZJL eta BEZ /produktuak	4.742.872	0	0	0	0	4.742.872
Ondasunen eta zerbitzuen inportazioak	30.474.569	0	0	0	0	30.474.569
Enpleguak	157.828.715	27.749.942	18	20,4	-6.233.853	136.312.626
Bitarteko kontsumoa	64.047.894	5.878.306	9	10,1	0	58.169.588
Azken kontsumo osoa	50.284.378	21.516.089	43	61,5	-6.233.853	35.002.142
Etxeetako azken kontsumoa	43.619.201	21.516.089	49	75,9	-6.233.853	28.336.965
Kontsumo publikoa	6.665.177	0	0	0	0	6.665.177
Kapital finkoaren kontsumoa	12.918.924	355.547	3	2,8	0	12.563.377
Izakinen aldaketa	530.420	0	0	0	0	530.420
Ondasunen eta zerbitzuen esportazioak	30.047.099	0	0	0	0	30.047.099
EKOIZPENAREN KONTUA (EK)						
Baliabideak	127.354.146	21.516.089	17	20,3	0	105.838.057
Outputa	122.611.274	21.516.089	18	21,3	0	101.095.185
ZJL eta BEZ /produktuak	4.742.872	0	0	0	0	4.742.872
Enpleguak (a+b+c)	127.354.146	21.516.089	17	20,3	0	105.838.057
Bitarteko kontsumoa (a)	64.047.894	5.878.306	9	10,1	0	58.169.588
Balio Erantsi Gordina	63.306.252	15.637.783	25	32,8	0	47.668.469
Kapital finkoaren kontsumoa (b)	4.757.509	268.620	6	6	0	4.488.889
Balio Erantsi Garbia (c)	58.548.743	15.369.163	26	35,6	0	43.179.580
USTIAPENAREN KONTUA (UK)						
Baliabideak	58.548.743	15.369.163	26	35,6	0	43.179.580
Balio Erantsi Garbia (BEG-kapital finkoaren kontsumoa)	58.548.743	15.369.163	26	35,6	0	43.179.580
Enpleguak (oinarrizko faktoreen kostua)	58.548.743	15.369.163	26	35,6	0	43.179.580
Soldatapekoen ordainketa	39.147.742	15.369.163	39	64,6	0	23.778.579
Zergak / produkzioa eta inportazioa	5.597.677	0	0	0	0	5.597.677
Ustiapeneko diru-laguntzak	-910.626	0	0	0	0	-910.626
Errenta Misto Garbia	14.713.950	0	0	0	0	14.713.950

Iturria: EUSTAT. Ettxeko Ekoizpenaren satellite-kontua.

2.2. I+G+b jarduerak eta IKT-ak

2.2.1. EAEko Berrikuntza Sistemaren adierazle nagusiak

Gastua I+G arloan. 2006an, Eustatek emandako datuen arabera, EAEn 907,7 milioi euroko inbertsioa egin zen Ikerketa Zientifiko eta Garapen Teknologikoko (I+G) jardueretan, aurreko urtean baino %10,2 gehiago. Gastu horri dagokionez, Bizkaia 420 milioi gastatu zituen (%46), Gipuzkoak 363 milioi (%40) eta Arabak 125 milioi (%14).


Ahalegina I+G arloan. Eustaten datuek diotenez, I+G arloan egindako gastua, 2006an, BPGren %1,47 izan zen, erregistraturiko baliorik altuena, zenbait urtetan nolabaiteko egonkortasuna egon ondoren.

Ahalegin hori Estatuko batez bestekoa baino handiagoa da (2006an %1,2, INEren datuen arabera), baina EB-15eko (%1,91), EB-25eko (%1,85) eta EB-27ko (%1,84) batez bestekoa baino txikiagoa.

Gipuzkoan %1,79koa izan zen, Bizkaian %1,34koa eta Araban %1,22koa. 2005ean, ehunekoak %1,71, %1,34 eta %1,18 izan ziren.

INEren datuen arabera, I+G arloan Estatuko batez bestekotik gorako intentsitate-zifrak dituzten autonomia-

II.2.16. GRAFIKOA. EAEn I+G ARLOAN EGINDAKO AHALEGINAREN ETA ENPLEGUAREN BILAKAERA




Iturria: Eustat

erkidegoak Madril (%BPGren %1,98), Nafarroa (%1,92), EAE (%1,6) eta Katalunia (%1,43) izan ziren. 2005eko ehunekoak honako hauek izan ziren: Madril (BPGren %1,82), Nafarroa (%1,67), EAE (%1,48) eta Katalunia (%1,35). Hazkunde-tasarik handieneko AAEEak Kantabria, Errioxa eta Asturias dira.

I+G arloko langileria BAOn. Goranzko joerak jarraitzen du. Horrela, 2006an 13.065 pertsonakoa izan zen, hau da, landun guztien %13,2 (aurreko urtean %13); milako hori Estatukoa (%9,6) eta EBkoa (%9,5) baino handiagoa da, eta lurralderik dinamikoenetatik hurbil dago edo gainditu egiten ditu: Frantzia (%14,1), Alemania (%12,6), Japonia (%13,5). Gure Memoria Sozioekonomikoaren aurreko edizioetan esan dugunez, hori oso pozgarria da.

II.2.17. GRAFIKOA. I+G ARLOAN DIHARDUEN BAOko LANGILERIAREN BILAKAERA, LANBIDEAREN ETA SEXUAREN ARABERA



Iturria: Eustat

II.2.38. KOADROA. ZIENTZIARI ETA TEKNOLOGIARI BURUZKO ADIERAZLEAK, 2006 (*)

	Alemania	Espania	Frantzia	Italia	Portugal	Erresuma Batua	AEB	Japonia	EB-27	EAE 2005	EAE 2006
I+G arloko gastua											
EAP guztira (milioitan)	55.144,80	12.704,90	35.470,30	15.754,90	1.498,40	29.772,80	290.387,80	109.005,50	213.193,40	890,4	979,9
BPGren ehunekoa (%)	2,51	1,2	2,12	1,1	0,81	1,76	2,67	3,2	1,84	1,44	1,47
Per capita	645,2	255,9	540,6	260,7	134,7	455,7	917,8	755,2	375,1	415,9	461,8
Gastuaren finantziakzioa (%)											
Enpresa	66,8	47,1	51,7	43	31,7	44,2	61,4	74,5	54,5	63,8	61,2
Administrazioa	30,4	42,4	37,6	50,8	60,1	32,8	30,4	17,7	34,8	32,4	35,4
Beste iturri batzuk	0,3	4,6	1,9	0	3,2	5,8	5,5	7,5	2,2	0,3	0,3
Atzerria	2,5	5,9	8,8	6,2	5	17,2	2,7	0,3	8,5	3,5	3,1
Gastuaren betearazpena (%)											
Enpresa	69,9	55,6	61,9	47,8	36,2	63	70,1	75	63,5	79,4	79,5
Enpresek bakarrik										72,5	71,9
CCTTak										6,9	7,5
Administrazioa	13,6	16,6	17,3	17,8	13,6	10,3	12,2	9,3	13,3	3,4	3,3
Unibertsitatea	16,5	27,7	19,5	32,8	39,1	23,4	13,6	13,7	22,2	17,2	17,2
IAGEPak	0	0,1	1,2	1,5	11	3,3	4,1	2,1	1,1	0	0
Langileria (BAO)											
Guztira	469.500	188.978	352.485	164.026	25.651	-	-	882.414	2.040.667	12.506	13.065
Landunei dagokienez (%)	12,6	9,6	14,1	7,1	5	-	-	13,5	9,5	13	13,2
Ikertzaileak (BAO)											
Guztira	268.100	115.798	200.064	72.012	21.003	157.662	1.261.227	675.330	1.217.524	7.820	8.145
Landunei dagokienez (%)	7,2	5,9	8	3,1	4,1	5,6	9	10,4	5,7	8,1	8,3
Ikertzaileen %, I+G arloko langile guztiei dagokienez(BAO)											
	57,1	61,3	56,8	43,9	81,9	-	-	76,5	59,7	62,5	62,3

(*)2006ko edo azken urte erabilgarriko datuak.

EAP= Erosteke Ahalmenaren Parekotasuna

BAO.= Baliokidetasuna arduraldi osoan

Iturria: EUSTAT. Ikerketa zientifiko eta garapen teknologikoko jardueri buruzko estatistika eta Eustat.

Gastua I+G arloan, betearazpen-sektoreka. I+G arloko gastuaren zatirik handiena (%79,5), Eustatek dioenez, enpresa-sektoreak egiten du; hala ere, enpresak eta teknologia-zentroak bananduz gero, enpresa-betearazpena %71,9 ingurukoa da. Berrito ere, eta enpresatik nahiko urrun, hurrengo postuetan unibertsitatea (%17,2), teknologia-zentroak (%7,5) eta Administrazioaren mendeko erakunde publikoak (%3,3) daude.

Horrela, EAEn I+G arloko enpresa-betearazpena Espainiako estatukoa baino handiagoa da, bertan, INEren

arabera, enpresek gastuaren %55,5 betearazi baitzuten I+G arloan; baita EB-15ean baino handiagoa ere, azken horretan enpresek %64,1 betearazi baitzuten, Eurostatek dioenez; EAE, hain zuzen ere, Finlandiaren (%71,3) eta Alemaniaren (%69,6) antzean dago, baina oraindik urrun, Luxenburgoren (%84,9) eta Suediaren (%74,9) ehunekoetatik.

2006tik 2007rako aldaketak agerian jarri duenez, gastuaren hazkunderik handiena teknologia-zentroek izan dute, %12ko tasarekin; gero, Goi Irakaskuntzak,

II.2.39. KOADROA. BARRUKO GASTUAK ZIENTZIA DIZIPLINAREN ETA BETEARAZPEN SEKTOREAREN ARABERA, FONDOEN JATORRIA AINTZAT HARTUTA (EUROAK MILATAN)

	2005					2006					2005/06ko aldaketarene %				
	Guztira	Fondoen jatorria				Guztira	Beste fondo batzuk				Guztira	Fondoen jatorria			
		Admin.	Enpr.	IAGEP	Atzerria		Admin.	Enpr.	IAGEP	Atzerria		Admin.	Enpr.	IAGEP	Atzerria
Guztira	823.459	266.910	525.745	2.384	29.420	907.722	321.759	555.082	2.294	28.587	10,2	20,5	5,6	-3,8	-2,8
Zientzia-diziplina															
Ingeniaritza	621.099	136.265	459.721	1.719	23.394	668.157	161.567	482.584	1.593	22.413	7,6	18,6	5	-7,3	-4,2
Medikuntza	65.481	43.083	20.877	246	1.275	70.153	41.074	27.689	98	1.292	7,1	-4,7	32,6	-60,2	1,3
Z. zehatzak/naturalak	73.541	51.125	21.239	256	921	108.953	80.931	24.778	258	2.986	48,2	58,3	16,7	0,8	224,2
Nekazaritza Z.	29.325	14.674	12.671	5	1.975	14.547	10.623	3.352	5	566	-50,4	-27,6	-73,5	0	-71,3
Gizarte Z.	34.014	21.764	11.237	158	855	45.912	27.564	16.679	339	1.330	35	26,6	48,4	114,6	55,6
Betearazpen-sektorea															
Administrazioa	27.632	24.923	1.773	141	795	30.124	26.224	2.804	0	1.097	9	5	58	-100	38
Goi-irakaskuntza	141.600	104.090	35.516	509	1.485	156.243	114.415	38.187	918	2.722	10	10	8	80	83
Zentro teknologikorik GABEKO enpresak	474.322	75.169	389.494	400	9.258	519.251	95.079	416.227	153	7.792	9	26	7	-62	-16
Zentro teknologikoak	179.905	62.727	98.962	1.334	16.882	202.104	86.041	97.864	1.223	16.976	12	37	-1	-8	1

Iturria: EUSTAT. "I+G arloko jardueren estatistika".

%10arekin, eta ondoren Administrazioak eta enpresek (biek %9).

I+G arloko gastuaren finantziazioa (gastua fondoen jatorriaren arabera). Sektorre pribatuak I+G arloko gastuaren zifra osoaren %61,2 finantzatzan du, 555,5 milioi euro (aurreko urtean %63,8), eta Administrazioak %35,4 (aurreko urtean %32,4). Estatuan, INEk emandako datuen arabera, sektore pribatuak %47,1 eta Herri Administrazioak %42,5 finantzatzan dute. EB-25EAN, Eurostatek emandako datuek diotenez, 2005ean ehunekoak %55 eta %35 izan ziren.

Sektore pribatuak finantziazio orokorrean garrantzia galdu duela ikusi arren, azken urteotan ere horixe da I+G arloko gastuaren finantziazio-iturri nagusia, eta EAE Lisboako helburua baino 4,8 puntu beherago dago: I+G arloko gastu osoaren %66 fondo pribatuekin finantzatzea.


I+G arloko gastuaren finantziazio pribatuaren ehunekorik altuenak, Eurostaten arabera, Luxenburgon (%84, 2003ko datua), Japonian (%74,5, 2004ko datua), Suitzan (%69,7, 2005eko datua), Finlandian (%69,3, 2005eko datua) eta AEBn (%63, 2003ko datua) daude.

I+G arloko gastua zientzia-diziplinaren arabera. Berriro ere ingeniaritza eta teknologia nabarmentzen da

(gastu guztiaren %73,6); horren atzetik, distantzia handian, zientzia zehatzak (%12), medikuntzakoak (%7,7), gizarte-zientziak (%5,1) eta nekazaritza-zientziak (%1,6) daude. 2005etik 2006ra, hazkunde nabarmena egon da zientzia zehatzetan/naturaletan (%48,2) eta gizarte-zientzietan (%+35), eta beherakada handia nekazaritza-zientzietan (%-50,4).

I+G arloko gastua, zientzia-diziplina bakoitza, fondoen jatorria aintzat hartuta. Ingenieritzako eta teknologiko ikerketaren zatirik handiena sektore pribatuak finantzatzan du orain ere (enpresek eta teknologia-zentroek diziplina honetako gastu osoaren %72,2ko finantziazioa). Zientzia zehatzetan/naturaletan, nekazaritza-zientzietan eta gizarte-zientzietan alderantzizkoa gertatzen da, Administrazioak finantzatzan baitu gastuaren %74,3, %73 eta %60, hurrenez hurren. Horrenbestez, aurreko urtean nekazaritza-zientzietan ikusitako joera aldaketa (sektore pribatuak garrantzia hartu baitzuen gastuaren finantziazioan) ez da azken aldi honetan errepikatu.

Azkenik, medikuntza-zientzietan Administrazioak gastuaren %58,5 finantzatzan du, enpresa-sektoreak %39,5, eta gainerakoa, berriz, IPSL eta atzerriko erakundeek finantzatzan dute.

II.2.18. GRAFIKOA. I+G ARLOAN DIHARDUEN BAOko LANGILERIAREN BILAKAERA, LANBIDEAREN ETA SEXUAREN ARABERA

Iturria: Eustat

I+G arloko langileria BAO-n, zientzia-diziplinariaren eta lanbidearen arabera. 2005etik 2006ra, arduraldi osoko I+G arloko langile kopuruak berriro ere gora egin du, baina aurreko aldiaren baino gutxiago (%4,5, eta aurreko aldiaren %4,9), eta 2006an, lehen esan dugunez, 13.065,3 pertsona izan ziren.

Horietatik, %62,3 (8.145 pertsona) ikertzaileak dira. EB-25ean ehuneko hori, Eurostaten datuen arabera, %60 ingurukoa da. Erreferentziako herri batzuetan ehunekoa baxuagoa da: Alemania (%57), Italia (%43), Luxenburgo (%47) eta Frantzia (%56). Baina beste zenbaitetan %65etik gorakoa da, adibidez, Finlandian (%70), Suedian (%67), Japonian (%77) eta Txinan (%79).

EAE-n arduraldi osoan diharduten 13.065,3 pertsonetatik %70,6k ingeniariari eta teknologiarik lotutako jardueretan egiten dute lan, eta gainerakoek zientzia zehatzetan eta naturaletan (%11,9), medikuntza-zientzietan (%8,4), gizarte-zientzietan (%7,4) eta nekazaritza-zientzietan (%1,7).

Emakumeak gero eta eginkizun handiagoa dauka ikerketa-jarduerak (aldi honetan ehuneko 5,4 puntuko hazkundea), baina oraindik gizonak baino eginkizun urriagoa dauka (%31,98 eta %69,14, hurrenez hurren). Estatuan, INEk emandako datuek diotenez, emakumeak

langileria osoaren %38,2 dira; ehuneko hori, beraz, EAEkoa baino txikiagoa da.

Lanbidea aintzat hartuta ikusten denez (ikertzaileak, teknikariak edo laguntzaileak), emakumeen kasuan ikertzaile kopurua (halako jardueretan diharduen emakume kopuru osoari dagokionez) gizon kopurua baino handiagoa da (jarduerok egiten dituzten gizon kopuruarekin konparatuta).

Arloka, EAE-n emakumearen presentziarik handiena nekazaritza-zientzietan eta medikuntza-zientzietan dago; hain zuzen ere, hurrenez hurren, langileria osoaren %52 eta %48,8 emakumeak dira.

Langileria I+G arloan, betearazpen-sektorearen arabera. 2005etik 2006ra %4,8ko hazkundea izan du, eta 20.260 pertsona dira. Langilerik gehienak enpresa-sektorean dabilta. Horrela, I+G jarduerak egiten dituen langileria osoaren %49,2 enpresan dabil (aurreko urtean %48,4), %30,1 goi-hezkuntzako erakundeetan, %15,4 teknologia-zentroetan (aurreko urtean ehuneko bera) eta %5,4 Herri Administrazioan.

EB-27an, "Science, technology and innovation in Europe, Eurostat statistical book, 2008 edition" txosteneko datuen arabera, 2004an, arduraldi osoko baliokidetasunean neurtuta,

II.2.40. KODROA. BAO-N DABILEN LANGILERIA, ZIENTZIA DIZIPLINAREN ARABERA

	2000		2001		2002		2003		2004		2005		2006	
	Guztira	% emak	Guztira	% emak	Guztira	% emak	Guztira	% emak	Guztira	% emak	Guztira	% emak	Guztira	% emak
Guztira	9.091,50	26,6	10.618,60	27,5	13.065,30	32,0	11.352,60	30,5	11.925,10	30,7	12.505,50	31,7	13.065,30	32,0
Zientziak zehatzak eta naturalak	1.276,50	31,4	725,4	40,9	1.554,00	45,6	1.060,00	42,3	1.408,00	42,1	1.343,00	44,7	1.554,00	45,6
Ingeniaritza eta teknologia	6.266,90	21,4	7.989,20	22,5	9.234,40	25,7	8.289,80	24,8	8.518,20	25,1	8.953,30	25,6	9.234,40	25,7
Medikuntza (1)	550,4	47,9	703,3	45,0	1.093,20	48,8	676,9	46,2	906,4	48,0	1.044,40	49,4	1.093,20	48,8
Nekazaritza-zientziak (2)	254,6	42,3	362,1	37,9	221,9	52,0	399,5	47,8	271,9	44,2	380,3	49,7	221,9	52,0
Gizarte- eta giza zientziak	743,1	40,7	838,6	44,9	961,8	46,5	926,4	48,3	820,6	45,0	784,5	47,1	961,8	46,5

(1) Farmazia barne (2) Abeltzaintza, basogintza eta arrantza barne.

Iturria: EUSTAT I+G arloko jardueri buruzko estatistika.

II.2.41. KODROA. BETEARAZPEN SEKTOREAREN ARABERAKO LANGILERIA, LANBIDEA AINTZAT HARTUTA

	GUZTIRA		EMAKUMEAK		Ikertzaileak		Teknikariak		Laguntzaileak	
	2005	2006	2005	2006	2006					
	Guztizko bertik. %	Guztizko bertik. %	Guzt. %	Guzt. %	Kop.	Guztizko horiz. %	Kop.	Guztizko horiz. %	Kop.	Guztizko horiz. %
Guztira	19.331,0	20.260,0	6.238,0	6.462,0	13.118	64,7	4.346	24,5	2.133	10,7
Enpresak	63,8	64,5	26,9	26,8	6.779	51,8	3.991	35,0	1.704	13,1
Enpresa bakarrik	48,4	49,2	21,8	22,8	4.618	46,4	3.633	39,5	1.401	14,1
Zentro teknologikoak	15,4	15,4	43	39,5	2.161	69,3	358	20,8	303	9,9
Herri Administrazioa	4,7	5,4	44,4	39,3	900	82,8	67	9,7	79	7,5
Goi-irakaskuntza	31,5	30,1	41,3	41,5	5.439	89,2	288	4,7	350	6,1

Iturria: EUSTAT, I+G arloko jardueri buruzko estatistika.

%53,3k enpresa-sektorean egiten zuten lan, %30,7k goi-
hezkuntzako erakundeetan, eta %15ek Administrazioan.

Eustaten datuek diotenez, 2005ean emakumeen
proportzioa %32,3koa zen, eta 2006an %31,9ra murriztu
zen. Hala eta guztiz ere, balio absolutuetan gora egin zuen
sektore guztietan, teknologia-zentroetan izan ezik. Horrela,
emakumeak betearazpen-sektore bakoitzean dabilen
langileria osoari dagokionez duen ehunekoa berriro ere
batez bestekotik gorakoa da (%31,9) unibertsitatean,
teknologia-zentroetan eta administrazioan, baina ez
enpresan, bertan ehunekoa %22,8 baita.

Ikertzaileen eta laguntzako langileen (teknikariak eta
laguntzaileak) arteko lotura, bestalde, Administrazioan 83-

18 da, Goi Hezkuntzan 89-11, enpresa-sektorean 46-54 eta
teknologia-zentroetan 69-31.

2.2.2. EAEko enpresa-sektoreko I+G+b jarduerak

*I+G arloko adierazleak enpresa-egitura osoan, tek-
nologia-zentroetan izan ezik*

Eustaten datuen arabera, 2006an I+G jarduerak egin
dituen enpresa kopurua (teknologia-zentroak aintzat hartu
barik) 1.106koa izan da (aurreko urtean 1.053); horietatik
635 industria-sektorekoak dira eta 437 zerbitzu-
sektorekoak. Horrenbestez, industrian eta zerbitzuetan I+G
egiten duen enpresa kopuruak, hurrenez hurren, %3,6ko

II.2.42. KOADROA. ENPRESA ETA LANGILE KOPURUAREN BILAKAERA I+G ARLOAN (ZT IZAN EZIK)

	Enpresa kop.				BAOko langileak		
	2004	2005	2006	Var. 2005-06	2004	2005	2006
Guztira	923	1.053	1.106	5,0	6.403,30	6.613,10	7.083,90
Nekazaritza nahiz arrantza, erauzketa eta energia	12	13	14	7,7	72,80	64,00	57,60
Industria	554	613	635	3,6	3.911,30	4.058,40	4.035,90
Eraikuntza	19	22	20	-9,1	29,2	34,30	37,20
Zerbitzuak	338	405	437	7,9	2.390,00	2.456,40	2.953,20

Iturria: EUSTAT I+G jardueri buruzko estatistika

eta %7,9ko gorakada izan du, eta eraikuntzan, ostera, %9,1eko beherakada.

2005ean, manufaktura-industriak I+G arloan egindako gastuaren %73 inguru I+G arloko intentsitate altuko eta ertain-altuko sektoreetan biltzen zen, eta %23,6 intentsitate ertain-baxuko sektoreetan. 2006an, intentsitate altuko eta ertain-altuko sektoreek garrantzia galdu dute, ertain-baxukoen alde, eta banaketa %71,9 - %24,5 da. Hala eta guztiz ere, kontuan hartu behar da zenbait sektorek, adibidez, "metalezko gaiak" (I+G arloko arduraldi osoko langile kopuru handia) automobil-sektorerako ekipamendua sortu ahal dutela, eta, kasu horretan, intentsitate ertain-altuko produkzioa izango litzateke.


Nolanahi ere, datu globalek (teknologia-zentroak ere barne) antzeko jokabidea erakusten dute. 2005etik 2006ra,

eduki teknologiko altuko eta ertain-altuko enbriak garrantzia galdu dute, eduki teknologiko ertain-baxukoen eta baxukoen alde, ondoko grafikoan ikusten denez. Zerbitzu-sektorearen kasuan, "intentsitate altukotzat" harturiko jardueren multzoak (informatikako eta I+G arloko jarduerak) garrantzi apur bat irabazi du, zerbitzu-sektoreko gastu osoan, eta %54,2tik %56ra igaro da.

Eurostaten datuek diotenez, EB-15ek esportaturiko high-tech produktuen ehunekoak, EB-27ko esportazio guztiei dagokienez, goranzko joera izan du 2000tik 2006ra, eta %20,41etik %16,67ra igaro da. Espainiako estatuaren kasuan, 1,22 puntuko murriztapena egon da: %5,94tik %4,72ra.

Bestalde, *Europako Berrikuntza Indizea* aztertzean ikusiko dugunez, teknologia altuko produktuen esporta-

153

II.2.19. GRAFIKOA. I+G ARLOKO BARRUKO GASTUAREN BANAKETA, MANUFATURA-SEKTOREAN (ZT KENDU BARIK), EDUKI TEKNOLOGIKOAREN ARABERA

Iturria: EUSTAT

II.2.43. KOADROA. SEKTOREEN ZERRENDA, I+G ARLOKO INTENTSITATEAREN ARABERA (INE-REN, OCDE-REN, EUROSTAT-EN ZERRENDEN KONBINAZIOA)			
Altua	Industria farmazeutikoa	Baxua	Paperaren nahiz paperezko produktuen fabrikazioa, eta edizioko nahiz inpresio eta erreproduziko (grabazioak) jarduerak
	Bulegoko makineria eta material informatikoa		Janari-, edari- eta tabako-produktuen fabrikazioa
	Osagai elektronikoak		Zurezko produktuak, eta zurezko nahiz kortxoak produktuen fabrikazioa, altzariak izan ezik
Ertaina-altua	Irrati, TB eta komunikazioetako aparatuak	Baxua	Lastozko gaien eta txirikordatzeko moduko produktuen fabrikazioa
	Medikuntza, zehaztasun, optika eta erlojugintzako tresnak		Oihalen nahiz larruen fabrikazioa, larru-adobatzeara, eta maleten fabrikazioa
	Eraikuntza aeronautikoa eta espaziala		Eskuzko zorroak, talabareria nahiz kuarnizioneriako gaiak eta zapatak
Ertaina-baxua	Industria kimikoa, industria farmazeutikoa izan ezik	Teknologia altuko edo puntako zerbitzuak	Altzarien fabrikazioa, manufaktura-industriak eta birziklapena
	Makineria eta ekipak		Postak eta telekomunikazioak
	Makineria eta aparatu elektrikoak		Informatika-jarduerak
Ertaina-baxua	Automobil-industria	Teknologia altuko edo puntako zerbitzuak	Ikerketa eta garapena
	Itsas eraikuntza, trenbidekoa, motozikletak zein bizikletak eta garraioko beste material batzuk		
	Metalezkoak ez diren beste produktu mineral batzuen eraikuntza		
Ertaina-baxua	Kokearen, petrolioaren fintzearen ondoriozko produktuen eta erregai nuklearraren eraikuntza	Teknologia altuko edo puntako zerbitzuak	
	Itsasontzien eta beste ontzi batzuen eraikuntza eta konponketa		
	Metalezko produktu landuen fabrikazioa, makineria eta ekipamendua izan ezik		
Ertaina-baxua	Metal arrunten fabrikazioa	Teknologia altuko edo puntako zerbitzuak	
	Kautxuko eta plastikozko produktuen fabrikazioa		

Iturria: INE (Metodologia)

zioen garrantzia nahiko txikiagoa da EAEn EBn baino: EAEren kasuan esportazio guztien %3,7, eta Europar Batasunaren kasuan %16,67.

I+G arloko jardueretan diharduen langileria dagokionez, halako jardueretan langilerik gehien dituzten sektoreak honako hauek dira: I+G arloko jarduerak, sektorean lan egiten duten langileen %25,2k halako jarduerak baino ez baititu egiten; zehaztasunek materiala %8,7; makina-erreminta %7,5, material elektronikoa %6,2, eta informatika-jarduerak %6,1.

I+G arloko jardueren adarra alde batera utzita, hau da, aintzat hartu barik jarduera nagusitzat I+G arloko jarduerak egitea duten (ingeniaritzak eta aholkularitza teknologikoak) eta, beraz, gainerakoek ez bezalako ezaugarriak, helburuak eta finantziakzioa duten enpresen jarduera, ikusten da EAEko enpresek, batez beste, ehuneko handian enpresen fondoekin ordaintzen dituztela halako gastuak. Hala eta guztiz ere, datu horiekin kontuz ibili behar da, proiektu

askoren finantziakzioaren benetako jatorria ezin baita zehatz jakin. Eustatek dioenez, enpresa biren arteko lankidetzak duten proiektu batzuetan, finantziakzioaren jatorria publikoa izan daiteke.

Enpresa-egituraren berrikuntza

Osloko Eskuliburuaren hirugarren ikuskapenean (2006an argitaratua) ezarritakoaren arabera:

- Enpresaren barruko jardueretan, enpresaren barruko ekintzetan, lantokiko antolamenduan edo kanpoko harremanetan produktu berri edo hobetu bat (ondasuna edo zerbitzua), prozesu bat, merkaturatze-metodo berri bat edo antolamendu-metodo berriren bat sartzea da **berrikuntza**.
- **Jarduera berritzaileak**, bestalde, berrikuntzak sartzeko egiten diren eragiketa guztiak dira, zientziaren, teknologiaren, antolamenduen, finantzaren eta

II.2.44. KOADROA. ENPRESA SEKTOREKO ADIERAZLEAK I+G ARLOKO JARDUERA ADARRAREN ARABERA. 2006

	Enpresa kopurua	BAOko langileak	Barruko gastuaren banaketa (€-ak milatan)		Bertako fondoen %	Kanpoko fondoen %	Enplegu osoa EAEn	I+G arloko langileriaren % EAEn
			2005	2006				
Guztira	1.106	7.083,9	474.322	519.251	73	27	875.612	0,8
Nekazaritza eta arrantza, erauzketa eta energia	14	57,6	5.240	4.236	84	16	5.022	1,1
Industria	635	4.035,9	297.403	311.652	81	19	216.183	1,9
M-A Kimika eta petrolioaren fintzea	44	320,9	18.299	19.844	83	17	6.550	4,9
M-B Kautxua eta plastikoa	47	195	12.358	12.688	83	17	17.919	1,1
M-B Metalezkoa ez den industria	14	40,6	5.042	2.592	91	9	6.774	0,6
M-B Metalurgia	51	262,1	21.762	25.133	81	19	15.926	1,6
M-B Metalezko gaiak	127	563,1	31.151	35.970	86	14	53.625	1,1
M-A Makina-erreminta	36	329,4	18.265	16.744	81	19	4.391	7,5
M-A Etxeko aparatuak	8	231,6	22.052	19.461	82	18	6.251	3,7
M-A Beste makina batzuk	90	421,1	28.572	33.860	92	8	19.821	2,1
M-A Material elektrikoa	41	325,7	20.059	28.042	86	14	9.692	3,4
A Material elektronikoa	17	220,8	12.896	13.209	85	15	3.537	6,2
A Zehaztapeneko materiala	35	342,4	27.233	19.124	85	15	3.937	8,7
M-A Garraioko materiala	40	589,8	69.801	73.702	67	33	20.084	2,9
Beste fabrikatzaile batzuk	85	193,4	9.913	11.283	90	10	42.654	0,5
Eraikuntza	20	37,2	2.555	1.812	73	27	87.062	0,0
Zerbitzuak	437	2.953,2	169.123	201.552	60	40	572.367	0,5
A Jarduera informatikoak	111	726,9	28.511	32.497	62	38	11.943	6,1
A I+G arloko jarduerak	60	996,3	63.139	80.382	64	36	3.961	25,2
Beste enpresa-jarduerak batzuk	141	681,2	46.093	49.805	48	52	92.467	0,7
Beste zerbitzu batzuk	125	548,8	31.380	38.868	68	32	463.996	0,1

Iturria: EUSTAT I+G arloko jardueren buruzko estatistika.

merkataritzaren arlokoak. Jarduera horietariko batzuk berez dira berritzaileak, eta beste zenbait, berriak izan ez arren, beharrezkoak dira berrikuntzak sartzeko. Berrikuntza-jardueren barruan, berrikuntza bereziren bat sartzearekin lotuta ez dauden I+G arloko jarduerak ere sartzen dira.

- Berrikuntza mota guztien ezaugarri komuna sartuta egotea da. Produktu berri edo hobeturen bat, merkaturatzen denean, sartu egin dela esaten da. Prozesu, merkaturatze-metodo edo antolamendu-

metodo bat sartu egin dela esan da enpresaren eragiketa-esparruan erabili denean.

- **Enpresa berritzailea** inkestan aintzat harturiko aldian berrikuntzaren bat sartu duen enpresa da.
- Gerta daiteke inkestan aztertutako aldian jarduerak berritzaileak garatu dituzten enpresa batzuek benetako berrikuntzarik ez sartzea. Berrikuntzak garatzean edo sartzean inplikaturiko jarduerak guztiak, ondoren sartzeko aurreikusita daudenak ere barne, berrikuntza-jarduerak

dira. Aldi horretan, berrikuntza-jarduerak hiru motakoak izan daitezke:

- Lortutakoak, berrikuntza sartzea lortu dutelako (berrikuntzak merkatuan arrakastarik izan ez arren).
 - Garapen-fasekoak, oraindik ere sartze-fasera heldu ez direnak.
 - Berrikuntza sartu orduko bertan behera utzitakoak.
- **Jarduera berritzaileak** dituen enpresa bat inkestan aztertutik auzian berrikuntzako jarduerak (garapen-fasekoak edo bertan behera utzitakoak ere barne) garatu dituen enpresa da. Hau da, aztertutik auzian berrikuntzako jarduerak garatzen dituzten enpresa guztiak “jarduera berritzaileko enpresatzat” hartzen dira, kasuan kasuko jarduerak berrikuntza sartzea lortu edo ez.

INEren eta EUSTATen arabera, metodologiaren aldetik haxe hartu behar da aintzat:

- **Enpresa berritzaileen** (merkatuan produktu nahiz prozesu berriak edo hobetuak sartzen dituztenak) eta **berrikuntza teknologikorako jarduerak dituzten enpresen arteko desberdintasuna.**

Berrikuntza teknologikorako jarduerak, izatez ere, teknologikoki berriak edo hobetuak diren produktuak edo prozesuak egiteko lanak dira, zientziaren, teknologiaren, antolamenduaren, finantzaren eta merkataritzaren arlokoak, ezagupen berrietan egindako inbertsioa ere

barne. Horien artean, hain zuzen ere, honako hauek sartzen dira: barruko I+G; kanpoko I+G (I+G eskuratzea); makineria eta ekipamendua lortzea, kanpoko beste ezagupen batzuk eskuratzea (lizentziak, patenteak eta copyrightak); heziketa; berrikuntzak merkatuan sartzea; eta diseinua, ekoizpenerako edota banaketarako beste prestakuntza batzuk.

- **Berrikuntza** esaten denean, horrek banaketa haxe izan dezake: **produktua, prozesua, garapen-fasea eta bertan behera utzitakoa.** Baina **enpresa berritzaile** diogunean, **produktuan edo prozesuan berrikuntzak dituzten enpresak** adierazi nahi ditugu, eta ez garapen-faseko edo bertan behera utzitako berrikuntzak dituztenak.

Laugarren eta azken Community Innovation Survey deritzonoko datuen arabera (2004an argitaratuta: CIS, 2004), EB-27an jarduera berritzaileak egiten dituzten 9 langiletik gorako enpresen proportzioa Alemaniako industria enpresen %75,8tik Bulgariako zerbitzu-enpresen %12,7ra bitartekoa da. EB-27an, industria-enpresen %41,5ek eta zerbitzu-sektoreko enpresen %37k halako jarduerak egiten dituzte. Espainiako estatuaren kasuan ehunekoak txikiagoak dira: %36,5 eta %32,1. INEk eta EUSTATEk ez dute informaziorik argitaratu EAEn jarduera berritzaileak dituzten enpresen ehunekoari buruz, baina bai arlo horretako gastuari buruz, ondorengo lerroetan azalduko dugunez.

II.2.45. KOADROA. BERRIKUNTZA TEKNOLOGIKORAKO JARDUERETARAKO GASTUA						
	2004		2005		2006	
	Gastua (bertikalaren%)	Gastua BPGri dagok.	Gastua (bertikalaren%)	Gastua BPGri dagok.	Gastua (bertikalaren%)	Gastua BPGri dagok.
Guztira (euroak milatan)	2.010.243 (100)	3,8	2.161.666 (100)	3,8	2.353.019 (100)	3,8
Barruko I+G	38,3	1,4	38,4	1,4	38,6	1,5
Kanpoko I+G	11,4	0,4	13,5	0,5	15,6	0,6
Makineria	39,6	1,5	38,4	1,4	37,4	1,4
Beste ezagupen batzuk	2,8	0,1	3,3	0,1	2,8	0,1
Heziketa	2,1	0,1	1,7	0,1	1,3	0,0
Merkaturatzea	1,7	0,1	2,7	0,1	2,9	0,1
Diseinua eta prestakuntzak	2,7	0,1	1,9	0,1	1,4	0,1

Iturria: EUSTAT, Berrikuntza Teknologikoaren Inkesta

**II.2.46. KOADROA. BERRIKUNTZA TEKNOLOGIKORAKO JARDUERETAN EGINDAKO GASTUA, JARDUERA ADARRAREN, TAMAI-
NAREN ETA JARDUERA MOTAREN ARABERA. 2006 (B)**

	Guztira		Barruko I+G	Kanpoko I+G	Makine- ria	Beste ezagupen batzuk	Heziketa	Merkatu- ratzea	Diseinua eta prestakun- tzak
	miles	% vertical							
Guztira	2.353.019,20	100,0	38,6	15,6	37,4	2,8	1,3	2,9	1,4
Industria	1.167.564,20	49,6	28,2	24,2	40,7	3,4	0,7	1,2	1,7
5. Industria eta elikadura	39.534,50	1,7	9,5	10,3	51,9	19,1	0,5	3,3	5,4
6. Oihalgintza eta jantzigintza	824,5	0,0	79,0	2,5	15,8	0,1	0,6	2,0	0,0
7. Zuraren industria	27.087,10	1,2	2,2	0,4	97,1	0,0	0,1	0,0	0,1
9. Papera, edizioa eta grafikoak	38.242,40	1,6	0,3	2,5	94,1	0,1	0,7	0,0	2,4
11. Industria kimikoa	35.968,60	1,5	61,4	15,7	16,2	0,0	1,5	4,9	0,4
12. Kautxua eta plastikoa	30.559,40	1,3	22,6	12,9	61,4	0,2	0,6	0,7	1,6
13. Metalezkoa ez den indust.	19.544,60	0,8	24,0	5,3	56,6	0,7	6,2	4,8	2,4
14. Metalurgia eta metalezko gaiak	229.703,30	9,8	20,0	19,5	54,1	1,6	0,7	0,3	3,7
15. Makineria	142.937,30	6,1	60,8	21,1	15,3	0,2	1,1	1,0	0,6
16. Material elektrikoa	97.160,30	4,1	66,4	20,4	5,6	0,6	1,5	2,2	3,3
17. Garraioko materiala	328.269,60	14,0	25,5	14,4	59,1	0,1	0,4	0,3	0,2
18. B. manuf.-industria batzuk	21.514,20	0,9	27,7	10,5	31,1	0,5	0,9	19,9	9,3
Beste industria batzuk	156.218,40	6,6	2,2	78,1	2,5	17,0	0,0	0,0	0,1
Eraikuntza	55.073,20	2,3	2,6	0,6	84,9	1,9	9,7	0,0	0,2
Zerbitzuak	1.130.381,90	48,0	51,1	7,5	31,7	2,2	1,4	4,9	1,2
21. Merkataritza eta konponk.	159.275,40	6,8	5,8	1,9	70,0	2,2	1,2	18,8	0,1
22. Ostalaritza	9.988,80	0,4	0,1	0	99,5	0,2	0,2	0,0	0,0
23. Garraioa eta komunikazioak	55.920,00	2,4	7,5	5,8	63,4	11,5	2,2	3,8	5,9
24. Banka eta aseguruak	45.217,50	1,9	22,6	48,3	11,3	9,7	1,5	2,7	3,9
25. Zerbitzuak enpresei	558.097,70	23,7	69,8	8,8	14,4	1,7	1,0	3,0	1,2
27. Hezkuntza	222.353,50	9,4	69,7	1,2	24,5	0,6	1,4	2,1	0,4
28. Osasuna eta gizarte-zerbitzuak	62.022,30	2,6	8,1	3,8	84,0	0,2	3,3	0,6	0,0
29. Zerbitzu pertsonalak	17.506,70	0,7	23,5	14,4	51,9	0,8	5,0	1,7	3,7
Enplegu estratuak									
0-2	148.093,30	6,3	5,6	0,6	88,8	0,1	1,2	3,6	0,1
3-9	375.268,40	15,9	21,4	34,5	32,4	1,4	0,7	7,3	2,2
10-19	182.522,80	7,8	21,9	15,8	53,4	2,1	3,7	2,0	1,0
20-49	338.771,30	14,4	47,8	14,4	24,8	3,1	2,4	4,6	2,9
50-99	222.041,10	9,4	54,4	10,7	27,1	1,2	1,0	3,2	2,5
100 eta gehiago	1.086.322,30	46,2	45,8	12,5	35,4	4,0	0,8	0,9	0,7

Iturria: Eustat. Berrikuntza Teknologikoaren Inkesta

INEren Berrikuntza Teknologikoaren Inkestako datuen arabera¹, 2006an berrikuntza teknologikoaren arloko jardueretan gasturik handiena egin duten autonomia-erkidegoak Madril (guztia %33,9), Katalunia (%21,4) eta EAE (%9,4) izan dira.

Eustaten Berrikuntza Teknologikoaren Inkestako datuek diotenez², berrikuntza teknologikorako jardueretan egindako gastu osoak %8,8ko hazkundera izan du, aurreko urteko aldiari dagokionez, eta 2006an 2.353 milioi eurokoa izan zen. Gastu hori BPGren %3,8 da, eta ehuneko hori egonkor mantendu da azken urteotan.

Urte honetan ere, gasturik handiena barruko I+G arloan eta makineriaren erosketan egin da (hurrenez hurren, %38,6 eta %37,4), hain zuzen ere, BPGren %1,5 eta %1,4, hurrenez hurren.

Jarduera-adarren arabera, industriaren barruan, gastua honako hauetan biltzen da: *garraioko materiala* (gastuaren %14), *metalurgia eta metalezko gaiak* (%9,8) eta *makineria* (%6,1). Lehenengo bietan, gastuaren %50 baino gehiago makineria erosteko da, eta *makineria*-sektorearen barruan, berriz, gastuaren %60,8 barruko I+G gastua da. Zerbitzu-sektorean, aipagarria da enprese-

tarako zerbitzuen adarra, gastuaren %23,7rekin, eta bertako gastu osoaren %68,8 barruko I+G da.

Aurreko urteetan ikusitako joerei jarraituz, enpresa handiek gastu handiagoa egiten dute, baina 3-9 enplegatu bitarteko enpresak oso aktiboak dira (gehienbat, enpresa berritzaileei zerbitzuak emateko enpresak), eta 50-99 enplegatu bitartekoak ez dira hain aktiboak.

INEk horri buruz eskainitako informazioak banantze maila desberdina erabiltzen du (250 enplegatutik beherako enpresak eta 250 enplegatuko nahiz gehiagoko enpresak); horretan oinarrituz ikusten denez, Estatuan gertatzen denaren alderantziz (gastuaren partaidetza altua eta gero eta handiagoa, 250 langiletik gorako enpresetan, 2003ko %53,7tik 2006ko %60,1eko hazkunderarekin), EAEn banaketa orekatuagoa da. Horrela, 2006an, lehenengo ETEek gastuaren %49,5 egin zuten (771.278,8 mila euro).

"Statistics in focus, Eurostat, 61/2007" agirian esaten denez, jarduera berritzaileak egiten dituzten enpresa guztiek ez duten produktu berriak edo hobeturi sartzen merkatuan. EB-27an, halako produktuak (produktu berriak edo nabarmen hobetuak) sartzen dituztenak jarduera berritzaileak enpresa guztien %35,9 dira. %50etik gorako

II.2.47. KOADROA. BERRIKUNTZAKO JARDUERETAN EGINDAKO GASTU OSOAREN BANAKETA, ENPRESAREN TAMAINAREN ARABERA (EHUNEKO BERTIKALAK)

	2003		2004		2005		2006	
	Estatua	EAE	Estatua	EAE	Estatua	EAE	Estatua	EAE
Guztira (euroak milatan)	11.198.505	1.062.815	12.490.813	1.186.154	13.635.950	1.348.099	16.533.416	1.558.139
250 langile baino gutxiago	46,3	38,4	44,6	50,8	40,4	52,8	39,9	49,5
250 langile eta gehiago	53,7	61,6	55,4	49,2	59,6	47,2	60,1	50,5

Iturria: INE

¹ Industria-, eraikuntza- eta zerbitzu-sektoreko 9 soldatapeko baino gehiagoko enpresa-lagineria zuzendutako inkesta da; 2006ko berri-tasuntzat, nekazaritza, abeltzaintza, ehiza, basogintza eta arrantzako adarren ikerketa sartu da.

2005era arte, inkestan ez zen Hezkuntzaren adarra sartzen, eta urte horretatik aurrera Hezkuntzaren arloko enpresak sartu dira (80. atala, CNAE-93ren arabera), 8030 adarreko enpresak izan ezik (Goi Irakaskuntza). Aldiz, Eustatek hezkuntza-sektore osoa sartu du beti. Horrenbestez, 2005era arte, distortsio-elementu garrantzitsua zen, INEren estatistikarekin konparatzeko orduan; izan ere, 2005ean hori zuzendu arren, ez da erabateko zuzenketa, ez baita 8030 adarra sartzen.

Bestalde, 2006an, INEk (berri-tasuntzat) nekazaritza-, abeltzaintza-, ehiza- eta arrantza-adarraren ikerketa sartu du, eta Eustatek ez du halakorik egin.

² Edozein tamainako eta edozein jarduera-sektoreko enpresei zuzenduta (lehen sektorea, herri-administrazioa eta etxeko zerbitzua izan ezik. INEren kasuan ez bezala, Hezkuntza osoa sartzen da). Hau da, biztanleria-arloa hauxe da: edozein tamainako eta jardueraren sektore hauetako establezimenduak, CNAE-93ren arabera (1. ikusk.): C, D, E, F, G, H, I, J, K, M, N eta O. Beraz, honako hauek kanpoan gelditzen dira: lehen sektorea (A eta B), herri-administrazioa (L) eta etxeko zerbitzua (P).

II.2.48. Koadroa. BERRIKUNTZA EB-KO ENPRESA EGITURAN, 2004

	Jarduera berritzaileak egiten dituzten enpresak, Industriako eta Zerbitzueta enpresa guztien %-tzat		Merkatura produktu berriak edo hobetua sartu dituzten enpresak, jarduera berritzaileak egiten dituzten enpresen %-tzat, enpresen tamainaren arabera			
	INDUSTRIA	ZERBITZUAK	GUZTIRA	10-49 langile	50-249 langile	250 langiletik gora
Alemania	72,8	57,5	26,9	22,7	31,7	42,1
Austria	57,5	47,9	48,4	47,3	47,1	64,7
Belgika	58,1	45,3	40,7	38,5	44,0	53,1
Bulgaria	18,0	12,7	56,4	57,6	52,9	58,6
Txekia	41,1	33,9	41,5	39,0	44,4	48,3
Zipre	53,2	37,9	14,6	11,6	21,7	40,9
Danimarka	57,7	46,0	47,7	46,2	49,3	58,0
Eslovakia	26,9	17,0	41,6	39,7	42,6	45,1
Eslovenia	34,3	16,0	46,6	40,8	50,1	58,1
Espainia	36,5	32,1	20,9	18	28,2	43,2
Estonia	47,0	50,7	41,9	43,7	35,4	44,7
EB-27	41,5	37,0	35,9	33,2	39,6	49,2
Finlandia	49,3	36,8	49,6	47,4	52,2	58,0
Frantzia	36,1	29,0	38,6	34,1	43,3	57,9
Grezia	35,1	36,7	44,4	43,3	47,6	54,2
Hungaria	21,1	20,4	36,3	36,5	33,9	40,7
Irlanda	60,9	43,8	44,5	38,0	57,2	62,8
Islandia	52,6	51,4	77,6	82,4	59,6	89,5
Italia	37,5	33,5	31,1	28,7	37,8	52,2
Letonia	17,4	17,6	34,5	33,8	36,4	34,1
Lituania	31,2	25,7	34,5	30,9	38,4	43,8
Luxenburgo	48,9	53,2	51,6	51,4	48,8	64,2
Malta	26,3	16,1	25,0	25,0	25,0	25,0
Norvegia	43,4	31,6	36,5	37,6	32,5	38,6
Herbehereak	41,6	29,2	48,3	47,5	48,3	56,8
Polonia	26,6	22,0	46,4	44,8	47,6	50,4
Portugal	39,1	44,3	30,1	27,3	35,8	44,6
Erres. Batua	44,4	41,8	47,8	47,3	48,2	51,9
Errumania	21,6	16,1	27,9	25,1	29,2	36,2
Suedia	54,3	45,9	52,4	52,8	49,9	56,5

Iturria: Eurostat – Community Innovation Survey 2004 (CIS 2004)

ehunekoa duten herri bakarrak Bulgaria (%56,4), Suedia (%52,4) eta Luxenburgo (%51,6) dira. Espainiako estatutako ratioa, iturri horren arabera, %20,9koa da.

INEren datuek diotenez, 2004-06 aldian produktuan edo prozesuan berritzaileak izan dira Estatuan 9 enplegatu baino gehiago dituzten enpresak, eta EAEn ehunekoa %27,7koa da. Horrela, enpresa berritzaileen ehunekoa 2,4 puntu handiagoa da EAEn Estatuan baino.

EUSTATen arabera, enpresa berritzaileen ehunekoa (berritzaileak produktuan edota prozesuan), enpresa

guztiei dagokienez, egonkor mantendu da azken urteotan, eta %16,5 eta %16,9 bitartekoa da.


Garapen-faseko edota bertan behera utzitako berrikuntzak dituzten enpresak aintzat hartuta (EBEak: enpresa berritzaileak edo garapen-faseko edo bertan behera utzitako berrikuntzak dituztenak), ehunekoa apur bat handiagoa da, eta hemen ere nolabaiteko egonkortasuna dago, kasu honetan %17koa.

9 enplegatutik gorako enpresa berritzaileak soilik kontuan hartuta, enpresa berritzaileen ehuneko orokorra

II.2.49. KOADROA. ENPRESA BERRITZAILEEN EHUNEKOAREN BILAKAERA, ENPRESA GUZTIEI DAGOKIENEZ				
	2001-03	2002-04	2003-05	2004-06
Enpresa berritzaileen guztizkoa (berrikuntzak produktuan eta prozesuan)	16,5	16,8	16,9	16,6
EBE guztiak (berrikuntzak produktuan, prozesuan, jardunean eta huts eginda)	-	17,4	17,1	17,1
+ 9 enplegutik gorako enpresa berritzaileak (produktua eta prozesua)	32,1	31,9	33,3	32,7
+ 9 enplegutik gorako EBEak (produktuan, prozesuan, jardunean eta huts eginda)	-	34,7	35,2	34,5

EBEak: enpresa berritzaileak edo berrikuntzadunak (jardunean edo huts eginda)

Iturria: Eustat. Berrikuntza Teknologikoaren Estatistika



Iturria: Eustat. Berrikuntza Teknologikoaren Inkesta

%32,7koa da (aurreko aldian %33,3). 9 enplegatutik gorako EBEen kasuan, ehunekoa %34,5ekoa da (aurreko aldian %35,2).

Ikuspegi sektorialetik begiratuta, berretsi egin da aurreko aldietan ikusitako joera, eta, horren arabera, zerbitzu-sektoreak posizioak irabazi ditu. Horrela, 2004-2006 aldian, zerbitzu-sektoreko enpresen %19 berritzaileak ziren, eta industria-sektorekoen artean ehunekoa %17,9 izan zen. Hala eta guztiz ere, enpresa handiagoen kasuan, industriak berritzaileagoak dira (%35,6 eta %33,1, hurrenez hurren).

Jarduera-azpisektoreak kontuan hartuta, industrian honako hauek nabarmentzen dira: industria kimikoa

(enpresen %51,2), makineria (%35,3) eta kautxua eta plastikoa (%24,2). Eta zerbitzuetan, berriz, banka eta aseguruak, hezkuntza eta osasuna.

Berrikuntza teknologikoaren motaren arabera, berriro ere prozesuko berrikuntzak nagusitu egiten zaizkie produktuko berrikuntzei, bai 9 enplegatutik gorako establezimenduetan eta bai 9 enplegatutik beherakoetan. Hain zuzen, enpresa guztiei dagokienez, prozesuko berrikuntzak egin dituztenak %15,1 dira (aurreko aldian %15,4), eta produktuko berrikuntzak, berriz, %5,8k baino ez dituzte egin (aurreko aldian %5,7). 9 enplegatutik gorako establezimenduetan, ehunekoak handiagoak dira, baina hemen ere prozesuko berrikuntza nagusitu egiten



II.2.50. KOADROA. ENPRESA BERRITZAILEEN %, JARDUERA ADARRAREN ETA BERRIKUNTZA TEKNOLOGIKO MOTAREN ARABERA. 2004-2006

	Enpresak guztira						+ 9 enplegutik gorako enpresak					
	Berrikuntza teknologiko mota					Enpresa berritzai-leak	Berrikuntza teknologiko mota					Enpresa berritzai-leak
	EBEak guztira	Produk-tua	Proze-sua	Jard.	Huts.		EBEak guztira	Produk-tua	Proze-sua	Jard.	Huts.	
Guztira	17,1	5,8	15,1	3	0,8	16,6	34,5	14,4	27,9	12,2	2,8	32,7
Industria	19,7	10,9	10,4	7,9	2,5	17,9	38,3	21	24,9	21,6	5,4	35,6
5. Elikadura-industria	12,7	10,4	4,3	2,5	1,1	12,4	29,9	16,6	21,9	11,5	3,5	27,8
6. Oih. eta jantzigintza	2,8	1,1	2,0	0,3	0,2	2,8	22,4	13,3	12,9	3,1	2,0	22,4
7. Zuraren industria	7,1	1,7	5,9	0,5	0,3	7,0	57,0	13,7	47,5	4,3	2,5	56,1
9. Papera, edizioa eta grafikoak	28,2	15,8	2,3	0,5	10,0	17,8	20,4	5,4	14,7	2,9	0,0	17,4
11. Industria kimikoa	54,4	39,5	32,6	28,7	11,4	51,2	62,3	49,4	32,3	40,7	21,6	56,1
12. Kautxua eta plastikoa	25,7	10,1	20,3	12,7	2,3	24,2	48,4	25,2	34,7	31,8	5,8	44,6
13. Metalezkoa ez den industria	14,5	10,2	7	8,5	2,5	11,2	35,9	22,2	11,9	27,4	8,0	25,2
14. Metalurgia eta metalezko gaiak	17,1	4,1	15,1	6,2	1,7	16,7	34,2	12,7	28,1	19,3	5,0	32,9
15. Makineria	36,3	24,4	16,4	17,4	2,5	35,3	45,7	38,8	18,4	32,4	6,2	43,3
16. Material elektrikoa	21,8	17,2	11,9	14,2	1,8	21,2	50,9	38,4	24,2	33,1	6,5	48,7
17. Garraioko materiala	24,3	15,4	17,1	14,6	3,1	22,8	39	26	32,8	23,7	6,7	37,7
18. B. manufaktura-industria batzuk	19,5	17,6	1,7	15,6	1,0	18,5	38,1	24,5	13,9	20,7	4,1	31
B. industria batzuk	18,1	11,9	13,8	14,0	1,2	15,5	31,5	8	16,1	17,3	5,2	20,5
Eraikuntza	2,8	2,5	2,8	0,1	0,0	2,8	24,1	18,7	23,6	1,5	0,1	23,7
Zerbitzuak	19,4	5,8	17,9	3,0	0,7	19,0	34,7	10,1	30,4	9,6	1,9	33,1
21. Merkataritza eta konponketa	15,2	3,9	14,0	0,2	0,1	15,2	16,2	5,0	13,4	4,2	3,0	15,1
22. Ostalaritza	4,4	0,1	4,4	0,0	0,0	4,4	32,8	2,0	31,9	0,4	0,7	32,8
23. Garraioa eta komunikazioak	19,5	6,4	19,0	14,6	0,0	19,5	29,0	10,7	25,4	5,2	0,1	28,8
24. Banka eta aseguruak	39,3	22,4	39,2	4,8	0,4	39,3	32,2	28,5	31,5	12,4	3,7	32,2
25. Zerbitzuak enpresei	24,0	5,8	21,4	2,3	0,5	23,2	39,3	17,4	29	26,5	3,9	35,5
27. Hezkuntza	36,2	2,6	30,9	7,1	4,9	31,4	70,2	10	67,6	9,3	0,8	69,4
28. Osasuna eta gizarte-zerbitzuak	31,0	15,0	26,9	0,4	0,1	30,7	39,0	12,5	34,4	5,4	0,6	35,8
29. Zerbitzu pertsonalak	18,2	8,2	17,6	5,3	5,0	18,1	12,8	5,3	9,0	4,0	0,1	10,6

Iturria: Eustat. Berrikuntza Teknologikoaren Inkesta

II.2.51. KOADROA. PRODUKTUKO BERRIKUNTZA DUTEN NEGOZIO ZIFRAREN GAIKOA ERAGINA				
	Produktuko berrikuntza duten establezimendu guztiak		EProduktuko berrikuntza duten 10 enplegatuko eta gehiagoko establezimenduak	
	Establezimendurako produktu berri bakoitzeko	Merkaturako produktu berri bakoitzeko	Establezimendurako produktu berri bakoitzeko	Merkaturako produktu berri bakoitzeko
Guztira 2003-05	22,0	14,8	20,4	7,9
Guztira 2004-06	25,3	13,6	23,7	8,7
Industria	19,8	6,4	25,1	8,2
Eraikuntza	11,8	8,5	1,0	0
Zerbitzuak	27,5	15,4	30,8	12,4

Iturria: EUSTAT. Berrikuntza Teknologikoaren Inkesta -BTI.



II.2.52. KOADROA. BERRIKUNTZA OZTOPATZEN DUTEN FAKTOREAK, 2004-06 (ESTABLEZIMENDUEN %)

	Establezimenduak guztira				10 langileko eta gehiagoko establezimenduak			
	Guztira	Jarduera-adarra			Guztira	Jarduera-adarra		
	Establ. %	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak	Establ. %	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak
Berrikuntza oztopatzen duten faktoreak daude	53,8	69	58,3	51,4	64,1	77,8	44,3	61,2
Fak. ekonomikoak	45,6	62,2	49,3	43,2	54,1	67,6	39,4	50,3
Gehiegizko arrisku ekonomikoak	39,9	52,6	40,3	38,5	40,9	53,4	33,1	36,1
Berrikuntza-kostu handiak	41,7	51,5	45,5	39,9	48,3	61,6	39,0	43,3
Finantziario-iturririk eza	30,1	42,8	35,4	27,8	34,7	44	32,1	30,5
Barruko faktoreak	35,6	47	48,8	31,9	47,9	57	38	45,3
Antolamendu-zurruntasunak	13,5	19,8	12,7	13,0	21,5	26,4	12,5	20,8
Trebatutako langilerik ez	23,4	35	43,5	18,5	27,8	39,7	11,7	25,1
Teknologiari buruzko informaziorik ez	20,2	22,1	14,9	20,9	24,6	31,3	12,4	23,6
Merkatuari buruzko informaziorik ez	18,9	28,5	17,5	18,1	25,4	29,5	33,1	21,6
Beste faktore batzuk	30,7	37,4	31,5	29,9	37,2	39,9	33,9	36,5
Arauetan malgutasun nahikorik ez	20,3	21,5	16,5	20,8	23,8	23,4	28,4	23,1
Bezeroen sentikortasunik eza	23,3	30,7	22,7	22,6	26,4	31,8	13,5	26,4

Iturria: EUSTAT. Berrikuntza Teknologikoaren Inkesta –BTI.

zaio produktuko berrikuntzari; hain zuzen ere, prozesuko berrikuntzen kasuan, ehunekoa %27,9koa da, eta produktuko berrikuntzetan %14,4 (aurreko urtean %27,7 eta %14,3, hurrenez hurren).

Produktuko berrikuntzak enpresan duen batez besteko eragin ekonomikoa bertako negozio-zifraren %25,3koa da. Enpresarako ez ezik merkaturako ere izanez gero, batez besteko eragin ekonomiko hori negozio-zifraren %13,6koa da. 9 enplegatutik gorako enpresetan, ehuneko horiek aldatu egiten dira apur bat, eta produktu berriek edo nolabait hobetuek negozio-zifran duten batez besteko eragina %23,7koa da. Produktua merkaturako ere berria izanez gero, batez besteko eragin ekonomikoa %8,7koa da. Jarduera-sektoreka, berrikuntzaren eraginik handiena zerbitzu-sektoreak dauka.

Kanpoko finantziazioari dagokionez, Eustaten datuen arabera, finantziazio publikoa izan duten enpresa berritzaileen ehunekoa murriztu egin da, 2001-03ko

%36,8tik 2004-06ko %27,6ra. Laguntzen jatorriaren arabera, establezimendu kopururik handiena laguntzen duen administrazioa Eusko Jaurlaritza da, baina laguntza horren garrantzia murriztu egin da, beste iturri batzuen alde (esate baterako, Toki Administrazioa eta EB).

CIS 2004an jasotako datuek diotenez, jarduera berritzaileak egin eta finantziazio publikoa (tokikoa, naziokoa edo EBkoa) jasotzen duten enpresen ehunekoa aldagarria da herri batetik bestera, Bulgariako %5etik Norvegiako %44ra. Zenbait ehuneko murriztu egin dira bi hauen artean: CIS 3 (2000) eta CIS 4 (2004), ondoko laukian ikusten denez.

Handitzearen barruko herrietan (2004 eta 2007), gehienez enpresen %20k jaso dute finantziazio publikoa, Zipreren (%36) eta Hungariaren (%27) kasuan izan ezik.

Berrikuntza oztopatzen duten faktoreei dagokienaz, 2004-06 aldian, EAEko enpresa berritzaileen %53,8ren

ustez, badira halako faktoreak. 9 enplegatutik gorako enpresen artean, ehunekoa %64,1ekoa da.

Oro har, enpresa-egitura berritzaileak honako oztopo nagusi hauek aipatu ditu: faktore ekonomikoak (enpresen %45,6k aipatu dituzte), hain zuzen ere, kostu altuak (%41,7), eta gehiegizko arrisku ekonomikoak (%39,9).

CIS 4 deritzonaren barruan kontsultaturiko enpresek aipaturiko oztopo nagusia ere berori da, eta, gainera, CIS 3 eta CIS 4 deritzenen arteko konparazioak agerian jartzen du arazoa gero eta garrantzitsuagoa eta larriagoa dela.

Europako Berrikuntza Indizea

Europako Berrikuntza Indizeak (European Innovation Scoreboard) herrietako ekonomiek berrikuntza-jardueretarako duten gaitasuna eta jarduera horien garapen maila neurtzen ditu. Bost dimentsiotan egituratzen da. Hiru dimentsioek berrikuntza edo inputa eragiten dituzten elementuak aztertzen dituzte: sustatzaileak, ezagupenaren sorkuntza eta enpresek berrikuntzarako duten ekimena. Beste bi dimentsioek emaitzak edo outputa ebaluatzen dute: berrikuntzaren aplikazioak eta jabetza intelektuala.

Indizeak 25 adierazle erabiltzen ditu, dimentsio horien garrantzia indize konposatu batean adierazteko.

Eustatek landutako datuen arabera, 2007an EAE aurreko urteko postu berean dago (13) EB-27an, eta 0,37ko puntuazioa dauka 1,00ko gehieneko puntuaziotik (aurreko urtean 0,35). EB-27rako indizea 0,45 da, eta Estaturakoa 0,31koa.

Sailkapeneko lehenengo postuetan berriro ere Suedia (0,73), Finlandia (0,64), Danimarka (0,61), Alemania (0,59) eta Erresuma Batua (0,57) daude. Europar Batasuneko aintzat hartu ezean, talde horren barruan Suitza (0,69), Israel (0,62), Japonia (0,60) eta AEB (0,55) ere sartzen dira.

Bigarren taldean, 0,47tik 0,53 bitarteko puntuazioekin (Europar Batasuneko batez bestekoaren gainetik), Luxenburgo, Irlanda, Austria, Herbehereak, Frantzia eta Belgika sartzen dira. EB-27tik kanpokoak: Islandia eta Kanada.

Europako batez bestekoari dagokionez, EAE oraindik ere nabarmendu egiten da **“berrikuntzaren sustatzaileak”** taldeko adierazle batzuetan. Hain zuzen ere:

- Zientzietako eta ingeniartzetako graduatuen ratio handia (bigarren mailako LH ere barne): 20-29 urte bitarteko mila gazteko 26,1, eta Europako tasa milako 12,9koa da; gehien hurbiltzen diren herriak Irlanda (milako 24,5) eta Frantzia (milako 22,5) dira.
- Goi-hezkuntza (Unibertsitatea eta goi mailako LH) duen 25-64 urte bitarteko biztanleriaren ehunekoa EBren batez bestekoaren ia bikoitza da (%41,8 eta %23, hurrenez hurren).
- Gutxienez bigarren hezkuntza amaitu duen 20-24 urteko biztanleria (%79,2) Europar Batasuneko batez bestekoa (%77,8) baino goratxoago dago
- Banda zabalaren hedapena nabarmen hobetu da, eta %10etik %14,7ra igaro da, EBko joerari jarraituz (%10etik %14,8ra).

“Ezagupenaren sorkuntza” dimentsioan, EAEn ezaugarri bereizgarriak honako hauek dira:

- Europako erakunde publikoek BPGren %0,65 betearazten dute I+G arloan, eta ehuneko hori EAEn erdia da (%0,29). Hala eta guztiz ere, sektore pribatuan kontzeptu horretan gastua EBkoaren antzekoa da: EAEn %1,14 eta Europar Batasunean %1,17.
- Industriako I+G arloko eta goi teknologiako inbertsioa, I+G arloan egindako gastu osoari dagokionez, txikiagoa da: %73, eta EB-27ko batez bestekoa %85,2.
- EAEko enpresa berritzaileek Europako batez bestekotik gorako finantziazio publikoa jasotzen dute (%13,6 eta %9, hurrenez hurren).

“Enpresa ekimena eta berrikuntza” dimentsioan:

- EAEko 10-249 langile bitarteko enpresa berritzaileek barruko berrikuntza gehitxoago editen dute, EBko batez bestekoa baino (%26,8 eta %31,6, hurrenez hurren); hala ere, salmenten gaineko berrikuntza-gastua apur bat txikiagoa da 10 langileko eta gehiagoko enpresetan (%1,6, eta EB-27an %2,2).
- Enpresek beste enpresa batzuekin edo erakundeekin lankidetzat urriagoa dute EAEn Europan baino.
- Arrisku Kapitalerako BPGren ehunekoa, hasierako faseetan, EAEn %0,02 da, eta EBko batez bestekoa %0,05 da.
- IKTetan egindako gastua BPGren %5,1 izan zen EAEn, Europar Batasunean egindakoa baino 1,3 puntu handiagoa.

II.2.53 KOADROA. EUROPAKO BERRIKUNTZA INDIZEA 2007 (SII)

	EB-27	Suedia	Finland.	Danim.	Aleman.	Err. Batua	Luxenbur.	Irlanda	Austria	Herb.	Frantzia	Belgika	Estonia	EAE	Espain.
SII	0,5	0,7	0,6	0,6	0,6	0,6	0,5	0,5	0,5	0,5	0,5	0,5	0,4	0,4	0,3
Sailkapena		1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	18
BERRIKUNTZAREN SUSTATZAILEAK															
Zientzi. eta Teknologiako graduatuak	12,9	14,4	17,7	14,7	9,7	18,4	1,8	24,5	9,8	8,6	22,5	10,9	12,1	26,6	11,8
Heziketa tertziarioa duen biztanleria	23	30,5	35,1	34,7	23,8	30,7	24,0	30,8	17,6	29,5	25,5	31,8	33,3	41,8	29,9
Banda Zabalaren sarreraren %	14,8	22,9	24,9	29,6	15,3	19,2	17,4	8,8	15,8	29,0	18,0	20,7	16,6	14,7	13,2
Ikaskuntza iraunkorra	9,6	32,1	23,1	29,2	7,5	26,6	8,2	7,5	13,1	15,6	7,5	7,5	6,5	12,4	10,4
Gazteen gutxieneko heziketa	77,8	86,5	84,7	77,4	71,6	78,8	69,3	85,4	85,8	74,7	82,1	82,4	82	79,2	61,6
EZAGUPENAREN SORKUNTZA															
Gastu publikoa I+G arloan	0,7	0,9	1,0	0,8	0,8	0,6	0,2	0,4	0,8	0,8	0,8	0,6	0,5	0,3	0,5
Gastu pribatua I+G arloan	1,2	2,9	2,5	1,7	1,8	1,1	1,3	0,8	1,6	1,0	1,3	1,2	0,4	1,1	0,6
I+G gastua enpresen teknologia ertainean eta altuan	85,2	92,7	86,4	84,7	92,3	91,7	--	85	82,3	87,9	86,8	79,5	--	73,0	77,0
Finantziazio publik. hartzen duten enpresa berritz.	9	--	15,2	7,8	9,2	--	39,3	27,8	17,8	12,9	6,6	11,7	0,3	13,6	9,0
ENPRESA BERRIKUNTZA															
Barruko berrikuntza egiten duten ETEak	21,6	30,0	24,7	28,5	32	--	33,1	37,3	32,4	18,6	19,7	31,4	29,5	26,8	18,4
Berrikuntza laguntzen duten ETEak	9,1	20,0	17,3	20,8	8,6	12,6	14,8	15,6	7,7	12,3	11,5	16,6	16	6,1	5,7
Gastuak enpresen berrikuntzan	2,2	3,5	--	2,4	2,9	--	1,6	1,7	--	1,2	2,2	2,0	1,6	1,6	0,9
Arrisku-kapitala	0,1	0,1	0,0	0,0	0,0	0,2	--	0	0,0	0,0	0,0	0,0	--	0,0	0,0
Gastua IKTetan	6,4	8,6	7,0	6,5	6,2	8,0	6,8	5,2	6,3	7,6	6,0	6,3	9,8	5,1	5,5
Antolamendu-berrikuntzadun ETE berritzaileak	34	--	--	57,1	53,2	--	58,4	49,6	48,1	26,2	35,9	38,1	39,2	22,6	27,6
APLIKAZIOAK															
Teknologia altuko zerbitzueta enplegua	3,3	5,1	4,6	4,2	3,5	4,2	3,3	3,9	2,9	4,1	3,7	4,0	2,8	3,2	2,7
Teknologia altuko zerbitzuen esportazioa	16,7	12,8	18,1	12,8	13,6	26,5	40,6	28,9	11,3	18,3	17,8	6,6	8,1	3,7	4,7
Merkaturako produktu berrien salmenta	7,3	8,3	9,7	5,2	7,5	6,4	6,4	5,6	5,2	4,0	6,2	4,8	4,4	1,6	3,8
Enpresarako eta ez merkaturako produktu berrien salmentak	6,2	5,1	5,1	5,8	10,0	7,6	9,1	4,5	5,4	4,3	5,6	8,2	7,6	2,5	10,0
Teknologia ertaineko eta altuko enplegua	6,6	6,3	6,8	5,8	10,8	5,5	1,4	5,7	6,8	3,3	6,3	6,6	3,5	10,2	4,5
Europako Bulegoko patente berriak	128	284,9	305,6	235,8	311,7	121,4	200,5	77,3	195,1	244,3	149,1	144,5	15,5	50,5	30,6
Amerikako Patente eta Marka Bulegoko patente berriak	52,2	113,9	133,2	64,0	129,8	50,6	97,7	42,4	63,4	84,2	52,4	55,7	0,0	12,5	6,5
Europako, Amerikako eta Japoniako Bulegoko patente berriak, aldi berean	20,8	42,7	29,3	25,3	53,8	15,8	47,2	11,4	30	47,4	25,1	20,0	1,4	2,2	2,7
EBn erregistraturiko marka berriak	108,2	164,1	119	191,5	164,6	139,0	902,0	164,2	221,5	172,3	83,9	103,7	42,5	176,1	143,0
EBn erregistraturiko diseinu berriak	109,4	144,9	97,9	240,5	202,7	75,0	95,4	58	208,8	138,8	98,6	103,8	19,4	103	103,7

Iturria: Eustat y Maastricht Economic Research Institute on Innovation and Technology eta CE

“Aplikazioak” dimentsioan:

- Teknologia ertaineko eta altuko industria-sektoreetako landunen tasak handiagoak dira EAEn Europar Batasunean baino (%10,2 eta %6,6, hurrenez hurren), eta zerbitzu-sektorekoak ia berdin-berdinak dira (%3,2 eta %3,3); hala eta guztiz ere, teknologia altuko produktuen esportazioen garrantzia nahiko txikiagoa da: EAEren kasuan esportazio guztien %3,7, eta Europar Batasunean %16,7.
- 10 langileko eta gehiagoko enpresa berritzaileen produktuen salmentak negozio-zifran duen eragina ere Europar Batasuneko baino txikiagoa da: merkaturako berriak direnean %1,6, eta enpresarako soilik direnean berriak %2,5. Europar Batasuneko ehunekoak %7,3 eta %6,2 dira, hurrenez hurren.
- Jabetza intelektualari dagokionez, marken eta diseinuen babesak (erregistroaren bidez) Europako en antzeko tasak edo handiagoak izan arren, patenteen kasuan ez da gauza bera gertatzen.

2.2.3. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Egitamua

2007ko uztailaren 24an Gobernu Kontseiluak 2010eko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Egitamua onetsi zuen, eta, EAEko CESeko Osoko Bilkurak agiri horri buruzko txostena egitea onetsi zuen aho batez (1/2007 txostena).

“2010eko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Egitamuak” 10 puntu ditu:

- 1. eta 2. puntuetan, hurrenez hurren, Sarrera eta Erreferentzia Esparrua daude.
- 3. puntuan Diagnostikoa egiten da
- 4., 5., 6. eta 7. puntuetan Hausnarketa Estrategikoa dator, hurrenez hurren:
 - EAEko Berrikuntza Sistema: Bigarren Aldaketa Handiaren eragilearen helizeak.
 - 2010eko ZTBEn Dekalogo Estrategikoa.
 - I Kultura-aldaketa
 - II Eraitzen orientazioa
 - III Trebaturiko pertsonak
 - IV Oraingo enpresa-oinarriaren lehiakortasuna
 - V Sektorer sorberrietarako dibertsifikazioa
 - VI Ekimen teknologikoa eta presentzia globalekoa
 - VII Teknologia- eta berrikuntza-konbergentzia
 - VIII Kalitatezko ikerketa
 - IX Unibertsitatea

X Europako Ikerketa Eremua

- Hamar gako estrategikotan euskarrituriko Jarduketa Eredua:
 - I Kultura-aldaketa.
 - II Politika Zientifikoa.
 - III Oraingo oinarri ekonomikoaren lehiakortasuna: oraina sustatu.
 - IV. Sektorer sorberrietarako dibertsifikazioa: etorkizuna eraiki.
 - V. Jarduera ekintzaile teknologikoa eta presentzia globalekoak.
- EAEko Berrikuntza Sistemako eragileak Estrategia Berrian.

– Jarduketa Eremuak eta Programak biltzen dituzten 8. eta 9. puntuak.

Lau eremu nagusi daude: Lehiakortasuna edo orainaren sustapena, Dibertsifikazioa, Eko-berrikuntza eta Gizarte Berrikuntza.

- Lehiakortasuna: EAEko oraingo enpresa-oinarria osatzen duten sektoreetako lehiakortasuna hobetu behar da. Sektoreek honako hauek dira: turismoa, merkataritza, energia, errendimendu altuko manu-fakturak, material berriak, elikadura-segurtasuna, informazioaren teknologiak, ingurumen-adimena eta hizkuntzaren industriak.
- Dibertsifikazioa. Helburua sektorer berriak sustatzea da, Zientzian eta Teknologian oinarrituz, enpresa-egitura ezagupeneko sektorer intentsiboetara dibertsifikatzen laguntzeko.
- Eko-berrikuntza. Ingurumena eta berrikuntza binomioak (horren paradigma eko-berrikuntza) laguntzako mekanismo eta programa bereziak behar ditu, izaera estrategikoa duelako; beraz, Egitamuak zenbait jarduketa jasotzen ditu, ingurumena gure garapenaren funtsezko aldagaitzat sustatzeko behar diren ezagupena eta teknologiak garatzeko.
- Gizarte Berrikuntza. Berrikuntza gizarte-fenomenoa da, eta, horrenbestez, ezin da produktuaren, prozesuaren, marketingaren eta antolamenduaren berrikuntzara mugatu. Giza dimentsioa sartu behar da, pertsonen nahiz erakundearen artekoa, etab.

Ondoren, jarduketa-programa zehatzak aurkeztzen dira, jarduketa bakoitzak ereduaren duen eragin nagusiaren arabera bilduta:

– 10. puntua. 2010erako baliabideak eta adierazleak mugitzeko helburua.

2010erako berrikuntzan mugiarazi ahal diren baliabideen aurreikuspena egiten da, finantziazioaren jatorriaren ikuspegitik begiratuta; EAEko Administrazioak ekintzak sustatzen, prozesua errazten eta baliabide pribatuak mugitzen izango duen eginkizun garrantzitsua azaltzen da.

Azken helburua Egitamuaaren amaierarako I+G arloko gastua BPGren %2,25ekoa izatea da (2015erako %3). Hain zuzen ere, 2006-2010 aldirako 6.714 milioi euroko finantziazio publikoa lortu nahi da Zientzian, Teknologian eta Berrikuntzan, eta 3.634 milioi euroko finantziazio pribatua.

Horretarako, beste eragile batzuen eta sektore pribatuaren partaidetzarekin, hurrengo lau urteotan lau mila eta bostehun milioi euro inguru mugituko lirateke.

2.2.4. IKTen sektorea EAEen

Eustaten datuen arabera, 2005ean IKTen sektoreak (2.001 enpresa) balio erantsiaren %3,8 eta enpleguaren %2,2 izan zuen EAEen. Produktu horien kanpoko merkataritza (esportazioak eta inportazioak) ez da garrantzitsua.

Sektoreko enpresarik gehienek (1.411 eta %87,8) makineriaren nahiz ekipamenduen alokairuan eta jarduera informatikoan dihardute, eta negozio-zifraren %28 eta balio erantsiaren %29 sortzen dute, sektore osoari dagokionez (hain zuzen ere, 1.241 eta 562,5 milioi euro, hurrenez hurren). Bestalde, telekomunikazioen azpisektorean lan egiten duten 135 enpresek negozio-zifraren %44 eta sektoreko aberastasunaren %50 sortzen dute.

IKTen sektoreko enpresen %7,2k (145) I+G jarduerak egiten dituzte. Sektore guztiak erreferentziatzat hartuta, ehunekoa ez da %1era heltzen (%0,68). IKTen sektoreko I+G jarduerak egiten dituzten enpresarik gehienak zerbitzuen adarrean daude, hain zuzen ere, makineriaren nahiz ekipoaren alokairuan eta jarduera informatikoetan (96 enpresa, %66).

Halako jardueretan dabilen langile kopurua 1.343,7koa da BAOen, eta langileriak %11,3ko hazkundera izan du, 2004koari dagokionez, Eustatek emandako datuen arabera. Horietatik 731,9 (%54,5) ikertzaileak dira. Emakumeek sektorean duten partaidetzari dagokionez, langile guztien %22,9 emakumeak dira, eta ikertzaile guztien %20,7; bi ehuneko horiek sektore osoko batez

II.2.54. Koadroa. IKT SEKTOREKO MAGNITUDE NAGUSIAK, 2005

		Guztira	IKT sektorea guztira	Zerbitzuak	Zerbitzuak			
					Guztira	Makineria eta ekipamenduko handizkako merkataritza	Telekomun.	Makineriaren nahiz ekipamenduen alokairua eta Jarduera Informatikoak
Datu orokorrak	Enpresak	164.086,0	2.001,0	243,0	1.758,0	212,0	135,0	1.411,0
	Negozio-zifra (€-ak milatan)		4.443.073,0	871.975,0	3.571.098,0	374.563,0	1.954.642,0	1.241.893,0
	Balio Erantsia (€-ak milatan)	51.110.318,0	1.927.413,0	319.770,0	1.607.643,0	75.712,0	969.406,0	562.525,0
	Landunak	965.358,0	23.406,0	6.872,0	16.534,0	1.378,0	3.364,0	11.792,0
I+G	I+G egiten duten enpresak	1.124,0	145,0	38,0	107,0	7,0	4,0	96,0
	Langileak guztira	9.208,7	1.343,7	585,2	758,5	64,2	34,7	659,6
	Emakumeen %	26,8	22,9	19,6	25,5	18,7	29,1	26,0
	Ikertzaileak guztira	4.976,5	731,9	371,5	360,4	57,6	6,0	296,8
	Emakumeen %	28,3	20,7	16,7	24,9	20,0	1,7	26,3
Establezimendu berritzaileak	Guztira (%)	16,9	26,6	17,0	28,2	27,4	38,4	26,7
	9 enplegu baino gehiago (%)	33,3	45,5	58,9	41,9	27,4	39,0	49,6
Jarduera berritzaileko establezimenduak	Guztira (%)	16,5	31,0	22,3	32,4	66,5	28,7	31,0
	9 enplegu baino gehiago (%)	31,6	58,3	62,9	57,0	66,5	39,0	56,4

Iturria: Eustat

bestekotik beherakoak dira: %26,8 eta %28,3, hurrenez hurren.

Halaber, sektore guztien eta IKTko sektoreen arteko desberdintasun handiak ikusten dira berrikuntzan. Horrela, 2005ean, IKT sektoreko establezimenduen %31k jarduera berritzaileak egin zituzten, eta sektore guztien kasuan ehunekoa %16,5 izan zen. Enpresaren tamaina kontuan hartuta, 10 langileko edo gehiagoko enpresetan ehunekoa %58,3 izan zen, eta sektore guztien ehunekoa %31,6 izan zen.

IKT sektoreak, 2005ean, 74,4 milioi euro gastatu zituen I+G arloan, eta gastu horrek %16ko hazkundea izan zuen aurreko urteari zegokionez. Zifra hori EAEko enpresa-sektore osoak I+G arloan egindako gastu guztiaren %11,4 da. Gastu horren zatirik handiena (hain zuzen ere, %92) gastu korrontea da.

Berrikuntzako gastua 135,4 milioi eurokoa da; horietatik 122,3 milioi 10 langileko edo gehiagoko establezimenduei dagokie.

Bi gastuen intentsitateari dagokionez (hau da, berrikuntzako eta I+G arloko gastuak, negozio-zifrari dagokionez), IKT sektorea gainerako sektoreek baino proportzio handiagoa bideratu zuen I+G+b arlora, eta, horretan, ez dago enpresen tamainaren arabera desberdintasunik.

Sektorean IKTen erabilerak hedapen handia dauka, batez ere 9 langiletik gorako enpresetan. Sektoreko establezimenduetan, interneten erabilera %94,5koa da, eta sektore guztien batez bestekoa %56,5koa da. Interneteko konexioa duten establezimenduen %70,6k web orria dute, eta %85,3k banda zabaleko konexioa; sektoreen multzo osoan ehunekoa %37,2 eta %76,3 dira, hurrenez hurren. Eta %94k posta elektronikoa dauka, eta sektoreen multzoaren batez bestekoa %52 da.


Hala eta guztiz ere, merkataritza elektronikoaren hedapena, gainerako sektoreetako baino handiagoa izan arren, baxua da. Salmenta elektronikoa egin duten establezimenduak %4,7 dira (9 langiletik gorako kasuan %13,4), eta erosketak elektronikoa %40,7k egin dituzte (10 langileko edo gehiagoko establezimenduen kasuan %43,6).

Datu hauek Estatukoekin konparatuta, 9 langiletik gorako establezimenduetan, EAEko IKTen sektoreak halako teknologien erabilera-tasa handiagoak ditu, adierazlerik gehienetan. Aurkako egoeran daudenak, honako hauek dira: banda zabaleko konexioa duten establezimenduen ehunekoa, Estatuko batez bestekoa %97,6koa eta EAEkoa %89,7koa baita; eta salmenta elektronikoa egiten dituen establezimendu kopurua, Estatuan eta EAEn antzekoa baita.


II.2.55. KOADROA. GASTUA ETA INTENSITATEA I+G ARLOAN ETA BERRIKUNTZAN, 2005

		Guztira	Enpresa-sektorea guztira	IKT sektorea guztira	Industria	Zerbitzuak			
						Guztira	Makineriaren eta ekipamenduaren handitzako merkataritza	Telekomu.	Mak. eta ekip. alokairua eta jarduera informatikoak
Gastua I+G arloan (€-ak milatan)	Barruko gastua I+G arloan	823.459	654.227	74.362	34.942	39.420	4.114	2.834	32.472
	Gastu korrontea	710.038	560.084	68.432	33.275	35.157	4.045	2.280	28.832
	Kapital-gastua	113.421	94.144	5.930	1.667	4.263	69	554	3.640
IKT sektoreko berrikuntza-gastua (€-ak milatan)	Guztira	2.161.666	-	135.422	46.127	89.295	17.080	13.664	58.551
	9 enplegu baino gehiago	1.677.796	-	122.267	45.877	76.390	17.080	13.428	45.882
Intensitatea I+G arloan (gastua/negozio-zifra)	Guztira	0,6	-	1,6	3,7	1,2	0,3	0,7	2,4
	9 enplegu baino gehiago	0,8	-	1,7	3,9	1,2	0,3	0,7	2,8
Intensidad en innovación	Guztira	1,6	-	2,9	5,4	2,4	2	0,8	4,5
	9 enplegu baino gehiago	1,8	-	2,9	5,8	2,3	2	0,9	4,7

Iturria: Eustat

II.2.23. GRAFIKOA. IKTAK ETA MERKATARITZA ELEKTRONIKOA ERABILTZEAREN ADIERAZLEAK, 2005 (%)

(1) internet dten establezimenduak
Iturria: Eustat.

II.2.24. GRAFIKOA. IKTAK ERABILTZEN DITUZTEN 9 LANGI-LETIK GORAKO ENPRESAK ESTATUAN ETA EAEen, 2005(%)

* internet duten establezimenduak.
Iturria: Eustat.

Horrela, honako hauen ehunekoak gora egin du: ordenagailua (2003ko hirugarren hiruhilekoko %46,2tik 2007ko hirugarren hiruhilekoko %57ra), internet (%30,8tik %45,7ra), teletestua (%70,9tik %83,3ra), ordaindutako telebista (%6,1etik %19,8ra) eta sakelako telefonoa (%75,1etik %88ra).

Eurostatek eta INEk emandako datuek diotenez, interneteko konexioa duen 16-74 urte bitarteko kide bat (gutxienez) duten etxeen kopurua, 2007an, %54koa da EB-27an, %56koa EB-25ean eta %59koa EB-15ean; banda zabaleko konexioa dutenei dagokienez, %42 EB-27an, %43 EB-25ean eta %46 EB-15ean. Horrenbestez, EAE (%50eko eta %40ko ehunekoekin, hurrenez hurren) Europako batez bestekoa baino apur bat gorago dago, baina erreferentziako herrietako balioetatik urrun: Suedia, Finlandia, Danimarka, Luxenburgo eta Erresuma Batua. Baita EBn oraintsu sarturiko herri batzuetatik urrun ere, adibidez, Esloveniatik (interneteko konexioan %58).

Hain zuzen ere, INEren datuek diotenez, 2007an EAE autonomia-erkidegoen artean lehenengo postuan dago, telefono finkoa duten etxebizitzien ehunekoan (%91,2); hirugarren postuan ordenagailua duten etxebizitzien artean (%63,6), Madrilen eta Kataluniaren atzean (aurreko urtean Melilla ere aurretik zegoen); laugarren postuan interneteko konexioan, Madrilen, Kataluniaren eta Melillaren atzetik (aurreko aldia seigarren postuan); seigarren postuan

2.2.5. IKT ekipamenduak eta erabilerak EAEen**Etxeetan**

IKT ekipamenduen maila familietan. EUSTATEN Informazioaren Gizartearen Inkestak agerian jarritakoaren arabera, etxeetako IKT ekipamenduen mailak goranzko joerarekin jarraitzen du, bideoaren eta antena parabolikoaren kasuan izan ezik, horien ordezko ondasunak sortu baitira (adibidez, DVDa eta TDTa).

II.2.56. Koadroa. Familiak, etxean duten IKT ekipamenduaren arabera

		2003 IV. hiruhilekoa	2004 IV. hiruhilekoa	2005 IV. hiruhilekoa	2006 IV. hiruhilekoa	2007 IV. hiruhilekoa
Ekipamendu informatikoak	Ordenagailua	46,2	48,4	50,1	53,0	57,0
	Internet	30,8	34,2	36,9	40,6	45,7
Telebistako ekipamenduak	Bideoa	72,8	71,5	69,0	64,9	64,1
	Teletestua	70,9	72,8	79,1	79,6	83,3
	Ant. Parabol.	12,8	14,6	9,7	11,1	11,0
	Ord. TB	6,1	7,5	8,2	15,2	19,8
Beste batzuk	Sakelako tel.	75,1	79,5	81,2	85,6	88,0

Iturria: EUSTAT. ESIF

II.2.57. Koadroa. Familiak (16-74 urte), etxeko IKT ekipamenduaren arabera

		2003	2004	2005	2006	2007
Internet	EB-27	-	40	48	49	54
	EB-25	-	42	48	51	56
	EB-15	43	45	53	54	59
	Espainia-Eurostat	28	34	36	39	45
	Espainia-INE	-	33,6	37	41,1	44,6
	EAE-INE	-	42,7	43,2	45,7	50
Banda zabalerako	EB-27	-	14	23	30	42
	EB-25	-	14	23	32	43
	EB-15	-	-	25	34	46
	Espainia-Eurostat	-	15	21	29	39
	Espainia-INE	-	14,7	24,5	32,6	39,2
	EAE-INE	-	14,7	24,2	33,1	40

Iturria: Eurostat eta INE

(aurreko aldian bosgarrenean) sakelako telefonoaren arloan; eta bederatzigarren postuan banda zabala duten etxebizitzaren ehunekoan (aurreko aldiko posizio bera).

IKT ekipamenduen maila, familia motaren arabera. Mantendu egin da aurreko urteotako joera, eta, horrela, ordenagailuaren, interneten eta sakelako telefonoaren presentziak gora egin du familia mota guztietan (seme-alabadunak, seme-alabagabeak eta pertsona bakarreko familiak); hala eta guztiz ere, ekipamendu mailarik handienak seme-alabadun familiek dituzte oraindik. Bigarrenez, seme-alabarik gabeko familiak daude, eta, ondoren, pertsona bakarreko familiak.

15 urteko edo hortik gorako biztanleen artan. Ordenagailua eta Internetarako konexioa nahiz erabilerak

IKT ekipamenduen zuzkiduraren kasuan gerta-turikoaren antzean, etxeetan/familietan IKTen zuzkidura gero eta handiagoa da 14 urteko biztanleen artean, bideoaren eta antena parabolikoaren (hegazkortasun handia) kasuan izan ezik.

PCari eta interneteko konexioari dagokionez, 2003ko azken hiruhilekoan eta 2007ko azkenean, ordenagailuaren zuzkidura ehuneko 11,3 puntutan hazi da, eta biztanleriaren %66,2ra heldu da. Bestalde, etxean internet

II.2.58. KOADROA. ETXEBIZITZAK AA.EE.EN ETA EKIPAMENDU MOTAREN ARABERA

	Ordenagailua	Interneteko irisbidea	Banda zabaleko konexioa	Tlf. finkoa	Tlf. mugikorra
Guztira	60,4	44,6	39,2	81,2	90,9
Andaluzia	56,9	38,9	35,0	74,5	89,4
Aragoi	60,0	47,8	39,9	89,3	90,4
Asturias	59,0	42,3	38,9	84,8	89,9
Balears (Illes)	59,9	48,2	44,8	82,8	89,5
Kanariak	59,6	45,5	42,5	75,6	92,3
Kantabria	60,0	46,7	41,9	83,1	91,1
Gaztela eta Leon	57,6	39,0	32,5	83,1	86,4
Gaztela-Mantxa	53,3	33,0	28,3	74,7	86,1
Catalunya	65,5	51,3	46,0	85,7	92,6
Valentzia	57,6	42,9	36,7	74,8	92,7
Extremadura	47,5	30,3	23,2	71,7	88,2
Galizia	51,6	32,3	25,7	80,9	86,6
Madril	70,4	56,6	51,7	89,2	94,7
Murtzia	57,1	36,3	31,5	71,4	91,5
Nafarroa	63,2	49,0	40,1	90,0	90,2
EAE	63,6	50,0	40,0	91,2	91,9
Errioxa	56,0	43,1	37,4	83,4	87,2
Ceuta	56,1	48,0	46,2	67,0	83,7
Melilla	61,7	50,1	47,7	73,5	92,0

Iturria: INE

II.2.59. KOADROA. ETXEAN ORDENAGAILUA, INTERNET ETA SAKELAKO TELEFONOA DUTEN FAMILIAK, FAMILIA MOTAREN ARABERA (%)

	Ordenagailua			Internet			Sakelako telefonoa		
	Seme-alabekin	Bikotearekin	Pertsona batekoak	Seme-alab.	Bikotearekin	Pertsona batekoak	Seme-alabekin	Bikotearekin	Pertsona batekoak
2003 IV. hiruhilekoa	62,8	24	15,6	39,3	16,2	8,9	90,2	58,9	38,3
2004 IV. hiruhilekoa	68,5	23,4	20,1	48,4	16,6	14,2	94,4	68,3	51,8
2005 IV. hiruhilekoa	71,7	25,8	19,9	53,5	19	13,2	96,1	73,3	52,8
2006 IV. hiruhilekoa	74,7	34,1	20,4	58,4	25,5	13,8	97,6	81,5	62,2
2007 IV. hiruhilekoa	80,1	37,6	24,5	65,7	29	17,2	98,4	86,2	67,6


Iturria: EUSTAT, ESIF

duten 15 urteko edo gehiagoko biztanleen ehunekoa %36,4tik %54ra igaro da.

Internet erabiltzen duten pertsonen ehunekoa, Eustatek emandako datuen arabera, 15 urteko edo gehiagoko biztanleriaren %47,4 da; zifra horrek ehuneko

5,8 puntuko hazkundera adierazten du, aurreko urteari dagokionez (%41,6), ehuneko 9,8ko hazkundera 2005ari dagokionez (%37,6).

INEk emandako datuek diotenez, EAEk goranzko joera dauka erabileraren aldetik, baina posizioak galdu ditu

II.2.25. GRAFIKOA. 15 URTEKO ETA GEHIAGOKO BIZTANLEAK, ETXeko IKT EKIPAMENDUEN ARABERA (%)

Estatuko sailkapenean. Horrela, 2004tik 2007ra, azken 3 hilabeteetan PCa erabili duten 16-74 urte bitarteko pertsonen ehunekoa %50etik %59ra igaro da; eta, interneten kasuan, %42tik %54ra. Hala eta guztiz ere, lehenengo kasuan, EAE Estatuko sailkapeneko 5. postutik 6.era igaro da, eta bigarrenengan 4. postutik 6.era.

Eurostaten eta INEren datuak (2007) konparatuta ikusten denez, internet erabiltzearen arloan EAE (inkestaren aurreko hiru hilabeteetan internet gutxienez astean behin erabili duten pertsonen %45,8) Estatuko %44ko batez bestekoaren gainetik dago (INEren datuen arabera, %44,4), baina EB-27ko %51ren, EB-25eko %53ren eta EB-15eko %55ren azpitik.

Aurreko urteetan bezala, generoaren, adinaren, heziketa mailaren eta lan-egoeraren arabera ikerketatik ondorioztatzen denez, desberdintasunak mantendu egiten dira, bai konexioan eta bai erabileran, horrela, taldeen arteko lubaki digitala hortxe dago oraindik, eta baldintzatu egin dezake gizarte talde desberdinen ongizatea.

Konexioa generoaren arabera: 2007an ordenagailuaren eta interneten tasak berriro ere gora egin dute, 15 urteko edo gehiagoko gizon-emakumeen artean. Hala eta guztiz ere, sartze tasak oraindik ere handiagoak dira gizonen artean emakumeen artean baino. Izan ere, bi tasak hurbiltzeko joeratxoaren ostean (2004ko IV. hiruhilekoan erregistraturiko joera), 2005eko hiruhileko berean gizonek 5,7 puntuko aldea izan zuten ordenagailuaren kasuan, eta 3,8koa interneteko konexioaren kasuan; 2007an 3 puntuko aldea izan zuten ordena-

gailuaren kasuan, eta 2,5 puntuko aldea interneteko konexioaren kasuan. 2007ko IV. hiruhilekoari buruzko datuek adierazten dutenez, gizonen tasak altuagoak dira, aldea aurreko urtekoa baino txikiagoa izan arren, 2006an gertatu zen bezala. Horrela, ordenagailuaren tasa %67,7koa da gizonen kasuan eta %64,7 emakumeen kasuan (3 puntuko aldea); eta interneteko konexioan gizonen tasa %55,3koa da, eta emakumeena %52,8koa (2,5 puntuko aldea).

Interneten erabilera generoaren arabera: Tasak gora egin du bi generoen kasuan, eta bien arteko aldeak behera egin du, 2006koari dagokionez, baina 2004ko erregistroetara heldu barik. Horrela, gizonen posizio hobean jarraitzen dute (2004an aldea 6,1 puntuko zen euren alde; 2005ean 7,8 puntuko; 2006an 7,1 puntuko, eta 2007an 6,2 puntuko). 2007ko azken hiruhilekoan, erabileraren tasa %50,6koa izan zen gizonen kasuan, eta emakumeen kasuan %44,4koa.

EBn, Eurostatek emandako datuen arabera, inkesta egin aurreko hiru hilabeteetan internet gutxienez astean behin erabili duten gizonen ehunekoa (2007an) emakumeen ehunekoa baino 9 puntu handiagoa da, EB-15ean (%50 eta %51, hurrenez hurren), EB-25ean (%58 eta %49) eta EB-27an (%56 eta %47). Alderdi positibotzat, aipagarria da gizonen aldeak handiagoak izan zirela 2005ean.

Konexioa adinaren arabera: Ordenagailua eta interneteko konexioa duen biztanleriaren ehunekoak behera egiten du adinarekin, urterik urtera adin taldearen

II.2.60. KOADROA. IKT EKIPAMENDUEN ERABILERA, BIZTANLEEN ARTEAN (... ERABILI DITUZTEN 16-74 URTEKO PERTSONEN %)

	PCa azken 3 hilabeteotan		Internet azken 3 hilabeteotan		Gutxienez asteen behin azken 3 hilabeteotan	Internetez erosi, azken 3 hilabeteotan	
	2004	2007	2004	2007	2007	2004	2007
Guztira	45	57	37	52	44,4	5	13
Andaluzia	40	53	31	47	38,1	3	10
Aragoi	47	61	39	56	46,6	5	12
Asturias	44	58	37	54	45,0	5	12
Balearrak	48	59	41	56	50,2	6	18
Kanariak	46	59	40	53	43,6	5	11
Cantabria	42	55	34	51	44,7	5	12
Gaztela eta Leon	43	57	33	51	43,8	5	10
Gaztela-Mantxa	40	49	30	43	35,5	3	8
Katalunia	52	61	44	56	50,3	7	18
Valentzia	44	56	36	50	41,7	4	11
Extremadura	37	46	30	40	29,6	3	8
Galizia	37	47	29	43	34,4	3	10
Madril	54	68	46	64	57,2	7	20
Murtzia	43	51	36	45	37,2	3	8
Nafarroa	51	60	42	54	45,9	8	13
EAE	50	59	42	54	45,8	7	13
Errioxa	46	54	37	49	42,9	5	14
Ceuta	39	53	33	50	44,2	5	5
Melilla	54	63	46	59	50,5	0	12
EB-27, Eurostat					51,0		
EB-25, Eurostat					53,0		
EB-15, Eurostat					55,0		
Espainia, Eurostat					44,0		

Iturria: INE eta Eurostat

araberako tasek hobera egin arren. Horrela, 15-24 urteko adin taldean oso altuak dira, eta 2005etik 2007ra ehuneko 5,8 eta 13,3 puntuko hazkundera izan dute, hurrenez hurren (%92,8 eta %82,8). 25 eta 44 urteko taldean, bigarren postuan dago, goranzko aldaketa tasekin; hain zuzen ere, ordenagailuaren kasuan %78tik eta interneteko konexioaren kasuan %59,1etik gorako tasak. Aldiz, 45 urteko edo gehiagoko taldean, tasak urriak dira, hurrenez hurren %51,9 eta %42,8.

Interneten erabilera adinaren arabera: Erabileraren ratioak murriztu egiten dira adinarekin, baina kasu honetan

adinik txikieneko eta handieneko taldeen arteko aldeak nabarmenagoak dira. Horrela, EAEko 15-24 urte bitarteko biztanleriaren %91,4 erabiltzaileak dira, eta 45 urtetik gorako taldean ehunekoa %23,6koa da; gainera, bi taldeen arteko aldea gero eta handiagoa da (2005ean 61,5 puntu; 2006an 63,7 puntu, eta 2007an 67,8 puntu).

Konexioa heziketa mailaren arabera: Heziketa maila zenbat eta handiagoa izan, ordenagailuaren presentzia eta interneteko konexioa hainbat eta handiagoak dira, eta ehunekoak aurreko urteetakoak baino handiagoak dira. Horrela, goi-ikasketak dituzten 15 urtetik gorako biztanleen

%87,6k ordenagailua dute (2005ean %84,1 eta 2006an %86,4); bigarren hezkuntzako ikasketak dituztenen artean ehunekoa %71,8ra murrizten da (aurreko urtean %69,4), eta oinarrizko ikasketak dituztenen artean %36ra (2005ean %32,7 eta 2006an %34,3). Interneteko konexioen kasuan, jokabidea antzekoa da, baina ehuneko txikiagoekin: goi-ikasketak dituztenen kasuan %76,3; bigarren hezkuntzako ikasketadunen artean %60,8, eta oinarrizko ikasketak dituztenen artean %27,5.

Interneten erabilera heziketa mailaren arabera: 2005etik 2006ra, oinarrizko ikasketak soilik zituen biztanleria taldearen erabilera-ratioa murriztu egin zen (%4,1etik %3,9ra), baina joera hori ez da mantendu, 2007an ratioa %5,6koa baita. Beste bi kasuetan (bigarren hezkuntzako ikasketak eta goi-ikasketak), ehunekoak altuak eta gero eta handiagoak dira (aurreko urteko hezkuntza maila eta aldi bera aintzat hartuta).

Konexioa lan-egoeraren arabera: Ikasten edota lanean ari diren biztanleria taldeak dira, kasu honetan ere, ordenagailuen eta interneteko konexioaren zuzkidurarik

handiena dutenak, eta tasak nabarmen murrizten dira pertsona ez-aktiboen edota langabetuen kasuan. Horrela, ordenagailua edukitzeari dagokionez, ikasleek %95etik hurbileko tasak dituzte, eta, interneteko konexioaren arloan, %85,7tik hurbilekoak; ez-aktiboen/langabetuen kasuan, tasak ez dira heltzen %42ra eta %33ra, hurrenez hurren.

Interneten erabilera lan-egoeraren arabera: Interneten erabilaren arloan antzeko egoera ikusi da; ikasten ari diren pertsonen %95,5ek internet erabiltzen dute, eta langabetuen edo ez-aktiboen tasa %15,3koa da. Aipagarria da ikasleen erabilera-ratioa konexio-ratioa baino handiagoa izatea (%95,5 eta %85,7), erabilera edo konexioa sarritan etxetik kanpoko lekuetatik egiten baitute.

Bestalde, interneten erabilera gizarte talde guztietan hazi den arren, gizarte taldearen arabera desberdintasunak handiagoak dira erabilaren aldetik zuzkiduraren aldetik baino (beste modu batera esateko, gizarte talde bakoitzean internet erabiltzen duen biz-

II.2.61. KOADROA. ORDENAGAILUA ETA INTERNETKO SARRERA NAHIZ ERABILERA, EAE-KO 14 URTETIK GORAKO BIZTANLEEN ARTEAN, EZAUGARRIEN ARABERA (%)

	Ordenagailua etxean						Internet									
							Interneteko konexioa etxean					Erabilera				
	IV 2005	IV 2007	Ald. 2005-07	Ald. 2005-eko b. bestek.	Ald. 2007ko b. bestek.		IV 2005	IV 2007	Ald. 2005-07	Ald. 2005-eko b. bestek.	Ald. 2007ko b. bestek.	IV 2005	IV 2007	Ald. 2005-07	Ald. 2005-eko b. bestek.	Ald. 2007ko b. bestek.
15 urteko edo gehiagoko biztanleak	60,1	66,2	6,1	0,0	0,0	45,1	54,0	-60,1	0,0	0,0	37,6	47,4	9,8	0,0	0,0	
Sexua	Gizona	63,0	67,7	4,7	2,9	1,5	47	55,3	8,3	1,9	1,3	41,6	50,6	9,0	4,0	3,2
	Emakumea	57,3	64,7	7,4	-2,8	-1,5	43,2	52,8	9,6	-1,9	-1,2	33,8	44,4	10,6	-3,8	-3,0
Adina	15-24	87,0	92,8	5,8	26,9	26,6	69,5	82,8	13,3	24,4	28,8	78,5	91,4	12,9	40,9	44,0
	25-34	72,9	80,0	7,1	12,8	13,8	52,7	64,8	12,1	7,6	10,8	59,7	75,9	16,2	22,1	28,5
	35-44	68,4	78,0	9,6	8,3	11,8	49,8	59,1	9,3	4,7	5,1	47,2	62,6	15,4	9,6	15,2
	45 eta gehiago	46,4	51,9	5,5	-13,7	-14,3	35,1	42,8	7,7	-10,0	-11,2	17	23,6	6,6	-20,6	-23,8
Heziketa maila	L. Hezk.	32,7	36	3,3	-27,4	-30,2	22,9	27,5	4,6	-22,2	-26,5	4,1	5,6	1,5	-33,5	-41,8
	B. Hezk.	69,4	75,7	6,3	9,3	9,5	49,7	60,8	11,1	4,6	6,8	43,9	56,7	12,8	6,3	9,3
	G. Hez.	84,1	87,6	3,5	24,0	21,4	70,6	76,3	5,7	25,5	22,3	77,5	85,7	8,2	39,9	38,3
Lotura jarduerarekin	Ikaslea	93,0	94,7	1,7	32,9	28,5	76,3	85,7	9,4	31,2	31,7	87,5	95,5	8,0	49,9	48,1
	Landuna	72,4	80,0	7,6	12,3	13,8	54,5	65,2	10,7	9,4	11,2	49,6	64,0	14,4	12,0	16,6
	Ez-akt./lang.	36,6	41,9	5,3	-23,5	-24,3	25,8	32,6	6,8	-19,3	-21,4	10,7	15,3	4,6	-26,9	-32,1

Iturria: Eustat "ESIF".

tanleriaren ehunekoaren eta internet erabiltzen duen 15 urteko edo gehiagoko biztanleria osoaren ehunekoaren arteko aldea, betiere, handiagoa da konexioaren arloan dagoen aldea baino), eta egoera hori gero eta nabarmenagoa da (batez bestekoarekiko aldeak handiagoak dira 2006an 2005ean baino). Azken batean, bazterturiko taldeetan kroniko bihurtu da aurreko urteotan ikusitakoa: "sartzeko lubakiari" "erabiltzeko lubaki" konplexuagoa ghitzen zaiola.

Oinarritzko IKTen zuzkidura enpresetan (PCa, posta elektronikoa, internet eta sakelako telefonoa)

Enpresetako Informazioaren Gizarteari buruzko Inkestaren azken edizioan (IGI-enpresak) ikusten denez, EAEko enpresetan IKT ekipamenduak sartzeko prozesua gero eta handiagoa da.

Ekipamendurik hedatuena orain ere sakelako telefonoa da; gero, ordenagailu pertsonala, interneteko konexioa eta posta elektronikoa. Horrela, establezimenduei dagokienez, langileen esku sakelako telefonoa jartzen dutenen ehunekoa %72,8koa da (2003an eta 2004an murriztapena). Ordenagailu pertsonala dutenen ehunekoa %68,6koa da. Internet dutenen ehunekoak ehuneko 4,5 puntuko hazkundea izan du, eta %56,4koa da, azkenik, posta elektronikoa dutenen ehunekoak ere 4 puntuko hazkundea izan du, eta %52koa da. Jarduera-sektoreen arabera, industria berriro ere argi eta garbi nabarmentzen da gainerako sektoreen gainetik, baina aipagarria da sakelako telefonoak eraikuntzan izan duen sartzea, aurreko urteari dagokionez ehuneko 1,4 puntuko murriztapena izan arren.

Bestalde, teknologia hauek erabiltzen dituen enplegatu kopuruak ere gora egin du. Langileen %59,1ek ordenagailu pertsonala dute, %48,4k sakelako telefonoa,

II.2.62 Koadroa. IKT EKIPIAMENDUEN BILAKAERA EAE-KO ESTABLEZIMENDUETAN, JARDUERA SEKTOREAREN ARABERA (ESTABLEZIMENDUEN %)

	Industria				Eraikuntza				Zerbitzuak				GUZTIRA			
	PC	e-mail	Inter-neta	S. tel.	PC	e-mail	Inter-neta	S. tel.	PC	e-mail	Inter-neta	S. tel.	PC	e-mail	Inter-neta	S. tel.
2001	63	35,6	39,7	58,9	44,6	12,2	14,4	70,9	49,5	23,3	26,2	47,7	50,3	23,2	26,2	51,3
2002	65,9	45,7	50,0	69,2	39,4	17,1	20,5	76,4	54,5	35,4	37,6	55,5	53,6	34,0	36,5	59,4
2003	68,9	51,3	55,5	72,7	46,6	25,0	30,2	81,8	58,5	40,9	43,3	59,7	57,9	39,8	42,7	63,8
2004	70,6	52,8	57,0	75,0	52,1	28,9	37,5	85,6	60,1	43,9	46,1	58,5	59,9	42,7	45,9	63,6
2005	74,9	61,4	64,3	81,6	60,7	33,0	44,6	94,6	64	49,0	51,7	66,8	64,5	48,0	51,9	71,7
2006	77,8	64,9	66,2	81,0	64,2	38,6	48,8	93,2	68,4	53,1	56,8	68,2	68,6	52,0	56,4	72,8
2007	79,5	68,6	71,2	80,3	68	49,0	56,3	91,4	70,3	58,0	61,5	72,6	70,7	57,6	61,6	75,8

Iturria: EUSTAT, ESI enpresak

II.2.63. Koadroa. ENPRESETAKO IKT EKIPIAMENDUA (IKTAK DITUZTEN LANGILEEN %)

	Industria guztira			Eraikuntza			Zerbitzuak			Guztira		
	PC	e-mail	Interneta	PC	e-mail	Interneta	PC	e-mail	Interneta	PC	e-mail	Interneta
2001	33,7	20,4	16,3	27,3	12,0	13,0	54,5	30,0	27,9	46,4	25,8	23,4
2002	37,9	26,6	21,7	28,6	14,6	15,7	59,4	40,5	39,7	50,5	34,2	32,4
2003	38,7	28,2	22,9	30,1	17,5	18,6	62,3	43,5	44,5	52,6	36,7	36,0
2004	40,9	29,6	26,8	34,8	22,7	23,9	61,3	45,0	46,1	53,1	38,6	38,6
2005	41,7	31,9	28,2	38,8	27,4	31,2	64,4	50,1	51,1	55,8	43,0	42,9
2006	44,6	37,0	33,2	43,8	30,8	35,7	67,4	54,3	54,9	58,9	47,3	47,2
2007	43,9	36,3	32,4	43,3	35,8	37,5	67,3	54,9	57,5	59,1	48,4	49,2

Iturria: EUSTAT, ESI enpresak

II.2.64. Koadroa. ENPRESETAKO IKT EKIPAMENDUA, TAMAINAREN ARABERA (IKTAK DITUZTEN ENPLEGATUEN EDO LANGILEEN %)

	Ordenagailua				Posta elektronikoa				Internet			
	Establ. %		Enpleg. %		Establ. %		Enpleg. %		Establ. %		Enpleg. %	
	2001	2007	2001	2007	2001	2007	2001	2007	2001	2007	2001	2007
Guztira	50,3	70,7	46,4	59,1	23,2	57,6	25,8	48,4	26,2	61,6	23,4	49,2
0- 2	42,1	62,6	37,5	56,2	16,3	48,4	14,5	41,7	19,5	53,5	17,2	47,3
3-9	70,6	84,3	46,4	60,0	36,6	71,3	23,1	46,7	39,0	73,8	23,4	50,8
10-19	94,9	96,8	42,2	55,0	63,6	91,2	21,5	43,6	66,9	91,1	21,5	46,8
20-49	98,1	97,9	47,1	58,4	78,9	95,7	27,5	47,4	81,2	93,1	26,2	48,7
50-99	99,3	99,8	51,0	59,4	94	99,4	34,3	54,9	94,4	99,4	31,7	53,2
100 eta gehiago	99,9	99,6	52,7	61,5	93,5	99,4	33,9	52,0	93,1	98,9	24,2	48,1

Iturria: Eustat ESI –enpresak

II.2.65. Koadroa. INTERNETKO KONEXIOA DUTEN ENPRESEN EHUNEKOA, 2007

	EB-27	EB-25	EB-15
9 langiletik gorako enpresak (finantza-sektorea izan ezik)	93	95	95
Enpresa txikiak (10-49 langile), finantza-sektorea izan ezik	92	94	94
Enpresa ertainak (50-249 langile), finantza-sektorea izan ezik	98	99	99
ETEak (10-249 langile)	93	94	95
Enpresa handiak (250 langile edo gehiago), finantza-sektorea izan ezik	99	100	100
Industria (9 langile baino gehiago)	92	94	94
Eraikuntza (9 langile baino gehiago)	93	94	94

Iturria: Eurostat

eta %49,2k internet. Jarduera-sektoreen arabera, urte honetan ere, aurreko urtean gertaturikoaren alderantziz (ekipamendu maila), zerbitzu-sektorea nabarmendu da, langilerik gehienak bulegoan baitaude (bertan erabiltzen dira gehien halako ekipamenduak). Izan ere, zerbitzu-sektorean ekipamendu maila oso altuko jarduerak daude. Horien artean, aipagarriak dira teknologia berriei, finantza-bitartekotzari eta enpresetarako zerbitzuei lotutakoak.

Enplegu-estratuen araberrako azterketak agerian jartzen duenez, lehenengo eta behin, enplegu-estratu guztietan hazkunde nabariak egon arren, enplegu-tamainarik handieneko establezimenduak hazkunde txikiagoak izan dituzte, bertako ekipamenduak hobetzeko bitarte urriaren ondorioz. Bigarren, alde horiek gehienbat establezimenduen arloan ikusten dira, enpleguaren arloan baino. Izan ere, besteak beste, establezimendu txikiak

aurrerakuntza handiagoa izan dute, eta handietan langile guztiek ez dituzte halako ekipamenduak erabiltzen.

Joera hori Europa osokoa da; bertan, Eurostatek emandako datuek diotenez, interneten sarrera asetze-puntu batera heldu da, bai enpresa handietan (ia %100era heltzen da) eta bai ETEetan (EB-15ean %95 eta EB-27an %93), sektorerik gehienetan.

IKTen espezializatuagoen zuzkidura enpresetan

Aurreko urteetako ildoari jarraituz, IKTriko espezializaturik gehienek oraindik ere sartze maila urriak izan arren, hazkundeak ikusi dira guztien erabilieran. Erabilienak orain ere honako hauek dira: fondoan transferentzia elektronikoa (establezimenduen %43,6), toki-sarea edo hedatua (establezimenduen %37,7) eta

intranet (establezimenduen %17,8). Eta haririk gabeko sarearen (wireless) edo extraneten hedapena oraindik ere sorberriak dira; ehunekoak, hurrenez hurren, establezimenduen %10,8 (jauzi kualitatibo handia, 2005ean sartzea %5ekoa baitzen) eta %8 dira.

Teknologia horiek hedapen handiagoa dute industria-eta zerbitzu-sektoreetan, eraikuntzan baino. Izan ere, industriak eta zerbitzuek antzeko jokabidea dute, teknologiaren araberako aldaketa txikiekin.

Establezimenduaren tamaina berriro ere funtsezko aldagaia da, halako teknologien ezarkuntza azaltzeko orduan. Izan ere, teknologia horiek, euren ezaugarrien eraginez, tamainarik handieneko establezimenduei lotuta daude. Horrela, toki-sareak 99 enplegutik gorako enpresen artean duen ezarkuntza %97,3koa da, eta 3 enplegutik beherako enpresen artean %26,4 baino ez; era berean, sare birtuala 99 enplegutik gorako enpresen %68,3k erabiltzen dute, eta 3 enplegutik beherako enpresen ehunekoak %6,1 da; datuen truke elektronikaren kasuan ere antzeko jokabidea ikusten da.

IKTen erabilera enpresan: Interneten erabilera

EAEko enpresek interneti ematen dioten erabilerari dagokionez, lehenengo eta behin, dokumentazioa bilatzeko erabiltzen da (%94); bigarren, bankuko edo finantzako informazioa lortzeko (%70,1), eta, hirugarren, bankuko

edo finantzako transakzioak egiteko (%63,8). Bigarren talde baten barruan, Herri Administrazioarekiko tramiteak (%46), hornitzaileen eta bezeroen datu-baseetarako sarbidea (%41,2) eta produktu digitalak jasotzea nahiz jaistea (%37,6) sartzen dira.

Kasu guztietan, dinamismo handiagoa detektatu da tamainarik handieneko enpresen artean, hau da, 9 enplegutik gorako enpresetan.

Establezimendu kopurua, erabilera mota bakoitzaren barruan, hazi egin da berriro, salbuespenik gabe, 2006tik 2007ra.

Jarduera-sektoreen arabera, aldaketa ikusi da aurreko urteari dagokionez. 2006ra artean, industria-sektorea nabarmentzen zen, salbuespen batzuk kenduta, gainerako guztien ginetik, erabilerarik gehienetan; hala ere, 2007an, lehenengo postuan zerbitzu-sektorea dago. Hain zuzen ere, zerbitzu-sektoreak gainerako sektoreek baino erabilera-ratio handiagoak izan ditu, honako arlo hauetan: hornitzaileen nahiz bezeroen datu-baseetan sartzea, heziketa, ondasunen nahiz zerbitzuen erosketa, langileria erreklutatzea, saldu osteko zerbitzuak, eta produktu digitalak jasotzea eta jaistea. Bestalde, industria honako arlo hauetan nagusitu da: internet bankuko edo finantzako informazioa lortzeko erabiltzea, lehiakideak aztertzea eta bankuko edo finantzako transakzioak egitea.

II.2.66. KOADROA. ESTABLEZIMENDUEN %, SAREKO EKIPAMENDUAREN ETA TRUKE INFORMATIKOEN NAHIZ ELEKTRONIKOEN ARABERA

	Toki-sarea edo hedatua			Hari gabeko sarea (wireless)			Sare pribatu birtuala edo balio erantsikoa			Intranet			Extranet			Fondoen transferentzia elektronikoa			Datuen truke elektronikoa (EDI)		
	2001	2006	2007	2001	2006	2007	2001	2006	2007	2001	2006	2007	2001	2006	2007	2001	2006	2007	2001	2006	2007
Guztira	8,8	32,9	37,7	0	8,1	10,8	0	7,2	11,5	4,8	15,5	17,8	1,2	6,6	8,0	18,2	33,5	43,6	8,9	10,3	12,3
Industria	14,7	42,7	48,0	0	10,1	12,3	0	9,1	15,2	5,3	17,0	19,1	1,6	6,3	8,0	16,6	35,9	48,6	12,8	13,0	14,7
Eraikuntza	4,2	19,8	23,3	0	2,3	4,4	0	2,0	6,5	1,2	6,5	11,8	0,1	2,4	1,6	4,6	13,9	28,6	4,7	3,5	7,1
Zerbitzuak	8,8	34,3	39,2	0	8,9	11,8	0	7,9	12,0	5,2	17,0	18,8	1,3	7,4	9,1	20,3	36,9	45,8	9,0	11,3	13,0
Enplegu-estratuak																					
0-2	3,8	21,2	26,4	0	5,5	8,0	0	3,6	6,1	1,5	8	10,7	0,2	3,6	4,5	14,3	26,5	34,8	5,8	6,4	7,9
3-9	17,3	51,3	53,9	0	11,2	13,7	0	10,8	18,4	9,8	25,9	27	2,6	10,1	11,5	26,7	46,4	59,3	13,0	15,0	17,8
10-19	38,5	73,9	76,8	0	16,0	19,1	0	19,7	27,4	21,9	41,4	39,6	5,1	18	22,6	40,8	53,2	69,1	29,6	23,4	25,7
20-49	53,3	85,8	88,1	0	21,8	28,1	0	28,8	37,3	36,2	50,8	52,8	11,3	23,2	26,0	43,8	55,6	71,6	38	31,8	32,3
50-99	70,2	93,0	96,8	0	31,1	35,9	0	43,9	50,6	50,5	67,1	69,7	17,3	33,3	35,9	48,2	62,2	71,4	52,4	48,3	48,8
100 eta gehiago	79,0	97,1	97,3	0	44,1	53,5	0	60,7	68,3	67,9	82	83,6	26,5	45,1	48,7	54,9	66,4	72,1	64,5	57,9	56,9

Iturria: EUSTAT, ESI-enpresak

II.2.67. KOADROA. EAE-N INTERNETEKO KONEKXIOA DUTEN ESTABLEZIMENDUEN %, ERABILERA MOTAREN ARABERA

	Establez. %			Industria			Eraikuntza			Zerbitzuak			9 enplegutik gora		
	2001	2006	2007	2001	2006	2007	2001	2006	2007	2001	2006	2007	2001	2006	2007
Agiri-bilaketa	82,6	92,7	94	80,2	94,1	92,7	75,3	96,4	95,4	83,7	91,9	93,9	83,5	94,6	95,5
Hornitzaileen eta bezeroen datu-baseetarako sarbidea	22,4	39,5	41,2	28,3	44,3	41,1	23,7	38,3	38,3	21,3	39,2	41,6	29,1	48,4	53,2
Heziketa: heziketa-materialetarako sarbidea	9,4	25,1	27,4	7,1	20,0	20,5	5,6	15,6	20,2	10,2	27,2	29,3	17,8	37,0	39,8
Ondasunen eta zerbitzuen erosketa	5,7	16,9	18,3	6,1	18,0	18,7	1,6	9,4	11,2	5,9	18	19,4	9,1	18,5	18,8
Ondasunen eta zerbitzuen salmenta	2,6	3,4	4,7	1,5	5,8	7,2	1,1	0,3	1,3	2,9	3,6	5	3,8	5,4	6,7
Herri Administrazioarekiko tramiteak	22,5	42,2	44,6	21,7	49,4	50,4	23,8	34,7	38,4	22,5	42,5	44,9	43,9	71,3	74,2
Bankuko edo finantzako informazioaren lorpena	0,0	66,9	70,1	0,0	80,5	79,2	0,0	63,5	66,1	0,0	65,7	69,7	0,0	76,9	80,6
Lehiakideen azterketa	0,0	22,4	25,2	0,0	30,7	32	0,0	14,4	12,8	0,0	22,6	26,5	0,0	36,0	39,5
Langileak erreklutatzea	0,0	10,1	14,4	0,0	12,0	14,1	0,0	6,7	9,3	0,0	10,4	15,3	0,0	21,3	28,2
Saldu osteko zerbitzuen lorpena	0,0	14,5	18,4	0,0	15,6	17,9	0,0	7,5	11,0	0,0	15,5	19,7	0,0	20,1	25,5
Produktu digitalak jasotzea edo jaistea	0,0	37,3	37,6	0,0	39,2	37,8	0,0	26,1	28,2	0,0	38,8	39,1	0,0	47,9	49,9
Bankuko/finantzako transakzioak egitea	0,0	60,7	63,8	0,0	75,6	76,5	0,0	58,8	59,1	0,0	59,1	63,1	0,0	75,2	79,0

Iturria: Eustat. ESI-enpresak

Enpresek teknologia berriak erabiltzearen arloan duten posizioa aztertze orduan, beste adierazle garrantzitsu bat interneteko presentzia da, bai web orri baten bidez (enpresaren zerbitzarian), bai kanpoko zerbitzari batean jarritako orri baten bitartez. Eustatek eskainitako azken datuen arabera, 2006tik 2007ra ehuneko 3,1 puntuko hazkundera egon da, 2006ko hazkundera (3,3) eta 2005eko hazkundera (3,4) baino txikiagoa. Horrela, interneteko konekzioa duten establezimenduen %26,2k web orria dute. Horietatik %12,9k kanpoko zerbitzari batean dute jarrita.

Ehuneko horiek, establezimenduaren tamaina zenbat eta handiagoa izan, hainbat eta handiagoak dira (0-3

enplegu bitarteko establezimenduen %16etik 100 enplegutik gorako establezimenduen %88,6ra -%45,2k bertako euren hostinga-); gainera, jarduera-sektorearen arabera aldagarriak dira, eta, hain zuzen ere, web orriek industrian duten erabilgarritasun apur bat handiagoa eta eraikuntzan duten presentzia urria nabarmentzen dira.

Establezimenduen webek eskainitako prestazioei dagokienez, Eustatek emandako datuen arabera, gehienek (%97) enpresari buruzko informazio orokorra eskaintzen dute, baita enpresari buruzko katalogo edo zerrenda orokorra ere (%84,5, eta aurreko urtean %86,4). Bigarrenez, beste prestazio batzuk ere eskaintzen dira

II.2.68. KOADROA. ESTABLEZIMENDUAK SEKTOREAREN ETA ENPLEGU ESTRATUAREN ETA WEB ORRIA EDUKITZEAREN ARABERA

	Guztira			Bertakoa			Jarritakoa		
	2001	2006	2007	2001	2006	2007	2001	2006	2007
Guztira	6,2	23,1	26,2	0	12,7	13,2	0	10,4	12,9
Jarduera-adarra									
Industria	10,4	30,5	33,3	0	13,0	14,7	0	17,6	18,6
Eraikuntza	1,1	9,7	13,7	0	4,4	7,3	0	5,3	6,4
Zerbitzuak	6,4	24,7	27,6	0	14,2	14,1	0	10,5	13,5
Enplegu-estratuak									
0-2	2,1	13,5	16,0	0	7,6	7,7	0	6,0	8,3
3-9	13,3	37,0	41,4	0	20,7	21,5	0	16,3	19,8
10-19	27,7	57,5	55,0	0	29,5	28,1	0	28,0	26,9
20-49	42,4	67,5	69,4	0	34,9	38,3	0	32,6	31,2
50-99	59,0	84,2	87,2	0	43,1	44,6	0	41,1	42,6
100 eta gehiago	64,7	89,7	88,6	0	48,0	45,2	0	41,7	43,4

Iturria: Eustat. ESI enpresak

179

II.2.69. KOADROA. WEBGUNEAK DITUZTEN ESTABLEZIMENDUEN %, SEKTOREAREN, TAMAINAREN ETA ESKAINITAKO PRES-TAZIOEN ARABERA

	Guztira												9 enplegatutik gorako establezimenduak		
	Guztira			Industria			Eraikuntza			Zerbitzuak					
	2001	2006	2007	2001	2006	2007	2001	2006	2007	2001	2006	2007	2001	2006	2007
Enpresari buruzko informazio orokorra	97,9	96,9	96,9	97,7	95,3	96,8	100,0	96,3	94,9	97,9	97,1	97,0	97,9	97,2	97,8
Ondasunen eta zerbitzuen zerrenda edo katalogoa	0,0	86,4	84,5	0,0	82,2	83,7	0,0	83,0	68,2	0,0	87,2	86,0	0,0	88,5	86,9
Produktuen/zerbitzuen zuzeneko ordainketa	19,4	11,2	13,0	1,6	4,8	4,8	0,0	0,8	1,8	23,4	12,8	15,0	8,7	9,1	9,4
Eskarien jarraipena	16,6	15,3	16,2	6,3	7,5	6,8	2,3	6,8	6,8	19,0	17,0	18,2	10,8	13,0	14,2
Saldu osteko zerbitzua	30,3	24	22,8	11,3	18,7	14,4	0,5	9,8	7,5	34,8	25,8	25,2	24,8	23,7	25,2
Produktu digitalen zuzeneko banaketa	13,6	8,1	9,3	2,1	4,5	5,7	0,6	6,2	4,7	16,2	8,7	10,1	10,5	8,0	8,7
Babesturiko transakzioak	27,5	20,5	17,7	1,9	11,7	9,2	6,9	12,6	9,1	33,1	22,2	19,6	23,4	21,2	19,4
Informazioaren pribatutasunaren adierazpena	34,7	37,2	36,6	4,6	25	22,1	31,9	22,7	13,1	40,6	39,9	40,4	36,4	41,2	43,8
Enplegu-eskaintzei buruzko informazioa	24,9	21,5	20,5	2,8	7,3	6,0	10,9	13,6	14,3	29,5	24,0	22,9	26,0	27,3	28,0

Iturria: Eustat. ESI enpresak.

(beheranzko joera), hain zuzen ere, informazioaren pribatutasuna (%36,6 eta aurreko aldian %37,2), saldu osteko zerbitzua (%22,8 eta aurreko aldian %24), enplegu-eskaintzei buruzko informazioa (%20,5 eta aurreko aldian %21,5) eta babesturiko transakzioak (%17,7 eta aurreko aldian %20,5). Hirugarrenez, beste zerbitzu eta eduki batzuk ere badira, establezimenduen web orrien %9,3 eta %16 bitartean (aurrekoek ez bezala, hazi egin dira, aurreko urteari dagokionez); esaterako, produktuen zuzeneko banaketa, produktuen/zerbitzuen zuzeneko ordainketa eta eskarien jarraipena.

Kasu honetan ere, zerbitzu-sektoreko establezimenduek industria-sektorekoek baino ezarkuntza eta aniztasun handiagoa eskaintzen dute eskainitako zerbitzuetan. Aldiz, eraikuntza-sektorekoek lehenengo bi eduki taldeak baino ez dituzte eskaintzen, eta, gainera, batez bestekotik beherako ezarkuntzarekin.

Amaitzeko, berriro adierazi behar da, enpresen konexio-tasa altua izan arren, merkataritza digital integraleko prozesuak eta lineako jarduerak (IKTek ahalbidetzen dituztenak) gutxi erabiltzen direla. Izan ere, enpresa askok oraindik ere informazioa lortzeko eta bankuko kudeaketak egiteko soilik erabiltzen dute internet. Eskari elektronikoen sistemen barne-integrazioa eta beste funtzio batzuk nahiz hornitzaileen zein bezeroen integrazioa oraindik ez dira ohikoak, eta 9 enplegutik gorako enpresek soilik egiten dituzte.

2.2.6. Merkataritza elektronikoa EAEn. Familiak eta erabiltzaileak

Familiak eta erabiltzaileak

INEren datuen arabera (2007ko urrian argitaratuta³), inkestaren erreferentziako aldiko (azken hiru hilabeteak) erabiltzaile guztien artean, EAEn, internetez erosten duten erabiltzaileen ehunekoak gora egin duela ikusten da. Jokabide hori Estatuan ere hedatu da.

Erosteke uneari dagokionez, eta aurreko aldiko emaitzekin konparatuta, esan daiteke hori ez dela

inkestaren egunetik hurbileko datetan gertatu ("*azken hilabeteke erosketa*"), lehenago baizik.

Internetez erosi ez duten pertsonen ehunekoa kontuan hartuta ondorioztatzen denez, EAE (%54) posizio onean dago, gainerako autonomia-erkidegoei dagokionez, aintzat hartuta Madrilek (%53,4) eta Balearrek (%52,4) soilik dituztela ehuneko txikiagoak; dena den, EBko batez besteko balioetatik urrun dago. Horrela, Eurostaten datuek diotenez, 2007an, zerbitzu pribaturako ondasunak edo zerbitzuak internetez inoiz ere erosi ez dituzten pertsonen ehunekoa %29koa zen EB-27an eta EB-25ean, eta %27koa EB-15ean.

Hala eta guztiz ere, *azken hilabeteen erosi duten pertsonen ehunekoa* aztertuta, bost autonomia-erkidego aktiboago ikusten dira: Katalunia (%19,6), Madril (%19,3), Balearrak (%18,5), Errioxa (%15,1) eta Valentzia (%14,1). Izan ere, Valentzia eta EAE (%14tik hurbileko ehunekoa) Estatuko batez bestekoaren (%14,7) azpitik daude.

Merkataritza elektronikoa EAEn duen hedapena urrun dago EBkotik; izan ere, Eurostatek emandako datuen arabera, 2007an, azken 3 hilabeteetan internetez erosi zutenen ehunekoa %23koa izan zen EB-27an, %24koa EB-25ean eta %27koa EB-15ean. Eurostatek Estatutako emandako datua %13koa da, eta, horrela, konparazioa zentzuzkoa da, datuak guztiz homogeneoak izan ez arren. Merkataritza horretarako joerarik handiena duten herrien artean, honako hauek daude: Erresuma Batua (%44), Holanda eta Danimarka (bakoitza %43), Alemania (%41), Suedia (%39) eta Luxenburgo (%37).

2007an, EAEn azken 12 hilabeteetan internetez kontsumo pribaturako edo etxerako gehien erositako bi produktuak, INEk emandako datuek diotenez, 2006ko lehenengo boladako berberak izan dira: oporretarako bidaiak edo ostatuak (azken 12 hilabeteetan kontsumo pribaturako internetez erosi duten pertsonen %60,8) eta ikuskizunetarako sarrerak (%43,3). Hala ere, hortik aurrera aldaketa ikusten dira. Aurreko urtean, hurrengo hiru produktuak honako hauek izan ziren: liburuak, aldizkariak edo ikaskuntza elektronikoko materiala (%18,4), kiroleko materiala edo arropa (%17,1) eta material informatikoa


³ Etxeetan Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien Ekipamenduari eta Erabilerari buruzko Inkesta urtero egiten da 2002tik; landa-lanak urte bakoitzeko 2. hiruhilekoan egiten dira, baina 2005ean eta 2006an 2. seihilekoari buruzko datuak ere lortu ziren, eta landa-lanak laugarren hiruhilekoan egin ziren. Eurostatek argitaraturiko datuekin hobeto konparatu ahal izateko, aurkezten diren emaitzak, 2006ko lehenengo seihilekotik aurrera, gutxienez 16-74 urte bitarteko pertsona bat duten etxebizitzetara eta adin talde horretako pertsonetara buruzkoak dira.

II.2.70. Koadroa. Azken 3 hilabeteetan internet erabili eta bertatik erosi duten erabiltzaileak (% bertikalak)

	2005eko 1. bolada (1. hiruhilekoa)		2006ko 1. bolada (1. seiuhilekoa)		2007ko 1. bolada (urrian argitaratuta)	
	Estatua	EAE	Estatua	EAE	Estatua	EAE
Azken 3 hilabeteetako internet-erabiltzaileak guztira	15.131.420,00	819.771,00	15.970.998,0	668.758,0	17.580.587,0	751.968,0
Azken hilabeteen erosi duten pertsonen %	9,73	10,35	13,0	15,3	14,7	13,8
Orain dela 1-3 hilabete bitartean erosi duten pertsonen %	7,93	11,85	8,2	7,3	10,3	11,0
Orain dela hilabete baino gehiago eta urtebete baino gutxiago erosi duten pertsonen %	7,72	6,16	9,7	14,0	10,1	10,8
Orain dela urtebete baino gehiago erosi dutenen %	3,67	2,92	5,0	5,9	4,6	10,4
Internetez erosi ez duten pertsonen %	70,95	68,72	64,2	57,5	60,3	54,0

Iturria: INE

181


II.2.26. GRAFIKOA. AZKEN HILABETEAN INTERNETEZ EROSI DUTENEN ETA EROSI EZ DUTENEN %, 2007

Iturria: INE

(%15,4); baina 2007an honako hauek izan dira, garrantziaren arabera antolatuta: kiroleko materiala eta arropa (%27,5), ekipamendu informatikoa (%24,1) eta filmak edo musika (%21,9).

Estatuan ere gehien erosi diren lehenak 2006ko lehenengo boladan detektaturikoak izan dira: oporretarako bidaiek edo ostatuak (azken 12 hilabeteetan kontsumo pribaturako internetez erosi duten pertsonen %61,2) eta

**II.2.27. GRAFIKOA. AZKEN 12 HILABETEOTAN INTERNETEZ HELBURU PRIBATUETARAKO EDO ETXERAKO EROSI DUTEN PERTSO-
NEN EHUNEKO (16-74 URTE), PRODUKTU MOTAREN ARABERA. 2007**



ikuskizunetarako sarrerak (%33,2); baina, gero, honako hauek: liburuak eta ikaskuntza elektronikorako materiala (%19,2), ekipamendu elektronikoa (%16,8) eta ordenagailuko softwarea (%16,3).

Enpresak

Oraingoz ez dira bete merkataritza elektronikoa enpresa egituran hedatzeari buruzko aurreikuspen baikorrak, baina hazkunde handia egon da bai horrek sorturiko negozio-zifretan eta bai establezimendu kopuruaren partaidetzan, baita internetez salerosten diren ondasunetan eta zerbitzuetan ere.

2006rako, sarearen edo beste sistema elektroniko batzuen (EDI, datu elektronikoen trukea, etab.) bidezko negozio-bolumena 5.645,3 eurokoa izan zen, salmenta elektronikoen arloan, eta 2.647,8 milioikoa, erosketei zegokienez. Horrenbestez, 2002ari dagokionez, %99ko hazkundea egon da salmentetan, eta %75,4koa erosketetan.

Merkataritza elektronikoa (zentzu zabalean) egiten duten establezimenduen ehunekoak gora egin du, eta 2001eko %3tik 2006ko %12,8ra igaro da. Hala eta guztiz ere, zifra ekonomikoetan salmentek erosketak bikoiztu arren, partaidetzari dagokionez produktuak baliabide

elektronikoetatik eskuratzen dituen establezimendu kopurua askoz ere handiagoa da.

Beste modu batera esateko, partaidetzari dagokionez, hazkundera erosketa bide elektronikoetatik egiten dituzten enpresen hazkunderaren ondoriozkoa izan da; hain zuzen ere, 2006an enpresen %11,4 izan ziren, eta 2001ean %2,7. Bestalde, salmentak bide elektronikoaren bidez egiten dituzten enpresen ehunekoa (2001etik 2006ra gora egin arren) maila baxuagoetan mantendu da, eta %0,4tik %2,9ra igaro da.

Establezimenduen tamainaren arabera, dinamikoenak 9 langiletik gorakoak dira, bai negozio-zifran eta bai

partaidetzan. Horrela, 2006an 9 langiletik gorako establezimenduen %20,4k merkataritza elektronikoa egin zuten, eta horrek 7,6 puntuko alde positiboa adierazten du, establezimenduen kopuru osoari dagokionez (%12,8). Erosketa-jardueretan, 9 enplegutik gorako establezimenduen ehunekoa %17,7koa da, eta salmenta-jardueretan %6,4koa.

Jarduera-sektoreen arabera ikusten denez, negozio-bolumenik handiena industriak sortzen du (5.145 milioi euro, erosketen eta salmenten artean), eta gero zerbitzuek (3.183 milioi euro). Eraikuntzak baliabide elektronikoaren bidez sorturiko negozio-zifra oso txikia da.

II.2.71. KOADROA. MERKATARITZA ELEKTRONIKOA EGITEN DUTEN ESTABLEZIMENDUEN BILAKAERA (%)

	Establezimenduak guztira						10 langile edo gehiago					
	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2001	2002	2003	2004	2005	2006
Merkataritza elektronikoa	3,0	4,4	5,1	7,6	10,5	12,8	6,4	10,0	10,9	13,4	19,5	20,4
Erosketak	2,7	3,6	4,3	6,8	9,6	11,4	5,1	8,3	8,7	10,9	17,3	17,7
Salmentak	0,4	1,3	1,4	1,7	1,9	2,9	1,8	2,8	3,7	4,1	5,1	6,4
Salmenten % (*)	9,6	11,4	17,4	15,2	15,5	18,2	4,6	10,6	9,6	12,1	10,3	12,6
Industriako salmenten % (*)	2,4	6,3	7,2	11,2	9,2	11,5	2,5	5,8	6,0	12,0	10,3	11,3
Salmenten % (*)	9,9	16,1	20,6	22,0	24,6	24,4	12,7	13,4	15,5	15	19,4	21,7
Industriako salmenten %	10,4	14,5	16,1	19,5	23,4	27,0	18,5	15,5	18,7	16,5	25,7	24,7

(*)merkataritza elektronikoa egiten duten establezimenduetan, salerosketa elektronikoaren batez besteko %, establezimendu bakoitzeko salerosketa guztiei dagokienez.

Iturria: EUSTAT. IGI-enpresak

II.2.72. KOADROA. SALEROSKETAK, JARDUERA ADARRAREN ETA ENPLEGU ESTRATUAREN ARABERA (€-AK MILIOITAN)

	Erosketak					Salmentak				
	2002	2003	2004	2005	2006	2002	2003	2004	2005	2006
Guztira	1.509,5	1.794,7	2.012,5	2.371,7	2.647,8	2.834,00	3.702,5	4.311,8	5.008,1	5.645,3
Jarduera-adarra										
Industria	919,3	840,7	1.003,3	1.249,2	1.361,1	1.890,8	2.379,4	2.780,2	3.289,6	3.784,6
Eraikuntza	0,6	7,6	4,9	2,9	4,3	0	0	0,6	2,4	14,8
Zerbitzuak	589,7	946,3	1.004,3	1.119,6	1.292,4	943,2	1.323,1	1.531,00	1.716,1	1.845,9
Enplegu-estratuak										
0-9	176,5	469,1	511,4	705	769,5	100,4	370	507,2	656,1	678,4
10 eta gehiago	1.333,00	1.325,6	1.501,1	1.666,7	1.878,3	2.733,6	3.332,5	3.804,6	4.352,00	4.966,9

Iturria: EUSTAT. Informazioaren Gizarteari buruzko Inkesta. IGI enpresak.

II.2.73. Koadroa. SALEROSKETA ELEKTRONIKOEN BATEZ BESTEKO EHUNEOA, SALEROSKETA GUZTIEI DAGOKIENEZ, ESTABLEZIMENDUA, TAMAINA ETA SEKTOREA AINTZAT HARTUTA

	Guztira						9 enplegu baino gehiago					
	Erosketak			Salmentak			Erosketak			Salmentak		
	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak
2001	2,4	0,3	10,8	10,4	1,0	9,9	2,5	1,0	6,3	18,5	1,0	10,9
2002	6,3	1,9	13,3	14,5	0,0	16,4	5,8	0,9	14,7	15,5	0,0	12,1
2003	7,2	12,2	19,0	16,1	0,0	21,5	6,0	5,8	11,8	18,7	0,0	13,3
2004	11,2	9,4	16,1	19,5	0,1	22,7	12,0	8,1	13,0	16,5	0,1	14,9
2005	9,2	4,6	17,2	23,4	10,0	25,0	10,3	7,4	10,7	25,7	10,0	16,0
2006	11,5	4,2	20,3	27,0	3,3	24,8	11,3	3,2	14,6	24,7	10,0	20,6

Iturria: EUSTAT. IGI-enpresak

Eurostatek emandako datuek diotenez, on line erako (internet, EDI edo beste sare batzuk) erosketa-agindua jaso zituzten enpresen ehunekoa⁴, 2006an, %15ekoa izan zen EB-25ean, eta %16koa EB-15ean. Hortaz, EAEn, salmenta elektronikoa egiten duten 9 enplegutik gorako enpresa kopurua EBkoaren antzekoa da, baina aintzat hartu behar dira orrialde-oineko oharrean jasotako aldaketa metodologikoak.


Bestalde, 2006an, establezimendu bakoitzeko erosketa guztien %18,2 eta salmenta guztien %24,4 bide elektronikoz egin ziren. Aipagarria da, enpresen tamaina handitu ahala, ehuneko horiek murrizten joatea. Izan ere, 9 langiletik gorako enpresetan ehunekoak %12,6 eta %21,7 dira.

Hala eta guztiz ere, sektoreka ikusten denez, industrian ez dago alde handirik (erosketa elektronikoen erosketa guztiekiko duten ehunekoan) establezimenduen multzoaren eta handienen artean; salmenta elektronikoen kasuan ez da halakorik gertatzen, salmenta guztiekiko ehunekoa txikiagoa baita establezimendu txikiagoetan (%24,7 eta %27, hurrenez hurren). Azken batean, tamainari dagokionez, dirudienez, salmenta elektronikoa enpresarik txikienek erabiltzen dute gehien.

Merkataritza elektronikoen jasotzaileak diren bezeroei dagokionez, Eustatek emandako datuen arabera, 2006an salmenta elektronikoen guztien %86,2 beste enpresa batzuei (B2B) egin zitzaizen, %12,8 kontsumitzaile

partikularrei (B2C) eta gainerako %1 beste jasotzaile batzuei, adibidez, Herri Administrazioei, etab (B2G). Zifra horiek aurreko urtekoekin konparatuta, ez da aldaketa handirik ikusten.

Salmenten norakoari dagokionez, %43,8 EBra doaz, %33,6 Estatura, %20,5 EAera eta gainerako %2,1 munduko gainerako eskualdeetara. Erosketen kasuan, %52,5 Estatutik datoz, %27,3 EAetik, %15,5 EBtik eta %4,7 munduko gainerako eskualdeetatik.

II.2.28. GRAFIKOA. SALMENTA ELEKTRONIKOAK DITUZTEN ESTABLEZIMENDUEN EHUNEOA, BEZERO MOTAREN ETA URTEAREN ARABERA

Iturria: Eustat. Prentsa-oharrak

⁴ Inkesta egin baino lehenagoko urtea. %1 baino gehiago on line saldu eta lanaldi osoko 9 langile baino gehiago dituzten enpresak bakarrik.

3

Ingurune naturalaren egoera EAE-n

3.1 EAE-ko 2002-2020 Ingurumen Estrategiaren jarraipena

3.1.1. Ingurumeneko 2002-2006 Esparru Programaren balantzea

2002-2020ko esparru estrategikoa gaurkotzeko eta, horrela, 2007-2010 aldirako konpromisoak ezartzeko egin-dako diagnostikoan adierazitakoaren arabera (Ingurumeneko II. Esparru Programa, 2002-2006), Ingurumeneko 2002-2006 Esparru Programak aurrerakuntza handiak eta zehatzak egiteko aukera eman du, eta ezarkuntzaren betetze maila %81ekoa izan da.

Horri dagokionez, honako hauek hobekuntza handiak izan dituzte:

- Airearen kalitatea eta ozono estratifikatuaren aurrekariak diren azidotze-isurpenen murriztapena.
- Uraren kalitatea eta, batez ere, ibaietako nahiz kostaldeetako urarena.
- Baliabide naturalen (batik bat, ura) kontsumoak.

Beste zenbait arazok, adibidez, hondakinen sorkuntzak, hazkunde moderatua izan dute, baina jarduera ekonomikoaren hazkunde handiko testuinguru batean.

Azkenik, joerarik kezkarrienak honako hauek dira:

- Lurzoruen narriadura eta okupazioa. Lurzorua gero eta artifizialagoa dela ikusi da.
- Mugikortasunaren eta garraioaren hazkundera, eta desoreka modalak. Izan ere, pertsonen mugikortasuna, batez ere, ibilgailu pribatuaren bidezkoa da, eta merkantzien garraioan errepideak lehentasuna dauka, trenbideari dagokionez.
- Biodibertsitatearen galera.

Negutegi-efektuko gasen isurpenaren gorakada eta planetaren berokuntza. Egokitzapenaren ikuspegitik, honako honi buruzko aurreikuspenak hobeto ezagutu behar dira: EAEko tenperaturen hazkundera, itsasoko mailaren igoera, eta biodibertsitateari edo hondamen naturalei loturiko kalteak.

3.1.2. Ingurumeneko II. Esparru Programa, 2007-2010

Ingurumeneko II. Esparru Programa (2007-2010) Garaipen Iraunkorreko EAEko 2002-2020 Ingurumen Estrategiatik sortu da, eta Gobernu Kontseiluak onetsi du, 2007ko ekainaren 5ean. Agirian 44 ingurumen-konpromiso adierazten dira, 11 helburu estrategikotan eta 5 xedetan bilduta.

II.3.1. KOADROA. INGURUMENeko ESPARRU PROGRAMA, 2007-2010

XEDEAK	HELBURU ESTRATEGIKOAK	KONPROMISOAK
I. Aire, ur eta lurzoru garbiak eta osasuntsuak bermatzea	1. Aire garbia	I.1. Airearen kalitatean %95etik gorako kategoria moderatua, onargarria eta ona dituen indizea lortzea; eta txarra, oso txarra eta arriskutsua kategoriak %1etik beherakoak izatea. Txarra, oso txarra eta arriskutsua kategorien eraginpeko biztanleria %20an murriztea, 2006ari dagokionez. I.2. Partikulen urteko batez besteko metaketa gutxienez %10ean murriztea, airearen kalitatea gaurkotzeko egitamuak behar dituzten zonetan. I.3. Europar Batasunak adieraziko duen urteko PM_{2,5} mugako balioa ez gainditzea, sareko estazioetan. I.4. NO_x-ko, SO₂-ko eta COV-ko isurpenak murrizten laguntzea, honako ehuneko hauetan (1990ari dagokionez): NO_x: %-31, SO₂: %-64, COVNM: %-58. I.5. OMEk aglomerazio handietan gomendaturiko mugak gainditzen dituzten zarata mailen eraginpeko biztanleria %10ean murriztea, 2006ari dagokionez.
	2. Uraren kalitate ona	I.6. Lurrazaleko ur-masak babestea, hobetzea eta suspertzea, horien %80an egoera ekologiko ona lortzeko. I.7. Ur-masa artifizialak eta oso sofistikatuak babestea eta hobetzea, ahalmen ekologiko eta egoera kimiko ona lortzeko, horien %80an. I.8. Lurpeko ur-masak babestea, hobetzea eta suspertzea. Ur horiek erauztearen eta elikatzearen arteko oreka bermatzea, lurpeko uren %80an egoera ona lortzeko. I.9. Saneamenduko azpiegitura publikoa (biztanleriaren %97) izan dezakeen hiriko hondakin-urak euren isurketarako egokiak diren HUA motako arazketa-sistemetan tratatzea. I.10. Bainurako uren laginketa-lekuen %95en kalifikazioa ona edo onargarria izatea. I.11. EAEko biztanleriaren %95ek kalifikazio oneko hornidura-kontsumo ura jasotzea.
	3. Lurzorua kutsaduraren prebentzioa eta zuzenketa	I.12. Lurzorua kutsadura ekiditea, oraingo administrazio-tresna berezien bidez (egoe-raren aurretiazko txostenak). 2010erako helburua: 5.000. I.13. Kutsaturik egon daitezkeen lurzoruen 407 hektarea suspertzea, hirigintza-plana-menduak bertan erabilera edo jarduera berria aurreikusten duenean. I.14. Kutsaturik egon daitezkeen lurzoruen 35 hektarea suspertzea, hirigintza-plana-menduak bertan erabilera edo jarduera berriak aurreikusten ez duenean. I.15. Jabetza publikoko hondakindegia ez-aktiboen ingurumeneko kontrol eta jarraipen iraunkorra. Helburua: 175.
II. Baliabide naturalak eta bestelakoak arduraz kudeatzea	4. Baliabideen kontsumo arduratsua	II.1. Zenbatu gabeko uraren hiri-eskaria %25eko mailetaraino murriztea, biztanleriaren %80an. II.2. Hornidura publikoko alta-eskaria eta hartze-eskaria (industria- eta nekazaritza-jardueretarako) %20an murriztea, 2001ari dagokionez. II.3. Baliabideen kontsumoan, eraginkortasuna 2001eko mailetan mantentzea (eraginkortasun materiala). Helburua: %0.
	5. Energiaren kontsumo eta babes iraunkorrak sustatzea	II.4. 2010ean 975.000 tep.eko energia-aurrezpena lortzea. II.5. Energia-intentsitatea %16an hobetzea, 2000ari dagokionez. Helburua: %16. II.6. Kontsumo elektrikoaren %29 energia berriztagarriaren eta baterako sorkuntzaren bidez egitea. II.7. 177.000 tep.eko urteko kontsumoa lortzea, garraioko bioerregaietan.

	6. Hondakinen murriztapena eta zero isurketa	II.8. Hiriko hondakinen sorkuntza industriako balio erantsi gordinetik banantzea. II.9. Hondakin Arriskutsuetako baliabide materialak suspertzea, horien birziklatze-tasa %65era handituta. II.10. Euskal Autonomia Erkidegoko Eraikuntzako eta Eraispeneko Hondakinen %70en bererrerabilera eta birziklapena lortzea. II.11. Arriskutsuak ez diren Hondakinen (industria-jatorriko hondakinak) birziklapenean %75eko tasa lortzea. II.12. Sorturiko Hiri Hondakin guztien %35era arteko birziklapen-tasa lortzea. II.13. Aurretiazko tratamendurik gabeko Hiri Hondakinen zero isurketa, azken biltegira.
III. Natura eta aniztasuna babestea: babestu beharreko balio paregabea	7. Gure aniztasun biologikoa mantentzea	III.1. 2007-2010 urteen artean, galtzeko arriskuan edo egoera oso kezagarrian dauden fauna- eta flora-espezieen populazioen bilakaeraren indizeek hoberako joera adieraztea²⁴. III.2. Baso-azalera autoktonoa 10.000 hektareatan handitzea, 2006koari dagokionez (Basoko Inbentaria). Helburua: 205.055. III.3. Euskadiko Hezeguneen Lurralde Egitamuko Sektorialean jasotako hezeguneetako 50 hektarea suspertzea. III.4. Harrera-azalera biodibertsitatea babesteari lotutako ingurumen-neurrietaraino handitzea, harik eta, gutxienez, Nekazaritza Azalera Erabilgarriaren %10era iritsi arte. III.5. Nekazaritza ekologikorako azalera handitzea, 1.200 Ha. lortu arte. III.6. Ziurtaturiko baso-ustiapenen azalera 50.000 hektareetara heltzea. III.7. Espezie exotiko inbaditzaileen presentzia murriztea. III.8. Natura 2000 Sareko espazioetatik, Eskualde Biogeografiko Atlantikoan dauden espazioen %100 eta Eskualde Mediterraneoan dauden %30 Kontserbazio Bereziko Zonatzat (KBZ) hartzea. III.9. Paisaia Berezien eta Bikainen Katalogoko espazioen %10ek kudeaketa-neurri egokiak edukitzea. Helburua: 66.
IV. Lurralde-oreka eta mugikortasun ikuspegi komuna	8. Mugikortasuna kudeatzeko eredu baterantz	IV.1. Bidaia-eraketa modala motorduna ez den garraiola (oinez eta bizikletaz) eta garraio publiko (trena, tranbia eta autobusa) berbidatzea, pertsonen garraiobide horietan egindako distantzia urteko batez bestekoaren %40a heltzeko (bidaiari/km-tan neurtuta). IV.2. Bidaia-eraketa modala merkantzien garraiola berbidatzea, trenbideak (kilometroko tonatan) lurteko (errepidea gehi trenbidea) garraio guztiaren %15 lortzeko.
	9. Lurraldearen erabilera orekatua lortzea	V.3. Hirigintza-ekintzen ondorioz urtero artifizializatzen den hektarea kopurua murrizten joatea. Helburua: <1.24 Ha./egun. V.4. Azpiegitura berriak eraikita urtero artifizializatzen den hektarea kopurua murrizten joatea. Helburua: <2 Ha./egun.
V. Aldaketa klimatikoaren eragina mugatzea	10. Negutegi-efektuko gasen isurpena mugatzea	V.1. 2010erako negutegi-efektuko gasen isurpenak (Kiotoko Protokoloan araututakoak) murriztea, 1990eko isurpenen %14 ez gaitzeko.
	11. Aldaketa klimatikora egokitzea	V.2. Euskal Autonomia Erkidegoak klimaren aldaketari dagokionez duen zaurgarritasuna murriztea. V.3. Ahal den neurrian, 100 urteko itzultze-aldiko uholde arriskua duten zonetan (orain garapenik ez duten zonak) artifizializazioa ekiditea.

3.1.3. Ingurumen-adierazle batzuen azterketa

(a) Airearen kalitatea eta kutsagarri atmosferikoen isurpenak

Urriaren 18ko 1073/2002 Errege Dekretuaren helburua hauxe da: sufre dioxidoak (SO₂), nitrogeno dioxidoak (NO₂), partikulek (PM₁₀), berunak (Pb), bentzenoak nahiz

karbono monoxidoak (CO) airean dituzten pilaketen “mugako balioak” eta “alertako atariak” zehaztea eta ezartzea; baina baita airearen kalitatearen ebaluazioa, mantentzea eta hobekuntza arautzea ere, substantzia horiei dagokienez, eta biztanleriari eta Europako Batzordeari informazioa ematea ere bai, arauturiko substantziek gizakiaren osasunean eta ingurumenean izan ditzaketen eragin kaltegarriak ekiditeko, aurreikusteko eta murrizteko.

II.3.2. KOADROA. AIREAREN KALITATEAREN ARLOKO LEGERIA: MUGAKO BALIOAK + JASANKORTASUN BITARTEA (1073/2002 E.D.)										
Kutsagarria	B. besteko aldia	Alertataria	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	Oharrak
SO ₂	Ordubete	500 µg/m3 orduz jarraian	440	410	380	350	350	350	350	µg/m3 Baimendutakoak: urte zibileko 24 µg/m3 / max.
	24 ordu		125	125	125	125	125	125	125	Baimendutakoak: urte zibileko 3
	SO ₂ (Ecosist)		20	20	20	20	20	20	20	µg/m3
NO ₂	Ordubete	400 µg/m3 durante 3 horas consecutivas	280	270	260	250	240	230	220	µg/m3 max. Baimendutakoak: urte zibileko 18 µg/m3 / max.
	Urte zibil 1		56	54	52	50	48	46	44	
NO _x (Ecosist)	Urte zibil 1		30	30	30	30	30	30	30	µg/m3
PM ₁₀	24 ordu	-	65	60	55	50	50	50	50	µg/m3 max. Baimendutakoak: I Fasea urteko 35 Fase II (2010): Ez da indarrean sartuko
	Urte zibil 1	-	44,8	43,2	41,6	40	40	40	40	µg/m3
Pb	Urte zibil 1	-	0,8	0,7	0,6	0,5	0,5	0,5	0,5	µg/m3 Muga Orokorra PM10, 2005eko urtarr. 1etik aurrera
	Urte zibil 1	-	1	1	1	1	0,9	0,8	0,7	µg/m3 Inmediaciones de fuentes específicas PM10 a partir del 1 Ene 2010
Bentzenoa	1 año civil	-	10	10	10	10	9	8	7	µg/m3
CO	Gehieneko b. besteko ordut./egun	-	16	14	12	10	10	10	10	mg/m3

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saileko Ingurumen Planifikazio, Ebaluazio eta Kontrol Zuzendaritza.

II.3.3. KOADROA. LURRALDEAREN ZONA BANAKETA

Hasta el año 2005	Desde el año 2006
1. Erribera	1. Arabako Hegoaldea
2. Kostaldea	2. Arabako Lautada
3. Donostialdea	3. Rioja Alavesa
4. Gohierri-Urola	4. Kostaldea
5. Deba Garaia-Ibaizabal	5. Donostialdea
6. Nerbioi Gar.-Enkarterri	6. Oria Garaia
7. Arabako Lautada	7. Urola Garaia
8. Nerbioi Behea	8. Ibaizabal - Deba Gar.
	9. Nerbioi Garaia
	10. Enkarterri
	11. Nerbioi Behea

Urriaren 8ko 1073/2002 EDren ondoretarako, "ebaluazio" kontzeptuaren barruan inguruko airearen kutsadura neurtzeko, kalkulatzeko, aurreikusteko edo zenbatesteko edozein metodo sartzen da, eta hortik *airearen kalitatearen indizea* egin daiteke.

Airearen kalitatearen indizea lortzeko, EAEn kontrolleko eta zaintzako sare bat dago, eta horrek zenbait para-

metro denbora errealean neurtzen ditu; adibidez, honako kutsagarri hauek: sufre dioxidoa (SO₂), nitrogeno dioxidoa (NO_x), 10 µm-ko ebaketa-partikulak (CO) eta ozono troposferikoa (PM₁₀). Horretarako, EAEko zenbait zonatan banaturiko estazioak daude.

2005era arte, airearen kalitatearen indizea kalkulatzean, EAEko lurraldeko zortzi zona hartzen ziren kontuan. Urte horretan zenbait ikerketa egin ondoren, EAE hamaika zonatan banatu behar zela erabaki zen. Gainera, aldatu egin zen airearen kalitatearen indizeko maila kopurua, eta 4 mailatik (ona, onargarria, txarra eta oso txarra) 6 mailara igaro zen (ona, onargarria, moderatua, txarra, oso txarra eta arriskutsua).

Zona bakoitzak, halaber, *urruneko estazioak* ditu, sentso-reekin edo aztertzaileekin ekipatuta, eta horiek denbora errealean neurtzen dituzte indizea kalkulatzeko erabiliko diren kutsagarriak (SO₂, NO₂, PM₁₀, O₃ eta CO).

Estazio bakoitzean, kutsagarri bakoitzerako banakako indize bat kalkulatzeko, *indize partzial* deritzona. *Estazio bakoitzerako indize globala bat dator jokabiderik txarrena duen kutsagarriaren indize partzialarekin*. Horrela, estazio bakoitzerako indize global bat dago. Era berean, zona bakoitzeko estazioen indize globalen baliorik txarrenak zona horretako airearen kalitatea adierazten du.

II.3.4. KOADROA. AIREAREN KALITATEA EAE-N (EGUNETAN NEURTUTA)

	2007					Txarra edo oso txarra		Moderatua	
	Ona	Onargarria	Moderatua	Txarra	Oso txarra	2006	2007	2006	2007
Arabako Hegoaldea	163	190	12	0	0	0	0	12	3
Arabako Lautada	184	163	15	3	0	3	2	15	13
Arabako Errioxa	200	159	4	0	0	0	1	4	3
Kostaldea	212	149	4	0	0	0	0	4	6
Donostialdea	207	152	6	0	0	0	0	6	7
Oria Garaia	128	187	38	12	0	12	11	38	37
Urola Garaia	174	162	15	11	3	14	13	15	42
Ibaizabal - Deba Garaia	131	148	69	17	0	17	12	69	41
Nerbioi Garaia	183	164	17	1	0	1	2	17	25
Enkarterri	184	175	4	1	0	1	0	4	5
Nerbioi Behea	151	164	40	10	0	10	2	40	24
EAE GUZTIRA (EGUNAK)	1.917	1.813	224	55	3	58	43	224	206
EAE GUZTIRA, %	47,8	45,2	5,6	1,4	0,1	1,5	1	5,6	5,6

Iturria: Geuk landuta, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saileko Ingurumen Planifikazio, Ebaluazio eta Kontrol Zuzendaritzan oinarrituz.

Indizearen balioa 0 da kutsagarriaren pilaketa nulua denean; aldiz, 100eko balioa esleituko zaio pilaketa Errege Dekretuan ezarritako mugako balioarekin bat datorrenean. Pilaketako beste edozein baliotarako, indizearen balioa interpolazio linealaren bidez lortzen da.

Airearen kalitatearen indizeak balio bat izango du esleituta; horrela, balio hori zenbat eta handiagoa izan, hainbat eta txarragoa izango da zona horretako airea. Eguneroko indizea da, hau da, indizearen balioa eta, beraz, zonako airearen kalitateari buruzko informazioa egunero aldatzen da; horrenbestez, airearen kalitatearen indize desberdineko zonak egon daitezke.

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saileko Ingurumen Planifikazio, Ebaluazio eta Kontrol Zuzendaritzak emandako informazioaren arabera, esan daiteke airearen kalitatea ona edo, behintzat, onargarria dela azpizona guztietan.

11 laginketa-estazioetan, airearen kalitate txarreko edo oso txarreko egunek egun kopuru osoari dagokionez (1.045 egun) duten ehunekoaren aldetik, esan behar da horrek 5 hamarreneneko murriztapena izan duela 2006tik 2007ra, %1,5etik %1era (balio absolutuetan 58 egunetik

53ra). Bestalde, airearen kalitate moderatuko egun kopuruaren ehunekoa %5,6an mantendu da, baina balio absolutuetan murriztapena egon da, 224 egunetik 206ra.

Hain zuzen ere, 2007an, aipagarriak dira Urola Garaia (airearen kalitate txarreko edo txarreko 13 egun, eta kalitate moderatuko 42 egun), Deba Garaia-Ibaizabal (airearen kalitate txarreko edo oso txarreko 12 egun, eta airearen kalitate moderatuko 37 egun) eta Oria Garaia (airearen kalitate txarreko edo oso txarreko 11 egun, eta kalitate moderatuko 37 egun). Bestalde, Nerbioi Behean airearen kalitate txarreko edo oso txarreko egun kopurua 10etik 2ra murriztu da, eta airearen kalitate moderatuko egun kopurua 40tik 24ra.

Kutsagarri atmosferikoei dagokienez, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saileko Ingurumen Planifikazio, Ebaluazio eta Kontrol Zuzendaritzak emandako datuen arabera, 2007an **SO₂**-ko isurpenek ez dute inoiz gainditu *eguneroko* balioa, Airearen Kalitatea Zaintzeko eta Kontrolatzeko Sare osoan; halaber, gehieneko *ordutegi* balioa ere (350 µgr/m³) ez da inoiz gainditu.

NO₂ isurpenetan ez da urte zibileko 18 alditan gainditu¹ legezko muga gehi jasankortasun-bitartea, **NO₂**-ko

II.3.5. KOADROA. KUTSAGARRIEN BILAKAERA 2007AN			
Kutsagarria	B. besteko aldia	2007	Oharrak
SO ₂	Ordubete	GAINDITZERIK EZ	µg/m ³ Baimenduak: urte zibil bakoitzeko 24
	24 ordu	GAINDITZERIK EZ	µg/m ³ / max. Baimenduak: urte zibil bakoitzeko 3
NO ₂	Ordubete	Gainditze 1: ERANDIO	µg/m ³ max Baimenduak: urte zibil bakoitzeko 18
	Urte zibil 1	GAINDITZERIK EZ	µg/m ³
CO	Gehieneko b. besteko ordut./egun	GAINDITZERIK EZ	mg/m ³

Iturria: Geuk landuta, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saileko Ingurumen Planifikazio, Ebaluazio eta Kontrol Zuzendaritzan oinarrituz.

¹ Urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra

II.3.6. KOADROA. 2007AN PM₁₀ ISURPENAK GAINDITU ZITUZTEN ESTAZIOAK

Kodea	UDALERRIA	ESTAZIOA	Gainditze kopurua	Urteko batez bestekoa	Datudun egunen % (eskaturiko gutxienekoa %90)	Datudun egun kopurua
PM10ZO	Bilbo	Zorroza Matadero	161	53	100	365
P10LRK	Bilbo	Larraskitu	122	57	64	235
P10ZEL	Amorebieta	Zelaieta	98	43	99	361
P10SNT	Santurtzi	Santurtzi	79	41	97	353
P10ARR	Arrigorriaga	Arrigorriaga	74	37	100	365
P10ZUM	Zumarraga	Zumarraga	71	50	56	203
P10ERA	Erandio	Erandio	70	38	94	343
P10TXU	Bilbo	Txurdinaga	64	39	81	295
P10MON	Arrasate	Arrasate	52	31	99	363
P10MDI	Bilbo	Maria Diaz Haro	51	35	94	344
P10BCA	Barakaldo	Barakaldo	46	36	95	347
PM10RE	Errenteria	Errenteria	41	34	100	364
P10BAS	Basauri	Basauri	39	35	94	343

2007an urteko 35 gainditzeak behin gainditu zituzten estazioak

Legezko muga+2007rako Jasankortasun Bitartea gainditu dutenak, eta datu gutxiegi (%)

Iturria: Geuk landuta, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saileko Ingurumen Planifikazio, Ebaluazio eta Kontrol Zuzendaritzan oinarrituz.

ordutegi-balioetarako. Behin bakarrik gainditu da (azaroaren 26an) 230 µgr/m³-ko ordutegi-balioa, ERANDIOko estazioan (247 µgr/Nm³). Gizakiaren osasuna babesteko urteko batez besteko balioari dagokionez, 2007an ezein estaziotan ere ez da gainditu 2007rako muga+jasankortasun-bitartea (46 µgr/m³). Baliorik altuena ZORROTZA PARKEko estazioan lortu da (43 µgr/m³).

2007an COko isurpenek ez dute ezein kasutan gainditu oktoordutegiaren batez bestekoa, ezarritako legezko mugaren gainetik (10 mgr/m³).

Azkenik, PM₁₀-ko isurpenetan berriro ere gainditu egin ziren legezko mugak. Izan ere, urteko batez besteko (ur-

teko 35 egun) muga gainditzen duten 13 zona daude, eta horietatik 2k (Arrigorriaga eta Zumarraga) 2007an gainditu dute lehenengoz.

(b) Uraren kalitatea

Ur kontinentalen eta itsasoko uren egoera. Makroornogabe bentikoak²

Garapen Iraunkorreko EAko Ingurumen Estrategiak (2002-2020) eta Ingurumeneko II. Esparru Programak (2007-2010) ezarritako konpromisoaren arabera, 2012rako lurrazaleko ur-masen %80k "egoera" ekologiko eta kimiko

² Halako organismoak ibaien eta erreken lurzoruan sustraituta bizi dira, baita harrietan eta hostoetan ere. Ur-gorputzetan presentzia edukitzea bertako kalitate ekologikoaren adierazle bikaina da, sentikortasun handia baitiete aldaketa fisikoei, kimikoei eta fisikokimikoei, bizi diren inguruaren barruan. Gainera, laginak lortzeko erraztasuna ematen dute, eta aldaketekiko sentikortasun handia daukate.

ona edo oso ona eduki behar dute; gainera, ur-masa artifizialen eta oso aldatuen %80k ahalmen ekologiko on eta egoera kimiko egokia izan beharko dute. "Egoera" kontzeptu hori sortzeko, 2000/60/EE Zuzentarauaren arabera (Ur Politikaren arloko jarduketa-esparru komunitarioa ezarri duena), aintzat hartu dira uretako ekosistemen funtzionamendua modu integratuan adierazten duten faktore guztiak. Horrela, hiru adierazle mota erabili dira: Biologikoak, Fisiko-Kimikoak eta Hidromorfologikoak. Zuzentarau horrek dioenez, egoera biologikoaren balorazioa adierazle biologiko bakoitzaren baloraziorik txarrenari dagokio. Beste bi adierazleek, egoera biologikoaren emaitzarekin batera, egoera ekologikoa jakiteko aukera ematen dute.

Ur kontinentalen egoera: ibaiak

Guztira, ibai kategoriako 126 ur-masa identifikatu dira: 97 ur-masa naturalak dira, 9 urtegi motakoak eta 20 ur-masa oso aldatuak (behin-behineko izendapena). Halaber, 10 ibai mota identifikatu dira.

Beste kasu batzuetan bezala, egoerara hurbilketa egiteko, azterketa partziala erabili da. Horretarako, makroornogabe bentikoetarako (MB) egoera ekologikoa baloratu eta ingurumen-irizpideak ezarri dira (IH), baita baldintza fisikokimiko orokorrak ere (IFQ-R indizea).

Makroornogabe bentikoen egoeraren emaitzen bila-kaerak (azken urteetako emaitzak), IH indizearen arabera, hobekuntza islatzen du EAerako, 1999tik 2004ra bitartean.

Hala eta guztiz ere, azken kanpainetan (2004-2007) egonkortzea gertatu da, eta egoerak apur bat txarrera egin duela ere esan daiteke.

Ibai kategoriari dagokionez, ur-masa naturalak eta ur-masa oso aldatuak bananduta, honako emaitzak hauek lortzen dira:


- Ur-masa naturalak. 2007an ingurumen-helburuak betetzen dituzten masen %32 erregistratu dira, eta 2002an ehunekoa %59 izan zen.
- Ur-masa oso aldatuak. 2007an ingurumen-helburuak betetzen dituzten masen %7 erregistratu da, 2004-2006 aldian bezala. Hala eta guztiz ere, 2002an %13 erregistratu zen (serieko emaitzarik onena).

Beste adierazle batek, IFQ-R deritzonak, ez du berretsi (alderantziz) makroornogabe bentikoei lotutako egonkortzea; adierazle horrek egoera fisikokimiko orokorren egoera adierazten du, eta hobekuntzarako joera argia eman du aditzera.

Ibai kategorian ur-masa naturalen eta ur-masa oso aldatuen artean bananduta, honako emaitza hauek ateratzen dira:


- Ur-masa naturalak. 2007an ingurumen helburuak bete zituzten masak %78 izan ziren, eta 2000n, berriaz, %63.
- Ur-masa oso aldatuak. 2007an, ingurumen helburuak bete zituzten masak %67 izan ziren (2004-2006

II.3.1. GRAFIKOA. IBAIAK. MAKROORNOGABEEN EGOERAREN BILAKAERA. MB INDIZEA




Iturria: Euskadiko Ur Agentzia

II.3.2. GRAFIKOA. IBAIK. UR-MASA NATURALAK. MAKROORNOGABEEN EGOERAREN BILAKAERA. MB INDIZEA




Iturria: Euskadiko Ur Agentzia

II.3.3. GRAFIKOA. IBAIK. EGOERA FISIKOKIMIKO OROKORRAREN BILAKAERA. IFQ-R INDIZEA




Iturria: Euskadiko Ur Agentzia


II.3.4. GRAFIKOA. IBAIK. UR-MASA OSO ALDATUAK. MAKROORNOGABEEN BILAKAERA. MB INDIZEA



Iturria: Euskadiko Ur Agentzia

II.3.5. GRAFIKOA. IBAIAK. EGOERA FISIKOKIMIKO OROKORRAREN BILAKAERA. IFQ-R INDIZEA

Iturria: Euskadiko Ur Agentzia

II.3.6. GRAFIKOA. IBAIAK. UR-MASA OSO ALDATUAK. EGOERA FISIKOKIMIKO OROKORRA. IFQ-R INDIZEA

Iturria: Euskadiko Ur Agentzia

aldian baino balio handiagoak). Serieko emaitzarik txarrenea 1999an izan zen, %7rekin.

Orokorrean, gure ibaien egoera itxaropentsua da etorkizunari begira. Hiriko eta industriako hondakin-uren saneamenduan egindako ahalegin handiak emaitza positiboak eman ditu, eta horiek hobetu egingo dira hurrengo urteotan. Hala eta guztiz ere, oraindik ere tarte handiak daude egoera txarrean, batik bat Nerbioi-Ibaizabalen, Debaren eta Oriaren arroan.

Hala eta guztiz ere, EAEko Saneamendu Egitamugitariko saneamenduak amaituta edota birmoldatuta, ur-bazterrak suspertzearen nahiz babestearen arloko aurreikuspenak betetzearekin, kutsadura murrizteko programak gauzatzearekin eta abarrekin batera, etorkizunean apurka-apurka hobetu egingo da ibaien egoera.

Oro har, EAEko ibaien egoera modu negatiboan baldintzatzen duten faktoreak honako hauek dira: arazketa nahiz saneamendu nahikorik eza, kutsadura (industria-

efluenteak), nekazaritza-jardueren eraginezko kutsadura barreiatua, ibai-habitataren aldaketa (nekazaritza- eta industria-presioen eraginez), baliabideen erabilera ezegokia (lurzoruaren eta uraren ustiapen intentsiboa, adibidez, zentral hidroelektriko batzuen ondorioz) eta komunitateen aldaketa (espezie aloktonoak sartuta).

TRANTSIZIOKO (ESTUARIOAK) ETA KOSTALDEKO UREN EGOERA


“EAEko trantsizioko eta kostaldeko uren egoera ekologikoaren jarraipen-sareak”, 2007ko kanpainan, trantsizioko uretako (estuarioak) 32 estazio eta itsasertzeko 18 estazio aztertu ditu.

Bestalde, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Añarbeko Urak partzuergoak ingurumen-jarraipeneko ikerketak egin dituzte, bai Donostiaren eta Pasaiaiko badiaren arteko kostaldean, bai Oiartzunen estuarioan.

Ibai-sarearen kasuan bezala, aldagai fisikokimikoak aztertzeaz gain, adierazle biologikoak ere jasotzen dira. Horrela, M-AMBI indizea garatu da, substratu biguneko makroornogabe bentikoen komunitateetan oinarrituz; indize horrek EAEko kostaldearen kalitate biologikoaren bilakaera ezartzeko aukera ematen du.


Arazorik gehien *trantsizioko uretan* ikusten da, baina bilakaera onarekin. Hain zuzen ere, 2002an masen %7k

II.3.7. GRAFIKOA. TRANTSIZIOKO UR-MASAK. MAKROORNOGABEEN EGOERAREN BILAKAERA. M-AMBI INDIZEA



Iturria: Euskadiko Ur Agentzia

II.3.8. GRAFIKOA. KOSTALDEKOKO UR-MASAK. MAKROORNOGABEEN EGOERAREN BILAKAERA. M-AMBI INDIZEA



Iturria: Euskadiko Ur Agentzia

(laginketa-estazioen %38) soilik betetzen zituzten IHak, eta 2007an masen %50ek betetzen dituzte (laginketa-estazioen %75).

Kostaldeko uretan egoera oso ona da, laginketa-estazioen %86k bete egiten baitituzte helburuak.

LAKUEN ETA BARRUKO ZONA HEZEEN EGOERA

EAEko lakuak edo zona hezeak kategoriari lotuta, 4 ur-masa mugatu dira (Arreoko lakua, Guardiako aintzira multzoa, Salburuako hezegunea eta Altubeko aintzira multzoa) eta EAEko barrualdeko hezeguneen kalitate ekologikoaren jarraipen-sareak 19 hezegune kontrolatzen ditu; horietatik 15ek jarraipena izan dute 2001/2002ko ziklo hidrologikotik.

Lorturiko emaitzetan oinarrituz, esan daiteke bilakaera positiboa dagoela, baina hori oraindik ez da nahikoa. 2001/2002 ziklo hidrologikotik aztertutako 15 hezegunee-tatik, lehenengo zikloan %7k soilik betetzen zituzten IHak, eta azken zikloan hezeguneen %27k betetzen dituzte.

BAINUKO UREN KALITATEA

Bainuko urei eskatzeko moduko gutxieneko kalitate-irizpideak Kontseiluaren 76/160/EEE (75-XIIX-8) Zuzenta-rauan eta 734/1988 (88-VII-1) Errege Dekretuan ezarri dira.


Horietan, bai parametro mikrobiologikoetarako eta bai fisikokimikoetarako, derrigorrez bete beharreko balio batzuk eta zenbait balio gidari izendatu dira, eta osasun-ekintzaren helburua horiek betetzea izango da. Balio horietan oinarrituz, hondartzetarako hiru kalifikazio mota ezartzen dira:

- 2. motako hondartzak: derrigorrezko balioak eta balio gidariak betetzen dituzte, parametro guztietarako, goian aipaturiko Errege Dekretuan ezarritako baldintzen arabera.
- 1. motako hondartzak: derrigorrezko balioak betetzen dituzte, baina ez balio gidariak.
- 0 motako hondartzak: ez dituzte derrigorrezko balioak betetzen.

Hondartza inguruko eremuaren kalifikazioa hondartzaren multzo osoan oinarrituz egiten da, guneen araberrako bereizketarik egin gabe, uraren kasuan bezala. Beraz, hondartza bateko gune guztiek kalifikazio bera izango dute, euren arteko desberdintasunak egon arren.

2003an Prestigeren hondamenaren eraginpean gelditu ziren itsasoko 31 bainu-zonek, 2006an, balio gidariak bete zituzten. Plentziak, Gorkiz eskuinak eta Gorkiz ezkerak (Bizkaian), eta Antillako hondartzak eta Kontxak-Nautikoak (Gipuzkoan) ez zuten 2004an lortu, baina bai 2005ean. Eta Zarautz erdiak eta Grosek (Gipuzkoan) 2006an lortu zuten.

II.3.9. GRAFIKOA. BARRUKO ZONA HEZEAK. EGOERA EKOLOGIKOAREN BILAKAERA



Iturria: Euskadiko Ur Agentzia

Urriaren 11ko 1341/2007 Errege Dekretua argitaratu da oraintsu, bainuko uren kalitatea kudeatzeari buruzkoa; dekretu horrek Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2006/7 Zuzentaraua jasotzen du. Araudi berriaren lehen tasuneko helburuak honako hauek dira:

- Bainuko urek bete behar dituzten osasun-irizpideak ezartzea, ur horien kalitatea bermatzeko, eta, horrela, gizakiaren osasuna babesteko (nahitaezko parametro analitikoaren inguruko aldaketak sartu ditu).
- Ingurumenaren kontserbazioa, babesa eta hobekuntza, Urei buruzko Legeko testu bategina osatuz.
- Kontrolerako, sailkapenerako, kudeaketa-neurrietarako eta jendeari informazioa emateko (bainuko uren kalitateari buruz) gutxienezko xedapenak finkatzea.
- Bainuko urei buruzko informazio-sistema berria sortzea (NAYADE); internetez kontsultatu ahal izango da, eta Osasun eta Kontsumo Ministerioak kudeatuko du. Sistemak Estatuan eta Europan zentsaturiko hondartza kontinental eta itsas hondartza guztiei buruzko informazioa emango die hiritarrei.

2007an egindako azterketak (Errege Dekretuan ezarritakoa kontuan hartuta) agerian jarri du 17 bainu-zonaren egoren sailkapenak txarrera egin duela: 16 zona 2 kate-

goriatik 1era igaro dira, hau da, derrigorrezko balioak betetzen dituzte, baina ez balio gidariak; eta zona batek dagoeneko derrigorrezko balioak ere ez ditu betetzen.

Hobekuntzak, beste alde batetik, Saturraraneko hondartzan eta Uribarri-Ganboa urtegiko eskuinaldean ikusi dira.

Hondartza inguruko eremuari dagokionez, Bizkaiko 30 zonetatik 24k "ona" kalifikazioa jaso dute 2007an, 6k "hobetzeko modukoa" kalifikazioa (2006an 10) eta "txarra" kalifikazioa ez du batek ere jaso. Oro har, hobekuntza dago, 6 hobetzeko modukoak izatetik onak izatera eta 2 onak izatetik hobetzeko modukoak izatera igaro baitira. Gipuzkoan, bestalde, 23 zonetatik 18k "ona" kalifikazioa jaso dute (aurreko urtean 19), 1ek "hobetzeko modukoa" kalifikazioa (aurreko urtean 1) eta 4k "txarra" kalifikazioa (aurreko urtean 3). Aurreko urtean ontzat katalogaturiko batek txarrera egin du, eta "txarra" da orain. Azkenik, Araban hondartza inguruko 5 eremuetatik 4 hobetzeko modukoak dira, eta bat ona da; beraz, ez da aldaketarik egon aurreko urteetatik.

II.3.7. KOADROA. BAINURAKO UREN KALITATEA EAE-N. ITSASOKO URAK

PROBINTZ.	UDALERRIA	BAINUKO ZONA	LAGINKETA PUNTUA	BAINUKO UREN KALIFIKAZIOA					HONDARTZA INGURIKO EREMUAREN KALIFIKAZIOA (*)		
				2002	03	05	06	07	2003	2006	2007
Bizkaia	Muskiz - Zierbena	La Arena hondartza	(1)Eskuina	1	1	2	2	1	Ona	Ona	Ona
Bizkaia	Muskiz - Zierbena	La Arena hondartza	(2)Erdia	1	1	2	2	1	Ona	Ona	Ona
Bizkaia	Muskiz - Zierbena	La Arena hondartza	(3)Ezkerra	1	1	2	2	1	Ona	Ona	Ona
Bizkaia	Getxo	Ereagako hondartza	(1)Erdia	1	1	2	2	1	H. moduk.	H. moduk.	Ona
Bizkaia	Getxo	Ereagako hondartza	(2)Ezkerra	1	1	2	2		H. moduk.	H. moduk.	Ona
Bizkaia	Getxo	Arrigunagako hondartza	(1)Erdia	1	1	2	2	1	H. moduk.	Ona	Ona
Bizkaia	Getxo	Azkorriko hondartza	(1)Erdia	2	1	2	2	2	Ona	Ona	Ona
Bizkaia	Sopelana - Getxo	Solandoteseko hondartza	(2)Eskuina	2	1	2	2	2	Ona	Ona	Ona
Bizkaia	Sopelana - Getxo	Solandoteseko hondartza	(1)Erdia	2	1	2	2	2	Ona	Ona	Ona
Bizkaia	Sopelana	Atxabiribil-Arrietarako hondartza	(1)Eskuina	2	1	2	2	2	Ona	Ona	Ona
Bizkaia	Sopelana	Atxabiribil-Arrietarako hondartza	(2)Erdia	2	1	2	2	2	Ona	Ona	Ona
Bizkaia	Sopelana	Atxabiribil-Arrietarako hondartza	(3)Ezkerra	2	1	2	2	2	Ona	Ona	Ona
Bizkaia	Plentzia	Plentziako hondartza	(1)Erdia	2	1	2	2	1	Ona	Ona	Ona
Bizkaia	Gorliz	Gorlizeko hondartza	(1)Eskuina	2	1	2	2	1	Ona	H. moduk.	Ona
Bizkaia	Gorliz	Gorlizeko hondartza	(2)Erdia	2	1	2	2	1	Ona	H. moduk.	Ona
Bizkaia	Gorliz	Gorlizeko hondartza	(3)Ezkerra	2	1	2	2	1	Ona	H. moduk.	Ona
Bizkaia	Bakio	Bakioko hondartza	(1)Erdia	2	1	2	2	2	Ona	Ona	Ona

PROBINTZ.	UDALERRIA	BAINUKO ZONA	LAGINKETA PUNTUA	BAINUKO UREN KALIFIKAZIOA					HONDARTZA INGURIKO EREMUAREN KALIFIKAZIOA (*)		
				2002	03	05	06	07	2003	2006	2007
Bizkaia	Bermeo	Aritxatxuko hondartza	(1)Erdia	2	1	2	2	2	H. moduk.	H. modk.	H. modk.
Bizkaia	Mundaka	Laidatxuko hondartza	(1)Erdia	1	1	1	1	1	H. modk.	H. modk.	H. modk.
Bizkaia	Pedernales (Sukarrieta)	Toñako hondartza	(1)Erdia	0	0	0	0	0	Txarra	H. modk.	H. modk.
Bizkaia	Pedernales (Sukarrieta)	S. Antonioko hondtz.	(1)Erdia	1	1	1	1	1	H. modk.	H. modk.	H. modk.
Bizkaia	Ibarrangelua	Laidako hondartza	(1) Mar	2	1	2	2	2	Ona	Ona	Ona
Bizkaia	Ibarrangelua	Laidako hondartza	(2) Ria	2	1	2	2	1	Ona	Ona	Ona
Bizkaia	Ibarrangelua	Lagako hondartza	(1)Erdia	2	1	2	2	2	Ona	Ona	Ona
Bizkaia	Ibarrangelua	Lagako hondartza	(2)Eskuina	2	1	2	2	2	Ona	Ona	Ona
Bizkaia	Ea	Eako hondartza	(1)Erdia	2	1	2	2	1	Ona	H. modk.	Ona
Bizkaia	Ispaster	Ogeiako hondartza	(1)Eskerra	2	1	2	2	2	Ona	Ona	H. modk.
Bizkaia	Lekeitio	Isuntzako hondartza	(1)Eskuina	1	1	2	2	1	Ona	Ona	Ona
Bizkaia	Mendexa	Karraspioko hondartza	(1)Erdia	2	1	2	2	2	Ona	Ona	Ona
Bizkaia	Ondarroa	Arrigorriko hondartza	(1)Erdia	1	1	1	1	1	Ona	Ona	H. modk.
Gipuzkoa	Mutriku	Saturraraneke hondtz.	(1)Erdia	0	0	0	0	1	Txarra	Txarra	Txarra
Gipuzkoa	Mutriku	Mutrikuko hondartza	(1)Erdia	1	1	1	1	1	H. modk.	Txarra	Txarra
Gipuzkoa	Mutriku	Ondarbeltzeko hondtz.	(1)Erdia	1	1	0	1	1	Txarra	Txarra	Txarra
Gipuzkoa	Deba	Debako hondartza	(1)Erdia	2	2	2	2	2	Ona	Ona	Ona
Gipuzkoa	Zumaia	Itxuruko hondartza	(1)Erdia	2	1	2	2	2	Ona	Ona	Ona
Gipuzkoa	Zumaia	Santiagoko hondartza	(1)Erdia	0	0	0	1	1	H. modk.	H. modk.	H. modk.
Gipuzkoa	Getaria	Gaztetapeko hondtz.	(1)Erdia	2	1	2	2	2	Ona	Ona	Ona
Gipuzkoa	Getaria	Malkorbeko hondtz.	(1)Erdia	0	1	2	2	1	Ona	Ona	Ona
Gipuzkoa	Zarautz	Zaratuzeko hondtz.	(1) Eskuina	0	0	0	2	1	Ona	Ona	Ona
Gipuzkoa	Zarautz	Zaratuzeko hondtz.	(2) Erdia	2	1	0	2	2	Ona	Ona	Ona
Gipuzkoa	Zarautz	Zaratuzeko hondtz.	(3)Ibiltokia	2	1	2	2	2	Ona	Ona	Ona
Gipuzkoa	Orio	Antillako hondartza	(1)Erdia	2	1	2	2	1	Ona	Ona	Ona
Gipuzkoa	Orio	Oribarzarreko hondtz.	(1)Erdia	0	0	0	0	0	Txarra	Ona	Txarra
Gipuzkoa	Donostia-San Sebastian	Ondarretako hondtz.	(1)Erdia	2	1	2	2	2	Ona	Ona	Ona
Gipuzkoa	Donostia-San Sebastian	Ondarretako hondtz.	(2) Eskerra	2	1	2	2	2	Ona	Ona	Ona
Gipuzkoa	Donostia-San Sebastian	Kontxako hondartza	(1)Erdia	2	1	2	2	2	Ona	Ona	Ona
Gipuzkoa	Donostia-San Sebastian	Kontxako hondartza	(2) Eskerra	1	1	2	2	2	Ona	Ona	Ona
Gipuzkoa	Donostia-San Sebastian	Kontxako hondartza - Nautikoa	(3) Nautikoa	2	1	2	2	2	Ona	Ona	Ona
Gipuzkoa	Donostia-San Sebastian	Groseko hondartza/ Zurriola	(1) Eskuina	2	1	1	2	2	Ona	Ona	Ona
Gipuzkoa	Donostia-San Sebastian	Groseko hondartza/ Zurriola	(2) Erdia	2	1	1	2	2	Ona	Ona	Ona
Gipuzkoa	Donostia-San Sebastian	Groseko hondartza/ Zurriola	(3) Eskerra	2	1	2	2	2	Ona	Ona	Ona
Gipuzkoa	Hondarribia	Hondarribiako hondtz.	(1) Eskuina	2	2	2	2	2	Ona	Ona	Ona
Gipuzkoa	Hondarribia	Hondarribiako hondtz.	(2) Erdia	2	2	2	2	2	Ona	Ona	Ona
Araba	Arrazua-Ubarrundia	Uribarri-Ganboa urt. (Landa)	(1) Eskuina	1	1	1	1	1	H. modk.	H. modk.	H. modk.
Araba	Arrazua-Ubarrundia	Uribarri-Ganboa urt. (Landa)	(2) Eskerra	1	1	2	2	0	H. modk.	H. modk.	H. modk.
Araba	Arrazua-Ubarrundia	Uribarri-Ganboa urt. (Zuazu uhartea)	(1) Eskuina	1	2	2	1	1	H. modk.	Ona	Ona
Araba	Barrundia	Uribarri-Ganboa urt. (Garaio)	(1) Eskuina	1	2	0	0	2	H. modk.	H. modk.	H. modk.
Araba	Barrundia	Uribarri-Ganboa urt. (Garaio)	(2) Eskerra	2	2	2	2	2	H. modk.	H. modk.	H. modk.

(*) Hondartza inguruko eremuaren kalifikazioa hondartza osoa aintzat hartuta egiten da, guneen arabera desberdintasunik gabe (uraren kasuan egiten den bezala). Beraz, hondartza bateko gunek guztiek kalifikazio bera izango dute, euren arteko desberdintasunak egon arren.
Iturria: Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila

(c) Baliabide naturalen kontsumoa: Ur gezako baliabideak: uraren bilketa eta kontsumoa

EAEn hornidura publikorako ur-bilketa, INEk egindako *Uraren hornidurari eta tratamenduari buruzko inkestan* adierazitakoaren arabera, 2005ean 254,5 Hm³-koa izan zen, eta, horrenbestez, beste beherakada bat egon da (%11,1) 2004ari dagokionez. Ur erabilgarriaren %99,8 enpresak berak biltzen du³, hau da, bertako jatorria dauka, eta beste unitate batzuei lorturiko ur-bolumena %0,2 baino ez da.

Enpresaren bilketei dagokionez, eta lurrazalekoak eta lurpekoak bereizita, esan behar da 2004tik 2005era lurrazalekoak murriztu egin direla, bai balio absolutuetan (%11) eta bai guztizkoaren gaineko garrantzian. Horrela, lurrazalekoek guztizkoari dagokionez duten ehunekoa %97,6tik %91,5era igaro da. Aldiz, lurpeko biletetik berriro ere gora egin dute, eta aurreko urteetako mailetan daude.

Bestalde, EAEn hornidura publikorako banatutako eta kontrolaturiko ur-bolumen osoa 202,9 Hm³-koa izan zen 2005ean, eta, beraz, %5,3ko murriztapena egon da. Horietatik, 108,6 Hm³ (%53,5; aurreko urtean %54,1 eta 2003an %53,6) etxeak hornitzeko erabiltzen dira, 67 Hm³ (%33; 2004an %30,8 eta 2003an %35,7) sektore ekonomikoetarako, 20,8 Hm³ (%10,2; 2004an %13,4 eta 2003an %8,8) udal-kontsumoetarako, eta gainerako guztia beste gauza batzuetarako. Aipagarria da *beste kontsumo batzuk* deritzon izandako hazkundea (2004tik 2005era ia %90), baita udalerrien kontsumoaren murriztapena ere (%-28), aurreko aldi izandako hazkundearen ostean.

Banaketa-sarean galdutako ur-bolumenak, orain arteko beheranzko joeraren ostean, %33,3ko hazkundea izan

du 2005ean; hain zuzen ere, 28,6 Hm³ dira, eta horrek guztizko erabilgarriaren %11,3 adierazten du; 2004an %7,5 izan zen. Estatuko banaketa-sare publikoetan (ihesetan, apurtzeetan, etab.), ur erabilgarri osoaren %17,9 galdu zen, aurreko urteko ehuneko bera.

Bestalde, 2005ean bildutako 1.086.767 m³ hondakin uretatik %95,9 (aurreko urtean %91) tratatu egin zen, eta %0,1 berriro erabili (2001ean %14 erabili zen berriro; 2002an %7,9; 2003an %1,6; eta 2004an ez zen ezer berriro erabili). Hondakin urak biltzeko eta tratatzeko jarduera horiek 64.800 milioi euroko inbertsio gastu handia eragin dute, eta, horrela, hamarkada hasierako balioetara itzuli gara.

Uraren per capita kontsumoak behera egin du zenbait autonomia-erkidegotan, besteak beste, EAEn; hain zuzen ere, %6,7 murriztu da eta biztanleko 140 litro dira egunean; horrela, Estatuko batez bestekoaren azpitik gaude, eta bertan ere per capita kontsumoa eguneko 171 litroetatik 166 litroetara murriztu da; berriro ere, posizio erlatibo onean gaude autonomia-erkidegoen sailkapenean, hiruk baino ez baitute geuk baino kontsumo txikiagoa: Nafarroak (134) Balearrek eta Ceutak eta Melillak (biak 139).

Uraren balio unitarioa (ur-horniduraren tasen zenbatekoaren gehi hondakin-uren saneamenduko tasen/kanonen eta kontsumorako banaturiko ur-bolumenaren arteko zatidura), EAEn, 0,91 euro/m³ izan zen 2005ean, eta horrek %9,6ko hazkundea adierazten du 2004koari dagokionez. Estatuan batez besteko prezioa 0,98 euro/m³ da, eta, beraz, %2,1eko hazkundea izan du. 2003an ez bezala (EAE hirugarren postuan, Kanarien eta Balearren atzetik, uraren batez besteko prezioari dagokionez), 2004an gure erkidegoa zortzigarren postuan egon zen, honako

³ Bilketa ura naturatik ateratzean nahiz biltzean eta nonbait pilatzean oinarritzen da. Honen barruan, bilketa-zerbitzuak eta oinarritzko arrietatik nahiz hodietatik egindako bilketa sartzen dira. Besteak beste, lurrazaleko uren bilketa eta lurpeko uren bilketa bereizten dira, eta azken hori zundaketen eta zulaketen bidez egiten da.

Lurrazaleko ur kontinentalak lurrazaleko korrontea dute, edo sakonune baten lurrazalean atxikitzen dira; hau da, biltegitatuta daude. Lurrazaleko korrontea duten uren barruan, ibilgu naturaletako (ibaik eta errekek) eta ibilgu artifizialetako (ureztaketarako, industriarako eta nabigaziorako kanalizazio-sistemak; drainatze-sistemak, eta erreserba artifizialak) urak sartzen dira.

Inkesta honen helburuetarako, ibaien urbazterretan gertatzen diren iragazpenak lurrazaleko urtzat hartzen dira, eta trantsizio urak, urtegi gazikarak eta estuarioak, aldiz, ez dira lurrazaleko urtzat hartzen: beste baliabide hidriko batzuen artean sartzen dira.

Lurpeko urak lurpeko eraketa batetik edo horren bidez ateratzen direnak dira, gehienbat; hau da, akuiferoetatik ateratzen direnak. Akuiferoak lurpean dauden ur-biltegi iraunkor edo iragankor guztiak dira, modu artifizialean eta naturalean betetzen direnak, bertako urak erabilerak jakinerako kalitate nahikoa duenean. Atal honetan, iturburuetatik harturiko ura sartzen da. Iragazpenetatik datorren ura kanpoan gelditu da, eta lurrazaleko uren barruan sartuko dugu.

II.3.8. KOADROA. EAE-KO HORNIDURA PUBLIKORAKO KONTROLATURIKO ETA BANATUTAKO UR BOLUMENA

	2000	2001	2002	2003	2004	2005	Ald. % 03/04	Ald. % 04/05
EDANGARRI BIHURTU GABEKO URAREN ERABILGARritasun osoa (m³-ak milatan)								
GUZTIRA	244.038	366.719	361.692	414.212	285.251	254.473	-31,1	-11,0
Enpresak berak egindako erakarpen guztia	244.038	329.469	310.034	318.494	285.251	253.835	-10,4	-11,0
Beste unitate batzuei lorturiko ur-bolumena	-	37.249	51.658	95.718	0	638	-	
Beste enpresa batzuei hornituriko ur-bolumena (edangarri bihurtutakoa)	-	-	-	0	0	0	-	
ENPRESAK BERAK EGINDAKO UR BILKETAK (m³-ak milatan)								
GUZTIRA	244.038	329.469	310.034	318.494	285.251	253.835	-10,4	-11,0
Lurrazaleko urak	242.879	256.256	251.387	279.258	278.541	232.372	-0,3	-16,6
Lurpeko urak	1.159	33.083	26.574	17.963	6.710	20.317	-62,6	202,8
Gatza kentzea		35.671	27.881	18.331	0	0		
Beste baliabide hidriko batzuk		4.459	4.192	2.942	0	1.146		
URA ERABILTZAILA TALDE NAGUSIEN ARABERA BANATZEA (m³-ak milatan)								
Hornidura publikorako kontrolaturiko eta banatu-tako ur-bolumen osoa	187.378	202.231	195.723	213.770	214.180	202.899	0,2	-5,3
Sektore ekonomikoak	55.765	69.502	63.611	76.315	66.045	66.967	-13,5	1,4
Etxeak	117.751	114.528	112.832	114.660	115.853	108.580	1	-6,3
Udal-kontsumoak	13.206	13.976	15.595	18.831	28.801	20.750	52,9	-28,0
Beste batzuk	656	4.225	3.685	3.964	3.481	6.602	-12,2	89,7
Banaketa-sarean galdutako ura (a)	77.691	71.040	65.371	30.108	21.479	28.633	-28,7	33,3
Edangarri bihurtu gabeko uraren erabilgarritasun osoa (b)	244.038	329.469	310.034	318.494	285.251	253.835	-10,4	-11,0
Banaketako sare publikoan galdutako uraren % (a/b)	31,8	21,6	21,1	9,5	7,5	11,3		
Banaturiko ur guztiaren zenbatekoa (euroak milatan)	126.297	129.205	126.297	147.501	81.677	86.869	-44,6	6,4
Hornidura-zerbitzuetako inbertsioaren zenbateko osoa (€-ak milatan)	1.965	13.344	1.965	1.285	4.948	3.704	285,1	-25,1

Iturria: INE "Uraren hornidurari eta tratamenduari buruzko inkesta"

autonomia-erkidego hauen atzetik: Gaztela eta Leon (0,61 euro/m³), Gaztela-Mantxa (0,63), Asturias (0,65), Kantabria (0,69), Extremadura (0,72), Galizia (0,78) eta Aragoi (0,82). 2005ean ere zortzigarren postuan egon zen, honako hauen atzetik: Gaztela eta Leon (0,66 euro/m³), Kantabria (0,68), Asturias (0,74), Gaztela-Mantxa (0,74), Galizia (0,75), Extremadura (0,81) eta Aragoi (0,87).

(d) Hondakinen sorkuntza eta kudeaketa. Hiriko Hondakinak eta Hondakin Arriskutsuak

Gogoratu behar da Ingurumeneko II. Esparru Programak (2007-2010), hondakinak murrizteari eta zero isurketari dagokionez, sei konpromiso ezarri zituela. Epigrafe honetan, horietariko lau aztertuko ditugu:

1. Industria-hondakinen sorkuntza industriako balio erantsi gordinetik banantzea.

II.3.9. KOADROA. EAE-KO HONDAKIN UREN BILKETA ETA TRATAMENDUA (M3/EGUN)

	2001	2002	2003	2004	2005	Ald. % 03/04	Ald. % 04/05
Bildutako hondakin-uren bolumena	499.427	485.494	550.531	991.548	1.086.767	80,1	9,6
Arazitako hondakin-uren bolumena	433.841	422.389	515.848	902.268	1.042.034	74,9	15,5
Isuritako ur-bolumen osoa	389.155	374.676	542.108	991.457	1.085.106	82,9	9,4
Berriro erabilitako ur-bolumen osoa	98.500	33.340	8.423	0	1.509	-100,0	
Hondakin-urak biltzean eta araztean egindako inbertsio-gastuen zenbateko osoa (€-ak milatan)	87.624	26.913	39.127	7.768	64.800	-80,1	734,2
Saneamendu- eta arazketa-kuoten zenbateko osoa (€-ak milatan)	90.709	84.725	97.356	96.011	96.832	-1,4	0,9

Erreferentziako urtetik aurrera (2004) aldaketak egon dira hondakin-urak biltzeari eta arazteari buruzko datuetan, metodologia aldatu egin baita, estatistika hauen erabiltzaileen beharrianetara eta nazioarteko gomendioetara egokitzeko. Atal hauetan, banaketa-sarekoak ez diren hondakin-urak sartu dira (euri-urak, berezko erauzketa eta beste jatorri batzuk); 2003ra arteko estatistikan (urte hori ere barne), berriz, bertako hondakin-urei buruzko informazioa baino ez zen jasotzen.

Iturria: INE. Uraren hornidurari eta arazketari buruzko inkesta.

II.3.10. KOADROA. ETXeko URAREN BATEZ BESTEKO KONTSUMOA ETA BALIOA

	B. BEST. KONTSUMOA (litroak/biztanle/egun)						B. BESTEKO PREZIOA (£/m3)					
	2002	2003	2004	2005	% var, 03/04	% var, 04/05	2002	2003	2004	2005	% var, 03/04	% var, 04/05
Andaluzia	184	184	189	195	2,7	3,2	0,69	0,79	0,94	0,92	19,0	-2,1
Aragoi	170	169	162	153	-4,1	-5,5	0,62	0,66	0,82	0,87	24,2	6,1
Asturias	158	161	172	180	6,8	4,6	0,59	0,65	0,65	0,74	0,0	13,8
Balearrak	127	130	142	139	9,2	-2,1	1,48	1,42	1,31	1,58	-7,7	20,6
Kanariak	134	135	147	145	8,9	-1,4	1,67	1,68	1,64	1,65	-2,4	0,6
Kantabria	182	185	187	191	1,1	2,1	0,55	0,6	0,69	0,68	15,0	-1,4
Gaztela eta Leon	155	168	172	160	2,4	-7,0	0,49	0,53	0,61	0,66	15,1	8,2
Gaztela-Mantxa	185	184	179	174	-2,7	-2,8	0,52	0,57	0,63	0,74	10,5	17,5
Katalunia	182	183	174	162	-4,9	-6,9	0,98	1,04	1,92	1,04	84,6	-45,8
Valentziako Erkideg.	158	163	178	171	9,2	-3,9	0,78	0,83	1,20	1,36	44,6	13,3
Extremadura	165	163	178	173	9,2	-2,8	0,76	0,73	0,72	0,81	-1,4	12,5
Galizia	131	143	155	152	8,4	-1,9	0,61	0,62	0,78	0,75	25,8	-3,8
Madril	166	166	171	159	3,0	-7,0	0,81	0,86	1,00	1,09	16,3	9,0
Murtzia	146	149	161	162	8,1	0,6	1,08	1,08	1,41	1,52	30,6	7,8
Nafarroa	148	152	144	134	-5,3	-6,9	0,63	0,73	1,11	1,12	52,1	0,9
EAE	147	149	150	140	0,7	-6,7	1,14	1,15	0,83	0,91	-27,8	9,6
Errioxa	140	136	141	145	3,7	2,8	0,44	0,54	0,96	0,98	77,8	2,1
Ceuta eta Melilla	146	139	142	139	2,2	-2,1	0,68	0,74	0,91	0,98	23,0	7,7
Estatua	164	167	171	166	2,4	-2,9	0,81	0,86	0,96	0,98	11,6	2,1

Iturria: INE. Uraren hornidurari eta arazketari buruzko inkesta.

2. Hondakin Arriskutsuetako baliabide materialak suspertzea, birziklatze-tasa %65era arte handituta.
3. Sorturiko Hiriko Hondakin guztien %35era arteko birziklatze-tasa lortzea.
4. Azken biltegiatzearen aurreko tratamendurik gabeko Hiriko Hondakinen zero isurketa.

Ikerketa hasi baino lehen, aipagarria da desadostasun handia dagoela Batzorde honek azterketarako beti erabili dituen bi datu-iturrien artean. Ikusiko dugunez, INEren eta IHOBEn datuetan oinarrituz, ez dira ondorio berberak ateratzen aldagai guztietan.

INEren *Industria-sektoreko hondakinen sorkuntzari buruzko inkesta* deritzoneko azken datuek agerian jarri duteenez, EAEn arriskutsuak ez diren hondakinen sorkuntzak %-3,1eko murriztapena izan du. Hala eta guztiz ere, hondakin arriskutsuen sorkuntzak berriro ere gora egin du 2004tik 2005era (%16,7), aurreko urtean bezala, eta 2002-2003 aldian gertaturikoaren alderantziz, azken aldi horretan murriztapena egon baitzen. Horrela, EAE (327.327 T) berriro ere bigarren erkidegoa da, industria-sektoreak hondakin arriskutsurik gehien sortu dituztenen artean, Kataluniaren atzetik (486.074 T).

Hiriko hondakinei dagokienez, INEren *Hiriko Hondakinak Biltzeari eta Tratatzeari buruzko Inkesta* izenekoak agerian jarri duenez, 2005ean EAEn gaikako bilketa izan duten hondakinek murriztapena izan dute (%-14,7), baina nahasita bildutako hondakinen bolumenak gora egin du (%+12,2).

Per capita balioei dagokienez, INEren *Hiriko Hondakinak Biltzeari eta Tratatzeari buruzko Inkesta* deritzon adierazitakoaren arabera, 2005ean EAEn nahasitako 501 Kg hiriko hondakin bildu ziren; zifra hori Estatuko batez bestekoa (484) baino handiagoa da, baita aurreko urtekoa baino handiagoa ere (456). Autonomia-erkidegoen arabera, per capita baliorik handieneko autonomia-erkidegoak Balearrak (616), Kanariak (586), Ceuta eta Melilla (569), Kantabria (538) eta EAE eta Errioxa (biak 501) izan ziren.

Gaikako bilketaren arloan, EAEk Estatuko batez bestekotik gorako balioak ditu, kasu guztietan (papera eta kartoia, beira, plastikoak eta ontzi mistoak). Hain zuzen ere, paperaren eta kartoia gaikako bilketan baliorik handienak EAEn (38,6 Kg/biztanle) eta Balearretan (55,2) egon ziren. Beiran baliorik handienak EAEk (19,3 kg/biztanle), Nafarroak (18,9), Balearrek (18,7) eta Errioxak (18,2) izan zituzten. Hala eta guztiz ere, 2004ko eta 2005eko datuak konparatuta ondorioztatzen denez, ez dago hobekuntzarako joera argirik, aurrerakuntza guztiak ez baitira positiboak. Horrela, ontzi mistoen gaikako bilketak murriztapena izan du.

Hondakinen norakoari dagokionez, INEren datuen arabera, EAEn bildutako hondakin nahasien %62,7 enpresa kudeatzaileak berak ezabatzen ditu (aurreko urtean %31,9); %27,6 enpresak berak tratatzen ditu, eta %9,8 beste hondakin-kudeatzaile batzuei ematen zaizkie. Estatuan, enpresa kudeatzaileek eurek ezabaturiko hondakinen ehunekoa txikiagoa da, %33,6 (aurreko urtean %35,1), eta tratatzen direnen ehunekoa %33,9.

II.3.11. KOADROA. HIRIKO ETA INDUSTRIAKO HONDAKINEN SORKUNTZA (*) (TONAK)

	ESTATUA					EAE				
	2001	2003	2004	2005	Aldaketa 2004-05	2001	2003	2004	2005	Aldaketa 2004-05
Hiriko hondakinak (HH)										
HH nahasiak	24.019.377	24.583.907	21.207.615	21.639.537	2,0	1.072.391	1.042.390	952.375	1.068.437	12,2
Gaikako bilketa duten HHak	2.596.519	3.002.795	6.385.527	6.422.808	0,6	110.994	137.737	465.146	396.928	-14,7
Industriako hondakinak										
Ez-arriskutsuak	57.434.183	57.404.557	54.261.461	58.157.360	7,2	1.744.876	2.465.130	2.568.362	2.489.793	-3,1
Arriskutsuak	1.364.420	2.145.411	1.970.360	2.227.894	13,1	215.207	321.219	327.327	382.011	16,7

(*)Zerbitzu-sektoreko hondakinen sorkuntzari buruzko inkestak ez du autonomia-erkidegoen arabeko banaketarik egiten.

Iturria: INE: Hiriko hondakinen bilketari eta tratamenduari buruzko inkesta, eta industria-sektoreko hondakin-sorkuntzari buruzko inkesta.

II.3.12. KOADROA. HIRIKO BALIABIDEAK, MOTAREN ETA ALDIAREN ARABERA BILDUTA (Kg/BIZTANLE/URTE)

	1998		1999		2000		2001		2002		2003		2004		2005	
	EAE	Estatua	EAE	Estatua	EAE	Estatua	EAE	Estatua	EAE	Estatua	EAE	Estatua	EAE	Estatua	EAE	Estatua
Hondakin nahasiak (1)	381	527	472	570	483	588	512	566	522	581	494	576	456	491	501	484
Gaikako bilketa (2)																
Papera eta kartoia	14,9	11,8	18,6	12,9	22,8	14,5	27,1	15,9	15,4	16,3	29,3	15,2	38,9	16,3	38,6	17,9
Beira	6,4	13,1	9,3	12,6	10,7	15,1	9,7	15,6	10,9	14,8	15,9	11,8	16,2	10,2	19,3	10,9
Plastikoak	0,4	1,5	1	2,7	7,6	13	7,4	14,8	-	-	-	-	-	-	-	-
Ontzi mistoak	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	133	45,2	49,9	23,3

(1) Hondakin nahasiak: norbanakoen etxean, dendetan, bulegoetan nahiz zerbitzuetan, bide publikoetan eta etxeko gauzetan sorturiko etxeko hondakinak dira.

(2) Gaikako bilketa duten hondakinak: hondakinetako material baloragarriak banantzeko aukera ematen duten bilketa hautakorren ondoriozkoak dira.

Iturria: INE

II.3.13. KOADROA. HIRIKO HONDAKINAK NORAKOAREN ARABERA, 2005 (% BERTIKALA)

	Hondakin nahasiak guztira				Gaikako bilketako hondakinak guztira			
	EAE		Estatua		EAE		Estatua	
	2004	2005	2004	2005	2004	2005	2004	2005
Guztira	952.375	1.068.437	21.207.615	21.639.537	465.146	396.928	6.385.527	6.422.808
Enpresak berak kudeatuta: arazita	48,5	27,6	43,4	33,9	69,7	74,1	34,2	28,6
Enpresak berak kudeatuta: zuzenean ezabatuta	31,9	62,7	35,1	33,6	1,0	11,5	12,4	30,3
Beste hondakin-kudeatzaile batzuei emanda	19,6	9,8	21,5	32,6	29,2	14,4	53,4	41,1


Iturria: INE

Aldiz, gaikako bilketaren kasuan, EAEn bildutako hondakinen %74,1 enpresak berak kudeatzen eta tratatzen ditu, eta Estatuko batez bestekoa %28,6 da.

Ihobek argitaraturiko "2008ko ingurumen-adierazleak" txosteneko datuek agerian jarri dutenez, 2004tik 2005era hondakin arriskutsuen sorkuntzak %3ko murriztapena izan du (2005eko datuak behin-behinekoak); gainera, argitalpen horren arabera, horien bilketan aurrerakuntza nabaria egon da: 2000n %34 baino ez, eta 2001ean %51 (2010erako konpromisoa: %65).

Hiriko hondakinen sorkuntzaren aldetik, 2004tik 2005era murriztapena egon da. Biztanleko sorturiko hiriko hondakinak 545 Kg inguru izan ziren 2005ean, eta, beraz, nolabait egonkortzea egon da, aurreko urteei dagokienez. Hondakinen birziklapenaren bilakaerak joera positiboa izan du; horrela, 2000n guztizkoaren %22 birziklatu zen, eta 2005ean %29. Gehienak paperaren nahiz kartoiaren eta beiraren gaikako bilketako hondakinak izan ziren.

Sorturiko hiriko hondakinen zero isurketarako konpromisoari dagokionez, 2005ean horien %56 hondakindegira

II.3.10. GRAFIKOA. NEG ISURPENEN 1990-2006AN SEKTOREKA IZANDAKO BILAKAERA (%)

*energia-sektorearen barruan baterako sorkuntzaren isurpenak sartzen dira
Iturria: EAEko NEG isurpenen inbentarioa (1990-2006)

eraman ziren. Horrenbestez, oraindik ere zero isurketa lortzetik urrun egon arren, oraingo egoerak aurrerakuntza adierazten du 2000ko egoeratik, bertan hiriko hondakinen %77 eraman baitziren hondakindegira.

(e) Klima-aldaketa: negutegi-efektuko gasen isurpenak⁴ (NEG)

Kyotoko protokoloak zuzeneko **isurpenen** hazkundea %15ean mugatzeko konpromisoa esleitu dio Espainiako estatuari, oinarri-urteari dagokionez (1990), 2008-2012 bitarteko aldirako.

EAE **NEGen isurpen guztia** (zuzenekoa eta zeharkakoa, hau da, inportaturiko elektrizitateari loturiko isurpenak ere barne), "EAEko negutegi-efektuko gasen 1990-2006ko isurpenaren inbentarioa" deritzon jaso-tako datuen arabera, CO₂ baliokideko 25,5 milioi tonakoa izan zen; horrek 2004ko isurpenetatik %0,4ko hazkundea eta oinarri-urtekoetatik %21,9ko hazkundea adierazten du. Beraz, azken lau urteotan isurpenak 25 milioi tona inguruan egonkortu dira.

Zuzeneko isurpenak bakarrik aintzat hartuz gero, iturri horrek dioenez, 2006an isurpenok CO₂ baliokideko 23 milioi tonakoa izan ziren; horrek 2005eko isurpenetatik⁵ %1,3ko murriztapena eta oinarri-urtekoetatik %43,1eko murriztapena adierazten du.

2005etik honako murriztapena, hain zuzen ere, egoitzako, zerbitzuko eta elektrizitate-sorkuntzako sektoreetan erregai fosilen kontsumo urriagoa egoteari lotuta dago: alde batetik, neurri handian 2006ko klimatologia onaren eraginez, eta, bestetik, ziklo konbinatuko zentral eta, Penintsulan, zentral hidroelektrikoetako sorkuntza handiagoaren eraginez (neurri txikiagoan, energia eolikoaren eta nuklearraren hazkundea ere bai), horiek zentral termiko konbentzionalak ordeztu baitituzte, neurri handian. Penintsulako produkzioak gora egitearen ondorioz, EAEko energia-sorkuntza murriztu egin zen (batik bat, zentral konbentzionalak), eta inportaturiko elektrizitate kantitateak gora egin zuen, eskari elektrikoari erantzun egokia emateko, horrek %4ko hazkundea izan baitzuen, 2005ekoari zegokionez.

⁴ Kyotoko protokoloan aipaturiko negutegi efektuko gasak honako hauek dira: karbono dioxidoa (C2), metanoa (CH4), oxido nitrosoa (N2O), hidrofluorokarbonatuen familia (HFC) eta sufre hexafluoruroa (PFC). Oinarri-urteko isurpenak honako hauen isurpenak batuta kalkulatu dira: 1990eko C2, CH4 zein N2O eta 1995eko HFC, PFC nahiz SF6.

⁵ Aldatu egin dira 2005eko guztizko isurpenak, aurreko inbentarioari dagokionez, sorturiko elektrizitatearen goranzko ikuskapena egin baita. Horrela, elektrizitatea gutxiago sartu da, eta ia milioi erdi tona gutxiagoko isurpena ondorioztatu da, 2005ean argitaraturikoari dagokionez.

Sektoreka,

- EAEn energia transformatzeko sektorearen isurpenik handienak 2005an egin ziren, baina 2006an %3ko murriztapena izan zuten, aurreko urtetik; gainera, sorturiko NEG isurpen guztien %38 izan dira. Oinarri-urteari dagokionez (1990), isurpenek %198ko hazkundeak izan dute.

Findegiko isurpenetan izandako hazkundeak, bestalde, zentral termikoetako, baterako sorkuntzetako eta erregai solidoak transformatzeko industriako jardura urriagoarekin eta, beraz, bertako isurpenen murriztapenarekin konpentsatu da.

Sektore honen barruan inportaturiko energia elektrikoa aintzat hartuta, ekarpena %44koa izango litzaiteke, eta oinarri-urtearekiko hazkundeak, berriz, %30ekoa.

Aipagarria da, NEGen isurpenik handienetarikoa sektore honetan egon arren, isurpenok gainerako sektoreen eskariaren arabera direla.

- Energiaren azken kontsumoaren %67 bertako produktioarekin bete da, eta 2005ean baino ia 17.000 GWh gehiago inportatzen dira (%37 gehiago). Hala eta guztiz ere, ikatzeko zentral termikoek egindako ekarpen urriagoaren eraginez, eta ekoizpen hidroelektrikoak eta ziklo konbinatukoak hazi egiten direla aintzat hartuta (Estatuko mix energetikoan), inportazio horri loturiko emisioek %28,9ko hazkundeak izan dute 2005etik 2006ra. Horrela, oinarri-urtetik 2006ra, %47,6ko murriztapena egon da.
- Garraioko zuzeneko isurpenek %109ko handitzea izan dute, 1990ekoei dagokionez, eta 2006an EAEn sorturiko NEG isurpen guztien %22 eragin dituzte. Gutxi gorabehera, sektore horretako isurpenen %95 errepideko garraioari lotuta daude.
- Industriako azken kontsumoan, zuzeneko emisioak 2005eko maila berean mantendu ziren, gutxi gorabehera; eta 1990etik %32ko murriztapena egon da. EAEn sorturiko NEG isurpen guztien %20 eragin ditu. Aintzat hartu behar da energia elektrikoaren eskatzaile nagusia dela (EAEn 2006an kontsumituriko elektrizitatearen %60 baino gehiago). Sektore horrek, energia elektrikoaren sorkuntzaren eraginezko isurpenak berari egotziz gero, isurpen guztien %41 sortuko lituzke.
- Egoitza- eta merkataritza-sektoreetan isurpenek %15eko murriztapena izan zuten, 2005ari zegokionez, bi sektoreetan gas naturalaren kontsumoak behara egitearen ondorioz. Zuzeneko isurpenen %4

sortu zituzten; hain zuzen ere, 1990etik zerbitzu-sektorean %75eko hazkundeak eta egoitza-sektorean %23koa egon zen. Sektore horiek, biek batera, EAEko energia elektrikoaren azken kontsumoaren %33 izan zuten. Sektore horrek, energia elektrikoaren sorkuntzaren ondoriozko isurpenak berari egotziz gero, isurpen guztien %14 sortuko lituzke.

Gas motaren arabera,

- Karbono dioxidoa (CO_2) negutegi-efektuko gasen isurpenetan ekarpenik handiena egiten duen gasa da; hain zuzen ere, EAEko isurpen guztien %88. 2005etik 2006ra emisioek %1eko hazkundeak izan dute, eta, oinarri-urteari dagokionez, %28koa. EAEn soilik izandako isurpenak kontuan hartuta, 2006an horiek murriztu egin dira lehenengoz.
- Metanoak (CH_4) NEG isurpenen %7 sortu ditu; 2005etik gas horren emisioak %4an murriztu dira, eta %1eko hazkundetxoak egon da, 1990ari dagokionez. Murriztapen hau isurpenek honako hauetan izandako beherakadak eragin du: hondakindegietan, nekazaritzan eta, neurri txikiagoan, energia-prozesuetan.
- Oxido nitroso (N_2O) isurpenek %29ko murriztapena izan zuten, 2005etik, eta %1eko hazkundeak, 1990ari dagokionez. NEG isurpenetan egindako ekarpena %2koa da. EAEn azido nitrikoaren produktioa amaitzeak eragina izan du oxido nitroso isurpenen beherakadan.
- Gas fluoratuen isurpenak (HFC's, PFC's eta SF_6) NEG isurpen guztien %3koak izan ziren 2006an; beraz, %20ko murriztapena izan zuten oinarri-urteko (1995) mailetatik, baina %36ko hazkundeak, 2005ari zegokionez, neurri batean industria kimikoko sorkuntzan izandako isurpen handiagoaren ondorioz.

Europako Batzordearen Komunikazioan bildutako datuen arabera COM(2007), *Kyotoko helburuak lortzeko egin diren aurrerakuntzak*, 2005ean NEG isurpenen bilakaera orokorra bi herri isurtzaile nagusien eraginpean dago: Alemania eta Erresuma Batua (EB-27ko NEG isurpen guztien herena). Bien artean, euren isurpenak 340 milioi tonatan (CO_2 -ko baliokideak) murriztu dituzte, 1990ari dagokionez.

Bilakaera on horren zio nagusiak, Alemaniaren kasuan, beroa nahiz elektrizitatea sortzen duten zentralen errendimendu handiagoa eta bost estatu federatu berrien berregituratze ekonomikoa (Alemania berriro batzearen ostean) dira. Erresuma Batuan, NEG isurpenen murriztapena, batez ere, petrolio eta ikatza baztertzeak azaltzen du; hain zuzen ere,

II.3.14. Koadroa. NEGen isurpena (erreferentziako urtea=100)

	2005		2012
	Urte honetako indizea	Aldaketaren ehuneko puntuak, erreferentziako urteari dagokionez*	Konpromisoa/loru beharreko helburua
EB-27	92,1	-7,9	
EB-15	98	-2	92
Belgika	97,9	-2,1	92,5
Bulgaria	52,8	-47,2	92
Txekiar E.	74,2	-25,8	92
Danimarka	92,2	-7,8	79
Alemnaia	81,3	-18,7	79
Estonia	48	-52	92
Irlanda	125,4	25,4	113
Grezia	125,4	25,4	125
Espainia	152,3	52,3	115
Frantzia	98	-2	100
Italia	112,1	12,1	93,5
Zipre	163,7	63,7	
Letonia	42	-58	92
Lituania	46,9	-53,1	92
Luxenburgo	100,4	0,4	72
Hungaria	65,5	-34,5	94
Malta	154,8	54,8	
Holanda	98,9	-1,1	94
Austria	118,1	18,1	87
Polonia	68	-32	94
Portugal	140,4	40,4	127
Errumania	54,4	-45,6	92
Eslovenia	100,4	0,4	92
Eslovakia	66,4	-33,6	92
Finlandia	97,4	-2,6	100
Suedia	92,6	-7,4	104
Erres. Batua	84,3	-15,7	87,5
Kroazia	95,5	-4,5	95
Islandia	110,5	10,5	110
Norvegia	108,8	8,8	101
Japonia	107,8	7,8	94

* Erreferentziako urtea ez da beti 1990, estatukide berriek beste batzuk aukeratu baitituzte.

Iturria: EUROSTAT

gasa erabiltzen hasi dira elektrizitatea sortzeko; halaber, aintzat hartu behar dira azido adipikoa sortzen duen sektorean N₂O-ko isurpenak murrizteko hartu diren neurriak.

Italiak eta Frantziak (bakoitzak) isurpen guztien %11 sortzen dute, eta hirugarren eta laugarren isurtzaile nagusiak dira, hurrenez hurren. Italiak 1990etik 2005era NEG

isurpenetan izan duen hazkundera, bestalde, honako sektore hauen eraginezkoa da, batez ere: errepideko garraioa, elektrizitatearen nahiz beroaren sorkuntza eta petrolioaren finntza. 2005ean, Frantziako NEG isurpenak 1990ekoak baino %2 urriagoak izan ziren. Frantziak nabarmen murriztu ditu azido adipikoa sortzearen ondoriozko N_2O isurpenak; hala ere, errepideko garraio-sektoreko CO_2 isurpenek hazkunde nabaria izan zuten, 1990etik 2005era.

Espainia eta Polonia bosgarren eta seigarren postuan daude, hurrenez hurren, EB-27an isurpenik handienak egiten dituzten herrien arteko sailkapenean; euren ehunekoak %9 eta %8 dira, EB-27ko NEG isurpen guztiei dagokionez. Espainian isurpenek %52,3ko hazkundera izan zuten, 1990etik 2005era, gehienbat honako sektore hauetan izandako hazkundearen eraginez: errepideko garraioa, elektrizitatearen nahiz beroaren sorkuntza eta fabrikazioko industriak, neurri handian hazkunde demografikoa eta garapen ekonomiko handiaren eraginez. Poloniak %18an murriztu zituen NEG isurpenak, 1990etik 2005era (%-32, erreferentziako urteari dagokionez, eta urte hori Poloniaren kasuan 1998 izan zen). Polonian (Ekialdeko Europako gainerako estatukideen kasuan bezala), fenomeno horren eragile nagusiak honako hauek izan dira: alde batetik, energia-errendimendu baxuko industria astunaren krisia; bestetik, ekonomiaren berregituratze orokorra, 80ko amaieran eta 90eko hasieran. Horren salbuespena garraio-sektorea izan da, batez ere errepideko garraioa, isurpenek gora egin baitzuten.

3.2. Osasuna eta ingurumena: adierazleak

Gizakiaren osasunaren eta ingurumenaren arteko lotura konplexua da. Osasunean eragina duten ingurumen-arazo nagusiak, alde batetik, garapenik ez egotetik edo hori nahikoa ez izatetik datoz (betiko arriskuak), eta, bestetik, garapen iraunkorretik (arrisku berriak).

Europar Batasuneko 2004-2010 Ekintza Egitamua helburu nagusia ingurumen- eta osasun-adierazleak lantzea da; egitamu hori, izatez ere, Europako Batzordeak OMEk Budapesten (2004) antolatutako ingurumenari eta osasunari buruzko 4. Ministerio Konferentziara egindako ekarpen nagusia izan da.

Guztira, 29 adierazle gomendatu dira, EBko estatuki-deetan inplementatzeko; bi taldetan antolatutak daude: eraginpeak/ondorioak/erantzunetara lotutakoak, eta indar eragileak/presioak/Estatuta lotutakoak.

Adierazle horietan eta EAEko datuetan oinarrituz, IHO-BEk 2007an argitaraturiko "EAEko Osasuna eta Ingurumena. 2007ko Adierazleak" txostenak 19 adierazle plantatzen ditu, eta horiek ondoko laukian aipaturik daude.

(a) Airearen kalitatea

Orain, azken bi adierazleak aztertuko ditugu, lehenengo hirurak (kutsagarri atmosferikoen inmisio mailak, partikulen eraginezko kutsadura atmosferikoaren eraginpeko biztanleria PM_{10} eta kutsagarri atmosferikoen isurpenak) kapitulu honen hasieran aztertu baitira. Lehenengo bien bilakaeran aurrerakuntza positiboak ikusi dira, baina ez nahikoak; hirugarrenean bilakaera positiboa egon da.

Erregai-kontsumoa errepideko garraioan. EAEn petrolioaren eta horren deribatuen per capita kontsumoak, garraio-sektorean, %87ko hazkundera izan du 1994tik 2005era (EBn 1994tik 2004ra izandako hazkundearen ia bikoitza). Halaber, 2004an gure erkidegoak EB-25eko (Luxenburgoko datuak kenduta, distortsioa sortzen baitute) batez bestekoa baino per capita energia-kontsumo apur bat handiagoa izan zuen: 0,8 tep/biztanle.

Bidaia-erregaiaren banaketa modala. Aipaturiko txostenaren arabera, pertsonen distantziarik handiena ibilgailu pribatuan egin arren (%58), garraio publikoak eta oinez ibiltzeak %38ko hazkunde garrantzitsua izan zuten EAEn. Gogoratu behar da Ingurumeneko II. Esparru Programaren helburua, izan ere, bidaia-erregaiaren banaketa modala motorduna ez den garraiorantz (oinetz eta bizikletan) eta garraio publikorantz (trena, tranbia eta autobusa) bideratzea dela, pertsonen garraio-bide horietan egindako distantzia urteko guztizkoaren %40 izateko.


(b) Zarata

Zarataren eraginpeko biztanleria. EAEn joera txarra dago; informazio gehiago lortzeko, 2005eko Memoria Sozioekonomikoko kapitulu bera irakur daiteke, ez baitago beste datu gaurkoturik. Gogoratu behar da, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumeneko 2007-2010 Esparru Programan jasotako konpromisoaren arabera, 2010erako %10ean murriztu behar dela (2004ari dagokionez) OMEk gomendatzen dituen netatik gorako zarata mailen eraginpeko biztanleria.

II.3.15. Koadroa. Ingurumen eta Osasun Adierazleak EAE-n	
ARLOA	ADIERAZLEA
Airearen kalitatea	1. Kutsagarri atmosferikoen inmisio mailak
	2. Partikulen ondoriozko kutsadura atmosferikoaren eraginpeko biztanleria (PM10)
	3. Kutsagarri atmosferikoen isurpenak
	4. Errepideko garraioaren erregai-kontsumoa
	5. Bidaia-erregai garraioaren banaketa modala
Zarata	6. Zarataren eraginpeko biztanleria
	7. Arauketen, murriztapenen eta neurrien aplikazioa, zaratak ezabatze/murrizteko
Ura eta saneamendua	8. Kontsumoko uren kalitatea
	9. Jolaseko uren kalitatea
	10. Hondakin-uren arazketaren estaldura
Trafiko-istripuak	11. Trafiko istripuak
Etxebizitza eta osasuna	12. Etxebizitzaren eraikuntzako arauketa irismena eta aplikazioa
Erradiazioak	13. Eragina larruazaleko minbizi kasuetan
Larrialdi kimikoak	14. Produktu kimikoen kantitate handiak dituzten lekuak
	15. Jaurlaritzaren prestakuntza, instalazio kimiko handietako balizko istripuei dagokienez
Elikadura-segurtasuna	16. Elikadura jatorria edo hidrikoa duten agerraldiak
	17. Dietako kutsagarrien eraginpean egotearen monitorizazioa
Hondakinak eta lurzoru kutsatuak	18. Hondakin arriskutsuak
	19. Lurzoru kutsatuak

Iturria: Osasuna eta Ingurumena EAEn, 2007ko adierazleak. IHOBE

II.3.11. GRAFIKOA. GARRAIOAN EGINDAKO PER CAPITA ENERGIA-KONTSUMOA GUZTIRA, EB-25EAN ETA EAEn



Iturria: Osasuna eta Ingurumena EAEn, 2007ko adierazleak

Zarata murrizteko arauketen, murriztapenen eta neurrien aplikazioa. Joera positiboa da; izan ere, EBk zarata ekiditeko hamalau gomendioetatik hamahiru jaso dira EAEko oraingo arauketetan eta arauetan.

(c) Ura eta saneamendua

Kontsumoko uren kalitatea. Kontsumoko ura gazi-kara eta garbia izango da, mikroorganismoak, parasitorik edo substantziarik ez duenean, gizakiaren osasunerako arriskurik eragiten ez duen kantidadean eta metaketan; gainera, otsailaren 7ko 140/2003 Errege Dekretuko I. eranskineko A eta B ataletan adierazitako baldintzak beteko ditu; dekretu horren bidez, giza kontsumoko uraren kalitateko osasun-irizpideak jaso dira (98/83/EE Zuzentarauaren transposizioa). Arauketa horretan oinarrituz ondorioztatzen denez, EAEko biztanleriaren zatirik handienak (%93) kalitate oneko ura kontsumitzen du.

Jolaseko edo bainuko uren kalitatea; kapitulu honek xetan aztertu dugu.

Hondakin-uren tratamenduaren estaldura. Hondakin-uren tratamendurako instalazioetara edo bigarren mailako tratamendua (biologikoa) duten nahiz hondakin-urak modu kontrolatuan isurtzen dituzten instalazioetara ko-

nektaturiko estolderia-zerbitzua duen biztanleriaren ehunekoa da.


Hiriko hondakin-uren tratamenduari buruzko 91/271 Zuzentarauan oinarrituz, biztanleriaren %14k ez dauka konexiorik. 2005ean EAEko biztanleriaren %82k bigarren mailako tratamenduko Hondakin Uren Arztegi batera (HUA) konektaturiko estolderia-zerbitzua zuten. Biztanleriaren %3k urak tratatzeko soluzio autonomoak dituzte, ezin baitira HUAr konektatu, herriaren orografiaren eta irisgarritasun zaileko etxebizitza isolatuak egotearen eraginez. Konexio-prozesua amaitzen denean, EAEko biztanleriaren %97 bigarren mailako tratamendua duten instalazioetara konektaturik egongo dira.

EAEko datuak Eurostatek emandakoekin konparatuta ikusten denez (aipaturiko txostena aintzat hartuta), EAE EBko ekipamendurik oneneko herrien artean dago.

(d) Trafiko-istripuak.

Oro har, segurtasuna gero eta hobea da; hain zuzen ere, 30 urtetan, ibilgailuen trafikoaren bolumena hirukoiztu egin da, oraingo EBko herrietan, eta errepidean hildakoen kopuruak %50eko murriztapena izan du; hala ere, egoera oraindik ere kezagarria da. Horrenbestez, EBren Europako

II.3.12. GRAFIKOA. HONDAKIN UREN BIGARREN EDO GOI MAILAKO TRATAMENDUA DUTEN HERRIAK (EAE ETA EB)



Iturria: Osasuna eta Ingurumena EAEn, 2007ko adierazleak

garraio-politikaren Liburu Zurian, 2010ean hildakoen kopurua erdira murrizteko helburua jarri da, erreferentziazat 2000ko datuak hartuta. Helburu hori EBk Garapen Iraunkorrerako duen Estrategian ere jaso da. EAEren kasuan, Bide Segurtasuneko Egitamu Estrategikoa (2003-2006) planteatu zen, eta horren ebaluazioa Memoria Sozioekonomiko honetako Osasuna eta Osasun Sistema kapituluan egin da.

(e) Etxebizitza eta osasuna

Etxebizitzak eraikitze arauketa irismena eta aplikazioa. Eraikuntzaren kalitatea hobetzeko eta berrikuntza nahiz iraunkortasuna sustatzeko (gizarteak gero eta gehiago eskatzen dituen balioak), Estatuko gobernuek Eraikuntzaren Kode Teknikoa onetsi zuen; arauzko tresna horrek bete egiten ditu eraikuntza eraikitzeari buruzko azaroaren 5eko 38/1999 Legean⁶ ezarritako oinarritzko eraikuntza-baldintzak, pertsonen segurtasuna, gizartearen ongizatea, eraikuntzaren iraunkortasuna eta ingurumenaren babesa bermatzeko.

Kode horrek sortu duen arauzko esparrua herririk aurerratuenera dutenarekin homologatzeko modukoa da; gainera, Estatuko araudiak bateratu egin du EBko indarreko araudiarekin (Kontseiluaren abenduaren 21eko 89/106/EE Zuzentaraua, estatukideek eraikuntzako produktuei dagokienez dituzten legezko, arauzko eta administrazio xedapenetara hurbiltzeari buruzkoa; eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren abenduaren 16ko 2002/91/EE Zuzentaraua, eraikinen eraginkortasun energetikoari buruzkoa).


Bestalde, EAEko lurzoruari eta hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea onestearen helburuen artean, aipagarria da hirigintza hiri-erduetara aplikaturiko garapen iraunkorrerantz orientatzea, herriek nahiz hiriek ingurumenarekin duten lotura estutuz eta bertako ondare historikoa, artistikoa zein kulturala kontserbatuz.

Azken informazio erabilgarriaren arabera, EAEen EBk etxebizitzaren kalitateari buruz (biztanleen osasuna babes-teko) emandako 12 gomendioak aplikatzen dira.

(f) Erradiazioak

Larruazaleko minbizi-kasuetako eragina. Europako Ingurumen Agentziak egindako kalkuluaren arabera, larruazaleko minbizi-kasuen %80-90 erradiazio ultramoreekin lotuta egon daitezke. Erradiazio horrek ondorio onak eta txarrak ditu osasunean. Ondorio onak hauek dira: eguzkitan eta UV-B erradiazioaren eraginpean egoteak larruazalean D bitaminaren sintesia sustatzea (kaltzioaren metabolismorako funtsezkoa den bitamina). Ondorio txarren artean, aipagarria da UV erradiazioak, gehiegizkoa denean, larruazaleko minbizia sortzea.

II.3.13. GRAFIKOA. MELANOMA KASUEN BILAKAERA EAE



Iturria: Osasuna eta Ingurumena EAE, 2007ko adierazleak


Arazoa nabarmendu egin da; izan ere, 1980tik 1997ra bitartean, UV erradiazioaren hazkundea ikusi da, estratosferako ozono-geruza mehetzearen ondorioz (geruza murriztu egin da). Ingurumeneko beste eragile batzuekiko desberdintasuna (adibidez, polenarekiko desberdintasuna) UV erradiazioaren eraginpea kontrolatu ahal izatea da.

1992tik 2001era, EAEen melanoma kasuek %75eko hazkundea izan dute, eta 1992ko 144 kasuetatik 2001eko 253 kasuetara igaro dira.

(g) Larrialdi kimikoak

Produktu kimikoen kantitate handiak dituzten lekuak. Sevesokoa (Italia) bezalako hondamen kimikoen on-

⁶ Eraikuntza Antolatzeari buruzko azaroaren 5eko 38/1999 Legea, azaroaren 30eko 53/2002 Legearen bidez aldatua.

II.3.14. GRAFIKOA. ELIKADURAREN ERAGINEZKO INFEKZIO TOXIKOAK EAEn. JATORRI HIDRIKOKO AGERRALDIEN BILAKAERA EAEn

Iturria: Osasuna eta Ingurumena EAEn, 2007ko adierazleak

dorioz, EBn horri buruzko legegintza-jarduera hasi zen (Seveso Zuzentaraua), industria-sektore batzuetako istripuen prebentziorako.

Sevesoko Zuzentarauaren eraginez, Espainiako estatuan 948/2005 Errege Dekretua sortu da; horren helburua, hain zuzen ere, substantzia arriskutsuen partaidetza duten istripu larriak ekiditea eta horiek pertsonengan nahiz ingurumenean dituzten ondorioak murriztea da. Beheko mailaren eta goiko mailaren eragineko establezimenduak bereizten dira, horiek betebeharrak zorrotzagoak baitituzte. Bereizketa hori, funtsean, establezimenduko substantzien kantitatean eta arriskutsutasunean oinarritzen da, horrek arrisku handiagoa sortzen baitu biztanleriarako eta ingurumenerako, istripurik egonez gero.

2006ko apirilean, EAEn goi mailako 28 establezimendu eta behe mailako 20 zeuden. Seveso araudiak arauturiko establezimendu kopuru osoa, horrenbestez, 48koa da, eta kopuru aldaketa askorik gabe mantendu da azken urteetan.

Jaurlaritzaren prestakuntza, instalazio kimikoetan egon daitezkeen istripuetarako. EAEn EBk produktu kimikoak dituzten instalazio handietan egon daitezkeen istripuen prebentziorako planteaturiko 12 baldintzak aplikatzen dira (Seveso Zuzentaraua).

(h) Elikadura-segurtasuna

Elikadura jatorria eta hidrikoa duten agerraldiak.

Elikadura jatorria edo hidrikoa duten infekzioen edo toxikazioen agerraldiak nahitaez aitortu beharreko gaixotasunak dira, eta premia handiz jakinarazi behar zaizkio EAEko epidemiologia-zaintzako sareari. Biztanleriaren erikotasunaren adierazlea da, eta, horren bidez, ondo identifikatzen dira eragile etiologikoak, eraginpeko janariak, gertatzeko lekua (jaketxeak, tabernak, eskola-jantokiak, etxebizitza partikularrak,...) eta eragina izan duten faktoreak. Informazio hori beharrezkoa da borrokako eta prebentzio programak garatzea helburu duten erabakiak hartzeko.

Kontrol-sistema hobetu arren, elikadura-agerraldien kopuruak goranzko joera izan du 1993tik, zenbait inflexio-punturekin; eraginpekoen kopuruak, berriz, gorabeherak izan ditu. Bestalde, kontrol hidrikoen emaitzek hobekuntza adierazten dute.

Dietaren bidezko kutsagarrien eraginpean egotearen monitorizazioa. Landare- eta animalia-jatorriko janariaren metal-edukia zenbait faktoreren eraginezkoa da; adibidez, ingurumen-baldintzak, sortzeko nahiz prozesatzeko metodoak eta janariaren jatorria, batez ere lurzoruaren osaketari dagokionez. Metal toxiko hedatuen artean, merkurioa, beruna eta kadmioa daude. "Metal as-

tunen” taldean, artsenikoa ere sartzen da, gehienbat toxikotasunarengatik, kantitateagatik baino gehiago.

Zaintza osasunerako arriskuak ebaluatuz egiten da; arrisku horiek zehazteko, substantzia horien hartzeak erreferentziako balio toxikologiko egokiekin konparatzen dira.

EAEEn, 1995etik 2005erako ezein urtetan, ez da mugako balioetatik gaineko laginik lortu, guztizko jasangarrirei dagokienez, aztertutako lau metal astunetako ezeinetan.

(i) Hondakinak eta lurzoru kutsatuak

Hondakin arriskutsuak. Adierazle hau kapitulu honexetan aztertu da.

Lurzoru kutsatuak. Halako lurzoruen ezaugarri fisiokoek, kimikoek edo biologikoek aldaketa kaltegarria izan dute, giza jatorriko osagai arriskutsuen eraginez; hain zuzen ere, osagai horien metaketa handia arriskutsua da gizakiaren osasunerako eta ingurumenerako, lurzorutik, lurpeko nahiz lurrazaleko uretatik eta atmosferatik igortzeko moduko kutsadura-iturria baita. Leku jakineko kutsagarriek edo bertatik mugitzen direnek eragina izan dezakete pertsonen osasunean eta izaki bizidunengan, baldin eta kutsagarriok zuzen edo zeharka (elikadura-katearen bidez) kontsumitzen badira, arnasean hartzen badira edo zuntz epidermikoekin kontaktuan jartzen badira.

Adierazle horren joera ona da EAEEn; informazio gehiago lortzeko, komenigarria da 2005eko Memoria Sozioekonomikoko kapitulu hauxe irakurtzea, ordutik hona ez baitago datu gaurkoturik.

3.3. Industria enpresa eta ingurumena

Industria Ekobarometroa EAEko tresna nagusienetarikoa da, industria-egiturak ingurumenarekiko duen jarrera aztertzeko. Bi urtez behin egin bada ere, azkena “2007ko Industria Ekobarometroa: Ingurumenarekiko jarrera eta konpromisoa EAEko enpresan” da, 2008an argitaratua, eta horren aurrekoa “2004ko Industria Ekobarometroa”.

Lagina EAEko 564 industria-enpresak osatzen dute; helburua EAEko industria-egituraren iritziak, jarrerak eta jokabideak biltzea da, ingurumenari dagokionez, egoera baloratzeko eta erabaki-hartze egokia euskarritzeko tresna bat edukitzeko; horrela, aurrerantzean ere ingurumen-al-dagaia integratzen duen enpresa-jokabidea garatu nahi da. Hain zuzen ere, honako honi buruzko emaitzak jasotzen ditu:

Enpresako jarrerak eta estrategiak ingurumenari dagokionez.

- Ingurumen-legeriaren ezagupena eta inplikazioak.
- Enpresaren ingurumen-arazoak.
- Enpresaren ingurumen-konpromisoa.
- Ingurumena hobetzeko jarduketak.
- Ingurumen arloko informazioa eta ezagutza.

3.3.1. Enpresako jarrerak eta estrategiak ingurumenari dagokionez

Ikerketaren eraginezko datuek agerian jarri dutenez, ingurumena oraindik ere ez da sartzen errentagarritasunaren funtsezko hiru elementuen artean, kontsultaturiko enpresarik gehienetan. Inkestaturiko enpresen %5ek (2000n eta 2002an ehunekoa %8koa izan zen, eta 2004an %7koa) soilik uste dute ingurumena euren errentagarritasunerako hiru faktore nagusienetarikoa dela.


Ingurumena errentagarritasunerako oinarritzko faktorea ez izateak ez du esan nahi garrantzirik ez duenik. Horrela, ingurumen-eragina murrizteak irabazi handiak eragin ditzakeela onartu duen enpresa kopuruak gora egin du lehenengoz (%31, eta 2004an %23). Sektoreka, eragina murriztearen eta irabazien arteko lotura mailarik handiena ezartzen dutenak honako hauek dira: makineria eta ekipamendua (%35), elektrikoa (%31) eta metalezko produktuak eta kimikoa (biak %30).

Izan ere, sektorekako banaketak agerian jarri duenez, urte honetan ere desberdintasun handiak daude, ingurumenak errentagarritasunari dagokionez duen garrantziaren arloan. Gai horri garrantzirik handiena ematen dion sektorea kimikoa da (%21), eta sektore horretan, gainera, handitu egin da aurreko urteetako ehunekoa. Metalurgian eta elikaduran, bestalde, murriztu egin da gai horri emandako garrantzia.

IPPCari⁷ loturiko enpresen artean, 13 puntuko hazkunde handia egon da, ingurumen-eragina murriztuta

⁷ KONTSEILUAREN 96/61/EE ZUZENTARAUUA, 1996ko irailaren 24koa, kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzkoa. IPPC (Integrated Pollution Prevention and Control). Bertako 1. eranskinean, araudi horren eraginpeko industria-jarduerak ageri dira.

II.3.15. GRAFIKOA. INGURUMENA EUREN ERRENTAGARRITASUNEAN ERAGINA DUEN LEHENTASUNEZKO FAKTORETZAT HARTZEN DUTEN ENPRESEN EHUNEKOA



Iturria: Industriako ekobarometroak

errentagarritasun ekonomiko handiagoa lor dezaketela onartzen duten enpresen kopuruan.

Gainera, ingurumen-eragina murritzuta irabaziak ekarri ahal izatearen pertzepzioa nagusitu egiten da ingurumen-ziurtagiria duten enpresen artean, baita kontsultaturiko pertsonak ingurumen-arduradun kargua duenean ere.

Bestalde, 10 industria-enpresetatik 6k onartu egin dute ingurumen-eraginen bat sortzen dutela, eta, 2000tik 2004ra ikusitako hazkundearen ostean, 2007an indizea egonkortu egin da, 2002an erregistraturikoen oso antzekoak diren balioetan. Sektoreka, onarpen honetako lehengo postuetan enpresa metalurgikoak (%73, eta 2002an %71) eta kimikoak (%71, eta 2002an %75) daude.

3.3.2. Ingurumen-legeriaren ezagupena eta inplikazioak

Enpresen %56k (2002an %54, eta 2004an %59) esan dute badakitela ingurumen-araudiak enpresan zer eragin duen. Azterketa sektorialean ikusitakoaren arabera, euren eragina duen legeria gehien ezagutzen dutenak enpresa kimikoak dira (%81). Metalurgiaren eta metalezko produktuen sektoreak ere batez bestekoaren gainetik daude, %60tik gorako ehunekoekin.

IPPC araudiaren eraginpeko taldean, legeria hori ezagutzen omen duten enpresen ehunekoa batez besteko orokorraren gainetik dago, argi eta garbi.

Enpresaren tamaina zenbat eta handiagoa izan, hainbat eta hobeto ezagutzen da ingurumen-araudia; halaber, ingurumen-ziurtagiria duten enpresen artean ezagupen maila handiagoa ikusi da.



Ingurumen-legeria betetze mailaren inguruko pertzepzioari dagokionez, kontsultaturiko enpresen %31k esan dute ez dakitela sektoreko enpresek legeria hori zein mailatan betetzen duten; kontsultaturiko enpresen %22k esan dute euren sektoreko enpresen %60k edo gehiagok bete egiten dutela; eta %34k uste dute euren sektoreko enpresen %40k betetzen dutela, gutxienez.

10 enpresatik 7k esan dute euren ingurumen-eragina murritzeko hartzen diren neurriak, legeria bete beharraren eraginezkoak ez ezik, enpresaren beraren interesaren eraginezkoak direla, eta datu hori ere aipagarria da.

Laburbilduta, legeria indar eragile garrantzitsua da ingurumen-hobekuntzetarako, kontsultaturiko enpresen %22k uste baitute legeria hori berebiziko sustapen-faktorea izan dela azken bi urteetan inplementaturiko ingurumen-hobekuntzetarako.

Legeriaren eraginik handiena metalurgian, kimikoan eta makinerian nahiz ekipamenduan egon da, hau da, arlo honetan eraginik handiena izan dezaketen sektoreetan.

Ingurumen-jarduketan kostuaren gaineko pertzepzioari dagokionez, enpresen %42k (2004an %46) uste dute finantza-mugen eraginez ezin dutela gehiago egin, euren ingurumen-jokabidea hobetzeko, eta, metalezko produktuen,

II.3.16. GRAFIKOA. INGURUMEN LEGERIA BETETZEA INGURUMEN HOBEKUNTZETARAKO INDAR ERAGILETZAT HARTZEN DUTEN ENPRESEN EHUNEKOA

II.3.17. GRAFIKOA. FINANTZA MUGA INGURUMEN JOKABIDEA HOBETZEKO OZTOPO GARRANTZITSUTZAT HARTZEN DUTEN ENPRESEN EHUNEKOA


metalurgiaren eta kimikaren sektoreetan, pertzepzio horiek gainditu egiten du batez besteko orokorra.


3.3.3. Enpresaren ingurumen-arazoak

2007an ikusitako maila orokorra kontuan hartuta, enpresen bi ingurumen-arazo nagusiak hondakin ez-arriskuak (%46) eta hondakin arriskuak dira (%43).

Aipagarria da hondakin arriskutsuek hartu duten garrantzia (2004an inkestaturiko enpresa guztien %29k aitatu zituzten, eta 2007an %46k). Bigarrenez, baina aurrekoei emandako garrantzitik hurbil, hondakin arriskuak daude (%43, 2004ko ehuneko bera), eta, hirugarrenez, airerako isurpenak (%27, 2004an bezala).


Emitzak sektoreka aztertuta ikusten denez, desberdintasun handiak daude, sektore bakoitzeko jardueraren

II.3.18. GRAFIKOA. ENPRESEK DETEKTATURIKO INGURUMEN ARAZO ETA ALDERDI GARRANTZITSUENAK



Ehunekoen batuketa 100etik gorakoa da, enpresek faktore bat edo gehiago hautatzeko aukera izan dutelako
Iturria: Industriako ekobarometroak

II.3.19. GRAFIKOA. INGURUMEN ARAZO NAGUSIAREN PERTZEPZIOA INDUSTRIA SEKTOREETAN, 2007 (ENPRESEN %)



Ehunekoen batuketa 100etik gorakoa da, enpresek faktore bat edo gehiago hautatzeko aukera izan dutelako.
Iturria: Industriako ekobarometroak, 2007

eta sorturiko eraginaren arabera; hala ere, oro har, sektore guztietan arazo nagusia hondakin arriskutsuen eta ez-arriskutsuen sormena da.


Bestalde, ingurumen-arazoak gero eta hobeto ezagutzen dira. Hondakinak, airerako isurpenak eta uretarako isurketak ez ezik, beste zenbait ingurumen-alderdi ere aipatu dira, adibidez, zarata eta ontzien hondakinak; halaber, arazo berriak ere hasi dira aipatzen, esaterako,

energiaren nahiz materialen kontsumoa, lurzoru kutsatuak eta istripu-arriskua.

3.3.4. Enpresen ingurumen-konpromisoa

Ingurumen Kudeaketako Sistema ezartzea, ingurumen-konpromisoa ez ezik, lehiakortasunerako faktore garrantzitsua ere bada, nazioarteko merkatuan.

11.3.20. GRAFIKOA. INGURUMEN ZIURTAGIRIETAN (ZIURTATUAK ETA EGIAZTATZEKO PROZESUAN) PROAKTIBOAK DIREN EN-PRESAK, 2007



lhobek emandako datuen arabera, ingurumen-ziurtagirien edo ziurtagiri "berdeen" kopurua (ISO 14001, Ekoscan Araua, Europako EMAS Araudia edo UNE 150.301-Ekodiseinua)⁸, gero eta handiagoa da. Horrela, 2006tik 2007ra ziurtagiri kopurua 1.026tik 1.101era igaro da (75 gehiago).

Industria Ekobarometroak (2007) emandako datuek diotenez, lau enpresatik ia batek ingurumen-ziurtagiriren bat dauka (ISO 14001, Ekoscan edo Europako EMAS Araudia). Izan ere, hazteko joera iraunkorra dago, 2000ko %5etik 2007ko %23ra. Sektoreka, desberdintasunak ikusi dira, eta arlo honetan dinamikoa kimikoa da (%52), eta gero metalurgikoa (%36).

Ingurumenarekiko konpromiso handiago hau, era berean, EAEko enpresek *Europako Enpresarako Ingurumen Sariak* izenekoetan duten partaidetza egiaztatzean ere ikusten da.

Europako Batzordeko Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak bi urtez behin antolatzen dituen sari hauek 1987an sortu ziren, Ingurumenaren Mundu Urtearen ospakizunean;

euren helburua, izatez ere, jarduketaren bidez garapen iraunkorreko printzipioak betetzeko laguntza ematen duten erakunde onarpen publikoa egitea da, erakunde horien ahaleginak beste batzuentzat eredugarriak direnean.

Helburua ingurumenean eta erreserba naturaletan kalterik egiten ez duen ekonomia- eta gizarte-garapenean aurrera egiteko laguntza ematen duten politikak, jarduerak, prozesuak eta produktuak nabarmentzea da; 5 kategoria dituzte: Garapen iraunkorrerako kudeaketa, Garapen iraunkorrerako produktua edota zerbitzua, Garapen iraunkorrerako prozesua, Garapen iraunkorrerako nazioarteko lankidetzeta eta Garapen iraunkorrerako komunikazioa.

EAEko hautagai guztiek parte hartzen dute Eusko Jaur-laritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak adierazi beharreko sarian. Irabazleek onarpen publikoa dute EAEn, eta, gero, Estatuko sarietan hartzen dute parte. Estatuko ataleko kategoria bakoitzeko irabazleek eta finalistek⁹ Espainiako hautagai-zerrenda osatzen dute, Europako Enpresarako Ingurumen Sarietarako. Sarituriko enpresak, kategoriaren eta urtearen arabera, ondoko taulan adierazita daude:

⁸ Enpresa-egitura osorako, ez industriarako bakarrik.

⁹ Saridunak baino ordain txikiagoa.

II.3.16. Koadroa. Enpresarako ingurumen sariatik (estatuko eta europako) saria lortu duten EAE-ko enpresak, kategoriaren eta urtearen arabera

KATEGORIAK	2004				2006				2008			
	Aipamena (*)		Saria		Aipamena		Saria		Aipamena		Saria	
	Estatua	Europa	Estatua	Europa	Estatua	Europa	Estatua	Europa	Estatua	Europa	Estatua	Europa
Garapen iraunkorre-rako kudea-keta					Acería Compacta de Bizkaia SL	Acería Compacta de Bizkaia SL	Lemona Industrial SA				Metro Bilbao SA	
Garapen iraunkorre-rako produk-tua edota zerbitzua	ITP SA Metalurgia Santa En-gracia SA		Orkli S. Coop. Incoesa Tra-fodis SA		DTS Oabe SL Rotártica SA			DTS Oabe SL	Tuboplast His-pania SA A&B Labora-torios de Bio-tecnología SA			
Garapen iraunkorre-rako prozesua			Fundiciones del Esta-danda SA				Lemona In-dustrial SA					
Cooperación internacional para el des-arrollo soste-nible			Eroski S. Coop		Somorro-troko Hezi-keta Zentroa							
Garapen iraunkorre-rako komuni-kazioa					Eroski S. Coop.						Eroski S. Coop.	

(*) Saria baino ordain txikiagoa.

Iturria: Ihobe

3.3.5. Ingurumena hobetzeko jarduketak

Konsultaturiko enpresa guztien %57k diotenez, azken bi urteetan ingurumen-jokabidean hobekuntzako faktore-tzat har daitekeen aldaketaren bat egin dute.

Aipagarriak dira sektore kimikoa (%79), metalurgia (%72) eta makineria eta ekipamendua (%62). Ingurumen-araudiak eraginik handiena sektore horietan izatearen eraginezkoa izan daiteke hori, euren jarduera ingurumenean eragin handiagoa duelako.

Azken bi urteetan enpresarik gehienek hobetu duten ingurumen-arazoa hondakin arriskutsuen eta ez-arriskutsuen sorkuntza izan da.


Aldaketa eragiten duten faktoreei dagokienez, bi fak-tore nagusiak legeria betetzea nahiz horren eraginezko se-

gurtasun juridikoa (%22) eta enpresen ingurumen-kontzien-tziazioa (%19) dira. Faktore horietariko bat kanpoko sus-tapen bati (legeria) lotuta dago, eta bestea, berriz, enpresaren barruko jarrerari lotuta.

la sektore guztietan, legeria betetzea eta horren era-ginezko segurtasun juridikoa enpresarik gehienek adiera-zitako faktorea da, ingurumen-hobekuntza sustatzeari dagokionez; sektore kimikoan eta metalurgikoan (bi ka-suotan %35) batez besteko globalaren gaintik dago, baita makineriaren eta ekipamenduaren sektorean ere (%28).


Enpresaren ingurumen-kontzientziazioa bigarren fak-tore nagusia da, sektore guztietan; aipagarri da metalur-gian (%27) eta sektore kimikoan (%26) hori adierazi duen enpresa kopurua.

II.3.21. GRAFIKOA. INGURUMEN-HOBEKUNTZAKO EKINTZAK, 2007



Iturria: Industriako ekobarometroa, 2007

II.3.22. GRAFIKOA. ENPRESEI INGURUMEN HOBEKUNTZARAKO ALDAKETAK ERAGIN DIZKIETEN FAKTOREAK



Iturria: Industriako ekobarometroak

II.3.17. KOADROA. INDUSTRIA ENPRESEK INGURUMENA BABESTEKO EGINDAKO GASTUA

	GASTUA EUROTAN				GASTUA / BPG (%)			
	2001	2003	2004	2005	2001	2003	2004 b	2005 b
Andaluzia	231.339.509	236.224.390	260.729.994	272.869.310	0,26	0,22	0,23	0,22
Aragoi	57.257.383	62.785.906	66.423.193	70.629.740	0,27	0,26	0,26	0,25
Asturias	102.420.216	86.437.063	100.763.912	129.282.155	0,68	0,51	0,56	0,67
Balarrak	6.321.902	4.402.474	8.578.446	21.385.149	0,04	0,02	0,04	0,10
Kanariak	30.894.920	33.576.869	46.940.256	36.648.245	0,11	0,10	0,14	0,10
Kantabria	28.610.173	22.325.280	28.556.244	35.760.103	0,34	0,23	0,27	0,31
Gaztela eta Leon	147.524.197	153.536.263	184.800.061	165.240.482	0,40	0,36	0,41	0,34
Gaztela-Mantxa	51.312.231	68.330.462	91.943.337	101.354.223	0,22	0,26	0,32	0,33
Katalunia	482.249.139	528.891.058	580.469.271	601.370.205	0,37	0,36	0,37	0,35
Valentzia	182.700.670	199.326.426	214.494.486	223.981.202	0,27	0,26	0,26	0,25
Extremadura	14.246.357	12.685.038	14.519.322	15.442.785	0,13	0,10	0,10	0,10
Galizia	130.559.777	115.730.330	148.397.658	179.021.551	0,37	0,29	0,35	0,39
Madril	118.788.493	115.928.496	129.760.216	142.677.846	0,10	0,08	0,09	0,09
Murtzia	64.776.432	70.503.028	72.434.016	72.577.276	0,39	0,36	0,34	0,31
Nafarroa	50.903.937	54.084.921	58.617.935	62.128.847	0,44	0,41	0,41	0,4
EAE	174.542.038	183.329.517	198.277.508	211.847.251	0,41	0,38	0,38	0,38
Errioxa	16.457.690	15.205.304	16.738.346	17.687.774	0,32	0,26	0,27	0,27

b: BPGren datuak behin-behinekoak dira.

Iturria: INE

3.3.6. Ingurumen arloko informazioa eta hobekuntza

Azken urteetan, ingurumenerako jardun eta teknologia hobeak ezagutzen dituzten enpresen ehunekoak gora egin du. Horrela, enpresen %59k uste dute horiei buruzko ezagupen ona dutela. Sektoreka, desberdintasun handiak ikusi dira. Horrela, sektore kimikoa (%74) eta metalurgikoa (%62) ezagupen globaleko batez bestekoaren (%59) gainetik daude; makineria eta ekipamendua eta elikadura, berriz, urrunago daude (hurrenez hurren, %47 eta %52).

Kontsultaturiko enpresek gehien aipatu dituzten informazio-iturrien artean, aipagarriak aholkularitzak (%40) eta IHOBE (%31).

egindako inkesta), 2005ean EAEko enpresek ingurumenaren babesean egindako gastu osoa 211,9 milioi eurokoa izan zen, eta horrek %6,9ko hazkundera adierazten du, 2004an egindako gastuari dagokionez.

211,9 milioi euro horietatik 86.545.100 euro (%40,9) inbertsioetan egindako gastua da (2004an %40,3 eta 2003an %41), eta %59,1 gastu korranteak dira.

Gastua BPGren ehunekotan neurtuta ikusten denez, azken urteetan %0,38ren inguruko egonkortasuna egon da. Horrela, EAE oraindik ere laugarren postuan dago, Galiziaren (%0,39), Nafarroaren (%0,4) eta Asturiasen (%0,67) atzetik. Aurreko urtean, posizio hobean zeuden erkidegoak Gaztela eta Leon eta Nafarroa (%0,41) eta Asturias (%0,56) izan ziren.

3.4. Industria enpresek ingurumena babesteko egindako gastua

Industria-enpresek ingurumenaren babesean egindako gastuari buruzko inkestako azken datuen arabera (INEk

4

Ekoizpen azpiegiturak

Azpiegitura fisikoak zona jakina garatzeko behar diren euskarriko ekipamenduen, egituren eta zerbitzuen multzoa da. Bi azpiegitura bereizten dira: alde batetik, ekoizpen-garapenari lotutakoa (azpiegitura ekonomikoa edo oinarritzakoa) eta horren barruan ura, elektrizitatea nahiz gasa hornitzeko zerbitzuak, zabor-bilketa eta hondakinen arazketa, garraioa, telekomunikazioak eta lurzorua kudeaketari lotutakoak sartzen dira (uholdeen prebentzioa, drainatzea, higadura, oihaneztatzea,...); bestetik, gizarte-azpiegitura, hau da, biztanleei eskainitako laguntzako zerbitzuak, osasunekoak, hezkuntzakoak, kulturakoa, ingurumenekoak, prebentziokoak, segurtasunekoak eta administrazioak.

Horrela, azpiegitura fisikoak funtsezko elementuak dira edozein gizarteren ekonomia garatzeko, ongizate orokorrerako eta kohesiorako; eragin handia dute herri baten ekonomia orokorrean, eta, hain zuzen ere, produktibitatearen eta hazkundearen gorakada eragiten dute.

Horri dagokionez, EAEn orografia zaila eta biztanleria-dentsitate altua daude; biztanleriaren banaketa, gainera, hirigune askotan barreiatuta dago, eta, horrela, inbertsio handia egin behar da halako azpiegiturretan, bai espazio kantitate nahiko handia bete behar dutelako, bai azpiegitura horien eraikuntzak kostu handiak (ekonomikan, gizartean eta ingurumenean) sortzen dituelako.

4.1. Garraioa

Kokaleku estrategiaren eta industria-jarduera handiaren ondorioz, EAE era guztietako trafiko maila handieneko zonetariko bat da Europan. Errepide nahiz trenbide sare trinko batek, bi itsas portu handi eta hiru aireportuak barruko eta kanpoko trafikoaren beharrianak bete behar dituzte; gainera, egunero, zerbitzu hobeak eta kalitate handiagokoak eskaintzeko ahalegina egiten dute.

2006an hiru proiektu handi abiatu ziren: abiadura handiko trenbide-sarearen lehenengo tarteak, Bilboko

II.4.1. KOADROA. LIZITAZIO PUBLIKOA EAE-N (EUROAK MILATAN)

	2005	2006	2007
Estatuko Adm.	158.659	623.570	584.520
Adm. Autonomikoa	324.519	303.342	570.246
Toki Adm.	1.337.929	2.334.084	1.795.462
GUZTIRA	1.821.107	3.260.996	2.950.228
Eraikuntza	411.757	623.362	862.325
Obra Zibila	1.409.350	2.637.634	2.087.903

Iturria: SEOPAN

II.4.2. KOADROA. GARRAIO AZPIEGITURETAN EGINDAKO INBERTSIOAK, LURRALDE EREMUAREN, ORGANOEN ETA URTEAREN ARABERA (EUROAK MILATAN)

	EAE				ESTATUA			
	2003	2004	2005	2006 (b)	2003	2004	2005	2006 (b)
ERREPIDEA GUZTIRA	333.753	339.998	352.734	358.616	7.360.304	7.244.489	8.318.691	8.256.453
Estatua	---	---	---	---	2.836.237	2.836.144	3.153.269	3.443.439
Autonomia Erkidegoak	---	---	---	---	2.090.543	2.081.009	2.694.519	2.736.763
Aldundiak	311.917	336.011	347.784	342.617	775.899	807.236	898.730	921.471
Autobideen emakidadunak. Ordainlekua	21.836	3.987	4.950	15.999	1.657.625	1.520.100	1.572.173	1.154.780
TRENBIDEA GUZTIRA (*)	153.511(p)	89.150(p)	117.702(p)	96.522	4.185.745	4.828.743	6.244.532	7.063.723
Trenbide ZN	20.082(p)	12.629(p)	21.121(p)	20.417	534.776	562.429	1.308.566	1.444.688
ADIF	12.249(p)	9.175(p)	31.886(p)	29.117	2.157.893	2.311.955	3.518.120	3.782.142
Autonomia Erkidegoak	---	---	---	---	224.080	359.945	301.393	330.263
RENFE	23.020(p)	22.294(p)	1.186(p)	4.299	925.200	1.270.411	743.582	1.016.344
Aldiriak guztira	51.955(p)	45.052(p)	63.509(p)	42.689	343.796	324.003	372.871	490.286
FEVE	5.750(p)	9.560(p)	8.150(p)	11.437	71.340	72.190	75.880	80.803
AAEEetako konpainiak	46.205(p)	35.492(p)	55.359(p)	31.252	272.456	251.813	296.991	409.483
AIREKOA GUZTIRA	11.025	21.082	21.069	14.159	2.212.052	2.020.161	1.512.441	1.828.821
Abiazio zibileko ZN	---	---	---	---	3.356	5.154	5.811	6.962
AENA	11.025	21.082	21.069	14.159	2.208.696	2.015.007	1.506.630	1.821.859
ITSASOKOA GUZTIRA	59.318	57.704	79.117	55.081	1.023.037	1.065.520	1.209.587	1.423.769
Merkataritzako Ontzidiko ZN	37	103	264	660	4.568	7.352	9.549	8.929
Kosten ZN	3.911	9.442	3.060	2.300	208.658	145.881	140.899	158.385
Estatuko Portuak Erakunde Publikoa	35.279	40.878	57.088	37.300	688.602	777.662	868.516	1.067.108
Itsasoko Salbam. eta Segurt. Estatuko Sozietatea	6	149	---	---	18.932	31.511	57.000	69.700
Portu autonomikoak	20.085	7.132	18.705	14.821	102.277	103.114	133.623	119.647

(p) behin-behinekoak. (*) Trenbideari buruzko datuak behin-behinekoak dira, Ministerioak azken urtean soilik argitaratzen dituelako, eta beti behin-behinekotzat; beraz, ezin izango dugu inoiz finkaturiko daturik lortu.

Iturria: Sustapen Ministerioa. Estatistika-urtekariak.

Hegoaldeko Metropoli Saihesbidearen (Supersur) lau tarte eta Donostia inguratuko duen A8 saihesbidea.

Proiektu horiek lizitazio-bolumen handia dute Estatuko Administrazioaren obra zibilean, Estatua titularra baita Europaz gaindiko eta Penintsulako Trenbide Sarearen

eskumenean; Toki Administrazioen obra zibilean ere lizitazio-bolumen handia dute, Errepide Sarea Foru Aldundien eskumenekoa baita.

Hain zuzen ere, Estatuko Sozietate Publikoak ADIFI¹ EAEko ingeniari-tza zibilean egindako adjudikazioek

¹ Trenbide Azpiegituren Administrazioa (ADIF) enpresa-erakunde publikoa da, eta Trenbide Sektoreari buruzko Legea 2005eko urtarri-laren 1ean indarrean sartzean sortu zen. ADIFen eginkizunen artean, besteak beste, aipagarriak ira trenbide-trafikoaren kudeaketa, azpiegituren administrazioa eta Estatuak agindutako azpiegituren sorkuntza. Gobernuak agindutako azpiegitura berriak egiten ditu, eta, gainera, trenbide sare konbentzional osoaren eta abiadura handiko sare osoaren mantenamenduaren ardura dauka, garraiobideek azpiegitura horiek ondo erabili ahal izateko.

II.4.3. KOADROA. SUSTAPEN MINISTERIOAK ETA ESTATUKO ERAKUNDE PUBLIKOEN INGENIARITZA ZIBILAREN ARLOAN EGINDAKO ADJUDIKAZIOAK EAE-N (EUROAK MILATAN)

	2003	2004	2005	2006	2007
Guztira	80.549	80.928	36.910	201.052	654.123
Ministerioa eta Erakunde Autonomoak	1.292	47.270	425	-	-
Estatuko Erakunde Publikoak	79.257	33.658	36.485	201.052	654.123
AENA	5.419	10.052	7.623	7.371	5.650
FEVE	7.500	1.908	10.572	20.963	4.536
ADIF	-	-	3.398	173.681	593.617
Portuak	60.212	15.447	21.727	32.447	55.943
RENFE	8.849	9.304	823	641	267

Iturria: Sustapen Ministerioa

II.4.4. KOADROA. GARRIO SISTEMAK EAE-N DUEN OSAKETA

SISTEMA	AZPIEGITURA	ORGANO TITULARRA	ERAKUNDEA/OPERADOREA
Bide Sistema	Errepide Sare Orokorra	Foru Aldundiak	Garraioko Zerbitzu Publikoaren Emakidaduna.
	Hiriko Sarea	Udalak	
	A-68 autobidea	Estatua	
Trenbide Sistema	Europaz gairindiko sarea	Estatua	Renfe
	Penintsulako sarea	Estatua	Renfe
	Metroko sarea	EAE Estatua	Eusko Tren FEVE
	Metro/Tranbia	EAE	Metro Bilbao, Eusko Tren
Portu Sistema	Zubi Esekia	Bilboko Portu Agintaritza	Pribatua
	Interes Orokorreko Lekuak	Estatua	Portu Agintaritza
Aireko Sistema	Portu Autonomikoak	EAE	EAE
	Interes Orokorreko Aireportuak	Estatua	AENA
Kableko Sistema	Igogailuak eta funikularrak	EAE	Pribatuak
			Publikoak
Garraio Intermodaleko Sistema	Garraioko eta Logistikako Zentroak	Partzuergoa/Erakunde publikoak, pribatuak, mistoak	Operadore logistikoak

Iturria: Garraioko 2002-2010eko Egitamu Gidaria.

agerian jartzen dutenez, Sustapen Ministerioak emandako datuen arabera, 2005etik 2006ra 3.398 mila eurotik 173.681 mila euroko hazkundera egon da; hazkunde hori jarraitu egin da 2007an, eta 593.617 milioi eurora heldu

da. Egindako inbertsioak, Sustapen Ministerioak emandako datuek diotenez (2006ari buruzko datuak), 29.117 mila eurokoak izan dira.

4.1.1. Errepideko garraioa

(a) Azpiegitura

N-1 errepideak Iparraldetik Hegoaldera zeharkatzen du EAE; errepide hori Europako ibilbide nagusiaren zatia da (erreferentziako errepidea E-5 Glasgow-Paris-Algeciras), eta, Ekialdetik Mendebaldera zeharkatzen duten ordainpeko A-8 Bilbo-Behobia (E-70 Coruña-Bordele errepidea bertatik doa) eta A-68 Bilbo-Zaragoza (E-80 Lisboa-Pau) autobideekin batera, Iberiar penintsula Europako gainerako eskualdeekin lotzeko bide nagusienetarikoa da.

Nazioarteko trafikoko bide horiek ez ezik, EAEko barne-komunikazioa 4.000 kilometrotik gorako luzerako errepide-sareak osatzen du, eta horien titularrak Foru Aldundiak dira (baita A-8 autobidearen titularrak ere).

Eskualdeen arteko lotura-bide nagusienetarikoz batzuk honako hauek dira: Deba haraneko igarobidea eta Durango-Beasain zeharkako ardatza, Bizkaiko eta Gipuzkoako barrualdeko industria-udalerririk garrantzitsueneko eta biztanlerik gehieneko batzuen arteko komunikazioa ahalbidetzen duena; eta Leitzaraneko autobia, Gipuzkoa eta Nafarroa lotzen dituen. Sare hau, funtsean, hirurogeita hamarreko hamarkadan eraiki zuten, baina inbertsioak egin dira bideak hobetzeko edo arazorik handienak sortzen zituzten gunek ezabatzeko.


Une honetan, EAEn errepideen arloan egiten ari diren obrarik garrantzitsuenak Gasteiz-Eibar autobidea da, Europaz gaindiko Garraio Sarea osatzen duena (E-5 Iparralde-Hegoalde ardatzean).

EAEko errepideetan egindako batez besteko inbertsioa (eraikuntza, kontserbazioa eta ustiapena), Eustatek emandako datuen arabera, 342 milioi eurotik gorakoa izan da 2006an (%1,5eko murriztapena, aurreko urteari dagokionez), biztanle bakoitzeko 160,9€ eta sareko km bakoitzeko 81,5€ inguru, eta hori Estatuan aldi horrexetan biztanle bakoitzeko egindakoa (157,3€) baino %2,3 handiagoa da (kilometro bakoitzeko neurtuta ia bikoitza).

Europa osoko sarerik trinkoenetarikoa bat da, azalera-dentsitate handienekoa baitauka (km²-ko 0,6 km errepide, Estatukoaren bikoitza 0,33, biztanleko dentsitate txikiagoa izan arren); %12an baino gehiagotan gaitasun handiko bideek osatzen dute (horien %40 ordainpeko autobideak), eta Estatuan ehunekoa %8,3 da (13.872 km, eta horietatik 2.815 ordainpeko autobideak). Estatuko gaitasun handiko bide guztien %3,8 eta ordainpeko autobideen ia %7,5 EAEn daude.

Bestalde, sare kantitatea ez ezik, kalitatea ere ezagutu behar da; horretarako, baloratu beharreko elementu bat bideek zirkulaziorako eskaintzen duten segurtasuna da, edo bertako istripu kopurua. Istripu kopurua EAEko ibilgailu-parkearekin lotzen duen tasak, 2006an, Estatukoak baino balio txikiagoa izan du (2,8 eta 3,5,

II.4.1. GRAFIKOA. EAEko ERREPIDEETAKO INBERTSIOA



Iturria: Eustat

II.4.5. KOADROA. ERREPIDE SAREA (KM), MOTAREN ETA LURRALDEAREN ARABERA

	1995	2000	2003	2004	2005	2006
Estatua guztira	162.617	163.557	164.584	165.152	165.646	166.339
Gaitasun handiko bideak (1+2)	8.133	10.443	12.009	12.444	13.156	13.872
Sareko gainerakoa (3)	154.484	153.114	152.575	152.575	152.490	152.467
EAE guztira	4.358	4.353	4.263	4.250	4.218	4.205
Ordainlekuko autobideak (1)	187	196	201	206	211	211
Autobide askeak, autobiak, galtzada bikoitzeko errepideak (2)	240	299	318	316	325	317
Galtzada bakarreko errepideak (3)	3.931	3.858	3.744	3.728	3.682	3.677
ARABA guztira	1.494	1.470	1.470	1.478	1.478	1.477
Ordainlekuko autobideak (1)	61	62	62	62	62	62
Autobide askeak, autobiak, galtzada bikoitzeko errepideak (2)	100	112	112	112	112	112
Galtzada bakarreko errepideak (3)	1.333	1.296	1.296	1.304	1.304	1.303
GIPUZKOA guztira	1.336	1.356	1.358	1.361	1.371	1.371
Ordainlekuko autobideak (1)	70	75	77	81	86	86
Autobide askeak, autobiak, galtzada bikoitzeko errepideak (2)	69	83	85	85	91	90
Galtzada bakarreko errepideak (3)	1.197	1.198	1.196	1.195	1.194	1.195
BIZKAIA guztira	1.528	1.527	1.435	1.411	1.369	1.357
Ordainlekuko autobideak (1)	56	59	62	63	63	63
Autobide askeak, autobiak, galtzada bikoitzeko errepideak (2)	71	104	121	119	122	115
Galtzada bakarreko errepideak (3)	1.401	1.364	1.252	1.229	1.184	1.179

Iturria: Eustat eta Sustapen Ministerioa

II.4.6. KOADROA. ERREPIDE SAREA (KM), MOTAREN ETA LURRALDEAREN ARABERA

	1995	2000	2003	2004	2005	2006	Estatua 2006
Sare osoa (km) / azalera	0,60	0,60	0,59	0,59	0,59	0,58	0,33
Sare osoa (km) / 1.000 biztanleko	2,08	2,09	2,01	2,00	1,97	1,97	3,72
Ibilgailu-parkea / sare osoa	202	242	259	268	278	287	174
Ibilgailu-parkea / biztanleko	0,4	0,5	0,5	0,5	0,5	0,6	0,6
Eurotan egindako b. besteko inbertsioa, biztanleko	88,2	108,2	147,1	157,8	162,4	160,9	157,3
Eurotan egindako b. besteko inbertsioa, sareko kilometroko	42,5	51,7	73,2	79,1	82,5	81,5	42,3
Errepideak km-tan	4.358	4.353	4.263	4.250	4.218	4.205	166.339
Biztanleak	2.099.115	2.079.210	2.120.384	2.128.801	2.140.908	2.129.339	44.708.964
Ibilgailu-parkea	879.243	1.051.537	1.102.418	1.138.201	1.170.574	1.205.350	28.871.392
B. besteko inberts. (euroak milatan)	185.220	224.905	311.917	336.011	347.784	342.617	7.032.795

Iturria: Eustat EAerako, INE eta Sustapen Ministerioa

II.4.7. KOADROA. ERREPIDE SAREKO SEGURTASUNA, IS-TRIPUEN RATIOA

	2005		2006	
	EAE	Estatua	EAE	Estatua
Biktimadun istripuak	3.536	91.187	3.412	99.797
Ibilgailu-parkea	1.170.574	27.657.276	1.205.350	28.871.392
Istripuen ratioa, ibilgailu-parkeari dagokionez (mila biztanleko)	3	3,3	2,8	3,5

Iturria: Sustapen Ministerioa

hurrenez hurren, 1.000 ibilgailuko); gainera, ratio hori murriztu egin da aurreko urtetik.

Azkenik, EAEn garraioko lau zentro intermodal daude orain: Gasteizeko Garraio Zentroa, Arasur (Rivabellosa, 2006ko urtarrilean inauguratua), Zaisa (Irun) eta Aparkabisa (Trapaga). Garraioko Plataformen Europako Taldeari ("Europlataforms") lotuta daude, eta horren helburua garraioko zentro logistikoen erabilgarritasun ekonomikoa sustatzea da.

(b) Trafikoaren bilakaera

Errepide sareko trafikoari buruzko azken datuek agerian jarri dutenez (2005ari buruzko datuak, Ministerioaren 2006ko Urtekarian ez baita informazio hori jaso), trafikoaren hazkunde iraunkorra izan du EAEko

errepide guztietan, bai Estatuaren titulartasunekoak diren errepideetan eta bai Foru Aldundien titulartasunekoak direnetan.

Bestalde, errepideko merkantzia-trafikoak (honen barruan ez da nazioarteko igarotze-trafikoak sartzen) goranzko joera mantentzen du, eskualdeen barruko garraioak gora egitearen ondorioz (%5,5eko hazkundera), baita gehien bat eskualdeen arteko grafikoaren gorakadaren eraginez (%12,6).

Hala eta guztiz ere, Estatu osoan errepidez garraiatutako merkantzien guztizkoaren gaineko ratioak beheranzko joera izan du hamarkada honetan, 2006an eta 2007an goranzko joera ikusi arren. 1995ean, EAEn guztizkoaren %9,5 zegoen, 2000n guztizkoaren %8,8, 2005ean %7,2, 2006an %6,9 eta 2007an %7.

Eskualdeen arteko trafikoari dagokionez, truke-bolumenik handiena ondoko erkidegoekin egiten da (Nafarroako Foru Erkidegoa, Gaztela-Leon, Kantabria, Katalunia eta Errioxa).

Azkenik, EAEn hiriko autobusek garraiatutako bidaiari kopuruak berriro ere gora egin du 2006an (%2,7), eta guztira 71.64 pertsona izan dira. Ekonomia Ministerioak eskaintako datuek agerian jarri dutenez (Sustapen Ministerioaren Urtekarian jasotako datuak), Estatuan hazkundera %3koa izan da, eta 1.824.589 bidaiaririk 1.872.967 bidaiarira igaro da.

II.4.8. KOADROA. ERREPIDE SAREKO IBILGAILUEN TRAFIKOA, TITULARTASUNAREN ARABERA (KM-KO IBILGAILUAK MILIOI-TAN)

	2002		2003		2004		2005	
	Estatuko sarea	AAEEko sarea	Estatuko sarea	AAEEko sarea	Estatuko sarea	AAEEko sarea	Estatuko sarea	AAEEko sarea
EAE	632	9.282	654	9.469	676	9.814	688	9.945
Araba	374	1.440	388	1.463	403	1.490	409	1.534
Bizkaia	258	4.684	266	4.768	273	4.811	279	4.897
Gipuzkoa	-	3.159	-	3.238	-	3.514	-	3.514

Iturria: Sustapen Ministerioa. Estatistika-urtekariak

I.4.9. Koadroa. EAE-ko Merkantzien Barruko Garraioa (Tonak Milatan)

	1993	1995	2000	2005	2006	2007	2006-07
ESTATUAN GARRAIATURIKOA GUZTIRA	560.362	588.150	907.789	1.496.415	1.578.525	1.673.517	6,0
EAE							
Garraiaturikoa [a+b+c]	45.206	55.724	79.627	107.109	108.243	117.683	8,7
Kargatu (a+b)	33.029	41.812	61.526	83.661	83.999	89.340	6,4
Deskargatu (a+c)	33.280	41.721	60.064	83.083	82.878	90.188	8,8
Eskualde barruan (a)							
Eskualde artean	21.103	27.809	41.963	59.635	58.634	61.845	5,5
Eskualde artean	Guztira (a+b)	24.103	27.915	37.664	47.474	55.838	12,6
	Emandakoa (b)	11.926	14.003	19.563	24.026	27.495	8,4
	Jasotakoa (c)	12.177	13.912	18.101	23.448	28.343	16,9
Esk. arteko ratioa	Guztira [(b+c)/(a+b+c)]	53,3	50,0	47,3	44,3	47,4	-
	Emandakoa [b/(a+b)]	36,1	33,4	31,7	28,7	30,1	-
	Jasotakoa [c/(a+c)]	36,5	33,3	30,1	28,2	29,2	-
EAEren %, Estatuari dagokionez	8,1	9,5	8,8	7,2	6,9	7,0	-

Iturria: Sustapen Ministerioa

II.4.10. Koadroa. ERREPIDEKO MERKANTZIA GARRAIOA EAE-N, JATORRIAREN ETA NORAKOAREN ARABERA (TONAK MILATAN)

	2004		2005		2006	
	Norakoa EAE	Jatorria EAE	Norakoa EAE	Jatorria EAE	Norakoa EAE	Jatorria EAE
GUZTIRA	93.612	90.830	102.570	103.147	106.767	107.887
Nafarroa	5.366	3.731	4.792	3.307	5.269	3.957
Gaztela eta Leon	6.408	4.949	4.866	5.028	3.620	4.980
Kantabria	2.473	1.841	2.750	2.958	2.781	2.748
Katalunia	2.193	2.449	2.095	2.400	2.257	2.780
Errioxa	*	*	1.576	1.579	1.978	1.594
Aragoi	1.678	1.777	1.453	1.446	1.953	2.042
Madril	1.598	2.118	1.605	2.305	1.724	2.366
Asturias	*	*	1.245	1.059	1.230	1.107
Valentziako Erk.	1.036	1.059	758	981	1.209	1.094
Galizia	*	*	1.072	936	1.029	735
Gainerakoak	4.883	4.929	1.234	2.024	1.196	1.933
EAE	67.978		79.122		82.523	

* Gainerakoetan jasota.

Iturria: Eustat

4.1.2. Trenbideko garraioa

(a) Azpiegitura

Trenbide-sarearen ulermen-arazo ugariak jatorritikoak dira (bide-zabalera desberdinak, Estatu mailako trenbide-garraioaren ulermen erradiala, loturarik eza, etab.), eta gure erkidegoan oraindik ere larriagoak dira, orografiaren zailtasunaren eta lurraldearen barne artikulazioari lehentasuna eman ez zion ulermen baten eraginez, ulermen horrek guztiz oztokatzen baitzuen merkantzien zirkulazioa eta Europarekiko komunikazioa. Arazo horien ondorioz, EAEn trena ezin da beste garraiobide batzuekin lehiatu, batez ere hiriburuaren arteko komunikazioetan. Hala eta guztiz ere, trenbidea XXI. mendeko garraio-sistema publiko nagusia izango, da, ustiapen-kostu baxuak dituelako eta ingurumenean beste garraiobide batzuek baino eragin urriagoa duelako.

EAEko trenbide sareak 589 kilometro ditu; horietatik %51 RENFErenak dira, eta horrexek kudeatzen ditu bi linea nagusiak, Madril-Irun eta Bilbo-Miranda; %37 Eusko Trenenak dira (Metro Bilbaoko bi lineetako oraingo 34 kilometroak horren barruan sartzen dira), eta Bilbo-Donostia-Hendaia linea horren barrukoa da; gainerako %12 FEVE trenbideenak dira (bide estuko trenbideak), eta horrek Bilbo-Santander nahiz Bilbo-Leon lineak eta Bilbo Handiaren barruko lineak (eskualde barruko loturakoak) kudeatzen ditu.

Ibilbide luzeko lineei eta horien nazioarteko loturei dagokionez, aipagarriak dira Irunek Frantziako TGVrekin duen lotura eta Euskadiko Y. Azken hori EAerako trenbide-trazatu berria da, abiadura handiko tren bati lotutakoa, eta hiru hiriburuak 30 minututan lotuko ditu; gainera, Madrilekin eta Bordelekin, lotura 2 ordutan baino apur bat gehiagotan egingo da. Horren inbertsioa 3.000 milioi euro ingurukoa izango, hasieran egindako zenbatespenaren arabera.

Azkenik, aipagarria da EAEn geltoki intermodal bakarra egotea, Arabako Jundizekoa; RENFEren mendekoa da eta Baiona-Mougues pleiteko Europako Zentroarekin lehiatzen da Europako trafikoa lortzeko; Baionatik hurbil dago, eta 20 Ha. gehi erreserbako beste 50 ditu, eta trenbideko loturak eta autobiderako sarbideak ere baditu.

(b) Trafikoaren bilakaera

Bilboko Metroari eta Euskotreni dagokionez (bi horiei buruzko datuak baino ez ditugu), bidaiarien garraioan berriro ere hazkundeak egon dira. Bilboko Metrokoak garraiatutako bidaiari kopuruak osteratzen ere gora egin du azken ekitaldian (hain zuzen ere, %7,6ko hazkundera eta 85,9 milioi bidaiari); Eusko Trenen kasuan, hazkundera %0,8koa izan da azken urte horretan, baina linea guztietan ez da jokabide hori egon. Bizkaia kasuan, esan daiteke hazkundera Bilboko Tranbiaren funtzionamendu onarekin eutsi dela, 2006an eta 2007an bidaiariak galdu arren.

II.4.11. KOADROA. EUSKO TRENEKO ETA METRO BILBAOKO BIDAIRIAK

	2000	2002	2004	2005	2006	2007	2000-07	2006-07
Eusko Tren guztira	18.139.002	18.031.909	18.896.716	20.580.367	21.045.775	21.223.949	17,0	0,8
Bizkaia	7.602.391	7.399.323	9.124.769	10.139.300	10.167.450	9.996.416	31,5	-1,7
–Deustua-Lezama	2.379.388	2.309.525	2.107.986	2.202.550	2.146.331	2.178.769	-8,4	1,5
–Bilbo-Bermeo	2.444.836	2.326.543	2.199.683	2.305.143	2.274.004	2.215.664	-9,4	-2,6
–Bilbo-Ermua	2.557.661	2.501.093	2.421.431	2.606.211	2.614.081	2.513.980	-1,7	-3,8
–Larreinetako funikularra	220.506	214.914	203.973	203.666	198.182	181.651	-17,6	-8,3
–Bilboko tranbia	.	47.248	2.191.696	2.821.730	2.934.852	2.906.352	6051,3	-1,0
Gipuzkoa	10.536.611	10.632.586	9.771.947	10.441.067	10.878.325	11.227.533	6,6	3,2
–Ermua-Amara	3.537.602	3.862.839	3.711.414	3.857.550	4.028.910	4.090.639	15,6	1,5
–Lasarte Oria-Hendaia	6.973.967	6.743.713	6.026.775	6.551.220	6.812.493	7.094.864	1,7	4,1
–Azpeitia-Lasaoko lurrun-trena	25.042	26.034	33.758	32.297	36.922	42.030	67,8	13,8
Metro Bilbao	54.173.349	66.705.570	73.088.978	77.801.841	79.780.094	85.864.456	58,5	7,6

Iturria: Eustat

Gipuzkoan, aldiz, linea guztietan bidaiari kopuruak gora egin du.

4.1.3. Aireko garraioa

(a) Azpiegitura

EAEn hiru aireportu daude (Loiu, Hondarribia eta Foronda), bakoitza hiriburu bakoitzetik hurbil, eta, beraz, 70 km-ko erradioan bost aireportu daude (Iruñeko Noainekoa eta Biarritzekoa aintzat hartuta).

Loiuko aireportua (Bizkaia) Bilbotik 12 kilometrora dago; Espainiako iparraldeko zonarekiko berebiziko komunikazioak ditu: A-8 autobidea, Santanderrekin (mendebalderantz) eta Donostiarekin, Irunekin eta Frantziarekin (ekialderantz) komunikatzen duena; eta AP-68, Gasteiz, Logroño, Zaragoza, Bartzelona, Burgos eta Madrilerekin komunikatzen duena. 32.000 metro koadroko terminala da, eta 95.000 metro koadroko aparkalekua dauka (guztira, 3.000 plaza); aireontzietarako aparkalekua ere badu, eta hori terminalaren euskarria da. Azken urteotan trafikoak hazkunde iraunkorra izan du, eta horren zatirik handiena nazionala da, guztizkoaren %74,6; gainerako %25,4 nazioartekoa da. 2007an bertako instalazioetatik 4.286.751 igaro, 63.076 hegaldi egin eta 3.230 tona zama mugitu ziren. Hautaturiko norakoak 2 orduko hegaldien barrukoak izan behar dira, eskualdeko aireontzien bidez eraginkorrak izateko. Esate baterako, Erroma, Munich, Stuttgart, Geneva, Luxenburgo, Amsterdam eta Manchester.

Hondarribiako aireportua (Gipuzkoa) 22 kilometrora dago Donostiatik, hiri horren ipar-ekialdean. Batez ere, trafiko nazional erregularra dauka, baita nazioartekoa ere, eta trafiko hori 466.457 bidaiarikoa izan zen, 2007an. Gainera, 12.736 hegaldi egin eta 245 tona zama mugitu ziren.

Forondako aireportua (Araba) zortzi kilometrora dago Gasteizetik, hiri horren ipar-mendebaldean; hiriko udal mugartean dago eta aipagarria da merkantzien trafikoak duen garrantzia. Izan ere, trafiko horrek bilakaera ona izan du, batik bat 1994tik (1993an 427 tona garraiatu); hain zuzen ere, zamen garraioan diharduten konpainia batzuek aireportu hori aukeratu dute, merkantziak iristeko nahiz banatzeko (iragankorrak) eta beste merkantzia batzuk helmuga ugarietarako iristeko (paketera). 2007an, bertako instalazioak 173.878 bidaiarik erabili zituzten; 12.266 hegaldi egin eta 31.359 tona zama mugitu ziren.

Horrenbestez, Espainiako laugarren aireportua da, Madrilerekin (Barajas), Bartzelonarekin eta Kanaria Handiarekin ostean, mugituriako merkantzia-bolumenik handienari dagokionez.

(b) Trafikoaren bilakaera

Loiuko aireportutik, 2007an, 4.254 milioi bidaiari igaro ziren, eta, beraz, %67,5eko hazkunde egon da, 2000tik; horrela, Estatuko iparraldeko aireporturik nagusienetarikoa da, gaur egun. Merkantzien trafikoari dagokionez, merkantzien bolumenak, aldi horretan, %20,2ko murriztapena izan du.

Forondako aireportuan, 2006tik 2007ra, merkantzien trafikoak %4,1eko murriztapena izan zuen.

Bidaiariei dagokionez, mantendu egin da aurreko urtean izandako trafiko-bolumena (172 mila bidaiari); hortaz, 2000tik %44,5eko hazkunde egon da.

Hondarribiako aireportuan, 2006tik 2007ra, bidarien trafikoak berriro ere gora egin du (+27,8), baina merkantzien trafikoak murriztu egin da (%12,8). 2006tik 2007ra, bidaiariei dagokionez, %67,5eko hazkunde egon da, eta guztira 460 mila bidaiari izan dira; merkantziei dagokionez, %39,2koa izan da, eta 245 tona izan dira.


4.1.4. Itsasoko garraioa

(a) Azpiegitura

EAeko itsas portuak hiru talde handitan sailkatu ahal dira. Lehenengo taldearen barruan, interes orokorreko bi merkantzia-portu nagusiak sartzen dira, Bilbo eta Pasaia, eta horiek Portu Agintaritzak kudeatzen ditu, Estatuaren titulatasunekoak baitira; bigarren taldean arrantza-portuak daude, eta horien eskumena Eusko Jaurlaritzak dauka; eta hirugarren taldearen barruan, azkenik, jolaseko jarduera nautikoetarako eta kirol-arrantzarako erabiltzen direnak sartzen dira (jarduera hasiberriak EAEn). Orain, Euskal Autonomia Erkidegoko bi portu nagusiak aztertuko ditugu: Bilbo eta Pasaia.

(b) Trafikoaren bilakaera

Bilboko portua lehengaien inportazioari lotuta egon da, Estatuko merkatuan; hain zuzen ere, garraiatutako solteko gai likidoen inportatzailea izan da; jokabide horren salbuespen bakarra, izan ere, edukiontzietan sartutako merkantzien jarioa izan da.

II.4.2. GRAFIKOA. BIDAIAIARIEN ETA MERKANTZIEN AIREKO GARRAIOAREN BILAKAERA EAĒN


Iturria: Eustat eta Sustapen Ministerioa

229

II.4.12. KOADROA. AIREKO GARRAIOAREN BILAKAERA, KONTZPTUAREN, EREMUAREN ETA AIREPORTUAREN ARABERA

	EAE				Foronda				Loiu				Hondarribia				2000-07			
	2000	2005	2006	2007	2000	2005	2006	2007	2000	2005	2006	2007	2000	2005	2006	2007	CAPV	Foronda	Loiu	Hon-darr.
Aireontziak guztira	58.933	66.899	69.540	72.745	13.210	8.461	9.015	8.599	40.254	51.345	51.712	54.353	5.469	7.093	8.813	9.793	23,4	-34,9	35,0	79,1
Estatukoa	39.038	48.565	49.155	50.813	7.883	5.249	4.860	4.558	25.772	36.336	35.729	36.680	5.383	6.980	8.566	9.575	30,2	-42,2	42,3	77,9
Nazioartekoa	19.895	18.334	20.385	21.932	5.327	3.212	4.155	4.041	14.482	15.009	15.983	17.673	86	113	247	218	10,2	-24,1	22,0	153,5
Bidaiaia guztira (milatan)	2.936	4.218	4.389	4.886	119	90	172	172	2.539	3.831	3.857	4.254	278	297	360	460	66,4	44,5	67,5	65,5
Estatukoa	2.095	3.227	3.295	3.702	102	81	81	71	1.715	2.850	2.855	3.174	278	296	359	457	76,7	-30,4	85,1	64,4
Nazioartekoa	841	991	1.094	1.184	17	9	91	101	824	981	1.002	1.080	0	1	1	3	40,8	494,1	31,1	-94,1
Merkantziak guztira (tonak)	37.812	48.049	47.356	20.276	33.599	34.785	17.523	16.811	4.037	3.951	3.391	3.220	176	414	281	245	-46,4	-50	-20,2	39,2
Estatukoa	6.379	11.380	10.698	5.281	3.783	-	3.048	2.887	2.421	2.670	2.132	2.162	175	414	270	232	-17,2	-23,7	-10,7	32,6
Nazioartekoa	31.433	36.669	36.658	14.995	29.816	-	14.475	13.924	1.616	1.281	1.259	1.058	1	0	11	13	-52,3	-53,3	-34,5	1.200,00


Iturria: Sustapen Ministerioa

Sustapen Ministerioak emandako datuen arabera ("Zifrak, 2006"), Bilboko portua berriro ere (2006an) estatuko porturik garrantzitsuena da, merkantzien trafikoan, Algecirasen, Bartzelonaren eta Valentziaren

atzetik; hain zuzen ere, 34,1 milioi tonako bolumena izan du. 2005ean, posizio bera izan zuen sailkapenean.

2006tik 2007ra, Bilboko portuko merkantzien trafikoak %3,7ko hazkundea izan zuen, eta 40.023 mila tonakoa izan

II.4.3-4. GRAFIKOAK. EAĒKO PORTUETAN GARRAIATURIKO MERKANTZIAK ETA ITSASONTZI KOPURUA



Iturria: Eustat

zen; horietatik 28.514 mila tonak solteko salgaiak izan ziren, eta azken horien %79,6 likidoak (22.682 milioi tona). Beste modu batera esateko, gaur egun garraiatutako merkantzien %56,7 solteko salgai likidoak dira, batez ere petrolio-produktuak. Bestalde, ontzi kopuruaren bilakaera hegazkorra izan du, eta 2007an ez ziren 3.600etara iritsi.

Pasaiaiko portua kota askoz ere txikiagoetan mugitzen da. Merkantzien trafikoa, 2007an, 2006ko susperraldiaren ostean, murriztu egin zen berriro, eta 5.078 mila tonakoa izan zen. Hain zuzen ere, azken 5 urtetan baino mugi-

mendu-bolumen txikiagoa egon da. Murriztapen hori, izan ere, edukiontzietako merkantzien eta solteko merkantzia solidoen (batik bat, txatarrak eta produktu siderurgikoak) trafikoa izandako beherakadaren ondoriozkoa da. Horrela, solteko merkantzia solidoaren trafikoa garrantzia galdu du, guztizkoari dagokionez: hamarkada hasieran %60 ingurukoa zen eta 2007an ez zen %55era iritsi. Bestalde, ontzi kopuruak beheranzko bilakaera izan du 2003tik, eta 2007an 1.453 ontzi izan dira.

II.4.13. KOADROA. ITSASOKO GARRAIOTIK MUGITURIKO MERKANTZIAK, MOTEN ARABERA SAILKATUTA

		Tonak milatan							Aldaketaren %	
		1995	2000	2004	2005	2006	2007	%	1995-07	2006-07
Bilbo	Guztira	27.901	28.745	33.214	34.090	38.591	40.023	100,0	43,4	3,7
	Ontziratu gab. likidoak	13.066	14.835	18.596	19.685	22.290	22.682	56,7	73,6	1,8
	Solteko solidoak	5.435	4.495	5.030	4.251	4.989	5.832	14,6	7,3	16,9
	Edukiontzia	3.041	4.389	4.941	5.468	5.629	5.920	14,8	94,7	5,2
	Merk. Konbentzionala	3.604	3.957	3.940	3.824	4.300	3.997	10,0	10,9	-7,0
	Beste trafiko bat	2.755	1.069	708	863	1.383	1.592	4,0	-42,2	15,1
Pasajes	Guztira	4.134	4.529	5.736	5.409	5.511	5.078	100,0	22,8	-7,9
	Ontziratu gab. likidoak	470	202	100	2	0	0	0,0	-	-
	Solteko solidoak	2.219	2.716	3.479	3.274	3.253	2.784	54,8	25,5	-14,4
	Edukiontzia	1.365	1.550	2.099	2.081	2.202	2.240	44,1	64,1	1,7
	Merk. Konbentzionala	731	0	0	111	0	0	0,0	-	-100,0
	Beste trafiko bat	79	61	58	53	57	54	1,1	-31,6	-5,3

Iturria: Sustapen Ministerioa

4.2. Energia

(e) Azpiegitura

Inportaturiko energiaren transformazioa garrantzi handiko industria da, EAEko jarduera ekonomikoaren barruan; bertan, petrolioak fintzeko eta elektrizitatea sortzeko sektoreak nabarmentzen dira. Gas- eta elektrizitate-azpiegitura berriak sartuta (azken urteetan), indartu egin da gure erkidegoko energia-eskaintza.

Gas-azpiegitura

Petronorreko findegiak urtean 11 milioi tona gordin prozesatzeko gaitasuna dauka; Rivabellosako eta Valladolideko CLH bilketa-zentroekin konektaturik dago, olio-bideen bitartez, eta Bilboko portuarekin ere konektaturik dago; tamaina handiko petrolio-ontziak lehorreratzeko instalazioak ditu, baita bilketako eta banaketa-logistikako beste instalazio batzuk ere, EAEko beste leku batzuetan. Euskal Autonomia Erkidegoan, Gordina eta horren deribatuak biltzeko gaitasuna, Petronorrek eta beste operadore batzuek dutena, 2,9 milioi m³-koa da.

Gas-sektoreak, 2003tik, urturiko gas naturala (UGN) inportatzeko terminal bat dauka Bilboko portuan; 300.000

m³-ko bilketa-gaitasuna, metano-ontzietarako 140.000 m³-ko deskarga-kaia, 150.000 m³-ko 2 bilketa-tanke eta 800.000 Nm³/h-ko birgasifikazio-gaitasuna dauka; halaber, gasa garraiatzeko eta banatzeko oinarritzko terminal bat ere badu, 3.700 km-koa, eta hori Estatuko gas-sarearekin konektaturik dago hegoaldean, baita Europako sarearekin lotuta ere Irunetik (eraikitze-fase aurreratua).

Bermeo aurreko antzinako "Gaviota" gas-aztarnategia (gas naturala) bilketa estrategikoko biltegia da orain (780 Nm³-ko gas-bolumen erabilgarria).

Azpiegitura elektrikoak

Sektore elektrikoa sorkuntza elektrikorako parke batek eratzen du, eta hori modernatzen ari dira orain. Izan ere, apurka-apurka, itxi egin nahi dira Santurtziko (I. eta II. taldeak, fuel-oliokoa edo gas naturalekoa) eta Pasaiaiko (inportazioko harriatzekoa) antzinako planta termo-elektrikoak, eta ziklo konbinatuko hiru zentral jarri dira martxan: Bahia Bizkaia Electricidad, 800 MW dituen, Bilboko portutik hurbil (2003an); Iberdrolako zentral termikora erantsitakoa, 400 MW dituen, Santurtzitik hurbil (2004an), eta Bizkaia Energía Boroan, Amorebieta-Etxanon (2005ean).

Gainera, ekoizpena honako hauekin osatzen da: tamaina handiko bi instalazio hidroelektriko (Sobron eta

Barazar, eta bien artean 113 MWko gaitasuna dute instalatuta), 100 instalazio minihidrauliko baino gehiago (10 MWtik beherako potentzia, guztira 60 MW) eta 3 instalazio mikrohidrauliko.

Bestalde, garraio-sarea Estatuko sarearekin eta Frantziakoarekin lotuta dago zenbait gunetan (220Kw eta 400Kw, eta 486 km-ko luzera); hori azpiestazioekin eta transformagailuekin osaturik dago, baita energia elektrikoa ekoizletik banaketa-sarera eramaten duen banaketa-sare batekin ere; horrek azken kontsumitzailea hornitzen du, tentsio ertainean eta baxuan, eta Frantziarekiko trukeak honako linea hauen bidez egiten dira: Hernani-Cantegrit (400 kW) eta Arkale-Mouguerre (220 kW).

Energia berriztagarrien arloko energia-azpiegiturak

Energia **ebolikoaren** arloan, bost parke daude funtzionamenduan, eta horien hasiera potentzia 144 MWkoa da (Elgea 27 MW, Urkila 32 MW eta Badaia 49 MW Araban, eta Oiz 26 MW eta Bilboko portua 10 MW Bizkaian). Gainera, instalazio "minieoliko" kantitatea gero eta handiagoa da (400 wattetik 45 kW-era bitartekoak).

Biomasa eta hondakinak balioztatzeari dagokionez, hondakindegiko sei biogas-instalazio (BioArtigas Bilbon, BioSanmarkos Donostian, BioGardelegi Gasteizen, BioSasieta Beasainen, Jata eta Igorre) eta araztegiko lohien instalazio bat (Galindo Sestaon) daude. Guztira, 8,7 MW sortzen dituzte.

Bilboko Artigaseko hondakindegitik hurbil, 2005ean Zabalgarbiko hiri-hondakin solidoen suspertze energetikorako planta abiatu zen; HHSen eta gas naturalaren ziklo konbinatuko instalazioa da, eta 95 MWko potentzia dauka. Berantevillan (Araba), Bionorreko plantak automoziorako biodiesel egiteko erabiltzen diren elikadurako olioak berreskuratzen ditu. EAEko industriako edo baterako sorkuntzako planta batzuek, gainera, hondakinezko biomasa erabiltzen dute, euren prozesura energia eramateko edo elektrizitatea sortzeko.

Halaber, **baterako sorkuntzako** 90 instalazio inguru daude, gehienak industriakoak, eta horien guztizko potentzia 440 MWkoa da; era berean, plaka **fotovoltaikoen** 1.189 instalazio daude, eta 4,9 MWp-ko potentzia dute energia elektrikoa sortzeko (autokontsumorako edo sistema hornitzeko sare elektrikorako konektaturik); eta **eguzki**-kolektore termikoak dituzten 378 instalazio ere badaude (10.669 m²-ko azalera), ur beroa sortzeko, igerilekuak berotzeko eta halako gauzetarako, zerbitzu-sektoreko etxebizitzetan eta instalazioetan.

(a) Energiaren sorkuntza eta kontsumoa

EAEko energia-sektoreko ekoizpenari buruzko azken datuen arabera (Energiaren Euskal Erakundeak 2006ari buruz emandako datuak), EAEn egindako oinarritzko energiaren ekoizpena 378 Ktep-ekoa da² (2005ean 398 Ktep), eta, beraz, %5eko murriztapena egon da; murriztapenak ekoizpen guztietan egon dira: petrolio eta deribatuek %-50 (8 Ktep-etik 4ra); energia deribatuek %-27,5 (40 Ktep-etik 29ra), eta energia berriztagarriak (bertako iturri nagusia) %-1,4 (350 Ktep-etik 345era).

Oinarritzko energiaren ekoizpen urriarekin EAEko energia-eskariaren %4,9 baino ezin da bete³; ekoizpen hori 7.716 Ktep-ekoa da, eta aurreko urtekoa 7.697koa (%0,2ko hazkundera).


Bestalde, energiaren azken kontsumoak %1,5eko hazkundera izan du urte honetan, eta 5.596 Ktep-ekoa izan da; hazkunde hori, batez ere, industrian (%3,4) eta garraioan (%3,7) izandako hazkunde handien eraginezkoa da, sektoreek baitute eraginik handiena kontsumoan, lehenengoaren kasuan kontsumo osoaren %45,9 eta bigarrenaren kasuan %33,4. Lehen sektoreko, zerbitzuetako eta egoitzako kontsumoek, hurrenez hurren %1,1eko, %12ko eta %9,5eko murriztapenak izan dituzte.

Energia motaren arabera azken kontsumoa interes handikoa da ingurumenaren ikuspegitik, energia mota bakoitzak ingurumen-eragin desberdina sortzen baitu; horri dagokionez, EAEko energia-eskariaren zatirik handiena petrolioaren deribatuek sortzen dute, %39,1ekin, eta Ktep-


² Kteps: Tonak milatan, petrolio baliokidetan.

³ Balantze energetikoetan, barruko kontsumo gordina edo energia-eskaria eta azken kontsumoa bereizten dira. Energia-eskaria edo barruko kontsumo gordina, funtsean, lurraldean bertan sorturiko oinarritzko energiari haxe gehituta lortzen da: inportazioen, esportazioen eta galeren (garraioa, bilketa, banaketa eta abarren eraginezkoa) arteko balantzea. Azen kontsumoa, berriz, azken sektore kontsumitzaileen arteko batuketa da (hau da, industria, garraioa, lehen sektorea, zerbitzuak eta egoitza).

II.4.5. GRAFIKOA. OINARRIZKO ENERGIAREN SORKUNTZA (KTEP)



II.4.6. GRAFIKOA. ENERGIAREN AZKEN KONTSUMOAREN BANAKETA SEKTOREKA (%)



etan %1eko hazkundera izan dute aurreko urtetik. Ondoren, elektrizitatea (eskariaren %29, eta %4,7ko hazkundera, aurreko urteari dagokionez) eta gas naturala (eskariaren %22,3, eta %10,5ekohazkundera, aurreko urteari dagokionez). Horietatik oso urrun, energia berriztagarriak, erregai fosilak eta energia deribatuak daude (horren barruan, batez ere, industria-prozesuetan edo energiaren

transformazioan adibidez, baterako sorkuntzan berreskuraturiko beroa).

EAEko energia-ekoizpen osoak (transformazioko irteerak) %3,3ko hazkundera izan du 2006an, findegietako jarduerak (EAEn transformaturiko energiaren %87) eta zentral termikoetako jarduerak (%+4,4) izandako gorakadaren ondorioz; dena den, sorkuntza termoelektriko

II.4.14. KOADROA. EAE-KO BALANTZE ENERGETIKOA

Ktep-ak	2006							Variación 2005-06						
	Erregai solidoak	Petrolio eta derib.	Gas naturala	Energia deribatutak	Energia berriztag.	Energia elektrik.	GUZT.	Erregai solidoak	Petrolio eta derib.	Gas naturala	Energia deribatutak	Energia berriztag.	Energia elektrik.	GUZT.
Oinarritzko energia ekoizpena	0	4	0	29	345	0	379	-	-50,0	-	-27,5	-1,4	-	-4,8
Barne-kontsumo gordin. erab.	460	3.163	3.189	29	336	539	7.716	-10,2	2,9	-4,4	-27,5	-2,0	10,9	-0,9
Transform. sarrerek	365	9.727	1.901	37	33	0	12.063	-17,6	4,1	1,0	0,0	-38,9	-	2,6
Transform. irteerak	65	9.388	0	201	0	1.144	10.798	-22,6	3,9	-	-2,0	-100,0	2,1	3,3
Azken kontsumo energetikoa	160	2.191	1.251	134	242	1.619	5.596	4,6	1,0	-10,5	-11,8	6,1	4,7	1,5
Industria	160	50	961	124	205	1.069	2.569	4,6	6,4	2,5	-12,1	6,2	5,6	3,4
Garraioa	0	1.842	0	0	6	19	1.867	-	3,7	-	-	20,0	5,6	3,7
Nekazaritza eta arrantza	0	168	0	3	0	4	175	-	-0,6	-	-25,0	-	0,0	-1,1
Zerbitzuak	0	37	87	7	1	286	418	-	-14,0	-10,3	-12,5	-	4,0	-1,2
Egoitza	0	94	203	0	30	242	569	-	-29,3	-10,6	-	0,0	1,3	-9,5

Iturria: EVE

II.4.15. KOADROA. EAE-KO TRANSFORMAZIO IRTEERAK, ZENTRAL MOTAREN ARABERA

	Ktep-ak				2006 % bertikala	Aldaketaren %	
	2003	2004	2005	2006		2003-06	2005-06
Guztira	10.429	10.774	10.448	10.798	100,0	3,5	3,3
Findegiak	9.633	9.756	9.045	9.395	87,0	-2,5	3,9
Zentral termoelektrikoak	311	514	911	951	8,8	205,8	4,4
Baterako sorkuntza	376	384	378	361	3,3	-4,0	-4,5
Koketegiak	107	117	104	88	0,8	-17,8	-15,4
Sorkuntza termoelektriko berriztagarria (eguzkikoa)	3	3	10	3	0,0	0,0	-70


Iturria: EVE

berritzagarrian (eguzki-energia termikoa) %70eko hazkundera egon da. Aldia zabaldua, hau da, 2003tik 2006ra, hazkunderaren eragileak termoelektrikoak izan ziren, baina ez berriztagarriak.

Azkenik, energia-intentsitatearen azterketak (PBG unitateko azken kontsumotzat neurtuta) agerian jarri duenez, 2006an 1996koaren %91 izan da, eta ehuneko 4

puntu hobetu da aurreko urtetik, BPG energiaren azken kontsumoaren gainetik haztearen ondorioz.

Sektoreka bananduta, EVEk emandako datuen arabera, industriako energia-intentsitatea, 2006an, 1996ko balioaren %83koa da, eta ehuneko puntu bat hobetu da aurreko urtetik. Garraioan, aldiz, energia-intentsitateak %8ko hazkundera izan du 1996ko baliotik, baina azken

II.4.7. GRAFIKOA. INTENSITATE ENERGETIKOAREN BILAKAERA

Iturria: EVE

urteetan egonkortzeko joera dauka; azkenik, zerbitzu-sektorean, intentsitatea bost puntutan hobetu da, aurreko urteari dagokionez, baina 1996ko balioa baino %13 handiagoa izan da.

azpiegitura behar da (esaterako, gaitasun altuko telefono-lineak, kablea, satelitea, ordenagailu-azpiegiturak, Internet), baita gizarte-azpiegitura ere, hau da, informazioari askatasunez jariatzeko aukera ematen dion gizartea.

Horrela, arlo honetako inbertsioak ezinbestekoak dira garapenerako, gainerako jarduera ekonomikoaren garapen lehiakorra euren mendekoa baita. Horrenbestez, telekomunikazioen sektorea balio erantsi altuko industriadat eratzen ari da (zerbitzuen operadoreak nahiz kudeatzaileak, ekipamendu-ondasunak fabrikatzen zein hornitzen dituzten enpresak, ...), eta horrek enpleguak eta aberastasuna sortu behar ditu.

Telekomunikazioen maparen eraketa konplexua da, honako honen ondorioz: aurrerakuntza teknologiko etengabeen eraginezko zerbitzu berrien eskaintza iraunkorra, baldintza berrietara egokitzeko eta produktuak nahiz zerbitzuak (sarritan nekez zehazteko modukoak) arautzeko legegintza-aldaketak, eta arlo hauetan ikusten diren etengabeko enpresa-mugimenduak.

Azken urte hauetan, zerbitzu tradizionalak egonkortu eta telefonia mugikorrari lotutakoak hazkundera izan dute; halaber, banda-zabaleraren eskariak ere gora egin du. Izan ere, banda zabala telekomunikazioen merkatuko protagonista nagusia izan da azken urteetan, batez ere ADSLren garapenaren bidez.

4.3. Telekomunikazioak

(a) Azpiegitura

Telekomunikazio-azpiegiturak Informazioaren Gizarte-ko zerbitzuen euskarriak dira; horrela, hiritarrei Sareko testuko, irudiko edo soinuko zerbitzuak eskuratzeko aukera ematen dieten baliabideak dira.

Informazioa eta horren tratamenduari, azterketari zein transmisioari lotutako teknologiak baliabide estrategikoak dira, edozein gizartetako ekonomia, gizartea eta kultura garatzeko. Herri batek oraingo Informazioaren eta Ezagupenaren aroan duen posizioa bere azpiegituren arabera izango da, ez kapital fisikoko azpiegituren arabera bakarrik, baita inguru berri horretara egokitze duen giza kapitaleko azpiegituren arabera ere.

Hortaz, telekomunikazio-modu guztiak barruan hartzen dituen informazioaren tratamenduko eta transmissioko

Garapen handiko beste berritasun batzuk honako hauek dira: Operadore Mugikor Birtualak-OMB (telefonía mugikorreko zerbitzua euren sarearen bidez eskaintzeko maiztasun-espektrorik ez duten enpresak, telefonía mugikorreko zerbitzuak euren markarekin berriro saltzen dituztenak, zerbitzu mugikorreko beste operadore baten sarea erabiliz) eta Interneten bidezko telefonía (IP Telefonía edo IPAhotsa ere baderitzona ingelesezko siglak VoIP); azen horrek ahotsa Internetez igortzeko aukera ematen du, eta, horrela, erabiltzaileek datu-sare batera konektaturiko ordenagailuetatik egin ditzakete deiak.

EAEEn ahalegina egiten ari gara telekomunikazio-azpiegituren gaitasuna garatzeko eta sare osoa zein eraginkorra bermatzeko, bai enpresetarako, ikerketa-zentroetarako eta herri-administrazioarako, bai norbanako erabiltzaileentzat. Azpiegitura horiek betiko telefono-sareak, mikrouhin-sareak eta banda zabalak osatzen dituzte, eta zerbitzuak eskaintzen dizkiete gure erkidegoan finkaturiko telekomunikazio-enpresei.

EAEko Herri Administrazioak gure erkidegoan Informazioaren Gizartea garatzeko planteaturiko ekintzen artean, aipagarria da Euskadi Informazioaren Gizartean Egitamua (2001-2005), eta horrek lau ardatz estrategiko ditu: heziketa eta kultura-aldaketa, on-line Administrazioa, e-Business eta Azpiegiturak. Horri buruzko informazio gehiago lortzeko, 2005eko Memoria Sozioekonomikoa irakurri behar da, hain zuzen ere kapitulu hori eta *I+G+b jarduerak eta IKTak* kapitulua.

(b) Bilakaera

Europako Berrikuntza Indizean Informazioaren Gizarteari buruz dauden adierazleak aztertuta (hain zuzen ere, banda zabalaren ezarkuntzari eta IKTetan egindako gastuari buruzko adierazleak), hauxe ondorioztatzen da:

- Euskal Autonomia Erkidegoa EB-27ko batez bestekotik behera dago, baina Estatuko batez bestekotik gora, banda zabaleraren sarrerari dagokionez. Tasa hori ondoren adierazitakoaren arabera kalkulatzeko da: zenbakitzailan familietako Banda Zabaleko lineak (ADSL eta Kablea) eta enpresetako Banda Zabaleko lineak (ADSL eta Kablea) sartzen dira. Banda Zabalaren barruan, 144/Kbit/seg-ko edo hortik gorako gaitasuna duten lineak sartzen dira. Izendatzaileen, erreferentziako urte bakoitzeko uztailaren 1eko biztanleria erabiltzen da.

Horrela, EAE erdiko posizioan dago herrien sailkapenean. Arlo honetako herririk aurreratuenak Danimarka (%29,6ko sartzetasa), Herbehereak (%29), Finlandia (%24,9), Suedia (%22,9) eta Belgika (%20,7) dira.


- EAEk bigarren gasturik txikiena egiten du IKTetan, eta guk baino gastu txikiagoa Greziak soilik egiten du.

II.4.16. KOADROA. BANDA ZABALAREN SARTZE TASA ETA IKT-ETAKO GASTUA

	Banda zabalaren sartzetasa, 2006 (*)	IKTetako gastua, 2005
Bulgaria	--	9,9
Errumania	--	8,2
Danimarka	29,6	6,5
Herbehereak	29,0	7,6
Finlandia	24,9	7,0
Suedia	22,9	8,6
Belgika	20,7	6,3
Erresuma Batua	19,2	8,0
Frantzia	18,0	6,0
Luxenburgo	17,4	6,8
Estonia	16,6	9,8
Austria	15,8	6,3
Alemania	15,3	6,2
EB-27	14,8	6,4
EAE	14,7	5,1
Espania	13,2	5,5
Italia	13,1	5,3
Portugal	12,9	7,4
Malta	12,8	8,5
Eslovenia	11,4	5,4
Irlanda	8,8	5,2
Lituania	8,4	7,8
Txekiar Errepublika	8,4	6,6
Hungaria	7,5	8,1
Letonia	6,8	9,6
Zipre	6,6	--

(*) Zenbakitzaila: banda zabaleko lineak familietan eta enpresetan. Banda zabalaren barruan, 144/Kbit/seg-ko edo hortik gorako gaitasuneko lineak sartzen dira. Izendatzailea: biztanleria uztailaren 1ean.

Iturria: Eustat y Maastricht Economic Research Institute on Innovation and Technology eta EE. Europako Berrikuntza Indizea.

II.4.8. GRAFIKOA. IKT EKIPAMENDUAK DITUZTEN ETXEBIZITZEN EHUNEKOA, 2006

Iturria: INE

INERen datuen arabera, Interneteko konexioa duten Estatuko enpresen %95,2k banda zabaleko soluzioren batekin konektatzen dira, eta erabilieta XDSL soluzioa da (Internetera konektatzen diren enpresen %92,4); konexio finkoak, adibidez, kablea, salbuespenak salbuespen, ez dira %8ra heltzen, eta euren presentzia aurreko urtekoa baino txikiagoa da. EAEn XDSL konexioen erabilaren ehunekoa %89,1ekoa da; beraz, Estatuko batez bestekotik behera ez ezik, AAEE gehienetako batez bestekotik behera ere badago.

Eurostatek emandako datuek diotenez, 2007an banda zabalaren bidezko konexioa zuten enpresen ehunekoa %77koa izan zen EB-27an, %79koa EB-25ean eta %82koa EB-15ean. Espainiako estatuan, iturri horren arabera, ehunekoa %90 da.

INERen datuen arabera, banda zabalak EAEko etxeetan duen presentzia (2006an %33,1) Estatuko batez bestekoa (%32,6) baino handiagoa da, baina honako autonomia-erikidego hauetakoa baino txikiagoa: Ceuta (%45,1), Madril (%44,3), Melilla (%43), Balearrak (%39,6), Katalunia (%39,4), Kanariak (%35,1), Asturias (%34,5) eta Kantabria (%33,6).

Eurostaten datuek diotenez, 2006an etxeetako banda zabalaren bidezko konexioaren ehunekoa %30ekoa zen EB-27an, %32koa EB-25ean eta %34koa EB-15ean.

Espainiako estatuan ehunekoa, iturri horren arabera, %29koa da. Ratorik altuenak Holandan (%66), Danimarkan (%63), Finlandian (%53), Suedian (%51) eta Luxenburgon (%44) erregistratu dira. Bestalde, Islandiako eta Norvegiako ratioak, hurrenez hurren, %72 eta %57 izan dira.

Banda zabaleko konexioen estaldura maila horrek kezkatu egiten ditu Herri Administrazioak, eta, hain zuzen ere, Europako Batzordea; izan ere, azken erakunde horrek kanpaina bat abiatu du Interneteko banda zabaleko konexioek Europan %100eko estaldura eta etxeetan %50eko sartzea izateko, 2010erako; horretarako, Europar Batasuneko baliabideak erabiliko dira, esate baterako, egiturako eta landa-garapenerako fondoak, landa-eskualdeetako eta pobreetako lubaki teknologikoa murriztu ahal izateko.

Bestalde, OCDEren "Information Technology Outlook 2006" txostenean esaten denez, sareetan, softwarean eta hardwarean egindako hobekuntza teknologiko iraunkorren eraginez (zerbitzu mugikorak nahiz haririk gabeak eta edukiak babesteko sistemak aintzat hartuta), eduki digital berriak garatu dira; hala eta guztiz ere, etorkizuneko erronka eduki-garatzailen, tresna-ekoizleen eta banatzaileen arteko lankidetzak da. Horrenbestez, interoperatibitatea eta bateragarritasuna soluzio azkarra behar duten arazoak dira.

II.4.17. Koadroa. IKT-en erabilera aldagaiak enpreetan (2006ko eta 2007ko urtarrila), aldagaien eta autonomia erkidegoen arabera

	Toki Eremuko Sarearekin (LAN)		"Haririk gabeko" Toki Eremuko Sarearekin		IKT funtzio espezifiko langileekin	Interneteko konexioa honexen bidez											
						Modema		RDSI		Banda zabala		XDSL (ADSL, SDSL,...)		B. konexio finko batzuk (kablea, LMDS,...)		Telefonia mug. (GSM, GPRS, UMTS, ...)	
	2006	2007	2006	2007	2007	2006	2007	2006	2007	2006	2007	2006	2007	2006	2007	2006	2007
Estatua	70,8	70,9	17,2	19,3	12,1	16,1	16,9	19,4	19,3	94	95,2	90,5	92,4	7,9	7,6	26,7	24,7
Andaluzia	65,8	66,2	15,5	16,3	7,4	15,6	16,2	19,6	18,4	95,5	96,1	93,1	94,0	5,6	6,1	28,9	18,9
Aragoi	72,3	69,6	18,6	17,0	11,4	13,1	19,8	22,6	20,3	93,1	94,0	90,4	90,7	7,0	8,3	25,7	20,2
Asturias	67,7	67,4	16,1	19,3	12,2	12,4	9,6	20,0	15,7	95,3	98,2	87,2	89,2	12,0	15,3	21,9	17,7
Balearrak	73,7	63,8	22,7	18,1	6,4	16,0	18,7	17,7	18,5	93,9	98,0	92,5	95,9	5,2	5,1	20,1	18,5
Kanariak	67,7	67,9	16,2	17,6	11,5	18,3	17,7	17,5	17,7	96,5	95,0	95,6	93,8	4,1	5,3	28,4	18,6
Kantabria	66,3	63,4	20,8	16,5	8,2	19,2	20,7	33,3	15,9	93,0	93,9	91,1	90,4	4,9	5,9	24,3	21,1
Gaztela eta Leon	70,2	64,9	14,6	13,2	8,8	16,2	17,1	21,6	20,9	92,4	91,6	89,5	88,9	7,3	6,8	26,9	19,8
Gaztela-Mantxa	58,2	60,0	11,7	17,1	6,7	22,6	21,0	22,0	19,0	87,4	92,7	81,7	89	8,3	6,7	21,7	17,3
Katalunia	73,2	77,4	18,4	21,8	15,0	14,5	16,1	16,3	18,9	95,1	95,8	91,8	93,4	9,3	6,7	27,5	32,9
Valentziako Erk.	70,5	70,5	15,0	16,1	12,4	18,1	15,3	22,0	15,6	91,3	97,0	89,0	94,8	4,9	6,1	23,6	27,6
Extremadura	65,5	55,5	15,0	15,5	5,9	20,1	26,1	19,4	16,2	94,3	93,9	93,5	93,6	3,4	2,0	24,6	17,2
Galizia	66,8	66,8	14,8	19,1	8,4	14,1	18,2	18,5	23,5	91,4	91,6	82,3	87,3	12,2	10,6	24,5	21,4
Madril	78,4	80,9	24,1	27,0	20,1	16,0	16,0	19,8	20,0	96,6	97,8	92,0	94,2	12,3	11,9	31,3	29,2
Murtzia	70,6	63,8	14,2	18,6	9,1	15,2	18,5	21,3	24,1	88,5	87,4	86,2	84,2	4,5	6,1	21,5	21,0
Nafarroa	74,1	71,6	15,8	16,0	8,0	17,9	20,0	17,5	26,5	93,3	91,9	89,0	89,3	7,3	7,2	24,0	20,9
EAE	70,8	67,7	12	18,0	12,3	15,8	17,1	16,9	20,6	95,3	93,1	91,5	89,1	7,7	8,1	28,3	21,4
Errioxa	73,1	65,8	12,2	14,6	7,0	15,1	16,3	29,9	26,3	94,9	93,7	93,7	91,4	4,1	6,1	22,5	20,7
Ceuta eta Melilla	73,6	83,1	10,2	17,4	3,0	15,6	22,6	24,4	34,8	97,4	99,8	97,1	96,7	1,4	4,4	17,6	16,7

Iturria: INE



3

EAEko ekonomia

1

Kanpoko inguru ekonomikoa

1.1. Faktore ekonomiko nagusiak

Erosteke ahalmenaren parekotasunaren arabera haztaturiko munduko BPGk, Nazioarteko Moneta Funttsak (NMF) egindako zenbatespenaren arabera, %4,9ko hazkundera izan du 2007an, aurreko urtean erregistraturiko hazkundera baino ehuneko puntu bat gutxiago. Horrenbestez, badirudi munduko hedapena indarra galtzen ari dela.

Urte amaieran jarduera ekonomikoak dezelerazio nahiko handia izan zuen ekonomia aurreratuetan, gehienbat AEBn, eta, bertan, arrisku altuko hipoteken merkatuak era askotako merkatuetan eta finantza-erakundeetan izan zuen eragina. Oro har, ekonomia aurreratuek %2,7ko hazkundera izan zuten (aurreko urtean %3), eta AEBko BPGren hazkundera zazpi hamarrenetan dezeleratu zen (%2,2 eta aurreko urtean %2,9); eurozonakoak %2,6ko hazkundera izan zuen, aurreko urtean baino 2 hamarren gutxiago, eta Japoniakoak %2,1ekoa, 2006an baino hiru hamarren gutxiago. Industrializazio berriko Asiako lau herrietan (Korea, Txinako Taiwan probintzia, Singapur eta Hong Kong), hazkundera %5,6koa izan zen (aurreko urtekoaren berdina).

Garapen bideko ekonomietan, turbulentzien ondorioz, finantza-merkatuen hegazkortasunak gorakada iragankorra

izan zuen, baina ekonomia horiek turbulentziak eusteko zuten gaitasuna iraganekoa baino handiagoa izan zen. Urte osoa kontuan hartuta, garapen bideko ekonomiek (batez ere, Asiakoak, eta, gehienbat, Indiakoak eta Txinakoak) azkar hazten jarraitu zuten. Hala eta guztiz ere, herri horietariko batzuen jarduera hozten hasi da. Orokorrean, BPG erreala %7,9 inguruko tasan hazi zen (aurreko urtean baino hamarren bat gehiago). Txinak eta Indiak %11,4ko eta %9,2ko hazkundera izan zuten, hurrenez hurren.

Inflazio orokorrak hazkunde gogorra izan zuen ekonomiarik gehienetan, 2007aren amaieran. Petrolioaren prezioek gorantz jarraitu zuten, baita erregaiak ez diren lehengai batzuen prezioek ere.

Brent upelaren prezioa 95,6\$/b izan zen azaroan, eta 2007ko batez besteko prezioa 72,51 \$/b izan zen (2006an 65,15 \$/b).

Bestalde, hazkunde ekonomiko irmoaren, uzten urritasunaren eta nekazaritzako lehengaiak gero eta gehiago bioerregaiak sortzeko erabiltzearen eraginez, erregaiak ez ziren oinarritzko produktuen prezioek %14ko hazkundera izan zuten. Urteko bigarren zatian, metalen prezioak behera egin arren, nekazaritzako eta elikadurako produktuen prezioek gorantz jarraitu zuten.

Abuztuko finantza-krisiaren alderdirik dramatikoenetariko bat likidezia galtzea izan zen. Banku zentralak, horri erantzuna emateko, epe laburrerako finantziario eskala handian ahalbidetu zuten. Erreserba Federalak,

III.1.1. KOADROA. ALDAGAI MAKROEKONOMIKO NAGUSIAK

	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007
BPG (urteko ehuneko aldaketa)								
Mundua	4,7	2,2	2,8	3,6	4,9	4,4	5	4,9
Ekonomia aurreratuak	3,9	1,2	1,6	1,9	3,2	2,6	3	2,7
AEB	3,7	0,8	1,6	2,5	3,6	3,1	2,9	2,2
Japonia	2,9	0,2	0,3	1,4	2,7	1,9	2,4	2,1
Euroaren zona	3,8	1,9	0,9	0,8	2,1	1,6	2,8	2,6
Beste ekonomia aurreratu batzuk (goikoak izan ezik)	5,2	1,7	3,2	2,5	4,1	3,2	3,8	3,9
Garapen bideko ekonomiak	5,9 ⁰⁰	3,8 ⁰⁰	4,7 ⁰⁰	6,2 ⁰⁰	7,5 ⁰⁰	7,1 ⁰⁰	7,8	7,9
Afrika	3,5	4,9	6,1	5,3	6,5	5,7	5,9	6,2
Amerika	4,1	0,7	0,4	2,1	6,2	4,6	5,5	5,6
Estatu Burujabeen Erkidegoa (Mongolia barne)	9,1	6,1	5,2	7,8	8,2	6,5	8,2	8,5
Erdialdeko eta ekialdeko Europa	4,9	0,4	4,2	4,8	6,9	6,1	6,6	5,8
Ekialde Erdikoa	5,4	3	3,9	6,9	5,9	5,7	5,8	5,8
Asiako garapen bideko herriak	6,9	5,8	6,9	8,1	8,6	9	9,6	9,7
Txina	8,4	8,3	9,1	10	10,1	10,4	11,1	11,4
India	5,4	3,9	4,6	6,9	7,9	9,1	9,7	9,2
Ondasunen eta zerbitzuen mundu-merkataritza (<i>ondasunen eta zerbitzuen munduko esportazioen eta inportazioen urteko %-ren aldaketaren b. bestekoa</i>)	12,2	0,3	3,5	5,4	10,7	7,6	9,2	6,8
Kontu korronteko ordainketa-balantza (BPGren %)								
Ekonomia aurreratuak	-1	-0,8	-0,8	-0,7	-0,7	-1,3	-1,5	-1,2
Garapen bideko ekonomiak	-	-	-	-	-	-	4,8	4,2
Langabezia-tasa (%)								
Ekonomia aurreratuak	-	-	-	-	-	-	5,7	5,4
Prezioak kontsumitzaileari (urteko ehuneko aldaketa)								
Ekonomia aurreratuak	2,2	2,1	1,5	1,8	2	2,3	2,4	2,2
Garapen bideko ekonomiak	8,5	7,6	6,7	6,6	5,9	5,7	5,4	6,4
North Sea Brent petrolioaren prezioa (\$/upel, urteko b.b.)	28,5	24,4	24,9	28,81	38,23	54,46	65,15	72,51
Erregaia ez diren oinarritzko produktuen prezioak \$-tan (<i>urteko ehuneko aldaketa</i>)	4,2	-4,8	1,9	5,9	15,2	6,1	23,2	14
Metalak	13,2	-10,3	-3,5	11,8	34,6	22,4	56,2	17,4
Esku hartzeko interes-tasa (<i>aldiaren amaieran</i>)								
EMB	4,75	3,25	2,75	2	2	2,25	3,5	4
AEB –fondo federalek lortu nahi duten tasa	6,5	1,75	1,25	1	2,25	4,25	5,25	4,25
Japonia – deskontu-tasa (2)	0,5	0,1	0,1	0,1	0,1	0,1	0,4	0,75
Euroaren aldaketa-tasa (euroko moneta-unitateak)								
Dolarra	0,924	0,896	0,945	1,131	1,243	1,245	1,256	1,371
Libera esterlinoa	0,609	0,622	0,629	0,692	0,679	0,684	0,682	0,685
Japoniako yena	99,53	108,73	118,07	130,97	134,4	136,87	146,06	161,23
Burtsa: kotizazio-indizea (urteko ehuneko aldaketa)								
Dow Jones (New York)	2	-5,1	-9,5	-1,8	14,5	2	9	15
Nikkei	-0,5	-29,1	-16	-7,7	20,9	12,1	29,3	4,4
Eurotoxx zabala	27,9	-20,2	-23,1	-17,7	18,2	17,4	22,3	16,1
Ibex 35	6,8	-18,1	-20,2	-4,5	21,9	20,8	24,7	20,7

(1) Ekonomia aurreratuak (30 herri): AEB, Kanada, Japonia, Euro-zona, Erresuma Batua, Danimarka, Suedia, Norvegia, Zipre, Orintsu industrializaturiko Asiako ekonomiak, Israel, Islandia, Australia eta Zeelanda Berria. Orintsu industrializaturiko Asiako ekonomiak: Hego Korea, Hong Kong, Singapur.

(2) Herri bateko banku zentralak merkataritza-bankuei (behin-behinean fondorik gabe daudenean) aplikatzen dien interes-tasa. Merkataritza-bankuek, bermetzat, zor publikoko tresnak eta lehenengo mailako beste gauza batzuk ematen dituzte, banku zentraleri mailegua eskatu ahal izateko. Mailegu horiek epe laburrera izaten dira, euren helburua merkataritza-bankuek epe laburrean dituzten likidezia-beharrianak betetzea baita.

Iturria: NMF "Perspectivas de la economía mundial" (2008ko apirila), Ekonomia Ministerioa eta EBZ.

horri erantzunez, murriztu egin zuen egun baterako banku arteko tasa, eta Europako Banku Zentralak eta Japoniako bankuak, berriz, krisia baino lehenagoko mailetan mantendu zuten esku-hartze tasa.

2007ko lehenengo hiruhilekoan, Amerikako Estatu Batuetako Erreserba Federalaren esku-hartze tasa %5,25ean mantendu zen. Hala eta guztiz ere, finantza-merkatuetan eragina izan zuten turbulentzien ostean, Fed deritzonak mozketak batzuk egin zituen irailean eta urrian, eta horiek oinarritzko 75 puntukoak izan ziren guztira; gero, oinarritzko beste 25 puntuko beste mozketak bat ere egin zuten, abenduan. Horrela, erreferentziako interes-tasa %4,25ekoa izan zen urte amaieran, urtarilean baino ehuneko puntu bat baxuagoa.

Europako Banku Zentralak bitan igo zuen egun baterako esku-hartze tasa, martxoan eta ekainean; bakoitzean 25 puntu. Horrela, erreferentziako interes-tasa %4koa izan zen, urte amaieran, urtarilean erregistraturiko maila baino ehuneko puntu erdi altuagoa.

Japoniako Bankuari dagokionez, 2007an bigarren igo zuen esku-hartze tasa, 2006ko uztailaren zero tasaren politika baztertu zuenetik. Horrela, erreferentziako interes-tasa %0,75 izan zen urte amaieran, aurreko urteko maila baino 35 hamarren altuagoa.

Orain arte finantza-merkatuetako turbulenziei, prezioen hazkunde handiei nahiz jarraituei eta ekonomia garatuen dezelerazioari buruz azaldukoak, zalantzarik gabe, oztopoz beteriko esparrua sortu zuen, 2007an nazioarteko merkataritza hedatzeko; horren hazkundea, hain zuzen ere, %6,8koa izan zen, aurreko urtekoa baino ehuneko 2,4 puntu baxuagoa.

Azkenik, finantza-tentsioek ere eragina izan zuten kanbio- eta burtsa-merkatuetan.

Dibisen merkatuan, AEBko dolarren kanbio-tasa errealek esparru handia galdu zuen, eta horren kontrakontu nagusia, izan ere, euroaren, yenaren eta erregimen flotagarriko beste moneta batzuen (adibidez, Kanadako dolarra eta garapen bideko ekonomia batzuetako dibisak) balioak gora egitea izan zen.

Amerikako dolarra jaisteak esportazio garbia eragin eta, gainera, lagungarria izan zen kontu korronteko defizita murrizteko, Amerikako Estatu Batuetan. Oro har, ekonomia aurreratuek izandako kontu korronteko defizitak (BPGren ehunekotzat) hiru hamarrenen murriztapena izan du 2006tik 2007ra, eta BPGren %1,2 izan da. Aldiz, garapen bideko herrietako ekonomiek %4,2ko superabita izan dute,

eta hori, neurri handian, petrolio-herri esportatzaileen superabitak azaltzen du.

Burtsa-merkatuetan, "sub-prime" hipotekek euskarrituriko tituluen merkatuetako galerek finantza-erakundeetan izan beharreko eragin errealearen inguruko zalantzek konfiantza-krisia sortzen lagundu zuten. Baina, konfiantza-galtze horrek burtsetan hasieran eragin negatiboa izan arren, AEBko interes-tasei buruzko itxaropenak aldatu zirenean, susperralditxoak egon zen, eta horren inflexio-puntua abenduan izan zen.

Hala ere, eragin negatibo hori oso desberdina izan zen maila kuantitatiboan, bai burtsetan eta bai balioen sektoreetan nahiz taldeetan.

Ibex 35 indizeak %7,3ko igoerarekin itxi zuen urtea (aurreko urtean %31,8), eta guztira 15.182,3 puntu izan ziren (aurreko urtean 14.146,5). Urteko batez besteko hazkundea %20,7koa izan zen.

Europako *Euro Stoxx zabala* indizeak urteko %16,1eko batez besteko hazkundea izan zuen, aurreko urtean izandakoa baino txikiagoa (%22,3). New Yorkeko burtsako *Dow-Jones* indizeak urteko %15eko batez besteko hazkundea izan zuen (2006an %9), eta Tokioko burtsako Nikkei indizeak urteko %4,4ko batez besteko hazkundea.

1.2. Arlokako bilakaera ekonomikoa

NMFk eta Europako Banku Zentralak (EBZ) emandako datuen arabera, munduko ekonomiaren bilakaera, 2007an, hauxe izan zen eremuka bananduta.

Amerikako Estatu Batuak. Amerikako Estatu Batuetako ekonomia dezeleratu egin zen 2007an, eta %2,2ko tasan hazi zen. Jardueraren erritmoak murriztapen drastikoa izan zuen, laugarren hiruhilekoan.

Egoitza-inbertsioaren uzkurdurak ia ehuneko puntu bat murriztu zion ekonomiaren hazkunderari. Enpresa-inbertsioa eta kontsumoa ere murriztu egin ziren, urte amaieran, merkatuaren jarrera narriatu eta kreditu-baldintzak gogortu zirenean, abuztuko finantza-konbultsioa sortu zenean, Fed izenekoak moneta-distentsioa abiatu arren.

Inflazioak, kontsumoko prezioen bidez neurtuta, gora egin zuen, urteko lehenengo seihilekoan; udako hilabeteetan moderatu egin zen, eta inflazio-presioak gogortu egin ziren aurrerago.

Sendotasun-seinaleak erakutsi zuen eremu bat esportazio garbia izan zen; hain zuzen ere, dolarraren balio-galtze iraunkorraren eta Amerikako Estatu Batuetako ekonomia moteltzearen (bere kideetako ekonomiarekin konparatuta) eraginez, hedapen handia izan zuen. Horren ondorioz, 2007ko laugarren hiruhilekoan, kontu korronteko defizita BPGren %-5,3ra murriztu zen (aurreko urtean %-6,2).

Zerga-politikari dagokionez, aurrekontu-defizit federala murriztu egin zen 2007an, batik bat pertsona fisikoen errentaren gaineko zergak izandako hazkundearen eta gastuaren murriztapenaren ondorioz. Defizita BPGren %1,2koa izan zen, 2007an.

Europako garapen bideko ekonomiak (Turkia, Baltikoko estatuak, Erdialdeko Europa, Hegoaldeko eta Hego-ekialdeko Europa eta Eslovenia). Hazkundeak ehuneko ia puntu bateko murriztapena izan zuen (%6,7tik %5,8ra). Dezelerazioa nabarmenagoa izan zen Hungarian, Turkian, Estonian eta Letonian. Hala ere, 2007an, seigarren urtez jarraian, Europako garapen bideko ekonomiek mendebaldeko Europakoek baino hazkunde askoz ere bizkorragoa izan zuten, eta hori lagungarria izan zen aberastasunaren arloko desorekak murrizteko.

Herririk gehienetan, hazkundea barruko eskari gogorraren eraginezkoa izan zen, eta eskari hori, aldi berean, kredituaren hazkunde indartsuan euskarritzen zen; kredituaren hazkunde hori, halaber, kapital-sarreraren eta, herri askotan, soldaten hazkundearen (lan-merkatuko uzkurdura etengabeak sorturiko hazkundeak) eraginezkoa izan zen.

Euro-zonako eskubide osoko kide izateko, herriek truke-tasa egonkorra izan behar zuten bi urteko epean, eta, gainera, "Maastrichteko irizpideak" bete behar zituzten. Herri guztiek zerga-arauak bete zitzaizkien, baina oztopo nagusiak Maastrichteko erreferentziako inflazio-tasari lotutako baldintzak izan ziren. Inflazio-presioak gero eta handiagoak izan ziren, batez ere urte amaieran, neurri batean janariaren eta energiaren prezioek izandako hazkundearen ondorioz, baina baita eskulanaren kostua gero eta garestiagoa izatearen ondorioz ere.

Eskualdean, kontu korronteko defizit globala BPGren %6,6ko maila baliokidera iritsi zen.

NMFk 2008ko apirilko txostenean egindako proiektzioen arabera, herririk gehienetan hazkundearen euren ahalezko mailatik hurbilagoko mailara murriztuko da, barne-eskariak dinamismoa galtzearen eta esportazioek (mendebaldeko Europako eskari txikiagoko testuinguruan) hazkunde urriagoa izatearen ondorioz.

Japonia. Japoniak, urte amaierara arte, ondo eutsi zien munduko dezelerazioaren ondorioei. BPGk %3,5eko urteko hazkunde-tasa izan zuen, esportazio garbien maila senduari eta enpresa-inbertsioari esker; kontsumo pribatua, ostera, ahuldu egin zen.

Asiako garapen bideko herrietako barne-eskariaren (eta, hain zuzen ere, inbertsioaren) irimotasun iraunkorra Japoniako esportazioen funtsezko euskarria da oraindik. Gaur egun, Asiako garapen bideko ekonomiek Japoniako esportazioen ia erdia jasotzen dute, eta Amerikako Estatu Batuei eta euro-zonari dagokien proportzioa, berriz, guztizkoaren herenera baino apur bat gehiagora murriztu da. Garapen bideko ekonomien hazkundeak Amerikako Estatu Batuetako eta mendebaldeko Europako dezelerazio ekonomikotik nolabait aldenduta mantentzen den neurrian, Japoniako esportazioek aurrerantzean ere oinarri irmoa izango dute.

Erregaiaren eta janariaren prezioen garestitze gero eta handiagoa lagungarria izan zen inflazio-tasa global positiboa sortzeko, 2007ko azken hiru hilabeteetan; baina kontsumitzailearen prezioen inflazioak txikia izaten jarraitu zuen, eta janariak eta energia kenduta, gainerako kasuetan apur bat negatiboa izan zen.

Zor publiko garbia altuenetakoa izaten jarraitu zuen, ekonomia aurreratu nagusien artean, azken urteetan zerga-egokitzapenaren arloan lorturiko aurrerakuntza garrantzitsua izan arren.

Asiako garapen bideko ekonomiak. Zonak hazkunde indartsua mantendu zuen, baina moteltze-seinaleak hasi ziren agertzen. Hazkunde horren adierazle nagusiak India eta Txina izan ziren.

Eskualde osoko barne-eskari handiaren ondorioz, janariaren eta energiaren prezio gero eta handiagoekin konbinatuta, zenbait herritan metatu egin da inflazio-presioa. Txinan, KPIren batez besteko inflazioa urtarileko %2,2tik abenduko %6,5era handitu zen. Neurri handian, hori janariaren prezioek izandako hazkunde iraunkorraren eraginezkoa izan zen (txerri-epidemia baten ondoriozko hazkundeak); hala eta guztiz ere, gero eta kezka handiagoa egon zen, janariaren prezioaren hazkunde iraunkorak

soldatetan eragiteari eta horrek inflazio orokorragoa sortzeari buruz. Indian, urteko lehenengo hilabeteetako moneta-murritzapenaren eraginez, 2007aren amaierarako inflazioa jaitsi egin zen; dena den, 2008an berriro ere gorantz hasi zen, oinarritzko produktuen prezioaren hazkunde iraunkorragatik.

Txinako yuanak balioa irabazten jarraitu zuen, Amerikako Estatu Batuetako dolarrari zegokionez. Txinako Herri Errepublikako Banku Zentralak yuanaren truke-tasaren (dolarrari zegokionez) eguneroko kotizazio-zerrenda zabalduko zuela iragarri zuen; hain zuzen ere, erreferentziako tasaren $\pm 0,3\%$ $\pm 0,5\%$ era. Merkataritza-superabita gorantz jarraitu zuen, eta, 2007an, BPGren %8 ingurukoa izan zen, aurreko urtekoa baino ia %50 handiagoa. Testuinguru horretan, dibisa-erreserbek hazten jarraitu zuten.

Eskualde osoan sartutako kapital pribatua aurrekorik gabeko zifretara heldu zen, Txinak, Hong Kongek eta Indiak jasotako zorroko inbertsioaren hazkunde nabariekin eta atzerriko zuzeneko inbertsio-jario etengabeekin eta oso indartsuekin.

Hazkundeko itxaropenak, eskualde osoan, NMFk 2008an emandako informazioaren arabera, finantza-sistemen eta ekonomien erresistentzia mailaren arabera dira, finantza-merkatuen nahasteei eta ekonomia aurreratuen dezelerazioari dagokienez. Garapen bideko Asiaren hazkunde dezeleratu egingo dela dago aurreikusita; hala eta guztiz ere, indartsu jarraitu du.

Amerika Latinoa eta Karibe. 2007ko hazkunde ekonomikoa iraunkorra izan zen: %5,6koa izan zen, 2006koa (%5,5) baino apur bat handiagoa. Horrela, eskualdeko lau urterik onenak lortu ziren, hirurogeita hamarrek hamarkadatik; hala ere, ekonomia desberdinetan nolabaiteko heterogeneotasuna ikusten da, hazkundearen eta inflazioaren arloan.

AEBko dezelerazioa nabaritu egin zen Mexikoko hazkunde ekonomikoa, eta Kariben jardueraren erritmoa murriztu egin zen, eraikuntzaren gorakada moteltzean. Aldiz, Erdialdeko Amerikan eta oinarritzko produktuen herri esportatzaileetan hazkunde handia mantendu zen; adibidez, Argentinan, Kolonbian, Perun eta Venezuelan. Brasilen, hazkundeak bizkortze handia izan zuen, interes errearen tasen murriztapen iraunkorren eta enplegu maila indartsuaren testuinguruan.

Eskualdeko hazkundearen eragile nagusia barne-eskaria izan da. Kontu korronteko suberabita murriztu eta inflazioa azkartu egin da.

NMFk 2008ko apirileko txostenean egindako aurreikuspenen arabera, eskualdeko hazkunde moderatu egingo da.

Estatu Burujabeen Erkidegoa (EBE). BPG errearen hazkunde aurreko urtekoa baino 3 hamarren handiagoa izan zen, eta %8,5era iritsi zen.

Barne-eskariak hazkunde moderatua izan du. Hala ere, inportazioen gorakadaren eraginez, kanpoko sektoreak hazkundean egindako ekarpena oso negatiboa izan zen, eta kontu korronteko superabita %7,5etik %4,5era murriztu zen.

Inflazioa bizkortu egin da eskualde osoan, eta hori geldiaraztea funtsezko erronka da.

Saharatik hegoalderako Afrika. Hazkunde ekonomiko iraunkorragoko aldia dauka, independentziaren garaitik; hazkunde hori %6,8ra azkartu da, petrolio-herri esportatzaileen hazkunde indartsuaren eta eskualdeko beste ekonomia batzuetan lorturiko hedapen irmoaren eraginez.

Egoera positibo horren ondorioz, eskualdeko herri batzuk gero eta erakargarriagoak dira kapital pribatuaren jarioetarako. 2007an, kapital pribatuaren jario garbiak, batez ere atzerriko zuzeneko inbertsioak (AZI), aurrekorik gabeko mailalara iritsi ziren. Hala eta guztiz ere, AZIrik gehienak herri gutxi batzuetan eta erauzketa-industrietan pilatzen dira, gehienbat petrolioaren sektorean.

Azkenik, Hego Afrikan (eskualdeko ekonomia nagusia) jardueraren erritmoak murriztapen moderatua izan zuen; izan ere, janarien eta erregaiaren prezioek sorturiko inflazio-presio gero eta handiagoei eusteko moneta-politika murriztaileagoaren eraginez, etxeetako gastuak behera egin du, inbertsioak hazkunde bizkorra izan arren, FIFaren 2010eko Mundu Koparen prestakizunetan.

Ekialde Erdikoa. Munduko finantza-merkatuen turbulentziak ez du eragin handirik izan Ekialde Erdikoan. Eskualdeko hazkunde indartsua da eta 2007an %5,8koa izan zen.

Petrolio-herri esportatzaileetan, petrolioaren produkzioaren hazkundeak mugatuak izan dira; dena den, produktuaren prezio garestiak gastu publikorako diru-laguntza eman du, baita kredituaren hedapen indartsua ere, sektore pribatuari.

Barruko gastuak eta inportazioek gora egin arren, herriotan kontu korronteko superabit handiak gutxi murriztu dira, petrolioaren prezio garestiek esportazioko diru-sarrera handiagoak sortu dituztelako.

III.1.2. KOADROA. BPG ERREALA, KONTSUMITZAILERAKO PREZIOAK ETA KONTU KORRONTEKO SALDOAK (NMF)

	BPG errealaren urteko ehuneko aldaketa		BPGren urteko ehuneko aldaketa		Kontu korronteko saldoa BNGren %-tzat	
	2006	2007	2006	2007	2006	2007
Ekonomia aurreratuak- 31 herri (1)	3,0	2,7	2,4	2,2	-1,5	-1,2
AEB	2,9	2,2	3,2	2,9	-6,2	-5,3
Japonia	2,4	2,1	0,3	-	3,9	4,9
Euro-zona (13 herri, Eslovenia barne)	2,8	2,6	2,2	2,1	-0,1	-0,2
Beste ekonomia aurreratu batzuk (goikoak izan ezik)	2,7	2,2	2,4	2,2	-2,3	-1,8
Oraintsu industrializaturiko Asiako ekonomiak (4 herri: Korea, Txinako Taiwan probintzia, Hona Kong eta Singapur)	5,6	5,6	1,6	2,2	5,2	6,0
Garapen bideko ekonomiak						
Asiako garapen bideko ekonomiak (garapen bideko ekonomiak, oraintsu industrializaturiko Asiako ekonomiak eta Mongolia barne)	8,9	9,1	3,7	4,8	5,7	6,5
Txina	11,1	11,4	1,5	4,8	9,4	11,1
Asia hegoaldea (Maldivak, Nepal eta Sri Lanka barne)	9,1	8,6	6,5	6,9	-1,4	-2,1
India	9,7	9,2	7,9	7,8	-3,9	-4,9
ASEAN-5 (Indonesia, Thailandia, Filipinak, Malaysia eta Vietnam)	5,7	6,3	8,1	4,5	4,8	4,8
Amerika Latinoa eta Karibe	5,5	5,6	5,3	5,4	1,5	0,5
Hego Amerika (10 herri) eta Mexiko	5,3	5,6	5,2	5,3	1,8	0,8
Erdialdeko Amerika (6 herri)	6,3	6,5	6,5	6,7	-4,9	-6,8
Karibe (15 herri)	7,8	5,7	7,8	6,7	-0,8	-2,5
Europako, Erdialdeko Europako eta Ekialdeko Europako garapen bideko herriak (14 herri)	6,7	5,8	5,4	5,7	-6,3	-6,6
Turkia	6,9	5,0	9,6	8,8	-6,1	-5,7
Baltikoko estatuak	9,8	8,9	4,8	7,3	-15,5	-17,0
Erdialdeko Europa	6,1	6,0	2,1	3,5	-4,1	-3,9
Hegoaldeko eta hego-mendebaldeko Europa	7,0	6,0	6,2	5,1	-10,7	-14,0
Estatu Burujabeen Erkidegoa (12 herri +1)	8,2	8,5	9,5	9,7	7,5	4,5
Errusia	7,4	8,1	9,7	9,0	9,5	5,9
Energiaren esportatzaile garbiak	8,2	8,6	9,7	9,4	9,1	6,0
Energiaren inportatzaile garbiak	7,9	7,9	8,4	11,4	-3,1	-5,8
Afrika	5,9	6,2	6,4	6,3	3,1	0,1
Magreb	4,4	4,2	3,1	3,1	14,3	12,4
Saharatik hegoaldera	6,4	6,8	7,3	7,2	-0,1	-3,3
Hego Afrika	5,4	5,1	4,7	7,1	-6,5	-7,3
Petrolio-esportatzaileak	6,3	8,0	6,4	5,6	13,1	7,4
Petrolio-inportatzaileak	5,7	5,2	6,3	6,7	-3,5	-4,8
Ekialde Erdikoa	5,8	5,8	7,0	10,4	20,9	19,8
Petrolio-esportatzaileak (10)	5,8	5,6	7,6	10,5	24,0	22,8

(1) **Ekonomia aurreratuak** (31 herri): AEB, Kanada, Japonia, Euro-zona, Erresuma Batua, Australia, Danimarka, Israel, Islandia, Suedia, Norvegia, Zeelanda B., Suitza eta Asian oraintsu industrializaturiko ekonomiak. Estatu Burujabeen Erkidegoa (12+1 herri): antzinako sobietar errepublikak, 13 Mongoliarekin.

Iturria: NMF "Perspectivas de la economía mundial" (2007ko apirila)

Inflazioaren presioak nabarmen handitu dira azken hilabeteetan, barne-eskari indartsuaren, janariaren prezioak izandako hazkunde iraunkorraren eta alokairuak garestitzearen eraginez, Golkoko Lankidetzarako Kontseiluko (GLK) kideak diren herrietan; bertan, atzerriko langile asko iristearen eta bertakoen oparotasun gero eta handiagoaren ondorioz, etxebizitza-urritasuna sortu da.

2008ko apirilean, NMFk uste du eskualdean epe laburreko itxaropenak onak direla oraindik ere.

1.3. Europar Batasuna

2007an, orokorrean, euro-zonako bilakaera ekonomikoa ona izan zen, baina hazkundeak dezelerazio moderatua izan zuen. Urteko batez besteko hazkundeak, balio errealean, EBZk emandako datuen arabera, %2,6koa izan zen, aurreko urteko %2,9 baino apur bat txikiagoa, eta lehenagoko urteetan erregistraturiko hazkunde-tasetatik gorakoa.

Dezelerazio horren eragile nagusia kontsumo pribatuaren eta egoitza-inbertsioaren bilakaera izan zen. Bestalde, kanpoko eskari garbiak BPGren hazkundera izandako ekarpena ehuneko 0,4 puntukoa izan zen, 2006koaren bikoitza.

Urteko bigarren seihilekoan ziurgabetasuna ikusi arren, euro-zonako ekonomiak bilakaera positiboa izan zuen, eta hori langabezia-tasaren beherakada iraunkorrean islatu da; hain zuzen ere, abenduan %7,1eraino jaitsi zen (azken 25 urteetan ikusitako mailarik baxuena).

Ikuspegi sektorialetik begiratuta, jarduera ekonomikoa, batez ere, zerbitzuen bilakaera iraunkorrean euskarritu zen. Balio erantsiak merkatuko zerbitzu-sektorean izandako hazkundeak ehuneko bi hamarren soilik jaitsi zen, eta industrian hamarren bat baino ez; hurrenez hurren, urteko batez besteko hazkunde-tasak %2,9 eta %3,7 izan ziren (aurreko urtean %3,1 eta %3,8). Dezelerazioa oso nabaria izan zen eraikuntzan, eta 2006ko %4,6tik %3,7ra igaro zen (ehuneko 1,5 puntu gutxiago).

Izan ere, industriak (eraikuntza izan ezik) egoerari eusteko gaitasun handia erakutsi zuen urte horretan, eta

hori estu lotuta egon zen esportazioen hazkundearekin, horrek konpentsatu egin baitzuen eraikuntzako dezelerazioa.

Prezioen eta kostuen bilakaerari dagokionez, 2007an, KPIA orokorrak neurturiko batez besteko inflazioa %2,1ekoa izan zen, aurreko urteetako baino ehuneko 0,1 puntu txikiagoa. Hiruhileko profila aztertuta ikusten denez, tasak egonkor mantendu ziren, %2tik behera, uda igaro arte; ondoren, hazi egin ziren. Bilakaera hori, neurri handian, energiaren eta janariaren prezioek izandako gorakada handien eraginezkoa izan zen.

Laneko kostuek bilakaera moderatua izan zuten, 2007ko hirugarren hiruhilekora arte. Laneko kostu unitarioek gorakadatxo izan zuten, laneko produktibitatearen hazkundeak behera egitearen ondorioz.

Lanaren produktibitateak, ekonomia osoan, enplegu osoaren BPGri dagokionez, %0,8ko hazkundeak baino ez zuen izan 2007an, eta 2006ko hazkundeak %1,3koa izan zen. 2006an ikusitako laneko produktibitatearen bizkortzea iragankorra izan zen, eta urte batetik besterako hazkunde-tasa %0,6ra murriztu zen, 2007ko laugarren hiruhilekoan.

Europako Banku Zentralak bitan igo du esku-hartze tasa, bakoitzean oinarritzko 25 puntu. Horrela, erreferentziako interes-tasa %4koa izan da urte amaieran. Horrenbestez, euriborrak (epe guztietan) gora egin du.

Estatukideei dagokionez, egoera haxe da. EB-15aren barruan, hazkunde-ratiorik handieneko herrien artean (%3,4tik gorako ratioak), bi talde bereizten dira: alde batetik, EAPtan¹ neurtutako per capita BPG altua eduki arren hazkunde nabaria duten herriak (Irlanda, Luxenburgo, Finlandia, Holanda eta Austria); bestetik, hazkunde nabariak izan baina per capita BPGn EB-15eko batez bestekoaren azpiko mailak (Espainia) eta EB-27koaren azpikoak (Grezia) dituzten herriak.

Hazkunde-ratio horren azpitik baina EB-15eko batez besteko mailan (%2,6) edo hortik gora, beste herri batzuk daude, eta horien guztien per capita BPG (EAPtan neurtuta) EB-15erako erreferentziako balioaren gainetik dago; herriok Erresuma Batua, Belgika eta Suedia dira. Eta, azkenik, EB-15etik beherako hazkunde tasadunen artean Alemania, Portugal, Frantzia, Danimarka eta Italia daude.

EB-25eko kide berri guztiek, bestalde, EB-25eko eta EB-27ko batez bestekoaren azpiko per capita BPG dute,

¹ PPS: EAP: erosteko ahalmenaren parekotasuna

III.1.3. KOADROA. EUROAREN ZONAKO ADIERAZLE EKONOMIKO NAGUSIAK

	2005	2006	2007	I	II	III	IV
Urte batetik besterako aldaketa-tasak. Urteorakoak ez diren datuak							
BPG merkatuko prezioetan	1,7	2,9	2,6	3,1	2,4	2,6	2,2
BARRUKO ESKARIA (BPG errealearen hazkunderako ekarpena)	1,9	2,7	2,2	2,9	2,0	2,1	2,0
Kontsumo pribatua	1,6	1,8	1,4	1,4	1,6	1,6	1,1
Kontsumo publikoa	1,5	2,1	2,1	2,2	2,1	2,2	1,8
KFEG	3,3	5,3	4,8	6,9	4,1	4,5	3,7
Izakinen aldaketa	0,0	0,1	0,0	0,1	-0,2	-0,2	0,1
KANPOKO SALDOA (BPG errealearen hazkunderako ekarpena)	-0,2	0,2	0,4	0,3	0,4	0,5	0,3
Esportazioak	4,9	8,1	5,9	6,6	5,8	7,1	4,4
Inportazioak	5,7	7,8	5,2	6,0	5,0	5,9	3,8
BEG erreala, eta hortik:							
Industria (eraikuntza izan ezik)	1,2	3,8	3,7	3,8	3,4	4,1	3,7
Eraikuntza	1,7	4,6	3,1	7,1	2,5	2,0	1,0
Merkatuko zerbitzuak	2,3	3,1	2,9	3,3	2,8	2,9	2,6
Aurreko urtearekiko aldaketa-tasak. Lauhilekoak hiruhilekoen artekoak dira							
LANA ETA LANGABEZIA							
Lana	0,9	1,5	1,7	0,6	0,5	0,3	0,2
Langabezia-tasa	8,8	8,2	7,4	7,6	7,4	7,3	7,2
Urte batetik besterako aldaketa-tasa							
LANEKO KOSTUAK ETA PREZIOAK							
Inflazioa (KPIA) Indize orokorra (urteko b. bestekoa)	2,2	2,2	2,1	1,9	1,9	1,9	2,9
Soldatapeko bakoitzeko ordainketa	1,8	2,2	-	2,2	1,9	2	-
Laneko produktibitatea (erreala)	0,7	1,3	-	1,3	0,7	0,7	-
Laneko kostu unitario erreala	1,0	0,9	-	0,9	1,2	1,2	-
Ehunekoak							
MONETA MERKATU MOTAK (banku artekoak)							
Hilabeterako gordailuak. Hilabeterako euriborra	2,14	2,94	4,08	3,7	3,96	4,28	4,39
3 hilabeterako gordailuak. 3 hilabeterako euriborra(*)	2,19	3,08	4,28	3,82	4,07	4,5	4,73
Urtebeterako gordailuak. Urtebeterako euriborra	2,33	3,44	4,45	4,09	4,38	4,65	4,68
KREDITU ERAKUNDE MOTAK (maileguak)							
Etxeak: kontsumoa	7,79	7,79	8,32	8,22	8,23	8,46	8,37
Etxeak: etxebizitza	3,91	4,45	5,15	4,89	5,06	5,27	5,39

(*) Liborrarekin konparatzeko erabiltzen da

Iturria: Europako Banku Zentrala, Urteroko txostena. 2006ko apirila eta MINECO "Síntesis de Indicadores Económicos, mayo 2008", interes-tasetarako.

EAPtan neurtuta. Bestalde, kasu guztietan (Hungarian izan ezik) PBGren hazkunde-tasak %3,4tik gorakoak dira, baina %6tik gorako hazkunde herri talde bat ere badago (Eslovenia, Polonia, Txekiar Errepublikak, Estonia, Lituania, Letonia, Eslovakia, Bulgaria eta Errumania).

Lan-merkatuari dagokionez, 2006tik 2007ra langabezia-tasa murriztu egin da estatukide guztietan, Portugalen izan ezik.

Lehen esan dugunez, Kontsumoko Prezioen Indizearen arabera, inflazioa %2,1eko urteko batez bestekoa izan da

III.1.4. KOADROA. EUROPAR BATASUNeko BILAKAERA EKONOMIKOA

	BPG per capita (1)		BPG errealearen hazkundera		Langabezia-tasa (2)		Enpleguaren hazkundera		Inflazioa (KAPI) (urteko b. bestekoak)			Produktibitatea / langileko (3)		Laneo Kost. Unit. Err. ald. % (4)	
	2006	2007	2006	2007	2006	2007	2006	2007	2005	2006	2007	2006	2007	2006	2007
EB					8,3	7,4	1,6	1,6	2,2	2,2	2,3				
Euro-zona	110,4	109,5	2,7	2,6	8,2	7,4	1,6	1,8	2,2	2,2	2,1	110,4	109,5	-0,8	-0,7
Euro-zona 15 (6)	110,2	-	2,8	2,6	8,2	7,4	1,6	1,8	-	-	-	110,2	:	-0,8	-0,7
Euro-zona 13 (5)	110,2	109,5	2,8	2,6	8,3	7,4	1,6	1,8	-	-	-	110,3	109,5	-0,8	-0,7
Euro-zona 12	110,4	109,6	2,7	2,6	8,1	7,1	1,6	1,8	-	-	-	110,4	109,6	-0,8	-0,7
EB-15	112,1	111,4	2,8	2,6	7,7	7,0	1,5	1,6	-	-	-	110,4	109,8	-0,7	-0,7
Alemania	114,2	114,6	2,9	2,5	9,8	8,4	0,6	1,7	1,9	1,8	2,3	107,1	106,8	-1,7	-1,6
Austria	127,5	128,4	3,3	3,4	4,7	4,4	1,2	2,2	2,1	1,7	2,2	120,2	120,6	-1,1	-1,1
Belgika	119,8	119,4	2,8	2,8	8,2	7,5	1,2	1,4	2,5	2,3	1,8	131,5	131,4	-0,4	1,1
Danimarka	125,8	124,7	3,9	1,8	3,9	3,8	1,6	1,8	1,7	1,9	1,7	108,5	107,3	-0,4	2,2
Espainia	105,0	104,7	3,9	3,8	8,5	8,3	3,7	3,1	3,4	3,6	2,8	103,1	102,7	-1,7	-0,3
Finlandia	117,0	118,9	4,9	4,4	7,7	6,9	1,8	2,2	0,8	1,3	1,6	112,4	113,6	-1,4	-1,5
Frantzia	110,9	109,8	2,0	1,9	9,2	8,3	0,8	1,2	1,9	1,9	1,6	123,5	123	-0,4	0,0
Grezia	97,3	98,6	4,2	4,0	8,9	8,3	2,5	1,2	3,5	3,3	3,0	103,9	105,4	1,1	1,4
Holanda	130,6	131,9	3,0	3,5	3,9	3,2	1,8	2,0	1,5	1,7	1,6	113,3	113,4	-0,8	0,5
Irlanda	145,5	146,7	5,7	5,3	4,4	4,6	4,3	3,6	2,2	2,7	2,9	134,9	135,6	0,8	3,2
Italia	103,3	101,9	1,8	1,5	6,8	6,1	2,0	1,1	2,2	2,2	2,0	109,0	108,2	0,6	-0,6
Luxenburgo	279,2	284,2	6,1	5,1	4,7	4,7	3,7	4,0	3,8	3,0	2,7	184,1	183,3	-3,8	2,2
Portugal	74,5	74	1,3	1,9	7,7	8,0	0,7	0,3	2,1	3,0	2,4	68,4	68,8	-1,0	-2,5
Erresuma Batua	118,0	118,4	3,1	2,9	5,4	5,3	0,7	0,7	2,1	2,3	2,3	109,7	111	-0,1	-1,5
Suedia	124,6	124,1	4,1	2,6	7,0	6,1	1,7	2,3	0,8	1,5	1,7	113,9	113,1	-2,0	0,5
EB-25	103,9	103,8	3,0	2,8	8,2	7,2	1,6	1,6	-	-	-	103,8	103,8	-0,8	-0,8
Zipre	91,9	92	4,0	4,4	4,6	3,9	1,8	3,2	2,0	2,2	2,2	84,9	84,9	-2,2	-0,7
Eslovakia	63,7	68,7	8,5	10,4	13,4	11,1	2,3	2,1	2,8	4,3	1,9	71,8	76,7	-1,2	-0,9
Eslovenia	87,8	90,6	5,7	6,1	6,0	4,8	1,2	2,7	2,5	2,5	3,8	84,0	85,9	-1,0	-1,0
Estonia	68,4	71,7	11,2	7,1	5,9	4,7	5,4	0,7	4,1	4,4	6,7	64,3	67,6	1,8	8,4
Hungaria	64,9	64,4	3,9	1,3	7,5	7,4	0,7	-0,1	3,5	4,0	7,9	74,5	74,8	1,5	1,3
Letonia	53,7	58,2	12,2	10,3	6,8	6,0	4,8	3,5	6,9	6,6	10,1	50,9	53,7	4,9	10,3
Lituania	56,2	60,1	7,7	8,8	5,6	4,3	1,7	1,9	2,7	3,8	5,8	57,1	60,3	2	-1,5
Malta	76,9	77,5	3,4	3,8	7,3	6,4	1,2	2,7	2,5	2,6	0,7	90,3	90,3	-1,8	-1,8
Polonia	52,4	54,6	6,2	6,5	13,8	9,6	3,3	4,4	2,2	1,3	2,6	66,3	61,6	-1,3	-1,7
Txekiar Errep.	78,6	81,5	6,4	6,5	7,1	5,3	1,9	1,8	1,6	2,1	3,0	70,7	73,2	0,0	-1,1
EU-27	100,0	100,0	3,1	2,9	8,1	7,1	1,6	1,6	-	-	-	100,0	100,0	-0,8	-0,9
Bulgaria	36,7	38,1	6,3	6,2	9,0	6,9	3,3	2,8	6,0	7,4	7,6	34,9	35,6	-3,8	5,9
Errumania	38,9	40,4	7,9	6,0	7,3	6,4	2,8	1,2	9,1	6,6	4,9	39,2	40,6	1,3	3,6

(1) EAPtan. EB-27=100 (2) 15-74 urte bitartean. (3) BPG landun bakoitzeko ppc-tan, EB-27ri dagokionez. Hau da, EB-25=100 eta ezin da aurreko oinarriarekin konparatu (EB-25=100). (4) Landun bakoitzeko ordainketa eta produktibitatea konparatzen du: ratioaren hazkunde-tasa [soldatapeko bakoitzeko ordainketa, prezio korronteetan/landun bakoitzeko BPG prezio korronteetan]. (5) Eurozona (EB-13): Belgika, Alemania, Grezia, Espainia, Frantzia, Irlanda, Italia, Luxenburgo, Holanda, Austria, Portugal, Eslovenia eta Finlandia. Eslovenia 2007ko urtarilaren 1ean batu da. (6) Eurozona (UE-15): EB-13, gehi Zipre eta Malta.

Iturria: Eurostat. Economy and finance

III.1.5. Koadroa. Finantza Publikoak EB-N

	Gobernuaren zor publikoaren %, BPGri dagokionez		Defizit/superabit publikoaren %, BPGri dagokionez (moneta nazionaletan)	
	2006	2007	2006	2007
Euro-zona	68,6	66,6	-1,3	-0,6
EB-15	62,8	60,4	-1,3	-0,8
Alemania	67,6	65,0	-1,6	0,0
Austria	61,8	59,1	-1,5	-0,5
Belgika	88,2	84,9	0,3	-0,2
Danimarka	30,4	26,0	4,8	4,4
Espainia	39,7	36,2	1,8	2,2
Finlandia	39,2	35,4	4,1	5,3
Frantzia	63,6	64,2	-2,4	-2,7
Grezia	95,3	94,5	-2,6	-2,8
Holanda	47,9	45,4	0,5	0,4
Irlanda	25,1	25,4	3,0	0,3
Italia	106,5	104,0	-3,4	-1,9
Luxenburgo	6,6	6,8	1,3	2,9
Portugal	64,7	63,6	-3,9	-2,6
Erresuma Batua	43,1	43,8	-2,6	-2,9
Suedia	45,9	40,6	2,3	3,5
EB-25	61,8	59,3	-1,4	-0,9
Zipre	64,8	59,8	-1,2	3,3
Eslovakia	30,4	29,4	-3,6	-2,2
Eslovenia	27,2	24,1	-1,2	-0,1
Estonia	4,2	3,4	3,4	2,8
Hungaria	65,6	66,0	-9,2	-5,5
Letonia	10,7	9,7	-0,2	0,0
Lituania	18,2	17,3	-0,5	-1,2
Malta	64,2	62,6	-2,6	-1,8
Polonia	47,6	45,2	-3,8	-2,0
Txekiar Errepublika	29,4	28,7	-2,7	-1,6
EB-27	61,3	58,7	-1,4	-0,9
Bulgaria	22,7	18,2	3,0	3,4
Errumania	12,4	13,0	-2,2	-2,5

Iturria: Eurostat

eurozonan², aurreko urtean baino hamarren bat gutxiago, baina Alemanian, Austrian, Finlandian, Holandan eta Suedian gorantz egin zuen.

Langile bakoitzeko produktibitatearen hazkundeari dagokionez, mailaren arabera neurketatik (EB-27=100) eta ez bilakaeraren arabera ondorioztatzen denez, 2007an hazkunderik nabarmenenak Luxenburgo, Irlandan eta Belgikan egon dira.

2007an, mendealdeko Europako gobernuak gehienek nabarmen murriztu zuten zerga-defizita. Euroaren zonan, defizita ehuneko ia puntu 1ean murriztu zen, BPGren %0,6ko maila baliokideraino. BPGrekiko zor publikoa ere %68,6tik %66,6ra murriztu zen. Hobekuntza orokor hau aurrerakuntza garrantzitsua izan zen iraunkortasunaren arloan, eta sineskortasun handiagoa eman zion egonkortasun- eta hazkunde-itun berriari.

EB-15ean, aurreko urtean ez bezala (Italiak edo Portugalek gaintitu egin zuten Egonkortasun eta Hazkunde Itunean ezarritako BPGren %3ko muga), 2007an herri guztiak muga horren azpitik egon dira, eta superabita izan dutenen artean honako hauek daude: Irlanda (%+0,3), Holanda (%+0,4), Espainia (%+2,2), Luxenburgo (%+2,9), Suedia (%+3,5), Danimarka (%+4,4) eta Finlandia (%+5,3). Bestalde, BPGrekiko zor publikoak ere behera egin du, %62,8tik %60,4ra, 2006tik 2007ra bitartean; %60tik gorako ehunekoa dutenak Portugal, Frantzia, Alemania, Belgika, Grezia eta Italia dira.

EB-27an ere defizit publikoak ere behera egin du, 2006an BPGren %1,4 izatetik 2007an %0,9 izatera, eta zor publikoa %61,3tik %58,7ra murriztu da. Defizit publikoaren arloan BPGren %3ko muga gaintitu duen estatukide berri bakarra Hungaria da (%-5,5). Eta zor publikoan %60 gaintitu dutenak Hungaria eta Malta dira.

1.4. Espainiako ekonomia

INEn hiruhileko kontabilitateko datuen arabera, 2007an Espainiako ekonomian BPGk urteko %3,8ko batez besteko hazkundera izan du, aurreko urtekoa baino hamarren bat txikiagoa. Hazkunde hori EB-15eko %2,6koa, EB-25eko %2,8koa eta EB-27ko %2,9koa baino handiagoa izan da.

² Euro-zona (EB-15): Belgika, Alemania, Grezia, Espainia, Frantzia, Irlanda, Italia, Luxenburgo, Holanda, Austria, Portugal, Eslovenia eta Finlandia. Eslovenia 2007ko urtarrilaren 1ean batu zen; eta Zipre eta Malta 2008ko urtarrilaren 1ean.

Hazkundearen hiru hileko profila beherazkoa da, eta laugarren hiru hilekoan batez besteko hazkunde erreala %3,5 izan da.

Gastuaren ikuspegitik, 2007an jarraitasuna egon da, barruko eta kanpoko eskariak aurreko urtean hasitako joerari dagokionez³. Horrela, barruko eskariak BPGren hazkundearen egindako ekarpena 5 hamarren moderatu da (5,1etik 4,6ra), gastua azken kontsumo pribatuaren moteltzearen (%3,7tik %3,1era) eta kapital finkoaren egindako inbertsioa (%6,8tik %5,9ra) murriztearen eraginez. Aldiz, Herri Administrazioek azken kontsumoan izandako gastuaren urteko hazkunde hiru hamarrenetan bizkortu da (%4,8tik %5,1era).

Datu-iturri berak dioenez, kontsumitzaileen konfiantza murriztearen eta azken gastu pribatuaren hazkundearen moderatzearen testuinguruan, gastuaren dezelerazioa handiagoa izan da ondasunetan zerbitzuetan baino; eta, ondasunen barruan, handiagoa izan da kontsumo iraunkorreko ondasunetan.

Kapitalaren eraketa gordinari dagokionez, produktu guztiek ez zuten murriztapenerako joerarik izan. Hain zuzen ere, eraikuntzan inbertsioa dezeleratu arren (%6tik %4ra), ekipamenduko ondasunetan inbertsioa azkartu egin zen berriro, eta urteko batez bestekoa %10,4tik %11,6ra igaro zen, 2006tik 2007ra, hiru hileko hazkunde-profila moteldu arren: %13,1ekin hasi eta %8,6rekin amaitu zen, 2007ko laugarren hiru hilekoan.

Bestalde, kanpoko sektoreak lau hamarrenetan murriztu du BPGri egindako ekarpen negatiboa, eta 2006ko %-1,2tik 2007ko %-0,8ra igaro da, esportazio-jarduerak gora egitearen eta inportazio-jardueraren erritmoa galtzearen ondorioz.

Eskaintzaren aldetik, energia-adarrek urte osoan izandako jokabide aldakorra alde batera utzita, sektore guztiek tonua galdu dute, zerbitzu-sektoreak izan ezik. Industria urtea %5eko hazkundearekin hasi eta laugarren hiru hilekoa %1,4 hazkundearekin amaitu zuen; hala eta guztiz ere, urteko batez besteko hazkunde %3,1ekoa izan da (aurreko urtean %2,9). Eraikuntzak, urteko hazkunderi dagokionez, dezelerazio-joerarekin jarraitu du; hain zuzen ere, %5etik %3,8ra igaro da, eta urte amaierako hazkunde-tasa %2,8koa izan da. Aldiz, zerbitzuek hiru hileko hazkunde nahiko egonkorra izan dute, eta urteko

batez besteko tasa 2006ko %4,1etik 2007ko %4,2ra igaro da.

Ekonomiaren erritmoak 2007an izandako dezelerazio horrekin batera, enpleguaren hazkunde-erritmoa ere moteldu egin da. Urte horretan sorturiko lanaldi osoko lanpostu kopuruak %3ko hazkundea izan zuen, aurreko urtean baino bi hamarren txikiagoa; horrela, INEk emandako datuen arabera, 550 lanpostu baliokide baino gehiago sortu ziren, batez ere eraikuntzan eta zerbitzuetan, gainerako sektoreetan enpleguak behera egin baitzuen. Soldatapekoen hazkunde %3,4koa izan zen, aurreko urtekoa baino bi hamarren txikiagoa. Bestalde, INEren Biztanleria Aktiboaren Inkestak (BAI) agerian jarri duenez, langabezia-tasa 0,25 puntutan murriztu da, %8,51tik %8,26ra.

Gehitutako jardueraren eta enpleguaren hazkunde-tonuaren eraginez, lan-faktorearen ageriko produktibitatea %0,8ko erritmoan hazi zen (aurreko urtean baino hamarren bat gehiago). Produktu-unitateko lan-kostu unitarioa (LKU) %2,7ra bizkortu zen 2007an (aurreko urtean baino lau hamarren gehiago).

INEren datuen arabera, KPIren bidez neurturiko inflazioa (*urteko batez bestekoa*) %2,8raino hazi da (2006an baino zazpi hamarren gutxiago). Hala ere, kontsumoko prezioen joera goranzkoa da, eta abenduko urte batetik besterako datua %4,2 da (urtebete lehenago %2,7).

Eurostatek emandako datuen arabera (aurreko epigrafean adierazitako datuak), EDBrekiko prezio-diferentzia 1,4 puntutik 0,7 puntura igaro da, 2006tik 2007ra. KPIAk %2,8ko hazkundea izan du Espainian, eta euroaren zonan %2,1ekoa (aurreko urtean %2,2 eta %3,6, hurrenez hurren), halaber, Espainia laugarren postuan dago orain, euro-zonan inflaziorik handiena duten herrien sailkapenean.

Kanpoko sektoreak BPGri egindako ekarpen negatiboa txikiagoa izan arren, Espainiako ekonomiaren finantza-egoera gero eta txarragoa da, munduko gainerako eskualdeei dagokionez. Ekonomiaren finantziazio-beharria (defizita) 2006ko BPGren %8,1etik 2007ko %9,5era igaro da; 100 mila milioi euro dira, aurreko urtean baino ia 20 mila milioi gehiago (hain zuzen ere, 19.970 milioi).

³ 2006an hautsi egin da barruko eta kanpoko eskariak aurreko hiru urteetan izandako joera.

III.1.6. KOADROA. ESTATUKO AGERTOKI MAKROEKONOMIKOA (URTE BATETIK BESTERAKO ALDAKETA-TASAK)

	2006					2007				
	b.b.	I	II	III	IV	media	I	II	III	IV
Kateaturiko bolumena, 2000ko erreferentzia. Urtarotako efektuen eta egutegiaren datu zuzenduak										
Barruko eskaria (*)	5,1	5,5	4,5	5,1	5,3	4,6	5,1	4,9	4,5	3,9
Etxeetako kontsumo pribatua	3,7	4,1	3,5	3,7	3,7	3,1	3,5	3,4	3,1	2,7
Kontsumo publikoa	4,8	4,9	4,0	4,8	5,7	5,1	6,1	5,0	5,1	4,4
Kapitalaren eraketa gordina	6,8	7,8	5,7	6,8	7,0	5,9	6,3	6,7	5,8	4,8
Ekipamendu-ondasunak	10,4	10	7,4	11,0	13,0	11,6	13,1	13,1	11,6	8,6
Eraikuntza	6,0	7,1	5,5	5,9	5,5	4,0	4,9	4,6	3,8	2,9
Kanpoko saldoa (*)	-1,2	-1,8	-0,7	-1,2	-1,3	-0,8	-1,0	-0,9	-0,7	-0,4
Ondasunen eta zerbitzuen esportazioa	5,1	5,7	4,9	4,2	5,7	5,3	3,6	4,7	7,7	5,1
Ondasunen eta zerbitzuen inportazioa	8,3	10,6	6,1	7,5	8,9	6,6	6,0	6,7	8,4	5,4
BPG merkatuko prezioetan	3,9	3,7	3,8	3,9	4	3,8	4,1	4	3,8	3,5
Nekazaritza- eta arrantza-adarrak	2,4	3,8	2,3	-2,4	10,1	3,8	6,8	2,8	2,8	2,9
Energia-adarrak	1,4	1,0	1,4	4,1	-3,2	1,0	-3,6	3,4	0,0	4,5
Industria-adarrak	2,9	3,1	2,7	3,9	3,5	3,1	5,0	3,6	2,4	1,4
Eraikuntza	5,0	3,8	5,3	5,1	3,9	3,8	4,5	4,2	3,8	2,8
Zerbitzu-adarrak	4,1	4,2	4,1	4,2	4,2	4,2	4,2	4,2	4,3	4,1
Merkatuko zerbitzuak	4,1	4,0	4,1	4,3	3,9	4,0	4,2	3,9	4,0	3,9
Merkatukoak ez diren zerbitzuak	4,3	5,0	4,5	3,8	5,2	5,0	4,3	5,2	5,3	5,0
Produktuen gaineko zerga garbiak	3,5	3,4	3,2	2,4	4,5	3,4	3,2	3,5	4,1	2,9
Lan-merkatua										
Lanaldi osoko lanpostu baliokideak										
Landunak	3,2	3,4	3,6	2,7	3,1	3,0	3,3	3,1	3,0	2,5
Soldatapekoak	3,6	3,9	3,8	3,1	3,5	3,4	3,8	3,7	3,3	2,8
Langabezia-tasa (BAI**)	8,5	9,1	8,5	8,2	8,3	8,3	8,5	8,0	8,0	8,6
Errentak										
Langile bakoitzeko produktibitatea	0,7	0,3	0,2	1,2	0,9	0,8	0,8	0,8	0,8	0,9
Lan-kostu unitarioa (LKU)	2,3	2,8	2,5	1,7	2,3	2,7	2,6	2,6	2,7	2,9
KPI (***)	3,5	3,9	3,9	2,9	2,7	2,8	2,5	2,4	2,7	4,2

(*) BPGren hazkunderako ekarpena, merkatuko prezioetan. (**) Metodologia berria 2005eko lehenengo hiruhilekotik. (***) Urteroko b. bestekoak, eta hiruhilekoetan urteko aldaketa.

Iturria: INE Hiruhileko Kontabilitatea eta BAI.

Estatuko Herri Administrazioen multzoak 23.169 milioi euroko superabitarekin (behin-behineko datuak) amaitu zuen 2007a, Kontabilitate Nazionalaren arabera neurtuta; horrenbestez, BPGren %1,79ko superabitetik %2,21era igaro dira, 2006tik 2007ra. Ekonomia eta Ogasun Ministerioaren "Ekonomia Adierazleen Laburpena, 2008ko

otsaila" hiruhileko txosteneko datuen arabera, emaitza hori (hasierako aurreikuspenetakoa baino askoz ere hobea) diru-sarrerek %8,5eko hazkundera eta gastuek %7,4koa izatearen ondoriozkoa izan zen (hurrenez hurren BPGren %41 eta %38,7).

III.1.7. KOADROA. MERKATARITZA SALDOA ETA DEFIZITA ESPAINIAKO EKONOMIAN (EUROAK MILIOITAN)

	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007
BPGmp	680.678	729.206	782.531	840.106	905.455	976.189	1.049.848
Finantziario Gatasuna/Beharritana	-23.829	-19.421	-23.020	-40.712	-59.368	-79.898	-99.868
BPGri dagokionez (%)	-3,5	-2,7	-2,9	-4,8	-6,5	-8,1	-9,5
Ordainketa-balantzako saldoa	-21.434	-16.102	-19.311	-35.736	-58.680	-78.561	-101.389
Kontu korrontea	-26.823	-23.764	-27.476	-44.164	-66.860	-84.736	-106.201
Ondasunak	-38.601	-36.510	-39.839	-53.660	-68.603	-80.142	-88.459
Zerbitzuak	22.957	22.609	23.301	21.753	22.240	22.143	22.371
Errentak eta transformazioa	-11.179	-9.863	-10.939	-12.256	-20.496	-26.737	-40.113
Kapitalaren kontua	5.389	7.662	8.165	8.428	8.180	6.175	4.812
Finantza-saldoa	21.703	15.381	17.825	34.851	60.818	81.471	101.869
Zuzeneko inbertsioa	-5.250	6.915	-2.568	-28.809	-13.517	-55.531	-40.894
Zorroko inbertsioa	-18.924	4.726	-26.592	85.808	58.734	198.314	103.094
B. inberts. batzuk eta derib.	28.402	179	45.410	-8.138	17.715	-35.512	25.348
B. Espainiako aktib. (erreserb.)	17.475	3.561	1.575	-14.010	-2.114	-25.800	14.322

Iturria: Banco de España "Finantza Kontuak"

Zerga nagusietan bilketak %11,8ko hazkundera izan du 2007an (2006an %11,6), AAEEen eta TTKKen partaidetza aintzat hartuta. Horrela, zuzeneko zergek %18,1eko hazkundera izan dute (PFEZ %15,7koa eta Sozietateen gaineko Zerga %20,5), zeharkakoen %3,4ko hazkundera baino handiagoa (BEZ %2,2 eta Zerga Bereziek %6,4).

Bestalde, gastuek %7,4ko hazkundera izan dute, aurreko urtean baino bi hamarren gutxiago. Gorakadarik handienak transferentzietan (txikiagoa transferentzia korronteetan %9,1 kapital-transferentzietan baino %19,1) eta ondasunen nahiz zerbitzuen erosketan (%13,3 inguru) izan dira. Langileriaren partidak %6,8ko hazkundera izan du, eta inbertsioen partidak %8,2koa.

III.1.8. KOADROA. SALDO PUBLIKOA ERAGILEKA* (EUROAK MILIOITAN)

	€-ak milioitan				BPGren %			
	2004	2005	2006	2007	2004	2005	2006	2007
Herri Adm. Gaitas. (+) Beharr. (-) Finantziarioa	-2,985	8,752	17,555	23,169	-0,35	0,96	1,79	2,21
Administrazio Zentralak	-2,473	11,904	18,469	26,411	-0,29	1,31	1,88	2,52
Estatua eta Erakunde Autonomoak	-10,986	2,043	5,783	13,326	-1,31	0,22	0,59	1,27
Gizarte Segurantza	8,513	9,861	12,686	13,085	1,01	1,09	1,29	1,25
Lurralde Erakundeak	-512	-3,152	-914	-3,242	-0,06	-0,35	-0,09	-0,31
AAEE	-624	-2,604	16	-1,741	-0,07	-0,29	0	-0,17
Toki Korporazioak	112	-548	-930	-1,501	0,01	-0,06	-0,09	-0,14

(*) Finantziario Gaitasuna/Beharritana, Espainiako Kontabilitate Nazionalaren Arabera.
Iturria: Banco de España.

III.1.9. KOADROA. ESTATUKO AURREKONTU BETEARAZPENA (AAEEN ETA TTKKEN PARTAIDETZA ERE BARNE) (EUROAK MILIOITAN)

	Zuzeneko zergak				Zeharkako zergak				Guztira		
	Guztira	PFEZ	Sozieta-teak	Beste batzuk	Guztira	BEZ	Bereziak (1)	Beste batzuk	Estatua	AAEE eta TTKK	Guztira
2002	67.593,1	44.333,8	21.416,5	1.842,8	54.977,8	36.903,3	16.114,3	1.960,2	93.552,4	29.018,5	122.570,9
2003	70.132,5	46.445,7	21.912,6	1.774,2	59.590,4	40.569,30	16.853,1	2.168,0	95.596,3	34.126,6	129.722,9
2004	75.978,8	47.715,3	26.018,8	2.244,7	64.497,5	44.491,8	17.512,60	2.493,2	100.019,5	40.456,8	140.476,3
2005	89.434,1	54.722,6	32.495,3	2.216,2	70.701,0	49.870,1	18.017,9	2.813,0	115.277,3	44.857,8	160.135,1
2006	102.448,1	62.768,9	37.207,0	2.472,2	76.262,1	54.652,2	18.601,3	3.008,6	129.457,2	49.253,0	178.710,2
2007	120.968,4	72.614,3	44.823,2	3.530,9	78.862,6	55.850,7	19.787,6	3.224,3	145.425,6	54.405,4	199.831,0

(1) Ez da sartu garraiobide batzuen matrikulazio-zerga.

Iturria: Ekonomia eta Ogasun Ministerioa. Ekonomia Adierazleen laburpena.

III.1.10. KOADROA. AURREKONTUAREN BETEARAZPENA: ESTATUAK ONARTURIKO BETEBEHARRAK (EUROAK MILIOITAN)

	Langileria	Ondas. eta zerb. erosketak	Interesak	Transferentzia korronteak	Kapitalaren transferentziak	Inbertsioak	Guztira
2002	17.573,7	2.801,3	18.792,6	58.168,6	6.293,3	6.821,3	110.450,8
2003	18.425,5	3.196,8	19.802,0	58.042,8	6.690,0	7.269,1	113.426,2
2004	19.490,1	3.411,7	17.426,8	61.288,4	7.102,7	7.356,0	116.075,7
2005	20.649,2	3.459,7	16.978,0	64.003,9	7.136,7	8.752,7	120.980,2
2006	22.276,0	3.853,0	15.619,7	71.061,4	7.943,6	9.401,5	130.155,2
2007	23.797,6	4.365,7	14.537,9	77.483,3	9.461,6	10.176,6	139.822,5

Iturria: Ekonomia eta Ogasun Ministerioa. Ekonomia Adierazleen laburpena.

1.5. Autonomia Erkidegoak

INEren Eskualde Kontabilitateko datu ofizialen arabera, Autonomia Erkidegoetako BPGren hazkunde erreala, kasu guztietan, Europako batez bestekoa baino handiagoa da (EB-15ean %2,6; EB-25ean %2,8; eta EB-27an %2,9; aurreko urtean EB-15ean %2,8 eta EB-25ean %2,9). Estatuko batez bestekoa %3,8 da (aurreko urtean %3,9), eta AAEE guztiek %3,6tik gorako hazkundearen izan dute BPGn.

Hazkunde errealeko handieneko erkidegoa Aragoi izan da (%4,5), gero Gaztela-Mantxa (%4,2), eta ondoren Galizia eta Errioxa (biak %4). Aurreko urtean, hazkunderik handienekoak Murtzia, Kantabria, Galizia eta EAE izan ziren.

Autonomia-erkidegoen bigarren blokea Extremadurak, EAEk, Ceutak eta Madrilak osatzen dute, eta horiek Estatuko batez bestekotik gorako hazkundearen izan dute.

Datu-iturri berak dioenez (INEren Eskualde Kontabilitatea), erkidegorik dinamikoenetan hazkundearen eragilea manufaktura-industriaren bilakaera ona izan da. Aragoiren kasuan, halaber, aipagarria da eraikuntzak 2008ko Nazioarteko Erakusketaren ondorioz izandako hazkunde garrantzitsua.

Per capita BPGri dagokionez, lehenengo postuan EAE dago (biztanleko 30.599 euroko BPG, batez bestekoa baino %30,8 handiagoa), eta, gero, honako hauek: Madril (29.965 euroko per capita BPG, batez bestekoa baino %28,1 handiagoa), Nafarroa (29.483 euro per capita), Katalunia (27.445 euro biztanleko), Aragoi (25.361),

Balearrak (25.238) eta Errioxa (24.717). Horiek guztiak estatuko batez bestekotik gora daude.

Aldiz, sailkapeneko azken postuetan Andaluzia eta Extremadura daude (hurrenez hurren, 18.298 eta 16.080 euro biztanleko).

Aipagarria da, INEren datuen arabera, Estatuko batez bestekotik (23.396 euro) gorako per capita BPG duten sei erkidegoek EB-27ko batez bestekoa (24.700 euro) ere gainditzen dutela.

Lan-merkatuari dagokionez, langabezia-tasarik baxue-neko autonomia-erkidegoak honako hauek dira: Nafarroa %4,8rekin (aurreko urtean %5,3), Aragoi %5,2rekin

(aurreko urtean %5,5), Errioxa %5,7rekin eta Kantabria %5,9rekin. %6-7 bitarteko tasekin EAE (%6,1), Madril (%6,3), Katalunia (%6,6) eta Balearrak (%7) daude. Estatuko batez bestekoaren gainekoak honako hauek dira: Asturias, Valentziako Erkidegoa, Kanariak, Andaluzia, Extremadura, Melilla eta Ceuta (azken bostak bi digituko zifrekin). Enpleguaren arloan hazkunderik handienak, 2007an, Gaztela-Mantxan, Aragoi eta Murtzian egon dira (guztiak %5etik gora). Estatuko batez besteko %3,1etik gora, honako hauek dira: Valentziako Erkidegoa, Andaluzia, Kantabria, Extremadura, Kanariak eta Kantabria.

III.1.11. KOADROA. BPG-REN HAZKUNDEA, LANA ETA LANGABEZI TASAK AUTONOMIA ERKIDEGOETAN (URTEROKO NEURRIAK)

	Aldaketa lanean (1)			Aldaketa langabetu kopuruan (1)			Langabezia-tasa (1)			BPG Bolumenaren aldaketa (2)			BPG per capita (2)		
	2004-05	2005-06	2006-07	2004-05	2005-06	2006-07	2004-05	2005-06	2006-07	2000-07 (1.zenb.)	2005-06 (b)	2006-07 (1.zenb.)	2006ko aurr. Estatua =100	2007 (1. zenb.) Estatua = 100	Euroak biztanl.
Andaluzia	7,1	5,1	3,5	-16,3	-5,0	4,2	13,9	12,7	12,8	3,7	3,9	3,8	78,2	78,2	18.298
Aragoi	5,1	1,5	5,8	9,3	-3,7	-0,3	5,8	5,5	5,2	3,5	4,0	4,5	106,5	108,4	25.361
Asturias	3,8	4,5	2,3	2,4	-5,8	-7,8	10,2	9,3	8,5	2,9	3,8	3,6	89,0	90,6	21.200
Balearrak	4,3	6,0	2,4	-19,1	-5,8	11,1	7,2	6,5	7,0	2,3	3,4	3,8	109,0	107,9	25.238
Kanariak	3,7	5,3	4,0	1,4	4,9	-8,3	11,7	11,7	10,4	3,4	3,3	3,8	90,1	89,8	21.004
Kantabria	6,4	4,4	3,5	-16,2	-21,2	-7,4	8,5	6,6	5,9	3,4	4,1	3,9	98,6	99,9	23.377
Gaztela eta Leon	6,6	2,2	2,6	-14,8	-5,5	-10,1	8,7	8,1	7,2	3,2	3,5	3,7	95,1	96,6	22.589
Gaztela-Mantxa	6,5	4,5	5,6	2,0	0,1	-9,9	9,2	8,8	7,6	3,6	3,9	4,2	79,4	79,3	18.564
Katalunia	5,9	3,9	2,7	-26,3	-1,7	1,8	7,0	6,6	6,6	3,3	3,8	3,7	118,1	117,3	27.445
Valentziako Erkidegoa	5,2	4,8	3,2	-12,5	-0,8	8,4	8,8	8,4	8,8	3,4	3,9	3,7	91,6	90,8	21.239
Extremadura	4,0	3,2	3,6	-6,1	-14,5	0,3	15,8	13,4	13,1	3,6	3,5	3,9	67,5	68,7	16.080
Galizia	4,3	3,0	2,5	-26,8	-13,6	-8,4	9,9	8,5	7,6	3,2	4,1	4,0	83,3	84,6	19.800
Madril	5,7	4,1	2,5	7,2	-2,9	1,2	6,8	6,4	6,3	3,6	4,0	3,9	129,1	128,1	29.965
Murtzia	5,0	4,9	5,9	-23,3	2,6	1,8	8,0	7,9	7,6	3,9	4,1	3,8	84,9	83,7	19.574
Nafarroa	5,2	3,4	2,2	7,2	-3,0	-8,8	5,7	5,3	4,8	3,3	3,9	3,8	125,1	126,0	29.483
EAE	3,9	2,8	0,6	-23,5	-2,6	-12,6	7,3	7,0	6,1	3,1	4,1	3,9	129,1	130,8	30.599
Errioxa	9,7	2,1	1,5	22,4	2,2	-8,4	6,2	6,2	5,7	3,0	3,6	4,0	105,9	105,6	24.717
Ceuta	1,0	-10,7	1,5	29,9	-3,1	-4,8	19,7	21	20,3	3,4	3,5	3,9	92,4	94,0	21.994
Melilla		3,6	-0,9	29,9	-2,8	45,7	14	13,4	18,2	3,3	3,6	3,7	90,0	90,1	21.089
Guztira	5,6	4,1	3,1	-13,6	-3,9	-0,2	9,2	8,5	8,3	3,41	3,8	3,8	100,0	100,0	23.396

Iturria: 1. zenb.: 1. zenbatespena, b: behin-behinekoa, (1) Metodologia berria 2005ean. (2) INEren eskualde-kontabilitatea

2

EAE-ko koiuntura ekonomikoa

2.1. Bilakaera orokorra

Eustaten Hiruhileko Kontu Ekonomikoetako datuen (2008ko otsailari buruzko datuak) lehenengo aurrerapenaren arabera¹, EAEko ekonomiak %3,9ko batez besteko hazkunde erreala izan du 2007an (aurreko urtean baino hiru hamarren gutxiago); bertako BPG, berriz, 66.311.571 milioi eurokoa izan da. Horrenbestez, hazkunde iraunkorreko zenbait hilabeteren ostean, EAEko ekonomia jardueraren nolabaiteko moteltzearekin iritsi da urte amaierara. Izan ere, EAEko hiruhileko hazkundearen profilak %4,5eko dezelerazioa izan du, lehenengo hiruhilekoan, eta %3,7koa laugarrenean.

Hala eta guztiz ere, urteko hazkundea Estatukoa eta EBkoa baino apur bat handiagoa izan da. Estatuari dagokionez, urteko batez besteko hazkundea hamarren bat handiagoa da, urteko batez bestekoa %3,8koa izan baita (aurreko urtean %3,9); EBri dagokionez, alde handiagoa dago: EB-27arekiko ehuneko puntu batekoa (%2,9ko

hazkunde), EB-25ekiko 1,1 puntukoa (%2,8ko hazkunde) eta EB-15ekiko 1,3 puntukoa (hazkunde %2,6).

Eskariari dagokionez, jardueraren dezelerazio hori barruko eskariaren jokabideak azaltzen du; izan ere, kanpoko eskariak, aurreko urtean bezala, 5 hamarren murriztu baitizkio BPGren hazkundeari.

Horrela, barruko eskaria aurreko urtean baino hiru hamarren gutxiago hazi da (%4,2 eta %4,5), azken kontsumoak indarra galtzearen ondorioz, inbertsioak %5,9ko hazkunde izan baitu (aurreko aldian %6).

Azken kontsumoaren aldaketak bi alde desberdin izan ditu. Etxeetako azken kontsumoan (kontsumo pribatua) egindako gastuaren hazkunde moteldu egin da: %3,5 eta aurreko urtean %4,2. Bestalde, Herri Administrazioen gastuaren hazkunde bizkortu egin da (kontsumo publikoa): %3,7 eta aurreko urtean %2,9.

Hala ere, eta oraindik ere osagairik dinamikoena inbertsioa izan arren, aipagarria da urtean zehar murriztu egin dela; izan ere, urtea %6,6ko tasarekin hasi eta azken hiruhilekoan %4,5eko tasa egon da.

¹ 2005eko 2. hiruhilekotik, Hiruhileko Kontu Ekonomikoek eta Urteko Kontu Ekonomikoek neurketa-metodo berria erabiltzen dute, orain arte erabilitako oinarri finkoko prezio iraunkorreko edo bolumeneko balioak ordeztu dituen. Metodologia berriaren bidez, agregatuen hazkunde ez da deflaktatzen oinarri-urteko prezioetan; hau da, aldi bakoitzean, agregatuen balioa aurreko urteko prezioetan adierazita etorriko da, eta, beraz, oinarri mugikorra izango da. Oinarri mugikor horrekin, indize-zenbakien aldi baterako seriea lortzen da, eta horri "Kateaturiko Bolumenaren Indizea" esaten zaio.


III.2.1. KOADROA. EAE-KO AGERTOKI MAKROEKONOMIKOAREN BILAKAERA

Urte batetik besterako aldaketa-tasak	2001	2002	2003	2004	2005	2006 (a)	2007 (a)	I	II	III	IV
BPG erreala merkatuko prezioetan	3,3	2,4	3,1	3,7	4	4,2	3,9	4,1	4,1	3,8	3,6
Eskaria											
Barruko eskaria (hazkundera)	4,0	3,2	4,4	5,2	4,4	4,5	4,2	4,5	4,5	4,1	3,7
Barruko eskariaren ekarpena (1)	4,1	3,3	4,5	5,4	4,7	4,7	4,4	4,7	4,7	4,3	3,9
Gastua azken kontsumoan	3,7	2,5	4,1	4,4	3,8	3,9	3,6	3,8	3,7	3,4	3,3
Kontsumo pribatua	2,6	2,5	3,7	4,6	4,1	4,2	3,5	3,9	3,7	3,3	3,2
Kontsumo publikoa	8,2	2,5	5,8	3,7	2,7	2,8	3,7	3	3,7	4,2	4,2
Kapital Eraketa Gordina	5,1	5	5,1	7,5	6,1	6,0	5,9	6,6	6,6	5,8	4,5
Kapital-eraketa gordina	4,7	6,1	6,7	6,6	6,3	5,9	-	-	-	-	-
Izakinen aldaketa	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Kanpoko saldoaren ekarpena (1)	-0,8	-0,9	-1,4	-1,7	-0,7	-0,5	-0,5	-0,6	-0,6	-0,5	-0,3
Ondasunen eta zerbitzuen esportazioa	1,7	-0,9	-0,8	4,8	5,1	7,5	7,1	6,5	9	6,5	6,6
Estatuaren gainerakoa	1,8	-1,4	-1	6,1	6,6	5,3	-	-	-	-	-
Atzerria	1,5	-0,4	-0,6	3,4	3,3	10,1	-	-	-	-	-
Ondasunen eta zerbitzuen inportazioa	2,8	0,3	1,3	7,3	5,8	7,7	7,3	7	9,2	6,7	6,4
Estatuaren gainerakoa	3,4	2,8	1	4,8	5,5	4,4	-	-	-	-	-
Atzerria	1,6	-4,3	1,8	12,0	6,3	13,0	-	-	-	-	-
Eskaintza											
Lehen sektorea	10,3	-0,7	-6,1	31,3	-13,8	-9,8	8,0	8,2	11,5	2,0	10,8
Industria	2,5	1,1	1,2	2,9	4,9	4,9	3,8	4,9	4,6	3,7	2,3
Eraikuntza	9,2	5,2	4,9	4,4	4,7	5,1	4,0	4,5	4,4	4,3	2,9
Zerbitzuak	3,1	2,7	3,3	3,3	3,5	3,8	3,8	3,7	3,6	3,6	4,2
Merkatuko zerbitzuak	3,2	2,7	3,6	3,5	3,5	4,1	3,7	3,8	3,7	3,6	3,6
Merkatukoak ez diren zerbitzuak	2,8	2,6	1,7	2,0	3,4	2,0	4,3	2,7	3,3	3,6	7,4
Balio erantsi gordina oinarrizko prezioetan	3,4	2,3	2,7	3,6	3,8	4,1	3,9	4,1	4,1	3,7	3,7
Produktuen gaineko zerga garbiak	2,1	2,6	7,6	4,5	5	5,3	4,3	4,0	4,2	4,8	4,4
BPG izenduna merkatuko prezioetan	5,5	5,2	6,5	8,3	7,5	7,8					
BPGren deflaktatzailea	2,1	2,8	3,3	4,4	3,4	3,4	3,3	-	-	-	-
Enplegu osoa CETen arabera	3,2	2,2	2,5	2,8	2,2	2,3	2,4	-	-	-	-
Lanaren ageriko produktibitatea (2)	0,1	0,2	0,6	0,9	1,8	1,9	1,5	-	-	-	-
Langabezia-tasa, BJAren arabera (3)	11,1	8,3	8,6	7,8	5,7	4,1	3,3	-	-	-	-
KPI (abenduko urte b. best.) Oinarria 2006	-	3,9	2,6	3,2	3,7	2,6	4,2	-	-	-	-
Soldaten hazkundera	4,5	3,9	4,4	4,0	4,5	4,9	4,2	-	-	-	-

(a) aurrerapena. (1) BPGren hazkunderako ekarpen-puntuak. (2) Ez dago lanaldi osoko enpleguari buruzko informaziorik. (3) Metodologia aldatzearen eraginez, 2002ren aurreko eta ondorengo datuak ezin dira konparatu.

Iturria: Kontu Ekonomikoak (2007ko azaroa) eta Hiruhileko Kontu Ekonomikoak-Oinarria 2005 (Eustaten behin-behineko datuak: 2008ko otsailaren 18a), BJA eta INE

III.2.1. GRAFIKOA. BARRUKO ETA KANPOKO ESKARIAK BPGREN HAZKUNDEAN EGINDAKO EKARPENA



Bestalde, esportazioek² %7,1eko hazkundera izan dute, eta inportazioek³ %7,3koa.

Eskaintzaren aldetik, industriak eta zerbitzuek tasa bereko hazkundera izan dute (%3,8). Hala eta guztiz ere, lehenengo sektorearen hazkundera moteldu egin da,

aurreko urtean hazkunde-ratioa %4,9koa izan baitzen; bigarren sektoreak aurreko urteko hazkunde bera izan du.

Industriako dezelerazioa hirugarren hiruilekoan hasi zen, eta sektoreak %2,3ko hazkunde-tasarekin amaitu du urtea.


Bestalde, eraikuntzaren urteko batez besteko hazkunde-tasa %4koa izan da, eta jarraitu egin du 2006ko bigarren hiruilekoan hasitako dezelerazioarekin; 2007a %2,9ko aldaketa-tasarekin amaitu da.

Zerbitzu-sektorearen kasuan, aipagarria da merkaturako ez diren zerbitzuek izandako jokabidea, goranzko profileko hiruilekoa izan baitute; lehenengo hiruilekoa %2,7ko hazkundearekin hasi dute, eta urteko azken hiruilekoa %7,4ko hazkundearekin amaitu dute. Bestalde, merkaturako zerbitzuek nolabaiteko egonkortasuna izan dute, eta %3,7 inguru hazi dira.

Oro har, BEGren hazkundera aurreko urtekoa baino bi hamarren txikiagoa da (%3,9 eta %4,1).

Enpleguari dagokionez, Kontu Ekonomikoen adierazitakoaren arabera, hazkunde-tasak egon dira, eta

III.2.2. GRAFIKOA. ESKAINTZAREN AGREGATUEN BILAKAERA (BOLUMEN-INDIZEKO URTE BATETIK BESTERAKO ALDAKETA-TASAK)



² Ondasunen eta zerbitzuen esportazioen bidez (salmentak, opariak edo dohaintzak), egoiliarrek ondasunak eta zerbitzuak ematen dizkiete ez-egoiliarrei.

³ Ondasunen eta zerbitzuen inportazioen bitartez (lorpenak, opariak edo dohaintzak), ez-egoiliarrek ondasunak eta zerbitzuak ematen dizkiete egoiliarrei.

hazkundearen urteko batez bestekoa %2,4koa izan da (aurreko urtean baino hamarren bat handiagoa); hain zuzen ere, aurreko urtean baino 23.760 pertsona gehiago izan dira. Langabezia-tasa, EUSTATen BJAk dioenez, murriztu egin da aurreko urtekoari dagokionez (%4,1etik %3,3ra).

Jardueraren dezelerazioak ez du eraginik izan enpleguaren sorkuntzan, baina bai produktibitatearen irabazietan. Izan ere, lanaren ageriko produktibitateak hazten jarraitu du, baina aurreko urtean baino gutxiago (%1,5 eta %1,9).

Bestalde, alderdirik txarrenetarikoa inflazioa izan da. BPGren deflaktatzailea %3,3koa izan da (aurreko urtean baino ehuneko hamarren bat txikiagoa), eta kontsumoko prezioen urte batetik besterako hazkundera %4,2 izan da 2007ko abenduan (Estatuan erregistraturiko balio bera).

Abenduan, Estatuko Kontsumoko Prezioen Indize Adostuak (KPIA)⁴ %4,3ko urte batetik besterako aldaketa-tasa izan du. Eurostatek emandako datuen arabera, EB-27an %3,2koa izan da, eta EB-25ean %3,1ekoa.

Prezioak eta produktibitatea sakonago ikertzeko, prezioei, kostuei, produktibitateari eta errentei buruzko kapitulua irakurtzea gomendatzen dugu.

2.2. Barruko eskaria

Lehen esan dugunez, BPGren hazkundera barruko eskariak eutsi du, eta horrek %4,2ko urteko batez besteko hazkundera izan du. Hala eta guztiz ere, hazkundearen hiru hilekoko datuek agerian jarri dutenez, hazkunderen eritmoa moteldu egin da apur bat urtean zehar, lehenengo hiru hilekoko %4,5etik azken hiru hilekoko %3,7ra.

BPGren hazkundera egindako ekarpenari dagokionez, 2007an ekarpena 2006koa baino hiru hamarren txikiagoa izan da, eta %4,7tik %4,4ra igaro da.

Berriro ere, faktorerik dinamikoena inbertsioa da, eta %5,9ko hazkundera izan du aurreko urtekoari dagokionez (aurreko urtean %6); baina hiru hilekoko profila beheranzkoa izan da; kontsumo pribatua aurreko urtean baino gutxiago hazi da (%3,5 eta %4,2), eta publikoa, aldiz, gehiago (%3,7 eta 2006an %2,8).

Eustatek eta Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Planifikazio Zuzendaritzak emandako informazioaren arabera, kontsumo pribatuaren kointura-adierazle nagusiek dinamismo txikiagoa erakutsi dute berriro 2007an.

Horrela, Industria Ekoizpenaren Indizeko⁵ urte batetik besterako aldaketa-tasa (kontsumoko ondasunei buruzkoa) aurreko urtean baino gutxiago hazi da (%0,4 eta %1,5). Kontsumoko ondasunen Industria Jardueraren Indizeak gorantz jarraitu du, urte batetik besterako batez besteko %2ko eritmoan, baina hazkunde hori aurreko urtekoa baino txikiagoa izan da (2006an %2,7), eta horrek nolabaiteko dezelerazioa adierazten du. Azalera handiko salmentek, aurreko urteetan gertaturikoaren alderantziz, %0,3ko murriztapena izan dute. Barruko merkataritzaren indizeak %2ko hazkundera izan du (aurreko urtean baino 1,6 puntu gutxiago).

Alderdi positiboan, turismoen matrikulazioak jarri behar dira, %2,2ko hazkundera izan baitute (aurreko urtean %0,9ko murriztapena).

Bestalde, **kontsumo publikoak** (Eusko Jaurlaritzaren eta Foru Aldundien gastu arrunta) gorantz jarraitu du.

Inbertsioari dagokionez, kontsumoko ondasunen Industria Ekoizpenaren Indizea hazi egin da, baina aurreko urtean baino gutxiago (%7 eta %8, hurrenez hurren). Bestalde, ekipamenduko ondasunen Industria Jardueraren Indizea 2006an baino 9 hamarren gehiago hazi da (%4tik %4,9), baina urtea %3,4ko hazkunderarekin amaitu du.

Kargako industria-ibilgailuen matrikulazioak %5,4ko hazkundera izan du, eta horrek orekatu egin du aurreko urteko beherakada (%5,4koa).

⁴ KPIA deritzon adierazle estatistikoaren helburua inflazioaren neurri komuna eskaintzea da, nazioarteko konparazioak egiteko eta, horrela, Maastrichteko Itunak arlo honetan eskatzen duena (Europako Diru Batasunean sartzeko eskatzen duena) betetzen den egiaztatze. Gogoratu behar da egonkortasunaren helburua betetzeko, %2tik beherako urte batetik besterako hazkundera behar dela, Kontsumoko Prezioen Indize Adostuari (KPIA) dagokionez, euroaren zonarako.


⁵ IEIk jatorria industrian (erauzketak, enpleguak eta elektrizitatearen, uraren nahiz gasaren ekoizpena zein banaketa; eraikuntza kanpoan gelditzen da) duen BPGren zatiak bolumenean duen bilakaera neurtzen du. IEIk eraikuntza ere barruan hartzen du.

III.2.2. KOADROA. BARRUKO ESKARIAREN ADIERAZLE BATZUEN BILAKAERA (URTE BATETIK BESTERAKO ALDAKETA TASA)

	2004	2005	2006	2007
Kontsumo pribatuaren adierazleak				
Kontsumo-ondasunen IEI	-0,8	0,5	1,5	0,4
Kontsumo-ondasunen IJI	2,0	3,3	2,7	2,0
Turismoen matrikulazioa	3,9	2,8	-0,9	2,2
Barruko Merkataritza Indizea (kostuak)	3,0	0,3	3,6	2,0
Azalera handiko salmentak (kostuak)	3,5	9,3	1,6	-0,3
Biztanleria landuna (BJA)	1,6	1,3	1,4	1,1
Hitzar. soldata-igoera (*)	4,0	4,5	4,9	4,2
Kontsumo publikoaren adierazleak				
Eusko Jaurlaritzaren eta FFAAen gastu korrontea	7,5	7,3	8,8	10,1
Inbertsioaren adierazleak				
Inbertsio-ondasunen IEI	4,2	7,3	8,0	7,0
Inbertsio-ondasunen IJI	2,0	1,5	4,0	4,9
Kargako ibilgailuen matrikulazioa	14,9	12,0	-5,4	5,4
Ekipamendu-ondasunen inportazio-balioa	17,5	3,4	6,1	14,8

Iturria: Eustat eta Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Planifikazio Zuzendaritza

II.2.3. GRAFIKOA. KONTSUMITZAILEAREN KONFIANTZA INDIZEAREN BILAKAERA



Iturria: Euskal Herriko Aurrezki Kutxen Federazioa.

Azkenik, ekipamenduko ondasunen inportazioaren balioak hazkunde-tasa handia izan du, %14,8koa (aurreko urtean %6,1eko hazkundea).

Egoera horren ildotik, 2006ko hirugarren hiruhilekotik 2007ko bigarren hiruhilekora, Euskal Herriko Aurrezki Kutxen Federazioko *Kontsumitzailearen Konfiantzaren*

III.2.3. Koadroa. EAE-ko kontsumitzailearen konfiantza itxaropenen indizea: Osagaiak						
		ICC	Etxeko egoera ekonomik. egoeraren inguruko itxarop. (hurrengo 12 hil.)	Egoera ekonomiko orokorraren inguruko itxarop. (hurrengo 2 hil.)	Aurrezteko itxarop. (hurrengo 12 hilabeteak)	Langabeziako itxaropenak (hurrengo 12 hilabeteak)
2005	I	98	99	94	112	87
	II	100	101	94	113	90
	III	97	103	91	116	77
	IV	95	97	84	116	81
	MEDIA	97,5	100	90,8	114,3	83,8
2006	I	97	96	82	124	85
	II	97	99	89	113	87
	III	94	101	92	102	81
	IV	97	99	93	105	92
	MEDIA	96,3	98,8	89	111	86,3
2007	I	99	99	92	107	98
	II	101	95	89	114	107
	III	96	97	89	115	84
	IV	88	86	76	95	93
	MEDIA	96	94,3	86,5	107,8	95,5

Iturria: Euskal Herriko Aurrezki Kutxen Federazioa

Indizeak (KKI) bilakaera positiboa izan du, 94tik 101era. Izan ere, 2007ko bigarren hiruhilekoan indizea gehienekora heldu da, eta, gainera, Estatuko (88) eta EBko (98) emaitzak gainditu ditu.

Hala ere, ondoko grafikoan ageri denez, bigarren hiruhilekotik aurrera kontsumitzaileen konfiantza murrizten hasi zen, bai EAEn, bai Estatuan eta EBn; eta laugarren hiruhilekoan KKI 88koa izan zen EAEn, 83koa Estatuan eta 94koa EBn. Beste modu batera esateko, itxaropenak ezkorragoak dira EAEn EBn baino, baina ez dira Estatuan bezain ezkorrak.

2007ko KKIren urteko batez bestekoa 96koa izan da EAEn, eta 2006an 96,3koa izan zen; EBn ere 96koa izan da, eta Estatuan %87,3koa.

EAEko 2007 amaierako KKIren lau osagaiak aztertzean ikusten denez, horiek guztiak negatiboak dira; oso nabarmena da etxeetako aurrezpen-itxaropenek izandako murriztapena, orain arte positiboak izan ondoren: etxeko egoera ekonomikoari buruzko itxaropenak -14; egoera ekonomiko orokorraren itxaropenak -24; aurrezteko itxaropenak -5; eta langabeziako itxaropenak -7.


EAEko kontsumitzaileen konfiantzaren murriztapena, horrenbestez, hiru osagaien murriztapenaren ondoriozkoa izan da: egoera ekonomiko orokorrari buruzko itxaropenak, etxeko egoera ekonomikoari buruzko itxaropenak eta etxeetan aurrezteko itxaropenari buruzkoak. Laugarrena (langabeziako itxaropenak) apur bat suspertu egin da, ezkortasunaren zonan jarraitu arren.

Azkenik, inflazioaren bilakaerari buruzko itxaropena (elementu hori KKI egiteko aintzat hartu ez arren), EAEko kontsumitzaileen artean ezkortasunik handiena eragiten duen elementua da. Indizea 2006ko abenduko -43tik 2007ko abenduko -64ra igaro da.

2.3. Kanpoko sektorea

Eustaten Hiruhileko Kontu Ekonomikoetako behin-behineko datuek adierazi dutenaren arabera (*Estatuari eta munduko gainerako eskualdeei* egindako ondasun- eta zerbitzu-salmentari buruzko datuak), esportazioak urteko

III.2.4. GRAFIKOA. EAEko KANPOKO SEKTOREAREN BILAKAERA (BOLUMEN-INDIZEAREN URTE BATETIK BESTERAKO ALDAKETA-TASA. ZUZENDUTAKO DATUAK)



Iturria: Eustat. CET

%7,1eko batez besteko hazkundera izan du (2006ko tasa baino 4 hamarren gutxiago), eta inportazioak %7,3ko hazkundera (kasu honetan ere aurreko urtean baino 4 hamarren gutxiago). Bi aldagai horien hiruileko bilakaeraren profila antzekoa da; lehenengo hiruilekoan %6,5etik (esportazioak) %7ra (inportazioak) bitarteko hazkundera izan dute, eta bigarreanean %9 ingururaino hazi dira biak; hirugarrenean eta laugarrenean berriro erori dira, eta %6,6ko eta %6,4ko hazkundera amaitu dute urtea, hurrenez hurren.

EAEko ekonomiaren irekitze maila⁶ (harremanak Estatuarekin eta atzerriarekin) gero eta handiagoa da, eta %134,1etik %137,8ra igaro da; ondasunen eta zerbitzuen esportazioak inportazioarekin duen estaldura maila ere hazi egin da (2 hamarren), eta %92,8tik %93ra igaro da.

Aduanen Erregistroetan oinarrituriko Kanpoko Merkataritzaren Estatistikak eskainitako Ondasunen kanpoko merkataritzari (atzerriarekiko merkataritza) buruzko datuek agerian jarri dutenez, esportazioen balio korronteak %13,1eko hazkundera izan du 2007an (2006ko hazkundera baino 3,3 puntu gutxiago); esportazio energetikoek %10,3ko hazkundera izan dute, eta ez-

energetikoek (guztizkoaren %92,2) %13,4koa. Bestalde, inportazioek %7,3ko hazkundera izan dute (2006an baino 12,9 puntu gutxiago); hain zuzen ere, inportazio energetikoen balioak (guztizkoaren %30,2) %5,3ko murritzapena izan du (aurreko urtean %32,8ko hazkundera), eta ez-energetikoek, ostera, %13,9ko hazkundera (2006an %14,6koa).

Datu horietan oinarrituz, EAEko ekonomiaren irekitze maila (atzerriarekiko harremanak) %55,3tik %56,7ra igaro da, eta ondasunen eta zerbitzuen esportazioa inportazioarekin estaltzeko maila, berriz, %95,2tik %100,4ra.

EAEko esportazio ez-energetikoen muga-zerga taldeen arabarako azterketak agerian jarri duenez, ekipamendu-ondasunak nabarmendu dira lehenengo eta behin, esportaturiko guztiaren %43rekin (makinen eta aparatuen 3.858,1 milioi euro eta garraioko materialaren 4.235 artean banatuta); 2007an %11,7ko hazkundera izan dute, 2006an baino 1,4 puntu handiagoa; makinen eta aparatuen atalak %13,1eko hazkundera izan du (aurreko urtean %8,9), eta garraioko materialak %11,8koa (aurreko urtean %10,1). Bigarrenez, metal arrunten eta horien

⁶ Prezio korronteko esportazioen eta inportazioen batuketaren ehunekoa, prezio korronteko BPGri dagokionez.

manufakturen esportazioa nabarmendu da, guztizkoaren %28rekin, eta arlo honetan aurreko urteko hazkunde-tasa handiak mantendu dira: 2006an %17,4ko hazkundea egon zen, eta 2007an %22,2koa. Hirugarrenez, plastikoaren eta kautxuaren esportazioa dago, guztizkoaren %7,4rekin; dena den, hemen hazkunde tasa 2006koa baino txikiagoa da (%1,4 eta %40,5, hurrenez hurren). Beste aldean, aipagarria da produktu kimikoen esportazioan egon den murriztapen handia (%7,5), aurreko urtean nolabaiteko gelditzea ikusi ondoren.

Inportazio ez-energetikoen aldetik, berriro ere metalak eta horien manufaktura gailendu dira, inportazio guztien %27,3rekin eta %19,4ko hazkundearekin. Bigarrenaz, ekipamendu-ondasunak datoz, inportazio guztien %22,3rekin eta %14,8ko hazkundearekin, gehienbat garraioko materialean egindako inportazioaren eraginez (%35,8ko hazkundea), makineriak ere %9,9ko hazkundea izan arren. Gainerako muga-zerga taldeen artean, oster

ere hazkundeak egon dira plastikoaren eta kautxuaren inportazioetan (%+10,6) eta paperaren inportazioetan (%9,1); halaber, aipagarria da produktu kimikoen inportazioek izandako beherakada (%-10,2).

Kanpoko saldoak, bi urteko defizitaren ostean, superabita izan du 2007an (72,1 milioi euro, BPGren %0,1), eta kontrajarri egin zaio Estatuan 2007an izandako defizitari (bertako BPGren %9tik gorakoa).

Ondasun eta produktu energetikoak eta ez-energetikoak bereizita ondorioztatzen denez, saldo energetikoak defizita dauka (-4.186 milioi euro). Aldiz, produktu ez-energetikoetan 4.258,1 milioi euroko superabita egon da: BPGren %6,4. Ratio hori aurreko urtekoa (%6,16) baino bi hamarren handiagoa da.

EAEko esportazio ez-energetikoen jasotzaileak diren eremu geografikoen arabera, garrantzitsuenak OCDEra doazenak eta, horren barruan, EB-15era doazenak dira

III.2.4. Koadroa. EAE-K ATZERRIAREKIN DUEN ONDASUNEN ETA ZERBITZUEN KANPOKO MERKATARITZA (EUROAK MILIOIE-TAN) (MUGA-ZERGA TALDEEN ARABERAKO SAILKAPENA)

MUGA-ZERGA TALDEAK	ESPORTAZIOAK					INPORTAZIOAK					SALDOA		
	2005	2006	2007 b		06-07ko aldaketa	2005	2006	2007 b		06-07ko aldaketa	2005	2006	2007 b
	milioiak	milioiak	milioiak	% bertikala		milioiak	milioiak	milioiak	% bertikala		milioiak	milioiak	milioiak
Guztira	14.296,7	16.647,4	18.834,3	100,0	13,1	14.536,7	17.478,1	18.762,1	100,0	7,3	-240	-830,7	72,1
Energetikoak (Produktu eta minera energetikoak)	881,7	1.334,5	1.472,00	7,8	10,3	4.497,6	5.975,4	5.657,9	30,2	-5,3	-3.615,9	-4.641,00	-4.186,0
Ez-energetikoak	13.415,0	15.312,9	17.362,3	92,2	13,4	10.039,1	11.502,7	13.104,2	69,8	13,9	3.375,9	3.810,3	4.258,1
Nekazaritza-produktuak	485,1	534,5	617,3	3,3	15,5	812,7	812,1	844,5	4,5	4,0	-327,5	-277,6	-227,2
Produktu kimikoak	425,9	426,3	394,5	2,1	-7,5	450,1	541,1	485,7	2,6	-10,2	-24,2	-114,8	-91,2
Plastikoak eta kautxua	975,2	1.370,5	1.389,8	7,4	1,4	643,1	792,1	876,1	4,7	10,6	332,1	578,4	513,8
Papera	428,7	452,3	498,8	2,6	10,3	330,9	368,5	401,8	2,1	9,1	97,7	83,8	97,0
Metal arruntak eta horien manufaktura	3.681,5	4.321,4	5.280,9	28,0	22,2	3.374,6	4.287,9	5.120,0	27,3	19,4	307	33,4	160,9
Ekipamendu-ondasun.	6.571,4	7.246,0	8.093,1	43,0	11,7	3.433,7	3.641,9	4.179,3	22,3	14,8	3137,8	3604,1	3.913,9
Makinak eta aparatuak	3.132,4	3.410,8	3.858,1	-	13,1	2.193,4	2.370,9	2.605,3	-	9,9	-	-	1.252,8
Garraioko materiala	3.439,1	3.786,4	4.235,0	-	11,8	1.240,3	1.158,6	1.573,9	-	35,8	-	-	2.661,1
Beste manuf. batzuk	716,1	812,0	929,5	4,9	14,5	953,4	1.039,6	1.180,2	6,3	13,5	-237,2	-227,6	-250,8
Sailkatu gabe	131,0	150,0	158,4	0,8	5,6	40,7	19,5	16,7	0,1	-14,4	90,3	130,5	141,7

b: behin-behinekoak. Iturria: Eustat. Kanpoko Merkataritzaren Estatistika

berriro, guztizkoaren %65,5ekin eta %7,9ko hazkunde-tasarekin. Aipagarriak dira Frantziarako, Alemaniarako, Italiarako (aurreko urtekoak baino txikiagoak izan arren) eta Erresuma Baturako esportazioak, EAEk EB-15era egindako esportazio guztien %47,6 baitira; halaber, garrantzitsuak dira Belgikarako (%+37) eta Luxenburgorako (%+20,6) esportazioek izandako hazkundeak.

Era berean, berriro ere aipagarria da herrikide berriei zuzendutako esportazioan egon den hazkundea (%+22,5), eta, bertan, Polonia nabarmendu da (%40,1ekin, eta

%32,7ko hazkunde aurreko urteari dagokionez).

OCDEren eremuan, baina EBtik kanpo, murriztu egin dira AEBko esportazioak (%-8,3) eta, neurri txikiagoan, Japoniarakoak (%-1,1); aldiz, Mexikokoak hazi egin dira (%+20,5). Japoniarako esportazioak, dena den, gure kanpoko merkataritzaren proportzio oso txikia osatzen dute.


OCDEtik kanpo, hazkunde-tasa handiak aintzat hartuta, Errusiarako esportazioak nabarmendu dira berriro, eta, neurri txikiagoan, Asiako ekonomia dinamikoetarakoak (AED) eta Txinarakoak. Bestalde, MERCOSUR eremurako

III.2.5. KOADROA. EAE-KO ONDASUN EZ-ENERGETIKOEN KANPOKO MERKATARITZA, EREMU GEOGRAFIKOEN ARABERA (EU-ROAK MILATAN) (MUGA-ZERGA TALDEEN ARABERAKO SAILKAPENA)

	ESPORTAZIOAK				IMPORTAZIOAK				SALDOA		
	2005	2006	2007 b	Aldak. 2006-07	2005	2006	2007 b	Aldak. 2006-07	2005	2006	2007 b
Guztira	13.415.017	15.312.931	17.362.324	13,4	10.039.114	11.502.673	13.104.234	13,9	3.375.903	3.810.258	4.258.090
OCDE	11.169.663	12.798.450	13.855.709	8,3	7.773.944	8.656.647	9.817.780	13,4	3.395.719	4.141.803	4.037.929
EB-15	9.147.879	10.538.456	11.375.996	7,9	6.834.792	7.554.811	8.424.961	11,5	2.313.087	2.983.645	2.951.035
Alemania	2.045.374	2.525.671	2.832.268	12,1	1.737.020	1.793.956	2.439.558	36	308.354	731.715	392.710
Austria	183.882	183.882	206.886	12,5	113.502	138.733	152.204	9,7	70.380	45.149	54.682
Belgika	386.837	505.129	692.117	37	331.353	410.237	441.033	7,5	55.484	94.892	251.084
Frantzia	2.707.603	2.989.453	3.108.124	4	1.505.151	1.729.787	1.870.189	8,1	1.202.452	1.259.666	1.237.935
Italia	1.122.205	1.400.249	1.343.977	-4	1.019.725	1.117.294	1.285.616	15,1	102.480	282.955	58.361
Luxenburgo	21.777	19.888	23.991	20,6	33.082	36.111	25.591	-29,1	-11.305	-16.223	-1.600
Portugal	694.957	739.436	837.283	13,2	231.758	284.727	270.201	-5,1	463.199	454.709	567.082
Erresuma B.	1.074.304	1.110.949	1.235.466	11,2	921.294	944.859	811.544	-14,1	153.010	166.090	423.922
EB-25	9.635.519	11.155.544	12.151.587	8,9	7.052.907	7.832.401	8.752.129	11,7	2.582.612	3.323.143	3.399.458
EBKB	566.388	715.205	876.285	22,5	272.517	328.838	384.306	16,9	293.871	386.367	491.979
Polonia	192.762	265.197	351.962	32,7	59.132	69.032	95.335	38,1	133.630	196.165	256.627
EB-27	9.714.267	11.253.661	12.252.281	8,9	7.107.309	7.883.649	8.809.267	11,7	2.606.958	3.370.012	3.443.014
OCDE, ez EB	1.595.178	1.716.380	1.790.229	4,3	771.161	894.585	1.129.756	26,3	824.017	821.795	660.473
AEB	551.831	641.898	588.744	-8,3	221.684	289.577	378.612	30,7	330.147	352.321	210.132
Japonia	73.645	52.780	52.204	-1,1	159.296	157.153	168.435	7,2	-85.651	-104.373	-116.231
Mexiko	397.448	321.227	387.226	20,5	19.413	13.485	36.431	170,2	378.035	307.742	350.795
EEEH	99.296	129.585	132.416	2,2	64.969	66.215	99.460	50,2	34.327	63.370	32.956
EDA	161.481	179.783	193.823	7,8	246.886	312.496	349.957	12	-85.405	-132.713	-156.134
MERCOSUR	300.127	263.222	356.919	35,6	189.474	218.589	189.009	-13,5	110.653	44.633	167.910
Brasil	234.270	201.287	290.519	44,3	168.659	189.536	158.086	-16,6	65.611	11.751	132.433
Errusia	62.410	96.686	135.028	39,7	366.245	430.364	463.721	7,8	-303.835	-333.678	-328.693
Txina	194.203	248.746	283.709	14,1	566.622	782.336	1.139.049	45,6	-372.419	-533.590	-855.340

b. behin-behineko datuak EBKB: EBko Kide Berriak. MERCOSUR: Hegoaldeko Amerikako Merkatu Batua. EEEH: Erdialdeko eta Ekialdeko Europako Herriak. AED: Asiako Ekonomia Dinamikoak.

Iturria: Eustat. Kanpoko Merkataritzaren Estatistika

III.2.5. GRAFIKOA. EAEko KANPOKO MERKATARITZAREN BILAKAERA, EDUKI TEKNOLOGIKOAREN ARABERA

b: behin-behineko datuak.

Iturria: Eustat

esportazioek ere hazkunde handia izan dute, eta Brasilen kasuan %44,3koak dira.

Inportazioei dagokienez, gehienak OCDEtik datoz, eta, hain zuzen ere, EB-15etik, gehienbat Alemaniatic, Frantziatic eta Italiatic (EB-15eko inportazio guztien %66,4).

Aipagarriak dira Alemaniatic (%+36), Italiatic (%+15,1) eta Poloniatik (%+38,1) iritsitako inportazioek izandako hazkundeak; Luxenburgotik (%-29,1) eta Erresuma Batutik (%-14,1) iritsitakoak, ostera, murriztu egin dira.

OCDEren eremuan baina EBtik kanpo, oso deigarria da Mexikotik iritsitako inportazioen hazkundea (%+170,2).

OCDEko eremutik kanpoko jokabideari dagokionez, aipatzekoak dira EEETik (%+50,2), Asiako ekonomia dinamikoetatik (%+12) eta Txinatik (%45,6) iritsitako inportazioak. Halaber, MERCOSUR eremutik iritsitakoak murriztu egin dira (%-13,5).

Azkenik, EAEko kanpoko saldo ez-energetikoa hobetu egin da, eta 2006ko 3.810 milioi euroko superabitetik 2007ko 4.258kora igaro da, honako hauekiko kanpoko

III.2.6. Koadroa. EAE-ko KANPOKO MERKATARITZAREN BILAKAERA, MAILA TEKNOLOGIKOAREN ARABERA

	1997	1998	1999	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007 b
Esp. guztira (€-ak milioitan)	9.239,0	9.698	9.927	11.672	11.355,0	11.416,0	11.577,0	13.301,0	14.049,0	16.351,0	18.493,0
Altuko eta ertain-altuko esp. %, guztizkoari dagokionez	50,4	51,7	55,5	50,8	52,0	51,1	52,5	51,4	51,1	47,8	45,5
Altuko esp. %, guztizkoari dagokionez	2,5	3,2	5	4,3	4,0	3,4	4,8	2,9	2,3	1,9	2,4
Inp. guztira (€-ak milioitan)	5.255,0	5.883,0	6.399,0	7.795,0	7.692,0	8.040,0	8.211,0	9.701,0	10.633,0	12.756,0	14.628,0
Altuko eta ertain-altuko inp. %, guztizkoari dagokionez	42,7	44,3	48,9	47	45,9	44,4	42,6	42,1	40,1	36,4	34,8
Altuko inp. %, guztizkoari dagokionez	3,6	3,8	5,3	4,5	4,3	4,0	3,6	3,6	3,5	3,4	3,1

Iturria: Eustat

merkataritzaren bilakaera onaren eraginez: Alemania, Frantzia, Erresuma Batua, Portugal, EBKB eta OCDEko gainerako herririk gehienak (Luxenburgo eta Japonia izan ezik). Hala ere, erakunde horretako kideak ez diren herri batzuekiko merkataritza-saldoak txarrera egin du (batez ere, Txinarekin, Errusiarekin eta AEDekin).

Horren ondorioz, ondasun ez-energetikoen estaldurata murriztu egin da 2006ko %133,1etik 2007ko %132,5era igaro baita.

Bestalde, beste sailkapen mota bat aintzat hartuta, hau da, maila teknologikoaren arabera sailkapena kontuan hartuz, 2004tik maila teknologiko ertaineko-altuko eta altuko esportazioek eta inportazioek garrantzia galtzen ari dira, esportazio eta inportazio guztiekiko, maila ertain-baxukoaren eta baxukoaren mesedetan. Horrela, 2004an, EAEk egiten zituen esportazio guztien %51,4 maila ertain-altukoak eta altukoak ziren; 2007an (behin-behineko datuen arabera) ehunekoa %45,5ekoa izan da. Inportazioen kasuan, 2004ko %42,1etik 2006ko %34,8ra igaro gara.

Azterketan sakonduz, hau da, altua eta ertain-altua bereizita, 2006tik 2007ra teknologia maila altuko ondasunen eta zerbitzuen esportazioak hazi egin dira, esportazioen guztizkoari dagokionez; hain zuzen ere, %1,9tik %2,4ra igaro dira.

2.4. Atzerriko inbertsioa

Atzerriko inbertsioa EAEn

Industria, Turismo eta Merkataritza Ministerioko Kanpoko Inbertsioen Erregistroko datuen arabera, EAEko kanpoko inbertsioak hazkunde handia izan du, 2007ko behin-behineko datuek diotenez (urtarrila-abendua). Guztira, EAEk 2.615,8 milioi euroko inbertsio gordina jaso du kanpotik; horri atzerriko balioak dituzten erakundeak (ABDE) kenduta, 1.329,7 milioi euro gelditzen dira. Horrela, atzerriko inbertsio gordinaren jariora, ABDEak kenduta, %337,3ko hazkundera izan du EAEn.

Estatuan, atzerriko inbertsioak (ABDEak kenduta) %195,9ko hazkundera izan du 2006tik 2007ra; gainera, EAEk guztizko horrekiko duen proportzioa 2006ko %3,1etik 2007ko %4,6ra hazi da. Madrileko erkidegoak jasotzen duen inbertsioa albo batera utzita, ehunekoa %20,1ekoa

da, eta horrek hazkunde handia adierazten du (2006ko %5,4tik 2007ko %20,1era).

Horrela, 2007an, EAE laugarren postuan dago inbertsioen bolumenean, honako hauen atzetik: Madril (22.242,6 milioi euro, ABDEak kenduta); Katalunia (2.521,4 milioi euro), eta Valentzia (1.729,1 milioi euro). 2006an EAE hirugarren postuan egon zen, inbertsioen bolumenean, Madril eta Kataluniaren atzetik, eta 2005ean zazpigarren postuan, Madril, Kataluniaren, Andaluziaren, Valentiaren, Balearren eta Galiziaren atzetik.

Hazkunde hori honako hauetan izandako hazkundearen ondoriozkoa da:


- makineriaren eta ekipamendu mekanikoaren eraikuntza-industrian; hain zuzen ere, *"bulegoko makineriaren fabrikazioa"*, *"material elektrikoren fabrikazioa"* eta *"motorreko ibilgailuen fabrikazioa"* azpisektoretan;
- eraikuntzaren sektorean; hain zuzen ere, *"eraikuntza orokorra, eraikinak eta obra berezia"* azpisektorean;
- finantza-bitartekotzan, bankan eta aseguruetan; hain zuzen ere, *"banka eta beste finantza-bitartekari batzuk"* azpisektorean, eta
- higiezinetakako agenteetan eta zerbitzuetan; hain zuzen ere, *"beste enpresa-jarduera batzuk"* azpisektorean.

Horrela, guztizkoan duten garrantzia aintzat hartuta, honako hauek dira aipagarrienak: Eraikuntza sektorea, EAEn egindako inbertsio osoaren %92,4rekin eta Estatuan sektore horretan egindako inbertsio osoaren %88,8rekin; Higiezinetakako agenteak eta zerbitzuak (*beste enpresa-jarduera batzuk* atalean esan dugunez), EAEn egindako inbertsio osoaren %3,4rekin eta Estatuan sektore horretan egindako inbertsioaren %2,4rekin; eta makineriaren eta ekipamendu mekanikoaren eraikuntza-industria, EAEn egindako inbertsioaren %2,3rekin eta Estatuan sektore horretan egindako inbertsio osoaren %5,5ekin.

Zerbitzu sektorean egindako inbertsioen artean, halaber, aipagarriak dira Garraioak eta Komunikazioak deritzon egindakoak; horiek sakonago aztertuta ikusten denez, itsasoko garraioan egindako inbertsioak dira.

Lurraldearen ikuspegitik begirata, inbertsioaren *azken* titularrak bizi den herria, kasu guztien %54,6an, EB-15ean dago (725,9 milioi euro); dena den, 2007an, inbertsio horiek garrantzia galdu dute, guztizkoari dagokionez, beste herri batzuen mesedetan; adibidez, India (591,8 milioi euroko inbertsioa).

III.2.6. GRAFIKOA. ATZERRIKO INBERTSIO GORDINA* EAEn



*ABDE barik. Iturria: Kanpoko Inbertsioen Erregistroa

III.2.7. KOADROA. ATZERRIKO INBERTSIO GORDINA* AAEE-TAN (EUROAK MILIOITAN)

	2003	2004	2005	2006	2007 b
GUZTIRA	9.716,7	8.870,2	13.687,5	9.751,1	28.849,1
EAE	135,8	290,4	190,4	304,1	1.329,7
Andaluzia	261,1	312,9	304,0	239,0	229,6
Aragoi	52,4	43,4	57,1	91,4	207,0
Kantabria	0,7	24,7	1,1	4,5	10,0
Gaztela eta Leon	10,1	3,0	20,8	35,7	23,0
Gaztela-Mantxa	32,5	28,4	18,1	250,6	22,0
Katalunia	1.305,7	1.535,9	2.211,4	2.577,5	2.521,4
Madril	6.159,4	3.495,9	3.958,7	4.150,8	22.242,6
Valentzia	260,9	682,4	218,6	162,6	1.729,1
Extremadura	93,8	3,8	8,9	3,9	3,7
Galizia	34,9	391,0	195,6	96,1	47,5
Balearrak	332,6	125,5	212,0	116,5	132,9
Kanariak	45,6	338,6	26,7	40,8	122,0
Errioxa	16,2	1,6	3,8	0,5	2,8
Nafarroa	12,4	21,4	11,3	136,5	9,6
Asturias	49,6	696,0	8,3	32,6	8,3
Murtzia	875,7	323,5	41,5	113,3	39,8
Ceuta eta Melilla	6,1	16,7	5,4	8,9	2,6
Esleipen barik	31,3	535,2	6.193,8	1.385,6	165,3

* ABDE izan ezik.

Iturria: Kanpoko Inbertsioen Erregistroa. Ekonomia eta Ogasun Ministerioa

III.2.8. KOADROA. EAE-KO INBERTSIO GORDINA * SEKTOREAREN ETA HERRIAREN ARABERA (€-AK MILATAN)

		2005	2006	2007 b	ESTATUA 2007 p	EAEko ba- naket.	Estat. %	05-06ko %	06-07ko %
Nek., Abeltz., Ehiza, Basog. eta Arr.		7,0	1.257,2	1,2	58.254,6	0,0	0,0	17.860,6	-99,9
Elektr., gas eta ur. ekoizp. eta banak.		8.045,4	303,0	38,0	18.195.255,3	0,0	0,0	-96,2	-87,5
Erauzk. Industria, petrolioia fintzea		0,0	0,0	0,0	28.526,3	0,0	0,0	-	-
Janaria, Edaria eta Tabakoa		13,0	22.197,8	0,0	676.443,9	0,0	0,0	170.521,1	-100,0
Oihalgintza		0,0	80,0	0,0	18.948,2	0,0	0,0	-	-100,0
Papera, edizioa eta arte grafikoak		19.419,9	0,0	3,0	500.301,1	0,0	0,0	-100,0	-
Ind. Kim. eta kautxuaren eta plastikoen transformazioa		27.856,8	681,5	3,9	947.509,1	0,0	0,0	-97,6	-99,4
Metalurgia eta metalezko produktuen fabrikazioa		88.629,3	168.828,5	1.703,0	101.501,8	0,1	1,7	90,5	-99,0
Makineria eta ekip. mekanik. eraikuntza-industria		26.693,5	8.541,1	30.886,5	558.866,9	2,3	5,5	-68,0	261,6
Altzarien fabrik., eta beste manufaktura industria batzuk		3.198,4	280,0	3,8	3.164,0	0,0	0,1	-91,2	-98,7
Beste manufaktura batzuk		0,0	0,0	0,0	689.183,8	0,0	0,0	-	-
Eraikuntza		2.560,2	15,1	1.228.958,6	1.384.367,5	92,4	88,8	-99,4	8.122.561,0
Salmenta eta Merkataritza		658,3	15.615,0	7.671,6	448.585,2	0,6	1,7	2.271,9	-50,9
Ostalaritza		3,0	31,5	8,9	332.106,7	-	0,0	950,3	-71,7
Garraioa eta komunikazioak		34,2	7.823,2	9.403,4	666.520,8	0,7	1,4	22.808,5	20,2
Finantza-bitartekotza, banka eta aseguruak		31,4	47,4	5.541,7	1.906.423,0	0,4	0,3	51,0	11.598,6
Higiezinak eta zerbitzuak		12.987,0	78.266,9	45.503,5	1.932.778,8	3,4	2,4	502,7	-41,9
Beste batzuk		250,7	124,2	6,1	400.313,8	0,0	0,0	-50,5	-95,1
Inbertsioa guztira		190.388,2	304.092,5	1.329.733,1	28.849.050,6	100,0	4,6	59,7	337,3
Inbertsioaren azken titularra bizi den herria	OCDE	185.001,6	115.132,2	734.814,6	27.383.179,6	55,3	2,7	-37,8	538,2
	EB-15	150.945,8	91.170,6	725.869,9	24.371.684,2	54,6	3,0	-39,6	696,2
	EB-27	150.949,4	91.179,7	726.085,3	24.392.411,5	54,6	3,0	-39,6	696,3
	IPAR AMERIKA	33.716,9	3.903,0	5.541,7	1.906.099,8	0,4	0,3	-88,4	42,0
	KANADA	-	-	-	58.953,9	0,0	0,0	-	-
	AEB	33.716,90	3.903,0	5.541,7	1.847.145,9	0,4	0,3	-88,4	42,0
	AMERIKA LATIN.	4.146,90	188.557,3	2.502,9	845.204,3	0,2	0,3	4.446,9	-98,7
	ARGENTINA	1.215,10	-	199,0	4.963,1	0,0	4,0	-100,0	
	BRASIL	2.791,20	166.208,0	770,0	8.760,3	0,1	8,8	5.854,7	-99,5
	TXILE	100,0	24,0	-	1.160,8	0,0	0,0	-76,0	-100,0
	MEXIKO	16,5	13,0	1.376,8	726.185,1	0,1	0,2	-21,2	10.482,3
	ASIA ETA OZEAN.	4,6	1.463,4	592.465,2	1.177.356,3	44,6	50,3	31.992,1	-
	TXINA	-	-	477,5	1.584,5	0,0	30,1	-	-
	INDIA	-	-	591.849,8	602.102,2	44,5	98,3	-	100,0
	JAPONIA	0,0	1.329,30	-	31.256,9	0,0	0,0	100,0	-100,0
	AFRIKA	914,9	1,5	-	113.217,4	0,0	0,0	-99,8	-100,0
ZERGA PARADISUAK		338,9	408,4	1.244,4	155.507,5	0,1	0,8	20,5	204,7

(*)Inbertsio gordina ABDE barik. b. Behin-behineko datuak.

Iturria: Kanpoko Inbertsioen Erregistroa. Ekonomia Ministerioa, Industria, Turismo eta Merkataritza Ministerioaren weben.

EB-15eko herri inbertitzaile nagusiak Luxenburgoko (475,7 milioi euro), Espainia (102,1 milioi euro), Herbehereak (17,8 milioi euro) eta Frantzia (14,7 milioi euro) dira.

Aipagarria da Indiak azken herri inbertitzailetzat duen lekua (bertako inbertsio osoa eraikuntza-sektorerara bideratu da, hain zuzen ere, eraikuntza orokorrera, eraikinetara eta obra berezira). Azterketa sakonagoa eginez ikusten denaren arabera, egoitza Luxenburgon duten konpainiek egindako inbertsio-eragiketa da, eta kapitalaren zatirik handiena (inbertsioaren *azken* titularra bizi den herria aintzat hartuta) Luxenburgokoa eta Indiakoa da.

EA Eren inbertsioa atzerrian

EAEk atzerrian egindako inbertsioak, ABDEak kenduta, hazkunde handia izan du, eta 2.550,79 milioi eurotik

28.166,46 milioi eurora igaro da, 2006tik 2007ra. Estatu osokoa ere hazi egin da, eta 54.418,6 milioi eurotik 80.252,31 milioi eurora igaro da.

Aurreko urtean ez bezala (EAE Estatuko laugarren autonomia-erkidegoa izan baitzen, kanpoko inbertsioan, Madril, Kataluniaren eta Kantabriaren atzetik), 2007an lehenengo autonomia-erkidegoa izan da; atzetik Kantabria 21.206,58 milioirekin⁷, Madril 20.624,15 milioirekin eta Katalunia 6.634,91 milioirekin egon dira.

Horrela, EAEk atzerrian egindako inbertsioa Estatuko inbertsio osoaren %4,3 izatetik (Madril kenduta %16,3) %35,1ekoa izatera igaro da (Madril kenduta %47,2), 2006tik 2007ra. Eta Madril inbertsio guztiaren %73,6tik %25,7ra igaro da.

Sektoreka, eta energia-sektorea alde batera utzita, garrantzitsuenak honako hauek izan dira: Higiezin

III.2.9. KOADROA. ATZERRIAN EGINDAKO INBERTSIO GORDINA, AAEE-N ARABERA (EUROAK MILIOITAN)


	2003	2004	2005	2006	2007 b
GUZTIRA	19.653,35	37.668,10	30.395,63	59.418,30	80.252,31
EAE	731,14	3.745,16	1.557,93	2.550,79	28.166,46
Andaluzia	57,41	157,40	767,71	421,19	398,40
Aragoi	60,65	4,84	65,83	78,71	149,75
Kantabria	574,62	13.058,23	169,80	4.573,39	21.206,58
Gaztela eta Leon	68,16	50,67	186,17	29,04	51,33
Gaztela-Mantxa	14,20	4,40	48,98	9,33	134,62
Katalunia	4.649,10	5.117,38	2.863,28	5.882,87	6.634,91
Madril	11.883,93	14.784,06	22.880,96	43.734,17	20.624,15
Valentzia	97,89	107,12	186,87	116,65	384,47
Extremadura	2,46	1,50	4,84	10,22	129,10
Galizia	204,42	497,79	1.149,21	1.086,24	919,57
Balearrak	587,30	36,64	290,03	382,34	1.319,33
Kanariak	9,04	11,89	1,06	69,14	3,40
Errioxa	2,72	6,17	0,53	4,30	0,68
Nafarroa	27,13	35,35	79,28	206,49	11,72
Asturias	61,28	1,96	5,48	120,39	13,52
Murtzia	621,91	47,52	137,68	143,05	104,32

* ABDE barik.

Iturria: Kanpoko Inbertsioen Erregistroa. Ekonomia eta Ogasun Ministerioa

⁷ Inbertsioa bananduta ikusten denez, horren %99,5 Banka eta beste finantza-bitartekari batzuk sektorekoa da (65)

III.2.7. GRAFIKOA. EAE-REN INBERTSIO GORDINA ATZERRIAN



*ABDE barik. Iturria: Kanpoko Inbertsioen Erregistroa

Agenteak eta Zerbitzuak, hain zuzen ere, "beste enpresa-jarduera batzuk" jarduera-adarra (EAEren kanpoko inbertsioaren %26,6 eta Estatuan sektore horretan egindako kanpoko inbertsioaren %29,5); eta Banka eta finantza-bitartekotza (EAEren kanpoko inbertsioaren %4,1 eta Estatuan sektore horretan egindako kanpoko inbertsioaren %5).

Bigarren taldean, erauzketa-industria, petrolioaren fintzea (EAEk kanpoan egindako inbertsioaren %0,3 eta Estatuan sektore horretan egindako %59) eta makineriaren nahiz ekipamendu mekanikoaren eraikuntza-industria (EAEk kanpoan egindako inbertsioaren %0,2) sartzen dira. Hirugarren taldean, azkenik, industria kimikoa eta kautxuaren eta plastikoen transformazio sartzen da

(EAEk kanpoan egiten duen inbertsioaren %0,1 eta estatuan sektore horretan egindakoaren %2,1), baita oihalgintza ere (EAEk kanpoan egindako inbertsioaren %0,1 eta Estatuan sektore horretan egindakoaren %8,5).

EAEk kanpora egindako inbertsioaren jasotzaile nagusiak EB-15eko herriak dira, gure erkidegoak kanpora egindako inbertsio osoaren %67rekin (kide berriak %0,1era baino ez dira heltzen), baita AEB ere, EAEk kanpoan egindako inbertsio osoaren %29,6rekin. EB-15en barruan, herri jasotzaile nagusiak honako hauek dira: Erresuma Batua (inbertsio osoaren %64,03 18.034,5 milioi euro), Alemania (inbertsioaren %1,33 375,5 milioi euro), Grezia (inbertsioaren %0,91 255 milioi) eta Herbehereak (inbertsioaren %0,33 171,6 milioi).

III.2.10. KOADROA. EAE-REN INBERTSIO GORDINA* ATZERRIAN, SEKTOREAREN ETA HERRIAREN ARABERA (€-AK MILATAN)

		2005	2006	2007 b	ESTATUA 2007 b	Banaketa EAE	EstaT. %	05-06ko %	06-07ko %
Pertsona fisikoak (jard. sek. barik)		94,5	4.391,0	5,1	398.777,7	0,0	0,0	4.546,1	-99,9
Nek., Abeltz., Ehiza, Basog. eta Arr.		0,0	0,0	0,0	89.813,5	0,0	0,0	-	-
Elektr. gas eta ur. ekoizp. eta banak.		2.324,0	453.300,0	19.288.849,9	19.674.596,7	68,5	98,0	19.405,2	4.155,2
Erauzk. Industria, petrolioia fintzea		0,0	0,0	79.309,1	134.338,3	0,3	59,0	-	-
Janaria, Edaria eta Tabakoa		61,0	767,4	3.946,6	797.549,6	0,0	0,5	1.158,0	414,3
Oihalgintza		73.000,0	85.726,5	20.057,3	236.438,7	0,1	8,5	17,4	-
Papera, edizioa eta arte grafikoak		857,0	0,0	0,0	27.793,4	0,0	0,0	100,0	-
Ind. Kim. eta kautxuaren eta plastikoen transformazioa		6.113,9	2.476,3	26.043,3	1.253.591,2	0,1	2,1	-59,5	951,7
Metalurgia eta metalezko produktuen fabrikazioa		204.978,9	4.393,0	3.645,7	11.891,2	0,0	30,7	-97,9	-17,0
Makineria eta ekip. mekanik. eraikuntza-industria		286.382,5	140.486,5	67.547,3	1.593.406,8	0,2	4,2	-50,9	-51,9
Altzarien fabrik., eta beste manufaktura industria batzuk		0,0	0,0	0,0	419,1	0,0	0,0	100,0	-
Beste manufaktura batzuk		6,7	17.817,0	4.802,8	1.028.171,5	0,0	0,5	264.639,2	-73,0
Eraikuntza		5.107,0	5,9	78,8	277.588,5	0,0	0,0	-99,9	1.225,8
Salmenta eta Merkataritza		12.098,4	12.318,0	5.678,2	849.853,2	0,0	0,7	1,8	-53,9
Ostalaritza		0,0	0,0	0,0	76.534,9	0,0	0,0	-	-
Garraioa eta komunikazioak		1,1	13.726,5	10.153,3	3.808.609,6	0,0	0,3	1.214.633,6	-26,0
Finantza-bitartekotza, banka eta aseguruak		800.108,6	1.707.369,8	1.152.944,2	23.148.430,8	4,1	5,0	113,4	-32,5
Higiezinak eta zerbitzuak		163.235,0	108.009,8	7.503.396,3	26.733.112,5	26,6	28,1	-33,8	6.847,0
Beste batzuk		3.557,3	0,0	0,0	111.390,3	0,0	0,0	100,0	3.557,3
Inbertsioa guztira		1.557.925,8	2.550.787,6	28.166.457,9	80.252.307,3	100,0	35,1	63,7	1.004,2
Inbertsioaren herria	OCDE	1.484.526,4	2.482.958,6	27.557.500,1	76.433.598,3	97,8	36,1	67,3	1.009,9
	EB-15	684.511,1	640.855,9	18.859.449,9	53.812.864,5	67,0	35,0	-6,4	2.842,9
	EB-27	696.852,4	671.026,0	18.904.570,0	62.655.713,0	67,1	30,2	-3,7	2.717,3
	IPAR AMERIKA	688.813,4	1.685.203,5	8.350.840,0	9.244.910,5	29,6	90,3	144,7	395,5
	KANADA	-	-	-	79.929,0	0,0	0,0	-	-
	AEB	688.813,4	1.685.203,5	8.350.840,0	9.164.981,5	29,6	91,1	144,7	395,5
	AMERIKA LATIN.	138.078,0	160.632,6	153.123,0	4.533.369,1	0,5	3,4	16,3	-4,7
	ARGENTINA	43.728,9	1.224,2	47.401,9	422.529,0	0,2	11,2	-97,2	3.772,1
	BRASIL	11.980,0	8.773,6	31.400,6	1.370.605,6	0,1	2,3	-26,8	257,9
	TXILE	5.924,2	-	5.965,4	138.886,5	0,0	4,3	100,0	-
	MEXIKO	76.111,7	133.255,7	43.224,2	2.211.700,5	0,2	2,0	101,0	-67,6
	ASIA ETA OZEAN.	29.079,3	18.754,0	494.643,3	1.684.474,0	1,8	29,4	-35,5	2.537,5
	TXINA	1.161,0	6.798,0	493.749,8	595.351,5	1,8	82,9	485,5	7.163,1
	INDIA	-	84,1	214,9	9.322,6	0,0	2,3	-	155,5
	JAPONIA	24.886,9	-	-	28.437,0	0,0	0,0	-100,0	-
	AFRIKA	2.510,2	5.579,1	-	220.362,4	0,0	0,0	122,3	-100,0
ZERGA PARADISUAK	2.686,7	11.014,8	-	204.872,9	0,0	0,0	310,0	-100,0	


(*)Inbertsio gordina ABDE barik. b. Behin-behineko datuak.

Iturria: Kanpoko Inbertsioen Erregistroa. Ekonomia Ministerioa, Industria, Turismo eta Merkataritza Ministerioaren weben

3

Sektore Publikoa EAEn

III.3.1. GRAFIKOA. EAE-ko SEKTORE PUBLIKOAREN MAGNITUDE NAGUSIEN BILAKAERA, BPG-RI DAGOKIONEZ



Iturria: Eusko Jaurlaritzako datuetan oinarrituz eginda

EAEko sektore publikoko jarduerari dagokionez, 2007an %10,5eko hazkunde handia egon da diru-sarrera publikoetan, aurreko urteko %8,2ko hazkunde baino handiagoa, batez ere zuzeneko zergetan (%+17,3) eta, neurri txikian, zeharkakoetan (%+3,3) egon diren hazkundeek esker; horrela, EAEko sektore publikoaren diru-sarreraren multzoak zazpi hamarreneko hazkunde izan du BPGri dagokionez, eta 2006ko %21,6tik 2007ko %22,3ra igaro da.

Bestalde, EAEko Sektore Publikoko gastu osoak %9,5eko hazkunde izan du, aurreko urtean baino hama-

ren bat gutxiago; hazkundera nabarmenagoa izan da Eusko Jaurlaritzan (%+10,5) Foru Aldundietan baino (%+8,5); horrela, magnitude horrek BPGri dagokionez adierazten duen ehunekoa lau hamarren hazi da, aurreko urtetik, eta %20,9koa da. Horrenbestez, diru-sarrerek gastuak baino hazkunde handiagoa izatearen ondorioz (eragiketa korronteetan, kapital-eragiketetan ez baita gauza bera gertatu), aurrezpen publikoak %8,9ko hazkunde izan du (2006an %+13,1), eta administrazioen multzoaren superabit publikoa ere hazi egin da: 2004ko BPGren %0,7tik 2005eko %1,5era, 2006ko %1,9ra eta 2007ko %2ra.

EAEko sektore publikoaren multzo osoaren zorpetze publikoa (Toki Erakundeak izan ezik), berriz, murriztu egin da 2007an, bigarren urtez jarraian, eta urte amaieran zor bizia 2.586 milioi eurokoa izan da, 2006koa baino %8,1 txikiagoa.

3.1. Diru-sarrerak

Eusko Jaurlaritzak eta hiru Foru Aldundiek likidaturiko diru-sarrera osoak (14.773.380 mila euro) %10,5eko hazkundea izan du 2007an, eta aurreko urtekoa baino 2,3 puntu handiagoa izan da, batez ere zuzeneko zergetan egon diren hazkunde handien ondorioz (%17,3); izan ere, zeharkakoekin batera, administrazio horien diru-sarrera osoen %93 dira.

Hazkunde gogorreko beste kapitulu bat, EAEko Sektore Publiko osoko diru-sarreretan garrantzi txikiagoa izan arren, transferentzia arruntena (%+86) eta ondareko diru-sarrerena (%+39,8) da; horren ostean, tasak eta beste diru-sarrera batzuk datoz (%+35,7). Aldiz, kapital-eragiketak murriztu egin dira, bai kapital-transferentziak (%-27,6) eta bai inbertsio errealen besterentzeak (%-72,6). Era berean, finantzako diru-sarrerak ere %44,7ko murriztapena izan dute (2006an %62,8ko murriztapena), eta aurreko urteetako murriztapen-joerari eutsi diote, zor-jaulkipen txikiagoaren ondorioz. Azkenik, zeharkako zergek %3,3ko hazkundea baino ez dute izan, azken sei urteetako hazkunderik txikiena.


Azken batan, EAEko Sektore Publikoko diru-sarreraren multzoa, bertako BPGri dagokionez, 2003ko %20,7tik, 2004ko %21era, 2005eko %21,5era, 2006ko %21,6ra eta 2007ko %22,3ra igaro da. Eusko Jaurlaritzak BPGren %13,6ko diru-sarrera izan du, eta Foru Aldundiek, berriz, %22,2koa.

Lurraldeka, 2006an (hiru Foru Aldundien informazio ofizial banandua eskaintzen duen azken urtea) aipatzekoa izan zen Bizkaiko Foru Aldundiaren diru-sarreraren %12,1eko handitzea, zuzeneko eta zeharkako zergapetzeak izandako bilakaera hobearen ondorioz; Gipuzkoakoak (%+11,6) eta Arabakoak (%+10,2), bestalde, hazkunde txikiagoak izan zituzten.

Zerga Itunduen bilketari dagokionez (zuzeneko eta zeharkako zergen multzoa eta guztizkoaren %90 baino gehiago osatzen dutenak), 2007rako behin-behineko datuen arabera, %9,7ko hazkundea egon da 2006ari dagokionez; hain zuzen ere, zuzeneko zergek batez bestekotik gorako hazkundea izan dute (%13,6), bai PFEZk (%13,6) eta bai sozietateen nahiz ondarearen zergek (hurrenez hurren, %20,2 eta %21,4). Zeharkako zergen bilketak (bildutako guztizkoaren erdia), bestalde, %3,3ko hazkundea izan du (BEZ osoa %+3,5, eta bertan kudeaturiko zatiak %5,7); tasek eta beste diru-sarrera batzuek (horien bilketa guztizkoaren %1), berriz, %14,3ko hazkundea izan dute.

Azken batean, bildutako bolumen osoa 13.772 milioi eurokoa da, hain zuzen ere, EAEko 2007ko BPGren %20,8 (2006an %20,3). Bildutako zenbatekoaren %31 PFEZri dagokio, %35,1 BEZi (bertan kudeaturikoa eta barruko nahiz aduanetako eragiketen egokitzapenak), %14,8 Sozietateen gaineko Zergari eta gainerako %19,1 Zerga Bereziei.

III.3.2. GRAFIKOA. EUSKO JAURLARITZAREN ETA FORU ALDUNDIEN DIRU-SARREREN BILAKAERA, BPG-RI DAGOKIONEZ (%)



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren eta EUSTATen datuetan oinarrituz eginda

III.3.1. KOADROA. EAE-KO SEKTORE PUBLIKOKO DIRU-SARREREN LIKIDAZIOA. 2005-2006. (EUROAK MILATAN)

	2006			2007			Aldak. % 2006-07		
	EJ	FFAA	SP	EJ	FFAA	SP	EJ	FFAA	SP
DIRU-SARRERAK GUZT.	8.247.648	13.338.529	13.368.735	8.998.569	14.711.349	14.773.380	9,1	10,3	10,5
Zuzeneko zergak	-	5.748.225	5.748.225	-	6.742.758	6.742.758	-	17,3	17,3
Zeharkako zergak	6.422	6.762.176	6.768.598	6.263	6.988.136	6.994.400	-2,5	3,3	3,3
Tasak eta beste diru-sarrera batzuk	135.370	205.794	341.164	151.561	311.380	462.942	12,0	51,3	35,7
Transferentzia korranteak	7.984.065	300.561	150.139	8.699.954	456.661	279.275	9,0	51,9	86
Ondareko diru-sarrerak	57.342	41.024	98.366	87.012	50.542	137.554	51,7	23,2	39,8
Inberts. errealen besterentz.	1.116	11.293	12.410	528	2.876	3.405	-52,7	-74,5	-72,6
Kapital-trasferentziak	48.856	121.059	86.958	42.720	79.476	62.999	-12,6	-34,3	-27,6
FIN. EZ DIREN D-S GUZT.	8.233.171	13.190.132	13.205.860	8.988.038	14.631.829	14.683.333	9,2	10,9	11,2
Finantza aktiboen aldaketa	14.479	21.181	35.660	10.530	20.519	31.049	-27,3	-3,1	-12,9
Fin. pasiboen aldak. (zorria)	-	127.215	127.215	-	59.000	59.000	-	-53,6	-53,6
FIN DIRU-SARRERAK GUZT.	14.479	148.396	162.875	10.530	79.519	90.049	-27,3	-46,4	-44,7
DIRU-SARRERAK %/ BPG	13,35	21,6	21,64	13,57	22,19	22,28	1,6	2,7	2,9

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Aurrekontu Beteazapenaren Estatistika.

275

III.3.2. KOADROA. FORU ALDUNDIAK: ZUZENKO ETA ZEHARKAKO ZERGEN ERAGINEZKO DIRU-SARREREN LIKIDAZIOA. (EUROAK MILATAN)

	ARABA		BIZKAIA		GIPUZKOA		FFAA GUZTIRA	
	ZUZENKOAK	ZEARK.	ZUZENKOAK	ZEARK.	ZUZENKOAK	ZEARK.	ZUZENKOAK	ZEARK.
2000	591.081	694.835	1.934.718	2.187.969	1.168.896	1.396.367	3.694.695	4.279.171
2001	622.881	720.074	2.063.386	2.116.194	1.234.710	1.424.338	3.920.977	4.260.606
2002	652.444	781.103	2.139.690	2.186.585	1.312.127	1.519.033	4.104.261	4.486.721
2003	660.512	818.995	2.171.351	2.414.507	1.381.476	1.644.585	4.213.339	4.878.087
2004	711.438	958.821	2.262.421	2.703.629	1.405.910	1.816.043	4.379.769	5.478.493
2005	818.845	1.023.691	2.660.239	3.091.806	1.603.713	1.977.315	5.082.797	6.092.812
2006	912.856	1.102.212	3.020.511	3.486.695	1.793.349	2.154.056	5.726.715	6.742.964

Iturria: Zerga Koordinazioko Erakundea

Diru-sarreraren murriztapena izan duten partidei dago-kienez, 2006ko aurrekontuan (informazio zehatzeko azken urtea) jasotako zerga-gastua¹ (hau da, zergetan eta Foru Aldundien ekarpenetan salbuespenak, gastu murrizga-riak, murriztapenak, kenkariak, hobariak, etab. kontabili-

zaturiko zergetan eragina duten zerga-hobarien zenbate-koak) 5.793,5 milioi eurokoa izan da, 2005ean baino milioi erdi gutxiago; hain zuzen ere, halakoetarako itundutako zergeta lotuta aurreikusitako diru-sarreraren %34,2 (hau da, aurrekontuan jasotako diru-sarrerak gehi zenbatetsitako

¹ Zerga-gastua kontzeptuak, ogasun-doktrinaren, gehienek onarturiko definizio argirik eduki ez arren, zerga-gastuen aurrekontua hauxe dela esan daiteke: zergako diru-sarreraren murriztapenaren aurreikuspenaren kuantifikazioa, ekonomia- eta gizarte-politikako helburu jakinak lortzeko zerga-hobariak aplikatzearen ondorioz. OCDEk emandako definizioaren arabera, zergaren "ohiko" egituraren edozein desbideratze izan daiteke. Ohikoenak eta gehien erabiltzen direnak zerga-oinarriko murriztapenak dira, baita kuotako murriztapenak ere.

III.3.3. KOADROA. EAE-ko Foru Aldundiek egindako Zerga itunduen bilketa (Euroak milatan)

	EAE 2006	2007				% bertik. 2007	Aldak. % 2006-07
		AFA	BFA	GFA	EAE		
ZERGA ITUNDUAK GUZTIRA	12.552.300	2.205.853	7.198.712	4.367.558	13.772.123	100,0	9,7
ZUZENENKO ZERGAK	5.720.551	1.049.620	3.615.344	2.041.773	6.706.737	48,7	17,2
ERRENTA GAINENKO ZUZENENKO ZERGAK	5.517.134	1.024.662	3.481.021	1.970.594	6.476.276	47,0	17,4
PFEZ	3.754.206	680.911	2.177.860	1.407.534	4.266.304	31,0	13,6
Lanaren eta Lanb. Jard. Atxikipenak	3.755.029	665.689	2.066.591	1.308.456	4.040.736	29,3	7,6
Higig. Errend. Atxikipenak	151.843	31.961	117.721	87.529	237.211	1,7	56,2
Kap. Higiezinaren Atxikipenak	32.733	9.091	10.816	21.680	41.587	0,3	27,0
Ondare Irabazien Atxikipenak	21.167	5.087	22.727	12.440	40.254	0,3	90,2
Prof. eta Enpr. Zat. Ordainketak	174.584	30.627	78.959	72.057	181.643	1,3	4,0
Kuota diferentziak garbia	381.149	61.543	118.955	94.629	275.128	2,0	-27,8
Sozietateak	1.692.381	334.621	1.143.380	556.170	2.034.171	14,8	20,2
Ez-egoil. Errent. gaineko Zerga	70.547	9.130	159.781	6.890	175.801	1,3	149,2
KAPITAL GAINENKO ZUZENENKO ZERGA	203.416	24.958	134.323	71.179	230.461	1,7	13,3
Oinordetzak eta dohaintzak	76.347	8.410	45.631	22.123	76.164	0,6	-0,2
Ondarea	127.069	16.548	88.692	49.056	154.297	1,1	21,4
ZEHARKAKO ZERGAK	6.725.922	1.145.032	3.513.575	2.288.312	6.946.919	50,4	3,3
BEZ	4.673.824	816.558	2.426.454	1.594.417	4.837.429	35,1	3,5
Bertako kudeaketa	3.464.922	617.992	1.836.401	1.206.694	3.661.087	26,6	5,7
Atxikipena	1.208.903	198.566	590.053	387.722	1.176.342	8,5	-2,7
OEZ ²	367.946	38.504	214.140	119.484	372.128	2,7	1,1
EJDZ ³	136.604	21.828	64.899	48.140	134.867	1,0	-1,3
Garraioa	70.351	12.568	41.321	23.112	77.001	0,6	9,5
Fabrikazioa	1.355.166	235.331	699.302	459.509	1.394.142	10,1	2,9
Hidrokarburoak	50.091	8.770	26.062	17.125	51.957	0,4	3,7
Aseguruko Primak	71.940	11.472	40.618	26.031	78.121	0,6	8,6
TASAK ETA BESTE D-S BATZUK	103.646	11.200	69.793	37.474	118.466	0,9	14,3
Jokoaren gaineko tasak	68.918	8.273	41.325	19.141	68.738	0,5	-0,3
Errekarguak, berandutzeak eta zehap.	34.728	2.928	28.468	18.333	49.728	0,4	43,2

Iturria: Ekonomia eta Planifikazio Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritza

² Ondare Eskualdaketen gaineko Zerga³ Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga

III.3.4. KOADROA. ZERGA ITUNDUEN ERAGINEZKO ZERGA GASTUAK. AURREIKUSITAKO DIRU-SARRERA TEORIKOEKIKO GARRANTZIA. (EUROAK MILATAN)

	2004	2005	2006				ALD. % 2005/06	D.-SARR. %	
			ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	EAE		2005	2006
PFEZ	1.666.858	1.763.508	277.107	988.689	603.531	1.869.327	6,0	35,1	34,5
Ondasun gaineko Zerga	130.465	124.618	13.486	70.569	41.788	125.843	1,0	56,2	52,7
Sozietate gaineko Zerga	510.830	514.773	108.368	244.088	173.048	525.504	2,1	30,5	27,3
BEZ*	531.625	2.524.063	501.691	1.485.205	949.319	2.936.215	16,3	40,0	41,5
OE-EJDZ	64.092	76.427	47.939	27.479	32.286	107.704	40,9	15,7	20,2
Garraio gaineko Zerga		21.041	3.209	10.233	5.866	19.308	-8,2	23,7	22
Fabrikazio gaineko Zerga	164.824	159.782	31.226	97.063	62.931	191.220	19,7	11,4	12,5
Hidrokarburo gaineko Zerga		3.939	298	3.143	586	4.027	2,2	7,8	7,3
Aseg. Prim. gaineko Zerga	13.904	14.001	2.346	7.293	4.728	14.367	2,6	17,0	16,0
GUZTIRA	3.116.831	5.307.870	985.671	2.933.761	1.874.083	5.793.515	9,1	34,3	34,2

Iturria: Zerga Koordinazioko Erakundeko datuetan oinarrituz eginda

(*)BEZen eraginezko zerga-gastuak 2005ean izandako hazkunde garrantzitsua hobekuntza metodologikoen ondoriozkoa da, batez ere salbuetsitako eragiketen zenbatespena aintzat hartzearen eta batez besteko tasa haztatu txikiagoa erabiltzearen ondoriozkoa.

zerga-gastuak). Zerga-gastuen %45,4 (2.628,4 milioi) araudi autonomoak itundutako zergei dagokie. Aurreikusitako diru-sarrera teorikoen gaineko zerga-gastuaren portzio handiagoa, gainera, ondarearen gaineko zergari dagokio (azken gastuaren ratioa %52,7koa), eta horren ostean BEZ (zerga-gastuaren %41,5) eta PFEZ (%34,5) datoz.

3.2. Gastuak

EAEko Sektore Publikoko gastua 13.889.462 mila eurokoa da (Toki Erakundeak aintzat hartu barik), eta %9,5eko hazkundera izan du 2007an, aurreko urtean baino hamarren bat gutxiago (diru-sarrerek izandako hazkundera baino puntu bat gutxiago); horrela, magnitude horrek BPGri dagokionez duen ehunekoa lau hamarren hazi da, aurreko urtekoari dagokionez, eta %20,5etik %20,9ra igaro da.

Gastuaren hazkundera, urte honetan, txikiagoa izan da Aldundien artean: %8,5 (2006an %12,9). Eusko Jaurlaritzan, berriz, %10,5ekoa izan da (2006an %6,3). Horren bestez, gastu publikoak BPGri dagokionez duen ratioa


%21,3tik %21,5era igaro da Foru Aldundietarako, eta %12,6tik %12,9ra Eusko Jaurlaritzarako.

EAEko Sektore Publikoaren multzo osoko gastuaren kapituluetan, aldaketa nagusiak ez dira oso desberdinak aurreko urtekoetatik. Batez bestekotik gorako hazkundeak egon dira funtzionamendu-gastuetan (%+12,6), kapital-transferentzietan (%11,8) eta inbertsio errealetan (%10,4). Horien atzetik, batez bestekotik beherako hazkundeekin, langileria-gastuak daude (%8,1). Aldiz, murriztu egin dira finantza-gastuak (%-20,5) eta zorraren amortizazioa (%21,4ko murriztapena 2006ari dagokionez).

Eusko Jaurlaritzaren gastuari dagokionez, 2007ko likidazioak %10,5eko hazkundera adierazten du, eta gorakada itzelak egon dira Herri Lan eta Garraioan (%+45,7), Industria, Merkataritza eta Turismoan (%+16,2), Lehendakariordetzan (%+22) eta Lehendakaritzan (%17,5). Gastuaren bolumena aintzat hartuta garrantzitsuenak diren bi sailek, Hezkuntza, Unibertsitatea eta Ikerketa Sailak (guztizkoaren %28) eta Osasun Sailak (%34,1), hurrenez hurren, %12,3ko eta %11,2ko hazkundera izan dute, batez bestekoa baino apur bat handiagoa.

Gainerako sailetan gastuak hazkunde txikiagoak edo murriztapenak izan ditu; esate baterako, Ogasun eta Herri

III.3.3. GRAFIKOA. EAE-KO GASTU PUBLIKOAK BPG-RI DAGOKIONEZ IZANDAKO BILAKAERA



Iturria: Eusko Jaurlaritzako datuetan oinarrituz eginda

278

III.3.5. KOADROA. EAE-KO SEKTORE PUBLIKOKO GASTUEN LIKIDAZIOA. 2006-07. (EUROAK MILATAN)

	2006			2007			Aldak. % 2006-07		
	EJ	FFAA	SP	EJ	FFAA.	SP	EJ	FFAA	SP
GASTUA GUZTIRA	7.770.938	13.126.107	12.680.144	8.584.886	14.241.115	13.889.462	10,5	8,5	9,5
Langileria-gastuak	1.553.899	291.884	1.845.784	1.688.304	306.835	1.995.139	8,6	5,1	8,1
Funtzionamendu-gastuak	2.461.989	312.559	2.774.548	2.751.918	373.490	3.125.408	11,8	19,5	12,6
Finantza-gastuak (interesak)	42.363	51.170	94.073	29.128	45.658	74.786	-31,2	-10,8	-20,5
Transferentzia korranteak	2.480.230	11.387.376	5.733.120	2.718.063	12.471.534	6.312.256	9,6	9,5	10,1
Inbertsio errealak	280.434	532.763	813.197	316.100	581.502	897.602	12,7	9,1	10,4
Kapital-transferentziak	634.024	238.252	789.319	679.755	261.974	882.531	7,2	10,0	11,8
FIN. EZ DIREN GASTUAK GUZTIRA	7.452.939	12.814.004	12.050.041	8.183.268	14.040.993	13.287.722	9,8	9,6	10,3
Finantza-aktiboaren aldaketa	134.817	130.931	265.749	185.102	130.396	315.497	37,3	-0,4	18,7
Fin.-pasib. aldaketa (Amort. zorra)	183.182	181.172	364.354	216.516	69.727	286.242	18,2	-61,5	-21,4
FINANTZA GASTUAK GUZTIRA	317.999	312.103	630.103	401.617	200.122	601.739	26,3	-35,9	-4,5
LIKID. GASTUAREN % / BPG	12,6	21,3	20,5	12,9	21,5	20,9	2,9	1,1	2,0

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Aurrekontu Betearazpenaren Estatistika

Administrazio Sailean (%-1,6). Gainera, aipagarria da Kooperatiben Goi Kontseiluak izandako hazkundeak (%22,7) eta 2004-2007ko Ekonomia eta Gizarte Inbertsioen Egitamua Bereziak⁴ izandako murriztapena (%-47,8, 2006ko %-58,6ren ostean, 2004an eta 2005ean egindako inbertsio garrantzitsuen ondorioz). Azkenik, Eusko Jaurlaritzan %7,8ko hazkundeak egon da, eta Lan Harremanetarako eta Gizarte eta Ekonomiako Kontseiluek batez bestekotik beharako hazkundeak izan dute, EAEko Kontuen Auzitegiaren kasuan bezala.

3.3. Aurrekontu saldoa

EAEko Sektore Publikoan, 2007an, diru-sarrerak gastuak baino hazkunde handiagoa izatearen eraginez (eragiketa korranteetan, kapital-eragiketetan ez baita halakorik gertatu), aurrezpen publikoak %16,9ko hazkundeak izan du

(2006an %21,9), eta 3.000 milioi euro baino gehiago izan dira; halaber, administrazioen multzoaren superabit publikoak ere hazi egin da, eta 2004an BPGren %0,7 izatetik, 2005eko %1,5era, 2006ko %1,9ra eta 2007ko %2,1era igaro da; guztira 1.396 milioi euro dira.

3.4. Sektore publikoaren zorpetzea

EAEko sektore publikoaren zorpetzea murriztu egin da 2007an, bigarren urtez jarraian, aurreko urteetan gertaturikoaren alderantziz. Urte amaieran, Eusko Jaurlaritzak eta Foru Aldundiek 2.586 milioi euroko zor-bolumena izan dute, 2006koa baino %8,1 txikiagoa (azken urte horretan %7,8ko murriztapena). Murriztapen hori Eusko Jaurlaritzan (%-11,7, eta zorpetze osoaren %60) eta Foru Aldundietan (%-1,1)

III.3.6. KOADROA. EAE-KO SEKTORE PUBLIKOKO AURREZPENAK ETA SUPERABITA. 2006-07. (EUROAK MILATAN)

	2006			2007			Aldak. % 2006-07		
	EJ	FFAA	SP	EJ	FFAA	SP	EJ	FFAA	SP
DIRU-SARRERAK GUZTIRA	8.247.649	13.338.529	13.368.735	8.998.569	14.711.349	14.773.380	9,1	10,3	10,5
Eragiketa korranteak	8.183.198	13.057.780	13.106.492	8.944.791	14.549.478	14.616.927	9,3	11,4	11,5
Kapital-eragiketak	49.972	132.352	99.368	43.249	82.352	66.403	-13,5	-37,8	-33,2
Finantza-eragiketak	14.479	148.397	162.875	10.530	79.519	90.049	-27,3	-46,4	-44,7
GASTUAK GUZTIRA	7.770.939	13.126.647	12.680.143	8.584.886	14.241.115	13.889.462	10,5	8,5	9,5
Eragiketa korranteak	6.538.482	12.043.529	10.447.524	7.187.413	13.197.516	11.507.589	9,9	9,6	10,1
Kapital-eragiketak	914.457	771.015	1.602.516	995.855	843.476	1.780.134	8,9	9,4	11,1
Finantza-eragiketak	318.000	312.103	630.103	401.617	200.122	601.739	26,3	-35,9	-4,5
AURREZPEN GORDIN.	1.644.716	1.014.251	2.658.968	1.757.378	1.351.962	3.109.338	6,8	33,3	16,9
FIN. GAIT./BEHARR.	780.231	375.588	1.155.820	804.772	590.838	1.395.607	3,1	57,3	20,7
Aurrezp. % / BPG	2,7	1,6	4,3	2,7	2	4,7	-0,5	24,2	8,9
Superabitaren % / BPG	1,3	0,6	1,9	1,2	0,9	2,1	-3,9	46,5	12,5

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Aurrekontu Beteazpenaren Estatistika

⁴ Ogasun eta Herri Administrazio Sailak sustaturiko egitamua; helburua zenbait arlotako azpiegiturarako inbertsio-proiektu batzuk finantzatzeko (gizarte eta kulturakoak, teknologikoak, energetikoak eta ingurumenekoak), Naturcorp Sozietatea pribatizatzekeo prozesua amaitzearen ondoriozko fondoekin (horren bidez, Eusko Jaurlaritzak 232,5 milioi euro lortu zituen).

gertatu da. Zor publikoaren jaulkipen osoak murriztapen handia izan du aurreko urtekoari dagokionez (%53,6), eta, datu erabilgarrietan adierazitakoaren arabera, Foru Aldundiei baino ez dagokie. Bestalde, amortizazioa 2006koa baino %21,4 txikiagoa izan da, gehienbat Foru Aldundien amortizazioa txikiagoa izatearen ondorioz.

Eusko Jaurlaritzak, 2007ko Aurrekontu Betearazpenaren Estatistikan adierazitakoaren arabera, urte honetan ez du zor-jaulkipenik egin (2006an ere ez)⁵; aldiz, 216,5 milioi amortizatu ditu, 2006an baino %18,2 gehiago; horrenbestez, zorraren saldo bizia zenbateko berean murriztu da urte amaieran. Horrela, 1.634 milioi euro dira eta murriztu egin

III.3.7. KOADROA. EUSKO JAURLARITZAREN GASTUAREN BILAKAERA, SAILEN ARABERA

	Euroak milatan				Banak. %	Aldaketaren %		
	2004	2005	2006	2007		04-05	05-06	06-07
GUZTIRA	6.725.309	7.312.911	7.770.938	8.584.886	100	8,7	6,3	10,5
Legebiltzarra	21.520	23.617	25.786	27.789	0,3	9,7	9,2	7,8
Gobernuko Lehendakaritza	18.789	20.510	23.111	27.159	0,3	9,2	12,7	17,5
Lehendakariordetza	10.357	12.553	13.861	16.912	0,2	21,2	10,4	22
Ogasuna eta Herri Administrazioa	161.509	171.829	188.429	185.433	2,2	6,4	9,7	-1,6
Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerketa	1.882.886	2.021.892	2.140.099	511.747	6,0	7,4	5,8	9,1
Herrizaingoa	528.255	526.690	555.618	617.932	7,2	-0,3	5,5	11,2
Industria, Merkataritza eta Turismoa	251.938	285.864	298.286	346.684	4,0	13,5	4,3	16,2
Etxebizitza eta Gizarte Gaiak	225.385	209.721	244.353	258.280	3,0	-6,9	16,5	5,7
Justizia, Lana eta Gizarte Segurantzza	363.555	410.777	469.077	2.403.160	28,0	13	14,2	12,3
Osasuna	2.226.584	2.421.574	2.632.903	2.926.682	34,1	8,8	8,7	11,2
Kultura	203.297	209.021	232.235	253.223	2,9	2,8	11,1	9,0
Lurralde Antolamendua eta Ingurumena	109.672	114.616	120.197	113.185	1,3	4,5	4,9	-5,8
Garraioak eta Herri Lanak	176.506	182.424	188.236	274.226	3,2	3,4	3,2	45,7
Nekazaritza eta Arrantza	177.899	190.704	173.916	187.613	2,2	7,2	-8,8	7,9
Ek. eta Gizarte Inbertsioen Egitamu Berez.	55.475	67.207	27.828	14.528	0,2	21,1	-58,6	-47,8
Lan Harremanen Kontseilua	2.140	2.338	2.384	2.470	0,0	9,2	2	3,6
Gizarte Ekonomiako Kontseilua	1.560	1.624	1.678	1.739	0,0	4,1	3,3	3,6
Kooperatiben Goi Kontseilua	715	745	769	944	0,0	4,2	3,3	22,7
EAEko Kontu Auzitegia	5.085	6.144	6.353	6.623	0,1	20,8	3,4	4,2
Datu Babeseko Euskal Agentzia	120	1.161	1.666	1.780	0,0	867,7	43,5	6,8
Zor Publikoa	176.883	281.918	217.288	239.639	2,8	59,4	-22,9	10,3
Baliabide Instituzionalak	124.856	149.754	206.867	167.060	1,9	19,9	38,1	-19,2
Sailletako gastuak	321	229	-	78	0,0	-28,8	-	-
% BPGmp	12,6	12,7	12,5	12,9	-	0,9	-1,3	

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. EAEko Aurrekontu Orokorren Betearazpena.


⁵ Aintzat hartu behar da, Eusko Jaurlaritzaren 2001etik 2005erako zorpetzeari dagokionez, berriro ere likidazioetan zor publikoaren "likidazio gordina" gisa ageri den kontzeptua (2005ean 300 milioi euro), hasieran obligazioetatik eta bonoetatik iritsitako diru-sarreratzat aurkeztu arren, gero kreditu-erakundeekiko zortzat onartu zela; zor horiek, gainera, kontabilitatean erregistraturik gelditu ziren, erabili gabeko eskubide onartutzat. Azken batean, erabili gabeko kreditu-lerro irekiak ziren.

III.3.8. KOADROA. EUSKO JAURLARITZAREN ETA FORU ALDUNDIEN ZORPETZEAREN BILAKAERA (EUROAK MILATAN)

	Zorpetze gordina		Amortizazioa	Zor garbia		Zor bizia urte amaieran	
	(1)	Aldak. %	(2)	(1)-(2)=(3)	Aldak. %	Guztira	Aldak. %
EUSKO JAURLARITZA							
2002	366.900	52,9	222.461	144.439	-195,9	1.552.861	10,5
2003	390.000	6,3	128.922	261.078	80,8	1.813.939	16,8
2004	275.000	-29,5	115.935	159.065	-39,1	1.964.186	8,3
2005	300.000	9,1	230.719	69.281	-56,4	2.033.467	3,5
2006	0	-	183.182	-183.182	-364,4	1.850.285	-9,0
2007	0	-	216.516	-216.516	18,2	1.633.769	-11,7
FORU ALDUNDIAK							
2002	195.000	97,7	54.114	187.386	191,4	971.787	18,0
2003	61.000	-74,7	61.195	-195	-100,1	975.132	0,3
2004	146.001	139,3	162.471	-16.470	8.338,6	958.661	-1,7
2005	126.000	-13,7	67.564	58.436	-454,8	1.017.097	6,1
2006	127.215	1,0	181.172	-53.957	-208,3	963.140	-5,3
2007	59.000	-53,6	69.727	-10.727	-80,1	952.413	-1,1


Iturria: Honako hauen datuetan oinarrituz eginda: Zerga Koordinazioko Erakundea, Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Planifikazio Zuzendaritza eta EUSTAT.

III.3.4. GRAFIKOA. EAE-KO ADMINISTRAZIOEN FINANTZA ZORRA (EUROAK MILATAN)



Iturria: EUSTAT. Sektorre Publikoaren Aurrekontu Estatistika

III.3.5. GRAFIKOA. EAE-KO ADMINISTRAZIOAREN ZORPETZE RATIOEN** ETA ZOR PUBLIKO OSOAK BPG-REKIKO DUEN EHU-NEKOAREN BILAKAERA



(*) Euzko Jaurlaritzak eta Foru Aldundiek 2007ari buruz emandako datuak Ekonomia eta Planifikazio Zuzendaritzaren datuetan oinarrituz zenbatetsita daude.

(**) Zorpetze-ratioa: Zorrenen finantza-zamaren (amortizazioa gehi interesak) eta diru-sarrera korronte guztien arteko zatidura. Iturria: EUSTATen datuetan oinarrituz eginda. Sektore Publikoaren Aurrekontu Estatistika

da PBGr dagokionez; hain zuzen ere, 2006ko %3tik 2007ko %2,5era igaro da. Bestalde, Foru Aldundien zor-jaulkipena 59 milioi eurokoa izan da, 2006an baino 68 milioi gutxiago.

Foru Aldundi bakoitzari dagokionez, azken informazio erabilgarria 2006ari buruzkoa da, eta EUSTATen "Sektore Publikoaren aurrekontu estatistika" deritzonetik lortu da. Urte horretan, jaulkitako zorrenen %63,5 (81 milioi euro) Bizkaiko Foru Aldundiarena izan zen (Arabakoak ez zuen zorrik jaulki, eta Gipuzkoakoaren jaulkipena 46,5 milioi euro izan zen, %36,5). Gainera, Foru Aldundien zorrenen amortizazioa %168 handiagoa da 2005ekoa baino, eta 181,2 milioi izan dira; horietatik Bizkaiko Foru Aldundiak %45, Gipuzkoakoak %52,3 eta Arabakoak gainerako %2,7; horrela, aldundien zorrenen saldo biziak %5,3ko murriztapena izan du, aurreko urteari dagokionez, eta PBGr dagokionez ere murriztu egin da, 2005eko %1,78tik 2006ko %1,56ra.

EAEko udalei dagokionez, estatistika horrek agerian jarritakoaren arabera, 2006an 71,8 milioi euroko zorra jaulki zuten, eta 77,7 amortizatu zituzten; beraz, urtearen amaieran, zorra 5,9 milioi euro murriztu eta 540,6 milioi eurokoa izan zen. Azken batean, EAEko Herri Administrazioek (Euzko Jaurlaritza, Aldundiak eta Udalak) 3.354 milioi euroko zorra izan zuten 2006an, eta zenbateko hori urteko BPGren %5,4 zen. Ehuneko hori oso urrun dago 90eko hamarkadatik, bertan BPGren %12tik gorakoa izan baitzen. Zor horrek, halaber, %3,7ko zorpetze-ratioa adierazten du⁶, aurreko urteko tasa bera. Ratorik txikiena Foru Aldundiek dute (2006an erakunde guztietarako antzeko informazioa eskaintzen duen azken urtea %1,8; eta 2007an %0,8, Euzko Jaurlaritzaren Aurreko Beteazpenaren Estatistikan oinarrituz egindako gutxi gora-beherako kalkuluaren arabera). Gainerako erakundeek batez bestekotik hurbilagoko mailak dituzte.

⁶ Zorpetze Ratioa ekitaldiko zorrenen finantza-kargaren (amortizazioa gehi interesak) eta diru-sarrera arrunten arteko zatidura da. EAEko ratio horren balioak oso urrun daude Autonomia Erkidegoen Finantzaziorako Estatuko 8/80 Lege Organikoak ezarritako %25eko mugatik.

3.5. Erakundeen transferentziak

EAEk bere jarduera finantzatzeko sistema berezia dauka, eta zergarik gehienak biltzeko gaitasuna du; hala-ber, EAEren eskumenekoak ez diren arloetan, lagundu egiten du Estatuko gastuetan, Kupo deritzonaren bidez. Erkidegoaren barruko eskumen banaketari dagokionez, bilketa gehienbat Foru Aldundiek egiten dute (ekarpenak egiten dituzte Eusko Jaurlaritzaren finantziatzarako), baita lurralde historiko bakoitzeko udalek ere. EAEko Herri Administrazioek lortzen dituzten berezko baliabideak ez ezik, Europar Batasuneko eta Europako fondoak ere jasotzen dituzte (BEZen eta Zerga Berezien bilketa egokitzeko, edo honako honetarako: Foru Aldundiek eta Udalek zerga itundu gabeetan duten partaidetzarako, Ongintzako Kirol Mutualitateen Apustuen eta Estatuko Loteria eta Apustu Erakunde Nazionalaren bilketan parte hartzeko, eta Estatuko Administrazioen eta erakunde autonomoen artean ezartzen diren finantziarioko akordioetarako nahiz hitzarmenetarako).


Lehenengo eta behin, bolumena kontuan hartuta, Foru Aldundiek Eusko Jaurlaritzari egindako ekarpenak nabarmentzen dira. Baliabideak biltzeko metodologia Ekarpenei buruzko Legean ezarrita dago, eta horrek, bost urtez behin, Foru Aldundiek (bildutako zergen artean) Eusko Jaurlari-

tzari gastu komunetarako ekarpenentzat transferitu behar dioten zatia adierazten du; horrela, Eusko Jaurlaritzak lorturiko diru-sarreraren %90 baino gehiago ekarpen horietatik dator. 2007an ekarpenak 8.601 milioi eurokoak izan ziren, eta %9,1eko hazkundea izan zuten (aurreko urtean %11,2koa).

2007-2011 aldirako berritasuntzat, EAEko Finantza Publikoen Kontseiluak metodologiaren barruko alderdi batzuk aldatzea erabaki du, baliabideak banatzeari eta Aldundien ekarpenak zehazteari dagokionez. Aldaketa horien artean, aipagarriak dira koefiziente bertikala %70,44tik %70,04ra murriztea (toki-erakundearen partaidetza handitzeko), Foru Aldundien arteko bilketan egokitzapen berria egitea (BEZen arloan) eta Egokitzapen Funtts Orokorra sortzea (lehen Elkartasun Funttsa), Lurralde Historikoetarako berme-mekanismoetat (horren zenbatekoa baliabideen %0,75etik %1era igaroko eta EAEko erakundearen artean banatuko da).

Bestalde, EAEk 2000-2006 aldian (informazioa eskaintzen duen azken urtea, Zerga Koordinazioko Erakundearen Urteroko Txostenean oinarrituz) Europar Batasuneko Egitura Funtsetan (Eskualde Garapeneko Europako Funttsa EGEF eta Europako Gizarte Funttsa EGF) izandako partaidetza, batez ere, 2. helburuaren bidezkoa izan da (egitura-gabeziak dituzten zonen ekonomia- eta gizarte-birmoldaketarako laguntza. Egitura Funtts horiek 587,6 milioi eurokoak izan dira (neurrien multzo osorako

III.3.6. GRAFIKOA. FORU ALDUNDIEK EUSKO JAURLARITZARI EGINDAKO EKARPENAREN BILAKAERA. EUROAK MILATAN



Iturria: Kupo eta Finantza Ekarpenei Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritza

III.3.9. Koadroa. Foru Aldundiek EAE-ko Erakunde Komunei Egindako Ekarpenen Bilakaera. 2002-2006 (Euroak Milatan)							
Kontzeptua	2003	2004	2005	2006	2007	Ald. %. 05-06	Ald. %. 06-07
Ekarpen Orokorra	5.764.518	6.181.796	7.085.585	7.865.095	8.460.069	11	7,6
Ekarpen Bereziak			2.760	17.968	140.973	551	684,6
GUZTIRA	5.764.518	6.181.796	7.088.345	7.883.063	8.601.042	11,2	9,1
Arabaren Ekarp.	964.980	1.028.033	1.185.171	1.287.304	1.451.855	8,6	12,8
Bizkaiaren Ekarp.	2.898.400	3.112.534	3.568.273	4.001.443	4.314.282	12,1	7,8
Gipuzkoaren Ekarp.	1.901.138	2.041.229	2.334.901	2.594.316	2.834.903	11,1	9,3
Arabaren %	16,74	16,63	16,72	16,33	16,88	-2,3	3,4
Bizkaiaren %	50,28	50,35	50,34	50,76	50,16	0,8	-1,2
Gipuzkoaren %	32,98	33,02	32,94	32,91	32,96	-0,1	0,2


Iturria: Kupo eta Finantza Ekarpenen Zuzendaritzan oinarrituz eginda. Ogasuna eta Herri Administrazioak Saila. EUSKO JAURLARITZA.

onetsitako laguntza-bolumena). Zenbateko horretatik %95 EGEfri dagokio, eta gainerako %5 EGFri; partaidetza publiko osoa 1.316,2 milioi eurokoa izan da.

Gainera, EBk 3. helbururako (giza baliabideak garatzeko, eta, horrela, enplegu hobea eta orokorra sortzeko) duen Laguntza Esparruan, 222,6 milioi euro daude, 9 ardatzetan banatuta; halaber, Urban II eta Interreg III ekimenetarako 10,5 eta 7,2 milioi euro daude, hurrenez hurren, 2000-2006ko programazio-aldirako. Azkenik, Kohesio Funtzak 2000-2002 aldian EAEn betearazi beharreko

proiektuetara onetsitako laguntza 68,5 milioi eurokoa izan da 2001ean, eta 100,2 milioi eurokoa 2002an. 2002tik EBtik iritsitako funtsen bolumen osoak murriztapen handia izan du, 2005ean %27ko hazkundera izan arren. 2006an murriztapena egon da (aurreko urtearekiko %14,6), eta 124,4 milioi euro izan dira.

Beste partida interesgarri bat Estatuari emandako Kupo da; horren zenbateko likidoa, Kupoari buruzko Bosturteko Legearen bidez urtero zehaztutakoa, 1.538 milioi eurokoa izan da (behin-behineko likidazioen arabera), eta



Iturria: Ogasun eta Herri Administrazio Sailean oinarrituz eginda

III.3.10. KOADROA. EUSKO JAURLARITZAK LIKIDATURIKO DIRU-SARRERAK, JATORRIAREN ARABERA. 2004-2006. (EUROAK MILATAN)

	2004	2005	2006	Ban. % 2006	Al. % 04-05	Al. % 05-06
1. FORU ALDUNDIEN EKARPENAK	6.181.796	7.088.345	7.883.063	98,6	14,7	11,2
. Ekarpen Orokorra	6.181.796	7.085.585	7.865.095	95,4	14,6	11,0
. Ekarpen Bereziak	-	2.760	17.968	0,2	-	551
2. ERAKUNDEEN B. DIRU-SARRERA BATZUK	132.910	196.546	142.032	1,7	47,8	-27,7
. EAEko Erakundeen transferentziak	14.256	7.205	9.767	0,1	-49,5	35,6
. Estatuaren transferentziak	3.787	43.615	7.838	0,1	1.051,3	-82,0
- FISS bekak	31	-	-	-	-	-
- Hitzarmenen bidezko transferentziak	3.366	-	-	-	-	-
- Beste transferentzia batzuk (MAPA eta FEAGA)	389	-	-	-	-	-
. Europar Batasuneko funtsak	114.867	145.726	124.427	1,5	26,9	-14,6
- FSE	19.720	21.485	9.404	0,1	9,0	-56,2
- FEDER	9.232	38.798	28.079	0,3	320,3	-27,6
- FEOGA - Orientazioa	-	1.391	460	0,0	-	-66,9
- FEOGA - Bermea	58.282	61.224	75.903	0,9	5,0	24,0
- IFOP	17.525	14.223	6.240	0,1	-18,8	-56,1
- Kohesio Funtza	8.669	8.283	2.157	0,0	-4,5	-74,0
- Beste Funtz batzuk	1.439	322	2.184	0,0	-77,6	578,3
3. BESTE BALIABIDE BATZUK	717.614	480.787	222.553	2,7	-33,0	-53,7
- Zor publikoa	275.000	300.000	0	0,0	9,1	-
- Zeharkako zergak	6.838	6.986	6.422	0,1	2,2	-8,1
- Ondareko diru-sarrerak	230.050	36.569	57.342	0,7	-84,1	56,8
- Inbertsio errealeen besterentzea	2.184	1.897	1.116	0,0	-13,1	-41,2
- Beste transferentzia batzuk	7.082	9.207	14.247	0,2	30,0	54,7
- Finantza-aktiboan aldaketa	74.379	9.371	14.479	0,2	-87,4	54,5
- Tasak	122.081	116.756	135.370	1,6	-4,4	15,9
DIRU-SARRERAK GUZTIRA	7.032.320	7.765.678	8.247.648	100,0	10,4	6,2

Iturria: ZERGA KOORDINAZIOKO ERAKUNDEAN oinarrituz eginda


%12,5eko hazkundera izan du, 2006an ordaindutakoari dagokionez.

Azkenik, Estatuari egindako ordainketekin batera, zenbateko batzuk jasotzen dira, eta, horien artean, garrantzitsuenak Balio Erantsiaren gaineko Zergarekiko Egokitzapena da, barruko merkatuan egindako eragiketen eta inportazioen eraginezkoa; egokitzapena Estatuko Ogasunak egiten du. Hain zuzen ere, Estatuko Administrazioen eta EAEko Administrazioaren arteko finantza-egokitzapena da, bilketa teorikoak eta errealak zerga-administrazioen artean egokitu behar izatearen ondoriozkoa, administra-

zio bakoitzak bere lurraldean jarduten baitu, zerga-mugarik gabeko eremu batean. Egokitzapen horiei, 1997an, honako honen eraginezko bihurtura zuzentzeko behar ziren zerga bereziei zegokiena gehitu zitzaion: zerga horiek zergapeturiko produktuen azken kontsumoa fabrikazioarena ez den beste lurralde batean egitea.

2006an (informazioa eskaintzen duen azken urtea), BEZen egokitzapena 1.209 milioi eurokoa izan da EAEn, eta zifra horrek %0,3ko murriztapena izan du, aurreko urteari dagokionez. Partida horren barruan, aduanetako bilketarekiko egokitzapena guztizkoaren %49,3koa izan da,

III.3.8. GRAFIKOA. KONTZEPTUKAKO BEZ-AREN EGOKITZAPENAREN BILAKAERA. EUROAK MILAKA



Iturria: Zerga Koordinazioko Erakundea

eta azken urtean horren garrantzia ia hamar puntutan murritu da, guztizkoari dagokionez. Lurralde-banaketaren aldetik, hori urtero egiten da, koefiziente horizontaletan oinarrituz.

EAEko enpresa-sektore publikoaren sailkapen ekonomikoak honako talde hauek bereizten ditu:

3.6. Enpresa sektore publikoa EAE-n

a) Eusko Jaurlaritza

EAEko Administrazio Nagusiaren partaidetza duen enpresa-sektore publikoari buruzko azken datuak⁷, 2006ari buruzkoak dira; orokorrean, emaitza positiboa mantendu eta 9,3 milioi euroko irabazia adierazi dute, azken urte horretan (2005ean baino 4,4 gutxiago).

Eusko Jaurlaritzaren partaidetza duen enpresa-sektore publiko horren egitura, orokorrean, iraunkor mantendu da; enplegu-bolumena eta partaidetza aintzat hartuta, talde eta sozietate nagusiak honako hauek dira: SPRI, EVE nahiz EITB taldeak eta Eusko Trenbideak, Ejie, Euskadiko Orkestra, Neiker zein Mendikoi sozietateak.

III.3.11. KOADROA. EUSKO JAURLARITZAREN PARTAIDETZA DUTEN ERAKUNDE ETA SOZINETATE NAGUSIAK, PARTAIDETZAREN EHUNEKOAREN ETA BIDEAREN ARABERA. 2006

	ZUZENEAN	ZEHARKA
%100	ET-FV S.A.	ETB S.A.
	EITB S.A.	
	EVE	
	Euskadiko Kirol Portua S.A.	
	EJIE S.A.	
%50 eta %100 bitartean	SPRI S.A.	SPRILUR S.A.
	VISES S.A.	Parke Teknologikoa S.A.
		Donostiako Parke Teknologikoa S.A.
		Arabako Parke Teknologikoa S.A.

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. EAEko enpresa-sektore publikoa. 2006

⁷ Kontuan hartu behar da 1998tik Osakidetza zuzenbide pribatuko Erakunde Publikoa dela; beraz, enpresa publikorik handiena da, langile kopurua eta aurrekontua aintzat hartuz; hala ere, ez da atal honetan sartu, EAEko Osasunari eta Osasun Sistemari buruzko atalean baizik.

- EVE taldea: energia ekoizteari, banatzeari, ikertze-ari eta aurrezteari lotutako sozietateak.
- EITB taldea: EAEk komunikabideen arloan dituen eskumenak garatzeko sorturiko sozietateak.
- SPRI taldea: Sociedad para la Promoción y Reconversión Industrial S.A. sozietatearen mendeko enpresak. Sektore desberdinetako enpresak dira, eta, horien artean, garrantzitsuenak industrialdeak sustatzen dituztenak dira, Sprilur S.A. sozietate filialaren barruan daudenak; horrek, aldi berean, enpresa talde garrantzitsua osatzen du. SPRI taldearen barruan beste sozietate batzuk ere badaude, eta horien helburua EAEko enpresari zerbitzuak eskaintzea da. Garrantzi handikoak dira Parke Teknologikoak eta Enpresa eta Berrikuntzako Zentroak, SPRI S.A. sozietateak sustatzen dituenak; horiek industriako ekimena eta inbertsioa sustatzen dute, teknologia aurreratuko enpresetan.
- Eusko Trenbideak taldea: ET-FV S.A. sozietateak eta horren filiala den Euskotren Partaidetzak S.A. sozietateak osatzen dute.
- Gainerako erakundeak eta sozietateak. EAEren zuzeneko eta gehiengo partaidetza dutenak.

Enpresarik gehienetan, sektore publikoaren partaidetza zeharkakoa da. 2006an, Eusko Jaurlaritzak partaidetza zuen 57 erakunde eta sozietate publikotan, horietariko 41ean zeharkako partaidetza (aurreko urtean baino batean gehiago: Harana Hidroelektrikoa-Kontrasta, S.A. sortu zen, EVEren %98,5eko partaidetzarekin). Horie-

tariko 22tan %100eko partaidetza zuen (13tan zuzeneko 2005ean baino 1 gehiagotan, Basquetour sortu baitzen eta 9tan zeharkakoa); halaber, 35 sozietatetan %100etik beherako eta %50etik gorako partaidetza zuen (3tan zuzeneko partaidetza eta 32tan zeharkakoa).

Bestalde, Eusko Jaurlaritzaren gehiengo partaidetza duten sozietateetako langileria 2.800-2.900 langile ingurutan mantendu da, urte batetik besterako gorabeheratxoekin (2006an %2ko hazkundea izan zuen, gehienbat ETS erakundeak izandako hazkundearen ondorioz, bertako langileria 43 langiletik 134ra igaro baitzen, baita Eusko Trenbideak taldeak izandako hazkundearen eraginez ere, 60 langile gehiago izan baitzituen). Enpresetako langileriak euren aktibo-bolumenekin lotuta, enpresa-sektore publikoa osatzen duten enpresen tamaina ikusten da: enpresen %81ek 50 langile baino gutxiago eta aktibo guztien %40 dituzte (2.260 milioi euro). Beste muturrean, bi enpresak (ETB eta Eusko Trenbideak) 250 langiletik gorako langileriak dituzte, eta aktibo guztien %8.

Gehitutako magnitude nagusiei dagokienez, lehen ere aipatu da 9,3 milioi euroko irabazi garbiak egon direla, zergen 25,6 milioiak kendu ondoren. Irabazi horiek %32,3ko murriztapena izan dute, 2005ari dagokionez, azken urte horretan 13,69 milioi euroko murriztapena izan baitzuten. Negozio-zifra 421 milioi eurokoa izan da 2006an, aurreko urtean baino %12,1 txikiagoa, batez ere enpresa sektoreak izandako murriztapenaren eraginez (%-43,7), baina baita, neurri txikiagoan, etxebizitzetan eta merkataritzako lokaletan egon den murriztapenaren eraginez ere (%-21,1).

b) Foru Aldundiak

Foru Aldundiei dagokienez, 2006an 26 sozietate publiko izan dira guztira (2005ean baino 2 gutxiago, Boroa eta Piacsa, biak Bizkaikoak): 8 Araban (Arabako Garapen Agentzia, Arabako Kultura Ondare Eraikiaren Agentzia, Kalkulu Zentroa, Fernando Buesa Arena, Naturgolf, Arabako Lanak, Arabako Ur Agentzia eta Arabako Bideak), 4 Gipuzkoan (Uliazpi Fundazioa, IZFE, Etorlur eta Bidegi) eta gainerako 14ak Bizkaian (Aparcabisa, Azpiegitura, Basalan, Beaz, Bizkaiko Bideak, Bizkailur, BBA Berrikuntza Agentzia, Euskalduna Jauregia, Garbiker, Lantik, Kirolgintzan, Seed Bizkaiko Kapitala, Errekaldeko Erakusketa Aretoa eta Interbiak).

Enpresa publiko hauen emaitzei dagokienez, eta azken urteetan gertatu den bezala, garrantzitsuenak Bizkaian eta Gipuzkoan A8 autobidea kudeatzeko sortu diren bi sozie-

III.3.12. KOADROA. EAE-KO ENPRESA SEKTORE PUBLIKOAREN ZERBITZUAN DAGOEN LANGILERIA. 2006

SOZietatea EDO TALDEA	2006	%	2005	%
EUSKO TRENBIDEAK TALDEA	889	31	949	34
EITB TALDEA	918	31	915	33
SPRI TALDEA	188	6	186	7
EJIE	173	6	168	6
NEIKER	155	5	152	5
ETS	134	5	43	1
GAINERAKOAK	459	16	445	16
GUZTIRA	2.916	100	2.858	100

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. EAEko enpresa-sektore publikoa. 2006.

III.3.13. Koadroa. EAE-ko sektore publikoko enpresen dimentsioa. 2006

LANGILERIA, 2005	ENPRESA KOPURUA	LANGILE KOOPURUA	AKTIBOAK GUZTIRA (€)	AKTIBOAK GUZTIRA %
< 50 LANGILE	46	336	898.116.962	40
50-250 LANGILE	9	1.072	1.168.629.734	52
> 250 LANGILE	2	1.508	193.740.159	8
GUZTIRA	57	2.916	2.260.486.855	100

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. 2006. EAEko enpresa-sektore publikoa. 2006

III.3.14. Koadroa. EAE-ko enpresa sektore publikoaren negozio zifraren zenbateko garbia. €

JARDUERA SEKTOREA	2005	2006	Ald. 05/06
Enpresa-sustapena	135.335.870	76.218.069	-43,7
Etxebizitzak eta merkataritza-lokalak	111.101.238	87.647.001	-21,1
Energia	98.222.000	115.625.000	17,7
Zerbitzu informatikoak	58.063.979	57.498.724	-1,0
Publizitatea irratian eta telebistan	38.166.003	36.893.582	-3,3
Trenbideko eta errepideko garraioa	23.276.191	30.931.665	32,9
Komunikazio-azpiegiturak	9.093.755	9.611.405	5,7
Beste batzuk	5.839.075	6.895.410	18,1
GUZTIRA	479.098.111	421.347.856	-12,1

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. 2006. EAEko enpresa-sektore publikoa. 2006.

III.3.15. Koadroa. Foru Aldundien partaidetza duten sozietate publikoen emaitzak. (Euroak milatan)

	ARABA	GIPUZKOA	BIZKAIA	GUZTIRA	Ald. %
2001	520	3.529	-6.792	-2.743	-
2002	1.808	392	-8.769	-6.569	139,5
2003	-4.553	22.461	1	17.909	-372,6
2004	-3.283	47.237	8.530	52.484	193,1
2005	8.565	48.171	15.145	71.881	37,0
2006	1.430	52.432	17.057	70.919	-1,3

Iturria: FORU ALDUNDIEN datuetan oinarrituz eginda.

tateak dira (Interbiak eta Bidegi); behin-behineko datuen arabera, 70,9 milioi euroko irabazia dute, aurreko urtean baino %1,3 txikiagoa; hala eta guztiz ere, bi sozietate horiek kenduta, 2006an, Foru Aldundien gehiengo partai-

detza duten merkataritza-sozietateen multzoak 5,8 milioi euroko galera izan du (2005ean 1,7 milioiko irabazia, aurreko urteetan emaitza negatiboak nagusitu arren).


4

Ekonomia Soziala

Ekonomia Soziala izen orokorraren barruan, eraketa eta helburu desberdineko erakunde mota desberdinak sartzen dira; hala eta guztiz ere, kasu honetan, aurrekoetan bezala, atal honetan merkaturako ondasunak eta zerbitzuak sortzen dituztenen errealitatea baino ez dugu jasoko, eta ez ditugu aztertuko jarduera sozialak soilik egiten dituzten beste erakunde batzuk.

Kooperatibek eta lan-sozietateek osaturiko ekonomia sozialaren produkzio-zati honen dimentsio erlatiboa kartzeko, datu erabilgarriek adierazitakoaren arabera, EAEko balio erantsiaren %5 eta enpleguaren %6,5 inguru sortzen dute, baina industria-sektorean %13 gainditzen dute, eta EAEk atzerrira egiten duen esportazioaren %14ra iristen dira, Ekonomia Sozialeko Kontuetako azken datuek diotenez (2003-2004 biurtekoari buruzko datuak)¹.

III.4.1. GRAFIKOA. EKONOMIA SOZIALAK EAE-N DUEN GARRANTZIAREN BILAKAERA



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Ekonomia Sozialeko kontuak

¹ Bi urtean behin argitaratzen diren Ekonomia Sozialeko Kontuei buruzko informazio gehiago lortzeko, 2006ko EAEko Memoria Sozialekonomikoko kapitulu egokia irakurri behar da.


III.4.1. KOADROA. EKONOMIA SOZIALEKO ENPLEGUAREN ADIERAZLEAK. 07.12.31KO DATUAK				
	EKON. SOZIALEKO LANDUNAK	EKON. SOZIALA / BAI (MILAKOTAN)	TAMAINA ERTAINA	
			KOOPERATIBAK	SOZietate MUGAT.
ANDALUZIA	90.016	27,9	11,0	6,2
ARAGOI	11.289	18,3	8,9	4,6
ASTURIAS	6.984	16,0	12,0	6,0
BALEARRAK	3.922	7,9	14,1	5,2
KANARIAK	9.404	10,3	16,9	4,5
KANTABRIA	2.847	10,8	15,1	9,2
GAZTELA-MANTXA	23.565	27,7	8,6	5,7
GAZTELA ETA LEON	16.428	15,2	7,8	5,0
KATALUNIA	53.193	15,0	7,5	6,1
VALENTZIako ERKID.	64.564	28,7	16,7	6,0
ESTREMADURA	9.901	24,1	9,7	5,8
GALIZIA	13.882	11,6	9,2	5,2
MADRIL	28.027	9,1	14,0	6,1
MURTZIA	26.370	41,5	11,3	6,9
NAFARROA	9.654	33,2	18,1	8,2
EAE	69.501	69,6	37,6	13,2
ERRIOXA	2.231	15,0	10,9	6,2
CEUTA ETA MELILLA	1.096	22,6	10,1	5,6
GUZTIRA	442.874	21,6	12,3	6,3

Iturria: LIM. Ekonomia Sozialeko datu-basea.

Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzak Sailak landutako Kontu horietan adierazitakoaren arabera, Ekonomia soziala 2.366 enpresak osatzen dute; horiek 3.315 establezimendu dituzte EAEn: 60.949 enplegu eta 2.451 milioi euroko Balio Erantsi Gordina. Gainerako autonomia-erkidegoekin konparatuta, EAEko Ekonomia Sozialak dauka garrantzi ekonomikorik handiena, bere produkzio-egituraren barruan, gainera, Estatuko Ekonomia Sozial osoaren %15,1 dauka, gainerako erkidegoek baino askoz ere gehiago.


Bestalde, 2007aren amaieran Gizarte Segurantzak 1.491 sozietate erregistratu ditu EAEn, altako kooperatiben izaera juridikoarekin (aurreko urtean baino 25 gehiago); horiek 56.039 langile dituzte (2006an baino %2,8 gehiago), eta, beraz, kooperatiba bakoitzeko batez besteko tamaina 37,6 langilekoa da, Estatuko ehunekorik handiena eta bertako batez bestekoa (12,3) baino askoz ere handiagoa. Iturri horrek dioenez, 1.023 lan-sozietate ari dira kottizatzen, 2006an baino 39 gutxiago, eta horietan 13.462

III.4.2. GRAFIKOA. EAE-KO EKONOMIA SOZIALEKO LANGILEEN BANAKETA, ADIN TALDEEN ARABERA. 2007.12.31KO DATUAK



Iturria: LIM. Ekonomia Sozialeko datu-basea.

III.4.3. GRAFIKOA. EKONOMIA SOZIALEKO SOZietate KOPURUAREN BILAKAERA



Iturria: Ekonomia Sozialaren Erregistroa, Eusko Jaurlaritzak

langile ari dira lanean (2006an baino %0,9 gutxiago); sozietateen batez besteko tamaina 13,2 langilekoa da, berritri ere Estatukoa (6,3 langile, batez beste) baino askoz ere handiagoa.

Guztira, ekonomia sozialeko langile kopuruak, Lan Ministerioak BALren datuetan oinarrituz egindako kalkuluen arabera, EAEko enpleguaren milako 69,6 adierazten du, eta kopuru hori Estatuko batez bestekoa (21,6) baino hiru aldiz handiagoa da; gainera, autonomia-erkidego guztien artekorik handiena da.

Lan eta Immigrazio Ministerioiko Ekonomia Sozialeko datu-baseak, halaber, EAEko sektore horretako langileen ezaugarri batzuk ezaugarri aukera ematen du, baita ezaugarri horiek Estatuko gainerako autonomia-erkidegoetako ezaugarriekin konparatzeko aukera ere: EAEn emakumeen ehunekoa %45,4koa (Estatuan %40,8) eta atzerriko langileen ehunekoa %2,2koa (Estatuan %9,6). Era berean, lanaldi partzialeko langileen ehunekoa %14,6 da (Estatuan %15,3), eta langilerik gazteenen partaidetza (25 urtetik beherakoak) Estatukoa baino askoz ere txikiagoa da: langileria osoaren %5,5ekoa, eta Estatuan %10,7. Aldiz langilerik nagusienak (55 urte edo gehiago) gehiago dira EAEn (%12,6), Estatuan baino (%9,9).

Bestalde, Eusko Jaurlaritzako Ekonomia Sozialaren Zuzendaritzako Erregistroan, 3.803 kooperatiba eta lan-sozietatea daude jasota, eta ekonomia sozialeko enpresa kopurua 2006koa baino 15 gehiagokoa da; gainera, lan-

sozietate anonimoen kopuruak apurka-apurka murrizten jarraitu du (2007an 22 gutxiago, eta aurreko urtean -20). Kooperatiba kopuruak, berriz, 40ko hazkundea izan du, 2006ari dagokionez, eta mugatuak, ostera, 3 sozietatetan murriztu dira.

4.1. Kooperatibak

Eusko Jaurlaritzako Ekonomia Sozialaren Zuzendaritzak duen Erregistroko abenduaren 31ko datuen arabera, 2007an kooperatiba kopuruak 40ko hazkundea izan du, eta zifra horrek %2,5eko gorakada adierazten du, aurreko urteari dagokionez (2006an 21 kooperatiba berri, %1,3). 2007aren amaieran, EAEko kooperatiba kopuru osoa 1.641ekoa izan da.

Aurreko urteetako joerari jarraituz, kooperatiben arloko hazkundearen sustatzaile nagusiak elkarlaneko kooperatibak dira; horrela, urte horretan, 40ko hazkundea izan dute (hazkunde osoaren zifra), eta guztira 1.057 kooperatiba dira, guztizkoaren %64,4 (2006an %63,5).

Bestalde, etxebizitza-kooperatibak guztizkoaren %13,7 dira, aurreko urtean baino 4 gutxiago, eta guztira 224 dira. Gainerako sozietate motei dagokienez, guztizkoan duten garrantzia nahiko txikiagoa da; aurreko urtearekiko alda-

III.4.2. Koadroa. EAE-ko Kooperatiba Kopurua, Motaren Arabera Sailkatuta (XII-30)

	2005	2006	2007	%	06-07ko hazkundera	Ald. % 00-07
GUZTIRA	1.580	1.601	1.641	100,0	40	40,5
Nekazaritza	95	95	99	6,0	4	12,5
Kontsumoa	32	31	32	2,0	1	14,3
Zerbitzuak	73	73	76	4,6	3	55,1
Elkarlana	1.007	1.017	1.057	64,4	40	34,3
Irakaskuntza	96	96	92	5,6	-4	8,2
Etxebizitza	215	228	224	13,7	-4	126,3
Kreditua	3	2	1	0,1	-1	0,0
Mistoak	12	13	17	1,0	4	325,5
2. maila	47	46	43	2,6	-3	59,3

Iturria: Kooperatiben Erregistroa. Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saila. Eusko Jaurlaritza.

III.4.3. Koadroa. Lurralde Historikoetako Kooperatiba Kopurua, Motaren Arabera (XII-31)

	Araba			Bizkaia			Gipuzkoa		
	2005	2006	2007	2005	2006	2007	2005	2006	2007
GUZTIRA	312	332	338	627	625	644	641	644	659
Nekazaritza	47	49	50	24	22	24	24	24	25
Kontsumoa	2	2	2	17	16	17	13	13	13
Zerbitzuak	8	11	12	29	29	28	36	33	36
Elkarlana	137	142	149	453	451	467	417	424	441
Irakaskuntza	9	9	10	43	44	43	44	43	39
Etxebizitza	97	108	104	52	53	54	66	67	66
Kreditua	0	0	0	1	1	1	2	1	0
Mistoak	2	2	2	1	1	2	9	10	13
2. maila	10	9	9	7	8	8	30	29	26

Iturria: Kooperatiben Erregistroa. Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saila. Eusko Jaurlaritza.

keten arloan, aldaketa horiek txikiagoak dira eta euren artean konpentsatzen dira.

Gainera, EAE osorako adierazitakoa lurralde historiko bakoitzean aplikatu ahal da, bai sozietate kopuruak izandako aldaketei eta bai sektore nagusiei dagokienez. Gipuzkoan 15 kooperatiba berri sortu dira (gehienak, berriro

ere, elkarlanekoak), eta aurreko urtean 3 berri sortu ziren; Bizkaian 19 berri sortu dira, 2006ko amaieratik (horietatik 12 elkarlanekoak), aurreko aldian 2ko murriztapena egon ondoren. Araban hazkunde garbia 6 sozietatekoa izan da, eta horixe da hazkunderik txikieneko lurraldea.

4.2. Lan sozietateak²

Ekonomia sozialeko enpresek hartzen duten beste forma bat lan-sozietateena da (anonimoak edo mugatuak), horietan, kapital sozialaren zatirik handiena bertan lan egiten duten bazkideena da. Bazkide bakoitzak gehienez izan dezakeen kapital sozialak ezin du gainditu guztizkoaren herena (partaidetza publikoko salbuespenezko kasu batzuetan izan ezik); horrela, gutxieneko bazkide kopurua hirukoa da.


Kapital soziala akzio izendunetan banatzen denean, Lan Sozietate Anonimoak dira, eta, partaidetza sozialetan banatuta dagoenean, berriz, sozietateek Erantzukizuneko Sozietateen izaera juridikoa dute. Nolanahi ere, akzioak eta partaidetzak bi multzotan banatzen dira: bertan lan egiten duten bazkideenak eta beste pertsona batzuenak.

EAEEn 2007aren amaieran erregistraturiko bi lan-sozietate mota horien guztizkoa 2006koa baino 2.162,25 txikiagoa da; mugatuak anonimoak baino 84 gehiago dira (2006an 65). Azken urtean, sozietate mugatuen kopuruaK 22ko murriztapena izan du (%-2,1), eta lan-sozietate anonimoen kopuruak, berriz, 3ko murriztapena (%-0,3).

Sektoreka, sozietate mugaturik gehienek (%57,4) zerbitzu-sektorean dihardute, eta LSAek, berriz, industrian (%51,8). Bereizketa hori EAEko hiru lurraldeetan gertatzen da.

Lan-sozietateetako langile kopuruari dagokionez, Eusko Jaurlaritzako Ekonomia Sozialaren Zuzendaritzak informazio gaurkoturik eman ez duenez, daturik gaurkotuena Lan Ministerioarena da; horrek egindako kalkuluaren arabera, lehenen esan dugunez, 2007ko abenduaren 31n batez beteko langileria 13,2 langilekoa izan da lan-sozietateetan (aurreko urtean 12,8), eta Estatuko batez beste-koa, berriz, 6,2 langilekoa izan da (2006an 6,4).

III.4.4. GRAFIKOA. LAN SOZietATE ETA HORIEN ELKARTU KOPURUAREN BILAKAERA



Iturria: Eusko Jaurlaritza. Lan Sozietateen Erregistroa.

² 2007tik ezin da gaurkotu EAEko Lan Sozietateen Erregistroan inskribaturiko Lan Sozietateetako bazkideei eta kapital sozialari buruzko informazioa. Erregistro horrek dioenez, ezin da datu fidagarriarik eman; izan ere, alde batetik, kapital sozialaren osaketan edota kuantifikazioan aldaketak Erregistroari nahitaez jakinarazi behar bazaizkio ere, sozietateek aurretiazko pausotzat baino ez dute egiten, kasuan kasuko Merkataritza Erregistroan erregistratzea interesatzen zaienean.

Bestalde, sozietate kopuru handia EAEra transferitu baino lehen zegoen inskribaturik Lan Ministerioaren erregistroan; beraz, transferentziarekin estatistika-daturik ematen ez denez, eta aintzat hartuta horretarako gaituriko aplikazio informatikoan (Eusko Jaurlaritzako Ekonomia Sozialaren Zuzendaritzak lan-sozietateen inskripzio-libururako gaitutakoa) aplikazioa abiatu zenetik honako datuak baino ez daudela jasota, gaur egun ez dago datu fidagarriarik lehenik inskribaturiko sozietateetako bazkide kopuruari buruz; hortaz, datu horiek ez dira ematen, Erregistroko iturriek justifikatu dutenez.

III.4.4. KOADROA. EAE-N KALIFIKATURIKO LAN SOZINETATEAK (2007-XII-30)

	Guztira				Mugatuak				Anonimoak			
	EAE	Araba	Bizkaia	Gipuzk	EAE	Araba	Bizkaia	Gipuzk	EAE	Araba	Bizkaia	Gipuzk
Sozietate kopurua	2.162	236	1.172	754	1.123	137	650	336	1.039	99	522	418
Nekazaritza	20	2	12	6	10	1	6	3	10	1	6	3
Industria	794	71	383	340	256	30	130	96	538	41	253	244
Eraikuntza	359	49	206	104	212	26	120	66	147	23	86	38
Zerbitzuak	989	114	571	304	645	80	394	171	344	34	177	133

Iturria: Lan Sozietateen Erregistroa. Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Saila. Eusko Jaurlaritza.

5

Lan merkatua EAE-n

III.5.1. KOADROA. LANAREN ETA LANGABEZIAREN BILAKAERA EAE-N. ALDAKETA TASAK

	2006	2007	2006	2007			
			IV	I	II	III	IV
ENPLEGUA (BJA)	1,4	1,1	2,1	2,1	1,1	1,1	0,3
LANPOSTUAK (CET)	2,3	2,4	2,2	2,6	2,4	2,3	2,3
GIZ. SEG. AFILIATUAK	2,3	2,6	2,2	2,9	2,9	2,4	2,4
LANGABETUAK (BJA)	-28,9	-19,7	-30,1	-32,3	-17,7	-14,9	-8,5
ERREG. LANGABEZIA (EIN)	-4,7	-6,4	-8,0	-9,7	-8,2	-4,5	-2,6
LANGABEZIA TASA (BJA)	4,1%	3,3%	3,4%	3,4%	3,4%	3,1%	3,1%

Iturria: KOIUNTURAZ txostena . Ogasun eta Herri Administrazio Saila. EUSKO JAURLARITZA

Lehenengo eta behin, Gizarte Segurantzako afiliazioaren eta erregistraturiko langabeziaren bilakaerak age-rian jarri du EAEko ekonomiaren egoera bikaina izan dela 2007an. Urte amaierako afiliatu kopurua 968.693koa izan da; zifra hori hurbil dago 2007ko azaroan lorturiko gehieneko historikotik, eta 2006ko abendukoa baino %2,5 handiagoa da. Balio absolutuetan, afiliazioa 23.461 pertsonatan hazi da, eta 2006an 22.425 pertsonatan hazi zen.

Bestalde, langabetu kopuruak %6,4ko murriztapena izan du; hain zuzen ere, EAE, Asturias eta Galizia, langabeziak azken urtean izandako hazkundea saihesteaz gain,

langabetu kopurua murriztea lortu duten erkidego baka-rrak dira. Izan ere, eraikuntza-sektoreko dezelerazioak era-gin urriagoa izan du EAEn Estatuko gainerako erkidegoetan baino; gainera, industria-sektore indartsu batekin kon-pentsatu da.

Hala eta guztiz ere, EUSTATen “*Biztanleria Jardue-aren Arabera*” (BJA) inkestaren arabera, urte nahiko laua izan da enpleguaren hazkundeari dagokionez: 2006ko amaieratik 2007kora 2.500 lanpostuko aldea baino ez dago (%+0,3). Urte amaierako zifrak konparatu beharrean ur-teko batez bestekoari begiratzen badiogu, datua hobe da; parametro horren arabera, enpleguak %1,1eko hazkundea

izan du, eta ekonomia osoan hazkundera %3,9koa izan da. Kontuan hartu behar da, hala eta guztiz ere, enplegu erre-
alak dimentsionamendu handiagoa izan dezakeela, horren
barruan aitortu gabeko lana ere sartzen baita.

5.1. Jardueraren, lanaren eta langabeziaren bilakaera


5.1.1. Lana

Lisboa 2000n Europar Batasuneko enplegurako adie-
razitako helburuei dagokienez, Euskal Autonomia Erkide-
goan 2007an aurrerakuntza urria egon arren, oraindik ere
helburu orokorra eta emakumeen lanaren helburua (%70
eta %60, hurrenez hurren) lortzeko moduan gaude, baina
55 urteko edo gehiagoko pertsonen taldearen enpleguari
dagokionez ez da gauza bera gertatzen (helburua %50eko
tasa lortzea da)¹.

Enplegu-tasa osoa² %68ko batez bestekoa egon da
2007an, Estatuko batez bestekoa baino puntu eta erdi ge-
hiago eta EB-27koa baino ia hiru puntu gehiago. Horrela,
EAE bi puntura dago %70en helburutik; hain zuzen ere,
25.000 lanpostu izango lirateke, oraingo biztanleria-egitu-
raren arabera. Une honetan, EAE Espainia, Frantzia edo
Italiaren aurretik dago, eta Irlandatik edo Alemaniatic hur-
bil. Hala eta guztiz ere, oraindik ere bide luzea dauka egi-
teko, harik eta adierazle hobeak dituzten herrien mailara
heldu arte; adibidez, Danimarka, Holanda edo Suedia, ho-
riek dagoeneko %70etik gora baitaude.

2006ko abendutik 2007ko abendura 2.600 enplegu
sortu dira; horietatik 600 gizonek hartu dituzte eta 2.000
emakumeek. Horren ondorioz, lanean ari diren gizon ko-
purua emakumeena baino 145.000 pertsona gehiagokoa
da; dena den, alde hori murrizteko joera argia ikusten da.
Azken urteotan ikusitako erritmoan, Eusko Jaurlaritzako
Lan Merkatuaren Behatokiak (Lanbide) egindako kalku-
luaren arabera, gizon eta emakume landunen arteko kon-
bergentzia 2030ean gertatuko da.

III.5.1. GRAFIKOA. ENPLEGUAREN BILAKAERA, EUSTATEN ETA INEREN ARABERA, ETA GI. SEG. AFILIAZIOA



Iturria: Lanbide con datos de Eustat, INE y Seg. Social

¹ Gogoratu LANEk erreferentziako astean gutxienez ordubeteko lana egin duen pertsona hartzen duela landuntzat.

² Jarduera Tasa, LANEk emandako definizioaren arabera, pertsona aktiboen (langabetuak eta landunak) eta lan egiteko adinean dauden pertsona guztien arteko zatidura da.

III.5.2. KOADROA. LISBOAKO ETA STOCKHOLMEKO HELBURUAK BETETZEAREN ARABERAKO BILAKAERA

	Enplegu-tasa guztira				Emakumeen enplegu-tasa				55/64 urteko enplegu-tasa			
	Orain-go	Falta	Azken urtea	2000tik	Orain-go	Falta	Azken urtea	2000tik	Orain-go	Falta	Azken urtea	2000tik
EB 27	65,3	4,7	1,0	3,1	58,2	1,8	0,9	4,5	44,8	5,2	1,3	7,2
Danimarka	77,3	-7,3	0,4	0,9	73,3	-13,3	0,1	1,2	58,7	-8,7	-2,2	4,1
Herbehereak	76,0	-6,0	1,8	3,1	69,6	-9,6	2,1	6,2	51,0	-1,0	3,6	13,1
Suedia	74,3	-4,3	1,2	0,9	71,9	-11,9	1,3	0,6	69,9	-19,9	0,4	5,3
Austria	71,5	-1,5	1,5	3,1	64,2	-4,2	1,2	5,0	39,2	10,8	3,8	9,9
Finlandia	71,3	-1,3	1,4	3,2	69,2	-9,2	1,1	4,0	55,4	-5,4	1,2	14,2
Zipre	71,2	-1,2	1,7	5,8	62,7	-2,7	2,9	9,7	56,8	-6,8	3,3	7,3
Erresuma Batua	71,1	-1,1	-0,2	0,1	65,2	-5,2	-0,6	0,7	57,4	-7,4	0,1	7,0
Gipuzkoa	70,6	-0,6	-0,2	9,5	61,8	-1,8	0,2	15,1	45,4	4,6	-1,3	10,5
Estonia	69,7	0,3	0,9	9,4	66,4	-6,4	0,0	9,2	62,8	-12,8	1,1	19,5
Araba	69,3	0,7	-0,1	6,9	58,7	1,3	-1,3	9,3	44,2	5,8	1,7	8,3
Alemania	69,1	0,9	1,7	3,8	63,7	-3,7	1,5	5,9	52,0	-2,0	3,9	14,5
Irlanda	68,9	1,1	0,8	4,4	60,3	-0,3	1,5	7,1	54,0	-4,0	0,6	8,9
Eslovenia	68,3	1,7	1,2	5,6	63,3	-3,3	0,0	4,8	34,9	15,1	1,3	12,6
EAE	68,0	2,0	0,2	10,5	58,6	1,4	0,3	15,6	42,2	7,8	-1,2	8,2
Letonia	67,6	2,4	2,1	-	64,0	-4,0	1,1	-	55,2	-5,2	2,5	-
Portugal	67,6	2,4	-0,5	-0,6	61,7	-1,7	-0,7	1,2	50,3	-0,3	0,2	-1,0
Bizkaia	66,0	4,0	0,5	11,9	56,6	3,4	0,8	17,3	39,6	10,4	-1,9	6,5
Txekiar Errep.	66,0	4,0	0,7	1,1	57,5	2,5	0,7	0,7	45,8	4,2	0,4	9,7
Espainia	65,8	4,2	1,1	9,7	54,8	5,2	1,6	13,6	44,8	5,2	0,7	8,0
Lituania	65,4	4,6	1,7	-	62,7	-2,7	1,6	-	53,9	-3,9	4,3	-
Frantzia	63,9	6,1	0,9	1,8	58,9	1,1	1,2	3,7	38,4	11,6	0,6	1,1
Luxenburgo (Grand-Duche)	63,0	7,0	-0,6	0,3	53,5	6,5	-1,1	3,5	34,3	15,7	1,1	7,1
Belgika	61,6	8,4	1,2	0,7	54,9	5,1	1,3	3,0	33,8	16,2	3,4	8,8
Bulgaria	61,6	8,4	2,5	10,1	57,7	2,3	2,7	10,5	42,7	7,3	2,7	20,6
Grezia	61,5	8,5	0,5	4,9	48,1	11,9	0,6	6,3	42,1	7,9	-0,3	2,7
Eslovakia	60,4	9,6	1,1	4,1	52,9	7,1	1,3	1,8	35,1	14,9	2,5	13,6
Errumania	59,6	10,4	0,0	-4,6	53,6	6,4	-0,5	-5,4	41,5	8,5	-0,4	-10,5
Italia	58,9	11,1	0,0	5,5	46,8	13,2	0,1	7,5	34,0	16,0	1,3	6,7
Hungaria	57,6	12,4	0,3	1,7	51,0	9,0	-0,1	1,6	33,7	16,3	0,0	11,8
Polonia	56,8	13,2	2,9	1,7	50,4	9,6	2,6	1,1	29,2	20,8	1,9	0,2
Malta	55,7	14,3	1,4	1,2	36,8	23,2	2,2	3,3	27,6	22,4	-2,9	-1,0
	%70				%60 baino gehiago				%50			

Iturria: Lanbide Eurostaten, EFTren eta EUSTATen (BJA) datuekin

EAEko datuak 2006ko 2. hiruhilekoak dira; gainerako herrietakoak, berriz, 2005ekoak.

54 urtetik gorakoen enpleguari dagokionez, horien partaidetzak behera egin du 2006tik. 100 landun urritu dira; hala ere, 55 eta 64 urte bitarteko pertsona kopuruak izandako hazkunderaren eraginez, adin horretako enplegu-tasak 1,2 puntuko murriztapena izan du, eta %42,2ra jaitsi da (helburua %50). Horrela, EAE urrundu egiten da Lisboako helburutik, eta Estatuko eta EBko tasa baino bi puntu eta erdi beherago dago.

Bestalde, 16 eta 24 urte bitarteko gazteen artean EAEk enpleguak galtzen jarraitu du, baina gehienbat adin bitarteko horretako gazteak gero eta gutxiago izatearen ondorioz. Belaunaldi ordezipenaren defizitaren eraginez, adin horretako pertsona kopuru osoa gero eta txikiago da; gainera, 16 eta 24 urte bitarteko gazteen partaidetzaren ehunekoa hamarren batzuk murriztu da, 2006ko amaierakoari dagokionez. EBtik 5 puntura eta Estatutik 10 puntura

III.5.3. KODROA. ENPLEGU ADIERAZLEAK EUROPAR BATASUNEAN, 2006-2007

	Jarduera T.[1]		Langabezia T.		Gazteen Langab. T.		Denborazk. T.	
	2006	2007	2006	2007	2006	2007	2006	2007
EB-27	57,4	57,3	8,1	7,1	17,0	15,3	15,0	14,5
EB-1	57,8	58,0	7,7	7,0	16,9	15,1	14,8	14,8
EDB-15	56,7	56,9	8,2	7,4	16,1	14,8	16,7	16,7
Belgika	53,1	53,6	8,2	7,5	20,5	18,8	8,7	8,6
Bulgaria	51,3	52,6	9,0	6,9	19,5	15,1	6,2	5,2
Txekiar Err.	59,3	58,8	7,1	5,3	17,5	10,7	8,7	8,6
Danimarka	65,9	65,7	3,9	3,8	7,7	7,9	8,9	8,7
Alemania	59,2	59,4	9,8	8,4	12,5	11,1	14,5	14,6
Estonia	60,4	60,4	5,9	4,7	12,0	10,0	2,7	2,1
Irlanda	63,0	63,7	4,4	4,6	8,6	9,3	3,4	7,3
Grezia	53,4	53,4	8,9	8,3	25,2	22,9	10,7	10,9
Espainia	57,6	58,2	8,5	8,3	17,9	18,2	34,0	31,7
Frantzia	56,6	56,8	9,2	8,3	22,1	19,4	14,1	14,4
Italia	49,2	48,9	6,8	6,1	21,6	20,3	13,1	13,2
Zipre	63,5	64,4	4,6	3,9	10,5	9,8	13,1	13,2
Letonia	59,4	60,6	6,8	6,0	12,2	10,7	7,1	4,2
Lituania	55,9	56,3	5,6	4,3	9,8	8,2	4,5	3,5
Luxenburgo	55	54,5	4,7	4,7	16,2	17,5	6,1	6,8
Hungaria	50,6	50,5	7,5	7,4	19,1	18,0	6,7	7,3
Malta	50,4	50,6	7,3	6,4	16,3	13,1	3,8	5,2
Holanda	65,3	66,1	3,9	3,2	6,6	5,9	16,6	18,1
Austria	60,2	61,0	4,7	4,4	9,1	8,6	9,0	8,9
Polonia	54,0	53,7	13,8	9,6	29,8	21,7	27,3	28,2
Portugal	62,5	62,6	7,7	8,0	16,3	16,6	20,6	22,4
Errumania	55,0	54,8	7,3	6,4	21,4	20,1	1,8	1,6
Eslovenia	59,3	59,7	6,0	4,8	13,9	10,1	17,3	18,5
Eslovakia	59,1	58,8	13,4	11,1	26,6	20,3	5,1	5,1
Finlandia	61,0	61,2	7,7	6,9	18,7	16,5	16,4	15,9
Suedia	63,4	63,7	7,0	6,1	21,5	19,1	17,3	17,5
Erresuma B.	62,4	62,2	5,4	5,3	14,0	14,3	5,8	5,8
EAE	54,6	54,6	4,1	3,3	8,2	7,6	25,3	21,0

Iturria: EUROSTATEN (2008ko maiatzaren 21eko datuak) eta EUSTATEN oinarrituz eginda.

gaude, eta, Lanbidek dioenez, EAEko gazte-enpleguaren tasa urriak azaltzen dituzten zergatiak honako hauek dira: hezkuntza-ibilbide luzea, familia inguru babeslea eta lan-merkatuan sartzeko oztopoak.

Soldatapekoek egindako lanaldiari dagokionez, landun hertsien kopuruak (15-40 ordu bitarteko lanaldia dutenak) gora egin du; hain zuzen ere, horien kopuruak %2,7ko hazkundea izan du, eta 917.000 pertsona dira (2006an %+2,5); aldiz, hortik gorako ordu kopurua egiten dutenak urritu egin dira (44 ordutik gorako lanaldia), eta horien kopuruak


%22,9ko murriztapena izan du (2006an %-20,6) eta 34.400 pertsonara jaitsi da, azken urteotako joerari eutsita. Gehiegizko lana nahiz lan marjinala dutenen eta ia langabezia daudenen bolumenak (erreferentziako astean 15 ordu baino gutxiago egiten dituztenak) %18,9ko murriztapena izan du (aurreko urtean %18ko hazkundea), eta guztira 13.300 pertsona dira.

Denborazkotasun maileri dagokionez, BJAko datuen arabera, horrek behera egin du bosgarren urtez jarraian, eta aldi baterako kontratua duten soldatapekoen ehune-

III.5.4. KOADROA. LANDUNAK ETA LANGABETUAK SEKTOREKA

	Pertsona kop. (milatan)		Hazkundera (milatan)		Urte batetik best. aldaketa-tasa	
	2006	2007	05-06	06-07	05-06	06-07
ENPLEGUA – BJA	954,2	964,8	13	10,6	1,4	1,1
L. SEKTOREA	12,5	12	1,3	-0,6	11,6	-4,4
INDUSTRIA	244,5	245,5	-2,1	1	-0,9	0,4
ERAIKUNTZA	80,7	83,6	-2	2,9	-2,4	3,6
ZERBITZUAK	616,4	623,7	15,6	7,3	2,6	1,2
LANGABEZIA – BJA	40,5	32,5	-16,5	-8	-28,9	-19,8
L. SEKTOREA	0,3	0,1	-0,1	-0,2	-25	-66,7
INDUSTRIA	7,4	6,2	-2,8	-1,2	-27,5	-16,2
ERAIKUNTZA	4,7	3,4	-1,6	-1,3	-25,4	-27,7
ZERBITZUAK	24,8	20,1	-9,8	-4,7	-28,3	-19
1. enpleguaren bila	3,3	2,7	-2,2	-0,6	-40	-18,2

Iturria: EUSTAT. "Biztanleria Jardueraren Arabera" inkesta.

III.5.2. GRAFIKOA. LANDUNEN BILAKAERA (MILATAN), LANEAN EGINDAKO ORDU KOPURUAREN ARABERA

Iturria: EUSTAT

III.5.5. KOADROA. 16 URTEKO ETA GEHIAGOKO SOLDATAPEKO LANDUNEN BILAKAERA, KONTRATU MOTAREN ARABERA

		BALIO ABSOLUTUAK (MILAK)					ALDAK. %		GUZTIZKOAREN %	
		2003	2004	2005	2006	2007	% 05-06	% 06-07	2006	2007
Guztira	Guztira	730,2	753,7	769,5	783,2	795,0	1,8	1,5	100,0	100,0
	Gizonak	422,3	429,1	434,9	435,9	444,1	0,2	1,9	100,0	100,0
	Emakumeak	307,8	324,6	334,5	347,3	351,0	3,8	1,1	100,0	100,0
Mugaga-bea-finkoa	Guztira	490,9	516,1	543,4	558,5	603,4	2,8	8,0	71,3	75,9
	Gizonak	303,9	317,8	327,5	330,1	357,3	0,8	8,2	75,7	80,5
	Emakumeak	187,0	198,4	215,8	228,4	246,1	5,8	7,7	65,8	70,1
Aldi baterakoa	Guztira	209,6	203,1	197,1	198,2	166,8	0,6	-15,8	25,3	21,0
	Gizonak	114,9	106,9	100,8	101,9	83,6	1,1	-18,0	23,4	18,8
	Emakumeak	94,7	96,2	96,3	96,3	83,2	0,0	-13,6	27,7	23,7
Kontratu barik eta b. batzuk	Guztira	29,6	34,4	29,0	26,4	24,8	-9,0	-6,1	3,4	3,1
	Gizonak	3,5	4,4	6,6	3,8	3,2	-42,4	-15,8	0,9	0,7
	Emakumeak	26,1	30,0	22,4	22,6	21,6	0,9	-4,4	6,5	6,2

Iturria: EUSTAT. BJA.

III.5.6. KOADROA. JARDUERA ETA LANGABEZIA TASEN BILAKAERA, SEXUAREN ETA ADIN TALDEEN ARABERA. URTEKO B. BESTEKOAK

		Jarduera-tasa			Langabezia-tasa		
		2005	2006	2007	2005	2006	2007
16 urtetik gorakoak		54,8	54,6	54,6	5,7	4,1	3,3
16-24		37,7	34,9	33,5	13,5	8,2	7,6
25-34		86,5	87,0	87,6	7,4	5,6	4,1
35-44		83,7	83,7	84,3	5,4	3,8	3,2
45-54		76,6	77,2	77,9	3,2	2,3	2,0
55-64		42,5	42,7	41,9	2,3	2,2	1,6
+ 64		1,1	0,9	0,9	0,0	0,0	0,0
Gizonak	GUZTIRA	65,3	64,4	65,0	4,7	3,7	3,0
16-24		41,5	37,5	37,8	11,9	7,5	7,6
25-34		89,8	90,3	92,4	6,5	5,7	4,5
35-44		93,8	93,7	93,8	4,6	3,3	2,6
45-54		93,3	92,7	92,3	2,2	2,0	1,6
55-64		59,2	57,5	58,8	2,1	1,9	1,6
+ 64		1,6	1,3	1,5	0,0	0,0	0,0
Emak.	GUZTIRA	44,9	45,2	44,9	7,0	4,5	3,6
16-24		33,7	32,2	32,2	15,7	9,0	7,7
25-34		83,1	83,5	83,5	8,4	5,5	3,6
35-44		73,6	73,4	73,4	6,3	4,5	4,1
45-54		60,1	62,3	63,8	4,7	2,8	2,5
55-64		26,4	28,1	27,4	2,7	2,5	1,6
+ 64		0,7	0,5	0,5	0,0	0,0	0,0

Iturria: Eustat. BJA

koa %21ekoa izan da, 2006an baino 4,2 puntu gutxiago. Beherakada, gainera, bi sexuetan egon da: emakumeen artean 4 puntuko beherakada eta gizonen artean 4,6koa. Horren ondorioz, 2007an sexuen arteko denborazkotasunean dagoen aldea handitu egin da EAEn, eta 4,9 puntukoa da (aurreko urtean baino 6 hamarren handiagoa), gizonen artean beherakada emakumeen artean baino handiagoa izatearen ondorioz.

Hala eta guztiz ere, eta azken urteko murriztapena handia izan arren (aldi baterako kontratua duen langile kopurua %15,8an murriztu da), denborazkotasun-ratioak Europako batez bestekoaren gainetik daude oraindik (EB-27an %14,5); dena den, Estatuko tasa baino hamar puntu txikiagoa da. Bestalde, kontraturik gabeko egoerak eta beste batzuk (gehienbat emakumeengan eragina du-

tenak, gizonen kasuan 2007an %9,7 izan baita) jasotzen dituen tasa ere murriztu egin da urte honetan. Emakume-ari dagokionez, %6,2koa da, aurreko urtekoa baino hiru hamarren txikiagoa eta hamarkada osoko tasarik txikiena.

Adin-taldeen arabera, aldi baterako kontratua duten edo kontraturik ez duten pertsonen tasarik handienak gazteenek dituzte, aurreko urteko tasarekiko murriztapena egon arren. Hain zuzen ere, lanean ari diren 16-24 urte bitarteko emakumeen %62,4k eta adin horretako gizonen %59,3k aldi baterako kontratua dute. Adin horretarako, "kontraturik gabe eta beste batzuk" egoeran dauden sol-datapekoen tasak, hurrenez hurren, %6,3 eta %2,2 dira³.

Enpleguak sektoreka duen bilakaera aztertuta ikusten denez, urte horretan enplegua gehienbat zerbitzu-sekto-

³ EAEko gazteen lan-baldintza zehatzak aztertzeko, irakurri Memoria Sozioekonomiko honetako IV.1.2 kapitulua ("Talde zaurgarri batzuen bizi-baldintzak: gazteak").

III.5.7. KOADROA. GIZARTE SEGURANTZAKO AFILIAZIOA, JARDUERA SEKTOREAREN ETA LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA

	EAE		ARABA		BIZKAIA		GIPUZKOA	
	2007 (abendua)	ald. % 2006 (abendua)	2007 (abendua)	ald. % 2006 (abendua)	2007 (abendua)	ald. % 2006 (abendua)	2007 (abendua)	ald. % 2006 (abendua)
L. SEKTOREA	13.965	-1,8	4.360	-4,6	5.969	1,4	3.636	-3,3
INDUSTRIA	228.536	2,8	45.763	3,0	93.359	3,3	89.414	2,2
ERAIKUNTZA	89.858	-0,9	13.417	-3,3	49.017	-0,8	27.424	0,1
ZERBITZUAK	636.334	3,0	95.068	3,5	340.989	2,7	200.277	3,1
GUZTIRA	968.693	2,5	158.608	2,5	489.334	2,5	320.751	2,5

Iturria: GSDO

reak eutsi du: EAEko enplegu osoaren %64,6 (2006ko tasa bera). Hala eta guztiz ere, industriak eta eraikuntzak enpleguak irabazi dituzte, hurrenez hurren, 1.000 eta 2.900, aurreko urteetan gertaturikoaren alderantziz. Bestalde, lehen sektoreak langileen %4,4 galdu ditu.


Sexuaren arabera bilakaerari dagokionez, enplegua proportzio handiagoan hazi da gizonen artean (urteko batez bestekoa %+1,5; emakumeen artean %+0,5), baina bilakaera desberdinarekin: emakumeen artean enpleguak gora egin du zerbitzu-sektorean (%+0,5 edo 1.600 enplegu), eta, harrigarria bada ere, eraikuntzan ere bai (%+25,4; hain zuzen ere, 1.700 enplegu). Hala ere, industrian emakumeen partaidetzak %2,6ko murriztapena izan du; gizonen kasuan, murriztapenaren urteko batez bestekoa %1,2koa izan da.

Azkenik, eta Gizarte Segurantzako afiliazioari dagokionez (2007ko abenduan), lehen esan dugunaren arabera,

horrek %2,5eko hazkundea izan du, aurreko urtetik. Araubideka, hazi egin diren bakarrak Araubide Orokorra (%+2,9) eta Autonomoak izan dira (%+1,7); gainerako araubideetan, berriz, Itsasoko araubidearen %-5,9ko murriztapenetik Nekazaritzako %-4,3rako edo Etxeko %-2rako murriztapenak egon dira. Jarduera-sektoreen arabera, hazkunderik handiena zerbitzueta egon da (%+3); industrian, bestalde, zenbait urtetan beherakada etengabea egon arren, 2007an %2,8ko hazkundea egon da, BJAko emaitzekin bat etorritik. Eraikuntzak, bestalde, nabaritu egin du higiezin dezelerazioa, eta ia puntu bat galdu du 2006ko abendutik.

5.1.2. Langabezia

2007an langabeziak bilakaera oso ona izan du (%3,3ko batez bestekoa, 2006an baino 8 hamarren gutxiago), eta langabezia frikzionaleko zifretara hurbildu da. Talde oso

III.5.3. GRAFIKOA. JARDUERA TASAK SEXUAREN ETA ADIN TALDEAREN ARABERA. EAE. 2007

Iturria: EUSTAT

III.5.8. KOADROA. EEZP-KO BULEGOETAN ERREGISTRATURIKO LANGABEZIA (ABENDUA)

	ABENDUA 2005	ABENDUA 2006	ABENDUA 2007	2005-06ko %	2006-07ko %
GUZTIRA	83.390	76.203	74.582	-8,6	-2,1
GIZONA	35.931	31.317	31.068	-12,8	-0,8
EMAKUMEA	47.459	44.886	43.514	-5,4	-3,1
Adina < 25 urte	7.817	5.957	5.677	-23,8	-4,7
25-44 urte	42.645	38.062	36.265	-10,7	-4,7
45 urte eta gehiago	32.928	32.163	32.640	-2,3	1,5

Iturria: EEZP.

III.5.9. KOADROA. EAE-KO LANGABETUAK. ALDAGAI NAGUSIEN BILAKAERA

	Pertsona kop.			Diferentzia		Aldaketaren %		Langab. T.	
	2005	2006	2007	2005-06	2006-07	2005-06	2006-07	2006	2007
GUZTIRA	57.000	40.500	32.500	-16.500	-8.000	-28,9	-19,8	4,1	3,3
GIZONAK	27.400	21.300	17.500	-6.100	-3.800	-22,3	-17,8	3,7	3,0
EMAKUMEA	29.500	19.200	15.100	-10.300	-4.100	-35,0	-21,4	4,5	3,6
ADINA 25-44	10.100	5.400	4.600	-4.700	-800	-46,5	-14,8	8,2	7,6
ADINA 25-44	37.100	27.300	21.400	-9.800	-5.900	-26,4	-21,6	4,7	3,7
ADINA +45	9.800	7.800	6.600	-2.000	-1.200	-20,4	-15,4	2,2	1,9
Oinarritzko ikasketak	4.200	2.700	1.700	-1.500	-1.000	-28,8	-27,0	2,8	2,3
Erdiko ikasketak	29.900	21.200	15.900	-8.700	-5.300	-24,7	-20,0	4,7	3,7
Goi-ikasketak	14.900	8.600	6.900	-6.300	-1.700	-38,0	-16,5	3,5	2,8
Lehen lan egin dute	51.800	37.300	29.900	-14.500	-7.400	-28,0	-19,8		
Lehenengo lanaren bila	5.200	3.300	2.700	-1.900	-600	-36,5	-18,2		


Iturria: Eustat "BJA"

zehatzetako langabezia-poltsa batzuk baino ez dira gelditzen; adibidez, 16-24 urte bitarteko gazteak, eta horiek ere tasa oso txikiak dituzte (%7,6). Aldiko batez besteko datuaren arabera, EAEn 32.500 langabetu daude, 2006an baino 8.000 gutxiago, eta horrek %19,8ko murriztapena adierazten du (2005etik 2006ra %-28,9).

Sektoreka, langabetuen %61,8 zerbitzu-sektorekoak dira, eta, bertan, langabeziak %19ko murriztapena izan du. Halaber, industrian langabeziak %16,2ko beherakada izan du (batez bestekoaren azpitik), eta eraikuntzan langabetu kopuruak murriztapen handia izan du: %-27,7. Bestalde, lehenengo enpleguaren bila ari diren pertsonen taldea 600 pertsonatan urritu da, eta urteko batez bestekoa 2.700 pertsonakoa da.

Hala eta guztiz ere, 2007ko Lanbidek 4. hiruilekoari buruzko "Lan Merkatuaren Koiunturari buruzko Txostena" deritzon adierazitakoaren arabera, datu oso positibo horiei ñabardurak egin behar zaizkie, EAEn jarduerarik ezaren tasek duten beherazko erresistentziaren eraginez. Izan ere, EAEko jarduera-tasa orokorra %54,6an mantendu da (aldu barik) azken urtean (EBko tasa baino hiru puntu txikiagoa). Txostenean esaten denez, langabeziaren eta jarduerarik ezaren arteko muga oso iluna da, batez ere zenbait talderen kasuan (esate baterako, emakumeak eta 16-24 urte bitarteko gazteak); hortaz, komenigarria da pertsona horien lan-motibazioa eragiten duten neurriak hartzea, gehienbat adinen arteko desoreka-egoera batean, horrek oztopatu egiten baitu belaunaldien arteko txanda.

III.5.4. GRAFIKOA. IRAUPEN LUZEKO LANGABEZIA TASAREN BILAKAERA



Iturria: EUSTATen eta EUROSTATen oinarrituz eginda

Horri dagokionez, gogoratu behar da Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak erregistraturiko langabezia estatistikako langabezia baino askoz ere handiagoa dela. 2007an 74.582 langabetu egon ziren EIN-EEZPn erregistratuta, eta EUSTATen "Biztanleria Jardueraren Arabera" inkestak, berriz, 31.400 kalkulatu zituen, urteko laugarren hiruilekoan; izan ere, inkesta horretan langabetuen sailkapenean ez dira jasotzen enplegu-eskatzailatzat inskribaturiko pertsona asko⁴. Izan ere, EEZPn erregistraturiko langabeziak beheranzko joera adierazten du (azken urtean %2,1eko murriztapena, eta Estatuan langabeziak %5,3ko hazkundea), hain zuzen ere, BJAk kalkulaturikoa baino 2,4 aldiz handiagoa. Langabetu atzeritarren bilakaera, berriz, negatiboa izan da, eta horien kopuruak %23ko hazkundea izan du (Estatuko batez bestekoaren antzean).

Adinen arabera, eta EUSTATen urteko erreferentzian, langabeziaren murriztapenik handiena erdiko taldean egon da, bai balio erlatiboetan (%-21,6) eta bai absolutuetan (-5.900). 25 urtetik beherakoen artean, beherakada txikiagoa da balio erlatiboetan (%-14,8), eta 45 urtetik gorakoen artean gauza bera gertatzen da (%-15,4); azken kasu horretan, agerian gelditu da adin nagusienetan egiturazko langabeziak eragin handiagoa duela.

⁴ Bi eragiketen arteko desberdintasun metodologikoak oso garrantzitsuak dira, eta ez dute konparaziorik ahalbidetzen; izan ere, langabetuen sailkapen desberdinak edukitzeaz gain, EEZPren zifrak erregistroetatik datoz, eta BJAren zifrak, berriz, lagin jakinean oinarrituz egindako inkesta batetik.

III.5.10. KOADROA. ENPLEGU ESKARIAK EAE-N. ABENDUA

	2005	2006	2007
Etendako eskariak	1.106	904	710
Gizarte-lankidetzak	12	5	10
Erretirodunak	797	807	789
Pentsiodunak	1.314	1.349	1.351
Enpleg. Ar. Esp.	126	136	85
Koiuntura-enplegua	1	0	0
20 ordutik beherako lanaldia	3.639	2.529	1.979
Ikasleak	691	509	309
Finko ez-jarraituak	1.732	2.852	3.016
AOko landunak eta autonom.	20.131	19.325	20.079
Nekazaritzako landunak	156	180	175
Beste zergati batzuk	953	486	643
GUZTIRA	30.658	29.082	29.146

Iturria: EEZP (Enplegu Sustapeneko Zuzendariordetza Nagusia)

Nazioarteko testuinguruan, EAE lan-merkatuan jokatzen duten Europako herrien antzeko langabezia mailetan dago; izan ere, gure erkidegoaren antzeko lan-

III.5.11. KOADROA. LANGABETU ESKATZAILEAK ENPLEGU AUKERAREN ARABERA, AUTONOMIA ERKIDEGOKA: GUZTIZKOAREN % 2007ko ABENDUA

	ENPLEGU AUKERA				
	OSO BAXUAK	BAXUA	ERTAINA	ALTUA	INSKRIB. GUZTIRA
Nafarroa	11,7	17,6	38,3	32,4	21.575
Madril	10,3	21,4	40,9	27,4	229.150
EAE	16,0	22,5	34,7	26,8	74.582
Kantabria	14,7	22,4	36,2	26,7	21.848
Asturias	13,5	24,0	35,9	26,6	51.229
Valentziako Erk.	14,7	27,5	34,3	23,5	215.693
Balearrak	8,2	27,8	43,3	20,7	50.004
ESTATUA GUZTIRA	16,1	30,6	36,1	17,2	2.129.547
Galizia	19,5	28,7	35,7	16,1	154.982
Gaztela eta Leon	17,1	31,0	36,1	15,8	109.711
Kanariak	17,0	29,4	38,4	15,2	139.081
Andaluzia	16,9	33,3	35,2	14,7	510.817
Melilla	14,3	31,4	39,7	14,6	6.411
Gaztela-Mantxa	14,8	31,7	39,2	14,4	94.955
Extremadura	22,1	32,1	33,0	12,8	76.202
Murtzia	13,6	40,7	35,5	10,1	51.623
Katalunia	20,1	38,9	32,3	8,7	265.789
Errioxa	15,5	40,9	35,5	8,1	10.753
Aragoi	15,3	36,4	40,4	8,0	38.378
Ceuta	18,4	40,3	36,9	4,4	6.764

Iturria: EIN

gabezia-tasak dituzten bakarrak Danimarka (%3,8) eta Herbehereak (%3,2) dira. Alemaniako, Frantziako eta Espainiako langabezia-tasak geureak baino bost puntu handiagoak dira, Erresuma Batukoak 2 puntu handiagoak, eta Amerikako Estatu Batuek ere EAEk baino bi puntu gehiagoko tasa dute. 2007rako, EB-27ko batez bestekoa %7,1ekoa da, eta azken urtean puntu bat urritu da.

Bestalde, iraupen luzeko langabezia-tasak ere (2 urte edo gehiago langabezian) bilakaera oso positiboa izan du; horrela, EAEko batez bestekoa %0,8koa izan da, 2006an baino 6 hamarren gutxiago; EBko batez bestekoa %3koa izan da, eta Estatukoa %1,7koa.

Sexuaren araberako desberdintasunek, beste alde batetik, murriztapen handia izan dute Euskal Autonomia Erkidegoan, eta emakumeak ere enplegu beteko egoeran daude. EAEn emakumeen langabezia tasa (%3,6) EBko batez bestekoaren erdia da, eta Estatuko batez bestekoa baino 7 puntu txikiagoa; emakumeen langabeziarik urrieko estatuak, berriro ere, Danimarka eta Holanda dira. Hala ere, gure erkidegoko emakumeen jarduera-tasa urriak (%44,9) balioa kentzen dio puntuazio bikain horri, lehen esan dugunez.

16-24 urte bitarteko gazteen langabezia ere (oraintsu arte oso dimentsionatuta) asko murriztu da %7,6ra arte

⁵ Erregistraturiko langabetuen Enplegu Aukeraren Indizeak langabetu izateari uzteko (lana aurkituta) aukera handiagoa edo txikiagoa adierazten du. Honako aldagai hauek hartzen dira aintzat: lana biltzeko antzintasuna (urtebetetik gorakoa edo beherakoa), bilaketaren eremu geografikoa (langabetua bizi den udalerrira mugatua edo ez), eskaturiko lan kopurua (hirutik beherakoa edo ez) eta 52 urtetik gorako enplegu-laguntza jasotzailea nahiz laneratzeko errenta aktiboaren onuraduna izatea. Langabetuaren enplegu-aukera oso baxutik altura bitartekoa izango da, betetako baldintza kopuruaren arabera (oso baxua baldintza guztiak betetz gero, eta altua baldintza bat bera ere bete ezean).

III.5.12. Koadroa. ERREGISTRATURIKO LANGABEZIA ESKUALDEKA. 2007ko ABENDUA

ESKUALDEA	2007ko abendua			2006ko abendua			2006/2007ko ALD. %		
	Guztira	Gizonak	Emakum.	Guztira	Gizonak	Emakum.	Guztira	Gizonak	Emakum.
Bilbo	13.832	6.018	7.814	14.055	6.008	8.047	-1,6	0,2	-2,9
Ezkerraldea	10.800	4.844	5.956	11.401	5.104	6.297	-5,3	-5,1	-5,4
Gasteiz	8.399	3.428	4.971	8.349	3.351	4.998	0,6	2,3	-0,5
Donostia	5.884	2.465	3.419	6.005	2.525	3.480	-2,0	-2,4	-1,8
Gobela	3.536	1.512	2.024	3.677	1.587	2.090	-3,8	-4,7	-3,2
Bidasoa Behea	3.483	1.253	2.230	3.618	1.324	2.294	-3,7	-5,4	-2,8
Ibaizabal	3.206	1.327	1.879	3.283	1.291	1.992	-2,3	2,8	-5,7
Oarsoalde	2.508	1.078	1.430	2.545	1.111	1.434	-1,5	-3,0	-0,3
Donostia Mend.	2.460	897	1.563	2.526	841	1.685	-2,6	6,7	-7,2
Uribealde	1.863	727	1.136	1.810	663	1.147	2,9	9,7	-1,0
Durangalde	1.838	792	1.046	1.942	823	1.119	-5,4	-3,8	-6,5
Deba Behea	1.812	767	1.045	1.663	626	1.037	9,0	22,5	0,8
Tolosalde	1.714	646	1.068	1.869	687	1.182	-8,3	-6,0	-9,6
Deba Garaia	1.471	568	903	1.612	652	960	-8,7	-12,9	-5,9
Aiara Harana	1.295	537	758	1.342	579	763	-3,5	-7,3	-0,7
Busturialdea	1.280	442	838	1.443	542	901	-11,3	-18,5	-7,0
Txorierri	1.247	533	714	1.204	549	655	3,6	-2,9	9,0
Urola Kosta	1.211	464	747	1.256	504	752	-3,6	-7,9	-0,7
Enkarterriak	1.108	480	628	980	412	568	13,1	16,5	10,6
Goierrri	971	392	579	955	352	603	1,7	11,4	-4,0
Nerbioi Ertaina	953	357	596	919	331	588	3,7	7,9	1,4
Arratia-Zornotza	780	312	468	735	284	451	6,1	9,9	3,8
Urola Erdia	705	301	404	715	271	444	-1,4	11,1	-9,0
Urola Garaia	638	251	387	679	218	461	-6,0	15,1	-16,1
Lea-Artibai	635	289	346	692	308	384	-8,2	-8,2	-9,9
Arabako Lautada	338	130	208	328	123	205	3,0	5,7	1,5
Arabako Errioxa	227	90	137	208	79	129	9,1	13,9	6,2
Arabako Haranak	179	70	109	165	62	103	8,5	12,9	5,8
Gorbeialdea	143	57	86	158	67	91	-9,5	-14,9	-5,5
Arabako Mendia	66	41	25	69	43	26	-4,3	-4,7	-3,8
Guztira	74.582	31.068	43.514	76.203	31.317	44.886	-2,1	-0,8	-3,1


Iturria: EZPIS.

(2006an baino 6 hamarren gehiago). Horrela, Europako txi-kienetarikoa da, eta Danimarkakoa (%7,9) baino txikiagoa ere bada. EAEkoa baino tasa urriagoa duten bakarrak Her-behereak dira (%5,9). EBko batez bestekoa %15,3ko da, EAEkoa baino 7,7 puntu handiagoa, Alemaniakoa 3,4 puntu handiagoa, Erresuma Batukoa 7,4 puntukoa, Fran-tziakoa 10,7 puntukoa eta Espainiakoa 11,9 puntukoa.

Emakumeen kasuan bezala, datua erlatibizatu egin behar da, EAEko gazteen jarduera-tasa baxuaren eraginez (%33,5; azken urtean, gainera, 1,4 puntuko murriztapena).

Azkenik, hiru Lurralde Historikoak, 2007an, egiturazko langabeziaren mugan egon dira, EAEko lan-merkatuak urte horretan izandako bilakaerari lotuta, BJAREN datuen ara-bera.

III.5.5. GRAFIKOA. LANGABEZIA TASAK LURRALDE HISTORIKOEN ARABERA IZANDAKO BILAKAERA



Iturria: EUSTAT. BJA

Bizkaiko langabezia-tasa altuena izan da beti, eta aurreten ere horrelaxe izan da, baina gutxieneko historikoa izan du (%4), eta 2006tik puntu bat urritu da. Aldi berean, lurralde horretako jarduera-tasak (EAEkorik txikiena) %52,9ko batez bestekoa izan du, aurreko urtean baino hiru hamarren gehiago. Gipuzkoak, bestalde, %2,6ko batez besteko langabezia-tasa izan du, 2006an baino hiru hamarren gutxiago, eta bertako jarduera-tasa %56,7koa izan da. Azkenik, langabeziarik urriena Arabak dauka (%2,3; 2006an baino 1,2 puntu gutxiago), baita jarduera-tasarik altuena ere (%56,8), baina horrek 8 hamarrenen murriztapena izan du azken urtean. Gainera, grafikoan ikusten denez, urte honetan ere mantendu egin da hiru lurraldeetako langabezia tasek konbergentziarako duten joera.

Eskualdeka erregistraturiko langabeziaren datuek izandako bilakaerari dagokionez ikusten denaren arabera, langabetu kopururik handiena Bilbon dago, eta gero Ezkerraldean, Gasteizen, Donostian eta Eskuinaldean. Balio erlatiboetan, 2007ko laugarren hiruhilekoko datuek agerian jarri dutenez, langabezia-indizek handienekoa Ezkerraldea izan da urte honetan ere, eta horren atzetik (oso hurbil) Bidasoa Behea dago. Oro har, Bilbo Handiko zonan egoera negatiboa da oraindik, Eskuinaldean izan ezik, bertako langabezia-tasa EAEko batez bestekoa baino apur bat txikiagoa baita.

Eskualdeen arabera bilakaera oso desberdina da: Bilbo Handiko zonan beherakada handiak ikusi dira, batez ere itsasadarreko bi ertzetan; gauza bera gertatu da Aiara haranean, Uribealdean, Ibaizabalaren eta Bilbon. Langabeziaren bilakaera oneko beste eskualde batzuk, azken urteotan, Deba Behea, Tolosaldea, Bidasoa Behea eta Donostia izan dira. Langabeziaren hazkunderik handieneko eskualdeen artean (balio absolutuetan), aipatzekoak dira Deba Garaia, Enkarterriak eta Durangaldea.

5.2. Lan merkatuan sartzeko eta bertatik irteteko jarioak

5.2.1. Kontratazioaren panorama

Lan-merkatuko beste adierazle batzuen bilakaerarekin bat etorritik, kontratazioak gora egin du EAEn, baina aurreko urtean baino erritmo motelagoan. Hazkunde-tasa %2,3koa izan da, eta 2006an %5,4koa izan zen. Aldi baterako kontratuak mugagabe bihurtzearen (2006an gertaturikoa)⁶ eraginezko hobari-prozesu bikainak mesede egin dio emaitza

⁶ 5/2006 LED onetsi zenean, 2006ko ekaina baino lehenagoko aldi baterako kontratuak mugagabe bihurtzeko egitamu berezia abiatu zen, hori urtebetean eginez gero, eta oroharreko prezioa pizgarri ekonomiko bat sartu zen hiru urtetan.

III.5.13. KOADROA. LAN KONTRATUEN BILAKAERA, MODALITATEAREN ETA SEXUAREN ARABERA. 2006-2007

	2006				2007				Aldak. %. 2006-07		
	Gizona	Emak.	Guztira	% bertik.	Gizona	Emak.	Guztira	% bertik.	Gizona	Emak.	Guztira
Mugagabe bihurtuta	26.303	19.926	46.229	5,4	18.260	14.487	32.747	3,8	-30,6	-27,3	-29,2
Lanaldi partzialeko aldi baterakoak	70.276	167.936	238.212	28,0	69.715	172.952	242.667	27,9	-0,8	3,0	1,9
Mug. Arr. / 12/2001-24/2001 Leg. Mug.	9.672	4.128	13.800	1,6	13.587	6.669	20.256	2,3	40,5	61,6	46,8
Elbarrien L. Osoko Mugagabea	227	66	293	0,0	216	71	287	0,0	-4,8	7,6	-2,0
L. Osoko Mug. Hobariarekin	4.009	4.569	8.578	1,0	4.334	4.888	9.222	1,1	8,1	7,0	7,5
L.P. M. / 5/2001 EDko L.P.M.	2.328	2.771	5.099	0,6	2.668	3.948	6.616	0,8	14,6	42,5	29,8
L.P.M. Elbarrientzat	44	58	102	0,0	31	56	87	0,0	-29,5	-3,4	-14,7
L. Partzialeko Mug. Hobariarekin	538	3.106	3.644	0,4	917	3.831	4.748	0,5	70,4	23,3	30,3
Aldizkako Fink./5/2001 EDko A. Fink.	818	979	1.797	0,2	975	1.643	2.618	0,3	19,2	67,8	45,7
Elbarrien Aldizkako Finkoa	2	3	5	0,0	1	3	4	0,0	-50,0	0,0	-20,0
Aldizkako Finkoa Hobariarekin	82	180	262	0,0	126	174	300	0,0	53,7	-3,3	14,5
Lanaldi Osoko Obra edo Zerbitzua	139.255	53.593	192.848	22,7	140.093	54.051	194.144	22,3	0,6	0,9	0,7
L.O. Aldi B. Prod. Erag.	129.176	101.062	230.238	27,1	133.993	107.976	241.969	27,8	3,7	6,8	5,1
Lanaldi Osoko Bitartekotasuna	28.058	65.711	93.769	11	29.185	69.392	98.577	11,3	4,0	5,6	5,1
Lanaldi Osoko Praktikak	3.812	2.455	6.267	0,7	3.734	2.422	6.156	0,7	-2,0	-1,3	-1,8
Heziketa	1.349	869	2.218	0,3	1.164	837	2.001	0,2	-13,7	-3,7	-9,8
Elbarrien A.B. Lanaldi Osotan	532	221	753	0,1	585	247	832	0,1	10,0	11,8	10,5
Lanaldi O. Txandakako Kontratua	3.189	815	4.004	0,5	3.384	952	4.336	0,5	6,1	16,8	8,3
Gizarte Lankidetzako Kontratua	38	5	43	0,0	50	6	56	0,0	31,6	20,0	30,2
64 Urteko Erretiro Berezia	45	28	73	0,0	53	25	78	0,0	17,8	-10,7	6,8
Beste batzuk	970	664	1.634	0,2	870	691	1.561	0,2	-10,3	4,1	-4,5
Guztira	420.723	429.145	849.868	100%	423.941	445.321	869.262	100%	0,8	3,8	2,3

Iturria: EEZP-EIN

III.5.14. KOADROA. LANALDI PARTZIALEKO ALDI BATERAKO KONTRATUEN BANAKETA, MOTAREN ETA SEXUAREN ARABERA

	2007			% BERTIKALA 2007			ALDAK. %. 2006/07		
	Gizona	Emak.	Guztira	Gizona	Emak.	Guztira	Gizona	Emak.	Guztira
Lanaldi Partzialeko Obra	27.770	56.241	84.011	39,8	32,5	34,6	0,0	0,2	0,1
A.B. Lan Partziala Produk.	32.644	65.998	98.642	46,8	38,2	40,6	9,1	5,0	6,4
Bitartekotasuna	5.270	48.948	54.218	7,6	28,3	22,3	15,0	18,1	17,8
Lanaldi Partzialeko Praktikak	231	528	759	0,3	0,3	0,3	-1,3	-11,1	-8,3
Lanaldi P. Aldi B. Elbarrientzat	73	60	133	0,1	0,0	0,1	151,7	25,0	72,7
Erretiro Partziala	3.582	869	4.451	5,1	0,5	1,8	6,6	40,4	11,9
L. Partzialeko Txandakakoa	145	308	453	0,2	0,2	0,2	5,8	85,5	49,5
GUZTIRA	69.715	172.952	242.667	100,0	100,0	100,0	0,3	6,3	4,5

Iturria: EEZP-EIN.

III.5.15. KOADROA. EAE-N KONTRATATURIKO PERTSONA KOPURUAREN BANAKETA (2007)

Sinaturiko kontr. kop.	Guztira	Gizona	Emak.	<20 urte	20-24	25-29	30-44	45 urte eta g.
Kontratu 1	184.994	106.502	78.492	12.688	34.111	38.859	69.265	30.071
2-3 kontratu	89.767	47.843	41.924	5.670	19.975	20.032	32.992	11.098
4-5 kontratu	23.898	11.301	12.597	1.428	5.670	5.253	8.581	2.966
6-10 kontratu	17.248	7.460	9.788	1.066	4.038	3.555	6.290	2.299
11-20 kontratu	7.492	2.875	4.617	439	1.758	1.463	2.707	1.125
21-50 kontratu	3.146	1.155	1.991	129	756	584	1.135	542
+ 50 kontratu	574	305	269	8	118	121	217	110
Guztira	327.119	117.441	149.678	21.428	66.426	69.867	121.187	48.211

Iturria: EEZP. Zerbitzu Teknikoen Zuzendariordetza Nagusia.


horri; izan ere, horren ondorioz, bihurtutako aldi baterako kontratu kopuruak %72,6ko hazkundera izan zuen. 2007an, aldiz, kontratazio-modalitate horrek %29,2ko murriztapena izan du. Bihurtzeak EEZPk EAEn erregistraturiko kontratu guztien %3,8koak baino ez dira (2006an %5,4).

Guztira, 2007an, EEZP-EINen 869.262 kontratu erregistratu dira (kontratu berriak eta bihurtzeak kontuan hartuta), 2006an baino 19.394 kontratu gehiago. Horietatik %51,2 emakumeek sinatu dituzte, eta aurreko urtean ehunekoa %50,5 izan zen. Lurraldeka, kontratazioak Araban izan du hazkunderik handiena (%5,5), eta gero Bizkaian (%3,5); Gipuzkoan, ostera, urritu egin da (%-1,7). Estatuan kontratazioak %0,5eko hazkundera izan du, eta, horrela, EAEk Estatuan sinaturiko kontratu guztien %4,7 zituen 2007an.

Aipagarria da urte honetan kontratazio-modalitate desberdinen erabileran egon den intentsitate desberdina. Horrela, esate baterako, lanaldi partzialeko aldi baterako kontratuak oraindik ere sinaturiko hamar kontratutik hiru dira (gutzizkoaren %27,9 eta 2006ko hamarren bat gutxiago), eta %4,5eko hazkundera izan dute, batez bestekoaren gainetik. Horien artean, garrantzia aintzat hartuta, aipagarriak dira lanaldi partzialeko obra-kontratuak, hain zuzen ere, 84.000 kontratu (lanaldi partzialeko aldi baterako kontratu guztien %34,6), baita produkzioaren eraginezko behin-behineko kontratuak ere, hau da, 99.000 kontratu (%40,6).


Bitarteko kontratuek, era berean, garrantzi nahiko handia dute, baina kasu honetan emakumeen kasuan bazarrik (sinatzen duten lanaldi partzialeko aldi baterako kontratuen %28,3, eta gizonen kasuan %7,6).

Bigarrenez, lanaldi osoko aldi baterako kontratazioa, orokorrean, EAEn egindako kontratu guztien %63,2koa da (2006an %62,6), eta %3,4ko hazkundera izan du; hain zuzen ere, halako 549.710 kontratu egin dira. Horien artean, ga-

III.5.6. GRAFIKOA. IRAUPEN JAKINEKO ALDI BATERAKO KONTRATUEN BATEZ BESTEKO IRAUPENA EAE-N (EGUNAK)

Iturria: EEZP-EIN. Zerbitzu Teknikoen Zuzendariordetza

III.5.7. GRAFIKOA. EAE-KO LAN KONTRATUEN BILAKAERA, MODALITATEAREN ARABERA



Iturria: EEZPren datuetan oinarrituz landuta

309

III.5.16. KOADROA. LANEKO ERROTazioA EAE-N

	2004	2005	2006	2007
Kontratuak guztira	788.803	806.176	849.868	869.262
Gizona	391.729	398.000	420.723	423.941
Emakumea	397.074	408.176	429.145	445.321
P. kontratatuak guztira	298.131	314.553	320.806	327.119
Gizona	165.686	173.673	176.860	177.441
Emakumea	132.445	140.880	143.806	149.678
Errotazioa bi sexuetan	2,65	2,56	2,65	2,66
Gizona	2,36	2,29	2,38	2,39
Emakumea	3,00	2,9	2,98	2,98

Iturria: EEZP.

rrantzi handia dute obra-kontratuak eta "produkzioaren eraginezkoak" epigrafearen barrukoak (kontratu guztien %22,3 eta %27,8, hurrenez hurren).

Aldi baterako kontratuen batez besteko iraupenari dagokionez, urte honetan ere iraupen laburragorako joeraxoa mantendu da; izan ere, kontratua amaitzeko batez besteko egun kopurua murriztu egin da ia mota guztietarako,

erretiro partzialeko kontratuen (+16 eguneko batez bestekoa), praktikako kontratuen (+9 egun) eta heziketako kontratuen (+6 egun) kasuan izan ezik. Horrela, iraupen jakinako aldi baterako kontratu guztien batez besteko iraupena, EAEn, 80 egunekoa da (2006ko iraupen bera, eta 2005ean baino egun bat gutxiago), eta Estatuan iraupenak egun bat gutxiago dauka.

Bestalde, 2007an mantendu egin da kontratazio mugagabeak 2004an hazitako goranzko joera positiboa, batez ere kontratu mugagabe arrunten eraginez, horiek %46,8ko hazkundera izan baitute. Oro har, kontratazio mugagabeak %31,4ko hazkundera izan du azken urtean, eta EEZPk gure erkidegoan erregistraturiko kontratu berri guztien %5,3 dira.

Amaitzeko, lan-errotazioari buruzko datuek agerian jarri dutenez, 2007an hori mantendu egin da, kontrataturiko pertsona bakoitzeko 2006ko 2,64 kontratuetatik 2,65 kontratuetara igaro baita, bai gizonen (ehunen bat hazi) eta bai emakumeen (2,98 kontratutan mantendu) artean, azken horien kasuan nahiko handiagoa izan arren (59 ehunen).


5.2.2. Banakako eta taldeko kanporatzeen bilakaera

Lehenengo eta behin, gogoratu behar da erregistraturiko banakako kaleratzeak, izatez ere, EAEko Lan Agintaritzaren eskuduneko (Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Saila) adiskidetzaren (alderdien arteko adostasunez amaitzen direnak) eta gizarte-epaitegien bidez tramitaturikoen eraginezkoak direla.

Bestalde, kaleratze kolektiboak enplegu-erregulazioko espediente baten bidez egiten direnak dira, eta hori enpresak edo langileen legezko ordezkariak aurkezten dute, lan-harremanen amaiera eskatzeko (lanaldia eteteko edo murrizteko ere eska daiteke), honako zergati hauetan oinarrituz: ekonomikoak, teknikoak, antolamendukoak, produkzioak, ezinbestekoak edo kontratatzailearen nortasun juridikoa iraungitzearen ondoriozkoak. Lan-agintaritzaren eskudunak ebazten ditu. Agintaritzaren hori Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Saila da, eta horrek arlo honetako funtzioak transferituta ditu. Nolanahi ere, aintzat hartu behar da Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioak arlo honi buruz argitaratzen dituen estatistiketan ez dela jasotzen egindako kaleratze kopuru osoa, ez baita administrazio-baimenik behar zergati ekonomikoen, teknikoen, antolamendukoaren edo produkzioaren eraginezko kaleratzeetarako, baldin eta kaleratzeak kaleratze kolektiboan⁷ ezarritakoa baino langile kopuru txikiagoan eragiten badu; gainera, enplegu-erregulazioko akordioaren ondoriozko aurretiazko erretiroak, estatistikoki, azkentzetzat hartzen dira.

Nolanahi ere, EAEn erregistraturiko kaleratze kopuru osoa (2002tik beheranzko joera) 5.993koa izan da 2007an, 2006an baino %15,9 gutxiago. Joera hori Estatu osoan ere

III.5.8. GRAFIKOA. KALERATZEEN BILAKAERA EAE-N



Iturria: LAN ETA IMMIGRAZIO MINISTERIOA. Lan Estatistiken Aldizkaria

⁷ Kaleratze kolektiboak eragina dauka 5 langiletik gorako langileria osoan, enpresa-jarduera guztiz lagatzearen ondorioz, edo, laurogeita hamar eguneko epean, gutxienez 10 soldatapekoarengan dauka eragina, 100 langiletik beherako enpresetan, langilariaren %10ean 100-300 langileko enpresetan, edo 30 soldatapekoarengan, 300 langiletik gorako enpresetan.

III.5.17. KOADROA. KALERATZEEN BILAKAERA EAE-N

	Balio absolutuak			Aldaketaren %		
	2005	2006	2007	04/05	05/06	06/07
Eraginpeko langileak GUZTIRA	7.282	7.128	5.993	-17,7	-2,1	-15,9
Bitartekotza, Arbitrajea eta Adiskidetzea	2.183	1.989	1.777	-20,7	-8,9	-10,7
Gai Judizial Sozialak	2.586	2.688	2.556	-10,4	3,9	-4,9
Enpleguaren Erregulazioa	2.513	2.451	1.660	-21,8	-2,5	-32,3
Bat etortzez amaituriko kaleratzeetako banakako baldintzetan adosturiko zenbatekoak						
Zenbateko osoa (€-ak milatan)	75.613	84.046	77.394	-16,8	11,2	-7,9
Bitartekotza, Arbitrajea eta Adiskidetzea	72.678	81.482	75.380	-18,3	12,1	-7,5
Gai Judizial Sozialak	2.935	2.564	2.014	51,4	-12,6	-21,5
B. besteko zenbatekoa (€)	16.118	17.970	17.862	-1,6	11,5	-0,6
Bitartekotza, Arbitrajea eta Adiskidetzea	32.310	40.966	42.420	3,0	26,8	3,5
Gai Judizial Sozialak	672	954	788	100,6	42,0	-17,4

Iturria: LIM. Lan Estatistiken Aldizkaria.

egon da, eta, gainera, EAEn kaleratzeek guztizkoari dago-kionez duten garrantzia murriztu egin da; hain zuzen ere, azken urtean, %5,1etik %4,4ra igaro da.

Kaleratze kopuruak 2007an izandako murriztapena, bestalde, Lan Agintaritzak baimendutako espedienteetan (bitartekotza, arbitrajea eta adiskidetzea) eta enplegu-erregulazioko espedienteetan (%-32,2) nahiz organo judizialek baimendutakoetan (%-4,9) gertatu da. 2006an, aldiz, organo judizialek baimendutako kaleratzeek %3,9ko hazkundera izan zuten, aurreko urtetik, eta beste bi aldagaiak, berriz, murriztu egin ziren, murriztapena aurreko urteetako baino txikiagoa izan arren.

Kaleratzeen arloko kalte-ordain kontzeptuan erabakitako zenbatekoei dagokionez, 2007an zenbateko hori 77,4 milioi eurokoa izan da, 2006koa baino %7,9 txikiagoa. Murriztapen hori lan-agintaritzak baimendutako espedienteetan (kalte-ordain guztien %97,4) erabakitako zenbatekoek %7,5eko murriztapena izatearen ondoriozkoa da, baita organo judizialek baimendutako kaleratzeetan erabakitako zenbatekoen %21,5eko murriztapenaren ondoriozkoa ere. Kalte-ordainen batez besteko zenbatekoa ia 18.000 eurokoa da, eta %0,6ko murriztapena baino ez du izan 2006ko zenbatekotik, eraginpeko langile kopuru osoak (lehen ikusi dugunez) guztizko zenbatekoek baino murriztapen handiagoa izan baitu.

5.3. Lan harremanak eta laneko osasuna


5.3.1. Laneko osasuna

EAEko laneko ezbehar-tasari buruzko datuek (OSALANek emandako datuak) agerian jarri dutenez, 2007an laneko 49.443 istripu egon dira, 2006an baino %8,1 gutxiago (urte horretan ezbehar-tasa ere murriztu egin zen, hain zuzen ere, %3,2an). Aldi apur bat luzeagoa aintzat hartuta, esan daiteke 2000tik laneko istripuak modalitate guztietan murriztu direla (batez beste, %-13), batez ere istripurik larrien kasuan (larriak %-29 eta hilgarriak %-40).

Lanaldian baxa izan duten istripu kopuruak (43.934) %6ko murriztapena izan du, 2006ko kopuruari dagokionez. Horien artean, istripu arinek murriztapena izan dute (%6,1ekoa), baita istripu hilgarriek ere (%-1,9); istripu larriek, ostera, %4ko hazkundera izan dute, eta guztira 335 izan dira. Bestalde, "in itinere" gertaturiko istripuak guztizkoaren %9,7 dira, eta %3,9ko murriztapena izan dute.

Sektore guztietan, laneko ezbehar-tasa aurreko urteko baino txikiagoa da, baina beherakada horrek intentsitate desberdinak izan ditu. Alde batetik, industria

III.5.9. GRAFIKOA. BAXA ERAGIN DUTEN ISTRIPUEN BILAKAERA EAE-N. 2000=100 URTEA




(*) Guztizkoaren barruan Lanbide Gaixotasunak sartzen dira.
Iturria: OSALANen oinarrituz eginda

III.5.18. KOADROA. EZBEHAR-TASAREN BILAKAERA EAE-N: LAN BAXA DUTEN ERAGINPEKO LANGILEAK

	LANALDIAN BAXA ERAGIN DUTEN ISTRIPUAK								IN ITINERE	LANB. GAIX.	GUZT.
	GUZT.	LARRITASUNA			SEKTOREA						
		Arinak	Larriak	Hilg.	Nekazaritza	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak			
2000	50.585	50.029	471	85	1.212	22.302	9.690	17.381	4.492	1.657	56.734
2001	51.652	51.112	472	68	1.099	21.999	10.550	18.004	4.940	1.874	58.466
2002	51.266	50.700	493	73	1.120	21.210	11.090	17.846	4.999	2.356	58.621
2003	48.912	48.413	431	68	975	19.546	10.372	18.019	4.909	2.610	56.431
2004	43.857	43.431	373	53	850	17.651	8.480	16.876	4.508	2.159	50.524
2005	47.881	47.403	416	62	924	19.198	9.027	18.732	5.233	2.439	55.553
2006	46.730	46.356	322	52	1.044	18.686	8.709	18.291	4.977	2.075	53.782
2007	43.934	43.548	335	51	916	17.956	7.963	17.099	4.783	726*	49.443

Iturria: OSALAN.
(*) Lanbide-gaixotasunak jakinarazteko sistema murriztaileagoa: gaur egun, mutualitateek egiten dute jakinarazpena (lehen enpresek euren).

sektorean baxa eragin duten 17.956 istripu egon dira, istripu guztien %40,9 eta 2006an baino %3,9 gutxiago. Halaber, eraikuntzan istripu guztien %18 gertatu dira, eta %8,6ko murriztapena izan dute (batez bestekoaren gainetik). Hamarkada osoko bilakaerari dagokionez, sektore guztiek nabarmen murriztu dute ezbehar-tasa, batez ere nekazaritzak (%-24) eta industriak (%-19).

III.5.10. GRAFIKOA. ISTRIPUEN ERAGINA 1000 LANDUNEKO, JARDUERA SEKTOREEN ARABERA

Iturria: OSALANen eta EUSTATen oinarrituz eginda

III.5.19. KOADROA. EAE-N BAXA ERAGIN DUTEN LANALDIKO ISTRIPUEN ERAGINAREN INDIZEA *

	2003	2004	2005	2006	Ald. % 04/05	Ald. % 05/06
ESTATUA GUZTIRA	6.386,7	6.136,4	6.011,8	5.880,1	-2	-2,2
ANDALUZIA	6.290,1	6.288,6	6.265,4	6.245,9	-0,4	-0,3
ARAGOI	5.337,6	5.159,9	5.090,8	5.173,9	-1,3	1,6
ASTURIAS	6.751,3	6.297,0	6.017,7	6.071,7	-4,4	0,9
BALEARRAK	8.127,9	7.661,9	7.701,8	7.875,7	0,5	2,3
KANARIAK	7.355,3	7.124,2	6.896,8	6.607,8	-3,2	-4,2
KANTABRIA	6.134,3	5.741,3	5.470,1	5.635,6	-4,7	3,0
GAZTELA-MANTXA	7.749,4	7.516,7	7.748,4	7.662,7	3,1	-1,1
GAZTELA ETA LEON	5.962,9	5.865,6	5.728,1	5.707,2	-2,3	-0,4
KATALUNIA	6.509,3	6.130,9	5.824,0	5.436,9	-5,0	-6,6
VALENTZIAKO ERK.	7.054,3	6.657,8	6.276,7	5.803,6	-5,7	-7,5
EXTREMADURA	5.121,3	5.013,5	4.888,8	4.867,0	-2,5	-0,4
GALIZIA	5.884,9	5.756,0	5.687,3	5.732,8	-1,2	0,8
MADRIL	5.668,5	5.499,3	5.505,7	5.400,1	0,1	-1,9
MURTZIA	5.891,5	5.730,8	5.781,9	5.706,7	0,9	-1,3
NAFARROA	6.406,3	5.964,8	5.722,4	5.661,0	-4,1	-1,1
EAE	7.025,1	6.223,7	6.157,1	6.417,9	-1,1	4,2
Araba	8.117,9	7.218,0	7.292,8	7.211,6	1,0	-1,1
Gipuzkoa	6.499,5	5.632,3	5.718,0	6.155,2	1,5	7,6
Bizkaia	6.967,8	6.238,9	6.033,3	6.305,3	-3,3	4,5
ERRIOXA	5.818,7	5.673,4	5.729,5	5.806,4	1,0	1,3
Ceuta	6.062,5	5.460,6	5.758,4	5.216,8	5,5	-9,4
Meliilla	4.312,5	3.799,0	4.074,5	4.827,1	7,3	18,5

Iturria: LAN ETA IMMIGRAZIO MINISTERIOA. Laneko Istripuen Estatistikak.

(*) Eraginaren indizea, izan ere, 100.00 langileko istripu kopuruaren eta Gizarte Segurantzaren lan-istripuen kontingentzia estalita duen afiliatu kopuruaren arteko zatidura da.

III.5.20. KOADROA. EZBEHAR-TASAREN BILAKAERA, KONTRATU MOTAREN ARABERA, EAE-N

	2002	2003	2004	2005	2006	04-05%	05/06%
Kontratu mugagabeak							
Soldatapekoak (BJA)	478.200,0	490.900,0	516.100,0	543.400,0	558.500,0	5,3	2,8
Baxa eragiten duten istripuak	26.033,0	24.239,0	23.914,0	25.131,0	26.553,0	5,1	5,7
Ezbehar-tasa (milakoa) (A)	54,4	49,4	46,3	46,2	47,5	-0,1	2,8
Aldi baterako kontratuak							
Soldatapekoak (BJA)	210.900,0	209.600,0	203.100,0	197.100,0	198.200,0	-3,0	0,6
Baxa eragiten duten istripuak	24.334,0	24.377,0	20.073,0	19.621,0	21.137,0	-2,3	7,7
Ezbehar-tasa (milakoa) (B)	115,4	116,3	98,8	99,5	106,6	0,8	7,1
B / A	2,12	2,36	2,13	2,15	2,24		

Iturria: Lan Ministerioko ("Laneko Istripuen Estatistika") eta EUSTATEko ("BJA") datuetan oinarrituz eginda

Bestalde, sektore bakoitzeko istripu kopurua eta sektore horretako langile kopurua lotzen duten laneko ezbehar-tasek agerian jarri dutenez, azken urtean tasa orokorraren murriztapena (mila landuneko 45,5 istripu, 2006an baino %7 gutxiago) ezbehar-tasak eraikuntza sektorean izandako murriztapenaren ondoriozkoa izan da, murriztapen hori nahiko handiagoa izan baita (%-11,7, milako 95,3ko ratoraino) lehen sektorean, industrian eta zerbitzuetan izandakoak baino. Nolanahi ere, ezbehar-tasarik handiena duen sektorea industria da oraindik.

Halaber, kontratu motaren arabera istripuen datuek agerian jarritakoaren arabera, ezbehar-tasa bikoitza baino handiagoa da aldi baterako kontratua duten pertsonen artean, kontratu mugagabea dutenen artean baino. Lan eta Immigrazio Ministerioak 2006ari buruz emandako azken datuek horixe jarri dute agerian. Hain zuzen ere, kontratu mugagabeko pertsonen artean ezbehar-tasa %47,5koa izan zen, eta aldi baterako kontratuko pertsonen artean, berriz, %106,6koa. Nolanahi ere, interesgarria izango litzaiteke istripuek sektoreen, adinen eta enplegu moten arabera zer banaketa izan duten jakitea, behin betiko ondorioak atera ahal izateko.

5.3.2. Laneko gatazkak


2006an gertaturikoaren alderantziz, laneko gatazkak urritu egin dira 2007an, horren jarraipena egiteko aukera ematen duten adierazle guztietan ikusten denez. Lan Harremanen Kontseiluak (LHK) emandako behin-behineko da-

tuen arabera, urte honetan 196 greba egon dira EAEn; horietan 46.343 pertsonak hartu dute parte, eta lan egin gabeko 111.975 egun utzi dituzte. Zifra horiek %12,5eko beherakada adierazten dute greba kopuruan, %25,9ko beherakada partaide kopuruan eta %33,5eko beherakada lan egindako egun kopuruan.

Greben %53,1 hitzarmen kolektiboen negoziazio-prozesuetako gatazken arazoaren eraginezkoak izan dira; greba horiek partaideen %78,4an izan dute eragina, eta lan egin gabeko egunen %90,6ren eragileak izan dira. 2007an aurreko urtean baino desadostasun gutxiago egon da negoziazio kolektiboan, batez ere partaideei eta lan egin gabeko egun kopuruari dagokionez (bi kasuetan %-34). Halaber, 2006an negoziazio kolektiboaren ondorioz 108 grebetatik 13 sektorialak izan dira, eta horietan inplikaturiko pertsona guztien %41,1ek hartu dute parte; hain zuzen ere, lan egin gabeko egunen %28,7 izan dira.

EAEko laneko gatazka kopuruaren beherakada gehienbat Araban izan da (%-31,6), eta gero Bizkaian (%-21,1); Gipuzkoan, berriz, aurkakoa gertatu da, greba kopuruak %15,5eko hazkundera izan du. Galdutako lanaldiei dagokienez, horien kopurua murriztu egin da, batez ere Bizkaian (%-44,3) eta Araban (EAEko batez besteko tasatik hurbil). Gipuzkoan, aldiz, %5,1eko hazkundera egon da.

Estatuko datuei dagokienez, 2007an greba kopurua txikiagoa izan da. Gatazka kopuruak (guztira 751) %3,6ko murriztapena izan du, eta partaide kopuruak, berriz, %1,4ko murriztapena. Hala eta guztiz ere, lan egin gabeko lanaldi

III.5.11. GRAFIKOA. LANEKO GATAZKEN BILAKAERA EAE-N

Iturria: LHK-ko datuetan oinarrituz eginda.

(*) Urte horretako greba orokorraren efektua kenduta.

III.5.21. KOADROA. GREBA KOPURUA, ERAGINPEKO LANGILEAK ETA GALDUTAKO LANALDIAK EAE-N

		Kopurua			Hazkunde-tasaren %		
		Greba eta ugazaben itx. kop.	Eraginpeko langileak	Galdutako lanaldiak	Greba kopurua	Eraginpeko langileak	Galdutako lanaldiak
EAE	2005	176	53.116	106.188	-27,6	-47,4	-82,5
	2006	224	62.577	168.433	27,3	17,8	58,6
	2007	196	46.343	111.975	-12,5	-25,9	-33,5
Araba	2005	36	6.274	32.990	-12,2	-46,3	-30,3
	2006	57	6.359	12.036	58,3	1,4	-63,5
	2007	39	4.906	7.925	-31,6	-22,9	-34,2
Bizkaia	2005	85	39.817	56.673	-26,7	-16,4	-71,3
	2006	109	44.543	122.216	28,2	11,9	115,7
	2007	86	27.765	68.121	-21,1	-37,7	-44,3
Gipuzkoa	2005	55	7.025	16.525	-36,0	-83,2	-95,4
	2006	58	11.675	34.181	5,5	66,2	106,8
	2007	67	13.683	35.924	15,5	17,2	5,1

Iturria: Lan Harremanen Kontseilua

kopurua, guztira, 1.182.782 izan da, eta %27,5eko hazkunde izan du. Horrenbestez, greba bakoitzeko partaide kopuruak gora egin du (655, eta 2006an baino %2,3 ge-


hiago), baita grebaren ondorioz lan egin gabeko lanaldi kopuruak ere (%+32,3).

5.3.3. Negoziazio kolektiboa: soldata-igoera eta lanaldia

LHKren "Negoziazio Kolektiboaren Balantzea" deritzonaren arabera (2007ari buruzkoa), urte horretan EAEko langile guztien %69,4rengan eragina duten hitzarmen kolektiboak berriztatu behar ziren. Urte honetan ere, ehuneko altua izan da, neurri batean negoziazio kolektiboan azken urteotan gizarte-eragileen artean egon den adostasun ezaren eraginez. 2006an langileen %37,9rentzat soilik lortu dira akordioak negoziazio kolektiboan. Urte amaieran, negoziazio kolektiboaren eraginpeko pertsonen %31,5ek ez dute hitzarmen kolektiboa berriztatu⁸.

Lurraldeka, atzerapenik handiena Bizkaiko hitzarmenetan izan da (langileen %40,9 hitzarmena berriztatu barik), baita Arabakoetan ere (%39). Bi lurralde eremu horietan aipagarria da industria siderometalurgikoko hitzarmenak ez berriztatzea, eta hori, Arabaren kasuan, 2008ko urtarilean sinaturiko eraginkortasun mugatuko itun baten bidez formalizatu da, baina 2007an aplikatu ahal da. Gipuzkoak, berriz, berriztatu gabeko hitzarmendun pertsona kopuru txikiagoarekin hasi zuen urtea (%81,1), besteak beste, siderometalurgiaren eta merkataritzaren hitzarmena indarrean ez egotearen ondorioz. Nolanahi ere, lurralde horretan, urte amaieran, pertsonen %19,8rengan eragina


III.5.12. GRAFIKOA. EAE-KO LAN GATAZKEN BILAKAERA HISTORIKOA. 1993=100 URTEA



Iturria: LHK-ko datuetan oinarrituz eginda.

Datuak eremu funtzionalen arabera (enpresako eta sektoreko hitzarmenak) bananduta ikusten denez, aurreko urteetan ez bezala, berriztapen eza enpresako hitzarmenetan izan da handiagoa. Horrela, sektoreko hitzarmenaren eraginpeko pertsonen %30,4k ez du egin urte amaieran, eta enpresaren arloan ehuneko hori %35,8koa izan da. Hain zuzen ere, arlo sektorialean ikusi denez, hitzarmen kopuru handia (eta, beraz, langile kopuru handia) hiru urtetik gora dago bete barik. EAEn erregistraturiko 121 hitzarmen sektorialetatik 29 bete barik daude 2005etik. Hitzarmen horiek 103.653 pertsonarengan dute eragina, hau da, negoziazio kolektibo sektorialaren eraginpeko langile guztien %26rengan.

III.5.13. GRAFIKOA. EAE-KO HITZARMENEN ERAGINPEKO PERTSONAK. DATUAK EHUNEKOTAN



Iturria: LHK.

⁸ Hala eta guztiz ere, 2007an sinatu baina 2008ko lehenengo hilabeteetan erregistraturiko hitzarmenak, eraginkortasun mugatuko itunak eta berretsi gabeko aurretiazko akordioak kontuan hartuta, ehunekoa %24ra murrizten da.

III.5.22. KOADROA. 2006RAKO ETA 2007RAKO ITUNDUTAKO SOLDATA IGOERAK

	IKUSKAPEN KLAUSULARIK GABEKO IGOERA		IKUSKAPEN KLAUSULEN ERAGINAK		SOLDATA IGOERA OSOA	
	2006	2007	2006	2007	2006	2007
ARABA	4,04	3,40	0,31	1,13	4,35	4,53
BIZKAIA	5,06	4,00	0,08	0,29	5,14	4,28
GIPUZKOA	4,77	3,90	0,01	0,03	4,78	3,93
LURRALDE ARTEKOAK	4,75	4,77	0,00	0,00	4,75	4,77
EAE-N ERREGISTRATUAK	4,78	3,93	0,08	0,28	4,86	4,22
ESTATUA	2,59	2,62	0,63	1,67	3,22	4,29


Iturria: LHK.

duten hitzarmenak soilik gelditu dira berriztatu gabe. Azkenik, berriztatu gabeko negoziazio kolektiboa urriagoa da EAEn eragina duten Estatu mailako hitzarmenetan (eraginpeko pertsonen %24,8).

Azken batean, 2007aren amaieran, eta azken datu erabilgarrien arabera (2007/12/31ra arteko hitzarmenak), berriztaturiko 654 hitzarmen egon dira, eta horiek 416.085 pertsonarengan izan dute eragina (pertsona horien %82 sektoreko hitzarmenak dituzte, eta gainerako %18 enpresako hitzarmenak); halaber, beste 375 hitzarmen daude berriztatu barik, eta horiek 190.986 langilerengan dute eragina.


Guztira, 2007an itundutako batez besteko soldata-igoera %4,23koa da (gure erkidegoko hitzarmenetarako %4,22 eta EAEn eragina duten hitzarmenetarako %4,29). Era berean, enpresako hitzarmenetan, soldata-igoera %4,20koa izan da, eta sektorekoetan %4,24koa. Oro har, aipagarria da 2007rako hitzarturiko soldatek 2006koen aldean (%4,42) izandako beherakadaxoa. Beherazko bilakaera hori handiagoa izango zen, ikuskapen-klausulen eraginak aintzat hartu ezean, 2007an nahiko handiak izan baitziren (%0,59; eta aurreko urtean %0,23). Horri dago-kionez, 2007rako berriztaturiko hitzarmenen %41,6k (hitzarmenok erregulaturiko pertsona guztien %29an eragina dutenak) ikuskapen-klausula dute.

III.5.14. GRAFIKOA. PREZIOEN, LANBIDE ARTEKO GUTXIENEN SOLDATAREN ETA HITZARMENEAN ITUNDUTAKO SOLDATEN IGOERAREN BILAKAERA. %



Iturria: LHK-ko eta LIMeko datuetan oinarrituz egina

III.5.15. GRAFIKOA. NEGOZIAZIO KOLEKTIBOAN ITUNDUTAKO LANALDIAREN MURRIZTAPENA (ORDUAK/URTE)



Iturria: LHK.

Bestalde, berriztatzen ari diren hitzarmenek, 2007an, dirudienez geldiarazi egin dute azken urteotan lanaldia murrizteko egon den joera. Ikusten denez, lanaldia murriztu duten hitzarmenen ehunekoa, oraindik ere handia izan arren (%29), aurreko urteetakoa baino txikiagoa da (2006an %40,1ekoa izan zen). EAEn eragina duten hitzarmenen multzoan, murriztapenaren batez betekoa urteko 2,2 ordukoa da (2006an 2,9 ordu), eta EAEkoak bakarrik diren hitzarmenetan murriztapena 2,5 ordukoa izan da (2006an 3,6).

Abendura arte berriztaturiko hitzarmenetatik lorturiko datuak (batez besteko lanaldia urteko 1.690 ordu) ez dira adierazgarriak, negoziatu gabeko hitzarmen garrantzitsuak baitaude oraindik; adibidez, Arabako eta Bizkaiko sidero-metalurgiakoak, Bizkaiko eta Gipuzkoako merkataritzaren zati bat, etab.

5.4. Soldatak EAE-n

5.4.1. Soldata Egiturari buruzko Inkestaren emaitzak (2005)

2007ko abenduan, INEk 2004rako eta 2005erako emaitzak aurkeztu zituen "Soldata Egituraren Urteroko In-


kesta" deritzonak emandakoak; inkesta horrek autonomia-erkidegoen datuak ematen ditu, besteak beste, sexuaren eta lanbidearen araberrako soldatei buruzkoak; horri dagokionez, ordura arte lau urtean behingo informazioa baino ez zegoen, Soldata Egituraren Inkestaren bidez, eta, gainera, 10 langileko edo gehiagoko enpresei buruz. Inkesta horrek iturri desberdineko administrazio-erregistroak erabiltzen ditu (adibidez, Gizarte Segurantzaren edo Zerga Agentziak), eta INEren Lan Kostuaren Hiruhileko Inkestaren zati baten informazioa ere erabiltzen du. Emaitzetan erabiltzen diren soldata-kontzeptuak balio gordinetan ageri dira, hau da, langilearen PFEZren edo Gizarte Segurantzako kontribuzioen konturako atxikipenak egin baino lehenagokoak.

Inkesta horrek nabarmentzen duen emaitzetariko bat hau da: langileen herenak (gutxi gorabehera) 7.000 eta 15.000€ bitarteko irabazia edo urteko batez besteko soldata gordina izan zuen 2005ean⁹; gainera, ehuneko hori %50ekoa izan zen urteko 7.000 eta 30.000 euroko ordainketa-bitarterako. Halaber, langileen %8,4k 7.000 euro gordin baino gutxiago irabazten zuen urtean. Ratio hori %12,1ekoa izan zen, emakumeen taldearen kasuan.

Inkestaren arabera, 2005ean, langile bakoitzeko urteko batez besteko irabazia 21.730€-koa izan zen EAEn, eta %3,1eko hazkundea izan zuen aurreko urtetik. Zenbaterako hori %16,3 handiagoa da Estatuko aldi horretako batez bestekotik, eta, autonomia-erkidegoen artean, Madrilek soilik gainditzen du. Gure erkidegoko soldata gordin

⁹ Estatutako datuak dira, ez baitago EAE mailako informaziorik.

III.5.16. GRAFIKOA. LANGILEEN BANAKETA EHUNEKOTAN, LANBIDE ARTEKO GUTXIENEN SOLDATARI DAGOKIONEZ IRABAZTEN DUTENAREN ARABERA. 2005. ESTATUA



Iturria: INEn oinarrituz eginda. Soldata Egituraren Inkesta (2005).
Oharra: 2005eko LGS: 7.182 €.

III.5.23. KOADROA. LANGILE BAKOITZEKO URTEKO BATEZ BESTEKO SOLDATA, SEXUAREN ETA AUT. ERK. ARABERA. €/URTE

	2004			2005			2004-05eko hazk.%		
	Emak.	Gizonak	G/E%	Emak.	Gizonak	G/E%	Emak.	Gizonak	G/E%
ESTATUA	14.890	20.548	138,0	15.295	21.094	137,9	2,7	2,7	-0,1
Andaluzia	13.248	17.954	135,5	13.739	18.265	132,9	3,7	1,7	-1,9
Aragoi	14.020	20.614	147,0	14.326	21.480	149,9	2,2	4,2	2,0
Asturias	13.653	21.312	156,1	14.034	21.904	156,1	2,8	2,8	0,0
Balearrak	14.290	18.396	128,7	14.819	18.696	126,2	3,7	1,6	-2,0
Kanariak	13.883	16.142	116,3	13.729	16.772	122,2	-1,1	3,9	5,1
Kantabria	12.902	19.376	150,2	13.463	19.489	144,8	4,3	0,6	-3,6
Gaztela eta Leon	13.324	18.759	140,8	13.599	19.311	142,0	2,1	2,9	0,9
Gaztela-Mantxa	15.652	16.750	107,0	14.357	18.146	126,4	-8,3	8,3	18,1
Katalunia	15.666	23.106	147,5	16.285	23.358	143,4	3,9	1,1	-2,7
Valentziako Erk.	13.162	18.138	137,8	13.927	18.660	134,0	5,8	2,9	-2,8
Extremadura	12.722	16.182	127,2	13.361	16.292	121,9	5,0	0,7	-4,1
Galizia	12.714	17.261	135,8	13.342	17.974	134,7	4,9	4,1	-0,8
Madril	17.636	25.765	146,1	18.065	26.654	147,5	2,4	3,5	1,0
Murtzia	12.807	17.498	136,6	12.887	18.386	142,7	0,6	5,1	4,4
Nafarroa	15.894	22.876	143,9	16.784	23.645	140,9	5,6	3,4	-2,1
EAE	16.913	23.710	140,2	17.981	24.214	134,7	6,3	2,1	-3,9
Errioxa	13.127	18.926	144,2	14.013	19.243	137,3	6,8	1,7	-4,8

Iturria: INEn oinarrituz eginda. Soldata Egituraren Inkesta (2004-2005).

hori 24.214€-koa da gizonentzat eta 17.981€-koa emakumeentzat, eta, beraz, bi generoen artean %34,7ko aldea dago. Alde horrek %3,9ko murriztapena izan du azken ur-

tean, eta murriztapen hori Errioxak eta Extremadurak soilik gainditu dute; Estatuari dagokionez, 2004-05 aldian, arlo horretan ia ez da aldaketarik egon (%-0,1).

II.5.24. KOADROA. URTEKO BATEZ BESTEKO SOLDATA, LANGILE BAKOITZEKO. EAE ETA ESTATUA. EURO/URTE


	2004			2005			Aldak. %. 2004-05		
	Bi sexuak	Emak.	Gizonak	Bi sexuak	Emak.	Gizonak	Bi sexuak	Emak.	Gizonak
ESTATUA									
Sektore guztiak	18.310,11	14.889,74	20.548,33	18.676,92	15.294,83	21.093,92	2,0	2,7	2,7
Industria	21.150,86	16.103,18	22.900,85	21.998,40	16.675,05	23.913,66	4,0	3,6	4,4
Eraikuntza	17.226,13	15.047,33	17.414,66	17.568,66	15.484,32	17.765,14	2,0	2,9	2,0
Zerbitzuak	17.728,60	14.703,86	20.880,28	18.071,07	15.111,28	21.387,29	1,9	2,8	2,4
EAE									
Sektore guztiak	21.066,71	16.913,44	23.709,73	21.730,03	17.981,30	24.214,37	3,1	6,3	2,1
Industria	24.302,08	20.537,20	25.154,80	25.046,19	20.321,25	26.201,34	3,1	-1,1	4,2
Eraikuntza	20.633,86	-	20.965,14	21.499,08	-	21.754,70	4,2	-	3,8
Zerbitzuak	19.525,50	16.261,25	23.358,34	20.273,98	17.579,40	23.430,19	3,8	8,1	0,3
EAE/ESTATUA %									
Sektore guztiak	115,1	113,6	115,4	116,3	117,6	114,8	1,1	3,5	-0,5
Industria	114,9	127,5	109,8	113,9	121,9	109,6	-0,9	-4,4	-0,3
Eraikuntza	119,8	-	120,4	122,4	-	122,5	2,2	-	1,7
Zerbitzuak	110,1	110,6	111,9	112,2	116,3	109,6	1,9	5,2	-2,1

Iturria: INEn oinarrituz eginda. Soldata Egituraren Inkesta (2004-2005).

Horri dagokionez, PFEZren 2005eko likidazioak aintzat hartuta (EAErako informazio finkatua duen azken urtea), lan-errendimenduak jasotzen duten pertsona aitorleen %84,9k diote urtero 30.000 eurotik beherako errendimenduak dituztela, eta %3,6k soilik jasotzen dituzte 50.000

eurotik gorako zenbatekoak. Guztiarekin ere, aitorturiko batez besteko errendimendua 19.778 eurokoa izan da.

Jarduera-sektorekako soldatei dagokienez, handienak industriakoak dira, bai EAEn eta bai Estatuan. Hain zuzen

III.5.17. GRAFIKOA. LANGILE BAKOITZEKO URTEKO BATEZ BESTEKO SOLDATA, SEXUAREN ETA KONTRATU MOTAREN ARABERA. EAE

Iturria: INE. Soldata Egituraren Inkesta (2004-2005).

III.5.25. KOADROA. URTEKO SOLDATA GORDINA, ADIN TALDEEN ARABERA (EUROAK)

	ADIN GUZTIAK	25ETIK BEHERA	25-34 URTE	35-44 URTE	45-54 URTE	55 URTE ETA GEH.
ESTATUA	18.677	12.639	16.646	20.269	23.404	24.089
ANDALUZIA	16.658	12.149	14.630	18.389	21.072	21.338
ARAGOI	18.592	12.707	16.554	20.369	21.985	21.760
ASTURIAS	18.883	11.743	16.003	20.098	22.953	24.743
BALEARRAK	17.018	13.000	16.402	18.221	20.915	18.201
KANARIAK	15.591	11.601	14.589	16.597	18.747	18.801
KANTABRIA	17.543	12.389	15.689	17.973	21.524	23.521
GAZTELA-MANTXA	17.076	11.951	15.281	17.397	21.355	22.643
GAZTELA ETA LEON	16.900	12.131	16.083	17.999	20.617	20.598
KATALUNIA	20.067	12.951	17.930	22.003	24.640	27.350
VALENTZIAKO ERK.	16.671	12.185	15.520	17.829	19.635	19.259
EXTREMADURA	15.242	10.983	14.177	16.640	18.285	17.366
GALIZIA	15.621	12.004	13.022	17.078	22.743	21.247
MADRIL	22.974	13.584	20.210	26.013	29.210	29.402
MURTZIA	16.251	11.747	15.522	17.625	19.833	19.654
NAFARROA	20.830	14.443	19.185	21.678	25.356	24.121
EAE	21.730	14.668	19.028	21.739	27.769	27.470
ERRIOXA	17.238	13.180	16.019	18.300	20.229	19.579

Iturria: INE. Soldata Egituraren Inkesta (2005).

ere, sektoreko urteko batez besteko irabazia 25.046€-koa izan da gure erkidegoan; gizonen batez bestekoa 26.201€ ingurukoa izan da, eta emakumeena 20.321€ ingurukoa. Industriako batez besteko soldata hori Estatukoa baino %13,9 handiagoa da, eta bertan ere generoen arteko desberdintasunak errepikatu dira.

Bigarrennez, eraikuntza-sektoreko soldatak daude (EAEn urteroko 21.499€-ko batez bestekoa, 2004an baino %4,2 gehiago); horiek, gainera, Estatuko batez bestekoa baino nahiko handiagoak dira; hain zuzen ere, %22,4. Azken batean, zerbitzu-sektoreko soldatak (20.274€-ko batez bestekoa) sektoreen multzo osoko batez bestekoaren azpitik daude, eta, gainera, Estatuko balioetatik hurbilago daude (%12,2 goitik).

Bestalde, langile bakoitzeko batez besteko irabazia kontratu-harremanaren arabera da, eta hori zentzuzkoa da, aintzat hartuta ordainketan enpresako antzinate-sunaren eraginez dauden igoerak. Hain zuzen ere, kontratu mugagabea duten langileentzat urteko soldata gordina %57,9 handiagoa da, batez beste, aldi baterako kontra-

tuak dituzten langileentzat baino. Alde hori, gainera, handiagoa da gizonen artean (%69,3), emakumeen artean baino (%39,3).

Ordainketa mailetan desberdintasun handiak sortzen dituen beste faktore bat langileen adina da. EAEko, Inkestak 14.668€-ko soldata gordina kalkulatu du 25 urtetik beherakoentzat (adin talderik urriena), eta hori gorantz doa 45-54 urte bitarteko taldera arte (27.769€); gero, 27.470€-ra murrizten da 55 urteko edo gehiagoko taldean. Bana-keta hori, gorabehera txikiekin, errepikatu egiten da sexu bietan eta beste autonomia-erkidegoetan. Estatuko batez bestekoari dagokionez, EAEko datua %18 handiagoa da 45-54 urte bitarteko tartean (alderik handiena); alderik txiki-ena 55 urtetik gorakoaren artean dago (%14).

Azkenik, INEren Inkestan adierazten denez, soldata-alde handiak daude estatuan jaiotako eta beste herri batzue-tatik iritsitako pertsonen artean. Horrela, urteko batez besteko soldata %41 handiagoa da estatuan jaiotako pertso-nen kasuan, Europar Batasunetik kanpoko herrietatik iritsi-tako pertsonen artean baino, eta alde hori %38koa da

Amerika Latinotik iritsitako pertsonekin konparatuta. Aldiz, Europar Batasuneko herrietatik heldutako langileekin konparatuz gero, aldea nekez heltzen da %4ra.

5.4.2. Lan Kostuari buruzko urteroko Inkestaren emaitzak (2006)

Langileen soldatei buruzko hurbilketa egiten duen IN-Eren bigarren eragiketa estatistikoa “*Lan Kostuaren Urteko Inkesta*” da, “*Lan Kostuaren Hiruhileko Inkesta*” deritzonera erantsitako galdeketa batean oinarrituz egiten dena; inkesta horrek lan-faktorearen eta horren osagaien kostuaren urteko maila jakiteko aukera ematen du. Horien artean, “*soldatak*” partidaren barruan, ordainketa guztiak sartzen dira, bai eskudirutan eta bai espezieetan egindakoak, inoren konturako langileei egiten zaizkienak. Soldata Egituraren Inkestaren kasuan bezala, zergak balio gordi-

netan ageri dira, langileak Gizarte Segurantzarako ordainketak edo atxikipenak egin baino lehen.

Inkesta hau urtero egiten da 2000tik, eta, Soldata Egituraren xehetasun maila eskaini ez arren (sexua, adina, kontratu mota,...), soldatek azken zazpi urteotan izandako bilakaera ikusteko aukera ematen du. Eragiketa bien ikuspegiak desberdinak izan arren, emaitzak, jakina, oso antzekoak dira, Estatu eta EAE mailan.

2006ko Lan Kostuaren Inkestaren arabera, langile bakoitzeko lan-kostu gordina 30.652€-koa da EAEn, eta horietatik %72,9 (22.360€) “soldatak” partidakoak dira. Batez besteko soldata hori Estatuko batez bestekoa baino %15,3 handiagoa da, eta, Madrileko Erkidegokoarekin batera, autonomia-erkidegoen arteko soldatarik handiena da.

“Soldatak” partida hori gero eta handiagoa da 2002tik, eta 2006an %2,2ko hazkundea izan du, aurreko urteari da-

III.5.26. KOADROA. LANGILE ETA URTE BAKOITZEKO LAN KOSTUA. A. ERKIDEGOEN ETA KOSTUAREN OSAGAIEN ARABERAKO DATUA. 2006

	KOSTU GORD.	Soldatak	Nahitaezko kotizazioak	Borond. kotizazioak	Zuzeneko gizarzte-prest.	B. batzuk (1)	Dirulaguntzak eta murriztap.	KOSTU GARBIA	Sold.% eta sold. osoa
ESTATUA	26.611	19.400	6.079	186	268	679	251	26.361	72,9
Andaluzia	24.190	17.360	5.723	134	196	777	187	24.003	71,8
Aragoi	26.633	19.244	6.245	178	298	669	268	26.365	72,3
Asturias	26.274	19.017	6.267	312	262	416	279	25.994	72,4
Balearrak	24.963	18.222	5.762	163	260	557	239	24.725	73
Kanariak	22.186	15.950	5.218	148	218	652	165	22.021	71,9
Kantabria	24.721	17.887	6.057	147	349	281	218	24.503	72,4
Gaztela eta Leon	24.853	17.981	5.841	181	283	567	227	24.625	72,4
Gaztela-Mantxa	23.574	17.022	5.653	141	205	552	193	23.381	72,2
Katalunia	28.330	20.861	6.425	169	264	611	288	28.042	73,6
Valentziako Erk.	23.817	17.282	5.627	119	195	594	254	23.563	72,6
Extremadura	21.613	15.605	5.074	135	252	549	202	21.411	72,2
Galizia	23.046	16.549	5.459	181	222	635	270	22.776	71,8
Madril	31.666	23.412	6.580	295	371	1.007	258	31.408	73,9
Murtzia	22.612	16.386	5.477	107	225	417	227	22.385	72,5
Nafarroa	29.667	21.499	7.033	207	338	589	334	29.334	72,5
EAE	30.652	22.360	7.141	254	377	520	357	30.295	72,9
Errioxa	24.790	17.989	6.017	192	199	392	249	24.541	72,6

(1) Beste batzuk: kaleratzearen ondoriozko kalte-ordainak, lanbide-heziketako gastuak, garraioko gastuak, gizarte izaerakoak, kontratua amaitzearen eraginezko kalte-ordainak, konpentsazioko ordainketak, laneko erremintak nahiz arropa, eta beste gastu batzuk. Dietak eta bidaia-gastuak ez dira honen barruan sartzen.

Iturria: INE: Lan Kostuen Urteroko Inkesta (2006).

III.5.27. KOADROA. "SOLDATAK" PARTIDAREN BILAKAERA EAE-N ETA ESTATUAN. €/URTE					
	EAE		ESTATUA		EAE/ESTATUA
	Zenbatekoa	Aldak. %	Zenbatekoa	Aldak. %	%
2000	20.047	-	17.159	-	116,8
2001	19.112	-4,7	16.471	-4,0	116,0
2002	19.930	4,3	17.118	3,9	116,4
2003	20.508	2,9	17.780	3,9	115,3
2004	21.111	2,9	18.280	2,8	115,5
2005	21.879	3,6	18.750	2,6	116,7
2006	22.360	2,2	19.400	3,5	115,3

Iturria: INE: Lan Kostuen Urteroko Inkesta.

gokionez; estatuko batez besteko hazkundera %+3,5 izan da. Horren ondorioz, bi magnitudeen arteko aldea 1,4 puntutan murriztu da azken urtean, eta 2003ko mailetara itzuli da.

Espainiako estatuko gainerako 16 autonomia-erkidegoen kasuan bezala, horiek euren gain hartzen baitute Enplegua sustatzeko Programen nahiz Enplegurako Lanbide Heziketaren eta Enplegu Zerbitzu Publikoaren funtzioen kudeaketa.

5.5. Enpleguko politikak eta zerbitzuak EAE-n

Langileak langabeziaren eraginezko arazoetatik babesteko eta segurtatzeko sortu dira enplegu politikak; politika horiek neurri desberdinen bitartez garatzen dira, eta neurrian helburua laneratze azkarragoa eta aktiboagoa ahalbidetzea da, Enplegu Politika Aktiboan (EPA) barruan, era askotako neurri multzo heterogeneoa sartzen da: alde batetik, heziketa, enpleguaren sustapena eta laneko malgutasuna nahiz balioaniztasuna; bestetik, informazioa eta orientazioa. Horren helburua pertsonen "enplegu aukera" sustatzea da.

EPAen eskumenaren titularra Autonomia Erkidegoa izan arren (Autonomia Estatutua dela bide), betearazpena Estatuko Administrazio Nagusiak egiten du, eskumen hori oraindik ez baita administrazio autonomikora transferitu,

Horrenbestez, enplegu politikaren lanketa eta horren finantziaketa, funtsean, Lan eta Immigrazio Ministerioak egiten du, eta horren kudeaketa Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoari (EEZP) esleitu dio. EEZPk EAEn enplegu-politika aktiboetan egiten den gastu osoaren %75 baino gehiago kudeatzen du; politika horiek Estatuko Administrazioak eta Gizarte Segurantzak eta Europako Gizarte Funtzak finantzatzen dituzte.¹⁰

Gainera, EAEn Eusko Jaurlaritzak, Foru Aldundiek, Udalek eta Garapenerako Eskualde Agentziek ere horretara bideraturiko ekintzak garatzen dituzte. Lehenengo eta behin, Eusko Jaurlaritzak, batez ere Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren bidez, Enplegu eta Heziketa programa batzuk kudeatzen ditu. Bigarrenez, orientazioko eta bitartekotzako jarduketak ere egiten ditu, EGAILAN S.A.¹¹ sozietatearen mendekoa den LANBIDEren bitartez. Administrazio Autonomikoak kudeaturiko politika aktiboen multzoa EAEn egiten diren EPA guztien %11koa da; %55 Eusko Jaurlaritzak finantzatzen ditu, eta %40 Europako Gizarte Funtzak.

¹⁰ Europako Gizarte Funtseko Administrazio Unitateak (Lan eta Immigrazio Ministerioaren mendekoa) Espainiara EGFetatik iritsitako baliabideak administratzen ditu; gainera, EGF funtsen banaketa kudeatzen du, autonomia-erkidegoen eta Estatuko Administrazio Nagusiak kudeaketa-erakundeen artean. EGFek Espainiako enplegu-politika aktiboetan 1997-2003 aldian izandako ekarpena %25ekoa izan zen.

¹¹ Ez dira nahasi behar EGAILAN S.A. (Heziketa eta Enplegua Sustatzeko Sozietate publikoa, Eusko Jaurlaritzaren mendekoa, enplegu-politika aktiboen emaitzak hobetzeko 1993an sortua) eta LANBIDE(EAeko Enplegu Zerbitzua, lan-merkatuan bitartekotza-lanak egiten dituen). EGAILANen eginkizunetarikoa bat, hain zuzen ere, LANBIDE kudeatzea da.

II.5.28. KOADROA. ENPLEGU ETA HEZIKETA POLITIKAK EAE-N

	Lan eta Immigrazio Ministerioa - EEZP	Eusko Jaurlaritza
Bitartekotza, erregistroa eta informazioa	Enplegu bulegoak	EGAILAN, Lanbide
Orientazioa	ELOA - EZI	EAEko Orientazio Zerbitzua
Enplegu Heziketa	EEZP, Zentro Laguntzaileak	Zentro Laguntzaileak
Laneko prestakuntzarako programak, esperientziakoak eta laneratzeakoak	Lantegi Eskolak, Enplegu Lantegia, Lanbide Etxeak, EEZP Programa-Toki Korporazioak	Dekretuak (Sustatzaile berriak, Alternantziako heziketa, Gazte-enpresa,...)
Kontratazioarako diru-laguntzak	Hobariak: GS, ezinduak, autonomoak,...	Enplegu Programen Dekretuak
Heziketa Iraunkorra	Hiruko Fundazioa eta HOBETUZ	HOBETUZ

Foru Aldundiei dagokienez, halako jarduketetan lurralde historikoen arteko alde handiak daude; alde batetik, Araba eta Gipuzkoa daude (esku-hartze maila txikiagoa), eta, bestetik, Bizkaia (jarduera eta sorturiko egitura zabalagoak dira). Nolanahi ere, erakunde horiek finantzaturiko EPAen %80 euren kudeatzen dituzte zuzenean, eta gainerako %20, berriz, erakunde laguntzaileekin (gehienbat, heziketakoak) lankidetzan finantzatzen dituzte, edo baterako finantziarioa dute beste administrazio batzuekin, esaterako, Eusko Jaurlaritzarekin edo udalekin.

Toki Erakundeak (toki-garapeneko agentziekin batera) enplegu-politika aktiboen kudeatzaileak dira, funtsean. EAEn egindako gastu osoaren ia %3 finantzatu arren, hiru aldiz bolumen handiagoa kudeatzen dute, Eusko Jaurlaritzatik, Estatuko Administrazioetik (EEZP-EGF) eta, neurri txikiagoan, Foru Administrazioetik jasotako baterako finantziarioari esker.

Azkenik, eta kudeaketaren arloan, irabazi asmorik gabeko elkarteak nahiz erakundeak, enpresak zein sindikatuetan eta heziketa-zentroak daude, eta horiek arlo hauetako jarduerak kudeatzen dituzte, batez ere heziketari eta ara-

zoak dituzten pertsonak nahiz taldeak gizarteratzeari eta laneratzeari dagokionez.

5.5.1. Lan eta Immigrazio Ministerioak garaturiko politika aktiboak-EEZP**a) Lan-bitartekotza**

Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoa (EEZP), lehen EIN zena, lan-merkatuko bitartekotzaren lehenengo erakunde arduraduna da; gainera, politika pasiboak ere kudeatzen ditu (langabeziako prestazioen onarpena eta ordainketa). 2005ean (datuak eskaini dituen azken urtea), EEZPk EAEn egindako kontratuen edo emandako lanpostuen kopuru osoak %2,1eko hazkundea izan du, aurreko urtean baino lau puntu txikiagoa; hain zuzen ere, 786.447 lanpostu izan dira (zifra hori eta kontratuen zifra ez dira berdinak, kontratua erregistratzeko data sisteman sartzea eta indarrean sartzeko data desberdinak baitira), aurreko urtean baino 18.177 gehiago.

Laneratze horietariko gehienak, bestalde, erregistratu aurreko pausotzat jakinarazten zaizkio EEZPri, eta erakunde horrek zuzenean kudeatzen dituenak¹², berriz, mu-

¹² Zuzeneko kudeaketa izenaren barruan, EINeko zerbitzuek egindako laneratze aktiboak eta beste egoera batzuk sartzen dira; besteak beste, aurkezpenerako esku-orriaren edo EINeko iragarki-oholaren bidezko laneratzea, EINek egiten ez dituen kontratazioak (azken sei hilabeteetan bertako bulegoekin harremanak izan dituzten pertsonen kontratazioak), etab. Gainera, datu horiek aurkezteko modua aldatu egin da 2005eko maiatzetik, EZI deritzona martxan jarri denetik; enplegu-politika aktiboen eredu misto berria da, eta politika horiek enplegua kudeatzeko zerbitzu autonomikoetara transferitzen dira, langabeziako prestazioei dagokionarekin batera (EEZP-EINen eskumenekoa); horrela, sistema berritik lorturiko datuen arabera estatistika berria hasten da. Sistema horren ezarkuntzak eragin estatistikoa handia izan du erregistraturiko langabeziaren neurketan, datuak sarriago gaurkotuta zehazturiko kudeaketa-prozesu berrien eraginez.

rriztu egin dira bosgarren urtez jarraian. 2005ean 63.680 lanpostu izan ziren, 2004an baino %22 gutxiago. Beraz, EEZPren lanpostu guztien proportzioak beherantz jarraitu du azken urteetan, eta 2005ean %8,1ekoa baino ez zen izan. Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoa eta autonomia-erkidegoetako EZP, izatez ere, langabetuak laneratzeko lanak egiten dituzten eragile publiko nagusiak dira, baina irabazi asmorik gabeko erakunde laguntzaile batzuk ere badira, eta horiek legezko onarpena dute lan-merkatuko bitartekotza lanak egiteko. Hain zuzen ere, EAEn 12 enplegu-agentzia daude.

b) Orientazioa: irabazi asmorik gabeko enplegu-agentziak eta enplegurako orientazioko nahiz autoenplegurako laguntza-zerbitzuak

Enplegu Zerbitzu Publikoek ematen duten beste zerbitzu bat orientazioa da; hori EEZPk Enplegu Bulegoen eta kudeaketa transferituta duten autonomia-erkidegoen bidez egiten du. EEZP eta erakunde laguntzaileak ez ezik, irabazi asmorik gabeko erakundeak ere badaude, adibidez, enplegurako lanbide-orientazioko eta autoenplegurako (ELOA) laguntzako zentroak; horiek Enplegu Zerbitzu Publikoekin batera egiten dute lan, Enplegu Bulegoan inskribaturiko enplegu-eskatzailen lan-aukerak hobetzeko ekintzetan.

2007an, EAeko 22.403 enplegu-eskatzailen enplegurako orientazioko laguntza jaso zuten, eta arlo horretan %29ko hazkundeak egon zen, aurreko urtetik. Hazkunde hori, funtsean, EEZPk lagundutako pertsona kopuruaren eraginezkoa da (%+71,5); halako ekintzak egiten dituzten

Erakunde Laguntzaileen kopuruak %3,5eko hazkundeak izan du.

c) Lanbide-heziketako, enpleguko nahiz heziketako, esperientziako eta laneratzeko ekintzak

Heziketa iraunkorrak eta enpleguko lanbide heziketak aldaketa batzuk izan dituzte 2007an, *Enplegurako Lanbide Heziketako Azpisistema arautu duen 395/2007 Errege Dekretua* onetsi denetik; dekretu horrek indarreko araudia ordeztu du, enplegurako LHren eta heziketa iraunkorraren arloan, eta bi modalitateak sistema bakarrean sartu ditu. Errege Dekretuak ezartzen duenez, beharrezkoa da, arlo honetan, autonomia-erkidegoen eta Estatuaren arteko gizarte-hitzarmena eta ekimenen koordinazioa indartzea; gainera, enplegurako lau heziketa-ekimen jasotzen ditu:

1. Eskari Heziketa, enpresen eta langileen heziketa-beharriaz erantzuteko. Horren planifikazioa eta kudeaketa enpresek egin behar dute, eta Gizarte Segurantzako kuotetako hobari-sistema baten bidez finantzatzen da. Enpresek kostu osoarekiko gutxienezkoa den ehuneko batekin hartzen dute parte finantziarioan; heziketa euren zuzenean antolatu eta kudeatu ahal dute, edo zentro edo erakunde espezializaturen bat kontrata dezakete. Nahi duten moduan bil daitezke, antolamendu-erakunde bat izendatuz. Era berean, banakako heziketa-baimenak eman daitezke, langileek eskatuz gero.
2. Eskaintza Heziketa, landunei eta langabetuei zuzenduta (betearazpena enpresek eta sindikatuak), baita gizarte-ekonomiako enpresei eta autonomoei zuzenduta ere.

III.5.29. KOADROA. ENPLEGURAKO ETA AUTOENPLEGUKO LAGUNTZARAKO LANBIDE ORIENTAZIOKO EKINTZEN ONURADUNAK

	EEZP			Erakunde laguntzaileak			GUZTIRA		
	2005	2006	2007	2005	2006	2007	2005	2006	2007
Araba	2.637	3.415	515	2.094	514	3.208	4.731	3.929	3.723
Bizkaia	2.250	710	6.561	4.616	4.799	7.881	6.866	8.633	14.442*
Gipuzkoa	5.417	0	0	8.105	7.923	4.238	13.522	4.799	4.238
EAE	10.304	4.125	7.076	14.815	13.236	15.327	25.119	17.361	22.403

(*) Bizkaian onuradun kopuruak 2007an izandako hazkunde handia, izatez ere, orientazio-zerbitzuen jasotzaileen kontabilitate-sistema hobetzearen ondoriozkoa izan da.

Iturria: EEZP (Enplegua Sustatzeko Zuzendariordetza Nagusia)

Helburua, izan ere, lan-merkatuaren beharrianetara eta produktibitatearen nahiz lehiakortasunaren oraingo eskarierara egokituriko heziketa eskaintzea da.

3. Enpleguarekiko Txandakako Heziketa; enplegu eta heziketako ikaskuntza mistoko prozesua ezartzen du, eta horrek aukera ematen du ikaskuntza formala eta lanpostuko lanbide-heziketa bateratzeko.
4. Heziketarako laguntza-ekintzak; enplegurako heziketa-azpisistemaren eraginkortasuna hobetzeko aukera ematen duten ekintzak dira.

Heziketa-ekintzen helburua pertsona guztien (langileak eta langabetuak) gaitasunak eta trebakuntzak hobetzea da; hala eta guztiz ere, lehentasuna izango dute laneratzeko edo lan-merkatuan mantentzeko arazorik handienak dituzten taldeak (emakumeak, 45 urtetik gorakoak, ezin-
duak,...).

Langabetuei zuzendutako enplegu-heziketako jarduketak honako honen bidez egiten dira: Lanbide Heziketako eta Laneratzeko Egitamu Nazionala eta Lantegi Eskolen eta Lanbide Etxeen Programak, Sustapen eta Garapen Unitateak, eta Enpresa Ekimeneko Zentroak. EEZPk enplegu-heziketako ekintzak garatzen ditu bere zentroetan (EAEn bi zentro, Lasarten eta Sestaon); eta, batez ere, Zentro Laguntzaileetan homologaturiko heziketa-espezialitateetan egindakoak finantzatzen ditu, kontratu-programaren edo lankidetz hitzarmenen bidezkoak (halako heziketa-ekintzen %95 baino gehiago). Jarduketa horiek Europako Gi-

zarte Fondoan dirulaguntza dute; 15-65 urte bitarteko ikasleentzat doakoak dira, eta honako talde hauei zuzenduta daude:

- 25 urtetik beherako langabetuak: iraupen laburreko nahiz luzeko langabetuei eta emakumeei zuzenduta, horien ordezkaritza urriegia duten espezialitateetan, lanbide-trebakuntza urriegiak edo ezegokiak dituztenean.
- 25 urtetik gorako langabetuak: iraupen laburreko nahiz luzeko langabetuei eta emakumeei zuzenduta (iraupen laburrekoak edo luzekoak, 5 urtetan lan egin ez dutenak eta familia-erantzukizunak dituztenak, euren ordezkaritza urriegiko espezialitateetan); helburua oinarritzko trebakuntza eta lanbideko hobekuntzak zein birziklapena lortzea da.
- Beste talde batzuk: ezinduak (Gizarte Zerbitzuen Erakunde Nazionalarekin lankidetzan), immigranteak eta horien familiak (Emigrazio Erakunde Nazionaleko Zuzendaritza Nagusiak eginda, edo beste erakunde batzuekin), presoak, etab.
- Hezitzaileak: Egitamuan parte hartzen duten irakasleen heziketa edo gaurkotze tekniko-pedagogikora zuzenduta.

Guztira, EEZPk 805 heziketa-ekintza finantzatu ditu 2007an, eta bolumen horrek %4,5eko hazkundea izan du aurreko urtetik, Gipuzkoan izandako bilakaerari esker, Araban eta Bizkaian heziketa-ekintzan kopuruak behera egin baitu.

III.5.30. KOADROA. EIN-ek EAE-n emandako ikastaroak, zentroaren arabera				
		GUZTIRA	Lanerako Prestakuntzako Zentroak	Zentro Laguntzaileak
2005	EAE	981	56	925
2006	Araba	129	..	129
	Bizkaia	347	31	316
	Gipuzkoa	294	14	280
	EAE	770	45	725
2007*	Araba	117	3	114
	Bizkaia	205	17	188
	Gipuzkoa	483	30	453
	EAE	805	50	755

(*)Urtean amaitutakoak guztira. Ez dira aintzat hartzen 2008an aurrera jarraitzen dutenak.
Iturria: EEZP (Lanerako Prestakuntza Kudeatzeko Zuzendariordetza Nagusia)

III.5.31. KOADROA. EAE-N LANERAKO PRESTAKUNTZA IKASTAROETAN TREBATURIKO IKASLEAK (FIP EGITAMUA), 2007AN. BEHIN-BEHINEKO DATUAK

EBALUAZIO POSITIBOAREKIN PRESTATUTA (1)	EAE 2006	2007				Ald. % 2006/07
		EAE	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	
Iraupen luzeko langabetuak	1.227	2.048	285	1.286	477	66,9
25 urtetik beherakoak	1.841	1.661	236	1.016	409	-9,8
30 urtetik beherakoak	4.132	3.705	493	2.301	911	-10,3
Emakumeak (2)	803	489	94	149	246	-39,1

(1) Ez dira aintzat hartu ebaluazio negatiboa izan duten ikasleak, ikasturtean baxa hartu dutenak (laneratu direlako) edo 2006a amaitu ondoren prestakuntzan jarraitu dutenak.

(2) Emakumeen ordezkaritza urriegia duten lanbide-familietan prestaturiko emakumeak bakarrik zenbatu dira.

Iturria: EEZP-EIN (Lanerako Prestakuntza Kudeatzeko Zuzendaritza Nagusia)

Bestalde, enpleguko eta heziketako prestakuntza-jardueratzat, EEZPk EAEko Lantegi Eskolak, Enplegu Lantegiak eta 3 Lanbide Etxeak finantzatzen ditu; horiek 25 urtetik beherako gazte langabetuei zuzenduta daude (laneratzeko eta gizarteratzeko zailtasun bereziak dituzten gazteak). Lantegi Eskolak eta Lanbide Etxeak enpleguko eta heziketako programak dira, eta euren helburua talde hori laneratzeko da, heziketa eta lanbidea txandakatuz; sarritan, ondare historikoa, kulturala eta naturala suspertze-ari lotutako lanbideak eskaintzen dira. Enplegu Lantegiak heziketa- eta enplegu-ekintzak konbinatzen dituzten programak dira; laneratzeko zailtasun bereziak dituzten 25 urteko edo gehiagoko langabetuei zuzenduta daude (iraupen

luzeko langabetuak, 45 urtetik gorako langileak, emakumeak, ezinduek) interes orokorreko edo gizarte-intereseko enplegu-arloetan.

Azkenik, EEZPk toki-korporazioekin ere lankidetzan jarduten du, gizarte-intereseko enplegu programetan; bertan, laneratzeko esperientzia-egitamuak egiteko dirulaguntza publikoak sartzen dira, toki-korporazioek (interes orokorreko obretan eta zerbitzuetan) edo Toki Administrazioen baten mendeko nahiz horri lotutako erakundeek kontratatzen dituzten langabetu taldeen enplegua lortzeko gaitasuna hobetzeko.

III.5.32. KOADROA. EAE-KO LANTEGI ESKOLETAKO ETA LANBIDE ETXEETAKO PARTAIDEAK

	GUZTIRA			LANTEGI ESKOLA			LANBIDE ETXEA-ENPLEGU LANTEGIA		
	Guztira	Gizonak	Emak.	Guztira	Gizonak	Emak.	Guztira	Gizonak	Emak.
2003	1.103	610	493	254	213	41	849	397	452
2004	1.112	634	478	226	188	38	886	446	440
2005	1.122	595	527	151	133	18	971	462	509
2006	1.219	623	596	154	118	36	1.065	505	560
2007	1.146	560	586	205	161	44	941	399	542

Iturria: EEZP-EIN (Lanerako Prestakuntza Kudeatzeko Zuzendaritza Nagusia)


d) Enplegua Sustatzeko Programak

Lan eta Immigrazio Ministerioaren dirulaguntza duten enplegua sortzeko programen artean, aipagarria da enplegua sustatzeko hobaria; izan ere, funtzio horretan baliabide gehien biltzen dituen izatez gain, EAEko EPAen artean baliabiderik gehienak dituen ere bada. Kontratazio mugagabea sustatzeko eta, aldi berean, zailtasunik handieneko taldeei laguntzeko (iraupen luzeko langabetuak, emakumeak, gazteak, ezinduak eta berrogeita bost urtetik gorako langileak) laguntza horiek 1997ko lan-erreforma egin zenetik garatzen dira.¹³

Bestalde, 45/2002 Legeak handitu egin zituen enplegua sustatzeko 2002ko Programako pizgarriak (langabetu talde batzuen kontratazio mugagaberako pizgarriak); hain zuzen ere, hiru programa berri sortu zituen (langabezia-presazioen jasotzaileen kontratazioa sustatzeko, heziketako langileak ordeztzen dituzten bitartean; langabezia-sorospena inoren konturako lanarekin zenbatzea ahalbidetzeko; eta langabetuen mugikortasun geografikoa sustatzeko).

Harrezkero, kontrataziorako halako pizgarriak gero eta gehiago erabiltzen hasi ziren, eta 2006an (informazioa es-

III.5.18. GRAFIKOA. GIZARTE SEGURANTZAKO KOTIZAZIOKO HOBARIAK, ENPLEGUA SUSTATZEKO



Iturria: EEZP (Zerbitzu Teknikoen Zuzendariordetza Nagusia)

kaintzen duen azken urtea) 207.988 mila euro izan ziren, aurreko urtean baino %14,5 gehiago. Langile onuradunen kopurua 215.532koa izan zen (2005etikiko %11,9), eta, beraz, pertsona bakoitzeko batez besteko hobaria 965 eurokoa izan zen (aurreko urtean baino 22 gehiago).

III.5.33. KOADROA. LAN ETA GIZARTE GAETAKO MINISTERIOAK EAE-N ENPLEGUA SUSTATZEKO SORTURIKO PROGRAMAK (EUROAK MILATAN)

	GUZTIRA*	Toki Garapena eta I+E proiektuak nahiz enpresak sustatu	Enplegu autonomoa sustatu	Ezinduak laneratu
2002	22.271	2.513	2.937	16.820
2003	22.934	2.638	3.024	17.233
2004	26.467	2.294	2.820	21.353
2005	28.322	2.295	2.565	23.462
2006	34.141	1.885	2.722	29.533
2007	35.822	2.243	3.507	30.072

(*)Guztizkoaren eta programen batuketaren arteko kendura enplegua Kooperatibetan eta S.M. sozietateetan sustatzeko Programari dagokio.

Iturria: EEZP (Enplegu Sustapeneko Zuzendariordetza Nagusia)

¹³ "Enpleguko Egonkortasunerako Akordio Interkonfederala", maiatzaren 16ko 8/1997 Errege Lege Dekretuaren ostean gauzatutakoa; Lan Merkatua Hobetzeko eta Kontratazio Mugagabea Sustatzeko Premiazko Neurriei buruzko abenduaren 26ko 63/1997 Legea; eta Gizarte Segurantzaren eta zergen arloko pizgarriak (kontratazio mugagabea sustatzeko) arautu dituen abenduaren 26ko 64/1997 Legea. Enplegua 1999tik 2003ra sustatzeko programek, zergako, administrazio eta gizarte-ordenako Neurriei buruzko Legean jasotakoek (urtero Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko Legearekin batera doan Legea) pizgarri-sistema gaurkotzen dute aldian behin (abenduaren 30eko 53/2002 Legea, Zergako, Administrazioiko eta Gizarte Ordenako Neurriei buruzko abenduaren 30eko 53/2002 Legea; 2002ko abenduaren 31ko EAO).

Beste programa osagarri batzuk honako hauek dira: Toki Garapena Sustatzeko enpleguaren bultzada eta I+G gisa kalifikaturiko proiektuen nahiz enpresen sustapena, Enplegu autonomoaren sustapena eta Elbarrien laneratzeara. 2007ko datuek agerian jarri dutenez, guztira 35,8 milioi euro eman ziren halako jarduketak garatzeko, aurreko urtean baino %4,9 gehiago. Horien banaketa oso egonkorra izan da azken urteotan. 2007an, laguntza horien %84,8 Elbarriak Laneratzeko izan ziren, %9,8 Enplegu Autonomoa Sustatzeko eta gainerako %5,4 Toki Ekimenetarako (batez ere, kontratazio mugagabeen eta enplegu tuki-eragileen diru-laguntzetarako).

5.5.2. Eusko Jaurlaritzak sustaturiko politika aktiboak

a) Enplegua sustatzeko programak

Eusko Jaurlaritzak Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailaren bidez garaturiko enplegu-politika aktiboak nabar-

men aldatu ziren 2004an, *enplegurako laguntzak arautzeki buruzko abenduaren 23ko 329/2003 Dekretua eta Kultura Ekintzailea eta Enpresen Sorkuntza Sustatzeari buruzko abenduaren 23ko 328/2003 Dekretua* onetsi zirenetik.

Lehenengo Dekretuaren oinarria Enpleguko 2003-2006ko Erakunde arteko Egitamuan dago; dekretu horrek laneratzeko zailtasunak dituzten langabetuen taldeak kontratatze laguntza berriak arautzen ditu; gainera, zenbait arautan (Dekretuak indargabetutakoak) jasotako jarduketak biltzen ditu. *328/2003 Dekretuak*, bestalde, langabetuek eraturiko enpresen sorkuntza sustatzeko dirulaguntzak ezarri eta, gainera, indargabetu egin du *abenduaren 24ko 305/1996 Dekretua*, *autoenplegua sustatzeko neurriak arautu dituen*. Dekretu horiek garaturiko Enplegurako Laguntzak bost jarduketa-ildotan biltzen dira:

- Lehenengo laguntza-ildoaren helburua lan merkatuan sartzeko zailtasunik handienak dituzten taldeak lane-ratzen laguntzea da, baita kontratazio mugagabea eta

III.5.34. KOADROA. EUSKO JAURLARITZAK 2006AN ENPLEGUA SUSTATZEKO SORTU DITUEN PROGRAMAK (DIRULAGUNTZA-JASO DUTEN LANGILEAK, DIRULAGUNTZAK MILAKA EUROTAN, ETA BATEZ BESTEKO DIRULAGUNTZA EUROTAN)

	EAE			Araba		Bizkaia		Gipuzkoa	
	Lang. kop.	Dir. guzt.	B. besteko dirulag. (€)	Lang. kop.	Dir. guzt.	Lang. kop.	Dir. guzt.	Lang. kop.	Dir. guzt.
Kontratazioa (1)	1.051	4.834	4.599	76	408	552	2.789	423	1.636
Langileria-berriztapena (2- Txandak. kontrat.)	512	2.605	5.088	84	410	214	1.089	214	1.106
Langileria-berriztapena kooperatibetan (2-Dirulaguntzak irteten den bazkideari)	52	487	9.365	2	20	6	49	44	418
Langileria-berriztapena kooperatibetan (2-Sozietate-kontratu berriak)	47	237	5.043	-	-	4	24	43	213
Lanaldiaren banaketa (3)	59	116	1.966	1	1	22	41	36	74
Heziketa-enpleguko proiektuak (4)	289	2.489	8.612	40	330	163	1.421	86	738
Laneko eta familiako bizitza adiskidetzeara (5-Langile)	7.233	12.611	1.744	1.453	2.419	3.361	5.915	2.419	4.277
Laneko eta familiako bizitza adiskidetzeara (5-Enpresa)	652	1.477	2.265	100	190	289	723	263	564
Enpresa-sorkuntza (6)	1.125	6.750	6.000	148	888	544	3.264	433	2.598
PROGRAMAK GUZTIRA	11.020	31.605	2.868	1.904	4.666	5.155	15.315	3.961	11.624

329/2003 Dekretua: (1) II. kap.; (2) III. kap.; (3) IV. kap.; (4) V. Kap.; (5) VI. kap.;

328/2003 Dekretua: (6) IV. kap.

Iturria: Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila. EUSKO JAURLARITZA.


aldi baterako kontratutik mugagaberako aldaketa sustatzea ere.

- Bigarren laguntza ildoak enpresetako langileriaren berriztapena sustatzen du, txandakako kontraturako laguntzen bidez, bai inskribaturiko pertsonekin edo bai langabetuekin nahiz enpresarekin iraupen jakineko kontratua eginda duten langileekin¹⁴; halaber, kooperatibetan langileriak berriztatzeagatiko laguntzak ere sustatzen ditu.
- Hirugarren laguntza-ildoak lanaldiaren banaketa sustatzen du; horretarako, aparteko orduak ezabatze eta langileak nahiz langile-bazkideak ordeztzeko kontratazioetarako laguntzak bideratzen dira, horiekin lanaldia murrizteko edo ezabatze kasuak itunduta edo onartuta egonez gero.
- Laugarren laguntza-ildoaren helburua, izan ere, toki-eremuko Enplegu edo Prestakuntza Proiektuen barruko lan-kontratueterako diru-laguntzak ematea da, baldin eta horien prestakuntza-faseak honako hau arautu duen Dekretuan ezarritakoaren arabera diru-laguntza jaso badu: enplegu-aukera hobetzeko eta laneratzea sustatzeko neurriak.

- Bosgarren laguntza-ildoaren helburua, azkenik, laneko eta familiako etxebizitza moldatzea da; horretarako, laguntzak ematen zaie seme-alabak zaintzeko (sei urtetik beherakoak edo hortik gorako ezinduek) lan-utzialdia edo lanaldi-murriztapena hartzen duten inoren konturako langileei, baita horiek ordeztzeko langabetuak kontratatzen dituzten erakunde pribatuei ere.

007an enplegu-programa horiek 11.020 onuradun izan zituzten, pertsonen eta erakundeen artean (2006an baino %30,7 gutxiago); beraz, BJAan jasotako langabetu guztien %39,3tik %33,9ra igaro dira, eta 31,6 milioi euroko diru-laguntzak eman dira (aurreko urtean baino %29,3 gutxiago). Onuradun kopuruak programen zenbateko osoak baino murriztapen handiagoa izatearen ondorioz, batez besteko zenbatekoa (2.868€) aurreko urtekoa baino %2,1 handiagoa da. Programa horien emaitzak, neurri handian, laneko eta familiako bizitza moldatzeko atalaren eraginezkoak dira; izan ere, atal hori, langileen eta enpresen artean, onuradun guztien %71,6ra (2006an %73,6) eta diru-laguntzen zenbatekoaren %44,6ra (2006an %48) heldu da.

III.5.19. GRAFIKOA. EUSKO JAURLARITZAK ENPLEGUA SUSTATZEKO SORTURIKO PROGRAMEN EMAITZEN BILAKAERA



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzza Saila.

¹⁴ Txandakako kontratua lanaldi osokoa eta mugagabea izan behar da; bestela, iraupen jakinerako eginez gero, jaso egin behar da iraupen-aldia amaitzean kontratu mugagabe bihurtuko dela.

b) Lanerako prestakuntza

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Saileko prestakuntza-programetan ere aldaketa nabariak egon ziren 2004an, honako dekretu hauek onestearen ondorioz: *abenduaren 23ko 327/2003 Dekretua, enplegu-aukera hobetzeko eta laneratzea sustatzeko neurriak arautu dituen; abenduaren 23ko 328/2003 Dekretua, Kultur Ekintzailea eta Enpresa Sorkuntza Sustatzeari buruzkoa, eta abenduaren 23ko 329/2003 Dekretua, enplegurako laguntzak arautu dituen; halaber, indarrean mantendu dira uztailaren 29ko 191/2003 Dekretua, Enpresei eta Sindikatuak diru-laguntzak ematea*

arautu duena, euren jardura-arloetako giza baliabideen trebakuntza hobetzeko prestakuntza-egitamuak garatzeko, eta abenduaren 26ko 303/2000 Dekretua, Gazte Enpresa programa arautu duena.

Guztira, Lan eta Prestakuntza Zuzendaritzako Prestakuntza Programetan eta Ekintzetan, 2007an, 14,3 milioi euro gastatu ziren, aurreko urtean baino %17,1 gehiago. Funtz horien %73,6 Lanerako Prestakuntzako ekintzetara bideratu ziren, %13 enpresa sustapenerako ekintzetara, eta %8,7 sindikatuak eta enpresetako kideen prestakuntzara.

III.5.35. KOADROA. EUSKO JAURLARITZAKO ENPLEGU ETA HEZIKETA ZUZENDARITZAKO HEZIKETA PROGRAMAK ETA EKINTZAK

	2006				2007			
	Ekintza kop.	Ordu kop.	Partaide kop.	Diru-lag. guztira (€)	Ekintza kop.	Ordu kop.	Partaide kop.	Diru-lag. guztira (€)
Enplegurako Orientazio Zerbitzua	610	6.646	6.030	0	524	5.486	4.067	0
Europar Batasuneko Egitamuk (2006+2007)*	11	0	0	609.869	11	0	0	609.869
Lanerako Prestakuntza	560	737.540	8.578	8.619.942	585	713.924	8.366	10.517.071
Lanerako Prestakuntza ekintzak	40	14.560	392	995.318	61	20.287	608	1.391.821
%60ko Kontratazio Konpromisoko ekintzak	26	71.515	639	855.010	36	44.398	574	1.089.203
Erakunde arteko Egitamuen ondoriozko ekintzak	27	68.547	663	922.090	23	35.083	391	625.142
Beste heziketa-ekintza batzuk	467	582.918	6.884	5.847.524	465	614.156	6.793	7.410.906
Enpresa-sustapena	526	24.689	13.586	1.665.910	525	32.668	16.035	1.861.733
Kultura ekintzailea hedatzeko ekintzak	60	3.183	9.729	164.350	68	3.367	12.037	206.330
Talde-heziketako ekintzak	184	9.434	2.483	586.950	199	10.054	2.486	639.968
Banakako aholkularitza-ekintzak	66	12.072	1.158	514.610	60	19.247	1.314	592.435
Gazte Enpresa	216	0	216	400.000	198	0	198	423.000
Enpresetako eta sindikatuak kideen heziketa	285	13.720	20.172	1.251.268	338	14.219	21.795	1.250.080
Enpresetako heziketa	189	4.879	6.085	394.201	232	4.896	6.812	409.147
Sindikatuak heziketa	96	8.841	14.087	857.067	106	9.323	14.983	840.933
Terrorismoko biktimen laguntza	24	0	24	60.000	24	0	24	60.000
Gazte Enpresa programa	4	15	363	762	0	0	0	0
GUZTIRA	2.020	782.610	48.753	12.207.751	2.007	766.297	50.287	14.298.753

(*) Diru-laguntza EBko egitamuen bi urteko indarraldiaren artean hainbanatu da. Iturria: Justizia, Lan eta G. Segurantzaren Saila. Eusko Jaurlaritza.

c) Lanbide enplegu-zerbitzuak

“EAEko Enplegu Zerbitzua-Lanbide”, izatez ere, Enplegurako 2003-2006ko Erakunde Arteko Egitamuan oinarrituz abiatutako orientazioko, laguntzako eta lanerako prestakuntzarako zerbitzua da, eta Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako Sailaren mende dago; bertan, bitartekotza-zerbitzuak ez ezik, beste zenbait zerbitzu ere ematen dira, esate baterako, Informazioa, Lanbide Orientazioa eta Enpleguaren Sustapena.

2007ko laugarren hiruhilekoan, Lanbide 43.851 enplegu-eskari erregistratu ditu (2006ko laugarren hiruhilekoan baino %20,6 gehiago); horietatik, iturri horrek adierazitakoaren arabera, %79,9 langabezia-egoeran daude (hau da, 35.017 pertsona, eta BJAk 2007ko laugarren hiruhilekorako emandako datua 31.400 pertsonakoa); zerbitzu horren eta berorren zentro laguntzaileen bidez, 25.482 lanpostuko eskaintza egin da (2006ko laugarren hiruhilekoan baino %2,7 gehiago).

Lanbideren bitartez gehien eskainitako eta eskatutako lanpostuei dagokienez, aurreko urteetako joera mantendu da; hau da, titulazio edota espezializazio baxua eskatu da, batez ere zerbitzu-sektorean (enplegu-zerbitzu publikoetan ohikoa, “kalitateko” enpleguak langileak hautatzeko enpresa pribatuen bitartez bideratzen baitira). Hala eta guztiz ere, enplegu-aukera handiak aintzat hartuta, eta eskaintza nahikoa dagoenez, honako lanpostu hauek dira aipagarriak: aseguru-agentea, mekanikako teknikaria eta makina mota desberdineko eragilea.

5.5.3. Lanbide-heziketa iraunkorra EAE¹⁵

Indarreko araudiaren eta eskumen-banaketa ondoz, etengabeko prestakuntzako jarduerak, pertsonen eta enpresen artekoak, Langileen Prestakuntzako Euskal Fundazioaren (HOBETUZ) eta Enplegu Prestakuntzarako Hiruko Fundazioaren bidez kudeatzen dira. Ekintza horiek, batik bat, Gizarte Segurantzako kuotetako hobarien eta Europako Gizarte Funtsak emandako zenbatekoen nahiz aurrekontu publikoetatik iritsitako funtsen bitartez finantzatzen dira; aurrekontu publiko horiek Estatuko Administrazioa-

III.5.36. KOADROA. LANBIDEKO ENPLEGU ESKATZAILE AKTIBOAK. 2007ko IV. HIRUHILEKOA

	Guzt.	Guzt. %	BJAren lang. t.	Gizonak	Emak.
16-24	7.681	17,5	7,6	4.132	3.549
25-34	16.971	38,7	4,1	6.944	10.027
35-44	11.878	27,1	3,2	4.812	7.066
45-54	6.080	13,9	2	2.421	3.659
55 y +	1.230	2,8	1,6	559	671
Guztira	43.851	100	3,3	18.873	24.978

Iturria: Lanbide.

renak (EEZP) edo Eusko Jaurlaritzarenak (HOBETUZ) izan daitezke.

Enplegu Prestakuntzarako Hiruko Fundazioak sustaturiko langileen etengabeko prestakuntzarako ekintzei dagokienez (Sektore arteko nahiz Sektoreko Prestakuntza Egitamua, Gizarte Ekonomiarakoak eta Langile Autonomiei zuzendutakoak), 2007an, behin-behineko datuen arabera, 102.744 partaide egon ziren, aurreko urtean baino %70 gehiago, 4.975 enpresak parte hartzearen eraginez. Kategoriara, partaidetzarik handieneko lanbide taldea trebatutako langileena izan da (prestaturiko langileen %44,2 eta prestakuntza-orduen %40); arlo funtzionalei dagokienez, garrantzitsuena produkzioa izan da (partaideen %52,8 eta prestakuntza-orduen %51,2). Batez beste, langile bakoitzeko ordu kopurua 27,6koa izan da 2007an, eta aipagarria da zuzendaritza-arloko langileek prestakuntzan egindako 40,8ko batez besteko ordu kopurua.

Bestalde, eta aurreko urteetan gertatu den bezala, emandako ikastaroen 100 izen teknikotik gorakoen artean, aipagarriak dira, partaidetza aintzat hartuta, lan-osasuna nahiz laneko arriskuen prebentzioa, hizkuntzak eta erabiltzailearen informatika-ofimatika. Hiru gai horietan, azken urteotan, parte hartu duten langileen herena presatu da, batez beste.

¹⁵ 5.5.1 atalean esan dugunez, EAEko Etengabeko LH Enplegurako Lanbide Heziketaren Azpistema arautu duen 395/2007 EDren eraginean gelditu da; lege horrek Lanbide Heziketa Iraunkorra arautzen zuen 1.046/2003 Errege Dekretua ordeztu du, eta heziketa iraunkorra eta lanerako prestakuntza integratu ditu.

III.5.37. KOADROA. LANBIDEREN BIDEZ GEHIEN ESKAINTZEN ETA ESKATZEN DIREN LANPOSTUAK. 2007ko IV. HIRUHILEKOA

Okupazioa	Eskain.	Eskar.	EAI*
ESKARIRIK HANDIENA (lanbideko eskatzaile aktiboak)			
Garbiketako langileak	887	8.032	11,0
Merkataritzako saltzailea	366	6.379	5,7
Administrazio-enplegatua	493	5.867	8,4
Hipermerkatuko atal-betetzalea	235	4.447	5,3
Harreragile telefonista bulegoetan	169	3.793	4,5
Metalurgiako peoia	464	3.787	12,3
ESKAINTZARIK HANDIENA (aurrekoak izan ezik)			
Elkarriketaria-Inkestagilea	1.219	268	454,9
Merkataritza-agentea	609	1.124	54,2
Administrazio-teknikaria	570	3.326	17,1
Zerbitzaria	487	1.702	28,6
Zamalanetako langilea, biltegian edota merkatuan...	469	3.726	12,6
Sukaldaria	377	674	55,9
ENPLEGU AUKERAREN INDIZEAREN ARABERA** (aurrekoak izan ezik)			
Etterik etxeko saltzailea	23	1	2.300,0
Toldo muntatzailea	11	1	1.100,0
Aseguru-agentea	220	41	536,6
Itsas mekanikako teknikaria	41	8	512,5
Beirateetako beiragilea	5	1	500,0
Mikrosistemen instalatzaile elektronikoa	5	1	500,0

(*) Enplegu Aukeraren Indizea; enpresek eskaturiko lanpostuak, lana eskaintzen duten 100 pertsonako.

(**) Eskaintzan 15 lanpostu baino gehiago.

Iturria: Lanbide.

Bestalde, EAEen landunen etengabeko prestakuntza kudeatzen duen Langileen Prestakuntzarako Euskal Fundazioaren bidez (HOBETUZ) egiten diren etengabeko prestakuntza-jarduerei dagokienez, bertako Patronatuak (ugazaberiako, sindikatuetako eta Eusko Jaurlaritzako ordezkariak), Espainiako 2004ko Etengabeko Prestakuntzako sistema (eta Gizarte Segurantzarako kotizazioetako hobari-sistema berria, halako prestakuntza-ekintzetarako) aldatu osteko finantziazio-arazoekin jarraituz, 2005ean eta 2006an ez zuen argitaratu ezein laguntza-deialdirik; izan ere, Fundazioko patronatuan adostasunik ez egotean,

deialdiak Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza eta Unibertsitateak Sailak argitaratu eta kudeatu zituen.

2007rako, laguntza-deialdia Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza eta Unibertsitateak Sailak argitaratu arren, Fundazioko patronatuan akordiorik egon ez zenez, deialdi hori Hobetuzek kudeatzea onetsi zen. Horrela, eta betearazpen-datu errealak finkatu barik egon arren, 2007an HOBETUZek 490 egitamu kudeatu eta 104.691 langilearen prestakuntza ahalbidetu du; horretarako, 24,95 milioi euroko diru-laguntzak eman ziren. Gainera, aipagarria da 2007an ELA eta LAB sindikatuek HOBETUZen patronatutik alde egitea.

III.5.38. Koadroa. EAE-ko enpresetako prestakuntza iraunkorra, EPHF-ren bidez. Hezitutako partaideak, lanbide profilaren arabera

	2006					2007				
	Prestaturiko partaideak		Egindako prestakuntza-orduak		Orduen batez best.	Prestaturiko partaideak		Egindako prestakuntza-orduak		Orduen b. best.
	Absolutua	%	Absolutua	%		Absolutua	%	Absolutua	%	
Lanbide-kategoria										
Zuzendaria	1.216	6,4	68.550	7,0	56,4	4.369	4,3	163.889	6,0	37,5
Bitarteko agintaria	2.571	13,4	110.652	11,3	43,0	10.390	10,1	314.531	11,5	30,3
Teknikaria	3.362	17,6	240.664	24,5	71,6	23.718	23,1	737.215	27,0	31,1
Trebakuntzako langilea	8.550	44,7	410.380	41,8	48,0	45.368	44,2	1.092.839	40,0	24,1
Trebakuntzarik gabeko langilea	3.448	18,0	151.330	15,4	43,9	18.895	18,4	423.901	15,5	22,4
Eredu funtzionala										
Administrazioa	2.738	14,3	187.590	19,1	68,5	17.847	17,4	563.586	20,6	31,6
Merkataritza	4.075	21,3	140.027	14,3	34,4	20.053	19,5	418.998	15,3	20,9
Zuzendaritza	1.370	7,2	68.977	7,0	50,3	4.030	3,9	164.401	6,0	40,8
Mantenamendua	1.076	5,6	59.561	6,1	55,4	6.548	6,4	185.770	6,8	28,4
Produktzioa	9.888	51,6	525.421	53,5	53,1	54.262	52,8	1.399.620	51,2	25,8
GUZTIRA	19.147	100,0	981.576	100,0	51,3	102.744	100,0	2.732.463	100,0	27,6


Iturria: Enplegu Prestakuntzarako Hiruko Fundazioa

III.5.39. Koadroa. ETENGABEKO PRESTAKUNTZAKO EKINTZAK EAE-ko enpresetan, EPHF-ren bidez, soldatapeko estratuaren arabera

	Enpresa prestatzaileak				Prestaturiko langileak			
	2006	2007*	Ald. %	Estatuko %	2006	2007*	Ald. %	Estatuko %
1-5 bitartean	732	1.143	56,1	2,0	1.298	2.000	54,1	-
6-9 bitartean	365	614	68,2	3,3	1.212	1.785	47,3	-
10-49 bitartean	1.486	2.120	42,7	4,8	10.323	14.479	40,3	-
50-99 bitartean	447	541	21	6,1	7.356	9.398	27,8	-
100-249 bitartean	289	345	19,4	6,1	8.647	13.162	52,2	-
250-499 bitartean	113	124	9,7	7,1	6.627	9.763	47,3	-
500-999 bitartean	41	42	2,4	5,5	4.724	9.382	98,6	-
1.000-4.999 bit.	34	36	5,9	6,5	11.117	21.195	90,7	-
4.999tik gora	3	3	0,0	3,3	9.006	21.578	139,6	-
Guztira	3.514	4.975	41,6	3,6	60.455	102.744	70,0	-

Iturria: Enplegu Prestakuntzarako Hiruko Fundazioa

III.5.20. GRAFIKOA. HOBETUZ-EK EGINDAKO DEIALDIEN EMAITZEN BILAKAERA



Iturria: HOBETUZ

III.5.40. KOADROA. HOBETUZ. 2007KO DEIALDIA

		EGITAMU MOTA	ESPEDIENTEAK	EMANDAKO DIRU-LAG. (€)	BERTARATUAUK
ENPRESAK		ENPRESA EGITAMUAK	242	4.194.943,94	22.606
		ENPRESA TALDEKO EGITAMUAK	57	1.346.892,77	7.472
		GUZTIRA	299	5.541.836,71	30.078
LANGILEAK	EGITAMU SEKTORIALAK SEKTORE ARTEKOAK	ERAK. SINATZAILEA	16	6.530.097,99	27.911
		ORG. SIN. SEKTORIALA	4	469.901,81	1.987
		ERAK. INT.PRESTAKUNTZA	78	5.492.563,77	17.700
	PRESTAKUNTZA ERAKUNDEEN EGITAMUAK- AUTONOMOAK- GIZARTE EKONOMIA ETA SINATU BARIK	SEKTORIALA. HEZIKETA	3	261.547,73	1.459
		KATALOGO MOD.	77	6.023.714,13	20.270
		GIZARTE EKONOMIA	2	153.330,12	605
		AUTONOMOAK	1	97.849,47	816
		SIN. EZ DUTEN ERAK.	10	380.736,21	3.865
		GUZTIRA	191	19.409.741,23	74.613
		GUZTIRA	490	24.951.577,94	104.691

Iturria: HOBETUZ.

6

Prezioak, kostuak eta errentak

336


6.1. Kontsumo ondasunen prezioak

2007ko inflazioa kanpoko faktoreek baldintzatzen dute, modu oso garrantzitsuan.

Faktore nagusia, hamarkadaren hasieratik egon den goranzko joera iraunkorra azaltzen duena (bai petrolioaren

eta bai gainerako lehengaien goranzko joera), garapen bideko herrien eskaria handitzea da; hori bertako hazkunde handiari lotuta dago, eta nekazaritzako lehengaien kasuan, horiek erregai biologikoak (petrolioaren ordezkioak) sortzeko erabiltzeari lotuta. Horrekin batera, behin eta berriro, zergati bereziak daude, eta zergatiok, petrolioaren kasuan, geopolitikoak edo ekoizpen- nahiz fintze-zonetako hondamenak dira; nekazaritzako lehengaien kasuan, berriz, zergatiak lehortek dira, adibidez, 2007koak, horiek nabarmen murriztu baitzuten eskaintza.

III.6.1. GRAFIKOA. KONTSUMOKO PREZIOEN INDIZEA: URTEKO ALDAKETA TASAK. EAE ETA ESTATUA



Iturria: INE.

III.6.1. KOADROA. KONTSUMOKO PREZIOEN INDIZEA. EAE ETA ESTATUA

	EAE						Estatua	
	Urteko b. bestekoa			Abendua (urt. b. bestera)			B. best.	Ab.
	2005	2006	2007	2005	2006	2007	2007	2007
Indize Orokorra	3,3	3,4	2,8	3,7	2,6	4,2	2,8	4,2
Janariak eta alkohol gabeko edariak	3,6	4,1	3,8	4,3	3,0	7,3	3,7	6,6
Alkoholduen edariak eta tabakoa	4,7	2,0	6,6	4,9	1,6	5,6	7,0	6,1
Jantziak eta zapatak	0,7	1,1	1,4	1,0	1,7	1,3	1,1	1,2
Etxebizitza	5,0	6,2	3,6	6,4	4,0	4,5	3,7	4,8
Etxeko tresneria eta zerbitzuak	2,2	3,0	3,5	2,2	3,5	3,1	2,6	2,5
Medikuntza eta osasun zerbitzuak	1,0	1,9	-0,5	1,5	1,8	-1,1	-1,5	-2,1
Garraioa	5,6	4,2	2,3	6,0	1,6	7,0	2,1	7,1
Komunikazioak	-1,6	-1,3	0,2	-1,7	-1,5	0,8	0,2	0,8
Aisialdia eta kultura	-0,3	0,4	-0,9	0,1	-0,5	-0,8	-0,7	-0,8
Irakaskuntza	4,2	4,5	4,5	4,1	4,7	4,6	4,5	4,1
Hotelak, kafetegiak eta jatetxeak	4,4	3,9	4,6	4,3	3,9	4,2	4,8	4,9
Beste ondasun eta zerbitzu batzuk	3,1	3,0	3,2	3,5	3,3	2,9	3,3	3,0

Iturria: INE.

Urtea, EAEn, urte batetik besterako tasa nahiko baxuarekin hasi zen (%2,4), eta hori egonkor mantendu zen, gorabehera txikiekin, abuztura arte. Irailetik aurrera, inflazioak gorakada gogorra izan zuen, batez ere produktu energetikoetan eta landu gabeko janarietan, eta urte amaieran urte batetik besterako %4,2ko hazkundera izan zuen, Estatuko batez bestekoaren antzekoa. Horren zergatiak, lehen esan dugunez, kanpotik datoz, eta inportaturiko lehengaien bitartez iragazi dira Espainiako eta EAEko

ekonomian; barruko zergatiei dagokienez, aipagarria da prezioak bateratzeko dagoen joera, gero eta globalizatua-
goak diren merkatuetan.

Hain zuzen ere, petrolio-upelaren prezioa urtarrilean 54\$-koa izatetik abenduan 91tik gorakoa izatera igaro zen, eta hazkunde hori euroak dolarrarekiko izandako sendotasunak baino ez zuen orekatu, neurri batean. Horrela, urteko azken lau hilabeteetan, inflazioa %2,3tik %4,2ra hazi zen. 2007an garestitze nabariak izan dituzten beste le-

III.6.2. KOADROA. KONTSUMOKO PREZIOEN INDIZEAREN BANANTZEA: B.B. ALDAKETA TASAK ETA EKARPENAK

	2003	2004	2005	2006	2007	Ekarpena
Inflazio osoa (%100)	2,8	3,0	3,3	3,4	2,8	4,4
Azpiko inflazioa (%82,9)	2,7	2,7	2,7	2,9	2,8	2,7
- Janari landuen KPI (%15,6)	3,0	3,7	3,5	3,6	4,0	1,2
- Industria-ondasunen KPI (%28,6)	1,6	0,5	0,7	1,4	0,7	0,1
- Zerbitzuen KPI (%38,7)	3,4	4,0	3,9	3,7	3,9	1,4
Hondakin-inflazioa (%17,1)	3,7	4,6	6,3	6,1	3,0	1,7
- Landu gabeko janarien KPI (%8,5)	5,9	5,1	4,3	4,3	4,2	0,5
- Energiaren KPI (%8,6)	1,4	4,2	8,4	7,9	1,9	1,2

Iturria: Estatistikako Institutua Nazionala (INE)

**III.6.3. KOADROA. KAPI: URTEKO BATEZ BESTEKO AL-
DAKETA TASA. OINARRIA 2005**

	AB. 2005	AB. 2006	AB. 2007
EB	2,1	2,2	3,2
EDB	2,2	1,9	3,1
BELGIKA	2,8	2,1	3,1
BULGARIA	7,4	6,1	11,6
TXEKIAR E.	1,9	1,5	5,5
DANIMARKA	2,2	1,7	2,4
ALEMANIA	2,1	1,4	3,1
ESTONIA	3,6	5,1	9,7
IRLANDA	1,9	3,0	3,2
GREZIA	3,5	3,2	3,9
ESPAINIA	3,7	2,7	4,3
FRANTZIA	1,8	1,7	2,8
ITALIA	2,1	2,1	2,8
ZIPRE	1,4	1,5	3,7
LETONIA	7,1	6,8	14,0
LITUANIA	3,0	4,5	8,2
LUXENBURGO	3,4	2,3	4,3
HUNGARIA	3,3	6,6	7,4
MALTA	3,4	0,8	3,1
HOLANDA	2,0	1,7	1,6
AUSTRIA	1,6	1,6	3,5
POLONIA	0,8	1,4	4,2
PORTUGAL	2,5	2,5	2,7
ERRUMANIA	8,7	4,9	6,7
ESLOVENIA	2,4	3,0	5,7
ESLOVAKIA	3,9	3,7	2,5
FINLANDIA	1,1	1,2	1,9
SUEDIA	1,3	1,4	2,5
ERRESUMA B.	1,9	3,0	2,1

Iturria: Eurostat.

hengai batzuk janari landuak (azken hiru hilekoan %7,4) eta produktu energetikoak izan dira, eta, horrela, bi talde horien ekarpena KPIren igoeraren erdira baino gehiagora heldu zen.

Euroaren zonako inflazioarekiko aldea, urte amaieran, ehuneko puntu batetik gorakoa izan zen, lehengaien prezioaren hazkundeak eragin handiagoa izan baitzuten EAEen.

Produktu energetikoen zergapetze txikiagoa dutenez, oinarritzko prezioaren edozein aldaketak eragin handiagoak ditu. Gainera, aipagarria da energia- eta elikadura-produktuek EAEko ekonomian duten mendeotasun handiagoa, horren eraginez produktu horien aldaketek eragin handiagoa baitute nazioarteko merkatuetan.

Talde berezien bilakaera zehatzago aztertuta ikusten denez, erregaiek (%+13,6), produktu energetikoen (%10,6) eta janari landuek (%8,6) ez ezik, beste batzuek ere prezioetan urte batetik besterako hazkunde garrantzitsuak izan dituzte 2007ko abenduan: janari freskoen prezioak %5,7an garestitu ziren, eta zerbitzuen prezioak %3,8 inguruko hazkundeetan mantendu ziren urte osoan. Industriako produktuak, aldiz, oso gutxi garestitu ziren (abenduan %0,4).

Azpiko inflazioari dagokionez (produktu energetikoei eta janari freskoei dagokien zatia kenduta dagoen inflazioa), 2007an horren urte batetik besterako batez besteko balioa inflazio osoarena (%2,8) izan arren, azken hiru hilekoan lubaki bat ireki zen bien artean, energiaren eta janari freskoen prezioek izandako hazkundearen eraginez. Janari landuak (hauek ere nabarmen garestitu) inflazioaren gune egonkorrean (azpiko inflazioa) sartzearen ondorioz, hori balio nahiko altuetara iritsi da, hain zuzen ere, azken bost urteotako baliorik altuenetara; hain zuzen ere, 2007ko urte batetik besterako tasa %3,4koa izan zen (urtebete lehenago %2,4), eta Estatuko batez bestekoa %3,3koa izan zen.

Produktu taldeen arabera, aipagarria da aisialdiari nahiz kulturari eta medikuntzari buruzko datuen jokabidea; izan ere, 2007ko amaieran, horien prezioak aurreko urtekoak baino baxuagoak ziren. Moderazio ildo horrexetan daude, halaber, jantziak nahiz zapatak eta komunikazioak, %1 inguruko hazkundeekin. Beste muturrean, garestitzerik handienak janarietan zein edarrietan eta garraioan egon dira, lehen aipaturiko zergatiengatik; hala ere, irakaskuntzan, ostalaritzan eta etxebizitzan ere prezioek hazkunde garrantzitsuak izan dituzte, kasu guztietan %4tik gorakoak.

Kontsumo Adostuko Prezioen Indizeko¹ (KAPI) 2007ko abenduko datuek, azkenik, %4,3ko hazkundera adierazten dute Estatutako, 2006ko abenduari dagokionez, aurreko

¹ Kontsumo Adostuko Prezioen Indizeak (KAPI) Europar Batasuneko inflazioaren neurri komuna eskaintzen du. Konparazio homogeneoak lortzeko, salbuetsi egin behar izan ziren zenbait kontsumo-partida, KPIin jaso eta %5 ingurukoak direnak (esate baterako, KAPItik kanpo gelditzen dira Osasun-zerbitzuak, Irakaskuntza arautua, Diru-laguntza duten sendagaiak eta produktu farmazeutikoak, etab.). 2006an, oinarri-urtea aldatu eta 1996tik 2005era igaro zen.

urtean baino sei hamarren handiagoa; EDBrako, berriz, %3,1ekoa, 2006an baino 1,2 puntu handiagoa. 2007an, Europar Batasuneko bi herrik baino ez dute murriztu euren inflazio-tasa: Holandak eta Eslovakiak, hurrenez hurren, %1,6ko eta %2,5eko balioekin. Aldiz, Bulgariako eta Bal-tikoko hiru herrien ratioak nabarmen handitu dira, eta, Le-toniaren kasuan, urte batetik besterako tasa %14koa izan da abenduan.

6.2. Kostuak

6.2.1. Laneko kostuak

EAEko laneko kostuen adierazleek, ikusiko dugunez, bizkortzea adierazten dute azken urtean, EAEn, Estatuan eta EB osoan:

- Lehenengo adierazlea indarreko hitzarmenetan itundu-tako soldata-hazkundeei buruzkoa da, eta horiek %4,2ko

soldata-hazkunde ikuskatua² adierazten dute 2007an, Euskal Autonomia Erkidegoan, 2006koa baino 6 hama-rren txikiagoa eta Estatuan itundutakoen antzekoa, Lan eta Immigrazio Ministerioaren Aldizkarian jasotako da-tuen arabera.

- Bigarren adierazlea lanpostu bakoitzeko Soldatapekoen Ordainketa da³; adierazle hori EUSTATen Kontu Ekono-mikoetan eta INEren estatistikan oinarrituz kalkulatzan da, eta agerian jartzen du ordainketa hori 2005ean %4,8 hazi eta 2006an %4,4 hazi dela (behin-behineko datuak); horrela, Estatuarekiko aldea handitu egin da, azken ho-rretan hazkundera %3koa baino ez baita izan. Gainera, Estatuko 2007ko datuak %3,6ko hazkundera adierazten du, aurreko urtekoa baino puntu erdi handiagoa. 2007ko EUROSTATek EBrako eman dituen datuek, bestalde, lan-postu bakoitzeko ordainketaren hazkunde txikiagoa adie-razten dute, baina oraingoan ere 2006koa baino handiagoa. Hain zuzen ere, %3ko hazkundera izan dute (2006an %2,7), eta euroaren zonan hazkundera %2,4koa izan da (2006an %2,2); beraz, nolabaiteko bizkortzea ikusten da, 2006ari dagokionez.

III.6.4. KOADROA. LANeko KOSTUEN ADIERAZLE EKONOMIKOAK

	EAE ¹			Lanpostu bakoitzeko ordainketa (ald. %)				Soldata-igoera hitzarmenetan ⁽⁴⁾	
	Soldatapekoen ordainketa (€-ak milioitan)	Lanpostuak	Lanpostuko ordainketa (€)	EAE ⁽¹⁾	Estatua ⁽²⁾	EB25 ⁽³⁾	EDB ⁽³⁾	EAE (Ald. %)	Estatua (Ald. %)
2002	22.760	896.887	25.378	3,8	3,8	2,9	2,5	4,0	3,9
2003	24.170	919.110	26.297	3,6	3,7	0,5	1,8	4,2	3,7
2004	26.069	944.699	27.595	4,9	3,4	3,0	2,1	3,8	3,6
2005	27.915	965.358	28.917	4,8	2,5	2,7	1,9	4,2	4,0
2006	29.813	987.218	30.199	4,4	3,0	2,7	2,2	4,7	3,6
2007	-	-	-	-	3,6	3	2,4	4,2	4,2

Iturriak: (1) EUSTATen Hiruhileko Kontu Ekonomikoak. (2) INEren Hiruhileko Kontabilitatea. (3) EUROSTAT. (4) Lan Merkatua eta Immigrazioa.

² "Babes-klausula" deritzonaren eraginezko ikuskapenak jatorrian itundutako soldata-igoeran sartzearen ondorioz. Kontuan hartu behar da adierazle partziala dela, batez besteko hazkunde horiek itundu dituzten hitzarmenatariko batzuek soldaten %50 babesten dituztela eta, gainera, "ohiko" soldata-igoerei buruzkoak direla, hau da, ez dituztela aintzat hartzen aparteko orduen ordainketa, lan egindako ordu kopu-rua eta soldatakoak ez diren kostuak.

³ Datu zuzena soldatapekoena izan beharko litzateke, baina EUSTATen Hiruhileko Kontabilitateak lanpostu kopuru zehatza baino ez du eskaintzen, eta ez aldi osoko baliokidetasunak.

III.6.5. Koadroa. Laneko kostuaren indizearen bilakaera. EAE-Estatua konparazioa

	Langileko kostua (€-ak urtean)						Orduko kostua (€-ak orduko)					
	Estatua			EAE			Estatua			EAE		
	KO	SKO	OKO	KO	SKO	OKO	KO	SKO	OKO	KO	SKO	OKO
2002	22.935	17.104	14.959	26.655	19.922	17.316	13,7	10,2	9,0	16,8	12,6	10,9
2003	23.909	17.762	15.403	27.519	20.495	17.668	14,4	10,7	9,3	17,5	13,0	11,2
2004	24.619	18.251	15.722	28.276	21.084	18.123	14,9	11,1	9,5	18,2	13,6	11,7
2005	25.321	18.722	16.141	29.426	21.849	18.809	15,4	11,4	9,8	19,0	14,1	12,1
2006	26.203	19.364	16.780	30.111	22.328	19.156	16,1	11,9	10,3	19,5	14,4	12,4
2007	27.263	20.120	17.175	31.519	23.394	20.223	16,8	12,4	10,8	20,5	15,2	13,1
ALDAKETAREN %												
2002	4,4	3,9	3,9	4,3	4,2	3,3	4,6	4,1	4,2	5,4	5,4	4,5
2003	4,2	3,8	3,0	3,2	2,9	2,0	4,7	4,3	3,4	4,0	3,6	2,8
2004	3,0	2,8	2,1	2,8	2,9	2,6	3,8	3,6	2,8	3,9	4,0	3,7
2005	2,9	2,6	2,7	4,1	3,6	3,8	3,5	3,2	3,4	4,3	3,8	4,0
2006	3,5	3,4	4,0	2,3	2,2	1,8	4,2	4,2	4,6	2,7	2,6	2,1
2007	4,0	3,9	4,1	4,7	4,8	5,6	4,5	4,4	4,6	5,3	5,4	6,2

KO: Kostu osoa; SKO: Soldata-kostu osoa; OKO: Ohiko kostu osoa⁴.


Iturria: INE "Laneko Kostuaren Hiruhileko Inkesta"

– Laneko kostuen hirugarren adierazlea koiunturakoa da: *Laneko Kostuaren Hiruhileko Inkesta*⁵, eta adierazle horrek osagaiak banantzeko aukera ematen du. Inkestako datuek diotenez, 2007an langile bakoitzeko laneko kostuek %4,7ko hazkundea izan dute EAEn (2006an baino bi aldiz handiagoa eta Estatuan baino 7 hamarren gehiago). Jarduera-sektoreka, kostuen hazkundea oso handia izan da eraikuntzan (%+6,8); industrian, ostera, batez bestetik beherako hazkundea izan dute (%+4,3). Zerbitzuak batez besteko hazkundearen tasan hazi dira. Balio absolutuetan, 2007an langile bakoitzeko laneko kostu osoaren batez bestekoa 31.519€ da, Estatuan baino %15,6 handiagoa. Bestalde, EAEn, lan egindako ordu bakoit-

tzeko kostu osoek %5,3ko hazkundea izan dute 2007an, aurreko urtean baino 2,6 puntu gehiago eta Estatuan baino 8 hamarren gehiago (Estatuan baino %22 handiagoak). Sektoreka, langile bakoitzeko kostuen adierazlearen kasuan bezala, eraikuntzak batez bestekoa baino hazkunde nahiko handiagoa izan du (hain zuzen ere, %7,3). Euroaren zonan, azkenik, ordu bakoitzeko laneko kostuek %2,5eko hazkundea izan dute 2007an (aurreko urteko tasa bera), eta EB27an %3,6ko hazkundea izan dute (2006an %+3), Laneko Kostu Adostuaren Indizearen arabera.

⁴ Laneko kostu osoaren (KO) barruan, enplegatzaileak lan-faktorea, soldata eta soldatak ez den beste edozein kostu erabiltzean di-tuen kostuak sartzen dira. Soldata-kostu osoaren (SKO) barruan, oinarritzko soldata, osagarriak, aparteko orduak, sariak eta espeziko soldata sartzen dira (kalte-ordainak eta dietak izan ezik), eta gordina da (langileak Gizarte Segurantzari ordainketak egin baino lehen edo atxikipe-nak jaso orduko). Ohiko soldata kostuak (OSK) salbuetsi egiten ditu aparteko hobariak (aparteko ordainketak, onuretako partaidetza, sariak, etab.) eta atzeraturiko ordainketak.

⁵ Inkesta horretan oinarrituz, Laneko Kostu Amortizatuaren Indizea egiten da, EB osoko lan-kostu osoen neurri konparagarria.

III.6.2. GRAFIKOA. EAE-KO LANEKO KOSTUEN HAZKUNDEA SEKTOREKA. KOSTUA ORDUKO €-TAN

Iturria: INE. Laneko Kostuen Hiruhileko Inkesta.

6.2.2. Produktibitatea

Produktibitatea garrantzi handiko kontzeptua da, horren hazkunderik ekonomia baten lehiakortasuna handitzeko aukera ematen baitute. Hain zuzen ere, ekoizpenaren eta hori lortzeko erabilitako baliabideen arteko lotura da.

Hala eta guztiz ere, produktibitatearen kalkulua konplexua da, bertan eragina duten faktoreak anitzak direlako (landunen trebakuntza, kapitaleko ondasunen zuzkidura, baliabideen erabilera eraginkorra eta beste faktore batzuekiko erabilera konbinatua, adibidez, erakunde- nahiz

341

III.6.3. GRAFIKOA. LANEKO KOSTUEN BILAKAERA, LAN EGINDAKO ORDU BAKOITZEKO. EB, ESTATUA ETA EAE. URTEKO ALDAKETAREN %

Iturria: Geuk landuta, INEren eta EUROSTATen datuetan oinarrituz.

lege-faktoreekin, etab.). Horrenbestez, lanaren itxurazko produktibitate kontzeptuaren bidezko hurbilketa egiten da, eta hori ikuspegi desberdinen bitartez neurtzen da.

Lehenengo eta behin, lanaren itxurazko produktibitateak, PBGren (2007an %3,9ko hazkundea) eta enpleguaren (lanpostutan neurtuta⁶) arteko zatiduratzat kalkulatuta (EUSTATen Hiruhileko Kontu Ekonomikoen arabera, azken urtean %2,4ko hazkundea), 2007an urteko %1,5eko hazkunde erreala izan zuen, aurreko urtean baino lau hamarren gutxiago⁷.


Produktibitatearen bilakaera 2007an, azken urteetan bezala, industriaren aurrerakuntzei estu lotuta egon arren, sektore horrek 2006an baino irabazi txikiagoak lortu zituen (%5,5etik %3,1era igaro da), sektorean lorturiko enplegu-sorkuntzaren eraginez. Aldiz, eraikuntzan emaitzak hobetu

egin dira urte horretan, eta gainditu egin da ekonomiaren multzo osoan produktibitatean lorturiko irabazia (batez beste %1,8, baina produktibitateak %2,2ko hazkundea laugarren hiruhilekoan).

Produktibitate errealearen bilakaera hori handiagoa da bai Europar Batasunekoa (EB27an %1,1 eta euroaren zonan %0,8, bi kasuetan 2006koak baino ehuneko txikiagoak) eta bai Espainiako estatukoa baino, azken horretan %0,7ko tasa erreala erregistratu baita (2006an baino 6 hamarren handiagoa), EUROSTATEk emandako datuen arabera⁸.

Bestalde, produktibitate nominala aztertuta (prezio korronteetan kalkulatuta, hau da, "prezioen efektua" kendu barik), gure ekonomiak Europari dagokionez izan dituen emaitzak ikusten dira, jarduera-sektoreen arabera. Infor-

III.6.4. GRAFIKOA. EAE-KO PRODUKTIBITATEAREN HAZKUNDEAREN BILAKAERA, SEKTOREKA



(*) 2007ko datuak behin-behinekoak.

Iturria: Geuk landuta, EUSTATen datuetan oinarrituz. Hiruhileko Kontu Ekonomikoak.

⁶ Lanaldi osoko lanpostu kopuru baliokidea izan beharko litzateke, baina ez daukagu datu hori.

⁷ Produktibitate erreala, kateaturiko bolumenaren indizeetan; EUSTATen datuetan oinarrituz kalkulatuta.

⁸ Datu hauek EUROSTATEk eman ditu, eta, horrenbestez, EAEko datuekiko konparazioa kontuz egin behar da, kalkulurako desberdintasun metodologikoak egon daitezkeelako.

III.6.6. Koadroa. Laneko Produktibitatearen Bilakaera EB-N eta Estatuan

	PRODUKTIBITATE ERREALA			PRODUKTIBITATE NOMINALA (PREZIO KORRONTEETAN)					
	EB 27	EDB	ESPAINIA	EB 27		EDB		ESPAINIA	
				Guztira	Industria	Guztira	Industria	Guztira	Industria
2003	0,9	0,3	0,0	1,3	0,8	2,5	1,8	3,8	3,2
2004	1,8	1,3	-0,3	4,1	4,7	3,0	4,0	3,5	3,2
2005	1,0	0,7	-0,4	3,2	5,2	2,7	3,8	3,5	4,7
2006	1,5	1,2	0,1	3,7	5,6	3,0	4,8	3,8	5,2
2007*	1,1	0,8	0,7	3,8	4,0	3,1	4,7	4,5	6,8

(*) Behin-behineko datuak.

Iturria: EUROSTATen datuetan oinarrituz landuta.

III.6.7. Koadroa. Lanaren itxurazko Produktibitatearen Bilakaera EAE-N

	PRODUKTIBITATE ERREALA (BOLUMEN KATEATUA)					PRODUKTIBITATE NOMINALA (PREZIO ARRUNTAK)				
	Guzt.	L. sekt.	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak	Guzt.	L. sekt.	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak
2001	0,1	14,0	-0,5	-0,1	0,3	2,2	-3,4	0,8	6,6	3,5
2002	0,4	-0,3	-0,2	-1,7	1,1	3,0	3,9	1,2	4,0	3,8
2003	0,9	-3,0	0,0	-1,5	1,0	3,9	0,2	1,9	10,1	3,5
2004	1,1	28,0	2,0	-0,7	0,4	5,3	2,1	8,2	4,9	3,3
2005	1,7	-8,2	5,3	1,3	0,1	5,2	0,0	8,3	5,5	3,0
2006	1,9	-10,5	5,5	1,3	0,5	5,4	-0,9	8,0	6,0	3,9
2007*	1,5	10,3	3,1	1,8	0,4	4,8	5,2	7,2	6,7	3,5

(*) Behin-behineko datuak.

Iturria: Geuk landuta, EUSTATen Hiruhileko Kontu Ekonomikoetan oinarrituz.

mazio horretatik ondorioztatzen denez, EAEn industriako produktibitatea %7,2koa izan da azken urteotan (behin-behineko datuek diotenez), eta ehuneko hori handiagoa da Estatukoa (%6,8), Europar Batasunekoa (%4,7) eta euroaren zonakoa (%4) baino, azken ekitaldietan bezala.

EAEk Europar batasunean duen lehiakortasuna konparatzeko aintzat har daitekeen beste produktibitate-adierazle bat laneko produktibitatea da, eta hori BPGren eta enpleguaren arteko erlazioztat kalkulatzen da. Informazio erabilgarria dagoenez, konparazioa erraz egin daiteke, baina kasu honetan azterketa mailaren arabera egin da, eta ez bilakaeraren arabera.

Ratio hori aintzat hartuta ikusten denez, EAE 2006an %31,3 gorago dago EBko batez bestekoa baino; hain zuzen ere, Belgikaren maila bera dauka, eta Europar Batasunean Luxenburgok eta Irlandak soilik gainditzen dute (hurrenez hurren, %184 eta %134,8); Espainiako estatua baino askoz ere gorago dago sailkapenean. Azken hori, hain zuzen ere, EBko batez bestekoa baino apur bat gorago dago, azterturiko urte guztietan. Halaber, adierazle horren bitartez ikusten denaren arabera, EAEk Batasunean duen posizio erlatiboa hobetu egin da aurreko urteetatik (1995-2003 aldiko batez bestekoari dagokionez, produktibitate erlatiboa %125,7 izan da, EBko batez bestekoari dagokionez).

III.6.8. KOADROA. LANEKO PRODUKTIBITATEA, ENPLEGATU, HERRI ETA URTEAREN ARABERA (EB 27=100)

	2004	2005	2006
EB 27	100,0	100,0	100,0
Alemania	108,3	107,5	107,0
Austria	120,6	120,4	120,1
Belgika	132,1	132,0	131,3
Bulgaria	33,7	34,3	35,0
Zipre	82,9	84,3	84,8
Danimarka	108,7	109,3	108,4
Eslovakia	65,5	68,8	71,7
Eslovenia	80,9	82,7	83,9
Espainia	102,2	102,0	103,0
Estonia	56,8	61,7	64,2
Finlandia	112,7	110,7	112,2
Frantzia	120,7	123,2	123,4
Grezia	113,7 (e)	116,4 (e)	117,9 (p)
Holanda	112,3	114,3	113,2
Hungaria	72,2	73,5	74,4
Irlanda	134,7	133,9	134,8
Italia	112,1	111,0	109,1
Letonia	45,9	49,2	51,3
Lituania	53,3	54,7	57,1
Luxenburgo	169,7	175,7	184,0
Malta	89,8	90,0	90,2
Polonia	61,5 (e)	60,9 (e)	60,9 (e)
Portugal	67,1	68,4 (p)	68,0 (p)
Erresuma Batua	112,2	109,7	109,5
Txekiar Errep	68,1	69,1	70,7
Errumania	34,4	36,3	39,2 (p)
Suedia	113,5	113,0	113,8
EAE	126,9	128,4	131,3
AEB	140,7	143,4	142,9 (p)

(p) Aurreikuspena

(e) Zenbatetsitako balioa


Iturria: EUROSTAT eta EUSTAT.

6.2.3. Laneko kostu unitarioak

Produktibitatearen eta laneko kostuen bilakaera aztertutik ondoren, orain EAEko ekonomiako Laneko Kostu Unitarioak⁹ (LKU) aztertuko ditugu. 2007ko datuek hazkunde garrantzitsua adierazten dute gure ekonomiako LKUetan, aurreko urteari dagokionez (%3,2 eta 2006an %0,4), gehienbat eraikuntzan (%+5) eta zerbitzuetan (%+4,3) izandako emaitzen eraginez. Bi kasuetan, laneko kostuak produktibitate errealearen batez bestekoa baino gehiago hazi dira. "Prezioen" efektua kenduta (BPGren deflaktatzailearen bidez), laneko kostuan aldaketa-tasa errealak askoz ere txikiagoak dira bi sektore horietan; industriaren eta ekonomiaren multzo osoaren kasuan negatiboak dira, baina kasu honetan ia zero dira.

Estatuan, bestalde, azken lau urteotan nolabaiteko egonkortasuna egon da, hazkunde errealeko tasa negatiboekin eta Oitk hurbilekoekin (2007an %-0,5); industriak (bera ere emaitza negatiboekin), berriz, badiurdi zero hazkundetik hurrentzeko joera duela (2007an %-3,5, aurreko urtean baino bi puntu gutxiago).

Europar Batasunean, beste alde batetik, LKU errealek, lanpostu bakoitzeko soldatapekoen ordainketan oinarrituz kalkulatuta, %0,8ko murriztapena izan dute 2007an, EAE-ren eta Estatuaren antzean (EAEko ez daukagu 2007ko


III.6.5. GRAFIKOA. LANEKO KOSTU UNITARIO ERREALAK: URTEKO ALDAKETA, SOLDATAPEKOEN ORDAINKETAN OINARRITUZ KALKULATUTA

Iturria: EUSTATen, INEren eta EUROSTATen oinarrituz landuta.

⁹ Laneko Kostu Unitario (LKU) korronea Soldatapeko bakoitzeko Laneko Kostuaren (6.2.1 atala) eta Landun bakoitzeko produktibitatearen (6.2.2 atala) arteko ratioa da LKU erreala zatidura horixe da, "prezioen efektua" kenduta, deflaktatzailea aplikatuz. Epigrafe honetan adierazle horien urteko aldaketa aztertzen da, Estatuko eta Europako adierazleekin konparatuta.

III.6.9. Koadroa. LANEKO KOSTU UNITARIOAK: URTEKO ALDAKETA								
	LANEKO KOSTUEN ALDAKETA		PRODUKTIBIT. ALDAKETA		LKU KORRONTEEN ALDAKETA		LKE ERREALEN ALDAKETA	
	2006	2007	2006	2007	2006	2007	2006	2007
GUZTIRA	2,3	4,7	1,9	1,5	0,4	3,2	-3,0	-0,1
INDUSTRIA	2,9	4,3	5,5	3,1	-2,6	1,2	-5,0	-2,7
ERAIKUNTZA	4,6	6,8	1,3	1,8	3,3	5,0	-1,4	0,2
ZERBITZUAK	2,2	4,7	0,5	0,4	1,7	4,3	-1,7	1,3

Iturria: EUSTATen eta INEren datuetan oinarrituz landuta.



datua). 2007ko datua, izan ere, soldatapekoen ordainketak produktibitateak baino hazkunde txikiagoa (hazkunde nominala) izatearen ondoriozkoa da.

6.3. Errentak


6.3.1. Errenten banaketa faktoriala

Gure ekonomian sorturiko balio erantsia, lehenengo eta behin, berori sortzen lagundu duten produkzio-fakto-

reen artean banatzen da: soldatapeko lanaren ordainketa, soldatapekoa ez den lanerako nahiz kapitalerako ustiapen-soberakin garbia, produkzio-ekipamenduaren balio-galtzearen (urte osokoa) balioari loturiko Kapital Finkoaren Kontsumoa eta, azkenik, produkzioari zein inportazioari lotutako zergak (diru-laguntzen garbiak), herri-administrazioari dagozkionak. Bigarrenaz, errenta hori pertsonen eta familien artean banatzen da, horiek halako produkzio-faktoreen jabetzan duten partaidetzaren eta jasotako errenten arabera.

Produktuaren banaketa funtzionalari dagokionez, erreferentziatzat 2006ko prezio korronteko BPGren hazkunde hartuta (%7,8) ikusten denaren arabera, zerga garbiek 2,6 puntuko hazkunde izan dute, hau da, horien urteko batez bes-

III.6.7. GRAFIKOA. ERRENTAREN BILAKAERA EAE-N. URTE B. BESTERAKO ALDAKETAREN TASA



Iturria: EUSTAT. CET.


346

III.6.10. KOADROA. ERRENTAREN BANAKETA EAE-N, ESTATUAN ETA EUROAREN ZONAN

	Euroak milioitan				% bertikala			Urteko ald. %		
	2003	2004	2005	2006	2004	2005	2006	03-04	04-05	05-06
EAE										
Soldatapekoen ordainketa	24.170	26.069	27.915	29.813	48,9	48,7	48,3	7,9	7,1	6,8
Ustiapenaren soberakin garbia	15.480	16.675	17.902	19.301	31,3	31,2	31,2	7,7	7,4	7,8
Kapital finkoaren kontsumoa	4.466	4.859	5.170	5.692	9,1	9,0	9,2	8,8	6,4	10,1
Diru-laguntzen zerga garbiak	5.125	5.703	6.302	6.958	10,7	11,0	11,3	11,3	10,5	10,4
BPG merkatuko prezioetan	49.242	53.305	57.289	61.764	100,0	100,0	100,0	8,3	7,5	7,8
ESTATUA										
Soldatapekoen ordainketa	378.561	401.102	427.402	456.059	47,7	47,0	46,5	6,0	6,6	6,7
Ustiapenaren sob. gordina / Errenta misto gordina	325.728	352.121	381.903	415.644	41,9	42,0	42,4	8,1	8,5	8,8
Diru-laguntzen zerga garbiak	78.640	87.819	99.145	109.251	10,4	10,9	11,1	11,7	12,9	10,2
BPG merkatuko prezioetan	782.929	841.042	908.450	980.954	100,0	100,0	100,0	7,4	8,0	8,0
EUROAREN ZONA										
Soldatapekoen ordainketa	3.644.262	3.748.831	3.850.233	4.015.772	48,4	48,0	47,6	2,9	2,7	4,3
Ustiapenaren sob. gordina / Errenta misto gordina	2.944.884	3.088.336	3.199.072	3.382.569	39,8	39,9	40,1	4,9	3,6	5,7
Diru-laguntzen zerga garbiak	867.510	915.648	965.238	1.045.962	11,8	12,0	12,4	5,5	5,4	8,4
BPG merkatuko prezioetan	7.456.656	7.752.815	8.014.543	8.444.302	100,0	100,0	100,0	4,0	3,4	5,4

Iturria: Eustat "Kontu Ekonomikoak (oinarria 2000)", INE "Espainiako Kontabilitate Nazionalea. Oinarria 2000" eta Eurostat.

III.6.8. GRAFIKOA. FAKTOREEN ERRENTEN BANAKETA EAE-N



Iturria: EUSTAT: Hiruhileko Kontu Ekonomikoak.

tekoa %10,4 izan da, eta soldapekoen errenta batez bestekotik behera hazi da (%6,8); azkenik, kapital finkoko kontsumoaren eta ustiapenaren soberakin garbiaren arteko batuketa batez bestekoa baino puntu erdi gehiago hazi da (%8,3).

Horrela, soldapeko laneko errentak BPGren %48,3 dira, aurreko urtean baino lau hamarren gutxiago; ustiapeneko soberakin garbia %31,2 da (ez da aldatu BPGrekiko ehunekoa), eta kapital finkoaren azken kontsumoa %9,2, aurreko urtean baino bi hamarren gehiago. Produktzioaren eta inportazioaren zergek (produktzio-sektoreei emandako diru-laguntzak alde batera utzita) berriro ere handitu egin dute BPGrekiko proportzioa, eta %11,3ra heldu dira, aurreko urtean baino hiru hamarren gehiago.

Errenten oraintsuko bilakaera hori Estatukoarekin konparatuta ikusten denez, 2006an soldaten errentek hamarren bat gehiago baino ez dira hazi EAEn, eta ustiapeneko soberakinaren eta errenta mistoaren arteko batuketa Estatuan baino puntu erdi gutxiago hazi da EAEn. Diru-laguntzen zerga garbiei dagokienez, BPGrekiko proportzioak antzekoak dira (EAEn %11,3 eta Estatuan %11,1), baita 2005arekiko aldaketa-tasak ere.

EDBren datuei dagokienez, aztertutako faktoreen hazkunde-tasak EAEkoak eta Estatukoak baino txikiagoak dira, euroaren zonan BPG gutxiago hazten ari baita (2006an %5,4 eta EAEn %7,8). EAEn kasuan bezala, neurri txikiagoan izan arren, azken hirurtekoan soldapekoen ordainketan hazkunde egonkorra ikusten da (azken urtean

%4,3 eta, beraz, BPGrekiko partaidetza bi puntutan hazi da); ustiapenaren soberakin garbiaren eta zergapetzearen kasuan gauza bera gertatu da, horiek batez bestekotik gorako hazkundea izan baitute, EAEn bezala.

6.3.2. Per capita errenta

Lehenengo eta behin, INEk urtero egiten duen "Espainiako Autonomia Kontabilitatea" deritzonak Etxeetako Errentaren kontuak jakiteko aukera ematen du, autonomia-erkidegoetan eta probintzietan, bai kontu gehituak eta bai per capita kontuak. Horrela, 2005ari buruzko azken datu erabilgarriek agerian jarri dutenez, EAEko etxeetako errenta (36.000 milioi euro) Estatuko gehituaren %6,2 da, eta, gainera, aurreko urtekoa baino %7,2 handiagoa da. Hazkunde hori batez bestekoa baino apur bat txikiagoa izan zen, eta, hortaz, partaidetza hori, 2005ean, aurreko urtean bano sei hamarren txikiagoa izan zen.

Halaber, EAEko etxeetan egon zen biztanle bakoitzeko errenta gordinik handiena 17.066 eurokoa izan zen, Estatuko batez bestekoa baino ia %28 handiagoa (13.384€). EAEn atzetik Nafarroa, Madril eta Katalunia daude, ordena horrexetan. Lurraldeka, per capita errenta gordin erabilgarririk handiena Arabako eta Gipuzkoako etxeetan dago (Estatuko batez bestekoa baino %30 gehiago); Bizkaiko ehunekoa Estatuko batez bestekoa baino %25 handiagoa da, eta hirugarren postuan dago, Nafarroako Foru Erkidegoarekin batera. Bilakaeraren aldetik, EAEn biztanle

III.6.11. Koadroa. PER CAPITA BPG (EAP), HERRIA-REN ETA URTEAREN ARABERA (EB 27=100)			
	2005	2006	2007
EB 27	100,0	100,0	100,0
Alemania	115,1	114,1	114,4
Austria	128,7	127,5	128,3
Belgika	121,1	119,8	119,9
Bulgaria	35,3	36,7	38,2
Zipre	92,6	91,9	92,5
Danimarka	126,6	125,7	124,6
Eslovakia	60,5	63,7	67,6
Eslovenia	86,8	87,8	91,4
Espainia	102,9	104,9	104,5
Estonia	62,9	68,4	72,3
Finlandia	115,1	116,9	118,7
Frantzia	111,9	110,9	109,7
Grezia	96,1	97,3	98,4
Holanda	131,1	130,5	131,6
Hungaria	64,2	64,8	64,0
Irlanda	143,7	145,4	146,2
Italia	105,1	103,3	101,4
Letonia	49,9	53,7	57,0
Lituania	53,2	56,1	60,0
Luxenburg	264,2	279,1	284,1
Malta	77,3	76,9	77,3
Polonia	51,2	52,4	54,6
Portugal	75,4	74,5	73,9
Erresuma B.	119,2	117,9	118,3
Txekiar Errep.	76,6	78,6	81,1
Errumania	35,4	38,8	41,5
Suedia	123,7	124,6	123,9
EAE	130,8	136,0	137,4

Iturriak: EUROSTAT eta EUSTAT.


bakoitzeko errenta gordinak %6,7ko hazkundera izan du azken urtean, eta Estatuko batez bestekoa %5,7 izan da.

Bestalde, EUROSTATEk, erosteko ahalmenaren pare-kotasuneko (EAP) per capita BPGko estatistiketan oinarrituz, aukera ematen du EAEk Europar Batasuneko eta horren barruko herrien nahiz eskualdeen multzoko batez bestekoari dagokionez duen posizio erlatiboa jakiteko. Biztanle bakoitzeko BPGk korrelazio positiboa dauka herri bateko biztanleen bizi-kalitatearekin; horrenbestez, errentaren antzeko banaketa egonez gero, adierazle hori zenbat eta altuagoa izan, herri batek hainbat eta ongizate maila handiagoa izango du.

2007an, eta EBko batez bestekoari dagokionez, EAEk %137,4 per capita BPG dauka, EUSTATEk egindako datu-aurrerapen baten arabera; hortaz, indizeak hazkundera izan du hamairugarren aldiz jarraian, 1995ean EBko batez bestekoarekiko %109,6ko balioa izan zuenetik. 2007an izandako balioarekin, EAE Batasuneko hirugarren postuan dago, Luxenburgoren eta Irlandaren atzetik.

Azkenik, INEk argitaraturiko azken datuen arabera, EAE Estatuko lehenengo erkidegoa da biztanle bakoitzeko BPGren arloan, 30.500€-rekin (Estatuko batez bestekoa 23.300 eta EB-27koa 24.700ekoa).

Urte honetan, azken hilabeteotan ekonomia dezele-ratu egin arren, per capita BPGk luzatu egin du bere hazkunde-bide azeleratua. Estatuan, hazkunderik handiena EAEn egon da (biztanleko 30.599€), eta gero Madril-en (29.965€), Nafarroan (29.483) eta Katalunian (27.445), guz-tiak Estatuko batez bestekoaren (23.396€) gainetik.



Fuente: EUSTAT y EUROSTAT

III.6.12. KOADROA. ETXEETAKO ERRENTA GORDIN ERABILGARRIA (PER CAPITA). BEHIN-BEHINEKO DATUAK

	Errenta gordin erabilgarria (per capita)			Errenta gordin erabilgarria (per capita)		
	2004(P)			2005(P)		
	Balioa (euroak)	Indizea	Aldaketa 2004/2003	Balioa (euroak)	Indizea	Aldaketa 2005/2004
ANDALUZIA	10.144	80,1	5,5%	10.798	80,7	6,4%
ARAGOI	13.758	108,7	4,8%	14.563	108,8	5,9%
ASTURIAS	12.351	97,6	6,8%	13.376	99,9	8,3%
BALEARRAK	14.252	112,6	5,1%	14.743	110,2	3,4%
KANARIAK	11.437	90,4	4,0%	11.936	89,2	4,4%
KANTABRIA	13.020	102,9	6,1%	14.012	104,7	7,6%
GAZTELA ETA LEON	12.613	99,7	6,2%	13.470	100,6	6,8%
GAZTELA-MANTXA	10.647	84,1	4,1%	11.142	83,2	4,6%
KATALUNIA	14.471	114,3	5,5%	15.269	114,1	5,5%
VALENTZIAKO ERK.	11.799	93,2	3,9%	12.306	91,9	4,3%
EXTREMADURA	9.560	75,5	5,8%	10.327	77,2	8,0%
GALIZIA	11.185	88,4	6,4%	11.944	89,2	6,8%
MADRIL	15.272	120,7	6,0%	16.074	120,1	5,3%
MURTZIA	10.409	82,2	3,5%	11.048	82,5	6,1%
NAFARROA	15.954	126,0	6,4%	16.858	126,0	5,7%
EAE	15.988	126,3	6,4%	17.066	127,5	6,7%
Araba	16.358	129,2	5,9%	17.507	130,8	7,0%
Gipuzkoa	16.340	129,1	6,9%	17.447	130,4	6,8%
Bizkaia	15.678	123,9	6,3%	16.720	124,9	6,6%
ERRIOXA	14.088	111,3	4,50%	14.532	108,6	3,2%
CEUTA	12.242	96,7	8,10%	13.314	99,5	8,8%
MELILLA	12.255	96,8	9,5%	13.208	98,7	7,8%
ESTATUA	12.657	100,0	5,5%	13.384	100,0	5,7%

Iturria: INE. Espainiako Autonomia Kontabilitatea. Oinarria 2000.



4

bizi-kalitatea EAEn

1

Talde interesgarri batzuen bizi baldintzak


352

Aldaketa demografikoak gure gizartea modelatzen ari dira, eta, dirudienez, aldaketa horiek gero eta azkarragoak izango dira 2020tik aurrera: gero eta gazte eta heldu gutxiago egongo da, eta adineko langileak, jubilatuek eta zaharrak gero eta gehiago izango dira. Europar Batasunak horri buruz adierazitakoaren arabera¹, bide berriak bilatu behar dira belaunaldi gazteen eta adineko biztanleen hazkunde-ahalmena balioztatzeko. 2007ko Memoria Sozioekonomikoaren edizio honetako talde zaurgarrien bizi-baldintzei buruzko kapituluan, bi talde horiek aztertzen dira, batez ere.

Lehenengo eta behin, haurrek eta gazteek eurenak baino ugariagoak diren belaunaldien txanda hartu beharko dute. Euren heziketa maila, izan ere, nagusia baino hobea da, eta, beraz, esan daiteke produktibitate eta egokitzapen-gaitasun handiagoa izango dutela. Hala eta guztiz ere, gazteria baliabide urria izan daiteke, nahiko baloratzen ez den eta integrazioarako zailtasun handiak dituen baliabidea.

Bestalde, bizi-itxaropena gero eta handiagoa izatearen ondorioz, gure gizartean adineko pertsonen kopuruak gorakada handia izan du (65 urteko muga tradizionala aintzat hartuta), gehienbat adin oso handiko pertsonen kopuruak (80 urtetik gorakoak). Egindako aurreikuspenaren

IV.1.1. GRAFIKOA. ADIN ERTAINAREN ETA BATEZ BESTEKO ADINAREN BILAKAERA ESTATUAN. 1900-2020



Iturria: "Aspectos salariales de los jóvenes trabajadores". Hidalgo Vega eta López Camarero. INJUVE, 2005. INEn oinarrituz eginda.

arabera, bakarrik biziko diren adineko pertsonen kopurua hazi egingo da, batez ere emakumeen artean, emakume alargun gehiago baitago, bi sexuen arteko bizi-luzetasun desberdinen ondorioz.

Hala ere, adineko pertsonak inoiz baino aktiboagoak dira lanean, familian eta gizartean. Herri aurreratu askotan, 65 urteko (edo lehenagoko) erretiroa ohikoa da. Aspaldion, gero eta sarriago entzuten da erretiroko adina atzeratu egin behar dela, gizarte-gastuaren hazkunde gero eta handiagoari aurre egin ahal izateko, batez ere, pentsioei erantzun egokia emateko, baita langile "senior"

¹ "Aldaketa demografikoen aurrean, belaunaldien arteko elkartasun berria" Liburu Berdea, Europako Erkidegoen Batzordea, COM (2005) 94 azkena. Brusela, 05.03.16.

horietan egindako inbertsioari onura eraginkorragoa atera ahal izateko ere. Dena den, agintariek badakite joera horrek hausnarketa sakona behar duela eta neurriak hartu behar direla, bai enpresetan eta bai maila nazionalean nahiz nazioartekoan.

Gainera, enpresak gero eta errenta maila altuagoak dituzten biztanle-segmentu helduen kontsumo-gaitasuna aintzat hartzen hasi dira. Horri, anglosaxoien munduan, *“silver economy”* esaten diote: etxebizitza eta seme-alaben heziketa ordaindu ondoren errenta erabilgarri handia eta, garrantzitsuen, dirua aisialdian, etxebizitzan, osasunean eta halakoetan gastatzeko gogoia zein astia duen pertsona taldea.

1.1. Gazteak

Oraingo gizartean, era anitzeko egoerak egon arren, gazteek balioak eta helburuak partekatzen dituzte, baita zailtasunak ere. Pertsona horiek etengabe aldatzen ari den taldea osatzen dute: lana aurkitzen eta familia sortzen inoizkorik beranduen hasten dira; lan- eta ikasketa-aldiak txandakatzen dituzte, eta, batik bat, euren ibilbide pertsonalak iraganezko gazteenak baino askoz ere anitzagoak dira. Eskolak edo unibertsitateak, lanak eta gizarte-inguruak dagoeneko ez dute antzinako integrazio-funtzio bera. Gainera, gero eta beranduago indpendizatzen dira.

Gazteen taldeak bilakaera izan du ezaugarri soziologikoetan, ekonomikoetan eta kulturaletan, oraingo aldaketa demografikoen ondorioz, baina baita gizartean, banakako nahiz taldeko jokabideetan, familia-harremantetan eta lan-merkatuko baldintzetan izan diren aldaketen ondorioz ere. Mendeabaldeko gizarteetako gazteen taldearen inguruan hiru fenomeno bereizgarri daude:

1. Gaztetasuna luzatzea: demografoek diotenez, faktore ekonomikoen eta soziokulturalen presioaren

eraginez, gazteek adin nagusiagoan zeharkatzen dituzte bizitzako etapak: ikasketak amaitzea, lana lortzea, familia sortzea, etab.

2. Linealak ez diren bizi-ibilbideak: gaur egun, “bizitzako fasean gainjarri egiten dira”²: ikaslea, familiako arduraduna, langilea edo enplegu-eskatzailea izan daiteke aldi berean, edo gurasoekin ere bizi daiteke; hain zuzen ere, gero eta ohikoagoa da egoera desberdin horiek txandakatzea.
3. Talde-eredu tradizionalak garrantzia galdu dute, gero eta indibidualizatuagoak diren ibilbide pertsonalen mesedetan. Pertsona bakoitzaren egutegia (familia, ezkontza eta lanbidea) dagoeneko ez da antolatzen ohiko ereduaren arabera, eta horrek eragin handia dauka politika publikoetan.

Herri aurreratuetakoa gizarte- eta demografia-fenomenorik ohikoena, lehen esan dugunez, biztanleria zahartzea izan da azken hamarkadotan; horren eraginez, biztanleriaren adin-piramidea zabaldu egin da goialdean, eta gazteei dagokien adin taldearen garrantzi erlatiboa urritu egin da. Orain dela ehun urte, biztanleriaren erdia 24 urtetik beherakoa zen (adin ertaina), eta batez besteko adina 28 urtekoa zen. Gaur egun, hala eta guztiz ere, EAEko biztanleriaren batez besteko adina 40 urtekoa da³.

Biztanleria gaztearen garrantzia galtzea Europar Batasun osoko prozesua izan da, baina Estatuan eta EAEn prozesu hori beste herri batzuetan baino nabarmenagoa izan da. Azken hamabi urteotan, 15-29 urte bitarteko taldearen garrantzi erlatiboa %21,8tik %19,5era igaro da EB-27an, %23,3tik %20ra Estatuan eta %24,7tik %17,9ra EAEn; tasa horrek, gaur egun, 380.000 pertsona baino gehixeago dituen taldea adierazten du. Hain zuzen ere, azken bi urteotan, talde horrek 20.000 pertsona galdu ditu; horrela, Europako biztanleria gazteak Europan hamarren bat galdu du (%19,6tik %19,5era igaro da 2004-2006ko aldian), eta EAEn, berriz, ehuneko 1,6 puntu galdu ditu.

Horrenbestez, non daude gazteak Europan? Europako gazteriari ekarpenik handiena egiten duten herriak, jakina, biztanle kopururik handiena dutenak dira. Alemaniak,

² “Jeunesse, le devoir d’avenir”, Commissariat Général du Plan, 2001. EUROPAKO BATZORDEA.

³ Hori dela eta (besteak beste), gazteen adina gaur egun 30 urtera arte (edo 35era arte) doala jotzen da, eta orain arteko banaketa zaharkituta gelditu da, gazteen taldea 16 eta 25 urte bitarteko pertsonen osatzen zutela zioena. Hala eta guztiz ere, irizpide hori oraindik ere indarrean dago aldagai batzuetan, esate baterako, gazteen enpleguaren adierazleei buruzko aldagaia. Kapitulua honetan, beraz, adin-zerrenden gaia malgutasunez aztertuko dugu, datuen erabilgarritasunaren arabera.

IV.1.1 Koadroa. 15 eta 29 urte bitarteko gazteak EB-n. 2006

	Biztanleria 2006	15 eta 29 urtekoak	EB27ko gazt. %	Herriko bizt. %
EB27	494.051.868	96.448.471	100,0	19,5
BELGIKA	10.547.958	1.948.216	2,0	18,5
BULGARIA	7.699.020	1.606.836	1,7	20,9
TXEKIAR ERREP.	10.269.134	2.195.522	2,3	21,4
DANIMARA	5.437.272	940.950	1,0	17,3
ALEMANIA	82.376.451	14.535.719	15,1	17,6
ESTONIA	1.343.547	304.116	0,3	22,6
IRLANDA	4.261.827	1.025.291	1,1	24,1
GREZIA	11.148.460	2.150.298	2,2	19,3
ESPAINIA	44.116.441	8.841.441	9,2	20,0
FRANTZIA	63.195.457	12.144.123	12,6	19,2
ITALIA	58.941.499	9.813.475	10,2	16,6
ZIPRE	772.549	184.540	0,2	23,9
LITUANIA	2.287.948	519.037	0,5	22,7
LETONIA	3.394.082	757.793	0,8	22,3
LUXENBURGO	472.637	87.233	0,1	18,5
HUNGARIA	10.071.370	2.097.238	2,2	20,8
MALTA	406.408	88.005	0,1	21,7
HOLANDA	16.346.101	2.950.831	3,1	18,1
AUSTRIA	8.282.424	1.544.698	1,6	18,7
POLONIA	38.141.267	9.243.078	9,6	24,2
PORTUGAL	10.584.344	2.081.067	2,2	19,7
ERRUMANIA	21.587.666	5.029.382	5,2	23,3
ESLOVENIA	2.006.868	411.748	0,4	20,5
ESLOVAKIA	5.391.409	1.318.891	1,4	24,5
FINLANDIA	5.266.268	987.186	1,0	18,7
SUEDIA	9.080.505	1.689.372	1,8	18,6
ERRESUMA B.	60.622.964	11.952.400	12,4	19,7
EAE (31-12-05)	2.140.908	383.304	0,4	17,9

Iturria: EUROSTATen eta EUSTATen oinarrituz landuta.

Frantziak, Erresuma Batuak, Italiak, Poloniak eta Espainiak EB-27ko ia 96,5 milioi gazteen %69 biltzen dituzte. Baina, beste alde batetik, herri bakoitzeko gazteria-tasak aztertuta ikusten denez, iparraldeko herri horiek gazteen batez besteko kopurutik behera daude (Poloniaren kasuan izan ezik), eta gazteen ehunekorik handiena Europa iparraldeko eta ekialdeko herriek dute. Bestalde, EAEko 383.304 gazteak Europar Batasuneko gazteriaren %0,4 dira (Lituaniaren, Estoniaren edo Esloveniaren antzeko ehunekoa). Talde horrek EAEko biztanleria osoan duen

ehunekoa %17,9koa da, EB-27koa baino askoz ere txikiagoa, eta Holandakoaren edo Alemaniakoaren antzekoa.

Datu horiek Estatuko beste autonomia-erkidego batzuetako datuekin konparatuta ikusten denez, EAEk gazte-ehunekorik txikiena dauka, Asturiasen atzetik (%17,7). Ehunekorik handieneko erkidegoak Andaluzia eta Murtzia dira, %22,1eko eta %22,9ko tasekin, hurrenez hurren.

2007ko datuen arabera, EAEn 15-19 urte bitarteko gazte kopurua 365.419koa da, hau da, EAEko biztanleria osoaren %17,1, INEk emandako datuak aintzat hartuta. Urtebeteen, horrenbestez, talde horrek 8 hamarren galdu ditu. Taldeka, 15-19 urte bitartekoak %24,3 dira, 20-24 urte bitartekoak %32, eta 25-29 urte bitartekoak %44. Lurraldeka, Araban 15-19 urte bitarteko gazteak %18 dira, Bizkaian %17,1 eta Gipuzkoan %16,6.

1.1.1. Jarrerak eta balioak

Lehenengo eta behin, Eusko Jaurlaritzako Soziologia Prospekzioko Kabinetearen "Gazteria Erretratuak 11" txostenean (2008an argitaratuta), EAEko gazteei 2007an egindako hiru inkestari buruzko informazioa dago; bertan esaten denez, gazteek, orokorrean, balorazio positiboa egiten dute EAEko ekonomia- eta gizarte-egoerari buruz, baina ez egoera politikoari buruz. Egoera ekonomikoari dagokionez, %72k iritzi positiboa dute (egoera "ona" edo "oso ona"), eta ehuneko hori aurreko urtekoa baino bi puntu handiagoa da, eta 9 puntu handiagoa, 2002koarekin konparatuta.


Halaber, EAEko gazteriaren %64ren iritziz, Euskal Autonomia Erkidegoko oraingo gizarte-egoera ona edo oso ona da. Ehuneko hori murriztu egin da 2006koari

dagokionez; hala ere, 2002ko datua aintzat hartuta ez da murriztu, azken urte horretan gazteen %45ek esan baitzuten hori. Aldiz, EAEko egoera politikoari buruzko iritzia aztertuta ikusten denez, gazteek horri buruzko balorazio negatiboa dute, orokorrean; izan ere, inkestatuen %23k soilik esan dute egoera politikoa ona edo oso ona dela (2006ko ehuneko %52).


Gure gizarteko arazo nagusien inguruan eman duten erantzunen arabera, arazo nagusiak etxebizitza (%66) eta lan-merkatuko egoera (%48) dira, eta, gero, indarkeria edo bakerik eza (%34) eta egoera politikoa (%23). 2006ko datuei dagokionez, etxebizitza mantendu egin da arazo nagusitzat, eta, gainera, hazi egin da hori hautatu duen gazte kopurua (2006an %60).

Arazo pertsonal nagusien arloan, EAEko gazteek honako hauek aipatu dituzte: lana (langabezia, lan-baldintzak; %44) eta etxebizitza (%37); ondoren, baina aurrekoetatik urrun, ikasketak (%16) edo diru-arazoak (erantzunen %13). Datu horiek 2000ko erantzunekin konparatuta ikusten denez, lana eta etxebizitza mantendu egin dira arazo nagusitzat; lanaren ehuneko murriztu egin da (urte horretan %64), eta, aldiz, etxebizitzak gero eta protagonismo handiagoa dauka (2000n %31, eta harrezkero etengabeko hazkundea, 2006-2007 aldian izan ezik).

IV.1.2. GRAFIKOA. GAZTEEK EAE-N DUTEN EGOERAREN BALORAZIOA: "ONA" ETA "OSO ONA" BALORAZIOEN BATUKETA. GUZTIZKOAREN EHUNEKOA.




Iturria: "Retratos de Juventud 11". EUSKO JAURLARITZA

IV.1.3. GRAFIKOA. EAE-KO GAZTEAK: ARAZO PERTSONAL NAGUSIAK*. DATUAK %-TAN

(*) Hiru arazo aipatzeko aukera.

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. "Retratos de Juventud" (10 eta 11).

356

IV.1.4. GRAFIKOA. EAE-KO GAZTEAK: GIZARTE GAI BATZUEKIKO JARRERA. ADOS DAGOEN EHUNEKOA. 2007.

Iturria: "Retratos de Juventud 11". EUSKO JAURLARITZA.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzaren txostenak agerian jarri duenez, gizarte-gai batzuekiko jarrerari buruz galdetu zaienean, gazteen %90 ados daude homosexualen arteko ezkontzekin (30 urtetik gorakoen ehunekoa %75), eta %84k uste dute bikote homosexualek egindako haur-adopzioa Europa osoan baimendu beharko litzatekeela (30 urtetik gorakoen ehunekoa %62). Gazteen artean,

emakumeak gizonak baino apur bat aldekoagoak dira, eskubide horiek onartzeari dagokionez, eta, gainera, ikasketa mailan gora egin ahala, joera hori gero eta handiagoa da.

Halaber, gazteen %62k uste dute immigranteek ekarpen handia egiten dutela EAEn, eta %29k aurkako

iritzia dute. Helduen taldeari dagokionez, ehunekoak %56 eta %35 dira, hurrenez hurren. Gainera, elkarriketaturiko 15-19 urte bitarteko pertsonen %70en iritziz, delitugileak gogor zigortu beharko lirateke; 30 urtetik gorakoen artean ehunekoak %77 da.

Azkenik, gazteen %59ren ustez (30 urtetik gorakoen %67), "berdintasun eta justizia handiagoa behar ditugu, horrek banakako askatasun urriagoa eragin arren". Balorazio horretan, ikasketa mailak eragina dauka, ikasketa maila zenbat eta handiagoa izan erantzun positiboa hainbat eta handiagoa baita.

Gazteek euren etorkizuna ikusteko moduari dagokionez, EAEko Gazte Behatokiaren "Gazteen joerak 2005" ikerketan agerian jarri denez, inkestaturiko gazteen erdiek esan dute ez dutela etorkizuna planifikatuta (%45,4), eta, beraz, ez dakite seguru etorkizunean zertan egingo duten lan (%52,6). Lan-etorkizunari buruzko ziurgabetasun horrek eragin handiagoa dauka gazteen artean; izan ere, gazteok heziketa-etapan daude, eta, horrenbestez, oraindik ez dute euren lanbide-etorkizuna aukeratu; ziurgabetasun hori lanean ari direnen artean ere ikusi da, aintzat hartuta erdiek baino gehiagok ez dakitela etorkizunean zertan lan egingo duten.

Bestalde, gazteak oso baikorrak dira euren etorkizun pertsonalari buruz (%80,2), eta etorkizunerako planei buruz mintzatzen dira familiarekin (%50,9), lagunekin (%21,5)


eta bikoteekin (%15,9). Plan horiei buruz irakasleekin mintzatzen direnak %0,6 baino ez dira. Munduaren etorkizun orokorrari dagokionez, %27,2 baikorrak dira, baina baikortasun hori murriztu egiten da adinean gora egin ahala. Halaber, 0etik 10erako eskala batean, EAEko gazteek oso ondo batekin (7,54 puntu) baloratzen dute euren bizi-kalitatea. Bizitzako alderdi garrantzitsutzat, osasuna (9,23) eta familia (9,13) aipatu dituzte gehienbat, eta, gero, lagunak (8,81), maitasuna (8,73), sexua (7,99), lana (7,83) eta ikasketak (7,47).

1.1.2. Lan-mundua

Gazteek lan-munduarekin duten lotura, urte batzuetatik hona, konplexua eta arazotsua da: lehenengo lana lortzeko borroka, lan baten edo batzuen bilaketa (kontratuak aldi baterakoak izatearen ondorioz), ikasketak eta lana partekatze erabakia, etab. Izatez lan-jardueratik kanpokoak diren elementu horiek erabakigarriak dira gazteen eta lan-munduaren arteko elkarreaginean.

Herri guztietako arazo nagusienetarikoa bat gazteen langabezia da, herriaren garapen maila edozein izan arren. Oro har, langabezia dagoen pertsona heldu bakoitzeko bi gazte daude lanik gabe. Egoera horren ondorioak oso ezagunak dira, ordaindutako enplegua gizarteratzeko eta autoestimurako elementu nagusienetarikoa baita gaur egun ere.


IV.1.5. GRAFIKOA. GAZTEEN LANGABEZIA-TASAREN BILAKAERA



Iturriak: EUSTAT eta EUROSTAT.

Oharra: EAErako datuak urteko batez bestekoak dira, eta EBrakoak eta Espainiarakoak, berriz, urte bakoitzeko bigarren hiruhilekokoak dira.

IV.1.6. GRAFIKOA. LANGABEZIA-TASAREN BILAKAERA, ADIN TALDEEN ARABERA



Iturria: Eustat. BJA

Nolanahi ere, eta 1993tik hona gertatu den bezala (2003ko gorakadaxoa kenduta), gazteen langabezia-tasak (25 urtetik beherako gazteak) berriro ere murriztu egin dira 2007an. 90eko hamarkadan gazteen langabezia mailak %50etik gorakoak ziren, eta horrek ez dauka zerikusirik oraingo mailekin. EUSTATEN datuen arabera, 2007an 25 urtetik beherako langabezia-tasa %7,6koa izan zen, eta aurreko urtean %8,1ekoa. Guztiarekin ere, langabezia mailarik handienak gazteen taldeak ditu, adinen arabera serietan ikusten denez. Ondoren, goiko taldea dago, hain zuzen ere, 25 eta 34 urte bitarteko pertsonen taldea; azken talde hori, ikerketa soziologiko askok diotenez, orain gazteriatzat (zentzu zabalean) ulertzen denaren barruan egongo litzateke.

Bestalde Lan eta Immigrazio Ministerioko "Espainiako Enpleguko Gazte Behatokia" (OBJOVEM) deritzonak autonomia-erkidegoko jarraipena egiten du, 15-29 urte bitarteko gazteen taldearen lan-egoerari buruz. 2007ko laugarren hiruhilekoari buruzko txostenean esaten denez, lehenengo eta behin, EAEn Estatuko batez bestekotik beherako jardura-tasak daude, eta bertako ezaugarri bereizgarri nagusia langabezia-tasa txikiak edukitzea da. Horrela, aztertutako aldian, langabeziak 30 urtetik

beherako gizonen %10,9an eta emakumeen %12,9an dauka eragina (gizon eta emakume gazteen artean langabezia tasa %11,8koa da).

Datu horiek Estatuko gainerako autonomia-erkidegoetakoekin konparatuta ikusten denez, lehenengo eta behin, gazteen jardura-tasa (biztanleria osoa aintzat hartuta gertatzen den bezala) Estatuko batez bestekoa baino nahiko baxuagoa da, baita autonomia-erkidegorik gehienetakoa baino baxuagoa ere. 2007ko laugarren hiruhilekoan, 30 urtetik beherako jardura-tasa %62,4 zen EAEn, eta Estatuko batez bestekoa lau puntu handiagoa izan zen.

Bigarrenez, kontratu mugagabea duten soldatapeko gazteen ehunekoa txikiagoa da EAEko gazteen artean. OBJOVEMen txostenak agerian jarri duenez, denboraz-kotasun-tasa %53,7koa izan da (mugagabea ez den lan-harreman guztiak aintzat hartuta), 2007ko laugarren hiruhilekoan, eta Estatuko batez bestekoa %51,5koa izan da. Hain zuzen ere, %9,1ek produkzioaren egoeraren arabera aldi baterako kontratua dute, %15,9k obra edo zerbitzuko kontratua, eta %20,4k aldi baterako beste kontratu motaren bat. Datu horiei, aldi baterako kontratu-

IV.1.2 KOADROA. BIZTANLERIA GAZTEA. JARDUERAREKIKO LOTURAREN ADIERAZLE NAGUSIAK. 2007KO 4. HIRUHILEKOA

	Jarduera tasa	Langab. tasa	Soldatape-koen %	Enpleguaren %, jarduera sektoreka			
				Nekazaritza	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak
ANDALUZIA	65,3	19,8	90,8	6,2	11,2	18,3	64,3
ARAGOI	68,8	8,8	92,7	3,4	22,2	16,6	57,8
ASTURIAS	61,4	13,0	94,1	2,4	17,6	13,4	66,6
BALEARRAK	68,5	14,4	91,9	1,9	6,6	22,7	68,8
KANARIAK	63,5	17,6	94,8	2,6	5,9	16,6	74,9
KANTABRIA	61,0	6,0	88,8	1,4	19,0	18,4	61,2
GAZTELA ETA LEON	61,6	12,1	90,0	2,8	18,1	18,4	60,7
GAZTELA-MANTXA	66,2	13,5	85,9	5,7	19,9	18,1	56,3
KATALUNIA	70,6	9,9	91,7	1,9	20,5	15,1	62,5
VALENTZIAKO E.	71,3	14,0	89,8	2,4	18,1	15,5	64,0
EXTREMADURA	61,4	22,3	86,2	6,9	13,4	14,8	64,9
GALIZIA	61,7	13,1	97,0	3,4	20,6	17,1	58,9
MADRIL	68,4	11,3	94,9	1,0	11,6	11,1	76,3
MURTZIA	68,2	12,5	91,7	9,3	13,9	22,7	54,1
NAFARROA	66,9	6,5	92,5	1,3	24,8	14,6	59,3
EAE	62,4	11,8	89,3	0,8	21,7	11,3	66,2
ERRIOXA	71,0	9,4	89,4	2,4	24,9	16,3	56,4
CEUTA ETA MELILLA	55,3	33,5	95,3	0,0	2,0	8,0	90,0
ESTATUA GUZTIRA	66,7	13,8	91,2	3,3	15,8	16,0	64,9

Iturria: OBJOVEM. Espainiako gazteen enplegu- eta lan-baldintzak. 04 zenb.

modalitatea ezagutzen ez omen duten %8,3 gehitu behar zaizkie⁴.

Orokorrean, gazteen taldean, kontratazio mugagabea handiagoa da Katalunian (%57,7) eta Madrilan (%56,9); ehunekorik txikiak, berriz, Ceutan eta Melillan (%34,2) eta Andaluzian (%38,6) daude. EAE Estatuko batez bestekoaren azpitik dago (ia hiru puntu beherago).

EAEko gazteen arteko denborazkotasun handiago hori EUSTATEk berretsi du, BJAREN bitartez. Urteko batez besteko tasak kontuan hartuta, aldi baterako kontratuak dituzten gazteen ehunekoa (kasu honetan 25 urtetik beherako gazteak) %60,6koa izan da 2007an (gizonen kasuan %59,3 eta emakumeen artean %62,4), eta hori azken urteotako ratorik baxuena da. Ratio horri, berriz, kontraturik gabeko lan-harremanak dituzten pertsona

⁴ Espainiako Gazteria Behatokiaren "Gazteak, 2006" txostenean adierazitakoaren arabera, gazteei ordaintzen zaizkien lehenengo enpleguetatik, ia bostetik bat (%19) kontraturik gabekoa da, eta egoera hori ohikoagoa da emakumeen artean..

IV.1.3 KOADROA. BIZTANLERIA GAZTEA. KONTRATU MOTA (%).2007ko 4. HIRUHILEKOA

	Zehaztu gabe	Aldi baterakoa			
		Produktz. egoera	Obra edo zerbitzua	B. batzuk	Ez daki
ANDALUZIA	38,6	9,4	22,8	19,3	9,9
ARAGOI	53,3	8,7	12,8	16,4	8,8
ASTURIAS	47,8	5,5	17,6	15,1	14,0
BALEARRAK	55,4	15,5	17,6	10,8	0,7
KANARIAK	45,4	19,2	17,0	11,2	7,2
KANTABRIA	48,8	4,8	22,9	14,7	8,8
GAZTELA ETA LEON	54,5	5,5	18,2	12,0	9,8
GAZTELA-MANTXA	51,0	8,0	16,7	14,6	9,7
KATALUNIA	57,7	14,0	16,4	11,1	0,8
VALENTZIAKO E.	46,8	10,6	13,5	21,1	8,0
EXTREMADURA	39,8	4,5	21,6	19,9	14,2
GALIZIA	47,4	5,7	15,7	13,6	17,6
MADRIL	56,9	5,5	17,4	12,0	8,2
MURTZIA	44,3	14,6	18,2	14,8	8,1
NAFARROA	49,1	7,7	17,1	20,2	5,9
EAE	46,3	9,1	15,9	20,4	8,3
ERRIOXA	52,5	4,0	16,3	15,1	12,1
CEUTA ETA MELILLA	34,2	10,9	20,8	17,0	17,1
ESTATUA GUZTIRA	49,5	9,8	17,6	15,3	7,8

Iturria: OBJOVEM. Espainiako gazteen enplegu- eta lan-baldintzak. 04 zenb.


gazteen ratioa gehitu behar zaio, eta azken hori %4koa da (mutilen kasuan %2,2 eta nesken artean %6,3). Grafikoan ikusten denez, "kontraturik gabe eta beste batzuk" kategoriako tasak nahiko antzekoak dira EAEko gazteentzat eta langile guztientzat; aldi baterako kontratuen tasak, berriz, askoz ere altuagoak dira gazteen artean. Gainera, gazteen eta biztanleria osoaren arteko distantzia hori nahiko egonkor mantendu da urteetan.

Bestalde, interesgarria da gazteen taldearen lan-baldintzak zein diren jakitea. Eusko Jaurlaritzak egindako "Euskadiko Gazteria 2004" ikerketan (aldagai horiek aztertu eta argitaratu egin den azken ikerketa) hiru alderdi aztertu ziren: gazteen lanaren egonkortasuna, lanaldia eta lanaren ezaugarriak. Lehenengo eta behin, inkesta egiteko unean edo lehenago lanean ari ziren gazteen taldearen barruan, %60k esan dute sei hilabetetik beherako lanen

bat izan dutela, %46k sei hilabetetik urtebetera bitarteko lanen bat izan dutela, eta %58k urtebetetik gorako lanen bat izan dutela. Azken enpleguan lan egindako aldia ikertuta ikusten denez, erdiak baino gehiagok (%55) esan dute orain dela urtebete baino gutxiago lortu dutela euren lana edo azken enpleguan urtebete baino aldi laburragoan egon direla. Horrela, 2004an ezegonkortasuna hazi egin zen, 2000ri zegokionez, azken urte horretan tasa %40koa izan baitzen. Aldiz, urtebetetik gorako lan-kontratuen kopurua murriztu egin zen: 2000an %60 ziren, eta 2004an %43 (urtebetetik hiru urtera bitartekoak %27 eta hiru urtetik gorakoak %16), guztizkoari dagokionez.


Halaber, gazteen enplegu-egoerari dagokionez, ikerketak agerian jarri duenaren arabera, urte horretan 30 urtetik beherako gazteen %43k ikasi baino ez zuten egiten, %38k lan baino ez, eta %14k bi jarduerak konbinatzen

IV.1.7. GRAFIKOA. GAZTERIA ETA APARTEKO ORDUAK. AUTONOMIA ERKIDEGOETAKO DATUAK. 2007ko 4. HIRUHILEKOA



Iturria: OBJOVEM. Espainiako gazteen enplegu- eta lan-baldintzak. 04 zenb.

IV.1.8. GRAFIKOA. ALDI BATERAKO KONTRATUEN ETA KONTRATURIK GABEKO LAN HARREMANEN EHUNEKOEN BILAKAERA, GAZTEEN ETA BIZTANLE GUZTIEN ARTEAN



Iturria: EUSTAT. BJA.

zituzten. Aipagarria da inkestaturiko gazteen ia %4 baino ez zegoela langabezian.

Hirugarrenez, EAEko gazteei euren lanpostuaren ezaugarriei buruz galdetu zaienean, lanean ari ziren edo lan egin zuten gazteek erantzun hauek eman zituzten, euren enpleguari buruz: oso edo nahiko interesgarriak (%60), trebakuntzakoak (%58), egonkorak (%54), etorkizun handikoak (%52) eta ondo ordaindutakoak (%51). Enplegu horiek estres gutxi sortzen zuten edo batere estresik ez (%62), arrisku urrikoak edo arrisku gabeak ziren (%84), baina oso edo nahiko errepikakorak ziren (%61). Hala eta guztiz ere, dirudienez, ez zeuden estuegi lotuta jasotako heziketa akademikoarekin (%56en ustez, euren lanak ez zuen zerikusi handirik edo batere zerikusirik ikasitakoarekin). Gainera, aldagai hauetan (beste batzuetan baino gehiago), elkarriketaturiko pertsonaren sexua faktore bereizgarria izan zen, emakumeek gizonek baino puntuazio handiagoa eman baitzieten oraingo edo lehengo lanen ezaugarri orokor hauei: trebakuntza urrikoak, interesgarriak, etorkizun onekoak, jasotako heziketarekin lotuak, egonkorak eta ondo ordaindutakoak.

Gazteen lan-baldintzei dagokienez, OBJOVEMek 2007ko laugarren hiruilekorako egin duen ikerketan agerian jarritakoaren arabera, EAEko gazteen %7,2k aparteko orduak egin zituzten erreferentziako aldian, eta Estatuko batez bestekoa %7,4koa zen. Ordaindu gabeko aparteko orduen batez besteko kopurua 7,4koa izan zen EAEn, eta Estatuan %8,5.


1.1.3. Etxebizitza eta bizikidetzat motak

Lanarekin batera, pertsonaren emantzipazio prozesuko elementu protagonista nagusienetarikoa bat etxebizitza da, eta, beraz, elementu horrek eragin handia dauka gazte-faseko azken etapetatik heldutasuna hasi arteko ibilbidean. Bi alderdi horiek (lana eta etxebizitza, ordena horrexetan) EAEko gazteen artean kezkarik eta ziurgabetasunik handiena sortzen duten bi elementuak dira.

Lehenengo etxebizitza erosteko dagoen laguntza publikoa (batez ere, zerga-arinketen eta interes-tasen bitartez) eta amortizazio-aldiak 30-35 urtera luzatzea dira, izatez ere, EAEko gazteei etxebizitza erosteko adorea ematen dieten faktore nagusiak. Hala eta guztiz ere, inflazioko higiezin testuinguru batean, gaztea emantzipatzeko prozesuak atzeratu egiten dira, eta, batez beste, 30 urtera arte gurasoen etxean egoten dira, harik eta, bikote iraunkorra lortuta edota ezkontuta, etxebizitza erosteko behar den beharrezko kaudimena lortu arte.

Horrela, "Euskadiko Gazteria 2004" ikerketan adierazitakoaren arabera, 15-29 urte bitarteko pertsonen %89k uste du emantzipatzeko eragozpenik handiena etxebizitzaren prezioa dela. Izan ere, pertsona bakarreko aukera kaudimen handiko gutxiengo baten esku baino ez dago. Hori dela eta, gazteak emantzipatzeko batez besteko adina ezkontzeko batez besteko adinarekin bat etortzen

IV.1.9. GRAFIKOA. GAZTEAK ETA ETXEBIZITZA. EMANTZIPAZIO-TASA ETA ETXEBIZITZAREN BATEZ BESTEKO PREZIOA. 2007-IV.



Iturria: OBJOVEM.

da: gizonen kasuan 33,7 eta emakumeen artean 31,5⁵ (EUSTAT. "Ezkontzen Estatistika, 2006").

Espainiako estatuari dagokionez, EAEn bizi den 18-34 urte bitarteko gazte taldeak emantzipazio-tasa txikiagoa dauka: %44,1 eta Estatuan %45,3 (OBJOVI -Espainiako Etxebizitzaren Gazte Behatokia-, 2007/IV txostena, Espainiako Gazteriaren Kontseilua). Emantzipazio txikiago hori argi eta garbi ikusten da beste autonomia-erkidego batzuetakoarekin konparatuta; Estatuan lehenengo postuan Katalunia dago, %52,4ko tasarekin, eta gero, Balearrak eta Valentziako Erkidegoa daude. EAEn atzetik Kanariak, Galizia, Kantabria eta Asturias baino ez daude.


Bestalde, etxebizitzak erkidego horietan duen prezioa eta, oraindik ere interesgarriagoa dena, gazteek (lan-egoeraren, soldataren eta abarren arabera) onartzeko moduko gehieneko prezioa konparatuta, egoera aldatu egiten da zenbait kasutan: lehenengo eta behin, etxebizitza askearen batez besteko prezioa Estatuko batez bestekoa baino %42 handiagoa zen EAEn, 2007ko laugarren hiruhilekoan (Madrileko Erkidegoan soilik garestiagoa), eta EAEn atzetik Katalunia eta Balearrak zeuden. Gazteek onartzeko moduko gehieneko prezioei erreparatuta ikusten denez, Gazteriaren Kontseiluaren txostenean adierazitakoaren arabera, EAEn prezio hori 102.131€-koa izan zen, erreferentziako urtean, eta

etxebizitzaren prezioa, berriz, 296.950€-koa izan zen⁶. Gazteen etxe batek onartzeko moduko gehieneko prezioari dagokionez (aintzat hartuta kasurik gehienetan etxebizitza bikoteko bi kideen artean erosten dutela), gehieneko prezio onargarria 162.745€ da, baina oraindik ere oso urrun dago etxebizitzaren batez besteko prezioetatik. Estatuan, etxebizitzaren batez besteko prezioaren eta kide gazteko etxe batek onartzeko moduko prezioaren arteko aldea askoz ere txikiagoa da: 67.935€, eta EAEn 134.203€. Aipagarria da, aldagai horiei dagokienez, grafikoan ikusten denaren arabera, kasu batzuetan, adibidez, Katalunian eta Balearretan, etxebizitzaren prezioak altuak izan arren emantzipazio-tasak Estatukorik altuenak izatea.

Nolanahi ere, "Euskadiko Gazteria 2004" txostenak agerian jarri duenez, EAEko gazteen artean familia-bizitzarekiko poztasun handia dago; hain zuzen ere, %97k esan dute oso edo nahiko pozik daudela familiako bizitzarekin (hurrenez hurren, %52 eta %45). Gainera, bikotekidearekin edo ezkontuta bizi diren pertsonen poztasun handiagoa dute: EAEko gazteriaren %66 ezkontuta dago, eta bikotekidearekin bizi direnen %64 oso pozik daude. Horrenbestez, gazteen taldea orokorrean pozik badago, talde horretan emantzipaturik daudenak oraindik pozago daude.

Lehen esan dugunez, EAEko gazteriaren ezaugarri nagusienetarikoa bat emantzipazio baxua da: inkestan parte hartu duten gazterik gehienak familiarekin bizi dira (%84), eta ehuneko hori %88koa da gizonen kasuan. Ikerketa horren emaitzak ikusita, esan daiteke EAEko gazte emantzipaturik gehienak honako hauek direla: emakumeak, 25-29 urte bitarteko gazteak eta gizarte mailarik baxuenekoak. Egoera hori ikusita, agerikoak dira emantzipazio berantiar horren zergatiak, horiek estu lotuta baitaude etxebizitzaren prezioari (%89) eta diru-sarrerara urrirei (%70), baina baita erosotasunari (%36, orokorrean), gehienbat Gipuzkoako gazteen (%43) eta gizonen (%40) artean. Hala eta guztiz ere, erosotasunak emantzipaziorik ezan eragin handia duela onartzen duten EAEko gazteen

IV.1.10. GRAFIKOA. ETXEBIZITZA ALDATU ETA LORTU BEHAR DUTENEN BATEZ BESTEKO ADINA



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila.

⁵ 1996ko datuei dagokionez, bai neskek eta bai mutilek atzeratu egin dute ezkontzeko adina; nesken artean, ezkontzeko batez besteko adina 28,7 urtekoa izan da urte horretan, eta mutilen artean 31,1ekoa. Estatuko datuekin konparatuta, ezkontzeko batez besteko adina 31,7 urtekoa da mutilen artean, eta 29,6koa emakumeen kasuan. Beraz, EAEko biztanleria Espainiako baino beranduago ezkontzen da.

Adierazle horiei buruzko informazio gehiago lortzeko, irakurri Memoriako "Demografia eta Immigrazioa" kapitulua.

⁶ 2004ko datuei dagokionez (2005eko Memoria Sozioekonomikoan aztertutako datuak), etxebizitza askearen batez besteko prezioak %24,9ko hazkundea izan du; gazte batek onartzeko moduko prezioa, oster, ez da proportzio berean hazi, eta, gainera, %5,8an murriztu da.

IV.1.4 Koadroa. Zein neurritan zaude pozik zeure familia bizitzarekin? Datuak %-tan. 2004.

	EAE GUZTIRA	Sexua		Familia egoera			EAE 2000
		Gizona	Emakumea	Ezkongabea	Ezkondua	Bikotean	
Poz-pozik	52	49	54	50	66	64	59
Nahiko	45	47	43	47	33	32	37
Gutxi	2	3	2	2	1	3	3
Batere ez	0	0	0	0	0	1	1
Ed/ee	0	0	0	0	0	0	0
Guztira	100	100	100	100	100	100	100

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Euskadiko Gazteak, 2004.

ehunekoa 13 puntu baino gehiagotan murriztu da 2000tik 2004ra.

1.1.4. Osasuna eta bizi-baldintzak

Aurreko epigrafeetan ikusi dugunez, EAEko gazterik gehienien ezaugarri nagusiak honako hauek dira: bizi-kalitate onargarria, zailtasunetatik babesteko balio duen familia- eta harreman-ingurua, eta langabezia-tasa gero eta urriagoak (oraindik ere gehiago urritu behar diren arren). Hala ere, aipagarria da gazteen azpitalde batek, gehienbat langabeziaren eraginez (baina baita drogak hartzearen edo ezinduak izatearen eraginez ere), eragozpen, arazo eta zailtasun handiagoak dituela, eta, horrela, bazterkeria-egoeran edo, behintzat, egoera horretara heltzeko arriskuan daudela.

Gazteen talde osoari dagokionez, “Euskadiko Gazteria 2004” ikerketak agerian jarri duenaren arabera, EAEko gazteen laurdena baino ez ziren euren edo bikotearen diru-sarreretatik bizi, erreferentziako urtean; Lan eta Immigrazio Ministerioaren “Espainiako Gazteria 2004” ikerketan, berriz, %33ko ehunekoa ematen da, Estatu osorako. Estatuko datuekin jarraituz, gazteen %24k erabateko autonomia ekonomikoa zuten, eta %21 neurri batean independenteak ziren. Bigarren kasuan, eurenak ez diren baliabideak jatorrizko familiatik datoz, eta gainerako zatia euren bikotearengandik. Guztiz edo neurri batean euren baliabideekin bizi direnen baliabideen jatorriak lan erregularra (%76), aldian behingo lanak (%14) eta beste iturri batzuk (%10) dira.

EAEra itzulita, gazteen diru-erabilgarritasuna txikia da: taldearen erdiak baino gehiagok 600€ baino gutxiago

IV.1.5 Koadroa. Gazte langabetuen tipologia. Talde osoan ehunekotan duen banaketa. Estatu.


	Ez dute babe- sik jasotzen Ongizate Estatutik	Babesa jasotzen dute Ongizate Estatutik	GUZTIRA
Familia-unitatean bizi eta, bertan, norbaitek lan egi- ten du.	70	10	80
Bizikidetza-unita- teko inor ere ez dabil lanean.	15	5	20
GUZTIRA	85	15	100

Iturria: “Gazte langabetuen bizi-baldintzak”. INJUVE, MTIN, 2005.

zuen hilean. Emakumeek lehenago uzten dute gurasoen etxea, baina eurek dituzte hileko errentarik baxuenak. Adinean gora egin ahala, diru-sarrerek ere gora egiten dute; dena den, 24 urtetik gorakoan artean, bostenak 300€ baino gutxiago dauka hilean.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzaren azken “Pobrezia-
buruzko Inkesta” deritzon (2004ari buruzko datuak), agerian gelditu da gero eta gazte gehiago bazterkeria-egoeran daudela: pobrezia-arriskurik handieneko taldeen artean gazteak daude. Hain zuzen ere, pobrezia-egoerek eragin handiagoa dute familiaburutzat 35 urtetik beherako pertsona (%15,9) edo 35-44 urte bitarteko pertsona (%7,4)

IV.1.11. GRAFIKOA. GIZARTE-DEMOGRAFIA EGOERA BATZUEK POBREZIA-ARRISKUKO EGOERETAN DUTEN GARRANTZIA (MANTE-NAMENDUA EDOTA METAKETA). FAMILIA-ETXEBIZITZETAKO BIZTANLERIA. EHUNEKOAK. 2000-2004.



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Pobreziari buruzko Inkesta (2004).


duten etxeetan, eta tasa horiek nabarmen murrizten dira pertsona nagusiaren adina zenbat eta handiagoa izan. Halaber, EAEn etxerik ez duten pertsonen taldeari buruzko atalean ikusiko dugunez, EUSTATen datuen arabera, emakumeen eta atzeritarren presentzia gero eta handiagoaren eraginez, talde hori gero eta gazteagoa da; horrela, gaur egun, talde horretako pertsonen batez besteko adina 38 urtekoa da, bai EAEn eta bai estatuan.

“Pobreziari buruzko Inkesta” deritzon ateratako ondorio nagusien artean, aipagarria da 45 urtetik beherako pertsona nagusi baten ardurapean dauden etxeetako (%21 inguru) pertsona kopuruak 2000-2004 aldian hazkunde itzela izatea; horrek agerian jartzen duenez, aldi horretan gazteen emantzipazio-prozesu handia egon da. Langabeziak eta enplegu ez-egonkorrak talde horretan duen eraginak, baita egoera horiek pobrezia-arriskuarekin estu lotuta egoteak ere, pertsona talde hori 2004an pobrezia-egoeren gune nagusia izatea eragin dute. Horrela, 2000n enplegu egonkorrik gabeko 45 urtetik beherako pertsona nagusia zuten etxeetako pertsonak %27 izatetik 2004an %55,3 izatera igaro dira, pobrezia-arriskuan dauden pertsona guztiei dagokienez.


Bestalde, eta drogen kontsumoaren osasun-alderdia memoria honetako beste kapitulu batean berriaz aztertuko dugun arren, aipatu egin behar da gazteriarren eta drogen arteko erlazioa, binomio horrek, sarritan, bazterkeria-egoerak eragiten baititu. Eusko Jaurlaritzako

Drogamendekotasun Behatokiak egindako “Euskadi eta Drogak 2006” txostenean ezarritakoaren arabera, urte horretan murriztu egin da, lehenengoz (1992an halako inkestak egiten hasi zirenetik), legez kanpoko droga ia guztien (kanabisaren kasuan izan ezik) kontsumo mota desberdinen prebalentzia (oraingoa eta oraintsukoa, baita esperimental ere); estasiaren eta kokainaren kasuan murriztapen proportzionalak oso handiak izan dira, eta haluzinogenoen kasuan ez dira hain handiak izan (zenbait kasutan, hazkundeak ere egon dira, adin-tarte batzuetan). Heroinarekin kontsumoak, bestalde, egonkortuta jarraitzen du, goranzko joeratxoarekin.

Datu horien arabera, gainera, gazte-etapa amaitu ondoren (35 urte, gutxi gorabehera), substantzien kontsumitzaileek ordura arteko kontsumoak bertan behera uzteko edota murrizteko joera dute. Esate baterako, adin horretatik aurrera, hazi egiten da erretzeari uzten dion ohiko erretzaile-ehunekoa, eta nahiko sarri (gutxienez, hilean bitan) mozkortzen direnen ehunekoa %3,4raino murrizten da. Murriztapenik handienak, nolana ere, asteburuko gehiegizko eta arriskuko kontsumoari lotuta daude: 25 eta 35 urte bitartean, gehiegi edaten dutenen ehunekoa %35etik %8ra igarotzen da, eta adin horretatik aurrera ia guztiz desagertzen da (izan ere, 25-44 urte bitartean, biztanleriaren erdiak baino gehiagok dio murriztu egin duela alkohol-kontsumoa, eta horren eragile nagusia familia-erantzukizunak hartzea izan da). Halaber,

IV.1.12. GRAFIKOA. LEGEZ KANPOKO DROGEN KONTSUMOAN HASITAKO PERTSONEN EHUNEKOAREN BILAKAERA, ADIN TARTEEN ARABERA


Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Euskadi eta drogak (2006).

IV.1.13. GRAFIKOA. BIZTANLERIAK ADIN TALDEKA DUEN BANAKETA, ASTEBURUETAN ALKOHOLA EDATEAREN ARABERA. 2006.


Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Euskadi eta drogak (2006).


kanabisaren kontsumoa ere nabarmen murrizten da 35 urtetik aurrera, eta %13,3tik %2,5era igarotzen da.

Nolanahi ere, alkoholaren eta beste substantzia batzuen gehiegizko kontsumo hori (asteburuetakoa) gazteen trafiko-istripu askoren eragile nagusia da. Gazteriaren Euskal Behatokiak 2007an egindako "Euskadiko gazteriaren mugikortasun espazialaren jarraibideak" ikerketak adierazitakoaren arabera, gida-baimena eduki eta sarritan gidatzen duten gazteen artean (talde horren %43,8) hirutik ia batek (%29,4) esan du

alkohola edan ondoren gidatu dutela noizbait. Ehuneko hori, gainera, %38,5koa da, 25-29 urte bitartekoen artean, eta %40,4koa, gizonak soilik kontuan hartuz gero (emakumeen ehuneko askoz ere txikiagoa da: %16,1).

Izan ere, istripu horiek 15-29 urte bitarteko biztanleen heriotzaren eragile nagusiak dira. EUSTATEk emandako datuen arabera, 2006an 20-29 urterekin hildakoen %21,6 trafiko-istripuan hil ziren (10 eta 19 urte bitartekoen artean ehuneko %35,7koa). Guztiarekin ere, ehuneko hori nabarmen urritu da azken urteotan, 2002an ia %39koa izan baitzen.

IV.1.14. GRAFIKOA. TRAFIKO ISTRIPUAK: HILDAKOEN BILAKAERA, HILDAKO GUZTIEI DAGOKIENEZ, ADIN TALDEKA (%). EAE.



Iturria: EUSTAT. Hildakoen Estatistika. Datu-bankua.


1.2. 55 urtetik gorako pertsonak

Azken hamarkadotan, Europak aurrerakuntza handia izan du ekonomiaren eta gizartearen arloan; izan ere, eskualde eta gizarte mailako desberdintasunak handiak izan arren, europarrak urte gehiago bizi dira: batez beste, 1960an baino bederatzirte gehiago. Bizi-itxaropenaren hazkundea fenomeno positiboa da, baina galderak, erronkak eta zailtasunak sortzen dizkie pertsonari, horien familiei eta gizarte-sistemei. Gainera, beste zenbait fenomeno demografikok korapilatu egiten dituzte erronka horiek: haur gutxi jaio da, eta, beraz, epe ertainean, langile kopurua txikiago batekin finantzatu beharko du pentsioetako eta osasuneko gastu gero eta handiagoa, batez ere. Testuinguru horretan, administrazioak eta gizarteak adineko pertsonen⁷ funtzioa berraztertzen ari dira, bai eskaintzaren (produktzio-sisteman ekarpena egiten duten langiletzat) eta

bai eskariaren (garrantzi gero eta handiagoko kontsumo-segmentutzat) aldetik.

Izan ere, adineko pertsonak inoiz baino aktiboagoak dira lanean, familian eta gizartearen. Hala eta guztiz ere, herri aurreratu askotan, 65 urteko edo gehiagoko erretiroa arau bihurtu da. 55 urtetik gorako pertsonen heziketan

IV.1.15. GRAFIKOA. JOERAK EUROPAKO BIZTANLERIAREN EGITURA GEOGRAFIKOAN



Iturria: EUROPEAN COMMISSION. The Social situation in the EB 2005-2006.

⁷ Oro har, 55 urtetik gorako pertsonak adierazi nahi ditugu. Soziologia-ikerketan onartzen den ohiko ataria da; esaterako, adinik nagusienerako (55-65 urte bitartekoak) pertsonak edo, orokorrean, heldutasunera heldu eta oraindik osasun/mendekotasun arazo larririk ez duten pertsonak adierazteko. Aldiz, sarritan, pertsona horiek euren gain izaten dute familiako mendeko pertsonak zaintzearen ardura, bai guraso zaharrak eta bai ilobak. Mendekotasunari eta zaintzaileei buruzko informazio gehiago lortzeko, Memoria Sozioekonomiko honen 2006ko edizioa irakur daiteke.

55 urteko atari horri dagokionez, atal honetan, sarritan, beste adin muga batzuk hartu dira aintzat, datuak eduki ahal izateko. Esate baterako, EUSTATen Bizi Baldintzen Inkestako informazioan, 60 urtetik gorako pertsonak aztertzen dira; eta Europako SHARE Programako informazioan 50 urteko ataria erabiltzen da, pertsona helduen bizi-baldintzak aztertzeko.

egindako inbertsioa, sarritan, baliabideak alferrik galtzea balitz bezala ikusi da, aintzat hartuta inbertsio hori errentagarri bihurtzeko dagoen aldi laburra. Gainera, aurreraturiko erretiroa urteetan erabili da langileriak berregituratzeko mekanismotzat, batik bat krisian dauden sektoreetan, nazioarteko lehia gero eta handiagoari aurre egiteko; baina sektore publikoan ere erabili da.

Hala ere, aspaldion, gero eta aditu gehiagok diote erretiroko adina atzeratu egin behar dela, gizarte-gastu gero eta handiagoari eta, hain zuzen ere, pentsioetako gastu gero eta handiagoari aurre egin ahal izateko, baita langile "senior" horietan egindako inbertsioaren errenta-garritasuna eraginkorragoa izateko ere. Hala eta guztiz ere, agintariak badakite joera horrek hausnarketa sakona behar duela, eta, gainera, enpresetan, Estatuan eta nazioartean neurriak hartu behar direla. Hain zuzen ere, langileen osasuna, garapena eta adinik zaharreneko langileen gaikuntza mantentzen eta sustatzen duten neurriak hartu behar dira, laneko eta familiako bizitza moldatzeko lagungarriak diren neurriak ere barne, batez ere zaintzako erantzukizunei eta, gehienbat, adineko emakume langile kopuru gero eta handiagoari dagokienez. EUROSTATen "*Lan Indarraren Inkesta*" deritzonaren arabera, 2006an, 55 eta 64 urte bitarteko emakume ez-aktiboen artean, arrazoirik ohikoena erretiroa da (%27,7), baina bigarren arrazoi nagusia (%9,7) zaintzako familia-erantzukizunak edukitzea da, eta horrek gaixotasuna edo ezintasuna edukitzea baino garrantzi handiagoa dauka (emakume horien %7,5). Herri batzuetan, esate baterako, Espainian, zaintzako familia-erantzukizunen arrazoiak kasu guztien %35 gainditzen du.

Enpresak, bestalde, errenta maila gero eta handiagoko biztanleria-segmentu helduen kontsumo-gaitasuna aintzat hartzen hasi dira. Anglosaxoien munduan "*silver economy*" izena ematen diote horri: etxebizitza eta seme-alaben heziketa ordaindu ondoren errenta erabilgarri handia eta, garrantzitsuen, dirua aisialdian, etxebizitzan, osasunean eta halakoetan gastatzeko gogoia zein astia duen pertsona taldea. Sarritan, hala ere, enpresak ez daude prestatuta bezero horien eskari berriei erantzun egokia emateko; izan ere, halako bezeroek, sarritan, "neurrian" egindako produktuak behar dituzte; adibidez, kontsumoko produktuak (sakelako telefonoetatik automobilera) eta finantza-, bidaia- nahiz osasun-zerbitzuak, euren ezaugarri berezietara egokituta.


1.2.1.Ezaugarri soziodemografikoak

EUSTATen azken biztanleria-datuaren arabera (2006ari buruzkoak), Euskal Autonomia Erkidegoan 55 urtetik gorako taldean 635.119 pertsona daude, hau da, biztanleria osoaren %29,8. Ehuneko hori %32,4koa da emakumeen kasuan, eta %27,1 gizonen artean. Atzera begiratuta ikusten denez (orain dela hogeitau urte), talde hori biztanleriaren %26koa zen.

Europako testuinguruan, talde hori biztanleriaren %28,4koa da, EBko batez bestekoari dagokionez, eta zenbait herritan %30etik gorakoa da; adibidez, Belgikan, Danimarkan, Italian eta Suedian; beste muturrean, berriz, Eslovakia, Polonia, Zipre eta Irlanda daude, ratio txikiagoekin. Gainera, 55 urtetik gorako pertsonen taldean, 55 eta 65 urte bitarteko multzoa %40 ingurukoa da, bai EAE eta bai EB osoan⁸ (apur bat gutxiago Estatuan eta beste zenbait herritan, esaterako, Alemanian, Grezian edo Italian). Herri guztietan, pertsona helduen artean garrantzirik handiena duen multzoa da, demografiak Europan II. Mundu Gerraren ostean (Espainiako gerra ostean) izandako hazkunde itzelaren ondorioz.

Horrenbestez, talde ugaria da, garrantzi absolutua eta erlatiboa kontuan hartuta; halaber, osasun nahiko oneko taldea da. Eusko Jaurlaritzaren "*Osasunaren 2007ko Inkesta*" deritzon emaitzen arabera, EAEko biztanleriaren %8,4k muga kronikoren bat dauka bere jardueran, osasun-arazoaren ondorioz; ehuneko horretatik %4,4k mugak dituzte jarduera "nagusia" egiteko. 45 eta 64 urte bitarteko adin taldea aintzat hartuta, ehunekoak %10,3 (jarduera guztietarako) eta %6,1 (jarduera

IV.1.16. GRAFIKOA. BIZTANLERIA TALDEEN BILAKAERA, ADIN-TARTEEN ARABERA (1991-2005)



Iturria: Eustat. Biztanleria eta Etxebizitza Zentsua. Udal Biztanleriaren gaurkotzea. Geuk eginda.

⁸ Eta biztanleria osoaren %12. Tasa hori %8,8tik %12ra igaro da azken 25 urteotan.

nagusietarako) dira. 65 eta 74 urte bitarteko pertsonentzat, emaitzak %15,8 eta %8,4 izan dira, hurrenez hurren. Azkenik, adinik nagusieneko pertsonen taldearentzat (75 urtetik gorako pertsonak), ratioak honako hauek dira:

jarduera guztietarako %27,1ekoa (emakumeak soilik kontuan hartuta %28,4) eta jarduera nagusietarako %14. Ratioen jauzia, beraz, gehienbat 75 urtetik aurrera gertatzen da⁹.


IV.1.6 KOADROA. EUOPAR BATASUNEN BIZTANLERIA: 55 URTETIK GORAKOEN KOPURUA, GUZTIZKOARI DAGOKIONEZ, ETA TALDEAREN BARRUKO BANAKETA. 2006.

	Biztanleria guztira (milatan)	% 55 urtetik gorakoena %, guztizkoari dagokionez	55 urtetik gorakoena ehunekoa			
			55-64 (%)	65-74 (%)	75-85 (%)	85 eta gehiago (%)
EB27	49.4051,9	28,4	40,6	32,2	21,0	6,2
BE	10.548,0	28,6	40,0	31,1	22,7	6,2
BG	7.699,0	30,4	43,3	33,2	20,2	3,3
TE	10.269,1	27,9	48,8	28,5	19,0	3,7
DK	5.437,3	28,6	46,6	28,8	17,8	6,7
DE	82.376,5	31,0	37,1	36,3	20,4	6,2
EE	1.343,5	28,0	39,5	35,3	20,9	4,3
IE	4.261,8	20,8	46,6	29,9	17,8	5,8
BH	11.148,5	29,8	37,9	35,5	22,0	4,6
ES	44.116,4	27,3	38,9	31,4	22,6	7,1
FR	63.195,5	27,6	41,1	29,1	22,4	7,3
IT	58.941,5	31,8	37,7	32,9	22,5	6,9
ZI	772,5	22,6	46,2	31,5	17,2	5,1
LV	2.287,9	28,0	39,6	35,8	20,6	4,1
LT	3.394,1	25,8	40,2	35,1	20,8	4,0
LU	472,6	24,4	42,4	31,1	21,0	5,4
HU	10.071,4	28,2	43,7	31,7	20,0	4,6
MT	406,4	27,0	49,1	29,8	16,8	4,3
NL	16.346,1	26,7	46,1	29,4	18,6	5,9
AT	8.282,4	28,0	40,3	31,8	21,6	6,3
PL	38.141,3	24,1	44,5	31,8	19,8	4,0
PT	10.584,3	28,6	39,8	33,5	21,2	5,5
RO	21.587,7	25,4	41,6	35,9	19,5	3,0
SI	2.006,9	27,4	42,4	33,1	20,2	4,2
SK	5.391,4	22,4	47,4	30,4	18,6	3,7
FI	5.266,3	29,9	45,7	29,0	19,5	5,8
SE	9.080,5	30,7	43,5	27,8	20,4	8,3
UK	60.623,0	27,8	42,4	29,9	20,4	7,3
EAE	2129,3	29,8	40,3	31,8	21,9	6,0

Iturria: EUROSTATen eta EUSTATen datuetan oinarrituz eginda..

⁹ Emaiza hauek berretsi egiten dira CISEk Adinekoen Gizarte Pertzepzioari buruz oraintsu egindako inkesta bateko datuekin (2008ko martxoko Gizarte Barometroa). Horren emaitzek agerian jarri dutenez, espainolik gehien iritziaren, pertsona bat adinekoa dela esateko, osasuna hartu behar da kontuan, adina bera baino gehiago; gainera, osasun-egoerak adin talde guztietan hobekuntza orokorra izatearen ondorioz, biztanleek uste dute gero eta beranduago heltzen dela zahartzarora (gaur egun "70 urteak igarotakoan").

IV.1.17. GRAFIKOA. 55 URTETIK GORAKOAK: EAE-N DUTEN GARRANTZI DEMOGRAFIKOAREN BILAKAERA



Iturria: EUSTATen datuetan oinarrituz eginda.

370

Horri dagokionez, eta 60 urteko eta gehiagoko pertsonen taldea kontuan hartuta, EUSTATen "Bizi Baldintzen Inkesta" deritzonak adierazitakoaren arabera, bizitzan osasunaren eraginezko zailtasunak omen dituzten pertsonen ehunekoa gero eta txikiagoa da: 1989an %29ko tasa zegoen nagusien artean, eta biztanle guztien artean %8,9koa; 2004an (informazioa eskaintzen duen azken urtea), ehunekoa %23,4ra murriztu da 60 urtetik gorakoaren artean, eta biztanle guztien kasuan bi hamarreneko hobekuntza baino ez da egon. Emakumeei dagokienez, tasa %31,9tik %25,1era igaro da, adineko pertsonen artean, eta %10etik %9,4ra, emakume guztien kasuan.

Osasun Oneko Bizi Itxaropenaren adierazleak ere berretsi egiten ditu emaitza horiek; adierazle hori lortzeko, bizi-itxaropen osoari aurreikusitako ezintasun-urteak kentzen zaizkio, osasun-inkestetan oinarrituz. EA Erako horri buruz dagoen azken informazioa 2002koa da. Eusko Jaurlaritzaren urte horretako Osasun Inkestaren arabera, emakumeen bizi-itxaropena 83,8 urtekoa da (horietatik 72,2 osasun onarekin), eta gizonena, berriz, 75,9 urtekoa (67 osasun onarekin). Azken batean, informazio horietatik ondorioztatzen denez, gaur egun, 55 urtetik gorako pertsonen urte kopuru handia dute aurretik, eta erraz

IV.1.7 KOADROA. EAE-N OSASUNAREN, ADIN TALDEAREN ETA SEXUAREN ERAGINEZKO ZAILTASUNAK DUEN BIZTANLERIA EHUNEKOA.


		1989	1994	1999	2004
Guztira	Guztira	8,9	8,5	8,9	8,7
	< 35	1,7	2,7	1,9	2,1
	35 - 59	9,2	6,8	6,1	6,1
	>= 60	29,0	24	25,6	23,4
Mutirik	Guztira	7,8	7,5	6,9	8,0
	< 35	1,4	3,0	2,2	2,4
	35 - 59	8,7	6,0	5,0	6,6
	>= 60	25,6	22,1	20,3	21,1
Emakum.	Guztira	10,0	9,4	10,8	9,4
	< 35	2,0	2,3	1,6	1,9
	35 - 59	9,7	7,5	7,3	5,7
	>= 60	31,9	25,4	29,6	25,1

Iturria: EUSTAT. Bizi Baldintzei buruzko Inkesta. Datu-bankua.

gainditzeko eta erretiroko adina, zahartzaroari lotutako arazoak agertu baino lehen¹⁰.

¹⁰ Horrela, adineko europarren arteko ohiko gaixotasunak (adibidez, kataratak) bost aldiz maiztasun handiagoarekin agertzen dira 80 urtetik gorakoaren artean, 50-59 urte bitartekoaren artean baino, Europako Batzordeak egindako ikerketa baten arabera.


IV.1.18. GRAFIKOA. BIZI ITXAROPENAREN BILAKAERA EAE-N.



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Osasunari buruzko Inkesta. 2002.

371

IV.1.19. GRAFIKOA. ETXE KOPURUAREN ZENBATESPENA, ADIN-TARTEAREN ARABERA.



Iturria: Geuk landuta.

Azkenik, eta Euskal Autonomia Erkidegoko aurreikuspen demografikoei dagokionez, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren "Azterketa demografikoa eta etxebizitza-merkatuaren epe luzerako bilakaera EAEn" txostenean egindako aurreikuspenaren arabera (EUSTATen biztanleria-proiekzioetan oinarrituz egindako aurreikuspenak), hurrengo urteotan EAEn nabarmen handituko da adin ertaineko eta aurreraturiko pertsonen eraturiko etxebizitza kopurua.


Hazkunde hori, batez ere, biztanleria zahartzearen ondoriozkoa izango da, eta nabarmendu egingo da pertsona horiek familiako burutza duten tasek gora egitearen ondorioz, gehienbat emakumeen artean. Orain arteko joera kontuan hartuta, 2005etik 2015era 60.000 unitate inguruko hazkunde egongo da, erreferentziako pertsonatzat 65 urteko edo gehiagoko pertsona bat duen etxe kopuruan; kasurik gehienetan, 80 urteko eta gehiagoko biztanle talde handiak iristearren eraginezkoa izango da hori. Gainera, 40-64 urte bitarteko segmentuan gauza bera gertatzen da; kasu horretan, 58.000 etxeko

hazkunde egongo dela kalkulatzen da, eta, horien artean, 25.000 etxeko hazkunde egongo da erreferentziako pertsonatzat 55-65 urte bitarteko pertsona bat dutenen artean.

1.2.2. Lan-merkatuarekiko harremanak


Europako Batzordearen SHARE (*Survey on Health, Ageing and Retirement in Europe*) programako¹¹ "50+ in Europe" txosteneko emaitzek (2004ari buruzko datuak) agerian jarri dutenez, erretiroko adina oso aldagarria da Europan. Horri dagokionez, osasunak pentsatzen dena baino garrantzia txikiagoa dauka. Garrantzitsuagoak dira pentsioetako eta gizarte segurantzako sistema nazionalen arteko desberdintasunak; horrela, zenbait herritan (adibidez, Austrian edo Frantzia) enplegatzaileek eta enplegatuek alde aurreko erretiroa aprobetxatzen dute, horrek herriotan pizgarri ekonomikoa baitauka. Inkestak dioenez, era beran, laneko poztasunak garrantzi handia dauka: pozik dauden langileak luzaroago jarraitzen dute lanean. Banakako erantzukizuna eta onarpen profesionala

IV.1.20. GRAFIKOA. LANGILEEN BIZTANLERIA: 50 – 64 URTE. DESBERDINTASUN HANDIAK ERRETIROKO ADINEAN.




¹¹ Proiektu honen helburu nagusia diziplina anitzeko informazio konparagarria ematea da, Europak adin nagusiko pertsonen buruz. Horretarako, 2004an 50 urtetik gorako 27.000 pertsona baino gehiago elkarriketatu ziren, 11 herritan (besteak beste, Espainian), Europako Batzordearen eskabideari erantzuna emateko: "Estatukideekin lankidetzan, Europako luzetarako inkesta ezartzeko aukera aztertzea", Europan zahartzeari buruz egiten den ikerketa euskarritzeko zutabetzat.

IV.1.21. GRAFIKOA. JARDUERA TASAK SEXUAREN ETA ADIN TALDEAREN ARABERA. EAE. 2007



Iturria: EUSTAT. BJA.

IV.1.22. GRAFIKOA. LANGABEZIA TASEN BILAKAERA, BIZTANLERIA OSORAKO ETA 55 URTETIK GORAKOENTZAT, SEXUAREN ARABERA



Iturria: EUSTAT. BJA.

ere eragile garrantzitsuak dira erretiroko adina atzeratzeko. Bestalde, laneko kolokatasun-baldintzak, sarritan, osasun-arazoei eta alde aurreko erretiroari lotuta daude. Txostenean esaten denez, lan-merkatuan erabili gabeko lan-gaitasun handia dago zenbait herritan, esaterako, Austrian, Italian eta Frantzia, eta bertan, jende osasuntsu asko ez dago lan-indarraren barruan integratuta.


EAE, jardueratasek beherakada itzela dute 54 urtetik aurrera; hain zuzen ere, %77,9tik (45 eta 54 urte bitarteko pertsonen kasuan) %41,9ra murrizten dira, hurrengo adin talderako. Gainera, alde hori gizonen eta emakumeen artean gertatzen da, eta, azken horien kasuan, jarduerata txikiagoa da adin talde guztietan, EUSTATen Biztanleria Jardueraren Arabera Inkestako datuek 2007rako adierazitakoaren arabera. Halaber, langabeziari

dagokionez ikusten denaren arabera, hori nabarmen murriztu da adin talde guztietarako, eta 55 urteko eta gehiagoko pertsonen artean ia ez dago langabeziarik (%1,6 bai gizonen eta bai emakumeen kasuan); hala ere, zalantzarik gabe, hori inaktibitate-tasa handien eraginezkoa da. Azken batean, talde horretako pertsonen artean, gehienak, zalantzarik gabe, erretiroa hartuta daude. Gainerakoei dagokienez, dena delakoagatik, lan-merkatuan sartzea ez da, dirudienez, aintzat hartutako aukera bat.


1.2.3. Gizarteratzea eta gizarte-partaidetza

“50+ in Europe” txostenaren arabera, familiak eginkizun garrantzitsua dauka, Europa osoan, adineko pertsonen bizitzan. Hala eta guztiz ere, ikerketak agerian jarri duenez, desberdintasun handiak daude Europa hegoaldeko eta iparraldeko herrien artean: Danimarkan, esate baterako, inkestatuen %13 soilik bizi da seme-alabekin. Espainiari dagokion ehunekoa %52koa da, eta, bertan, pertsonen %80 baino gehiago seme-alabengandik hurbil bizi dira, grafikoan ikusten denez. Gurasoek seme-

IV.1.23. GRAFIKOA. BOLUNTARIOEN LANA EUROPAN



IV.1.24. GRAFIKOA. DISTANTZIA HURBILENEKO SEME-ALABARENGANA



alabekin duten harreman kopuruan ere antzeko desberdintasuna ikusten da: danimarkarren %42k egunero ikusten dituzte gurasoak, eta Mediterraneoko herrietan ehuneko hori %86 ingurukoa da.

Gainera, ikerketa horretatik ondorioztatzen denez, European familiekin laguntzako baliabide garrantzitsuak eskaintzen dituzte, batik bat (berriro ere) hegoaldeko herrietan. Inkestatuen herenak dioenez, egunero haurrak zaindu edo laguntza ematen du (batez beste, 4,6 ordu egunean). Halaber, amonen %50 inguruk diote euren ilobak zaindu dituztela azken hamabi hilabeteotan. EAEn, EUSTATen *“Aldiko Aurrekontuen Inkesta”* deritzon (2003ari buruzko datuak) adierazitakoaren arabera, erretiroa hartuta duten pertsonen artean gizonek, batez beste, egunero 47 minutu ematen dituzte haurrak zaintzen, eta emakumeek 55 minutu. Datuak altuagoak dira “jolasak eta heziketa” kategoriarako (hurrenez hurren, 60 eta 94 minutu); dena den, inkestak ez du aukerarik ematen etxeko andreak diren amonek halako jardueretan zenbat denboran sartzen duten jakiteko (segurutik, halako lanetan denborarik gehien sartzen dutenak).

Elkarrekiko diru-laguntzak ere eginkizun garrantzitsua dauka; Europako inkestaren datuek agerian jarritakoaren arabera, Europa iparraldeko herrietan laguntza gurasoek


ematen dute, eta hegoaldeko herrietan, aldiz, laguntza belaunaldirik gazteenek ematen dizkiete nagusiei.

Bestalde, Europako txosten horretan esaten denez, 50 urtetik gorako europarrek (astialdi handiagoko bizitzako garaietan) partaidetza handia dute boluntario-jardueretan: guztira, %10 inguruk ordainketarik gabeko boluntario-jarduerak egiten dituzte. Proportzio hori nahiko handiagoa da Europa iparraldean hegoaldean baino: Holandan %20tik gora, eta Espainian eta Grezian %4tik behera. Inkestatuen bi herenek erantzundakoaren arabera, horren arrazioa erretiroa hartu ondoren “gauza onuragarriren bat” egin nahi izatea da. Hala eta guztiz ere, pertsonen osasuna faktore garrantzitsua da testuinguru horretan; izan ere, zailagoa da osasun txarreko adineko pertsonak boluntario-lanetan inplikatzeko, adin bereko pertsona osasuntsuak inplikatzeko baino.

1.2.4. Bizi-baldintzak

“Silver economy” eta adineko pertsonen kontsumo-ohitura berriak aipatu ditugun arren (ekonomian eta gizartearen eragin handia duten fenomenotzat), zahartzaroko pobrezia oraindik ere arazo larria da Europako herri batzuetan.

IV.1.25. GRAFIKOA. URTEKO BATEZ BESTEKO ERRENTA EUROTAN



IV.1.8 Koadroa. METAKETAKO POBREZIA: 2000 ETA 2004 ARTEKO BILAKAERA, ETXEKO PERTSONA NAGUSIAREN ADINAREN ARABERA. BIZTANLERIA FAMILIAKO ETXEBIZITZETAN. (TASAK ETA ALDAKETAK ERAGINPEKO BIZTANLERIAN, %-TAN)

Pertsona nagusiaren adina	2000	2004	Bilakaera
< 25 urte	42,1	4,4	-58,5
25-34 urte	9,6	7,8	40,1
35-44 urte	1,9	3,2	74,9
45-54 urte	1,7	0,7	-54,6
55-64 urte	2,3	1,2	-53,5
65 urte eta gehiago	2,3	1,2	-52,7
GUZTIRA	2,6	2,2	-12,8

Iturria: Pobreziaren eta Gizarte Desoreken Inkesta, 2000 eta 2004

IV.1.9 Koadroa. MANTENAMENDUKO KOLOKATASUNA: 2000 ETA 2004 ARTEKO BILAKAERA, ETXEKO PERTSONA NAGUSIAREN ADINAREN ARABERA. BIZTANLERIA FAMILIAKO ETXEBIZITZETAN. (TASAK ETA ALDAKETAK ERAGINPEKO BIZTANLERIAN, %-TAN)

Pertsona nagusiaren adina	Pobrezia			Ongizaterik eza		
	2000	2004	Bilakaera	2000	2004	Bilakaera
< 25 urte	56,4	18,9	32,3	83,1	54,3	158,7
25-34 urte	8,7	8,9	75,8	31,0	22,9	27,7
35-44 urte	3,6	5,3	51,7	21,8	26,4	25,6
45-54 urte	1,4	2,2	62,6	11,0	17,9	72,1
55-64 urte	3,5	2,6	-36,1	15,4	14,6	-17,9
65 urte eta gehiago	4,2	1,3	-72,7	32,1	17,9	-51,6
GUZTIRA	3,6	3,5	-0,9	20,9	19,8	-4,7

Iturria: Pobreziaren eta Gizarte Desoreken Inkesta, 2000 eta 2004

Oharra: Ongizaterik ezaren adierazlearen barruan, pobreen taldea sartzen da.

"50+ in Europe" txostenean adierazitakoaren arabera, Europa hegoaldeko adineko pertsonak, oro har, iparraldekoek baino errenta baxuagoak dituzte; hala ere, panorama baikorragoa da, baldin eta, bizi-baldintzak ikertzean, etxebizitzaren jabetza aintzat hartzen bada. Gainera, agerian gelditu da zailtasun ekonomikoak, kasu askotan, arindu egiten direla familia hurbil edukita: seme-alabekin bizitzeak (ez etxebizitza berean bakarrik, baita etxebizitza bereko bizileku bereizietan ere) babes garrantzitsua ematen du pobreziaren aurka. Hori ez da Europa hegoaldeko adineko pertsonen kasua bakarrik, Alemanian eta Austrian ere gertatzen baita.

EAEn, Eusko Jaurlaritzaren "Pobreziari eta Gizarte Desorekei buruzko Inkesta" deritzoneko azken datu erabilgarrietan ikusten denez (2004ari buruzko datuak), pobrezia motaren bat jasateko arriskurik handiena duten etxe mota desberdinen artean, enplegurik gabeko 45-64

urte bitarteko emakumeek (bakarrik bizi direnak) eratzen dituztenak daude (pobrezia arriskuaren %23,9), eta, horien barruan, 55-64 urteko emakume-azpitalde bat dago, hori oso ugaria izan ez arren. Berez, 65 urtetik gorako gizonak eta emakumeak eraturiko etxeak eragin maila nahiko baxuak dituzte (hurrenez hurren, %2 eta %3,4). Oro har, pobrezia-egoerak honako hauen artean gertatzen dira gehienbat: gazteak, Europako naziokotasuna ez duten pertsonak, bakarrik bizi direnak eta enplegu ezegonkorak dituztenak, kide bakarreko familietako emakumeak, etab. Adin taldeak kontuan hartuta, Inkestak %2,5eko pobrezia-arriskua adierazten du 65 urtetik gorakoentzat, eta %3,4koa 55-64 urte bitartekoentzat.

Gainera, azterketa pobreziaren adierazleek adin tarteka izandako oraintsuko bilakaeran oinarrituta ikusten denez, adierazle guztietan hobekuntza garrantzitsua

ikusten da, baita 55 urteko eta hortik gorako pertsonen artean ere. Horrela, mantenamenduko pobrezia kasuan (diru-sarrera urriegiak edukitzea, oinarritzko beharritan aurre egiteko, adibidez, elikadurari, etxebizitzari, jantziei eta oinetakoei), batez besteko tasa EAEko biztanleriaren %3,6tik %3,5era igaro da, 2000tik 2004ra, eta 55-64 urte bitarteko pertsonen artean, osteraz, ratioa %3,5etik %2,6ra eta %4,2tik %1,3ra murriztu da. Metaketako pobrezia dagokionez (kontsumo iraunkorreko oinarritzko ondasunak lortzeko ezintasuna -adibidez, etxebizitza-, epe luzean bizi maila egokia mantendu ahal izateko), adin

talderik zaharrenen gaineko eraginaren beherakadak handiagoak dira biztanleria osoari dagozkion beherakadak baino. Beraz, esan daiteke pobrezia eragina ez dela oso garrantzitsua EAEko adin horretako pertsonen artean; hala ere, ongizaterik ez duten pertsonen ehunekoa (mantenamenduko pobrezia askoz ere lausoagoari eta, nolabait ere, subjektiboari loturiko aldagaia) %22koa da, pertsona nagusitzat 65 urtetik gorako pertsona duten etxeetan bizi diren pertsonen kasuan, eta ratio hori biztanleria osoaren ratioaren ia berdina da (%23,6).

2

Osasuna eta Osasun Sistema

378

2.1. Osasun Sistemaren gastua eta finantziazioa

EAEko aurrekontuaren likidazioko datuen arabera, Osasun Sailaren gastu-partida 2.926,7 milioi eurokoa izan zen, 2007an; beraz, %11,2ko hazkundera izan zuen, aurreko urteari zegokionez (2.632,9 milioi euro, 2006ko

likidazioaren arabera). Gastu hori BPGren %4,26 izan da.

Horrela, Osasun Sailak oraindik ere lehenengo postuan dago baliabideen ehunekoaren arloan, guztizkoaren %34,1ekin (2006koa -%33,9- eta 2005ekoa -%33,1- baino proportzio apur bat handiagoa); bertan, programa nagusia Osakidetxari egindako transferentzia da.

IV.2.1 KOADROA. EUSKO JAURLARITZAKO OSASUN SAILAK LIKIDATURIKO GASTUA BANANDUTA (EUROAK MILATAN)

	2006	2007	Aldaketa 2006-07
Egitura eta laguntza	16.442	24.372	48,2
Osasunaren Finantziazioa eta Kontratazioa	2.027.899	2.285.500	12,7
Osasun Publikoa	26.509	33.363	25,9
Osasunaren Planifikazioa eta Antolamendua	7.810	6.108	-21,8
Farmazia eta Prestazio Ortopedikoa	548.824	572.893	4,4
Euskadi Informazioaren Gizartean Plana	5.419	4.446,10	-18,0
Osasuna guztira	2.632.903	2.926.682	11,2
GUZTIRA	7.770.938	8.584.886	10,5
Osasunaren % GUZTIZKOARI dagokionez	33,90	34,10	
Osasunaren % BPGri dagokionez	4,23	4,26	

Iturria: EAEko kontu orokorrak eta geuk landuta

2.1.1. Gastua osasunean

Eustaten Osasun Kontua¹, osasunaren arloan egindako gastua zehazteko, osasun-jardueren lehentasunezko hurbiltze funtzionalean oinarritzen da. Horrela, jarduera bat, batez ere, helburuen arabera hartzen da osasunaren arloko zatitza, bertan erabilitako tekniken, baliabideen edo metodoen arabera baino gehiago.

Definizio horretan oinarrituz, osasunaren arloko gastu osoak osasuneko ondasunetako eta zerbitzuetako unitateen azken enpleguak neurtzen ditu (HC.1-HC.7), baita osasuna hornitzen duten industrien Kapital Eraketa Gordina ere (osasun-laguntza jarduera nagusizat duten erakundeak, HC.R.1).

Horrela, EAEn egindako gastu osoa 4.290 milioi eurokoa izan zen 2006an, eta, beraz, %7,9ko hazkundea egon da, aurreko aldiari dagokionez. Hori BPGmp-ren %6,95era heltzen da (aurreko urtean egindako ahalegina baino

ehunen bat handiagoa), eta 2.002 euroko per capita balioa adierazten du. Gastu horren %97,4 gastu arrunta da, eta gainerakoa, berriz, kapital-eraketa gordina.

Gastu arruntaren %72,7 banakako osasun-zerbitzuetan egin zen. Hazkunderik handiena egonaldi ertaineko eta luzeko osasun-laguntzan egon da, hori urteko %13,7ko metatze-tasaraino hazi baita; funtzio horren barruan, mendekotasun egoeretan egindako osasun-gastuaren zatirik handiena sartzen da. Gastuari dagokionez, bigarren funtziorik garrantzitsuenak kanpoko gaixoei emandako osasun-produktuetan egindako gastua izan zen, eta hori, hain zuzen ere, gastu arruntaren %22,9koa izan zen. Horrela, bi talde horiek batuta, osasunean egindako banakako gastua lortzen da, eta hori gastu arruntaren %95,6koa izan zen.

Gastuaren finantziazioaren aldetik gastaturiko 100 euroko 72,2 osasun publikoak finantzatu zituen.

IV.2.2 KOADROA. OSASUN SAILKAPEN FUNTZIONALA

AZALPENA	MUGA FUNTZIONALAK
HC1-HC5 Osasuneko ondasun eta zerbitzu pertsonalak HC.1 Sendatzeko laguntza HC.2 Errehabilitazioa HC.3 Egondaldi ertaineko eta luzeko laguntza HC.4 Osasun-zerbitzu lagungarriak HC.5 Osasun-produktuak kanpoko gaixoei HC.6-HC.7 Taldeko osasun-zerbitzuak HC.6 Prebentzio eta osasun publikoko zerbitzuak HC.7 Osasunaren arloko administrazioa eta aseguruak HC.R Loturiko funtzioak HC.R.1 Kapital-eraketa osasuneko ondasunak eta zerbitzuak hornitzen dituzten erakundeetan HC.R.2 Osasuneko langileen hezikuntza eta heziketa HC.R.3 Osasunaren arloko ikerketa eta garapen jarduerak HC.R.4 Elikaduraren, higienaren eta edateko uraren kontrola HC.R.5 Ingurumen-osasuna HC.R.6 Espezieta egindako prestazioen emakida eta hornidura ezinduentzat HC.R.7 Osasunari lotutako prestazioen emakida eta hornidura esku-dirutan	HC.1-HC.4 Banakako osasun zerbitzuak HC.5 Osasun-produktuak kanpoko gaixoei POGO Osasunari lotutako ondasun eta zerbitzu pertsonalean egindako gastu osoa (HC.1 – HC.5) HC.6 Prebentzio eta osasun publikoko zerbitzuak HC.7 Osasunaren arloko administrazioa eta aseguruak OGAO Osasunean egindako gastu arrunt osoa (HC.1 – HC.7) HC.R.1 Kapital Eraketa Gordina <u>OGA OSASUNEKO GASTU OSOA (OGAO + HC.R.1)</u>

¹ Eustatek egindako 2000-2006 seriean, mendekotasunaren osasun-gastuari buruzko datuak jasotzen dira (long-term care), OCDEko System of Health Accounts SHA deritzen metodologiaren arabera.

IV.2.3 KOADROA. OSASUNEN GASTUAREN ADIERAZLEAK EAE-N

	2000	2001	2002	2003	2004	2005 (a)	2006 (a)
GASTUA							
Gastu osoa (€-ak milioitan)	2.694,90	2.910,00	3.119,80	3.419,10	3.667,40	3.975,70	4.289,80
Gastu arrunta	2.594,30	2.810,60	3.038,10	3.325,10	3.568,80	3.871,50	4.182,00
Inbertsioa	100,60	99,40	81,70	94	98,60	104,20	107,80
GASTUAREN FINANTZIAZIOA (€-ak milioitan)							
Gastu osoa							
Finantziario publikoa	1.956,50	2.105,60	2.264,60	2.468,70	2.646,30	2.875,90	3.096
Finantziario pribatua	738,50	804,40	855,10	950,40	1.021,00	1.099,80	1.193,80
Gastu arrunta							
Finantziario publikoa	1.888,10	2.038,60	2.203,70	2.404,00	2.581,60	2.803,20	3.020,80
Finantziario pribatua	706,20	772	834,30	921,10	987,30	1.068,30	1.161,20
Inbertsioa							
Finantziario publikoa	68,40	67	61	64,70	64,70	72,70	75,20
Finantziario pribatua	32,20	32,30	20,80	29,30	33,80	31,50	32,60
Gastu osoaren % BPGmp-tan	6,470	6,62	6,75	6,94	6,88	6,94	6,95
Gastu osoa biztanle bakoitzeko eurotan	1.296	1.389	1.476	1.614	1.726	1.862	2.002
Gastu publikoaren % EEPPetako gastuari dagokionez	14,61	14,44	14,48	14,88	15,09	15,53	-
BPGmp, euroak milatan (oinarria 2005)	41.647.287	43.930.667	46.226.280	49.241.753	53.305.396	57.289.143	61.763.759
Biztanleria (uztailaren 01)	2.079.219	2.095.144	2.113.659	2.118.312	2.124.593	2.134.855	2.143.011

(a) aurrerapena

Iturria: Osasunaren Kontua, Eustat

Eustatek emandako datuen arabera, osasunean egindako gastu osoa BPGren (ahalegina) %6,95ekoa izan zen 2005ean, eta hori aztertutako OCDEko herrietan egindako baino txikiagoa da. Hala eta guztiz ere, per capita balioetan neurtuta (intentsitatea), EAEk biztanleko 2.446 EAP ditu (erosteko ahalmenaren parekotasuna), eta, horrela, zenbait herriren gainetik dago, adibidez, Finlandia (2.331), Espainia (2.255) eta Portugal (2.033); baina beste batzuen azpitik, esate baterako, AEB (6.401 per capita, mundukorik handiena), Norvegia (4.364) eta Suitza (4.177). Osasunean per capita gasturik handiena duen Europar Batasuneko herria Austria da, biztanleko 3.519 EAP(\$)-gastuarekin.

Publikoa eta pribatua bereizita, osasunean egindako gastu publikoa (herri-administrazioen gastu osoari

dagokionez) %15,5ekoa izan zen 2005ean, eta ia puntu bateko hazkundera izan zuen 2000ko gastuari zegokionez. Adierazle hori zenbait herritako adierazleen gainetik dago, adibidez, Belgika (14,9), Danimarka (14,4), Suedia (13,6) eta Espainia (15,4). BPGren ehunekotzat neurtuta (ahalegina), aztertutako gainerako herrietako adierazleen azpitik dago, Greziaren kasuan izan ezik (%4,3).

Osasunean (osasun-zerbitzuak hornitzeko ardura duten erakundeen arabera: ospitaleak, egoitza- edo erizaintza-instalazioak, anbulatorioko osasun-laguntzaren hornitzaileak, etab.) egindako gastuaren azterketak agerian jarri duenez, horren egitura antzekoa izan da urteetan. Gastu arruntaren %40 ospitaleek egiten dute, %28 anbulatorioko osasun-laguntzako hornitzaileek eta %19,3 osasun-produktuen salmentak (jendeari).

IV.2.4 KOADROA. GASTUAREN ADIERAZLEAK HERRIEN ARABERA, 2005

	Gastu publikoaren % (EEPPko gastuak)	Gastu publik. % (BPG)	Gastu publik. % (Gastu osoa)	Gastu osoar. % (BPG)	Biztanleko gastu osoa (EAP, US\$)	Biztanleko BPG (EAP (\$))
Alemania	17,6	8,2	76,9	10,7	3.287	30.776
Austria	15,5	7,7	75,7	10,2	3.519	34.394
Belgika (z)	14,9	7,4	72,3	10,3	3.389	33.021
Kanada	17,5	6,9	70,3	9,8	3.326	34.057
Danimarka (z)	14,4	7,7	84,1	9,1	3.108	34.110
Espainia (z)	15,4	5,9	71,4	8,2	2.255	27.400
AEB	18,8	6,9	45,1	15,3	6.401	41.827
Finlandia	11,6	5,9	77,8	7,5	2.331	30.911
Frantzia	16,5	8,9	79,8	11,1	3.374	30.350
Grezia	11,5	4,3	42,8	10,1	2.981	29.578
Irlanda	17,0	5,8	78,0	7,5	2.926	39.019
Islandia	18,3	7,9	82,5	9,5	3.443	36.183
Italia	14,1	6,8	76,6	8,9	2.532	28.401
Norvegia	17,9	7,6	83,6	9,1	4.364	48.162
Portugal (z)	15,6	7,4	72,7	10,2	2.033	20.030
Erresuma B. (d)	16,2	7,2	87,1	8,3	2.724	32.896
Suedia	13,6	7,7	84,6	9,1	2.918	32.111
Suitza	-	6,9	59,7	11,6	4.177	35.956
EAE	15,5	5	72,3	6,9	2.446	35.242

EAP: Erroste Ahalmenaren Parekotasuna z: Zenbatespena d: Desberdintasunak metodologian

Iturria: Osasunaren Kontua, Eustat

IV.2.5 KOADROA. OSASUNEN GASTU OSOAREN BILAKAERA HORNITZAILEEN ARABERA, €-AK MILATAN

	2000	2001	2002	2003	2004	
Ospitaleak	1.062.276	1.148.903	1.215.431	1.328.467	1.417.525	39,7
Egoitzako eta erizaintzako instalazioak	191.355	221.901	250.328	295.735	315.843	8,8
Anbulatorioko osasun-laguntzaren hornitzaileak	717.275	788.664	857.375	945.018	995.997	27,9
Osasun-produktuak jendeari saltzea	513.874	537.054	582.924	639.998	688.175	19,3
Osasun publikoko programen administrazioak	21.222	18.115	19.315	21.015	23.150	0,6
Osasunaren administrazioa eta aseguruak	64.955	70.544	85.323	64.941	97.109	2,7
Ekonomiaren gainerakoa	19.980	21.678	23.094	25.006	25.516	0,7
Sailkatu barik	3.386	3.790	4.264	4.935	5.531	0,2
Osasuneko gastu arrunta guztira	2.594.324	2.810.649	3.038.055	3.325.115	3.568.847	100
Kapital-eraketa gordina	100.630	99.353	81.693	93.961	98.518	
OSASUNEN GASTUA GUZTIRA	2.694.954	2.910.002	3.119.748	3.419.076	3.667.364	

Iturria: Osasunaren Kontua, Eustat

Egoitza- eta erizaintza-instalazioak (mendekotasunera bideraturiko osasun-gastua barne) gastu arruntaren %8,8ra heltzen dira, eta talde honexek izan du hazkunderik handiena azterturiko aldian.

2.1.2. Gastua laguntza-jardueran

Laguntzako osasun-jarduera ospitale barrukoa edo ospitaletik kanpokoa izan daiteke (ospitaleetatik kanpo emandako laguntza espezializatua eta oinarritzko laguntza), eta biak publikoak edo pribatuak izan daitezke. Laguntzako osasun-jarduera publikoa Osakidetza eta hitzarturiko zentroek ematen dute, eta pribatua, berriz, zentro pribatuak.

Epigrafe honetako azterketa honako honetan oinarrituz egiten da:

- Eustatek eskainitako datuak, ospitale barruko (*Ospitale Barruko Estatistika*) eta ospitaletik kanpoko (*Ospitaletik Kanpoko Estatistika Publikoa*) sektoreetarako.

Hala eta guztiz ere, lehenengo kasuan informazio erabilgarria dago sektore publikorako eta pribaturako, eta bigarrenean (ospitaletik kanpokoan), ostera, informazioa sektore publikoari buruzkoa baino ez da.

- Osakidetza emandako informazioa, ospitale barruko eta ospitaletik kanpoko laguntzari buruzkoa.

IV.2.6 Koadroa. EAE-ko ospitaletik kanpoko sektore publikoan egindako gastua

	2002	2004	2005	2006	Ald. % 2005/06
JARDUERA EKONOMIKOA (euroak milatan)					
GASTUAK GUZTIRA	323.169	354.638	382.888	402.281	5,1
Gastu arruntak	307.114	344.817	374.624	392.301	4,7
Langileria-gastuak	262.432	291.752	317.130	332.491	4,8
Beste gastu arrunt batzuk	44.682	53.065	57.494	59.810	4
Kapital-gastuak	16.055	9.821	8.264	9.980	20,8
ADIERAZLE EKONOMIKOAK					
Langileria-gast. / Gastua guzt. (%)	81,2	82,3	82,8	82,7	-
Kapital-gastuak / Gastua guzt. (%)	5	2,8	2,2	2,5	-
Biztanleko gastua (euroak)	153	167	181	189	4,4
Gastua / BPG (%)	0,7	0,67	0,67	0,65	-

Iturria: Eustat. Ospitaletik Kanpoko Estatistika Publikoa

IV.2.7 Koadroa. SALMENTAK ETA DIRU-SARRERAK (EUROAK MILATAN)

	2002	2004	2005	2006
SALMENTAK ETA DIRU-SARRERAK GUZTIRA	348.773	389.935	412.192	438.731
- Zerbitzuak ematearen eraginezko diru-sarrerak	341.115	378.813	400.764	425.968
-- Norbanakoak	162	115	130	152
-- Aseguru-erakunde pribatuak	754	1.453	1.352	1.232
-- Laneko istripuen mutualitateak	26.003	32.308	34.972	34.138
-- Osasun Saila	314.003	344.772	364.141	390.279
-- Beste erakunde publiko batzuk	171	161	164	162
-- Zerbitz. Emat. erag. b. diru-sarrera batzuk	21	3	4	4
- Enpresarako egindako lanak	519	471	433	468
- Ustiapenerako diru-laguntzak	1.598	1.681	1.828	1.909
- Kudeaketako beste diru-sarrera batzuk	392	299	559	623
- Finantzako diru-sarrerak	336	313	326	487
- Beste diru-sarrera batzuk	4.814	8.357	8.281	9.277

Iturria: Eustat. Ospitaletik Kanpoko Estatistika Publikoa

Ospitaletik kanpoko jarduera publikoan egindako gastua

Eustaten datuen arabera, EAEko osasun publikoak 402 milioi euro eman zizkion, 2006an, ospitaletik kanpoko osasun-laguntzari, eta, beraz, %5,1eko hazkundea izan zuen aurreko urtetik, EAEko ekonomiak urte horretan izandako %7,8ko hazkundea baino txikiagoa (BPGren hazkunde nominala).

Gastu guztietatik, 392 milioi euro gastu arruntak izan ziren eta 10 milioi inbertsioko gastuak; zenbateko horrek, 2004an eta 2005ean izandako beherakadaren ostean,

%20,8ko hazkundea izan zuen. Langilerian egindako gastu osaren %84,8 izan zen, eta, hortaz, 2 hamarreko beherakada egon zen, 2005ari zegokionez.

Ospitaletik kanpoko laguntza-jarduera EAEko BPGren %0,65ekoa izan zen, eta biztanle bakoitzeko batez besteko gastua 189?-koa izan zen, aurreko urtean baino %4,4 handiagoa.

Ospitaletik kanpoko gastu publikoaren finantziazio-iturri nagusia Osasun Saila da berriro ere, eta, gero, laneko istripuen mutualitateak.

IV.2.8 KOADROA. GASTUAREN BILAKAERA EAE-KO OSPITALE SEKTOREAN

	2002	2003	2004	2005	2006	% 2005-06
JARDUERA EKONOMIKOA (euroak milatan)						
Gastu osoa (arrunta+inbertsioa)	1.227.250	1.318.117	1.402.897	1.513.564	1.651.364	9,1
Gastu arruntak	1.178.018	1.257.624	1.350.474	1.459.257	1.590.343	9
Langileria-gastuak	763.431	807.164	850.760	922.664	1.007.459	9,2
B. gastu arrunt batzuk	414.586	450.460	499.714	536.593	582.884	8,6
Inbertsioa	49.232	60.493	52.423	54.307	61.021	12,4
Diru-sarrera guztira	1.161.050	1.229.149	1.331.643	1.440.098	1.585.618	10,1
Diru-sarrera arruntak	1.130.550	1.200.097	1.300.697	1.406.996	1.552.128	10,3
Salmentak	1.122.503	1.191.669	1.290.505	1.395.618	1.541.772	10,5
Dirulaguntzak	8.045	8.428	10.192	11.378	10.356	-9
Kapitalaren diru-sarrerak	30.500	29.052	30.946	33.102	33.490	1,2
ADIERAZLE EKONOMIKOAK						
Biztanleko gastua (euroak)	580	622	659	716	776	8,4
Gastua/BPG	2,7	2,7	2,6	2,6	2,7	

Iturria: EUSTAT eta Osasun Saila. Eusko Jaurlaritza. Ospitale Barruko Estatistika.

IV.2.9 KOADROA. GASTUAREN BILAKAERA EAE-KO OSPITALE SEKTOREAN (EUROAK MILATAN)

	2003			2004			2005			2006		
	Guztira	Publikoa	Pribatua	Guztira	Publikoa	Pribatua	Guztira	Publikoa	Pribatua	Guztira	Publikoa	Pribatua
Gastua guztira (arrunta+inbertsioa)	1.318.117	1.119.170	198.947	1.402.897	1.186.188	216.710	1.513.564	1.278.414	235.151	1.651.365	1.394.888	256.476
Erosketak eta gastu arruntak guztira	1.257.624	1.073.054	184.570	1.350.474	1.151.173	199.302	1.459.257	1.239.930	219.327	1.590.343	1.351.927	238.416
Langileria-gastuak	85.939	807.164	720.432	86.732	850.760	757.265	93.495	922.664	817.558	105.107	1.007.459	891.158
Inbertsioak guztira	60.493	46.116	14.377	52.423	35.015	17.408	54.307	38.484	15.824	61.022	42.961	18.060
Salmentak eta diru-sarrerak guztira	1.200.097	1.014.446	185.651	1.300.697	1.098.905	201.792	1.406.996	1.180.752	226.244	1.552.128	1.307.908	244.220

Iturria: EUSTAT. Ospitale Barruko Estatistika

Ospitale barruko jarduera publikoan eta pribatuan egindako gastua

Eustaten Ospitale Barruko Estatistikako datuen arabera, EAEko ospitale barruko osasun-gastua (publikoa eta pribatua) 1.651,4 milioi eurokoa izan zen 2006an (aurreko urtean 1.513,6 milioi); EAEko BPGren %2,6 izan zen, eta %9,1eko hazkundea izan zuen, aurreko urteari zegokionez, EAEko ekonomiak PBGrekiko izandako hazkundea (%7,8) baino handiagoa.

Gastu osotik 1.590,3 milioi gastu arruntak dira eta 61 milioi inbertsio-gastuak; biztanle bakoitzeko gastua 776 €-koa izan zen, aurreko urtean baino %8,4 handiagoa.

Titulartasunaren arabera, hau da, sare publikoa eta pribatua bereizita, gastuaren %84,5 publikoa da, eta proportzio hori Europar Batasuneko baino handiagoa da, OMEk adierazi duenez (2004an %74,2), eta honako haue-tan egindakoaren antzekoa: Japonia (%81,3), Danimarka (%82,3), Islandia (%83,4), Norvegia (%83,5) eta Suedia (%84,9), baina baxuagoa Erresuma Batukoa (%86,3) eta Luxenburgokoa (%90,4) baino.

Gastu publikoa eta pribatua hazi egin dira 2005etik 2006ra, eta, gainera, neurri bereko hazkundea izan dute (%+9,1). Aldiz, inbertsioek hazkunde handiagoa izan dute sare pribatuan (%14,1) publikoan baino (%11,6).

Osakidetzak ospitale barruko eta ospitaletik kanpoko jardueran egindako gastua

Osakidetzako aurrekontu-likidazioa EAEko Kontu Orokorretan oinarrituz egiten da, eta agerian jartzen du erakundeak 2006an egindako gastua 1.909,8 milioi eurokoa izan zela (%+7,3ko hazkundea, 2005etik); horrek BPGren %3,09 adierazten du. Hazkunde hori ustiapen-gastuek izandako hazkundeak azaltzen du (langileria, hornidurak eta beste gastu batzuk), inbertsioetan likidaturiko aurrekontuak %18,6ko murriztapena izan baitzuen 2005eko likidazioari zegokionez.

Likidaturiko aurrekontu osotik %3,6 Inbertsioena da (68.619 mila euro), eta %96,4 baino ez da Ustiapen Gastuena; bertan, langileria-gastuak nabarmentzen dira, erakundearen gastu osoaren %66,1).

Aurrekontuaren zenbatekoak 2006an gauzaturikotik duen desbideratzeari dagokionez, hori aurreko bi urteetan egondakoa baino txikiagoa da (6.916: 2005ean 15.186 eta 2004an 117.011 mila euro). Hori, berriz, inbertsioen (aurrekontuan jasotako zenbatekoa baino %12,5 gauzapen txikiagoa) eta ustiapen-gastuen desbideratzeari dagokio. Azken horien kasuan ikusten denez, "hornidurak" partidako desbideratze negatiboak konpentsatu egiten du, neurri batean, "beste gastu batzuk" partidari izandako desbideratze positiboak.

IV.2.10 KOADROA. OSAKIDETZAKO AURREKONTUAK ETA GASTUAREN LIKIDAZIOA (EUROAK MILATAN)

	2004			2005			2006		
	Aurrek.	Likidazioa	Kendura	Aurrek.	Likidazioa	Kendura	Aurrek.	Likidazioa	Kendura
INBERTSIOA	63.109	69.143	-6.034	69.349	84.316	-14.967	78.463	68.619	-9.844
USTIAPEN GASTUA	1.507.048	1.561.549	-54.501	1.694.864	1.695.083	-219	1.838.278	1.841.206	2.928
Langileria	1.059.783	1.081.374	-21.591	1.170.146	1.169.946	200	1.262.528	1.262.350	-178
Hornidurak	315.871	349.244	-33.373	367.015	380.043	-13.028	419.773	414.209	-5.564
Beste batzuk	131.394	130.931	463	157.703	145.094	12.609	155.977	164.647	8.670
GUZTIRA	1.513.681	1.630.692	-117.011	1.764.213	1.779.399	-15.186	1.916.741	1.909.825	-6.916
Gastuaren urte b. besterako aldak. (%)		10,20			9,10			7,30	
Gastua BPGn (%)		3,06			3,11			3,09	

Iturria: Geuk landuta EAEko Kontu Orokorretan oinarrituz


2.2. Osasunaren panorama orokorra eta lehentasunezko arazoak

2.2.1. Bizi-itxaropenaren eta hilkortasun-tasaren adierazleak

Bizi-itxaropena jaiotzean eta bizi-itxaropena osasun onarekin

EAE*n jaiotzako bizi-itxaropenak* goranzko joera dauka, bai emakumeen eta bai gizonen kasuan, eta bi balio horiek Estatuko batez bestekoen gainetik daude. Horrela, INEren datuen arabera (2005ari buruzko datuak), itxaropen hori 80,75 urtekoa da (gizonen kasuan 77,2 eta emakumeen artean 84,26); beraz, 0,8 urteko hobekuntza egon da 2001etik 2005era.

IV.2.1. GRAFIKOA. BIZI ITXAROPENA JAIOTZEAN, SEXUAREN ARABERA (URTEAK)



Iturria: INE

Estatuko batez besteko balioak 76,95 (gizonentzat) eta 83,48 (emakumeentzat) dira; beraz, EAEko bizi-itxaropena, jaiotzean, Estatuko batez bestekoaren gainetik dago. AAE*n* arabera, EAE zazpigarren postuan dago sailkapenean, honako hauen atzetik: Nafarroa (81,51), Madril

IV.2.11 KOADROA. BIZI ITXAROPENA JAIOTZEAN (URTEAK)

	1992	1993	1994	1995	1996	1997	1998	1999	2000	2001	2002	2003	2004	2005
Estatua	77,25	77,52	77,76	77,98	78,11	78,41	78,71	78,78	79,05	79,44	79,67	79,67	79,95	80,23
Andaluzia	76,36	76,61	76,77	77	77,08	77,35	77,56	77,54	77,88	78,28	78,44	78,35	78,58	78,83
Aragoi	78,51	78,72	78,72	78,87	78,89	79,08	79,29	79,39	79,59	80,06	80,23	80,2	80,26	80,5
Asturias	76,64	77	77,12	77,37	77,37	77,84	78,2	78,25	78,51	79,17	79,5	79,35	79,37	79,76
Balearrak	76,36	76,79	77,13	77,3	77,35	77,71	78,29	78,23	78,34	78,95	79,4	79,77	80,21	80,44
Kanariak	76,44	76,58	76,71	77,26	77,31	77,33	77,44	77,46	77,7	78,02	78,58	78,87	78,95	79,16
Kantabria	77,61	77,8	78,09	78,3	78,39	78,59	79,06	79,32	79,29	79,78	80,21	80,19	80,55	80,85
Gaztela eta Leon	78,61	78,9	79,16	79,42	79,55	79,76	79,96	80,02	80,35	80,76	80,94	80,75	81,1	81,28
Gaztela - Mantxa	78,02	78,24	78,38	78,75	78,98	79,25	79,59	79,63	79,95	80,12	80,18	80,35	80,64	80,78
Katalunia	77,39	77,61	77,97	78,18	78,35	78,7	78,94	79,03	79,25	79,74	79,89	79,92	80,26	80,5
Valentzia	76,64	76,89	77,09	77,36	77,49	77,65	78,02	78,11	78,33	78,77	78,89	78,9	79,26	79,57
Extremadura	77,03	77,14	77,49	77,77	77,99	78,09	78,46	78,57	78,72	79,01	79,25	79,17	79,4	79,68
Galizia	77,05	77,36	77,6	77,75	77,84	78,11	78,66	78,86	79,2	79,52	79,88	79,83	80,12	80,44
Madril	77,83	78,16	78,44	78,63	78,85	79,45	79,79	79,93	80,22	80,41	80,63	80,67	80,92	81,39
Murtzia	76,74	77,11	77,49	77,69	78,03	77,89	77,99	77,95	78,05	78,58	78,93	78,99	79,28	79,6
Nafarroa	78,47	78,82	79,1	79,19	79,26	79,66	80,02	79,95	80,39	80,7	80,87	80,85	81,28	81,51
EAE	77,34	77,79	78,12	78,16	78,09	78,51	78,97	79,09	79,43	79,88	80,13	80,15	80,49	80,75
Errioxa	77,81	77,93	78,65	78,9	78,91	79,4	79,67	79,47	79,89	80,51	80,52	80,51	80,91	81,18

1) 2002tik aurrera, erabilitako biztanleria-zifrak Biztanleria Aktiboaren Zenbatespenak dira, eta 2001eko Zentsuan oinarrituz kalkulatu daude. Horrenbestez, ikuskatu egin daitezke.

2) Bizi-itxaropena hilkortasun-tauletatik ondorioztatu da, eta taula horiek, berriz, bi urteko heriotzetan (erreferentziako urtea eta aurrekoa) eta erreferentziako urteko urtarrilaren 1eko biztanlerian oinarrituz kalkulatu daude.

Iturria: INE

(81,39), Gaztela eta Leon (81,28), Errioxa (81,18), Kantabria (80,85) eta Gaztela-Mantxa (80,78).

AAEE bakoitzeko hilkortasun-tasaren jokabide ona sexu eta adin-tarte guztietan ikusten da. Hala eta guztiz ere, azterketatik ondorioztatzen denez, bizi-itxaropenaren hazkundeak aurreko urteetakoak baino txikiagoak dira, hilkortasun-tasen hobekuntzak adin nagusietan gertatzen baitira. Beste modu batera esateko, biztanleriak adin-tarterik nagusienetan izan du aurrerakuntzarik handiena.

EUROSTATen datuek berretsi egin dute jaiotzean dagoen bizi-itxaropenaren joera ona. Hala ere, generoaren arabera desberdintasun garrantzitsuak daude. Horrela, EAEko emakumeen bizi-itxaropena 84,26 urtekoa da, eta hori Madrileko (84,37), Errioxako (84,45), Nafarroako (84,555) eta Gaztela eta Leoneko (84,58) emakumeek soilik gainditzen dute. Aldiz, EAEko gizonen bizi-itxaropena 77,2 urtekoa da, eta hori honako erkidego hauetako gizonen gainditzen dute: Katalunia (77,21), Aragoi (77,36), Balearrak (77,39), Gaztela-Mantxa (77,99), Errioxa (78,02), Gaztela eta Leon (78,08), Madril (78,12), Nafarroa (78,46) eta Kantabria (84,64); baita beste herri batzuetako gizonen ere, esate baterako, Maltakoek (77,25), Irlandakoek (77,29) eta Suediakoek (78,49).

Espainiako autonomia-erkidegoei buruzko informazioa ezabatuta ikusten denez, European luzaroen bizi diren gizonak suediarrek dira, eta gero irlandarrak; eta luzaroen bizi diren emakumeak frantsesak dira, eta gero espainolak.

OCDEren "Health at a glance, 2007" txosteneko datuen arabera, 2005ean OCDE eremuan bizi-itxaropenik handiena zuen herria Japonia zen, 82,1 urterekin (emakumeek 85,5 eta gizonen 78,6); gero, Suitza, Islandia, Australia eta Espainia. Azken hiru postuetan Eslovakia (74 urte), Hungaria (72,8) eta Turkia (71,4) zeuden.

Azkenik, jaiotzean dagoen bizi-itxaropenaren hazkunde iraunkorrak (hilkortasuna murriztearen eraginezkoa) ondorio garrantzitsuak ditu gizartean eta osasunean; adibidez, adinik nagusieneko pertsona kopuruaren hazkunde erlatiboa eta gaixotasun kronikoen nagusitasuna. Testuinguru horretan, osasunaren betiko adierazleak ez dira egokiak biztanleriaren osasun-egoeraren bilakaera azaltzeko. Hain zuzen ere, jakin behar da ea hilkortasun-tasaren hobekuntza iraunkorarekin batera biztanleen osasun mailak ere hobera egiten ote duen; horretarako, biztanleriaren hilkortasuna ez ezik erikortasuna edo ezintasuna ere aintzat hartzen duten osasun-adierazleak erabili behar dira. Ezintasunik Gabeko Bizi Itxaropena (EGBI), Kalitatez

IV.2.12 KOADROA. BIZI ITXAROPENA JAIOTZEAN, EB-N ETA ESTATUAN, SEXUAREN ARABERA, 2005

	Gizonak		Emak.
Lituania	65,31	Errumania	75,70
Letonia	65,37	Bulgaria	76,24
Estonia	67,33	Letonia	76,50
Errumania	68,68	Hungaria	77,17
Hungaria	68,69	Lituania	77,34
Bulgaria	68,99	Eslovakia	78,07
Eslovakia	70,17	Estonia	78,15
Polonia	70,75	Txekiar Errepublika	79,25
Txekiako Errepublika	72,92	Polonia	79,33
Eslovenia	73,94	Danimarka	80,50
Portugal	74,90	Eslovenia	80,86
Finlandia	75,59	Zipre	81,09
Andaluzia	75,60	Erresuma Batua	81,12
Ceuta	75,66	Portugal	81,33
Danimarka	75,96	Malta	81,39
Kanariak	76,09	Ceuta	81,61
Asturias	76,10	Grezia	81,63
Belgika	76,18	Holanda	81,72
Extremadura	76,34	Irlanda	81,72
Valentziako Erkidegoa	76,46	Belgika	81,85
Murtzia	76,50	Melilla	81,88
Luxenburgo	76,63	Alemania	82,03
Melilla	76,65	Andaluzia	82,11
Austria	76,69	Luxenburgo	82,24
Alemania	76,71	Austria	82,27
Frantzia	76,74	kanariak	82,31
Zipre	76,82	Finlandia	82,51
Grezia	76,82	Valentziako Erkidegoa	82,70
Galizia	76,83	Murtzia	82,75
Espainia INE	76,96	Italia	82,77
Espainia Eurostat	76,98	Suedia	82,90
Erresuma Batua	77,08	Extremadura	83,18
Kantabria	77,10	Asturias	83,39
Italia	77,12	Espainia INE	83,48
EAE	77,2	Balearrak	83,53
Katalunia	77,21	Espainia Eurostat	83,66
Holanda	77,25	Gaztela-Mantxa	83,67
Malta	77,25	Aragoi	83,74
Irlanda	77,29	Katalunia	83,76
Aragoi	77,36	Frantzia	83,82
Balearrak	77,39	Galizia	84,00
Gaztela-Mantxa	77,99	EAE	84,26
Errioxa	78,02	Madril	84,37
Gaztela eta Leon	78,08	Errioxa	84,45
Madril	78,12	Nafarroa	84,55
Nafarroa	78,46	Gaztela eta Leon	84,58
Suedia	78,49	Kantabria	84,64

Iturria: Eurostat

Egokituriko Bizi Itxaropena (KEBI) edo, modu orokorragoan, **osasun oneko bizi-itxaropenaren** adierazleak, izatez ere, adierazle talde horren barrukoak dira. Horri buruzko informazio gehiago lortzeko, 2004ko eta 2006ko Memoria Sozioekonomikoa irakur daitezke, ez baitago datu gaurkotuagorik.

Hilkortasuna. Hiltzeko zergati nagusiak

2006ko heriotzen behin-behineko zifra, Eustaten datuen arabera, 17.912koa izan zen; horietatik 9.452 gizonak izan ziren, eta 8.460 emakumeak. Horrenbestez, 2005ean baino 1.513 heriotza gutxiago egon zen, eta horrek %7,8ko murriztapena adierazten du. Murriztapen hori, neurri desberdinean bada ere, generoaren ikuspegitik gertatu da. Horrela, emakumeen artean, heriotza kopuruak 636ko murriztapena izan du, hau da, %7koa; gizonen artean, berriaz, %8,5eko murriztapena izan du.

Gaixotasunen prebentzioan eta tratamenduan egon diren aurrerakuntzen ondorioz, azken urteotako heriotza asko adin nagusiagoko taldeetan gertatzen dira. Beste modu batera esateko, biztanleria "laugarren adinera" heldu da. horrela, 70-79 urteko taldean 4.530 pertsona hil dira, 80-89ko taldean 6.170, 90-99ko taldean 2.995, eta 99 urtetik gorakoan 126.

70-99 adin taldeari dagokionez, eta 2004ko joera hautsi ondoren (80-89 adin taldean 90-99 taldean baino

heriotza gehiago), 2006an (2005ean bezala), 70-79 eta 80-89 taldeetan heriotzen proportzioak behera egin zuen, eta horiek hurrengo adin taldera lekualdatu ziren (90-99).

Heriotzaren zergatien aldetik, aipagarria da heriotzarik gehienak (%30,5), lehenengoz, tumoreen ondoriozkoak izan zirela. Aurreko urteetan, heriotzarik gehien zirkulazio-sistemako gaixotasunek eragin zituzten, eta horiek, 2006an, heriotza guztien %30 izan ziren. Ondoren, eta horietatik urrunago, arnas aparatuko gaixotasunak daude, heriotza guztien %9,5arekin (1.699).

Eurostaten datuen arabera, EB-27an heriotzaren eragile nagusiak (baita EB-25ean eta EB-15ean ere), 2006an, honako hauek izan ziren: lehenengo eta behin, zirkulazio-aparatuko gaixotasunak (100.000 pertsonako 247); bigarrenaz, neoplasia gaiztoak (100.000 pertsonako 180); hirugarrenaz, arnas aparatuko gaixotasunak (100.000 pertsonako 46,4); eta, laugarrenaz, digestio-aparatuko gaixotasunak (100.000 pertsonako 32,3). Gizonen eta emakumeen heriotza-tasa estandarizatueta alde handiak daude. Horrela, zirkulazio-aparatuko gaixotasunetan, 100.000 gizoneko 303 heriotza daude, eta emakumeen kasuan 201; eta minbiziaren kasuan 100.000 gizoneko 238 gizon eta 137 emakume hiltzen dira.

Bestalde, urtebetetik beherako haurren hilkortasunak gora egin du, 2005ari dagokionez; hain zuzen ere, 57tik 61era, neskek izandako %76,2ko hazkundearen eraginez,

IV.2.2. GRAFIKOA. HERIOTZEN BANAKETAREN BILAKAERA 70-99 URTEKO TALDEAN



hildako urtebetetik beherako haurren kopuruak behera egin baitu aurreko urteari dagokionez.

Beraz, 2006ko behin-behineko datuekin, jaiotza kopurua (20.143) heriotza kopurua (17.912) baino handiagoa da, eta EAEko hazkunde begetatiboa (biztanleriak jaiotza eta

heriotza kopuruaren arteko kenduraren ondorioz duen al-daketa, migrazio-mugimenduak kontuan hartu barik) orain ere positiboa da (2.131 pertsona, hau da, milako 1). Hiru lurraldeetan egon dira saldo positiboak: Araban 783, Bizkaian 134 eta Gipuzkoan 1.314.

IV.2.13 KOADROA. HERIOTZAK SEXUAREN ETA LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA

	EAE			Araba			Bizkaia			Gipuzkoa		
	Guzt.	Gizonak	Emak.	Guzt.	Gizonak	Emak.	Guzt.	Gizonak	Emak.	Guzt.	Gizonak	Emak.
1998	18.151	9.648	8.503	2.104	1.157	947	10.071	5.328	4.743	5.976	3.163	2.813
1999	18.396	9.801	8.595	2.272	1.227	1.045	10.110	5.392	4.718	6.014	3.182	2.832
2000	18.242	9.801	8.441	2.191	1.202	989	10.214	5.469	4.745	5.837	3.130	2.707
2001	18.087	9.670	8.417	2.219	1.223	996	10.008	5.351	4.657	5.860	3.096	2.764
2002	18.619	9.875	8.744	2.166	1.134	1.032	10.430	5.524	4.906	6.023	3.217	2.806
2003	19.305	10.050	9.255	2.357	1.229	1.128	10.684	5.584	5.100	6.264	3.237	3.027
2004	18.684	9.770	8.914	2.275	1.197	1.078	10.388	5.483	4.905	6.021	3.090	2.931
2005	19.425	10.329	9.096	2.498	1.394	1.104	10.811	5.709	5.102	6.116	3.226	2.890
2006 (b)	17.912	9.452	8.460	2.152	1.155	997	10.010	5.299	4.711	5.750	2.998	2.752
05-06ko kend.	-1.513	-877	-636	-346	-239	-107	-801	-410	-391	-366	-228	-138
05-06ko ald. %	-7,8	-8,5	-7	-13,9	-17,1	-9,7	-7,4	-7,2	-7,7	-6	-7,1	-4,8

(b) Behin-behineko datuak.

Iturria: EUSTAT. Heriotzen Estatistika.

IV.2.14 KOADROA. HERIOTZAK ADINAREN ARABERA, EAE-N

	<1	1-9	1-19	20-29	30-39	40-49	50-59	60-69	70-79	80-89	90-99	>=100
1997	84	29	68	245	500	719	1.040	2.636	4.397	5.511	2.232	74
1998	99	33	60	235	423	638	1.155	2.607	4.731	5.760	2.351	59
1999	81	17	53	228	376	663	1.190	2.422	4.794	5.852	2.633	87
2000	53	27	67	215	394	646	1.272	2.415	4.855	5.689	2.541	68
2001	60	22	41	181	356	601	1.263	2.305	4.811	5.682	2.667	98
2002	61	23	48	162	327	660	1.280	2.304	4.834	6.020	2.777	123
2003	62	19	43	148	300	696	1.304	2.184	4.955	6.379	3.075	140
2004	79	23	40	122	274	665	1.289	1.997	4.776	6.323	2.986	110
2005	57	21	37	134	280	593	1.310	1.968	4.955	6.752	3.171	147
2006 (b)	61	14	24	105	221	621	1.186	1.859	4.530	6.170	2.995	126

(b) Behin-behineko datuak.

Iturria: EUSTAT. Heriotzen Estatistika.

IV.2.15 Koadroa. URTEBETETIK BEHERAKOEN HERIOTZAK, HILABETEA, SEXUAREN ARABERA

	EAE			Araba			Bizkaia			Gipuzkoa		
	Guzt.	Gizonak	Emak.	Guzt.	Gizonak	Emak.	Guzt.	Gizonak	Emak.	Guzt.	Gizonak	Emak.
1998	99	48	51	11	5	6	49	24	25	39	19	20
1999	81	48	33	8	6	2	45	28	17	28	14	14
2000	53	23	30	8	4	4	25	8	17	20	11	9
2001	60	36	24	5	5	0	30	18	12	25	13	12
2002	61	33	28	8	4	4	31	17	14	22	12	10
2003	62	33	29	5	4	1	36	17	19	21	12	9
2004	79	38	41	8	4	4	41	18	23	30	16	14
2005	57	36	21	8	4	4	25	17	8	24	15	9
2006 (b)	61	24	37	9	6	3	36	12	24	16	6	10
05-06ko ald. %	7	-33,3	76,2	12,5	50	-25	44	-29,4	200	-33,3	-60	11,1

(b) Behin-behineko datuak.

Iturria: EUSTAT. Heriotzen Estatistika.

IV.2.16 Koadroa. HERIOTZAK ERAGILEAREN ARABERA

	EAE									
	1999	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006 (b)		
								k	%	
GUZTIRA	18.396	18.242	18.087	18.619	19.305	18.684	19.425	17.912	100,0	
Tumoreak	5.180	5.378	5.496	5.467	5.548	5.479	5.462	5.457	30,5	
Zirkulazio Sistema	6.070	5.900	5.743	5.891	5.891	5.775	5.891	5.378	30,0	
Arnas Sistema	1.956	1.962	1.649	1.944	2.066	1.788	2.214	1.699	9,5	
Digestio Sistema	930	957	979	954	1.041	1.013	950	913	5,1	
Istripuak	846	831	760	795	806	745	776	622	3,5	
Gainerako gaixotas.	3.414	3.214	3.460	3.568	3.953	3.884	4.132	3.843	21,5	
Ehuneko banaketaren bilakaera, hiltzeko bi eragile nagusien artean:										
Tumoreak	28,2	29,5	30,4	29,4	28,7	29,3	28,1		30,5	
Zirkulazio Sistema	33,0	32,3	31,8	31,6	30,5	30,9	30,3		30,0	

(b) Behin-behineko datuak.

Iturria: EUSTAT. Heriotzen Estatistika; Eurostat "Health in Europe, 2006"

Garaiz aurreko hilkortasuna. Galdutako Ahalezko Bizi Urteak (GABU)

Adierazle hau sortzeko (irizpide komunak dituen eta behaketa epidemiologiko prospektibo baten barruan dagoen pertsona talde baterako), garaiz aurretik (70 urte baino lehen) hildako pertsonen bizi ez dituzten bizi-urteen kopuru osoa hartzen da oinarritzat (hiltzeko adinaren eta 70 urteen arteko kenduren batuketa metatua). Horrela, Galdutako Ahalezko Bizi Urteak (GABU) neurri egokiak dira

osasun publikoan, eta agerian jartzen dute hilkortasunak biztanlerik gazteenen artean duen eragina.

Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak emandako datuen arabera, emakumeen garaiz aurreko hilkortasunaren eragile nagusiak, 2006an, honako hauek izan ziren, garrantziaren arabera ordenatuta: bularreko tumore gaiztoak; trakeako, bronkioetako eta birikako tumore gaiztoak; bigarren mailako edo txarto zehaztutako tumore gaiztoak; entzefaloko tumore gaiztoak eta motorreko ibilgailuekin

izandako trafiko-istripuak. Beraz, horietan edota euren garrantziaren ordenan desberdintasunak ikusten dira, 2004ko erregistroei dagokienez, azken horiek honako hauek izan baitziren, garrantziaren arabera ordenatuta: bularreko tumore gaiztoak; trakeako, bronkioetako eta birikako tumore gaiztoak; motorreko ibilgailuekin izandako trafiko-istripuak; norbere burua hiltzeak eta norbere buruari eragindako lesioak; burmuineko gaixotasunak eta baskularrak, eta koloneko tumore gaiztoak.

Egoera 2004koarekin konparatuta ikusten denez, GABUetan eta hilkortasun-tasan (gordina eta egokitua)

hazkundeak ikusten dira, honako kasu hauetan: bularreko tumore gaiztoak; trakeako, bronkioetako eta birikako tumore gaiztoak; burmuineko gaixotasunak eta baskularrak; bigarren mailako edo txarto zehazturiko tumore gaiztoak; entzefaloko tumore gaiztoak; uteroko tumore gaiztoak; obulutegiko tumore gaiztoak; pankreako tumore gaiztoak; eta ondesteko eta uzkiko tumore gaiztoak. Halaber, beharakadak egon dira motorreko ibilgailuekin izandako trafiko-istripuetan, kardiopatia iskemikoan, HIESean, koloneko tumore gaiztoetan, burua hiltzean eta norbere buruari lesioak eragitean, zirrosian eta gibealeko gaixota-

IV.2.17 KOADROA. GALDUTAKO AHALEZKO BIZITZA URTEAK SEXUAREN ARABERA, ETA ZERGATI NAGUSIAK

	GABU	T. gord*	T. estand.*	GABU	T. gord*	T. estand.*
	Hombres 2004			Hombres 2006		
Trakeako, bronkioetako eta birikako TM	4.645	5,26	4,73	4.823	5,3	4,62
Kardiopatia iskemikoa	3.395	3,82	3,41	3.373	3,71	3,2
Trafiko-istripuak motorreko ibilgailuekin	3.772	4,24	4,14	2.955	3,25	3,22
N. burua hiltzea eta norb. buruari lesioak eragitea	2.698	3,03	2,64	2.190	2,41	2,07
Zirrosia eta gibealeko gaixotasun kronikoak	1.905	2,14	1,92	1.875	2,06	1,8
Burmuineko gaixotasunak edota baskularrak	1.815	2,04	1,78	1.575	1,73	1,52
Drogen bidezko ezusteko pozoitzea	865	0,97	0,77	1.318	1,45	1,19
HIESa	1.855	2,09	1,68	1.303	1,43	1,18
TMak txarto zehazturiko lekuetan, bigarren mail.	1.195	1,34	1,19	1.285	1,41	1,22
Koloneko TM	1.073	1,21	1,1	1.108	1,22	1,07
Espainiako, ahoko eta faringeko TM	1.093	1,23	1,11	1.058	1,16	1,03
Entzefaloko TM				998	1,1	0,98
Urdaileko TM	950	1,07	0,95	888	0,98	0,84
Pankreako TM				820	0,9	0,78
Itotzea, urperatzea.				744	0,82	0,98
Ezusteko erortzeak	892	1	0,91			
Hestegorriko TM	878	0,99	0,92			
Laringeko TM	798	0,9	0,84			
	Gizonak 2004			Gizonak 2006		
Bularreko TM	2.060	2,34	2,02	2.253	2,51	2,09
Trakeako, bronkioetako eta birikako TM	1.420	1,61	1,37	1.445	1,61	1,34
Burmuineko gaixotasunak edota baskularrak	635	0,72	0,69	728	0,81	0,67
TMak txarto zehazturiko lekuetan, bigarren mail.	543	0,62	0,53	635	0,71	0,58
Entzefaloko TM	510	0,58	0,5	615	0,68	0,57
Trafiko-istripuak motorreko ibilgailuekin	883	1	1,1	590	0,66	0,79
Kardiopatia iskemikoa	553	0,63	0,53	513	0,57	0,47
Obulutegiko TM	358	0,41	0,35	503	0,56	0,48
HIESa	533	0,61	0,48	503	0,56	0,45
Koloneko TM	613	0,7	0,59	478	0,53	0,44
N. burua hiltzea eta norb. buruari lesioak eragitea	853	0,97	0,82	448	0,5	0,42
Zirrosia eta gibealeko gaixotasun kronikoak	575	0,65	0,55	428	0,48	0,42
Uteroaren lepoiko TM	333	0,38	0,31			
Uteroko beste leku batzuetako TM				360	0,4	0,33
Pankreako TM				335	0,37	0,31
Ondesteko eta uzkiko TM				315	0,35	0,29
Urdaileko TM	390	0,44	0,38			
Zirk. sistemako sortzetiko malformazioa	388	0,44	0,68			

* 1.000ko tasa gordina eta adinaren arabera tasa estandarizatua, Europako biztanlerian oinarrituz.

Iturria: Hilkortasun Erregistroa. Osasun Planifikazioko eta Antolamenduko Zuzendaritza.

IV.2.18 KOADROA. 100.000 BIZTANLEKO ALTAK, GAIXOTASUN TALDE NAGUSIEN ARABERA, ETA OSPITALERATZEKO AUTONOMIA ERKIDEGO BAKOITZEKO 45 URTETIK BEHERAKO ETA 65 URTETIK GORAKO BIZTANLEAK. 2005

Autonomia Erkidegoa	1. taldea	2. taldea	3. taldea	4. taldea	5. taldea	<45 urteko biztanl. %	<65 urteko biztanl. %
Estatua guztira	1.386	1.384	1.270	1.146	916	60%	17%
Andaluzia	1.645	1.169	1.139	820	752	64%	15%
Aragoi	1.207	1.519	1.419	1.252	1.045	55%	21%
Asturias (Printzerria)	906	2.035	1.267	1.487	932	51%	22%
Balearrak	1.378	1.643	1.731	1.552	750	63%	14%
Kanariak	1.407	1.221	1.095	807	641	66%	12%
Kantabria	1.128	1.637	1.262	1.241	852	56%	19%
Gaztela eta Leon	1.062	1.558	1.431	1.250	1.042	53%	23%
Gaztela-Mantxa	1.264	1.247	1.175	1.163	699	60%	19%
Katalunia	1.338	1.502	1.315	1.357	1.059	59%	17%
Valentziako Erkidegoa	1.440	1.349	1.303	1.184	921	61%	16%
Extremadura	1.290	1.381	1.348	1.175	782	59%	19%
Galizia	1.133	1.504	1.247	1.304	995	54%	21%
Madrilgo Erkidegoa	1.462	1.251	1.231	1.056	1.005	62%	15%
Murtziako Eskualdea	1.909	1.303	1.275	1.114	774	66%	14%
Nafarroako Foru Erkideg.	1.305	1.341	1.424	1.240	1.442	58%	18%
EAE	1.127	1.634	1.379	1.334	1.040	55%	18%
Errioxa	1.376	1.456	1.240	1.171	918	57%	19%
Ceuta	2.525	1.079	1.108	1.123	455	67%	12%
Melilla	3.350	808	745	853	413	69%	11%

1. TALDEA: Haurdunaldiko, erditzeko eta puerperioko arazoak. 2. TALDEA: Zirkulazio-aparatuko gaixotasunak. 3. TALDEA: Digestio-aparatuko gaixotasunak. 4. TALDEA: Arnas aparatuko gaixotasunak. 5. TALDEA: Neoplasiak (tumoreak)

Iturria: INE

sun kronikoetan, urdaileko tumore gaiztoetan, eta zirkulazio aparatuko sortzetiko malformazioetan.

EAEko gizonen kasuan, 2006an, GABUren zergati nagusiak trakeako, bronkioetako eta birikako tumore gaiztoak; kardiopatia iskemikoa; motorreko ibilgailuen trafiko-istripuak; burua hiltzea eta norbere buruari lesioak eragitea; zirrosia eta gibealeko gaixotasunak, eta burmuineko nahiz muskuluetaiko gaixotasunak izan ziren.

Egoera 2004koarekin konparatuta ikusten denez, GABUak eta hilkortasun tasak (gordina eta egokitua) handitu egin dira trakeako, bronkioetako eta birikako tumore gaiztoetan, drogen eraginezko ezusteko pozoitzeetan, txarto zehazturiko lekuetaiko tumore gaiztoetan, koloneko

tumore gaiztoetan, entzefaloko tumore gaiztoetan, pankreako tumore gaiztoetan, eta urperatzearen eraginezko itotzeetan; aldiz, urritu egin dira kardiopatia iskemikoan, trafiko-istripuetan, burua hiltzean nahiz norbere buruari eragindako lesioetan, zirrosian zein gibealeko gaixotasunetan, burmuineko gaixotasunetan nahiz baskularretan, HIESean, ahoko zein laringeko tumore gaiztoetan, eta urdaileko tumore gaiztoetan.

2.2.2. Erikortasunaren adierazleak

Erikortasuna gaixotasun batek biztanleria jakinean dituen eraginen ikerketa da, leku eta aldi jakinean gaixotzen den pertsona kopuruari dagokionez.

Ospitaleko erikortasuna

INEren Ospitaleko Erikortasunaren Inkestan² jasotako datuen arabera, (2007ko apirilean 2005eko datuekin argitaraturiko inkesta), EAEn ospitaleratze zergati nagusiak zirkulazio-aparatuko gaixotasunak dira oraindik ere: 100.000 biztanleko 1.634 alta (guztizkoaren %25,1). Bigarrenez, digestio-aparatuko gaixotasunak daude, 1.379 altarekin (guztizkoaren %21,2); hirugarrenez, arnas aparatuko gaixotasunak (1.334 alta), eta, laugarrenez, neoplasiak-tumoreak (1.040 alta).

Bederatzi AAEtan, zirkulazio-aparatuko gaixotasunak lehenengo postuan daude, 100.000 biztanleko alta kopuruan. Hala eta guztiz ere, zortzi erkidegotan (Andaluzia, Kanariak, Gaztela-Mantxa, Valentzia, Madril, Murtzia, Ceuta eta Melilla), alta-tasari handiena haurdunaldiko, erditzeko eta puerperioko arazoetan egon zen.


Horrela, arazo talde horrek (haurdunaldia, erditzea eta puerperioa), Estatuan, mantendu egin du azken urteotako goranzko joera; eta, 2004an zirkulazio-aparatuko gaixota-

sunek eragindako altekin parekatu ondoren, gainditu egin du azken horien kopurua. 2005ean 1.386 alta egon ziren, hau da, ospitaleratze guztien %12,9. Bigarrenez, zirkulazio-aparatuko gaixotasunen eraginezko ospitaleratzeak egon ziren, 1.384 altarekin (guztizkoaren %12,8). Ondoren, digestio-aparatuko gaixotasunen eraginezkoak (1.270 alta eta %11,8ko ehunekoa), arnas aparatuko gaixotasunen eraginezkoak (1.146 eta %10,6) eta tumoreen eraginezkoak (916 alta eta %8,5).

OCDEren "Health at a Glance, 2005" txostenean jasotako datuen arabera, OCDEko herrietan, 2003an, ospitaleratzearen eragile nagusiak zirkulazio-aparatuko gaixotasunak ziren, eta, gero, honako hauek: digestio-aparatuko gaixotasunak, kanpoko eragileak (istripuak, indarkeria eta pozoitzea), haurdunaldia eta erditzea, arnas aparatuko gaixotasunak eta minbizia. 2007ko txostenak ez du horri buruzko informazio gaurkoturik eskaintzen.

INEk ez du autonomia-erkidegoen araberrako informaziorik eskaintzen, honako honi buruz: *100.000 biztanleko*

IV.2.3. GRAFIKOA. 1. TALDEKO (HAURDUNALDIKO, ERDITZEKO ETA PUERPERIOKO ARAZOAK) ALTEN TIPOLOGIA, TALDEAREN OSPITALERATZE OSOARI DAGOKIONEZ, 2005 (EHUNEKOAK)



² Ospitaleko Erikortasunaren Inkestaren helburu nagusia alta hartu duten gaixoen (ospitalean barnetegi-araubidean sartu direnak) demografia- eta osasun-ezaugarriak ezagutzea da, baita Estatu eta probintzia mailako informazioa edukitzea ere, ospitale-baliabideek erreferentziako urtean duten erabilerrari eta maiztasunari buruz.

Inkestan Espainiako ospitaleen %85i buruzko informazioa jasotzen du, 2005ari dagokionez. Osasun-informazioa, bestalde, gaixoak jasotzen duen ospitaleko altaren txostenean adierazitako diagnostiko nagusian oinarritzen da (ospitalean sartzea eragin duen diagnostikoa, gaixoarekin arduratu hartu duen zerbitzu klinikoaren arabera).

2005etik aurrera, datuek 4 digituko desagregazioa dute, diagnostiko nagusian, Gaixotasunen Nazioarteko Sailkepenaren arabera (CIE-9-MC). Urte horretatik, argitalpenaren barruan Nazioarteko Zerrenda Murriztua dago jasota, Eurostatek, OCDEk eta OMEek adosturiko diagnostikoei buruzkoa, Ospitaleko Erikortasunaren datuen zabalkunderako.

altak, gaixotasun talde nagusien eta sexuaren arabera. Ikerketa generoaren ikuspegitik egiteko, balio absolutuen ikerketara jo behar da. Bertan oinarrituz ondorioztatzen denez, emakumeak ospitaleratzearen eragile nagusiak haurdunaldiari, erditzeari eta puerperioari lotutako arazoak dira (Estatuan guztizkoaren %24 eta EAEn %19,7). Talde horren barruan, alta kopururik handiena, bai Estatuan eta

bai EAEn, haurdunaldiko, erditze-laneko eta erditzeko zaintzei dagokie, eta gero haurdunaldiko arazoei, erditzean zeharreko arazoei eta erditze arruntei.

INEren datuen arabera, haurdunaldiari, erditzeari eta puerperioari lotutako arazoen eraginezko altak alta guztien %21,5 izatetik (2000n) %24 izatera (2005ean) igaro dira Estatuan, eta %18tik %19,7ra EAEn. Balio absolutuetan,

IV.2.19 KOADROA. OSPITALEKO ALTAK SEXUAREN ARABERA. BALIO ABSOLUTUAK

	ESTATUA					EAE				
	Guztira	Gizonak		Emakumeak		Guztira	Gizonak		Emakumeak	
	Absol.	Absol.	% bertik.	Absol.	% bertik.	Absol.	Absol.	% bertik.	Absol.	% bertik.
Guztira	4.678.130	2.175.998	100	2.502.132	100	239.735	119.203	100	120.532	100
001-139 i gaixotasun infekzio- soak eta parasitarioak	80.845	47.136	2,2	33.709	1,3	3.574	2.106	1,8	1.468	1,2
140-239 ii neoplasiak	397.561	207.496	9,5	190.065	7,6	21.934	11.960	10	9.973	8,3
240-279 iii gaixotasun endokri- noak, nutrizioak eta metaboli- koak, eta immunitatearen arazoak	79.207	32.062	1,5	47.145	1,9	3.410	1.494	1,3	1.916	1,6
280-289 iv odoleko eta organo he- matopoietikotako gaixotasunak	39.147	18.597	0,9	20.550	0,8	2.373	1.150	1,0	1.223	1,0
290-319 v buruko arazoak	114.768	62.568	2,9	52.199	2,1	7.444	4.161	3,5	3.283	2,7
320-389 vi nerbio-sistemako eta zentzumenetako gaixotasunak	152.208	72.980	3,4	79.228	3,2	5.802	2.790	2,3	3.012	2,5
390-459 vii zirkulazio-sistemako gaixotasunak	600.527	335.177	15,4	265.350	10,6	34.444	19.740	16,6	14.703	12,2
460-519 viii arnas aparatuko gaixotasunak	497.361	300.750	13,8	196.611	7,9	28.135	16.986	14,2	11.149	9,2
520-579 ix digestio-aparatuko gaixotasunak	551.340	315.545	14,5	235.795	9,4	29.074	17.096	14,3	11.978	9,9
580-629 x gernu-aparatu genita- leko gaixotasunak	265.915	102.192	4,7	163.723	6,5	12.688	5.549	4,7	7.139	5,9
630-677 xi haurdunaldiko, erdit- zeko eta puerperio arazoak	601.632			601.632	24	23.760			23.760	19,7
680-709 xii larruazaleko eta ho- rren azpiko ehuneko gaixotasunak	49.749	27.973	1,3	21.776	0,9	2.882	1.706	1,4	1.176	1,0
710-739 xiii sistema osteo- mioartikularreko eta ehun ko- nektiboko gaixotasunak	305.798	143.034	6,6	162.763	6,5	17.678	8.795	7,4	8.883	7,4
740-759 xiv sortzetiko anomaliak	41.854	23.040	1,1	18.814	0,8	1.648	872	0,7	776	0,6
760-779 xv aldi perinatalean sorturiko gaixotasunak	69.139	37.956	1,7	31.183	1,2	1.811	955	0,8	857	0,7
780-799 xvi txarto zehazturiko sintomak, zeinuak eta egoerak	228.408	123.455	5,7	104.953	4,2	12.588	6.889	5,8	5.699	4,7
800-999 xvii lesioak eta pozoit- zeak	389.860	214.598	9,9	175.262	7,0	19.676	11.226	9,4	8.450	7,0
V. kodeak (diagnostiko nagusiak bakarrik) osasunean eragina duten faktoreen sailkapena	124.556	59.213	2,7	65.342	2,6	7.242	3.540	3,0	3.702	3,1
Diagnostikorik gabeko altak	88.256	52.224	2,4	36.033	1,4	3.573	2.188	1,8	1.385	1,1

Iturria: INE

halako arazoen eraginezko ospitaleratze alten kopurua, 2005ean, 23.760koa izan da EAEn. Jaiotza kopurua, Eus-tatek emandako behin-behineko datuen arabera, 19.715koa izan da.

Bestalde, gizonen kasuan, ospitaleratzetik gehien era-gin dituzten gaixotasunak honako hauek dira, garrantziaren arabera ordenatuta: zirkulazio-aparatukoak (guztizkoaren %16,6), digestio-aparatukoak (%14,3), arnas aparatukoak (%14,2), neoplasiak (%10) eta lesioak eta pozoitzeak

(%9,9). Estatuan, ordena aldatu egiten da apur bat. Ho-rrela, ospitaleratzetik gehien eragin dituzten gaixotasunak honako hauek izan dira: zirkulazio aparatukoak (%15,4), di-gestio aparatukoak (%14,5), arnas aparatukoak (%13,8), lesioak zein pozoitzeak (%9,9) eta tumoreak (%9,5).

Nahitaez Aitortzeko Gaixotasunak (NAG)

Osasun Publikoaren eginkizunetarikoa bat transmi-siozko gaixotasunak kontrolatzea da.

IV.2.20 KOADROA. NAHITAEZKO AITORPENA DUTEN GAIXOTASUNEN BILAKAERA EAE-N

	KASU KOPURUA				2007KO IND.	
	2005	2006 b	2007 b	KEN. 2006-07	IE1 b	IE 2 b
Botulismoa	0	0	0	0	-	-
Kolera	0	0	0	0	-	-
Disenteria	43	3	5	2	1,25	2,50
Sukar tifo-paratifikoa	3	4	3	-1	0,75	1,50
Trikinosia	0	0	3	3	-	-
Gaixotasun meningokozikoa	100	37	27	-10	0,71	0,48
Gripea	59.593	22.365	27.526	5.161	1,23	0,93
Legionelosisia	114	31	15	-16	0,45	0,60
Meningitis tuberkuloso	11	1	2	1	2,00	0,67
Tuberkulosia	489	179	147	-32	0,70	0,73
Barizela	10.752	5.257	9.487	4.230	1,79	1,57
Infekzio gonokozikoa	56	8	35	27	1,46	2,33
Sifilia	39	9	30	21	1,30	3,75
Difteria	0	0	0	0	-	-
Parotiditisa	52	75	1.145	1.070	14,31	63,61
Poliomielitisa	0	0	0	0	-	-
Errubeola	15	1	1	0	1,00	1,00
Elgorria	0	0	0	0	-	-
Tetanoak	1	3	3	0	3,00	0,00
Tosferina	5	7	6	-1	0,86	1,50
A hepatitis	99	66	16	-50	0,23	0,59
B hepatitis	28	8	13	5	1,18	1,18
C hepatitis	11	6	3	-3	0,38	0,50
B. hepatitis biriko batzuk	0	0	0	0	-	-
Bruzelosia	0	0	0	0	-	-
Amorrua	0	0	0	0	-	-
Sukar horia	0	0	0	0	-	-
Paludismoa	19	10	3	-7	0,30	0,43
Izurria	0	0	0	0	-	-
Exantema-tifusa	0	0	0	0	-	-
Legenarra	0	0	0	0	-	-
Sortzetiko errubeola	0	0	0	0	-	-
Sortzetiko sifilia	0	0	0	0	-	-
Jaioberrien tetanoak	0	0	0	0	-	-

I.E.1 (1. indize epidemikoa) aipaturiko aldian gaixotasun baterako aurkezturiko kasuen eta aurreko urteko aldi berean gaixotasun horrexetarako au-rkezturiko kasuen arteko neurria da.

I.E.2 (2. indize epidemikoa) aipaturiko aldian gaixotasun baterako aurkezturiko kasuen eta aurreko bosturtekoan gaixotasun horrexetarako aurkezturiko kasuen batez bestekoaren arteko neurria da.

Iturria: EAEko Aldizkari Epidemiologikoak. Azkena, 21ean. (b) Behin-behineko datuak.

EAEko bizi-baldintzen hobekuntzak eta osasun-sistemaren garapenak hobetu egin dute gaixotasun infekzioso askoren eragina, baina gaixotasun horiek oraindik ere oso arazotsuak dira osasunerako. Aspaldiko zenbait gaixotasun ez ezik (adibidez, tuberkulosia ?eragin gero eta urriagoa? eta elgorria ?desagertzeko bidean?), beste zenbait gaixotasun ere agertzen dira aldian behin, gaixotasun sorberriak, eta, horrenbestez, epidemiologia-zaintza egokia behar da.

Epidemiologia Zaintzako Sistemaren helburua informazio azkarra eta fidagarria eskaintzea da, transmisiozko gaixotasunen eta broteen kontrolerako eta prebentziorako ekintzak ahalbidetzeko, Euskal Autonomia Erkidegoan.

EAEko azken Epidemiologia Aldizkariko datuen arabera (2007ko lehenengo 20 asteei buruzko datuak), parotiditis (+1.070) eta barizela (+4.230) kasuek gora egin dute.

Bestalde, aipagarriak dira gripe-kasuen gorakada (+5.161) eta gaixotasun meningokozikoaren (-10), tuberkulosiaren (-32) eta A hepatitisaren (-50) beherakada.

1. indize epidemikoaren azterketatik (aurreko urteko aldi berarekiko konparazioa) ondorioztatzen denez, 2007an parotiditisen, tetanoen, meningitis tuberkulosoaren eta barizelaren kasuek gorakada nabaria izan dute, 2006ari dagokionez; eta 2. indize epidemikoan dagoen ikerketan (aurreko bosturtekoko batez bestekoarekiko konparazioa) ateratzen den ondorioaren arabera, parotiditisaren, sifiliaren, infekzio gonokozikoaren eta disenteria kasu kopuruak gora egin du.

2.2.3. Trafiko-istripuak

Bide Segurtasuneko 2003-2006 Plan Estrategikoaren helburua hau da: "trafiko-istripuak ekiditea, ezbehartasun murriztu eta Bide Segurtasuna sustatuz, funtsezko hiru zutabetan jardunda: erabiltzailea, ibilgailua eta bidea".

Planeko Memoria 2007ko maiatzaren 14an argitaratu zen, eta, bertan ikusten denez, arrakasta handia lortu da, 2001ean 2003-2006 aldirako planteaturiko helburu nagusia bete egin baita: "EAEko trafiko-istripuetan hildako pertsona kopurua %20an murriztea 2006rako, 2001eko kopuruari dagokionez". Hain zuzen ere, %38ko murriztapena egon da.

Hala ere, hiri-bideak eta hiri arteko bideak bereizita, lorpen horiek oraindik ez dira gauzatu hiri-bideetan. Izan ere, 30 egunetan biktima 1.000 istripuko hildako pertsona kopurua, hiri-bidean eta hiri artekoan, 11,1ekoa da, eta helburua 8ra murriztea da.

Ondoko laukian, helburuen betetze maila dago adierazita, eta guk haxe jarri nahi dugu agerian:

Gehiegizko abiaduraren eraginezko salaketen ehunekoak (implementaturiko zehapen kopuruaren arabera) zifra oso altua edukitzeak ez du esan nahi atzerako pausoa egon denik; hori, izan ere, EAEko radar digitalak sartzearen eta abiadura kontrolatzeko nahiz zaintzeko kanpaina intentsiboen eraginezkoa da, neurri handian.

Merkantzia arriskutsudun trafiko-istripuen kopuruak (egindako garraio kopuruaren arabera) izandako hazkunde etengabeak, pentsa daitekeenaren aurka, ez du esan nahi garraio hori arriskutsuagoa denik, eta erlatibizatu egin behar da, aintzat hartuta egindako garraioen eta garraiatutako tonen kopuru osoa. Gainera, adierazle horren barruan beste zenbait gorabehera ere sartzen dira, adibidez, matxurak.

Hiri-bideko eta hiri arteko bideko istripuetan hildako eta larri zauritutako ikasle kopurua murriztu egin da. Hala eta guztiz ere, adierazlearen bilakaera ez da homogenea, eta, hortaz, ahaleginak egiten jarraitu behar da.

Lekualdatzeetan motozikletak eta ziklomotorrak erabiltzen dituzten gazteek bide-kontzientziazio handiagoa dutela egiaztatzen da.

Harrapatzeen gaiak kezka handia eragin du, gehienbat 55 urtetik gorako pertsonen dagokienez. Hala ere, zenbait eragileren ahaleginak eta jarduketak fokatizatu diren arren (arazo hori murrizteko), oraindik ere arazo oso larria da.

Eragileen artean bideari lotutako zergatiak dituzten istripuen ehunekoak ez du bilakaera linealik izan, azken urteotan. 2006ko datuek agerian jarri dutenez, ehuneko hori 2001ekoa baino apur bat txikiagoa da, baina helburua baino handiagoa; beraz, arlo honetan lanean jarraitu behar dago.

IV.2.21 Koadroa. EAE-ko Bide Segurtasuneko Planaren Helburuak Betetzea

HELBURUAK TIPOLOG. ARABERA		HELBURU ESPEZIFIKOA	HELBURUA 2006	EMAITZA	
ERABILTZAILEA	Orokorrak	Biktimadun 1.000 istripuko hildako pertsona kopurua	79,2	61	Gaindituta
		Uhala eta segurtasuneko beste osagarri batzuk erabiltzearen %	65%	69,50%	Gaindituta
		Uhalik ez erabiltzearen eraginezko salaketen %, inplementaturiko zehapen kopuruaren arabera	4%	3,90%	Gaindituta
		Gehiegizko abiaduraren eraginezko salaketen %, inplementaturiko zehapen kopuruaren arabera	22%	41,80%	
		Alkoholemia positiboen %, egindako kontrol kopuruaren arabera	8%	6,03%	Gaindituta
		Merkantzia arriskutsuen trafikoan izandako gorabehera kopurua, egindako garraio kopuruaren arabera	114	170	
	Ikasleak	Hiri-bidean eta hiri artekoan izandako trafiko-istripuetan hildako eta larri zaurituriko ikasle kopurua	23	11	Gaindituta
			35	25	
	Nerabeak-gazteak	Trafiko-istripuetan hil edo larri zauritu diren 17-30 urteko automobil-gidarien kopurua	156	76	Gaindituta
		Motozikleten eta ziklomotorren trafiko-istripuetan hildako eta larri zauritutako 17-30 urte bitarteko pertsona kopurua	64	38	Gaindituta
		Motozikletetan eta ziklomotorretan kaskoa erabiltzearen %	97%	98,70%	Hobetzen
		Hiriko bidean eta hiri artekoan hildako eta larri zaurituriko nerabe kopurua	194	88	Gaindituta
		366	199		
	Helduak	Hiri-bidean eta hiri artekoan izandako trafiko-istripuetan hildako eta larri zaurituriko 30 urtetik gorako pertsona kopurua	206	194	Gaindituta
			512	362	
		Hiri-bidean eta hiri artekoan zapaldutako 55 urteko eta gehiagoko oinezko kopurua (hildakoak eta larri zaurituri-koak)	80	77	
			47	27	
IBILGAILUA		Ukapenaren %, IATren lehenengo ikuskapenetan	16%	16,98%	
		Bideari loturiko zergatiak edo faktoreak dituzten istripuen %	1,50%	3,11%	

Iturria: Bide Segurtasuneko 2003-06ko Plan Estrategikoaren Memoria, Eusko Jaurlaritza

2.3. Osasun sistema eta prestazioak

Lurralde bateko osasun-sistemaren egoera eta bilakaera baloratzeko gehien onartzen diren baliabide-adierazleen artean, ospitale kopurua, ohe kopurua eta langileria daude (sendagileak, erizainak, ...).

Eurostatek osasun arloko baliabideei eta langileei buruz emandako datuen arabera:

- EAE, EB-27ko herriek gehienetan bezala, 100.000 biztanleko sendagile eta psikiatra kopuruak goranzko joera dauka, eta hori bat dator Eustatek egindako balorazioarekin. Hala ere, Eurostaten datuak kontuz erabili behar dira, estatistika-erakunde horrek adierazitako serie-haustea aintzat hartuta.

Beste zenbait kasutan esan dugunez, Eustatek erabilitako metodologiak ospitale barruko eta ospitale kanpoko osasun-laguntzako jarduerak bereizten ditu, eta bi horiek ezin dira gehitu, hori eginez sendagile kopurua bikoiztu egin daitekeelako.

IV.2.22 KOADROA. SENDAGILEAK EAE-N

	2001	2003	2004	2005	2006
Ospitaletik kanpoko laguntzako sendagileak (OKL)	2.633	2.703	2.741	2.768	2.789
Ospitale barruko laguntzako sendagileak (OBL)	4.051	4.180	4.247	4.284	4.330
Biztanleria	2.085.058	2.095.014	2.104.396	2.115.383	2.129.339
OKLko sendagileak 100.000 biztanleko	126	129	130,3	130,9	131
OBLko sendagileak 100.000 biztanleko	193,8	199,5	201,8	202,5	203,4

Iturria: Eustat

IV.2.23 KOADROA. OHEAK 100.000 BIZTANLEKO

		2000	2001	2002	2003	2004	2005
EAE	Guztia	398,0	390,6	389,5	382,4	382,6	385,9
	Psikiatryan	99,0	98,1	97,6	95,6	95,4	95,5
EB-27	Guztia	652,6	640,9	628,6	607,5	595,9	590,4
	Psikiatryan	69,4	66,0	64,9	62,4	60,9	60,4
EB-25	Guztia	645,4	633,3	622,6	604,7	592,7	586,6
	Psikiatryan	68,8	65,0	64,0	61,7	60,1	59,4
EB-15	Guztia	626,6	614,6	603,5	590,5	577,2	570,7
	Psikiatryan	65,6	62,9	62,1	59,6	57,8	57,1
Estatua	Guztia	372,7	362,5	356,7	347,8	344,5	339,0
	Psikiatryan	52,6	51,1	50,9	49,0	48,0	44,5

Iturria: Eurostat

Azken batean, esan daiteke sendagile kopuruak goranzko joera duela, baina ezin dugu zehaztu hazkunde erreala zein izan den.

- Ospitaleko ohe kopuruak (EB-27an, EB-25ean eta EB-15ean) beheranzko joera dauka, eta beherakada horren proportzio handia egonaldiak izandako murriztapenaren eraginezkoa izan daiteke.

Hain zuzen ere, Eurostaten datuen arabera, 100.000 biztanleko ohe kopurua, 2000tik 2005era, 626,6tik 570,7ra igaro da EB-15ean; hau da, 100.000 biztanleko 55,9 oheko murriztapena egon da. Estatuan, aldi horretan, murriztapena 100.000 biztanleko 33,7 ohekoa izan da. EAEn ere joera bera ikusten da 2003ra arte. Izan ere, 2000tik 2003ra, 100.000 biztanleko ohe kopurua 398tik 382,4ra igaro da. Hala eta guztiz ere, 2003tik 2005era, ohe kopuruak gora egin du.

Eustaten datuen arabera ere (aurrerago azalduko datuak) ohe kopuruak gora egin du 2003tik 2005era; hala ere, 2005etik 2006ra, beherakada egon da.

- 100.000 biztanleko dentista kopuruak berriro ere gora egin du, eta, 2005etik 2006ra, 64,5etik 66,9ra igaro da. Zatidura Estatukoa baino handiagoa da oraindik (2006an 54,1), baina EB-15eko herririk gehienetakoa baino txikiagoa, baita Europa handituko herri batzuetakoa baino txikiagoa ere.
- 100.000 biztanleko erizain eta emagin kopurua, bestalde, murriztu egin da 2004tik 2006ra, eta 620,6tik 456,4ra igaro da. Datu horiek Estatukoak baino handiagoak dira (2004ko 418,5etik 2006ko 419,2ra), baina EB-15eko eta Europa handituko herrietakoak baino txikiagoak (Esloveniaren kasuan izan ezik).

IV.2.24 KOADROA. OSASUNAREN ARLOKO LANGILEAK 100.000 BIZTANLEKO

	PSIKIATRAK ETA DOKTOREAK				OHEAK		DENTISTAK			ERIZAINAK ETA EMAGINAK		
	2003	2004	2005	2006	2004	2005	2004	2005	2006	2004	2005	2006
EB-15												
Belgika	398,0	390,6	389,5	382,4	382,6	385,9	91,1	-	83,4	644,2	655,2	-
Danimarka	99,0	98,1	97,6	95,6	95,4	95,5	-	-	-	975,7	-	-
Alemania	652,6	640,9	628,6	607,5	595,9	590,4	75,5	-	-	774,5	-	-
Irlanda	69,4	66,0	64,9	62,4	60,9	60,4	55,5	-	-	1.479,0	1.488,2	-
Grezia	645,4	633,3	622,6	604,7	592,7	586,6	120,1	121,2	-	-	-	-
Espainia	68,8	65,0	64,0	61,7	60,1	59,4	49,7	51,5	54,1	418,5	422,0	419,2
Galizia	626,6	614,6	603,5	590,5	577,2	570,7	48,4	49,8	51,7	336,3	350,3	538,3
Asturias	65,6	62,9	62,1	59,6	57,8	57,1	49,6	51,1	52,3	386,8	500,4	396,6
Kantabria	372,7	362,5	356,7	347,8	344,5	339,0	42,6	43,7	45,7	587,0	362,9	471,8
EAE	52,6	51,1	50,9	49,0	48,0	44,5	62,1	64,5	66,9	620,6	599,0	456,4
Nafarroa	548,7	663,1	620,0 b	447,8	392,8	387,3	46,9	48,1	48,4	680,6	688,9	688,9
Errioxa	390,2	312,1	305,8 b	407,7	339,8	318,3	48,5	51,0	50,6	312,1	441,7	407,7
Aragoi	485,2	472,0	361,9 b	378,0	407,5	401,0	41,6	42,8	43,6	756,8	723,8	643,4
Madril	322,5	410,1	558,3	364,2	-	-	74,6	78,2	81,5	411,9	402,0	319,5
Gaztela eta Leon	362,2	357,4	352,3 b	139,0	412,8	397,6	35,8	36,6	17,5	454,9	429,3	445,5
Gaztela-Mantxa	201,1	230,4	247,7 b	267,3	266,6	260,6	28,8	29,7	24,6	318,2	393,2	414,7
Extremadura	397,1	281,4	252,6 b	150,8	346,8	348,1	28,0	29,2	17,6	347,0	439,7	495,9
Katalunia	317,0	348,0	398,0 b	217,0	452,2	439,9	52,3	52,9	31,2	354,1	436,3	473,2
Valentzia	319,8	338,6	309,9 b	244,7	261,2	254,5	47,1	48,2	34,0	465,9	409,5	407,2
Balearrak	274,0	343,4	375,8 b	97,4	350,4	340,1	47,3	48,7	11,0	311,2	459,3	428,0
Andaluzia	329,0	346,9	346,8 b	283,2	268,9	260,7	45,6	47,4	42,4	390,6	345,5	387,2
Murtzia	438,2	268,6	361,5 b	60,0	314,1	317,5	49,7	54,4	9,6	387,1	384,6	284,6
Ceuta	419,2	839,7	420,3	7,7	540,2	539,4	46,2	44,8	2,5	1.119,6	1.261,0	700,6
Kanariak	282,0	289,6	309,1	387,7	-	-	38,3	40,6	43,2	396,8	387,7	272,4
Frantzia	333,7	335,6	338,0	339,6	781,0	734,8	66,8	67,3	67,4	770,5	792,1	817,0
Italia	628,0	635,6	639,1	-	400,6	400,9	68,8	79,4	-	-	-	-
Luxenburgo	245,4	327,7	-	-	-	-	74,8	-	-	940,7	-	-
Holanda	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Austria	339,8	346,7	-	-	776,5	770,9	50,5	-	-	609,0	615,3	-
Portugal	269,3	-	-	-	365,1	-	-	-	-	-	-	-
Finlandia	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Suedia	336,3	343,1	349,5	-	-	-	82,7	82,3	-	1.130,5	1.143,4	-
Erresuma Batua	220,0	233,6	235,6	-	-	-	45,7	47,1	-	773,9	783,2	-
EB-27												
Bulgaria	356,5	351,5	365,3	-	611,6	-	83,2	84,1	-	427,6	449,4	-
Txekiar Errepublika	352,2	351,3	354,9	355,7	837,2	829,1	67,0	67,4	67,4	852,0	850,2	844,7
Estonia	315,4	319,2	-	-	581,0	-	86,3	-	-	657,8	-	-
Zipre	262,7	269,0	-	-	421,0	-	95,4	-	-	-	-	-
Letonia	277,8	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Lituania	395,1	388,8	-	-	840,8	-	65,9	-	-	748,0	745,3	-
Hungaria	377,0	333,4	277,8	-	782,0	784,6	50,9	44,6	-	443,7	458,6	-
Malta	-	-	-	-	755,2	-	-	-	-	561,3	579,9	596,3
Polonia	243,3	229,0	213,5	-	667,0	651,9	37,0	32,1	-	550,8	564,1	-
Errumania	-	-	216,9	-	654,2	660,4	-	47,2	-	-	569,7	-
Eslovenia	234,1	238,8	234,2	-	480,1	483,9	61,4	59,8	-	174,1	180,5	-
Eslovakia	328,0	331,8	303,0	-	690,1	677,7	43,5	54,2	-	631,5	632,1	-
Norvegia	328,7	345,7	365,5	-	420,6	405,9	80,6	84,7	-	850,0	887,5	-

b. seriea apurtu.

Iturria: Eurostat. Datu-basea

2.3.1. Egitura, baliabideak eta laguntzako osasun-jarduera

Lehen esan dugunez, laguntzako osasun-jarduera ospitale barrukoa edo ospitaletik kanpokoa izan daiteke, eta biak ere publikoak nahiz pribatuak izan daitezke. Laguntzako osasun-jarduera publikoa Osakidetzak eta zentro kontzertatuek ematen dute, eta pribatua, berriz, zentro pribatuek.

Gastuaren ikerketan bezala, ondorengo azterketa honako honetan oinarrituz egin da:

- Eustatek ospitale barruko (*Ospitale Barruko Estatistika*) eta ospitaletik kanpoko (*Ospitaletik Kanpoko Estatistika Publikoa*) sektoreei buruz emandako datuak; lehenengo kasuan, sektore publikoari eta pribatuari buruzko informazioa dago, eta bigarreanean (ospitaletik kanpokoa), berriz, sektore publikoari buruzkoa bakarrik.
- Osakidetzak ospitale barruko eta ospitaletik kanpoko jarduerari buruz emandako informazioa.

2.3.1.1 Ospitaletik kanpoko jarduera publikoa

Eustaten datuen arabera, ospitaletik kanpoko laguntza-jarduera gero eta handiagoa izan da 2000tik.

2006an, ospitaletik kanpoko 458 zentro publikoek (aurreko urtearekiko %3,2) 13.375 mila kontsulta jaso zituzten, 2005ean baino %1,5 gehiago; beraz, 2002tik ia %8ko hazkundea egon da. Hazkunde enpleguak izandakoa baino txikiagoa da, 2005etik 2006ra %0,7koa eta 2002tik 2006ra %5ekoa.

Arlo horretako langile kopurua 7.217 pertsonakoa da. Horietatik %79,3 osasunaren arloko langileak dira (sendagileak 2.789, aurreko urtean baino %0,8 gehiago; eta erizainak eta bestelako langileak 2.935), eta beste %20,7 osasunaren arlotik kanpokoa. Ikusten denez, 2005etik 2006ra, espezialista kopuruan %2,4ko murriztapena egon da (2002-2006 aldian %-2,7).

Ospitaletik kanpo egindako kontsulten %82,3 oinarritzko laguntzakoak izan ziren: medikuntza orokorra/familiakoa (9,4 milioi) eta pediatria (1,6 milioi). Bi espezialitate horien kontsulta-bolumenak hazkundea izan du aurreko urtetik, %1,8koa medikuntza orokorrean eta %3,3koa pediatrian. Gainerako %17,7 (2,4 milioi) anbulatorioko arreta espezializatukoak izan dira. Eskaririk handieneko espezialitateak traumatologia (487.752 kontsulta), tokoginekologia (331.759), psikiatria (270.133) eta oftalmologia (221.997) izan ziren.

Sendagile kopuruak gora egitearen ondorioz, sendagile bakoitzeko biztanle kopuruak behera egin du, bai

IV.2.25 KOADROA. OSPITALETIK KANPOKO LAGUNTZA JARDUERA EAE-N

	2002	2004	2005 (1)	2006	Δ (%) 2005-2006	Δ (%) 2002-2006
BALIABIDEAK						
Zentro kopurua	439	443	444	458	3,2	4,3
Langileak guztira	6.874	7.036	7.167	7.217	0,7	5,0
Sendagileak	2.683	2.741	2.768	2.789	0,8	4,0
Medikuntza orokorra	1.389	1.421	1.463	1.506	2,9	8,4
Pediatria	281	290	295	297	0,7	5,7
Espezialistak	1.013	1.030	1.010	986	-2,4	-2,7
Osasun arloko b. langile batzuk guztira	2.808	2.868	2.924	2.935	0,4	4,5
Osasun arlokoak ez diren langileak guztira	1.383	1.427	1.475	1.493	1,2	8,0
LAGUNTZA JARDUERA (milatan)						
Kontsultak guztira	12.401	12.889	13.180	13.375	1,5	7,9
Medikuntza orokorra	8.630	8.964	9.248	9.415	1,8	9,1
Pediatria	1.429	1.485	1.551	1.602	3,3	12,1
Erradiografiak	461	514	530	555	4,7	20,4

(1) Kontsultategi batzuk berriro sailkatu dira osasun-zentroetan, Osasun eta Kontsumo Ministerioaren arabera (urriaren 10eko 1277/003 Errege Dekretua).

Iturria: Eustat, Ospitaletik Kanpoko Estatistika Publikoa.

IV.2.26 KOADROA. OSPITALETIK KANPOKO ADIERAZLE NAGUSIAK EAE-N

	2002	2004	2005	2006
EGITURAREN ADIERAZLEAK (sendagileko biztanle kopurua)				
Sendagileak guztira	789	777	764	763
Medikuntza orokorra	1.524	1.498	1.445	1.414
Pediatría (0-14 urte)	829	830	834	822
JARDUERAREN ADIERAZLEAK (100 biztanleko kontsultak)				
Medikuntzako kontsultak	586	605	623	628
Medikuntza orokorreko kontsultak	408	421	437	442
Pediatriako kontsultak	614	617	631	657
Sendagile bakoitzeko kontsultak				
Medikuntzako kontsultak	4.706	4.774	4.830	4.864
Medikuntza orokorreko kontsultak	6.213	6.308	6.321	6.251
Pediatriako kontsultak	5.086	5.119	5.259	5.397

Iturria: Eustat. Ospitaletik Kanpoko Estatistika Publikoa

medikuntza orokorrean eta bai pediatrian. Lehenengo kasuan, kopurua sendagile bakoitzeko 1.445 biztanletik 1.414ra igaro da, eta bigarrenean 834tik 822ra; horrenbestez, pediatrian ez da aurreko urteko egoera errepikatu, sendagile bakoitzeko biztanle kopuruak gora egin baitzuen, 830etik 834ra.

2006an, sendagile bakoitzeko kontsulten batez bestekoa 4.864koa izan zen; medikuntza orokorreko sendagileek eta pediatrek gainditu egin zuten kopuru hori (hurrenez hurren, 6.251 eta 5.397 kontsulta); gainerako sendagileen kasuan kopurua txikiagoa da: dermatologoak (3.998), traumatologoak (3.841), endokrinoak (3.797) eta oftalmologoak (3.580).

Biztanle bakoitzeko batez besteko kontsulta kopurua 6,3koa izan zen, eta, beraz, hazkundetxo egon da aurreko

urteetik; hazkunde hori pediatrian egondako hazkunderen ondoriozkoa izan da (14 urtekoak eta hortik beherakoak, batez beste, 6,6 aldiz joan ziren osasun-zentroko pediatraren, eta aurreko urtean 6,3 aldiz).

Kontsulta guztietatik, %58,4 osasun-zentroetan egin ziren (osasun laguntza Osasun eta Kontsumo Ministerioko Oinarritzako Osasun Egiturei buruzko 137/84 Errege dekretuko 2. artikuluan adierazitakoaren arabera ematen duten zentroak); %19,6 anbulatorioetan egin ziren (Gizarte Segurantzako onuradunei laguntza emateko zentroak, medikuntza orokorra, pediatriapuerikultura eta espezialitateak eskaintzen dituztenak); %10,9 kontsultategietan³ eta sendagile-etxeetan⁴; %5,5 larrialdietan⁵; %3,3 laneko istripuen mutualitateen zentroetan, eta %2 buruko osasun-zentroetan.

³ Kontsultategiak: Gizarte Segurantzako onuradunei medikuntza orokorreko eta pediatriako nahiz puerikulturako laguntza emateko zentroak, euren laguntza-ekintzaren eraginaldean espezialitate hori ezarrita dagoenean.

⁴ Zentro periferikoa (sendagilearen etxea): landa-inguruetak zentro hauetan medikuntza orokorreko zerbitzuak ematen dira, emaginen eta OLTen zerbitzuarekin batera.

⁵ Laguntza Jarraituko Guneetan (LJG) arratsaldeetan nahiz gauetan eta jaieguneetan ematen zaizkie zerbitzuak, Gizarte Segurantzako onuradunei.

IV.2.27 KOADROA. ZENTRO MOTA ETA BERTAN EGINDAKO KONTSULTAK

Zentro mota	Zentro kopurua motaren arabera		Zentro bakoitzean egindako (% bertikala)
	2005	2006	2006
Guztira	444	458	100,0
Anbulatorioa	28	28	19,6
Osasun-zentroa	132	119	58,4
Kontsultategia	28	58	10,9
Zentro periferikoa (sendag. etxea)	119	113	
Premiazko laguntza-zerbitzua	37	37	5,5
Buruko osasuneko kontsultategia	50	50	2,0
Mutualitate-laguntzako zentroa	46	48	3,3
Beste batzuk	4	5	0,3

Iturria: Eustat. Ospitaletik Kanpoko Estatistika Publikoa

2.3.1.2 Ospitale barruko jarduera publikoa eta pribatua

2005etik 2006ra, eta Eustaten Ospitale Estatistikako datuen arabera, ospitale kopurua iraunkor mantendu da 45 unitatetan, 18 sare publikoan eta 27 pribatuan. Hala eta guztiz ere, baliabide kopururik handiena sare publikoan dago; esate baterako, oheak (%69,3), langileak (%77,2), sendagileak (%66,2), erizainak (%83,4), OLTak eta EUDak (%85,1) eta laguntzakoak ez diren langileak (%74,2). 2005etik 2006ra, ohe kopuruaren kasuan izan ezik, gainerako kasu guztietan hazkundea egon da. Beste alde batetik, sektore pribatuan ohe kopurua murriztu egin da, baina baita sendagile kopurua ere (1.488tik 1.465era).

Hain zuzen ere, langilerari dagokionez, guztizkoak gora egin du berriro (batez beste, %2). Sare publikoa eta pribatua bereizita ikusten denez, sektore publikoan %1,7ko hazkundea egon da, eta pribatuan %2,7koa. Kategorien arabera (sendagileak, erizainak, etab.), sendagile kopuruak %2,5eko hazkundea izan du sare publikoan, eta %0,8ko murriztapena pribatuan (beraz, beherazko joera mantendu); erizain kopuruak gora egin du bi sareetan (%2,4 sare publikoan eta %6,4 sare pribatuan); OLTen nahiz EUDen eta laguntzakoak ez diren langileen kopurua gehiago hazi da sare pribatuan publikoan baino.

Eustaten datuen arabera, ospitale barruko sektorean 20.797 langile egon ziren. Horietatik, %71,9 emakumeak

izan ziren, eta %28,1 gizonak. Ospitaleen helburuari dagokionez, osasuneko langileen %88k akutuen ospitaleetan egiten dute lan, %7,6k psikiatrikoetan eta %4,4k egonaldi ertaineko nahiz luzeko ospitaleetan.

Laguntza-jarduerari dagokionez, jarduera guztiek gora egin dute, egonaldiek eta anestesia epiduralarekin egindako erditzeek izan ezik, horiek %3ko eta %1,4ko murriztapena izan baitute, hurrenez hurren. Jokabide hori sare publikoan eta pribatuan egon da. Horrela, egonaldiek %2,6ko murriztapena izan zuten sektore publikoan, eta %3,8koa pribatuan; eta anestesia epiduralarekin egindako erditzeek %0,9ko murriztapena izan zuten sare publikoan eta %13,4koa pribatuan.

Ospitaleetan egindako 224.104 interbentzio kirurgikoez (%62,6 publikoetan eta %37,4 pribatueta), bestalde, %5,1eko hazkundea adierazten dute, aurreko urteari dagokionez. Hazkunde hori, Eustaten arabera, kirurgia handi anbulatorioko (eguneko ospitale kirurgikoa) interbentzio kopuruak izandako %16,7ko hazkundearen ondoriozkoa da, horrek ospitaleratzea ordeztu baitu.

Erditze kopuruari dagokionez (20.233), %1,2ko hazkundea egon da aurreko urtetik. Erditserik gehienak (%87,7) ospitale publikoetan izan ziren. Erditze multipleek %12,4ko hazkundea izan dute, sare publikoan izandako hazkundearen ondorioz (%+14,3), pribatuan %29,4ko murriztapena izan baitute.

⁶ Eustaten arabera, ospitaleak publikoak (Osakidetza) eta pribatuak izan daitezke: Ongintzako-partikularra, pribatuak, Gurutze Gorria, beste batzuk.

IV.2.28 KOADROA. OSPITALE BARRUKO LAGUNTZA JARDUERAREN BILAKAERA EAE-N

	2003			2004			2005			2006			2005-06ko aldaketa		
	Guztira	Publikoa	Pribatua	Guztira	Publikoa	Pribatua	Guztira	Publikoa	Pribatua	Guztira	Publikoa	Pribatua	Guztira	Publikoa	Pribatua
BALIABIDEAK															
Ospitale kopurua	44	18	26	44	18	26	45	18	27	45	18	27	0,0	0,0	0,0
Oheak	7.985	5.445	2.540	8.016	5.565	2.451	8.118	5.635	2.483	8.049	5.581	2.468	-0,8	-1,0	-0,6
Langileria guztira	19.887	15.557	4.330	20.037	15.620	4.417	20.399	15.784	4.615	20.797	16.057	4.740	2,0	1,7	2,7
Sendagileak	4.180	2.685	1.495	4.247	2.747	1.500	4.284	2.796	1.488	4.330	2.865	1.465	1,1	2,5	-1,5
Erizaintza	5.633	4.817	816	5.686	4.822	864	5.794	4.865	929	5.969	4.981	988	3,0	2,4	6,4
OLT eta EUD	5.165	4.499	666	5.213	4.494	719	5.307	4.540	767	5.467	4.653	814	3,0	2,5	6,1
Laguntz. ez den langileria	3.886	2.982	904	3.857	2.941	916	3.941	2.956	985	3.984	2.958	1.026	1,1	0,1	4,2
LAGUNTZA JARDUERA															
Ospitale barruko gaixoak	278.195	204.064	74.131	283.576	207.552	76.024	285.620	206.856	78.764	292.104	212.232	79.872	2,3	2,6	1,4
Egonaldiak	2.399.586	1.701.166	698.420	2.435.944	1.737.061	698.883	2.461.245	1.751.250	709.995	2.388.131	1.705.169	682.962	-3,0	-2,6	-3,8
Altak	277.387	203.432	73.955	282.255	206.378	75.877	284.296	205.646	78.650	290.137	210.479	79.658	2,1	2,4	1,3
Kanpoko kontsultak	2.122.406	1.652.273	470.133	2.194.214	1.705.549	488.665	2.179.236	1.713.994	465.242	2.343.699	1.822.347	521.352	7,5	6,3	12,1
Larrialdiak	1.043.230	901.315	141.915	1.052.006	907.024	144.982	1.074.903	914.249	160.654	1.099.874	928.305	171.569	2,3	1,5	6,8
Interbentzio ki-rurgikoak	214.028	132.714	81.314	219.165	138.177	80.988	213.276	131.278	81.998	224.104	140.210	83.894	5,1	6,8	2,3
Erditzeak	19.191	17.001	2.190	19.789	17.375	2.414	19.992	17.512	2.480	20.233	17.742	2.491	1,2	1,3	0,4
Erditze multipleak	384	363	21	379	362	17	387	370	17	435	423	12	12,4	14,3	-29,4
Anestesia epiduraleko erd.	13.301	12.743	558	14.806	14.416	390	15.113	14.514	599	14.906	14.387	519	-1,4	-0,9	-13,4

Iturria: Eustat. Ospitale Barruko Estatistika. Datu-basea.

Larrialdiek goranzko joerarekin jarraitu dute, EAEko ospitaleetan; horrela, EAEko ospitaleetako larrialdi-zerbitzuek 1.099.874 kasu izan zituzten (%2,3ko hazkundea, 2005ari dagokionez). Hazkunde horren zatirik handiena, aldi honetan, sare pribatutik dator: sare pribatuan %6,8 eta publikoan %1,5.

Egiturako ospitale-adierazleen azterketatik ondorioztatzen denez, 100 oheko sendagile kopuruak gorantz jarraitu du, bai ospitale publikoetan eta bai pribatuetan; hain zuzen ere, 2006an, lehenengoen kasuan, 100 oheko 47,3 sendagile egon ziren, eta bigarrenengan 23. Halaber, 100 oheko erizain kopuruak ere gora egin du, sare pribatuan eta publikoan.

Ospitaleek 8.049 oheko zuzkidura izan zuten (aurreko urtean baino 69 gutxiago); hain zuzen ere, 1.000 biztanleko 3,8 oheko batez bestekoa egon zen (aurreko urteetako batez besteko bera). Ospitale barruko gainerako adierazlek agerian jarri dutenez, 1.000 biztanleko ospitaleratze kopuruak gora egin du (135,1etik 137,2ra), eta batez besteko egonaldiak, ostera, behera (8,7tik 8,2ra, eta akutuen ospitaleetan 5,2 egun). Azkenik, 1.000 biztanleko larrialdi kopuruak gora egin du (1.000 biztanleko 508,3tik 516,5era), eta ospitaleratzea behar izan duten larrialdien ehunekoa, berriz, murriztu egin da (%13,3tik %12,8ra).

IV.2.29 KOADROA. OSPITALE BARRUKO ADIERAZLE NAGUSIEN BILAKAERA EAE-N

	2003			2004			2005			2006		
	Guztira	Publikoa	Pribatua	Guztira	Publikoa	Pribatua	Guztira	Publikoa	Pribatua	Guztira	Publikoa	Pribatua
EGITURAREN ADIERAZLEAK (100 ohe erabilgarriko langileria)												
Sendagileak	36,9	45,1	19,2	37,8	45,2	21	38,3	45,5	21,9	39,8	47,3	23,0
Erizainak	67,5	85,6	28,7	67,9	83,7	31,8	68,0	83,0	34,2	70,5	85,3	37,0
JARDUERAREN ADIERAZLEAK (1.000 biztanleko adierazlea)												
Oheak	3,8	2,6	1,2	3,8	2,6	1,2	3,8	2,7	1,2	3,8	2,6	1,2
Egonaldiak	1.131,7	802,3	329,4	1.144,3	816	328,3	1.163,9	828,1	335,7	1.121,5	800,8	320,7
Ospitalerako maiztasuna (ospitaleratzeak)	131,2	96,2	35,0	133,2	97,5	35,7	135,1	97,8	37,2	137,2	99,7	37,5
Larrialdiak	492,0	425,1	66,9	494,2	426,1	68,1	508,3	432,3	76,0	516,5	436,0	80,6
Interbentzio kirurgikoak	100,9	62,6	38,3	103,0	64,9	38,0	100,9	62,1	38,8	105,2	65,8	39,4
Kanpoko kontsultak	1.001,0	779,2	221,7	1.030,7	801,2	229,5	1.030,5	810,5	220,0	1.100,7	855,8	244,8
FUNTZIONAMENDUAREN ADIERAZLEAK												
Okupazio-indizea (%)	82,3	85,6	75,3	83,3	85,5	78,1	83,1	85,1	78,3	81,3	83,7	75,8
Batez besteko egonaldia	8,7	8,4	9,4	8,6	8,4	9,2	8,7	8,5	9,0	8,2	8,1	8,6
Errotazio-indizea	34,7	37,4	29,1	35,2	37,1	31,0	35,0	36,5	31,7	36,0	37,7	32,3
Larrialdien presioa	49,1	59,8	19,7	49,0	60,2	18,4	50,4	62,5	18,6	48,3	60,6	15,6
Ospitalaturiko larrialdiak (%)	13,0	13,5	9,9	13,2	13,8	9,3	13,3	14,1	8,8	12,8	13,9	7,3
Hilkotasun gordina (%)	3,5	3,9	2,3	3,3	3,8	2,0	3,5	4,0	2,1	3,2	3,7	1,8
1.000 hildakoko nekropsiak	40,0	48,2	1,8	37,8	44,5	2,7	33,7	40,0	1,8	37,3	43,9	2,1
B. b. egonaldi osoa osp. akutuetan	5,4	6,0	3,6	5,4	6,0	3,6	5,5	6,2	3,5	5,2	5,8	3,3
B.b. eg. osoa kirurgian eta espezialitateetan	4,1	4,9	2,7	4,2	5,1	2,6	4,2	5,3	2,5	4,0	5,0	2,3
B. besteko egonaldia ginekologian	3,2	3,1	3,4	3,1	3,0	3,3	3,1	3,1	3,3	3,1	3,0	3,5

Iturria: Eustat. Ospitale Barruko Estatistika. Datu-basea

2.3.1.3 Osakidetzako ospitale barruko eta ospitale-tik kanpoko jarduera**Baliabideen erabilera**

Osakidetzako batez besteko okupazio orokorraren indizeak⁷ zenbait urtetan beherazko joera izan ondoren, Osakidetzako Osasun Laguntzako Zuzendaritzak eskainitako

datuen arabera, 2007an indize horrek gora egin du. Hain zuzen ere, ehuneko 1,4ko hazkundea izan du, 2006tik, eta %84,4koa da (aurreko urtean %83).

%100etik gora eta, beraz, aipaturiko batez bestekotik gora, honako espezialitate hauek daude: pneumologia (%145,9; ehuneko 62,1 puntuko hazkundea 2006tik), zaintza aringarriak (%121,6; aurreko urteko %61,3 baino ia bi aldiz handiagoa), barne-medikuntza (%118,6; 2006an

⁷ Erantsitako informazioa Osakidetzako ositaleei buruzkoa da. Orain arteko Memoria Sozioekonomikoetan, akutuen ospitaleei buruzko informazioa baino ez zen sartzen. Orain egonaldi ertaineko eta luzeko ospitaleei buruzko informazioa ere sartzen da.

IV.2.30 KOADROA. BALIABIDE PUBLIKOEN ERABILERA, ESPEZIALITATEAREN ARABERA (B.BESTEKO EGONALDIA ETA OKUPAZIO INDIZEA)

ZERBITZUAK	B. besteko egonaldia (egunak)					Okupazio Indizea (%)				
	2003	2004	2005	2006	2007	2003	2004	2005	2006	2007
OSASUN ZERBITZUAK										
Barne medikuntza	9,1	9,0	9,3	8,9	8,9	97,6	105,1	114,3	105,4	118,6
Kardiologia	5,7	5,6	6,0	5,6	5,7	95,8	92,5	97,0	93,8	107,8
Digestio-aparatua	8,3	8,3	8,1	7,6	8,1	105,6	105,1	106,4	108,1	107,8
Hematologia	10,5	11,1	10,6	11,0	10,9	79,7	87,2	86,1	82,1	87,8
Pneumologia	7,7	7,6	7,9	7,1	7,0	85,1	94,2	96,7	83,8	145,9
Psikiatria	15,3	16,0	15,1	14,7	15,0	86,6	88,4	87,2	85,6	86,4
Errehabilitazioa	38,1	35,7	32,8	33,5	33,1	88,9	86,8	81,4	81,2	91,9
Zaintza aringarriak	20,5	19,3	17,0	18,2	18,2	75,1	55,2	54,1	61,3	121,6
ZERBITZU KIRURGIKOAK										
Kirurgia orokorra	5,3	5,5	6,0	5,4	5,2	86,8	93,8	97,7	92,2	95,1
Kirurgia plastikoa	5,9	5,6	5,9	5,7	5,0	72,0	72,1	66,8	68,2	64,6
Kirurgia kardiobaskularra	5,1	5,0	5,2	5,6	5,2	62,7	69,1	90,9	86,5	95,0
Kirurgia baskularra	5,9	6,4	6,3	6,1	5,9	86,5	86,7	79,8	85,0	78,1
Kirurgia torazikoa	5,5	5,7	5,5	4,9	4,8	86,4	96,6	87,1	85,4	87,7
Neurokirurgia	7,0	7,3	7,0	6,8	6,6	84,2	87,6	80,9	80,6	83,2
Traumatologia	5,9	5,9	6,4	5,9	6,0	84,1	87,9	88,7	86,6	91,5
Urologia	5,0	5,1	5,1	4,7	4,6	76,7	84,9	87,8	77,7	80,8
OROKORRA	7,0	7,0	7,1	6,7	6,3	84,4	84,3	84,2	83,0	84,4

Iturria: Osakidetza: Akutuen Ospitaleak + Egonaldi Ertaineko eta Luzeko Ospitaleak

baino ehuneko 13,2 puntu gehiago), kardiologia (%107,8; 2006an baino ehuneko 14 puntu gehiago) eta digestio-aparatua (%107,8; baina 2006an baino ehuneko 0,3 puntu gutxiago).

%100etik behera, baina batez bestekotik gora, honako hauek daude: kirurgia orokorra (%95,1), kirurgia kardiobaskularra (%95), errehabilitazioa (%91,9), traumatologia (%91,5), hematologia (%87,9), kirurgia torazikoa (%87,7) eta psikiatria (%86,4).

Batez bestekotik behera, neurologia (%83,2), urologia (%80,8), zirkurgia baskularra (%78,1) eta kirurgia plastikoa (%64,6) daude.

Batez besteko egonaldia (egunetan) berriro ere murritzut egin da, eta 6,7 egunetik 6,3 egunera igaro da. Batez bestekoa baino askoz ere gorago daude errehabilitazioa

(33,1), zaintza aringarriak (18,2), psikiatria (15), hematologia (10,9) eta barne-medikuntza (8,9).


Itxarote-zerrendak

Kanpoko kontsultei dagokienez, itxarote-zerrendetako gaixo kopuru osoak, 2005etik 2006ra izandako %-18,7ko beherakadaren ostean, berriro ere gora egin du (%6,9).

Hazkundera espezialitate ia guztietan egon da, anesteziologian (%-6,8), oftalmologian (%-6,1), urologian (%-3,1) eta alergologian (%-0,4) izan ezik.

Hazkunderik handienak honako hauek izan dituzte: kardiologia (%42,3), ginekologia (%34,8), endokrinologia (%25,8), otorrinolaringologia-ORL (%25,1), errehabilitazioa (%23,4) eta neurologia (%16,1).

IV.2.4. GRAFIKOA. KANPOKO KONTSULTETAKO ITXAROTE-ZERRENDETAN DAGOEN GAIKO KOPURUAREN ALDAKETA 2003-2007 (%)



Iturria: Osakidetza

Aldia zabaldua ikusten denez (esaterako, 2003tik 2007rako aldira zabaldua), itxarote-zerrendako gaixo kopuruak %9,2ko hazkundera izan du, batez ere honako espezialitate hauetan egon diren hazkunderen eraginez: ginekologia (%53,9), otorrinolaringologia-ORL (%45,2), endokrinologia (%40,8), kardiologia (%40,4), digestio-aparatua (%38,5), anesteseologia (%30,4), pneumologia (%23,2) eta errehabilitazioa (%22,2).

Aldiz, beherakadak egon dira kirurgia orokorrean (%-27,3), urologian (%-18,5), alergologian (%-7,9), dermatologian (%-6) eta oftalmologian (%-6).

Berandutze-aldiari dagokionez, 2006tik 2007ra, 3 hilabete baino gehiago itxaroten duen biztanleria-ehunekoa berriro murriztu eta %2,2tik %0,6ra igaro da; gauza bera 1-3 hilabete bitarteko aldia itxaroten duen biztanle kopuruari dagokionez. Hortaz, hilabetetik behera itxaroten dutenen ratioak gora egin du, eta %74,6tik %80,4ra igaro da.

Kirurgiako itxarote-zerrendei dagokienez, horietako gaixo kopurua berriro hazi da 2006tik 2007ra (%+0,9), eta 15.944 pertsonatik 16.086ra igaro da; halaber, batez besteko berandutze-egunen kopuruak ere gora egin du (51,9 egunetik 53,03 egunera). Hala eta guztiz ere, ebakuntza egiteko 3 hilabete baino gehiago itxaron behar duten gaixoen ehunekoak ostera ere behera egin du, eta %15,5etik %15era murriztu da.

IV.2.31 KOADROA. KANPOKO KONTSULTETAKO ITXAROTE ZERRENDAK BERANDUTZE ALDIAK (%)

	2003	2004	2005	2006	2007
< hilabete	64,2	57,9	61,4	74,6	80,4
1 – 3 hilabete	30,8	32,6	27,3	23,2	19,0
> 3 hilabete	5,0	9,4	11,3	2,2	0,6

Iturria: Osakidetza: Akutuen Ospitaleak + Egonaldi Ertaineko eta Luzeko Ospitaleak

Prozedura kirurgikoaren arabera, itxarote zerrendetan gaixo kopururik gehien dituzten espezialitateak honako hauek dira berriro: kataratak (3.331), herniak (1.488), artroskopiak (672), barizeak (838) eta belauneko protesiak (573). Hazkunderik handienak honako hauek izan dituzte: EMO (%23,1), hallux valgus (%7,7), herniak (%7,4), artrodesia/artroplastia (%5,6), kataratak (%4,3) eta karpoko tunela (%2).

Aldia luzatuta ikusten denez (2003tik 2007ra luzatuta), kirurgiako itxarote-zerrendetako gaixo kopuruak %16,9ko hazkundera izan du, eta 13.759 pertsonatik 16.086 pertsonara igaro da; hala ere, batez besteko berandutze-egun kopurua murriztu egin da apur bat, 53,8tik 53ra; gainera, ebakuntzarako 3 hilabete baino gehiago itxaron behar duen gaixo kopurua ehuneko lau hamarrenetan murriztu

IV.2.32 Koadroa. Kanpoko kontsultetako itxarote zerrendak (gaixo kop. handieneko espezialitateak)

	Gaixo kopurua					Aldaketak				
	2003	2004	2005	2006	2007	Ald. % 03-04	Ald. % 04-05	Ald. % 05-06	Ald. % 06-07	Ald. % 03-07
Alergologia	1.801	2.064	1.982	1.664	1.658	14,6	-4	-16	-0,4	-7,9
Anestesiologia	2.919	4.035	5.002	4.084	3.805	38,2	24	-18,4	-6,8	30,4
Kardiologia	2.371	2.922	3.290	2.338	3.328	23,2	12,6	-28,9	42,3	40,4
Dermatologia	9.199	9.711	10.564	8.305	8.649	5,6	8,8	-21,4	4,1	-6
Digestio-aparatua	2.898	3.349	3.440	3.530	4.013	15,6	2,7	2,6	13,7	38,5
Endokrinologia	1.410	2.077	1.873	1.578	1.985	47,3	-9,8	-15,8	25,8	40,8
Neurologia	3.230	4.229	4.018	3.429	3.980	30,9	-5	-14,7	16,1	23,2
Errehabilitazioa	3.052	3.344	3.164	3.022	3.730	9,6	-5,4	-4,5	23,4	22,2
Kirurgia orokorra	4.249	4.712	4.258	3.076	3.089	10,9	-9,6	-27,8	0,4	-27,3
Oftalmologia	18.106	18.987	22.120	18.135	17.026	4,9	16,5	-18	-6,1	-6
ORL	3.535	4.085	4.630	4.103	5.132	15,6	13,3	-11,4	25,1	45,2
Traumatologia	11.425	14.695	15.671	11.737	11.899	28,6	6,6	-25,1	1,4	4,1
Urologia	3.142	3.731	3.456	2.642	2.560	18,7	-7,4	-23,6	-3,1	-18,5
Ginekologia	4.967	7.869	6.583	5.673	7.646	58,4	-16,3	-13,8	34,8	53,9
Beste batzuk	9.003	10.324	12.018	9.711	10.250	14,7	16,4	-19,2	5,6	13,9
GUZTIRA	81.307	96.134	102.069	83.027	88.750	18,2	6,2	-18,7	6,9	9,2


Iturria: Osakidetza: Akutuen Ospitaleak + Egonaldi Ertaineko eta Luzeko Ospitaleak

IV.2.33 Koadroa. Kirurgiako itxarote zerrendak. Bilakaera

	2003	2004	2005	2006	2007
Gaixo kopurua	13.759	15.906	15.706	15.944	16.086
B. b. berandutzea (egunak)	53,8	56,8	55,17	51,9	53,03
Gaixo kop. > 3 hilabete	2.121	2.914	2.878	2.470	2.414
Gaixo % > 3 hilabete	15,4	18,32	18,25	15,5	15,0

Iturria: Osakidetza. Akutuen Ospitaleak

IV.2.5. GRAFIKOA. ITXAROTE-ZERRENDETAKO GAIXO KOPURUAREN ALDAKETA, PROZEDURA KIRURGIKOAREN ARABERA, 2003-2007 (%)



Iturria: Osakidetza

IV.2.34 KOADROA. BERANDUTZE ALDAK KIRURGIAKO ITXAROTE ZERRENDETAN, PROZEDURA KIRURGIKOAREN ARABERA

	Gaixo kopurua							B. besteko berandutzea (egunak)						
	2003	2004	2005	2006	2007	Ald. % 06-07	Ald. % 03-07	2003	2004	2005	2006	2007	Kend. 06-07	Kend. 03-07
Kataratak	2.445	2.840	3.059	3.193	3.331	4,3	36,2	48,4	50,1	47,3	44,1	47,5	3,5	-0,9
Herniak	1.188	1.294	1.218	1.385	1.488	7,4	25,3	51,8	57,9	55,1	49,5	55,1	5,6	3,3
Artroskopiak	773	864	934	755	672	-11,0	-13,1	57,4	56,8	58,1	46	44,4	-1,6	-13,0
Barizeak	778	908	671	838	633	-24,5	-18,6	57,5	62,0	54,9	53,9	54,2	0,3	-3,3
Aldakako protesia	427	518	549	403	371	-7,9	-13,1	62,5	68,1	72,0	59,9	52,8	-7,1	-9,7
Hallux valgus	363	435	402	375	404	7,7	11,3	59,5	57,6	61,0	52,2	52,9	0,7	-6,6
Belauneko protesia	535	613	696	571	573	0,4	7,1	63,2	66,0	71,5	55,2	54,9	-0,3	-8,4
Fistula-fisura/kiste pilonidala	317	359	315	377	352	-6,6	11,0	51,1	52,7	59,4	50,2	55,7	5,5	4,6
Adeno-amigdalektomiak	352	388	340	457	410	-10,3	16,5	49,7	52,5	53,7	48,0	47,9	-0,1	-1,9
Kolezistektomia laparoskopikoa	267	259	408	405	351	-13,3	31,5	49,3	46,1	53,4	45,0	46,5	1,5	-2,8
Karpoko tunela	298	374	373	342	349	2,0	17,1	61,5	61,5	52,2	43,3	49,5	6,2	-12
Artrodesis/artropl.	324	398	396	324	342	5,6	5,6	68,6	65,3	71,9	69,6	66,6	-3,0	-2,0
EMO	184	208	213	160	197	23,1	7,1	61,8	59,7	62,3	59,5	58,6	-0,8	-3,2
Histerektomiak	294	342	295	287	253	-11,8	-13,9	57,6	59,9	58,0	52,9	60	7,2	2,4
Septorhinoplastiak	238	228	256	275	196	-28,7	-17,6	53,2	52,1	61,4	61,8	55	-6,8	1,8
Beste batzuk	4.976	5.878	5.581	5797	6.164	6,3	23,9						0,0	0,0
GUZTIRA	13.759	15.906	15.706	15.944	16.086	0,9	16,9	53,8	56,8	55,2	51,9	53,0	1,1	-0,8

Iturria: Osakidetza. Akutuen Ospitaleak

da. Hazkunderik handienak, itxarote-zerrendetako gaixo kopuruan, kataratetan (%36,2), kolezistekomia laparoskopikoan (%31,5), hernietan (%25,3) eta karpoko tunelean (%17,1) ikusi dira.

2.3.1.4 Osasun-laguntza pribatua: medikuntza- eta farmazia-laguntzako aseguru askeko erakundeak

Aseguru Askeko Erakundeek kopuru osoak (AAE), Eustaten datuen arabera, 2004tik 2005era izandako murriztapenaren ostean, berriro ere gora egin du 2006an; hain zuzen ere, 15 dira, baina lurralde batean baino gehiagotan jardun dezakete. Horietatik, 4 igualatorioak dira, 8 aseguru-konpainiak eta 3 BGAEak nahiz mutualitateak.

Zorroari dagokionez, poliza kopuruak berriro ere gora egin du; hain zuzen ere, 2005etik 2006ra %5,9ko hazkun-

dea izan du, eta 177.216 dira. Osasun-laguntzako aseguru pribatua kontratatutik duten biztanleak 341.616 dira, eta horrek %6,8ko hazkundera adierazten du, 2005ari dagokionez. Azken hamaika urteotako zifrarik handiena da, Eustatek emandako datuen arabera. Horrenbestez, EAEko biztanleriaren %16k osasun-aseguru pribatua du kontratatutik.

Aseguratu kopururik handiena barruan hartzen duen modalitatea banakako edo familiako poliza da (%47,5); horren ostean, taldeko aseguruak datoz (enpresak edo beste talde batzuek enplegatuen edo taldeon alde zuzenean kontratatzen dituztenak), %35,9rekin, eta ondoren mutualitate publikoak (%16,6).


Aseguratu kopuruan hazkunderik handiena, hala ere, taldeko aseguruetan egon da; hain zuzen ere, 2005etik 2006ra %10,9ko hazkundera izan dute, eta 2000tik 2006ra %68,1koa, Bestalde, 2000tik 2006ra, banakako asegu-

IV.2.35 KOADROA. MEDIKUNTZA ETA FARMAZIA LAGUNTZAKO ASEGURU ASEKO ERAKUNDEEN BILAKAERA EAE-N

	2000	2002	2004	2005	2006	Aldaketa 2005-06
Erakundeak guztira*	15	15	15	14	15	7,1
Igualatorioak	4	4	4	4	4	0,0
Aseguru-konpainiak	8	8	8	7	8	14,3
BGAEak eta mutualitateak	3	3	3	3	3	0,0
Zorroa						
Poliza kopurua	151.910	158.158	162.627	167.373	177.216	5,9
Aseguratu kopurua	299.778	310.796	311.148	319.788	341.616	6,8
Aseguraturiko biztanleriaren %	14,2	14,7	15	15	16	6,0
Primen bolumena (euroak milatan)	121.867	137.086	158.519	169.744	184.852	8,9
Aseg. bakoitzeko primak (euroak)	407	441	509	531	541	1,9
Biztanleko primak (euroak)	58	65	74	80	87	8,8
Primak / BPG (%)	0,29	0,29	0,3	0,29	0,3	
Langileria						
Guztira	7.663	8.019	8.106	7.816	8.378	7,2
Osasunaren arloko langileria	7.557	7.858	7.938	7.653	8.205	7,2
Sendagileak	1.619	1.616	1.567	1.483	1.518	2,4
OLT/EUD	399	471	466	429	434	1,2
Laguntza-jarduera						
Anbulatorioko konts. kopurua	1.135.559	1.164.635	1.197.201	1.235.331	1.270.526	2,8
Ospitaleko diru-sarrerak	35.832	40.186	46.922	49.236	51.117	3,8
Interbentzio kirurgikoak	28.576	29.066	32.185	33.117	34.431	4,0
Jarduera ekonomikoa						
Gastuak guztira (euroak milatan)	129.507	138.311	160.778	168.694	176.990	4,9
Diru-sarrerak guzt. (euroak milat.)	128.622	144.806	168.129	179.722	195.317	8,7

* Guztizkoa erakunde desberdinei buruzkoa da, horiek lurralde batean baino gehiagotan jardun dezaketen arren

Iturria: Eustat. Datu-basea

IV.2.6. GRAFIKOA. ASEGURATU KOPURUAREN ETA ASEGURATU BAKOITZEKO PRIMEN BILAKAERA, POLIZA MOTAREN ARABERA

Iturria: Eustat, Medikuntza eta Farm. Lag. gab. Aseg. Erak. Ikerk.

ruek, aseguratu kopuruari dagokionez, ia %3ko murriztapena izan dute, eta mutualitate publikoek ia %5ekoa.

Aseguraturik gehienek (%96,9), oraindik ere, nahia-go dute osasun-laguntza orokorreko estaldura (medikuntza-kirurgiako) duen osasun-aseguru pribatua, osasun-laguntza espezifiko baina (adibidez, hortzetako aseguru).

2006an bildutako primen zenbateko osoa 184,9 milioi eurokoa izan zen, eta horrek, urte horri dagokionez, Estatuko eta EAEko BPGren %4,4 eta %0,3 adierazten du, hurrenez hurren. Primen bolumenak %8,9ko hazkundera izan zuen aurreko urtetik (Estatuan izandako %9,2ko hazkundera baino txikiagoa).

EAEan aseguratu bakoitzeko urteko batez besteko prima 541 eurokoa izan zen, eta horrek %1,9ko hazkundera izan zuen 2005etik. EAEko primarik baxuena taldeko asegurue-na izan zen (498€, eta aurreko urtean 509€), eta altuena modalitate publikokoa (574€). Aipagarria da aurreko

urtean aseguratu bakoitzeko primarik handiena banakakoa edo familiakoa izatea.

Osasun-laguntzako medikuntza-asegurudun pertsonen 1.257.073 kontsulta egin zituzten AAren kontura (aurreko urtean baino %2,9 gehiago); hain zuzen ere, aseguratu bakoitzeko 3,7 kontsulta: aurreko urteko kopuruaren antzekoa (3,9) eta ospitaletik kanpoko sare publikoko batez besteko 6,3 kopurua baino txikiagoa. Eustaten arabera, kontsultarik gehien izan zituzten espezialitateak traumatologia, tokoginekologia, pediatria eta oftalmologia izan ziren.

Ospitale barruko laguntzak ere gora egin zuen 2006an; horrela, medikuntzako aseguru-etxeetako 51.117 gaixo ospitaleratu ziren, aurreko urtean (49.236) baino %3,8 gehiago, eta batez besteko egonaldia 3 egunekoa izan zen. Talde horretatik, %67,3k interbentzio kirurgikoa izan zuten, eta, guztira, 34.431 interbentzio egin ziren (%+4); horietatik, ugarienak kirurgia orokorrekoak, oftalmologiakoak, traumatologikoak eta ginekologiakoak izan ziren.


3

Hirigintza eta etxebizitza

410

Higiezin merkatuak EAEn 2007an izandako bilakaeraren ezaugarri nagusia etxebizitza-eskaintzak %22,2ko hazkunde orokorra izatea da (2005-2006an %16,4); gainera, salmentako etxebizitza berriak (%+10,7), erabilitakoak (%+53,3), alokairuko etxebizitza askeak

(%-16,1), salmentako babeseko etxebizitzak (%+0,55) edo alokairuko babeseko etxebizitzak (%+22,2) jokabide desberdinak izan dituzte. Horri dagokionez, etxebizitzaren eskariak edo beharrianak¹ %4,5eko hazkundea izan du, aurreko aldian %7,2ko murriztapena izan ondoren.

IV.3.1. GRAFIKOA. ETXEBIZITZA-MERKATUAREN BILAKAERA EAEn¹

Iturria: Geuk landuta Eusko Jaurlaritzan eta INEn oinarrituz.

(*) Hipoteka kopuruak 2002tik 2003ra izandako hazkundea kontuz aztertu behar da, eragiketa estatistikoan aldatu egin baita metodologia.

¹ Grafikoan adierazitako eskarian, urtebete aldatzeko eta lortzeko beharrian duden etxebizitzak daude jasota; eskaintza higiezin eragileek eta sustatzaileek adierazitakoa da; prezioak salmentan dauden etxebizitzaren (berriak eta erabiliak) m² erabilgarriko euroak dira.

Bestalde, hipoteka kopuruak %10,1eko murriztapena izan du eta horien zenbateko osoak, berriz, %11,5eko murriztapena, aurreko urtean bien tasak positiboak izan ondoren. Aldiz, hipotekaturiko finkarako maileguan utzitako batez besteko zenbatekoak %12,3ko hazkundera izan du 2007an. Beste alde batetik, hipoteka-merkatuko interes-tasak gero eta handiagoak izan dira: urtebeterako euriborra urtarrileko 3,44tik abenduko 4,45era igaro da (+1,01 puntu), eta kreditu-erakundeek familiei maileguak emateko tasa (UTB) 4,74tik 5,53ra igaro da aldi horretan (+0,79 puntu)².

3.1. Lurzorua eta eraikuntza kostuak

3.1.1. Lurzorua EAE-n


Etxebizitzak egoitza-merkatura iristeko prozesua lurzorua eskuratuta hasten da; gero, hirigintza, sustapena

eta eraikuntza datoz; azkenik, etxebizitzaren salmenta edo adjudikazioa. Oro har, prozesuaren azken zatia buruzko informazioa dago, eskainitako etxebizitzaren bolumena ezagutzen dugu, baita horien ezaugarri batzuk eta salmentako prezioak ere; baina aurreko faseei buruzko informazioa oso lausoa da, eta, iturrien arabera, kontraesankorra ere bai.

EAEko sustatzaileek Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Sailak 2006an egindako Inkestaren bidez adierazitakoaren arabera, etxebizitzaren azken prezioan eraginik handiena duen osagaia lurzoruen kostua da, etxebizitzaren azken balioaren erdia baino gehiago baita (%53). Hain zuzen ere, %42 lurzoruen kostu gordina da, eta horri hirigintza-kostuen %11 gehitu behar zaio. Eraikuntza-kostuei dagokienez, sustatzaileek diotenez, azken prezioaren %27 da, eta gainerako %20 kostu orokorrak eta finantza-kostuak dira; azken horien barruan, enpresen irabazia sartzen da.

Etxebizitza Ministerioaren Prezioen Estatistikako datuen arabera, EAE-n 2007ko azken hiruhilekoan egindako hiri-lurzoruen transakzioek 414,9 €/m²-ko batez besteko prezioa izan dute, eta hori aurreko urteko batez bestekoa baino %25,1 handiagoa da (aurreko urtean aurkako

IV.3.2. GRAFIKOA. ETXEBIZITZEN PREZIOAREN EGITURAK EAE-N DUEN BILAKAERA.



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Higiezinaren sustatzaileei egindako inkesta, 2006.

² Finantza-aldagai hauen bilakaerari buruzko informazio gehiago edukitzeko, irakurri Memoria Sozioekonomikoko II.2 kapitulua ("Produktzio-egitura eta Berrikuntza EAE-n").

bilakaera egon zen, eta batez bestekoak %8,5eko murriztapena izan zuen, 2005eko laugarren hiruhilekoari zegokionez). Aldiz, Estatuko transakzioek 277 €/m²-ko batez bestekoa izan zuten, eta %2,7an murriztu ziren, 2006ko azken hiruhilekoan izandako batez bestekotik.

Balio absolutuetan, batez besteko preziorik altuena Madrileko Erkidegoak izan du (563,6 €/m², 2006ko laugarren hiruhilekoan baino %13,7 altuagoa), eta, gero, Murtziako Erkidegoak (400,3 €/m²). EAE Estatuko batez bestekoaren gainetik egon zen 2006an, baina bertatik ez oso urrun, azken urteko hazkunde gogorraren eraginez, eta prezioen rankinean lehenengo postuetariko bat berreskuratu du. Hain zuzen ere, hirugarren postuan dago, Valentziako Erkidegoaren aurretik.

EAEko Lurralde Historikoetan izandako bilakaerari dagokionez, aipagarria da prezioek Araban izandako hazkunde handia; izan ere, %26,1eko hazkunde izanik,

2007ko amaieran batez besteko prezioa 615,3 €/m² izan da, Madrileko Erkidegoko prezioaren gainetik. Bizkaian eta Gipuzkoan ere batez besteko prezioek gora egin dute, lehenengoaren kasuan %11,9 eta bigarrenaren kasuan %14,5.

Bestalde, hirigintza-jarduerak, beharrezkoa izan arren (oraingo eskaria aintzat hartuta), eragin handia dauka ingurumenean, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailak iraunkortasunari buruz egindako azken ikerketetan ikusten denez; horri dagokionez, iraunkortasun-estrategiaren barruan, lurraldearen erabilera orekatua lortzea sartzen da. Sail horrek "2007ko Ingurumen Adierazleak" argitaratu ditu, eta, horiek adierazitakoaren arabera, EAEn artifizial bihurturiko azalera 56.841 hektareakoa da, hau da, azalera osoaren %8; azken urtean, hain zuzen ere, 273 hektareako hazkunde izan du, eta hazkunde hori azken

IV.3.1 KOADROA. HIRI LURZORUAREN PREZIOAK A. ERKIDEGOETAN DUEN BILAKAERA (€/m ²). LAUGARREN HIRUHILEKOAK.				
	2005	2006	2007	Ald. % 06/07
Andaluzia	229,0	252,3	259,3	2,8
Aragoi	223,0	243,8	215,0	-11,8
Asturias	233,0	269,9	260,9	-3,3
Balearrak	278,7	322,4	352,8	9,4
Kanariak	315,9	370,5	405,4	9,4
Kantabria	163,8	201,6	214,8	6,5
Gaztela eta Leon	132,9	144,0	120,8	-16,1
Gaztela-Mantxa	146,6	184,6	202,0	9,4
Katalunia	290,3	348,6	295,5	-15,3
Valentziako Erkid.	374,1	423,8	364,2	-14,1
Extremadura	146,7	140,1	147,0	5,0
Galizia	228,4	214,3	233,0	8,7
Madril	585,0	495,7	563,6	13,7
Murtzia	284,3	325,7	400,3	22,9
Nafarroa	169,6	161,6	181,0	12,0
EAE	362,3	331,5	414,9	25,1
Araba	440,7	487,8	615,3	26,1
Gipuzkoa	408,2	236,0	499,1	14,5
Bizkaia	317,4	290,3	324,9	11,9
Errioxa	271,1	266,2	253,1	-4,9
Ceuta eta Melilla	597,7	664,4	399,7	-39,8
ESTATUKO B. BES.	267,3	284,6	277,0	-2,7

Iturria: ETXEBIZITZA MINISTERIOA. Lurzoruaren prezioen estatistika.

urteotako hazkunderik txikienetakoa da. Egoera horren eragile nagusiak honako hauek izan dira: egoitza-erabileretarako lurzorua (136 Ha, guztizkoaren %49,8), jarduera ekonomikoetarako lurzorua (77 Ha), ekipamenduetarako lurzorua (48 Ha) eta eremu askeetarako lurzorua (12 Ha).

3.1.2. Eraikuntza-kostuen estatistika


EUSTATen "Eraikuntza Kostuen Indizea"³ adierazle koiunturala da eta kostu horien bilakaera neurtzen du, Eraikuntza sektoreko lehengaien edo bitarteko kontsumoen indize baten bidez (Lehengaien eta Materialen Kostuaren, Energiaren Kostuaren eta gastuen Kostuaren arteko batuketa, ibilbide hori sektoreko lehengai nagusien prezioen bitartez zenbatetsita) eta Langileria Kostuen bidez (Soldata Gordinen eta Gizarte Kotizazioen batuketa, sektoreko Hitzarmen Kolektiboen bitartez zenbatetsita). Jakina, adierazle horrek ez du aukerarik ematen produkzioaren azken prezioan eragina duten kostu guztiak neurtzeko;

izan ere, enpresa-hobaria ez ezik, kapitalari loturiko faktoreak ere falta dira.

2006-2007 aldian, eraikuntza-kostuek, oro har, %4ko hazkundera izan dute, eskulanaren kostuak %4,2ko hazkundera eta lehengaien kostuak %3,9koa. Eraikuntzaren eta Obra Zibilaren azpisektoreen kostuek ere ia intentsitate bereko hazkundera izan dute: %3,9 eta %4, hurrenez hurren. 2007an inflazio-tasarik handienak izan dituzten lehengaien (sektorean kontsumituriko lehengaiak) prezioen artean, honako hauek daude: petrolioaren deribatuak (%23,5), beira (%20,4), asfaltozko produktuak (%16,6) eta zementu artifiziala (%6,9). Aldiz, urteko prezioetan murriztapenak izan dituzte burdinaren eta altzairuaren lehengaiak (%-1,7), egiturek eta galdaragintzak (%-1,4), laneko jantziek (%-1,3) eta energia elektrikoak (%-0,4).

Bestalde, EUSTATen "Industria eta Eraikuntza Estatistika" deritzonoko datuek agerian jarri dutenez, azken urteko faktorerik aktiboena eraikuntza-sektorea da. Azken datu erabilgarrien arabera (2006ari buruzko datuak),

IV.3.3. GRAFIKOA. ERAIKUNTZA KOSTUEN URTE BATETIK BESTERAKO ALDAKETA TASA EAE-N. OINARRI URTEA=2005.



Iturria: Eustat, EEKI.

³ Indize honek eraikuntzako bi obra mota bereizten ditu: alde batetik, Eraikuntza (eraikuntza iraunkorra banandua eta independentea, familiako edo taldeko etxebizitzatzat erabiltzeko sortzen dena, edo nekazaritza-, industria- nahiz zerbitzu-helburuetarako edo, orokorrean, jardueraren bat garatzeko adibidez, eskolak, siloak, etab. sortutakoa); bestetik, Obra zibila (eraikuntzakoa ez den edozein azpiegitura-obra, erabilera publikoa edo taldekoa izango duena). 2008ko otsailan, EUSTATEk beste oinarri bat egin du, 2000tik 2005era igarota. Aldaketa horrek zenbait hobari ekarri ditu, esate baterako, EAEko eraikuntza-sektoreko produktuak eta lehengaiak gaurkotzea, horien estaldura nabarmen handituta.

IV.3.2 Koadroa. ERAIKUNTZA KOSTUEN INDIZEAREN BILAKAERA, AZPISEKTOREEN ETA OSAGAIEN ARABERA. EAE.

Oinarria 2005= 100	Guztira	Eraikuntza	Obra zibila	Leheng.	Eskulana
1995	74,4	74,4	74,4	78,1	67,8
1996	76,7	76,7	76,9	79,7	71,2
1997	78,7	78,7	78,6	81,1	73,8
1998	80,2	80,4	79,4	82,4	75,6
1999	81,0	81,2	80,3	82,8	77,0
2000	83,8	83,9	83,6	85,9	79,3
2001	86,7	87,0	85,9	87,8	83,7
2002	88,6	88,8	87,8	88,7	87,0
2003	90,1	89,9	90,5	89,1	92,1
2004	95,1	95,1	95,2	94,8	95,6
2005	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
2006	104,2	104,0	104,9	103,8	105,3
2007*	108,3	108,1	109,1	107,8	109,7

(*) 2007: behin-behineko datuak

Iturria: EUSTAT. Eraikuntza Kostuen Indizea.


urte horretan euren balio gordinak %9,4ko hazkunde nominala izan zuen (2005ean %10,1ekoa). Sektore horretan enpleguak 95.000 lanpostuko muga gainditu du 2006an; hain zuzen ere, 96.312 lanpostu, aurreko urtean baino %3,4 gehiago.

Enpresa-soberakin gordina, bestalde, sorturiko balio erantsiaren %36,6 da, eta %8ko bilakaera positiboa izan du; langileria-kostuak gehiago hazi dira: %10,3.

IV.3.3 Koadroa. ERAIKUNTZA SEKTOREKO MAGNITUDE NAGUSIAK. PREZIO ARRUNTAK (€-AK MILATAN)

	2004	2005	2006	% 04/05	% 05/06
Landunak	90.774	93.176	96.312	2,6	3,4
BEG fakt. kostuan	4.147.094	4.566.481	4.996.500	10,1	9,4
Uste. soberakin gord.	1.454.840	1.694.332	1.829.851	16,5	8,0
Egindako inbertsioak	382.707	437.565	347.103	14,3	-20,7
Amortizazioak	213.796	200.116	246.969	-6,4	23,4
Negozio-zifra	13.135.946	14.183.643	16.615.279	8,0	17,1
B. diru-sarrera batzuk	1.571.267	1.563.781	:	-0,5	:
Usti. kontsumoa	8.661.763	9.411.217	10.215.128	8,7	8,5
Kanpoko zerbitzuak	1.436.695	1.411.170	1.614.433	-1,8	14,4
Langileria-kostuak	2.692.254	2.872.149	3.166.649	6,7	10,3
Beste gastu batzuk	365.738	327.459	:	-10,5	:
Zergak baino lehenag.	1.094.497	1.329.323	1.424.258	21,5	7,1
Cash-Flow	1.308.293	1.529.439	1.671.227	16,9	9,3

Iturria: Eustat. Industriaren eta eraikuntzaren estatistika.

IV.3.4. GRAFIKOA. EAE-KO ERAIKUNTZA SEKTOREKO MAGNITUDE NAGUSIEN URTE BATETIK BESTERAKO ALDAKETA TASAK

Iturria: EUSTAT. Industriaren eta eraikuntzaren estatistika.

Beste alde batetik, 347,1 milioi euroko inbertsioak egin dira, eta zifra hori aurreko ekitaldikoa baino askoz ere txikiagoa da (%20,7ko murriztapena); zenbateko horri amortizazioak kenduz gero, inbertsio garbia 100 milioi eurokoa izan da, 2005ean baino 137 gutxiago.

Azkenik, negozio-zifrak %17,1eko hazkundea izan du, eta 16.615 milioi euro izan dira; zergen aurreko emaitzek, berriz, %7,1eko hazkundea izan dute.

3.2. Etxebizitza eskaintza EAE-n

Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren "EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokal eskaintzari buruzko Inkesta"⁴ deritzonoko datuek adierazitakoaren

415

IV.3.4 KOADROA. ETXEBIZITZA ESKAINTZAK EAE-N DUEN BILAKAERAREN LABURPENA

	Etxebizitza askea			Babeseko etxebizitza				
	Salmenta		Alokairua	Salmenta*			Alokairua	Guztira
	Erabilia	Berria		BOE	Soziala	Guzt.		
2000	5.836	3.136	662	1.456	1.021	2.477	353	2.830
2001	8.532	2.819	409	2.166	793	2.959	421	3.380
2002	7.880	2.672	428	2.192	655	2.847	552	3.399
2003	6.301	3.188	533	2.914	626	3.540	469	4.009
2004	6.110	3.900	512	3.584	347	3.932	500	4.431
2005	6.524	4.159	521	3.849	70	3.919	1.015	4.934
2006	6.936	3.912	578			5.065	1.555	6.620
2007 I hiruh.	7.231	3.853	552			5.034	1.613	6.647
II hiruh.	8.147	4.037	489			4.822	1.635	6.457
III hiruh.	9.353	4.125	452			4.729	1.480	6.209
IV hiruh.	10.630	4.329	485			5.093	1.513	6.606


Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokal Eskaintzari buruzko Inkesta. 2007ko 4. hiruhilekoa.

(*) 2006tik desagertu egin da salmentako etxebizitza sozialaren modalitatea.

Oharra: Datuak 4. ordenako neurri mugikorren bidez adierazten dira.

⁴ Etxebizitza eskaintza duten etxebizitza-sustatzaleei eta higiezinaren jabetzako eragileei egindako inkesta (bost etxebizitzatik gorako sutapenak), 172 sustatzaille eta 125 higiezin-enpresa; beraz, izan daiteke eskaintza osoa jasota ez egotea. Inkestako emaitzei dagokienez, datu absolutuak baino garrantzitsuagoak dira aldaketa-datuak.

IV.3.5. GRAFIKOA. PREZIOEN ESTATISTIKAREN OINARRIA OSATZEN DUEN ETXEBIZITZA-LAGINAREN BANAKETA.



Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokal eskaintzari buruzko Inkesta. 2007ko 4. hiruhilekoa.

arabera, azken urtean etxebizitza-eskaintza osoak (salmenta gehi alokairua) %22,2ko hazkundera izan du (aurreko urtean %11,8), eta laugarren hiruhilekoan 22.050 unitate izan dira. Prezioen estatistika-oinarrria den lagin hori, hain zuzen ere, erabilitako etxebizitzaren %50ek (batez ere, salmenta-araudian eskainita -%96-), eraikuntza berriko etxebizitza askeen %20k eta babeseko etxebizitzaren %30ek osatzen dute. Datu horien arabera, bizkortu egin da 2004an (2002-03 biurtekoak merkatuko etxebizitza kopurua murriztu ondoren) hasitako hazkunde-joera.

2007ko beste ezaugarri aipagarri bat, izan ere, babeseko etxebizitza-eskaintzaren garrantzi erlatiboa urritzea da; izan ere, eskainitako 6.606 etxebizitzak guztizkoaren %30 baino ez dira (2006an baino 6,7 puntu gutxiago). Izan ere, salmentako BOE etxebizitzaren eskaintza mantendu egin da (2006an etxebizitza soziala merkatutik desagertu), eta %0,6ko hazkundera baino ez du izan; gainera, alokairuko babeseko etxebizitza kopurua ere murriztu egin da, eta horren eskaintzak %2,7ko murriztapena izan du. Alokairu pribatua, bestalde, 93 unitatetan murriztu da (%-16,1), 2006koari dagokionez, eta, beraz, garrantzia galdu du alokairuko eskaintza osoarekiko (%27tik %24,3ra).

Prezioei dagokionez, salmentako etxebizitza askearen prezioak %5,9ko hazkundera izan du, 2006ko batez bestekoari dagokionez; horrela, aurreko urtean (%+8,9) baino hazkunde txikiagoa egon da. Etxebizitza berriaren merkatua aintzat hartuta, hazkundera %12,8koa izan da, eta erabilitako etxebizitzaren segmentuan, berri,

hazkunde askoz ere txikiagoa egon da (%+2). Era berean, salmentako babeseko merkatuko batez besteko prezioak %2,9ko hazkundera izan du, eta batez besteko babeseko errentaren hazkundera askoz ere urriagoa izan da, gero ikusiko dugunez, 2006koa baino (%-26,3).

3.2.1. Salmentarako etxebizitza-eskaintza eta prezioak

(a) Etxebizitza berria

Lehenengo eta behin, salmentarako eraikuntza berriko etxebizitza askeen eskaintza, 2007ko laugarren hiruhilekoan, 4.329 unitatekoa izan da, 2006an baino %10,7 gehiago, eta, lurraldeka, honako banaketa hauxe dauka: Bizkaian bitik bat, Gipuzkoan %30 eta Araban gainerako %20. Banaketa horretan Bizkaia garrantzi erlatiboak hazkunde handia izan du (2006an %41), Arabaren eta Gipuzkoaren kaltetan (eskaintzaren %35 eta %24, hurrenez hurren).

EAEko etxebizitza berrien ezaugarriei dagokionez, gehienak profil honen barruan daude: taldeko etxebizitzak (%83) eta eraikuntza faseko etxebizitza bolumen handiagoa (%79). Azalera erabilgarriari dagokionez, 76-90 m² bitarteko azalera dutenak guztizkoaren %36 dira, eta apartamentuek oraindik ere presentzia oso urria dute eskaintza laginean. Horrela, guztizkoaren %8k soilik dauka 60 m²-tik behera. Batez besteko azalerari dagokionez, eraikuntza berriko eskaintza aske osorako batez bestekoa

IV.3.5 Koadroa. SALMENTAKO ETXEBIZITZEN B. BESTEKO PREZIOAREN BILAKAERA EAE-N. €/M2 ERABILGARRI.

	Etxebizitza askea				Babeseko etxebizitza **	
	Askea guzt. *	Erab.	Berria	Etxebizitza mota	BOE	Soziala
2000	2.168,2	2.339,4	1.839,1	1.561,1	901,8	550,0
2001	2.360,5	2.408,4	2.219,7	2.155,6	922,8	520,5
2002	2.530,6	2.594,5	2.345,6	2.242,8	1.007,8	521,3
2003	3.060,1	3.338,4	2.510,0	2.419,7	1.047,4	597,1
2004	3.327,1	3.596,4	2.905,2	2.785,7	1.129,0	670,3
2005	3.715,0	3.935,5	3.369,0	2.960,2	1.245,8	756,5
2006	4.046,9	4.272,8	3.646,3	3.153,6	1.285,1	
2007 I	4.119,3	4.316,2	3.749,8	3.166,7	1.293,0	
2007 II	4.196,4	4.336,8	3.913,2	3.166,1	1.299,1	
2007 III	4.266,0	4.363,5	4.034,6	3.176,3	1.311,1	
2007 IV	4.286,0	4.356,4	4.113,2	3.221,4	1.322,9	

* Etxebizitza berrien eta erabilien b.b. prezioa.

** 2006tik, salmentako etxebizitza sozialaren modalitatea desagertu egin da.

Oharra: Datuak 4. ordenako neurri mugikorren bidez adierazten dira.

Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokal eskaintzari buruzko Inkesta. 2007ko 4. hiruilekoa.

IV.3.6 Koadroa. SALMENTAKO ETXEBIZITZA BERRIEN EZAUGARRIAK.

	Babesek. (%)	Etxebizitza askeak (%)			
		EAE	Arab.	Gipuzkoa	Bizkaia
GUZTIRA	100	100	100	100	100
TIPOLOGIA *					
Fam. bak./bikoa	0,0	16,6	23,3	12,5	16,4
Taldekoa	100,0	83,4	76,7	87,5	83,6
AZALERA ERABILG.					
< 60 m2	10,4	8,2	5,8	10,9	7,4
61-75 m2	29,3	16,8	13,0	20,0	16,4
76-90 m2	69,3	35,6	29,4	41,7	34,4
91-120 m2	0,0	23,5	29,9	16,7	25,1
>120 m2	0,0	15,9	21,7	10,7	16,7
ERAIKUNTZA FASEA *					
Amaituta	2,2	10,5	13,6	10,8	9,2
Obran	59,9	79,2	64,5	85,2	80,0
Proiektuan	37,9	10,3	21,9	4,0	10,0
AMAITUTA					
Luxua	0,0	15,7	2,1	4,9	27,4
Altua	0,0	47,4	18,4	63,2	48,4
Arrunta	100,0	36,9	79,5	31,9	24,2

* Ez dago jasota higiezinaren agentzietan merkaturaturiko sustatzaileen etxebizitzari buruzko informaziorik.

Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokal eskaintzari buruzko Inkesta. 2007ko 4. hiruilekoa.

85 m² da (babeseko etxebizitzaren batez besteko tamaina apur bat txikiagoa: 79 m²).

Eraikuntza berriko etxebizitza askeen batez besteko prezioa 4.113 €/m²-koa izan zen 2007ko laugarren hiruhilekoan, 2006ko batez bestekoa baino %12,8 handiagoa. Lurraldeka, Arabak batez besteko nahiko baxuagoa dauka (3.271 €/m²), eta Bizkaian eta Gipuzkoan batez bestekoa 4.367 €/m²-koa eta 4.194 €/m²-koa da, hurrenez hurren. Arabako batez besteko prezioan izandako atzerakuntzari dagokionez, Gasteizko uzkurdurari hiriburutik kanpoko eskaintzaren garrantzi erlatibo handiagoa gehitu behar zaio (etxebizitza merkeagoak). Gipuzkoako eta Bizkaiko hazkundearen aldetik, aipagarria da akabera altuko edo luxuzko akaberako etxebizitza kopuruaren hazkundera, lurralde horietako laginaren multzoan; prezioak 5.000 €/m² ingurukoak izan dira, eta prezio horiek handitu egin dute Lurraldeko batez besteko prezioa.

Etxebizitza bakoitzeko prezioei dagokionez, batez bestekoa 349.000€-koa da EAE osorako, Bizkaiko 372.000 €-tik Arabako 283.000€-ra. Gipuzkoan prezioak bien bitartekoak dira (350.000€).

Ohiko eraikuntzari dagokionez, prezioen hazkunde urriagoa egon da, eta urteko bilakaeraren tasa %2,1ekoa da. Balio absolutuetan, ohiko etxebizitzaren batez besteko prezioa 3.221 €/m²-koa izan da 2007ko laugarren hiruhilekoan, eraikuntza berriko eskaintza aske osoko batez besteko prezioa baino %22 baxuagoa.


Eraikuntza berriko etxebizitza askeek prezio-tarteen arabera duten banaketaren arloan ikusienez, banaketa-kurba eskuinetara okertu da, eta, gaur egun, asimetria handiagoa dauka, prezioek izandako barreiaduraren ondorioz. Horri dagokionez, aipagarria da 2007ko laugarren hiruhilekoan izandako eskaintzaren %6k soilik duela 180.000 €-tik beherako prezioa. Bestalde, eskaintzaren %29 etxebizitzako 420.000 €-tik gorakoa da.

Babesturiko merkatuari dagokionez, gogoratu egin behar da 2006an desagertu egin zela salmentarako etxebizitza sozialaren eskaintza, eta etxebizitza horiek alokairuan soilik eskaintzen hasi zirela. Salmentarako eskaintako BOE etxebizitzaren batez besteko prezioa 1.323 €/m² da, eta ehuneko hori aurreko urtekoa baino %2,9 handiagoa da. Lau etxebizitzatik ia hiruk (%72) 90.000 eta 120.000 euro bitarteko prezioa dauka. Beste %17ren prezioa 90.000€-tik beherakoa da, eta gainerako %11ren prezioa, azkenik, 120.000€-tik gorakoa, baina 150.000 €-ra heldu barik.

Lurralde Historikoen arabera ia ez dago desberdintasunik. Etxebizitza bakoitzeko prezioari dagokionez, EAEko batez bestekoa 104.000 €-koa da. Preziarik altuena Araban dago (etxebizitzako 110.000 €), gero Bizkaian (101.000 €) eta, azkenik, Gipuzkoan (93.000 €).


Bestalde, 2007ko azken hiruhilekoetan, bolumen oso txikitetan bada ere, babeseko araubideren bat duten beste etxebizitza-tipologia batzuk hasi dira agertzen: babes

IV.3.6. GRAFIKOA. ETXEBIZITZA BERRI ASKEEN BANAKETA, EAEko PREZIO-BITARTEEN ARABERA



Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokal eskaintzari buruzko Inkesta. 2007ko 4. hiruhilekoa.


IV.3.7. GRAFIKOA. SALMENTARAKO ETA ALOKAIRURAKO BABESEKO ETXEBIZITZA-ESKAINTZAREN BILAKAERA EAEn



Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokal eskaintzari buruzko Inkesta.

(*) Modalitate hau desagertu egin zen 2006an.

IV.3.8. GRAFIKOA. EAE-n SALMENTAN DAUDEN ETXEBIZITZEN PREZIOAK (M2 ERABILGARRI) IZANDAKO BILAKAERAREN INDIZEA. URTEA 1994=100



Iturria: Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila.

IV.3.7 Koadroa. SALMENTAKO ETXEBIZITZA ERABILIEN EZAUGARRIAK. % BERTIKALAK.

	EAE	ARABA	GIPUZKOA	BIZKAIA
GUZTIRA	100	100	100	100
TIPOLOGIA				
Familia bak./bikoa	2,0	2,8	3,8	1,2
Taldekoa	98,0	97,2	96,2	98,8
AZALERA ERAB.				
60 m ² -ra arte	22,6	18,7	19,3	25,4
61 - 75 m ²	27,0	27,5	27,1	26,7
76 - 90 m ²	26,4	31,6	28,1	23,4
91 - 120 m ²	15,4	14,3	15,4	16,0
> 120 m ²	8,5	7,9	10,1	8,5

Iturria: Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila. Eusko Jaurlaritzak.

ofizialeko etxebizitza tasatuak eta udal etxebizitza tasatuak. Hain zuzen ere, 2007ko azken hiruhilekoan detektaturiko etxebizitzaren batez besteko prezioa 1.912 €/m²-koa da, eta etxebizitza bakoitzeko batez besteko prezioa, berriz, 160.000 eurokoa.

Azkenik, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak, 2006an, babeseko etxebizitzaren gehieneko prezioen konparazio-azterketa egin zuen, autonomia-erkidegoen arabera; horrek, oro har, agerian jartzen du EAEko babesturiko etxebizitzaren prezioak zona ertain-baxuan daudela, Estatuko autonomia-erkidegoetan ikusitako prezioen lerrunean. Hala eta guztiz ere, lehenengo eta behin, EAEko prezioek gaintitu egiten dituzte erkidegorik gehienetako Araubide Orokorreko BOE etxebizitzaren mailak, baina batez besteko balioetatik hurbil eta erkidegorik garestienetatik nahiko urrun daude. Bigarren, EAEko etxebizitza sozialaren prezioak Araubide Bereziko BOE etxebizitzaren mailarik baxuenetan daude, eta alde handia dute erkidego garestietako prezioetatik. Orokorrean, babeseko etxebizitzetan preziorik handienak dituzten erkidegoak Katalunia, Balearrak, Madril, Kanariak eta Valentziako Erkidegoa dira; Estatuko preziorik baxuenak, ostera, Extremaduran, Murtzian eta Gaztela-Mantxan daude.

(b) Erabilitako etxebizitza

2007ko laugarren hiruhilekoko Higiezin Eskaintzaren Inkestaren bitartez, erabilitako 10.630 etxebizitzako es-

IV.3.8 Koadroa. ETXEBIZITZAREN PREZIOEN INDIZE OROKORRAREN BILAKAERA A. ERKIDEGOETAN. URTEA 2005 = 100

	IV-2005	IV-2006	IV-2007
Ceuta eta Melilla	107,6	125,9	135,7
Galizia	111,5	126,1	133,8
Aragoi	111,1	125,9	129,9
Murtzia	111,7	119,9	129,8
Balearrak	107,3	119,8	128,1
Katalunia	108,3	120	126,9
Kantabria	106,5	120,1	126,7
Andaluzia	110	120,3	126,1
BIZKAIA	106,4	115,6	124,8
ESTATUA	108,1	117,9	123,6
Gaztela eta Leon	107,7	117,9	123,3
Valentziako E.	110,3	118,2	123,3
Asturias	105,6	114,6	123,2
GIPUZKOA	105,2	116,1	122,2
EAE	105,7	115,2	122,1
Gaztela-Mantxa	108,2	117,8	121,7
Kanariak	104,9	113,1	120,1
Errioxa	104,2	114,2	117
Madril	106,3	112,9	114,9
Nafarroa	104,2	110,9	112,2
ARABA	102,5	106	106,5

Iturria: ETXEBIZITZA MINISTERIOA.

kaintza detektatu da, aurreko urtean baino %53,3 handiagoa⁴.

Etxebizitza horiek lurralde-banaketa haxe dute: Bizkaian %57, Araban %29 eta Gipuzkoan gainerako %14. Eskaintza azalera erabilgarriaren arabera aztertuta ikusten denez, etxebizitzarik txikienek presentzia handiagoa dute eraikuntza berriko etxebizitzaren segmentuan baino. Horrela, erabilitako etxebizitzaren %23 60 m²-tik beherakoak dira, eta etxebizitza berriaren merkaturaren proportzioa %8koa da. Batez besteko azalerari dagokionez, batez bestekoa 81 m²-koa da, EAE osorako (aurreko urtean 88 m²).

Salmentarako erabilitako etxebizitzaren batez besteko prezioa, EAE, 4.356 €/m²-koa da, aurreko urtekoa baino %2 handiagoa. Emaiza horrek agerian jartzen du azken urtean batez besteko prezioaren bilakaera gero eta gehiago moderatu dela, urteko hazkundea azken hamar urteotarik baxuena baita⁵. Prezioa lurralde guztietan moderatu da, baina moderazio hori nabariagoa izan da Araban, atzerakuntza txikia egon baita (%-0,9). Bestalde, Gipuzkoak (%+2,2) eta Bizkaia (%+2,9) ere tasa moderatuak dituzte. Balio absolutuetan, Arabako batez bestekoa 3.835 €/m²-koa da, Bizkaia 4.491 €/m²-koa eta Gipuzkoak 4.847 €/m²-koa. Etxebizitza bakoitzeko prezioari dagokionez, EAEko batez bestekoa 351.000 €-koa da, Gipuzkoako 405.000 €-etatik Arabako 311.000 €-etara bitartekoa. Bizkaia bien bitartean dago: etxebizitzako 357.000€.

Prezioek tartean arabera duten banaketaren arloan ikusten denaren arabera, banaketa nahiko simetrikoa da batez besteko prezioaren inguruan. Prezioen bitarterik handiengan, eskaintzaren %7 etxebizitza bakoitzeko 600.000€-tik gorakoa da, eta uzkurdatxoa ikusi da, aurreko urtean ikusitako proportzioari dagokionez (2006ko laugarren hiruhilekoan %9). Bestalde, etxebizitzaren %2,2 baino ez da eskaintzen 180.000€-tik beherako prezioan (2006an %2,7 eta 2005ean %6,2). Lurraldekako azterketak agerian jarri duenez, etxebizitza-metaketarik handiena Gipuzkoako segmenturik altuenetan dago. Eskaintako etxebizitza erabilien %14,7, hain zuzen ere, 600.000€-tik gorakoa da; Bizkaian hori %6koa da, eta Araban %3koa.

3.2.2. Alokairu-araubidea

2001eko zentsuko datuek adierazitakoaren arabera, Estatuan familien %11,5 alokairuko etxebizitzan bizi da, eta EAEen ehunekoa %7,3koa da, Estatuko proportziorik baxuenetarikoa; Gipuzkoan gaititu egiten da batez besteko hori (%8,1), eta Araban eta Bizkaian ez, bertako ehunekoa %6,9koa baita.

Bestalde 2007ko laugarren hiruhilekoko Higiezin Eskaintzaren Inkestak alokairuko 1.998 etxebizitzako eskaintza zenbatu du, aurreko urtekoa baino %6,3 txikiagoa. Segmentu askeak eta babesekoak unitateak galdu dituzte, baina segmentu askeak proportzio handiagoan, gero ikusiko dugunez. Guztiarekin ere, babeseko alokairua eskaintza osoaren %75,7ra heltzen da, 2006an baino ia bi puntu gehiago.


Lehenengo eta behin, babeseko etxebizitzaren merkatuak, 2007ko laugarren hiruhilekoan, alokairuko 1.513 unitate izan zituen, aurreko urtean baino %2,7 gutxiago. Horietatik, 1.035 sozialak ziren (%68) eta gainerako 478ak BOE (%32). Alokairuan eskaintako babeseko etxebizitzaren lurralde banaketa haxe da: %29 Araban, %53 Bizkaian eta %18 Gipuzkoan. Babeseko modalitateari dagokionez, Gipuzkoan BOE etxebizitzak nagusitzen dira, etxebizitza sozialeko modalitatearen gainetik; beste bi lurraldeetan, oster, etxebizitza sozialaren nagusitasun handia dago. Banaketa horren bilakaera agerian jartzen duenez, alokairuko etxebizitza sozialak garrantzi erlatibo gero eta handiagoa dauka, BOEren kaltetan.

Bestalde, alokairuko etxebizitzek azalera erabilgarriaren arabera duten banaketak agerian jarritakoaren arabera, eskaintako etxebizitzarik gehienak 61-75 m² bitartekoak dira (%44); tamaina hori gaititzen dutenak %31 dira, eta 61 m² erabilgarrietara heltzen ez direnak, berriz, eskaintza osoaren %25 dira. Gainera, aipagarriak dira salmentarako eskaintako babeseko etxebizitzaren banaketarekiko desberdintasun handiak; izan ere, azken horien artean tamaina handiagoko etxebizitzak nagusitzen dira, eta apartamentuek (tamaina txikiagoko etxebizitzak) presentzia oso urria dute (%10, eta besteen kasuan %25, gorago esan dugunez).

⁴ Laginekoak izan arren, datuek eskaintzako etxebizitza erabilien stockaren hazkunde handia adierazten dute, eta egoera hori ohikoa da higiezin merkatuko jardura baxuko uneetan.

⁵ Eusko Jaurlaritzaren txostenean esaten denez, gainera, Estatistikarako jakinarazitako prezioak eskaintzaileek eskaturiko prezioak dira, eta horiek, oro har, murriztapena izaten dute salerosketa formalizatzeko unean. Murriztapen hori, halaber, handitu egin da erreferentziako urteko azken hiruhilekoetan, eta %8 ingurukoa da (aurreko urtean %3 inguruan).

IV.3.9. GRAFIKOA. ALOKAIRUKO ETXEBIZITZAREN ESKAINTZAREN BILAKAERA ETA BATEZ BESTEKO HILEKO ERRENTA



Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokal eskaintzari buruzko Inkesta

IV.3.9 Koadroa. EAE-ko alokairuko etxebizitzaren errentaren bilakaera. (€/hilean)

	BABESTURIKO MERKATUA			MERKATU ASKEA
	BOE	SOZIALAK	GUZTIRA	
2000	229,5	169,5	184,5	595,0
2001	265,8	177,8	187,3	634,0
2002	295,0	154,1	202,8	689,7
2003	345,1	141,1	276,5	693,1
2004	385,4	164,4	257,3	724,4
2005	397,5	147,6	278,2	807,4
2006	384,9	141,0	263,2	819,6
2007	325,3	131,7	194,1	890,20

Iturria: Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila. Eusko Jaurlaritza.

EAE alokairuko etxebizitza babestuen batez besteko errenta hileko 194,1€-koa da. BOE modalitatean hileko 325,3€ dira, eta etxebizitza sozialaren kasuan 131,7€. Bilakaeraren aldetik ikusten denez, erregistraturiko errenta uzkurto egin da, bai BOE modalitatean (%-15,5) eta bai etxebizitza sozialaren modalitatean (%-6,6, 2006ari dagokionez).


Lurralde Historikoen arabera, BOE etxebizitzari dagokionez, Bizkaiko batez bestekoa hileko 357 €-koa da, eta Gipuzkoako batez besteko errenta 280 €-koa da. Araban ez da babes-modalitate hau erregistratu, 2007ko azken hiru hilekoan. Etxebizitza sozialaren tipologiai dagokionez, batez besteko errentarik altuena Gipuzkoak dauka (hileko 252 €), gero Bizkaia (hileko 135 €) eta ondoren Araba

(hileko 135 €). Halaber, alokairuko eskaintza babestuaren banaketa aztertuta ikusten denez (errenta-tarte handiak aintzat hartuta), hileko 120-240 €-ko tartearen metaketa handia dago (guztizkoaren %45). Bestalde, etxebizitzaren %31k hileko 120 €-tik beherako errenta dute.

Bestalde, 2007ko laugarren hiru hilekoan alokairuan eskaintako etxebizitza askeen lagina 485 unitatekoa da, aurreko urtean baino 93 gutxiago (%-16,1). Lurralde banaketaren arabera, Bizkaia %44 xurgatzen ditu, Arabak

%37 eta Gipuzkoak gainerako %19. Eskaintako etxebizitzaren azalera erabilgarria kontuan hartuta, tarte handien arabeko banaketaren azterketak agerian jartzen du guztiak daudela ordezkaturak, baina aipagarria da erdiko tartean bolumen handiagoa metatzen dela: 76-90 m²-ko tamaina duten etxebizitzaren %24. Etxebizitza txikiagoei dagokienez, horiek laginean duten ordezkartza apur bat handitu egin da; hain zuzen ere, 2007an 61 m²-tik beherako etxebizitzak eskaintzaren %20 ziren, 2005ean %18, eta aurreko urtean %17.

IV.3.10. GRAFIKOA. BABESEKO ALOKAIRUAREN BATEZ BESTEKO ERRENTEN BILAKAERA, LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA



Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokal eskaintzari buruzko Inkesta. 2007ko 4. hiru hilekoa.

IV.3.10 KOADROA. ALOKAIRUAN ESKAINITAKO ETXEBIZITZA ASKEAK ETA HILEKO B.B. ERRENTA

	Etxebizitzak				Hileko errenta (€)			
	EAE	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	EAE	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
2000	662	103	448	112	598,4	700,2	560,4	656,6
2001	409	32	307	70	636,3	750,2	612	691,2
2002	429	86	262	81	689,7	761	655	715
2003	533	101	347	86	693,1	815,7	666,6	691,9
2004	512	108	308	96	724,4	828,2	687,4	747
2005	511	123	273	116	778,9	850,3	749,3	788,7
2006	578	184	241	153	819,6	866,8	795,7	802,8
2007	485	181	212	92	890,2	908,5	875,4	901,5

Iturria: Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila. "EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokal eskaintzari buruzko Inkesta".

IV.3.11. Koadroa. Alokairuko etxebizitza askeen banaketa, errenta-bitarteen arabera

HILEKO ERRENTA	ASKEAK (%)
120 eurora arte	0,0
120,01etik 240 eurora	0,0
240,01etik 360 eurora	0,3
360,01etik 480 eurora	1,1
480,01etik 600 eurora	4,5
600,01etik 720 eurora	12,8
720,01etik 840 eurora	19,1
840,01etik 960 eurora	20,7
960,01etik 1.080 eurora	13,8
1.080,01etik 1.200 eurora	14,8
1.200 euro baino gehiago	13,0
GUZTIRA	100,0

Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokal eskaintzari buruzko Inkesta. 2007ko 4. hiruhilekoa.

Batez beste, norbanakoak diren eta alokairuan eskaintzen diren (higiezin jabetzako eragileen bitartez) etxebizitzaren hileko batez besteko errenta 890,2 €-koa da, aurreko urtean baino %8,6 gehiago. Lurralde Historikoen arabera, preziorik handiena Araban dago (hileko 908,5 €), Gero Gipuzkoan (901,5 €), eta, azkenik, Bizkaian (875,4 €). Bilakaeraren azterketak agerian jarri duenez, hazkunderik handiena Bizkaian eta Gipuzkoan egon da (%10 eta %12,3, hurrenez hurren), eta Araban hazkundera txikiagoa izan da (%4,8). Etxebizitzek errenta-tarte handien arabera duten banaketari dagokionez, hileko 600 €-tik beherako errentako etxebizitzaren presentzia urria da, eta eskaintza osoaren %6ra ere ez da heltzen. Beste muturrean, %28 hileko 1.080 €-tik gorakoak dira, eta etxebizitzarik gehienak erdiko tartetean metatu dira, batez besteko er-

rentaren inguruan. Horrela, eskaintzaren %40k hileko 720-960 € bitarteko errenta dauka.

3.2.3. Eraikuntza-jarduera

EAEko hasitako etxebizitza kopuru osoak, 2006an %9,9ko murriztapena izan ondoren, 2007an %14,7ko hazkundera izan du. Guztira, 17.161 etxebizitza hasi dira; horietatik 11.269 askeak dira (%65,7, aurreko urteko ehuneko bera), 5.302 babes ofizialekoak (%30,9) eta 590 sozialak (%3,4). Halaber, Eusko Jaurlaritzaren 2006-2009ko Etxebizitza Plana abiatu denetik (2006an), babeseko etxebizitzaren merkatua irudi berriak sortu dira; hain zuzen ere, 2006an 125 zuzkidura-bizileku hasi dira eraikitzen (guztiak Gipuzkoan), eta 2007an beste 361. Gainera, azken urte horretan 100 udal etxebizitza tasatu hasi dira eraikitzen, eta beste 957 ere bai, jabetzan adjudikatzeko.


Beste alde batetik, EAEko 2007an amaitutako etxebizitza kopurua 15.429 unitatekoa da, aurreko urtean baino %5,5 gehiago, amaituriko etxebizitza askeen hazkunderaren ondorioz (%10,2), horiek konpentsatu egiten baitute babeseko etxebizitzaren segmentuan izandako beherakada: 2007an babeseko 4.636 etxebizitza amaitu ziren (%-4), eta horietatik %80,8 babes ofizialekoak ziren eta gainerako %19,2 etxebizitza sozialak (guztira 892 etxebizitza, 2005ean baino %7,7 gehiago). 2007ko datuek agerian jarri dutenez, azkenik, babeseko etxebizitzaren partaidetza urritu egin da, EAEko eraikuntza-jarduera, aurreko urteetako goranzko joera baztertuta: amaituriko etxebizitzaren artean, babeseko etxebizitzaren ehunekoak %33tik %30era igaro da, eta azken urte horretan hasitako BOE etxebizitzaren eta etxebizitza sozialen ehunekoak, lehen esan dugunez, egonkor mantendu da, guztikoaren ehunekoari dagokionez.

IV.3.12 Koadroa. Hasitako eta amaitutako etxebizitzak EAE-n

		2003	2004	2005	2006	2007
Etxeb. askeak	Hasita	13.626	11.794	11.987	9.815	11.269
	Amaituta	7.962	10.588	11.522	9.794	10.793
Babeseko etxebizitzak	Hasita	6.625	4.427	4.625	5.148	5.892
	-BOE	5.816	3.981	3.830	4.828	5.302
	-Sozialak	809	446	795	320	590
	Amaituta	3.752	3.647	4.025	4.829	4.636
	-BOE	3.193	3.140	3.345	4.001	3.744
	-Sozialak	559	507	680	828	892

Iturria: Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila. Eusko Jaurlaritza.


IV.3.11. GRAFIKOA. ALOKAIRURAKO DIREN ETXEBIZITZA HASIEN KOURUAREN BILAKAERA. ETXEBIZITZA BABESTUAK ETA ASKEAK. EAE



Iturria: ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILAren datuetan oinarrituz landuta.

(*) 2006an, alokairurako 41 etxebizitza askeren eraikuntza hasi zen. Halaber, grafikoan jasota egon ez arren, zuzkidurako 125 bizilekuren eraikuntza hasi zen, eta 2007an 361 gehiago.

IV.3.12. GRAFIKOA. EAEN AMAITUTAKO ETXEBIZITZA KOPURUAREN BILAKAERA



Iturria: Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila. Eusko Jaurlaritza.

3.3. Etxebizitza beharrianak eta eskaria EAE-n

3.3.1. Beharrianen kuantifikazioa


Eusko Jaurlaritzaren 2007ko "EAEko Etxebizitza Beharrianen eta Eskariaren Oinarrizko Inkesta"⁷ deritzon ikusten denez, lehenengo etxebizitza lortu beharra duten pertsonen ehunekoa %10,1ekoa da; zifra hori aurreko urteetakoa baino txikiagoa (2006an %11,2) eta 2001ekoaren antzekoa da. Zifra absolutuetan, beharrian hori adierazi duen pertsona kopurua 82.073 gaztekoa da⁸. Eskariaren aldetik, lau urteko eperako 45.082 etxebizitza kalkulatu dira, eta urtebetean (epe laburra) 15.298 etxebizitza. Etxebizitza lortzeko beharrianen itxaropen hauek, epeen arabera, orain arteko inkestetan jasotakorik txikiak dira, eta horrek, Eusko Jaurlaritzaren ustez, agerian jartzen du

eraginpeko gazteen itxaropenak nabarmen narriatu direla, segurutik adierazle ekonomikoek txarrera egitearen eraginez.

Familien beharrianen aldetik, Inkestak agerian jartzen du EAEko familien %8k ohiko etxebizitza aldatu beharra dutela (hain zuzen ere, 63.750 etxebizitza). Eskariari dagokionez, aurreikuspena 30.406 etxebizitzakoa da 4 urteko epean, eta 13.778koa epe laburrean (urtebete). Lortzeko beharrianaren kasuetan gertatzen denez, al-daketa-beharrianaz ebazteko aukera azken urteetako mailarik baxuenetan dago.

Bestalde, Inkestak dioenaren arabera, etxebizitza birgaitu beharra duten familien ehunekoa %17tik %14ra igaro da azken urtean; hain zuzen ere, 112.277 etxe dira. Eskariari dagokionez, familia horien %64ren ustez, hurrengo 4 urteotan segurutik birgaitu egin beharko dute etxebizitza, eta %27k esan du urtebeteko epearen barruan duela aurreikusita birgaitzea. Horrela, etxebizitza birgaitu behar duen familia kopurua 2006koa baino txikiagoa izan

IV.3.13. GRAFIKOA. BEHARRIZANAREN ETA BEHARRIZANA DUTEN ETXEBIZITZEN INDIZEAREN BILAKAERA



Iturria: Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila.

⁶ 1994tik urtero egiten den inkesta honetan, EAEko 3.200 etxe adierazgarri hartzen dira kontuan.

⁷ Inkesta honetako 2006ko eta 2007ko edizioetan, beharrianaren eta eskariaren indizeak EAEko 2005eko etxe-zifrari aplikatzen zaizkio, Eustaten datuen arabera. Zifra horrek agerian jartzen duenez, EAEko etxe kopuruak %6,2ko hazkundea izan du 2001etik 2005era ((+46.283), eta, beraz, beharrian absolutuek ere proportzio bereko hazkundea izan dute.

IV.3.13 Koadroa. ETXEBIZITZA BEHARRIZANA NAHIZ LAGUNTZA ETA SEGMENTU BABESGARRIA. 2007

	LORTZEA		ALDATZEA		GUZTIRA	
	Etxebizitzak	%	Etxebizitzak	%	Etxebizitzak	%
Beharrianak guztira	82.073	100	63.757	100	145.830	100
Laguntzak	82.073	100	31.879	50	113.952	78,1
Segmentu babesgarria gehieneko prezioaren arabera *						
< 72.000 euro	5.130	1,6	-	-	5.311	3,6
< 96.000 euro	6.730	8,2	3.315	5,2	10.045	6,9
< 120.000 euro	16.579	20,2	5.037	7,9	19.894	13,6
< 150.000 euro	39.067	47,6	8.480	13,3	47.547	32,6

* Zifra metagarriak. Mota bakoitzeko beharrianen %.

Iturria: EAEko Etxebizitza Beharrianen eta Eskariari buruzko Oinarrizko Inkestako datuetan oinarrituz landuta (2007-III).

arren, birgaikuntza gauzatzeko aukera aurreko urtekoa baino apur bat handiagoa da.

Etxebizitza lortzeko finantza-gaitasun urria duten taldeei dagokienez, 2007ko Inkestak agerian jarri duenez, etxebizitza lortu behar duten pertsonen %8,2k (2006an %8) 96.000?-tik beherako etxebizitza erosi ahal dute, eta, beraz, 6.730 etxebizitza dira. Ehunekoa %5,2koa da, aldatu beharra duten familien artean (3.315 etxebizitza).

Lurraldeka, etxebizitza-eskariak joera desberdinak izan ditu 2007an. Aldatu behar izatearen arloan, indizeak gora egin du hiru lurraldeetan, eta arlo horretan Gipuzkoa nabarmentzen da bai batez bestekotik gora dagoelako eta bai hazkundera izan duelako. Horrela, lurralde horretan 22.352 familiak etxebizitza aldatu beharra dute. Lehenengo etxebizitza lortu behar izateari dagokienez,

egoerak hobera egin du lurralde guztietan; 2007ko Inkestan oinarrituz, Gipuzkoako 9,1etik Arabako 10,7ra bitarteko indizeak kalkulatu dira; Bizkaia erdian dago, batez bestekotik hurbileko indizearekin: 10,6. Birgaikuntzaren arloan, azkenik, lurraldeen arteko desberdintasunak ez dira handiak, eta hiru lurraldeak, bai indizean eta bai aurreko urtearekiko aldaketan (guztiak murriztu), EAEko %14ko batez bestekotik hurbil daude (Bizkaia batez bestekoaren gainetik, eta Araba eta Gipuzkoa azpitik).

3.3.2. Beharrianen duten pertsonen eta etxeen ezaugarriak eta zioak

Aldatu beharra duten familien eta lehenengo etxebizitza lortu behar duten gazteen gizarte- eta egoitza-ezaugarriak aurreko urteetako antzekoak dira.

IV.3.14 Koadroa. ETXEBIZITZA ALDATU BEHARRAREN ZIOEN BILAKAERA ⁽¹⁾


	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007
Tamaina ez-egokia	40,6	28,0	38,9	42,1	40,6	35,8	38,5	29,7
Egoera txarra	9,8	7,3	7,9	13,4	2,6	3,7	6,2	7,3
Kokaleku txarra	7,1	9,4	5,5	4,9	7,0	7,0	5,1	8,4
Jabetza nahi du	11,7	24,6	17,0	13,0	18,8	13,6	10,3	8,4
Igogailua ⁽²⁾	-	10,7	13,1	15,4	17,4	20,6	16,4	20,7
Beste zioen bat	30,8	20,0	17,6	11,2	13,6	19,2	23,5	25,6

⁽¹⁾ % bertikala (mota bakoitzeko beharrianen guztizkoarekiko).

⁽²⁾ Urte batzuetan banandu egiten da, besteetan "Beste zioen bat" atalean sartzen da.

Iturria: EAEko Etxebizitza Beharrianen eta Eskariari buruzko Inkesta. Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila.

IV.3.14. GRAFIKOA. LEHENENGO ETXEBIZITZA LORTU BEHAR DUTEN PERTSONEN EHUNEKOAREN BANAKETA, ADINAREN ARABERA. 2007



Iturria: ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA.

428

Lehenengo eta behin, etxebizitza lortu beharra duten pertsonen batez besteko adina 29 urtekoa da (datuak hazkunderako joeratzea izan du urteetan), eta kasuen erdian baino apur bat gehiagoan lan-kontratu finkoa dute. Gainera, batez beste 3,8 kide dituen familia talde batekoak dira (EAEko batez besteko familia 2,8 kidekoa); halaber, gaur egun, 78,5 m²-ko etxebizitzetan bizi dira (batez bestekoa baino tamaina apur bat txikiagoa).

Bestalde, etxebizitza aldatu beharra duten familietako pertsona nagusiaren batez besteko adina 48 urtekoa da (2006an baino 2 gehiago), eta hori batez beste 3,1 kide dituen familia batekoa da. Etxe zaharragoetan bizi dira (batez beste 39 urte, eta EAEko etxebizitza-parke osoaren batez bestekoa 35 urte), eta txikiagoetan (71 m²), etxebizitza-parke orokorreko etxebizitzak baino. Era berean, aldatu beharra duten familien artean errentariak direnen ehunekoa batez bestekoa baino askoz ere handiagoa da (talde horretako %23 alokairuko etxebizitzan dago, eta EAEko batez besteko ehunekoa %5ekoa da).

Etxebizitzaren arloko beharrezana azaltzen duten zioen artean, etxebizitza lortu beharra duten pertsonen artean lehenengo postuan independizatu nahi izatea dago, %76,1ekin (2006an %77); ezkondu edo bikotekidearekin bizi nahi izateari loturiko zioek garrantzi erlatiboa galtzen jarraitu dute (%22,9, eta orain dela hamar urte %50). Bestalde, etxebizitza aldatu behar duten familien artean, gehien aipatu den zioa oraingo etxebizitzaren tamaina ez

IV.3.15 KOADROA. ETXEBIZITZA LORTU BEHAR DUTEN PERTSONEN EZAUGARRI SOZIOEKONOMIKOAK. 2007

EZAUGARRIAK	LORPENA *	
	Emakumea	Gizona
Pertsonaren adina		
18-24 urte	28	32
25-34 urte	49.2	54.1
35 urte eta gehiago	22.8	13.9
B. besteko adina	29.7	28.6
Ikasketa maila		
Ikasketarik ez/Oinarrizkoak	6.4	24.7
Lanbide-ikasketak	32.3	29.9
Bigarren hezkuntza	7.8	12.8
Unibertsitate-ikasketak	53.5	32.6
Lan-egoera		
Landuna/bere kontura	6	6.5
Landuna /kontratu finkoa	46.1	55.1
Landuna /aldi b. kontratua	40.8	32.2
Langabetua	5.3	4.2
Ikaslea	0	0.5
Beste bat	1.7	1.5

(*) % bertikala (beharrezana duten pertsona guztiekiko).

Iturria: EAEko Etxebizitza Beharrezanei eta Eskariari buruzko Oinarrizko Inkesta (2007-III).

egokia da (%29,7, eta 2006an %39), eta, gero, igogailurik ez edukitzea (%20,7).

Halaber, Inkestaren orain arteko edizioetan ikusi denez, etxebizitza aldatu beharra duten familiek EAEko familien multzoak baino poztasun maila urriagoa dute, euren oraingo etxebizitzarekin. Hain zuzen ere, etxebizitzarekiko batez besteko poztasun mailak 88 puntu inguruak badira (100 puntutik), etxebizitza aldatu beharra duten familien artean 65 puntukoak dira. Inguruari dagokionez, apur bat positiboagoak dira, eta batez besteko poztasun indizea 83 puntuko da (familien multzo osoaren kasuan 90 puntukoak).

Bestalde, beharrezana onartu ondoren, etxebizitza aldatu eta lortu behar duten kasuen zati garrantzitsu batek esan duenez, beharrezana "handia" edo "nahiko handia" dauka. Etxebizitza lortu beharra dutenen kasuan ehunekoa %87,8koa da (2006an %86koa), eta aldatu beharra duten familien artean %82,9koa (2006koaren antzeko tasa); ehuneko horiek gero eta handiagoak dira azken urteotan, batez ere etxebizitza lortu beharra duten pertsonen kasuan.

Azkenik etxebizitza lortu beharra duen taldea gene-roaren ikuspegitik aztertuta ikusten denez, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasun txikiak daude. Ezaugarri pertsonalei dagokienez, batez besteko adina 28 urtekoa da emakumeen kasuan eta 32koa gizonen artean; halaber, unibertsitateko ikasketak dituzten emakumeen ehunekoa handiagoa da, baina gizonen lan-egoera hobea dute: %55 kontratu finkoa, eta emakumeen kasuan %46.

Diru-sarreraren maila oso antzekoa da (emakumeen kasuan 1.395 € hilean eta gizonen artean 1.385); hala eta guztiz ere, emakumeak baikorragoak dira etxebizitzaren etorkizuneko erosketari aurre egiteko orduan: gehieneko prezio txikiagoa eta hileko ordainketa-gaitasun baxuagoa jarri dute, gizonen baino. Gainera, partekaturiko finantzi-azioarekin etxebizitza erosteko pausoa emango dutela uste dutenik gehienak emakumeak dira (%37, eta gizonen kasuan %28). Beharrezana sortu duten zioei dagokienez, gizonen eta emakumeen artean gehien aipatzen den kasua independizatu nahi izatea da. Etxebizitza lortu beharra dutenen kualifikazioan sakonduta, Inkestak beharrezana subjektibo handiagoa ikusi du emakumeen artean (80 puntu, eta gizonen 75); aldi berean, ez da desberdintasun

IV.3.16 KOADROA. LORTZEKO EDO ALDATZEKO BEHARRIZANA ADIERAZI DUTENEK BEHAR DITUZTEN ETXEBIZITZEN EZAUGARRIAK

	Aldatzea (1)			Lortzea (1)		
	2005	2006	2007	2005	2006	2007
BALDINTZA						
Berria	24,4	16,5	27,8	19,1	17,9	23,4
Erabilia	1,6	2,2	6,9	3,4	1,9	5,4
Bata zein bestea	71,6	77,1	60,6	74,9	79,5	70
Ed/Ee	2,4	4,2	4,7	2,5	0,7	1,2
AZALERA ERABILGARRIA						
40 m ² baino gutx.	1,5	2	5,6	3,7	4,3	1,9
41 - 60 m ²	18,1	17,4	16,8	32,6	34,5	26,7
61 - 75 m ²	29,1	37,3	22,2	41,1	36,5	34
76 - 90 m ²	31,9	26,8	33,4	17,7	19,4	26,4
91 - 120 m ²	15,7	11,7	12,5	1,3	2,4	3,1
120 m ² baino gehiago	2,5	3	2,1	0	0	0
Ed/Ee	1,3	1,8	7,1	3,5	2,9	7,8
EDUKITZEKO ARAUBIDEA						
Jabetza	82,9	73,4	75,2	75,9	66,2	67,8
Alokairua	9,1	12	11,4	4,8	7,5	8,3
Bata zein bestea	8	14,6	13,3	19,3	26,3	23,9

(1)% bertikala (mota bakoitzeko guztiekiko).

Iturria: Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila.

handirik ikusi beharizan-egoeran egoteko aldian: azken urtean sorturiko beharizanak berdinak dira (bi kasuetan %12) eta lau urte baino gehiago daraman taldea ere antzekoa da (%27 emakumeen kasuan eta %25 gizonen artean).


Azkenik, etxebizitza lortu behar duten gizonen eta emakumeen etxebizitzarako antzeko ezaugarriak adierazi dituzte, aurreikusitako edukitze-araubideari dagokionez (bi kasuetan, gehien hautatu den aukera jabetza izan da). Adiz, etxebizitza berria edo erabilia izateari dagokionez, emakumeak "arduragabeagoak" dira, eta gizonen kasuan,

ostera, gehienek nahiago dute etxebizitza berria. Etxebizitzaren tamainan, gizonen 69 m²-tik gorakoa aipatu dute, eta emakumeek 66 m²-tik gorakoa.

3.3.3. Behar diren etxebizitzaren ezaugarriak


Etxebizitza lortu behar duten gazteek, batez beste, 67,8 m²-ko etxebizitzak behar dituzte (2006an 64,3). 2007an, gainera, handitu egin da azken aukera hori hautatu dutenen proportzioa, alokairua edo modalitate bata nahiz bestea nahiago dutenei dagokienez, hurrengo atalean ikusiko dugunez. Bizitzeko udalerria aldatzeko auke-

IV.3.15. GRAFIKOA. BEHAR DIREN ETXEBIZITZEN B.B. AZALERAREN BILAKAERA (M²)



Iturria: Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila.


IV.3.16. GRAFIKOA. ALOKAIRUKO ETXEBIZITZAK: EDUKITZEKO ARAUBIDEA, ESKARI AUKERARI DAGOKIONEZ.



Iturria: ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILAREN datuetan oinarrituz landuta.

(*) Alokairua nahiago dutenen eta jabetza-araubidea berdin dienen arteko batuketa

IV.3.17. GRAFIKOA. DESBERDINTASUN SOZIOEKONOMIKOAK JABETZAKO ETXEEN ETA ALOKAIKURUKO ETXEEN ARTEAN. GUZTIZKOAREN GAINEKO EHUNEKOA. 2007



Iturria: ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GALETAKO SAILA.

ra altua da, baina aurreko urtekoa baino nahiko baxuagoa (2007an %69, eta 2006an %77).

Bestalde, etxebizitza aldatu beharra duten familiarik gehienek diotenez, tamaina handiagoko etxebizitzak behar dituzte (batez beste, 71,4 m²-ko etxebizitzak dituzte, eta 74,8koak behar dituzte), eta, gainera, jabetza-araubidekoak; horri dagokionez, proportzioa lehenengo etxebizitza lortu behar dutenen artekoa baino handiagoa da (%75,2 eta %76,8, hurrenez hurren). Kasu hauetan, gainera, beste udalerrri batera joateko prest dauden kopurua txikiagoa da.


Halaber, aipagarria da (kasu guztietan) lortu nahi diren etxebizitzaren batez besteko azalera egon den murriztapen gero eta handiagoa; hori, neurri handian, higiezin merkatua egokitu behar izatearen eta etxebizitzaren prezioa murriztu behar izatearen eraginezkoa izan daiteke. Etxebizitza lortu beharra duten gazteen kasuan, azken bi urteetan hazkundea egon arren, azalera nabarmen murriztu da azken 10 urteetan, eta horrek, Eusko Jaurlaritzaren txostenean adierazitakoaren arabera, agerian jartzen du *barneratu* egin dutela familiarengandik independizatzeko lehenengo fasean etxebizitza txikiagoak lortu beharko dituztela. Etxebizitza aldatu behar dutenen kasuan, azalera gutxiago murriztu da, beharrianaren eragile nagusia tamaina bera izan arren.

3.3.4. Alokairuko etxebizitza-eskaria

2007ko Oinarri Inkestak egindako kalkuluen arabera, EAEko familien %5,2 alokaturiko etxebizitzan bizi da, eta proportzio hori egonkorra izan da azken hamarkadan⁹. Horrela, familiarik gehienak jabetzan daude: kontsumaturiko familien %64k esan dute etxebizitzaren jabeak direla, eta hori guztiz ordainduta dutela; %24,5ek esan dute jabeak direla, baina oraindik guztiz ordaindu barik dutela. Jaraunspeneko edo dohaintzako jabetzan eta lagatako etxebizitzan edo beste egoeraren batean bizi direnak, guztira, familien %3 dira. Eremu geografikoen arabera, familia errentaririk gehienak Gipuzkoan daude (%6,4), eta Bizkaia eta Arabak %4,7ko tasa dute.

Familia errentariek okupaturiko etxebizitza horiek, oro har, jabetzako etxebizitzak baino txikiagoak dira: batez besteko azalera 77 m²-koa da, eta jabetzako etxebizitzena, berriz, 80 m²-koa. Gainera, alokaturiko higiezin merkatua eraikin zaharragoetan kokaturiko etxebizitzekin osaturik dago, eta, horrela, jabetzako etxebizitzaren batez besteko adina 34 urtekoa bada, errentaturiko etxebizitzaren adina 39 urtekoa da. Bilakaeraren ikuspegitik, alokaturiko etxebizitzaren batez besteko azalera beheranzko joera dauka, 2004an hasitakoa; jabetzako etxebizitzaren bilakaera iraunkor mantendu da 1998tik 2007ra.

⁹ Etxebizitza Ministerioak egindako kalkuluen arabera, 2006an alokairuko etxebizitza-tasa %7,7koa izango da EAEn, Estatuko batez bestekoa (%11) baino nahiko baxuagoa.


IV.3.18. GRAFIKOA. FAMILIAREN DIRU-SARRERAK, ETXEBIZITZA EDUKITZEKO ARAUBIDEAREN ARABERA. EHUNeko BANAKETA, HILEKO DIRU-SARRERA AINTZAT HARTUTA. 2007


Iturria: ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAETAKO SAILA.

Bestalde, Inkestak ondorioztaturikoaren arabera, alokairuko etxebizitzan bizi diren familien diru-sarrerak, batez beste, jabetzako etxebizitza dutenen diru-sarrerak baino %23 baxuagoak dira (1.333€ garbi eta 1.723€, hurrenez hurren). Hala eta guztiz ere, errentan dauden familiek diotenez, hilean 390 €-ko⁹ errenta ordaintzen dute, eta horrek %29ko finantza-ahalegina eskatzen du, azken bi urteetan etxebizitza erosi duten familiek egiten dutena baino askoz ere txikiagoa, horiek diotenez diru-sareren %39 erabiltzen baitute etxebizitza ordaintzeko. Hala ere, alokatutako errentak, kapitulu honetako 3.2.2 kapitulu

ikusi dugunez, askoz ere garestiagoak dira: 890 € alokairuko etxebizitza askearen kasuan, 2007ko Higiezin Eskaintzaren Inkestaren arabera. Izan ere, desberdintasun horiei dagokienez, alokairuko batez besteko errentak aldagarritasun handia dauka, zenbait faktoreen arabera (esate baterako, etxebizitzaren antzintasuna, kontratazio-urtea eta etxebizitzaren kokalekua).

Etxebizitza aldatu behar izateari dagokionez, familia errentarien %35ek esan du ohiko etxebizitza aldatu beharra duela (jabetzako familien kasuan %6,1), eta %5ek esan du oraingo etxebizitzan berrikuntzak egin behar

IV.3.19. GRAFIKOA. ALOKAIRUAREN (AUKERA BIDERAGARRI NAGUSITZAT) ONARPEN MAILAREN BILAKAERA. BEHARRIZANA DUEN TALDEAREN GUZTIZKOAREN GAINeko EHUNEKOA.


Iturria: Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila.

⁹ Emaita hori ematean ez da bereizten etxebizitza mota (askea edo babesekoa), Inkestan lagin motako mugak baitaude.

dituela. Aldatu beharraren eragile nagusia alokairu merkeagoa lortzea da, eta, gero, jabetzako etxebizitza eskuratzea. Hala eta guztiz ere, jabetzako etxebizitza eduki eta aldatu beharra duten familien artean gehien aipatzen dena oraingo etxebizitzaren tamaina ez-egokia da.

Azkenik, Inkestak (azken urtean nolabaiteko atzerakadaxoa egon arren) alokairuaren onarpen maila gero eta handiagoa egiaztatu du, etxebizitza lortzeko modutzat, lehenengo etxebizitza lortu behar duten pertsonen artean. %70ek etorkizuneko etxebizitzarako edukitze-araubidetzat planteatzen du, eta %98k diote alokaturiko etxebizitza babestu bat onartuko lukeela. Dena den, etxebizitza aldatu behar duten pertsonen artean, proportzioa %37ra murriztu eta egonkor mantendu da, gorabehera txikiekin, azken hamar urteotan.

3.3.5. Finantzako gaitasuna eta ahaleginak

(a) Lortu beharra

2007ko Oinarri Inkestaren arabera, etxebizitza askearen prezioek nekez eskuratzeko moduko mailetan jarraitzen dute, etxebizitza lortu beharra duten taldeentzat, batez ere lehenengo etxebizitza lortu behar dutenentzat. 2006an etxebizitza lortu beharra zuten pertsonek, batez beste, 1.389 euro garbi irabazten zituzten hilean (2006arekiko %-5,4); horrek aditzera ematen du talde horretan finantza-gaitasun urriagoko beste pertsona talde


bat sartu dela, eta, gainera, diru-sarrera bateko baino gehiagoko kasuen murriztapena egon da, etxebizitza lortu beharra duten kasuen artean.

Gainera, hileko diru-sarreraren murriztapenarekin batera, etxebizitza lortu beharra duten gazteen ordainketa-gaitasuna ere murriztu egin da apur bat: etxebizitza ordaintzeko erabil daitekeen hileroko zenbatekoa 457 €-koa da (2006an baino %7,7 gutxiago). Diru-sarreraren eta ordainketa-gaitasunaren arteko paralelismo hori 1997-2007ko aldi osoan mantendu da, eta, horrela, horretarako hileroko batez besteko zenbatekoa hileko diru-sarrera guztien %30-35 ingurukoa da (2007an %32,9).

Bestalde, 2007an gehieneko prezio onargarria ere urritu egin da, eta 158.000 eurokoa da (2006an baino %4 gutxiago). Horri dagokionez, diru-sarrera mailaren murriztapenari zorpetze-baldintzak gogortzea gehitu zaio (interesa-tasaren gorakada, finantziarioa lortzeko zailtasun handiagoak, etab.); horrek guztiak murriztu egiten du etxebizitza lortu beharra duten pertsonen eskari-gaitasuna. Horrela, etxebizitza askearen prezioak moteldu arren, gehieneko prezio onargarria murriztearen eraginez, handitu egin da etxebizitza lortu beharra duten pertsonen aukeren eta etxebizitza askeko merkatuko eskaintzaren arteko aldea.


Finantziario-formulei dagokienez, hipoteka-mailegua da, aurtun ere, gazteek etxebizitza lortzeko erabili nahi duten finantziario-iturri nagusia. Izan ere, %99k mailegua eskatzeko asmoa dauka (2006an %92,4). Gainera, %36,6k

IV.3.20. GRAFIKOA. ETXEBIZITZA ASKEEK NAHIZ BABESEKOEK MERKATUEN DUTEN PREZIOEN ETA AITORTURIKO GEHIENEKO PREZIO ONARGARRIEN BILAKAERA



Iturria: EAEko Etxebizitza Beharrazaneiei eta Eskariari buruzko Oinarrizko Inkesta (2007-III). Higiezinaren eskaintzaren estatistika (2007-III).

IV.3.21. GRAFIKOA. AITORTURIKO EROSKETA PREZIO ONARGARRIRIK ALTUENAREN ETA HILEKO BATEZ BESTEKO SOLDATA KOSTUAREN BILAKAERA. €.



Iturria: Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren eta INEren datuetan oinarrituz landuta.

aurrezkiak erabiltzea dute aurreikusita, eta zati txiki batek (%13,9), gainera, familiaren laguntzatxoa ere lortzeko itxaropena dute. Halaber, aipagarria da gazteriaren zati handi batek neurri batean zorpetzeko asmoa duela, finantza-erakundeen baldintzek baimendutako mugaraino: ia %60k etxebizitzaren prezioaren %75-100 kredituaren bidez finantzatzeko asmoa dauka.

Finantza-ahaleginari dagokionez, gazteek diru-sarreraren %32,9 erabiliko dituzte etxebizitza ordaintzeko (2006an %33,7), eta, etxebizitza lortu beharra duten gazteek diru-sarrerak oso-osorik etxebizitza lortzeko bideratuko duten urte kopuruari dagokionez, kopuru hori 8,1 urtekoa da, azken hamarkadakorik handiena, hamarkada osoan kopurua etengabe hazi baita (1997an 5,4 urtekoa).

Era berean, azken urteotan nabarmen luzatu da etxebizitzaren erosketari finantzatzeko maileguak amortizatzen ahalia; horrela, azken bi urteetan, eperik ohikoena 26-35 urte bitartekoa zen, eta orain dela bost urte eperik ohikoena 16-25 urtekoa zen. Gainera, eta interes-tasek aspaldion izandako hazkundeei dagokienez, azken hamarkadan etxebizitza lortu duten familien %7 inguruk uste du horrek eragin handia edo oso handia izango duela familiaren ekonomian.

(b) Etxebizitza aldatu beharra

Bestalde, etxebizitza aldatu beharra duten familien diru-sarrerak hilean 1.618 euroko dira (2006an baino

%0,6 gehiago), eta hilean 477 euro ordaintzeko prest daude (%+1,3); era berean, euren muga onargarria nabarmen hazi da: 229.000 euro (2006an baino %9,5 handi-

IV.3.17 KOADROA. ALDATU BEHARRA DUTENEK AURREIKUSITAKO FINANTZIAZIO-FORMULAK

GUZTIZKOAREN %	
FINANTZIAZIO ITURRIAK (*)	
Kredituak	96,3
Norbere aurrezkiak	16,3
Familiaren laguntza	3,8
Lehenengo etxebizitzaren salmenta	49,5
Beste ondarearen baten salmenta	0,7
Lehenengo etxebizitzaren alokairua	7,5
Laguntza publikoak	0,8
Beste baliabide batzuk	7,4
Ed/Ee	8,0
% KREDITUA/PREZIOA (**)	
%0 (krediturik eskatu ez)	3,7
%1-25	4,6
%25-49	5,4
%50-74	5,6
%75-100	16,7
Ed/Ee	64,0

(*): erantzun anitzaren %

(**): % bertikala, biak beharizana duten guztiei dagokienez.

Iturria: EAEko Etxebizitza Beharizanei eta Eskariari buruzko Oinarrizko Inkesta (2007-III).

agoa). Halaber, ezein familiak ere ez du adierazi 72.000 eurotik beherako gehieneko muga onargarririk (2006an familien %3,3).

Finantziario-formulak aztertzeko orduan, aintzat hartu behar da halako familiarik gehienek jabetzako etxebizitza duela eta hori salduta lortutako baliabideak etxebizitza berria eskuratzeko erabiliko dituela. Hain zuzen ere, familien %49,5ek salmentatik ateratako baliabideak erabiltzeko asmoa dute, eta %7,5 lehengo etxebizitza alokatzea dauka aurreikusita.

Gainera, %96,3k hipoteka-mailegua eskatzeko asmoa dauka, eta, eskatu beharreko zenbatekoari dagokionez, familien zati handi batek etxebizitza berriaren prezioaren erdia baino gehiago mailegu baten bidez finantzatzeko asmoa dauka; dena den, galdera honi erantzunik eman ez diotenek ehunekoa oso altua da (mailegua eskatzea aurreikusita duten etxeen %64k ez daki edo du esaten formula horren bidez etxebizitzaren prezioaren zein ehunekoa ordainduko duen).

(c) Finantza-gaitasun baxuko segmentua

Amaitzeko, etxebizitza-politika publikoen talde jasotzailearen barruan, bereizi egin behar dira muga ekonomikoaren nahiz finantzazkoen eraginez (oraintsu adierazitako parametroen arabera) etxebizitzaren arloko jarduketa babestuak jasoko dituzten pertsonak; izan ere, galdera horri erantzutean, inkestaturiko pertsonak euren eskuratzeko-ahalmena adierazten duten egoeren multzo osoa hartzen dute kontuan (diru-sarrerak, ondarea, familia-zamak, etab.). Nolanahi ere, azterketa hau diru-sarreraren aldagaian oinarrituz egindakoarekin osatzen da (indarreko araudiak erabiltako aldagaia).

Beharrian babesgarriak bereizteko balio kritikoei dagokionez, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailak bi erreferentzia-puntu planteatzen ditu: 96.000€-ko muga, BOE etxebizitzaren salmentaren prezioei aurre egiteko zailtasunak dituzten pertsonak identifikatzeko, eta 150.000€-ko muga, etxebizitza askea lortzeko zailtasunak dituen pertsona multzoa identifikatzeko. Lehenengo mugaren aldetik, 2007ko Oinarri Inkestako emaitzek adierazi-

IV.3.16 KOADROA. FINANTZA GAITASUNARI BURUZKO DATU NAGUSIEN BILAKAERA

	LORTZEA					
	2002	2003	2004	2005	2006	2007
B. besteko diru-sarrera	1.146	1.232	1.220	1.345	1.469	1.389
% diru-sarrera 1 baino gehiago	42,4	38,1	34,6	36,9	34,4	31,1
% diru-sarrerak < 2,5 LGS	30,4	22,8	22,3	13,8	10,4	9,5
% diru-sarrerak, 2,5 eta 5,5 LGS art.	54,9	57,1	59,1	59,0	59,9	65,1
% diru-sarrerak < 5,5 LGS	85,3	79,9	81,4	72,8	70,3	74,6
Etxebizitzara bideratzeko moduko hileko soldata	394	414	419	445	495	457
Gehieneko prezio onargarria	111.105	120.670	130.207	143.215	164.455	157.200
% gehieneko prezioa < 72.000€	18,3	16,6	14,1	3,8	2,5	1,6
% gehieneko prezioa < 150.000€	83,5	74,9	69,4	55,2	41,3	47,6
	ALDATZEA					
	2002	2003	2004	2005	2006	2007
- B. besteko diru-sarrera	1.314	1.303	1.396	1.514	1.609	1.618
% diru-sarrera 1 baino gehiago	48,8	46,6	41,1	48,5	45,8	55,0
% diru-sarrerak < 2,5 LGS	30,6	33,9	23,1	21,8	17,9	20,3
% diru-sarrerak, 2,5 eta 5,5 LGS art.	49,1	47,5	53,6	44,2	48,4	44,4
% diru-sarrerak < 5,5 LGS	79,7	81,4	76,7	66,0	66,3	64,7
Etxebizitzara bideratzeko moduko hileko soldata	404	360	490	416	471	477
Gehieneko prezio onargarria	133.110	134.745	171.010	195.900	209.220	229.085
% gehieneko prezioa < 72.000€	15,5	26,4	9,8	6,7	3,3	0,0
% gehieneko prezioa < 150.000€	64,0	57,9	45,3	31,9	25,0	13,9

Iturria: EAEko Etxebizitza Beharrianen eta Eskariari buruzko Oinarrizko Inkesta.

IV.3.19. KOADROA. ALDATU BEHARRA DUTEN FAMILIEN EZAUGARRIEN LABURPENA, FAMILIA KOPURU OSOARI DAGOKIONEZ

	ALDATU BEHARRA DUTEN FAMILIAK	FAMILIAK GUZTIRA
Gizarte-egoitza ezaugarriak	• B. besteko adina: 48 urte • Familiako kide kopurua: 3,1 • Lan-egoera: → Kontratu finkoko landuna: %44 → Langabetua: %6 • B. besteko azalera: 71 m2 • B. besteko antzintasuna: 39 urte • Edukitze-araubidea: → Jabetza: %70 → Alokairua: %23	• B. besteko adina: 54 urte • Kide kopurua: 2,8 • Lan-egoera: → Kontratu finkoko landuna: %42,5 → Langabetua: %4 • B. besteko azalera: 79,5 m2 • B. besteko antzintasuna: 34,5 urte • Edukitze-araubidea: → Jabetza: %92 → Alokairua: %5
Etxebizitzarekiko eta inguruarekiko poza	• Okupaturiko etxebizitzarekiko poztasun maila: 85 puntu • Inguruarekiko edota auzoarekiko poztasun maila: 83 puntu	• Okupaturiko etxebizitzarekiko poztasun maila: 88 puntu • Inguruarekiko edota auzoarekiko poztasun maila: 90 puntu
Beharrianaren ezaugarriak	• Beharrianaren eragile nagusiak: → Tamaina ez-egokia: %30 → Igogailurik ez: %21 • Beharrian maila: 79 puntu • Beharrian egoerako aldia: → 2 urte baino gutxiago: %38 → 2 urte baino gehiago: %62 • Estaldura-aukera: → 2 urtetan %29 → 4 urtetan %48 • Lortu nahi den batez besteko azalera: 75 m2 • Edukitze-araubidea: → Jabetza: %75 → Alokairua: %11 → Bata nahiz bestea: %13	

takoaren arabera, etxebizitza lortu behar duten gazteen %8,2ren ustez, ezin dute prezio horretako etxebizitzarik lortu. Gainera, etxebizitza aldatu beharra duten familien %5,2 egoera berean dago, eta, beraz, oro har, halako beharrianaren %13,4k etxebizitzaren arloko laguntza sozialak jaso beharko lituzkete (2006an %18).

Segmentu babesgarria nabarmen handitzen da 150.000?-ko mugari dagokionez; hain zuzen ere, etxebizitza lortu beharra duten pertsonen %47k eta aldatu beharra dutenen %13,3k ezin dute prezio horretako etxebizitzarik erosi. Horrenbestez, Inkestak detektaturiko beharrianaren %60,3k zailtasun handiak ditu etxebizitza askea lortu ahal izateko (2006an %65,8).

Nolanahi ere, ondorio horiek apur bat bereizi egiten dira familien haztaturiko diru-sarrera gordinen maila aintzat hartuz gero (etxebizitzarako diru-laguntza publikoak emateko erabiltzen den irizpide ofiziala). Horrela, etxebizitza lortu behar duten gazteen %9,5ek eta etxebizitza aldatu behar duten familien %6,5ek 15.000?-tik beherako diru-sarrerak dituzte, eta, horrela, laguntza sozialen esferan kokaturik daude (2006an hurrenez hurren %10,4 eta %15,2). Lehenengo etxebizitza lortu nahi duten gazteen %74 eta etxebizitza aldatu nahi duten familien %27,2, halaber, 33.000?-tik beherako diru-sarrera haztatuak dituzte, eta, beraz, laguntza ofizialak jaso eta BOE etxebizitzen esleipendunak izan daitezke (2006ko Inkestako datuen arabera, %70,3 eta %37,7).

3.4. Etxebizitza politika

3.4.1. Eusko Jaurlaritzaren etxebizitza-politika

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren aurrekontu-gastua, aurreko hamarkadan, Eusko Jaurlaritzaren aurrekontu osoaren %2,8 izan da. 1997-2001 aldian, sail horrek %2,2ko partaidetza izan du Eusko Jaurlaritzaren aurrekontu-gastu osoan. 2002ko ekitalditik aurrera, aurrekontu mailako egoera hori neurri batean zuzendu egin da, eta, horrela, Sailaren aurrekontuak %3 inguruko partaidetza dauka guztizkoari dagokionez.

Horri dagokionez, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren Programak gauzaturiko gastua nabarmen hazi da azken urteotan, eta 2007an 188,88 milioi eurokoa izan da, aurreko urtean baino %10,1 handiagoa. Gastu hori EAEko BPGren %0,28 da, behin-behineko datuen arabera, eta tasa hori ia aldatu barik mantendu da 2002tik. Era berean, programa horren arloan egindako inbertsioen bolumena ere hazi egin da, eta 2007an 148,3 milioi izan dira. Gainera, aipagarria da programak urteetan izandako izaera inbertitzaile nabaria, 1987-2007 aldian egindako inbertsioak gastuen bolumen osoaren %93 izan baitira.

2007ko ekitaldian, Eusko Jaurlaritzaren etxebizitza-politikak Etxebizitzako 2006-2009 Plan Gidariak finkaturiko ildo estrategikoak jarraitu ditu, eta proiektu horrek hurrengo urteetarako etxebizitza-politikaren ildo estrategiko


nagusiak finkatu ditu. Plan berria, hain zuzen ere, babeseko etxebizitzaren eskaintzaren hazkundearen inguruan egituratzen da, bai ikuspegi kuantitatibotik eta bai alderdirik kualitatiboenetik begiratuta. Horretarako, aintzat hartzen ditu etxebizitza-beharrizanaren profil desberdinak, tipologia anitzeko eta beharrian bakoitzera egokituriko tipologia erantzuna emateko. 2.800 milioi euroko aurrekontua dauka indarraldi osorako, eta helburua, 2009rako, babeseko etxebizitzaren parkean 88.201 unitate egotea da, horietatik %22 alokairukoak.

2007ari dagokionez, urte horretan berriro hazi da babeseko etxebizitzaren eraikuntza; hain zuzen ere, 6.628 etxebizitza hasi dira, 2006a baino %25,6 gehiago, bai babes ofizialekoen (%+9,8) eta bai etxebizitza sozialen (%+84,4) aldetik. Urte honetan, gainera, udaleko etxebizitza tasatuen eraikuntza hasi da, eta jarraitu egin dira zuzkidurako ostatuen ekimenekin. Hala-ber, Sailak eraikuntzarako lurzorua lortzeko egindako jarduketek %51ko hazkundea izan dute. 5.483 etxebizitza berri eraikitzeke lurzorua lortu da, 2006an baino 1.858 gehiago.

Eskaintza eta eskaria sustatzeko emandako laguntzei dagokionez (maileguak eta diru-laguntzak), 2007an %21,3ko hazkundea egon da, maileguetarako fondoek izandako gorakadaren ondorioz (diru-laguntzen kaltetan). Guztira, 456 milioi euro eman dira: maileguetarako 443,4 milioi euro (%97) eta diru-laguntzetarako 13,3 milioi (gainerako %3).

Lehenengo eta behin, azken urtean emandako maileguen kopuruak %14,4ko murriztapena izan du

IV.3.22. GRAFIKOA. ETXEBIZITZA PROGRAMAKO GASTUEN ETA DIRU-SARREREN BILAKAERA



Iturria: Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila.

IV.3.20 KOADROA. EUSKO JAURLARITZAREN ETXEBIZITZA PROGRAMAN LIKIDATURIO GASTUAREN BILAKAERA ETA BPG-N DUEN EHUNEKOA.

	Etxebizitza programako gastua		EAE-ko bpg, prezio arruntetan program.		% bpg-ri dagok.
	euroak m	hazkun. %	euroak m	hazkun. %	
1997	77,55		32.728		0,24
1998	75,87	-2,2	35.686	9,0	0,21
1999	71,08	-6,3	38.581	8,1	0,18
2000	86,52	21,7	41.647	7,9	0,21
2001	85,71	-0,9	43.931	5,5	0,20
2002	119,22	39,1	46.226	5,2	0,26
2003	136,73	14,7	49.242	6,5	0,28
2004	154,34	12,9	53.305	8,3	0,29
2005	157,43	2,0	57.289	7,5	0,27
2006	171,56	9,0	61.764	7,8	0,28
2007*	188,88	10,1	66.312	7,4	0,28

Iturria: Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren eta INEren gastuetan oinarrituz landuta.

(*) 2007ko datuak behin-behinekoak dira.

IV.3.21 KOADROA. ETXEBIDEREN PLANAREN GAUZAPENAK (JARDUKETA KOP.)

	2002	2003	2004	2005	2006	2007
Hasitako babeseko etxebizitzaren eraikuntza	5.054	6.625	4.427	4.625	5.273	6.628
- Babes ofizialeko etxebizitzak	3.954	5.816	3.981	3.830	4.828	5.302
- Etxebizitza sozialak	1.100	809	446	795	320	590
- Zuzkidurako bizilekuak	-	-	-	-	125	361
- Udaleko etxebizitza tasatuak	-	-	-	-	-	1.057
Lurzorua lurpena (etxebizitza kopuruan)	2.277	2.065	3.430	3.890	3.625	5.483
Etxebizitzaren eta eraikinen birgaikuntzak	12.040	11.159	23.914	15.471	13.905	11.798
Erabilitako etxebizitza askea lortzeko laguntzak	n.d.	1.509	2.142	645	31	11
Etxebizitza hutsa alokatzeko eta alokairurako erosteko laguntzak*	n.d.	528	718	889	2.619	689

(*) Bizigune Programa.

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila.

(7.644etatik 6.546ra igaro dira, jarduketei edo etxebizitzetara dagokienez); aldi berean, horien batez besteko zenbaterakoak (67.732 euro) %41,6ko hazkundea izan du. Sustatzaileentzako maileguak murriztu egin dira (%-97), baita alokairurako maileguak ere (%-21). Aldiz, babeseko etxebizitza lortzeko maileguak gora egin dute (%+100), eta erabilitako etxebizitzarako maileguak ere bai (6 milioi euro

eman dira horretarako). Bestalde, diru-laguntzak berriro murriztu dira urte honetan; hain zuzen ere, espediente kopuruan %15,3ko murriztapena egon da eta horien zenbaterako osoak %6,6ko beherakada izan du. Diru-laguntzetarako 13,6 milioi euroetatik, %99,5 etxebizitza birgaitzeko jardueretara bideratu da. Birgaitzeko batez besteko diru-laguntza 1.127?-koa izan da, 2006an baino 58 gehiago.

IV.3.22 KOADROA. ETXEBIZITZA PLAN GIDARIKO MAILEGUAK ETA DIRU-LAGUNTZAK, HELBURUAREN ARABERA

Helburua	2006		2007	
	Etxebizitza kop.	Zenbatekoa (€-ak milatan)	Etxebizitza kop.	Zenbatekoa (€-ak milatan)
MAILEGUAK*	7.644	365.372	6.546	443.373
Sustatzailea	3.024	278.182	883	7.078
Eskuratzaile babestua	605	43.914	980	86.739
Eskuratzaile erabilia	24	1.654	69	6.001
Alokatzeko eskuratuta	2.831	32.105	946	26.535
Birgaikuntza	1.158	7.848	1.013	8.360
Lurzorua eta hirigintza	2	1.670	1	12.200
DIRU-LAGUNTZAK**	13.936	14.293	11.809	13.354
Eskuratzaileak	31	174	11	61
Birgaikuntza	13.905	14.117	11.798	13.293

* Onarturiko eta formalizaturiko maileguak (subrogatuak + subrogatu gabeak)

** Diru-laguntzak: laguntzako hasierakoa

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila.


439

Lurraldeka, Bizkaiko maileguetarako fondoen bolumenak hazkunde handia izan du; izan ere, lurralde horretara bideraturiko 79,6 milioi euroek %98,9ko hazkundea adierazten dute, aurreko urteari dagokionez. Guztiarekin ere, maileguetara eta diru-laguntzetara bideraturiko fondoen %70 Arabarako izan dira.

3.4.2. Foru Aldundien etxebizitza-politika

Eusko Jaurlaritzak garaturiko etxebizitza-politika ez ezik, interesgarria da zerga-gastuaren zifrak zein diren jakitea ere (Foru Aldundiek etxebizitzaren arloan egindako esku-hartze publikoko tresnatzat). Horren inguruko datu erabilgarriak 2005ari buruzkoak dira, eta iturritzat Eusko

IV.3.23. GRAFIKOA. ETXEBIZITZA PLAN GIDARIA: MAILEGUAK ETA DIRU-LAGUNTZAK LURRALDEKA. €-AK MILATAN.



Iturria: Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila. Etxebideren estatistikak.

Jaurilaritzaren Zerga Koordinaziorako Organoaren “Euskadiko Ogasunaren urteko txosten integratua” hartu da.

Hiru Foru Aldundien PFEZren likidazioetan oinarrituz ondorioztatzen denez, ohiko etxebizitzaren eraginezko murriztapena (etxebizitzaren alokairua, inbertsioa eta errentamendua) murriztapen nagusia izan zen, ikuspegi kuantitatibotik begiratuta (murriztapen guztien %39,5), eta 2005ean, guztira, 418 milioi euro izan ziren, aurreko urtean baino %11,2 gehiago. Zenbateko hori Eusko Jaurilaritzaren Etxebizitza Programak egindako gastuaren %266koa da, aurreko atalean ikusi dugunez.

Murriztapen horrek garrantzi handiagoa dauka batez besteko errentetan (13.200-27.600 euro), bertan murriz-

tapen guztien %54ra heltzen baita; gero, beherantz doa, errenta mailen hazundearekin: %26,8 (66.000?) eta errenta mailarik altuenak ehuneko txikiagoak. 22.800 eurora arteko tartean murriztapenen %56 egin dira. Lurraldeka, murriztapenak Araban %47 izan ziren, Bizkaian %37,7 eta Gipuzkoan %39.


Grafikoan ikusten denez, ohiko etxebizitzarako murriztapenek etengabeko hazkundera izan dute azken urteetan; horrela, 2005ean 1997ko %393 izan ziren (1999tik 2000ra %+40,3ko hazkunde handia egon da, epigrafean etxebizitza errentatzearen ondoriozko murriztapenak sartzearen eraginez, horiek ordura arte familien eta pertsonen murriztapenen artean sartzen baitziren).

IV.3.23 KOADROA. ETXEBIZITZARAKO MURRIZTAPENEN ZENBATEKOA, PFEZ-REN AITORPENETAN. 2005. EUROAK MILIOIETAN.


	2005				2004	Ald. 04/05
	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	EAE	EAE	
Ohiko etxebizitzaren alokairua	7,06	11,31	10,87	29,24	24,42	19,7
Etxebizitza-aurrezkia	6,79	18,7	8,14	33,63	33,5	0,4
Inbertsioa ohiko etxebizitzan	42,46	134,59	76,11	253,16	237,71	6,5
Ohiko etxebizitzaren finantziazioa	14,75	45,51	26,72	86,98	74,48	16,8
Etxebizitzaren errentamendua	2,57	6,39	6,3	15,26	9,24	65,2
ETXEBIZITZAKO MURRIZT. GUZTIRA	73,63	216,5	128,14	418,27	376,01	11,2
MURRIZTAPEN GUZTIEN %	46,9	37,7	38,9	39,5	38,4	2,9

Iturria: Zerga Koordinazioko Organoan oinarrituz landuta.

IV.3.24. GRAFIKOA. PFEZ 2005: MURRIZTAPENEN EHUNeko BANAKETA, MOTEN ARABERA



IV.3.25. GRAFIKOA. ETXEBIZITZAKO MURRIZTAPENEN (PFEZ) ZENBATEKOAREN BILAKAERA ETA MURRIZTAPEN GUZTIEKIKO EHUNEKOA



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Zerga Koordinazioko Erakundea.

4

Aisialdia, kultura eta kontsumoa

4.1. Finantziazioa eta gastu publikoa kulturean

Kulturgintzak EAEko ekonomia eta gizartean duen garrantzia, joandako urteetan bezala, zeharkako iturrien bidez zenbatetsi da; zehazkiago, Kultur Ministerioak argitaratzen duen “*Kultura-estatistiken urtekariaren*” bidez¹.

Urtekari honek, Estatuko Administrazio Orokorrek, eta Administrazio Autonomikoak eta Tokiko Administrazioak (tokiko erakundeak: udalak eta aldundiak, batzordeak, kabiltoak eta menpeko erakunde autonomoak) kulturaren alorrean egindako finantzaketa eta gastu publikoari buruzko informazioa du kapitulu batean. Estatuko Administrazio Orokorri buruzko datuak ez dira autonomia-erkidegoka banakatzen, baina bai beste bien datuak. Datu hauek erakutsi baino lehen, bi oharpen egin behar dira: batetik, kontuan hartu behar da, urtekariako ohar metodologikoek autonomia-erkidegoek beharrezko informazio guztia eman ez dutenean, egokitzen jo diren kalkuluak egin direla jakinarazten dute. Bestetik,

argitalpenak berak, autonomia-erkidegoka informazio osoa emateko, iturri ezberdinetako datuak ezin izan dituela bateratu ohararazten du.

Bere aldetik, Kultur Ministerioko urtekariak kulturako gastu publikotzat jo du “*administrazio publikoek, onartutako betebeharren fasean kulturara zuzendutako likidatutako gastua, eta beraz, finantzagilearen izaera, izango da gastuaren izaera publikoa edo pribatua zehaztuko duena, eta ez hartzailearen izaera*”.

Kultur erakunde publikoek, adibidez museoek, izan ditzaketen jatorri pribatuko diru-sarrerak ez dira kentzen. Ez dira kultura-gastutzat hartzen, ezta ere, enpresa edo partikularrek erakunde kultural publikoei egindako laguntza, emari eta abarreatatik eduki ditzaketen zerga-arinketak.

Kultura Ministerioaren datuen arabera, 2005. urtean, Euskadiko Administrazio Autonomikoak kulturen likidatutako gastua, 81,6 miloi eurokoa da, 2004an baino 6,9 miloi gehiago, hots, kulturen likidatutako gastua %9,2 gehitu da. Gastua Estatuko autonomia-administrazioek 2005ean likidatutako gastu osoaren %5,6 da (aurreko urteko portzentaje berbera), eta urte berbereko Eusko Jaurlaritzaren gastu osoaren %1,2 (%1,11 aurreko urtean). Gainera, gure autonomia-erkidegoko BPGdaren %0,15 da,

¹ Ikerketa honen eremuaren barnean dauden kultura-sektoreak hauexek dira: ondasun eta zerbitzu kulturalak (monumentuak, museoak, arkeologia-aztarnategiak, artxibategiak eta liburutegiak), arte plastikoak eta eszenikoak (erakusketak, argazkigintza, musika, dantza eta antzerkia), liburuak eta ikus-entzunezkoak (zinema, bideoa eta grabatutako musika), diziplina artekoak, (kulturen sustapena eta hedapena, administrazio eta zerbitzu orokorrak eta politika linguistikoa).

IV. 4.1 Koadroa. AUTONOMIA-ADMINISTRAZIOEK KULTURAN LIKIDATUTAKO GASTUA AUTONOMIA-ERKIDEGOKA

	Balio absolutuak (euroak miloitik)		Estatuak kulturalen likidatutako gastua ehunekotan		AAEE-k likidatutako gastu osoa ehunekotan			BPGdren ehunekoa			Batez besteko gastua biztanleko (€)		
	2004	2005	2004	2005	2000	2004	2005	2000	2004	2005	2001	2004	2005
ESTATUA GUZTIRA	1.329,3	1.465,6	100,0	100,0	1,18	1,07	1,07	0,16	0,16	0,16	25,7	31,4	34,1
ANDALUZIA	183,1	211,7	13,8	14,4	0,78	0,8	0,86	0,16	0,16	0,17	18,8	24,2	27,6
ARAGOI	34,4	36,7	2,6	2,5	1,21	0,9	0,89	0,13	0,13	0,13	22,1	28,0	29,5
ASTURIAS	34,7	40,5	2,6	2,8	1,26	1,12	1,21	0,15	0,19	0,21	23,6	32,7	38,2
BALEARRAK	11,4	13,6	0,9	0,9	1,06	0,49	0,46	0,07	0,05	0,06	9,7	12,2	14,2
KANARIAK	32,9	27,6	2,5	1,9	0,69	0,62	0,5	0,11	0,1	0,08	17,4	17,7	14,5
KANTABRIA	23,6	26,5	1,8	1,8	2,13	1,4	1,43	0,22	0,22	0,23	32,2	43,2	48,2
GAZTELA-MANTXA	121,7	116,2	9,2	7,9	1,64	1,56	1,35	0,2	0,27	0,24	27,7	49,4	47,1
GAZTELA ETA LEON	62,4	70,1	4,7	4,8	1,55	0,98	1,02	0,23	0,22	0,23	21,3	34,3	37,7
KATALUNIA	221,6	271,3	16,7	18,5	0,99	1,02	1,13	0,14	0,14	0,16	26,5	33,4	40,0
VALENTZIako ERK.	111,1	128,1	8,4	8,7	1,76	1,07	1,1	0,23	0,14	0,15	31,2	25,2	28,3
EXTREMADURA	41,8	53,4	3,1	3,6	1,82	1,13	1,35	0,35	0,3	0,35	47,7	39,2	49,9
GALIZIA	133,3	128,5	10,0	8,8	1,33	1,57	1,35	0,26	0,31	0,28	25,1	49,3	47,4
MADRIL	151,6	161,0	11,4	11,0	1,12	1,14	1,09	0,06	0,1	0,1	25,6	26,6	27,7
MURTZIA	29,4	32,8	2,2	2,2	0,8	0,97	0,96	0,08	0,14	0,14	14,2	23,2	25,2
NAFARROA	43,1	45,7	3,2	3,1	1,65	1,53	1,38	0,36	0,3	0,3	73,0	75,2	78,6
EAE	74,7	81,6	5,6	5,6	1,24	1,11	1,12	0,17	0,15	0,15	33,8	35,7	38,8
ERRIOXA	11,1	11,4	0,8	0,8	1,54	1,24	1,18	0,15	0,18	0,17	27,5	38,5	38,8
CEUTA	2,6	4,0	0,2	0,3	1,74	1,45	2,11	-	0,21	0,3	51,9	37,0	56,5
MELILLA	4,7	5,0	0,4	0,3	3,79	2,93	2,98	-	0,41	0,4	60,8	70,1	74,7

Iturria: Kultura Ministerioa. Kulturako Finantzaketa eta Gastuen Estatistikak. Kultura-estatistiken urtekaria

Autonomia-erkidego guztien batez bestekoa baino apur bat baxuagoa. Adierazle honen buruan dauden erkidegoak Extremadura eta Nafarroa dira, beren ezaugarri bereziengatik Ceuta eta Melilla alde batera utziz gero. Biztanle bakoitzaren gastuari dagokionez, EAEn 2005ean 38,8 eurokoa da, 2004an baino 3,1 gehiago, eta kopuru hau Estatu osoko batez bestekoa baino %13,8 handiagoa da.

Gastuaren helburua kontuan hartuz, EAEn, 2005ean. 81,6 milioi euroen %26,9 ondasun eta zerbitzu kulturetan erabili zen (%28,2 aurreko urtean) eta ez dugu gainerako %73,1ren banaketaren berririk. Autonomia-erkidegoetan, osotasunean, ondasun eta zerbitzu kulturetan erabiltzen den portzentajea %36,9koa da (%38 aurreko urtean).

Gastuaren izaera ekonomikoari dagokionez, gastuaren %80,3 gastu arruntei dagokie (Estatuaren batez bestekoa %58,6koa da), kapitalaren gastuan %13,6 (Estatuan %40,9) eta gainerako %6,1 finantzario aktibo eta pasiboen partidaren barnean dago (Estatuan %1,1).

Beste gai batzuei dagokionez, Urtekariak EAEn 2005ean "Tokiko Administrazioetat" jotzen duen kultura-gastu likidatua 334,7 milioi eurokoa da, Estatu osoko %11,56, eta aurreko urtean baino %13,2 gehiago. EAEko Tokiko Administrazioaren barnean, 215 milioi euro udalei dagozkie (guztizkoaren %64,2) eta 127,8 milioi Foru-Aldundiei². Gastuaren helburuari dagokionez, %87 kultura sustatu eta zabaltzeko erabiltzen da, eta gainerakoa arkeologia eta ondare historiko artistikoa babesteko.

² Ikusten denez, Administrazioaren maila bien batura ez dator bat "tokiko erakunde" gastu osoarekin, datu bateratuak baitira.

IV. 4.2 KOADROA. TOKIKO ADMINISTRAZIOEK KULTURAN LIKIDATUTAKO GASTUA ERAKUNDE MOTA ETA HELBURUAREN ARABERA (MILOI EURO)

	GASTUA ERAKUNDEAREN ARABERA						GASTUA HELBURUAREN ARABERA					
	Tokiko erakundeak		Udalak		Udalak, batzordeak eta kabildoak		Guztira		Kulturaren sustapen eta hedapena		Arkeologia eta ondare historiko artistikoaren babesa	
	2004	2005	2004	2005	2004	2005	2004	2005	2004	2005	2004	2005
ESTATUA GUZTIRA	2.690,9	2.894,9	2.271,5	2.409,5	479,0	553,9	2.690,9	2.894,9	2.448,5	2.619,9	242,5	275,0
ANDALUZIA	356,7	402,7	317,3	361,8	48,7	52,2	356,7	402,7	331,1	370,9	25,6	31,8
ARAGOI	85,6	86,5	70,3	69,9	20,6	22,9	86,6	86,5	78,8	80,0	6,9	6,5
ASTURIAS	45,1	54,6	45,1	54,6	-	-	45,1	54,6	41,6	51,8	3,5	2,8
BALEARRAK	78,1	87,5	53,7	60,4	25,9	30,2	78,2	87,5	70,4	78,4	7,8	9,1
KANARIAK	164,8	189,8	84,6	99,6	90,9	98,5	164,8	189,8	146,4	172,8	18,5	16,9
KANTABRIA	25,4	25,3	25,4	25,3	-	-	25,4	25,3	23,7	22,4	1,7	2,9
GAZTELA-MANTXA	127,6	165,6	103,4	141,9	27,4	28,5	127,6	165,6	119,6	155,5	8,0	10,1
GAZTELA ETA LEON	141,7	104,0	127,5	87,5	16,3	18,2	141,8	104,0	135,0	99,8	6,8	4,2
KATALUNIA	476,6	487,9	407,9	417,7	81,6	85,5	476,6	487,9	432,9	412,3	43,7	75,5
VALENTZIAKO ERKIDEGO	290,3	307,5	256,2	269,2	36,0	43,8	290,4	307,5	250,4	264,2	40,0	43,3
EXTREMADURA	46,9	35,9	37,1	24,1	11,0	12,8	46,9	35,9	38,8	32,6	8,2	3,3
GALIZIA	138,0	141,6	113,4	110,9	27,8	33,5	138,0	141,6	124,0	132,4	14,0	9,1
MADRIL	297,6	326,1	297,6	326,1	-	-	297,6	326,1	279,6	310,9	18,1	15,1
MURTZIA	53,5	72,3	53,6	72,3	-	-	53,6	72,2	46,1	65,7	7,5	6,5
NAFARROA	53,6	54,9	53,7	55,1	-	-	53,6	54,9	53,6	54,9	0,0	0,0
EAE	295,5	334,7	210,9	215	92,9	127,8	295,5	334,7	265,0	299,9	30,5	34,8
ERRIOXA	13,5	18,1	13,6	18,1	-	-	13,6	18,1	11,6	15,2	1,9	2,9

Iturria: Kultura Ministerioa. Kulturako Finantzaketa eta Gastuen Estatistikak. Kultura-estatistiken urtekaria

4.2. Familien gastua kultura kontsumoan

Kultura Ministerioaren datuen arabera, kulturako ondasun eta zerbitzuetan euskal familiek 2005ean egindako gastua 620,3 miloi eurokoa da, 2004an baino 107 miloi gehiago, hots, %20,9 gehitu da. Gastu hau EAEn ondasun eta zerbitzuetako gastu osoaren %3,2 da, Autonomia-erkidego guztien batez bestekoa baino 3 hamarren gehiago, izan ere autonomia-erkidegoen batez bestekoa %2,9 da. Adierazle honetan lehenengo dauden erkidegoak Valentzia eta Aragoi (bakoitza %3,4rekin) Katalunia (%3,3) eta Madril (%3,2) dira.

Familia bakoitzaren batez besteko gastuari dagokionez, 2005. urtean EAE rankingeko bigarren lekuan dago, 847,1 euroekin, aurretik Madril bakarrik du 991,3 euroekin. EAEn, 2005. urtean, pertsona bakoitzaren gastua, berriz, 296,7 eurokoa da, 2004. urtean baino 48,4 euro gehiago. Kopuru hau Estatu osoko batez bestekoa baino %22,2 handiagoa da; eta EAE gehien gastatzen duen erkidegoa da, Madrilen atzetik (335,1 euro).

Gastu motari dagokionez (liburuak eta argitalpenak, zerbitzu kulturalak, informazioaren tratamendurako banako ekipoak eta osagarriak...), Euskal Autonomia Erkidegoan, 2005. urtean pertsona bakoitzak gastatu dituen 296,7 euroatik % 46,9 liburu eta aldizkarietarako xedatu zen, % 16,7 zerbitzu kulturaletarako, % 26,8 informazioaren tratamendurako banako ekipo eta osagarrietarako, eta % 9,6 berriz, beste ondasun eta zerbitzu batzuetarako. Estatuko

IV. 4.3 KOADROA. FAMILIEN GASTUA KULTURAKO ONDASUN ETA ZERBITZUETAN AUTONOMIA-ERKIDEGOKA.

	Balio absolutua (euroak milioitan)		Ondasun eta zerbitzuetako gastua ehunekoetan (euroak milioitan)		Batez bestekoa familiako (eurotan)		Batez bestekoa pertsonako (eurotan)	
	2004	2005	2004	2005	2004	2005	2004	2005
ESTATUA GUZTIRA	7.631,6	10.460,2	2,7	2,9	566,6	703,8	186,9	242,7
ANDALUZIA	1.004,6	1.454,8	2,3	2,5	453,5	592,9	136,9	189,1
ARAGOI	262,0	341,1	3,0	3,4	595,7	761,7	219,2	275,5
ASTURIAS	207,3	256,5	2,8	3,1	593,9	666,9	196,5	243,8
BALEARRAK	141,5	257,1	2,3	2,7	452,7	714,1	164,4	266,0
KANARIAK	340,0	422,4	3,1	2,9	636,5	667,8	193,9	219,8
KANTABRIA	112,7	119,0	2,8	2,5	647,6	659,1	212,0	217,2
GAZTELA-MANTXA	354,2	492,9	2,3	2,5	397,0	533,9	145,2	201,9
GAZTELA ETA LEON	204,2	253,1	2,1	1,9	362,2	391,7	116,4	136,0
KATALUNIA	1.493,1	1.975,7	3,0	3,3	674,1	789,4	234,7	289,8
VALENTZIAKO ERK.	803,8	1.320,4	2,9	3,4	570,9	824,6	192,4	290,1
EXTREMADURA	108,1	106,4	2,1	1,7	303,1	288,8	102,5	100,1
GALIZIA	358,9	453,7	2,2	2,2	419,8	509,2	133,4	168,0
MADRIL	1.354,0	1.953,9	3,1	3,2	757,8	991,3	250,2	335,1
MURTZIA	184,3	189,0	2,4	2,0	492,5	434,7	154,6	144,0
NAFARROA	111,1	134,5	2,5	2,6	596,0	704,5	202,3	233,1
EAE	513,3	620,3	3,0	3,2	759,2	847,1	248,3	296,7
ERRIOXA	52,0	73,8	2,6	3,0	571,8	707,9	189,6	250,4

Iturria: Kultura Ministerioa. Kulturako Finantzaketa eta Gastuen Estatistikak. Kultura-estatistiken urtekaria

batez bestekoak aztertuz gero, aldeak nabaritzen dira. Izan ere, Estatuan, oro har, EAEn baino gutxiago gastatzen da liburu eta aldizkarien arloan (% 29) eta gehiago, ordea, zerbitzu kulturaletan (% 28,7) eta informazioaren tratamendurako banako ekipo eta osagarrien alorrean (% 32,9).

Zerbitzu kulturalen arloko gastuaren barruan zinemari dagozkionak ere sartzen dira. Gastu hori neurtze aldera, Urtekariak etxe bakoitzak (eta ez pertsona bakoitzak) zerbitzu kulturaletan izaten duen batez besteko gastu gisa ematen du informazio hori. Gastu horiek, EAEn, 141,6 eurokoak dira; Estatuko batez bestekoa, berriz, 202 eurokoa da. EAEn etxe bakoitzak zinema arloan egiten duen gastua

51,2 eurokoa izan zen 2005. urtean, hau da, etxe bakoitzak zerbitzu kulturaletan egin duen guztirako gastuaren % 36,1. Estatuan etxe bakoitzak zinema arloan egiten duen gastua txikixeagoa da, hots, 50,2 eurokoa, eta zinema arloko gastuak zerbitzu kulturaletako guztirako gastuarekiko duen portzentajea ere EAEko baino apur bat baxuagoa da (% 24,9).

Etxeei doakienez, ondoko hauek dira zinema arloan gehien gastatzen duten Autonomia Erkidegoak: Errioxa (109,1 euro), Madril (97,6 euro), Katalunia (69,6 euro), Aragoi (53,9 euro) eta Euskal Autonomia Erkidegoa (51,2 euro).

IV.4.4 GRAFIKOA. ETXEETAKO GASTUA ONSASUN ETA ZERBITZU KULTURALETAN, AUTONOMIA ERKIDEGO BAKOITZEAN GASTU MULTZOAREN ARABERA (EUROAK)

	Batez besteko gastua pertsona bakoitzeko										Batez besteko gastua etxe bakoitzeko		
	Guztira (euroak)		Liburuak eta aldizkako argitalpenak		Zerbitzu kulturalak (zine eta bestelako zerbitzu kulturalak barne).		Informazioa tratatzeko ekipoak eta bestelako ikus-entzunezkoetako osagarriak		Bestelako ondasunak eta zerbitzuak		Zerbitzu kulturalak (2005 urtea)		
	2004	2005	2004	2005	2004	2005	2004	2005	2004	2005	Guztira	Zinea	Besteak
ESTATUA GUZTIRA	221,3	242,7	72,0	70,3	58,2	69,7	67,1	79,8	24,0	22,9	202	50,2	151,9
ANDALUZIA	164,0	189,1	44,4	49,0	45,7	49,2	53,6	72,3	20,2	18,7	154,2	29,6	124,7
ARAGOI	260,5	275,5	76,8	81,6	78,0	80,8	71,8	90,0	33,8	23,4	223,5	53,9	169,7
ASTURIAS	237,8	243,8	94,0	92,2	66,8	49,4	62,3	85,1	14,8	17,2	135	37,7	97,4
BALEARRAK	218,6	266,0	69,9	74,9	66,3	83,1	67,4	84,0	15,0	23,9	223,2	51,7	171,5
KANARIAK	194,9	219,8	46,6	60,0	60,1	62,8	69,8	79,7	18,5	17,3	190,7	45,9	144,8
KANTABRIA	212,7	217,2	83,2	88,8	38,8	51,6	69,9	59,0	20,7	17,8	156,8	30,0	126,7
GAZTELA-MANTXA	187,6	201,9	59,5	62,8	43,7	44,6	64,9	71,4	19,5	23,1	118,0	32,4	85,5
GAZTELA ETA LEON	137,4	136,0	48,6	36,8	36,5	43,0	39,1	38,8	13,2	17,5	123,7	25,0	98,8
KATALUNIA	248,8	289,8	77,0	73,8	69,5	84,8	74,2	101,5	28,1	29,8	230,9	69,6	161,3
VALENTZIAKO ERK.	279,0	290,1	64,6	70,0	94,7	90,3	88,0	99,3	31,7	30,6	256,8	45,8	210,9
EXTREMADURA	125,4	100,1	42,1	27,4	18,8	21,5	52,7	44,3	11,7	6,9	62,1	9,0	53,1
GALIZIA	155,5	168,0	58,0	61,3	26,0	33,1	40,8	59,2	30,6	14,5	100,1	27,5	72,7
MADRIL	290,3	335,1	119,9	91,2	64,4	128,0	79,5	89,1	26,6	27,5	378,6	97,6	281,0
MURTZIA	164,1	144,0	53,2	51,9	50,9	35,8	41,9	45,1	18,1	11,3	108,0	17,4	90,5
NAFARROA	269,3	233,1	97,9	97,0	71,1	49,4	84,2	69,2	16,0	17,5	149,4	46,7	102,7
EAE	294,2	296,7	119,4	139,3	54,6	49,6	91,0	79,4	29,3	28,4	141,6	51,2	90,4
ERRIOXA	195,9	250,4	69,0	82,8	55,2	76,4	52,6	70,7	19,1	20,6	216,0	109,1	106,9

Iturria:Kultura Ministerioa. Kulturako Finantzaketa eta Gastuen Estatistikak. Kultura-estatistiken urtekaria

4.3. EAE-ko biztanleriaren ohiturak aisialdiaren gizarte erabileran

4.3.1. Komunikabideen eragina

AIMCen (Hedabideak Ikertzeko Elkarteak), "Hedabideen esparru orokorra Espainian" urteko txosteneko datuen arabera, EAEn hedabideen eragina³ ezberdina da hedabidearen arabera. Horrela, egunkariak, aldizkariak, irratia eta zinemak beheranzko joera duten bitartean, Internetek bilakaera positiboa du, eta gehigarriak eta telebistak bilakaera aldakorra dute.


Eraginaren garrantziaren arabera, telebista, irratia, egunkariak, gehigarriak eta aldizkariak nabarmen txosten dira. Horrela, 2007ko ekitaldian bezalaxe, telebistaren erabilera %89,1ekoa da, Estatuko portzentajearen gainetik, eta aurreko ekitaldian baino 1,2 puntu gehiago. Irratiaren erabilera %61,7koa da, Estatuko batez

bestekoaren (%54,7) gainetik, eta hirugarren urtez segidan, ehunekoetan 5 hamarren gutxitu da oraingoan ere. Egunkari eta gehigarriak estatuko batez bestekoa baino erabilera-ratio handiagoa dute biztanleriaren artean, baina egunkariak, aurreko ekitaldiarekin alderatuz, gutxiago irakurri dira, eta gehigarriak berri, gehiago. Egunkarien irakurketa ehuneko 1,2 gutxitu da, beraz %56,2ko ratioa du, eta gehigarrien irakurketa ehuneko 2,3 gehitu da eta guztira, beraz %50,2ko ratioa du. Aldizkariak dagokienez, irakurketa-ratioa, oraindik ere, Estatuko baino baxuagoa da (%41,4 EAEn eta %49,4 Estatuan) eta aurreko urtearekin alderatuz, ehuneko 1,2 gutxitu da, Estatuan, oster, ehuneko 1,7 gehitu da.

Zinema eta interneten hedapena, berriz, txikiagoa da eta hurrenez hurren beren hedadura %4,1ekoa (2004an %9,7, 2005ean %9,4 eta 2006an %5,5) eta %30ekoa (2004an %24,5, 2005ean %4,5 eta 2006an %26,4) da. Beste behin ere, zinemaren eragina nabarmen gutxitu da eta, honez gain, Estatuko batez bestekoaren azpitik dago. Interneten erabilera, aldiz haziz doa.

Amaitzeko, AIMCen datuen arabera, hedabide

IV.4.1. GRAFIKOA. TELEBISTAREN KONTSUMOAREN BILAKAERAREN BATEZ BESTEKOA EAEn ETA ESTATU OSOAN. IKUSITAKO MINUTUEN BATEZ BESTEKOA.



Iturria: AIMC. Hedabideak Ikertzeko Elkarteak.

³ Hedabide zehatz batera sarbidea duten biztanleen portzentajea da. Hedabidearen arabera irakurleen guztizkoa, ikus-entzuleen guztizkoa, entzuleen guztizkoa edo internauten guztizkoa.

IV.4.5. KOADROA. HEDABIDEEN ERAGINA EAE-N, ESTATUAN ETA EB-EAN (EHUNEKO HORIZONTALAK)

	Biztanleria			Egunkariak			Gehigarriak			Aldizkariak		
	2005	2006	2007	2005	2006	2007	2005	2006	2007	2005	2006	2007
EAE	1.867	1.856	1.855	59,6	57,4	56,2	52,7	47,9	50,2	51,2	43,0	41,4
Estatua Guztira	37.084	37.439	37.911	41,1	41,8	41,3	27,7	25,4	24,9	53,8	47,7	49,4
Andaluzia	6.433	6.515	6.597	31,3	33,1	31,4	18,0	13,0	13,5	47,9	41,6	40,2
Aragoi	1.094	1.095	1.102	44,3	46,6	48,6	34,5	33,5	33,8	58,0	52,3	53,4
Asturias	956	953	951	57,4	59,4	57,0	41,9	42,0	45,3	59,8	54,3	58,8
Balearrak	808	840	862	44,3	48,6	48,9	28,2	26,0	27,2	62,3	56,2	60,0
Kanariak	1.548	1.648	1.681	38,7	40,5	38,6	17,3	22,5	18,5	58,0	56,7	57,8
Kantabria	486	491	495	52,0	47,1	48,1	47,6	41,2	38,0	52,2	38,1	33,5
Gaztela-Mantxa	2.193	2.190	2.193	42,0	43,9	42,9	32,8	30,2	32,3	53,7	49,9	55,7
Gaztela Eta Leon	1.585	1.609	1.637	27,7	27,5	27,9	15,5	18,2	15,6	49,5	46,4	50,1
Katalunia	5.921	5.952	6.039	44,8	45,6	45,1	26,6	24,1	24,5	57,9	51,0	54,5
Valentziako Erk.	3.915	3.974	4.059	30,8	32,8	33,8	20,3	18,1	19,0	51,8	45,8	49,7
Extremadura	904	918	922	26,5	30,0	30,1	16,8	11,1	13,1	39,9	35,9	35,5
Galizia	2.422	2.415	2.422	47,2	52,1	47,7	32,8	34,4	28,6	48,0	49,2	45,8
Madril	5.096	5.104	5.186	49,6	45,2	47,0	34,6	32,1	28,0	61,0	51,5	55,8
Murtzia	1.093	1.110	1.133	30,9	31,8	31,0	21,6	17,9	16,6	51,3	40,8	38,1
Nafarroa	507	507	511	59,0	61,5	60,4	49,6	45,6	54,6	53,4	47,1	46,8
Errioxa	257	262	266	44,6	46,4	51,4	43,1	34,5	45,2	59,2	53,7	57,8

	Irratia (*)			Telebista (*)			Zinema (**)			Internet (***)			Aurreko egunean ikusitako iragarkiak
	2005	2006	2007	2005	2006	2007	2005	2006	2007	2005	2006	2007	
EAE	65,2	62,2	61,7	89,8	87,9	89,1	9,4	5,5	4,1	24,5	26,4	30,0	66,2
Estatua Guztira	55,5	56,1	54,7	88,9	88,6	88,7	7,1	6,0	5,3	19,7	22,2	26,2	52,0
Andaluzia	52,1	52,7	52,0	91,7	91,8	90,8	5,6	4,6	3,9	16,0	17,8	20,8	45,1
Aragoi	54,4	58,8	58,8	88,1	90,5	92,1	5,0	4,6	3,5	20,1	23,2	26,6	42,1
Asturias	56,9	60,0	59,5	90,1	89,1	91,6	4,2	4,9	4,6	19,8	24,4	27,2	41,7
Balearrak	52,4	52,6	55,6	86,8	84,4	84,8	6,3	6,1	3,8	21,3	24,4	28,7	44,2
Kanariak	53,8	52,5	51,2	85,6	84,9	86,4	6,0	6,1	5,4	19,9	25,8	28,0	60,2
Kantabria	61,0	59,4	56,5	86,9	86,1	85,0	9,2	6,3	4,9	21,5	20,0	25,8	79,2
Gaztela-Mantxa	56,6	60,9	58,6	88,8	89,3	90,6	5,8	5,9	5,2	14,8	18,9	23,5	48,3
Gaztela Eta Leon	53,1	51,8	50,1	92,8	90,4	89,6	4,5	4,9	5,2	13,0	17,5	22,2	47,0
Katalunia	55,6	55,1	52,3	88,8	87,7	86,4	8,8	7,9	6,3	23,7	27,8	31,3	49,5
Valentziako Erk.	53,5	55,4	51,1	85,5	87,9	89,7	6,8	6,1	5,2	18,8	19,5	23,4	58,9
Extremadura	51,2	44,4	46,8	93,0	93,3	94,9	5,2	3,1	3,5	9,1	10,2	17,3	26,3
Galizia	52,2	55,8	54,8	87,6	87,9	86,8	4,3	4,5	4,1	12,6	18,2	19,9	37,9
Madril	60,6	61,3	61,3	88,5	86,9	86,3	10,6	7,3	8,7	27,5	28,3	35,8	67,3
Murtzia	54,7	53,9	52,1	86,7	86,8	89,8	7,2	5,9	3,3	18,2	17,1	16,5	64,9
Nafarroa	57,1	59,0	56,1	87,9	87,2	91,7	6,4	8,0	6,1	19,5	21,2	28,9	33,8
Errioxa	60,5	59,4	60,8	91,6	88,2	89,6	9,0	13,6	5,0	20,4	18,9	25,4	38,5

(*) Eguneroko ikusle eta entzuleak(**) Gutxienez astean behin, (***) Azkenengo 30 egunetako erabiltzaileak

Biztanleria: pertsonak milatan

Fuente: AIMC, Hedabideak Ikertzeko Elkarteak, 2006, 2007 eta 2008

ezberdinen eragina EAEn Estatuan baino handiagoa da, aldizkariena ezik. 2006.urtean, aldaketak egon ziren. Horrela, zinema eta telebistaren eragina Estatuan EAEn baino handiagoa izan zen. 2007.urtean telebistaren eragina berriz ere hazi egin zen EAEn, eta Estatukoaren gainetik kokatu zen, baina ez zen horrela gertatu zinemarekin, oraindik ere beheranzko joera baitu.

Telebistaren kontsumoari dagokionez, Hedabideen Esparru Orokorren Datuen arabera, EAEn eguneroko kontsumoa 197 minutukoa da, eta batez beste, hazkundera %0,5ekoa da, beraz 2002. urtetik zegoen beheranzko joera aldatu egin da. Estatuan, berriz, ikusitako batez besteko minutuak 220 dira, aurreko aldian baino 2 minutu gutxiago. Grafikoan ikus daitekeen bezala, gure Erkidegoan kontsumoa baxuagoa da agertzen den aldiko urte guztietan.

4.3.2. Kirolak

Espainiarren kirol-ohiturei buruz Hezkuntza eta Kultura Ministerioak egindako inkestari esker, beste alderdi batzuen artean, bertako biztanleriaren jardute-maila ezagutu dezakegu; eta iturri horren arabera, Estatuko batez bestekoa (%37) baino jardute-maila handiagoa duten autonomia-erkidegoak hauexek dira: Nafarroa (%45), Madril eta Katalunia (%43), Errioxa (%40), EAE (%39) eta Asturias (%38). Beste muturrean, eta beraz, aipatutako batez bestekoaren oso azpitik Extremadura (%29), Gaztela-Mantxa (%30), eta Kantabria, eta Andaluzia eta Galizia (%33) daude.

Denborari dagokionez, 2.000 eta 2005. urteen artean hamar autonomia-erkidegok atzerapen txikiak eduki dituztela ondorioztatzen da bertako biztanleen jarduer-mailan, bik jarduer-maila berbera dute, eta bostek gehikuntza arina izan dute. Estatuko batez bestekoa


IV.4.6. KOADROA. KIROL JARDUERAREN BANAKETA (BIZTANLERIA EHUNEKOTAN)

	Kirol bat edo gehiago egiten ditu		Ez du kirolik egiten	
	2000	2005	2000	2005
Nafarroa	46	45	54	55
Madril	45	43	55	57
Katalunia	44	43	56	57
Errioxa	40	40	60	60
EAE	43	39	57	61
Asturias	43	38	57	62
Valentzia	39	37	61	63
Balearrak	36	37	64	63
Aragoi	33	36	67	64
Kanariak	36	35	64	65
Gaztela eta Leon	40	34	60	66
Murtzia	36	34	64	66
Galizia	33	33	67	67
Andaluzia	29	33	71	67
Kantabria	36	33	64	67
Gaztela-Mantxa	27	30	73	70
Extremadura	26	29	74	71
Ceuta	-	41 ⁴	-	59
Melilla	-	53	-	45
Estatua guztira	37	37	63	63

Iturria: Espainiarren kirol-ohiturei buruzko inkesta. Hezkuntza eta Kultura Ministerioa.

⁴ Ceuta eta Melillako zenbatespena ezin daiteke egin baldintza berdinetan, hiri bietan Indar Armatuetakoa eta Poliziakoa den biztanleriaren proportzioa biztanleria zibilarenarekin alderatuz oso altua baita.

IV.4.2. GRAFIKOA. KIROL-ELKARTE EDO KIROL-KLUBEKO KIDE DIREN BIZTANLEEN EHUNEKOAK.



Iturria: Espainiarren kirol-ohiturei buruzko inkesta. Hezkuntza eta Kultura Ministerioa.

aldaketarik gabe mantendu da %37n, EAEko batez bestekoa 4 ehuneko jaitsi da (%43tik %39ra) eta Balearretan, Aragoi, Andaluzian, Kantabrian, Gaztela-Mantxan eta Extremaduran igo egin da.

Bestela esanda, 2005.urtean EAEko biztanleriaren %61k, ez duela kirol egiten dio, eta Estatuko batez bestekoa %63koa da.

Elkartean egindako jarduerak, eta elkartetik kanpo egindakoa bereiziz gero, datuek agerian uzten dute gero eta ohikoagoa dela elkarte-eremurik (klub, erakunde, elkarte edo federazioa) behar ez duten kirolak egitea. Hala ere, komeni da gogoraraztea, elkarteetan egindako kirol guztiek ez dutela federazio-izaerarik, nahiz eta oraindik, klubetan edo beste elkarte batzuetan kirola egiten dutenak ere federatuak dauden.

Nafarroa da kirol asoziazionismo gehien duen Erkidegoa (bertakoen %42,3 klub, elkarte edo kirol-zentroko kidea da) ondoren Katalunia (%35,5), Madril (%32,8) eta EAE (%30,2). Kontrako muturrean Extremadura dago (%12,6).

Federazio-jarduerari bakarrik dagokionez, Estatistikako Institutu Nazionalaren (EIN) datuen arabera, EAEn 2006.urtean klub federatuen kopurua 5.483koa da, 2006.urtean baino 277 gutxiago; lizentzien kopurua, berriz, 203.449koa da, eta 2005 eta 2006. urte artean %1,4 gutxitu da, baina Estatuko batez bestekoa, aldiz %1,7 igo da.

4.3.3. Musika

Eusko Jaurlaritzako Prospekzio Soziologikoen Kabineteak 2007ko abenduan argitaratutako "Euskal kultura" dokumentuaren arabera, EAEko biztanleriaren %77ri asko edo nahiko gustatzen zaie musika %13ri pixka bat, %6ri gutxi gustatzen zaio, eta %3ri ez zaio gustatzen. Horrela, biztanleriaren %58k egunero entzuten du musika, %23k astean pare bat aldiz, %11k hilean pare bat aldiz eta %3k gutxiago. Biztanleriaren %5ek ez du inoiz musikarik entzuten.

Musika entzuteko tokiari buruz, lehenengo lekuan etxeko aukera nabarmentzen da (%72k sarritan, %22k noizbehinka, eta %6k ia inoiz edo inoiz ez) eta ondoren autoa dago (hurrenez hurren ehunekoak 55-16-28 dira, gainerakoak ez daki edo ez du erantzuten.). Bigarren taldea ondokoek osatzen dute: taberna, pub edo diskoteketan (%37k sarritan), kalean (%17k sarritan) eta beste leku batzuetan (%17k sarritan). Genero-ikuspegia sartzen badugu, gizonetako autoan eta taberna, pub edo diskoteketan musika gehiago entzuten dute emakumeek baino, eta emakumeek musika gehiago entzuten dute etxean gizonetako baino.

Talde guztietan, musika gehien entzuten den lekua etxea da, eta leku guztietan musika gehien entzuten dutenak 18 eta 29 urte arteko gazteak dira. Adin honetako gazteen artean, bereziki, sarritan taberna, pub edo

IV.4.7. KOADROA. ENTZUTEN AL DUZU MUSIKA ONDOKO LEKUETAN?

	Etxean	Autoan	Taberna, pub eta diskoteketan	Lanean	Kalean	Beste nonbaiten
Sarritan	72	55	37	25	17	17
Noizbehinka	22	16	26	12	26	22
Ia inoiz edo inoiz ez	6	28	36	58	55	22
Ed-Ee	0	2	1	5	1	54

Iturria : Euskal kultura 2007. Prospekzio Soziologikoen Kabinetea.- Eusko Jarlaritzako Lehendakaritza.

* Galdera musika entzuten dutenei bakarrik ejiñ zaie (biztanleriaren %95)

diskoteketan entzuten dutenak (%78) eta kalean entzuten dutenak (%37) nabarmentzen dira.

Ekimenari buruz, musika entzuteko ohitura dutenen %88k irrati edo telebistan entzuten dute, %74k beste euskarri batzuk erabiltzen ditu (CD, ordenagailua, MP3...) eta %71k beste pertsona batzuek jarritako musika entzuten dute. Emakume gehiagok entzuten dute irradian edo telebistan aukeratzen duten musika gizonezkoek baino. Adinean aurrera egin ahala, musika irradian edo telebistan entzuteko joera gero eta handiagoa da, eta txikiagoa beste euskarri batzuetan (CD, ordenagailua, MP3...) nahiz beste batzuek jarritako musika entzuteko joera.

Musikarekiko zaletasuna zenbat eta handiagoa izan, orduan eta handiagoa da, musika CD, ordenagailu MP3 edo beste euskarri batzuetan entzuteko joera eta baita beste batzuek jarritako musika entzuteko joera ere, eta aldiz, irradian edo telebistan musika entzuteko joera ia-ia ez da aldatzen zaletasunaren arabera.

Euskarriari dagokionez, musika entzuten duten herritarren gehiengoak irradian entzuten du (%91), %80k

CDetan, %75ek telebistan eta %42k kaseteetan, %39k DVD edo bideoetan, %39k ordenagailuan, %37k MP3 edo MP4an eta %13k binilo diskoetan.

Gehien aipatzen diren musika estiloak, eta hortaz, gustukoenak, popa(%38), rocka (%28) eta musika klasikoa edo sinfonikoa (%22) dira, jarraian datoz musika herrikoia (%16), kantautoreak (%14), rantxerak (%12), saltsa, merengea edo batxata (%10), eta ondotik, bakoitza herritarren %10ek baino gutxiagok aipatutako beste hainbat estilo. Musika entzuten duen jende gehienak gaztelaniaz entzuten du (%78k maiz entzuten du musika gaztelaniaz, %20k noizbehinka, eta %2k ia inoiz edo inoiz ez) jarraian, ingelesez (hurrenez hurren ehuneko 42-32-26), euskaraz (34-38-28) eta beste hizkuntza batzuetan. Gainera, %23k sarritan musika instrumentala entzuten du.

Musika entzuten duten herritarren %17k maiz entzuten dute trikitixa, txalaparta, txistua, dultzaina edo alboka bezalako euskal instrumentu tradizionalekin egindako musika, %47k noizbehinka eta %35ek inoiz ez edo ia inoiz ez..

IV.4.8. KOADROA. HIZKUNTZA DESBERDINETAN MUSIKA ENTZUTEKO MAIZTASUNA*

	Gaztelera	Euskaraz	Ingelesez	Beste hizkuntza batzuetan	Musika instrumentala
Sarritan	78	34	42	10	23
Noizbehinka	20	38	32	27	33
Ia inoiz edo inoiz ez	2	28	26	61	41
Ed-Ee	0	0	1	2	2

Iturria : Euskal kultura 2007. Prospekzio Soziologikoen Kabinetea.- Eusko Jaurjaritzako Lehendakaritza. * Galdera musika entzuten dutenei bakarrik egin zaie (biztanleriaren %95)

Musika ikuskizunei dagokionez, EAEko biztanleriaren erdia ez da azken urtebetean kontzertu edo musika ikuskizunetara joan, %30 lau bider baino gutxiagotan joan da, %10 lau eta sei bider artean, %4 zazpi eta hamaika bider artean eta beste %4 hamabi bider edo gehiagotan. Adinean aurrera egin ahala, gero eta gutxiagotan joaten da jendea kontzertu edo musika ikuskizunetara,

Gehien jotzen diren musika-tresnak gitarra eta pianoa dira (tresnaren bat jotzeko ohitura dutenen %39k eta %19k jotzen dituzte hurrenez hurren). Gutxiagok jotzen dituzte euskal instrumentu tradizionalak besteko perkusiozko tresnak (%10ek), txistua (%6k), txirula (%6k), euskal tresna tradizionalak ez diren haizezkoak (%6k), eskusoinua (%5ek), trikitixa (%2k), txalapartan (%2k), euskal instrumentu tradizionalak besteko harizkoak (%2k), biolina (%1ek) eta alboka edo dultzaina modukoak (%1ek baino gutxiagok).

4.4. Kultura eta aisialdi jardueren eskaintza EAE-n

4.4.1. Kultura ekipamenduetarako bisitari kopurua

EAE nazioarteko mailan derrigorrez bisitatu beharreko lekua bihurtu da, sustatzen ari den ekipamendu kulturalen kopurua eta motak direla-eta. Ekipamendu hauek ondare etnografiko, arkeologiko, bibliografiko eta dokumentalaren

eskaintza anitzean, eta museo, liburutegi eta artxibategien aniztasun eta aberastasunean gauzatzen dira.

Museo-jarduera adierazletzat hartuz, eta zehazkiago, Lurralde Historikoetako museo nagusien bisita-kopurua, Guggenheim Bilbao Museoak jarraitzen du izaten erakargarriena, 1.002.963 bisitarirekin 2007.urtean, hala ere, aurreko urtean baino %0,6 gutxiago, eta bilduma hasi zenetik %22,9 gutxiago.

Bigarren taldean, beste urte batez, hauexek daude: Donostiako Aquariuma, 270.098 bisitarirekin, eta 2003.urtean hasitako bisitari-kopuruaren beherakadarekin jarraitzen du, azkeneko aldian beherakada hau %10ekoa da; Bilboko Arte Eder Museoa, 164.903 bisitarirekin (aurreko urtean baino %14,4 gehiago); eta Zientziaren Kutxa Espazioko bisitari-kopuruak behera egin du berriz ere, 127.344tik 117.750era (%-7,5), zabaldu zenetik, 2001.urtetik, bisitari-kopurua %42,6 gutxitu da.

Hirugarren lekuan, Santa Maria Katedrala Fundazioa, Artium, Chillida Leku Museoa eta Bilboko Itsasadarra Itsas Museoa daude. Kultura-ekipamendu hauek 2007.urtean 103.258, 99.500, 78.532 eta 73.455 bisitari erakarri dituzte hurrenez hurren. Chillida Leku Museoak izan ezik, denak gehitu dute beren bisitarien kopurua 2006 eta 2007 urteen artean.

Laugarren taldean, 40.000 bisitari baino gutxiago dituzten ekipamenduak daude: Bilboko Euskal Museoa, San Telmo Museoa eta Trenaren Euskal Museoa. Nabarmena da, 2006 eta 2007 urteen artean, hiru ekipamenduek, baina batez ere, azkeneko biek jasandako beherakada. Bisitari-kopurua hauexek da hurrenez hurren: 37.996 (%-30), 12.717 (%-74,1) eta 14.813 (%-63,7).

IV.4.9. KOADROA. KULTURA-EKIPAMENDUETAKO BISITARIEN KOPURUA

	1998	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	06/07 % barne	1998/07 % barne
Araba											
Arabako Arte Eder Museoa	49.415	12.247*	43.667	54.621	36.260	30.177	34.473	32.568	14.513	-55,4	-70,6
Arabako Arqueologia Museoa	22.730	26.233	27.663	24.375	27.573	24.672	22.875	23.843	15.961	-33,1	-29,8
Artium**	-	-	-	101.838	75.800	89.791	92.267	97.106	99.500	2,5	31,3
Elizbarrutiko Arte Sakratuko Museoa	-	-	-	-	-	26.004	32.186	37.141	37.034	-0,3	15,1
Karten Fournier Museoa	36.084	39.626	38.913	42.599	32.512	31.315	32.866	39.794	20.585	-48,3	-43,0
Santa Maria Katedrala Fundazioa	-	36.945	38.518	56.773	66.422	74.871	87.671	98.790	103.258	4,5	179,5
Bizkaia											
Arrantzalearen Museoa	29.253	26.415	22.067	22.408	26.309	28.852	28.878	21.896	15.105	-31,0	-48,4
Bilboko Arte Eder Museoa	n.d.	190.003	119.229	150.065	135.027	155.643	142.067	144.085	164.903	14,4	-13,2
Bilboko Itsasadarra Itsas Museoa***	-	-	-	-	35.296	49.876	115.235	70.124	73.455	4,8	47,3
El Pobaleko Burdinola****	-	-	-	-	-	7.322	13.700	13.238	13.921	5,2	1,6
Euskal Herriko Museoa	29.185	20.133	16.079	18.420	14.874	18.100	18.414	12.269	10.057	-18,0	-65,5
Bilboko Euskal Museoa	51.445	41.364	43.572	40.292	42.307	44.129	41.756	54.280	37.996	-30,0	-26,1
Gernikako Bakearen Museoa	-	-	-	-	14.715	17.187	19.410	25.560	35.111	37,4	104,3
Guggenheim Museoa	1.300.274	974.976	930.000	851.628	874.807	909.145	965.082	1.008.774	1.002.963	-0,6	-22,9
Gipuzkoa											
Agorregiko Burdinola eta Errota	15.000	14.000	15.275	15.000	15.000	15.621	14.626	14.510	12.447	-14,2	-17,0
Chillida Leku Museoa	n.d.	23.079	95.792	84.791	89.669	91.567	83.603	83.718	78.532	-6,2	-18,0
Donostiako Aquariuma	391.208	380.500	330.061	309.661	336.453	330.165	301.828	300.256	270.098	-10,0	-31,0
Igartu beti Baserria	n.d.	n.d.	5.284	8.910	7.148	9.428	7.197	6.148	5.765	-6,2	-35,3
Burdinaren Bailara	n.d.	21.538	19.226	17.734	14.884	16.019	18.450	20.522	23.979	16,8	24,7
San Telmo Museoa	n.d.	106.209	49.180	62.506	47.549	56.439	49.413	49.179	12.717	-74,1	-74,1
Burdinbidearen Euskal Museoa	24.387	40.908	37.724	39.210	41.789	41.639	40.017	40.857	14.813	-63,7	-60,7
Untzi Museoa	27.386	16.355	15.686	14.418	16.407	14.113	12.447	10.516	9.365	-10,9	-40,3
Zientziaren Kutxa Espazioa	n.d.	n.d.	205.160	123.136	126.640	146.965	135.158	127.344	117.750	-7,5	-42,6
Zumalakarregi Museoa	7.292	7.254	12.707	8.232	12.834	9.373	5.399	9.117	17.298	89,7	137,2

* Museoa itxita zegoen. **ARTIUM 2002an zabaldu zen. ***2003an zabaldu zen ****2004an zabaldu zen

Iturria:: Basque Tour. Euskal Turismo Bulegoa. Eusko Jaurilaritza.

4.4.2. Biltzarrak eta azokak

Biltzarrak

Eusko Jaurlaritzako Euskal Turismo Bulegoaren datuen arabera, 2005 eta 2006 urte artean EAEn biltzarrek bilakaera ezberdina izan dute lurralde historikoetan. Batzarren gutzizko kopurua %39,3 gehitu da Gipuzkoan, Bizkaian %3, eta Araban %11,7 gutxitu da. Honela, 117

batzar egin dira Gipuzkoan (2006an baino 33 gehiago), 1.007 Bizkaian (aurreko ekitaldian baino 29 gehiago) eta 53 batzar Araban (aurreko urtean baino zazpi gutxiago).

Gipuzkoan, eskuordetuen kopurua 20.585tik 27.169ra gehitu da aurreko urtetik (%32). Batzar gehienak Biltzarrak dira, gutzizkoaren %47,9, eskuordetuen %62,4 batzen dute. Jardunaldiak, mintegiak eta sinposiumak biltzarrak baino gutxiago izan dira 48 eta 56 hurrenez hurren, eta eskuordetuen ratio baxuagoa daukate gertaera bakoitzeko,

IV.4.10. KOADROA. BILTZARREN BILAKAERA (2004-2007)													
	ARABA				BIZKAIA				GIPUZKOA*				ESTATUA 2007
	2004	2006	2007	Ald. %06/07	2004	2006	2007	Ald. %06/07	2004	2006	2007	Ald. %06/07	
BATZARRAK GUZTIRA	59	60	53	-11,7	735	978	1.007	3,0	80	84	117	39,3	17.876
Jardunaldiak, minte- giak eta sinposiumak	32	16	25	56,3	587	759	768	1,2	26	40	48	20,0	9.298
Biltzarrak	20	37	23	-37,8	66	78	94	20,5	33	27	56	107,4	3.336
Batzarrak	1	3	2	-33,3	82	141	145	2,8	21	17	13	-23,5	5.241
Beste batzuk	6	4	3		-	-	-		-	-	-		-
BERTARATUTAKO ES- KUORDEAK GUZTIRA	13.850	12.560	8.745	-30,4	136.144	184.589	185.035	0,2	21.416	20.585	27.169	32,0	3.081.742
Jardunaldiak, minte- giak eta sinposiumak	3.900	2.560	3.695		90.067	113.618	117.922	3,8	3.995	4.148	8.064	94,4	1.268.511
Biltzarrak	5.200	9.600	4.570		28.727	24.259	26.856	10,7	11.626	14.675	16.958	15,6	1.077.445
Batzarrak	250	400	480		17.350	46.712	40.257	-13,8	5.795	1.762	2.147	21,9	735.786
Beste batzuk	4.500	-	-		-	-	-		-	-	-		-
ESKUORDE-KOPURUA GERTAERA BAKOITZEKO	235	209	166	-20,6	185	189	184	-2,8	268	245	232	-5,3	172
Jardunaldiak, minte- giak eta sinposiumak	122	-	148		153	150	154	2,4	153,7	104	168	61,5	136
Biltzarrak	260	-	199		435	311	286	-8,1	352,3	544	303	-44,3	323
Batzarrak	250	-	240		212	331	278	-16,1	276	104	165	58,8	140
Beste batzuk	750	-		-	-	-	-		-	-	-		-
BATZARRETAKO JARDUERA (%)				Ezber.									
Mediko Sanitarioa	-	-		-	17	18	20	2	13	16	28	12	21
Arlo zientifikoa	-	-		-	2	0	6		7	6	10	4	7
Kultura-arloa	-	-		-	4	11	12	1	4	5	7	2	11
Arlo ekonomiko komertziala	-	-		-	13	20	17	-3	32	42	30	-12	25
Arlo publikoa	-	-		-	14	12	8	-4	19	6	5	-1	11
Arlo teknologikoa	-	-		-	16	27	28	1	10	8	10	2	6
Unibertsitatea							6				8		8
Beste batzuk							3				2		11

* Gipuzkoako gertaera-motaren arabera datuak Spain Convention Bureau-k ezarritako irizpideak zorrotz jarraituta bildu dira Iturria:: Basque Tour. Euskal Turismo Bulegoa. Eusko Jaurlaritza.

168 jardunaldiek, mintegiek eta sinposiumek eta 303 biltzarrek. Jarduerari dagokionez, batzar ekonomiko komertzialak (guztizkoaren %30) eta mediko-sanitarioak (%28) gailentzen dira berriz ere.

Bizkaiko batzar-kopuruen goranzko joera mantendu egin da, gehienak (%76,3) jardunaldiak, mintegiak eta sinposiumak dira (768). Bertaratutako eskuordetuak 185.035 dira, hau da, %0,2 gehitu da 2006.urtetik, eta eskuordetuen ratioa gertaera bakoitzean 184koa da, honek aipatutako ratioaren beherakada berri bat adierazten du

(aurreko urtean baino 5 eskuorde gutxiago gertaera bakoitzeko). Batzarretako jarduerari dagokionez, teknologiak (guztizkoaren %28 eta gainera, gehitu egin da 2006tik), mediko-sanitarioak (%20) eta ekonomiko-komertzialak (%17) nabarmentzen dira.

Azkenik, Araban, 53 batzar egin dira eta 60 aurreko urtean, beraz, behera egin du berriz ere. Horietatik 25 jardunaldiak, mintegiak edo sinposiumak izan dira, eta aurreko urtean 16, eta 23 biltzarrak izan dira (aurreko urtean baino 14 gutxiago). Bertaratutako eskuordetuak

CUADRO IV.4.11. KOADROA. ESTATUKO AZOKA-ESPARRU GARRANTZITSUENEN ANTOLATUTAKO AZOKA-KOPURUA

Azoka-esparrua	Azoka-kopurua					Azoka-esparrua	Azoka-kopurua				
	2003	2004	2005	2006	05-06 ald.		2003	2004	2005	2006	05-06 ald.
Almeriako Erakus-keta eta Biltzarren Jauregia	4	4	2	4	2	Lugoko Azoka eta Erakusketen Fundazioa				2	
Albaceteko azoka-erakundea	7	9	9	7	-2	Lleidako Azoka	8	10	11	12	1
Armillako Erakustazoka (Granada)	9	8	8	10	2	Madriko Azoka	71	80	71	84	13
Barbastroko azoka-institutua (Huesca)	10	5	5	8	3	Casa de Campoko azoka-esparrua	23	11	9	5	-4
Bartzelonako Azoka	51	44	54	49	-5	Malagako Azoka eta Biltzarren Jauregia	-	13	16	15	-1
Reed Exhibition Iberia (Bartzelona)	9	8	8	7	-1	Mollerusakoko Azoka (Lleida)	7	5	5	4	-1
BILBAO EXHIBITON CENTRE	20	18	17	20	3	Ourenseko Azoka eta Erakusketen Fundazioa	12	11	10	10	0
Ciudad Real				6		Balearretako Azoka eta Biltzarrak	12	9	22	11	-11
Cornellako Azoka (Bartzelona)	7	7	6	6	0	Reuseko Azoka (Tarragona)	6	6	-	8	
Kordobako azoka-erakundea				3		Institución Ferial de Tenerife	13	8	9	8	-1
Alacanteko Azoka-erakunde (Elche)	21	22	24	24	0	Sevillako Erakus-keta eta Biltzarren Jauregia	21	18	10	16	6
Azoka eta erakusketen aldeko partzuergoa (Ferrol)	5	2	5	5	0	Galiziako Nazioarteko Azoka (Pontevedra)	4	6	6	5	-1
Asturiaseko Nazioarteko Erakustazoka	4	4	5	4	-1	Valentziako Azoka	42	37	42	31	-11
Gironako Azoka	10	9	10	9	-1	Gaztela eta Leoneko Azoka-erakundea	10	11	10	14	4
Jaen Azokak	6	9	6	8	2	Vigoko Azoka-institutua	15	9	8	9	1
Kanarietako Azoka-erakundea	6	6	5	5	0	Zaragozako Azoka	8	16	16	11	-5

Iturria: AFE (Espainiako Azoken Elkartea) eta norberak egindakoa

8.745 izan dira guztira (2006tik, 12.560 eskuorde urte horretan, %30,4 gutxitu da), eta gertaera bakoitzeko eskuordetuen batez bestekoa 166koa izan da, aurreko urtean baino 43 eskuorde gutxiago.

Azokak

Merkataritzako azoka eta erakusketak dira, azken urteotan gorakada gehien izaten ari diren sustapen-elementuak. Ekonomia orokorraren ikuspuntutik, ekonomi jardueraren sortzailetzat hartu dira, produktuen hedapena eta salketa erraztu, aurrerapen teknikoak eragin eta indartu, eta irudi nazionala eta nazioartekoa hobetzen duten lankidetzaren sinboloak ere eraikitzen baitituzte. Enpresa-ikuspegitik, aukera paregabea da, izan ere, azokan erakustegi eta bisitariak, edozein merkataritza-arloko eskaera eta eskaintza ordezkatzeko modu zuzenean eta bitartekorik gabe.


Azokek enpresei beren erakusketa-gaitasunagatik eta kontratazioa sustatzeko eskaintzen dizkieten zerbitzuak, inbertsio ugariekin asetako eskari garrantzitsua sortzen ari dira azoka-esparruetan, eta

ekonomia jardueraren sustapen-politikaren barnean daude. Hori dela eta, bere erakusmahaien erakargarritasun-gaitasunagatik edo hirigintza-bikaintasunagatik eta bikaintasun teknologikoagatik, hiriburu garrantzitsu gehienek nazioarteko erreferentzia-gune bilakatzeko gai den azoka-esparruren bat daukate, eta tradizio handikoak, instalazioak berritzeko, handiagotzeko edo hobetzeko prozesuetan murgilduta dabilta, Hannover, Birmingham, Milan, Madril, Bartzelona eta Bilbokoak besteak beste,

Azoka Espainiarren Elkartearen (AFE) datuen arabera, Bilbao Exhibition Centrek (BEC) 2006an (AFEk elkartekide guztien datuak ematen dituen azkenengo urtea) toki garrantzitsua du Azoka-esparruen rankingean, egindako ekitaldien arabera, 20 egin baitira, Madrilekoa (84), Bartzelonakoa (49), Valentziakoa (31) eta Alacantekoaren (24) atzetik.

Bilbao Exhibition Centrek, BEC, (2004an Bilboko Nazioarteko Erakustazoka ordezkatu zuen proiektua) eta Eusko Jaurlaritzak emandako azoken bilakaerari buruzko datuek, Makina Tresna eta Ferroformaren biurtekoen ondorioz⁵, urtean bi aldiz erakusmahai zuzenetan, azalera

IV.4.3. GRAFIKOA. BEC. BISITARIEN BILAKAERA



Iturria: Eusko Jaurlaritza eta BEC

⁵ 2004tik aurrera, ohiko sektoreei, azokan beren protagonismoa eskatzen zebiltzan lehia bikaineko merkatu berriak gehitu zaizkie. Horrela, aldi berean, Bricoforma egin zen, Nazioarteko Brikolajearen Azoka.

IV.4.13.KOADROA. BEC-EN 2007AN EGINDAKO GERTAERARIK GARRANTZITSUENAK

	EKITALDIAK	BEC BATZARRAK	BIZKAIA ARENA
Urtarrila	- UGP (Umeen Gabonetako Parkea) - Sinaval - Eurofishing	- ACBren 10.URTEURRENA - EEE JARDUNALDIA	- Lagun ARO-TAU paritda - CHUCK BERRY
Otsaila	- Tendencias - Expogarden	- OSAKIDETZA azterketak - BFA azterketak - Bizkai- Ardoak - Asiba 3000 - Conbreso Garapen	
Martxoa	- Ferroforma - Bricoforma	- HAEE azterketak - Eroski janaria - Tandem zerbitzu osoa - Ibermática - Ericsson. biltzarra	- Melendi - Mitin politikoa
Apirila		- EAJ hautagaitza - Bilboko Udaleko azterketak - Kristau Eskola	- Paulina Rubio - Lagun ARO-BCN partidua - Harlem Globber Trotters
Maiatza	- Expoconsumo - Expovacaciones - Creamoda - Desembalaje	- EJ azterketak - Arrosaren jaia - ELA- STV - Euskalit.	- Luis Miguel - Gira LKXA - Apassionata - The Who - OT bira
Ekaina		- Institutu britainiarra - Enplegu Publikorako Eskaintza. Irakasleak, - Bizkaiko Emaileen Elkarte	- Maná - Il Divo
Uztaila	- Euskal encounter	- Zannier taldea - Optoel biltzarra	- World Corporate Games
Abuztua		- diplomak	
Iraila	- Industriako goi-bilera - Azpikontratazioa	- Innevento - Azterlan jardunaldiak	- Massive Attack - Superkopa Saskibaloia
Urria	- Foccus - Gastronomikoa - Bai bilbao - Expobodas - Fosminer - Nagusi - Bitxigintza - Exponatur	- Idom - ELA biltzarra	- Europako Supercross Lehiaketa
Azaroa	- Agosto - Expolan	- Gizarte ekintza - Lagun Aro Aseguruak - Afonvi	- Marilyn Manson - Bruce Springsteen.
Abendua	- Gaztealdia	- Jehovahren lekukoak - EHU diplomak	- High School Musical - Euskalit - Pereza - Iurbentia-Estudiantes partidua.

Iturria: BEC

IV.4.12. KOADROA. BILBAO EXHIBITION CENTRE OINARRIZKO ADIERAZLEAK

	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007
Ekitaldiak	23	14	22	16	19	20	24
Erakusmahai zuzenak	2.710	3.006	2.001	3.323	1.978	2.551	3.555
Azalera garbia	88.564	136.706	81.392	196.811	120.865	176.720	152.699
Bisitari profesionalak	50.092	79.485	49.165	105.086	37.143	89.206	84.877
Publiko orokorra	636.940	722.743	685.471	899.487	891.313	1.118.166	1.127.188*

*Publiko orokorra: Arena pabiloira eta BECeko batzarretara joandakoak barne hartzen ditu.
Iturria: BEC

garbian eta bisitari profesionalen kopuruan gertatzen ziren gorabeherak agerian jartzen ditu.

Hala ere, parte-hartzaile profesional gehiago erakartzeko asmoz, Ferroformak bere data aldatu du, nazioarteko egutegian leku pribilegiatua edukitzeko. Beraz, Ferroformaren 17. edizioa ez da 2006an izan, 2007an baizik.

Erakundearen beraren datuen arabera, 2007.urtean BECen 24 ekitaldi eta 152 Gertaera/batzar egin ziren. Guztira 84.877 bisitari profesional bildu ziren (aurreko urtean baino %4,9 gutxiago), eta baita 1.127.188 pertsona publiko orokor bezala ere (aurreko urtean baino %0,8 gehiago)

(6.985), Valentziako Erkidegoa (3.734) eta Gaztela eta Leon (2.997). 2.767 argitalpen hauek 2006koak baino %17,2 gehiago dira eta 2.000. urtean hasitako beheranzko joera apurtzen dute.

2007an, bestalde, 5.456 ale argitaratu ziren, aurrekoa urtean baino %2,1 gutxiago, honek ale-kopuruaren batez bestekoan (aleak izenburuko) %16.5eko beherakada ekarri du 1.972 alera iritsi arte.

Izenburu guztietatik 2.283 (%82,5) liburuak dira eta 484 (%17,5) liburuxkak. Liburuei dagokienez, izenburu-kopurua %18,9 gehitu da, eta aleak berriz, %0,4 gehitu dira. Ondorioz ale-kopuruaren batez bestekoa %15,6 gutxitu da, 1.959 aleraino. Liburuxkei dagokionez, izenburuak gehitu egin dira (%10) eta aleak, berriz, gutxitu(%12), beraz batez besteko ale-kopurua %20 gutxitu da.

EAEn 2007an argitaratutako liburuak, ISBN⁶ datuen arabera, 2.697 izan ziren (EINrena baino kopuru handiagoa, beharbada azken urte honetan ez direlako berrinprimatzeak sartu), aurreko urtean baino %0,6 gutxiago. Beherakada hau, Gipuzkoako ekoizpen editorialean izandako beherapenagatik gertatu da batez ere (-%4,5), izan ere, Araban eta Bizkaian %8,9 eta %0,5 gehitu da hurrenez hurren. Bizkaia eta Gipuzkoa dira oraindik ere ekoizpen editorial handiena daukaten lurralde historikoak, EAEko guztizkoaren %48,2 eta %12,8 hurrenez hurren. Arabak guztizko ekoizpenaren %12,8 bakarrik du.

4.5. Ekoizpen editoriala

Estatistikako Institutu Nazionalaren "Ekoizpen Editorialaren Estatistikaren" arabera, EAE, 2007an seigarren lekuan zegoen ekoizpen editorialaren rankingean (aurreko urtean baino leku bat gorago) 2007an 2.767 liburu eta liburuxka argitaratu ziren, Estatuko guztizkoaren %4,2, Hurrengo hauen atzetik: Madrilko Erkidegoa 25.521, (Estatuko guztizkoaren %35), Katalunia (18.570, guztizkoaren %28) Andaluzia

⁶ ISBN - INTERNATIONAL STANDARD BOOK NUMBER argitaletxe zehatzaren izenburuen nazioarteko identifikazio eta zenbakikuntza sistema da, softwarean ere aplikatzen dena. Behin identifikazioa eman ondoren, zenbaki hau lan horrena bakarrik izango da eta ezin izango da berriro erabili.

IV.4.14. KODROA. EKOIZPEN EDITORIALAREN BILAKAERA EAE-N

	1999	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	Aldakuntza 2005-06	Aldakuntza 2006-07
GUZTIRA											
Izenburuak	2.505	2.484	2.338	2.329	2.553	2.485	2.460	2.360	2.767	-4,1	17,2
Aleak (milatan)	5.579	5.085	5.214	5.098	5.620	5.366	5.613	5.574	5.456	-0,7	-2,1
Batez besteko tirada	2.227,1	2.047,1	2.230,1	2.188,9	2.201,3	2.159,4	2.281,7	2.361,9	1971,8	3,5	-16,5
Liburuak											
Izenburuak	2.251	2.253	2.008	2.004	2.157	2.024	2.039	1.920	2.283	-5,8	18,9
Aleak (milatan)	4.900	4.411	4.188	4.228	4.510	4.167	4.393	4.456	4.472	1,4	0,4
Batez besteko tirada	2.176,8	1.957,8	2.085,7	2.109,8	2.090,9	2.058,8	2.154,5	2.320,8	1.958,8	7,7	-15,6
Liburuxkak											
Izenburuak	254	231	330	325	378	461	421	440	484	4,5	10,0
Aleak (milatan)	678	674	1.026	870	1.110	1.199	1.220	1.117	984	-8,4	-11,9
Batez besteko tirada	2.669,3	2.917,7	3.109,1	2.676,9	2.936,5	2.600,9	2.897,9	2.538,6	2.033,1	-12,4	-19,9

Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala (INE) Ekoizpen Editorialaren Estatistika

IV.4.15. KODROA. ARGITALPENAREN BANAKETA GEOGRAFIKOA ISBN-N ERREGISTRATUTAKOEN ARABERA

	2002	2003	2004	2005	2006	2007		% Var. 2005-06	% Var. 2006-07
						kop.	%		
Andaluzia	4.575	4.966	5.282	5.076	4.733	9.776	11,8	-6,8	106,6
Aragoi	1.061	1.487	1.538	1.221	1.225	1.545	1,9	0,3	26,1
Asturias	428	599	684	515	497	541	0,7	-3,5	8,9
Balearrak	679	647	523	744	658	700	0,8	-11,6	6,4
Kanariak	599	744	754	886	899	1.738	2,1	1,5	93,3
Kantabria	256	283	255	353	339	445	0,5	-4	31,3
Gaztela-Mantxa	2.312	2.291	2.224	2.605	2.878	2.747	3,3	10,5	-4,6
Gaztela Eta Leon	526	519	532	515	560	689	0,8	8,7	23
Katalunia	23.952	25.635	25.546	25.896	27.691	24.640	29,8	6,9	-11
Valentziako Erkidegoa	3.644	4.573	3.886	3.904	3.951	5052	6,1	1,2	27,9
Extremadura	364	319	360	284	379	514	0,6	33,5	35,6
Galizia	1.934	2.643	2.618	2.770	2.879	3.376	4,1	3,9	17,3
Madril	25.131	28.470	28.072	26.772	26.517	26.624	32,2	-1	0,4
Murtzia	644	528	536	613	574	689	0,8	-6,4	20
Nafarroa	1.007	720	903	653	633	595	0,7	-3,1	-6
EAE	2.620	3.377	3.491	3.298	2.712	2.697	3,3	-17,8	-0,6
- Araba	313	339	294	328	316	344	0,4	-3,7	8,9
- Gipuzkoa	1.127	1.652	1.574	1.599	1.103	1.053	1,3	-31	-4,5
- Bizkaia	1.180	1.386	1.623	1.371	1.293	1.300	1,6	-5,7	0,5
Errioxa	132	126	138	126	186	176	0,2	47,6	-5,4
Ceuta	18	11	17	14	10	9	0	-28,6	-10
Melilla	11	12	8	20	9	6	0	-55	-33,3
Guztira	69.893	77.950	77.367	76.265	77.330	82.559		1,4	

Iturria: Kultura Ministerioa. ISBNak

IV.4.16. KOADROA. ESTATUAN HIZKUNTZA GUZTIETAN ETA EUSKARAZ ARGITARATUTAKO LIBURU ETA LIBURUXKAK GAIKA

	2005			2006			2007			Aldakuntza euskara	
	Guztira	Euskara		Guztira	Euskara		Guztira	Euskara		2005-06	2006-07
		kop	Guztira euskara %		kop	Guztira euskara %		kop	Guztira euskara %		
Guztira	60.492	909	100	66.270	962	100	72.914	1.102	100	5,8	14,6
1 Orokortasunak	63.551	18	2	2.048	14	1,5	2.778	17	1,5	-22,2	21,4
2 Filosofia, psikologia	1.796	18	2	2.645	14	1,5	3.236	17	1,5	-22,2	21,4
3 Erlijioa, teologia	2.535	35	3,9	2.623	42	4,4	2.809	31	2,8	20	-26,2
4 Soziologia, estatistika	2.614	10	1,1	1.278	9	0,9	2.144	31	2,8	-10	244,4
5 Politika-zientziak, ekonomia-zientziak	1.234	28	3,1	3.009	23	2,4	3.525	25	2,3	-17,9	8,7
6 Zuzenbidea, administrazio publikoa, gizarte-aurreikuspena eta gizarte-laguntza, aseguruak	3.012	11	1,2	4.278	15	1,6	5.071	14	1,3	36,4	-6,7
7 Zientzia militarrik	3.803		0	141	..		130	..			
8 Hezkuntza, irakaskuntza, prestakuntza, entretenimendua	127	61	6,7	2.540	94	9,8	2.593	80	7,3	54,1	-14,9
9 Merkataritza, hedabideak, garraioa, turismoa	2.158										
10 Etnografia, antropologia kulturala (ohiturak, folklorea...)		26	2,9	1.105	23	2,4	1.477	26	2,4	-11,5	13
11 Matematika	1.049	28	3,1	691	21	2,2	855	38	3,4	-25	81
12 Natur zientziak	717	78	8,6	2.537	37	3,8	3.034	111	10,1	-52,6	200
13 Medikuntza zientziak, osasuna	2.300	10	1,1	3.956	7	0,7	4.068	7	0,6	-30	0
14 Ingeniaritza, teknologia, industria, lanbideak	3.658	23	2,5	2.647	9	0,9	2.280	11	1	-60,9	22,2
15 Nekazaritza, basogintza, abeltzaintza, ehiza, arrantza	3.604	1	0,1	680	3	0,3	667	5	0,5		66,7
16 Etxeko zientziak	735	8	0,9	1.007	3	0,3	956	4	0,4		33,3
17 Kudeaketa, administrazioa eta antolaketa	1.180	12	1,3	1.664	5	0,5	1.490	3	0,3	-58,3	-40
18 Lurraldearen egokitzea, hirigintza, arkitektura	1.357	5	0,6	988	2	0,2	919	2	0,2	-60	0
19 Arte plastikoak eta grafikak, argazkigintza	824	21	2,3	3.807	18	1,9	4.160	24	2,2	-14,3	33,3
20 Musika, ikuskizunak, antzerkia, filmak eta zinema	3.881	27	3	1.500	24	2,5	1.866	46	4,2	-11,1	91,7
21 Jolasak eta kirolak	1.423	7	0,8	1.005	17	1,8	1.136	14	1,3	142,9	-17,6
22 Filologia, hizkuntzak eta linguistika	969	88	9,7	2.063	52	5,4	2.368	60	5,4	-40,9	15,4
23 Literatura, historia eta literatura-kritika	1.965	327	36	18.892	468	48,6	19.371	455	41,3	43,1	-2,8
24 Geografia	17.898	20	2,2	1.401	16	1,7	1.719	32	2,9	-20	100
25 Historia, biografia	1.278	47	5,2	3.765	46	4,8	4.262	49	4,4	-2,1	6,5

Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala (INE) Ekoizpen Editorialaren Estatistika

Ekoizpen editorialeko autonomia-erkidegoen rankingean, EAE berriz ere zazpigarren lekuan dago, Madril, Katalunia, Andaluzia, Valentzia, Galizia eta Gaztela eta Leonen atzetik; aurreko urtean aurretik zeuzkan erkidego berdinak. Eta bere parte-hartzea guztizkoari dagokionez, %3,3koa da, aurreko urtea baino hamarren bat gutxiago, aurreko urtean %3,4ko parte-hartzea izan baitzuen. Gainera, alde handia dago lehenengo eta bigarrenaren eta gainerago erkidegoen artean. Horrela, Madrilen 26.624 izenburu argitaratu ziren (gustizkoaren %32,2) eta Katalunian, aurreko urtean baino %11 gutxiago argitaratu arren, gustizkoaren %29,8 argitaratu ziren (26.640 izenburu). Bere aldetik, Andaluzian Estatuko izenburu guztien %11,8 argitaratu ziren, Valentziako Erkidegoan %6,1, Galizian %4,1 eta Gaztela eta Leonen %3,3.

Argitalpen-hizkuntzari dagokionez, EINren arabera, 2007an, Estatu osoan argitaratutako izenburuen %1,5 argitaratu ziren euskaraz, hau da, 1.102 liburu eta liburuxka, aurreko urteko portzentaje berbera. Hauetatik %41,3 literatura, historia eta literatura-kritikaren kategoriakoa da (kategoria honen garrantzia gehitu egin

da multzoan, zehazkiago, 2005.urtearekin alderatuz, ehuneko 12,6). Jarraian, garrantziaren arabera, baina alde handiarekin, hauexek daude: natur zientziak (%10,1), hezkuntza, irakaskuntza, prestakuntza, entretenimendua (%7,3), filologia, hizkuntzak, linguistika (%5,4), historia eta biografia (%4,4) eta musika, ikuskizunak, antzerkia, filmak eta zinema (%4,2). politika-zientzietan eta ekonomia-zientzietan izandako gehikuntzak (+%244,4) eta baita, medikuntza-zientzietan eta osasunean (+%200), eta geografian (+%100) ere izandako gehikuntzak oso garrantzitsuak izan dira.

Gaikako azterketak euskaraz argitaratutako testu-liburuen gehikuntza erakusten du (+%4), aurreko urtean, berriz, gutxitu egin zen (-%18,5), haurrentzako liburuen argitalpena ere %11,1 gehitu da, eta aurreko urtean izandako igoera handia baieztatzen du (%50,7). Argitalpen ofizialak, ostera, %1,4 gutxitu dira. Epea luzatuz gero, 2000 eta 2007 urte artean euskarazko testu-liburuen argitalpena %39,8 gutxitu da, haurrentzako liburuen %2,1 gehitu da, eta argitalpen ofizialena %112,1.

ISBNaren arabera, Estatu espainiarrean izenburuen %76,8 gaztelaraz argitaratu dira (aurreko urtean

IV.4.17. KOADROA. LIBURU ETA LIBURUXKEN KOPURUA ALDIKA ETA GAIKA

	2000			2005			2006			2007			Ald. euskara %		
	Guztira	Euskara		Guztira	Euskara		Guztira	Euskara		Guztira	Euskara		2000-2007	2005-06	2006-07
		Kop.	%		Kop.	%		Kop.	%		Kop.	%			
Testu-liburuak	4.896	304	52,5	3.050	216	47,9	3.066	176	34,0	3.282	183	35,3	-39,8	-18,5	4,0
Haurrentzako liburuak	4.009	236	40,8	3.686	144	31,9	4.035	217	41,9	3.931	241	46,5	2,1	50,7	11,1
Argitalpen ofizialak	4.974	33	5,7	8.757	91	20,2	9.639	71	13,7	9.770	70	13,5	112,1	-22,0	-1,4
Unibertsitateko tesiak	696	6	1,0	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
GUZTIRA	14.575	579	100	15.493	451	100	17.913	518	100	16.983	494	100	-14,7	14,9	-4,6

Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala (INE) Ekoizpen Editorialaren Estatistika

IV.4.18. KOADROA. ERREGISTRATUTAKO ISBN-AK ARGITALPEN-HIZKUNTZAREN ARABERA

	2002	2003	2004	2005	2006	2007		Aldakuntza 2005-06	Aldakuntza 2006-07
						kop.	%		
Gaztelera	54.160	59.748	59.142	57.779	58.700	63.384	76,8	1,6	8,0
Katalana	7.300	8.260	7.781	8.577	8.460	7.609	9,2	-1,4	-10,1
Euskara	1.221	1.532	1.834	1.731	1.425	1.231	1,5	-17,7	-13,6
Galiziera	1.498	1.828	1.849	1.826	1.805	1.780	2,2	-1,2	-1,4
Valentziera	763	962	1.072	881	865	938	1,1	-1,8	8,4
Espainiako beste hizkuntza batzuk	76	172	110	50	52	43	0,0	4,0	-17,3
Beste hizkuntza batzuk	2.594	3.064	3.179	2.845	3.299	4.252	5,2	16,0	28,9
Eleanitzak	2.281	2.384	2.400	2.576	2.724	3.322	4,0	5,8	21,9
GUZTIRA	69.893	77.950	77.367	76.265	77.330	82.559	100,0	1,4	

Iturria: Kultura Ministerioa. ISBN

%75,9), %9,2 katalanez, %2,2 galizieraz eta %1,5 euskaraz. 2007an euskarazko argitalpenak %13,6 gutxitu dira.

Beste alde batetik, euskarazko argitalpenek izan duten goranzko joera, eta baita beste hizkuntza batzuetara

itzulitako liburu eta liburuxkena ere, 2006.urtean hautsi zen, eta 2007an, berriz ere beherantz egin zuen. Horrela, 2005ean 66 liburu eta liburuxka itzuli ziren, eta 2006ko datuek %53ko beherakada erakusten dute, 31 izenburu itzuli baitziren eta 2007an 27ra jaisten da.

IV.4.19. KOADROA. ARGITALPENAK ITZULPEN-HIZKUNTZEN ARABERA

	2002	2003	2004	2005	2006	2007	05-06 %	06-07 %
Gaztelera	2.621	3.009	3.161	2.738	3.513	4.048	28,3	15,2
Katalana	478	531	513	578	619	786	7,1	27,0
Euskara	61	71	91	125	92	88	-26,4	-4,4
Galiziera	99	126	185	131	182	177	38,9	-2,8

(*)Erregistratutako ISBNen arabera.

Iturria: Kultura Ministerioa. ISBN

IV.4.20. KOADROA. EUSKARATIK BESTE HIZKUNTZETARA ITZULITAKO LIBURU ETA LIBURUXKAK

	2002	2003	2004	2005	2006	2007
Guztira	37	40	55	66	31	27
1 Orokortasunak		2	4	2		
2 Filosofia, psikologia	1					
3 Erlijioa, teologia			2			
4 Soziologia, estatistika			2	1	2	
5 Politika-zientziak, ekonomia-zientziak		11	2	1	2	
6 Zuzenbidea, administrazio publikoa, gizarte-aurreikuspena eta gizarte-laguntza, aseguruak	1	4	5	1		
7 Zientzia militarrik						
8 Hezkuntza, irakaskuntza, prestakuntza, entretenimendua	2		1	4	1	
9 Merkataritza, hedabideak, garraioa, turismoa						
10 Etnografia, antropologia kulturala (ohiturak, folklorea...)	4		2	4	1	
11 Matematika						
12 Natur zientziak	1		2	3	1	5
13 Medikuntza zientziak, osasuna						
14 Ingeniaritza, teknologia, industria, lanbideak	1			1		
15 Nekazaritza, basogintza, abeltzaintza, ehiza, arrantza	1		1	2		
16 Etxeko zientziak			1			
17 Kudeaketa, administrazioa eta antolaketa	1			5		
18 Lurraldearen egokitzapena, hirigintza, arkitektura	2		1	1		
19 Arte plastikoak eta grafikoak, argazkigintza	5	7	4	13	4	1
20 Musika, ikuskizunak, antzerkia, filmak eta zinema	1		1	1		
21 Jolasak eta kirolak	2			4		
22 Filologia, hizkuntzak eta linguistika			1	1		
23 Literatura, historia era literatura-kritika	14		22	14	16	19
24 Geografia	1		1	5	2	
25 Historia, biografia			3	3	2	1

Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala (INE) Ekoizpen Editorialaren Estatistika

Arestian aipatutako gehienak, ezaugarri berdina zuten eta daukate, hau da, literarioak dira. Beraz, literatura, historia eta kritikaren arloko itzulpenak 2004an itzulpenen %40 ziren, 2005ean %21, 2006an %51,6 eta 2007an %70,3.

Azkenik, euskarara itzuli diren izenburuen kopurua, ISBNren Agentzia espainiarraren datuen arabera, 2004.urtean izandako mailara itzuli da. Horrela, 2006an 92 izenburu itzuli ziren euskarara, 2005.urtean baino %26,4 gutxiago; eta 2007.urtean 88 itzuli ziren, berriz ere beherakada, oraingo honetan %4,4koa. Horrela, euskarara eginiko itzulpenak, gaztelera, katalanera eta galizierara eginikoen atzetik daude.

4.6. Kontsumitzailearen defentsa eta kontsumoa

4.6.1. Kontsumo-erreklamazioak

2007. urtean zehar, Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo Saileko Kontsumo eta Industria Segurtasuneko Zuzendaritzak 9.015 erreklamazio-orri jaso zituen. Hauetatik 858 Turismoko Sailburuordetzak kudeatu

zituen, eta 8.157 Kontsumo eta Industria-segurtasuneko Zuzendaritzak 8.157 kontsumo-erreklamazio horietatik 1.816 Arabako Lurralde Ordezkaritzak bideratu zituen, 4.272 Bizkaikoak eta 2.069 Gipuzkoakoak.


Kopuru hau, aurreko urtekoa baino %10 handiagoa da, eta goranzko joera mantendu egiten da.

2007ko abenduaren 31ra arte jasotako erreklamazio guztietatik 1.294 (%15,8) ez ziren izapidetzeko onartu, ez zeudelako kontsumoaren esku eta 1.313 (%16,1) erreklamazioaren zergatiak sortu ziren autonomia-erkidegoetara edo beste erakunde batera (hegazkin zibilak) eraman ziren. Guztietatik 6.359 ebatzi ziren, eta 1.800 inguru ebazteke daude, oraindik ere izapidetzen baitaude.

Erreklamazio batzuk Arbitraje batzordera eraman ziren, sistemara atxikitako enprekin desadostasunak zirelako. Beste batzuetan, eskatzaileak atzera egin du, eta ia 1.300 erreklamaziotan, berriz, adostasunera heldu ziren, Eusko Jaurlaritzaren bitartekaritzarekin. Gainerakoetan, ezin izan zenez aldean arteko adostasun batera heldu, eta gainera, administrazioko arau-hausterik ez zegoela egiaztatu zenez, espedienteak artxibatu zen.


Administrazioak 62 enpresari (aurreko urtean 66) salaketa eragin zuten ekintzak zuzentzeko eskatu zien eta 184 espediente berresleri hasiera eman zitzaion. Beste urte batez, mota honetako espediente gehienak sortu zituzten arau-hausteak ez betetzea, datuak ez ematea,

IV.4.4. GRAFIKOA. KONTSUMO-ERREKLAMAZIOEN BILAKAERA EAE-N



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Industria Segurtasuneko Zuzendaritza

IV.4.5. GRAFIKOA. KONTSUMO-ARBITRAJERA ATXIKITAKO ENPRESAK, ARBITRAJE-ESKAERAK ETA ALDEKO LAUDOAK



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Industria Segurtasuneko Zuzendaritza

gabeziak zerbitzua eskaintzerakoan eta bermeen ezarpena izan ziren.

Aurreko urteetan bezala, erreklamazio gehien jaso dituzten sektoreak hauek dira: telekomunikazioak (guztizkoaren %27), garraioak (%12,7) eta konponketekin lotutako erreklamazioak, bai autoen konponketak, bai etxetresna elektrikoak edo etxebizitzetako konponketak.

4.6.2. Erreklamazioen ebazpena: kontsumo-arbitrajea

Kontsumo-arbitrajea, enpresarien eta profesionalen eta kontsumitzaile eta erabiltzaileen arteko kontsumoko harremanetan sor daitezkeen desadostasunak konponatzeko sistema estrajudiziala da.

Sistema indartzuz doa, izan ere, urtero, gero eta euskal profesional enpresa eta merkataritza gehiago atxikitzen dira, eta bide hau aukeratzen, dute kontsumitzaile eta zerbitzuen erabiltzaileekin izan ditzaketen gatazkak konpontzeko. Beste behin ere, emaitzak onak dira: 2007an 900 enpresa berri batu ziren sistemara eta urte amaieran atxikimenduak 13.287 izan ziren guztira (aurreko urtean 13.054).

Atxikimendu berriak Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo Saileko Kontsumo eta Industria-segurtasuneko Zuzendaritzaren urteroko kanpainarekin lotuta daude, Azken urte honetan, 1.376 enpresei zuzendu zaie kanpaina, bisita pertsonalizatu bidez (1.458 aurreko urtean) eta bisitatutako enpresetatik, %65,4k atxikimendua eskatu zuten (aurreko urtean %63,64k).

Bestalde, atxikitako enpresen errolda eguneratzeko kanpaina egin da, eta 965 establezimenduk beren jardura amaitu zuten, kontsumo-arbitraje sisteman baja egin zuten.

Jardueraka, atxikimenduen portzentajea aldatu egiten da sektorearen arabera. bitxigintza eta erlojugintzak, eta ehungintza zapatagintzak dute egun atxikimendu gehien (EAEen jardura hau burutzen duten enpresen %38,6 eta %32,4 hurrenez hurren), ondoren altzarigintza (%30,2), informatikako sektorea (%29,8), tindategiak (%28,7), ibilgailuen salmenta eta konponketa (%28,7) eta telekomunikazioak (%24,9). Beste muturrean, kontsumo-arbitraje sistemara atxikitzea hain gogoko ez duten sektoreak daude: garraioa (%0,38), etxeko salmenta (%0,42), energia (%1,10), aseguruak (%1,12) eta enpresa batek ere ordezkatzeko ez dituen banketxeak.

Arbitraje-eskaerari dagokionez, 1994an zerbitzua sortu zenetik, 2007. urtera arte, 8.119 eskaera jaso dira. Ekitaldi honetan auziak gehitu egin dira kontsumoan. Horrela, 1.037 arbitraje-eskaera jaso dira (2006an 842). Arbitraje-eskaerak telefoniako sektorean (581) eta tindategietan (59) gehitu dira.

Kontsumitzaileen elkarteen bidez aurkeztutako arbitraje-eskaerak 52 dira, kontsumitzaileen informaziorako udal-bulegoaren (KIUB) bidez aurkeztutakoak 356, Lurralde Ordezkaritzaren bidez aurkeztutakoak 454 eta zuzenean Arbitraje-batzordeari aurkeztutakoak 175.

Eskaera guztietatik (1.037) 432 arbitrajeko laudoak ebatzi zituen, 209tan alde biak adostasunera heldu ziren, Kontsumoko Arbitraje batzordearen bitartekaritzarekin, 6 artxibatu egin ziren, eskatzaileak atzera egin zuelako, 19 ez ziren izapidetzeko onartu, kontsumoko arbitrajetik kanpoko gaiei buruzkoak zirelako, 3 beste autonomia-erkidego batzuetara eraman ziren -enpresaren helbidea bertan zegoelako-, 15 izapideak egiten ari ziren ekitaldia ixterakoan, 2007 amaieran aurkeztu baitziren eta 86 arbitrajeko laudoa eman gabe zeuden abenduan.

Emaitei dagokionez, %37,96 kontsumitzaileen aldekoak izan ziren guztiz eta %29,87 partzialki, eta gainerakoetan, berriz, %32,17, arbitrajeko elkargoak enpresa edo establezimenduari eman zion arrazoia. Arbitrajeko elkargoaren erabakiak edo laudoak aho batez hartu ziren %81,74n.

4.6.3. Merkatuaren kontrola

Merkatuaren kontrola, kontsumitzaileen eskura dauden zerbitzu eta produktuek indarreko legediak

eskatutako etiketatze-baldintzak, informazio-baldintzak eta segurtasuneko baldintzak betetzen dituztela egiaztatzeko ikuskatze-jarduera multzoa da.

Ondorioz, etiketatuaren edo alderdi oso arautuen ikuskapen sistematikoak egiten dira, bere gatazka-mailagatik bereziki zaindu behar diren produktu eta zerbitzu zehatzen segimendua eta segurtasun-egiaztapenekin batera. Batetik **Ikuskapen eta kontrolerako kanpainak** barne hartzen ditu, hau da, ekintza programatuak produktuen araudi betetzen dutela zaintzeko. Alderdi oso arautuen eta etiketatuaren ikuskapen sistematikoa azpimarratzen da bereziki. Beste alde batetik, **osasun edo segurtasunerako arriskutsuak izan daitezkeen produktuak**, hala balegokie, **aurkitu, ibilgetu eta kendu egiten dira**.

Ikuskapen eta kontrolerako kanpainak

2007.urtean zehar, Kontsumo eta Industria Segurtasuneko Zuzendaritzak 10 ikuskapen-kanpaina egin ditu (12 2006 eta 2005.urtean, eta 17 2004an):

- Altzariak etiketatzea: entregatzeko epeak eta kontura entregatutako kopurua altzarien erosketan.
- Entregatzeko epeak eta kontura entregatutako kopurua ibilgailu berrien erosketan.
- Euskadin lan egiten duten hegazkin-konpainietako saltze-zerbitzuen eta bezeroarentzako arreta-zerbitzuetan informazio-betekizunak.
- Etxebizitzaren salerosketa-kontratuak: kontratuko klausulen analisisa.
- Oliba-olioa beste olio mota batzuekin aizundu den jakiteko lagin-hartzea.

IV.4.22. KOADROA. IKUSKAPEN-EKINTZAK ZERGATIAREN ARABERA

	2003	2004	2005	2006	2007			
					Guztira	Araba	Gipuzkoa	Bizkaia
Kanpainak		1.443	1.536	897	1.103	264	352	487
Salaketak	659	2.086	2.084	2.657	2.699	354	754	1591
Alertak	318	415	524	832	1.057	182	321	554
Beste batzuk	132	358	84	299	282	48	112	122
Guztira	88	4.302	4.228	4.685	5.141	848	1.539	2.754

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Kontsumo eta Industria Segurtasuneko Zuzendaritza

IV.4.23. Koadroa. Ikuskapen-ekintzak produktu edo zerbitzuaren arabera

	2005	2006	2007
Jostailuak	564	582	655
Telefonia eta komunikazioa		363	608
Telekomunikazioak - telefonia-zerbitzuak		102	
Etzetresna elektrikoak (ekipo informatikoak eta ikus-entzunezkoak barne)		506	539
Altzariak		218	373
Ibilgailuak	97	170	368
Elikagaiak	348	375	321
Etxebizitza, eraikuntza-sustapena	411	107	263
Material elektrikoa		273	257
Ehungintza, zapatagintza eta osagarriak	299	330	193
Tindategiak, garbitegiak	516	244	162
Produktu kimikoak (kosmetikoak, drogeria eta perfumeria barne)	65	22	137
Banku-zerbitzuak		10	51
Garraioak	9	43	
Bidaia	3	13	36
Horniketa-zerbitzuak (energia, ura, beste batzuk)	17	28	23
Gasolina-zerbitzuguneak			11
Aseguruak			7
Osasun-zerbitzuak eta laguntza-zerbitzuak	8	10	5
Produktu anitzak	1.239	572	603
Zerbitzu anitzak	190	306	306
Kodifikatu gabe			223
Ibilgailuen konponketa	238	176	
Etxebizitzaren konponketa, gremioak	67	127	
Etzetresna elektrikoaren konponketa (ekipo informatikoak eta ikus-entzunezkoak barne)	101	108	
Olio eta koipea	53		
Publizitatea	3		
Guztira	4.228	4.685	5.141

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Kontsumo eta Industria Segurtasuneko Zuzendaritza

- Arraina solte saltzerakoan etiketatuaren kontrola.
- Glutenik gabeko elikagaien lagin-hartzea.
- Tarifen informazioa autoeskoletan.
- Kredituen birtaldekatzean bitartekoak diren enpresak: informazioa, publizitatea eta kontratuak.

- Jostailuen kontrola eta segurtasuna. Egiatasuna frogatzea EEko merkatuan

Egindako ikuskapenen emaitza orokorra 5.141 ekintzatak da (aurreko urtean baino 456 gehiago) bai kanpainengatik programatutakoak, bai programatu gabekoak, normalean salaketatik sortutakoak, arauz

kontrako produktuak agertu direlako edo autonomia-erkidegoen arteko inhibizioengatik edo jakinarazpenengatik. Gehienak jostailuei buruzkoak (655), telefonia eta komunikazioari buruzkoak (608), etxetresna elektrikoari buruzkoak (539), altzariei buruzkoak (373), ibilgailuei buruzkoak (368) eta elikadurari buruzkoak (321) dira. Aurreko urtean hauexek izan ziren: jostailuak (582), etxetresna elektrikoak (506), elikadura (375), telefonia eta komunikazioa (363), oihalgintza, zapatagintza eta osagarriak (330), eta material elektrikoak (273).

Bestela esanda, jostailuak, telefonia eta komunikazioa, etxetresna elektrikoak eta elikadura izan ohi dira gehien ikuskatu ohi diren produktuak.

Produktuen segurtasun-kontrola

EB osatzen duten mugak kentzerakoan eta joan-etorri askea hasi zenean, erkidegoko edozein herrialdetako edo beste herri batzuetako produktu ugari merkaturatzen dira.

Beraz, produktu seguruen merkaturatzea kontrolatzeko mekanismoak areagotu behar da, eta hau Informazioaren Elkartrukatzeko Arinaren Sistemarekin⁷ lortu da.

2007ko ekitaldian 2.664 alerta jaso ziren guztira, gehienak jostailuei buruzkoak (763, alerta guztien %28,6), eta material elektrikoari buruzkoak (403, guztizkoaren %20,3). Hauen ostean, garrantzitsuenak ibilgailuak, etxetresna elektrikoak eta produktu kimikoak. Alerta duen jatorrizko herrialdea kontuan hartuz, %37,8 Txinakoa zen, %18,7 EBkoa eta %4,8 AEBkoa.

IV.4.24. KOADROA. ALERTA ERAGIN DUTEN PRODUKTUEN JATORRIZKO HERRIA

	Txina	EB	AEB	Beste batzuk	Ezezaguna	Guztira
Jostailuak	343	69	8	67	276	763
Material elektrikoak	188	45	5	20	145	403
Ibilgailuak	30	142	39	68	35	314
Etxetresna elektrikoak	72	33	23	19	63	210
Produktu kimikoak	27	79	17	21	34	178
Apaingarriak	68	10	4	13	83	178
Oihalak, zapatak, osagarriak	38	17	2	27	50	134
Puerikultura	35	58	4	4	29	130
Kirol-artikuluak	55	15	8	7	23	108
Erremintak	36	10	12	11	18	87
Altzariak	15	6	3	3	3	30
Beste batzuk	68	14	2	10	35	129
Guztira	975	498	127	270	794	2.664

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Kontsumo eta Industria Segurtasuneko Zuzendaritza

⁷ Eurpako Parlamentuaren eta 2001eko abenduaren 3ko Kontseiluaren produktuen segurtasun orokorrari buruzko 2001/95/CE Zuzentarauan oinarritzen da eta gure ordenamendu juridikoan Produktuen Segurtasun Orokorrari buruzko abenduaren 26ko 1801/2003 EDrengatik aldatzen da. Gainera, Estatu Batuetako jakinarazpenak kudeatzen dira eta bere sarean, hau da, U.S. Consumer Product Safety Commission (CPSC), alerta eragin duten produktuak gure herrian merkaturatu diren egiaztatzen da.

5

Pobrezia eta gizarte bazterkeria

468

Orokorrean, EAEko bizitza-kalitatea altua da, inguruko herrialdeekin alderatzen badugu. Horrela, Nazio Batuen Garapenerako Programak urtero neurtzen du Giza Garapenaren Indizea (GGI). Indize honek, herrialdearen lorpenak sintetizatuak neurtzen ditu bizitza luze eta osasungarria, biztanleriaren ezagutza-maila altua eta bizitza maila duinenaren arabera. Indize hau kontuan hartuz gero, gure herria hirugarren lekuan dago 2007ko munduko rankingean eta Islandia eta Norvegia bakarrik ditugu aurretik.

Orainsu, NBEk garatutako herrialde edo garapen bidean dauden herrialdeetako jaiotzako bizi-itxaropena, eskolatzeko-tasa eta biztanle bakoitzeko BPGdren aldagaiekin kalkulatu duen aipatutako indizea zenbatetsi du EUSTATEk. Gainera, azken bost urteetan, EAEn garapen-indize hau %2,5 hazi dela egiaztatu da, eta munduan, berriz, GGI %2,9 handitu da, eta ELGEko herrialdeetan %1,2. 2007ko rankingean, jarraian Australia, Kanada, Irlanda eta Suedia ditu.

Hala ere, EAEko biztanleriaren gehiengoaren ongizate-mailak, ezin dizkigu pertsona batzuk jasaten duten pobrezia eta gizarte bazterkeriaren arazoak azaltzeko. Oro har, Eusko Jaurlaritzaren pobrezia eta


gizarte bazterkeriari buruzko azkenengo inkestak (2004.urtekoa), 45.000 familiak, hots, 100.000 pertsona baino apur bat gehiagok, pobrezia motaren bat jasaten duela aipatzen du. Gainera, EAEn, 25.000 familia pobrezia-egoera errealean daude, eta pobrezia-aren muturrean 4.000 familia inguru. Bestalde, ongizate gabeziaren arrisku egoeran 175.000 familia daude eta 400.000 pertsona baino apur bat gehiago.

5.1. Bizi-baldintzei buruzko Inkestaren emaitzak (2006)¹

INEren Bizi-baldintzen inkesta, "Statistics on income and living conditions" (EU-SILC) izeneko Europar Batasuneko Errenta eta bizi-baldintzei buruzko estatistiken harmonizazio-prozesuaren osagaia da. Bere helburu nagusienetakoa pobrezia eta gizarte-bazterkeriaren azterketa egin ahal izateko informazioa ematea da. Era askotako informazioa ematen du, besteak beste,

¹ Lan honen emaitzak ez daude EUSTATEk, EAEko estatistika-erakundeak, bost urtean behin egiten duen "Bizi-baldintzen Inkestarekin" lotuta, inkesta honek, pertsonen errenta-mailarekin lotutako alderdi batzuk aztertzeaz gain, bizi-kalitatean eragiten duten beste alderdi batzuk ere aztertzen ditu, hala nola, familiako harremanak, gizarte-harremanak, aisialdiko ohiturak, edo bizi den ingurunea. INEren inkesta, funtsean, diruaren arabera pobrezia buruzkoa da.

IV.5.1. GRAFIKOA. FAMILIEN BANAKETA URTEKO DIRU-SARRERAKA



Iturria: INE. Bizi-baldintzen Inkesta 2006

etxebizitza, etxebizitzak sortzen dituen gastuak, diru-sarrerak, etxeko ekipamendua, egoera ekonomikoa, helduen jarduera, osasuna, osasun-arretara sarbidea eta hezkuntzari buruzko datuak eta datu biografikoak.

Pobrezia dimentsio anitzeko fenomeno da, izan ere, ez dauka definizio bakar bat eta modu ugarian neurtu eta uler daiteke, ikuspegiaren arabera. Pobrezia aztertu ahal izateko, ezinbestekoa da erabiliko diren kontzeptuak zehaztea. Lan honetan pobrezia azterketa deskriptiboa egiten da, eta pobrezia hau diru-pobrezia erlatibo bezala

ulertu behar da. Horretarako, biztanleria pobre eta ez pobreetan sailkatzeko, diru-pobrezia erlatiboaren lerroa eraiki da.

Erabilitako pobrezia marra etxeko kontsumo-unitate bakoitzaren diru-sarrera garbietan oinarritzen da, hau da, diru-sarrera hauek etxeko guztizko diru-sarreraren (errenta erabilgarria) eta etxeko kontsumo-unitateen arteko zatiketaren emaitza dira. Hemendik aurrera, pobrezia muga edo pobrezia ataria, pertsonei esleitutako kontsumo-unitate bakoitzaren diru-sarreraren

batez bestekoaren %60n ezarrita dago². Beraz, "pobretzat" hartzen da kontsumo-unitate bakoitzeko diru-sarrerak aipatutako muga horren azpian dituen pertsona, horrela, familia bereko kide guztiak pobre edo ez pobre bezala sailkatuko dira. Muga hau Batasuneko mailan kalkulatu da herrialde bakoitzarentzako³, horregatik herrialde bakoitzeko ikuspegi erlatiboa lor dezakegu, nahiz eta beraien artean zuzenean ezin alderatu.

Estatuturako 2006ko inkestaren datuen emaitzetan, lehenengo nabarmendu beharreko datua, 2005ean EAEn, familia bakoitzeko batez besteko diru-sarrera 26.407 eurokoa zela da (2004an baino %4,7 gehiago), 23.442 euroko Estatuaren batez bestekoa baino %12,6 gehiago. Batez besteko hau Nafarroa, (familiako batez besteko diru-

sarrera altuena du, 29.845 euro) Madril, Katalunia eta Balearretako erkidegoek bakarrik gainditzen dute. Rankingeko beste muturrean aldagai bietan eta aurreko urteko inkestan bezala, Extremadura, Gaztela-Mantxa eta Andaluzia daude.

Gainera, errenta-atalka eginiko familien banaketatik, EAEn, familien %47,8k urtero 25.000 euro baino diru-sarrera handiagoak dituztela ondorioztatzen da, eta ehuneko hau %5,4 gehitu da. Hauen artean, %24,9k urtero 35.000 euro baino diru-sarrera handiagoak ditu, %22,9k 25.000 eta 35.000 euro artekoak, %27,5k 14.000 eta 25.000 euro artekoak, eta gainerakoek 14.000 eurotik beherako diru-sarrerak dauzkate urtean (azken hauen %10,9k 9.000 eurotik beherako diru-sarrerak ditu). Estatu

IV.5.1 KOADROA. POBREZIAREN MUGAREN AZPITIK DAUDEN PERTSONAK (%)

	2003	2004	2005	Ald. 03/05 %
Nafarroa	12,7	9,9	9,8	-22,8
EAE	11,2	9,5	9,8	-12,5
Balearrak	15,2	16,8	11,5	-24,3
Katalunia	12,5	12,7	12,1	-3,2
Aragoi	12,5	16,2	12,9	3,2
Madril	9,5	12	12,9	35,8
Asturias	12,6	15,2	13,2	4,8
Kantabria	11,9	14,9	13,3	11,8
Valentziako E.	19,6	20	17,1	-12,8
BATEZ BESTE ESTATUA	19,9	19,8	19,9	-
Errioxa	18,5	19,6	20,2	9,2
Galizia	21,2	19,7	23,2	9,4
Gaztela eta Leon	25,1	25,5	24,7	-1,6
Murtzia	24,5	24,7	26,4	7,8
Kanariak	24,1	28,5	28,3	17,4
Gaztela-Mantxa	29,4	29,6	29,3	-0,3
Andaluzia	31,1	27,7	29,7	-4,5
Ceuta eta Melilla	37,3	33,8	31,7	-15
Extremadura	37	34,6	38,6	4,3

Iturria: INE. Bizi-baldintzen Inkesta. Urte batzuk

² Diru-sarrerak kontsumo-unitateka edo diru-sarrera baliokidea familiako guztizko diru-sarrerak dira kontsumo-unitateen artean zatituta; baina kontzeptu hau ez da biztanle bakoitzeko diru-sarreraren berdina, ez baitaie diru-sarrera berbera familiako kide guztiei esleitzen, beste adierazle batzuk ere kontuan hartzen ditu, eskalako ekonomiak adibidez. Hau da, familiako kideen gehikuntzak ez dakar derrigorrez berarekin diru-sarreraren gehitze proportzionala ongizate-maila berbera mantentzeko, eta gainera, kontsumo-ereduak ez dira berdinak, familiako kide bakoitzaren adinaren arabera.

³ Lehen esan bezala, pertsonen esleututako kontsumo-unitate bakoitzaren arabera diru-sarreraren batez bestekoaren %60n ezarrita dago, EBko herrialde bakoitzean. Beraz herrialde bakoitzeko errentaren banaketa aztertzen da, ez Batasun osokoa.


osoan, 25.000 eurotik gorako errenta-maila %37,4k du (2004an baino ehuneko 3,1 gehiagok) %31,4k errenta-maila ertaina, du, eta familien herenak, %30,8k, 14.000 eurotik beherako diru-sarrerak ditu⁴.

Familien bizi-baldintzak eta errenta-maila erakusten duen beste adierazle bat, etxerako ekipamendu zehatzik eduki ezin dezaketenen ehunekoa da. Adibidez, EAEn %17,6k ezin duela autorik eduki dio. tasa hau %20,9ra igotzen da Estatu osoa kontuan hartuz gero, Andaluzian %25 baino gehiagok eta Ceuta eta Melillan familien %36,5era iristen da. Halaber, EAEko familien %11,6k ezain dute ordenagailurik eduki eta ratio hau %20ra heltzen da Estatu osoan.

Bestalde, INEko bizi-baldintzen inkestak pobreziaren mugaren azpitik dauden pertsonen portzentajea kalkulatu du. Estatuko batez bestekoa, portzentaje hau ez da aldatu, estatistika-operazioak dituen hiru urteetan, eta 2005ean %1,9ko tasa izan zuen. Gure erkidegoan "pobre" bezala sailkatutako pertsonen kopurua %9,8koa da, eta azken urtean 3 hamarren gehitu da. Joera, ordea, azken urte bietan onuragarria da, 2003ko ratioa %11,2koa izan baitzen.

Bestalde, EAEko oraintsuko pobreziaren bilakaera jakiteko, EUSTATEko bizi-baldintzen inkestako "egoera sozioekonomikoa" atalera jo dezakegu, aztertutako aldagaiak beste batzuk badira ere, hamabost urteko aldia agertzen da, 1989 eta 2004 urteen bitartekoa, azken lana


IV.5.2. GRAFIKOA. EKIPIAMENDU-ONDASUN ZEHATZIK EDUKITZERIK EZ DUTEN FAMILIEN EHUNEKOA (2006)



Iturria: INE. Bizi-baldintzen Inkesta.

⁴ %100 izateko falta diren gainerako familiak inkestaren "ez dago jasota" atalean daude.


IV.5.3. GRAFIKOA. DIRU-SARRERA EZEGONKORRAK DITUZTEN ETA BEREN BIZI-MAILA MANTENTZEKO AURREZKIAK ERABILI BEHAR IZAN DITUZTEN EAE-KO FAMILIEN EHUNEKOAREN BILAKAERA



OHARRA: aurrezteari buruzko aldagaia kendu egin zen galdaketatik 2004an
Iturria: EUSTAT. Bizi-baldintzen Inkesta. Datu-bankua.

472

IV.5.4. GRAFIKOA. EAE-KO FAMILIEN BANAKETA ORAIN DELA GUTXIKO EGOERA EKONOMIKOAREN BILAKAERAREN ARABERA, GRAFIKOA EHUNEKOTAN ETA BALIOAK MILATAN



Iturria: EUSTAT. Bizi-baldintzen Inkesta. Datu-bankua.

egin zen urtera arte, hain zuzen ere. Horrela, adibidez, diru-sarrera ezegonkorrak dituzten edo aurreikusi gabeko gastuei aurre egin edo bizi-kalitatea mantendu ahal izateko aurreztutako diruaz baliatu behar izan duten familien ehunekoaren bilakaera ikusten da. Grafikoan diru-sarrera ezegonkorren ehunekoak 1994ko inkestan (%23,4) proportzioan txarrera egin bazuen ere, 1999an hobera egin zuela ikusten da, ehunekoa ia erdira jaitsi baitzen, eta

2004an, berriro ere gora egiten du, %13,8ra heldu arte. Halaber, bilakaerak beherantz egin badu ere, 1999an (datua daukagun azken urtea) familien %31k aurreikusi gabeko gastuen aurrean, aurreztutako diruaz baliatu behar izan zuen bere bizi-maila mantendu ahal izateko.

Halaber, EUSTATen inkestak 2004an familien %7,7k erakundeei laguntza ekonomikoren bat eskatu zietela

jakinarazten du. Tasa hau 1989an %13,4koa zen eta gero lanetan murriztu egiten da. Kide nagusia langabezian dagoen familiak bakarrik kontuan hartuz gero, tasa hau %20,9koa da (1989an %33,5koa).

5.2. Laneratzeko arazoak dituzten pertsonak EAE-n

Nabarmena da enplegu-politikak oinarritzko alderdiak direla bizi-estandar egokien sustapen eta kohesio sozialaren gehikuntzan. Izan ere, EBko Europako Batzordearen datuen arabera, pobrezia-arriskua pertsona langabetuarentzat, lan-merkatuan dagoenarentzat baino 2,5 aldiz handiagoa da.

Hala ere pobrezia-arriskuaren ratioa handi samarra da oraindik, baita lanpostua daukaten pertsonen artean ere, horrela, Eurostat-en EB-25entzako datuen arabera, lanean ari diren pertsonen %8 pobrezia-arriskuan dago, Txekiar Errepublikan %3, Belgikan eta Finlandian %4, Grezian %13 eta Polonia eta Portugalen %14. Are gehiago, lanean dauden pertsonen proportzioa, errenta-maila baxua duten 16 urtetik gorakoen taldean %28koa da. Testuinguru

honetan, ets Bartzelonako Gailurrean zehaztutakoa betetzeko asmoz, hots, pobrezia eta gizarte bazterkeriaren arriskuan dauden pertsona-kopurua 2010.urtea baino lehen murrizteko asmoz, batzordeak arazo honi aurre egiteko beharraz ohartarazi du.

Lanean ari diren pobrezia- eta bazterkeria-arazodun pertsonen artean, laneratzeko arazo bereziak dituztenak nabarmentzen dira, egun lanean edo langabezian egon daitezkeenak, baina arazo eta ezaugarri berberak dituztenak. Oraintsu, Eusko Jaurlaritzak azterketa bat egin du, beren gizarte-beharrek ezagutu eta gizarte-zerbitzuen eskaera potentziala balioztatzeko.⁵

“Gizarte zerbitzuen eskaeraren 2006ko inkesta”, Justizia, Eusko Jaurlaritzako Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailaren lan estatistikoaren arabera, Gure erkidegoan 38.523 familiak, guztizkoaren %4,9k, estatistika honetan agertzen den laneratzeko arazo bereziren bat duen pertsona daukate. Zehazkiago, langabetu edo azpienplegu kronikoa dutenak, enplegu babestua dutenak edo lan-baimenik ez duten atzeritarrak dira. Gehienetan, %4,2, arazo berezia duen pertsona bakarra dago bizikidetzako unitatean. Aktiboa izan daitekeen 16 eta 64 urte arteko biztanleria kontuan hartzen badugu, EAEn bizi den urte horien arteko biztanleriaren %3,7k laneratzeko arazoren bat duela agertzen da.

IV.5.2. KOADROA. LANERATZEKO ARAZO BEREZIAK DITUZTEN PERTSONAK, SEXUA, ADINA ETA ARAZO MOTAREN ARABERA 16 ETA 64 URTE ARTEKO BIZTANLERIA (BERTIKALAK %) 2006

Laneratzeko arazo-mota	Sexua		Adina					
	Gizonezkoa	Emaku-mezkoa	15-24 urte	25-34 urte	35-44 urte	45-54 urte	55-64 urte	GUZTIRA
Kide nagusia Langab/Azpienpleg kronikoa	16,2	25,2	3,6	12,2	22,8	31,7	44,4	20,1
Beste pertsona bat Langab/Azpienpleg kronikoa	14	40,7	6,1	20,1	30,6	37,4	40,5	25,7
Enplegu berezia/babestua	11,7	4,5	0	4,8	11	20,3	7,2	8,6
Atzeritar baimenik gabea	58,1	29,6	90,3	62,8	35,7	10,6	7,9	45,6
Guztira	100	100	100	100	100	100	100	100

Iturria: Eusko Jaurlaritza. Gizarte Zerbitzuen Eskaeraren Estatistika (GZEE)2006

⁵ EAEko eskumen, lan eta funtzioen banaketa-eredua dela-eta, azterketa honetan agertzen den beharrian sozialen kontzeptuak gizarte-zerbitzuen ohiko esparrua gainditzen du, gizarteratze prozesu ezberdinei lotutako beharrezanez dagokien arloari lehenetsia emateko, lan-merkaturatzea eta enplegura sarbideari dagozkienak barne.

IV.5.3 KOADROA. LANERATZEKO ARAZO BEREZIEN ERAGINA SEXUA ETA ADINAREN ARABERA. 16 ETA 64 URTE ARTEKO BIZTANLERIA (ERREFERENTZIA-BIZTANLERIA %) 2006

Adina	Sexua		
	Gizonezkoa	Emakumezkoa	Guztira
15-24 urte	6,2	1,4	3,9
25-34 urte	5,9	5,4	5,7
35-44 urte	4,5	2,9	3,7
45-54 urte	2,5	3,8	3,1
55-64 urte	1,7	2,4	2,1
Guztira	4,2	3,3	3,7

Iturria: Eusko Jaurlaritza. Gizarte Zerbitzuen Eskaeraren Estatistika (GZEE)2006

Azterketa honek batetik, orokorrean, laneratzeko arazo bereziak dituzten pertsonen ehunekoa, adina jaitsi ahala gero eta handiagoa dela adierazten du, bereziki nabarmena da gizonezkoetan: 35 urtetik beherako gizonen %6k aipatutako arazoren bat du (15 eta 24 urte arteko %6,2k) proportzio hau %4,5era murrizten da 45 eta 54 urte artekoetan, eta %1,7ra 45 urtetik beherakoetan. Batetik, 25 eta 34 urte arteko emakumeen artean ere arazo hauen eragina oso handia bada ere, 25 urtetik beherako emakumeetan murriztu egiten da (%1,4 bakarrik). Egoera honek gazteenen artean arazo hauen eragina 25 eta 34 urte artekoen artean baino txikiagoa dela erakusten du.

Beste alde batetik, laneratzeko arazo bereziek eragin bereizgarria dute atzeritar biztanleriaren kasuan: %31,4k mota honetako arazoren bat du, aldez, jatorri nazionala duten %2k bakarrik du mota honetako arazoren bat. Arazoa, bereziki larria da gizon atzeritarren artean, gizonezko atzeritarren %39,1k arazoak baititu, eta arazoak dituzten emakume atzeritarrak, berriz, %21,7 dira.

Lan-arazo mota nagusia kontuan hartuz, ondorio hauek atera daitezke:

– Lehenengoz, arazo nagusia langabeziako edo lan marjinaletan aritutako denboraldi luzeak dira, hau da, langabezia edo azpienpleguko denboraldiak. Egoera honetan laneratzeko arazoak dituzten pertsonak %45,8 dira. Hauen artean, %20,1 beren familiako kide nagusiak dira, eta langabezian daude edo erregularizatu gabeko enplegua dute azkeneko 18 hilabeteetan.

Zenbaki erlatiboetan, langabezia eta azpienplegu kronikoak emakumeei gehiago eragiten die gizonezkoen baino (laneratzeko arazoak dituzten nor bere taldeen %65,9 eta %30,2 hurrenez hurren). Bere eragina nabarmen gehitzen da adinarekin - laneratzeko arazoak dituzten pertsonen taldearen ondorio orokorrak ez bezala- horrela, 25 urtetik beherako %9,7ri eragiten dienez, 35 urtetik gorako talde guztietan arazo nagusi bihurtu da. Gainera, adina gehitu ahala, familiako kide nagusiari dagokion zatia ere gehitu egiten da, egoera honetan 55 urtetik gorako pertsonak daude gehienbat.

– Erabakigarria da, baita ere, lan-baimenik gabeko pertsona atzeritar aktiboen multzoa. Laneko arazo larriak dituzten pertsonen %45,6 egoera honetan dauden atzeritarrak dira, EAEn 24.593 pertsona daude egoera honetan. Egoera honek, laneratzeko arazoak dituzten emakumeen %29,6ri eragiten badio ere, proportzioa gizonezkoen artean %58,1ekoa da. Gainera, adinean behera egin ahala, arazoa larritu egiten da, talde honetako 25 urtetik beherako %90 baino gehiago egoera honetan baitaude

IV.5.4. KOADROA. LANERATZEKO ARAZO BEREZIAK DITUZTEN PERTSONAK ARAZO-MOTA ETA EGUNGO LAN-EGOERAREN ARABERA. (EHUNEKOTAN) 2006

Laneratzeko arazo-mota	Egungo lan-egoera		
	Lanean	Lanik gabe	GUZTIRA
Kide nagusia Langab/Azpienpleg kronikoa	34,3	65,7	100
Beste pertsona bat Langab/Azpienpleg kronikoa	32,9	67,1	100
Enplegu berezia/babestua	100	0	100
Atzeritar baimenik gabea	74,6	25,4	100
Guztira	57,9	42,1	100

Iturria: Eusko Jaurlaritza. Gizarte Zerbitzuen Eskaeraren Estatistika (GZEE)2006

– Beste alde batetik, enplegu berezi edo babestuaren esparruan, (Auzolan, laneratzeko enpresak edo enplegurako zentro bereziak) lanak askoz ere eragin gutxiago du, talde honetako %8,6k bakarrik du enplegu berezia edo babestua, baina berriz ere gizonetzkoen proportzioa handiagoa da (%11,7) emakumeena baino (%4,5), eta argiago agertzen da 45 eta 54 urte arteko pertsonen artean (%20,3).

Laburbilduz, arestian aipatutako datuetatik atera daitekeen lehenengo ondorioa, laneratzeko arazo bereziak gizonetzkoen eta 35 urtetik beherako pertsonen lotura daudela da, bertako atzeritarrentzako lan-baimenik ezean. Emakumeen eta 35 urtetik gorakoaren artean, aldiz, langabezia eta azpienplegu kronikoaren arazoa funtsezkoa da.

Laneratzeko arazo bereziak dituzten pertsonen lan-egoera aztertuz gero, gehiengoak, %57,9, lanean ari da gaur egun. Proportzio hau altuagoa da menpekotasun berezia duten pertsonen artean (%69,5), laneratzekoan, babes-maila handiagoa baitaukate, testuinguru babestuan bada ere. Halaber, deigarria da lan-baimenik gabeko pertsona atzeritarren artean ere lan-maila oso altua izatea, izan ere, hauen arteko ia lautik bat lanik gabe dago gaur egun (%25,4).

Langabezia edo azpienplegu kroniko egoeran dauden pertsonen kasuan, osteraz, lanean ari direnak oso gutxi dira: pertsona nagusien %34,3 eta nagusiak ez diren pertsonen %32,9. Langabezia edo azpienplegu kroniko egoera hauek bi baldintza zehatzei lotuta daude: gehiengoak lanarekin lotura guztiz hautsi du azken urtean zehar

(%53,4 pertsona nagusien artean eta %64,2 nagusiak ez diren artean), eta beste askok, azken urtebetean, enplegu marjinaletan lan egin du, azpienpleguak berezkoa duen errealitatean: familiako kide nagusien %24,5 eta gainerako kideen %23,6 egoera honetan daude.

Bestalde, lan-baimenik gabeko atzeritarren berezko ezaugarria lanaren jarraitasunik eza da, %6,5ek bakarrik lan egin ahal izan du urte osoan jarraian. Aldi berean, hala ere, %81ek gutxienez lan bat izan du urteko momenturen batean. Hala eta guztiz ere, gutxiengo batek, sei hilabete edo gehiago lan egin du azken urtean zehar. Egia esan, lan-baimenik ez duten pertsona atzeritarren hiru laurden lanean daude.

Ikerketa honetan aztertzen diren pertsonak lan egiten duten jarduera-sektoreari dagokionez, ia bi herenak zerbitzuen sektorean lan egiten dute (%63,8) eta eraikuntzan lan egiten dutenen proportzioa ere handia da (%27,6). Aztertutako ia biztanleriaren %6,5ek egiten du lan industrian eta %2,2k nekazaritzan.

Bestalde, zerbitzuen sektorean lan egiten duten pertsonen proportzioa %96tik gorakoa da azpienplegu kronikoan dauden pertsonen artean, %2 edo 3 bakarrik baitabiltza industria-lanetan. Lan-baimenik gabeko pertsona atzeritarrei dagokionez, egungo enpleguaren %94,8 zerbitzuen eta eraikuntzaren sektoreak berenganatzen dute. Talde honen berezko ezaugarria, hala ere, eraikuntzaren sektoreak duen garrantzia da, lan-baimenik gabeko pertsona atzeritarren %47 eraikuntzan ari baita lanean. Egia esan, eraikuntzako lan

IV.5.5. KOADROA. LANERATZEKO ARAZO BEREZIAK DITUZTEN ETA LANEAN DAUDEN PERTSONAK ADINA ETA ARAZO-MOTAREN ARABERA (EHUNEKOTAN ETA BATEZ BESTEKO ADINA), 2006

Laneratzeko arazo-mota	Adina						Adinaren batez bestekoa
	15-24 urte	25-34 urte	35-44 urte	45-54 urte	55-64 urte	GUZTIRA	
Kide nagusia Langab/Azpienpleg kronikoa	-	16,9	32,9	45,2	5,0	100	43,9
Beste pertsona bat Langab/Azpienpleg kronikoa	1,2	27,3	33,5	34,7	3,3	100	41,5
Enplegu berezia/babestua	-	19,1	30,6	41,9	8,4	100	43,2
Atzeritar baimenik gabea	27,6	49,2	20,1	3,1	-	100	29,0
Guztira	16,4	37,7	25,2	18,4	2,3	100	34,7

Iturria: Eusko Jaurlaritzak. Gizarte Zerbitzuen Eskaearen Estatistika (GZEE)2006

marjinala talde honetan bakarrik ematen da, ez ordea laneratzeko arazo bereziak dituzten beste pertsona batzuegan.

Ikuspegi bananduago batetatik ikusita. hiru jarduera adarrekin, lanean dauden aipaturako biztanleriaren %70eri ematen diote lana: eraikuntza (%27,6), etxeko lanak (%25,4) eta ostalaritza (%17,1). Adar hauetan, gainera, lan-baimenik gabeko pertsonen %92,8k lan egiten du, eta baita langabezia edo azpienplegu kronikoan dauden pertsonen %53,5 eta %57,1en artean ere, familiako kide nagusiak izatearen edo ez izatearen arabera. Azken hauen artean beste adar batzuk nabarmentzen dira: kide nagusien artean %34,8k enpresentzako zerbitzuetan eta gainerakoak merkataritza-zerbitzuetan lan egiten du, kide nagusiak ez diren pertsonen %25,7k, aldiz, hezkuntza, osasuna eta gizarte-zerbitzuei lotutako oinarritzako zerbitzuetan lan egiten du.

Beste alde batetik, laneratzeko arazo bereziak dituzten pertsonen laneratzea, maila profesionaleko maila apalenetan gertatzen da: %64,5 gaitu gabeko lanetan ari da, bereziki zerbitzuetan eta eraikuntzan. Talde osoa kontuan hartuz gero, %2,2k bakarrik ditu administrazio-lanak edo lan teknikoak. Gainera gaitu gabeko lanaren garrantzia nagusitu egiten da, lan-

baimenik gabeko atzerritar, zentro berezietako edo enplegu babestuko langile eta langabezia edo azpienplegu kronikoan dauden pertsonen %65 eta 70en artean gailentzen da.

Azkenik, enpleguaren oinarritzako ezaugarri sozialak kontuan hartuz, enplegu berezi eta baimenduan izan ezik, hauetan kontratua eta Gizarte Segurantzako kotizazioa baitaude, kasuen %11,5ean bakarrik agertzen da laneko ezegonkortasuna, gainerako kasuetan laneko marjinalitatearen ebidentzia da ezaugarri nagusia: guztien ezaugarri unibertsala Gizarte Segurantzaren ez kotizatzea da, eta ez zaie lan-baimenik gabeko atzerritarrei bakarrik gertatzen, baita egun lanean ari diren langabezia eta azpienplegu kronikoaren arazoa duten pertsonen %100ri ere. Azpienplegu kronikoaren arazoa duten pertsona nagusien %32,8ren kasuan izan ezik, hemen, enpleguko marjinalitatearen eta ezkutuko ekonomiaren errealtatea, hein handi batean lan txiki autonomoak egiteari lotutako laneko jarraitasun eta egonkortasunarekin lotzen baita. Gainerako kasuetan, ezaugarri ia unibertsala jarduera burutzerakoan ezegonkortasuna eta kontraturik eza dira. Hala ere, ikerketaren egileak harritu egin ditu, pertsona gehienak egoera honetara egokitu izateak, %15,2k bakarrik bilatzen baitu beste lan bat.

IV.5.6. KOADROA. LANERATZEKO ARAZO BEREZIAK DITUEN 16 ETA 64 URTE ARTEKO LANEAN ARI DEN BIZTANLERIA ARAZOA ETA JARDUERAREN ARABERA (BERTIKALAK %) 2006.					
Jarduera	Laneratzeko arazo mota				
	Kide nagusia Langabezia / Azpienplegu kronikoa	Beste pertsona bat Langabezia/ Azpienplegu kronikoa	Enplegu berezia/babestua	Atzerritar baimenik gabea	Guztira
Nekazaritza	-	-	10,2	1,1	2,2
Metala	3,2	2,2	19,7	1,7	4,6
Beste industria bat	-	-	3,0	2,4	1,8
Eraikuntza	-	-	-	47	27,6
Merkataritza	-	5,9	-	0,9	1,4
Ostalaritza	5,5	11,2	6,3	23,6	17,1
Garraioa	-	-	0,3	-	0,0
Finantzak eta enpresentzako zerbitzuak	13,4	5,4	30,6	-	6,9
Administrazioa, oinarritzako zerbitzuak	8,5	25,7	25,3	1,2	9,2
Etxeko lanak	48,1	46,0	-	22,1	25,4
Beste merkataritza-zerbitzu batzuk	21,3	3,7	4,6	-	3,8
GUZTIRA	100	100	100	100	100

Iturria: Eusko Jaurlaritza. Gizarte Zerbitzuen Eskaeraren Estatistika (GZEE)2006

IV.5.7. KOADROA. LANERATZEKO ARAZO BEREZIAK DITUZTEN 16 ETA 64 URTE ARTEKO LANEAN ARI DEN BIZTANLERIA ARAZOA ETA ENPLEGUAREN GIZARTE-EZAUGARRIEN ARABERA (TALDE BAKOITZEAN ERAGINDAKO PERTSONAK %) 2006.

Enpleguaren gizarte-ezaugarriak	Tipo de problema de inserción laboral				
	Kide nagusia Langabezia / Azpienplegu kronikoa	Beste pertsona bat Langabezia/ Azpienplegu kronikoa	Enplegu berezia/babestua	Atzerritar baimenik gabea	Guztira
Lan ezegonkorra	67,2	94,1	11,5	100,0	82,2
Kontraturik gabe	62,7	90,8	0,0	96,0	77,6
Gizarte Segurantzari kotizatu gabe	100,0	100,0	0,0	100,0	100,0
Behin-behineko lana	100,0	100,0	11,5	100,0	86,9
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: Eusko Jaurlaritzak. Gizarte zerbitzuen eskaeraren estatistika (GZEE)2006

5.3. Ukapeneko eta gizarte bazterkeriako arazoak

Pertsonen gizarteratze-prozesua zailtzen duena, ez da hezkuntzara sarbidea izatea edo laneratzea edo menpekotasunarekin lotutako arazoa bakarrik, beste alderdi batzuk ere kontuan hartu behar dira. Hauen artean, bakardadea, arreta falta, bazterketa, gatazkak edo indarkeriarekin lotutako jokabide-arazoak eta familiako edo gizarteko arazo larriak daude. Jatorri soziala edo geografikoa, arraza, etnia, kultura, erlijioa edo pertsona atzerritarra izateari lotutako ukapen-arazoak ere kontuan hartu behar dira. Eusko Jaurlaritzako "Gizarte zerbitzuen eskaeraren 2006ko estatistikan" (GZEE) aipatutako arazoaren artean, arreta faltaren, tratatu txarren edo indarkeriaren arazo larrietan eta gizarte- ukapenean jarriko dugu arreta.

Lehenengo eta bat, GZEEk biztanleriaren ezaugarri edo egoera pertsonal batzuei lotutako gizarte-arazo larrietan jartzen du arreta, izan daitezkeen jokabide edo jarrera arazoa, familia-banaketak, bakardadea eta tristezia, tratatu txarrak, jazarpena edo indarkeria, zentro edo kartzeletan sartzea eta jatorri eta ezaugarri kultural edo erlijiosoekin lotutako gizarte-ukapeneko arazo larriak aztertuz. Inkestako datuen arabera, guztira 52.590 pertsonak, EAEko biztanleriaren %2,45k arazo hauetakoren bat edo batzuk dauzka eta eragina handiagoa da emakumezkoen artean

gizonezkoen artean baino (emakumezkoen %2,91 eta gizonezkoen %1,97), erregistratutako kasuen %60,8 biltzen baitituzte.

Aipatutako arazoaren eragina gehituz doa adinarekin, eta 55 urtetik aurrera batez bestekoa nabarmen handiagoa da: %2,64 55 eta 64 urte artean eta %6,55 75 urtetik aurrera. Beraz, 55 urtetik gorako pertsonen %52,1ek arazo hauetariko bat edo batzuk dituzte. Arestian aipatutakoaz gain, 25 eta 34 urte arteko pertsonak 55 urtetik beherako gainerako taldetik urruntzen direla nabarmendu behar da, eta hauek ere batez bestekoaren gainetik daude, (%2,45 eta taldeko gainerakoaren %2), izan ere, arazoak dituzten kasuen %15 adin-talde honetan daude.

Aipatu behar da, baita ere, arazo hauek eragin handiagoa dutela familiako kide nagusien artean (%3,84) nahiz eta atzerritarren artean eta osasun-arazoei edo adin handiari lotutako mugak dituzten pertsonen artean eragina benetan izugarria da. Lehenengo kasuan, biztanleri nazionalaren %12,5ek aztertutako arazo larriren bat du, atzerriko biztanleriaren artean, osteraz, proportzioa %12,5ekoa da. Horrela erregistratutako kasuen %24 pertsona atzerritarrei dagozkie.

Osasuna edo adinaren ondorioei dagokienez, menpekotasun berezia duten pertsonen %14,16k aztertutako arazoaren bat du. Osasun edo adin arazorik ez duten pertsonetan proportzioa %1,47ra murrizten da. Hala ere, arazo pertsonal, familia-arazo edo arazo sozial larriak dituzten pertsonen %46,2k osasuna edo adin handiari lotutako muga pertsonalen bat du.

Bestalde, GZEEk EAEn bizi diren pertsonen jasaten duten gizarte-ukapenaren arazo zehatzari buruzko informazioa biltzen du. Informazioaren bilketak jatorri sozial edo geografikoa, arraza, etnia, hizkuntza, erlijioa edo atzerritarra izatearekin lotutako arazoetan jartzen du arreta. Zehazkiago, 14.036 pertsonen, EAEko biztanleriaren %0.65 aipatutako egoerengatik gizarte-ukapen arazoak jasaten dituzte eta hauetatik ia erdiek (%42,1) arazo larriak direla uste du.

Erljioa eta hizkuntza ukapen-egoera hauen %10,9 eta %29,9ri lotuta daude, eta eragina badute ere, ez dira etnia eta jatorria bezain erabakigarriak; gizarte-ukapen mota hau jasaten duten pertsonen %78,6k etniarekin lotzen du, eta %85,5ek jatorriarekin. Gainera gizarte-ukapena jasaten dutela dioten pertsonen %73,4 atzeritarrak dira.

Bestalde, elementu zehatz batzuk agertzen dira, sexua eta nazionalitatearen arabera hizkuntzarekin zerikusia daukatenak. Zentzu honetan, hizkuntzak ukapena sustatzen du emakumeen kasuan (emakumeen %39,9k

zentzu honetan lotzen du), baina ez ostera gizonezkoek (ehunekoa %16,1era murrizten da).

Hizkuntza eta kulturak, bestalde, biztanleria nazionalaren ukapena sustatzen dute, jasaten duen gizarte-ukapenaren zergati bezala, %3k jatorria aipatzen

IV.5.9. KOADROA. GIZARTE-UKAPEN ARAZOAK DITUEN BIZTANLERIA ARAZO-MOTA ETA SEXUAREN ARABERA

Arazo-mota eta jatorria	Sexua		
	Gizonezkoa	Emakumezkoa	Guztira
Etnia	75,6	80,8	78,6
Jatorria	87,4	84,1	85,5
Hizkuntza	16,1	39,9	29,9
Erljioa edo kultura	11,5	10,4	10,9
Beste Estatu bateko nazionalitatea	79,5	66	73,4

Iturria: Eusko Jaurlaritza. Gizarte zerbitzuen eskaeraren estatistika (GZEE)2006

IV.5.8. KOADROA. HARREMAN PERTSONAL EDO SOZIALETAN GIZARTE-ARAZOREN BAT DUEN BIZTANLERIA ALDAGAI DEMOGRAFIKO EZBERDINEN ARABERA (ERREFERENTZIA-TALDEAN ERAGINA ETA BANAKETAN GARRANTZIA, EHUNekoetan) 2006

Aldagai demografikoak		Eragina	Banaketa (ehunekoetan)
Senidetasun-harremana	Kide nagusia	3,84	57,5
	Ezkontidea edo bikotea	1,53	15,2
	Semea/alaba	0,84	10,9
	Beste persona bat	5,49	16,3
Sexua	Gizonezkoa	1,97	39,2
	Emakumezkoa	2,91	60,8
Adina	< 15 urte	0,72	4,1
	15-24 urte	1,78	7,6
	25-34 urte	2,45	15,0
	35-44 urte	1,68	11,1
	45-54 urte	1,77	10,2
	55-64 urte	2,64	13,1
	65-74 urte	3,77	13,9
	> 75 urte	6,55	25,1
Nazionalitatea	Nazionala	1,95	75,9
	Beste Estatu bat	12,50	24,1
Problema de salud	Berezia	14,16	31,7
	Beste muga batzuk	7,08	14,5
	Mugarik gabe	1,47	53,8
Guztira		2,45	100,0

Iturria: Eusko Jaurlaritza. Gizarte zerbitzuen eskaeraren estatistika (GZEE)2006

IV.5.10 Koadroa. GIZARTE-UKAPEN ARAZOAK DITUEN BIZTANLERIA ALDAGAI DEMOGRAFIKO EZBERDINEN ARABERA (ERREFERENTZIA-TALDEAN ERAGINA ETA BANAKETAN GARRANTZIA, EHUNekoetan) 2006

ALDAGAI DEMOGRAFIKOAK		BIZTANLERIA ATZERRITARRA		BIZTANLERIA NAZIONALA	
		Incidencia	Distribución (en %)	Incidencia	Distribución (en %)
Senidetasun-harremana	Kide nagusia	12,72	30,3	0,24	48,8
	Ezkontidea edo bikotea	8,06	13,3	0,16	21,5
	Semea/alaba	6,18	12,1	0,16	29,1
	Beste persona bat	11,46	44,4	0,02	0,6
Sexua	Gizonezkoa	11,26	60,0	0,16	42,9
	Emakumezkoa	8,84	40,0	0,20	57,1
Adina	< 15 urte	6,13	8,3	0,15	11,7
	15-24 urte	16,06	29,9	0,05	2,9
	25-34 urte	10,93	37,2	0,26	19,6
	35-44 urte	8,74	18,2	0,28	24,8
	45-54 urte	4,84	3,2	0,06	5,0
	55-64 urte	---	---	0,34	23,5
	65-74 urte	---	---	0,25	12,6
	> 75 urte	45,99	3,2	---	---
Guztira		10,15	100,0	0,18	100,0

Iturria: Eusko Jaurlaritza. Gizarte zerbitzuen eskaeraren estatistika (GZEE)2006

duen bitartean, %28,8k etnia aipatzen du, %33,5ek erlijioa edo kultura eta %63,5ek hizkuntza. Biztanleria atzerritarari dagokionez, aldiz, jatorria eta etnia dira ukapena eragiten dutenak (%85,9 eta %97,5 hurrenez hurren). Hizkuntza %25ek aipatzen du, eta erlijioa eta kultura %7,6k.

Adinari dagokionez, eragina gehien jasaten duen taldea 15 eta 24 urte artekoa da, gizarte-ukapena jasaten

duten pertsonen %16,06 hain zuzen. Adinak gora egin ahala, gizarte-ukapenaren eragina gero eta baxuagoa da, eta baita 15 urtetik beherakoetan ere. Hala ere, proportzioak oraindik %10a gainditzen du. 25 eta 34 urte artekoetan (%10,93). Bestalde, gizarte-ukapen arazoak jasaten dituztela dioten atzerritarren %67,1ak 15 eta 34 urte artean ditu.

6

Jarduera judizialaren bilakaera EAE-n

6.1. Justiziaren zifrak

Justiziaren zifrak aztertzeko, oro har, bertan sartzen diren gaiak, ebazten direnak eta ebatzi barik gelditzen direnak ikertu behar dira; hau da, organo judizialen eraginkortasunaren azterketa egin behar da. Zerbitzu publiko baten eraginkortasuna neurri handian agerian jartzen duten ezaugarrietariko bat helburu horiek lortzea da, eta, kasu honetan, gaiak berme guztiekin eta epe ahalik eta laburrenean ebatzea.

Horri dagokionez, aintzat hartu behar da hiritarrek Justiziaren zerbitzu publikoaren eraginkortasunari buruz egiten duten balorazioa. Justiziaren Euskal Behatokiak (Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailaren mendekoa¹) 2003ko txosten batean adierazitakoaren arabera, justiziak EAE-n duen irudiari buruzko ikerketa batean hiritarrek justiziaren eraginkortasunari buruz egindako diagnostikoa “tristagarria” da: elkarriketatuen %81-en ustez, “*Justizia Administrazioaren abiadura oso motela da, eta, ahal izanez gero, hobe da bertara ez jotzea*”. Hau da, hiritarren %81-ek uste dute, Justiziaren moteltasuna aintzat hartuta,

¹ Autonomia Estatutuko I. tituluan, EAEko eskumenei buruzkoan, hauxe esaten da Justiziari buruz:

“13. artikulua.-

Justizia Administrazioari dagokionez, jurisdikzio militarra kenduta, Euskal Autonomia Erkidegoak, bere lurraldean, Botere Judizialaren eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren Lege Organikoek Gobernuari emandako edo eratzikitako ahalmenak izango ditu.

Estatuaren eskumenen osokoak dira, Lege Orokorretan ezarritakoaren arabera, graziako eskubidea eta Fiskaltzaren antolamendua zein funtzionamendua.

14. artikulua.-

Euskal Autonomia Erkidegoan, jurisdikzio-organoen eskumena honako honetan hedatzen da:

Ordena zibilean, auzialdi eta maila guztietara, kasazio- eta ikuskapen-errekurtsoak barne, Euskal Autonomia Erkidegoko Foru Zuzenbide Zibilararen arloetan.

Zigor- eta gizarte-ordenan, auzialdi eta maila guztietara, kasazio- eta ikuskapen-errekurtsoak izan ezik.

Administrazioarekiko auzien ordenan, auzialdi eta maila guztietara, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak EAEko legegintza soilekoak diren arloetan emandako egintzak direnean.

Euskal Autonomia Erkidegoko organo judizialen arteko eskumena arloetan.

EAEko zuzenbide pribatuko agirien kalifikazioari buruzko errekurtsuetan, Jabetzaren Erregistroak eskuratu behar direnean.

Gainerako arloetan, legeen arabera bidezkoak diren errekurtsu guztiak aurkeztu ahal izango dira Auzitegi Nagusian. Auzitegi Nagusiak, halaber, Euskal Autonomia Erkidegoko organo judizialen eta Estatuko gainerako arloko eskumen- eta jurisdikzio-gatazkak ere ebatziko ditu”.

hobe dela benetako babes judizialaren eskubidea bezalako oinarritzko gauza bati uko egitea.

Hala eta guztiz ere, esan behar da justiziaren eraginkortasun eza horren inguruko ñabardurak egiten direla, auzitegietan gairen bat izan duten pertsonen galdetzen zaienean. Zuzeneko erabiltzaile horien prozesuen iraupenari buruzko iritzia hauxe da: kontsultatuen %45ek esan du bere gaia ebazteko epea zentzuzkoa izan dela (%8k esan du laburra izan dela), eta %3k uste du zentzuzkoa baino epe luzeagoa izan dela (%28ren ustez, luzeegia izan da).

Espainiako Konstituzioko 24. artikulua bermatu egiten du pertsona guztiek bidegabeko atzerapenik gabeko eta berme guztiekin egindako prozesu publikoa izateko duten eskubidea. Horri dagokionez, *"Hiritarrek Justiziarekiko dituzten Eskubideen Gutunak"*² hiritarren eragina duten gaien tramitazio azkarrerako eskubidea sustatzen du, eta esan du gaiok legezko epearen barruan ebatzi behar direla. Hala eta guztiz ere, argi dago "bidegabeko atzerapenik gabeko" prozesu baterako eskubidea ez dela prozesu hori legetan ezarritako epeetan ebaztearen sinonimoa. Horrela, bidegabeko atzerapenik gabeko prozesu bat zentzuzko epean tramitaturikoa izango litzateke, kasu bakoitzaren inguruko gorabeherak aintzat hartuta. Konstituzio Auzitegiko epai batzuek argitu egiten dituzte atzerapen judizialak aztertzeak irizpideak: auziaren konplexutasuna, mota bereko auzien iraupenaren ohiko bitarteak, auzi-jartzaileak prozesuan duen jokabidea eta kasuan inplikaturiko agintarien jokabidea.

Kontuan hartuta ez direla prozesuen ezaugarri horiek guztiak ezagutzen eta zenbakizko datuak baino erabiltzen ez direla, helburua ez da bideko atzerapenak egoteari edo ez egoteari buruzko balorazioak egitea, organo judizialen ebazpen-gaitasuna eta eraginkortasuna errealitatera egokitzeko behar diren tresnak eduki beharra agerian jartzea baizik. Justizia Administrazioako Euskal Behatokiaren Memoriek jardura judizialari buruzko datu nagusiak ezagutzeko aukera ematen dute. Hain zuzen ere, ordena judizial bakoitzeko sartutako, ebatzitako eta ebatzi barik gelditutako gaiak aztertuko ditugu, baita ebatzitakoen eta ebatzi gabekoen tasa ere. *"Ebatzitakoen*

tasak" organo judizialen ebazpen-gaitasuna adierazten du, eta, hortaz, sarturiko gaien artean ebatzi egin direnen ehunekoa adierazten da. *"Ebatzi gabekoen tasak"* aintzat hartu behar dira; ebatzi barik dauden gaiak ez dira kasuan kasuko urteari buruzkoak soilik, beste urte batzuetan ebatzi barik utzitako poltsak ere badaudelako.

Gainera, EAEko 2007ko Jardura Judizialaren Adierazleek Judizio Azkarrei buruzko adierazlea ere jasotzen dute: adierazle horretan, batez ere, premiazko eginbideak aztertzen dira (prozedura honen arabera tramitaturiko delitu-tipologia), baita adostasunez lorturiko epaiak ere.

Amaitzeko, eta Justiziaren zerbitzu publikoak EAEn duen garrantzi ekonomikoa kalkulatzeko, sail honek EAEko Aurrekontu Orokorretan duen gastu erantsiaren datua hartuko dugu kontuan. 2007an gastu hori 137,9 milioi eurokoa izan zen; hori Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Publiko osoaren %1,5 (2005ean %1,4) eta BPGren %0,2 da, behin-behineko datuen arabera (2005eko ehuneko bera). Horren barruan, doako justizia EAEko Justiziaren aurrekontu osoaren %6,4 izan da. Bestalde, Justizia Administrazioaren zerbitzuan dauden langileak (epaileak, fiskalak eta idazkari judizialak barne) 2.991 pertsona zituen 2007an.

6.2. Prozesuaren adierazleak

Jardura judizialari buruzko azken datu erabilgarriak EAEko organo judizialean 2007an izandako auzien bilakaerari buruzkoak dira. Urte horretan, EAEn 353.466 gai sartu dira, eta horietatik 348.280 ebatzi dira, beraz, 5.186 gai gelditu dira ebatzi gabe. Horren eraginez, ebatzi gabe dauden auzi kopuruak gora egin du (horietariko asko aurreko ekitaldietatik iritsitakoak), ebatzitako auziei dagokionez.

Aurreko urteari dagokionez, datuek agerian jarri dute sarturiko gai kopuruak goranzko joera duela; hain zuzen ere, %8,5ekoa. Ebatzitako gai kopuruak ere gora egin du,

² Diputatuen Kongresuko Osoko Bilkurak Parlamentuko talde guztien adostasunez 2002ko apirilaren 16an onetsitako ez-legezko proposamena, Estatuak Justizia Erreformatzeko 2001eko maiatzaren 28an egindako Itunaren ondoriozkoa. Itun horren lehentasunen artean, hiritarrek justiziarekiko dituzten eskubideen gutuna sortzea dago; horrek garrantasun-, informazio- eta arreta-printzipio egokiak aintzat hartu eta, gainera, erabiltzaileek justiziarekiko dituzten eskubideak ezarriko ditu.

baina proportzio txikiagoan (%4,3). Bilakaera horrek eragin positiboa izan du ebatzi gabekoen tasan (urte amaieran ebatzi gabe gelditu direnak), eta hori %32,4tik %31,3ra igaro da. Datu horiek Lurralde Historikoka bananduta ikusten denez, tasa hori murriztu egin da Gipuzkoan (29,1etik %28,7ra) eta Bizkaian (%35etik %31,1era); Araban, berriz, handitu egin da, %27,9tik %29ra.

Hala ere, joera orokorrak auzi kopuruaren hazkundea adierazi arren, sarturiko gaien bilakaeran jurisdikzioaren araberako desberdintasunak daude. Horrela, sartutako bolumena lehen auzialdiko epaitegietan (%44,8) eta administrazioarekiko auzietan (%+20,2) hazi da gehien; eta instrukzioko epaitegietan ia ez da hazi (%+0,7), ezta probintzia-azitegietan ere (%+1,4). Merkataritza-epaitegietan eta emakumearen aurkako indarkeria-epaitegietan (bi tipologia sorberri), oraingoz ezin da joerarik ezarri, auzi kopuruaren bilakaerari buruz.

a) *Instrukzioko epaitegiak*: Instrukzioko epaitegietan, delituen eraginezko auziak tramitatu eta, zenbait kasutan, hutsegiteak epaitzen dira. Gai kopururik handieneko jurisdikzioa da, baina prozedura horietariko asko (batzuetan %75) artxibatu edo largetsi egiten dira. EAEn instrukzioko 23 epaitegi daude, eta horietan, 2007an, 143.69 kasu sartu ziren; horietatik, 142.997 ebatzi ziren,

eta, beraz, sartutakoak bano 715 kasu gutxiago ebatzi ziren. Epaitegi horietako auzi kopurua apur bat handitzeko joera dago. Ebazpen-indizeak gora egin du, eta 2006ko %98,1etik 2007ko %99,5era igaro da; beraz, ebatzi gabeko gaien bolumena murriztu egin da, eta urte amaieran %15,5ekoa zen.

b) *Zigor-arloko epaitegiak*: epaitegi hauetan, instrukzioko epaitegiek tramitaturiko auziak (delituen eraginezkoak) tramitatzen dira. EAEn zigor-aroko 14 epaitegi daude, eta auzi kopuruak goranzko joera dauka, sarturiko kasuen bolumenari dagokionez; ebatzitako bolumenak, berriz, murrizteko joera dauka. Hain zuzen ere, azken adierazle hori 2006ko %112,1etik 2007ko %95,3ra igaro da, eta ebatzi gabekoen kopuruak 85eko murriztapena izan du.


c) *Epaiketa azkarrak*: 2007tik aurrera, EAEko Justizia Administrazioaren memoriek adierazle berria jasotzen dute, epaiketa azkarrei buruzkoa. Azkartzat tramitaturiko gaien ehunekoa %10,7koa izan da urte honetan. Beste datu garrantzitsu bat premiazko eginbideen ezaugarriei buruzkoa da, hau da, prozedura berri honen bidez tramitatzen den delitu-tipologiari buruzkoa: gairik gehienak (%51,2) taldeko segurtasunaren aurkakoak dira (batez ere, alkoholemiak), eta, gero, lesioak (%22,6), ondarearen

IV.6.1 KOADROA. EAE-ko JUSTIZIA ADMINISTRAZIOA: JARDUERAREN LABURPENA, ORGANOEN ARABERA. 2005-2007

	2005			2006			2007		
	Sartuta	Ebatzita	Ebatzi barik	Sartuta	Ebatzita	Ebatzi barik	Sartuta	Ebatzita	Ebatzi barik
Instrukzioa	146.896	150.070	21.375	142.677	140.001	24.066	143.692	142.977	22.208
Zigor-arloa	16.404	19.754	11.442	16.089	18.036	9.492	16.768	15.987	9.407
1. auzialdia	47.953	49.412	25.044	35.550	36.299	20.642	51.459	50.634	25.060
Familia	:	:	:	9.409	9.340	3.709	10.393	10.024	4.129
Mistoak	65.781	67.225	18.073	63.998	62.208	19.856	68.285	68.782	18.447
Lan-arloa	22.879	25.256	9.898	21.575	22.974	8.493	22.043	21.782	9.096
Administrazioarekiko auziak	6.968	6.196	3.697	5.866	5.713	3.850	7.053	5.567	5.454
Adingabeak	3.879	3.870	2.889	3.813	3.722	2.980	3.994	4.311	2.656
Espetxe Zaintza	5.993	5.853	626	4.900	4.949	577	5.488	5.472	581
Probintzia Auzitegiak	11.015	10.992	4.181	10.670	10.829	4.018	10.817	10.160	4.430
JAN	6.976	8.223	6.128	6.599	6.923	6.046	7.077	7.114	5.849
Merkataritza Epaitegiak	1.619	:	:	1.174	1.183	956	2.091	1.575	1.528
Emak. aurkako Indarkeria Epaitegiak	1.485	1.085	409	3.532	3.190	751	4.306	3.895	1.046
GUZTIRA	337.848	347.936	103.762	325.852	325.367	105.436	353.466	348.280	109.891

Iturria: Justizia Administrazioaren Euskal Behatokiaren Urteroko Memoretan oinarrituz landuta.

IV.6.1. GRAFIKOA. JUSTIZIA ADMINISTRAZIOA EAE-N: JARDUERA LURRALDE HISTORIKOEN ARABERA



Iturria: Justizia Administrazioaren Euskal Behatokia

aurkako delituak (%10,1) eta zigor-hausteak (%7,1). Gainerako gaiak oso urriak dira.

d) *Lehen auzialdiko epaitegiak*: epaitegi hauetan, ordena zibileko gai juridikoak ebazten dira. EAEn halako 29 epaitegi daude, eta 2007an 51.459 prozedura sartu ziren bertan (aurreko urtean baino %44,7 gehiago); 50.634 kasu ebatzi ziren, hau da, sartutakoak baino %1,6 gutxiago. Datuek, horrenbestez, jasotako eta ebatzitako kasu kopuruaren hazkundera adierazten dute.

e) *Familia-epaitegiak*: EAEn familiako 6 epaitegi daude eta horietan, 2007an, 10.393 gai sartu ziren, aurreko urtean baino 984 gehiago; 2.024 ebatzi dira, eta, hortaz, ebatzitakoen tasa %96,4koa da. Ebatzi gabe daudenei dagokienez, horien ehunekoak %11,3ko hazkundera izan du aurreko urtetik.

f) *Lan-arloko epaitegiak*: lan-arloko epaitegietan laneko eta gizarte-segurantzako arazoei buruzko ohiko auziak ebazten dira. Euskal Autonomia Erkidegoan halako 18 epaitegi daude, eta 2007an 22.043 gai sartu dira bertan; horietatik 21.782 ebatzi dira. Organo judizial horien jardura-adierazleen bilakaerak %2,2ko hazkundera adierazten du, sarturiko gai kopuruan. Era berean, ebatzi barik gelditu direnen kopuruak ere gora egin du.

f) *Administrazioarekiko auzien epaitegiak*: epaitegi hauetan Administrazio Zuzenbideari, Legea baino beheragoko lerruna duten xedapenei eta legegintza-dekretuei lotutako Herri Administrazioen jarduerari loturiko auziak ebazten dira. Halaber, bizilekuetan eta gainerako eraikinetan nahiz lekuetan (titularraren baimena behar denean) sartzeko baimena ematen dute, baldin eta hori beharrezkoa bada Administrazioaren egintzak derrigorrez gauzatzeko. EAEn halako 11 epaitegi daude, eta horietan 7.053 gai erregistratu dira 2007an; horietatik 5.567 ebatzi dira. Ebatzitako gai kopuruan %2,6ko murriztapena egon da, 2006tik, eta, sartutakoak baino prozedura gutxiago ebazten denez, ebatzi gabekoen kopuruak gora egin du, 2006ko %65,6tik 2007ko %77,3ra.

g) *Merkataritza-epaitegiak*: jurisdikzio-ordena zibilean espezializaturiko epaitegi hauek, besteak beste, lehiaketa-prozedurak ebazten dituzte. Halaber, eskumena dute ondare-garrantziko ekintza zibiletan, horiek lehiakidearen ondarearen aurkakoak direnean, baita enplegatzaileztat lehiakidea duten lan-kontratuetako taldeko iraungipenerako, aldaketarako edo eteterako ekintzetan ere. Merkataritza-epaitegiak Lehiaketari buruzko 2004ko Legea indarrean sartzean sortu ziren, eta EAEn halako hiru epaitegi daude. Laukietan ikusten denez, jurisdikzio honen

IV.6.2 KOADROA. EAE-ko JUSTIZIA ADMINISTRAZIOA: PROZESUAREN ADIERAZLEAK

	Ebazpen Tasa			Ebatzi gabekoen Tasa		
	2005	2006	2007	2005	2006	2007
Instrukzioa	102,2	98,1	99,5	14,6	16,9	15,5
Zigor-arloa	120,4	112,1	95,3	69,8	59	56,1
1. auzialdia	103	102,1	98,4	52,2	58,1	48,7
Familia	:	99,3	96,4	:	39,4	39,7
Mistoak	102,2	97,2	100,7	27,5	31	27
Lan-arloa	110,4	106,5	98,8	43,3	39,4	41,3
Administrazioarekiko auziak	88,9	97,4	78,9	53,1	65,6	77,3
Adingabeak	99,8	97,6	107,9	74,5	78,2	66,5
Espetxe Zaintza	97,7	101	99,7	10,4	11,8	10,6
Probintzia Auzitegiak	99,8	101,5	93,9	38	37,7	41
JAN	117,9	104,9	100,5	87,8	91,6	82,6
Merkataritza epaitegiak	:	100,8	75,3	:	81,4	73,1
Emak. aurkako Indarkeria Epaitegiak	:	100,8	90,5	:	81,4	24,3
GUZTIRA	103	99,9	98,5	30,7	32,4	31,1

Iturria: Justizia Administrazioaren Euskal Behatokiaren Urteroko Memorietan oinarrituz landuta.

joera auzi kopurua handitzea da, eta 2006ko 956etatik 2007ko 1.528ra igaro dira. Sartutako gaien bolumena ebatzitakoa baina askoz ere handiagoa da, eta beraz, ebatzi gabekoen bolumena ere handia da.

h) Adingabeen epaitegiak: 2007an EAEko adingabeen lau epaitegietan 3.994 gai sartu dira, eta horietatik 4.311 ebatzi dira. Adingabeen justiziaren proportzioa, zigor-arloko jurisdikzioaren barruan, guztizkoaren %2,7koa da, eta azken urte honetan joerak %4,7ko hazkundera adierazten du, sarturiko gaien bolumenean. Ebatzitakoei dagokienez, kopurua handitzeko joera dago, eta ebatzitakoen ratioa %107koa da.

i) Espetxe-zaintzako epaitegiak: Epaitegi horiek eratxikita dituzten funtzioak, besteak beste, askatasuna kentzeko zigorrak betetzea, baldintzapeko askatasuna onestea edo ukatzea eta presoak irtetea nahiz sailkatzea dira. Espetxe-zaintzako epaitegi bakarra Bilbon dago; bertan, 2007an, 5.488 gai sartu dira, eta horietatik 5.472 ebatzi dira. 2006tik 2007ra sarturiko gai kopuruak %12ko hazkundera izan du, eta ebatzi gabe gelditutakoen kopuruak behera egon du.

j) Emakumearen aurkako indarkeria-epaitegiak: emakumearen aurkako indarkeria-epaitegietan, zigor-arloko ordenan, deitu eta hutsegite jakinak ebatzen dira, gizonak bere emaztea den edo izan den emakume baten aurka egiten dituen, edo emakumea egileari antzeko afektibitate-egoeraren baten bidez lotuta egon denean,

bizikidetzarik egon ez arren. Ordena zibilean, familiako gaiak ebatzen dira, baldin eta alderdietariko bat biktima edo egilea, eragilea edo laguntzailea bada, generoko indarkeria kasuetan. Epaitegi horiek (guztira 4, horietatik 2 Bilbon) 2005eko ekainean hasi ziren funtzionamenduan, eta 2007an bertan sarturiko gai kopurua handitzeko joera egon zen, baita ebatzitakoen eta ebatzi gabekoen kopurua handitzeko joera ere.

k) Lehen auzialdiko eta instrukzioko epaitegiak (mistoak): epaitegi hauetan arlo zibileko eta zigor-arloko gaiak ebatzen dira, eta EAEn guztira 32 daude. 2007an 68.285 gai sartu ziren, eta sartutakoak baina %0,7 gehiago ebatzi ziren. Azken urteetan joera gai berrien bolumena apur bat murriztekoa eta ebatzitakoen kopurua haztekoa da; horrela, ebatzi gabeko gaien kopurua %27ra murriztu da azken urtean.

l) Probintzia-azitegiak: 2007an auzitegi hauetan 10.817 prozedura erregistratu dira, eta horietatik 10.160 ebatzi dira. Auzi kopuruak azken urtean izandako bilakaeran, sarreraren bolumenak %1,4ko hazkundera izan du, eta ebatzitako gaien bolumenak, ostera, %6,2ko murriztapena izan du. Ebatzi gabeko auzien bolumenak %41eko hazkundera izan du.

m) Justizia Auzitegi Nagusia: EAEko JANek hiru sala ditu, zibila eta zigor-arlokoa, lan-arlokoa eta administrazioarekiko auziena; lehenengoan, 2007an, 54 gai sartu eta horietatik 55 ebatzi ziren. Horrela,

IV.6.3 Koadroa. EAE-ko Justizia Auzitegi Nagusia: Gaiak Salaka

	2006			2007		
	Sartuta	Ebatzita	Ebatzi barik	Sartuta	Ebatzita	Ebatzi barik
Zibila eta Zigor-arlokoa	44	42	8	54	55	6
Lan-arloa	2.994	3.124	812	3.078	3.389	490
Administrazioarekiko auziak	3.561	3.757	5.226	3.945	3.670	5.353
JAN GUZTIRA	6.599	6.923	6.046	7.077	7.114	5.849

Iturria: Justizia Administrazioaren Euskal Behatokiaren Urteroko Memoretan oinarrituz landuta.

ebatzitakoen tasa 2006ko %95,4tik 2007ko %101,9ra igaro da. Lan-arloko salan, bestalde, 3.078 gai sartu eta 3.389 ebatzi dira. Ebatzi gabe geldituriko kasuek %39,7ko murriztapena izan dute. Jurisdikzio-ordena honetan,

sarturiko gaien bolumena egonkortzeko joera ikusten da. Azkenik, administrazioarekiko auzien salan 3.945 gai berri sartu eta 3.670 ebatzi dira. Horren eraginez, 2006an baino 127 gai gehiago gelditu dira ebatzi barik.



5

gizarte babesia EAE-n

Gizarte Babesari buruzko Estatistika Integratuko Europako Sistemak (SEEPROS) honela definitzen du gizarte babesa: arrisku premia batzuk direla-eta, norbanakoentzat gertatzen diren zamak babesteko sortutako gastu multzoa. Gastu horrek hirugarren baten, eragile publiko edo pribatu baten edo irabazi asmorik gabeko erakunde pribatu baten, esku-hartzea dakar (izaera kolektiboa daukaten gastuak diren heinean, horregatik ez dira kontabilizatzen norbera-

rentzako kontsumorako gastu pribatuak), hagatik onuradunaren aldibereko ordain baliokiderik gertatu gabe.

EAEko gizarte babesean erantzukizuna duten erakunde gastuari buruzko azken datu ofizialek, 2005. urteari dagokionez, adierazten dute urte horretan babes gizarteko guztizko gastu bateratua 10.894 milioi eurora iritsi zela, aurreko urtean baino %7,5 gehiago (%4,2 egiazko zenbakitan, ekitaldi horretako prezioen eragina kenduz gero) eta

V.1. KOADROA. AZKEN 12 HILETAKO PRESTAZIO EKONOMIKOEN ESKARIA ETA ERABILERA PRESTAZIO MOTAREN ARABERA. FAMILIAK ETA FAMILIA ONURADUNETAKO BIZTANLERIA. (BIZTANLERIA OSOAREN GAINEKO %)

	Familiak			Biztanleak familietan		
	Eskatzaileak	Onuradunak	Aintzat hartutako eskariaren%	Eskatzaileak	Onuradunak	Aintzat hartutako eskariaren%
Oinarrizko errenta	4,0	3,5	87,3	4,2	3,8	89,1
GLL	1,8	1,3	72,5	1,6	1,1	71,0
OE/GLL	4,7	4,1	86,6	4,8	4,2	89,0
Gizarteratzeko EA	1,2	1,0	87,5	1,2	1,0	87,2
KPG/GBLP	1,2	1,1	98,3	1,3	1,2	98,2
Bestelako laguntzak	6,6	4,3	65	8,6	5,8	67,2
Bata edo bestea	12,0	9,2	76,3	13,8	10,5	76,3

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. GBEE 2006.

urte horretako gure erkidegoko BPGren %18,9, EUSTATEk ateratako datuen arabera. Ahalegin maila hori pixkanaka murriztu da 1995eko %22,3tik, 1997ko %21,4tik, 1999ko %20,1etik, 2003ko %19,06tik pasatuz, azken datura iritsi arte, BPGren hazkunde erritmo handiagoarekiko¹.

Gizarte babeseko guztizko gastutik, gizarte zerbitzuen balioa (babestuta dauden gertakizunak gertatzen direnean familiek gizarte babeseko erakundeetatik jasotzen dituzten transferentziak), guztizkoaren %97,8, 10.646 milioi eurora iritsi zen 2005ean, eta etengabe hazi da 1995etik, EAErako gizarte babeseko kontuari buruzko datuak dauden lehen urtetik. 2004 ekitaldiarekin konparatuz, hazkunde %7,5 izan da (%4,2 egiazko zenbakitan).

2007an Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako Sailak paratutako "*Gizarte babes eskariari buruzko estatistika 2006*" (GBEE) txostenak bidea ematen du gure erkidegoko prestazio ekonomiko batzuen, zehazki gizarteratzeari bideratutakoaren eskaria eta erabilera ezagutzeko. Txostenak erreferentziako urtean familiek gizarteratzeko zerbitzu edo prestazioetako batera jo eta hura jaso duten jasotzen du². Jasotako prestazioek Gizarte Segurantzako ordaindutakoaren arabera prestazio sistema orokorra osatzeko prestazio sistemari jartzen diote arreta: oinarritzko errenta, gizarte larrialdiko laguntzak, EEZPko gizarteratzeko errenta aktiboa, KPG/GBLP sistema (ordaindutakoaren arabera ez diren prestazioak eta gutxieneko sarreraren bermekoak), eta bestelako laguntza ekonomikoak (gehienetan udalek kudeatutakoak: etxebizitza tasen murrizketa, eskolako jantokirako diru-laguntzak, haurtzaindegirako diru-laguntzak, elikadurarako berariazko laguntzak, etab.).

Guztira, 2006an EAEko 94.445 familiak eskatu zuten jasotako laguntza ekonomikoren bat. Haietako %76,3k eskuratu zuen prestazioen bat urteko uneraren batean edo bestean. Horrek guztira 72.070 familia esan nahi du, EAEko guztien %9,2. Gainera, familia horiek EAEko biztanleriaren %10,5 hartzen dute.

Jasotako laguntza guztietatik, garrantzitsuenak berme sisteman sartutakoak dira, EAEn oinarritzko errenta eta gizarte larrialdiko laguntzak (GLL). Familien %4,7k laguntza horietako baten bat erreferentziako urtean, eta %4,1ek baten bat eskuratu du (biztanleriaren %4,2k); horrek esan nahi du eskariaren %86,6ri erantzun zaiola. Kotizazio gabeko pentsioak (KGP), Gutxieneko Bermeko Laguntzako Prestazioa (GBLP) eta Gizarteratzeko Errenta Aktiboa eskuratzeko, ordea, eragin askoz txikiagoa dauka, eta kopuruak familien %1en inguruan kokatzen dira³.

Bestelako laguntza txikiagoen multzoari dagokionez (tasen murrizketa, jantokirako diru-laguntzak, elikadurarako berariazko laguntzak, etab.), holakoak herritarren eta familien zati esanguratsu bati iristen zaizkie. Zentzu horretan, egindako eskariaren %65i baino ez erantzun arren, familien %4,3ri eta herritarren %5,8ri iristen zaizkie.

Aintzat hartutako prestazio ekonomikoen egiazko familia onuradunetako pertsona nagusien ezaugarrien azterketak, orokorrean, erakusten du, alde batetik, emakumeak buru dauzkaten familiak nabarmen direla: emakumeak buru dauzkaten familien %12,7, eta gizonezko familien %7,9. EINK kudeatutako gizarteratzeko errenta aktiboari dagokionez norakoa aldatzen duten desberdintasunak, ordea, oinarritzko errentaren eta GLLren

¹ EAEko SEEPROS estatistikari eta EBko herriekiko konparazioari buruzko informazio gehiago izateko, irakurlea 2006ko Memoria Sozioekonomikora bidaltzen dugu.

² Ikerketak ohartarazten du gizarteratze prozesuei lotutako zerbitzuen eskariak, oinarri publikoko gizarte zerbitzuen bidez izapidetutakoak ez ezik, Caritas edo bestelako GKEen bidez eskaini edo erakunde pribatuaren bidez kudeatzen direnak ere hartu behar dituela aintzat. Gizarte zerbitzuei zuzenean lotuta ez dauden erakundearen bidez kudeatutako zerbitzu eta prestazioei lotutako eskaria ere hartu behar dute aintzat; esaterako, Gizarteratzeko Errenta Aktiboa bezalako prestazioei dagokionez, Estatuko Lan Zerbitzu Publikoarenak (EEZP, lehengo EIN).

³ Oinarritzko errentaren eta gizarte larrialdiko laguntzen prestazioen oinarritzko ezaugarriak ezagutzeko, irakurlea Memoria honetako V.3. atalera bidaltzen dugu, eta kotizazio gabeko pentsioei eta LISMI prestazioei buruzko informazioa zabalatzeko, V.2.2. atalera.

GBLP eta gizarteratzeko errenta aktiboaren prestazioei dagokionez, haien ezaugarri nagusiak honakoak dira:

- GBLP: Gutxieneko Bermeko Laguntzako Prestazioa izaera finalista daukan laguntza ekonomikoa da, oinarritzko errentaren osagarria. Izaera subsidiarioa dauka eta eduki ekonomikoko bestelako gizarte baliabide eta prestazioekin bateragarria da; onuradunak, osorik edo zati batean, oinarritzko errenta jasotzen duten guztiak izango dira. Ez da eskatu behar, automatikoki onartzen delako (onarpenera dagoen Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailak egingo du ofizioz), eta aurrekontuetako esleipena dagoen heinean hilerok ematen da.
- GEA: Gizarteratzeko errenta aktiboa EEZPren prestazioa da eta langabezia-sorospeneraren antzeko ezaugarriak dauzka, baina laguntza horren onuraduna izan ahal izateko, baldintza batzuk betetzeaz gain, besteak beste, 45 urtetik gorakoa izatea, langabezia urtebetetik gora izena emanda egotea, etab., "jarduerako konpromisoa" sinatu behar da, lana jasotzeko gaitasuna areagotzea ahalbidetuko duen lan programa batean sartuz.

V.2. KOADROA. AZKEN 12 HILETAKO PRESTAZIO EKONOMIKOEN ERABILERA PERTSONEN SEXUAREN, ADINAREN ETA NAZIONALITATEAREN ARABERA, OINARRIZKO PREMIEN ETA ETXEBIZITZAREN BABESA ETA ZERBITZU MOTA. FAMILIAK (ONURADUNEN % ETA % BERTIKALAK)

		OE/GLL		GEA		KGP/GBLP		Bestelako laguntzak		Prestazioren bat	
		onu%	%ber	onu%	%ber	onu%	%ber	onu%	%ber	onu%	%ber
Sexua	Gizonezkoa	2,5	44,4	1,1	79,9	1,0	66,9	4,2	72,8	7,9	63,8
	Emakumezkoa	8,7	55,6	0,8	20,1	1,5	33,1	4,5	27,2	12,7	36,2
Adina	15-24 urte	16,4	3,7	-	-	-	-	8,6	1,8	16,4	1,6
	25-34 urte	11,7	27,6	1,2	11,1	0,4	3,6	9,7	21,8	16,7	17,5
	35-44 urte	4,5	21,5	1,2	23,0	1,0	17,2	11,8	53,5	16,4	34,9
	45-54 urte	4,7	22,1	1,0	19,2	1,3	21,1	3,9	17,2	9,9	20,7
	55-64 urte	1,5	6,8	2,4	42,4	1,4	22,2	0,6	2,5	5,6	11,1
	65-74 urte	2,1	7,9	0,3	4,3	1,2	15,9	0,6	2,3	4,0	6,5
	>75 urte	2,4	10,5	-	-	1,3	19,9	0,2	0,1	4,0	7,6
Nazionalitatea	Nazionala	3,2	75,2	1,1	100,0	1,2	97,6	3,7	83,2	8,2	87,1
	Beste Estatu bat	32,5	24,8	-	-	0,9	2,4	23,2	16,8	38,0	12,9
Babesa	Babesa Arazo oso larriak	23,6	49,3	1,7	13,7	2,8	20,4	13,8	27,3	31,7	29,5
	Arazo larriak	2,0	3,6	2,2	15,2	0,4	2,5	6,6	11,1	10,9	8,7
	Arazo larririk gabe	2,3	47,1	0,9	71,1	1,0	77,0	3,1	61,6	6,7	61,8
	Guztira	4,1	100,0	1,0	100,0	1,1	100,0	4,3	100,0	9,2	100,0

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. GBEE 2006.

prestazioetan baino ez dira deigarriak. Kasu horretan, pertsona nagusia gizonezkoa duen familia erabiltzaileen %2,5en aurrean, emakumea buru duten familietan proportzioa %8,7ra igotzen da.

Adinen arabera joerek ere prestazio motaren arabera aldeak erakusten dituzte. Alde batetik, oinarrizko errenta edo KGP/GBLP bezalako prestazioek adin bateko pertsonetako familien alde egin ohi dute, eta onuradunen %65,9 eta 79,1, hurrenez hurren, 45 urte edo gehiagoko pertsonak buru dauzkaten familiei daude lotuta. Oinarrizko errenta eta GLLren eskurapenak, berriz, erakusten du askoz gehiago direla eskuratzen dituzten familia gazteak. Gai-nontzeko laguntzei dagokionez, jantoki edo haurtzaindegirako diru-laguntzek eginkizun erabakigarria daukatenez, hori begi bistakoa da, ikusten denez, familia onuradunen %77,1k 25 eta 44 urte bitarteko pertsonak baitauzkate buru. 45 urtetik beherako pertsonetako familien %8 eta 12 artean holako laguntzak eskuratzen dituzte; buru 45 eta 54 urte bitarteko pertsonak daukatenei dagokionez, ordea,

%3,9k eskuratzen ditu, eta 55 urtetik gorakoei dagokionez, %1 baino gutxiagok.

Oinarrizko errentak eta GLLek osatzen duten laguntza multzoak ere herritar gazteenen aldeko eskurapena erakusten du, eta adinak gora egin ahal laguntzetako partaidetza apurka-apurka jaisten da. Horrela, EAEn 55 urtetik gorako pertsonetako familien %1,5 eta 2,5 artean azken urteko uneren batean holako laguntzak jaso badi-tuzte, proportzioa %4,5era hurbiltzen da 35 eta 54 urteen artean, eta %11,7ra iristen da 25 eta 34 urte bitarteko ki-deak buru dauzkaten familietan eta %16,4ra pertsona na-gusia 25 urtetik beherakoa denetan.

Nazionalitateari dagokionez, berriro agertzen dira prestazioen arteko aldeak. Horrela, gizarte errenta aktibo-aren onuradun bakarrak Estatuko herritartasuneko biztan-leak diren eta KGP/GBLP ere batez ere atzerriar ez direnek eskuratzen dituzten bitartean, gainontzeko laguntzetan atze-rritarren pisua erabakigarria da. Horrela, gainontzeko la-guntza ekonomikoak (diru-laguntzak eta antzekoak) familia

nazionalen %3,7k jasotzen dituzten bitartean, proportzioa %23,2ra iristen da atzerritar bat buru duten familien kasuan. Aldea are deigarriagoa da oinarritzko errenta edo GLL eskuratzeari dagokionez: holako laguntzen onura jasotzen duten Estatuko herritarren familiak %3,2 dira, eta hura jasotzen duten familia atzerritarrek %32,5 dira. Izan ere, azken horiek GLL edo oinarritzko errentaren onura jasotzen dutenen %24,8 dira, eta %16,8 laguntza ekonomikoei (diru-laguntzak eta antzekoak) dagokienez. Orotara, buru nazional bat daukaten familien %8,2k eskuratzeko dute aipatu prestazioetarako bat, atzerritar biztanleen familien %38ren azpitik. Kopuru horiek alde handia erakusten dute holako familiek ordezkatzeko duten kopuruarekin, EAEn dauden familia guztien %3,1 baitira.

Gauza batean bat etortzen dira prestazio mota guztiak: batez ere oinarritzko premiak eta etxebizitzakoak babes-teko zailtasun handiak daukaten taldetara bideratzen dira. Hori oso nabarmena da gainontzeko laguntzei (diru-laguntzak eta antzekoak) eta oinarritzko errentak eta GLLek osatzen duten laguntza multzoari dagokienez. Lehenengoie dagokienez, arazo ekonomiko larririk izan gabe holako laguntzak jasotzen dituzten familiak haien %3,1 diren bitartean, arazo larriak islatzen dituztenak haien %6,6 dira eta arazo oso larriak daukatenak haien %13,8. Aldea argiagoa da oinarritzko errentari eta GLLei dagokienez, eta gainera argi bideratzen da arazo oso larriak daukaten familietara, oinarritzko premiak babesteari dagokionez. Horrela, gainontzeko familiei dagokienez, kopuruak %2 ingurukoak diren bitartean, arazo oso larriak daukaten

dagokienez, proportzioa %23,6ra iristen da. Holako prestazioen bidez lagundutako familia guztien %49,3 oinarritzko premiak eta etxebizitzakoak betetzeko arazo oso larriak daukaten familiak dira.

Oinarritzko errentaren/GLLen laguntzen eragin ona honela islatzen da: ikerketa egiteko unean, urteko uneren batean haiek eskuratu dituztenen %47,1ek ez daukate oinarritzko premiak betetzeko eta etxebizitza eskuratzeko arazo larririk. Laguntza sistemaren alde txarrean, ordea, nabarmendu behar da oinarritzko premiak eta etxebizitzakoak betetzeko arazo ekonomiko oso larriak detektatzen diren familia gehienak aztertutako prestazio sistematik kanpo geratzen direla. Egia esan, arazo oso larriak detektatu diren familien %31,7k baino ez dute prestazioen bat eskuratzeko (hala ere, arazo larriak daukaten familietan ikusitako %10,9ren eta arazo larririk detektatzen ez zaien familietan ikusitako %6,7ren oso ginetik).

Bestalde, aztertutako prestazio ekonomikoei osatzen duten babes sistemaren izaera batez ere publikoa, ez dago soilik haietako gehienak holako laguntza gehienak publikoak izateari lotuta -oinarritzko errenta, GLL, KGP/GBLP edo gizarteratzeko errenta aktiboa bezala-. Gainontzeko laguntzei dagokienez, zeinen artean GKEek emandako laguntza pribatuak baitaude, ikusten da ozta-ozta jasotzen dituzten familien %3,6k jasotzen dituztela erakunde pribatu horien bidez.

Urtean holako laguntzak jaso dituzten familiek laguntza ekonomikoei ematen dieten eraginkortasun mugarria datu garrantzitsua da.

V.3. KOADROA. AZKEN 12 HILETAKO PRESTAZIO EKONOMIKOEN ERABILERA GABEZIA ARAZO LARRIEN ETA ETXEBIZITZA ARAZOEN ARABERA. FAMILIAK (ONURADUNEN % ETA % BERTIKALAK)

		OE/GLL		GEA		KGP/GBLP		Bestelako laguntzak		Prestazioen bat	
		onu%	%ber	onu%	%ber	onu%	%ber	onu%	%ber	onu%	%ber
Gabezia	Alderdi askotakoa	33,2	14,9	3,0	5,2	1,8	2,9	9,8	4,2	36,9	7,4
	Zati batekoa, oinar. alderdiak	19,9	24,3	1,2	5,7	4,1	17,6	11,0	12,7	29,4	16,0
	Zati batekoa, aisia alderdiak	28,2	8,9	0,7	0,9	-	-	29,8	9,0	35,2	5,0
	Gab. garrantzitsurik ez	2,3	51,9	1,0	88,2	1,0	79,6	3,5	74,2	7,1	71,6
Etxebizitza	Oso larriak	26,8	17,0	1,5	3,7	1,3	2,9	17,8	10,7	32,8	9,3
	Larriak	3,5	6,7	1,9	14,3	0,5	3,7	8,4	14,9	13,3	11,1
	Ez hain larriak	3,7	21,7	1,5	35,8	1,7	34,7	5,7	31,7	11,2	29,4
	Arazorik ez	3,4	54,6	0,7	46,3	1,0	58,8	2,8	42,7	7,0	50,2
	Guztira	4,1	100,0	1,0	100,0	1,1	100,0	4,3	100,0	9,2	100,0

V.4. KOADROA. PRESTAZIO EKONOMIKOEN PREMIEN ASEBETETZE MAILA PRESTAZIO MOTAREN ARABERA. AZKEN 12 HILE-TAKO FAMILIA ONURADUNAK. (% HORIZONTALAK)					
	Premiak babesten ditu				
	Gutziz	Ez gutziz	Eskasa	Oso eskasa	GUZTIRA
Oinarrizko errenta	27,7	40,8	17,2	14,4	100
GLL	11,4	42,4	33	13,2	100
GEA	18,9	36,8	27,7	16,7	100
KGP/GBLP	4,2	62,8	11,3	21,7	100
Bestelako laguntzak	41,6	29,7	21,9	6,8	100

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. GBEE 2006.

Ez da inondik ikusten familia gehienek jasotako prestazioekin beren premiak gutziz betetzen dituztenik adierazten dutenik. Era berean, aldiz, gutxiengo dira babes mailari eskasa edo oso eskasa deritzotenak. Asegabetasun mailarik handienak GLLei lotuta daude, nahikorik ez direla uste duten familia onuradunak %46,2 baitira; proportzio hori antzekoa da gizarteratzeko errenta aktiboari dagokionez (%44,4). Asegabetasuna %30 inguruko maila-tara jaisten da oinarrizko errentari, KGP/GBLPei eta gainontzeko laguntzei (diru-laguntzak eta antzekoak) dagokionez. Azken laguntza mota, bestalde, premien asebetetze osoko pertzepziorik handiena jasotzen duena da, errealtate hori familia onuradunen %41,6k aipatzen baitute, oinarrizko errentaren jabeen artean ikusten den %27,7ren oso gaineratik. Gainontzeko prestazioei dagokionez, asebetetze osoko mailak %20ren azpian geratzen dira, eta mailarik txikiena KGP/GBLPei dagokien %4,2 da.

Azkenik, GBEEk ez dio sakonki heltzen prestazio ekonomikoei buruzko ezagutza mailaren azterketari. Horri buruz eskuratutako informazioa praktikan aztertutako laguntzaren baten balizko eskatzaile agertzen diren familietara mugatzen da. Laguntza sistemen eskurapenarekin zuzenean zerikusia daukan taldea izan arren, deigarria da ikustea familia gehienek oinarrizko errentari eta gainontzeko errentei (diru-laguntzak eta antzekoak) dagokienez baino ez dituztela prestazioak ezagutzen.

Baina oinarrizko errentari dagokionez ere, aztertutako familien %49,5ek ez daki halakorik denik (%36,1ek gainontzeko laguntzei dagokionez). Ezjakintasun maila %64ra iristen da GLLei dagokionez, gizarteratzeko errenta aktiboari dagokionez ikusten den antzeko maila. GBLP prestazio ezezagunena da: gizarteratzeko prestazio ekonomikoren bat eskuratzen duten familien %82,9k ez du batere ezagutzen halakorik denik edo haren edukirik.

1


Langabetuen babesa: EIN-EEZP

Langabezia prestazioek, lan egin ahal duten edo nahi duten arren, lana behin-behinean edo behin betiko galdu edo, honek dakarren soldata galerarekin edo honen arabera murrizketarekin, haien lanaldiaren zati bat murrizten zaienak babesten dituzte. Kotizaziopeko prestazioen (zati bateko edo osoko langabeziagatik) eta laguntza mailakoen (langabezia-sorospena) artean bereiz daitezke. Kotizaziopeko prestazioek lehenago langileak gertakizun

horregatik Gizarte Segurantzari ordaindu izana eskatzen dute, eta langile eta enpresarien kuoten bidez finantzatzen dira. Gutxi gorabehera benetako soldataren %60-70 dira, soldata altuagoentzat izan ezik.

Langabezia-sorospena prestazio ekonomikoak (kotizaziopeko prestazioaren kopuruaren azpitik) eta Gizarte Segurantzari dagokion kotizazioaren ordainketak osatzen dute, eta langile eta enpresarien kuoten bidez finantzatzen dira.

V.1.1. GRAFIKOA. LANGABEZIA PRESTAZIOETAKO GASTUAREN LURRALDEEN ARABERAKO BANAKETA ETA ESTATUKO GUTIZKOAREN GAIKOA PISUA



Iturria: LIM. 2007ko datuak behin behinekoak dira.

1.1. Prestazio jasotzaileak eta langabetuen babesa

2007an, langabezia prestazioak jaso zituztenen batez besteko kopurua EAEn 45.100 lagunekoa izan zen, aurreko urtean baino %0,4 gehiago. Pertsona jasotzaileen taldea handitzen den jarraikako zazpigarren urtea izan da, 90. hamarkadan nabarmen murriztu ondoren. Estatuan, jasotzaile taldea tasa handiagoan handitu da: %6,8, beraz, pertsona onuradun guztizkoari dagokionez EAEk daukan parte hartzea murriztu egin da, %3,9tik %3,2ra. 45.100 lagun horietatik, %53,7 Bizkaian bizi dira, %32,2 Gipuzkoan eta gainontzeko %14,2 Araban.

2007ko abenduari dagozkion datuen arabera, pertsona hartzaileen %67,4k kotizaziopeko prestazioak jaso zituzten, %31k subsidioak eta gainontzeko %1,6k gizarteratzeko errenta aktiboa jasotzen zuen. Abenduan prestazioa jasotzen zutenak 45.409 ziren, babes tasa (EIN-n izena emandako langabetuak kontuan izanda) EAEko langabetuen %79,76 zen -%74,32 2006ko abenduan-, Estatuko batez besteko babesa %85,69koa zen bitartean. Lurralde


historikoen arabera, babesik handiena Gipuzkoari dagokio (%81,89).

Datu horiek kontuan izanda, esan liteke 2007ko abenduan, EAEn 100 langabetutik 20k ez zutela prestaziorik jasotzen, eta jasotzen zuten 80etatik, 67k kotizaziopeko prestazioa jasotzen zuten, 31k subsidioren bat, eta haie-tatik 2k baino ez zuten gizarteratzeko errenta aktiboa jasotzen.

Langabetuei eta langabezia dela-eta prestazio jasotzaileei buruzko urteko batez besteko datuak kontuan hartuta⁴, 2007an prestazioak jaso dituzten onuradunak 45.082 lagun dira, aurreko urtean baino %1,8 gutxiago. Bestalde, erregistratutako batez besteko langabezia 74.582 lagunekoa da (%-2,1 2006. urtearekiko). Ondorioz, babes tasa %60,4koa da, ozta-ozta aurreko urtekoa baino hamarren bi gehiago.

Onuradunak sexuaren arabera hartuz, kotizaziopeko prestazioak jasotzen dituzten emakumeen kopurua %2,3 areagotu da aurreko urtearen aldean, 2007an jasotzaileak 14.973 izan arte. Gizonezkoen artean, aldiz, jasotzaileen kopurua murriztu egin da: 2006an 15.988 ziren eta azken urtean 14.982; horrek %6,2ko murrizketa esan nahi du. Laguntza prestazioak kontuan hartuz gero, emakume jaso-

V.1.2. GRAFIKOA. LANGABEZIA PRESTAZIOEN ONURADUNAK EAEn. URTEKO BATEZ BESTEKOAK



Iturria: EEZP.

⁴ EEZPko Prestazio Zuzendariordetzak beren beregi euskal EGLrentzat prestatzen dituen kopuru horiek ez datoz bat ondoren Lan eta Im-migrazio Ministerioak argitaratutakoekin. Hori dela eta, iturri batetik eta bestetik ondorioztatzen diren emaitzak kontuz hartu behar dira eta metodologikoki ezin dira erkatu.

V.1.1. KOADROA. LANGABEZIA PRESTAZIOAK. 2007KO ABENDUKO DATUAK

	Araba	Gipuzkoa	Bizkaia	EAE	ESTATUA	EAE/ ESTATUA %
Onuradunak guztira	6.458	14.770	24.181	45.409	1.538.480	2,95
Kotizaziopeko p.	4.594	9.823	16.166	30.583	883.028	3,46
Subsidioa	1.811	4.658	7.607	14.076	420.953	3,34
Gizarteratzeko errenta aktiboa	53	289	408	750	234.499	0,32
BABES TASA	80,57	81,89	78,31	79,76	85,69	
Hileko prest. (mila €)	7.403	16.341	26.464	50.208	1.407.602	3,57
Urtean pilatua (mila de €)	89.196	192.542	318.375	600.113	15.299.698	3,92
Batez besteko gastua onuraduneko (€/hilean)*	1.146,30	1.106,40	1.094,40	1.105,70	978,50	113%

(*) Estatuko datuak Aldi baterako Nekazarien subsidioa ere hartzen du.
Iturria: EEZPren bidez prestatua.

V.1.2. GRAFIKOA. EAE-N LANGABEZIA PRESTAZIOAK JASOTZEN DITUZTEN LAGUNEN BATEZ BESTEKO KOPURUA

	KOTIZAZIOPEKO PRESTAZIOAK			LAGUNTZA PRESTAZIOAK			PRESTAZIOAK GUZTIRA*			ERREGISTRATUTAKO LANGABEZIA		
	Gizona	Emakumea	Guztira	Gizona	Emakumea	Guztira	Gizona	Emakumea	Guztira	Gizona	Emakumea	Guztira
2003	15.129	12.560	27.689	7.300	6.219	13.519	22.442	18.779	41.221	30.437	43.001	73.438
2004	12.401	13.120	25.521	6.856	6.596	13.452	19.527	19.716	39.243	30.315	41.087	71.402
2005	16.717	13.931	30.648	6.464	6.723	13.187	23.617	21.454	45.071	35.931	47.459	83.390
2006	15.966	14.631	30.597	6.625	7.688	14.313	22.591	23.319	45.910	31.317	44.886	76.203
2007	14.982	14.973	29.955	6.521	8.606	15.127	21.503	23.579	45.082	31.068	43.514	74.582
% Var 05/06	-4,5	5,0	-0,2	2,5	14,4	8,5	-4,3	8,7	1,9	-12,8	-5,4	-8,6
% Var 06/07	-6,2	2,3	-2,1	-1,6	11,9	5,7	-4,8	1,1	-1,8	-0,8	-3,1	-2,1

(*) Gizarteratzeko errenta aktiboa barne.
Iturriak: EEZP (Prestazio Zuzendariorde) eta LAN ETA IMMIGRAZIO MINISTERIOA.

tzaileen kopurua areagotzen da (%+11,9), eta gizonena murriztu (%-1,6).


Beraz, gizarteratzeko errenta aktiboa jasotzen duten lagunak kontuan hartuz, 2007an emakume onuradunen kopurua igo egin da, 23.579 arte, eta gizon jasotzaileak, ordea, 1.000tik gora gutxiago dira. Gizonezkoen taldeak pisua

galdu du guztizkoan: 2000an %60 ziren eta emakumeak %40, eta 2007an, berriz, emakumeak gehiengo dira, langabezia prestazioak jasotzen dituztenen %52, 3 baitira⁵.

Prestazioak jaso dituzten pertsonen bolumen aldaketa horiek, erregistratutako langabezia kopuruen bilakaerarekin batera, sexu bien langabezia babes tasetan kontrako

⁵ Dena dela, emakumeek jasotzen dituzten langabezia prestazioen kopuruak gizonek jasotzen dituztenak baino txikiagoak dira: 2007an, eta Estatutako batez besteko datuen arabera, kotizaziopeko langabezia prestazioen onuradunei onartutako eguneko batez besteko kopuru gordinak 22,88€ izan zen emakumeentzat eta 27,79€ gizonentzat.

V.1.3. GRAFIKOA. LANGABEZIA PRESTAZIOAK EAEn: ONURADUNAK ETA BABES TASAK. 1996. URTEA=100



bilakaeretara daramate, gizonezkoei dagokienez %69,2ra iritsiz, eta %54,2ra emakumeei dagokienez (hurrenez hurren %72,1 eta %52ko tasen aurrean, 2006an).

EEZPko langabezia prestazioen babes tasak erkidego autonomoen arabera konparatzeko, Lan eta Immigrazio Ministerioak argitaratzen dituen 2007ko abenduko datuak hartzen ditugu; holako datuek erakusten dute EAEn, batez beste, langabetu bezala erregistratutako 8 lagunetatik 10ek holako baldintzetan egoteagatik prestazioen bat jasotzen dutela. Erreferentziako hilean, tasa EAEn %79,8koa zen (%74,3koa 2006ko abenduan), Estatuko batez besteko %85,7ren aurrean.

Tasa horrek alde handiak dauzka Erkidegoen artean eta, alde batetik, Katalunia nabarmentzen da, bertan, eskura dauden datuen arabera, langabetu guztiek jasotzen baitute prestazio motaren bat, eta, bestetik, Ceuta eta Melilla, bertan langabetuen erdiek baino gutxiagok jasotzen baitute holakorik. Langabezia prestazioen onuradun bakoitzeko batez besteko gastua EAEn 1.106 eurokoa zen 2007ko abenduan (aurreko urtean baino %1,6 gehiago), Estatuko batez bestekoaren gainetik (979€, %+3,8 2006ko abenduaren aldean). Beste era batera esanda, EAEn, onu-

V.1.3. KOADROA. LANGABEZIA PRESTAZIOETAKO GASTUEN ADIERAZLEEK ERKIDEGO AUTONOMOEN ARABERA, 2006 ETA 2007KO ABENDUA

	Babes gordina tasa			Batez besteko gastua onuraduneko (€/hil)		
	2006	2007	06/07 ald %	2006	2007	06/07 ald %
Andaluzia	69,9	78,3	12,1	848	877	3,4
Aragoi	88,1	98,0	11,2	1.017	1.031	1,4
Asturias	64,3	71,7	11,5	917	924	0,8
Balear Uharteak	-	-	-	1.052	1.142	8,5
Valentziako E.	79,4	85,0	7,1	936	987	5,4
Kanariak	71,5	75,8	6,0	835	869	4,1
Kantabria	71,6	75,8	5,9	926	950	2,6
EAE	74,3	79,8	7,3	1.088	1.106	1,6
G.-Mantxa	65,3	67,3	3,1	838	889	6,1
Gaztela eta Leon	61,3	69,8	13,8	922	964	4,5
Katalunia	103,5	117,4	13,4	1.055	1.084	2,7
Ceuta	44,2	48,8	10,4	773	778	0,6
ESTATUA	78,2	85,7	9,6	943	979	3,8
Extremadura	67,7	71,8	6,1	699	720	3,0
Galizia	61,2	66,0	7,9	851	867	1,9
Errioxa	87,0	93,1	7,0	1.058	1.164	10,0
Madril	88,9	96,9	9,0	1.062	1.110	4,5
Melilla	40,7	47,9	17,6	756	787	4,0
Murtzia	85,3	93,3	9,3	1.049	1.099	4,7
Nafarroa	87,1	91,1	4,6	1.089	1.121	3,0

Iturria: LIMen bidez paratua.

raduneko batez besteko gastua Estatu osokoa baino %13 handiagoa zen. EAE, Balear Uharteekin, Errioxarekin, Madrilekin eta Nafarroarekin batera, buruan dauden erkidegoak dira, aldagai horri dagokionez.


1.2. Langabetuak babesteko gastua eta diru-sarrera

EAE langabezia prestazioetara bideratutako gastua, 2007an, eta behin-behineko datuen arabera, 593,3 milioi eurokoa izan da, 2006an baino %0,9 gutxiago. Gastu hori EAEko BPGren %0,89 da, behin-behineko datuen arabera, aurreko urteetako datuak baino txikiagoa. 2007ko abenduan onuradun bakoitzeko batez besteko gastua 1.105,7 eurokoa zen (prestazioetako gastua gehi Gizarte Segurantzarentzako EEZP kotizazioak), aurreko urteko abenduan baino %1,7 gehiago, eta Estatu batez bestekoa baino %13 gehiago.

2007ko guztizko gastua Estatu guztizkoaren %3,9 da, aurreko urtean baino lau hamarren gutxiago. Tasa hori etengabe murriztu da 1995etik; orduan %5,8 zen. Gastu horretako guztizkotik, 89.196 mila euro Arabako lurraldeari dagozkio, 2006an baino %1,8 gutxiago. Bizkaiari 318.375 mila euro dagozkio (2006aren aldean %-0,4) eta Gipuzkoari 192.542 mila euro (%+1,2).

Bestalde, EAE Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorrek biltzen dituen enpresari eta langileek ordaindutako EINrako gizarte kotizazioen sarrerak 1.078 milioi eurokoak izan ziren 2006an, hura eskuragarri dagoen azken urtea izanik, aurreko urtean baino %5,3 gehiago; beraz, EAE langabezia gertakizuna babesteko sarrera eta gastuen arteko aldea areagotu egin da eta urte horretan 479 milioi euroko saldo positiboa dauka, 2005ean baino 28 milioi gehiago. Bestela esanda, sarrera eta gastuaren arteko ratioa, 2006an, 1,80koa da, aurreko urteko emaitzaren berdina.

V.1.4. GRAFIKOA. LANGABEZIA PRESTAZIOETAKO GASTUAK ETA SARRERAK EAE



Iturria: LIM eta EUSTATen datuen bidez geuk paratua.

V.1.4. KOADROA. LANGABEZIAKO GUZTIZKO GASTUA ETA EIN-REN SARRERAK EAE-KO GIZARTE KOTIZAZIOENGATIK (MILIOI EURO)

	Gizarte Seg.ko kuotak*	PFEZ atxikipenak**	Prestaz. Ekonomiko Garbiak	GASTUA GUZTIRA (1)	ald %	EIN-RENTZAT BILDUTAKO KUOTAK GUZTIRA (2)	ald %	SALDOA (1) – (2)	SAR./GAST. %
2002	137,70	1,97	316,01	455,68	11,2	873,67	5,0	418,38	191,7
2003	154,37	2,05	339,93	496,35	9,1	925,23	5,9	428,88	186,4
2004	175,86	2,39	364,25	542,50	9,3	969,91	4,8	427,41	178,8
2005	185,95	2,91	383,44	572,30	5,5	1023,38	5,5	451,08	178,8
2006	188,94	3,53	406,17	598,64	4,6	1077,69	5,3	479,05	180,0
2007	182,99	2,73	407,58	593,30	-0,9	d.e.	-	d.e.	.

(*) EINren eta kotizaziopeko prestazioa duten langabetuen kontura guztira.

(**) Kotizaziopeko prestazioetan.

Iturria: EEZPko datuen bidez prestatua. Prestazio Zuzendariordetza Nagusia.

V.1.5. KOADROA. LANGABEZIAKO GUZTIZKO GASTUA ETA PERTSONA JASOTZAILE BAKOITZEKO URTEKO BATEZ BESTEKO GASTUA EAE-N

	Gastua guztira (miloi €)					Batez besteko zenbatekoa pertsona jasotzaileko (€)				
	2005	2006	2007*	06 ald %	07 ald %	2005	2006	2007*	06 ald %	07 ald %
Kotizaziopeko prestazio gordinak	342,58	362,03	356,34	5,7	-1,6	7.600,9	8.063,03	7.901,11	6,1	-2,0
(-) Langabetuaren konturako Giz. Seg.	18,67	18,76	18,11	0,5	-3,5	414,2	417,82	401,55	0,9	-3,9
(-) PFEZ atxikipenak	2,91	3,53	2,73	21,3	-22,7	64,6	78,62	60,53	21,7	-23
Kotizaziopeko prestazio garbiak	321,00	339,74	335,50	5,8	-1,2	7.122,1	7.566,59	7.439,02	6,2	-1,7
Langabezia-sorospeneko prestazioak	62,44	66,43	72,08	6,4	8,5	1.385,4	1479,51	1.598,23	6,8	8,0
EINren Giz. Seg.rako kotizazioak	167,28	170,18	164,88	1,7	-3,1	3.711,5	3790,2	3.655,88	2,1	-3,5
EINren konturako kotizaziopekoengatik	152,41	153,90	150,39	1,0	-2,3	3.381,6	3.427,62	3.334,59	1,4	-2,7
EINren konturako sorospenekoengatik	14,87	16,28	14,49	9,5	-11	329,9	362,58	321,29	9,9	-11,4
LANGABEZIAKO GUZTIZKO GASTUA	572,30	598,64	593,30	4,6	-0,9	12.697,7	13.332,74	13.155,21	5,0	-1,3
BPG %	1,00	0,97	0,89	-3,0	-7,7					

Iturria: EEZP-EINko datuen bidez prestatua. Prestazio Zuzendariordetza Nagusia.

(*) 2007ko datuak behin-behinekoak dira.

2

Gizarte Segurantzaren prestazioak
EAE-n

2007an 483.603 lagun izan ziren Gizarte Segurantza sistemako pentsioen onuradunak; kopuru hori 2006koa baino %1,5 gehiago da, baina aurreko urteko igoera halako bi izan zen (%3,4). Azken urteetan gertatzen ari den bezala, igoera hori kotizaziopeko pentsioak jasotzen dituen pertsona taldeagatik da (%+1,6), bestelako modalitateetan, intentsitateak berdinak izan ez arren, jasotzaile taldea murrizteko joera baitago. Gizarte Segurantzako prestazio peko EAEko biztanleria orotara %22,3 zen 2006an eta %22,6 2007an.

Kotizaziopeko pentsioen zenbatekoa, 983,5€, %4,6 igo zen 2007an, aurreko urteko %4,5eko igoeraren aldean. Guztira 5.699 milioi euro dira, 2006an baino %8,3 gehiago. Kotizazio gabeko pentsioen guztizkoa 42 milioi eurokoa da, eta horrek esan nahi du %3,2 igo direla; era berean, 2006arekiko hileko batez besteko zenbatekoa %5,2 igo da. Azkenik, subsidio-pentsioen batez besteko zenbatekoak %1,6 igo dira batez beste, eta 2007an haren guztizkoa %6,9 murriztu da. Jasotzaile kopurua beste urte batez jaitsi da, 2006an baino gehiago (%-8,4, 2006ko %-7,1en aldean). EGL subsidioei dagokienez, onuradun kopurua %10,7 jaitsi da, eta guztizkoa %11,8.

2007an pentsioetako guztizko gastua, behin-behineko lehen kalkuluan, 5.745 milioi eurokoa izan da, 2006an baino %8,3 gehiago; horrela BPGren gainera portzentaia areagotzen da, 2006ko %8,59tik %8,66ra (BPGri buruzko behin-behineko datuekin).

2.1. Gizarte Segurantzaren prestazioak transferitu gabeko kudeaketarekin

EAEri transferitu gabe dauden Gizarte Segurantzaren kudeaketa erakundeek (Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionala orokorrean, eta Itsasoko Gizarte Institutua Itsasoko Langileen Erregimen Bereziaren aplikazioari dagokionez) egiten dituzten prestazio ekonomikoak bi motakoak dira:

- Kotizaziopekoak: lehenago kotizatutako denbora eta kopuruaren arabera egiten dira, iraupena zehaztugabea da eta Gizarte Babesaren guztizko gastuaren %50 dira gutxi gorabehera. Funtsean haien funtzioa baldintza jakin batzuen bidez prestazio horretarako eskubidea sortu duten pertsonen langile-denbora bertan behera utz dezaketen gertakizunak direla-eta errentak eteten direnean haiek jasotzen jarraitzea bermatzea da.
- Kotizazio gabeak: kotizazio gabeko modalitateko erreteta eta baliaezintasun pentsioak eta amatasun eta familia-laguntzak, besteak beste.

2006. urtean (datu ofizialak dauzkan azkena), Gizarte Segurantza sistemak EAEn guztira 5.745 milioi euro bildu zituen, 2005ean baino %5,2 gehiago, eta Estatuan bildutakoa baino %6,1 gehiago. Kopuru horretatik, %89,8 Gi-

V.2.1. KOADROA. GIZARTE SEGURANTZAKO PENTSIONAK EAE-N MOTAREN ARABERA. LABURPEN LAUKIA

	2005	2006	2007	05/06 %	06/07 %
Onuradun kopurua (urteko batez bestekoa)					
Kotizaziopeko pentsioak	449.200	464.400	471.900	3,4	1,6
Kotizazio gabeko pentsioak	10.027	9.938	9.742	-0,9	-2,0
Subsidio-pentsioak	1.412	1.312	1.202	-7,1	-8,4
EGL subsidioak **	954	850	759	-10,9	-10,7
GUZTIRA	461.593	476.500	483.603	3,2	1,5
Biztanleen %	21,6	22,3	22,6	3,2	1,5
Hileko batez besteko zenbatekoa* (€)					
Kotizaziopeko pentsioak	900,4	940,5	983,5	4,5	4,6
Kotizazio gabeko pentsioak	325,8	341,4	359,3	4,8	5,2
Subsidio-pentsioak	183,0	184,2	187,2	0,7	1,6
EGL subsidioak ¹ **	171,5	158,8	163,4	-7,4	2,9
GUZTIRA	894,1	928,0	982,0	3,8	5,8
Zenbatekoa guztira (mila €)					
Kotizaziopeko pentsioak	4.908.668	5.261.417	5.699.297	7,2	8,3
Kotizazio gabeko pentsioak	39.198	40.714	42.014	3,9	3,2
Subsidio-pentsioak	3.100 ^E	2.900 ^E	2.700 ^E	-6,5	-6,9
EGL subsidioak **	2.000 ^E	1.700 ^E	1.500 ^E	-15	-11,8
GUZTIRA	4.952.968	5.306.731	5.745.511	7,1	8,3
BPG %	8,65	8,59	8,60	-0,5	0,8

(*) 12 ordainketatan kalkulatua (aparteko ordainsaria hainbanatuta).

(**) Osasun eta farmazia subsidioa kanpo, ez baitute zenbatekorik.

(E) EUSKO JAURLARITZAKO Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzak Sailak emandako datu balioetsiak.

Iturria: EUSKO JAURLARITZAren, FORU ALDUNDIen ETA LAN ETA IMMIGRAZIO MINISTERIOaren bidez paratua.

zarte Segurantzako kuotei dagokie, eta gainontzeko %10,2 lan istripuetako mutualitateetatik dator. Kuoten %72 erregimen orokorretik dator, eta 4.143 milioi euro dira.

Era berean, Gizarte Segurantzak langabeziari, FOGA-SARI eta lanbide-heziketari dagozkien kuotak ere biltzen ditu, eta gure Erkidegoan haien guztizkoa 2006an 1.229 milioi eurokoa izan zen, aurreko urtean baino 83 gehiago.

Bestalde, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrak 2007an pentsioetarako transferentzia arrunt gisa onartutako betebeharrak 6.105,6 milioi eurokoak dira, 2006an baino %8,2 gehiago; kopuru hori Gizarte Segurantzak gure Erkidegoan egiten dituen transferentzia arrunten %97,2 da.

Kopuru hori, EAEko 2007ko BPGren %9,2 -%9,1 2006an-, azken bosturtekoan %42,5 igo da. Prestazioetara bideratutako kopurutik, %93,3, 5.699 milioi euro, kotiza-

ziopeko pentsioei dagozkie (%+8,3 2006arekiko), eta gainontzeko %6,7 bestelako prestazioei. Haietatik gehienak, %64,6, aldi baterako ezintasuneko prestazioetara bideratzen da, eta haren atzean datoz amatasun/aitatasun prestazioak, haurdunaldia bitarteko arriskua eta edoskitzaroa (%24,8) eta familia-laguntzak (%10,6). Portzentaia horiek ez dira ia batere aldatu azken urteotan.

EAEan Gizarte Segurantzaren kotizaziopeko pentsioak jasotzen dituen pertsona kopuruari dagokionez, 2007an 471.900 lagun dira, aurreko urtean baino %1,6 gehiago. Pentsio motaren arabera, ezintasun iraunkorra dela-eta jaso dutenen kopurua %2,3 igo da azken urtean, erretreta dela-eta jasotzen dutenena, berriz, %1,9 igo da eta alarguntasuna dela-eta jaso dutenena %1,2. Beste urte batez, ordea, zurtasuna dela-eta kotizaziopeko pentsioa jasotzen dutenen kopurua 15.800 lagun arte jaitsi da (%-1,9).


¹ Minusbaliatuen Gizarte Integrazioari buruzko apirilaren 7ko 13/1982 Legea

V.2.2. KOADROA. GIZARTE SEGURANTZAKO DIRUZAINZA OROKORRAREN KUOTEN BILKETA EAE-N

	Milioi euro				2006 %	aldaketa %			
	2003	2004	2005	2006		02-03	03-04	04-05	05-06
Orokorra	3.556	3.726	3.924	4.143	72,1	5,3	4,8	5,3	5,6
Autonomoak	495	524	545	568	9,9	5,1	5,9	4,0	4,2
Nekazariak	13	14	14	15	0,3	0,0	7,7	0,0	7,1
Itsasoko langileak	28	29	29	30	0,5	-3,4	3,6	0,0	3,4
Etxe-langileak	16	15	20	23	0,4	14,3	-6,3	33,3	15
Ikazkintza	0	0	0	0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
Lan istripuak (Diruzaintza)	7	7	7	8	0,1	0,0	0,0	0,0	14,3
EINKo langabetuak eta hobariak	304	342	378	374	6,5	14,3	12,5	10,5	-1,1
Giz. Segurantzako Diruz. Nagusiaren kuotak GUZTIRA	4.417	4.658	4.917	5.160	89,8	5,8	5,5	5,6	4,9
Mutualitateak lan istripu eta LGengatik	360	382	406	435	7,6	6,5	6,1	6,3	7,1
Mutualitateak GAengatik	108	127	137	150	2,6	12,5	17,6	7,9	9,5
MUTUALITATEAK GUZTIRA	469	509	543	585	10,2	8,1	8,5	6,7	7,7
GS sistemaren bilketa GUZTIRA	4.886	5.167	5.460	5.745	100,0	6,0	5,8	5,7	5,2
EINrentzat bildutako kuotak	925	970	1.023	1.078	18,8	5,8	4,9	5,5	5,4
FOGASA	45	48	50	42	0,7	4,7	6,7	4,2	-16
Lanbide-heziketa	93	97	103	109	1,9	5,7	4,3	6,2	5,8

Oharra: GSDOk EEZP, FOGASA eta Lanbide-heziketari dagozkien kuotak ere biltzen ditu, bestelako helburuetarako izanda ere.
Iturria: LAN ETA IMMIGRAZIO MINSTERIOaren datuen bidez paratua. GSDoren urteko memoria.

501

V.2.1. GRAFIKOA. GIZARTE SEGURANTZAKO KOTIZAZIOETAKO* BILKETAREN BILAKAERA EAEN

(*) Langabezia, LH eta FOGASA gabe
Iturria: GSDNren bidez prestatua.

V.2.3. KOADROA. GIZARTE SEGURANTZAK EAE-N ONARTUTAKO BETEBEHARREN ZENBATEKOAREN BILAKAERA. TRANSFERENTZIA ARRUNTEN KAP. (MILA EURO)									
	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	05/06%	06/07%
Kotizaziopeko pentsioak	3.773.466	4.001.550	4.245.874	4.580.986	4.908.668	5.261.417	5.699.297	7,2	8,3
Aldi baterako ezintasuna	172.611	193.410	212.455	234.008	248.887	257.841	262.455	3,6	1,8
Amatasuna/aitatasuna, haurdunaldia bitarteko arriskua eta edoskitzaroa	51.644	56.571	67.154	71.225	78.024	84.514	100.990	8,3	19,5
Familia-laguntzak	31.282	32.207	34.710	36.100	39.193	41.000	43.127	4,6	5,2
PRESTAZIOAK GUZTIRA	4.029.003	4.283.738	4.560.193	4.922.319	5.274.772	5.644.772	6.105.589	7,0	8,2
Bestelako transferentziak	175.525	159.627	154.704	160.569	161.402	169.304	175.598	4,9	3,7
TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	4.204.528	4.443.365	4.714.897	5.082.888	5.436.174	5.814.076	6.281.467	7,0	8,0
Prestazioak / Trf. arruntak %	95,8	96,4	96,7	96,8	97	97,1	97,2	0,1	0,1

Iturria: GIZARTE SEGURANTZAREN bidez paratua. Gizarte Segurantzaren jarraipena.

V.2.4. GRAFIKOA. JASOTZAILE KOPURUA ETA GIZARTE SEGURANTZAREN PENTSIOEN BATEZ BESTEKO ZENBATEKOA EAE-N							
	2005	2006	2007	% 2007ko	LGS/g %	05-06	06-07
Jasotzaile kopurua							
GUZTIRA	449.200,0	464.400	471.900,0	100,0		3,4	1,6
EZINTASUN IRAUNKORRA	41.800,0	42.900,0	43.900,0	9,3		2,6	2,3
ERRETRETA	267.200,0	279.900,0	285.100,0	60,4		4,8	1,9
ALARGUNTASUNA	123.700,0	125.500,0	127.000,0	26,9		1,5	1,2
ZURZTASUNA / FAMILIA-LAG.	16.400,0	16.100,0	15.800,0	3,3		-1,8	-1,9
Batez besteko zenbatekoa (Euro/Hil)							
GUZTIRA	771,8	806,1	843,0	100,0	147,7	4,4	4,6
EZINTASUN IRAUNKORRA	910,5	947,8	984,0	116,7	172,5	4,1	3,8
ERRETRETA	882,7	916,9	958,6	113,7	168,0	3,9	4,5
ALARGUNTASUNA	543,2	568,0	592,9	40,3	103,9	4,6	4,4
ZURZTASUNA / FAMILIA-LAG.	335,9	357,3	375,5	44,5	65,8	6,4	5,1

Iturria: LAN ETA IMMIGRAZIO MINISTERIOAREN bidez paratua, "Lan estatistikei buruzko aldizkaria".


V.2.5. KOADROA. PENTSIO KOPURUA ETA BATEZ BESTEKO ZENBATEKOA ERREGIMENAREN ARABERA. EAE ETA ESTATUAREN ARTEKO KONPARAKETA. (2007ko ABENDUA)			
	Pentsio kopurua	Batez besteko pen.	
		Zenbatekoa (€)	Estatu/g%
Orokorra	324.704	989,02	121,5
Autonomoak	58.348	574,21	117,0
Nekazariak	20.123	471,67	93,5
Etxea	5.843	426,62	100,6
Itsasoa	13.356	917,8	122,6
LI eta LG	15.425	878,12	111,4
SOVI	37.025	313,46	98,4
Ikatz	288	832,69	69,0
GUZTIRA	475.112	849,85	125,2

Iturria: GSNI.

2007an batez besteko zenbatekoa hilean 37€ igo zen, 854 euro hilean; hori 2006an baino %4,6 gehiago da. Erretreta pentsioari dagokionez (Gizarte Segurantzaren kotizaziopeko pentsioak jasotzen dituztenen %60,4k jasotzen dituztenak), nabarmendu behar da 2007an batez besteko zenbatekoa hilean 958,60€ izan dela, Lan Kostuari buruzko Urteko Inkestan EINK kalkulatzeko duen Lan Kostuaren "soldatak eta lansariak" osagaiaren EAerako hileko batez besteko zenbatekoaren %49,1. Osagai hori, 1.952,12 euro hilean, 2007an gure Erkidegoan egon den batez besteko soldatarako hurbilketatzat har daiteke.

Bestalde, 2007an pentsioen batez besteko zenbateko guztiak igo dira, intentsitate desberdinekin bada ere: alarguntasun eta erretreta pentsioak batez bestekoaren ingu-

V.2.2. GRAFIKOA. KOTIZAZIOPEKO PENSIO KOPURUAREN BILAKAERA EAEn ETA ESTATUKO GUZTIZKOAREN GAINEKO PISUA



*2007ko datua behin-behinekoa da.

Iturria: Lan eta Immigrazio Ministerioaren bidez prestatua.

V.2.6. KOADROA. KPI, LGS ETA BATEZ BESTEKO KOTIZAZIOPEKO PENSIOA*. ABENDUKO DATUAK

	PILATUTAKO KPI		LGS		BATEZ BESTEKO PENSIOA		ESTATUKO BATEZ BESTEKO PENSIOA	
	EAE	ESTATUA	€/HIL.	%	€/HIL.	%	€/HIL.	%
2000	3,8	4,0	424,8	2,0	594,52	5,0	471,3,0	4,9
2001	3,4	2,7	433,45	2,0	629,30	5,8	497,9,0	5,6
2002	3,9	4,0	442,2	2,0	655,51	4,2	518,89	4,2
2003	2,6	2,6	451,2	2,0	696,77	6,3	549,84	6,0
2004	3,2	3,2	475,65	5,4	739,59	6,1	581,06	5,7
2005	3,7	3,7	513,0	7,9	770,82	4,2	611,68	5,3
2006	2,6	2,7	540,9	5,4	812,25	5,4	646,76	5,7
2007*	4,2	4,2	570,6	5,5	849,85	4,9	678,86	5,0

(*) EAE-n eta Estatuaren bilakaera.

Iturria: EIN eta LAN ETA IMMIGRAZIO MINISTERIOaren bidez paratua.

ruan igo badira, zurtasun pentsioa %5,1 igo da hilean 375,5 eurora iritsi arte -oraindik ere beste guztiak baino askoz txikiagoa da-. Bestalde, ezintasun iraunkorreko pentsioa batez bestekoa baino gutxiago igo da, %3,8, eta hilean 592,9 eurora iritsi da.

Zentzu horretan, 1983an batez besteko pentsioa (157,38€ EAEn eta 138,29€ Estatu batez bestekoa) lan-

bide arteko gutxieneko soldata (193,29€) baino nahiko txikiagoa zen, baina azkena baino tasa askoz handiagotan ari da igotzen, are KPIren gainetik. 2007ko abenduan EAEn batez besteko pentsioa, 849,85€, 2006ko abendukoa baino %4,9 handiagoa da, eta urtetik urterako KPIren aldaketa, ordea, %4,2koa izan da hil berean.

V.2.7. Koadroa. EAE-n Pentsioen Arloan egindako gutxi gorabeherako ahalegina					
Urteak	Kontribuziopeko pentsioak (1)	B.b. zenbatekoa, €/hilean (2)	Zenbateko osoa, €/hilean(3) =(1)*(2)	Gizarte Segurantzako afiliatuak (4)	Ahalegina: €/hilean afiliatu bakoitzeko (3) / (4)
2000	423.800	589,8	249.957.240	811.300	308,09
2001	429.300	624,5	268.097.850	839.900	319,20
2002	432.900	652,0	282.250.800	859.600	328,35
2003	436.200	691,2	301.501.440	874.200	344,89
2004	440.900	733,2	323.267.880	889.600	363,39
2005	449.200	771,8	346.692.560	911.900	380,19
2006	464.400	806,1	374.352.840	933.200	401,15
2007	471.900	843,0	397.811.700	957.900	415,30

Iturria: Lan eta Immigrazio Ministerioa.

2.2. Gizarte segurantzaren prestazioak transferituriko kudeaketarekin: prestazio ez-kontribuziokoak

Kotizazio gabeko prestazioak inoiz kotizatu ez duten edo kotizaziopeko mailako prestazioetara iristeko denbora nahikorik kotizatu ez duten eta bizirik irauteko bitartekorik ez izateagatik premiazko egoeran dauden pertsonen egingakoak dira.

Errenta ekonomikoaren onarpena ez ezik, osasun eta farmazia laguntzarako eta gizarte zerbitzuetarako eskubidea ere dakarte eta, beraz, premiazko egoeraren aurrean babes osoa ematen dute. Holako pentsioen jatorria Gizarte Segurantzaren egitura eta babes ekintza arrazionalizatzeko larrialdiko neurriei buruzko 26/1985 Legearekin hasitako erreformak osatu zituen abenduaren 20ko 26/1990 Estatu Legean dago; lege horrek kotizazio gabeko babes maila antolatu zuen eta bidea eman zuen lanbide edo kotizaziopeko sisteman sartzerik ez daukaten pertsonen prestazioak emateko. Horrela pertsona nagusien edo minusbaliatuen aldeko eskubide subjektiboa sortzen da.


Gizarte babes sistema horren izaera unibertsala dela-eta, ez da beharrezkoa lehenago kotizatzea jasotzeko es-

kubidea erabiltzeko, eta izaera hori dela-eta, haren zenbatekoa Estatuko aurrekontu orokorrari buruzko urteko legetan finkatzen da. Finantzaketa oso-osorik dagokio Estatuari, eta hark Gizarte Segurantzari ematen dizkio dagozkion transferentziak, 26/1990 Legeko zortzigarren xedapen gehigarriko xedapenen eta Toledoko Hitzarmeneko gomendioen arabera.

Estatuan IMSERSOk kudeatzen dituen bitartean, EAEn, organismo horren funtzioen eta zerbitzuen transferentziaren ondoren, Foru Aldundiei eta EAEko Administrazio orokorrari dagozkien haiek onartzea, kudeatzea eta finantzatzea. Kotizazio gabeko prestaziook hiru motatakoak dira: Gizarte Segurantzaren kotizazio gabeko prestazioak, laguntza-pentsioak eta EGL prestazioak. Jaso beharreko kopurua norberaren errenta eta inguruabarren arabera ezartzen da.

2.2.1. Gizarte Segurantzaren prestazio ez-kontribuziokoak

Euren bolumena eta zenbatekoa direla eta, Foru Aldundiek eta EAEk emandako kotizazio gabeko pentsioak azpimarragarrienak dira kotizazio gabeko prestazioen artean. Sarrera nahikori ez daukaten pertsonen zuzentzen zaizkie (nahikorik ez direla irizten zaie urte osoko sarreraren batuketa pentsioaren urte osoko zenbatekoa baino txikiagoa bada), eta haren kopurua urtetik urtera handitzen da.


V.2.3. GRAFIKOA. KOTIZAZIO GABEKO PENTSIOAK EAEn: ONURADUNEN ETA HILEKO BATEZ BESTEKO ZENBATEKOEN BILAKAERA

Iturria: LAN eta IMMIGRAZIO MINISTERIOA.

EAEn egoitza daukaten kotizazio gabeko pentsioen onuradunak, gehien bat emakumeak dira, guztien %65 inguru, eta proportzio hori Estatuko batez bestekoa baino 7 puntu txikiagoa da. Emakume tasa hori Estatuko txikiena da, Ceuta hiri autonomoaren ondoren. Gainera, IMSERSOk, bere datu fitxategiaren bidez, agertzen du holako pertsonen egoera zibil nagusia "ezkongabea" dela, hala-koak haien %50 baitira. Datu hori, Gaztela eta Leon, Errioxa eta Galiziarekin batera, salbuespena da Estatuko kotizazio gabeko pentsiodunen egoera zibil nagusiaren aldean. Gainontzeko erkidegoetan pertsona ezkonduak nagusitzen dira. Era berean, emakume pentsiodun guztien aldean, EAEko emakume alargunen parte hartzea, %9koa,


egoera zibil horretan dauden gizonezkoena baino askoz handiagoa da, ia lau aldiz handiagoa. Bestalde, emakume banandu eta dibortziatuak ere egoera horretan dauden gizonezko pentsiodunak baino askoz gehiago dira.

Bestalde, erretreta pentsioak jasotzen duten gehienak 70 eta 79 urte bitartekoak dira (guztien %52). Gainera, emakumeen gehiengoa adin-talde guztietan agertzen da, %80 inguru, eta 85 urtetik gorako pentsiodunen %91 emakumeak dira. Baliaezintasuneko pentsioen onuradunei dagokienez, %62 30 eta 49 urte bitartekoak dira, eta zatirik jendetsuena 35 eta 44 urte bitartekoak biltzen dituen da. Gainera, 50 urtetik gorako kotizazio gabeko baliaezintasuneko pentsiodun gehienak emakumeak dira.

V.2.4. GRAFIKOA. KOTIZAZIO GABEKO PENTSIOAK EAE-N: KONPARAKETA ESTATUAREKIN

Iturria: Eusko Jaurlaritza. "Kotizazio gabeko pentsioak Euskadiko Autonomia Erkidegoan 2007"

V.2.5. GRAFIKOA. JUBILAZIO ETA BALIAEZINTASUN PENTSIEN BANAKETA LURRALDE HISTORIKOEN ARABERA



V.2.8. KOADROA. GIZARTE SEGURANTZAREN KOTIZAZIO GABEKO PENTSIEN BILAKAERA EAE-N

	2005	2006	2007	04-05 %	05-06 %	06-07 %
Onuradun kopurua*						
ERRETRETA	4.696,0	4.549,0	4.363,0	-1,1	-3,1	-4,1
BALIAEZINTASUNA	5.331,0	5.389,0	5.379,0	0,9	1,1	-0,2
GUZTIRA	10.027,0	9.938,0	9.742,0	-0,1	-0,9	-2,0
Zenbatekoa guztira (mila euro)						
ERRETRETA	17.358,0	17.678,0	17.968,0	3,8	1,8	1,6
BALIAEZINTASUNA	21.840,0	23.067,0	24.046,0	3,9	5,6	4,2
GUZTIRA	39.198,0	40.714,0	42.014,0	3,9	3,9	3,2
Importe medio mensual (14 pagas; €)						
ERRETRETA	264,0	277,6	294,2	4,9	5,1	6,0
BALIAEZINTASUNA	292,6	305,7	319,3	3,0	4,5	4,4
GUZTIRA	279,2	292,6	308,0	4,0	4,8	5,3

(*) 2007ko onuradunei buruzko datuak abenduari dagozkie. Gainontzekoak, urteko batez bestekoak dira.
Iturria: EUSKO JAURLARITZA eta LIMen bidez geuk paratua.

Baliaezintasun mailari dagokionez, EAEn kotizazio gabeko baliaezintasun pentsiodunen %65en baliaezintasun maila %65 eta %74 bitartekoa da; proportzio hori Estatuko autonomia erkidego guztietatik bigarren baxuena da, Gaztela-Mantxaren atzetik.

2007an onartutako kotizazio gabeko pentsioak 9.742 dira, 2006an baino 196 gutxiago, eta EAEko biztanleen %0,5 dira. Abenduan erretreta pentsioak 4.363 izan ziren, eta baliaezintasunekoak 5.379. Guztira, aurreko urtean

baino pentsio gutxiago onartu dira, murrizketa esanguratsua ez bada ere. Estatuarekiko, 9.938 pentsio horiek %2,1 dira, 2006ko portzentaia bera. Lurraldeka, Bizkaia %63,8 dauka, Gipuzkoa %25,9 eta Arabak gainontzeko %10,3.

Kotizazio gabeko pentsioen gehieneko kopuruak urtero ezartzen dira Estatu osorako. 2007rako, hileko 312,43 eurotan finkatu ziren erretretarako eta %65etik gorako mailako baliaezintasunerako. Beste pertsona baten laguntza behar duten %75etik gorako mailako baliaezinta-

sun pentsioetarako %50eko osagarria onartzen da. Gainera, onuradunak bere errentak edo sarrerak izanez gero, zenbatekoa kopuru berean murrizten da. Murrizketa egon arren, onartuko den pentsioa gutxienez ezarritako %25 izango da, 78,11€ hilean.

EAEEn, 2007ko abenduan pentsiodun bakoitzari benetan ordaindutako zenbatekoa 317,4 eurokoa izan zen baliaezintasunagatik, eta 285,7 eurokoa erretretagatik; azkena txikiagoa izan da lehenetarikoz batzuek aipatu osagarria jasotzen dutelako. Pentsio bien zenbatekoen batuketak gutxi gorabehera kontzeptu berberengatik kotizaziopeko eremuan jasotakoaren %30 izan zen.

Bestalde, 2006an EAEEn kotizazio gabeko pentsioetan egindako gastua 42 milioi eurokoa izan da, honela banatuta: 18 milioi erretreta pentsioetan eta 24 baliaezintasuneko pentsioetan. Holako pentsioen zenbatekoa estatuko eremuan egindako gastuaren %2 da, pentsio kopuruaren portzentaia bera. Kotizaziopeko eremuan, ordea, gure erkidegoan erretreta eta baliaezintasuneko pentsioetan egindako gastua Estatuko guztizkoaren %7 inguru da.

EAEEn holako pentsioen onuradunen kopuruak 1999an jo zuen goia, 10.972 lagun. Harrezkero murrizten joan da, tasak oso esanguratsuak izan ez badira ere, eta horrela 2007an ozta-ozta onartu dira 2006an baino %2 pentsio gutxiago. Pentsiodun kopuruaren murrizketa horrek ez du ia islarik izan 2007an sortutako gastuan, aurreko urtearekiko %3 areagotu baita. Estatuan %2 areagotu da.


2.2.2. Gizarte Ongizateko Fondoaren laguntza-pentsioak

Foru Aldundiei transferitutako Gizarte Segurantzaren laguntza-pentsioak bizirauteko bitarteko ekonomikorik ez daukaten (haien urte osoko sarreren batuketa batez besteko pentsioaren zenbatekoa baino txikiagoa denean) adinako pertsonen (65 urtetik gorakoak) eta gaizoen edo ezintasun osoko minusbaliatuen aldeko aldian-aldiko eta mugagabeko banan-banako laguntza ekonomikoak dira. Kotizazio gabeko pentsioetarako Estatuan egoitza legala (gutxienez 10 urtez -5 urtez baliaezintasunari dagokionez-bizitzea, haietako gutxienez 2 eskaera aurre-aurrekoak) izateko baldintza dagoen bitartean, holako laguntzetan xedatutako bakarra onuradunak EAEko udalen batean errol-datuta egotea da, berdin atzerriko nazionalitatea daukatenentzat, errefuxiatuentzat eta erkidegoan bizitzeko baimena daukaten herrigabeentzat.


Holako prestazioak apurka-apurka murrizten ari dira, 5/1992 ED Legea indarrean sartu ondoren indargabetuta geratu direlako eta, beraz, data horretatik alta berririk egon ez delako; horrela, orduan onartu ziren eta orokorrean zenbateko handiagoa daukaten kotizazio gabeko pentsioak jasotzea hautatu ez duten pentsioak baino ez dira geratzen.

2007ko abenduan gure Erkidegoan oraindik daude adinako pertsonen aldeko 808 pentsio eta pertsona gaizoen aldeko 394, guztira 1.202, aurreko urtean baino 110 gutxiago. 2007an laguntzaren zenbatekoa, 1992tik bezala, hileko

V.2.6. GRAFIKOA. GIZARTE ONGIZATEKO FONDOAREN PENTSIOK: ONURADUNEN ETA GUZTIZKO GASTUAREN BILAKAERA (MILA EURO)



Iturria: Foru Aldundien bidez prestatua.

V.2.7. GRAFIKOA. KOTIZAZIO GABEKO PRESTAZIOEN BILAKAERA. PAS ETA EGL


Iturria: Eusko Jaurlaritza. "Kotizazio gabeko pentsioak Euskadiko Autonomia Erkidegoan 2007"

148,86 eurokoa da, eta holako pertsonak, gainera, urtean aparteko ordainsari bi daukate onartuta.


EAEEn 2007an laguntza-pentsioen hileko batez besteko zenbatekoa hileko 160,44 eurokoa da, 12 ordainsaritan, gehi aparteko ordainsari bi (ekainean eta irailean); kopuru hori aurreko urtean baino %1,6 gehiago da. 2007. urtean EAEko Foru Aldundietako Gizarte Ongizateko Fondoaren laguntza-pentsioen guztizkoa 2,7 milioi eurokoa izan zen, aurreko urtekoa baino %7 gutxiago.

2.2.3. EGL prestazioak

Elbarritua Gizarteratzeko 13/82 Legean (EGL) onartutako prestazioak, izenburuak adierazten duen legez, gutxienez %65eko baliabizintasuna izanda pertsona bakoitzeko lanbide arteko gutxieneko soldataren %70 baina gutxiagoko baliabideak dauzkaten (bere kargura pertsonak izanez gero, mendeko pertsona bakoitzeko %10 areagotzen da) 18 urtetik gorako pertsonari dago zuzenduta. Holako prestazioek 1995etik hileko kopuru finkoa daukate: gutxieneko

V.2.8. GRAFIKOA. EGL PRESTAZIOAK: GSBS ETA HPLSREN ONURADUN KOPURUAREN ETA GUZTIZKO GASTUAREN BILAKAERA

GSBS: Gutxieneko Sarrerak Bermatzeko Subsidioa
HPLS: Hirugarren Pertsonari laguntzeko Subsidioa
Iturria: EUSKO JAURLARITZAren bidez prestatua.

V.2.9. GRAFIKOA. EGL* PRESTAZIOEN ONURADUN KOPURUAREN BILAKAERA LURRALDE HISTORIKOEN ARABERA

(*) GSBS (Gutxieneko Sarrerak Bermatzeko Subsidioa) eta HPLS (Hirugarren Pertsonari laguntzeko Subsidioa) prestazioei baino ez dagokie

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren bidez prestatua.

sarrerak bermatzeko subsidiorako, 149,86€ (subsidio horren onuradunak antzeko prestazio ekonomikoa jasoz gero, subsidiorako finkatutako kopurua prestazio haren kopuru berean murriztuko da), eta 58,45€ hirugarren pertsonari laguntzeko subsidiorako. Mugikortasunerako eta garraio gastuetarako subsidioa urtez urte eguneratzen da, eta 2007an hilean 49,24 eurokoa izan da, 2006an baino %4,4 gehiago. Subsidio guztietan 12 ordainsari dira, gehi aparteko ordainsari bi gutxieneko sarrerak bermatzeko eta hirugarren pertsonari laguntzeko subsidioei dagokienez.

Subsidio horiek indargabetuta geratu ziren Gizarte Segurantzaren kotizazio gabeko prestazioak ezarri zituen 26/1990 Estatu Legea indarrean sartzerakoan. Hala ere, data horren aurreko subsidio horien onuradunek haiek jasotzen jarraitzea ala kotizaziopeko pentsioa eskatzea hauta dezakete, baina ezingo da indargabetutako babes ekintzen onarpen berririk gertatu. Horrexegatik, Gizarte Ongizateko Fondoaren laguntza-prestazioekin gertatu bezala, EGL prestazioen onuradun kopurua urtez urte ari da jaisten.

Holako laguntzak honako lau modalitateen arabera jaso daitezke²:

- Gutxieneko sarrerak bermatzeko subsidioa (GSBS). Prestazio horren onuradunak %65 baino maila handiagoko baliaezintasuna izanda Efektu Anitzetako Errentaren Adierazle Publikoaren (EAEAP) %70 baino gutxiagoko, edo bere kargurako pertsonak izanez gero %100 baino gutxiagoko baliabide pertsonalak dauzkaten 18 urtetik gorako pertsonak dira. 2007rako EAEAP hileko 499,20 eurotan finkatu zen. 2007ko abenduan guztira 674 lagunek zeukaten laguntza hori onartuta, aurreko urtean baino 176 gutxiago.
- Hirugarren pertsonari laguntzeko subsidioa (HPLS). Al-dian-aldiko prestazioa da, eta arestiko ataleko baldintzak beteta, %75 baino maila handiagoko baliaezintasuna daukatenei dago zuzenduta. 2007ko abenduan guztira 85 lagunek zeukaten laguntza hori onartuta, aurreko urtean baino 6 gutxiagok.
- Mugikortasunerako eta garraio gastuak ordaintzeko subsidioa (MGGS). %33tik gorako baliaezintasuna izanda, baliabide ekonomikorik gabe, taldeko garraioa erabiltzeko zailtasun handiak dauzkaten 3 urtetik gorako pertsonak ohiko bizilekutik kanpo mugitzeko dauzkaten gastuak ordaintzeko da.

² Foru Aldundiek mugikortasunerako eta garraio gastuak ordaintzeko subsidioak eta osasun eta farmazia laguntza jasotzen dituzten pertsonen dagozkien gastuari eta kopuruari buruzko informazioa emateari utzi zionez gero, Memoria honen 2005eko argitalpenetik ezinezkoa da aurreko edizioen denborako serieei eustea. Horrexegatik, EGL pentsioei buruzko grafikoak bestelako subsidio modalitatei buruzko informazioa baino ez du ematen.

Osasun eta farmazia laguntza. Prestazio hau Foru Al-
dundiek onartzen dute, baina Osakidetza-
ren osasun zerbitzuek ematen dute; hori dela eta, ez dakarkie kostu ekonomikorik. %33tik gorako baliaezintasuna izanda Giza-
zarte Segurantzaren sistemaren aplikazio eremuaren barruan sartzen ez diren pertsonen onartzen zaie. Zehatz-mehatz, haren helburua, kasu bakoitzean zehaztutako errehabilita-
zio-medikuntzako eta farmaziako laguntza bidez, per-
tsona onuradunen osasuna zaintzeko eta sendatzeko zerbitzuak ematea da.

2007. urtean, EAEn EGLren onuradunak honela banatu dira: 679 GSBSren prestazioetan, 86 HPLSrenetan eta 32 MGGSrenetan. Holako subsidioen murrizketa handia ari da izaten, orain dela hamarkada bat onartutako 5.000 pentsiotik gora baitziren. 2007an holako prestazioetan 1,5 milioi euro ordaindu dira, 2006an ordaindutakoa baino %13 gutxiago.

3


Pobreziaren eta gizarte bazterkeriaren aurkako neurriak EAE-n

Pobrezia, tradizioz, desberdintasun ekonomikori egon da lotuta, eta sarrera maila baxua daukaten gizarte maila lotu zaio. Azken urteotan, ordea, gure gizartean gertatutako aldaketak -bai ekonomikoak, zein gizarte eta familiakoak- bazterkeria mekanismo berriekin batera etorri dira, eta, ekonomia hutsekoak ez ezik, bestelako era-

gile batzuek ere gizarte bazterkeria prozesuak abiarazten dituzte.

Gaur egun txirotasunez hitz egitea errealitate mosaiko korapilatsu batera hurbiltzea da; errealitate horietan, desberdintasun ekonomikotik harago, "bazterkeria" kontzeptua sartzen da, honela definituta "gizarte eskubideak,

V.3.1. GRAFIKOA. JASOTZAILEEN URTEKO KOPURUAREN ETA OINARRIZKO ERRENTA ETA GIZARTE LARRIALDIKO LAGUNTZE-TAKO GASTUAREN (MILIOI EUROTAN) BILAKAERA



Iturria: Gizarteratze Zuzendaritzaren datuen bidez prestatua.

*batez ere lanerako eskubidea, baina baita heziketarako, prestakuntzarako, kulturarako, osasunerako, etxebizitza duinerako, gizarte babeserako eskubideak ere erabiltzeko ezintasuna*¹.

EAEEn pobrezia-aren, bazterkeria-aren eta gizarte bazterkeria-aren aurka borrokatzeko tresna nagusien artean, Gizarte Zerbitzuei buruzko Legearen, Bazterkeria-aren aurkako Legearen eta Gizarte Eskubideen Gutunari buruzko Legearen esparruan, Oinarrizko Errenta eta Gizarte Larrialdiko Laguntzak (GLL) daude, Pobrezia-aren aurka borrokatzeko Plan osoaren baitan sartutako gutxieneko sarrerak bermatzeko programak.

Horiez gain, gizarte-prestakuntza-laneko gizarteratze programak daude, parte hartzen duten aldean (gizarteratzeko enpresak sortzea jasotzen da), udalen eta bazterkeriako egoeran edo arriskuan dauden pertsonen arteko hitzarmenen bidez. Tresna horiek AUZOLAN programaren bidez garatzen dira, eta Oinarrizko Errentarako eskubidea daukatenei, Oinarrizko Errentarako eskubidearen jabea-arengandik aparteko elkarbizitzako batasun ekonomikoko kideei edo gizarteratze eta lan-munduratze hitzarmena sinatu duten eta bazterkeriarako arriskuan dagoen pertsona orori daude zuzenduta.

3.1. Oinarrizko Errenta

Oinarrizko Errentak (OE) Gizarte Eskubideen Gutunari buruzko abenduaren 27ko 10/2000 Legearen bidez lehen Gizarteratzeko Gutxieneko Sarrera zeritzona ordezkatu zuen; EAEEn gutxienez urtebeteko antzintasunez erroldatuta egonda oinarrizko premiei eta gizarteratze eta lan-munduratze prozesu batetik etorritakoei aurre egiteko baliabide ekonomiko nahikorik ez daukatenei ematen zaie. Laguntza hori jasotzeko oinarrizko gizarte zerbitzuek emandako premia egoerari buruzko ziurtagiria behar da, baita -salbuespenak salbuespen- gizarteratze hitzarmenetan parte hartzea ere, gizarteratzea eta lan-munduratzea eta premia egoera horretatik irtetea errazteko. Oinarrizko Errenta eskuratu ahal izateko baldintza orokorren artean,


23 urtetik gorakoa izan behar da, eta jasotako kopurua honakoa izango da: hamabi hileko soldatatan ordaindutako lanbide arteko gutxieneko soldataren %88ko sarrerak bermatzeko behar dena, gehi haren %25 bigarren pertsonarentzat eta %10 gehiago pertsona bakoitzeko hirugarrenetik aurrera².

Oinarrizko Errenta, lan jardueratik edo gizarte prestazioetatik -besteak beste, Gizarte Segurantzaren kotizazio gabeko prestazioak- etorritako errentarik ez daukatenez, prestazio independentea izateaz gain, osagarria da mota bateko edo besteko sarrerak Oinarrizko Errentaren kopurura iristen ez direnean.

2007an Oinarrizko Errenta 36.004 familiak jaso dute, aurreko urtean baino %6,4 gehiagok, orduan 33.834 elkarbizitza unitatek jaso baitzuten. Lurraldeka, Bizkaia jasozaile kopururik handiena dauka, 25.929, EAEko guztien %72. Gainera, 2006arekiko unitate jasotzaileen hazkuntza ere handiagoa izan da lurralde horretan: aurreko urtearekiko %7,1 hazi da, Araban %6,9 eta Gipuzkoan %3,5 hazi den bitartean.

2007an Oinarrizko Errentagatik ordaindutakoa guztira 168,6 milioi euro izan da (2006an baino %10,3 gehiago), eta elkarbizitza unitate jasotzaile bakoitzeko batez beste emandako zenbatekoa hileko 478,61 eurokoa izan da, 2007rako lanbide arteko gutxieneko soldatarako finkatutakoaren %71,9 (aparteko ordainsarien hainbanaketarekin).

V.3.2. GRAFIKOA. OINARRIZKO ERRENTAREN KOPURU-AREN BILAKAERA, LANBIDEEN ARTEKO GUTXIENEN SOLDATAREN PORTZENTAIA BEZALA




Iturria: Gizarteratze Zuzendaritza. EUSKO JAURLARITZA.

¹ Gizarte Bazterkeria-aren aurkako maiatzaren 22ko 12/1998 Legea.

² "Gizarte Bazterkeria-aren aurkako 12/1998 Legea aldatzen duen ekainaren 22ko 4/2007 Legeak eta Gizarte Eskubideen Gutunari buruzko abenduaren 27ko 10/2000 Legeak" aldatutako kopurua.

V.3.3. GRAFIKOA. JASOTZAILE TASA ESKUALDEKA



Iturria: Lan, Justizia eta Gizarte Segurantzaren Sailaren (2007) eta EUSTATen (2005) bidez geuk paratua.

Oinarrizko Errentagatik ordaindutako kopuruen lurraldearen arabera banaketa unitate jasotzaileenarekin bat dator; horrela, egindako gastuaren portzentaiarik handiena Bizkaia dagokio, guztizkoaren %76,4, eta haren atzean daude Gipuzkoa (%14) eta Araba (%9,6).

Bestalde, 2007an Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailak, 2006ko aurkezpen honi dagozkion datuen eta lagin esanguratsu bati egindako inkesta baten bidez, "*Oinarrizko Errenta jasotzen duten pertsonen ikerketa*" egin du; ikerketa horrek bidea ematen du haren oinarrizko ezaugarriak, lanerako ezaugarriak eta bestelako ezaugarri interesgarriak ezagutzeko.

Hasteko, Oinarrizko Errenta jasotzen duten pertsonak gehien bat Bizkaian erroldatutako emakumeak dira, bikotekideak, etorkinak eta nagusiak. Sarrera maila txikia daukaten pertsonak dira, haien herenak 16 urtetik beherako seme-alabekin bizi dira, eta haien familietan zenbait gizarte arazo gertatzen dira: tratatu txarrak, drogazaletasun arazoak... Gainera, arazo ekonomikoak jasotzaileetako ba-

tzuk elektrizitate-horniketa etenda izatera, kredituak eskatzera, bahituretara... eraman dituzte.


Holako arazoek pertsona horietako batzuei eragiten diete; beste jasotzaileentzat, ordea, arazoa ez da gizarte bazterkeria, arazo ekonomikoak baizik, eta arazook, edonola ere, bazterkeria prozesura eraman litzakete Oinarrizko Errenta eta bestelako baliabideak tartean egon ezean.

Lan egoerari dagokionez, egun jasotzaileen %15 inguru erretretan daude, eta antzeko portzentaiak etxeko lanak egiten dituzte, ordainik gabe. Adinari dagokionez, herenak berrogeita hamar urtetik gorakoak dira, eta lanerako adina izan arren, zailtasun handiak daukate lan merkatuan sartzeko, batez ere prestakuntza eta lan esperientzia mugatuak badira.

Etorkinen artean, jasotzaileen %30, administrazio erregulaziorik eza %41ekoa da, hots, pertsona jasotzaileen %12k, lege oztupoak direla-eta, ezin dute lanik eskuratu -ez merkatu arruntan, behintzat-. Ikerketatik ateratzen da %7,3 kontraturik gabe ari direla lanean, baina

V.3.1 . KOADROA. EGUNGO JARDUERAREN EGOERA						
	Gizonezkoak		Emakumezkoa		Guztira	
	N	%	N	%	N	%
Langile autonomoa	13	2,4	25	1,9	38	2,0
Soldatapekoa merkatu normalizatuko kontratuarekin	69	12,9	235	17,6	304	16,3
Soldatapekoa lan-munduratzeko enpresako edo lan zentro bereziko kontratuarekin	9	1,7	23	1,7	32	1,7
Kontraturik gabe lanean (garbiketa, azoka, txatarra, familiako laguntza)	34	6,4	103	7,7	137	7,3
Langabea (lan bila)	247	46,2	425	31,9	672	36,0
Ikasten (lanik bilatu gabe)	5	0,9	14	1,1	19	1,0
Jubilatua, pentsionista (lanik bilatu gabe)	107	20,0	176	13,2	283	15,1
Etxeko lanak (lanik bilatu gabe)	4	0,7	286	21,5	290	15,5
AUZOLANeko partaidetza	1	0,2	1	0,1	2	0,1
Bestelakorik	43	8,0	45	3,4	88	4,7
Ed/Ee	3	0,6	0	0,0	3	0,2
Guztira	535	100,0	1.333	100,0	1.868	100,0

Iturria: Oinarrizko Errenta jasotzen duten pertsonen inkesta.



Iturria: Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila (2007).

ikerketak berak onartzen du seguruenik portzentaia onar-tutakoa baino dezente handiagoa dela.

Langabetuen artean, etxeko lanetan dihardutenei eta kontraturik gabe lan egiten dutenei dagokienez -maila ho-riek lan-munduratzeko politikaren helburu nagusiak izan li-tezke-, erdiek baino gehiagok adierazten dute lan egiteko gaituta daudela, baina muga batzuk dauzkatela: osasun fi-

sikoko arazoak, norbait zaindu beharra, handia irizten zaion adina, edo prestakuntza falta dira nagusienak.

Oinarrizko gizarte zerbitzu sistemari dagokionez, hura izanda arreta zuzenaren arduraduna eta, aldi berean, pres-tazio ekonomikoak izapidetzen eta kudeatzen dituen, tratu pertsonalari buruzko balorazio ona egiten da, baita ematen duten informazioari buruzkoa. Hala ere, egiten den

jarraipena gehienetan pertsona jasotzailearen ekimenez egiten da, baina kontuan izan behar da egiaztatu gabeko informazioa dela.

Bukatzeko, baloratzen diren alderdien artean, lanerako orientabidea baloratzen da okerren, eta gizarteratzeko hitzarmena -Oinarritzko Errentaren norakoa artikulatzen duen oinarritzko kontratua- ez da betetzen eta jasotzaile gehienek ez dute ezagutzen. Bestalde, ikerketak azpimarratzen du gizarteratze hitzarmena ez betetzeak ez dakarrela berekin prestazioa bertan behera uztea; beraz, ez du ematen Oinarritzko Errentaren onuradunek bere egiten dutenik prestazioari kontraprestaziorik dagokionik.

3.2. Gizarte Larrialdiko Laguntza

Gizarte Larrialdiko Laguntzak (GLL) aldizkakoak ez diren prestazioak dira, eta oinarritzko berariazko premiei, batez ere, etxebizitzari lotutakoei, aurre egitera zuzentzen dira; premia horiek gizarte bazterkeriari aurre hartzeko, saihesteko edo arintzeko behar diren gastuei aurre egiteko baliabide nahikorik ez daukaten pertsonen ustekabean etorritakoak dira. Izaera finalista da, eta eman diren helbururako baino ezin dira erabili.

Laguntza horiek honako berariazko gastuei heltzen diete:

- Etxebizitza edo ohiko egoitza izateko eta mantentzeko gastuak (alokairuak, kredituen interesak eta amortizazioak, energia, ura, estolderia, zaborrak, komunitatea...).
- Etxebizitzaren edo ohiko egoitzaren epe luzerako bizigarritasunari eta oinarritzko ekipamenduari lotutako gastuak (altzariak, linea zuriko etxetresna elektronikoak, oinarritzko instalakuntzak, edo haiek egokitzeko edota konpontzeko gastuak).
- Sistema publikoek babestu gabeko jantziei, hezkuntzari, prestakuntzari edo osasun zerbitzuei buruzko oinarritzko premiei lotutako aparteko, ustekabeko eta ezohiko premiak betetzeko gastuak, edo oinarritzko gizarte zerbitzuen iritiz gizarte bazterkeriako egoerei aurre hartzeko, saihesteko edo arintzeko heldu beharreko antzeko izaerako beste edozein.

2007an guztira holako laguntzen 26.398 jasotzaile izan ziren, aurreko urtean baino %1,2 gehiago; haietatik 15.668 Bizkaiko lurraldekoak ziren (%59,4), 6.183 (%23,4) Gipuzkoakoak eta 4.547 (%17,2) Arabakoak.

2007an Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren aurrekontuen kargura Gizarte Larrialdiko Laguntzatarako bideratutako zenbatekoa 36 milioi eurokoa izan da, aurreko urtean baino milioi bat gehiago, hots, %2,9ko hazkundea. Onuradun bakoitzeko urtean batez beste ordaindutako zenbatekoa 1.364 eurokoa izan zen, 2006an baino %1,7 gehiago.


V.3.2. KOADROA. ERABILTZAILE KOPURUAREN ETA OINARRITZKO ERRENTAKO ETA GIZARTE LARRIALDIKO LAGUNTZETAKO GASTUAREN BILAKAERA EAE-N

	Oinarritzko Errenta			GLL		
	2005	2006	2007	2005	2006	2007
Jasotzaile kopurua*						
Araba	3.958	3.933	4.206	4.884	4.353	4.547
Gipuzkoa	5.457	5.673	5.869	5.630	5.976	6.183
Bizkaia	22.239	24.218	25.929	13.774	15.765	15.668
	31.654	33.824	36.004	24.288	26.094	26.398
Gastua (milioi euro)						
Araba	14,81	14,59	16,28	4,42	4,82	4,88
Gipuzkoa	21,50	22,36	23,53	6,84	8,07	8,32
Bizkaia	103,04	116,75	128,75	18,73	22,11	22,81
	139,35	153,70	168,56	30,00	35,00	36,00

(*) Urtean laguntzak jasotzen dituzten elkarbizitza unitateen edo familien kopurua.

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Saila. Gizarteratze Zuzendaritza.

V.3.5. GRAFIKOA. GIZARTE LARRIALDIKO LAGUNTZAK: JASOTZAILE KOPURUAREN BILAKAERA LURRALDEKA



Iturria: Gizarteratze Saila. EUSKO JAURLARITZA.

3.3. Auzolan Programa

Programa hau prestazio ekonomikoak (Oinarritzko Errenta eta GLL) jasotzen dituztenen eta gizarte-egoera ahuleko bestelako pertsonen lan-munduratzea errazteko abiarazi zen. Programa uztailaren 30eko 199/2002 Dekre-

tuak eta bazterkeriako arriskuan edo egoeran dauden per-
sonak lan-munduratzeko abuztuaren 31ko 166/2004 De-
kretuak sartutako aldaketak arautzen dute.


2007 ekitaldian Aholkularitza Erakunde berri bat (2006an baino bi gutxiago) homologatu da, eta bazterke-
riako arriskuan zeuden 761 pertsonari lan kontratua egi-
teko laguntzak eman dira, 2006an baino 170 gehiago,

V.3.3. KOADROA. AUZOLAN PROGRAMA: EMAITZEN URTEKO BILAKAERA

	2003	2004	2005	2006	2007
Proiektuak	70	79	88	68	89
Erakundeak	40	39	39	36	48
Onuradunak	686	758	801	591	761
Dirulag./Onuradun (€)	6.501,46	9.472,30	10.160,41	10.740,13	
Dirulag./Proiektu (€)	6.3714,29	90.886,08	92.482,85	93.344,39	
GTU. GUZTIRA (Milioi €)	4,46	7,18	8,14	6,35	8,10

Iturria: Gizarteratze Zuzendaritzaren bidez paratua. EUSKO JAURLARITZA.


V.3.6. GRAFIKOA. AUZOLAN PROGRAMA: ONURADUN ETA PROIEKTU BAKOITZEKO GASTUAREN BILAKAERA. €



Iturria: EUSKO JAURLARITZAren datuetan oinarrituz landuta.

517

V.3.7. GRAFIKOA. AUZOLAN PROGRAMA: PARTAIDEAK PROIEKTU MOTAREN ARABERA. 2002-2005 ALDIA



Iturria: Gizarteratze Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritza.

alegia. Guztira 89 proiektu dira (aurreko urtean baino 21 gehiago), EAEko 48 erakunderen bitartez -izan udalak edo mankomunitateak eta udal zerbitzuetarako elkarteak-deialdi horren laguntzak jaso dituztenak. Erakunde horiei emandako zenbatekoa guztira 8,1 milioi eurokoa da (2006an baino %27,6 gehiago).

Guztira, azken zortzi urteotan Programak 8 milioi euro baino gehiago bideratu ditu diseinatu zen helburuetara,

eta guztira 5.241 lagun izan dira haren onuradunak. Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailak 2007an 2002-2005 aldirako Auzolanen ebaluazioa aurkeztu du; bertan, ondorioen artean, azpimarratzen du programa-ren ekarpen nagusia parte hartzaileen kualifikazioa eta lan itxaropenak hobetzea izan dela.

4


Gizarte aurreikuspeneko programa osagarriak EAE-n

EAEko BGAE-ei aplikatzen zaien araudiaren arabera, holako erakundeak, derrigorrezko Gizarte Segurantza osatzen duten aurreikuspen sistemaren esparrutik kanpo, irabazi asmorik gabeko funtsezko xedea euren kideak edo haien ondasunak ustekabeko edo aurreikusteko moduko inguruabar edo gertakizunen aurka babesteko borondatezko eta gizarteko izaerako aurreikuspeneko modalitatea erabiltzea daukaten erakunde bezala eratzten dira. 2007ko behin-behineko datuen arabera, Memoria hau ixteko

datan, EAEk 185 BGAE dauzka EAEko BGAE erregistroan erregistraturik, 2006ko berberak 1,25 milioi bazkide (gure Erkidegoko biztanleen %59) eta 17.439 milioi euroko (BPGren %26,3, behin-behineko datuen arabera) ondarea dauzkate.

Babesten dituzten gertakizunen arabera BGAEak kategoria handi bitan banantzen dira: pertsonalak (erretreta, baliaezintasuna, langabezia, heriotza, gaitz larria) eta baz-

V.4.1. GRAFIKOA. BGAE-EN BILAKAERA EAE-N. OINARRIA: 2002



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailaren datuekin paratua.

kidearen ondasunei eragiten dieten gertakizunak (etxebizitza, lan tresnak, abereak, uztak eta haien profesio edo lan jarduerari lotutako bestelako ondasun mutualistak).

Lehen taldearen baitan, hots, gertakizun pertsonalen modalitatearen barruan (atal honek batez ere modalitate horretaz dihardu), azken finean, pentsioen eremuan, gainera, bigarren sailkapena egin daiteke, honakoetatik zeini dagokion:

- Lan sistema: sustatzailea edozein erakunde, korporazio, sozietate edo enpresa da eta bazkideak haren langileak.
- Elkartze-sistema: sustatzailea edozein elkarte, sindikatu, gremio edo talde da eta haren bazkideak, kideak edo afiliatuak erakundea osatzen dutenak. 2007an lan eta elkartze modalitateak batera 50 erakunde ziren, guztizkoaren laurdena, azken urteotan aldaezin dirauen kopurua.
- Banakako sistema: sustatzailea finantza izaerako erakunde bat edo batzuk dira eta bazkideak edozein pertsona fisiko, lan harremana dela-eta hari lotuta daudenak izan ezik. 2007an erakunde guztien %24,3 ziren, eta kopuru hori egonkorra da aurreko urtetik.

4.1. Magnitude nagusien bilakaera

2006ko joera, hura gure Erkidegoko BGAE-ei dagozkien magnitude nagusiei buruzko behin betiko informazioa

eskuragarri dagoen azken urtea izanik, sektorearen aldagai esanguratsuen hazkunde orokorrekoa da; sektoreak EAEn gizarte aurreikuspen osagarria ezartzeko prozesuan jarraitzen du, gutxienez haren figura nagusiari, BGAE-ei, dagokionez.

Bazkidetutako pertsona kopuruak hazten jarraitzen du, %5,4, eta horrela 1,2 milioi baino gehiago dira dagoeneko, atxikipenetan egon daitezkeen bikoiztasunak kontuan hartu behar badira ere. Haietatik, %60 banakakoak deritzen erakundeei dagozkie, %30 lan BGAE-ei eta gainontzeko %10 bestelako erakundeei.

Ekarpenak, bestalde, 1,4 milioi eurokoak dira, aurreko urtean baino %9,2 gehiago, eta ondarea 16.217 milioi eurokoa, 2005ean baino %12,1 gehiago. Azken hura ia berdin dago lan eta banakako erakundeen artean banatuta.

2007an, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailak “Gizarte aurreikuspen osagarria Euskadin. 2005. urtea” txostena prestatu du; txosten horrek gizarte aurreikuspen osagarriaren adierazleen araberako diagnostikoa dakar. Ondorio nagusiak honakoak dira:

- *Gizarte aurreikuspen osagarriaren hazkundera.* Txostenak, lehenengo eta behin, azpimarratzen du BGAE-ei egindako ekarpenak %12,9 hazi zirela 2005ean, eta tasa horrek ekonomiaren hazkundera ia bikoiztu zuela. Gainera, aurreko urteetako baino hazkunde handiagoa da, eta EAEn gizarte aurreikuspen pribatua ezartzeko prozesuaren bizkortzea adierazten du.
- Ekarpenen hazkundera ez zen homogeneoa izan BGAE modalitate bakoitzean, gertatutako bizkortzea ia osorik banakako BGAE-ei egindako ekarpenengatik izan bait-


V.4.1. KOADROA. BGAE-EN MAGNITUD NAGUSIEN BILAKAERA EAE-N					
	2004	2005	2006	2004-05 %	2005-06 %
Bazkidetutako pertsonak*	1.059.766	1.162.565	1.225.429	9,7	5,4
Ekarpenak (mila €)	1.132.447	1.278.994	1.397.278	12,9	9,2
Ondarea (mila €)	12.871.137	14.469.881	16.216.923	12,4	12,1
Errenta finkoko inb. (mila €)	7.124.271	7.068.623	:	-0,8	:
Errenta aldakorreko inb. (mila €)	2.404.549	2.470.660	:	2,7	:
Pentsioetako gastua (mila €)	269.446	272.268	:	1,0	:
BGAE kopurua	204	199	185	-2,5	-7,0

(*) Pertsona bera BGAE batean baino gehiagotan egon daiteke. Bikoiztasunak kenduko balira, atxikitako pertsonen benetako kopurua txikiagoa litzateke.
Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saila.

V.4.2. KOADROA. BGAE-EN BURUZKO DATUAK 06-12-31N (MILA EUROTAN)

	KOPURUA	BAZKIDEAK	EKARPENAK	ONDAREA
LAN BGAE-AK	50	365.780	500.669	8.132.585
BANAKAKO BGAE-AK	45	739.123	892.157	8.071.819
GAINONTZEKO BGAE-AK	90	120.526	4.452	12.519
BGAE-AK GUZTIRA	185	1.225.429	1.397.278	16.216.923

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila.

V.4.2. GRAFIKOA. BGAE-EN ONDAREA

Iturria: Eusko Jaurlaritza. "Gizarte aurreikuspen osagarria Euskadin. 2005 urtea"

zen; lan BGAEak hazi egin dira, baina ez hainbeste, aurreko urteen antzera. Azken hamarkadako ikuspegi historikoan, banakako BGAE-en nagusitasun gero eta handiagoa sumatzen da, zein azken urtean bizkortu egin baita.

- Bazkide kopurua EAEko biztanleriaren hazkundearen oso gainetik hazten da. 2005ean bazkide kopurua %9,8 hazi

zen; hazkunde handiena lan BGAE-etan gertatu zen, eta banakako atxikipenak, ordea, ia ez ziren hazi. Hori ekarpenen sarrerekin gertatutakoaren kontrakoa da, eta arrazoiak da 2005ean Itzarri, EAEko Administrazio Orokorreko langile publikoak babesten dituen BGAE sortu zela¹.

- BGAE-en batez besteko ekarpena, berriz, inflazioaren azpitik hazten da. Bazkide bakoitzaren batez besteko

¹ Atxikitako pertsona askorekin jaio zen erakundea da, 70.000tik gora, baina finkatutako hasierako kuotak oso txikiak dira lehenengo urtean. Izan ere, kotizazio tipoaren portzentaia puntu erdi hazi da hurrengo urte bietako bakoitzean.

ekarpena ozta-ozta %3 hazi da 2005ean, eta hazkunde hori, inflazioa kenduta (%3,3) negatiboa da. Kotizazio ahalegin txikia neurri handi batean aipatu Itzarriri egotz dakioke, bazkide asko izan arren pertsona bakoitzeko ekarpena urria baita.


- *Ondarea etengabeko hazkundera.* 2005eko ekarpenen hazkunde handiarekin batera, BGAE-en ondarea batez besteko historikoaren gainetik hazi da, %12, eta ekitaldiaren bukaeran zenbatekoa EAEko GBPren %25,2 da.
- *Inbertsioen dibertsifikazio handiagoa.* Errenta finkoko finantza aktiboetako inbertsioa oraindik da BGAE-ek pilotutako funtsen helmuga nagusia. Dena dela, 2005ean dibertsifikazio handiagoa gertatu zen, arina izan arren, errenta finkoaren pisua murriztu egin zen, eta errenta aldakorra handitu, inbertsio funtsetan eta bestelako finantza tresnetan.
- *Pilatze joera.* 2005 ekitaldian BGAEak batez ere banakako modalitateko zenbait erakundetan gertatutako pilaketagatik murriztu ziren. Garai batean, finantza erakunde batzuek, bazkide babesle gisa, zenbait inbertsio joera zeuzkaten BGAE-ak sortu zituzten. Bazkideek 10 urte igaro arte euren kontsolidatuak haien artean lekualdatzeko biderik eza zeukatenez gero, aurreikuspen planen bitartez inbertsio politika guztiak BGAE bakar batean pilotatzea hautatu zuten.

4.2. Babesturiko biztanleria


Eusko Jaurlaritzaren txostenak, zenbait ikerketaren bidez, aurreikuspen erakundeetarako atxikipen bikoiztuen pisua ezagutzea ezinezkoa baita, kalkulatzeko du gutxi gorabehera EAEko biztanleen herenek aurreikuspen/pentsio planen bat zeukatela 2005ean. Gainera, gizarte aurreikuspen osagarri sistema osoaren jardueraren %90 inguru BGAE-en bidez egiten dela kontuan izanik, haren azterketak erakunde mota horri jartzen dio arreta. Bazkideei buruz ateratako ondorio nagusiak honakoak dira:

- *EAEko BGAE-ek Estatuko babes tasa hirukoizten dute.* Lan BGAE-en azterketari helduz, haien artean ia ez baita atxikipen bikoiztasunik sumatzen, kalkulatzeko da EAEn lana daukaten biztanleen %35,7k daukala lanbide planen bat izenpetuta; Estatuan, ordea, %10ek. Holako ratioak Danimarka, Holanda edo Suedia bezalako herrietakoetatik oso urrun daude, bertan babes tasak lanindarraren %90 ingurukoak baitira. Beste batzuek, hala nola, Alemaniak, Erresuma Batuak edo Belgikak, %40 eta 80 arteko ratioak dauzkate. Gainera, Eusko Jaurlaritzaren txostenak azpimarratzen du langile bi baino gehiagoko enpresen %29,14k aurreikuspen planen bat daukatela BGAE batean kontratatuta.

V.4.3. GRAFIKOA. BGAE-ETARA BAZKIDETUTAKO PERTSONAK EAEN



Iturria: Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailaren bidez prestatua.

V.4.4. GRAFIKOA. LAN BGAEak EAEn. BAZKIDETUTAKO PERTSONEN BANAKETA SEXUAREN ARABERA. 2005. %

Iturria: Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila

- *Bazkide pasibo eta aktiboen arteko mendekotasun tasa txikia.* 2005ean BGAE-etatik kobratzen duen bazkide bakoitzeko ordaintzen duten bederatzi bazkide zenbatzen dira. Zehazki, lanbide planen bazkideen %79,2k ordaintzen dute, %8,4k prestazioak jasotzen dituzte eta gainontzeko %12,4 "etendako" bazkideak dira. Mendekotasun tasa txiki hori sistemaren gaztetasunaren zantzua litzateke.
- *Prestazioen jasotzaileak.* Eusko Jaurlaritzako Lan Zuzendaritzaren BGAE-ei buruzko Estatistika eta Kontularitza Agiriei erakusten dute 2005ean holako erakundeek 113.122 prestazio eman zituztela, baina datu hori tentuz hartu behar da, berriz ere, bikoiztasunak direla-eta. Guztizko horretatik, lanbide sistemak 87.743 eman zituzten eta, ustezko bikoiztasun ezari eutsiz, hori bazkideen %26 litzateke. Prestazio motarik garrantzitsuena pentsioak dira, modalitate horretan guztira 32.231. Holako pentsiodunak lan BGAE-ei ordaintzen dietenen %12,1 dira, hots, pentsiodun bakoitzeko ia hamar kotizatzaile zenbatzen dira.
- *Babestutako biztanleen ezaugarriak.* Azterketaren arreta berriro lan BGAE-ei jarritz, Eusko Jaurlaritzaren txostenak agertzen du bazkideen %63,8 gizonezkoak direla, babesaren "gizontze" horretan salbuespen bat badago ere: arlo publikoa. Administrazioan egoera alderantzizkoa da eta emakumeak %59,2 dira. Arlo pribatuko lanbide pla-

netan, ordea, emakumeak bazkideen %27,6 baino ez dira.

Bestalde, arlo publikoko langileak aurreikuspen planen bazkide guztien %27,2 badira ere, haien babes tasa %96koa da, arlo pribatuko langileena %21ekoa den bitartean. Bazkideen adinari dagokionez, batez beste 42 urtekoa da, EAEn Gizarte Segurantzako kotizazioen batez besteko adina apur bat txikiagoa den bitartean: 40 urte. Azpimarratu beharreko beste datu bat: lanbide planen bazkideen artean 35 urtetik berakoak %32,8 dira, Gizarte Segurantzako afiliatuen artean %35,7 diren bitartean.

- *Biztanle babestuenak errenta handiena daukatenak dira.* 2004ko PFEZren kitapenen bidez, Eusko Jaurlaritzaren ikerketak erakusten du 42.000 eurotik gorako zerga-oinarria (dezil gorena) daukaten biztanleek %71eko babes portzentaia daukatela, eta 8.400 eurotik behe-rako zerga-oinarria (dezil baxuena) daukaten biztanleen artean, ordea, indizea %23koa dela.

4.3. Babesaren intentsitatea

1. Ekarpenen zenbatekoa

- BGAE-ei egindako urteko batez besteko ekarpena 2.000 euro ingurukoa da. 2005ean BGAE-ei buruzko Estatistika eta Kontularitza Agirien arabera (EKA), BGAE-ei egindako urteko batez besteko ekarpena 1.754 eurokoa izan zen. Pertsona batek BGAE bati baino gehiagori ordain diezaiekeela dakigunez gero, pentsatu behar dugu pertsona bakoitzeko batez besteko zenbatekoa handiagoa dela. Hori zerga iturriekin erkatuz, bertan ez baitago bikoiztasun arazorik, ikusten dugu 2004an PFEZren aitortpenen jasotako batez besteko ekarpena 2.106 eurokoa izan zela, EKAren datuarekin bat datorren kopurua.
- Batez besteko ekarpena dezente aldatzen da BGAE motaren arabera: Batez beste, banakako BGAE-etako ekarpenak lan erakundeetakoak baino handiagoak dira. Urteko 6.000 eurotik gorako ekarpenak banakako plan guztien %7,2 dira eta lan planetan, ordea, %1,5. Kontuan izan behar da, aldiz, banakako BGAE-etan sartzen diren pertsonak, adinari dagokionez, lanekoak baino beranduago sartzen direla; hori dela eta, datuak garrantzia

V.4.3. KOADROA. BGAE-EI EGINDAKO BATEZ BESTEKO EKARPENAK EAE-N. 2005. EUROAK

BGAE GUZTIRA (EKA)	1.754
BGAE GUZTIRA (PFEZ)	2.106
BANAKAKO BGAE	1.809
LAN BGAE	1.650
DEFINITUTAKO PREST. LAN BGAE	9.085


Iturria: Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila.

galtzen du sistema baten edo bestearen babes intentsitatea neurtzerakoan; batzuek emandako kantitatean irabazten dutena kotizatutako urteetan galtzen dute.

Dena dela, gehien kotizatzen duen taldea lan BGAE-en artean dago. "Definitutako prestazio" sistema daukaten BGAE-en bazkideak dira batez bestekoaren oso gainetik ematen dutenak. Zehazki, definitutako prestazioko BGAE-en batez besteko ekarpena 9.085 eurokoa zen 2005ean.

- Lan BGAE-etan bazkide babeslearen ekarpena langilearen ekarpena baino handiagoa da. Batez beste, bazkide babesleek lan BGAE-en ekarpenen guztizkoaren %84 egiten dute. Baina batez besteko horrek hainbat errea-

V.4.5. GRAFIKOA. BGAE-ETAKO BAZKIDEEK EGINDAKO EKARPENEN BILAKAERA. 1998=100



Iturria: Justizia, Lan eta Segurantzza Sailaren bidez prestatua.

litate ezkututzen ditu; BGAE batzuetan kotizazioa %50ean banatzen da bazkide babeslearen eta bazkide arruntaren artean; beste batzuetan %100 bazkide babeslearen kontura zenbatzen da eta beste batzuetan, %50ean joan arren, langilearen ekarpena borondatezkoa denez, bazkide babesleak derrigorrez ordaindutako kuotak ordaindutakoaren %90 baino gehiago dira.

- *Pertsona gehienek, aldiz, ez dute nahikorik ematen.* “Batez bestekoa” berez ez da talde bateko norbanakoen ekarpenak nahikoak diren jakiteko neurri ona, haren banaketa ezagutu behar da. Lan BGAE-ak aztertuz, urteko batez besteko ekarpena soldataren %6ren gainetik egon arren, haren banaketa oso desorekatua dela ikusten da; lanbide planei ordaintzen dieten pertsonen %82 baino gehiagok %6 hori baino gutxiago ordaintzen dute. Eta %60 dira %3 baino gutxiago ordaintzen dutenak. Hots, lanbide planak dauzkaten pertsona gehienak ez daude benetan babestuta, ez dutelako ahalegin nahikorik egiten, are gehiago, kopuru horietan banakako ekarpena ez ezik, enpresaren ekarpena ere sartzen dela kontuan hartuz gero.

Gauza bera gertatzen da iturria 2004an PFEZn aitortutakoa denean: ordaintzen dutenen %80k batez bestekoaren azpiko ekarpena egiten dute. %46 dira batez besteko soldataren %3ren azpitik ematen dutenak. Laburbilduz, batez besteko ekarpena, gutxi gorabehera nahikoa, gutxi asko emanez eta askok gutxi emanez lortzen da, eta horrek zalantzan jartzen du sistemaren babesteko gaitasuna.

- *GBAE-en ekarpenak errenta maila altua daukaten biztanleengan pilatzen da.* PFEZren kitapenen arabera, 42.000 eurotik gorako errenta daukatenen batez besteko ekarpena (5.798€) 8.400 eurotik beherako errenta daukatenena halako bost da. Horren ondorioz, errenta handieneko biztanle segmentuan kotizazioaren pilaketa gertatzen da. Gainera, errentarik handiena daukaten %9k (> 42.000€) ekarpenen %25 egiten dituzte, eta baliabide gutxien daukaten %13k (8.400 eurotik beherako errenta) %7 ematen dute.

2. Pilatutako ondarea

- EAEko BGAE-en bazkideek 2005ean pilatutako batez besteko ondarea 14.000 eurokoa zen, baina kopuru hori berriro murriztuta dago balizko bikoiztasunak direla-eta. Bikoiztasunek eragin handia daukate banakako BGAE-etan, eta hori dela-eta, estatistiketan agertzen da haien

bazkideen pilatutako batez besteko ondarea lan BGSE-en bazkideena baino askoz txikiagoa dela.

- *Taldeen arteko desberdintasun handiak.* Lan BGAE-en artean, “definitutako prestazio” sistema daukatenen pilatutako batez besteko ondarea ia 115.000 eurokoa da, eta enpresa eremuko lan BGAE-etan bazkideek batez beste 75.000 euro per capita pilatzen dute, ekarpen definitua izan arren. Talde bi horien aurrean, gainontzeko BGAE-ek ondare oso urriak pilatzen dituzte, bai orain dela gutxi ezarri direlako, bai ekarpen urriak dauzkate-lako.

V.4.4. KOADROA. EAE-KO BGAE-EN BAZKIDEEN BATEZ BESTEKO ONDAREA ERAKUNDE MOTAREN ARABERA. 2005. EUROAK	
BGAE GUZTIRA	13.859
BANAKAKO BGAE-AK	10.181
LAN BGAE-AK:	21.070
- PRESTAZIO DEFINITUA	114.725
- EKARPEN DEFINITUA	22.322
- LANA - ENPRESA	74.722
- LANA - SEKTOREKOAK	2.836
- LANA - ARLO PUBLIKOA	5.334

Iturria: Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila.

3. Pilatutako funtsen inbertsio norakoa

- BGAE-en bazkideen %47,2 plan bermatuetan edo errenta aldakorrean %15 baino gutxiago inbertitzen duten planetan daude; %48 beren funtsen %15 eta 75 artean errenta aldakorrean inbertitzen duten planetan daude eta %4,8 baino ez daude errenta aldakorrean %75en gainetik inbertitzen duten planetan. Puri-purian dagoen plana, bazkide gehien daukana, errenta aldakorrean %15 eta 30 artean inbertitzen duena da.

Errenta finkoko inbertsioaren proportziorik handiena banakako BGAE-etan handitzen da (bazkideen %61,4). Puri-purian dagoen inbertsioa, hots, hautatuena, %15 azpiko errenta aldakorreko inbertsioa da..

- *Adina eta inbertsioaren norakoa.* 35 urtetik beherako bazkideen %9,6 arriskurik handieneko aurreikuspen pla-

nak hautatzen dituzte, hots, errenta aldakorrek aktiboen %75etik gorako pisua daukatenak; %57,5ek, ordea, arrisku oso txikiko planak hautatzen dituzte, errenta aldakorrean %15 baino gutxiago daukatenak. Horrela, gazteen inbertsio aukera ia ez da 55 urtetik gorakoenetik bereizten, haietako %65,6k plan kontserbadoreak hautatzen baitituzte, eta arriskukoak %4,8k.


4. Prestazioen zenbatekoa

- *Pentsioak, gastuaren atal nagusia.* BGAE-ek gertakizun sorta zabala babesten dute: besteak beste, ehorzketa gastuak, osasun-laguntza, edo iraupen luzeko langabezia, edo Gizarte Segurantzaren pentsioak osatzekoak. Gastuaren atal nagusia pentsioek osatzen dute: erretreta, baliaezintasuna, alarguntasuna..., gastuaren %76 dira. Haren atzetik datoz gaixotasun prestazioa (BI), %9, eta osasun-laguntza eta iraupen luzeko langabezia, %7 eta 6 hurrenez hurren.
- *GBAE-ak pentsio publikoen osagarri bezala pentsatzen dira. 2005ean, BGAE-ek gutxi gorabehera euren bazkideen pentsio publikoen %17 osatzen dute.* Urte horretan, BGAE-ek emandako batez besteko pentsioa urteko 5.083 eurokoa izan zen, 14 ordainsaritan banatuta hileko 363 euroko pentsioa, alegia.

4.4. BGAE-en dimentsio ekonomikoa

- *BGAE-ek euskal ekonomian daukaten pisua Espainiako ekonomian pentsio funtsek daukatena halako bi baino gehiago da.* 2005ean BGAE-ek pilatutako funtsak euskal BPGren %25,2 ziren; horrek ELGAren estatistiken arabera herrien rankingean erditik gora kokatzen gaitu. Herrialde batzuetan aurreikuspen pribatu osagarriak eginkizuna garrantzitsua dauka gizarte babes sistemetan, eta beraz, funts kapitalizatu horien garrantzia oso handia da; esaterako, Holandan edo Suitzan, beren BPGren %100 baino gehiago dira, Erresuma Batuan edo AEBn %10-80 inguru; eta beste batzuetan, Alemanian, Frantzia edo Italian, esaterako, haien pisua %10en azpitik dago. Gure errealitate hurbilarekin konparatuz, euskal BGAE-en pisua (%25,2) pentsio funtsek espainiar ekonomian daukatenaren (%9) oso gaineretik dago.
- *Errenta finkoa eta arrisku txikiko bestelako aktiboak, inbertsioaren protagonista.* Funtsak inbertitzailearen, ondarearen ia erdia errenta finkoko aktiboetan gauzatzen da, %49. Rankingean haren atzetik datoz errenta aldakorrek, %17, eta diruzaintza eta aktibo monetarioak,

V.4.6. GRAFIKOA. BGAE-ETAN PILATUTAKO FUNTSEN INBERTSIO NORAKOA BAZKIDEEN ADINAREN ARABERA: ERRENTA ALDAKORREN PISUA, 2005



%15. Atzean, neurri txikiagoan, inbertsio fondoak eta bestelako finantza inbertsioak.

Nazioartean, herrialde gehienetan argi eta garbi nagusitzen da errenta finkoko inbertsioa, baina errenta aldakorrek inbertsioek pentsio funtsak sartuen dauden herrialdeetan (Holanda, Erresuma Batua, AEB) daukate garrantzirik handiena. Horrela pentsio funtsen garrantziaren eta finantza inbertsioen sofistikazioaren arteko elkarrekikotasuna dago, funtsei etekinik handiena ateratzeko helburuz.


- *BGAEn aurreikuspen planek lortutako batez besteko errentagarritasun haztatua 2005ean %6,36koa izan zen.* Inflazioa kenduta, benetako gutxi gorabeherako errentagarritasuna %3koa da. Hazkunde positiboa EAEko ekonomiaren hazkundearen azpitik dago, haren hazkunde nominala %7,5ekoa izan baitzen².
- *BGAEn bazkide gehienek ez zuten onurarik atera 2005. urteko hazkunde ekonomikotik.* BGAEn euren kideei inbertsioetan arrisku maila desberdinak dauzkaten aurreikuspen planak eskaini ohi dizkiete. 2005 burtsari dagokionez portaera ona izan zuen urtea izan zen, horregatik, errenta aldakorretan gehien arriskatu zuten

aurreikuspen planak izan ziren errentagarritasun handienak lortu zituztenak: errenta aldakorrean %75etik gorako inbertsioa izan zuten planek batez beste %17,2ko errentagarritasuna lortu zuten, eta errenta finkoko planen eta bermatuen errentagarritasuna, ordea, %4-5 ingurukoa izan zen.

Arazoa da, ikusi dugunez, talde handiena arrisku txikiko planetan sartzen dela. Izan ere, aurreikuspen planen %45ek 2005ean %5 azpiko errentagarritasuna lortu dute, eta %2,5ek galerak izan zituzten. Planen %20k baino ez zituzten %10 nominalaren gaineko errentagarritasunak lortu, beste askok, %35ek, %5 eta 10 artekoak lortu zituzten bitartean.

Administrazio gastuak: ia puntu bat gutxiago lan BGAEn banakakoetan baino. 2005ean BGAEn administrazio gastuak haien ondarearen %0,81 dira, eta alde handiak daude lan BGAEn (batez beste %0,35) eta banakakoen (%1,29) artean. Modalitateen arteko alde hori Estatuan ere gertatzen da, eta bertan are handiagoa da: %0,16 eta %1,46; horrek eragin handia izan dezake pila-tutako ondarearen edo eskubidea ematen duen pentsioaren balioaren azken kalkuluan.

V.4.7. GRAFIKOA. AURREIKUSPEN PLANEN ERRENTAGARRITASUNA 2005EAN: ERAKUNDEEN BANAKETA



Iturria: Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila.

4.5. BGAEn zerga araubidea

EAEn BGAEn izan duten garapen handia, neurri handi batean, zerga estimulari esker gertatu da, aurrezteko formula horren erakarpina areagotu baitu, batez ere PFEZren bidez (zenbakiko bazkideentzat), baina baita Gizarteen gaineko Zergaren bidez (bai erakundeentzat eurentzat, bai enpresek edo bazkide babesleek lanbide planetan parte hartzea sustatzeko). EAEn zerga kontuetako eskuduntza Lurralde Historiko bakoitzeko Foru Aldundiek eta Batzar Nagusiek darabilte. Orokorrean, zenbakiko bazkide bakoitzak emandako kopuruak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zerga-oinarritik ken daitezke³. Bestalde, errenta diferituztat jotzen direnez, BGAEn etatik jasotako prestazioak (baita erreskateak edo

² Dena dela, %3 hori pentsio sistemen kalkulu aktuarioaletan eta sarrera eta gastuei buruzkoetan epe luzeke urteko hazkunde ekonomiko hipotesi bezala gehien erabiltzen denarekin bat dator.

³ Ondarearen gaineko Aparteko Zergari dagokionez, bazkidearen eskubide kontsolidatuak zerga horren aitortpena aurkezteko beharra dagoen zehazteko baino ez da zenbatzen, eskubide salbuetsitatz jotzen badira ere eta, beraz, haren zerga-oinarriaren parte izan ez arren.

gertakizuna gertatu baino lehen ordaindutako kopuruak) lan pertsonalaren etekin osotzat jotzen dira, baita atxikipenari begira ere⁴.


Zerga-Kideketarako Sailak emandako PFEZren 2005eko kitapenari buruzko datuen arabera (eskura dau den azkenak), BGAE eta gainontzeko aurreikuspen formulengatik egindako kenketa 1.72 milioi eurokoa izan zen, 2004an baino %10 gehiago, urte horretako EAEko BPGren %1,62 (%1,57 2004an), guztira 483.515 deklaratzailerentzat, aurreko urtean baino %4,6 gehiago, eta deklaratzailerentzen %46. Hori batez beste 2.217ko kenketa da, 2004ko batez bestekoa baino %5,3 gehiago. Zenbateko hori zerga-oinarriaren %5 da, eta baterako ordainketaren ondoren bigarren murrizketarik handiena da; bien artean zerga-oinarriaren murrizketa %10 ingurukoa da.

BGAE-ei ordaintzeagatik egindako kenketek pisu handiagoa daukate errenta ertainen artean: 18.000 eta

30.000€ arteko likidazio-oinarriko tartean (aitorpenen %35 jasotzen dituen tartea), BGAE-ei egindako ekarpenengatik egindako kenketen %30,3 sartzen dira, guztira 325 milioi euro. Haren atzean garrantzitsuena haren azpiko errenta maila da, 6.000 eta 18.000€ bitarteko likidazio-oinarria daukana. Aitorpen kopururik handiena daukan tartea da (guztien %35,8) baina, hala ere, kenketen zenbatekoaren %23,4 baino ez luke jasoko. Gainera, Foru Aldundien PFEZren aitorpenei buruzko datu bateratuek erakusten dute errentarik txikieneko (6.000€ baino gutxiagoko likidazio-oinarria) aitorpenen %7,3ri BGAE-ei egindako ekarpenengatik lortutako kenketen %4,1 baino ez dagokiela, hots, 43,7 milioi euro.

Bestalde, grafikoan ikusten denez, PFEZren zerga oinarrian BGAE-ei egindako ekarpenengatik lortutako kenketaren kopurua handiagoa da (batez beste) aitoritutako errenta maila zenbat eta handiagoa izan.

V.4.8. GRAFIKOA. BGAE-ETARAKO EKARPENENGATIK PFEZREN KITAPENEAN ZERGA-OINARRIAN EGINDAKO KENKETAK. 2004ko KITAPENEN DATUAK



Iturria: OCTren datuen bidez prestatua.

⁴ Dena dela, prestazioa kapital izaerako jasoketan badatza, %40eko kenketa dakar, eta errenta izaera badauka, ordea, osorik sartzen da zerga-oinarrian.



6

garapenerako lankidetza EAEn

Pobreziarekiko eta garapen urriarekiko kezka Bigarren Mundu Gerra amaitu ondoren agertu zen modu formalean, deskolonizazio-prozesuaren eraginpeko herri berriak agertu zirenean. Antzinako kolonia horien Garapenerako Laguntza, gehienbat, finantza- eta merkataritza-harremanen mantentzean oinarritu zen, eta harreman horiek mendealdeko herrien interes estrategikoetan, politikoetan eta merkataritza-koetan euskarritzen ziren; baina, adi berean, Nazio Batuen arloan laguntza modu berriak hasi ziren agertzen.

Hala eta guztiz ere, halako laguntzak garapen alderdi ekonomikoetara eta diru-alderdietara baino ez zeuden bideratuta. 90eko hamarkadan aldatu egin zen nazioarteko lankidetzak-ikuspegia, ikuspegi honexetan oinarrituz: herrien berezko garapenean oinarrituriko hazkunde iraunkorra, globalizazio-prozesuaren barruan. Laster, agerian gelditu zen planteamendu hori ere ez zela nahikoa pobrezia ezabatzeke, berori ere alderdi ekonomikoan oinarritzen baitzen; gainera, orduko desorekak mantentzearen ondorioz, 2000tik aurrera, Milurtekoaren Adierazpenaren bitartez, gizarte-alderdien garapenerako estrategiak hasi ziren aintzat hartzen, garapenaren funtsezko alderditzat.


Izan ere, azken mendean garapen ekonomikoaren arloan aurrerakuntza handia egon arren, mundu osoko milioika pertsona pobrezia, gaixotasunaren eta analfabetismoaren eraginpean daude oraindik. Mundu osoko muturreko desoreka-egoera horren iraupena kontuan hartuta, garapenerako lankidetzari lehentasunezko tokia eman behar zaio agenda politiko guztietan.

Milurtekoaren Garapenerako helburuen arteko funtsezko alderdi bat, bestalde, pobreziaaren aurkako borroka taldeko helburua dela eta horren emaitzen hobaria herri guztiek jasoko dutela onartzea da. Hala eta guztiz ere, beharrezkoa da nazioarteko laguntza ematea, batez ere, pobreziaaren edo isolamendu geografikoaren eraginik handiena jasaten duten herriei. Bestalde, elkarmendekotasuna duen mundu-ekonomiak bide berriak behar ditu merkataritzarako, nazioarteko finantza-egonkortasunerako eta teknologiararen zabalkunderako, garapen bidean dauden herriek garapen bizkorra eta iraunkorra ahalbidetzen duten aukerak aprobetxatu ahal izateko.

Milurtekoaren Adierazpenean, garapen bideko herriek konpromisoa hartu zuten, ahal den guztia egiteko ekonomia saneatuak mantentzeko, euren garapena zaintzeko eta giza nahiz gizarte-beharrezanez erantzun egokia emateko. Bestalde, herri garatuek konpromisoa hartu zuten herririk pobreenei laguntza emateko, laguntzaren, merkataritzaren eta zorra arintzearen arloan. Nazio Batuek, gainera, esan dute, pobreen eta aberatsen arteko laguntza adierazgarria izateko, kontuan hartu behar dela garapen bideek teknologia, sendagaiak eta lanpostuak behar dituztela bertako biztanleentzat, batez ere gazteentzat, horiek biztanleriaren ehuneko gero eta handiagoa osatzen baitute.

Gainera, garapen bideko herrien artean guztiak ez dira berdinak eta denek ez dute laguntza mota bera behar: diru-sarrerarik urrireneko herrietan laguntza maila handiagoa behar dute gaixotasunei, analfabetismoari eta azpiegitura

VI.1. GRAFIKOA. LAGUNTZA-FLUXU OROKORRAK 2000-2010 (EUROAK, MILIOIKOTAN, PREZIO KONSTANTEAK)



Iturria: Datuen Europako Batzordearen zenbatespenak (ELGA/DEB)

ezari aurre egiteko, arazo horiek gainditu arte herriok ezin izango baitute inbertsiorik erakarri eta munduko merkatuan lehiatu. Herri aberatsetako merkatuetan bidezkoagoa den sarbidea edukita, herri pobreek presentzia lor dezakete munduko ekonomia lehiakorrean. Horrela, halaber,

diru-sarrera ertaineko herriek ere hobaria izango dute, horientzat dagoeneko garrantzitsua baita oinarritzko produktuen eta manufakturen merkataritza.

1

Giza garapena, zorra eta garapenerako laguntza munduko testuinguruan

534

1.1. Giza Garapenaren Indizea. Emaizak, 2007

Giza garapenaren helburua pertsonen laguntzea eta horien aukerak handitzea da, bizimodu bete eta sortzaileak izan dezaten, askatasunean eta duintasunean oinarrituz. Hazkunde ekonomiko, merkataritzaren nahiz inbertsioen hazkunde eta aurrerakuntza teknologikoak garrantzi handikoak dira, baina bitartekoak dira, eta ez helburuak. Aukera horiek handitzeko, funtsezkoa da giza gaitasunak garatzea (pertsonak izan daitezkeen gauza guztiak). Giza garapenaren gaitasun funtsezkoenak bizitza luzea eta osasuntsua edukitzea, hezkuntza edukitzea, bizi maila duina izatea eta askatasun zibila nahiz politikoa edukitzea dira, euren erkidegoan parte hartu ahal izateko.

Testuinguru honetan, Nazio Batuen Garapen Programak (NBGP) urtero egiten duen Giza Garapenaren Indizearen (GGI) orain arteko aurrerakuntza ez da egokiena. GGI honako honi buruzko adierazle sozioekonomiko batzuetan oinarrituz neurtzen du nazioen aurrerakuntza: bizi-itxaropena, hezkuntza maila eta diru-sarrerak. Onartu egiten du mugak dituela giza garapenaren neurri integraltzat, ez baitu beste zenbait alderdi garrantzitsu aintzat hartzen, esate baterako, giza eskubideen errespetua, demokrazia edo berdintasuna. Hala ere, giza aurrerakuntzaren eta diru-sarreraren nahiz ongizatearen ikuspegi zabala edukitzeko aukera ematen du.

2007-2008ko edizioan, NBGPren "Giza Garapenaren Indizea" klimaren aldaketaren mehatxuan oinarritu zen, horrek orain arte ezagutu gabeko eraginak izan baititzake giza garapenean. Mundua inflexio-puntu baterantz doa, eta horrek ezustean harrapa ditzake herririk pobreenak eta bertako biztanlerik ahulenak; hain zuzen ere, arazo gero eta txarragoak sor ditzake eta milioika pertsona utzi ahal ditu elikadura txarraren, ur-urritasunaren, mehatxu ekologikoen eta bizitzeko baliabideen galeraren mende. Horrela, Txostenak dioenez, aldaketa klimatikoak mehatxupean jartzen du gizateria osoa, baina batez ere pobreak; izan ere, metaturiko zor ekologikoan inolako erantzukizunik izan ez arren, pobreek jasaten dituzte giza kosturik larrienak eta berehalakoenak.

Herri aberastuen eta pobretuen bizi-baldintzei dagokien, gero eta elkarlotuagoa den mundua bitan banatzen duten ongizate- eta aukera-lubakiak aipatzen ditu; bertan esaten denaren arabera, Norvegiako (GGIrik altueneko herria) hiritar ertain bat eta Nigeriako bat (GGIrik baxuenak) "herrixka globaleko" "barruti" desberdinetan bizi dira. Norvegiarrak nigertarrak baino berrogei aldiz aberatsagoak dira, ia urte-kopuru bikoitza bizi dira eta hezkuntza maila guztietan matrikulazio unibertsal iraunkorra dute; Nigerian, berriz, %21eko elikadura txarreko tasa dago.

Hain zuzen ere, 70eko hamarkadaren erditik, eskualde ia guztiek handitu egin dituzte GGIko puntuazioak. Ekialdeko eta Mendebaldeko Asiako aurrerakuntza bizkortu egin da 1990etik. Bestalde, 90eko lehenengo erdiko hon-

VI.1.1. KOADROA. GARAPENERAKO LAGUNTZA GARBI OFIZIALAREN, ATZERRIKO ZUZENENKO INBERTSIOAREN ETA ZORRAREN ZERBITZUAREN JARIOEN LABURPENA

	Jasotako GLO garbia				Atzerriko zuzeneko inbertsioa		Servicio de la deuda	
	Millones \$	\$ per cápita	% PIB		% PIB		% PIB	
	2005	2005	1990	2005	1990	2005	1990	2005
MUNDUA GUZTIRA	106.372,90	16,3	0,3	0,2	1	1,9	..	5,1
Garapen bideko herriak	86.043,00	16,5	1,4	0,9	0,9	2,7	4,4	4,6
Garapen urriagoko herriak	25.979,50	33,9	11,8	9,3	0,3	2,6	3	2,3
Arabiar estatuak	29.612,00	94,3	2,9	3	..	..	..	..
Asia Ekialdea eta Barea	9.541,60	4,9	0,8	0,2	..	..	..	..
Amerika Latinoa eta Karibea	6.249,50	11,3	0,5	0,3	0,8	2,9	4	6,6
Asia Hegoaldea	9.937,50	6,3	1,2	0,8	..	0,8	2,3	2,6
Saharatik beherako Afrika	30.167,70	41,7	5,7	5,1	0,4	2,4	..	..
Europa Erdialdea eta Ekialdea, eta EIE	5.299,40	13,1	..	0,3	..	..	..	..
GGI ertaineko herriak	40.160,40	9,4	1,8	0,7	0,7	2,8	4,8	3,7
GGI baxuko herriak	21.150,90	42	9,7	9	0,7	1,5	6,4	5,6
B. b. diru-sarrera ert. herriak	42.242,20	13,7	0,7	1,3	0,9	3,1	4,5	5,5
Diru-sarrera baxuko herriak	44.123,00	18,2	4,1	3,2	0,4	1,4	3,7	3,1

Iturria: NBGP "Giza-garapenari buruzko 2007-2008ko Indizea"

damenezko beherakadaren ostean, Erdialdeko eta Ekialdeko Europako eskualdeak eta Estatu Independenteen Er-kidegoak (EIE) ere suspertze handia izan dute, eta lehenagoko mailetara itzuli dira.

Hala eta guztiz ere, Saharatik beherako Afrika salbuespen nagusia da: 1990etik bertako aurrerakuntza gelditu egin da, neurri batean atzerakuntza ekonomikoaren ondorioz; baina, batez ere, HIESak bizi-itxaropenean izandako ondorio negargarrien eraginez. Hemezortzi herrik 1990ekoetatik beherako GGIko puntuazio baxuagoak dituzte orain, gehienak Saharatik beherako Afrikan. Gaur egun, giza garapenik urrieneko 31 herrietatik 28 munduko eskualde horretan daude. Egoera horrek agerian jartzen du ahalegin nazionalen eta munduko aliantzen garrantzi handia, Milurtekoaren Garapen Helburuek Afrikako biztanleriak orain duen zailtasun jarauntsi itzela gainditu ahal izateko.

Munduan, 2007-2008rako sailkapenaren indizeko lehenengo postuan Islandia dago (Norvegiaren ordez, hori

2006an egon baitzen lehenengo postuan); azken postuan, Sierra Leona dago.

1.2. Garapenerako laguntza ofiziala eta zorraren zama

Garapenik urrieneko herriek pobreziaren tranpatik ihes egiteko duten iturri nagusia kanpoko finantziazioa da. Garapenerako laguntza ofizial horren zati handia kanpoko zorraren interesak ordaintzeko erabiltzen da. Eskualde ia guztietan, Saharatik beherako Afrikan izan ezik, 70eko hamarkadatik gaur egunera laguntza murriztu egin da, BPGren ehunekotzat, eta zorraren ordainketa handitu egin da. Aipagarria da Amerika Latinoko eta Karibeko kasua,

VI.1.2. KOADROA. HERRI ABERATSEK GARAPENERAKO EMANDAKO LAGUNTZA GARBI OFIZIALA *

GGIren arabera ailekapea	GLO** - \$-ak milioitan	% BPG		\$ per capita		GLO, alde bikoa eta lotu gabea (guzt. %)	
	2005	1990	2005	1990	2005	1990	2005
2. Norvegia	2.786	1,17	0,94	453	600	61	100
3. Australia	1.680	0,34	0,25	76	83	33	72
4. Kanada	3.756	0,44	0,34	115	116	47	66
5. Irlanda	719	0,16	0,42	27	180	..	100
6. Suedia	3.362	0,91	0,94	256	371	87	98
7. Suitza	1.767	0,32	0,44	148	237	78	97
8. Japonia	13.147	0,31	0,28	91	103	89	90
9. Herbehereak	5.115	0,92	0,82	247	313	56	96
10. Frantzia	10.026	0,60	0,47	166	165	64	95
11. Finlandia	902	0,65	0,46	174	171	31	95
12. A. Estatu Batuak	27.622	0,21	0,22	63	93	..	..
13. Espainia	3.018	0,20	0,27	35	70	..	87
14. Danimarka	2.109	0,94	0,81	315	388	..	87
15. Austria	1.573	0,11	0,52	29	191	32	89
16. Erresuma Batua	10.767	0,27	0,47	72	179	..	100
17. Belgika	1.963	0,46	0,53	123	188	..	96
18. Luxenburgo	256	0,21	0,82	101	570	..	99
19. Zeelanda Berria	274	0,23	0,27	44	67	100	92
20. Italia	5.091	0,31	0,29	77	87	22	92
22. Alemania	10.082	0,42	0,36	125	122	62	93
24. Grezia	384	..	0,17	..	35	..	74
29. Portugal	377	0,24	0,21	25	36	..	61
GLB GUZTIRA	106.777	0,33	0,33	93	122	68	92

(*) GLBko herriak (Garapenerako Laguntza Batzordea. Iturria: NBGP "Giza-garapenari buruzko 2007-2008ko Indizea".


(**) GLBkoak ez diren herri eta eskualde batzuek ere GLO ematen dute. OCDEren arabera, 2005ean herri hauek emandako GLO garbia 3.231 milioi dolarrekoa izan zen: Taiwan, Txekiar Errepublika, Hungaria, Islandia, Israel, Koreako Errepublika, Kuwait, Polonia, Saudi Arabia, Eslovakia, Turkia, Arabiar Emirerri Batuak eta bigarren mailako emaleak, adibidez, Estonia, Letonia, Lituania eta Eslovenia. Txinak ere laguntza eman zuen, baina ez du esan zenbat.

bertako laguntza %0,3an murriztu baita; aldi berean, zorraren ordaintekak %5eko hazkundera izan du aldi horretan.

NBEko Giza Garapenaren Txosteneko datuen arabera, herririk aurreratuenean, Garapenerako Laguntza Batzordeko (GLB) kideak direnak, 2005ean 106.777 milioi dolar bide-

ratu zituzten garapenerako laguntzara, aurreko urtean baino %34,2 gehiago. Laguntza hori herrion BPGren %0,33 da, eta 122 dolar per capita gastua, 2004an baino 31 gehiago. Garapenerako laguntzarik gehien ematen duten herrien artan (bai BPGri eta bai biztanleko gastuari dagokionez), aurrean ere Norvegia, Suedia, Danimarka eta

VI.1.1. KOADROA. EUOPAR BATASUNAK GARAPENERAKO EMANDAKO LAGUNTZA OFIZIALA. ORAINTSUKO BILAKAERA ETA 2008-2010ERAKO AURREIKUSPENAK



Iturria: Europako Batzordea. COM (2008) 177 azkena.

Luxenburgo nabarmendu dira. Lau herriok hobetu egin dituzte euren adierazleak, 1990ekoei dagokienez; gauza bera Batzordeko herrikideen artean, bi urteen arteko hamabost urteetan (BPGren arloan garapenerako laguntzak %0,33an egonkortu arren) handitu egin baitute per capita errentari dagokionez (93 dolarretik 122ra).

Garapenerako laguntza ofizialaren bolumen horiei dagokienez, NBEk diotenaren arabera, herri hartzailen oraingo baldintzak aintzat hartuta, Milurtekoaren Helburuak lortu ahal izateko, laguntza ematen duten herriek bikoiztu egin behar dute garapenerako laguntza ofizial hori eta BPGrekiko ehunekoa, 2006-2015era bitarteko aldian, azken datu erabilgarriei dagokienez.

Garapenerako laguntza ofizialaren arloko beharriaren kalkuluek ez dituzte aintzat hartzen laguntzako kategoria garrantzitsu batzuk, baina horiek etorkizunean beharrezkoak izango dira (azpiegitura-proiektu garrantzitsuak, klimaren aldaketa egokitzeko gastuen hazkundera, gatazken osteko berreraikuntza-lanak eta beste lehenta-

sun geopolitiko saihestezin batzuk); horrenbestez, laguntza-emaileek 2015ean BPGren %0,7ko helburua lortzeko konpromisoa hartu behar dute. Gutxi gorabehera, kantidad horren hiru laurdenak helburuak lortzera bideratuko dira, eta gainerako zatia, berriz, garapenerako laguntzarako beste beharizan batzuk betetzeko.

Europar Batasunak garapenerako emandako laguntzari dagokionez, 2005etik estatukideek eta Batzordeak garapenari buruzko ikuspegi komuna dute, eta hori "Garapenerako Europako Adostasuna" deritzon gauzatu da. Batasunak adierazitako printzipioek eta helburuek garapen bideko herriei laguntza ematera bideratzen dituzte garapenerako laguntzako ahaleginak, herriotako pobrezia murrizteko eta, hain zuzen ere, haurren oinarritzko hezkuntza bermatzeko; halaber, herririk pobreenetako osasun-sistemak indartu, edateko uraren lorpena bermatu (halako arazoak dituzten herrietan) edo gaitasunak indartzeko programak sustatzen dituzte, baita demokraziaren eta gobernu onaren arloko ekimena ere¹.

¹ EUROPAKO BATZORDEA: "EB garapenerako kide globaltzat. Milurtekoaren Helburuetarako aurrerapausoak bizkortzea". COM (2008) 177 azkena. 2008ko apirila.

2002an Monterreyko Konferentzia eginda (garapenaren finantziario buruzkoa), Milurtekoaren Helburuetan lorturiko aurrerakuntzak ikertuta eta 2005ean Europako Adostasuna Hartuta, EBk konpromisoak hartu zituen laguntzaren bolumenari, eraginkortasunari eta koherentziari zegokienez, garapenaren aldeko politiken eta merkataritza-rako laguntzaren arloan. Garapenerako Laguntza Ofizialaren osagaiari dagokionez, Batasuna laguntza-emaile nagusia eta garapen bideko herrien kiderik garrantzitsuen izan arren (biztanleko 93 euro urtean; Amerikako Estatu Batuek 53, eta Japoniak 44), 2007ko balantzeak agerian jarri du laguntza murriztu egin dela.

Hain zuzen ere, garapenerako laguntzaren zenbateko osoak %3,3ko murriztapena izan du 2007an, EB27an (EB15ean %-3,6); 46.000 milioi euro izan da, hau da, BPGren %0,38 (2005ean eta 2006an %0,41). Guztiarekin ere, 2008-2010 aldirako aurreikuspenak baikorrak dira, eta 2007ko atzerakuntza hori alde handiz gainditzeko asmoa dago.

1.3. Bidalketen mundu jariora


Langile immigranteen bidalketak euren herrietako diru-sarrera iturri nagusiak dira. Garapen bideko herrietarako bidalketa-jarioek hazkunde itzela izan dute 70eko hamarkadatik, eta 2006an 200.000 milioi dolarretik gorakoak izan ziren, Munduko Bankuak emandako datuen arabera; gainera, urteko %10etik gorako tasetan hazi dira, eskualde hartailerik gehienetan. Aipagarriak dira Ekialdeko Asiako nahiz Bareko eta Amerika Latinoko zein Karibeko kasuak; horietan, urte horretan, 45.000 eta 53.000 milioi dolar gainditu dira, hurrenez hurren. Herri horietariko batzuetan, urteroko bidalketak bertako BPGren %10 inguruak dira.

Gero eta garapen handiagoa duen bidalketen merkata, maila globalean, bankukoak ez diren operadore kopuru txiki batek menderatzen du, bidalketa-enpresek, eta horiek transakzio guztien ia %90 kontrolatzen dituzte. Azken urteotan kostuen murriztapena egon arren (lehia handiagoaren eta aurrerakuntza teknologikoen ondoriozkoa), bidalketen kostuak altuak dira (balioaren %20ra artekoak²), eta alde handiak daude transakzioen jatorrizko

eta helmugako herrien arabera. Egitura hori, neurri handian, emigranteen jatorrizko herrietako merkatuaren ezauzgarriek eta bidalketa-enpresen espezializazio maila altuak azaltzen duten arren, finantza-erakundeek aspaldion interes gero eta handiagoa dute bidalketen merkatuan presentzia handiagoa izateko.

2006an, EBko immigranteek beste herri batzuetara egindako bidalketak 19.200 milioi eurotik gorakoak izan ziren, aurreko urtekoak baino %13 handiagoak, EUROS-TATEk emandako datuen arabera. Guztiarekin ere, bidalketen benetako bolumena kuantifikatzea zaila da; hala ere, herrien zifra ofizialetatik gorakoa dela esan daiteke. Bidalketa horiek diru-sarrera garrantzitsuak dira herri hartzaile askorentzat. Esaterako, Moldaviako BPGren %38 dira, Bosnia-Herzegovinako BPGren %19, Albaniakoaren %15 eta Marokokoaren %3-5ekoa.


VI.1.2. GRAFIKOA. IMMIGRANTEEN BIDALKETEN JARIOA EUROPAR BATASUNETIK. EUROAK MILA MILIOIETAN, 2006



Iturria: Europako Batzordea


² Bidalketa horien gaineko komisioak %2-20 bitartekoak dira, zenbateko txikien kasuan. Espainian batez besteko kostua %4,1ekoa da, baina Erresuma Batuan komisioak %40koak dira 100 euroko bidalketetarako.

VI.1.3. GRAFIKOA. EAE-KO IMMIGRANTEEK EGINDAKO BIDALKETAK. 2007



Iturria: IKUSPEGI. EAEko latinoamerikarrak. 2007

VI.1.4. GRAFIKOA. JATORRIZKO FAMILIEI DIRUA BIDALTZEN DIETEN LATINOAMERIKARREN EHUNEKOA: GUZTIRA ETA TALDE BAKOITZERAKO, ALDAGAIEN ARABERA



Iturria: IKUSPEGI. EAEko latinoamerikarrak. 2007

Espainiako estatuan, bidalketen merkatuak garapen handia izan du, azken hamarkada honetan immigrazioak hazkunde itzela izan baitu; horrela, bidalketetarako ordaintzen urteroko hazkundeak %30etik gorakoak izan dira (BPGren puntu eta erdi baino gehiago). Izan ere, 2005ean atzerriko bidalketek gainditu egin dituzte beste herri batzuetan bizi diren emigrante espainolek Estatura bidalitako diru-sarrerak. Horrela, Espainia EBko lehenengo herria da, egindako bidalketa kopuruari dagokionez (Alemaniaren eta Frantziaren aurretik, herri horiek immigranteak jasotzeko tradizio handia izan arren), eta munduko hirugarren postuan dago, Amerikako Estatu Batuen eta Saudi Arabiaren atzetik.

Hain zuzen ere, Espainiako Bankuak egindako kalkularen arabera, Estatuko immigranteen bidalketen bolumena 8.135 milioi eurokoa izan da 2007an (2006an baino %19,5 gehiago); hain zuzen ere, urte horretako BPGren %0,8 (aurreko urtean %0,6). Fondo horien herri hartzaile nagusiak, jakina, Estatuko immigranteen jatorrizko herriak dira, hau da, Maroko (%22,8), Kolonia (%16,3), Ekuador (%14,2) eta Errumania (%7,7).

EAEko datuei dagokionez, zifra ofizialik egon arte, Imigrazioaren Euskal Behatokiak (Ikuspegi) immigranteen bidalketen kalkulua egiteko aukera ematen du, talde horri egindako inkesta batean oinarrituz. Ikuspegik egindako kalkularen arabera, EAEn bizi diren immigranteen %58,2k bidalketak egiten dituzte euren jatorrizko herrietara, eta horien batez besteko zenbatekoa 300 eurokoa da. Nazionalitateen arabera, dirurik gehien ekuadortarrek, kolonbiarrek eta boliviarrak bidaltzen dute, gehienek hilerro (%73,3), eta bidalketa bakoitzeko batez bestekoa 250 eurokoa da. Gainera, ikerketak agerian jarri duenez, ia %60k lokutorioen eta bidalketa-enpresen bidez bidatzen diete dirua familiei, %28k finantza-erakunde bidez bidaltzen dute dirua, eta %8,7k posta-bulegoen bidez. Bestalde, EAEn bizi diren asiarren %55ek batez beste 353 euroko bidalketak egiten dituzte euren herrietara. Horien atzetik, bidalketarik gehien egiten dutenak afrikarrak %48,8 eta europarrak %45,9 dira. Halaber, Estatuan bizi diren immigranteek, batez beste, euren soldaten %25 bidaltzen dute euren herrietara, eta soldata hori gutxitan izaten da hileko 1.000 eurotik gorakoa.

2

Garapenerako laguntza EAE-n

2007an, EAEn garapenerako lankidetzari buruzko legeak onetsi dira, Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionez; halaber, alderdi zehatz batzuen garapenari buruzko dekretuak ere onetsi dira. Lehenengo eta behin, Garapenerako Lankidetzari buruzko otsailaren 22ko 1/2007 Legeak arautu egiten ditu EAEko herri Administrazioek eta lankidetzaz-eragileek nazioarteko garapenaren eta elkartasunaren arloko jarduketak. Jarduketa horiek, berriz, EAEko gizarteak eta erakundeak harturiko konpromisoaren barruan sartzen dira, herrien giza garapena eta garapen iraunkorra (batez ere, pobrezia ezabatzea) toki eskalan nahiz eskala globalean sustatzeari eta giza eskubideak benetan betetzeari eta justizian oinarrituriko nazioarteko harremanak garatzeari dagokionez.

Alderdi praktikoen artean, Legeak erakunde mailako berrikuntzak sartzen ditu; adibidez, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia eta Garapenerako Lankidetzaren Erakunde arteko Batzordea sortzea. Era berean, Lankidetzaren Euskal Kontseiluaren eskumenak berriro zehaztu eta Eusko Jaurlaritzari nolabaiteko eginkizuna ematen zaio, lankidetzaz-politika planifikatzeko eta orientatzeko prozesuan.

Pobreturiko Herriekiko Elkartasuneko eta Justiziako Gutunari buruzko abenduaren 28ko 14/2007 Legearen hel-

burua, halaber, munduko pertsona eta herri pobretuekiko justiziaren eta elkartasunaren gutuna ezartzea da, oraingo nazioarteko harremanetako bidegabekeriari eta elkartasun ezari lotutako alderdi nagusiak arintzeko, eta, horrela, planeta osoan giza garapen iraunkorra eta orekatua lortzeko. Horretarako, Eusko Jaurlaritzak, nazioartean eskumenik ez izatearen eraginezko muga garrantzitsuak onartu arren, konpromisoa hartu du honako honetarako behar diren neurri guztiak hartzeko: herri pobretuetako muturreko zorra ezabatzea, kontsumo arduratsua nahiz elkartasuneko ekonomia sustatzea, merkataritza-harreman bidezkoagoak ezartzeko neurriak hartzea, *"bakearen dibidendua"*³ abiatzea, nazioarteko finantza-erakundeak berritzatzea eta immigranteen eskubide-berdintasuna bermatzea, besteak beste.

Erakundeen nazioarteko garapenerako laguntzaren alderdi praktikoa, EAEn, Garapenerako Lankidetzarako eta Laguntzarako Fondoaren (GLLF) bitartez bideratzen da, eta Eusko Jaurlaritzak parte hartzen du horren zuzkiduran. Gainera, udaletan eta Foru Aldundietan lankidetzarako beste programa batzuk daude, eta horietan ere zenbateko gehigarriak bideratzen dira. Aipagarria da EUSKAL FONDOA deritzonaren eginkizuna: EAEko Toki Erakundeek Lankidetzarako Elkarte honen barruan 86 toki-erakunde (bes-

³ Nazio Batuek proposaturiko "bake-dibidendua" orain gastu militarretan inbertitzen diren baliabide guztiak edo gehienak gizarte-, giza eta ingurumen-beharrizanetarako erabiltzean (herri aberastuetan eta pobretuetan) oinarritzen da.

teak beste, EAEko hiru hiriburuak) eta Arabako Foru Al-
dundia sartzen dira, eta Euskal Autonomia Erkidegoko biz-
tanleriaren %75 baino gehiago dago barruan.

2.1. Garapenerako Lankidetza
eta Laguntza Fondoak (GLLF).
Datuak, 2007.

2007an, guztira 29,6 milioi euro bideratu ziren
(%+13,7, 2006ko zenbatekoari zegokionez) Eusko Jaurla-
ritzako Garapenerako Lankidetza Fondora, eta horietatik

VI.2.1. KOADROA. EUSKO JAURLARITZAK EMANDAKO LA- RRIALDI LAGUNTZEN ZENBATEKOA. EUROAK MILATAN		
	2006	2007
ALJERIA	200,00	850,00
BOLOVIA		352,33
BOLIKOSTA	210,08	257,36
KOLONBIA		95,21
TXAD		350,00
GUATEMALA	204,68	
INDONESIA	100,00	
KENYA	159,74	
LIBANO	119,84	130,00
MEXIKO	120,00	
NICARAGUA		110,29
PAKISTAN	40,00	
PALESTINA	296,40	231,64
PERU		360,95
KONGOKO E.D.-RUANDA	180,00	
SOMALIA		155,90
SUDAN	360,00	
GUZTIRA	1.990,74	2.893,68

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Garapenerako Lankidetzaren
Zuzendaritza.

27,6 milioi garapeneko proiektuen bitartez bideratu ziren.
Gainerako fondoak, berriz, larrialdiko laguntza-ildoen bidez
gauzatu ziren (2,9 milioi euro).

Arauzko berritasuntzat, otsailaren 27ko 34/2007 De-
kretuak GLLFren konturako proiektuetarako laguntzak
arautu ditu; izan ere, ordura arte ez zegoen araudirik den-
boran irauteko bokazioa zuten proiektuei laguntza ema-
teko, 2007ra arte halako laguntzak urtero ateratzen eta
arautzen baitzen. Dekretu hori egin zenetik, ekitaldi ba-
koitzeko dirulaguntzetarako deialdia Etxebizitza eta Gizarte
Gaietako Sailburuaren Aginduen bidez egiten da.

Dekretu horrek, hain zuzen ere, produkzio, laguntza
tekniko eta heziketako garapen-proiektuetarako lanki-
detza-proiektuei ematen zaizkien laguntzak arautzen ditu,
baita garapenerako hezkuntza-proiektuetarako laguntzak
ere; proiektu horiek guztiak irabazi asmorik gabeko era-
kundeek egiten dituzte. Ordura arteko araudiari dagokio-
nez, desagertu egin da ekintza humanitarioari buruzko
arauketa, horretarako dekretu berezia pentsatu baita.

Bestalde, apirilaren 3ko 57/2007 Dekretuaren bidez,
Garapenerako Lankidetzaren Zuzendaritzaren zerbitzurako
tresna berria sortu da: Garapenerako Lankidetza Programa.
Tresna hau lagungarria da pobreziaaren aurkako borrokan,
eta, horretarako, garapenerako prozesu endogenoen la-
guntza dauka (egiturazko aldaketak eragiten dituzten pro-
zesuak); prozesu horietan, pertsonen aukerak, askatasunak
eta gaitasunak handitzeko gauza diren faktoreek iraun-
kortasuna eta irmotasuna hartzen dute. Arlo hauetariko
batean edo batzuetan txertatu beharko dira: lehentasu-
nezko gizarte-beharrianak, herri-ekonomia, toki-agintea,
giza eskubideak edo kultura-identitatea.

Garapenerako proiektuetara bideraturiko 27,6 milioiak
ez ezik, beste 2,9 milioi euro bideratu dira larrialdiko la-
guntzetarako, eta zenbateko hori urtean zehar gauzatzen
da, laguntza humanitarioaren arloko beharrianen arabera.
Herrika, aipagarriak dira Aljeriara (850.000€), Perura (ia
361.000€) eta Txadera (350.000€) bidalitako laguntzak.

Eremu geografikoen arabera ikusten denez, GLLFren
bitartez bideraturiko laguntzaren zatirik handiena (gara-
penerako proiektuak eta larrialdirako laguntzak batuta)
Amerikara doa, baina horrek guztizkoarekiko duen ehune-
koa nabarmen murriztu da azken urtean (2007an %55 izan
zen, eta aurreko urtean %63,4). Aldiz, Afrikako partaidetza
%20,1etik %29,8ra igaro da. Gainera, larrialdiko lagun-
tzen hazkundera aintzat hartuz gero, Afrikak horretarako
fondo guztien %55,7 jasotzen ditu.

VI.2.2. KOADROA. GLLF-K GARAPENERAKO EMANDAKO LAGUNTZEN ZENBATEKOAK ETA PROIEKTUAK

		2005	2006	2007	05/06ko ald.%	06/07ko ald.%
Proiektuak	Aurkeztuta	267	216	238	-19,1	10,2
	Onetsita	107	98	111	-8,4	13,3
	Aurkeztu/onetsitakoen %	40,1	45,4	46,6	13,2	2,6
Zenbatekoak (euroak milatan)	Eskatuta	52.376	49.148	54.960	-6,2	11,8
	Emanda	22.496	24.079	27.642	7,0	14,8
	Eman/eskaturikoen %	43,0	49,0	50,3	14,1	2,6
B.b. zenbatekoa	Emandako proiektuak	210,2	245,7	249	16,9	1,3

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Garapenerako Lankidetzaren Zuzendaritza.

VI.2.3. KOADROA. GLLF-REN LAGUNTZEN JASOTZAILEAK, EREMU GEOGRAFIKOEN ARABERA. EUROAK MILATAN

EREMUAK	2006		2007	
	Garapenerako proiektuak	Larrialdiko laguntzak	Garapenerako proiektuak	Larrialdiko laguntzak
AFRIKA	4.134	1.110	7.725	1.613
AMERIKA	16.299	217	16.094	919
ASIA	712	664	808	362
EUROPA	2.933	0	3.015	0
GUZTIRA	24.079	1.991	27.642	2.894

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Garapenerako Lankidetzaren Zuzendaritza.

2.2. Euskal Fondoa. Datuak, 2006.

Hain zuzen ere, 2007an GLLFk garapenean laguntzeko 111 proiektu finantzatu zituen, eta horien zenbatekoa 27,6 milioi eurokoa izan zen. Zenbateko horrek %14,8ko hazkundea izan du 2006tik, eta batez besteko 249.000 euro dira (aurreko urtean baino %1,3 gehiago). 2007ko deialdian aurkezturiko 238 proiektuetatik (55 milioi euroko eskaria), 111 proiektuko dirulaguntza ebatzi zen, eta, horrela, proiektuen onespen maila %45,4tik %46,6ra handitu da, proiektu kopuruari dagokionez, eta %49tik %50,3ra fondoen bolumenaren aldetik. EAEko Toki Erakundearen Lankidetzarako Elkartearen (EUSKAL FONDOA) helburu nagusia hau da: garapenerako nazioarteko lankidetzako ekime-

nak, eta, hain zuzen ere, EAEko erakundeek eta toki erakundeek bideratzen dituztenak, sustatzea, laguntzea eta koordinatzea. 1995ean sortu zenetik, EUSKAL FONDOak Lankidetzako eta Elkartasuneko Fondoen Konfederazioaren Idazkaritza dauka (egoitza Bartzelonan), eta Estatuko Lankidetzako eta Elkartasun fondo guztien koordinaziorako eta baterako ordezkapenerako esparrua da. 2006an (informazioa eskaini duen azken urtea), EUSKAL FONDOak garapenerako lankidetzako 16 proiektu onetsi zituen, eta horien zenbateko osoa 1,9 milioi eurokoa izan zen. Zenbateko horren %72 EUSKAL FONDOko kideen ekarpenetatik lortu zen, eta gainerako %28, berriz, elkartetik kanpoko erakundeek egindako ekarpenetatik. Proiektuak Nikaraguan, El Salvadorren, Guatemalan, Kuban eta Saharan garatu ziren (azken urteotako ohiko herriak). Halaber, azken bost urteotan 400.000 eurotik gorako fondoak bideratu dira, EAE barruko sentsibilizaziorako.

VI.2.4. KOADROA. EUSKAL FONDOA: HERRIEI EMANDAKO DIRU-LAGUNTZAK. EUROAK						
	2002	2003	2004	2005	2006	GUZT. 2002-06
NIKARAGUA	303.197	419.624	409.129	428.146	471.776	2.031.872
EL SALVADOR	200.270	174.605	365.183	339.874	384.716	1.464.648
GUATEMALA	238.749	359.191	45.200	244.657	486.087	1.373.884
KUBA	278.366	200.550	191.057	172.753	149.249	991.975
SAHARA	126.894	169.458	299.277	258.834	268.815	1.123.278
EAE-KO EKINTZAK	27.760	37.111	36.555	150.272	162.096	413.794
GUZTIRA	1.175.236	1.360.539	1.346.401	1.594.536	1.922.739	7.399.451

Iturria. EUSKAL FONDOA. Urteko Memoriak.



7

legegintza-jarduera EAEn

1

Eusko Jaurlaritzaren eta Legebiltzarra- ren legegintza jarduera


548

EAEko legegintza-jarduera, 2007an, aurreko urtekoa baino handiagoa izan da: Eusko Legebiltzarrak 15 lege onetsi ditu, 2006an baino %50 gehiago.

Dekretuei dagokionez, Jaurlaritzak 254 onetsi ditu 2007an, aurreko urtean baino apur bat gutxiago.

Aditzera eman behar da, aurreko urteetan ez bezala, 2007an Legegintzako bi Dekretu onetsi direla¹: Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Tasa eta Prezio Publikoei buruzko Legeko Testu Bategina onetsi duen irailaren 11ko 1/2007 Legegintzako Dekretua, eta Euska-

VII.1.1. GRAFIKOA. EUSKO JAURLARITZAREN ETA LEGEBILTZARRAREN LEGEGINTZA-JARDUERA



Iturria: Geuk landuta EHAA n oinarrituz.

¹ Gobernu ko Legeari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legeko 52. artikuluan hauxe ezartzen da: "Eusko Legebiltzarrak lege-lerruneko arauak (legegintza-dekretuak) emateko ahalmena eskuordetu ahal dio Jaurlaritzari.

diko Ondareari buruzko Legeko Testu Bategina onetsi duen azaroaren 6ko 2/2007 Legegintzako Dekretua.

Ondoren, Eusko Legebiltzarrak 2007an onetsitako legeen edukiaren laburpena eskainiko dugu:

• **Otsailaren 22ko 1/2007 LEGEA, Garapenerako Lankidetzari buruzkoa.**

1990ean Eusko Jaurilaritzaren eta Foru Aldundien arteko akordioaren bidez Garapenerako Lankidetzaren eta Laguntza Fondoa sortu zenetik, Euskal Autonomia Erkidegoa baliabideen bolumena eta lankidetzaren ekintzen aniztasuna handitzen joan da, eta, horren eraginez, lege-lerruneko arauketa bat egin behar izan da.

Lankidetzarako fondoen hazkundeak guztiz gainditu ditu oraingo arauketa- eta administrazio-esparruak. Hori dela eta, lankidetzaren egindako ahalegin publikoaren gauzapean eraginkortasuna eta gardentasuna erabat bermatzen jarraitzeko, kudeaketa-egitura egokia sortu behar izan da, fondoen erabilera hobezina segurtatzeko eta honako ekintza hauek guztiz bermatzeko: proiektuen hautapena, horien jarraipena eta egindako lankidetzaren ebaluazioa.

Bestalde, lankidetzako lanen konplexutasunak eta aniztasunak sorturiko elkarreraginek espezializazio maila gero eta handiagoak behar dituzte; horiek ondo gauzatuko direla bermatzeko, arautu egin behar dira lankidetzako eragileek bete beharreko baldintzak. Horretarako, lege honek Garapenerako Lankidetzako Eragileen Erregistroa sortu du; doakoa da eta, bertan, horretarako esleituriko fondo publikoekin finantzaturiko jarduketak kudeatzen dituzten erakunde guztiak inskribatu beharko dira.

Gainera, garapenerako lankidetzako lege honen esparruan EAEko lankidetzaren politikaren printzipioak, helburuak eta lehentasunak ezartzen dira; horrela, aurrerapausoak emango dira garapenerako laguntza-politikaren eta Jaurilaritzaren eta Euskadiko foru- nahiz toki-erakundeek garaturiko jarduketaren arteko koherentzia.

Lege horrek Garapenerako Lankidetzako Erakunde arteko Batzordea sortu du, EAEko administrazioen arteko informazio-, komunikazio- eta elkarrekiko laguntza-organotzat, lankidetzako jarduerak gauzatzearen arloko estrategiak adosteko eta, horrela, deialdien nahiz jarduketaren bikoiztasunak eta gainjarpenak ekiditeko.

Halaber, Garapenerako Lankidetzaren Euskadiko Kontseilua sortu da, lankidetzaren eragileen ordezkapenerako organotzat; Euskadin garapenerako lankidetzaren publikoa

proposatzeko, irizpena emateko eta jarraipena egiteko gaitasuna dauka.

• **Martxoaren 22ko 2/2007 LEGEA, Baliabideak Banatzeko Metodologiari eta Foru Aldundiek EAEko Aurrekontuen Finantziazioan egin beharreko Ekarpenak Zehazteari buruzkoa. 2007-2011 aldian da aplikagarria.**

Azaroaren 25eko 27/1983 Legeko 22. artikuluko zortzigarren atalean ezartzen denaren arabera, Euskadiko Finantza Publikoen Kontseiluak baliabideak banatzeko eta lurralde historiko bakoitzak EAEko aurrekontu-gastuetara egindako ekarpenak zehazteko metodologia onetsiko du, eta horrek indarraldia izango du gutxienez hiru aurrekontu-urtekoak diren aldietarako. Halaber, Euskadiko Finantza Publikoen Kontseiluak erabakitako metodologia jasoko duen lege-proiektua bidaliko du Jaurilaritzaren Legebiltzarrera, bertan onesteko.

Manu horretan ezarritakoa aplikatzeko, lege honetan Euskadiko Finantza Publikoen Kontseiluaren Erabakia onetsi eta eranskintzat jasotzen da; bertan, 2007-2011 aldirako, baliabideak banatzeko eta Foru Aldundiek EAEko aurrekontuen finantziazioan egindako ekarpenak zehazteko metodologia ezartzen da; gainera, aldi horretarako, Foru Aldundiek Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu-gastuetan egindako ekarpenen koefizienteak finkatu dira.

• **Apirilaren 20ko 3/2007 LEGEA Instituto Vasco Etxepare Euskal Institutua / Basque Institute Sortzeari eta Arautzeari buruzkoa.**

Gero eta elkarmenpekotasun handiagoa duen mundu globalizatu baten barruan, Euskadi ezin da herri isolatua eta bakartua izan, mundura irekitako herria baizik; horrela, kulturen arteko harremanak sustatzeaz eta bultzatzeaz gain, bere ezaugarri bereizgarriak ere azaldu behar ditu.

Horri dagokionez, kanpoko kultura-aniztasunera eta unibertsaltasunera irekita egoteaz gain, Euskal Autonomia Erkidegoak bere kultura-identitatea erakutsi behar dio munduari, horren adierazpen eta ezaugarri guztiekin.

Horretarako, lege honek Instituto Vasco Etxepare Euskal Institutua / Basque Institute sortu eta arautu du, zuzenbide pribatuko erakunde publikotzat; horren helburua, gure inguruko erakunde ospetsuen antzean, euskara eta euskal kultura sustatzea, hedatzea eta kanpoan proiektatzea da.

tzea da, kultura horren hizkuntza ofizial, agerpen, euskarri, baliabide eta adierazpide guztietan.

• **Ekainaren 22ko 4/2007 LEGEA, Gizarte Bazterkeriaren aurkako maiatzaren 22ko 12/1998 Legea eta Gizarte Eskubideen Gutunari buruzko abenduaren 27ko 10/2000 Legea aldatu dituenak.**

Lege honen bidez, idazkera berria eman zaio Gizarte Bazterkeriaren aurkako 12/1998 Legeko 18. artikuluko 1. zenbakiko d) atalari, eta horrek pertsonen gizarteratzeko gutxieneko diru-sarrera eskubidearen titularrak izan behar duten gutxieneko adinaren baldintza arautzen du. Adin hori 23 urtekoa da, baina kasu desberdinak ezartzen dira, eta kasu horietan salbuetsita dago adin-muga horren aplikazioa.

Halaber, Gizarte Bazterkeriaren aurkako 12/1998 Legeko 20. artikuluko 1. atala aldatu da; bertan ezartzen denez, gizarteratzeko gutxieneko diru-sarreraren hileko zenbatekoa, oinarritzko errentarako, Gizarte Eskubideen Gutunari buruzko 10/2000 Legeak ezarriko du.

Bestalde, 5. atala gehitu du Gizarte Bazterkeriaren aurkako 12/1998 Legeko 28. artikuluan, eta, bertan ezarritakoaren arabera, oinarritzko errentaren jasotzaileek, lege ezarritakoa beteta, beste laguntza osagarri bat ere jaso dezakete.

Azkenik, Gizarte Eskubideen Gutunari buruzko 10/2000 Legeko 7. artikuluko 1. atala aldatu du, eta, bertan, oinarritzko errentaren kuantifikazioa dago jasota.

• **Ekainaren 22ko 5/2007 LEGEA, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Tasa eta Prezio Publikoei buruzko maiatzaren 29ko 13/1998 Legea aldatzeko buruzkoa.**

Lege honek 3. atal bat gehitu du Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Tasa eta Prezio Publikoei buruzko maiatzaren 29ko 13/1998 Legeko 54. artikuluan, premiaz bidalitako iragarkiak sartzeko baldintzak ezartzeko, eta, horrela, zerbitzu honen erabilera ez-egokia mugatzeko.

• **Ekainaren 22ko 6/2007 LEGEA, Euskadiko Ondareari buruzko azaroaren 17ko 5/2006 Legea aldatu duena.**

Euskadiko Ondareari buruzko azaroaren 17ko 5/2006 legea indarrean sartuta, onetsitako testuan inkoherentziak eta aurreikusi zein nahi gabeko ondorioak agerian gelditu eta horiek zuzendu egin behar dira.

Honako hauek dira:

I. tituluan ("Xedapen Orokorrak"), Euskal Autonomia Erkidegoko Ondarearen titulartasunari buruzko 6. artikulua aldatu da; hain zuzen ere, Laugarren Xedapen Gehigarrian jasotako salbuespenak sartu dira bertan, Euskadiko Irrati-Telebistako erakunde publikoari dagokionez; baita Bosgarren Xedapen Gehigarrian Euskal Herriko Unibertsitateari buruz ezarritakoa ere.

V. Tituluan ("Demanio-ondasunak erabiltzeko eta ustiatzeko beste modu batzuk"), egitura aldatu da, bi kapitulu berri sortuta: III. kapitulua ("Demanio-baimenei buruzko xedapen bereziak") eta IV. kapitulua ("Demanio-emakidei buruzko xedapen bereziak"). Horrenbestez, V. kapituluko zenbakikuntza aldatu egin da. Halaber, 71-83. kapituluei beste idazkera bat eman zaie (lehen aipaturiko kapituluetako artikulua).

VI. tituluko ("Besterentzea eta jabari pribatuko ondasunak erabiltzeko beste modu batzuk") III. kapitulutik ("Doan erabiltzeko egintzak"), 102. artikuluko 1. atala aldatu da, halako egintzetarako behar diren baimenak ezartzen dituenak; gainera, 102 bis artikulua erantsi da, eta, bertan, Eusko Legebiltzarrak gai honi buruz jasoko duen informazioa adierazten da.

VIII. tituluari dagokionez ("Hitzarmenak sektore publikoko erakundeekin"), ezabatu egin da 116. artikuluko 4. atala; bertan ezartzen zenez, hitzarmen guztiak Legebiltzarrerara bidali behar ziren, horrek hitzarmenekiko jarrera azaltzeko.

Laugarren Xedapen Gehigarria aldatu da ("Jakinarazpena Legebiltzarrari, merkataritza-sozietateei eta zuzenbide publikoko beste erakunde batzuei buruz"), Euskal Irrati Telebista erakunde publikoaren eta horren kudeaketa-sozietateen ondareari lotutako salbuespena sartuta.

Seigarren Xedapen Gehigarria bis deritzona erantsi da, "Euskadiko Trenbide Sarea" erakunde publikoari buruz.

Seigarren Xedapen Gehigarria ter izeneko erantsi da, "Jakinarazpena Legebiltzarrari, merkataritza-sozietateei, fundazioei eta zuzenbide publiko nahiz pribatuko gainerako erakundeei buruz" deritzonari buruz.

Idazkera berria eman zaio Lehenengo Azken Xedapenari ("Euskal Irrati Telebista Erakunde Publikoa Sortzeko buruzko ekainaren 2ko 5/1982 Legea Aldatzea").

3. atal berria erantsi zaio Seigarren Azken Xedapenari ("Euskadiko Ogasun Nagusia Antolatze Printzipioei buruzko Legea Aldatzea. Azaroaren 11ko 1/1997 Legegitzako Dekretuaren bidez onetsitako testuategina"). Atal

horretan, 19. artikulua aldatu da, sozietate berria kontzeptuaren definizioa ematen duena.

• **Ekainaren 22ko 7/2007 LEGEA, Euskadiko Elkaritei buruzkoa.**

Lege honen helburua Euskal Autonomia Erkidegoko eskumen soilekoak diren elkariteen araubide juridikoa ezartzea da, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuko 10.13 artikuluan ezarritakoaren arabera, Elkartzeko Eskubidea Arazu duen martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoan ezarritakoaren kalterik gabe.

Halaber, Euskadiko elkartegintza sustatuko du, horren gizarte-balioa aldarrikatuz eta elkariteen erabilgarritasun publikoaren onarpena arautuz. Horretarako, Erabilgarritasun Publikoko Elkariteen Babesletza sortu du, eta horrek aholkularitza, laguntza tekniko eta jarraipeneko eginkizunak ditu.

Azkenik, Elkaritei buruzko otsailaren 12ko 3/1998 Legea eta Euskadiko Elkariteen Erregistro Orokorreko jarduketaren eraginezko tasak indargabetu ditu.

• **Ekainaren 29ko 8/2007 LEGEA, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren likidazioak onesteari buruzkoa (ekitaldiak: 1998, 1999, 2000, 2001, 2002, 2003 eta 2004).**

Lege honek Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren likidazioak onetsi ditu (ekitaldiak: 1998, 1999, 2000, 2001, 2002, 2003 eta 2004). Likidazio horiek irailaren 27ko 1/1994 Legegintzako Dekretuko 124. artikuluan adierazitako dokumentazioak integratzen ditu; dekretu horren bidez, Euskadiko aurrekontu-araubideari buruzko indarreko lege-xedapenen testu bategina onetsi da, eta bertako laburpen-laukiak Eranskintzat jasota daude.

• **Ekainaren 29ko 9/2007 LEGEA, Kontsumobide-Instituto Vasco de Consumo sortzeari buruzkoa.**

Espainiako Konstituzioko 149.3 artikuluan ezarritakoaren arabera, horrek Estatuari berariaz eratziki gabeko arloak autonomia-erkidegoen eskumenekoak izan daitezke, euren estatutuen arabera.

Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuko 10.28 artikulua Euskal Autonomia Erkidegoari eratziki dio kontsumitzaileen eta erabiltzaileen defentsarako eskumen soila.

Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutua sortu duen 6/2003 Legea arauketa-esparrua da EAEn, kontsumitzaile-

leen eta erabiltzaileen defentsan (segurtasuna, osasuna eta interes ekonomikoak) eragina duten alderdi guztietan.

Testuinguru honetan, lege honen bidez, Kontsumobide-Instituto Vasco de Consumo sortu da, kontsumoaren arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailari atxikitako erakunde autonomotzat; horren helburua Jaurlaritzak kontsumitzaileen eta erabiltzaileen defentsan eta babesean garatu beharreko politikak zehaztea, planifikatzea, sustatzea eta gauzatzea da.

Halaber, indargabetu egin du 6/2003 Legeko 67. artikulua, Euskal Autonomia Erkidegoko Kontsumoa Koordinatzeko Batzordea sortu duena, baita 25/2005 Dekretua ere, Batzorde hori arautu duena; izan ere, Kontsumobide-Instituto Vasco de Consumo erakundeko gobernu organoan arlo honetan inplikaziorik handiena duten sailak sartu dira.

• **Ekainaren 29ko 10/2007 LEGEA, Ezintasuna duten Pertsonen Laguntzeko Txakurrei buruzkoa.**

Lege hau Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuko 10.12 artikuluan Euskadiri gizarte-laguntzaren arloan eratzikitzen zaion eskumen soila dela bide onetsi da. Halaber, aintzat hartu behar da Euskal Autonomia Erkidegoko Erakunde Komunen eta Lurralde Historikoetako Foru Erakundearen arteko Harremanei buruzko Legeak Lurralde Historikoei ematen diela arlo honetako gauzapen-eskumena, euren lurraldearen barruan.

Lege honek indargabetu egin du Txakur Gidariei buruzko azaroaren 21eko 17/1997 Legea (Eusko Legebiltzarrarena), hori orain arau zorrotzegia baita, ikusmenekoa ez den ezintasuna dutenei laguntzako txakur gidariak erabiltzeko aukerarik ematen ez dielako.

Legearen helburua eskubide hau euren mugak gainditzeko txakurren baten laguntza behar duten pertsona guztiei ematea da, euren ezintasuna edozein izan arren.

Bestalde, laguntzako txakur izaera onartzeko baldintzak arautzen dira, eta horren eskumena Foru Aldundiek dute; era berean, laguntzako txakurraren erabiltzaileek askatasunez ibiltzeko eta publikoa den edo erabilera publikoa duen edozein lekutan, establezimendutan zein garraiotan egoteko eskubidea ere arautzen da, eta eskubide horrekin batera doazen betebeharrak ere bai.

Bestalde, Legean jasotako eskubideak eta betebeharrak betearazteko zehapen-araubidea arautzen da, eta zehapen-eskumena Foru Aldundiei ematen zaie.

• **Urriaren 26ko 11/2007 LEGEA, Euskadiko Liburutegiei buruzkoa.**

Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuko 10.20 artikuluan ezarritakoaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoak eskumen soilak dauka Estatuaren titulartasunekoak ez diren liburutegien arloan.

Halaber, Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuko 10.4 artikulua EAEri eskumen soilak ematen dio toki-araubidean, Konstituzioko 149.1.18 artikuluan ezarritakoaren kalterik gabe.

Horri dagokionez, Toki Araubidearen Oinarriak Arautu dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 26.1 artikuluko b) atalean ezartzen denez, 5.000 biztanletik gorako udalerriek liburutegi publikoko zerbitzuak eman behar dituzte.

Eskumen-onarpen hori, gure lurralde-eremuan, Lurralde Historikoei buruzko Legean jasotako eskumen-banaketa-aren arabera txertatu behar da, horiek eskumen soilak baitute euren titulartasuneko liburutegien arloan.

Arau horien babesean, Eusko Legebiltzarrak uztailaren 3ko 7/1990 Legea onetsi zuen, Euskadiko Kultura Ondareari buruzkoa; bertan, besteak beste, gure ondare bibliografikoaren eta liburutegien arauketa landu zen; gainera, Euskadiko Liburutegien Sistema Nazionalaren bidez, geure liburutegi-sistemaren oinarriak ezarri ziren, administrazioen, erakundeen eta titular pribatuen arteko lankidetzak sustatzeko, eta, horrela, Euskadiko liburutegi-eskaintza guztien integrazio, koordinazio eta optimizazioa hobea lortzeko.

Lege honen helburua beharrezkoak diren funtsezko oinarriak eta egiturak ezartzea da, Euskadiko Liburutegi Sistema planifikatzeko, sortzeko, antolatzeko, garatzeko eta koordinatzeko; halaber, liburutegien funtzionamendua errazten duten zerbitzuak sortu behar dira, eta hiritarrek irakurtzeko eta informatikako baliabideak nahiz edukiak lortzeko duten eskubidea bermatu behar da, informazioaren eta teknologia berrien gizaritearen oraingo esparruan. Lege honek, era berean, Euskadiko bibliografia gordailua arautu nahi du.

Lege hau aplikagarria izango da Euskal Autonomia Erkidegoko titulartasun publikoko liburutegi guztietan, baita titulartasun publikoa eta foru- nahiz estatu-titulartasuna dutenetan ere, baldin eta Euskadiko Liburutegi Sisteman integraturik badaude, Euskadiko bibliografia-gordailuaren eta interes nazionalen fondoen arloan orokorrean aplikatzearen kalterik gabe.

Liburutegien Aholkularitza Kontseilua ere badauka, liburutegien arloko kontsultako talde-organotzat, eta funtzioen eta osaketaren arauketa ondorengo arauzko garapenari lotuta gelditzen da.

• **Azaroaren 16ko 12/2007 LEGEA, irailaren 27ko 1/1994 Legegintzako Dekretuko 125. eta 126. artikulua aldatzeari buruzkoa; dekretu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu-araubideari buruzko indarreko lege-xedapenen testu batgina onetsi da.**

Aurrekontuei buruzko Legean ezarritakoaren arabera, Eusko Jaurlaritzak Legebiltzarrera bidaliko du Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren likidazioa oneteko lege-proiektua, aurrekontu horiek Euskadiko Kontu Publikoen Auzitegiak fiskalizatu ondoren.

Hala eta guztiz ere, epe bakarra Legegintzako 1/1994 Dekretuko 125.1 artikuluan ezarritakoa da, eta, bertan ezartzen denez, likidazioari buruzko dokumentazioa lantzeko gehieneko epea hurrengo ekitaldiko uztailaren 31 da.

Likidazioen fiskalizazioan atzerakuntza, Euskadiko Kontu Publikoen Auzitegiaren iritziz, Jaurlaritzak lehen adierazitako epea agortzen duelako eta, horrela, Auzitegiari berari urteroko kontuan garaiz fiskalizatzea ekiditen diolako gertatzen da (taldeek aurrekontua aurreko ekitaldiko likidazio fiskalizatuarekin aztertu ahal izateko).

Aurrekontuari buruzko Legearen helburua eta eskakizuna bete ahal izateko, hau da, Legebiltzarrak aurrekontua egiteko beharrezko informazio fiskalizatua edukitzeko, erreforma hau ezinbestekoa da, Jaurlaritzak Kontuen Auzitegiari aurreko ekitaldiko likidazioa nahiko aldeaz aurretik bidaltzeko eta, horrela, Auzitegiak fiskalizazioa egin ahal izateko.

• **Abenduaren 27ko 13/2007 LEGEA, Nekazaritza Ganberak iraungitzeari buruzkoa.**

Estatuak irailaren 30eko 18/2005 Legea argitaratu du; lege horren bidez, abenduaren 24ko 23/1986 Legea indargabetu da, nekazaritza-ganberen araubide juridikoaren oinarriak ezarri dituenak. Indargabetze horrek ez du esan nahi oraingo nekazaritza-ganberak ezabatzen direnik, oinarritzko estatu-eraketa ezabatzen dela baizik; horri dagokionez, autonomia-erkidegoen eskumenekoa da halako ganberak ezabatzeko edo mantentzeko eta arautzeko erabakia hartzea.

Euskal Autonomia Erkidegoan, nekazaritza-ganberen araubidea Nekazaritza Ganberei buruzko ekainaren 15eko 6/1990 Legearen bidez garatu zen; bertan ezarritakoaren arabera, halako ganberak zuzenbide publikoko korporazio izaera dute, eta herri-administrazioekiko kontsulta- eta lankidetzak eginkizunak dituzte; lege horrek, gainera, nekazaritza-ganbaren antolamendua, ekonomia- nahiz langileria-araubidea eta ordezkaritza arautu zituen.

Denborarekin, ganberak gero eta eginkizun gutxiago izan zituzten, eta, gaur egun, Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza-ganberak ez dute inolako jarduerarik; izate juridikoa dute, zuzenbide publikoko korporaziozat, baina ez dute funtziorik eta finantziatorik.

Probintzia bakoitzeko nekazaritza-ganbera baten nahi-taezkotasuna ezabatu ondoren (irailaren 30eko 18/2005 Legeak abenduaren 24ko 23/1996 Legea indargabetu ondoren), izatezko egoera bat egokitu behar da zuzenbidean, eta, beraz, bidezkoa da Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako nekazaritza-ganberak ezabatzea eta Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza Ganberak arautu dituen ekainaren 15eko 6/1990 Legea indargabetzea, eta hori lege hone-tako artikulua bakarrean jasota dago.

• **Abenduaren 28ko 14/2007 LEGEA, Herri Pobretue-kiko Justiziaren eta Elkartasunaren Gutunari bu-ruzkoa.**

Lege honen helburua Euskal Autonomia Erkidegoan munduko pertsona eta herri pobretuekiko justiziaren eta elkartasunaren gutuna ezartzea da; horrela, oraingo na-zioarteko harremanetan dauden bidegabekeriako eta el-kartasunik ezari lotutako alderdi nagusiak arintzen lagunduta, giza garapen iraunkorra eta bidezkoa lortuko dugu planeta osoan.


Horretarako, Legean elkartasuneko akordio eta kon-promiso batzuk jasotzen dira, baita horiek ondo betetzeko garatuko diren jarduketak eta hitzarmenak ere.

• **Abenduaren 28ko 15/2007 LEGEA, Euskal Autono-mia Erkidegoko 2008ko Aurrekontu Orokorrak onesteari buruzkoa.**

2

Lurralde Historikoetako Batzar Nagusien legegintza jarduerara

VII.2.1. GRAFIKOA. LURRALDE HISTORIKOETAKO BATZAR NAGUSIEK ONETSITAKO FORU ARAUAK



Iturria: Geuk landuta, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialetan oinarrituz.

2007an, EAEko Lurralde Historikoetako Batzar Nagusien legegintza-jarduerara, onetsitako foru-arauetan oinarrituz neurtuta, orokorrean 2006koa baino handiagoa izan da.

Hain zuzen ere, Araban 2007an 22 foru-arau onetsi dira, 2006an (15 arau) baino nahiko gehiago.

Era berean, Bizkaian ere legegintza-jardueraren hazkunde egon da 2007an, eta 9 foru-arau onetsi dira (aurreko urtean 6).

Gipuzkoan, hala eta guztiz ere, bi urte horietan onetsitako foru-arauen kopurua oso antzekoa da: 2006an 11 eta 2007an 10.

